Euskal Autonomia Erkidegoa

MEMORIA

Sozioekonomikoa 2016

CES EGAB

Consejo Económico y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea

INPLOSIOEN URTEA

2016 urtean ziurgabetasuna izan zen nagusi munduaren zati handi batean. Bi inplosiok eragin zuten egoera, Atlantikoaren alde banatan. Bi hauetaz ari naiz: batetik, Erresuma Batua Europar Batasunetik irteteari buruzko erreferenduma, ekainean, eta, bestetik, Estatu Batuetako lehendakaritzarako hauteskundeak, azaroan. Bi kasuetan emaitzak ustekabekoak izan ziren, eta munduko testuinguru ekonomikoa astindu zuten; horrek beste ikaraldi bat ere izan zuen geroago, petrolioa esportatzen duten herrialdeek beren ekoizpena murrizteko akordioa hartu zutenean, urtea amaitu baino hilabete bat lehenago. 2016an, munduko merkataritza handitu zen, baina aurreko urteetako mailetara iritsi gabe; hazkunde apaleko ekitaldia: halaxe iritzi zion Nazioarteko Diru Funtsak. Europa ere, ez zen nabarmendu ekonomia-hazkundearen dinamismoagatik, kanpoko ingurune ahulak geldiarazita.

Ziurgabetasunez betetako urte baten testuinguru horretan, EAEko ekonomia hazi zen, jardueran zein enpleguan, eta azkenean ekitaldia positibotzat jo ahal izan zen. EAEn hazkundea % 3,1ekoa izan zen; hau da, 2015ean baino bi hamarren handiagoa, eurogunekoa baino handiagoa (% 1,7), eta Espainiako batez bestekoaren parean (% 3,2). Barne-eskariaren jokaeran oinarritu zen batez ere aurrerapena. 2016an, enplegua sortu zen, eta langabezia murriztu, jarduera-sektore guztietan, baita adin-tarte guztietan ere, emakumeen artean zein gizonen artean. Hala ere, errealitate horretan argi-ilunak daude; argien artean aipatzekoa da enplegu partziala, behin-behinekotasuna eta gazteen langabezia jaitsi izana. Argitasun hori, baina, iluntzen dute txandakatzeak, biztanleria aktiboa murriztu izanak, luzaroko langabeziaren kronifikazioak eta lan-pobreziak.

Egoera horren aurrean, erabakimenez jokatu behar dugu. Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea garen aldetik, gure eginbeharra da garrantzitsu deritzegun hobekuntza-eremuak seinalatzea, eta halaxe egiten dugu gure idazkietan, diren motatakoak direla ere: diktamenak, geure ekimenez egindako azterketak, nazioarteko lankidetzak, aldizkako dokumentuak (zuk ordenagailuaren edo gailu mugikorraren pantailan duzun hau, kasu)... Gure zeregina da hori azpimarratzea, hazkunde jarrai eta egonkorraren bidean jarraitu ahal izateko. 2016ko Memoria honekin, azpimarratzen dugu, beste urte batez, EAEko enpresen arteko lankidetza areagotu behar dela, hartara gure ekoizpen-egituraren tamaina txikiak dakarren handicapa orekatzeko. Halaber, azpimarratzen dugu desiragarria dela zerbitzu-sektoreko ezagutza intentsiboko arloetan diharduten enpresen hazkunde iraunkorra. Baita gure energia-garapenaren inguruko itun sozial eta ekonomiko baten beharra dagoela, mendekotasunak eta energia berriztagarrien proportzio txikiak oztopatzen baitituzte enpresen lehiakortasuna eta lurraldearen jasangarritasuna.

2016 urteak berretsi du EAEko gizarte-babeseko sistemak ondo funtzionatzen duela, gure erkidegoan Ongizate-Estatuaren oinarriei eustea ahalbidetzen baitigu. Pobrezia- eta bazterketa-arriskuaren adierazle nagusiak hobetu dira; hala ere, oraindik ez dira krisiaren aurreko mailetara iritsi. Intentsitate apalak eta ezegonkortasunak areagotzen dute gorago aipatu dudan lan-pobreziaren fenomeno hura. Gizarte-babeseko gure sistemak zailtasun handiko erronka handiei egin beharko die aurre datozen urteotan. Pentsioen sistemak gero eta saldo defizitarioagoa erakusten du, eta aurre egin

behar dien erronkak handiagoak dira biztanleriaren bizi-itxaropena handiagoa den neurrian. Azken gertaera horrek, eragin zuzena du osasun-gastuetan ere; izan ere, gero eta beharrizan handiagoei erantzun behar die, eta horiek erronka dira gizartearen kohesio eta ongizatearen iraunkortasunarentzat.

Osasunarekin batera, hezkuntzak hartzen du Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuen zatirik handiena; horrek islatzen du ongizateak nolako nagusitasuna duen funts publikoak banatzeko orduan. Esparru horretan, hezkuntza-adierazle on batzuk aurkitzen ditugu, eskola-porrotaren tasari buruzkoak, esaterako; baina PISAren azken ebaluazioak agerian utzi zituen zenbait gabezia, eta horiek areagotzen dira aztertzen baditugu errendimendu- eta bikaintasun-mailak. Unibertsitateak nazioartekotu behar ditugu, kanpoko talentua erakartzeko eta lotura sistemiko egonkor bat eratzeko prestakuntza-eskaintzaren eta lan-merkatuaren artean gure lanbide heziketan.

Bukaerarako utzi dut esparru bat, nire ustez, EAEko gizarteak aurre egin behar dien arazo larrienetako bat, urterik urte gero eta okerrago dagoen errealitate bat baita. Demografiaren geldialdiaz ari naiz, eta biztanleriaren zahartzeaz. Hirugarren urtez, negatiboa izan da jaiotzen eta heriotzen arteko saldoa. Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen iritziz egoera da “gaur egungo erronkarik handienetako bat”. Erronkari erantzuteko, politika publikoen orientazioa aldatu beharko litzateke, era transbertsal eta koordinatuan.

Sarrera labur honi amaiera emateko, nire eskerrik zintzoena agertu nahi diet beren ahalegin eta ardurarekin Memoria Sozioekonomiko hau ahalbidetu duten guztiei; memoria hau, bide batez, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak egin duen hogeigarrena da. Efemeride biribil honek agerian uzten du hura egiteko erabilitako metodoaren balioa: lan teknikoaren eta adostasun sozialaren konbinazio bat, zeinak gure memoria sozioekonomikoen ezaugarri bihurtu baitira, egoera ekonomiko-sozialaren ikuspegi orokor eta orekatuarekin batera. Horrela izateko, hura idazteaz ardura duen Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko batzordeak lan luze eta zehatza egiten du hilabeteetan zehar, adierazle sozioekonomiko ugari biltzen eta kontrastatzen. Datu horiek aztertu eta eztabaidatzen dira, harik eta adostasun-proposamenak ekarri arte, eta horiek, gero, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Osoko Bilkurak berretsiko ditu. Azken lerro hauetan, eskerrak eman behar dizkiet, eta haiekiko zorra aitortu, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko Memoria Sozioekonomikoaren Batzordea osatzen duten guztiei —eta gure historiako hogei urte hauetan osatu dutenei—: lehenik eta behin, haren presidentea, Inmaculada Gallastegui, eta gainerako kideak, zeinak hurrenkera alfabetikoan aipatuko baititut, balio berekoa izan baita guztien ekarpena: Raúl Arza, Maribel Ballesteros, Jon Barrutia, Lore Bilbao, Jaime Fernández, Ana García, Gregorio Martín, Pablo Martín, Pedro Martínez de Alegría, Juan Luis Martínez Ordorika, Virginia Múgica, Javier Muñecas, Mikel Ruiz, Pedro Luis Ustarroz eta Mari Cruz Vicente, baita Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Ikerketen eta Proiektuen arduradunak ere, Leire Ozerin eta Arantza Unzurrunzaga, 2016ko Memoria Sozioekonomikoa koordinatzeko eta idazteko egin duten lanagatik.

Francisco José Huidobro Burgos
Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Presidentea

I. KAPITULUA

DEMOGRAFIA EAEN 2

1. OINARRIZKO ADIERZLE DEMOGRAFIKOAEN BILADAERA 3

1.1. BIZTANLERIAREN BEREZKO MUGIMENDUA 3

1.1.1. Jaiotzak
1.1.2. Heriotzak

1.2. MIGRAZIO MUGIMENDUAK 6

1.2.1. Migrazio mugimenduen estatistika
1.2.2. Euskadiko gazteek beste AAEE batzuetara eta atzerrira izandako irteerak

1.3. EIN-EN 2016-2031RAKO BITANLERIAREN AURRIKUSPENAK 10

1.4. EZKONTZAK 11

1.4.1. Ezkontzak
1.4.2. Ezkontza desegiteak

2. INMIGRAZIOA EAE-N 14

2.1. TESTUINGURUA: IMMIGRAZIOA EUROPAR BATASUNEAN 14

2.2. IMMGRAZIOAK EAE-KO DINAMIKA DEMOGRAFIKOAN DUEN ERAGINA 15

2.3. BIZI-BALDINTZAK 2014KO AEI-REN EMAITZAK 18

2.4. BIZIKIDETZA. 2016KO BAROMETROA 19

3. DEMOGRAFIA EAEN: LABURPENA ETA GOGOETAK 22

3.1. LABURPENA 22

3.2. GOGOETAK 24

ITURRIAK 25

II. KAPITULUA

EKONOMIA EAEN 26

1. KANPOKO INGURUNE EKONOMIKOA 28

1.1. FAKTORE EKONOMIKO NAGUSIAK 28

1.2. EUROPAR BATASUNA. EUROGUNEA 30

1.3. ESPAINIAREN ETA ERKIDEGO AUTORNOMOEN EKONOMIA 33

1.3.1. Espainaren ekonomia
1.3.2. Autonomia Erkidegoak

ITURRIAK 34

2. EAE-KO ABAGUNE EKONOMIKOA 38

2.1. BILAKAERA OROKORRA 38

2.2. BARNE-ESKARIAREN AGREGATUAK 40

2.3. KANPO-ESKARIA 41

2.4. ATZERRIKO INBERTSIOA 44

2.4.1. Atzerriko inbertsioa EAEn
2.4.2. Euskal inbertsioa atzerrian

ITURRIAK 50

3. SEKTORE PRODUKTIBOAK 51

3.1. 3.1. ENPRESA-DEMOGRAFIA ETA EGITURA 51

3.1.1 Enpresa egitura
3.1.2. Enpresa errotazioa

3.2. LEHEN SEKTOREA 57

3.3. INDUSTRIA 58

3.4 ERAIKUNTZA 64

3.5 ZERBITZUAK 66

3.5.1. Merkataritza
3.5.2. Ostalaritza
3.5.3. Finantza sektorea

ITURRIAK 72

4. PREZIOAK, KOSTUAK ETA ERRENTAK 73

4.1. KONTSUMO ONDASUNEN ETA ZERBITZUEN PREZIOAK 73

4.2. KOSTUAK 74

4.3. ERRENTAK 78

ITURRIAK 81

5. SEKTORE PUBLIKOA 82

5.1. DIRU-SARRERAK 81

5.2 GASTUAK 86

5.3 AURREKONTU SALDOA 87

5.4 SECTORE PUBLIKOAREN ZORPETZEA 88

5.5. TRANSFERENTZIA INSTITUZIONALAK 90

ITURRIAK 92

6. PRODUKZIOAREN AZPIEGITURAK 93

6.1. TRANSPORTE: INFRAESTRUCTURA Y TRÁFICO 93

6.1.1. Azpiegiturak
6.1.2. Lur, trenbide, aire eta itsasoko trafikoa

6.2. ENERGIA: EKOIZPENA ETA KONTSUMOA 98

ITURRIAK 101

7. ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZA 102

7.1. I+G+B 102

7.1.1. I+G+B-ko Eukal sistemaren adierazle nagusiak
7.1.2. I+G jarduerak
7.1.3. Berrikuntza jarduerak
7.1.4. Europako berrikuntza-adierazleen panela, IUS 2014
7.1.5. 2014-2020ko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Planaren jarraipena

7.2. INFORMAZIO ETA KOMUNIKAZIOAK ETA TEKNOLOGIA 115

7.2.1. Familien eta populazioaren IKTen ekipamdenduak eta erabilerak
7.2.2. IKTen ekipamenduak eta erabilerak EAEko enpresetan
7.2.3. Interneten erabilera EAEko herritar eta enpresetan
7.2.4. Merkataritza elektronikoa EAEn
7.2.5. Administrazio elektronikoa

ITURRIAK 122

8. EAE-KO GIZARTE EKONOMIAREN KONTUAK 123

ITURRIAK 129

9. EKONOMIA EAE-N LABURPENA ETA ONDORIOAK 130

9.1. LABURPENA 130

9.2. GOGOETAK 138

III. KAPITULUA

LAN MERKATUA EAEN 144

1. JARDUERAREN, OKUPAZIOAREN ETA LANGABEZIAREN BILAKAERA 145

1.1. JARDUERA 145
1.2. OKUPAZIOA 146

1.2.1. Okupazioaren kopuruak
1.2.2. Afilizioa gizarte segurantzan

1.3. LANGABEZIA 151

1.3.1. Langabeziaren kopuruak
1.3.2. LANBIDEK (Enpleguko Euskal Zerbitzua) erregistraturiko langabezia

2. KONTRATAZIOEN BILAKAERA, ALDI BATERAKO KONTRATUEN AMAIERA ETA IRAIZPENAK 159

2.1. KONTRATAZIOAREN EGOERA 159
2.2. ERREGULAZIO-ESPEDIENTEEN ETA IRAIZPEN KOLEKTIBOEN BILAKEERA 165

3. LAN HARREMANAK 167

3.1. NEGOZIAZIO KOLEKTIBOA: SOLDATA IGOERA ETA LANALDIA 167
3.2. LAN GATAZKA 168
3.3. LANALDIA ETA LAN EGIN GABEKO DENBORA 170

4. SOLDATAK EAE-N 173

4.1. SOLDATEN EGITURARI BURUZKO 2014KO INKESTAREN EMAITZAK 173
4.2. 2015EKO LAN-KOSTUEI BURUZKO INKESTAREN EMAITZAK 174

5. EMPLEGURAKO POLITIKAK 176

5.1. ENPLEGURAKO POLITIKA AKTIBOAK 176

5.1.1. Enplegurako Euskal Estrategia 2011-2014: ex post ebaluazioa. Enplegurako Estrategia Berria 2020
5.1.2. 2014-2016 Enplegu plana
5.1.3. LANBIDEren jarduera
5.1.4. 2014ko PAESen veste zifra batzuk
5.1.5. Etengabeko trebakuntza

5.2. ENPLEGURAKO POLITIKA PASIBOAK 180

5.2.1. Langabeziako estaldura eta prestazioen jasotzaileak
5.2.2. Gastua eta sarrera langabezian

5.3. EZINDUEN ETA BAZTERKETA ARRISKUAN DAUDEN PERTSONEN ENPLEGURAKO ETA GIZARTE-LANEKO INKLUSIORAKO POLITIKAK 184

5.3.1. Ezinduen enplegu arrunta
5.3.2. Enplegu centro bereziak
5.3.3. Laneratze enpresak

6. LAN OSASUNA 189

7. LABURPENA ETA ONDORIOAK 191

7.1. LABURPENA 191

7.2. ONDORIOAK 196

ITURRIAK 197

IV. KAPITULUA

BIZI-KALITATEA EAEN 199

1. EAE-KO BIZI-BALDINTZAK 200

1.1. EAE KO BIZI-BALDINTZAK EUROPA MAILAN: "AROPE" TASA 200

1.1.1. Pobreziaren atalasetik behera dagoen biztanleria
1.1.2. Gabezia material larria
1.1.3. Lan-intentsitate osoko txikiko biztanleria

1.2. POBREZIARI ETA GIZARTE DESBERDINTASUNEI BURUZKO 2016KO INKESTA (PGDI): EMAITZA NAGUSIAK 204

1.3. BIZ-BALDINTZEI BURUZKO 2015EKO INKESTAREN EMAITZAK 208

1.3.1. Errenta
1.3.2. Gabezia materiala
1.3.3. Kultura kontsumitzeko mugak

1.4. BENETAKO POBREZIA EAE-N. EUROPAREKIKO ERKAKETA 212

1.4.1. Lan-pobrezia, Eusko Jaurlaritzaren 2016ko PGDIren emaitzen arabera
1.4.2. Europako erkaketa EUROSTATen datuekin (AROPE)

1.5. HIPOTEKA BETEARAZPENAK 215

1.6. FAMILIAK ETA LAN-BIZITZA, BIZITZA PERTSONALA ETA FAMILIA UZTARTZEA 218

1.6.1. Uztartzeko beharrak
1.6.2. Familiei laguntzeko politika publikoak

ITURRIAK 225

2. HEZKUNTZA ETA KULTURA 226

2.1. HEZKUNTZA 226

2.1.1. Unibertsitatez kanpoko irakaskuntzakas
2.1.2. Unibertsitateko irakaskuntzak
2.1.3. HezkuntzaadierazleaK

2.2. KULTURA 249

2.2.1. Finantzaketa eta gastua kulturan
2.2.2. Familien gastua kulturaren kontsumoan
2.1.3. "DONOSTIA 2016 Kulturaren Europako Hiriburua". Balantzea

ITURRIAK 253

3. INGURUNE NATURALAREN EGOERA EAE-N 254

3.1. AIREAREN KALITATEA 254

3.2. UR GEZA BILTZEA ETA KONTSUMITZEA 255

3.3. HONDAKINAK SORTZEA ETA KUDEATZEA 257

3.3.1. Hiri hondakinak

3.3.2. Hondakin arriskutsuak eta ez-arriskutsuak

3.4. INGURUMENAREN BABESA ETA MANUFAKTURA INDUSTRIA 261

ITURRIAK 262

4. OSASUNA ETA OSASUN SISTEMA 263

4.1. OSASUN EGOERA 263

4.1.1. Bizi-itxaropena
4.1.2. Mendetasun tasa
4.1.3. Heriotza tasa
4.1.4. Faktore erabakigarri ez medikoak

4.2. BALIABIDEAK ETA LAGUNTZA-JARDUERA. ANALISI-KONPARATUA 271

4.2.1. Laguntzako baliabideak
4.2.2. Osasun zerbitzuen jarduera, laguntzaren kalitatea eta zerbitzuon eskuragarritasuna

4.3. OSAKIDETZAREN LAGUNTZAKO JARDUERA 279

4.4. OSASUN ARRETA PRIBATUARI BURUZKO ESTATISTIKA: ASEGURU ASKEKO ERAKUNDEAK 282

4.5. OSASUN SISTEMAREN GASTUA ETA FINANTZAZIOA 282

4.5.1. Osasunaren kontua
4.5.2. Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren gastua
4.5.3. Osakidetzaren gastua

4.6. 2013-2020KO OSASUN PLANAREN EBALUAZIOA 286

ITURRIAK 291

5. ETXEBIZITZA 292

5.1. ETXEBIZITZAREN ESKAINTZAGUZTIRA 292

5.1.1. Salgai dauden etxebizitzen eskaintza eta prezioak
5.1.2. Alokairuko araubidea
5.1.3. Etxebizitzaren prezioen erkaketa, autonomia erkidegoen arabera
5.1.4. Eraikuntza eta etxebizitza

5.2. ETXEBIZITZA ESKARIA 298

5.2.1. Etxebizitza beharrak eta eskaria 2015ean
5.2.2. Familien finantza-ahalegina
5.2.3. ETXEBIDEn erregistraturiko etxebizitza babestuaren eskaria 2015
5.2.4. Atzerritarrak eta etxebizitza. 2015eko txostena

5.3.	HIGIEZINEN ARLOKO JARDUERA: ETXEBIZITZEN SALEROSKETA	306
5.4.	LA EAE-KO ETXEBIZITZA HUTSA. 2015EKO DATUAK	307
5.5.	ETXEBIZITZA POLITIKA	308

5.5.1. Eusko Jaurlaritzaren etxebizitza politika
5.5.2. Foru Aldundien etxebizitza politika

	ITURRIAK	314
6.	BIZI-KALITATEA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN: LABURPENA ETA ONDORIOAK	315
6.1.	LABURPENA	315
6.2.	GOGOETAK	331

V. KAPITULUA

GIZARTE BABESA EAEN 337

1. GIZARTE BABESAREN KONTUA 338

2. GIZARTE SEGURANTZAREN PRESTAZIOAK 340

2.1. GIZARTE SEGURANTZAREN PRESTAZIOAK TRANSFERITU GABEKO KUDEAKETAREKIN 340

2.1.1. Onuradunak
2.1.2. Gastua eta diru-sarrera

2.2. TRANSFERITUTAKO KUDEAKETA DUTEN GIZARTE SEGURANTZAREN PRESTAZIOAK: KOTIZAZIORIK GABEKO PRESTAZIOAK 344

3. POBREZIAREN ETA GIZARTE BAZTERKETAREN KONTRAKO NEURRIAK EAE-N 345

3.1. DIRU-SARRERAK BERMATZEKO SISTEMAREN PRESTAZIOAKS 346

3.1.1. Renta Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta
3.1.2. Etxebizitza gastuetarako Prestazio Osagarria
3.1.3. Gizarte Larrialdiko Laguntzak

3.2. GIZARTERATZEA ERRAZTEKO EGITARAUAK: HIRUGARREN SEKTOREKO JARDUERAK SUSTATZEKO DIRU-LAGUNTZAK GIZARTE ESKU-HARTZEAREN ARLOANL 350

4. MENDETASUNAREN ARRETA 352

4.1. DATU OFIZIALAK: IMSERSOREN 2016KO BALANTZEA 352

4.2. SEKTOREAREN BALANTZEA: MENDETASUNAREN BEHATOKIAIA 353

5. GIZARTE AURRESIKUSPENEKO SISTEMA OSAGARRIAK EAE-N 355

5.1. MAGNITUDE NAGUSIAK 355

5.2. ZERGA ARAUBIDEA 356

6. LABURPENA ETA ONDORIOAK 357

6.1. LABURBPENAK 357

6.2. ONDORIOAK 360

ITURRIAK 361

VI. KAPITULUA

ARAUGINTZA EAEN 364

DEFINIZIOEN GLOSARIOA 369

CES
EGAB

Consejo Económico
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

I. KAPITULUA

Demografia EAEn

Kapitulu honek, lehenik eta behin, oinarrizko adierazle demografikoak eskainiko ditu, EAEko populazioaren berezko mugimenduari (jaiotzak eta heriotzak), migrazio mugimenduei eta ezkontzei (ezkontzak eta desegiteak) buruzkoak, eta horien bilakaera eta Estatuan eta Europar Batasunean izandakoa erkatuko dira. Aurten, interes bereziko atal gisa, Euskadiko gazteak beste autonomia erkidegoetara eta atzerrira lanera joateari buruzko azterlanaren emaitzak aurkeztuko dira. Bigarrenik, Euskadin bizi diren etorkinei buruzko azken datuak emango dira (demografikoak, bizi-baldintzak eta bizikidetzakoak, gehienbat).

Nazio Batuen arabera, munduko biztanleria 7.300 milioi lagunekoa zen 2015ean. Bestalde, EUROSTATen zenbatespenen arabera, Europar Batasunak 510,1 milioi biztanle ditu, 2016ko urtarrileko datuekin, 2015eko urtarrilean baino 1,9 milioi gehiago. Milako 3,5eko hazkunde horri esker –milako 2,1ekoa zen aurreko urtean-, 1960etik etengabe izan den goranzko joerari eutsi ahal izan zaio. Izan ere, urte hartan 400 milioi biztanle zeuden Batasunean. Hazkunde hori soilik immigrazioaren bilakaerari zor zaio, zeren eta berezko hazkundea edo hazkunde begetatiboa (jaiotzen eta heriotzen arteko diferentzia), berez, negatiboa baita lehen aldiz Batasunean.

I.0.1. TAULA. EAE-KO BIZTANLERIAREN BILAKAERA BERRIA. 2011-2016

	2011	2012	2013	2014	2015	2016*	15-16 ald.*
ARABA	319.227	322.557	321.417	321.932	323.648	324.036	+388
BIZKAIA	1.155.772	1.158.439	1.156.447	1.151.905	1.148.775	1.147.302	-1.473
GIPUZKOA	709.607	712.097	713.818	715.148	716.834	717.755	+921
EAE	**2.184.606**	**2.193.093**	**2.191.682**	**2.188.985**	**2.189.257**	**2.189.093**	**-164**

Iturria: EIN. Biztanleen Udal Errolda.
** Behin-behineko datuak.*

EAEn, Biztanleen Udal Erroldan [1]emandako azken datuen arabera, 2016ko urtarrilekoak (behin-behineko zifrak), EAEko biztanleriak aldatu barik jarraitu du azken urtean (izan ere, 164 biztanle gutxiago izan dira), eta 2.189.093 biztanle ditu. Lurralde historikoei dagozkien datuek islatzen dutenez, biztanleriak pixka bat gora egin du Gipuzkoan (921 biztanle gehiago, %+0,1) eta Araban (%+0,1, 388 lagun gehiago). Bizkaian, berriz, behera egin du Bizkaian (%-0,1, zeren eta 1.473 biztanle galdu baititu).

Kopuru horiekin batera, aurrerago ikusiko denez, EAEn bizi diren atzerritar jatorriko biztanleen[2] %8,6ko pisua dator; 2015eko urtarrilaren 1ean, berriz, %8,4 izan zen. Atzerritar jatorriko biztanleriaren pisuak, aldiz, behera egin zuen Estatuan (%13,2tik %13,1era), EAEko datua Espainiako batez bestekotik oraindik oso urruti badago ere –erroldaren azken eguneratzearen arabera, talde hori 6 milioi eurokoa da-, eta batez ere zenbait erkidegotatik hala nola Balearretatik, Valentziako Erkidegotik eta Madrilgo Erkidegotik, non oso portzentaje handia baita.

1 Udal Errolda erregistro administratiboa da, eta Espainian dauden 8.000tik gora udaletako bakoitzak eratu, mantendu eta kudeatu behar du. Errolda horren datuak udal-mugartean bizilekua eta egoitza izatearen froga dira, eta bere egiztapenak agiri publiko eta fede-emaileak dira, ondorio administratibo guztietarako.

2IKUSPEGI Immigrazioaren Euskal Behatokiak EAEn bizi diren etorkizunen gaineko bere azterketetan sartu dituen aldaketa metodologikoak direla-eta, atzerritarren jaioterrikoak (ez nazionalitatekoak) dira kapitulu honetan aurkeztuko diren datuak. Horrexegatik, eta Memoria honen aurreko edizioetan ez bezala, ***atzerritar jatorrikoen biztanleria*** *aztertzen da, atzerriko nazionalitateari eutsi zein ez. Hartara, kapitulu honetako 2.2. ataleko serie historikoak berrikusi eta adierazle berrira egokitu dira.*

1. OINARRIZKO ADIERAZLE DEMOGRAFIKOEN BILAKAERA

1.1. BIZTANLERIAREN BEREZKO MUGIMENDUA

Euskal Autonomia Erkidegoan 2014ko behin-behineko datuek hazkunde begetatibo (jaiotza eta heriotzen arteko alde gisa zenbatzen den biztanle-aldaketa, immigrazio-mugimenduak kontuan hartu barik) negatiboa erakusten dute, saldo positiboak izandako 9 urteren ondoren: urte honetan 18.851 jaiotza gertatu dira, aurreko urtean baino % 2,7 gutxiago, eta guztira 21.509 heriotza, hots, milako -1,2. 2015eko saldoa negatiboa da eta, horren ondorioz, jaiotzak gutxitu eta gainera heriotzek gorantz jarraitzen dute.

I.1.1. TAULA. EAE-KO BIZTANLERIAREN BEREZKO MUGIMENDUA

	BIZIRIK JAIOAK	TASA	HERIOTZAK	TASA	HAZKUNDE BEG.	TASA
2008	21.315	9,9	19.437	9,0	1.878	0,9
2009	20.928	9,7	19.624	9,1	1.304	0,6
2010	21.159	9,7	19.357	8,9	1.802	0,8
2011*	21.180	9,7	19.832	9,1	1.348	0,6
2012*	20.533	9,4	20.281	9,3	252	0,1
2013*	19.118	8,8	19.692	9,0	-574	-0,2
2014*	19.378	8,9	20.157	9,3	-779	-0,4
2015*	18.851	8,7	21.509	9,9	-2.658	-1,2

(*) Behin-behineko datuak. Tasa mila biztanleko.
Iturria: EUSTAT. Jaiotzen eta Heriotzen Estatistika, geuk egina.

Ohikoa denez, joera desberdina da lurraldeak aintzakotzat hartuz gero: Bizkaiak, 2014. urtean 1.415 biztanle galdu zituenak, 2015ean berriro ere galdu ditu 2.479 biztanle, behin-behineko datuen arabera. Bestalde, Arabak urte horretan joera positiboari eutsi dio, eta biztanleria 392 pertsonan hazi da (+800 2014an); aitzitik, Gipuzkoak 571 biztanleko saldo negatiboa dauka (-164 2014an).

1.1.1. Jaiotzak

Jaiotza kopuruak behera egin du hiru lurraldeetan: 2015ean, EAEko jaiotzen %2,7ko batez besteko jaitsieraren aurrean, Araban 3.159 ume jaio ziren (%-3,6), Bizkaian 9.331 jaiotza erregistratu ziren, aurreko urtean baino %4,2 gutxiago. Gipuzkoan, berriz, eutsi egiten zaio jaiotza kopuruari: 6.361 jaioberri, 2014ko kopuru berdina. Emaitza horien ondorioz, milako 8,7ko jaiotza-tasa da EAEn (milako 8,9 2014an). 1976. urtean, ratio hori milako 19,7, eta Estatuko batez bestekoaren gainetik. Gaur egun, Estatuko (9 milako) eta EBko (10 milako) batez bestekoen azpitik dago EAE..

Lurraldez lurralde, Arabak milako 9,8ko jaiotza-tasa du –hiru lurraldeetatik handiena-, Bizkaiak 8,12koa –txikiena- eta Gipuzkoak milako 9,0koa.

I.1.2. TAULA. JAIOTZAK ETA HERIOTZAK MILA BIZTANLEKO EB-N. 1975 ETA 2015 URTE ARTEKO ALDERAKETA.

	JAIOTZAK		HERIOTZAK	
	1975	2015	1975	2015
28KO EB	14,7	10,0	10,7	10,3
ALEMANIA	9,9	9,0	12,6	11,3
AUSTRIA	12,4	9,8	12,7	9,6
BELGIKA	12,2	10,9	12,2	9,8
BULGARIA	16,6	9,2	10,3	15,3
ZIPRE	16,3	10,8	9,8	6,9
DANIMARKA	14,2	10,2	10,1	9,2
ESLOVAKIA	20,6	10,3	9,5	9,9
ESLOVENIA	16,6	10,0	10,1	9,6
ESPAINIA	18,8	9,0	8,4	9,0
ESTONIA	14,9	10,6	11,6	11,6
FINLANDIA	13,9	10,1	9,3	9,6
FRANTZIA	14,1	12,0	10,6	9,0
KROAZIA	:	8,9	:	12,9
GREZIA	15,7	8,5	8,9	11,2
HOLANDA	13,0	10,0	8,3	8,7
HUNGARIA	18,4	9,4	12,4	13,4
IRLANDA	21,1	14,2	10,4	6,4
ITALIA	14,9	8,0	10,0	10,7
LETONIA	14,2	11,1	12,2	14,4
LITUANIA	15,7	10,8	9,5	14,4
LUXENBURGO	11,1	10,7	12,2	7,0
MALTA	18,8	10,0	9,5	8,0
POLONIA	19,0	9,7	8,7	10,4
PORTUGAL	19,8	8,3	10,8	10,5
ERRESUMA BAT.	12,4	11,9	11,8	9,3
TXEK. ERREP.	19,1	10,5	12,4	10,5
ERRUMANIA	19,6	9,3	9,3	13,2
SUEDIA	12,6	11,7	10,8	9,3
EAE	**19,1**	**8,7**	**7,1**	**9,9**

Iturria: EUROSTAT eta EUSTAT.

I.1.1. GRAFIKOA. JAIOTZE-TASEN BILAKAERA LURRALDEEN ETA AMA EZKONGABEARENGANDIK JAIOTAKOEN PORTZENTAJEAREN ARABERA.



Iturria: EUSTATen datuekin eginikoa. JAIE

Horrez gain, jaiotza-tasak oso desberdinak dira amaren herritartasuna kontuan hartzen bada. Espainiako nazionalitatea duten amen artean, jaiotza kopurua %4,5 jaitsi zen. Atzerritarren artean, berriz, %5,1eko igoera gertatu zen. 2015. urtean bizirik jaio ziren 18.851 haurretatik 3.731ek ama atzerritarra dute, alegia, jaiotakoen % 19,8k (%18,3 2014an), herritartasun atzerritarra duten biztanleen proportzioa nahikoa txikiagoa denean, dagoeneko ikusi den moduan. Jatorriko herrialderik ohikoenak, 2014an (eskuragarri dugu azken datua) Maroko (ama atzerritarrengandik jaiotakoen % 16,7), Errumania (% 9,8) eta Kolonbia (% 7) dira.

Beste urte batez, azpimarratu behar da ama ezkongabeengandik jaiotakoen portzentajea gero eta handiagoa dela[3]. 2015. urtean ezkontzatik kanpo jaiotakoak 7.836 izan ziren, guztien % 41,6 (% 39,9 aurreko urtean) eta % 4,3ko igoera. Bizkaia izan zen EAEn ehuneko handiena izan zuen lurraldea (% 43,3) eta Araban eta Gipuzkoan balio erlatibo txikiagoak izan ziren (% 40,7 eta % 39,4 hurrenez hurren). Egungo ehunekoa orain hamar urtekoekin (% 23,2 2005ean) alderatuz gero, ikusten da ama ezkongabeengandik jaiotako haurren ratioa ia bikoiztu egin dela.

I.1.2. GRAFIKOA. JAIOTZEN BILAKAERA AMAREN ADINAREN ARABERA. EAE



Iturria: EUSTAT. Jaiotzen estatistika. Eskuragarri dugun azken datua

Herrien arabera, ama ezkongabeengandik jaiotako umeen EBko ehunekoak Bulgariako eta Esloveniako (% 58tik gora) mailen eta Kroazia (% 17,4) edo Greziakoen (% 8,2) artean mugitzen dira. Batasuneko batez bestekoa % 39,3 zen 2012an (eskuragarri dugun azken datua), eta bertatik kanpo, nabarmentzekoa da Islandiako ratio handia. Bertan, 2012an jaiotakoen %66,9 amak ezkongabeak izan ziren.

[3] *Ezkontzatik kanpoko ama ezkongabeen jaiotzek ez dute esan nahi ezinbestean bikoterik ez dagoela, ezkontzarik izan gabe eta ezkontzatik kanpora ere gerta baitaiteke jaiotza.*

Bestalde, EUROSTATen datuen arabera, 2015ean guztira 5,1 milioi jaiotza izan ziren EBn (milako 10,1), 2014ko antzeko datua, 5 urtez behera egin ondoren. Jaiotza-tasarik handienak Irlandan eta Erresuma Batuan izan dira (milako 14,2 eta 12 hurrenez hurren). Tasarik txikiena, aldiz, Italian izan da (milako 8,3), eta ondoren Portugalen izan da (milako 8).

Azken urteetan jaiotza-tasa jaisteari mesede egin dion faktoreetako bat, jakina den bezala, amatasuna pixkanaka atzeratu izana da. 2015ean joera bera egon da, eta haurrak izan zituzten emakumeen % 81,6k 30 urte edo gehiago zituzten. Talderik ugariena 30 eta 34 urte arteko emakumeei dagokie, jaiotza guztien % 37,8arekin.

Halaber, 35 urtetik gorako amek izandako haurren jaiotza kopuruak (% 43,8) handitzen jarraitzen du, eta 25 eta 29 urte arteko taldea (% 13,3) nabarmen gainditzen du. Ama nerabeak guztizkoaren %1,2 dira. Espainiar nazionalitateko amen batez besteko adina 34,1 urtekoa izan zen. Ama atzerritarrena, berriz, 30,8 urtekoa (33,4 emakume guztiak hartuta). Halaber, lehen haurra izan duten amen batez besteko adina, 2015an, 32,4 urte da.

1.1.2. Heriotzak

2015ean, 21.509 heriotza izan ziren EAEn, aurreko urtean baino %6,7 gehiago, emakumeen eta gizonen artean portzentaje berean banatuta (%50). 2015ean zendutakoen % 29,7 tumoreengatik hil ziren. Haien atzean, zirkulazio sistemaren gaitzak datoz, % 26,9, eta hirugarren tokian, urrunago, arnas eritasunak, % 9,9[4].

I.1.3. GRAFIKOA. EAE-N HILDAKO PERTSONEN BATEZ BESTEKO ADINAREN BILAKAERA, SEXUEN ARABERA.



Iturria: EUSTAT. Heriotzen estatistika

Europar Batasuneko kopuruei erreparatuta, 2015eko datuen arabera, 5,23 milioi pertsona hil ziren, aurreko urtean baino 28.000 pertsona gutxiago (milako 10,3ko tasa da), eta, beraz, hazkunde begetatiboa edo berezkoa (jaiotzak ken heriotzak) negatiboa izan zen Batasunean, 135.000 lagun ingurukoa.

Bestalde, EUSTATen Heriotzen Estatistikak erakusten duenez, EAEko heriotza-tasa milako 9,9 zen (9,3 milako 2014an) 2015ean. 2015. urtean hil zirenen batez besteko adina 79,9 urtean kokatzen da gure Erkidegoan, 76,6 gizonezkoetan eta 83,2 emakumezkoetan, emakumeen bizitza luzeagoa baita. Hala, azken hamarkadan gure autonomian bizi-esperantza gizonentzat 3,6 urte handitu da eta emakumeentzat, berriz, 2,1. Gainera, 2014an EAEn 2015ean hildako 344 pertsonek 100 urte edo gehiago zituzten, eta horietatik %81,7 emakumezkoak ziren. 100 urte beteta hiltzen diren pertsonen ehunekoa, %1,6, bikoiztu egin da azken hamarkadan (% 1 zen 2005ean).

[4] *Memoria Sozioekonomiko honetako IV.4 osasunari buruzko kapituluan xehetasunez aztertzen dira euskal gizartearen heriotza-arrazoiak.*

1.2. MIGRAZIO MUGIMENDUAK

1.2.1. Migrazio mugimenduen estatistika

"Migrazio Mugimenduei buruzko 2015eko Estatistikak" zenbatu zuenez, urte horretan gure erkidegoak 3.362 biztanle irabazi zituen, (2014an 3.602 irabazi zituen, bi urtez jarraian migrazio saldo negatiboak izan ondoren[5]. Lurraldeen arabera, Bizkaiak 970 irabazi ditu, Arabak 555 eta Gipuzkoak 1.837.

I.1.3. TAULA. MIGRAZIO SALDOEN BILAKAERA EAE-N

	ATZERRIKO EKIN	ESTATUKO GAINERAK.	MIGRAZIO SALDOA*			
			EAE	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
2009	2.539	4.014	**6.553**	2.848	2.135	1.570
2010	1.439	3.727	**5.166**	1.078	2.153	1.935
2011	1.554	6.638	**8.192**	2.386	3.490	2.316
2012	-5.468	5.241	**-227**	-1.714	-935	2.422
2013	-5.176	3.220	**-1.956**	82	-3.426	1.388
2014	-2.207	5.809	**3.602**	1.326	81	2.195
2015	2.415	947	**3.362**	555	970	1.837

(*) Estatuarekiko eta atzerriko herrialdeekiko migrazio-saldoarekin batuketa.
Iturria: EUSTAT. "Migrazio Mugimenduei buruzko Estatistikak".

EAEren eta gainerako autonomia erkidegoen artean gertaturiko mugimenduei dagokienez, 2015ean 947 laguneko saldo positiboa izan zen, hots, immigrazio gehiago gertatu ziren emigrazioak baino. Bestalde, atzerriko herrialdeekiko migrazio saldoa positiboa izan zen, 2.415 lagun gehiago, noiz-eta aurreko hiru urtean negatiboa izan zenean (-2.207 2014an).

Europar Batasun osoko joerei buruz EUROSTATek emandako datuek zera agertzen dute: 90eko hamarkadan nahiko jaitsiera handiko aldiaren ondoren, EBn nazioarteko migrazio mugimenduen saldo positiboa 2003an bi milioi pertsona gehiagoren bidez hazi zen, finkatutako datuen arabera. 2015ean, migrazio saldo positiboa bikoiztu egin da 2014koaren aldean, guztira +1,89 milioi lagun (+0,98 milioi aurreko urtean), eta milako 3,7ko migrazio tasa gordina dago EBn eta milako 4,2, eurogunean. Saldo positiboaren % 60,8 Alemaniari dagokio eta % 21,2 Erresuma Batuari. Bestalde, Batasuneko hamaika herrik (Bulgaria, Irlanda, Grezia, Espainia, Kroazia, Zipre, Letonia, Lituania, Polonia, Portugal eta Errumania) migrazio saldo negatiboak dauzkate.

I.1.4. GRAFIKOA. EAE-KO MIGRAZIO SALDOEN BILAKAERA



Iturria: EUSTAT. Migrazio Mugimenduen Estatistika

Bestalde, 2015ean, 215.929 lagunek, aurreko urtekoaren antzera, bizileku aldaketaren bat egin zuten EAEn (EAEko biztanleen %9,9k); mugikortasun horren %45 udal beraren barruan izan zen (97.219 joan-etorri guztira). Erkidego barneko mugikortasunak (jatorria eta helmuga EAEko udalerrien artean) 50.238 mugimendu gehiago dakartza. Gainontzekoetatik, 35.917 mugimendu kanpoko immigrazioak lirateke (jatorria erkidegotik kanpo eta helmuga EAE) eta -14.405 kanpoko emigrazio jatorria EAE eta 32.555 kanpoko emigrazioak (jatorria EAE eta hortik kanpora dutela), haietatik 11.990 helmuga atzerrian dutela.

Kanpoko eta erkidegoaz kanpoko mugikortasun geografikoak 2015ean EAEko mila biztanleko 32ri eragin zien (Araban milako 36,9ri, Bizkaian milako 29,9ri eta Gipuzkoan milako 31,7ri). Tasa horiek baxu samarrak dira gainerako autonomia erkidegoekin alderatuz gero, batez beste mila biztanleko 37 mugitzen baitira. Estatu Autonomia Erkidego guztiek, kasu honetan salbuespenik gabe, biztanle gehiago ematen diote EAEri handik jasotzen dutena baino (gehien ematen dutenak Gaztela eta Leon eta Madril dira); EAEko migratzaileentzat erakarpen-gune diren erkidegoak, berriz, hauexek dira ordena

[5] *2000-2014ko seriea, EUSTATek berriz zenbatetsia 2016an, hainbat iturri baliatuz, gehienbat erroldakoak.*

honen arabera: Madril, Gaztela eta Leon, Kantabria, Katalunia, Andaluzia eta Nafarroa. Sei erkidego horien artean EAE uzten duten pertsonen % 65 jasotzen dute.

Bestalde, atzerriko nazionalitateko pertsonen immigrazioak, 2015ean, 18.709 pertsona bildu zituen, 2014an baino 107 gehiago. Horietatik 6.497 beste erkidego batzuetakoak dira, eta 11.762 atzerritik datoz zuzenean. Atzerritarren emigrazioak, berriz, 2015ean 13.622 lagunenak izan ziren, 2015ean 710 baino gutxiago.

I.1.4. TAULA. EAE-KO MIGRAZIO SALDOA, JATORRIKO ETA XEDEKO AUTONOMIA ERKIDEGOAREN ARABERA. 2015

	EAE GUZTIRA			SALDOA ARABAN	SALDOA BIZKAIAN	SALDOA GIPUZK.
	IMMIGRAZIOA	EMIGRAZIOA	SALDOA			
GUZTIRA	**35.917**	**32.555**	**3.362**	**555**	**970**	**1.837**
ANDALUZIA	2.027	1.729	343	34	175	134
ARAGOI	589	542	47	7	58	-18
ASTURIAS	457	388	69	16	41	12
U. BALEARRAK	452	496	-44	-23	-45	24
U. KANARIARRAK	825	856	-31	23	-46	-8
KANTABRIA	2.081	1.992	89	-17	102	4
GAZTELA MANTXA	3.080	2.536	544	298	178	68
GAZTELA ETA LEON	722	515	207	45	124	38
KATALUNIA	2.346	2.293	53	-12	37	28
VALENTZIAKO E.	1.722	1.498	224	58	52	114
EXTREMADURA	580	784	93	22	57	14
GALIZIA	979	1.014	-35	10	-18	-27
MADRIL	2.485	3.222	-737	-107	-512	-118
MURTZIA	317	369	248	58	79	111
NAFARROA	1.390	1.518	-128	-26	-40	-62
EAE	**0**	**0**	**0**	**0**	**0**	**0**
ERRIOXA	1.011	1.025	-14	91	-87	-18
CEUTA-MELILLA	104	85	19	-7	11	15
ATZERRITARRAK	14.405	11.990	2.415	85	804	1.526

Iturria: EUSTAT. Migrazio Mugimenduen Estatistika.

Azkenik, Migrazio Mugimenduen Estatistikak agerian uzten dutenez, etorkinen eta migratzaileen batez besteko adina desberdina da (33,5 eta 36,4 urte hurrenez hurren), eta mugimenduak egiten dituzten biztanleen generoa kontuan hartuz gero, etorkinen % 51 gizonak dira (% 49 emakumeak). Emigrazioetan, berriz, sexuen arteko aldea handiagoa da: %54 gizonak eta %46 emakumeak.

1.2.2. Euskadiko gazteek beste AAEE batzuetara eta atzerrira izandako irteerak

2016an, IKUSPEGIK, Immigrazioaren Euskal Behatokiak, txosten bat egin zuen, EAEko 18-34 urte bitarteko gazteek beste autonomia erkidego batzuetara eta atzerrira eginiko irteerei buruzkoa, zertarako-eta honako ideia hau erkatzeko: gure Erkidegoa giza kapital garrantzitsua galtzen ari dela emigrazio horiekin, krisiaren ondorioz. Txostenean, azterturiko bizileku aldaketen gaineko datuak nabarmentzen dira, Erroldako altei eta bajei buruzkoak. Ez dute mugimendu demografikoen errealitate osoa erakusten, baina ikerketaren xedearen inguruko datu objektiboak eta ofizialak eskaintzen dituzte, hori bai. Horrez gian, bilakaeraren mailako informazioa eskaintzen dute, 2000 eta 2014 urte bitarteko informazioa baitute, eta horri esker, 2000-2007 hazkunde aldia eta 2008-2014 krisialdia erkatu daitezke.

I.1.5. GRAFIKOA. ERROLDAKO BAJA KOPURUAREN BILAKAERA, 18-34 URTE BITARTEKOEN JOMUGAREN ARABERA. EAE.



Iturria: IKUSPEGIk egina, EINen mikrodatuekin

Lehenik eta behin, gazteek Estatuko beste toki batera edo atzerrira eginiko irteeren kopuruak (erroldako bajak alta berririk izan gabe EAEren beraren barruan) igoz joan da 2000. urtetik (1.967) eta 2014ra arte (4.088); izan ere, epealdiaren hasieran taldearen %0,3 izanik, epealdiaren amaieran %1,1 zen. Baja horiek nabarmen egin zuten gora hazkunde aldian (2000-2007), eta gorantz jarraitzen dute krisialdiko lehen urteetan; gehienekoa 2009an lortu zen (4.504 irteera). Urte hartatik hasita, irteerek 4.000tik gorako kopuruei eusten diete, baina egonkortu egiten dira. Are gehiago, kasuren baten behera ere egiten dute. Horrela, adin-talde horren irteeren portzentajearen igoera, batez ere, adin-talde horren murrizketagatik gertatu da, irteeren gehikuntzagatik baino gehiago.

Irteera horiek kontsideraturiko epealdian batuta kontuan hartzen badugu, guztira 53.012 dira, eta horietatik %44,7 2000 eta 2007 bitartean izan ziren, %55,3 20008 eta 2014 bitartean. Horrez gain, irteera horietatik guztietatik %63,4, 33.586, Estatura izan dira eta gainerako % 36,6a, 19.426, atzerrira. Alabaina, portzentaje horretan, alde nabarmenak antzematen dira denboran: atzerrirako irteerak, hasieran, oso gutxi ziren (irteeren %17,1 2002an, datu hori dugun lehenbiziko urtean hain zuzen), baina proportzioa igo egin zen epealdian, eta 2012tik hona, irteera gehiago dago atzerrira Estatuko gainerako tokietara baino (%50,4 2014an).

Txostenean, datu horiek EAEko 18-34 urte bitartekoen irteerak (altak erroldan) lotzen dira, bien artean dagoen erlazioan zein den jakiteko. Nabarmentzen denez, alten batura hori azterturiko epealdian, orotara 252.293, bajen guztizko kopurua baino nabarmen handiagoa da, eta alten aldeko diferentzia 199.281 da. Horrez gain, EAEn bizi diren herritarren kopuruan izandako hazkundea, ageri denez, neurri handi batean migrazio saldoagatik eta immigrazioaren gehikuntzagatik gertatu da, atzerriko herrialdeetako batik bat. Berez, helduera kopururik handiena 2004-2011 aldian gertatu zen, EAEra etorkin gehien etorri ziren urteekin bat etorrita. 2012tik hasita, helduera horiek murriztu eta migrazioaren boomaren aurreko kopuruetara hurbildu ziren.

Altaren jatorriari buruzko datuek erakusten dutenez, azterturiko epealdiak oso orekatuta daude, zeren eta %50,6 Estatutik iritsi baitira eta %49,4 atzerritik. Estatutik nagusi diren helduera horiek azterturiko aldiko lehen urteetan gertatzen da, eta azkenengoetan ere bai. Bitarteko aldian, atzerriko etorkinen helduerarekin bat etorrita, atzerritik datozen altak dira nagusi. Are gehiago, 2006 eta 2007 urteetan guztizkoaren %60tik gorakoak dira. Horri dagokionez, ezin ahantzi daiteke ezen, oparoaldi ekonomikoan atzerritarrak gehienbat atzerritik etorri baziren ere, krisialdian eta batez ere 2012tik hasita, beste AAEE batzuetatik etorritako atzerritar jatorriko pertsonen kopuruak nabarmen egin duela gora.

I.1.6. GRAFIKOA. EAE-KO 18-34 URTE BITARTEKOEN ERROLDAKO BAJA KOPURUAREN BILAKAERA, JATORRIAREN ARABERA



Iturria: IKUSPEGIk egina, EINen mikrodatuekin

Ondoren, pertsonaren jatorria aztertzen da irteeretan (erroldako bajak), Espainian jaiotakoak eta atzerrian jaiotakoak bereiziz, hain zuzen ere atzerritar jatorriko etorkinek Euskaditik eginiko irteeren gainean duten pisua zien den jakiteko eta datu horietan atzerritarrak nazionalizatzeko prozesuetan duten bereizketa ekiditeko. Datuek bilakaera argia erakusten dute hasierako urteetatik, noiz-eta atzerrian jaiotako biztanleriaren proportzioa oso txikia zenean (%8,7 2000an), baina 2004an % 30,2ra iritsi zen eta 2007an %40a gainditu zuen. Gainera, 2008ko irteeren erdia baino gehiago ziren. Aldiaren amaieran, %59,1eko pisua zeukan irteera guztiekiko.

Puntu horretan, txostenak aitortu egiten du biztanleria autoktonoaren bajak agertzen direnak baino gehiago direla, zeren eta pertsona horiek lekuz aldatu eta ez baitute bajarik ematen, erroldan inskribatuta jarraitzen baitute, beste tokiren batean alta eman ezean. Atzerritarrek, ordea, bi urterik behin ez badute berritzen errolda, automatikoki ematen zaien baja. Nolanahi ere, Immigrazio Behatokiak uste du datu horiek nahikoak egikotzen zaizkiola azken urteetan gertatzen ari den egoerari.

I.1.7. GRAFIKOA. EAE-KO 18-34 URTE BITARTEKOEK ATZERRIRA ETA ESTATUKO GAINERAKO AAEE-ETARA EGINIKO IRTEEREN BILAKAERA, JATORRIAREN ETA JOMUGAREN ARABERA. JOMUGAREN GAINEKO PORTZENTAJEAK. 2002-2014



Iturria: IKUSPEGIk egina, EINen mikrodatuekin

Eta, irteeren jomuga bereiziz gero –atzerrira edo Estatuko gainerako tokietara- eta "jaioterria" aldagaiarekin gurutzatuz gero, hor ere alde handiak ikusten dira biztanleria autoktonoaren eta atzerritarren artean: biztanle autoktono gehienak Estatura aldatzen dira bizilekuz (hain zuzen ere azterturiko aldietako irteera guztien %80 inguruko portzentajeekin, %81,7koa epealdi osoan), eta atzerrirako irteeren portzentajeak nahikoa egonkor eusten dio, %16,7 inguruan hazkunde aldian eta %19,9 atzeraldian. Atzerrian jaiotako biztanleria, berriz, atzerrira aldatzen da gehienbat. Kasu honetan badira aldeak, ordea, abagunearen arabera: 2002 eta 2007 bitartean, irteerak gehienbat (guztizkoaren %54,6) Estatura izan ziren, 2008 eta 2014 bitartean proportzio hori irauli eta atzerrirako irteerak guztizkoaren %69,4 izan ziren. (Epealdi osoan, %62,7ko proportzioak). Datu horiek ikusita pentsa liteke aldaketa gertatu dela atzerritar gehiago itzultzen delako jatorriko herrialdeetara edo hirugarren herrialdeetara doazelako krisialdian.

Datu horietan ez da jokabide aldaketa nabarmenik antzematen hazkunde aldiaren eta krisialdiaren artean. Krisialdian, gora egin zuen irteeren kopuruak, baina gehienbat atzerritar jatorriko biztanleek egiten dituztenen ordez. Hortaz, emandako datuek zalantzan jartzen dute EAEtik beste herrialde batera doan gazte autoktonoaren irudia. Aitzitik, ekonomiaren oparoaldian EAEra bizi izatera etorri ziren atzerritar etorkinen irudia ageri da eta, krisiaren edo bestelako faktoreen eraginez, jatorriko herrialdera itzuli edo beste herrialde batera berriz emigratzen erabakitzen dute.

1.3. EIN-EN 2016-2031RAKO BITANLERIAREN AURREIKUSPENAK

EINek biztanleriari buruzko aurreikuspen gehiago egin ditu 50 urterako Estatu osoan eta 15 urterako autonomia erkidegoen araberako xehetasunean, 2031ra arte. Izan ere, azken hori aurkeztuko da Memoria honetan. Espainian bizi diren biztanleen tamaina eta egitura demografikoaren gaineko estatistika simulazioa da aurreikuspen hori, betiere egun ikusitako joera, eta jokabide demografikoek beren horretan jarraitzen badute ugalkortasunaren, heriotza-tasen eta migrazioen aldetik.

Lehenik eta behin nabarmentzen da EAEn ere aurreikusitako aldian (2016-2031) autonomia guztietarako aurreikusten den joera orokorra antzematen dela, hots, biztanleriak behera egingo duela. Orain arte ikusitako bilakaera demografikoari eusten bazaio, autonomia erkidego gehienetara hedatuko da biztanleriaren galera hori, gurea barne, baita Estatu osoarena ere.

Zenbatespenen arabera, Estatuak datozen 15 urteetan biztanleriaren %1,2 galduko du, 552.245 biztanle. EAEk, berriz, %3,7, guztira 79.451 biztanle. Jaitsiera erlatiborik handienak Asturiasen (%-11,1), Gaztela eta Leonen (%-10,7) eta Galizian (%-8,5) ageri dira. Murtzian, Madrilgo Erkidegoan, U. Balearretan, Katalunian, Ceutan eta Melillan, berriz gora egingo luke biztanleriak.

Bilakaera demografikoaren osagaiei erreparatuz gero, lehenik eta behin berezko saldoa dugu. Biztanleriaren zahartzearen eta jaiotza-tasen jaitsierak ikusita, Espainian heriotza gehiago egongo lirateke jaiotzak baino (hazkunde begetatibo negatiboa) aurreikuspenaren xedeko aldi osoan (izan ere, azterturiko aldi osoan, 2065. Urtera arte). Mila biztanleko saldoa Estatuan -24,7 izango da, eta EAErako jaitsiera batez besteko hori bi halako izango da milako -48,1. Erkidego gehienek saldo negatiboa izango dute, bereziki Asturiasek (milako -126,4) eta Galiziak (-milako 98,1).

I.1.6. TAULA. BIZNTANLERIA AURREIKUSPENAK AAEEen ARABERA. 2016-2031. OSAGAIAK 1.000 BIZTANLEKO

	GUZT. ALDAK.L		SALDO	MIGRAZIO SALDOA	
	ABS.	%	BEGETAT.	KANP.	BARN.
ANDALUZIA	-15.515	-0,2	-9,2	19,8	-12,4
ARAGOI	-65.371	-5,0	-48,1	2,6	-5,4
ASTURIAS	-115.596	-11,1	-126,4	12,5	-3,6
U. BALEARRAK	87.708	7,7	5,3	51,5	17,1
U. KANARIARRAK	120.284	5,6	-18,8	72,7	0,6
KANTABRIA	-36.695	-6,3	-75,8	9,6	1,4
GAZTELA-MANTXA	-140.124	-6,8	-33,9	1,8	-38,7
GAZTELA ETA LEON	-262.068	-10,7	-93,8	9,7	-29,8
KATALUNIA	16.182	0,2	-12,9	13,5	1,5
VALENTZIAKO E.	-114.990	-2,3	-30,8	5,5	1,8
EXTREMADURA	-66.454	-6,1	-51,8	4,9	-16,2
GALIZIA	-262.068	-8,5	-98,1	10,1	-0,3
MADRIL	331.453	5,2	15,3	2,1	32,6
MURTZIA	19.635	1,3	26,1	-10,1	-2,7
NAFARROA	-517	-0,1	-14,5	0,9	12,8
EAE	**-79.451**	**-3,7**	**-48,1**	**0,2**	**10,5**
ERRIOXA	-15.831	-5,1	-47,8	-7,0	2,9
CEUTA	4.285	5,1	96,7	13,7	-61,2
MELILLA	11.441	13,5	185,0	-16,2	-42,6
GUZTIRA	**-552.245**	**-1,2**	**-24,7**	**12,8**	**-**

Iturria: EIN. Biztanleria aurreikuspenak 2016-2031.

Autonomia erkidegoetarako aurreikusitako aldian (2031ra arte), jaiotza kopuruak beherantz jarraituko du datozen urteetan, 2009an hasitako joerari jarraituz. Hala, 2016 eta 2030 bitartean 5,3 milioi haur inguru jaioko lirateke Estatuan, aurreko 15 urtean baino %22 gutxiago. 2030ean, jaiotzen kopurua 334.595eraino jaitsiko litzateke, 2016an baino %17,4 gutxiago. EAErako eginiko zenbatespenen arabera, aldi horretan 235.000 haur jaioko dira, aurreko 15 urtean baino % 20,6 gutxiago. 2030. urtean 14.986 haur jaioko dira, 2016an baino %18,1 gutxiago. Aurreikuspen horien arabera, ugalkortasun-tasak goranzko joera txikia erakusten du eta amatasunaren batez besteko adinak gorantz jarraituko du. Jaiotzen jaitsiera hori, gehienbat, ama izateko adinean diren emakumeen kopuruaren beherakadagatik gertatuko da.

Heriotzei dagokienez, biztanleriak behera egin arren eta bizi-esperantza handitu arren, kopuru absolutuetan hazten jarraituko du biztanleriaren zahartzearen ondorioz. Hala, 2016-2030 aldean Estatuan 6,5 milioi heriotza gertatuko lirateke, aurreko 15 urtean baino %12,7 gehiago (2001-2015). 2030ean, 448.880 heriotza gertatuko lirateke, 2016an

baino %8,7 gehiago. EAEn, 337.299 heriotza izango dira azterturiko aldian, aurreko 15 urtean baino %16,9 gehiago. 2030ean 23.244 heriotza izango lirateke, 2016an baino %9,2 gehiago.

Migrazio mugimenduei buruzko zifretara itzulita, EINen aurreikuspenen arabera, lehenik eta behin eta egungo joerek aurrera eginez gero, atzerriarekiko migrazio-saldo positiboa izango da 2016 eta 2030 bitartean, autonomia erkidegoetatik 15etan, bereziki U. Kanariarretan eta U. Balearretan. Estatu osoan, atzerriarekiko migrazio-saldoa 12,8koa izango da mila biztanleko. EAEn, berriz, milako +0,2 besterik ez. Barneko migrazioari dagokionez, EAEk Estatuko gainerako erkidegoekiko duen saldoa milako 10,5 izango da, autonomia erkidego guztietatik ratiorik handienetakoa, soilik hauexek gainditzen dutenak: Madrilek (32,6), Balearrek (17,1) eta Nafarroak (12,8 mila biztanleko).

1.4. EZKONTZAK

1.4.1. Ezkontzak

"*Ezkontzen Estatistikak*", Jaiotzenak eta Heriotzenak bezala, Biztanleriaren Mugimendu Naturala osatzen du.

EUSTATen datuek diotenez, 2015ean EAEn 7.880 ezkontza izan ziren, 2014an baino %0,7 gutxiago. Haien artetik 7.734 sexu diferenteko pertsonen artean izan ziren (64 ezkontza gutxiago eta %0,8ko jaitsiera) eta 146 sexu bereko pertsonen artean. 91 emakumeen artean izan ziren eta 55 gizonen artean. Hots, % 5eko igoera aurreko urtearen aldean.

Bestalde, azken urteetan ezkontza zibiletan izandako igoera handia nabarmendu behar da; izan ere, 1990ean % 23 izatetik 2015ean % 78,3ra izatera igaro da. Lurraldez lurralde, Bizkaian izan zuten ezkontza zibilek pisurik handiena (% 80,9), ondoren Gipuzkoan (% 79,5) eta Araban (% 77,4). Guztira, EAEn 2015ean 6.058 elkartze zibil egon ziren, 1.663 ezkontza katolikoen eta beste erlijio batzuetako 13en aurrean.

I.1.7. TAULA. EZKONTZAK EUROPAR BATASUNEAN. ADIERAZLEAK 1.000 BIZTANLEKO.

	EZKONTZAK			DIBORTZIOAK		
	2012	2013	2014	2012	2013	2014
27KO EB	4,2*	:	:	2,0*	:	:
ALEMANIA	4,8	4,5	4,8	2,2	2,1	2,1
AUSTRIA	4,6	4,3	:	2,0	:	:
BELGIKA	3,7	3,8	:	2,3	:	:
BULGARIA	2,9	3,0	3,4	1,6	1,5	1,5
ZIPRE	6,7	6,4	:	2,4	:	:
DANIMARKA	5,1	4,9	5,0	2,8	3,4	3,4
ESLOVAKIA	4,8	4,7	4,9	2,0	2,0	1,9
ESLOVENIA	3,4	3,0	3,2	1,2	1,1	1,2
ESPAINIA	3,5	3,3	3,4	2,2	2,0	2,2
ESTONIA	4,5	4,3	4,7	2,4	2,5	2,4
FINLANDIA	5,3	4,6	4,5	2,4	2,5	2,5
FRANTZIA	3,7	:	:	2,0*	:	:
GREZIA	4,5	4,7	4,9	1,3	1,5	:
KROAZIA	4,8	4,5	4,6	1,3	1,4	:
HOLANDA	4,2	3,8	3,9	2,1	2,0	2,1
HUNGARIA	3,6	3,7	3,9	2,2	2,0	2,0
IRLANDA	4,5	:	:	0,6	:	:
ITALIA	3,5	3,2	3,1	0,9	0,9	0,9
LETONIA	5,5	5,7	6,3	3,6	3,5	3,1
LITUANIA	6,9	6,9	7,6	3,5	3,4	3,3
LUXENBURGO	3,4	3,2	3,0	2,0	2,1	2,6
MALTA	6,7	6,1	6,7	1,1	0,8	0,8
POLONIA	5,4	4,7	5,0	1,7	1,7	1,7
PORTUGAL	3,3	3,1	3,0	2,4	2,2	:
ERRESUMA BAT.	4,5*	:	:	2,0	:	:
TXEK. ERREP.	4,3	4,1	4,3	2,5	2,7	2,5
ERRUMANIA	5,4	5,4	5,9	1,6	1,4	1,4
SUEDIA	5,3	5,4	5,5	2,5	2,8	2,7
EAE	**3,5**	**3,3**	**3,3**	**1,9**	**1,7**	**1,9**

Iturriak: EUROSTAT, EUSTAT eta EIN.
**2011ko datuak.*

I.1.8. GRAFIKOA. EZKONTZA ZIBILEN PORTZENTAJEAREN BILAKAERA EAE-N



Iturria: EUSTAT. Ezkontzen Estatistika

Gainera, nabarmentzekoa da ezkontzeko adina atzeratzeko joerak dirauela. Izan ere, erreferentziazko urtean, ezkondu ziren gizonezko ezkongabeen batez besteko adina 36,4 urte zen, eta emakumezkoena, berriz, 34,3. Azken 25 urteetan, senarren batez besteko adinak gora egin du 7,5 urte, eta emazteenak 7,7. Eta, ezkontza aurretiko egoera zibila kontuan izanik, gizon ezkongabeak % 88,3 izan ziren, emakume ezkongabeen antzeko zifra (% 88,2).

EAEko ezkontzen tasa 3,3koa da 1.000 biztanleko 2015. urtean, Estatukoaren antzeko ratioa (milako 3,4, 2014an), baina Europar Batasunekoa baino txikiagoa; izan ere, milako 4,2koa zen 2011. urtean. Hona hemen ezkontza-tasa handiena duten Europako herrialdeak, 2014rako behin-behineko datuekin: 2013, Lituania (6,9), Malta (6,7) eta Letonia (6,3). Ratiorik txikienekoak, berriz, hauexek: Luxenburgo eta Portugal (3 ezkontza 1.000 biztanleko) eta Italia (3,1ekoa 1.000 biztanleko).

1.4.2. Ezkontza desegiteak

Bestalde, EINen "Baliogabetzeen, banantzeen eta dibortzioen estatistika" delakoak dibortzio eta banantzeen igoera erakusten du, bai gure erkidegoan bai estatuan[6]. Zehazki, 2015ean EAEn 3.870 dibortzio eta 157 banantze gertatu ziren. Baliogabetzeen urteko kopurua 5 ingurukoa zen batez beste informazioa dugunetik, eta 4 izan zen 2015ean.

Guztira, erreferentziako urtean 4.032 ezkontza desegin ziren, 2015ean baino % 1,2 gutxiago (Estatuan %4,3ko jaitsiera da), hots, 1,9 desegite mila biztanleko. Estatuko batez bestekoa, berriz, milako 2,2 da. Desegite tasarik handiena izan duten autonomia erkidegoak Katalunia (milako 2,6) eta Melilla, Kantabria eta U. Kanariarrak (2,4 milako) dira. Haustura tasarik txikienak, berriz, Gaztela eta Leonen eta Extremaduran daude (1,6 eta 1,8 desegite mila biztanleko, hurrenez hurren).

Nazioarteko konparazioa eginez, dibortzioen tasa gordina azken urteetan milako biaren ingurukoa da Europar Batasunean, baina maila ezberdinak daude: 0,8 milako Maltan (dibortzioa 2011ko maiatzean legeztatu zen) eta 0,9 milako Zipren, 3,5 milako Letonian eta 3,4 milako Danimarkan eta 3,3 milako Lituanian (EUROSTATen azken datuak, 2014. urtekoak).

2006. urtetik aldaketa antzematen da desegite horien osaeran Estatuan oro har, eta nabarmen gure Erkidegoan. Izan ere, dibortzioen kopurua handitu egin da eta banantzeena, berriz, jaitsi egin da, hain zuzen ere Kode Zibila eta Auziperatze Zibila banantzeen eta dibortzioen arloan aldatu dituen uztailaren 8ko 15/2005 Estatu mailako Legearen ondorioz. Arau horri esker, aurretik banandu barik lor daiteke dibortzioa. Autonomia erkidegoak erkatuta, ikusten da legea aldatu aurretik zein ondoren EAE toki neurritsuan dagoela dibortzioen rankingean, erregistro gutxien izandako bosgarren erkidegoa izan baitzen.

I.1.9. GRAFIKOA. EAE-KO EZKONTZA DESEGITEAK: BANANTZEEN ETA DIBORTZIOEN BILAKAERA



Iturria: EIN. Ezkontzen, banantzeen eta dibortzioen Estatistika
(*) Desegiteen guztizkoan elizako desegiteak sartzen dira

[6] *"Desegiteen, banantzeen eta dibortzioen estatistika" egiteko, Lehen Instantziako Epaitegiek, Instrukziokoek eta Emakumearen Kontrako Indakeriako Epaitegiek emandako informaizoa erabili da, ezkontza-lotura desegiteko prozesuei buruzkoa.*

EAEn banantzen edo dibortziatzen diren pertsonen profilari dagokionez, EINen datuek erakusten dute gehienak 40 eta 49 urte bitartekoak direla gizonezkoetan nahiz emakumezkoetan; emakumeen batez besteko adina 44,1 urtekoa izan zen eta gizonena, berriz, 46,5 urtekoa. Gainera, desegindako ezkontzen batez besteko iraupena 16,2 urtekoa da, eta kasuen %57,1ean ezkontideek haurrak izan dituzte. Kasuen %47,1ean, adingabeak dira.

2. IMMIGRAZIOA EAE-N

2.1. TESTUINGURUA: IMMIGRAZIOA EUROPAR BATASUNEAN

Nazioarteko migrazioak nazioarteko agenda politikoen gai erabakigarrienetakoa izatera pasatu dira epe laburrean. Gizartearen eta ekonomia orokorraren gaur egungo garaiaren ezaugarrietako bat dira.

I.2.1. GRAFIKOA. HAZKUNDE DEMOGRAFIKOAREN BILAKAERA EB-N, OSAGAIEN ARABERA. RATIOAK 1.000 BIZTANLEKO



Iturria: EUROSTAT

Europar Batasuneko biztanleriak nabarmen egin du gora azken urteetan (2 milioi gutxi gorabehera 2015ean, milako 3,5), gehienbat immigrazioagatik; izan ere, azken urte honetan konpentsatu egin du hazkunde begetatiboaren datu negatiboa (milako -0,3), hain zuzen ere azken hamarkadan gertatu ez den migrazio-saldoari esker (milako 3,8). Hortaz, migrazio mugimenduek Europar Batasuneko herrialdeetako biztanleen dinamikan oinarrizko zeregina dute.

2015eko urtarrilean, Batasunetik kanpo jaiotako 34,3 milioi lagun bizi ziren 28ko EBn, biztanleriaren %6,7, gehi bizilekukoa ez den EBko beste herrialde batean jaitako 18,5 milioiak.

Horrez gain, EBtik jaiotako 34,3 milioi lagunetatik 19,8 milioik (EBtik kanpora jaiotakoen % 57,7) EBkoa ez den herrialde bateko herritartasuna zuen, eta 14,5 milioik (%42,3) herritartasun komunitarioa eskuratu zuten. Hortaz, nazionalitateen proportzio handia ikusita, etorkinak aztertzean gero eta beharrezkoagoa da aintzat hartzea jaioterria eta ez pertsonen nazionalitatea (ikusi kapitulu honetako 2. orri-oina).

EUROSTATeko datuen arabera, EBn bizi diren atzerritarren % 73,5 baino gehiago Alemanian, Espainian, Erresuma Batuan, Frantzian eta Italian bizi dira. EBko populazioaren % 63 dute bost herrialde horiek.

EAEn ere fenomeno hori gertatu da, eta kultura-aniztasunaren aldetik hazten ari da, biztanle-talde berriak geroz eta gehiago gehitzen ari baitira aspaldian. Hurbileko gizarteetako mailak oraindik gainditu ez badira ere, EAEko atzerritarren immigrazioa nabarmen hazi da azken urteetan. Horrek lurraldeetan erabat banatutako aniztasun-egoera eratu du. Berez, epe laburrean gertatutako immigrazio jendetsuak ekonomiarena eta gizartearen epe luzerako joerak aldatu ditu, biztanleen zahartzeko joera geldituz eta belaunaldien berriztatzea erraztuz, baita gizartearen jokaera berriak gehituz.

Eusko Jaurlaritzaren 2014ko datuekin eginiko azken "*Etorkinei eta atzerritarrei buruzko inkesta*"ren (EAI) arabera, 2014an EAEn bizi ziren atzerritar jatorrikoen %17,5ek hiru urte edo gutxiago zeramatzan bizi izaten EAEn, %44,7k 4-9 urte eta %24,2k 10-14 urte. %13,7k, berriz, 15 urte edo gehiago zeramatzan EAEn bizi izaten.

Bestalde, etorkin atzerritarrek EAEn duten eragin ekonomikoa aztertu zuen IKUSPEGIK 2015ean (2012ko datuekin), eta moneta terminoetan, atzerriko nazionalitateko biztanleek EAEko ongizate-sistemetatik jasotzen dutena eta altxor publikoan zerga eta kotizazio gisa ematen duten erkatu zituen. Hona hemen ikerketaren ondorioa: atzerritarrek altxor publikorako dakartzaten diru-sarrerak handiagoak direla etorkinek gizarte ongizaterako sistemarentzat dakarten gastua baino, 38 milioi euroko diferentzia 2012. urtean. Oro har, kontzeptu horrengatik atzerritarrei egotzitako gizarte gastua

593,39 milioi eurokoa izan zen, hots, gastu guztiaren %7,4 hain zuzen. Sarrerei dagokienez, berriz, atzerritarren ekarpena 631,58 milioi eurokoa da, hots, zenbatetsitako sarrera guztien %4,4[7].

2.2. IMMIGRAZIOAK EAE-KO DINAMIKA DEMOGRAFIKOAN DUEN ERAGINA

Udal Erroldaren datuen arabera, 2016an EAEn bizi ziren atzerritar jatorriko 188.213 biztanle zeuden, eta bi urtez jarraian hazi zen kopuru hori, 4.016 lagun gehiago (%+2,2), 2013-14ko bi urtekoan pixka bat behera egin ostean. 90eko hamarkadan, berriz, atzerritarren etorrerak hazkuntza nabarmena izan zuen.

I.2.2. GRAFIKOA. ATZERRIKO JATORRIKO BIZTANLEEN URTE ARTEKO HAZKUNDE ABSOLUTUA EAE-N. 1999-2016.



Iturria: IKUSPEGIk egina, EINen datuekin

Bizkaian bizi dira atzerritar gehienak (91.444, guztizkoaren %48,6), 2015ean baino %2,5 gehiago, eta ondoren Gipuzkoa da 62.942 erroldaturekin (%+3,3) eta Araba 33.827 erroldaturekin (%-0,6). Beraz, ikus dezakegu atzerriko biztanleria Gipuzkoan eta Bizkaian hazi dela. Araban, berriz, pixka bat jaitsi egin da.

I.2.3. GRAFIKOA. ERROLDAN INSKRIBATURIKO BIZTANLEEN PORTZENTAJEAREN BILAKAERA ESTATUAN ETA EAE-N



Iturria: Geuk egina, EINen datuekin.

2005etik 2012ra bitartean Euskal Autonomia Erkidegoan erroldatutako atzerriko biztanleak bikoiztu ziren eta urteko igoerarik handiena 2008. urtean izan zen, urte horretan erroldatutako atzerriko biztanleria 20.000 pertsonan hazi baitzen (ikus lehen grafikoa).

Krisia dela-eta 2013-14ko bi urtekoan jaitsi ondoren, azken bi urteetako ezaugarri nagusia, beraz, etorkinen hazkunde txikia da, baina geroago ikusiko dugunez, hazkunderako joera hori ez dator bat Estatu osoan gertatzen ari denarekin.

[7] *Ikerketari buruzko informazioa gehiago nahiz izanez gero, irakurri Memoria Sozioekonomikoaren 2015eko edizioa.*

2016ko urtarrilean erroldatuta zeuden 188.213 lagunak biztanleriaren %8,6 dira, 2015ean baino bi hamarren gehiago. Estatuan, berriz, %13,1eko ratioa zen 2016an, baina jaitsi egin da aurreko urtearen aldean.

Eusko Jaurlaritzaren Immigrazioaren Euskal Behatokiak (IKUSPEGI) 2016ko abuztuko bere 62. buletineko datuen aurrerapenari buruz egiten duen azterketaren arabera, agerian gelditzen da Euskadi izan zela 2016an, Kataluniarekin batera, atzerritar jatorriko biztanleen kopuru handiagoa zuen erkidego bakarra (%+2,2 eta %+0,9 hurrenez hurren), Estatu osoan %0,9 jaitsita. Hauexetan izan da jaitsierarik handiena: Gaztela Mantxan (%-4) eta Aragoin (%-3,4). Hala ere, atzerritar jatorriko biztanleen pisu gutxien duten erkidego taldeetakoa da EAE oraindik ere.

I.2.4. GRAFIKOA. ATZERRITAR JATORRIKOEN URTE ARTEKO HAZKUNDEA, 2015-2016, ETA GUZTIZKO BIZTANLERIAREKIKO PORTZENTAJEA 2016AN, AAEEen ARABERA. PORTZENTAJEAK



Iturria: IKUSPEGIk egina, EINen datuekin

Aintzat hartu beharreko beste alderdi bat atzerritar jatorriko biztanleek gure Erkidegoko dinamika geografikoan duten eragina da: 1998 eta 2016 bitartean, 90.465 atzerritar gehiago izan dira, eta atzerritar jatorriko biztanleen etorrerari esker gertatu da hazkunde hori; izan ere, epealdi berean 26.334 erroldatu izatetik 188.213 erroldatu (+161.879) izatera igaro zen. Epealdi berean, biztanle autoktonoen kopuruak behera egin du, ordea, 71.414 lagun gutxiago hain zuzen. Horrenbestez, atzerritar jatorriko biztanleek lortu egin dute Euskadin biztanleria galtzeko izan den dinamika iraultzea.

I.2.1. TAULA. EAE-KO BIZTANLERIAREN BILAKAERA 1998-2016: BERTAKOAK ETA ATZERRITARRAK. URTEKO ALDAKUNTZA TASAK.

	BIZT. GUZT.	EAE-KOAK		ATZERRITARRAK		
		ABS.	ALD. %.	ABS.	ALD. %	% GUZT. BIZTANL.
1998	2.098.628	2.072.294	-	26.334	-	1,3
1999	2.100.441	2.071.418	0,0	29.023	10,2	1,4
2000	2.098.596	2.063.453	-0,4	35.143	21,1	1,7
2001	2.101.478	2.057.655	-0,3	43.823	24,7	2,1
2002	2.108.281	2.052.413	-0,3	55.868	27,5	2,6
2003	2.112.204	2.044.675	-0,4	67.529	20,9	3,2
2004	2.115.279	2.037.073	-0,4	78.206	15,8	3,7
2005	2.124.846	2.030.818	-0,3	94.028	20,2	4,4
2006	2.133.684	2.025.590	-0,3	108.094	15,0	5,1
2007	2.141.860	2.019.664	-0,3	122.196	13,0	5,7
2008	2.157.112	2.014.628	-0,2	142.484	16,6	6,6
2009	2.172.175	2.012.538	-0,1	159.637	12,0	7,3
2010	2.178.339	2.010.957	-0,1	167.382	4,9	7,7
2011	2.184.606	2.009.567	-0,1	175.039	4,6	8,0
2012	2.193.093	2.009.321	0,0	183.772	5,0	8,4
2013	2.191.682	2.008.399	0,0	183.283	-0,3	8,4
2014	2.188.985	2.007.268	-0,1	181.717	-0,9	8,3
2015	2.189.257	2.005.060	-0,1	184.197	1,4	8,4
2016	2.189.093	2.000.880	-0,2	188.213	2,2	8,6
Guzt. ald.	**+90.465**	**-71.414**	**-3,4**	**+161.879**	**614,7**	**-**

Iturria: IKUSPEGI, EINen datuekin.

EAEko atzerritar jatorriko biztanleak ia hiru zati berdinetan banatzen da sexuen arabera: %48 gizonezkoak eta %52 emakumezkoak, baina alde txikiak ikusten dira lurraldeen arabera: Bizkaian, eta neurri txikiagoan Gipuzkoan, emakumeak gehiago dira (%52,9 eta %51,6 hurrenez hurren). Araban, berriz, oreka dago bi sexuen artean. Hona hemen alde horren zergatia: Bizkaian gehienak

Latinoamerikako etorkinak dira (emakumeen pisua handiagoa da). Araban, aldiz, afrikarrak dira nagusi, eta horien artean gizonezkoak.

Atzerritar jatorriko biztanleak eta atzerritar nazionalitateko biztanleriak erkatuz gero, zenbait berezitasun ikusten dira: Alde batetik, atzerritar nazionalitatekoak atzerritan jaiotakoak baino gutxiago dira eta, azken urteetan -2013 eta 2015 bitartean-. Atzerritar nazionalitatekoak behera egin zuen; atzerritar jatorrikoak, berriz, ez dio hazteari utzi. Atzerritar nazionalitateko biztanleen artean gertatu izan diren nazionalizazioengatik dugu, gehienbat, egoera hori, batez ere azken urteetan. Gaur egun, bi taldeen arteko diferentzia 50.000 lagunekoa da, eta atzerritar nazionalitateko biztanleria (139.025 lagun 2016ko urtarrilean) atzerritar jatorrikoaren %73,9 da guztira.

I.2.5. GRAFIKOA. ATZERRITARRAK EAE-N: ATZERRIKO NAZIONALITATEA DUTENEN ETA ATZERRIAN JAIOTAKOEN ARTEKO ERLAZIOA. PORTZENTAJEAK



Iturria: IKUSPEGIk egina, EINen datuekin

Nazionalitate-taldeei erreparatuta, zenbait diferentzia daude: Latinoamerikako biztanleek erakusten dute diferentziarik handiena atzerrian jaiotako biztanleengan (%43) duen pisuaren eta atzerriko nazionalitateko biztanleengan (%33) duenaren artean, nazionalizazioen pisua dela eta. Magrebtar jatorriko biztanleak EAEn bizi diren atzerritar jatorriko biztanle guztien %14 dira. Magrebtar nazionalitatea dutenak, berriz, %19 dira guztira.

I.2.6. ATZERRITAR JATORRIKO BIZTANLERIA NAZIONALITATE EREMUEN ARABERA. GUZTIZKOAREKIKO PORTZENTAJEA. 2016



Iturria: IKUSPEGIk egina, EINen datuekin

Bestalde, etorkinen jatorriko eskualdearen eta nazionalitatearen bilakaerari buruzko azterketak agerian uzten duenez, horien osaera aldatuz joan da, baina joera argiari eusten zaio: Latinoamerikako jatorriko biztanleak nagusiak dira orain ere, eta ondoren, EBko beste herrialde batzuetakoak. Izan ere, azken horrek pisua galdu du. Bestalde, afrikar jatorrikoen kopuruak gora egin du 2003tik. Halaxe gertatzen da Magrebekin (+4 puntu) eta Afrikako gainerakoekin (+3 puntu). Asiako jatorrikoei dagokienez, presentzia txikiagoa bada ere, gorantz egin du pixka bat. Gaur egun, EAEn bizi diren atzerritar jatorriko 10 lagunetatik 5 gutxi gorabehera (%45,8) Latinoamerikan jaiotakoa da, 2 EBn (%20,1) eta bat Magrebeko herrialdeetako batean (%14,1). Lurraldeka, eutsi egiten zaie hiru talde nagusiri. Pisua ezberdina da, ordea: Araban, magrebtar jatorriko biztanleen proportzioa handiagoa da gainerakoetan baino (%22,8), Gipuzkoan pisu handiagoa dute EBko beste herrialdeetako biztanleek (%23,4) eta Bizkaian, azkenik, bereziki Latinoamerikakoak nabarmentzen dira (guztizkoaren %49,4).

Nazionalitateen arabera, hamar nagusienen artean, hauexek ditugu 2016an: Latinoamerikako sei (Kolonbia, Ekuador, Nikaragua, Brasil, Bolivia eta Paraguai), EBko hiru (Portugal, Frantzia eta Errumania) et Magrebeko bat (Maroko). Nahiz eta hamar jatorri horiek batuta atzerritar jatorriko biztanleen %54,9 izan, 2008ra atzera eginez gero, proportzio hori

handiagoa zen, eta horrek agerian uzten du jatorriko herrialde desberdinen presentzia handiagoa, baita dibertsifikazioa ere, gaur egun, EAEN bizi diren atzerritar jatorriko taldeen osaeran.

Gaur egun, eta 2014tik, Marokoko biztanleria Euskal Autonomia Erkidegoko atzerriko naziotasun nagusia da; izan ere, erroldatutakoak guztira 20.055 dira 2016an, EAEko atzerritar guztien % 10,5 hain zuzen ere. Bigarren nazionalitatea kolonbiarra da, atzerritar guztien % 9,3, alegia.

Interesgarria da ikustea zelako bilakaera izan den hamar nazionalitaterik garrantzitsuenen presentzian 2007 eta 2016 bitartean:

I.2.7. GRAFIKOA. EAE-N BIZI DIREN ATZERRITARREN JATORRIKO HAMAR HERRIALDE NAGUSIEN BILAKAERA. 2007-2016



Iturria: IKUSPEGIk egina, EINen datuekin

2007 eta 2016 bitartean, Latinoamerikako bi dira gehien hazi direnak -Nikaragua eta Paraguai-, eta Afrikako bat -Marokoa-, eta gehien jaitsi direnen artean, berriz, Bolivia, Ekuador eta Brasil daude eta Europako bi: Portugal eta Frantzia. Krisialdiko abagunean (2009tik hasita), bereziki nabarmentzen da Nikaraguako jatorriko biztanleen hazkundea, eta 10 horietatik 8 emakumezkoak dira.

I.2.2. TAULA. EAE-N BIZI DIREN ATZERRITAR JATORRIKO BZITANLEEN PER CAPITA BATEZ BESTEKO SARRERAK ETA GASTUAK (€/HILE) JATORRIKO ESKUALDEEN ARABERA. 2010-2014.

	2010			2014		
	SAR.	GASTUAK	SALDOA(%)	SAR.	GASTUAK	SALDOA (%)
MENDEBALDEKO EB	1.032,26	784,58	31,57	1.107,66	893,89	23,91
ERRUMANIA ETA EKIALD. EB-KO B.	974,73	809,93	20,35	754,55	690,34	9,30
MAGREB	659,08	566,04	16,44	604,32	598,02	1,05
ARGENTINA, TXILE, URUGUAI	1.011,78	811,88	24,62	1.074,38	850,24	26,36
KOLONBIA, EKUADOR, PERU	837,06	718,62	16,48	750,56	691,56	8,53
BOLIVIA	699,76	640,13	9,32	739,76	682,25	8,43
PARAGUAI	798,65	685,10	16,57	790,91	706,13	12,01
BRASIL, VENEZUELA, DOMINIKAR E.	906,76	768,56	17,98	852,73	789,79	7,97
AMERIKA LATINOKO GAINONT.	1.053,68	732,70	43,81	736,18	763,98	-3,64
TXINA	1.121,64	790,46	41,90	984,10	799,20	23,14
SENEGAL	733,31	723,47	1,36	692,47	682,46	1,47
AFRIKAKO GAINONTZEKOAK	651,26	633,42	2,82	625,08	630,22	-0,82
MUNDUKO GAINONTZEKOAK	931,23	765,21	21,70	813,75	735,75	10,60
GUZTIRA	**863,49**	**715,58**	**20,67**	**795,91**	**719,31**	**10,65**

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. IAI.

2.3. BIZI-BALDINTZAK 2014KO AEI-REN EMAITZAK[8]

Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiken Sailak lau urtean behin egiten duen "*Atzerritar Etorkinei buruzko Inkesta (AEI)*" deritzonak, ikerketaren xedekoak diren arloen artean, EAEn bizi diren etorkinen bizi-baldintzak erakusten ditu. 2014. urteari buruz baliagarri ditugun azken datuei esker, krisiak etorkinen egoera ekonomikon duen eragina zein den jakin daiteke 2010eko datuekin erkatuta.

8 Memoria honetako EAEko bizi-baldintzei buruzko IV. Kapituluko 5. kapituluan (Etxebizitza), berariaz jorratzen da atzerritar jatorriko biztanlee horiek etxebizitzaren aldetik duten egoera. Beraz, bizi-baldintzei buruzko atal hau osa daiteke hari esker. Halaber, Memoria honen 2014ko eta 2015eko edizioetara jo beza irakurleak gure Erkidegoan bizi diren atzerritarrei buruzko 2014ko GZPIren emaitzen berri izateko.

Lehenik eta behin, honako hau nabarmentzen da: bizikidetza-unitaterako adierazitako ohiko sarrerak aintzat hartuta, EAEn bizi diren atzerritar jatorriko biztanleen batez besteko per capita sarrera estandarizatuak (EUROSTATen eskala) 795,91€-koak ziren hilean 2014an, hots, 2010eko sarrerak baino %7,8 gutxiago.

2014an, aipaturiko sarrerak batez besteko per capita gastuko 791,31€-koak baino %10,65 handiagoak ziren. Alabaina, sarreren eta gastuen arteko diferentzia nabarmen jaitsi zen 2010eko datuen aldean. Izan ere, urte horretan %20,27koa zen. Joera horrek hainbat behin-behinekotasun edo prekarietate handi sorrarazten du, bereziki Afrikako hainbat eskualdetatik datozen biztanleen kasuan, non sarrerak eta gastuak, praktikan, parekatzeko joera dagoen. 2014an, magrebtar jatorriko pertsonen artean hedatu da joera, eta horixe da berrikuntzarik aipagarriena: 2010ean sarreren %16,44ko superabitat izatetik %1,05ekoa besterik ez 2014an.

2014an baliagarri dauden sarrerekin, atzerritar jatorriko biztanleen %66,2k dio oinarrizko beharrak betetzearekin loturiko zailtasun ekonomikoren bati egin behar izan ziola aurre azken urtean, hots, janaria, jantziak edo etxebizitza ordaintzeko, edo ustekabeko gastuei aurre egiteko ahalmenarekin loturikoak. %6,1 puntu igo da adierazle hori 2010ekoaren aldean (orduan %60,1ekoa izan zen).

I.2.8. GRAFIKOA. ATZERRITAR JATORRIKO BZITANLERIA ZAILTASUN EKONOMIKOEN ARABERA. TALDE OSOAREKIKO PORTZENTAJE BANAKETA. 2010-2014



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. GDPI A+B+C=%100

Eragina askoz murritzagoa bada ere, handia da oinarrizko beharrei aurre egiteko etengabeko zailtasunak nagusi direneko egoeren eragina, halako moldez non gora egin baitu atzerritar jatorriko biztanleek gutxienez sei hilean egoera hori jasan dutenen kopuruak: 2014an %15,5 eta 2010ean, berriz, %6,6. Magrebtar jatorriko biztanleekin ikusten da zailtasun kronikoen eragin handiagoa dela, guztira %30,2 baitaude ukituta.

2.4. BIZIKIDETZA. 2016KO BAROMETROA

Ikuspegiren 2016ko Barometroaren arabera, euskaldunentzat immigrazioa ez da arazo. %2,2k soilik dio aurretiaz galdetu gabe EAEko arazo nagusia dela, eta aipamenak guztira %12,3 dira (%12,4 2015ean). Bat-bateko hiru erantzunen multzoan, bosgarren tokian ageri da immigrazioa, langabeziaren (%85,5), arazo ekonomikoen (%26), politikarien (%26) eta ustelkeriaren eta iruzurraren (%13,8) atzetik.

Enpleguari dagokionez, immigrazioak lan-merkatuan betetzen duen eginkizunari buruzko ikuspegi funtzionala eta utilitarista nabarmen jaitsi da krisiaren

I.2.9. GRAFIKOA. ZEIN DIRA EAE-KO HIRU ARAZORIK GARRANTZITSUENAK? (GEHIENEZ HIRU ERANTZUN) 2016



Iturria: Ikuspegi, Barometroa. 2016

ondorioz: 2004an %80k uste zuen etorkinak behar genituela zenbait sektoretan lan egiteko. 2014an, berriz, %30,5ek uste du hala. 2015ean, aldiz, biraketa gertatu da ikuspegi horretan, zeren eta ia 12 puntu gehiago bildu baitira, %42,4raino, eta badirudi joera aldaketa 2016an finkatu zela. Urte horretan %44,7raino egin zuen gora ratioak (+2,5 puntu portzentual). Alabaina, 2004an %11k baino ez zuen uste ez zela etorkinik behar. 2016an, berriz, %39,7koa da, hain zuzen ere ia hirukoiztu egin da.

I.2.10. GRAFIKOA. IMMIGRAZIOARI BURUZKO IKUSPEGI UTILITARISTA EAE-N: PERTSONEN EHUNEKOA, AIPATURIKOEKIN BAT ETORRIZ



Iturria: IKUSPEGI. Barometroa. 2016

Antzeko zerbait gertatu da baieztapen honekin: ekonomia hobeto dabil migratzaileek betetzen dituztelako biztanle autoktonoen nahi ez dituzten postuak. 2014an, %32,8 ados zegoen baieztapen horrekin (sortako ratiorik txikiena), 2015ean %44,9raino igo zen portzentajea eta 2016an, berriz ere, %48,3raino (+3,4 puntu).

Halaber, euskal biztanleriak atzerritarrek osasun-laguntza eskuratzearen aldeko joera handiagoa erakusten du 2016an 2015ean baino (% 72,5, +24,7 aurreko urtearen aldean), baita seme-alabek hezkuntza izatea ere (%78, +8,1 puntu). Alabaina, ia eskubide unibertsaltzat hartzen diren bi zerbitzu horietan izan ezik (osasun laguntza eta hezkuntza), euskal biztanle gehienek uste dute, aurreko urteetan bezala, egoera erregularizatuarekin lotuta egon behar du gainerako eskubideak eskuratzeak.

Ratioa %53,8koa da laguntza juridikoan, %60,2 familia birbatzeko, %69,3 boto eskubidea izateko eta %63,8 SBE eskuratzeko (aurreko urteetan, oro har gizarte laguntzak aipatzen ziren, baina emaitza antzekoa da).

I.2.11. GRAFIKOA. ETORKINEK ESKUBIDE HAUEK ESKURATU BEHARKO LITUZKETE? EAE. 2016



Iturria: IKUSPEGI. Barometroa

I.2.12. GRAFIKOA. IMMIGRAZIO POLITIKARIK EGOKIENA EAE-KO BIZTANLERIAREN ARABERA. 2016.



Iturria: IKUSPEGI. Barometroa. 2016

Immigrazio politikei dagokienez, euskal herritarren %19,2k uste du ez dela lege eragozpenik jarri behar etorkinak sar daitezen (%11,6k 2015ean), eta aldi berean, %4,3 sarrera hori bitarteko guztiekin galaraztearen aldekoa da (%6,6 2015.

urtean). Portzentaje handi bat, %45,3, etorkinak sartzen uztearen aldekoa da, baina lan-kontratua izatekotan (behera egin du portzentajeak 2015ean, %56,5aren aldean). %23,8, berriz, etorkinak sartzen uztearen aldekoa da, baina lege aldetik beste beharkizun batzuk beteta (familia birbatzea, ikasleak, errefuxiatuak…) (%14,9 2015ean).

Azkenik esan behar da euskal gizarteak lana eta langile atzerritarra onartzea lotzen dituela orain ere, halako moldez non lanpostua dutenak erregularizatzearen (bizileku baimena ematea) aldekoa baita (inkestaturiko pertsonen %43,3).

3. LABURPENA ETA GOGOETAK

3.1. LABURPENA

EAEn, Biztanleen Udal Erroldak emandako azken datuen arabera, (2016ko urtarrilekoak, behin-behineko zifrak), EAEko biztanleriak aldatu barik jarraitu du azken urtean (izan ere, 164 biztanle gutxiago izan dira), eta 2.189.093 biztanle ditu. Lurralde historikoei dagozkien datuek islatzen dutenez, biztanleriak pixka bat gora egin du Gipuzkoan (921 biztanle gehiago, %+0,1) eta Araban (%+0,1, 388 lagun gehiago). Bizkaian, berriz, behera egin du (%-0,1, zeren eta 1.473 biztanle galdu baititu).

Beste alde batetik, EUROSTATek kalkulatzen du Europar Batasuneko biztanle-kopurua 510,1 milioi pertsonakoa dela (erreferentzia 2016ko urtarrilekoa da), hots, 1,9 milioi gehiago 2015eko urtarrilean baino. Milako 3,5eko igoera horrek (aurreko urtean 2,1ekoa izan zen milako) ahalbidetu du 1960tik izandako etengabeko hazkunde-joerari eustea; izan ere, 1960ko urte horretan gaur egungo Europar Batasuneko biztanleria 400 milioi biztanlekoa zen. Hazkunde hori soilik immigrazioaren bilakaerari zor zaio, zeren eta berezko hazkundea edo hazkunde begetatiboa (jaiotzen eta heriotzen arteko diferentzia), berez, negatiboa baita lehen aldiz Batasunean.

Euskal Autonomia Erkidegoan 2015eko behin-behineko datuek erakusten dute hazkunde begetatiboa (jaiotza eta heriotzen arteko alde gisa zenbatzen den biztanle-aldaketa, immigrazio-mugimenduak kontuan hartu barik) negatiboa izan dela saldo positiboak izandako 9 urteren ondoren: urte honetan 18.851 jaiotza gertatu dira, aurreko urtean baino % 2,7 gutxiago, eta guztira 21.509 heriotza, hots, milako -1,2. 2015eko saldoa negatiboa da eta, horren ondorioz, jaiotzak gutxitu eta gainera heriotzek gorantz jarraitzen dute.

Beste alde batetik, EUSTATen[9] "Migrazio Mugimenduei buruzko 2015eko Estatistikak" zenbatu zuen urte horretan gure erkidegoak 3.362 biztanle galdu zituela (2014an 3.602 izan ziren, bi urtez migrazio saldo negatiboak izan ondoren). Lurraldeen arabera, Bizkaiak 970 irabazi ditu, Arabak 555 eta Gipuzkoak 1.837. Edizio honetako berrikuntza gisa, IKUSPEGIK, Immigrazioaren Euskal Behatokiak, txosten bat egin zuen, EAEko 18-34 urte bitarteko gazteek beste autonomia erkidego batzuetara eta atzerrira eginiko irteerei buruzkoa, zertarako-eta honako ideia hau erkatzeko: gure Erkidegoa giza kapital garrantzitsua galtzen ari dela emigrazio horiekin, krisiaren ondorioz.

Lehenik eta behin, gazteek Estatuko beste toki batera edo atzerrira eginiko irteeren kopuruak (erroldako bajak alta berririk izan gabe EAEren beraren barruan) igoz joan da 2000. urtetik (1.967) eta 2014ra arte (4.088); izan ere, epealdiaren hasieran taldearen %0,3 bazen, epealdiaren amaieran %1,1 zen. Baja horiek nabarmen egin zuten gora hazkunde aldian (2000-2007), eta gorantz jarraitzen dute krisialdiko lehen urteetan; gehienekoa 2009an lortu zen (4.504 irteera). Urte hartatik hasita, irteerek 4.000tik gorako kopuruei eusten diete, baina egonkortu egiten dira. Are gehiago, kasuren batean behera ere egiten dute. Horrela, adin-talde horren irteeren portzentajearen igoera, batez ere, adin-talde horren murrizketagatik gertatu da, irteeren gehikuntzagatik baino gehiago.

Txostenean, datu horiek EAEko 18-34 urte bitartekoen irteerak (altak erroldan) lotzen dira, bien artean dagoen erlazioan zein den jakiteko. Nabarmentzen denez, alten batura hori azterturiko epealdian, orotara 252.293, bajen guztizko kopurua baino nabarmen handiagoa da, eta alten aldeko diferentzia 199.281 da. Horrez gain, EAEn bizi diren biztanlerian izandako hazkundea, ageri denez, neurri handi batean migrazio saldoagatik eta immigrazioaren gehikuntzagatik gertatu da, atzerriko herrialdeetako batik bat.

Datu horietan ez da jokabide aldaketa nabarmenik antzematen hazkunde aldiaren eta krisialdiaren artean. Krisialdian, gora egin zuen irteeren kopuruak, baina gehienbat atzerritar jatorriko biztanleek egiten dituztenen ordez. Hortaz, emandako datuek zalantzan jartzen dute EAEtik beste herrialde batera doan gazte autoktonoaren irudia. Aitzitik,

[9] *EUSTATek berriz aintzat harturiko 2000-2014ko seriea, hainbat iturri oinarri hartuta, gehienbat erroldakoak.*

ekonomiaren oparoaldian EAEra bizi izatera etorri ziren atzerritar etorkinaren irudia ageri da eta, krisiaren edo bestelako faktoreen eraginez, jatorriko herrialdera itzuli edo beste herrialde batera berriz emigratzea erabakitzen du.

EINek biztanleriari buruzko aurreikuspen gehiago egin ditu 50 urterako Estatu osoan eta 15 urterako autonomia erkidegoen araberako xehetasunean, 2031ra arte. Izan ere, azken hori aurkeztuko da Memoria honetan. Espainian bizi diren biztanleen tamaina eta egitura demografikoaren gaineko estatistika simulazioa da aurreikuspen hori, betiere egun ikusitako joera eta jokabide demografikoek beren horretan jarraitzen badute ugalkortasunaren, heriotza-tasen eta migrazioen aldetik

Zenbatespenen arabera, Estatuak datozen 15 urteetan biztanleriaren %1,2 galduko du, 552.245 biztanle. EAEk, berriz, %3,7, guztira 79.451 biztanle. Jaitsiera erlatiborik handienak Asturiasen (%-11,1), Gaztela eta Leonen (%-10,7) eta Galizian (%-8,5) ageri dira. Murtzian, Madrilgo Erkidegoan, U. Balearretan, Katalunian, Ceutan eta Melillan, berriz gora egingo luke biztanleriak.

Bilakaera demografikoaren osagaiei erreparatuz gero, lehenik eta behin berezko saldoa dugu. Biztanleriaren zahartzearen eta jaiotza-tasen jaitsierak ikusita, Espainian heriotza gehiago egongo lirateke jaiotzak baino (hazkunde begetatibo negatiboa) aurreikuspenaren xedeko aldi osoan (izan ere, azterturiko aldi osoan, 2065. urterako). Mila biztanleko saldoa Estatuan -24,7 izango da, eta EAErako jaitsiera batez besteko hori bi halako izango da -48,1 milako. Erkidego gehienek saldo negatiboa izango dute, bereziki Asturiasen (milako -126,4) eta Galizian (-98,1).

Migrazio mugimenduei buruzko zifretara itzulita, EINen aurreikuspenen arabera, lehenik eta behin eta egungo joerek aurrera eginez gero, atzerriarekiko migrazio saldoa positiboa izango da 2016 eta 2030 bitartean, autonomia erkidegoetatik 15etan, bereziki U. Kanariarretan eta U. Balearretan. Estatu osoan, atzerriarekiko migrazio saldoa 12,8koa izango da mila biztanleko. EAEn, berriz, milako +0,2 besterik ez. Barneko migrazioari dagokionez, EAEk Estatuko gainerako erkidegoekiko duen saldoa milako 10,5 izango da, autonomia erkidego guztietatik ratiorik handienetakoa, soilik hauexek gainditzen dutenak: Madrilek (32,6), Balearrek (17,1) eta Nafarroak (12,8 mila biztanleko).

Bestalde, Udal Erroldaren datuen arabera, 2016an EAEn bizi ziren atzerritar jatorriko 188.213 biztanle zeuden, eta bi urtez jarraian hazi zen kopurua hori, 4.016 lagun gehiago (%+2,2), 2013-14ko bi urtekoan pixka bat behera egin ostean. 90eko hamarkadan, berriz, atzerritarren etorrerak hazkuntza nabarmena izan zuen. 2016ko urtarrilean erroldatuta zeuden 188.213 lagunak biztanleriaren %8,6 dira, 2015ean baino bi hamarren gehiago. Estatuan, berriz, %13,1eko ratioa zen 2016an, baina jaitsi egin da aurreko urtearen aldean.

Nazionalitateen arabera, hamar nagusienen artean, hauexek ditugu 2016an: Latinoamerikako sei (Kolonbia, Ekuador, Nikaragua, Brasil, Bolivia eta Paraguai), EBko hiru (Portugal, Frantzia eta Errumania) et Magrebeko bat (Maroko). Gaur egun, eta 2014tik Marokoko biztanleria Euskal Autonomia Erkidegoko atzerriko naziotasun nagusia da; izan ere, erroldatutakoak guztira 20.055 dira 2016an, EAEko atzerritar guztien % 10,5 hain zuzen ere. Bigarren nazionalitatea kolonbiarra da, atzerritar guztien % 9,3, alegia.

Eusko Jaurlaritzaren “2014ko Atzerritar Etorkizunei buruzko Inkesta”ri esker, krisiak etorkinek egoera ekonomikon duen eragina zein den jakin daiteke 2010eko datuekin erkatuta. Lehenik eta behin, honako hau nabarmentzen da: bizikidetza-unitaterako adierazitako ohiko sarrerak aintzat hartuta, EAEn bizi diren atzerritar jatorriko biztanleen batez besteko per capita sarrera estandarizatuak (EUROSTATen eskala) 795,91€-koak ziren hilean 2014an, hots, 2010eko sarrerak baino %7,8 gutxiago. 2014an, aipaturiko sarrerak batez besteko per capita gastuko 791,31€-koak baino %10,65 handiagoak ziren. Alabaina, sarreren eta gastuen arteko diferentzia hori nabarmen jaitsi zen 2010eko datuen aldean. Izan ere, urte horretan %20,67koa zen. Joerak hainbat behin-behinekotasun edo prekarietate handi sorrarazten du, bereziki Afrikako hainbat eskualdetatik datozen biztanleen kasuan, non sarrerak eta gastuak, praktikan, parekatzeko joera dagoen.

2014an baliagarri dauden sarrerekin, atzerritar jatorriko biztanleen %66,2k dio oinarrizko beharrak betetzearekin loturiko zailtasun ekonomikoren bati egin behar izan ziola aurre azken urtean, hots, janaria, jantziak edo etxebizitza

ordaintzeko, edo ustekabeko gastuei aurre egiteko ahalmenarekin. %6,1 puntu igo da adierazle hori 2010ekoaren aldean (orduan %60,1ekoa izan zen). Eragina askoz murritzagoa bada ere, handia da oinarrizko beharrei aurre egiteko etengabeko zailtasunak nagusi direneko egoeren eragina, halako moldez non gora egin baitu atzerritar jatorriko biztanleek gutxienez sei hilean egoera hori jasan dutenen kopuruak: 2014an %15,5 eta 2010ean, berriz, %6,6. Magrebtar jatorriko biztanleekin ikusten da zailtasun kronikoen eragin handiagoa da, guztira %30,2 baitaude ukituta.

Herritarrek fenomeno honen gainean duten jarrerari dagokionez, Ikuspegik -Immigrazioaren Euskal Behatokiak- agerian jartzen du euskal herritarrek ez dutela arazo modura ikusten immigrazioa.

%2,2k soilik dio aurretiaz galdetu gabe EAEko arazo nagusia dela, eta aipamenak guztira %12,3 dira (%12,4 2015ean). Bat-bateko hiru erantzunen multzoan, bosgarren tokian ageri da immigrazioa, langabeziaren (%85,5), arazo ekonomikoen (%26), politikarien (%26) eta ustelkeriaren eta iruzurraren (%13,8) atzetik.

Enpleguari dagokionez, immigrazioak lan-merkatuan betetzen duen eginkizunari buruzko ikuspegi funtzionala eta utilitarista nabarmen jaitsi da krisiaren ondorioz: 2004an %80k uste zuen etorkinak behar genituela zenbait sektoretan lan egiteko. 2014an, berriz, %30,5ek uste du hala. 2015ean, aldiz, biraketa gertatu da ikuspegi horretan, zeren eta ia 12 puntu gehiago bildu baitira, %42,4raino, eta badirudi joera aldaketa hori 2016an finkatu dela. Urte horretan %44,7raino egin zuen gora ratioak (+2,5 puntu portzentual).

Antzeko zerbait gertatu da baieztapen honekin: ekonomia hobeto dabil migratzaileek betetzen dituztelako biztanle autoktonoen nahi ez dituzten postuak. 2014an, %32,8 ados zegoen baieztapen horrekin (sortako ratiorik txikiena), 2015ean %44,9raino igo zen portzentajea eta 2016an, berriz ere, %48,3raino (+3,4 puntu).

3.2. GOGOETAK

2016ko urtarrileko Udal Erroldako azken datuak ikusita berretsi egin daiteke gure Erkidegoa demografiaren aldetik ez atzera ez aurrera dagoela azken urteetan. Gehienbat hazkunde naturalaren ondorioz (migrazio saldoa, txikia bada ere, positiboa da), jaiotzen eta heriotzen arteko diferentzia negatiboa da hiru urtez jarraian, hain zuzen ere jaiotza kopuruak beherantz jarraitzen duelako eta heriotzek gora egiten dutelako: zahartzearen ondorio naturala.

Adierazle demografikoek Euskadin azken urteetan agerian utzi duten egoera hori lehen aldiz gertatu da historian Europar Batasun osoan, zeren eta, orain artean, EBko zenbait herrialdetako gazteriak beste batzuen pixkanakako zahartzea konpentsatzen baitzuen ugalkortasunaren bidez (horien artean Espainia dago, baita EAE ere). Horrela, beste herrialde batzuetako biztanleei esker, Batasunak nazioartean duen pisu demografikoari eutsi ahal izan dio.

Aldagai demografikoen bilakaerak azken finean erakusten duenez, arazo garrantzitsua eta orokorra da Europa mailan.

Horrez gain, Estatu mailako biztanleriaren gaineko azken aurreikuspenek (EIN) aditzera ematen dutenez, joera horri eutsiko zaio, baldin eta demografian eragina duten aldagaietan aldaketarik sartzen ez bada. Izan ere, erronkarik handienetako bati egin beharko diogu aurre, gizartea garen aldetik, zeren eta, biztanleria zahartuta, immigrazioaren ekarpenik izan gabe eta gure ekonomiak mundu globalizatuan duen pisu espezifiko txikia direla-eta, neurriak hartu behar baitira luza gabe; neurri horiek ez dira, egun, antzematen, ordea.

Batzorde honen ustez, azken urteetako demografiaren bilakaerak eta berehalako etorkizunerako dagoeneko ezarrita dauden joerek berehalako arreta eta lehentasuna eskatzen dute tartean diren guztien aldetik, bereziki botere publikoen aldetik. Horri esker, biztanle autoktonoen etengabeko jaitsiera bideratu ahal izango da; osterantzean, gure gizartearen geroko bilakaera arriskuan egon daiteke, orekan eta aurrerabidean bizi ahal izateko.

Demografiaren arloak eredu orokorra behar du EAE osoan, eremu honetako politika publikoak bideratu ahal izateko, halako moldez non zeharkako politika koordinatuak izango baitira. Eta, alde horretatik, harrigarri egiten zaigu Eusko Jaurlaritzak hasia berria den legegintzaldirako sortutako Plan Estrategikoen artean arretarik ez jartzea demografiaren

arazoan, ezta lan-bizitza eta familia uztartzearen gaian ere. Izan ere, uztartze horretan dago, neurri handi batean, arazoaren jatorria.

Bestalde, Memoria honetan EAEko migrazioari buruz eginiko azterlanean, aldaketa metodologia ezarri da aurten, zifrak ebaluatu ahal izateko, atzerritar jatorriko biztanleak (kontsideratu beharreko aldagai berria) ugariagoak baitira atzerritar nazionalitateko biztanleak baino, Estatuko nazionalizazio prozesuak direla eta, berezi garrantzitsuak Latinoamerikako nazionalitateen artean.

Aldagai hori aintzat hartuta, atzerritar jatorriko biztanleen kopuruak gora egin zuen EAEn azken bi urtekoan, gutxi bada ere, neurri batean aurreko bi urteetako jaitsierarekin konpentsatuta; Estatuan, berriz, jaitsiera da dinamika orokorra. Berez, gazteak beste herrialde batera lanera joateari buruzko azterlanak egin dira, giza kapital autoktonoa galtzen ari den irudipen orokorra estatistiken bidez berresteko, baina hauxe baino ez da berresten argi eta garbi: gazte atzerritarrak beren jatorriko herrialdeetara itzuli edo beste toki batzuetara joan direla, azken urteetako egoera ekonomikoaren ondorioz. Gazte autoktonoei dagokienez, mugikortasunak gora egin duela islatzean dute emandako datuek, irteeretan nahiz sarreretan. Horrez gain, zalantzan jartzen da gazte autoktono gehienak beste herrialde batzuetara joateari buruzko irudipena. Hori dela eta, gomendagarria da azterketetan horretan sakondu beharra.

Eusko Jaurlaritzaren 2014ko Atzerritar Etorkizunei buruzko Inkestako (AEI) azken zifrek agerian uzten dutenez, krisiak gogor astindu ditu atzerritarrak, eta horietako asko pobrezia egoera larrian bizi dira, beren oinarrizko beharrak betetzeko arazo handiekin. Horren ondorioz, EAEtik alde egin behar izan dute askotan.

Eta euskal gizarteak immigrazioaren inguruan duen jokabideari dagokionez, beste urte batez balorazio positiboa egiten da immigrazio arazotzat ez hartzearen inguruan. Hala, 2016an etorkinei buruzko ikuspegirik pragmatikoetan sendotu da, krisialdi ekonomikoaren ondorioz galdutako jarduera ekonomikoarekin lotuta. Euskal herritarrek jakin badakite etorkinak beharrezkoak direla gure ekonomiarako, baina beharbada jabetuago egon beharko lukete, gero eta gehiago, berme demografikoa ere badirela.

KAPITULUKO ITURRIAK:

1. EIN: Biztanleen Udal Errolda. 2016ko urtarrileko datuak. Urterokoa. Koiunturala.

2. EUSTAT: Jaiotzei buruzko estatistikak. 2015. Urterokoa. Koiunturala.

3. EUSTAT: Heriotzei buruzko Estatistikak (HE). 2015. Urterokoa. Koiunturala.

4. EUROSTAT: Estatistika demografikoak. 2015. Urterokoa. Koiunturala.

5. EUSTAT: Migrazio-mugimenduei buruzko Estatistikak (MME). 2015. Urterokoa. Koiunturala.

6. IKUSPEGI. EAEko gazteen emigrazioari buruzko azterlana. EINen mikrodatuekin eginikoa. 2000-2014ko datuak. 2016an argitaraturiko azterlan zehatza.

7. EIN: 2016-2031ko biztanleriaren gaineko aurreikuspenak. 2016an argitaraturiko azterlan zehatza.

8. EUSTAT: Ezkontzei buruzko Estatistikak (EE). 2015. Urterokoa. Koiunturala.

9. EIN: Ezkontzei, Banantzeei eta Dibortzioei buruzko Estatistikak. 2015. Urterokoa. Koiunturala.

10. IKUSPEGI. Atzerritar jatorriko biztanleei buruzko azterketa. EINen mikrodatuekin egina. 2016. Urterokoa. Koiunturala.

11. EUSKO JAURLARITZA. Etorkin Atzerritarrei buruzko Inkesta (ABI) 2014. Lau urtean behingoa. Estrukturala.

12. IKUSPEGI. 2016ko Barometroa. Geuk eginiko inkesta. Urterokoa. Koiunturala.

II. KAPITULUA

Ekonomia EAEn

1. KANPOKO INGURUNE EKONOMIKOA

II. kapituluko lehen atal hau hiru epigrafetan banatuta dago. Lehenik eta behin, munduko abagune ekonomikoa azaltzeko faktore ekonomiko nagusiak aztertzen dira, arlo ekonomiko nagusien arteko desberdintasunak aintzat hartuta. Bigarrenik, eurogunearen egoera zehatza aztertzen da, baita EB28rena eta estatu kide bakoitzarena ere (per capita BPGd-a, BPGd-aren egiazko hazkundea, langabezia-tasak, produktibitateak, inflazioa eta finantza publikoak). Azkenik, hirugarren epigrafeak, alde batetik, Estatuko egoera ekonomikoa aztertzen du (egoera makroekonomikoa, ordainketa-balantza, agente publikoen gastua, zerga-bilketa eta Estatuak aintzatetsitako betebeharrak), eta bestetik, autonomia erkidegoetan BPGd-aren eta langabezia-tasen aldetik gertaturikoari buruzko ikuspegi laburra emango da.

1.1. FAKTORE EKONOMIKO NAGUSIAK[1]

2016. urtean hazkundea apala izan zen, ikuspegi historikotik, ekonomia aurreratuetan zein garatzen ari diren ekonomietan; ziurgabetasuna handitu zeneko eta hegakortasunaren maximo iragankorrak iritsi zireneko aldiak gertatu ziren finantza-merkatuetan, batez ere Erresuma Batua Europar Batasunean jarraitzeari buruzko ekaineko erreferendumaren eta Estatu Batuetako lehendakaritza-hauteskundeen ondoren.

Oro har, erosahalmenaren parekotasunaren arabera haztatutako munduko BPGd-aren hazkundea % 3,1 handitu zen (2015ean baino 3 hamarren gutxiago), NDFaren zenbatespenen arabera.

Ekonomia aurreratuetan ekonomia-jarduerari lagundu zioten oraindik moldakorrak ziren finantzatze-baldintzek eta lan-merkatuen hobekuntzak. Hala, hirugarren hiruhilekoaren BPGd-ren zifrek izan zituzten, oro har, espero zen baino hazkunde handiagoak, eta finkatzeko joera izan zuten laugarrenean, eskuragarri dagoen azken informazioaren arabera.

Urte osoan, 2015aren aldean, ekonomia aurreratuek erritmo motelagoan hazi ziren (% 1,7, eta 2015ean % 2,1): AEBen BPGd-a % 1,6 hazi zen (2015ean baino ehuneko bat gutxiago), eurogunearena % 1,7 (2015ean baino 3 hamarren gutxiago), eta Japoniarena % 1 (2015ean % 1,2).

II.1.1 TAULA. ALDAGAI EKONOMIKO NAGUSIEN LABURPENA

	2015	2016
BPGd (urteko ehuneko aldaketa)		
Mundukoa	3,4	3,1
Ekonomia aurreratuak (1)	2,1	1,7
AEB	2,6	1,6
Japonia	1,2	1,0
Eurogunea	2,0	1,7
Beste ekonomia aurreratu batzuk	1,9	2,0
Garatzen ari diren ekonomiak eta garatu berriak	4,2	4,1
Latinoamerika eta Karibe	0,1	-1,0
Brasil	-3,8	-3,6
Mexiko	2,6	2,3
Estatu Independenteen Erkidegoa	-2,2	0,3
Errusia	-2,8	-0,2
Gainerakoak, Errusia izan ezik	-0,5	1,8
Asian garatzen ari diren ekonomiak eta garatu berriak	6,7	6,4
Txina	6,9	6,7
India	7,9	6,8
Europan garatzen ari diren ekonomiak eta garatu berriak	4,7	3,0
Ekialde Ertaina, Afrikaren Iparraldea, Afganistan eta Pakistan	2,7	3,9
Saharaz hegoaldeko Afrika	3,4	1,4
Ondasun eta zerbitzuen munduko merkataritza *(OetaZen munduko esportazio eta inportazioen urteko batez besteko aldaketa, ehunekoan)*	2,7	2,2
Kontsumitzaileentzako prezioa		
Ekonomia aurreratuak	0,3	0,8
Garatzen ari diren ekonomiak eta garatu berriak	4,7	4,4
Lehengaien prezioak ($) *(abendua-abendua aldaketa)*		
Elikagaiak	-15,2	5,2
Industria-produktuak (ez-metalak)	-11,8	25.0
Industria-produktuak (metalak)	-27,6	29.7
North Sea Brent petrolioaren prezioa ($/upela, abendua-abendua ald.)	-39,1	39,8

(1) Ekonomia aurreratuak: AEB, Kanada, Japonia, Eurogunea, Erresuma Batua, Danimarka, Suedia, Norvegia, Zipre, orain dela gutxi industrializatu diren Asiako ekonomiak, Israel, Islandia, Australia eta Zeelanda Berria. Orain dela gutxi industrializatu diren Asiako ekonomiak Hego Korea, Taiwan, Hong-Kong eta Singapur.
(2) Bermerik gabeko maileguen egun baterako interes-tasa
Iturria: NDF "Munduko ekonomiaren aukerak" (2017ko apirila) eta Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioa, "Adierazle ekonomikoen laburpena. Taulak eta Grafikoak. 2017ko otsaila".

Erresuma Batuan, ekonomiak indartsu jarraitu zuen, herrialdea Europar Batasunean jarraitzeari buruzko erreferendumaren emaitzari lotutako ziurgabetasuna gorabehera. Aurretiko zenbatespenen arabera, BPGd erreala % 2

[1] *Epigrafe honetan agertzen den informazioa iturri hauetatik dator: Nazioarteko Diru-Funtsa, Europako Banku Zentrala, Espainiako Bankua eta Ogasun eta Administrazio Publikoen Ministerioa.*

handitu zen 2016an, kontsumo pribatuaren indarrak eutsita, gehienbat. Finantza-merkatuetan, erreferendumaren emaitzaren ondoriorik nabarmenena izan zen libra esterlinaren balio-galera handi bat.

Bestalde, garatzen ari diren ekonomien hazkundea ere apala izan zen 2016an, oro har (% 4,1, hau da, 2015ean baino hamarren bat gutxiago); baina, ekonomia aurreratuetan ez bezala, heterogeneo samarra izan zen jardueraren bilakaera udako hilabeteetan. Txinan, gobernuaren laguntza-neurriek hazkundea mantentzen lagundu zuten, eta urte arteko % 6,7koa izan zen segidako hirugarren hiruhilekoz. Garatzen ari diren Asiako gainerako ekonomietan ez zen eredu zehatzik ikusi.

Urtean, 2015aren aldean, garatzen ari diren Europako ekonomiek % 3 hazi ziren (2015ean % 4,7), Asiakoak % 6,4 (2015ean % 6,6) eta Latinoamerika eta Karibekoak % 1 jaitsi ziren (2015ean % 0,1 hazi ziren). Errusiak % 0,2ko jaitsiera izan zuen (2015aren aldean 2,6 puntuko hobekuntza, beraz), eta Brasilek % 3,6koa (2015ean baino bi hamarren gutxiago), eta Txinak eta Indiak % 6,7 (2015ean baino bi hamarren gutxiago) eta % 6,8, hurrenez hurren.

Mundu mailako merkataritzaren hazkundea ahula izan zen 2016an. Haren aldakuntza-tasa % 2,2koa izan zen, 2015eko ratioa baino 5 hamarren gutxiago eta 2016ko BPGd-aren hazkundea baino 0,9 hamarren gutxiago.

Prezioei dagokienez, garatzen ari diren zenbait ekonomiatan erabili gabeko ekoizpen-gaitasun handia apur bat moteldu zen, eta petrolioaren eta beste lehengai batzuen prezioen aurreko beherapenen ondorioak desagertu ziren; horrela, mundu mailako inflazioa gorantz presionatu zuten 2016ko bigarren seihilekoan.

Azaroaren 30ean, LPEEko kide diren herrialdeek 2017ko lehen seihilekoan ekoizpena murrizteko erabakia hartu zuten, eta abenduaren 10ean LPEEko ekoizleek eta erakunde horretatik kanpoko zenbait ekoizlek akordio bat lortu zuten; harrezkero, petrolioaren prezioa handitu zen (Brent upelaren prezioa % 39,8 handitu zen 2015eko abendutik 2016ko abendura bitartean). Energiakoak ez diren lehengaien prezioak ere suspertu ziren 2016an.

Testuinguru horretan, Europako Banku Zentralak behin jaitsi zuen euroguneko egun bateko esku-hartzearen tasa, martxoan, hain zuzen ere (% 0,00an jarri zuen), eta maila horretan utzi zuen urte osoan.

Euroguneko diru-merkatuko interes-tasak, berriz, urteko batez besteko balioa kontuan hartuta, epe guztietan murriztu ziren. Zehazkiago, hilabete bateko Euriborra –% 0,26 izan zen urteko lehenengo hiruhilekoan, eta –% 0,37an amaitu zuen laugarrena; hiru hilabeteko Euriborra –% 0,19tik –% 0,31ra igaro zen lehen eta laugarren hiruhilekoen artean; sei hilabeteko Euriborra –% 0,10etik –% 0,21era igaro zen; eta urtebeterako Euriborrak % 0,01ean hasi zuen urtea, eta –% 0,07an amaitu.

II.1.2. TAULA. FINANTZA- ETA DIRU-BALDINTZAK

	2015	2016
Esku-hartzearen interes-tasa (denboraldiaren amaieran)		
EB	0,05	0,00
AEB – funts federalen tasa objektiboa	0,5	0,75
Japonia – Call Money (1)	0,1	-0,1
Erresuma Batua	0,5	0,25
Euroaren aldaketa-tasa ***(Euroaren balio-irabaztearen (+) edo balio-galtzearen (-) ehunekoa, abendua-abendua)***		
Euroko dolarra	-11,8	-3,1
Euroko libra esterlina	-7,9	16,3
Euroko yen japoniarra	-10,0	-7,5
Burtsa: kotizazio-indizea (abendua-abendua ehuneko aldakuntza)		
Dow Jones (New York)	-2,2	13,4
Nikkei	9,1	0,4
Euro Stoxx zabala	8,0	1,5
Ibex 35	-7,2	-2,0

Iturria: Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioa, "Adierazle ekonomikoen laburpena. Taulak eta Grafikoak. 2017ko otsaila"
(1) Japoniako esku-hartzearen tasa.

Japoniako Bankuak esku-hartzearen bere tasa –% 0,1era jaitsi zuen (hark ere martxoan), eta maila horretan utzi zuen urtearen gainerakoan. Bestalde, Estatu Batuetako Erreserba Federalak % 0,5ean mantendu zuen (2015eko ekitaldia amaitu zuen balio bera) 2016ko abendura arte, eta orduan % 0,75era igo zuen.

Dibisen merkatuari dagokionez, Estatu Batuetako dolarraren egiazko aldaketa-tasak 1,054 $/€-an bukatu zuen urtea, 2015eko abenduko 1,088 $/€-ren aldean. Hots, % 3,1eko balio-galera izan zuen euroak. Horrez gain, euroak balio-galera izan zuen yenaren aldean eta balioa irabazi zuen libra esterlinaren aldean.

Munduko burtsa-merkatuetan, IBEX 35-ak urtetik urterako % 2ko gutxikuntza izan zuen (2016ko abenduan, 2015eko abenduaren aldean, 2015ean –% 7,2koa izan baitzen); Nikkei-ak % 0,4ko hazkundea izan zuen (2015ean % 9,1ekoa); Dow

Jones-ek % 13,4ko hazkundea izan zuen (2015ean % 2,2 egin zuen atzera); eta Euro Stoxx zabalak % 1,5eko hazkundea izan zuen (% 8 aurreko urtean).

1.2. EUROPAR BATASUNA. EUROGUNEA

Eurogunean, jarduera ekonomikoa bizkortu zen 2016ko azken hilabeteetan, eskuragarri dagoen informazioaren arabera (oraindik osatu gabea da). Hala, eurogunearen ekonomia-suspertzeak, zeina 2013aren hasieran hasi baitzen barne-eskariak bultzatuta, 2016an iraun zuen, eta sendoagotu egin zen.

Dena den, gaur egungo egoeran ziurgabetasun ekonomiko eta politiko handia dago, eta eurogunearen hazkundearen oinarriak ahulak dira oraindik; neurri handian diru-politikaren ekintzean dautza, behin desagertuta petrolioaren prezioaren jaitsierak zein euroaren egiazko aldaketa-tasak 2014ko erdialdetik izan zuen balio-galerak ekarritako estimulu positiboak.

2016an, oro har, 2015aren aldean, BPGd-aren urterik urterako hazkundearen batez besteko tasa, termino errealetan, % 1,8koa izan zen, Europako Banku Zentralaren datuen arabera, 2015eko % 2ko tasa baino txikixeagoa.

Eskariaren aldetik, kontsumo pribatuaren urterik urterako hazkundearen batez besteko tasa % 2koa izan zen, 2015eko baino bi hamarren handiagoa; berriz ere, errenta eskuragarria handitzeak bultzatu zuen hazkundea. Inbertsioak % 3,7ko hazkunde-tasa izan zuen, eraikuntza-sektorearen suspertzeak eta jabetza intelektualeko produktuen hobekuntzak bultzatuta, ekipo-ondasunetako inbertsioa apur batez moteldu baitzen. Halaber, kontsumo publikoa 2015ean baino tasa handiagoan hazi zen (% 1,9, % 1,3aren aldean), eta positiboki lagundu zion hazkunde ekonomikoari.

Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioaren "Adierazle ekonomikoen laburpena. 2017ko otsaila" agerkarian jasotako datuen arabera, ekonomia-suspertzea orokorra izan zen euroguneko herrialde guztietan. Hala ere, 2016an, berriz ere, kanpoko ingurunearen ahultasunak moteldu zuen ekonomia-hazkundearen dinamikotasuna. Europako merkataritza-bazkideek eta Txinak eutsi egin zuten ingurune gogorrean, eta gero eta gehiago lagundu zieten euroguneko esportazioei. Estatu Batuetarako, Asiarako (Txina izan ezik) eta garatzen ari diren ekonomietarako esportazioak, ordea, ez ziren handitu 2016an.

Eskaintzaren aldetik, industrian, balio erantsi gordina % 1,5 hazi zen; horrek esan nahi du 2,8 puntuko dezelerazioa egon dela 2015arekin alderatuz; zerbitzuen sektorea, berriz, % 1,7 handitu zen, 2015ean baino gehixeago (% 1,4). Aldi berean, eraikuntzaren balio erantsi gordinak, krisiaren aurreko mailaren oso azpitik mantendu bazen ere, bultzada bat izan zuen eta % 1,9 hazi zen, 2006tik izan den hazkunde tasarik altuena. Horrek erakusten du eraikuntza sektorearen bilakaera gero eta positiboagoa dela, 2008an hasitako uzkurdura eta hazkunde moteleko epe luzearen ostean.

Lan-merkatuek suspertzen jarraitu zuten 2016an. Euroguneko langabe-kopurua % 1,3 handitu zen 2016an, aurreko urtearen aldean; Europar Batasun osoaren hazkundea % 1,2koa izan zen. 2016aren bukaeran, 232,9 milioi pertsonak zuten enplegua Europar Batasunean. Eurogunean, 153,9 milioi pertsonak. Sektoreka, eskuragarri dauden azken datuen arabera (2016ko hirugarren hiruhilekoari buruzkoak), batez ere zerbitzu-sektorean hazi zen enplegua, eta, neurri txikiagoan, industrian; eraikuntzan, berriz, ia ez zen aldatu.

Langabezia-tasak jaisten jarraitu zuen 2016an, eta % 9,7koa zen abenduan, 2009aren erdialdetik izan den txikiena. Oro har, batez beste % 10ekoa izan zen; 2015ean % 10,9koa izan zen, eta 2014an, % 11,6koa. Hala ere, gogoan izan behar dugu "Europako Banku Zentralaren 2016ko urteko txostenaren" arabera maila altuetan jarraitu zutela, berriz ere, lan-merkatuaren lasaiera-mailaren aldagai zabalenek (horietan kontuan hartzen dira lanaldi partzialean lan egin behar duten langileak eta lan-merkatutik atera direnak).

II.1.3 TAULA. EUROGUNEKO ADIERAZLE EKONOMIKO NAGUSIAK (Urteko aldaketa-tasak)							
	2014	2015	2016	2016			
				I	II	III	IV
BPGd-a merkatuko prezioetan	**1,2**	**2,0**	**1,8**	**1,7**	**1,6**	**1,8**	**1,8**
BARNEKO ESKARIA	1,2	1,9	2,2	2,1	2,3	1,8	2,5
Gastua azken kontsumo pribatuan	0,8	1,8	2,0	2,0	1,9	1,8	1,9
Gastua azken kontsumo publikoan	0,6	1,3	1,9	2,0	2,1	1,7	1,6
IOF finkoa	1,5	3,2	3,7	2,5	3,8	2,4	5,1
KANPO-ESKARIA							
BPGd-aren aldaketa-tasari ekarpena	0,0	0,2	-0,3	-0,3	-0,5	0,0	-0,6
Esportazioak	4,4	6,5	2,9	2,4	2,5	2,7	3,8
Inportazioak	4,9	6,5	4,0	3,4	4,1	2,9	5,5
Egiazko BEGd							
Nekazaritza	1,2	-0,6	-2,0	-1,8	-1,8	-2,2	-2,6
Industria	2,4	4,3	1,5	1,7	1,2	1,2	2,0
Eraikuntza	-1,1	-0,1	1,9	1,4	1,5	2,4	2,3
Merkatu-zerbitzuak	1,0	1,4	1,7	1,6	1,7	1,8	1,8
ENPLEGUA ETA LANGABEZIA							
Guztizko enplegua (urteen arteko aldaketa-tasa)	0,6	1,0	1,3	1,4	1,4	1,2	1,2
Langabezia-tasa (populazio aktiboaren gaineko ehunekoa)	11,6	10,9	10,0	10,3	10,1	9,9	9,7

Iturria: European Central Bank. Economic Bulletin. Issue 3/2017. 11 May 2017 eta Banco de España, 2017ko maiatza

Europar Batasuneko herrialdeen multzoari dagokionez, EUROSTATen arabera, honako hau izan zen egoera:

Per capita BPGd-a[2], erosahalmenaren parekotasunean neurtua. Analisia mailaren baldintzetan eta ez eboluzio-baldintzetan egiten da, EB28aren batez bestekoa kontuan hartuta; EB28=100.

2015. urtean eurogunearen[3] batez bestekoaren balio bera (106) edo handiagoa izan duten herrialdeak hauexek dira: Luxemburg (264), Irlanda (177), Austria (128), Herbehereak (128), Danimarka (127), Alemania (124), Suedia (123), Belgika (119), Finlandia (109), Erresuma Batua (108) eta Frantzia (106).

Euroguneko batez bestekoaren azpitik, baina %80ren gainetik hauexek daude: Italia (96), Espainia (90), Malta (88), Txekiar Errepublika (87), Eslovenia (83), Zipre (82).

BPGd-aren aldaketa-tasa egiazko baldintzetan. EB28an % 1,9koa izan zen 2016an (% 2,2 aurreko urtean). Eurogunean, bestalde, % 1,8koa izan zen, 2015eko % 2aren aldean.

Hazkunde-tasarik handienak, % 3tik gorakoak, honako hauek izan ziren: Irlanda (% 5,2), Malta (% 5), Errumania (% 4,8), Luxemburg (% 4,2), Bulgaria (% 3,4), Eslovakia eta Suedia (bietan % 3,3) eta Espainia (% 3,2).

Herrialdeetako batek ere ez zuen aldakuntza-tasa negatiborik izan; dena den, Greziaren hazkunde-tasa nulua izan zen.**Langabezia-tasa.** Langabezia-tasak bi digitu izaten jarraitu zuen zenbait estatutan. Zehatzago esanda, ondoko herrialdeek % 10 eta % 12 arteko tasa izan zuten: Frantzia, Italia eta Portugal. % 13 inguru: Kroazia eta Zipre. Eta honako hauek EB28ko langabezia-tasa handienak: Espainia (% 19,6) eta Grezia (% 23,6).

Tasarik txikienak, aldiz, herrialde hauetakoak izan dira: Txekiar Errepublika (% 4), Alemania (% 4,1), Malta (% 4,7), Erresuma Batua (% 4,8), Hungaria (% 5,1), Errumania (% 5,9), Herbehereak eta Austria (bietan % 6), Danimarka eta Polonia (bietan % 6,2), Luxemburg (% 6,3), Estonia (% 6,8) eta Suedia (% 6,9).

[2] *EAP: erosteko ahalmenaren parekotasuna*

[3] *Eurogunea: Alemania, Austria, Belgika, Zipre, Eslovakia, Eslovenia, Espainia, Estonia, Finlandia, Frantzia, Grezia, Irlanda, Italia, Lituania, Letonia, Luxemburg, Malta, Herbehereak eta Portugal.*

Kontsumoko Prezioen Indize Harmonizatuak (KPIH)[4]. Eurogunean KPIHa % 1,1 handitu zen 2015eko abenduaren eta 2016ko abenduaren bitartean. Espainiar estatuan % 1,4koa izan zen. Azterketa zabalago bat dago kapitulu honetako "*II.4. Prezioak, Kostuak eta Errentak*" atalean.

II.1.4. TAULA. EUROPAR BATASUNAREN BILAKAERA EKONOMIKOA

	Biztanleko BPGd-a (1)		Egiazko BPGd-aren hazkuntza		Langabezia-tasa		Enplegu-tasa		Inflazioa (KPIH) (abendua-abendua aldaketa)	Produktibitatea pertsona enplegatuko (2)	
	2014	2015	2015	2016	2015	2016	2016	Helburua	2015	2014	2015
EB28	100,0	100,0	2,2	1,9	9,4	8,5	71,1	75,0	1,2	100,0	100,0
Eurogunea	107,0	106,0	2,0	1,8	10,9	10	70	:	1,1	107,3	107,2
Belgika	120,0	119,0	1,5	1,2	8,5	7,8	67,7	73,2	2,2	131,0	130,0
Bulgaria	46,0	47,0	3,6	3,4	9,2	7,6	67,7	76,0	-0,5	43,5	44,2
Txekiar Errep.	86,0	87,0	4,5	2,4	5,1	4,0	76,7	75,0	2,1	79,3	79,9
Danimarka	127,0	127,0	1,6	1,3	6,2	6,2	77,4	80,0	0,3	114,8	114,5
Alemania	125,0	124,0	1,7	1,9	4,6	4,1	78,7	77,0	1,7	106,2	105,9
Estonia	76,0	75,0	1,4	1,6	6,2	6,8	76,6	76,0	2,4	73,7	71,1
Irlanda	137,0	177,0	26,3	5,2	9,4	7,9	70,3	69,0	-0,2	145,1	185,9
Grezia	70,0	68,0	-0,2	0,0	24,9	23,6	56,2	70,0	0,3	85,6	82,6
Espainia	90,0	90,0	3,2	3,2	22,1	19,6	63,9	74,0	1,4	103,2	101,5
Frantzia	107,0	106,0	1,3	1,2	10,4	10,1	70,0	75,0	0,8	115,4	115,3
Kroazia	59,0	58,0	1,6	2,9	16,1	13,3	61,4	62,9	0,7	70,3	68,7
Italia	97,0	96,0	0,8	0,9	11,9	11,7	61,6	67,0	0,5	107,8	107,4
Zipre	81,0	82,0	1,7	2,8	15,0	13,1	68,8	75,0	0,1	85,1	84,1
Letonia	64,0	64,0	2,7	2,0	9,9	9,6	73,2	73,0	2,1	64,6	64,5
Lituania	75,0	75,0	1,8	2,3	9,1	7,9	75,2	72,8	2,0	74,5	73,2
Luxemburg	267,0	264,0	4,0	4,2	6,5	6,3	70,7	73,0	1,6	170,1	170,0
Hungaria	68,0	68,0	3,1	2,0	6,8	5,1	71,5	75,0	1,8	71,0	70,3
Malta	86,0	88,0	7,4	5,0	5,4	4,7	69,6	70,0	1,0	91,2	92,1
Herbehereak	131,0	128,0	2,0	2,2	6,9	6,0	77,1	80,0	0,7	112,8	111,1
Austria	130,0	128,0	1,0	1,5	5,7	6,0	74,8	77,0	1,6	115,8	115,7
Polonia	68,0	69,0	3,8	2,7	7,5	6,2	69,3	71,0	0,9	73,9	74,3
Portugal	77,0	77,0	1,6	1,4	12,6	11,2	70,6	75,0	0,9	78,9	78,2
Errumania	55,0	57,0	3,9	4,8	6,8	5,9	66,3	70,0	-0,1	57,0	59,4
Eslovenia	83,0	83,0	2,3	2,5	9,0	8,0	70,1	75,0	0,6	81,6	81,5
Eslovakia	77,0	77,0	3,8	3,3	11,5	9,7	69,8	72,0	0,2	84,1	83,2
Finlandia	111,0	109,0	0,3	1,4	9,4	8,8	73,4	78,0	1,1	107,5	107,9
Suedia	124,0	124,0	4,1	3,3	7,4	6,9	81,2	80,0	1,7	112,9	113,4
Erresuma Batua	109,0	108,0	2,2	1,8	5,3	4,8	77,6	:	1,6	101,7	101,2

(1) Erosahalmenaren parekotasunean. EB28=100 (2) Erosahalmenaren parekotasunean. EB28=100
Iturria: EUROSTAT

Lan-produktibitatea (BPGd-aren (erosahalmenaren parekotasunean) eta enpleguaren arteko erlazio bezala kalkulatuta). Produktibitatea produkzioaren eta hura lortzeko erabilitako baliabideen arteko harremanean datzan kontzeptua da, eta garrantzitsua da ekonomia baten lehiakortasuna neurtzeko Kalkulatzen erraza da, baina interpretatzen zaila, zeren eta askotariko faktore determinanteak baitaude (landunen gaitasuna, kapitaleko ondasunen zuzkidura, baliabideen erabilera eraginkorra eta beste faktore batzuekin uztartuta erabiltzea —hala nola erakundeen ingurukoak, legearen ingurukoak, etab.—). Jarraian aurkeztutako analisia mailaren arabera eta ez eboluzioaren arabera egin da, EB28ren batez bestekoa kontuan hartuta; EB28=100.

[4] *Kontsumoko Prezioen Indize Harmonizatuak (KPIH) Europar Batasuneko inflazioaren neurketa komuna ematen du. Alderaketa homogeneo hauek lortzeko, KPIan biltzen diren eta haren %5 inguru hartzen duten kontsumoko partida jakin batzuk kanpoan utzi behar izan dira (horrela, adibidez, KPIHtik kanpo geratzen dira Osasun zerbitzuak, Irakaskuntza arautua, Sendagaiak eta diruz lagundutako farmaziako produktuak, eta abar)*

2015ean, eskuragarri ditugun azken datuen arabera, euroguneko batez bestekoa 107,2 izan zen (oinarria, EB28koa, 100 zen). Hona hemen produktibitaterik handienak izan zituzten estatuak: Irlanda (185,9), Luxemburg (170), Belgika (130), Austria (115,7), Frantzia (115,3), Danimarka (114,5), Suedia (113,4), Herbehereak (111,1), Finlandia (107,9) eta Italia (107,4).

Euroguneko batez bestekoaren azpitik (107,2) baina EB28ko batez bestekoaren gainetik (100) hauexek ditugu: Alemania (105,9), Espainia (101,5) eta Erresuma Batua (101,2).

Finantza publikoak: Egonkortasun eta Hazkuntza Itunaren xedapenekin bat, Estatu kideek honako bi balio hauen azpitik mantentzeko konpromisoa hartu dute: % 3ko defizit/BPGd ratioa eta % 60ko zor/BPGd ratioa. Itun horretan, zuzenketa egiteko asmoak eraentzen du gehiegizko defizitaren protokoloa, hain zuzen ere defizit publiko handiegiak edo zor publiko handiegia berehala zuzentzeko xedez.

Euroguneko administrazio publikoen zorra ia estatu guztietan murriztu zen 2016an, hauetan izan ezik: Italia, Frantzia, Zipre eta Erresuma Batua (horietan gutxi gorabehera mantendu da) eta Letonian, Bulgarian, Polonian, Grezian eta Portugalen (horietan hazi egin da).

EUROSTATen datuen arabera, 2016. urtean eurogunean zor publikoa BPGd-aren % 89,2koa izan zen, 2015. urteko % 90,3aren aldean.

Honako hauek gainditu zuten % 60ko atalasea: Herbehereak (% 62,3), Finlandia (% 63,6), Alemania (% 68,3), Hungaria (% 74,1), Irlanda (% 75,4), Eslovenia (% 79,7), Kroazia (% 84,2), Austria (% 84,6), Erresuma Batua (% 89,3), Frantzia (% 96), Espainia (% 99,4), Belgika (% 105,9), Zipre (% 107,8), Portugal (% 130,4), Italia (% 132,6) eta Grezia (% 179).

II.1.5. TAULA. EBko FINANTZA PUBLIKOAK

	BPGd-aren gainean gobernuaren zor publikoaren %		Defizit/superabit publikoaren % BPGd-aren gainean (moneta nazionaletan)	
	2015	2016	2015	2016
EB28	84,9	83,5	-2,4	-1,7
Eurogunea (19)	90,3	89,2	-2,1	-1,5
Belgika	106	105,9	-2,5	-2,6
Bulgaria	26	29,5	-1,6	0,0
Txekiar Errep.	40,3	37,2	-0,6	0,6
Danimarka	39,6	37,8	-1,3	-0,9
Alemania	71,2	68,3	0,7	0,8
Estonia	10,1	9,5	0,1	0,3
Irlanda	78,7	75,4	-2,0	-0,6
Grezia	177,4	179,0	-5,9	0,7
Espainia	99,8	99,4	-5,1	-4,5
Frantzia	95,6	96,0	-3,6	-3,4
Kroazia	86,7	84,2	-3,4	-0,8
Italia	132,1	132,6	-2,7	-2,4
Zipre	107,5	107,8	-1,2	0,4
Letonia	36,5	40,1	-1,3	0,0
Lituania	42,7	40,2	-0,2	0,3
Luxemburg	21,6	20,0	1,4	1,6
Hungaria	74,7	74,1	-1,6	-1,8
Malta	60,6	58,3	-1,3	1,0
Herbehereak	65,2	62,3	-2,1	0,4
Austria	85,5	84,6	-1,1	-1,6
Polonia	51,1	54,4	-2,6	-2,4
Portugal	129,0	130,4	-4,4	-2,0
Errumania	38,0	37,6	-0,8	-3,0
Eslovenia	83,1	79,7	-2,9	-1,8
Eslovakia	52,5	51,9	-2,7	-1,7
Finlandia	63,7	63,6	-2,7	-1,9
Suedia	43,9	41,6	0,3	0,9
Erresuma Batua	89,0	89,3	-4,3	-3,0

Iturria: EUROSTAT

Defizitari dagokionez, eurogunean defizit publikoa BPGd-aren % 1,5en baliokidea izan; 2015. urtean, berriz, %2,1ekoa izan zen.

Honako estatu hauek gainditu zuten BPGd-aren % 3ko muga: Espainia (–% 4,5) eta Frantzia (–% 3,4). Honako herrialde hauek –% 1,5 eta –% 3 artekoa izan zuten: Errumania, Erresuma Batua, Belgika, Italia, Polonia, Portugal, Finlandia, Hungaria, Eslovenia, Eslovakia eta Austria. Honako herrialde hauek 0 eta –% 1 artekoa: Letonia, Bulgaria, Irlanda, Kroazia eta Danimarka. Gainerako herrialdeek, aldiz, superabita izan zuten.

1.3. ESPAINIAREN ETA ERKIDEGO AUTONOMOEN EKONOMIA

1.3.1. Espainiaren ekonomia

EINek argitaratutako Estatuaren Hiruhileko Kontabilitatearen datuek erakusten dute egiazko BPGd-ak % 3,2ko urteko batez besteko hazkundea izan zuela 2016an, 2015eko tasa bera. Izan ere, ekonomia aurreratuetan ez bezala, Espainiaren ekonomiaren BPGd-aren hazkundea moteldu zen hirugarren eta laugarren hiruhilekoetan.

Hazkundearen osaera aurreko urteetan baino orekatuagoa da: barneko eskaria oraindik da hazkundearen eragile nagusia, eta ehuneko 2,8 puntu ekarri dizkio BPGd-ren hazkundeari; kanpoko eskari garbiaren ekarpena ehuneko 0,5

puntukoa izan zen (bi urtez ekarpen negatiboa izan ondoren —2015ean –0,1 puntu—), ondasun eta zerbitzuen inportazioen desazelerazioa handiagoa izan baitzen esportazioena baino. Bai barneko eskari garbiak, bai kanpoko eskari garbiak, BPGd-aren hazkundeari ekarpen positiboak egin zizkioten, 2000tik lehen aldiz.

II.1.6. TAULA. ESTATUKO EGOERA MAKROEKONOMIKOA.
Urte arteko aldakuntza-tasak. Kateatutako bolumena. Urtaroko eta egutegiko ondorioen datu zuzenduak.

	2015	2016	2015				2016			
			I. HH	II. HH	III. HH	IV. HH	I. HH	II. HH	III. HH	IV. HH
Gastua azken kontsumoan	2,6	2,6	2,1	2,4	3,0	3,1	3,1	2,7	2,4	2,2
- Etxebizitzetako azken kontsumoaren gastua	2,8	3,2	2,4	2,5	3,3	3,2	3,6	3,4	3,0	3,0
- Administrazio Publikoetako azken kontsumoaren gastua	2,0	0,8	1,0	1,9	2,3	2,7	1,7	0,7	0,8	0,0
Kapital finkoaren eraketa gordina	6,0	3,1	4,7	6,3	6,7	6,4	4,3	3,4	2,6	2,2
- Aktibo finko materialak	6,5	3,1	5,1	6,6	7,3	6,8	4,4	3,4	2,7	2,2
• Eraikuntza	4,9	1,9	4,8	4,6	5,3	5,0	2,3	1,8	1,6	1,9
• Ekipo-ondasunak eta aktibo landuak	8,8	5,0	5,5	9,7	10,4	9,6	7,4	5,7	4,2	2,6
- Jabetza intelektualak sortutakoak	3,6	2,9	2,5	4,7	3,3	4,0	4,0	3,2	2,0	2,4
BARNE-ESKARIA (*)	3,3	2,8	2,7	3,1	3,7	3,8	3,5	2,9	2,5	2,2
Kanpo-eskaria										
Ondasun eta zerbitzuen esportazioak	4,9	4,4	4,6	5,0	4,9	5,0	3,8	6,5	2,9	4,4
Ondasun eta zerbitzuen inportazioak	5,6	3,3	4,8	5,5	6,2	6,1	4,5	5,4	1,0	2,3
BARNEKO PRODUKTU GORDINA merkatuko prezioetan	**3,2**	**3,2**	**2,7**	**3,1**	**3,4**	**3,6**	**3,4**	**3,4**	**3,2**	**3,0**
Nekazaritza, abeltzaintza, basozaintza eta arrantza	-2,9	3,4	-6,5	-4,3	-4,3	3,9	5,0	2,7	3,1	2,9
Industria	5,5	2,4	5,3	5,6	6,1	4,9	2,7	2,8	1,7	2,2
- -Manufaktura-industria	7,0	3,1	6,1	6,9	7,9	7,0	4,4	3,8	2,4	2,0
Eraikuntza	0,2	2,5	-0,2	-0,4	0,1	1,1	2,1	2,0	2,9	3,0
Zerbitzuak	2,6	3,4	2,2	2,6	2,9	2,9	3,4	3,6	3,4	3,1
- Merkataritza, garraioa eta ostalaritza	4,6	4,4	3,5	4,8	5,1	5,1	4,5	4,8	4,3	4,2
- Informazioa eta komunikazioak	5,0	5,6	4,3	5,3	6,0	4,3	5,7	6,1	5,2	5,2
- Finantza- eta aseguru-jarduerak	-7,5	-0,6	-8,2	-6,9	-8,2	-6,9	0,1	-1,7	-0,3	-0,6
- Higiezinen arloko jarduerak	-1,1	1,3	-0,5	-1,5	-1,6	-0,8	0,4	1,2	1,9	1,9
- Jarduera profesionalak	9,7	6,9	10,7	10,5	9,6	8,1	7,5	7,4	6,6	6,2
- Administrazio publikoa, osasuna eta hezkuntza	1,7	2,5	0,9	1,1	2,3	2,6	2,5	2,8	2,5	2,1
- Jarduera artistikoak, olgetakoak eta bestelako zerbitzuak	0,6	1,1	0,6	0,5	0,6	0,8	1,3	1,5	1,1	0,5
Produktuen gaineko zerga garbiak	6,7	4,2	6,2	6,6	6,9	7,0	4,8	4,3	4,2	3,6
Lan merkatua										
Lanpostuak (LOPL)										
Landunak	3,0	2,9	2,8	3,0	3,0	3,0	3,1	2,7	2,9	2,7
Soldatapekoak	3,3	3,1	3,1	3,4	3,5	3,3	3,3	3,0	3,1	2,9
16 urtekoen edo zaharragoen langabezia-tasa (BAI)	20,1	19,6	23,8	22,3	21,2	20,9	21,0	20,0	18,9	18,6

(*) (*) Merkatuko prezioetako BPGd-ari egindako ekarpena.
Iturria: EIN (Hiruhilekoko Kontabilitatea eta BAI) eta Espainiako Bankua. Espainia Adierazle ekonomiko orokorrak.

Barne-eskariaren osagaien artean, aipagarria da etxebizitzetako eta etxebizitzen zerbitzurako irabazi-asmorik gabeko erakundeetako azken kontsumoaren gastuaren bilakaera ona; enplegua sortzeak, interes-tasa baxuen inguruneak eta finantzatze-baldintzak hobetzeak bultzatu du hori. Hala, kontsumo pribatuaren urteko batez besteko hazkundea % 3,2koa izan zen 2016an, 2015ekoa baino 3 hamarren handiagoa.

Bestalde, Administrazio Publikoen azken kontsumoaren gastua % 0,8 hazi zen bolumen kateatuan eta urte arteko kopuruetan, 2015ean baino 1,2 puntu gutxiago.

Inbertsioari dagokionez, KFEGd-aren hazkunde-erritmoa moteldu zen, % 3,1eraino (2015ean baino 2,9 puntu gutxiago). Osagaien ikuspuntutik, inbertsioaren moteltzearen arrazoia da aktibo finko materialen (eraikuntza eta ekipo-ondasunak eta aktibo landatuak) zein jabetza intelektualak sortutakoen hazkundearen desazelerazioa. Horrela, eraikuntzaren alorreko inbertsioa 3 puntu jaitsi zen; ekipo-ondasunena eta aktiboena 3,8 puntu, eta jabetza intelektualaren produktuena 0,7 puntu.

Eraikuntza-arloko inbertsioaren bilakaera okerragoaren arrazoia izan zen bestelako eraikuntzetako (etxebizitza izan ezik) inbertsioen osagaia: 2015ean urteko betez besteko hazkundea % 6,4koa izan zen, eta 2016an % 0,4koa. Etxebizitzetako inbertsioa, berriz, sei hamarretan bizkortu zen, % 3,7raino.

Kanpo-eskariari dagokionez, lehen aipatu bezala, 2016an 0,5 puntuko ekarpena egin zion BPGd-ari (2015ean, aldiz. 0,1 puntuko ekarpen negatiboa egin zuen), ondasunen eta zerbitzuen esportazioen desazelerazioa (puntu erdikoa, % 4,4raino) txikiagoa izan baitzen inportazioena baino (2,4 puntukoa, % 3,3raino).

Eskaintzaren ikuspegitik, urte arteko kopuruetan eta bolumenean, jarduera bizkortu zen sektore guztietan, industrian izan ezik: 2015ean % 5,5eko hazkundea izatetik, 2016an % 2,4 izatera igaro zen. Hala, lehen sektorearen BEGd-a % 3,4 handitu zen 2016an (–% 2,9 2015ean); eraikuntzarena, % 2,5 (2015ean baino 2,3 puntu gehiago); eta zerbitzuena, % 3,4 (%2,6 2015ean).

BPGd-aren bilakaeraren ildo beretik, % 2,9koa izan zen LOPLko biztanleriaren batez besteko hazkundea 2016. urtean, Kontabilitate Nazionalaren arabera, 2015. urteko ratioa baino hamarren bat gutxiago. Soldatapekoen aurrerapena % 3,1ekoa izan zen. Bestalde, EIN erakundearen Biztanleria Aktiboaren Inkestak (BAI) agerian uzten duenez, (16 urtetik gorakoen) langabezia-tasa % 19,6ra murriztu zen; % 20 baino gutxiago da lehen aldiz 2010etik.

Ordainketaren balantzari dagokionez, 2016. urtean ekonomiak berriz ere finantzazio-gaitasuna [5] izan zuen. Ekonomiaren finantzaziorako ahalmena (superabita) 22.752 milioi eurokoa izan zen, hots, BPGd-aren % 2.

Espainiako Administrazio Publikoek 55.576 milioi euroko defizitarekin (behin-behineko datuak) amaitu zuten 2016. urtea, Kontabilitate Nazionalaren arabera neurtuta. Horrek esan nahi du BPGd-a % 5,1etik % 4,5era igaro zela 2015 eta 2016 urteen artean.

II.1.7. TAULA. ESPAINIAKO EKONOMIAREN ORDAINKETA-BALANTZA
(milioi euro)

	2014 bb	2015 bb	2016 bb
BPGd bb	1.037.025	1.075.639	1.113.851
Finantzazio gaitasuna/premia	15.423	21.267	22.752
BPGd-aren gainean (%)	1,5	2,0	2,0
Kontu korrontearen eta kapitalaren saldoa	16.293	21.733	23.638
Kontu korrontea	11.244	14.725	21.785
Ondasunak eta zerbitzuak	25.509	26.228	32.877
Errentak	-14.265	-11.503	-11.092
Kapital-kontua	5.049	7.008	1.853
Finantza-saldoa	11.510	25.185	30.421
Guztira, Espainiako Bakua izan ezik	-15.986	63.345	83.054
Inbertsio zuzena	8.042	29.375	20.910
Zorroko inbertsioa	-6.490	-5.872	33.121
Bestelako inbertsioak	-17.658	43.080	31.732
Finantza-deribatu garbiak	121	-1.238	-2.709
Espainiako Bankua	27.495	-40.160	-52.634
Erreserbak	3.872	5.067	8.233
Eurosistemaren aurrean Espainiako Bankuaren posizio garbia	46.973	-50.929	-59.707
Bestelakoak Espainiako Bankua	-23.349	5.702	-1.159

bb: Behin-behinekoa
Iturria: Espainiako Bankua "Adierazle ekonomikoak"

Bananduta, Administrazio Zentralek, Autonomia Erkidegoek eta Gizarte Segurantzak, hurrenez hurren, % 2,7ko, % 1,6ko eta % 0,8ko defizitarekin itxi zituzten euren kontuak. Tokiko Korporazioek, aldiz, superabita izan zuten berriz ere, ekitaldi honetan, % 0,6koa, hain zuzen ere.

Diru-sarrerei dagokienez, zerga nagusietako zerga-bilketak, autonomia erkidegoen eta tokiko korporazioen partaidetza aintzat hartuta, hazkundea izan zuen (+% 2,5). Hazkuntzak honako arrazoi hauek izan zituen: batetik, zuzeneko zergen diru-bilketa %1,1 igotzea (Sozietateen gainekoarena % 5 hazi zen eta PFEZarena %0,1; "bestelakoak" partida, aldiz, % 0,7 murriztu zen) eta, bestetik, zeharkakoak % 4,1 haztea (BEZa % 4,2 hazi zen, bereziak % 3,8, eta "bestelakoak" partida % 4,1).

Bestalde, Estatuak onartutako obligazioek % 4,6 egin uzten beherantz, honako atal hauen jaitsieraren ondorioz: inbertsioak (–% 25,5), kapital-transferentziak (–% 19,4), ondasunak eta zerbitzuak erostea (–% 6,4) eta transferentzia arruntak (–% 4,7).

[5] *Finantzaketa-gaitasuna sortzen da ekonomiaren sektoreek sortutako aurrezkia nahikoa denean egindako inbertsioari aurre egiteko; kontu korronteko balantzaren, kapital-balantzaren eta kanpoko egoiliarren inbertsioen saldoak gehituz kalkulatzen da.*

II.1.8 TAULA. SALDO PUBLIKOA AGENTEEN ARABERA* (milioi euro)

	Milioi euro				BPGd-aren %			
	2013 bb	**2014 bb**	**2015 bb**	**2016 a**	**2013 bb**	**2014 bb**	**2015 bb**	**2016 a**
Administrazio publikoak: Finantz. Gaitasuna (+) / Premia (-), EKNaren arabera	**-71.836**	**-62.161**	**-55.128**	**-50.576**	**-7,0**	**-6,0**	**-5,1**	**-4,5**
Administrazio Zentralak								
Administrazio Zentrala (Estatua eta erakunde autonomoak)	-49.819	-38.370	-28.385	-30.408	-4,9	-3,7	-2,6	-2,7
Gizarte Segurantza	-11.541	-10.763	-13.150	-18.096	-1,1	-1,0	-1,2	-1,6
Lurraldeko erakundeak								
Autonomia Erkidegoak (AAEE)	-16.165	-18.500	-18687	-9.155	-1,6	1,8	-1,7	-0,8
Tokiko Korporazioak (TTKK)	5.689	5.472	5.094	7.083	0,6	05	0,5	0,6

bb: Behin-behinekoa
Iturria: Espainiako Bankua "Buletin Estatistikoa"

II.1.9. TAULA. ESTATUAREN ZERGA-BILKETA
(Autonomia Erkidegoek eta Tokiko Korporazioek PFEZ, BEZ eta zerga bereziei egindako ekarpena barne) (milioi euro)

	Zuzeneko zergak				Zeharkako zergak				Guztira		
	Guztira	PFEZ	Sozietateen zerga	Beste batzuk	Guztira	BEZ	Bereziak	Beste batzuk	Estatua	AAEE eta TTKK	**Guztira**
2011	89.641	69.803	16.611	3.227	71.241	49.302	18.974	2.965	88.026	72.855	**160.881**
2012	96.152	70.631	21.435	4.086	71.594	50.464	18.209	2.921	75.643	92.102	**167.746**
2013	94.040	69.946	19.964	4.130	73.733	51.939	19.073	2.722	97.796	69.977	**167.773**
2014	95.571	72.655	18.694	4.221	78.225	56.166	19.104	2.956	101.933	71863	**173.796**
2015	97.789	72.346	20.649	4.795	82.726	60.305	19.147	3.275	107.354	73.161	**180.516**
2016	98.854	72.416	21.678	4.760	86.122	62.845	19.866	3.410	104.915	80.061	**184.976**
Ald. 14-15	2,3	-0,4	10,5	13,6	5,8	7,4	0,2	10,8	5,3	1,8	**3,9**
Ald. 15-16	1,1	0,1	5,0	-0,7	4,1	4,2	3,8	4,1	-2,3	9,4	**2,5**

Iturria: Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioa, "Adierazle ekonomikoen laburpena. Taulak eta Grafikoak. 2017ko otsaila"

II.1.10. TAULA. AURREKONTUAREN EGIKARITZEA ESTATUAK ONARTUTAKO OBLIGAZIOAK (milioi euro)

	Langileak*	Ondasunen eta zerbitzuen erosketak	Interesak	Transferentzia arruntak*	Kapital transferentziak	Inbertsioak	**Guztira**
2011	16.623	4.041	22.195	97.494	7.878	6.163	**154.394**
2012	15.449	3.529	26.059	96.700	4.658	7.195	**153.689**
2013	15.708	3.190	28.410	101.314	7.163	5.457	**161.242**
2014	15.640	3.307	31.818	95.367	8.630	5.161	**159.922**
2015	16.088	3.511	31.745	91.291	9.730	5.281	**157.645**
2016	16.205	3.286	32.063	87.005	7.843	3.932	**150.333**
Ald. 2014-15	2,9	6,2	-0,2	-4,3	12,8	2,3	**-1,4**
Ald. 2015-16	0,7	-6,4	1,0	-4,7	-19,4	-25,5	**-4,6**

(*) (*) 2014. urtean izandako aldaketarekiko datu homogeneizatuak. Estatuak ordaindutako pentsioak tratatu dira.
Iturria: Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioa, "Adierazle ekonomikoen laburpena. Taulak eta Grafikoak, 6.4 Obligazioak. 2017ko otsaila"

1.3.2. Autonomia Erkidegoak

EINren Eskualde-Kontabilitatearen datu ofizialen arabera, biztanleko BPGd nominalari dagokionez, Madrilgo Erkidegoak izan zuen baliorik handiena: biztanleko 32.723 euro 2016an. Ondoren, EAE (31.805 euro) eta Nafarroa (29.807 euro). Beste muturrean, Extremadura (16.369 euro biztanleko), Andaluzia (17.651 euro) eta Melilla hiri autonomoa (17.686 euro). Estatuko batez bestekoa 23.970 eurokoa izan zen.

2016ko BPGd-aren hazkunderik handiena, bolumenari dagokionez, erkidego hauek izan zuten: Balear Uharteak (% 3,8), Madril (% 3,7), Katalunia eta Kanariar Uharteak (biek % 3,5), Galizia (% 3,4) eta Ceuta, Gaztela eta Leon eta Valentziako Erkidegoa (hirurek % 3,3). Horien guztien BPGd-ren hazkunde erreala handiagoa izan zen Estatuko batez bestekoa baino (% 3,2).

Estatu osoaren langabezia-tasa % 19,8koa izan zen 2016an (% 22,2 2015ean). 2015 eta 2016 urteen artean langabezia-tasa jaitsi zen autonomia-erkidego guztietan berriro. Honako hauek izan zituzten tasarik txikienak: Nafarroak (% 12,6), EAEk (% 12,7), Errioxak (% 13,6), Balear Uharteak (% 14), Aragoik (% 14,9), Kantabriak (% 15) eta Katalunia eta Madrilek (biek % 15,8). Eta tasa handienak: Melillak (% 30,9), Andaluziak (% 29), Extremadurak (% 27,6), Kanariar Uharteek (% 26,2), Ceutak (% 25), Gaztela-Mantxak (% 23,6) eta Valentziako Erkidegoak (% 20,7).

II.1.11. TAULA. BPGd-aren HAZKUNDEA, ENPLEGUA ETA LANGABEZIA-TASA ERKIDEGO AUTONOMOETAN

	Langabezia-tasa (16-64 urte)		BPGd bolumenaren aldakuntza		Per capita BPGd-a		
					2015 a	2016 e	
	2015	2016	2015 a	2016 e	Estatua = 100	Estatua = 100	€ per cápita
GUZTIRA	**22,2**	**19,8**	**3,2**	**3,2**	**100,0**	**100,0**	**23.970**
ANDALUZIA	31,7	29,0	2,8	2,8	73,9	73,6	17.651
ARAGOI	16,4	14,9	2,4	2,7	110,0	109,8	26.328
ASTURIAS	19,2	17,8	2,7	1,9	87,9	87,2	20.910
BALEAR UH.	17,5	14,0	2,3	3,8	104,0	103,8	24.870
KANARIAR UH.	29,3	26,2	2,0	3,5	82,9	82,9	19.867
KANTABRIA	17,7	15,0	2,6	2,3	90,4	89,9	21.553
GAZTELA ETA LEON	18,4	16,0	2,5	3,3	93,5	94,5	22.649
GAZTELA-MANTXA	26,4	23,6	2,8	3,1	77,6	77,6	18.591
KATALUNIA	18,7	15,8	3,7	3,5	119,1	119,3	28.590
VALENTZIAKO E.	22,9	20,7	3,6	3,3	88,7	88,8	21.296
EXTREMADURA	29,2	27,6	2,1	2,0	68,5	68,3	16.369
GALIZIA	19,5	17,3	3,2	3,4	88,4	89,1	21.358
MADRIL	17,2	15,8	3,6	3,7	136,8	136,5	32.723
MURTZIA	24,7	19,9	3,7	3,1	81,1	81,0	19.411
NAFARROA	13,9	12,6	3,1	2,9	125,4	124,4	29.807
EAE	**14,9**	**12,7**	**3,6**	**2,8**	**132,8**	**132,7**	**31.805**
ERRIOXA	15,5	13,6	2,7	1,5	108,8	107,2	25.692
CEUTA	27,8	25,0	2,1	3,3	81,3	81,1	19.446
MELILLA	34,0	30,9	1,8	3,1	73,6	73,8	17.686

a: aurrerapena. e: estimazioa
Iturria: EIN. Eskualde-kontabilitatea eta BAI

ITURRIAK:

1. NDF. *Munduko ekonomiaren aukerak. 2017ko apirila. 2016ko datuak. Urterokoa. Koiunturala.*

2. EKONOMIA, INDUSTRIA ETA LEHIAKORTASUN MINISTERIOA

Adierazle ekonomikoen laburpena. 2017ko otsaila. 2016ko datuak. Urterokoa. Koiunturala.

Adierazle ekonomikoen laburpena. Taulak eta Grafikoak. 2017ko otsaila. 2016ko datuak. Urterokoa. Koiunturala.

3. ESPAINIAKO BANKUA

Estatistikak. 2016ko datuak. Urterokoa. Koiunturala.

"Buletin Estatistikoa". 2016ko datuak. Urterokoa. Koiunturala.

4. EUROSTAT. Datu basea. 2016. Urterokoa. Koiunturala.

5. EUROPAKO BANKU ZENTRALA. Urteko txostena. 2017ko apirila. Urterokoa. Koiunturala.

6. EIN. Kontabilitate Nazionala. 2016. Urterokoa. Koiunturala.

7. EIN. Eskualde-Kontabilitatea. 2016. Urterokoa. Koiunturala.

8. EIN. BAI. 2016. Urterokoa. Koiunturala.

2. EAE-KO ABAGUNE EKONOMIKOA

Kapitulu honetan, lehenik eta behin, EAEko abagune ekonomikoaren bilakaera orokorra aztertuko da. Bigarren epigrafean, zehatzago aztertuko da barne-eskariaren agregatuen bilakaera, eta hirugarrenean, berriz, kanpo-eskaria. Azkenik, laugarren atala atzerriko inbertsioei buruzkoa da, atzerritarrek gure Erkidegoan eginiko inbertsioaren nahiz EAEk atzerrian eginiko inbertsioaren gainekoa.

2.1. BILAKAERA OROKORRA

EUSTATen "*Hiruhileko Ekonomia Kontuak*" deritzenen arabera, EAEko ekonomiak %3,1eko hazkunde erreala izan zuen 2016an (2015ean baino bi hamarren gehiago), eta haren BPGd-a, kopuru korronteetan, 71.576 milioi izan zen.

Alabaina, hiruhilekoen profilak hazkundearen moteltzea erakusten du urtean zehar, zeren eta lehen hiruhilekoa urte arteko %3,3ko aldakuntza-tasarekin hasi eta laugarrenean %2,9ko tasarekin bukatu baitzen.

GRÁFICO II.2.1. EAEko BPGd-a. ALDAKUNTZA-TASAK BOLUMEN KATEATUAN 2010EKO OINARRIA. SEC 2010.



Iturria: EUSTAT eta HEK

Lurralde historikoen arabera, BPGaren eboluzioa 2016. urtean, EUSTATen datuekin bat, positiboa izan da ere bai. Arabak du hazkunderik handiena (%3,3) , eta ondoren Bizkaia (%3,1) eta Gipuzkoa (%3) datoz.

Ekoizpenaren hazkundea handiagoa da EAEn eurogunean baino (%3,1, %1,7aren aldean), eta Estatukoaren antzekoa (%3,2). INEren Eskualde Kontabilitateak ere aldakuntza errealeko tasa izan zuen 2015ean (urtetik urterakoa) euskal ekonomiarako, %3,6koa hain zuzen ere, eta %2,8koa 2016an.

Eskariaren gaineko azterketak %3,0ko Barne-eskariaren hazkundea izan zuen, eta BPGd-aren %3,1eko hazkunde gehituta, esan daiteke kanpo-eskariak ekarpen nulua duela BPGd-aren hazkundean.

Barne-eskariaren aldakuntza-tasa positiboa izan zen 2016 osorako, gehienbat Amaierako Kontsumoko Gastuaren gehikuntza oinarri hartuta (%3,0); izan ere, hiru urtez jarraian aldakuntza positiboak eta goranzkoak gertatu dira. Erregistro positiboak ditu familien amaierako kontsumoko gastuan (%3,1) nahiz administrazio publikoen amaierako kontsumoan (%2,2).

Kapitalaren eraketa osoa ere positiboa izan da (%3,3), 2015. urtean izandakoa baino bost hamarren gehiago. Bi bilakaera ikusten dira kapitalaren eraketa osoan. Ekipamendu-ondasunekin loturikoak tasa positiboak ematen ditu (%7,5), eta kapitalaren gainerako eraketa osoak, eraikuntzari lotuago dagoenak, berriz, askoz igoera txikiagoa izan du (%1,4).

Kanpoko sektorearen bilakaeran, esportazioetan nahiz inportazioetan, urtetik urterako batez besteko aldakuntza negatiboa izan zen (+%2,2), noiz-eta aurreko urtean lehenbizikoek %0,6ko hazkundea izan zutenean kasu bietan. Urteko profilaren azterketak, ordea, horietako bakoitzaren hazkundea moteldu dela ematen du aditzera. Hala, esportazioetan %4,2ko hazkundea izan zuten urteko lehen hiruhilekoan, eta laugarrenean, berriz, %0,3koa. Esportazioetan, bestalde, lehen eta laugarren hiruhilekoen artean jaitsi izan zen, hain zuzen %3,9tik %0,4ra.

II.2.1. TAULA. EAE-KO EGOERA MARKOEKONOMIKOAREN BILAKAERA. 2010eko oinarria. SEC 2010.
Urte arteko aldakuntza-tasa. Urtaroko eta egutegiko ondorioetatik zuzendutako datuak

	2012	2013	2014	2015	2016	I	II	III	IV
BPGd erreala merkatuko prezioetan	**-2**	**-1,8**	**1,6**	**2,9**	**3,1**	**3,3**	**3,2**	**3,0**	**2,9**
Araba	-2,4	-1,7	2,1	2,8	3,3	3,6	3,2	3,3	3,0
Bizkaia	-2,2	-1,6	1,4	2,6	3,1	3,3	3,2	2,8	3,0
Gipuzkoa	-1,4	-2	1,6	3,4	3,0	3,1	3,0	3,0	2,8
Eskaria									
Barne-eskaria (hazkundea)	-2,8	-2,1	1,4	2,8	3,0	3,1	3,3	2,7	3,0
Gastua amaierako kontsumoan	-1,4	-1,2	1,9	2,8	3,0	3,1	3,2	2,7	2,9
Kontsumo pribatua	-1,6	-1,1	2,2	3,1	3,1	3,3	3,4	3,1	2,9
Kontsumo publikoa	-0,9	-1,8	0,7	1,8	2,2	2,4	2,7	0,8	3,0
Kapitalaren Eraketa Osoa (KEO)	-7	-4,9	-0,5	2,8	3,3	3,4	3,7	3,1	3,2
Ekipamendu ondasunetan	-4,9	-3,4	3,3	6,5	7,5	10,7	7,0	6,1	6,6
...eraikuntzako ondasunetan eta beste b.	-3,3	-5,8	-2,2	1,1					
...gainerako eraketa osoa (eraikuntzari lotuagoa)				1,2	1,4	0,2	2,2	1,6	1,6
Kanpo- saldoa									
Ondasun eta zerbitzuen esportazioa	-4,7	0,9	5,8	0,6	2,2	4,2	3,0	1,6	0,3
Estatuko gainerakoak	-7,2	1,8	1,5	1,9					
Atzerria	-2,4	0,2	9,8	-0,5					
Ondasun eta zerbitzuen inportazioa	-5,7	0,3	5,3	0,6	2,2	3,9	3,2	1,3	0,4
Estatuko gainerakoak	-2,5	-1,5	2,3	-1,9					
Atzerria	-10,5	3,3	10	4,4					
Eskaintza									
Lehen sektorea	10,9	-3,5	-19,8	13,4	1,6	11,6	2,8	-0,7	-7,3
Industria eta energia	-5,2	-2,7	2	3,9	3,3	4,8	2,4	2,9	3,0
Manufaktura-industria	-5,7	-2,5	2,4	4,7	3,5	4,7	2,6	3,1	3,3
Eraikuntza	-7,6	-4,6	-1,7	0,5	1,6	-0,3	2,7	1,9	1,9
Zerbitzuak	-0,4	-1,1	1,7	2,9	3,2	3,0	3,4	3,1	3,1
Merkataritza, Ostalaritza eta Garraioa	-2,5	-1,4	1,9	4,5	3,6	3,1	3,9	3,7	3,5
Administrazio publikoa, hezkuntza, osasuna eta gizarte zerbitzuak	0,4	0,6	2,6	2,5	2,4	2,2	2,4	2,4	2,7
...Gainerako zerbitzuak	0,5	-1,9	1	2	3,3	3,4	3,6	3,0	3,0
Balio erantsi gordina oinarrizko prez.	-2,1	-1,8	1,4	3,1	3,1	3,3	3,1	3,0	2,9
Produktuen gaineko zerga garbiak	-1,1	-1,6	3,8	1,1	3,1	3,2	3,2	2,9	3,1
BPGd nominala merkatuko prezioetan	**-1,9**	**-1,3**	**2,0**	**3,0**	**3,4**	**3,4**	**3,4**	**3,4**	**3,5**
Lanpostu baliokideak. GUZTIRA									
Nekazaritza, Abeltzaintza eta Arrantza	0,8	-5,4	-1,3	-1,9	1,0	0,7	1,0	-1,4	3,8
Industria	-5,4	-4,3	-1,6	-1,1	1,6	1,2	1,4	2,0	1,9
Eraikuntza	-12,9	-11,9	-3,4	-0,4	0,0	-0,3	-0,1	0,0	0,5
Zerbitzuak	-1,6	-1,6	1,1	2,6	2,1	2,3	2,1	2,0	1,9
Guztira	**-3,3**	**-3**	**0,2**	**1,6**	**1,9**	**1,9**	**1,8**	**1,8**	1,9

(a) Aurrerapena
(1)BPGd-aren hazkundean dagoen ekarpeneko ehunekoak.
Iturria: EUSTAT. Ekonomia Kontuak eta Hiruhileko Ekonomia Kontuak (2017ko otsaila)

Eskaintzaren aldetik, aldakuntza positiboak izan dituzte lau jarduera-sektore handiek, eta industriaren sektorea nabarmentzen da, %3,3ko hazkundea lortu baitu. Tasa horretatik gertu Zerbitzuen sektoreak dago; izan ere, %3,2ko hazkundea izan du urte osoan. Halaber, Eraikuntzan nahiz Lehen Sektorean, aldakuntza positiboak izan dira, %1,6koak.

Industriaren sektorean, Manufaktura-industriak eutsi dio bilakaera globalari, eta %3,5eko tasarekin hazi da; hiru urtez jarraian metatu dira igoerak.

Zerbitzuen sektoreko bilakaera positiboan (aldakuntza positiboak eta goranzkoak metatu dira hiru urtez jarraian), hiru azpisektorek hartu dute parte, eta dinamikoena Merkataritza, Ostalaritza eta Garraio arloa da, %3,6ko hazkundearekin. Bigarren tokian, Gainerako zerbitzuak deritzenak dira, %3,3ko hazkundea lortuta. Azkenik, Administrazio Publikoa, Hezkuntza, Osasun eta Gizarte Zerbitzuen adarrak izan du hazkunderik txikiena, orotara %2,4koa.

Eraikuntzaren sektoreak bi urtez jarraian metatu du hazkundea, eta urte osoko aldakuntza-tasa 2015ekoa baino %1,1 handiagoa izan da.

Bestalde, lanaldi osoko lanpostu baliokideetan neurtzen den enpleguaren bilakaera positiboa izan da, %1,9ko hazkundea zenbatetsi baita, batez beste, 2016. urtean (2015eko ratioa baino 3 hamarren handiagoa). Enpleguko joerarik onena Zerbitzuen sektorean gertatu da, %2,1eko hazkundearekin 2015eko batez bestekoarekiko. Apaingarria da industria sektorearen bilakaera, %1,6ko hazkundearekin, eta ondoren Lehen Sektorea da (%1,0). Eraikuntzaren sektoreak, lehen aldiz 2008tik, ez du enplegurik desegin.

2.2. BARNE-ESKARIAREN AGREGATUAK

Arestian esana dugunez, barne-eskarian hainbat urtez jaitsierak izanda, 2014an gora egin zuen, eta joera horri eutsi zaio, hain zuzen ere 2016an urtearteko %3ko batez besteko igoera izan arte.

2015ean gertatu zen bezala, BPGd-aren hazkundea gertatu da, oinarri-oinarrian, barne-eskariaren jokabideagatik, ondoko taulan agerian gelditzen denez.

Barne-eskariaren bi osagai nagusiek (amaierako kontsumoko gastua eta kapitalaren eraketa osora) antzeko joerari eutsi diote hiruhilekoan. Hala, bigarren hiruhilekoan, bietan izan dira lehen hiruhilekokoak baino hazkunde-tasa handiagoak, moteldu egin da hazkundea hirugarrenean eta berriz ere hazkunde handiagoaren bidetik jarraitu du laugarrenean.

Alabaina, amaierako kontsumoko gastuaren bi osagaien bilakaera aztertzean ikusi dugunez, kontsumo publikoko gastuak joera berarekin jarraitzen du, baina ez da gauza bera gertatzen kontsumo pribatuko gastuan, zeren eta bigarren eta hirugarren hiruhilekoetan izandako motelaldiak laugarren hiruhilekoa ere hartu baitu.

II.2.2. GRAFIKOA. BARNE- ETA KANPO-ESKARIAK BPGd-AREN HAZKUNDEAN EGINIKO EKARPENA



Iturria: EUSTAT (HEK). Aurrerapena)

II.2.3. GRAFIKOA. BARNE-ESKARIA. BENETAKO HAZKUNDEKO URTE ARTEKO TASAK



Iturria: EUSTAT
Ekonomia Kontuak

Hala, herri administrazioen gastua, urteko lehen hiruhilekoan, %2,4ko aldakuntza-tasarekin hasi da, eta %2,7koa da bigarrenean, baina %0,8 egin du behera hirugarrenean eta berriz ere egin du gora laugarrenean. Hala, %3ko hazkunde-ratioa erregistratu da (hala ere, aintzat izan behar dugu magnitude horrek gorabehera handiak izan dituela bere bilakaeran, ordainketen egutegiak baldintzatuta). Bestalde, kontsumo pribatuko gastua %3,3ko hazkundearekin hasi da lehen hiruhilekoan, bigarrenean %3,4ko igoera izan du, baina hazkundea %3,1 jaitsi da hirugarrenean eta laugarren hiruhilekoan %2,9arekin.

Kapitalaren eraketa osoari dagokionez, agregatuaren eragile nagusia Ekipamendu-ondasunetako inbertsioa izan zen, hiru urtez goranzko aldakuntza positiboak metatu baitira, baina inbertsioaren gainerako zatiak, eraikuntzan eginikoa barne, tasa positiboa erregistratu du lehen urtez, txikiagoa bada ere.

Ekipamendu-ondasunen inbertsioaren hiruhileko profilaren ezaugarri nagusia %10,7ko hazkundea da lehen hiruhilekoan, baina hazkundea moteldu egin da bigarrenean eta hirugarrenean (%7,1 eta %6,1), eta berriz ere egin du gora laugarrenean, %6,6raino.

EUSTATek emandako informazioaren arabera, kontsumo eta inbertsioko abaguneko adierazleekin berretsita gelditzen da azaldutako egoera. Hala, kontsumo pribatuko adierazleei dagokienez, adierazle horietan hazkundeak izan dira bizpahiru urtez jarraian, baina nolabaiteko motelaldia ikusten da. Beraz, kontsumoko ondasunen IPI %0,2 hazi da, noiz-eta 2015ean %5,2 igo zenean, eta txikizkako merkataritzaren indizea, prezio iraunkorretan, %1,5 hazi da (2015ean baino bi hamarren gutxiago).

II.2.2. TAULA. BARNE-ESKARIAREN ZENBAIT ADIERAZLEREN BILAKAERA
(Urte arteko aldakuntza-tasa)

	2013	2014	2015	2016 p
Kontsumo publikoaren adierazleak				
AA.PP.en kontsumoko gastua (HEKen arabera)	-1,8	0,7	1,8	2,2
Kontsumo pribatuaren adierazleak				
Kontsumo pribatuko gastua (HEKen arabera)	-1,1	2,2	3,1	3,1
Kontsumo ondasunen IPI	-5,1	-2,2	5,2	0,2
Txikizkako Merkataritzako Salmenta-indizea	-3,9	0,0	1,7	1,5
Beste batzuk				
Hoteletako gau-emateak (EAEko berezkoak alde batera utzita)	-2,2	4,0	8,6	10,8
Hoteletako gau-emateak (EAEko bidaiarienak)	-	4,3	5,7	-4,3
Inbertsioaren adierazleak				
Ondasun ekipamenduen IPI	-3,2	1,6	7,4	8,7

bb: behin-behineko datuak
Iturria: EUSTAT

Bestalde, hoteletako gau-emateen kopuruak (EAEko berezko bidaiariak baztertuta) %10,8 egin du gora, eta hiru urtez jarraian hazkundeak metatu dituzte. Gainera, 2015ean egiaztaturikoa baino ratio handiagoa erregistratu da (%8,6). Alabaina, EAEko berezko bidaiarien hoteletako gau-emateen kopuruak %4,3 egin du behera.

Inbertsio-adierazleei dagokienez, Ekipamendu-ondasunen Industria-ekoizpenaren indizeak %8,7 egin du gora (2015ean aldian, baino %1,3 gehiago.

2.3. KANPO-ESKARIA

"Kanpo-merkataritzaren Estatistikak" (Aduanen erregistroetan oinarrituta) atzerriarekin eginiko ondasunen kanpoko merkataritzari buruz eskainitako behin-behineko datuek erakusten dutenez, %1,6 murriztu da esportazioen balio korrontea 2016an (21.596 milioi euro bilduta orotara, 2016an baino 360 gutxiago), eta energiakoak ez direnetan %1,7 hazi da (guztizkoaren %92,3 dira) eta energiakoetan, berriz, %29,2ko jaitsiera. Bestalde, guztizko inportazioek %8 egin zuten behera (15.848 milioi euro guztira, 2015ean baino 1.338 milioi euro gutxiago), non energiakoen inportazioetan balioak, guztizkoaren %21ekoa denak, %29,6 egin zuten behera eta, energiakoak ez direnenak, berriz, %0,2 egin zuen gora.

EAEko energiakoak ez diren esportazioen aduana-sarien taldeko azterketan agerian gelditu denez, lehenik eta behin Ekipamendu-ondasunak nabarmentzen dira, esportaturiko guztizkoaren %48,7 (makinak, 4.458,4 milioi euro, eta garraio materiala, 6.075,7 milioi euro). Alabaina, garraio materialen esportazioa hazi egin da (%18,3); makina eta aparatuenak, berriz, behera egin du (-%3,6). Aldi berean, nabarmentzekoa da metal komunen eta manufakturen esportazioaren jaitsiera, hots, guztizkoaren %21,3, eta %10,7 jaitsi da. Aurreko esportazioetatik urrunago dagoen rankingean, plastikoak eta kautxua nabarmentzen dira, guztizkoaren %7,1 izanik, eta horren aldakuntza-tasa negatiboa da (-%1,2).

Energiakoak ez direnen esportazioei dagokienez, Ekipamendu-ondasunak ere nabarmentzen dira (makinak eta aparatuak, 3.355 milioi euro, eta garraio materiala, 1.179,3 milioi euro), hots, inportazio guztien %29,1. Izan ere, inportazioek gora egin dute bi kasuotan: makinak eta aparatuak (%13,2) eta garraio materiala (%13,1). Aldi berean, metal komunak eta horren manufakturak nabarmentzen dira, inportazio guztien %20,3 baitira, baina haien inportazioak behera egin du, %12,2 hain zuzen ere.

Kanpo-saldoak, 2016an, 6.111,9 milioi euroko superabita izan du (2015ean bildutakoa baino 978,4 milioi euro gehiago). BPGd-aren gaineko ehunekoetan adierazita, %8,5 da, 2015eko ratioa (%7,4) baino %1,1 handiagoa.

Ondasun eta produktu energetikoen eta ez-energetikoen artean bereizita, esan daiteke saldo energetikoa defizitarioa (-1.580,8 milioi euro) izan zela. Energiakoak ez diren produktuenetan, berriz, atzera erregistratu da superabitata, 7.692,8 milioi eurokoa, hots, BPGd-aren %10,8, 2015ean izandakoaren antzeko ratioa hain zuzen (%10,7).

Lurraldez lurralde, EUSTATen arabera, bilakaera desberdina izan da 2016ean. Hala, Araban gora egin dute inportazioek nahiz inportazioek. Bizkaian eta Gipuzkoak, berriz, behera egin dute. Lurralde historikoei dagokienez, EUSTATen arabera, bilakaera desberdina izan zen 2015ean. Beraz, esportazioek %15,1 egin dute gora Araban. Bizkaian, aldiz, %11,7 jaitsi da, eta Gipuzkoan %2,6. Inportazioei dagokienez, %12,3 hazi dira Araban. Bizkaian, ostera, %15,4 jaitsi da, eta Gipuzkoan %6,2.

II.2.3. TAULA. EAE-KO ONDASUNEN ETA ZERBITZUEN KANPOKO MERKATARITZA ATZERRIAREKIKO (MIILIOI euro) (aduana-sarien atalen araberako sailkapena)

	ESPORTAZIOAK				INPORTAZIOAK				SALDOA	
	2015 (bb)	2016 (bb)	% bert.	Aldak.	2015 (bb)	2016 (bb)	% bert.	Aldak.	2015 (bb)	2016 (bb)
	Milioi euro				Milioi euro				Milioi euro	
Guztira	**21.955,3**	**21.595,6**	**100,0**	**-1,6**	**16.821,8**	**15.483,7**	**100,0**	**-8,0**	**5.133,5**	**6.111,9**
TARIK-en (TARIFA INTEGRATU KOMUNITARIOA) MUGA-ZERGAKO TALDEEN SAILKAPENA)										
Prod. Energetikoak (TARIK-en 27. kap.)	2.356,6	1.669,5	7,7	-29,2	4.615,4	3.250,3	21,0	-29,6	-2.258,8	-1.580,8
Produktu ez-energetikoak (Tarifen gainerako kapituluak)	19.598,7	19.926,2	92,3	1,7	12.206,3	12.233,4	79,0	0,2	7.392,4	7.692,8
MUGA-ZERGEN ATALEN ARABERAKO SAILKAPENA										
	M€	M€	% Bert.	Aldak.	M€	M€	% bert.	Aldak.	M€	M€
1. Animalia biziak eta animalien produktuak	248,2	242,9	1,1	-2,1	353,7	389,8	2,5	10,2	-105,5	-146,8
2. Landare-produktuak	40,4	50,2	0,2	24,4	137,3	132,7	0,9	-3,4	-96,9	-82,5
3. Mea edo landare koipeak eta olioak	40,5	35,0	0,2	-13,5	175,0	159,1	1,0	-9,1	-134,6	-124,1
4. Elikagai industrietako produktuak eta tabakoa	600,7	591,8	2,7	-1,5	339,1	315,0	2,0	-7,1	261,6	276,8
5. Mea produktu energetikoak*	2.454,1	1.737,7	8,0	-29,2	4.814,3	3.411,4	22,0	-29,1	-2.360,2	-1.673,7
6. Produktu kimikoak	533,1	546,8	2,5	2,6	1.200,8	1.092,3	7,1	-9,0	-667,8	-545,6
7. Plastikoak eta kautx.	1.557,9	1.539,6	7,1	-1,2	824,2	823,8	5,3	0,0	733,7	715,8
8. Larruak, larrugintza eta horien manufaktura	7,2	5,8	0,0	-18,6	23,8	21,4	0,1	-10,2	-16,7	-15,6
9. Zura, landare-ikatza, kortxoa eta horien manufakturak	78,4	88,9	0,4	13,3	74,8	88,0	0,6	17,5	3,6	0,9
10. Papera	560,0	598,3	2,8	6,8	357,1	375,6	2,4	5,2	202,9	222,7
11. Ehungintza eta horren manufakturak	94,2	103,6	0,5	10,0	250,9	269,1	1,7	7,3	-156,7	-165,5
12. Oinezkoak eta jantzi-osagarriak	11,3	11,3	0,1	-0,5	55,7	50,8	0,3	-8,9	-44,4	-39,5
13. Eraikuntza mater., zeramika eta beira	304,9	298,8	1,4	-2,0	122,8	132,0	0,9	7,5	182,0	166,8
14. Bitxigintza eta bis.	13,8	14,6	0,1	6,0	49,4	41,9	0,3	-15,2	-35,6	-27,3
15. Metal komunak eta horien manufakturak	5.164,5	4.609,8	21,3	-10,7	3.585,0	3.148,9	20,3	-12,2	1.579,5	1.460,9
16. Makinak eta aparatuak	4.624,6	4.458,4	20,6	-3,6	2.946,1	3.335,0	21,5	13,2	1.678,5	1.123,4
17. Garraio materiala	5.134,0	6.075,7	28,1	18,3	1.042,6	1.179,3	7,6	13,1	4.091,4	4.896,4
18. Optika eta zehaztasuneko tresnak eta aparatuak	160,7	186,8	0,9	16,2	265,8	297,4	1,9	11,9	-105,1	-110,6

II.2.3. TAULA. EAE-KO ONDASUNEN ETA ZERBITZUEN KANPOKO MERKATARITZA ATZERRIAREKIKO (MIILIOI euro) (aduana-sarien atalen araberako sailkapena)										
19. Armak eta muniz., zatiak eta osagarriak	81,4	84,7	0,4	4,0	30,5	34,9	0,2	14,4	50,9	49,8
20. Askotariko salgaiak eta produktuak	156,8	177,2	0,8	13,1	161,1	180,0	1,2	11,8	-4,3	-2,8
21. Arte, bilduma edo antzinako objektuak	1,4	2,4	0,0	79,0	0,9	1,1	0,0	24,2	0,4	1,3
Sailkatu gabeak	87,3	135,3	0,6	55,0	10,4	4,1	0,0	-60,9	76,9	131,3

** Muga-zergen atalen arabera, 5. atala Produktu eta mea energetikoak eta bolumena ez da TARIKen 27. kapituluaren berdina*
Iturria: EUSTAT. Kanpo-merkataritzaren Estatistika-ECOMEX.

Area geografikoei jarraiki, ELGAri salmentak (guztiaren %81,5) %1 hazi ziren 2015. urtean. ELGAren barruan euroguneko herrialdeetan egindakoak azpimarra daitezke, atzerrian izandako salmenta guztien %52,3 izan baitziren. Bereziki nabarmentzekoak dira Frantziarako (guztien %16,6) eta Alemaniarako (%15,6) esportazioak; %4,4ko igoera batean eta -%1,4ko jaitsiera bigarrenean. Italiarako eta Erresuma Baturako salmentetan jaitsiera izan da, baita jomuga AEBak dituztenak ere.

Inportazioei dagokienez, atzerrira erosketak, modu berean, ELGAren herrialdeetan kontzentratzen dira (guztizkoaren %70,5) eta guztiaren %49,4 euroguneko herrialdeetan. Ildo horri jarraiki, 2016. urtean %0,2 hazi dira. Bereziki azpimarragarria da Erresuma Batutik datozen inportazioen hazkuntza. Bestalde, jatorria Alemanian eta Italian dutenetan, aldiz, igoera gertatu da, %9,5ekoa lehenengoetan eta %3,5ekoak bigarrenetan.

Gainerako herrialdeetan, esportazioek gora egin dute Marokon (+%43,7), Txinan (+%20), Turkian (+%9) eta Mexikon (+%6,6), Estatu Batuetarakoak direnetan, aldiz, jaitsierak izan dira (-%10,5). Inportazioak direla-eta, Errusiako inportazio energetikoen igoera nabarmentzen da (+%33,4), baita Txinakoetan izandako beherakada ere (%11,1).

II.2.4. TAULA. EAE-KO ESPORTAZIOEN JOMUGA ETA INPORTAZIOEN JATORRIA. BAZKIDE KOMERTZIAL NAGUSIAK *(MILA eurotan)*										
	ESPORTAZIOAK					INPORTAZIOAK				
	2015	2016 bb	Pisua 2015	Pisua 2016	Aldak. 2015-16	2015	2016 bb	Pisua 2015	Pisua 2016	Aldak. 2015-16
GUZTIRA	**21.955.332**	**21.595.648**	**100**	**100**	**-1,6**	**16.821.753**	**15.483.749**	**100**	**100**	**-8,0**
ELGA	17.429.358	17.603.208	79,4	81,5	1,0	11.823.859	10.909.369	70,3	70,5	-7,7
Eurogunea	**11.182.096**	**11.294.105**	**50,9**	**52,3**	**1,0**	**7.639.492**	**7.651.732**	**45,4**	**49,4**	**0,2**
Alemania	3.218.114	3.360.023	14,7	15,6	4,4	2.379.814	2.606.786	14,1	16,8	9,5
Frantzia	3.636.076	3.583.929	16,6	16,6	-1,4	1.775.578	1.618.008	10,6	10,4	-8,9
Erresuma Batua	1.431.022	1.296.686	6,5	6,0	-9,4	1.684.918	814.135	10,0	5,3	-51,7
Italia	1.184.099	1.077.602	5,4	5,0	-9,0	834.334	863.683	5,0	5,6	3,5
AEB	**1.717.564**	**1.537.020**	**7,8**	**7,1**	**-10,5**	**389.477**	**374.423**	**2,3**	**2,4**	**-3,9**

Bb: behin-behineko datuak. Iturria: EUSTAT. Kanpoko Merkataritzaren Estatistika

2.4. ATZERRIKO INBERTSIOA

Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioko Kanpoko Inbertsioen Erregistroaren datuen arabera[6], 490,4 milioi eurokoa izan zen EAEn atzerriko inbertsioa, gure Erkidegoak atzerrian inbertitu zituen 687,5 milioien aldean.

II.2.5. TAULA. ATZERRIKO INBERTSIOA EAE-N ETA EAE-KO INBERTSIOA ATZERRIAN: ERKAKETA (mila eurotan)
(Atzerriko balioak dituzten enpresak deskontaturik)

	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016 p
Atzerriko inbertsioa EAEn	144.062,23	528.404,86	430.489,36	1.095.889,54	1.408.748,99	854.097,74	490.398,66
EAEko inbertsioa atzerrian	2.033.686,69	5.399.035,17	444.727,02	1.229.019,68	894.266,12	10.930.086,36	687.465,71

** ABDE deskontatuta. Iturria: Kanpo-inbertsioen Erregistroa. Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioa eta geuk eginikoa*

2.4.1 Atzerriko inbertsioa EAEn

Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioaren Kanpo-inbertsioen Erregistroko datuen arabera, atzerriko inbertsioa EAEn behera egin zuen 2015 eta 2016 urte bitartean, atzerriko balioak dituzten enpresak deskontaturik (ABDE [7]), %42,6 hain zuzen ere. Beraz, bi urtez jarraian beherakadak izan ziren (1.409 milioi euro 2014an eta 794 2015ean). Orotara, 2016. urtean EAEk 490,4 milioi euro jaso zituen. Estatuko datuaren gainean EAEk duen proportzioa jaitsi egin da: 2015eko %3,6tik 2016ko %2,1era. Madrilgo Erkidegoak jasotzen duen inbertsioa deskontaturik, %3,9rainokoa da,%6,4 2015ean.

II.2.4. GRAFIKOA. ATZERRIKO INBERTSIO OSOA EAE-N



ABDE deskontaturik. Iturria: Kanpo-inbertsioen Erregistroa

Hala ere, 2016. urtean, EAEk bosgarren lekua hartu du inbertsio-bolumenean, Madrilen atzetik (10.969,9 milioi euro jasotzen baititu, ABDEak kenduta) eta Kataluniaren atzetik (4.856,6 milioi euro jasotzen baititu). Nafarroak 836,3 milioi eta Balearrek 564,5 milioi.

Sektoreen ikuspegitik, bereziki nabarmenak dira guztizkoan duen pisuagatik honako hauetan eginikoak:

- Informazioa eta komunikazioak: EAErako inbertsioen %2,7 dira eta sektore horrek Estatuan eginikoaren %22.3
- Metalgintza eta metalezko produktuen fabrikazioa: EAEn eginiko inbertsioaren %20,2 eta sektore horretan Estatuan eginikoaren %19,3.
- Elikagaiak, edariak eta tabakoa: jomuga EAE duen inbertsioaren %11,5 da eta sektore horretan Estatuan eginikoaren %7,9.

[6] *Estatistika honek atzerriko inbertsiotzat jotzen du Estatuko inbertsioa eta, beraz, EBkoa eta ELGAkoa sartzen dira kopuru horietan.*

[7] *ABDE: bere sozietate xedean, Espainiako lurraldeko egoiliarrak ez diren erakundeen berezko funtsen balio nagusiak kudeatzeko eta administratzeko jarduera bildu behar da, betiere baliabide materialak eta giza baliabideak antolatuta. ABDEen zerga-araubidea dela-eta, zergak ordaintzetik salbuetsita daude Euskadiko egoiliarrak ez diren sozietateen dibidenduak eta sozietate horietako partaidetzen salmentaren ondoriozkoa errentak*

- Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak: Jomuga EAE duen inbertsioaren %11 da eta sektore horretan Estatuan eginikoaren %5,3.

- Motordun ibilgailuen eta beste garraio material batzuen fabrikazioa, EAEn eginiko inbertsioaren %9,2 da, eta sektore horretan Estatuan eginikoaren %62,1.

Lurraldeen aldetik, ELGAko herrialde batean kokatzen da, kasuen %79,8an, inbertsioaren azken titularra bizi deneko herrialdea, 15eko EBko batean kasuen %45,9an (aurten, Grezia, Luxenburgo eta Herbehereak) eta AEBetan kasuen %33,2an. Inbertsioen zati handi bat Brasilgoa da (%18,5).

Bereziki azpimarratzekoa da Txiletik datozen inbertsioen hazkundea.

II.2.6. TAULA. ATZERRIKO INBERTSIO OSOA* AA.EE.EN ARABERA (milaka euro)

	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016 bb
Guztira	12.297.521,47	28.732.592,37	14.685.969,64	17.281.694,94	20.162.098,27	23.765.854,66	23.476.081,72
Andaluzia	1.234.595,83	636.734,06	612.909,52	346.277,50	295.724,75	593.222,59	399.286,97
Aragoi	47.493,87	38.342,35	151.232,16	168.692,06	111.774,36	62.998,23	33.424,61
Kantabria	3.865,04	20.122,49	22.032,61	15.545,33	8.782,87	8.946,62	20.342,01
Gaztela eta Leon	56.976,35	190.503,69	17.406,98	168.711,76	149.076,87	44.316,14	29.553,23
Gaztela-Mantxa	56.065,55	462.593,97	51.657,18	24.542,94	88.704,17	54.262,87	104.451,17
Katalunia	4.826.674,06	3.058.343,86	2.675.903,70	3.570.990,56	3.038.197,57	4.921.377,63	4.856.584,71
Ceuta eta Melilla	2,65	35,66	1.399,76	368,26	3.660,14	16.288,55	599,79
Madril	4.456.389,07	17.444.810,56	9.358.559,80	8.967.160,13	10.777.066,46	10.318.419,76	10.969.937,74
Valentzia	132.956,62	397.777,56	102.478,45	173.541,72	823.157,76	257.626,49	161.969,58
Extremadura	30.404,96	36.260,31	31.554,16	15.951,33	250.171,77	44.193,75	62.130,55
Galizia	50.483,48	219.165,07	185.821,53	227.331,86	51.629,20	86.109,08	118.186,35
U. Balearrak	175.460,56	424.682,38	288.763,31	793.007,23	269.250,61	267.818,15	564.465,92
U. Kanariarrak	168.908,93	90.993,46	70.431,59	45.459,62	146.837,93	87.369,87	30.700,46
Errioxa	36.414,21	2.549,56	10.267,53	62.219,26	3.358,30	30.751,17	7.573,01
Nafarroa	111.510,30	49.302,33	161.338,73	11.104,84	28.603,12	19.308,65	836.294,33
EAE	144.062,23	528.404,86	430.489,36	1.095.889,54	1.408.748,99	854.097,74	490.398,66
Asturias	29.323,33	505.266,78	62.737,35	872.497,60	487.173,44	1.510.222,79	290.521,54
Murtzia	28.594,97	72.065,13	24.572,42	52.622,23	43.853,55	517.167,74	67.204,89
ESLEITU BARIK	707.339,46	4.554.638,29	426.413,50	669.781,17	2.176.326,41	4.071.356,84	4.432.456,20

(*)Inbertsioa osoa ABDE gabe. bb. behin-behineko datuak
Iturria: Kanpoko inbertsioen erregistroa. Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioa

II.2.7. TAULA. EAE-N EGINIKO INBERTSIO OSOA* ETA ESTATUAN EGINIKOAREN GAINEKO PARTAIDETZA SEKTOREEN ARABERA (mila €-tan)								
	EAE			Estatua	Banaketa	Estat.	ALDAKUNTZA EAEn	
	2014	2015	2016 p	2016 bb	EAEn	gain. %	%14-15	%15-16
A. Nek. Abel. Basog. eta Arrantz	728,8	0,0	0,4	339.398,6	0,0	0,0	-100,0	
B. Erauzketa-industriak	4.600,0	0,0	20.229,7	74.056,4	4,1	27,3	-100,0	
C. Elikadura, edariak eta tabakoa	175.000,0	43.840,0	56.232,1	709.089,8	11,5	7,9	-74,9	28,3
C. Ehungintza eta jantzigintza	0,0	0,0	0,0	7.980,1	0,0	0,0		
C. Larrugintza eta zapatagintza	0,0	0,0	0,0	121,2	0,0	0,0		
C. Egurraren eta artelazkiaren industria, altzariak, saskigintza eta espartzugintza salbu	0,0	5,5	1,5	142.652,2	0,0	0,0		-72,7
C. Papergintza eta arte grafikoen industria	0,0	3.505,4	0,0	15.588,1	0,0	0,0		-100,0
C. Kokegintza eta petrolio-finketa	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0			
C. Ind. Kimikoak eta kautxu eta plastiko transf	0,0	16.924,5	4.102,7	271.640,2	0,8	1,5		-75,8
C. Prod. Farmaze. Fabrik.	0,0	0,0	0,0	13.791,2	0,0	0,0		
C. Metalurgia eta produktu metalikoen fabrik.	913,9	65.081,7	98.928,5	511.899,3	20,2	19,3	7.021,2	52,0
C. Prod. Informatikoen, elektronikoen eta optik. fabrik	3.609,6	3,0	345,2	134.384,1	0,1	0,3	-99,9	11.406,7
C. Material eta ekipamendu elektrikoaren fabrik.	6.000,0	6.716,7	5.100,0	162.899,9	1,0	3,1	11,9	-24,1
C. BESG makineriaren eta ekipamenduaren fabrik.	15.358,2	3.463,4	5.586,4	43.362,1	1,1	12,9	-77,4	61,3
C. Ibilgailu motord. eta beste garraio-mat. batzuen fabrik	22.658,4	0,2	47.817,9	77.031,5	9,8	62,1	-100,0	19.924.037,5
C. Altzarien fabrik.	0,0	0,0	0,0	10.579,0	0,0	0,0		
C. Beste manufaktura batzuk	0,0	3,8	517,0	795.624,5	0,1	0,1		13.506,1
C. Makineria-instala. Konponk.	0,2	2,4	0,0	6.063,5	0,0	0,0	1.163,2	-100,0
D. Energia elektriko, gas, lurrun eta aire girotuaren hornidura.	138.667,1	0,0	5.239,7	4.070.649,9	1,1	0,1	-100,0	
E. Ur hornidura, saneam. jarduera, hondakinen kudeaketa eta deskutsatzea	0,0	8.235,0	0,0	3.380,0	0,0	0,0		-100,0
F. Eraikuntza	63.625,3	234,6	8.019,1	3.093.456,3	1,6	0,3	-99,6	3.318,2
G. Handizkako merkataritza, txikizkakoa, ibilgailu motordun eta motorren konponketa.	317.589,6	56.410,2	18.370,5	1.667.999,4	3,7	1,1	-82,2	-67,4
H. Garraioa eta biltegiratzea	513.760,1	677,8	70,0	1.320.127,2	0,0	0,0	-99,9	-89,7
I. Ostalaritza	6.510,5	965,6	3,0	644.612,5	0,0	0,0	-85,2	-99,7
J. Informazioa eta komunik.	10,0	31.531,1	156.153,7	701.510,5	31,8	22,3	315.211,4	395,2
K. Finantza- eta aseguru-jarduerak	51.488,5	34.748,8	3.095,0	3.575.773,4	0,6	0,1	-32,5	-91,1
L. Higiezinen arloko jarduerak	75.021,1	558.731,7	2.668,8	3.223.178,3	0,5	0,1	644,8	-99,5
M. Jarduera profesional, zientifiko eta teknikoak	629,8	1.714,0	53.716,0	1.009.362,1	11,0	5,3	172,2	3.033,9
N. Jarduera administratiboak eta zerbitzu osagarriak	11.915,3	20.023,0	871,1	225.622,0	0,2	0,4	68,0	-95,6
O. Herri administrazioa eta defentsa	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0			
P. Hezkuntza	0,0	649,7	2.677,2	19.163,3	0,5	14,0		312,1
Q. Osasun eta gizarte zerbitzuen jarduerak	0,1	403,0	500,0	394.466,1	0,1	0,1	335.733,3	24,1
R. Arte, aisialdi eta entretenitzeko jarduerak	662,5	226,0	3,0	188.362,2	0,0	0,0	-65,9	-98,7
S. Beste zerbitzu batzuk	0,0	0,6	150,2	21.857,1	0,0	0,7		24.925,0
T. Etxeko jarduerak	0,0	0,0	0,0	400,0	0,0	0,0		
U. Lurraldetik kanpoko erakundeen eta organismoen jarduerak.	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0			
Inbertsioa, guztira	**1.408.749,0**	**854.097,7**	**490.398,7**	**23.476.081,7**	**100,0**	**2,1**	**-39,4**	**-42,6**

(*)Inbertsioa osoa ABDE gabe. bb. behin-behineko datuak
Iturria: Kanpoko inbertsioen erregistroa. Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioa

II.2.8. TAULA. EAE-KO INBERTSIO OSOA* ETA ESTATUEN GAINEKOAREN GAINEKO PARTAIDETZA, LURRALDEEN ARABERA (mila €-tan)									
		EAE			Estatua 2016 bb	EAE banaketa	Estatu. g. %-a	EAE ALDAKUNTZA	
		2014	2015	2016				%14-15	%15-16
Inbertsioa, guztira		**1.408.749,0**	**854.097,7**	**490.398,7**	**23.476.081,7**		**2,1**	**-39,4**	**-42,6**
Inbertsioaren azken titularra bizi deneko herrialdea	E.L.G.A..	1.242.867,3	535.764,1	391.376,6	19.947.954,0	79,8	2,0	-56,9	-26,9
	15 EB	845.918,4	229.596,5	225.260,0	11.782.150,8	45,9	1,9	-72,9	-1,9
	28 EB	846.223,6	246.921,4	225.279,0	11.875.339,2	45,9	1,9	-70,8	-8,8
	Ipar Amerika	395.902,4	201.697,0	158.161,0	5.761.501,9	32,3	2,7	-49,1	-21,6
	Kanada	44.811,7	15,1	2,6	793.117,4	0,0	0,0	-100,0	-83,1
	AEB	351.090,7	201.681,9	158.158,5	4.968.384,5	32,3	3,2	-42,6	-21,6
	Latinoamerika	160.323,2	161.280,6	97.681,0	2.244.196,2	19,9	4,4	0,6	-39,4
	Argentina	0,0	3,0	0,0	15.773,3	0,0	0,0		
	Brasil	154.782,9	53.447,1	90.718,4	193.309,8	18,5	46,9	-65,5	69,7
	Txile	5,8	10,0	2.751,5	159.657,0	0,6	1,7	74,1	27.387,5
	Mexiko	262,9	100.954,4	2.639,2	1.384.523,1	0,5	0,2	38.295,9	-97,4
	Asia eta Ozeania	4.901,5	3.006,7	518,2	2.804.950,5	0,1	0,0	-38,7	-82,8
	Txina	7,9	2.247,4	119,9	1.117.022,1	0,0	0,0	28.529,3	-94,7
	Arabiar Emirerriak	98,2	0,0	0,0	18.165,4	0,0	0,0	-100,0	
	India	0,0	0,0	0,0	4.635,4	0,0	0,0		
	Japonia	291,5	0,0	0,0	508.823,9	0,0	0,0		
	Afrika	1,5	3.302,4	0,0	68.593,0	0,0	0,0	220.060,0	-100,0
	Paradisu fiskalak	5.151,6	234.376,6	1.440,0	251.200,7	0,3	0,6	4.449,6	-99,4
	Errusia	0,3	0,0	99,0	67.876,2	0,0	0,1	-100,0	

(*)Inbertsio osoa ABDE gabe. bb: behin-behineko datuak
Iturria: Kanpo-inbertsioen Erregistroa. Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioa

2.4.2 Euskal inbertsioa atzerrian

Euskal inbertsioa atzerrian, ABDEak deskontaturik, berriz ere itzuli da aurreko urteetan erregistraturiko mailetara, 2015ean izandako hazkundearen ondoren; izan ere, hazkunde horren oinarria energia elektrikoaren, gasaren, lurrunaren eta airearen horniduraren sektorea izan da. Zehazki, 2016an 6875, milioi euro bildu ditu.

Hala, EAEk atzerrian eginiko inbertsioa Estatuaren guztizko inbertsioaren %2,4 izan zen 2016an, 2014an izandako ratio bera. Madrilgo Erkidegoak egiten duen inbertsioa deskontatuz gero, ehuneko handiagoa dugu, %10,4 hain zuzen. Pisuan ere gora egin du: 2014ko %6,2tik 2016ko %10,4ra.

EAE bosgarren tokian da AAEEn rankingean atzerrian eginiko inbertsioan. Hauexek ditu aurretik: Madril (16.810,9 milioi euro), Katalunia (3.128,8 milioi euro), Galizia (1.343,6 milioi) eta Asturias (804,5 milioi).

Sektoreen aldetik, hauexek nabarmentzen dira:

- Makineriaren konponketa eta instalazioa: EAEn eginiko kanpo-inbertsioaren %47,9 da eta Estatuak sektore horretan eginikoaren %99,9.
- Motordun ibilgailuen eta garraioko beste material batzuen fabrikazioa: EAEn eginiko kanpo-inbertsioaren %22,2 da eta Estatuak sektore horretan eginikoaren %58,3.

II.2.5. GRAFIKOA. EAE-INBERTSIO OSOA ATZERRIAN



ABDE deskontaturik. Iturria: Kanpo-inbertsioen Erregistroa

- Finantza- eta aseguru-jarduerak: EAEn eginiko kanpo-inbertsioaren %16,2 da eta Estatuak sektore horretan eginikoaren %4,1.

- Beste manufaktura batzuk: EAEn eginiko kanpo-inbertsioaren %4,2 da eta Estatuak sektore horretan eginikoaren %1,7.

- Eraikuntza, EAEk eginiko inbertsioaren %3,7 eta Estatuak sektore horretan eginikoaren %1,1.

Lurraldeen aldetik, EAEko inbertsioaren %70,9 ELGAko herrialdeetara dago bideratuta, %43,9 Kanadara eta %19,5 15eko EBko herrialdeetara (gehienbat Erresuma Batua eta Austria). Beste zati handi batek Brasil du jomuga (%19,4).

II.2.9. TAULA. ATZERRIAN EGINIKO INBERTSIO OSO*, AA.EE.EN ARABERA (mila euro)

	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016 p
Guztira	30.975.815,79	30.906.051,67	16.786.627,35	24.208.291,01	30.437.867,48	41.315.361,12	23.448.151,41
Andaluzia	710.096,14	883.305,84	146.551,39	363.531,74	1.649.603,43	634.007,45	90.364,53
Aragoi	154.084,89	207.798,39	232.737,55	41.277,72	40.100,50	27.437,76	134.981,04
Kantabria	1.486.571,17	4.980.455,37	1.625.967,80	449.253,20	6.069.954,92	567.416,06	54.431,48
Gaztela eta Leon	89.190,76	30.030,86	175.721,80	23.494,92	53.661,74	183.948,31	84.659,29
Gaztela-Mantxa	1.463,35	91.720,48	35.893,45	16.325,09	2.296,82	7.938,88	21.640,85
Katalunia	2.104.146,46	2.948.024,34	2.550.388,01	2.606.445,04	4.392.542,66	4.645.181,88	3.128.832,91
Ceuta eta Melilla			0,11				
Madril	21.078.659,41	14.836.948,90	10.317.058,98	17.057.439,94	16.042.286,62	22.138.979,62	16.810.902,10
Valentzia	1.804.502,93	431.491,66	266.559,52	225.179,75	374.828,57	121.896,21	27.857,85
Extremadura	2.202,43	1.213,33	2.258,03	1.230,01	24,38		4.153,91
Galizia	786.736,58	733.022,32	435.073,38	719.568,18	453.727,15	1.236.098,49	1.343.596,84
U. Balearrak	446.470,59	57.137,28	350.048,18	1.231.093,17	289.105,18	314.093,27	138.482,70
U. Kanariarrak	3.857,54	1.702,62	15.648,30	2.672,74	4.776,01	8.031,37	91.922,32
Errioxa	4,81	2.135,30	1.773,00	658,55	0,00	910,00	25,00
Nafarroa	5.855,48	27.221,44	27.430,87	48.043,46	33.547,30	20.022,67	21.936,72
EAE	**2.033.686,69**	**5.399.035,17**	**444.727,02**	**1.229.019,68**	**894.266,12**	**10.930.086,36**	**687.465,71**
Asturias	265.399,69	216.033,57	147.221,85	191.704,79	126.876,59	478.954,94	804.463,59
Murtzia	2.886,87	58.774,80	11.568,11	1.353,03	10.269,49	357,85	2.434,57

(*)Inbertsioa osoa ABDE gabe. bb. behin-behineko datuak
Iturria: Kanpoko inbertsioen erregistroa. Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioa

II.2.10. TAULA. EAE-REN INBERTSIOA * ETA ESTATUAK ATZERRIAN EGINIKOAREN GAINEKO PARTAIDETZA, SEKTOREEN ARABERA (mila €-tan)

	EAE			Estatua 2016bb	EAE banaketa	Estat. g. %	ALDAK. EAE	
	2014	2015	2016 bb				%14-15	%15-16
A. Nek. Abel. Basog. eta Arrantz	0,0	218,9	15.521,8	146.906,4	2,3	10,6		6.992,1
B. Erauzketa-industriak	0,0	0,0	0,0	1.050.274,9	0,0	0,0		
C. Elikadura, edariak eta tabakoa	90,0	0,0	0,0	350.040,0	0,0	0,0	-100,0	
C. Ehungintza eta jantzigintza	0,0	0,0	0,0	1.478,7	0,0	0,0		
C. Larrugintza eta zapatagintza	0,0	0,0	0,0	510,3	0,0	0,0		
C. Egurraren eta artelazkiaren industria, altzariak, saskigintza eta espartzugintza salbu	0,0	0,0	0,0	2.274,6	0,0	0,0		
C. Papergintza eta arte grafikoen industria	0,0	0,0	0,0	96.762,4	0,0	0,0		
C. Kokegintza eta petrolio-finketa	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0			
C. Ind. Kimikoak eta kautxu eta plastiko transf	5.611,5	14.062,8	1.109,8	204.697,3	0,2	0,5	150,6	-92,1
C. Prod. Farmaze. Fabrik.	0,0	0,0	0,0	32.765,5	0,0	0,0		
C. Metalurgia eta produktu metalikoen fabrik.	40.496,4	1.647,5	401,2	54.967,6	0,1	0,7	-95,9	-75,6
C. Prod. Informatikoen, elektronikoen eta optik. fabrik	0,0	165.764,1	0,0	4.476,0	0,0	0,0		-100,0
C. Material eta ekipamendu elektrikoaren fabrik.	29.811,8	18.963,7	7.575,2	23.095,3	1,1	32,8	-36,4	-60,1
C. BESG makineriaren eta ekipamenduaren fabrik.	1.096,7	20.310,0	0,0	12.464,0	0,0	0,0	1.751,9	-100,0
C. Ibilgailu motord. eta beste garraio-mat. batzuen fabrik	51.945,6	63.635,6	152.855,8	262.334,0	22,2	58,3	22,5	140,2
C. Altzarien fabrik.	0,0	0,0	0,0	87,5	0,0	0,0		

II.2.10. TAULA. EAE-REN INBERTSIOA * ETA ESTATUAK ATZERRIAN EGINIKOAREN GAINEKO PARTAIDETZA, SEKTOREEN ARABERA (mila €-tan)								
	EAE			Estatua 2016bb	EAE banaketa	Estat. g. %	ALDAK. EAE	
	2014	2015	2016 bb				%14-15	%15-16
C. Beste manufaktura batzuk	39,9	190,0	28.853,7	1.729.865,7	4,2	1,7	376,4	15.083,0
C. Makineria-instala. Konponk.	0,0	1.483,8	329.574,9	329.972,3	47,9	99,9		22.111,1
D. Energia elektriko, gas, lurrun eta aire girotuaren hornidura.	335.897,4	10.445.026,5	0,0	992.795,9	0,0	0,0	3.009,6	-100,0
E. Ur hornidura, saneam. jarduera, hondakinen kudeaketa eta deskutsatzea	23.353,5	0,0	0,0	27,9	0,0	0,0	-100,0	
F. Eraikuntza	15.492,5	22.778,7	25.335,9	2.387.792,0	3,7	1,1	47,0	11,2
G. Handizkako merkataritza, txikizkakoa, ibilgailu motordun eta motorren konponketa.	24.910,0	13.163,6	11.428,2	7.847.259,1	1,7	0,1	-47,2	-13,2
H. Garraioa eta biltegiratzea	1.416,0	20,0	0,0	1.103.322,7	0,0	0,0	-98,6	-100,0
I. Ostalaritza	1.484,4	687,3	179,1	83.524,1	0,0	0,2	-53,7	-73,9
J. Informazioa eta komunik.	54.752,5	43.532,2	24,6	1.717.875,6	0,0	0,0	-20,5	-99,9
K. Finantza- eta aseguru-jarduerak	97.686,3	106.617,6	111.378,7	2.741.102,6	16,2	4,1	9,1	4,5
L. Higiezinen arloko jarduerak	0,0	0,0	1.562,3	1.312.625,6	0,2	0,1		
M. Jarduera profesional, zientifiko eta teknikoak	209.819,8	3.317,1	1.454,3	48.958,2	0,2	3,0	-98,4	-56,2
N. Jarduera administratiboak eta zerbitzu osagarriak	361,8	8.666,9	60,0	154.610,1	0,0	0,0	2.295,6	-99,3
O. Herri administrazioa eta defentsa	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0			
P. Hezkuntza	0,0	0,0	0,0	171,5	0,0	0,0		
Q. Osasun eta gizarte zerbitzuen jarduerak	0,0	0,0	150,0	9.579,3	0,0	1,6		
R. Arte, aisialdi eta entretenitzeko jarduerak	0,0	0,0	0,0	745.227,8	0,0	0,0		
S. Beste zerbitzu batzuk	0,0	0,0	0,0	306,5	0,0	0,0		
T. Etxeko jarduerak	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0			
U. Lurraldetik kanpoko erakundeen eta organismoen jarduerak.	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0			
Inbertsioa, guztira	894.266,1	10.930.086,4	687.465,7	23.448.151,4	100,0	2,9	1.122,2	-93,7

(*)Inbertsio osoa ABDE gabe. bb: behin-behineko datuak
Iturria. Kanpo-inbertsioen Erregistroa. Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioa

II.2.11. TAULA. EAE-REN INBERTSIO OSOA* ETA ESTATUAK ATZERRIAN HERRIALDEKO EGINIKOAREN GAINEKO PARTAIDETZA (mila €)									
		2014	2015	2016bb	Estatua 2016 bb	EAEko banaketa (%)	Estat, g, %-a	%14-15	%15-16
Inbertsioa, guztira		**894.266,1**	**10.930.086,4**	**687.465,7**	**23.448.151,4**	**261,7**	**2,9**	**1.122,2**	**-93,7**
Inbertsioaren behieneko herrialdea	E.L.G.A.	612.547,4	10.834.303,2	487.291,7	18.720.092,6	70,9	2,6	1.668,7	-95,5
	15 EB	409.529,3	308.828,9	133.732,3	15.097.625,7	19,5	0,9	-24,6	-56,7
	28 EB	429.822,6	321.502,2	137.749,8	15.170.565,4	20,0	0,9	-25,2	-57,2
	Ipar Amerika	99.807,6	10.423.902,4	313.534,5	2.780.713,3	45,6	11,3	10.344,0	-97,0
	Kanada	0,0	0,0	302.000,0	465.711,7	43,9	64,8		
	AEB	99.807,6	10.423.902,4	11.534,5	2.315.001,6	1,7	0,5	10.344,0	-99,9
	Latinoamerika	153.441,1	130.791,5	161.247,3	4.463.112,2	23,5	3,6	-14,8	23,3
	Argentina	13.481,7	218,9	0,0	2.035.703,4	0,0	0,0	-98,4	-100,0
	Brasil	34.782,1	45.027,6	133.310,3	624.860,5	19,4	21,3	29,5	196,1
	Txile	964,1	525,8	54,2	234.461,0	0,0	0,0	-45,5	-89,7
	Mexiko	74.827,2	83.466,3	18.336,1	453.279,8	2,7	4,0	11,5	-78,0
	Asia eta Ozeania	201.708,0	45.336,2	48.428,8	406.334,8	7,0	11,9	-77,5	6,8
	Txina	19.548,4	41.480,8	43.880,2	122.932,2	6,4	35,7	112,2	5,8
	Hego Korea	0,0	0,0	80,0	209.383,2	0,0	0,0		
	Arabiar Emirrerriak	64,4	0,0	0,0	431,4	0,0	0,0	-100,0	
	India	175.545,3	3.423,3	526,9	14.460,2	0,1	3,6	-98,0	-84,6
	Japonia	6.094,0	0,0	0,0	0,0	0,0		-100,0	
	Taiwan	0,0	0,0	3.916,1	3.916,1	0,6	100,0		
	Afrika	0,9	306,0	24,6	71.991,8	0,0	0,0	33.520,9	-92,0
	Paradisu fiskalak	1.526,7	1.330,6	3.306,0	88.987,3	0,5	3,7	-12,8	148,5

(*)Inbertsio osoa ABDE gabe. bb. Behin-behineko datuak
Iturria: Kanpoko inbertsioen erregistroa. Ekonomia, Industria eta Lehiakortasuna

ITURRIAK:

1. **EUSTAT**. Hiruhileko Ekonomia Kontuak. 2016. Hiruhilekoa. Koiunturala
2. **EUSTAT.** Ekonomia Kontuak. 2015 (n-2 urtea). Urterokoa. Koiunturala
3. **EIN.** Espainiako Hiruhileko Nazio Kontabilitatea. 2016. Hiruhilekoa. Koiunturala
4. **EIN.** Espainiako Hiruhileko Nazio Kontabilitatea. 2015 (n-2 urtea). Urterokoa. Koiunturala
5. **EUROSTAT**. Datu-basea. 2016. Urterokoa. Koiunturala.
6. **EUROSTAT**. News release euro indicators.
7. **Eusko Jaurlaritza.** Ogasun eta Ekonomia Saila. Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.
   a. Abagunea klik batean. 2017ko martxoko buletina.
   b. Euskal ekonomiaren hiruhileko txostena. 2016ko 4. hiruhilekoa.
8. **Espainiako Bankua.** Estatistika Buletina. 2016. Hilekoa eta hiruhilekoa. Koiunturala
9. **EIN.** Espainiako Eskualde Kontabilitatea. 2015. Ikuspegi funtzionala. Urterokoa. Koiunturala
10. **EUSTAT**. Kanpo-merkataritzaren Estatistika-ECOMEX. 2016. Hilekoa. Koiunturala
11. **Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioa.** Kanpo-inbertsioen Erregistroa. 2016. Hiruhilekoa. Koiunturala

3. SEKTORE PRODUKTIBOAK

Atal hau bost epigrafe handitan banatuta dago. Lehenik eta behin, enpresen Egitura eta Demografia aztertuko da, eta horri esker, informazioa lortu ahal izango da enpresetatik, jarduera ekonomikoak egiten dituzten unitateak diren aldetik. Bigarren epigrafean, lehen sektoreko magnitude nagusiak jasotzen dira eta, hirugarren atalean, sektore industrialaren azterketa sakona egiten da. Horretarako, Kontu Ekonomikoez gain, koiunturako beste adierazle batzuk erabiliko dira, hala nola, Industriako Produkzioaren Indizea (IPI), Industriako Prezioen Indizea IPRI) eta EUSTATen Industria Estatistikako hainbat magnitude. Laugarren puntuaren ardatza eraikuntzaren sektorearen azterketa da, honako hauen bidez: Kontu Ekonomikoak, Eraikuntzaren Koiuntura Indizea (EKI), Eraikuntzako Kostuen Indizea (EKOI) eta EUSTATen Eraikuntzaren Estatistika. Eta azkenik, bosgarren atalak zerbitzuen sektorearen analisia jasotzen du, merkataritza eta ostalaritza azpisektoreei eta finantza-sektoreari buruzko azterlan zehatzekin.

Merkataritzaren azpisektorearen kasu zehatzean, Txikizkako Merkataritzaren Indizearen (IMI) eta Saltoki Handietako eta Elikadura Kateen Merkataritza Indizearen bilakaera aztertzen da; ostalaritzari dagokionez, EUSTATen turismo establezimendu hartzaileen Inkestako zenbait adierazle aztertzen dira; eta finantzen azpisektorea aztertzeko, askotariko adierazle multzoa erabili da, hala nola, banku zentralen esku-hartze motak, interes-tasak, hipoteka-krediduak, gordailuak eta burtsaren merkatuaren ikuspegia.

3.1. ENPRESA-DEMOGRAFIA ETA EGITURA

3.1.1. Enpresa-egitura

EUSTATen *Jarduera Ekonomikoen Direktorioa (JEGID)*" eragiketari esker, enpresei buruzko informazioa lor daiteke EAEn jarduera ekonomikoak egiten dituzten unitateak diren aldetik, eta horretarako, jarduera ekonomikoaren sektoreen gaineko oinarrizko informazio estrukturala ematen da eta, gainera, enpresa horietako enplegatuari buruzko informazioa ematea ahalbidetzen da. Gaur egun, ez ditu biltzen etxeko langileei lana ematen dieten familien jarduerak, ezta lurraldez kanpoko erakundeak ere.

II.3.1 TAULA. EAEKO ENPRESAK* EGOITZA SOZIALAREN ETA ENPLEGUAREN ARABERA

	2012	2013	2014	2015	2016	14-15 (%)	15-16 (%)
Enpresak guztira (EAE eta ESTATUA)	**165.517**	**161.067**	**159.001**	**158.810**	**158.436**	**-0,1**	**-0,2**
EAE	161.626	157.405	155.306	155.121	154.687	-0,1	-0,3
-- Araba/Álava	21.851	21.663	21.321	21.303	21.344	-0,1	0,2
-- Gipuzkoa	56.491	55.249	53.940	53.497	53.225	-0,8	-0,5
--Bizkaia	83.284	80.493	80.045	80.321	80.118	0,3	-0,3
ESTATUKO gainerako lekuak	3.891	3.662	3.695	3.689	3.749	-0,2	1,6
EAE (%)	97,6	97,7	97,7	97,7	97,6		
ESTATUKO gainerakoa (%)	2,4	2,3	2,3	2,3	13,8		
Enplegua guztira	**873.121**	**855.093**	**849.335**	**843.816**	**854.114**	**-0,6**	**1,2**
Batez besteko tamaina	**5,3**	**5,3**	**5,3**	**5,3**	**5,4**		

** Etxeen jarduerak salbuesten dira etxeko langileen enplegatzaile gisa eta berezko erabilerarako ondasun eta zerbitzuen produktore gisa, baita lurraldez kanpoko antolakunde eta organismoen jarduerak ere*
Iturria: EUSTAT. DIRAE

JEGIDen 2016ko azken datuen arabera, EAEn 158.436 enpresa [8] zeuden martxan, guztira 854.114 langile, halako moldez non batez besteko tamaina 5,4 enplegukoa den enpresako. Egoitza soziala oraindik EAEn duten enpresa horien ehunekoa % 97,6 da. 2015 eta 2016 bitartean, enpresa

[8] *Enpresa: establezimenduen jarduerari legezko euskarria ematen dien unitate juridikoa, hau da, beregaineko lege-nortasuna duen edozein elkarte, erakunde, organismo, pertsona fisiko edo edozein erakunde publiko edo pribatu, zeinaren ardurapean eta zuzendaritzapean jarduerak egiten baitira. 2012tik aurrera, EUSTATen estatistikak lehen sektoreko enpresak hartzen ditu barne.*

kopurua % 0,2 jaitsi da, baina enplegua %1,2 hazi da. Nabarmentzekoa da sortu berri diren enpresak daudela; izan ere, Euskadin diharduten enpresen % 31,7k 5 urteko edo gutxiagoko antzinatasuna dute eta % 16,4k 2 urtekoa edo gutxiago.

Egoitza soziala EAEn duten enpresetatik (155.121), % 51,8 Bizkaian daude; % 34,4 Gipuzkoan eta % 13,8 Araban, non, 2015 eta 2016 bitartean, enpresen kopurua % 0,2 hazi den. Bizkaian, aldiz, % 0,3 murriztu egin da eta, Gipuzkoan, % 0,5. Europar Batasunean, batez besteko tamaina (2014ko datuak) enpresa bakoitzeko 5,4 lanpostukoa da.Batez besteko horren gainetik daude Alemania eta Luxenburgo (bietan 9,9); Erresuma Batua (9,1); Danimarka (8) eta Austria eta Kroazia (bietan 7,1).

TAULA II.3.2. ENPRESEN BATEZ BESTEKO TAMAINA EUROPAR BATASUNEAN

	2013	2014
EB28	5,4	5,4
BELGIKA	4,7	4,6
BULGARIA	6,0	5,9
TXEKIA	4,1	3,8
DANIMARKA	8,0	8,0
ALEMANIA	8,2	9,9
ESTONIA	5,5	5,5
IRLANDA	:	5,6
GREZIA	:	:
ESPAINIA	3,9	3,9
FRANTZIA	5,4	4,7
KROAZIA	7,1	7,1
ITALIA	3,8	3,8
ZIPRE	4,7	4,5
LETONIA	6,6	6,4
LITUANIA	6,4	5,8
LUXENBURGO	10,0	9,9
HUNGARIA	4,8	4,9
MALTA	4,2	4,3
HOLANDA	5,3	5,2
AUSTRIA	7,0	7,1
POLONIA	4,6	4,7
PORTUGAL	3,7	3,8
RUMANIA	6,0	6,0
ESLOVENIA	4,4	4,4
ESLOVAKIA	3,8	3,5
FINLANDIA	5,6	5,5
SUEDIA	4,3	4,2
ERRESUMA BATUA	9,2	9,1

Iturria: EUROSTAT

Jarduera Ekonomikoen Direktorioaren Hemeretzi jarduera ekonomikoetatik (II.3.3 Taula ikusi), seik 10.000 enpresa baino gehiago ditu bakoitzak, hots, enpresa guztien % 70,5 eta, aldi berean, enpleguaren % 58,2. Nabarmentzekoak dira handizkako eta txikizkako merkataritza; motordun ibilgailuen eta motozikleten konponketa (enpresen % 22,4); jarduera profesional zientifiko eta teknikoak (enpresen % 13,7); eraikuntza (enpresen % 12,7); ostalaritza (enpresen % 8,2) eta manufaktura-industria (enpresen % 6,9).

2015 eta 2016 bitartean, murrizketarik handienak, enpresen kopuruaren terminoetan, beste sektore batzuen artean, hauetan eman ziren: administrazio-jarduerak eta laguntza-zerbitzuak (-% 3); erauzketa-industriak (-% 2,4); garraioa eta biltegiratzea (-% 1,8) eta eraikuntza (-% 1,6). Aitzitik, sektore hauetan eman dira hazkunderik handienak: Hezkuntza eta Higiezinekin lotutako jarduerak (bietan % 4,4); Ur-hornikuntza; saneamenduko, hondakinak kudeatzeko eta deskontaminazioko jarduerak (% 3,5) eta jarduera artistikoak, aisialdikoak eta entretenimenduzkoak eta energia elektrikoaren, gasaren, lurrinaren eta aire girotuaren hornidura (bietan % 3,4).

Hemeretzi jarduera ekonomikoetatik, zortzik enpleguaren % 78,7 hartzen dute. Nabarmentzekoak dira Manufaktura (% 19,4); Handizkako eta txikizkako merkataritza eta motordun ibilgailuen eta motozikleten konponketa (% 15). Siguen Actividades Sanitarias y Servicios Sociales (9%), Administración Pública, Defensa y Seguridad Social (8,7%), Actividades administrativas y servicios auxiliares (7,3%), Actividades profesionales, científicas y técnicas (6,8%) y Construcción (6,1%).

Osasun-jarduerak eta Gizarte-zerbitzuak eta Herri-administrazioak, Defentsak eta Gizarte-segurantzak enpleguaren proportzio handiagoa hartzen dute (% 17,7), handizkako eta txikizkako merkataritzaren eta motordun ibilgailuen eta motozikleten konponketaren (% 15) gainetik eta manufaktura-industriarengandik hurbil (% 19,4).

Gainera, Jarduera Ekonomikoen Direktorioaren zortzi jarduera ekonomikoetatik, seik enpleguaren % 78,7 hartzen dute eta enplegua irabazi dute 2015 eta 2016 bitartean. Hala, eraikuntzak enplegua galtzen jarraitzen du (-% 3,1). Aldi berean, handizkako eta txikizkako merkataritzak eta motordun ibilgailuen eta motozikleten konponketak nolabaiteko egonkortasuna dute (% 0,1eko hazkundea).

Bestetik, enpresen kopurua murriztu egin da zenbait sektoretan, baina guztizko enplegua hazi da, edo alderantziz. Enpresen kopurua murriztu den baina enplegua hazi den sektoreen artean daude hauek: manufaktura-industria (-% 1,2 eta +% 1, hurrenez hurren); handizkako eta txikizkako merkataritza; motordun ibilgailuen eta motozikleten konponketa (-% 1,2 eta % 0,1); ostalaritza (-% 0,6 eta % 7,5); administrazio-jarduerak eta laguntza-zerbitzuak (-% 3 eta % 3,8); Herri-administrazioa, Defentsa eta Gizarte-segurantza (-% 0,7 eta % 1,9).

Enpresen kopurua hazi den baina enplegua murriztu den jardueren artean, soilik dago energia elektrikoaren, gasaren, lurrinaren eta aire girotuaren hornidura.

Enpresako batez besteko tamaina, lehen ere aipatu dugun moduan, 5,4 enplegukoa da. Herri-administrazioa eta defentsa eta gizarte segurantza alde batera utzita (168,1), enpresako batez besteko tamaina handiena ageri duten sektoreak hauek dira: Ur hornidura; saneamenduko, hondakinak kudeatzeko eta deskontaminazioko jarduerak (19); manufaktura-industria (15,1), energia elektrikoaren, gasaren, lurrinaren eta aire egokituaren hornidura (14,8) eta administrazio-jarduerak eta laguntza-zerbitzuak (11,6). Izaera juridikoa[9] aintzat hartuta eta tamaina txikieneko enpresak

II.3.3 TAULA. ENPRESEN KOPURUAREN ETA ENPLEGUAREN BILAKAERA EAEN JARDUERA-ALORRAREN ETA NORTASUN JURIDIKOAREN ARABERA

	ENPRESAK				ENPLEGUA				BATEZ BESTEKO ENPLEGUA	
	2015	2016	Pisua	15-16 (%)	2015	2016	Pisua	15-16 (%)	2015	2016
GUZTIRA	**158.810**	**158.436**	**100,0**	**-0,2**	**843.816**	**854.114**	**100,0**	**1,2**	**5,3**	**5,4**
Zehaztugabea										
A. Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza	5.914	5.824	3,7	-1,5	13.299	12.332	1,4	-7,3	2,2	2,1
B. Erauzketa-industriak	41	40	0,0	-2,4	401	392	0,0	-2,2	9,8	9,8
C. Manufaktura-industria	11.115	10.979	6,9	-1,2	164.038	165.646	19,4	1,0	14,8	15,1
D. Energia elektrikoaren, gasaren, lurrinaren eta aire girotuaren hornidura	118	122	0,1	3,4	2.166	1.800	0,2	-16,9	18,4	14,8
E. Ur-hornidura; saneamendu-jarduerak, hondakinen kudeaketa eta deskontaminazioa	229	237	0,1	3,5	4.466	4.509	0,5	1,0	19,5	19,0
F. Eraikuntza	20.459	20.138	12,7	-1,6	52.841	51.720	6,1	-2,1	2,6	2,6
G. Handizkako eta txikizkako merkataritza; motordun ibilgailuen eta motozikleten konponketa	35.921	35.473	22,4	-1,2	127.826	127.897	15,0	0,1	3,6	3,6
H. Garraioa eta biltegiratzea	10.621	10.434	6,6	-1,8	40.063	39.036	4,6	-2,6	3,8	3,7
I. Ostalaritza	13.137	13.058	8,2	-0,6	51.278	55.114	6,5	7,5	3,9	4,2
J. Informazioa eta komunikazioak	3.065	3.102	2,0	1,2	20.644	20.796	2,4	0,7	6,7	6,7
K. Finantza- eta aseguru-jarduerak	3.013	2.985	1,9	-0,9	19.969	19.721	2,3	-1,2	6,6	6,6
L. Higiezinen jarduerak	2.788	2.912	1,8	4,4	4.532	4.752	0,6	4,9	1,6	1,6
M. Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	21.354	21.647	13,7	1,4	56.507	57.818	6,8	2,3	2,6	2,7
N. Administrazio-jarduerak eta laguntza-zerbitzuak	5.554	5.385	3,4	-3,0	60.095	62.385	7,3	3,8	10,8	11,6
O. Herri-administrazioa eta defentsa; derrigorrezko gizarte-segurantza	436	433	0,3	-0,7	73.291	74.655	8,7	1,9	168,1	172,4
P. Hezkuntza	4.429	4.625	2,9	4,4	42.115	42.502	5,0	0,9	9,5	9,2
Q. Osasuneko eta gizarte-zerbitzuetako jarduerak	8.775	8.939	5,6	1,9	75.308	76.877	9,0	2,1	8,6	8,6
R. Jarduera artistikoak, jolasekoak eta entretenimenduzkoak	3.140	3.246	2,0	3,4	12.185	12.857	1,5	5,5	3,9	4,0
S. Beste zerbitzu batzuk	8.701	8.857	5,6	1,8	22.792	23.305	2,7	2,3	2,6	2,6
Pertsona fisikoa	94.221	93.782	59,2	-0,5	133.753	132.995	15,6	-0,6	1,4	1,4
Sozietate anonimoa	6.143	5.891	3,7	-4,1	208.135	206.383	24,2	-0,8	33,9	35,0
Erantzukizun mugatuko sozietatea	42.662	42.834	27,0	0,4	253.658	263.130	30,8	3,7	5,9	6,1
Beste sozietate eta elkarte batzuk	14.799	14.960	9,4	1,1	117.392	120.800	14,1	2,9	7,9	8,1
Beste sozietate bat*	6.799	6.881	4,3	1,2	49.865	52.147	6,1	4,6	7,3	7,6
Ondasunen erkidegoa	6.409	6.403	4,0	-0,1	18.813	18.900	2,2	0,5	2,9	3,0
Sozietate kooperatiboa	1.591	1.676	1,1	5,3	48.714	49.753	5,8	2,1	30,6	29,7
Beste forma juridiko batzuk	985	969	0,6	-1,6	130.878	130.806	15,3	-0,1	132,9	135,0
Tokiko korporazioa	378	372	0,2	-1,6	26.233	26.366	3,1	0,5	69,4	70,9
Erakunde autonomoa edo asimilatutakoa. Erakunde erlijiosoa.	560	551	0,3	-1,6	28.526	28.144	3,3	-1,3	50,9	51,1
Estatuko eta autonomia erkidegoetako administrazioaren organoa	47	46	0,0	-2,1	76.119	76.296	8,9	0,2	1.619,6	1.658,6

** (Ohiko kolektiboa, komanditarioa, elkartea, sozietate zibila eta zehaztu gabeko beste mota batzuk)*
Iturria: EUSTAT, JEGID

[9] *Titularraren edo enpresaren izaera juridikoa (IFK, IFZ, NAN), kategoria hauen arabera: pertsona fisikoak, sozietate anonimoak, erantzukizun mugatuko sozietateak, beste sozietate eta elkarte batzuk (ohiko elkarte kolektiboak, elkarte komanditarioak, elkarteak, gizarte zibila eta zehaztu gabeko beste sozietate mota batzuk), ondasun-erkidegoak, sozietate kooperatiboak eta beste forma juridiko batzuk* (tokiko korporazioak, erakunde *autonomoak edo antzekoak, erlijio-kongregazio edo -erakundeak eta estatuko eta autonomia-erkidegoetako organoak). EUSTAT (Metodologia, Definizioak).*

kanpoan utzita, hain zuzen ere, titulartzat pertsona fisiko bat dutenak (enpresa bakoitzeko 1,4 pertsonako batez bestekoarekin), batez besteko tamaina 11,2 pertsonako kopuruan kokatzen da (aurreko urteetan, egonkor mantendu da zifra horren inguruan). Bertan, Sozietate Anonimoetako batez besteko lan-taldea 35 langilekoa da (33,9 2015ean) eta Kooperatibena, aldiz, 29,7 pertsonakoa (30,6 2015ean eta 32,4 2014an).

EAEko enpresa jardueraren erdia baino gehiago (% 59,1) "pertsona fisiko" motako estaldura juridikopean egiten da, baina formula horrek enpleguaren % 15,6 baino ez du biltzen. Horrenbestez, "pertsona juridikoen" estaldura juridikopean egiten den enpresa jarduera % 40,9koa da, eta enpresa horiek enpleguaren % 84,2 biltzen dute.

Pertsona fisikoak aintzat hartzen ez badira, enpresa jardueraren % 9,1 sozietate anonimoaren forma juridikoarekin egiten da; enpresa jardueren ia-ia bi heren (% 65,9) erantzukizun mugatuko sozietatearen forma juridikoaren pean egiten da; % 74,9 sozietate anonimoen eta erantzukizun mugatuko sozietateen artean banatzen da eta sozietate kooperatiboak enpresen % 2,6 dira eta enpleguaren % 7 hartzen dute.

Merkatuko edo enpresako ekonomia sozialaren egituraren (batez ere Sozietate Kooperatiboak eta Lan Sozietateak) analisiak erakusten du Sozietate Kooperatiboaren izaera juridikoa daukaten enpresen kopurua 1.676 izan dela 2016an, EUSTATen arabera. Gainera, 49.753 langile dauzkate; beraz, batez besteko lan-taldea 29,7 langilekoa da, lehenago ere esan dugunez.

2016an, abenduaren 31ko behin-behineko datuekin, Gizarte Segurantzan altan dauden 1.599 kooperatiba enpresa (aurreko urtean baino 44 gehiago) erregistratu ditu, guztira; horiek 56.662 langile zituzten. Horrek 35,4 langileko batezbestekoa dakar kooperatibako (EUSTATeko ratioa baino handiagoa), eta Estatuko batezbesteko handiena da, non batezbestekoa 15,2 den.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzaren Gizarte-ekonomiaren Zuzendaritzaren Kooperatiben Erregistroak 1.926 [10] kooperatiba zenbatu zituen 2016an, eta horietatik, erdia baino gehiago (1.099), lan elkartuko kooperatibak ziren.

II.3.4 TAULA. EAEKO KOOPERATIBEN KOPURUAREN BILAKAERA, MOTEN ARABERA SAILKATUTA

	2014	2015	2016		2015/16 ALDAKUN.	2007/16 ALDAKUN.
			ABS.	%		
GUZTIRA	1.875	1.906	2.926	100,0	20	285
Nekazaritzakoak	113	114	114	5,9	-	285
Kontsumoa	36	36	36	1,9	-	4
Zerbitzuak eta bestelakoak	84	85	90	4,7	5	14
Lan elkartua	1.107	1.107	1.099	57,1	-8	42
Irakaskuntza	95	96	96	5,0	-	4
Etxebizitza	350	376	396	20,6	20	172
Kreditua	1	1	1	0,1	-	-
Mistoak	43	44	46	2,4	2	29
2. Gradua edo gerokoa	46	47	48	2,5	1	5

Iturria: Kooperatiben erregistroa. Enplegu eta Gizarte Politiketako Erregistroa. EUSKO JAURLARITZA.

Gainera, beste 1.000 erakunde kooperatiba txikiak ziren (beren araubidea eta araudia dituztela, ekainaren 25eko 6/2008 Legea dela bide), halako moldez non EAEn, 2016. urtea amaitzean, 2.926 kooperatiba bildu baitziren guztira.

Hazkunderik handiena, aurreko ekitaldietan bezala, etxebizitza kooperatibetan erregistratzen da (+20); izan ere, kategoria horretan 172 kooperatiba gehiago bildu dira azken bederatzi urteotan.

Lan Sozietateei dagokienez[11], Gizarte Segurantzaren arabera, gure erkidegoan kotizatzen dutenen kopuru osoa 623 da, hau da, 2015ean baino 21 gutxiago (abenduaren 31ko datuak). Enpresa horiek 6.884 langile dauzkate (2015ean baino

[10] *Ikusi Gizarte Segurantzaren eta EUSTATen datuaren arteko aldea.*

[11] *Haietan, sozietatearen kapitalaren gehiena langile bazkideena da.Bazkide bakoitzak gehienez eduki dezakeen kapital soziala ezin daiteke izan guztiaren herena baino handiagoa (partaidetza publikoarekin salbuespen batzuk gertatu ohi dira). Horregatik, gutxieneko bazkide kopurua 3 da.Kapital soziala akzio izendunetan banatzen denean, lan sozietate anonimoa da (SAL). Partaidetza sozialetan banatzen denean, izaera juridikoa lan-erantzukizun mugatuko sozietateena da (SLL).Nolanahi ere, bai akzioak bai partaidetzak bi taldetan banatzen dira: bazkide langileenak eta beste pertsona batzuenak.*

% 2 gehiago). Hala, batez besteko tamaina 11 langilekoa da sozietate bakoitzeko, Estatuko batez bestekoa (6,5 langile) baino askozaz ere handiagoa.

Enpresa guztien multzora itzulita ikus daitekeenez, berdin eusten dio enpresen egiturak enpleguaren tamainaren arabera. 21.794 establezimendu eskasek, kopuru osoaren % 1,1ek hain zuzen, 50 enplegu edo gehiago dituzte, guztira 416.513 lanpostu (guztien % 48,1).

Aitzitik, 121.319 enpresa, kopuru osoaren % 76,6, ez da iristen 3 lanpostura eta enplegu osoaren % 17,4 bakarrik hartzen dute.

II.3.5 TAULA. ENPRESEN EGITURA ENPLEGUAREN ARABERA

	2014				2015				2016			
	Enpresak		Enplegua		Enpresak		Enplegua		Enpresak		Enplegua	
	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%
GUZTIRA	**159.001**	**100**	**849.335**	**100**	**158.810**	**100**	**843.816**	**100**	**158.436**	**100**	**854.114**	**100**
=<2	121.779	76,6	150.780	17,8	121.792	76,7	150.069	17,8	121.319	76,6	148.761	17,4
3-5	20.008	12,6	73.187	8,6	20.003	12,6	73.097	8,7	19.896	12,6	72.723	8,5
6-9	6.972	4,4	50.174	5,9	6.985	4,4	50.145	5,9	7.050	4,4	50.584	5,9
10-14	3.432	2,2	40.124	4,7	3.312	2,1	38.808	4,6	3.339	2,1	39.071	4,6
15-19	1.821	1,1	30.451	3,6	1.764	1,1	29.526	3,5	1.797	1,1	30.073	3,5
20-49	3.195	2,0	96.177	11,3	3.149	2,0	94.675	11,2	3.191	2,0	96.389	11,3
50-99	991	0,6	68.569	8,1	994	0,6	68.579	8,1	1.014	0,6	70.516	8,3
100-249	541	0,3	83.382	9,8	550	0,3	84.545	10,0	556	0,4	85.867	10,1
250-499	141	0,1	46.786	5,5	146	0,1	49.484	5,9	158	0,1	53.659	6,3
>= 500	121	0,1	209.705	24,7	115	0,1	204.888	24,3	116	0,1	206.471	24,2

Iturria: EUSTAT, JEGID

3.1.2. Enpresa-errotazioa

Enpresa-txandakatzeari buruzko azterlana (altak, bajak eta saldoa) funtsezkoa da enpresen dinamismoari buruzko ezaugarriak ondorioztatzeko, hots, enpresa berriak sortzeko ahalmenari buruzkoak. [12]

EUSTATen "*Enpresen sorrerari eta galerari buruzko estatistikari*" esker, sortzen eta denborarekin desegiten diren enpresen kopurua zenbatetsi daiteke. Informazio demografiko hori zuzenean lortzen da JEGIDetik, eta gainera, iraupenari eta galerari buruzko tasak ere lor daitezke.

II.3.6 TAULA. ENPRESEN ALTAK, BAJAK ETA SALDO GARBIA

	1/1/2013	1/1/2014	1/1/2015	1/1/2016
Dauden enpresak*	165.517	161.067	159.001	158.810
Altak	14.977	16.144	17.690	17.485
Bajak	19.427	18.210	17.881	17.850
Saldo garbia	-4.450	-2.066	-191	-365
Enpresen sorkuntzaren tasa gordina (%)	9,0	10,0	11,1	11,0
Enpresen galeraren tasa gordina (%)	11,7	11,3	11,2	11,2

**Aurreko urtea ixtean zenbatutakoak, hurrengo urteko hasierakoekin bat datozenak*
Iturria: EUSTAT. Enpresen sorrerari eta galerari buruzko estatistika

2015eko urtarrilaren 1ean, enpresen kopurua murriztu egin da 17.485 enpresa berrik jarduera hasi dutelako eta 17.850 enpresek utzi dutelako euren jarduera. Horrela, saldo gordina -365ekoa da. Bestalde, enpresak sortzeko tasa gordina, urte zehatz bateko alten kopurua zati aurreko urtean zegoen enpresa-kopurua bezala kalkulatuta, % 11koa da; enpresen galera-tasa[13], aldiz, % 11,2koa izan zen.

Hurrengo taulan 2011ko hasieran altan emandako, egoitza EAEn duten eta hurrengo bost urteetan aktibo mantendu diren enpresen bilakaera jasotzen du. Hala, 2011n sortutako enpresen % 49,3 aktibo mantentzen zen (13.440 guztira) bost urte geroago (6.627) eta alderantziz, enpresen % 50,7a desagertu zen.

[12] *Kontuan hartu behar da alta eta bajako jardueren zati bat erregistro-aldaketen, izendapen-aldaketen, fusioen edo salmenta-operazioen ondoriozkoa izan daitekeela, besteak beste. Izan ere, ez da alta edo bajaren arrazoia jasotzen*

[13] *Galera-tasaren kasuan, kozientea bajekin kalkulatzen da.*

Enpleguan eragina negatiboa da (-8.506 lanpostu), baina enpresa-kopuruan baino arinagoa. Aurrera egitea lortu duten enpresetan dago hasierako lanpostuen % 70,4; hau da, lanpostuak galdu diren arren (lanpostu-kopurua 28.719tik 20.213ra jaitsi da), galera-ehunekoa (29,6 puntu) enpresa-kopuruaren bilakaera baino txikiagoa da, argi eta garbi (ehunekozko 51 puntu).

Lurralde historikoen arabera, Araban 2011n alta emandako enpresen % 49,8k aktibo jarraitzen dute (hasierako lanpostuen % 68,7); Bizkaian % 48,2k (hasierako lanpostuen % 70,1) eta Gipuzkoan % 51k (hasierako lanpostuen % 71,8).

II.3.7. TAULA. ALTAN DAUDEN ENPRESAK ETA LANGILEAK 2010-01-01EAN, AKTIBOAK HURRENGO BOST URTEETAN
(*egoitza soziala EAEn duten enpresak*)

	2011-01-01eko altak		Aktiboak urte hauetan									
			2012		2013		2014		2015		2016	
	Enpresak	Enplegua	Enpresak	Enplegua	Enpresak	Enplegua	Enpresak	Enplegua	Enpresak	Enplegua	Enpresak	Enplegua
Guztira EAE	**13.440**	**28.719**	**12.067**	**27.165**	**10.241**	**25.625**	**8.866**	**23.339**	**7.709**	**21.420**	**6.627**	**20.213**
Araba	2.016	4.691	1.796	4.367	1.532	3.906	1.330	3.600	1.148	3.345	1.004	3.224
Bizkaia	7.205	15.327	6.419	14.444	5.445	13.886	4.708	12.607	4.097	11.330	3.472	10.741
Gipuzkoa	4.219	8.701	3.852	8.354	3.264	7.833	2.828	7.132	2.464	6.745	2.151	6.248
Biziraute-tasa												
Guztira EAE	**100**	**100**	**89,8**	**94,6**	**76,2**	**89,2**	**66,0**	**81,3**	**57,4**	**74,6**	**49,3**	**70,4**
Araba	100	100	89,1	93,1	76,0	83,3	66,0	76,7	56,9	71,3	49,8	68,7
Bizkaia	100	100	89,1	94,2	75,6	90,6	65,3	82,3	56,9	73,9	48,2	70,1
Gipuzkoa	100	100	91,3	96,0	77,4	90,0	67,0	82,0	58,4	77,5	51,0	71,8

Iturria: EUSTAT. Enpresen sorrerari eta galerari buruzko estatistika

Gauzak horrela, 2011n alta egindako enpresetan, batez beste, 2,14 lagun zeuden lanean, eta gaur egun 3,1 lagun.

Azterketaren unitate orain establezimendua hartuta (banakapen maila handiagoa ematen du nortasun juridikoaren arabera), honako hau esan dezakegu: 2016-01-01ean, establezimenduen kopuru txikiagoa izan da 16.045 jarduera hasi izanaren eta 16.755 jarduera utzi izanaren ondorioz. Hori dela eta, saldo garbia -710 enpresakoa da.

Aurreko urtean bezala, txandakatzerik handiena, arlo hauetan gertatu zen: handizkako eta txikizkako merkataritzan; motordun ibilgailuen eta motozikleten konponketan; garraioan eta biltegiratzean; ostalaritzan; eraikuntzan eta jarduera profesional, zientifiko eta teknikoetan.

Txandaketarik handieneko estratuak, beste urtebetez, enpresa txikienei dagozkie, hain zuzen ere 2 lanpostu edo gutxiagokoei.

Nortasun juridikoa kontuan hartuz gero, EUSTATen arabera, txandakatze handiagoa egon da Pertsona fisikoaren formula juridikopean sortutako establezimenduetan; izan ere, horiek % 67,7a sortu zuten, bai altena (10.869), bai bajena (11.345). Bigarren posizioan sozietate mugatuak egon dira.

II.3.8 TAULA. ENPRESA-ERROTAZIOA JARDUERA-SEKTOREAREN, ENPLEGU-ESTRATUAREN ETA IZAERA JURIDIKOAREN ARABERA , 2016-01-01. (establezimenduak)

	Altak	Bajak	Mantentzen diren establezimenduen saldoa	Saldo globala (altak-bajak+mantentzen direnen saldoa)
GUZTIRA	**16.045**	**16.755**	**0**	**-710**
01. Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza	835	931	-1	-97
02. Erauzketa-industriak; Manufaktura-industria; Energia elektrikoaren, gasaren, lurrinaren eta aire girotuaren hornidura; Ur-hornidura; saneamendu-jarduerak, hondakinen kudeaketa eta deskontaminazioa	713	883	-48	-218
03. Eraikuntza	2.774	3.066	-30	-322
04. Handizkako eta txikizkako merkataritza; motordun ibilgailuen eta motozikleten konponketa; Garraioa eta biltegiratzea; Ostalaritza	4.757	5.666	52	-857
05. Informazioa eta komunikazioak	452	412	-14	26
06. Finantza- eta aseguru-jarduerak	359	447	6	-82
07. Higiezinen jarduerak	385	293	28	120
08. Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak; administrazio-jarduerak eta laguntza-zerbitzuak	2.962	2.878	5	89
09. Herri-administrazioa eta defentsa; derrigorrezko gizarte segurantza; hezkuntza; osasuneko eta gizarte zerbitzuetako jarduerak	1.560	1.231	18	347
10. Jarduera artistikoak, jolasekoak eta entretenimenduzkoak eta beste zerbitzu batzuk	1.248	948	-16	284
Enpleguaren estratua				
=<2	14.723	15.207	-286	-770
3-5	895	978	-122	-205
6-9	213	242	69	40
10-14	83	121	156	118
15-19	40	64	54	30
20-49	58	97	58	19
50-99	12	29	62	45
100-249	17	17	2	2
250-499	2	-	8	10
>= 500	2	-	-1	1
Izaera juridikoa				
Pertsona fisikoa	10.869	11.345	-117	-593
Sozietate anonimoa	297	696	-42	-441
Sozietate mugatua	3.428	3.501	246	173
Beste sozietate bat	707	591	-26	90
Ondasunen erkidegoa	470	444	-37	-11
Sozietate kooperatiboa	195	103	13	105
Tokiko korporazioa	45	15	2	32
Erakunde autonomoa edo asimilatutakoa. Erakunde erlijiosoa	34	48	-38	-52
Estatuko eta autonomia erkidegoetako administrazioaren organoa	-	12	-1	-13

Iturria: EUSTAT. Enpresen sorrerari eta galerari buruzko estatistika

3.2. LEHEN SEKTOREA

EUSTATen *"Kontu Ekonomikoen"* datuen arabera (datuak 2017ko otsailean argitaratu dira), lehen sektorea prezio arruntetan 2008an BPGdaren % 0,6 izatetik % 0,8 (552,7 milioi euro) izatera igaro da 2016an; lanaldi osoaren pareko lanpostuak (LOPL) 12.540 izanda, LOPLn enplegu osoaren % 1,4 da, 2008an baino hamarren bat gutxiago.

Kontu horien arabera, 2015 eta 2016 bitartean, % 1,6 egin zuen gora lehen sektorearen BEGdk EAEn kopuru errealetan. Lanaldi osoaren parteko lanpostuek, bestalde, % 1 egin zuten gora.

3.3. INDUSTRIA

EUSTATen *"Kontu Ekonomikoen"* datuen arabera (2017ko otsailekoak), 2016an, sektore industrialak (energia barne), 15.489 milioi eurorekin eta lanaldi osoko 184.005 lanposturekin, guztizko BPGdren % 21,6 izan da prezio korronteetan eta lanaldi osoko enpleguaren % 20,5.

Kontu Ekonomikoen datuek erakusten dute, 2015ean BEGd industrialaren urtetik urterako aldakuntza errealaren hiruhilekoko tasek aldakuntza positibo eta gorakorrak erregistratu ostean, 2016an, hazkundea altua izaten hasi dela (% 4,8 lehenengo hiruhilekoan); bigarren hiruhilekoan moteldu dela (% 2,4) eta hamarrenak irabazten joan dela laugarren hiruhilekoa % 3ko hazkundearekin amaitu arte. Horrela, BEGd industrialaren urtetik urterako aldakuntza erreala, 2016an, % 3,3koa izan da (2015ean erregistratutako ratioa baino ehunekozko 6 hamarren gutxiago).

II.3.9. TAULA. BEGDAREN ETA ENPLEGU INDUSTRIALAREN BILAKAERA (urtetik urterako aldakuntza-tasak)

	2014	2015				2016			
	T4	T1	T2	T3	T4	T1	T2	T3	T4
BEGd aldakuntza-tasa bolumenean	2,4	1,9	4,4	4,5	4,9	4,8	2,4	2,9	3,0
Enplegu industrialaren aldakuntza-tasa (lanaldi osoa*)	0,9	1,3	1,5	1,6	1,9	1,9	1,8	1,8	1,9

**Lanaldi osoaren parekoak*
Iturria: EUSTAT, CET

Enpleguari dagokionez, zifrek erakusten dute (adierazi den bezala, lanaldi osoaren pareko 184.005 lanpostu) urteko batezbestekoa % 1,6 hazi dela. Sektorearen produktibitateak urteko % 1,7ko batez besteko hazkundea du. EAEko industriako BEGdren urteko batez besteko hazkundea handiagoa da Estatu mailakoaren aldean, EINren arabera, % 2,4koa baita.

II.3.10. TAULA. ADIERAZLEAK SEKTORE INDUSTRIALEAN

	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016
BPGd prezio korronteen gainean (milioiak)	15.177	15.403.	14.734	14.336	14.362	14.567	15.489
Enplegua lanaldi osoaren parean*	208.400	205.616	194.549	186.181	182.149	181.465	184.005
BEGd aldakuntza (erreala)	2,5	1,3	-5,2	-2,7	2,0	3,9	3,3
Enpleguaren aldakuntza	-2,8	-1,3	-5,4	-4,3	-1,6	-1,1	1,6
Produktibitatea (lanaldi osoaren pareko enpleguan neurtuta)	5,3	2,6	0,2	1,6	3,6	5,0	1,7

**Lanaldi osoaren parekoak*
Iturria: EUSTAT, Kontu Ekonomikoak

II.3.1. GRAFIKOA. INDUSTRIA SEKTORE PRODUKTIBOA



Iturria.- HKE. EUSTAT

Bestalde, EUSTATen "*Industri Produkzioaren Indizeak*" (IPI) urteko batez besteko % 1,8ko hazkundea eman zuen 2016an (datu osoekin) EAE osorako, 2015ean erregistraturikoa baino ehunekozko 1,7 puntu txikiagoa (% 3,5). Izan ere, indize hori adierazle koiuntural bat da, hain zuzen ere, BEGd industrialaren bolumenean izandako bilakaera neurtzen du faktoreen kostura.

Lurralde historikoen arabera, hazkunderik handiena eman da Araban (% 7); gero Gipuzkoan (% 0,6) eta, azkenik, Bizkaian (% 0,3).

Ondasunen helburu ekonomikoa aztertuz, EUSTATen arabera, EAEn, aipatutako batez besteko hazkundearen jatorria ekipamendu-ondasunen produkzioaren hazkundean dago (% 7,8), iraunkorrak ez diren ondasunen hazkundean (% 1,3) eta bitarteko ondasunen hazkundean (% 0,3). Ondasun iraunkorren eta energiaren produkzioa, aldiz, murriztu dira, -% 4,9 eta -% 3,9, hurrenez hurren.

EINren 2017ko otsaileko behin-behineko datuen arabera, Estatuan, 2016an, produkzio industriala % 1,6 hazi zen (2016ko batez bestekoa, urtaroko eta egutegiko ondorioekin zuzenduta) 2015ekin alderatuta. EINren batez bestekoa EAErentzat % 1,6koa da ere bai.

EUROSTATen datuen arabera, Industri Ekoizpenaren Indizearen batez besteko aldakuntza 2016an, 2017ko otsaileko datuekin, % 1,3 da eurogunean eta % 1,4koa EB28n.

Industri Ekoizpenaren Indizearen analisi sektorialetik ondorioztatzen denez (datu osoekin), manufaktura-industriaren baitan, EAErentzat garrantzitsuenak diren hiru azpisektore industrialetatik, Metalurgia (BPGd industrialaren % 27,2 eta enplegu industrialaren % 34,4), Makineria eta ekipoa (BPGd industrialaren % 11 eta enplegu industrialaren % 11,1) eta Garraioen materiala (BPGd industrialaren % 10,5 eta enplegu industrialaren % 8,3), bik berriz ere izan dituzte urteko batez besteko aldakuntza positiboak, zehazki, garraioen materialak (+% 15,6) eta makineria eta ekipoak (+% 2,2). Metalurgiak, aldiz, jaitsiera izan du (-% 0,2). Aipatutako aldakuntza positiboak multzoaren batez bestekoa baino handiagoak dira (% 1,8).

Hazkunderik handienak eman dira Garraioen materialean (aipatutako +% 15,6), Produktu informatiko eta elektronikoetan (+% 9,5), Produktu farmazeutikoetan (% 6,9) eta Altzariak eta beste manufaktura batzuk (+% 5,4).

II.3.11. TAULA. EAEKO EKONOMIAREN SEKTORE INDUSTRIAL NAGUSIEN PISUAREN BILAKAERA

	BPGdren BANAKETA			ENPLEGUAREN BANAKETA (Pareko lanpostuak)		
	2013	2014	2015	2012	2013	2014
2. Erauzketa-industriak	0,4	0,3	0,4	0,3	0,2	0,2
3. Elikadura-industriak, edariak eta tabakoa	6,3	6,4	6,3	7,2	7,4	7,5
4. Ehungintza, jantzigintza eta larrugintza eta zapatagintza	0,8	0,7	0,7	1,2	1,2	1,2
5. Egurra, papera eta arte grafikoak	4,8	4,6	4,6	6,4	6,2	6,0
6. Kokeriak eta petrolio findegiak	0,0	0,3	0,3	0,5	0,5	0,5
7. Industria kimikoa/ 8. Produktu farmazeutikoak	3,1	3,0	3,2	2,3	2,3	2,3
9. Kautxua, plastikoak eta ez metalikoak diren beste batzuk	9,1	8,9	8,9	9,8	9,6	9,4
10. Metalurgia eta metalezko produktuak	27,8	28,6	27,2	34,0	34,0	34,4
11. Produktu informatiko eta elektronikoak	2,6	2,5	2,7	3,0	3,0	3,0
12. Material eta ekipo elektrikoa	4,7	4,8	4,4	6,0	5,0	4,9
13. Makinak eta ekipoak	10,1	10,3	11,0	10,3	10,7	11,1
14. Garraio materiala	10,5	9,7	10,5	7,9	8,7	8,3
15. Altzariak eta beste manufaktura-industria batzuk	4,2	4,1	4,1	6,9	6,7	6,7
16. Energia elektrikoa, gasa eta lurrina	12,8	13,2	13,0	1,1	1,2	1,2
17. Ur- eta saneamendu-hornidura	2,7	2,8	2,6	3,1	3,1	3,2
Industria guztira (BPG prezio korronteen eta pareko lanpostuen gainean)	14.335.805	14.443.751	14.995.098	194.549	186.181	183.110

Iturriak: EUSTAT, Kontu Ekonomikoak

II.3.12. TAULA. IPIAREN BILAKAERA LURRALDE HISTORIKOEN ETA ONDASUNEN HELBURU EKONOMIKOAREN ARABERA. Datu gordinak. Urteko batez besteko hazkundea

	Guztira EAE	Lurralde historikoak			Ondasunen helburu ekonomikoa					
					Kontsumo-ondasunak			Ekipo-ondasunak	Bitarteko ondasunak	Energia
		Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	Guztira	Iraunkorra	Ez iraunkorra			
2008	**-2,9**	-4,0	-2,5	-2,6	-7,0	-16,7	-3,2	-1,1	-4,1	3,6
2009	**-21,7**	-24,0	-22,0	-20,3	-14,6	-29,1	-9,8	-23,2	-26,0	-6,9
2010	**2,1**	8,0	0,8	0,8	0,9	0,9	0,9	-2,6	7,1	-5,3
2011	**3,5**	7,7	1,0	3,9	-0,7	0,0	-1,0	10,3	5,1	-7,8
2012	**-5,6**	-4,6	-7,3	-4,4	-3,8	-5,1	-3,3	-5,9	-7,2	-2,0
2013	**-3,3**	-2,7	-4,4	-2,5	-5,0	-10,8	-2,7	-3,3	-2,6	-3,0
2014	**1,8**	0,6	2,5	1,6	-1,5	-16,0	3,8	2,2	2,8	0,1
2015	**3,5**	1,1	4,8	3,4	4,9	17,7	1,0	7,3	1,3	1,4
2016 p	**1,8**	7,0	0,6	0,3	-0,3	-4,9	1,3	7,8	0,3	-3,9

p. behin-behinekoak. Iturria: EUSTAT IPI (2017ko apirileko datuak)

II.3.18. TAULA. IPI JARDUERA-SEKTOREEN ARABERA. Datu gordinak. Urteko batez besteko hazkundea

	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016
IPI	-21,7	2,1	3,5	-5,6	-3,3	1,8	3,5	1,8
02. Erauzketa-industriak	-26,8	-20,7	-21,7	-10,3	-18	9,7	-5,2	-17,4
03. Elikadura-industriak, edariak eta tabakoa Ind.	-4,8	3,9	-2,8	0,7	0,5	4,1	1,3	1,8
04. Ehungintza, jantzigintza eta larrugintza eta zapatagintza	-30,7	4,5	6,8	-23,4	-14,4	5,7	-2	-2,3
05. Egurra, papera eta arte grafikoak	-18,8	-4,2	5,5	-4,3	-2,6	6,1	6,4	0,4
06. Kokeriak eta petrolio findegiak	-10,6	-9,6	-5,4	-6,5	14,6	16	5,4	1
07. Industria kimikoa	-23,6	2,2	-0,6	-12,4	-1,7	5,2	5	1,5
08. Produktu farmazeutikoak	-3,3	4,8	2,6	-15	1,6	6,9	-6,2	6,9
09. Kautxua eta plastikoak	-20,4	9,8	1,9	-14,1	-6	0	-0,2	2,7
10. Metalurgia	-29,3	6,2	5,3	-5	-2,9	2,6	1,2	-0,2
11. Produktu informatiko eta elektronikoak	-24,4	3,8	12,5	1	-6,2	7,7	15,6	9,5
12. Material eta ekipo elektrikoa	-22,7	-0,2	0,5	-4,9	-7,9	-7,4	-0,5	-6,4
13. Makinak eta ekipoak	-30,2	-4,9	15,2	-0,9	-0,3	1,8	6,8	2,2
14. Garraio materiala	-15	6,8	12,2	-9,5	-3,4	1,1	3,4	15,6
15. Altzariak eta beste manufaktura-industria batzuk	-22,5	-13	1,6	-9,5	-6	0,2	22,3	5,4
16. Energia elektrikoa, gasa eta lurrina	-6,4	-3,8	-8,2	-1,2	-6	-3,3	0,4	-5,2

p. behin-behinekoak. Iturria: EUSTAT IPI (2017ko apirileko datuak)

EUSTATen "*Industri Prezioen Indizea*" (IPRI) produktuak merkaturatzeko lehen urratsean industri prezioen bilakaeraren koiuntura-adierazlea da, hots, ekoizleak transakzioan benetan jasotako prezioena, zeharkako zergak eta diru-laguntza garbiak sartu barik, horrelakorik balego,. Indize horrek 2016an % 0,8 egin zuen gora gure Erkidegoan 2015eko abenduaren eta 2016ko abenduaren artean, 2014ko abenduaren eta 2015eko abenduaren artean erregistratutako % 1,8ko jaitsieraren aurrean.

Igoerarik handienak, berriz: Kokeriak eta petrolio findegiak (% 18,8); Elikadura-industria, edariak eta tabakoa (% 3,2); Produktu farmazeutikoak (% 2,6) eta Material eta ekipo elektrikoa (% 1,6). Aitzitik, sektore hauei dagozkien prezioak murriztu egin dira; Energia elektrikoa, gasa, lurrina eta aire girotua (-% 7,8); Kautxua, plastikoa eta metalezkoak ez diren beste produktu mineral batzuk (-% 3,2) eta Altzariak eta beste manufaktura-industria batzuk, konponketa eta instalazioa, % 2,8 jaitsi direnak. Manufaktura-industriaren barruan eta EAEko hiru azpisektore industrial garrantzitsuenetariko bakoitzean arreta jarriz, jotzen da Metalurgian eta metalezko produktuen industrian % 0,5eko hazkundea egon dela; Makinak eta ekipoan % 0,4koa eta Garraio materialean % 1,1.

Ondasunen helburu ekonomikoaren arabera, kontsumo iraunkorreko ondasunen prezioa eta bitarteko ondasunen prezioa murriztu egin dira, % 0,1 eta % 0,5, hurrenez hurren. Bestalde, kontsumo ez iraunkorreko ondasunena, ekipo-ondasunena eta energiarena hazi dira, % 2,2, % 1,2 eta % 4,5, hurrenez hurren.

Paradoxikoki, 2017ko urtarrilean argitaratutako EINren behin-behineko datuen arabera, EAEko IPRIk urteko % 5,7ko aldakuntza tasa izan du 2016ko abenduan 2015eko abenduaren aldean. Estatuko aldakuntza, EINren arabera ere bai, % 2,8koa da.

EUROSTATen 2017ko otsaileko datuen arabera, Industri Prezioen Indizearen aldakuntza 2016ko abenduan, 2015eko abenduarekin alderatuta, +% 1,6koa da eurogunean eta +% 2,4koa EB28an.

II.3.14. TAULA. IPRI ONDASUNEN HELBURU EKONOMIKOAREN ETA JARDUERA-SEKTOREAREN ARABERA CNAE-2009 (aldakuntza aurreko abenduarekin alderatuta)

	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016
Indize orokorra	**-2,8**	**6,4**	**5,8**	**0,7**	**0,5**	**-3,6**	**-1,8**	**0,8**
Ondasunen helburu ekonomikoa								
Kontsumo-ondasunak	-1,1	1,6	1,3	2,8	-0,4	-0,5	-0,4	1,6
---Kontsumo iraunkorreko ondasunak	-0,9	0	1,7	-0,3	0,4	-1,3	-0,4	-0,1
---Kontsumo ez iraunkorreko ondasunak	-1,2	2,3	1,1	3,9	-0,6	-0,2	-0,3	2,2
Ekipo-ondasunak	0	0,7	1,3	1,4	0,8	-0,3	0,6	1,2
Bitarteko ondasunak	-5,9	7,5	3,7	-0,6	-1,2	0	-2,2	-0,5
Energia	2,9	14,8	16,2	0,6	3,4	-15,7	-5,6	4,5
Jarduera-sektoreak								
-Erauzketa-industriak	0,7	-4,3	2,6	-5,2	-0,5	-1,9	0,8	-1,3
--Erauzketa-industriak	0,7	-4,3	2,6	-5,2	-0,5	-1,9	0,8	-1,3
-Manufaktura-industriak	-1,6	6,5	4,3	0,6	-0,4	-3,4	-2,5	2,2
--Elikadura-industria, edariak, tabakoa	-1,7	5,4	1,4	5,5	-1,6	-0,4	-0,8	3,2
--Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta zapatagintza	-3,8	2,3	-2,7	2,4	-0,8	-0,4	2,4	-0,5
--Egurra, papera eta arte grafikoak	-3	3	4,4	-1,8	0,8	0,2	0	-0,2
--Kokeriak eta petrolioa fintzea	23,4	22,9	16,3	1	0,7	-22,6	-13,7	18,8
--Industria kimikoa	-3,7	3,7	6,7	2,3	0,2	-1	-1,3	-0,9
--Produktu farmazeutikoak	1	-0,3	0,9	0,9	0,1	1,2	1,5	2,6
--Kautxua eta plastikoak	0,6	1,7	1,5	-0,4	5,3	-2,3	0,8	-3,1
--Metalurgia eta metalezko produktuak	**-8,4**	**9,2**	**2,7**	**-0,5**	**-3**	**0,8**	**-4,1**	**0,5**
--Produktu informatikoak eta elektronikoak	0,6	-1,4	3,2	0,4	-2	1	-0,5	-0,1
--Material eta ekipo elektrikoa	-1,9	4,5	6,5	2,1	-2	-0,5	1	1,6
--Makinaria eta ekipoa	**-0,2**	**0,1**	**1**	**0,4**	**2,1**	**0,2**	**0**	**0,4**
--Garraio materiala	**1,8**	**0,8**	**2**	**-0,6**	**1**	**-0,5**	**1,6**	**1,1**
--Altzariak eta beste manufaktura batzuk	1,7	0	1,5	2,7	-0,7	-3,7	1,6	-1,9
-Energia elektrikoa, gasa eta lurrina	-14,1	5,1	16,6	1,5	6	-4,4	3,1	-7,4
--Energia elektrikoa, gasa eta lurrina	-14,1	5,1	16,6	1,5	6	-4,4	3,1	-7,4

2010eko oinarria.
Iturria: EUSTAT. IPRI. (2017ko apirileko datuak)

EUSTATen *"Industria Estatistikaren"* operazio estatistikoaren helburua da informazio ekonomikoa eskuratzea sektorearen makromagnitude nagusiak kalkulatzeko; hala, horrek erakusten du, 2017ko apirilean argitaratutako 2015eko datuekin, 2014 eta 2015 bitartean, sektore industrialaren faktore-kostuen gaineko BEGdk % 3,4ko hazkunde izenduneko tasa erregistratu zuela, aurreko urteko % 1,2 baino gehiago. Bestalde, enplegua % 1,1 hazi zen (lehenengo zifra positiboa jaitsierako segidako sei urteren ostean); inbertsioa % 7,5 (krisiaren aurreko hazkundeen ehunekoetatik urrun mantentzen bada ere) eta zergen ondorengo operazioen emaitzak (zergen aurreko emaitza ken etekinen gaineko zerga) % 53,1 hazi ziren. Hazkunde horiekin, industri sektoreak hautsi egin zuen aurreko bi urteetako joera, eta berriz ere tasa positiboetan murgildu zen.

Hala eta guztiz ere, negozio-zifraren zenbateko garbia 54.890,9 milioi eurora heldu zen 2015ean; horrek, EUSTATen arabera, % 1,7ko gutxikuntza nominala ekarri zuen. Hala, murrizketa hori horniduretako eta kanpoko zerbitzutako gastuen jaitsiera handiagoak arindu zuen, balio erantsiaren hazkundea erraztuz.

Industria eta energia biltzen dituzten atalen barruan, nabarmentzekoa da C. manufaktura-industria, industriako landunen % 95,6 bilduta, baita faktore-kostuaren gaineko BEGdren % 86,6 ere. Bigarrenik, D. Ur- eta saneamendu-hornidura atalak daude enpleguaren % 3arekin eta faktore-kostuen gaineko BEGdren % 3,1arekin eta D. Energia elektrikoa, gasa eta lurrina enpleguaren % 1,2arekin eta faktore-kostuen gaineko BEGdren % 9,9arekin. Azkenik, B. Erauzketa-industriak atala dago, enpleguaren % 0,2arekin eta faktore-kostuen gaineko BEGdren % 0,3arekin.

Industriaren sektoreko negozio-zifra osoan pisurik handiena duten azpisektoreak, 2015ean, hauek izan ziren: Metalurgia eta metalezko produktuak (% 24,6), Energia elektrikoa, gasa eta lurrina (% 13,6), Garraio materiala (% 11) eta

Kokea eta petrolioa fintzea (% 9,9). Hau da, 2014ko berberak, Garraio materialak eta Kokea eta petrolioa fintzeak postuak aldatu badituzte ere.

Aurreko urtean ez bezala, azpisektore gehienek hazkundeak erregistratu dituzte enpleguan. Jaitsierak eman dira Energia- eta saneamendu-hornikuntzan (% 5,9); Material eta ekipo elektrikoa (-% 4,5); Energia elektrikoa, gasa eta lurrina (-% 1,7); Egurra, papera eta arte grafikoak (% 1,4) eta Metalezkoak ez diren beste produktu mineral batzuk (-% 1,3).

Manufaktura-industriaren barruan, EAErako garrantzitsuenak diren hiru azpisektore industrialek, Metalurgiak eta metalezko produktuak, Makineria eta ekipoak eta Garraioen materialak, funtsezkoak izaten jarraitzen dute gure industri sektorean BEGdren eta enpleguaren aldetik; izan ere, BEGdren % 27,5, % 11 eta % 9,9 eta enpleguaren % 34,1, % 10,9 eta % 8,7 ziren, hurrenez hurren, 2015. urtean.

II.3.15. TAULA. BEGD FAKTORE-KOSTUETAN ETA ENPLEGUA EAEKO MANUFAKTURA-INDUSTRIAREN HIRU SEKTORE NAGUSIETAN. DESAGREGAZIOA

	Enplegua			BEGd faktore-kostuetan		
	2014	2015	Aldak un.	2014	2015	Aldak un.
Metalurgia eta metalezko produktuak						
25/26 Siderurgia/Burdinazkoak ez diren metalen produkzioa	10530	10222	-2,9	679726	596069	-12,3
27 – Metalen galdaketa	7009	6643	-5,2	441304	411047	-6,9
28 – Metalezko eraikuntza	9663	9785	1,3	418664	427496	2,1
29 – Forja-lana eta estanpazioa	6342	6473	2,1	416492	422896	1,5
30 – Ingeniaritza mekanikoa	17849	18498	3,6	937923	992458	5,8
31 – Metalezko artikuluak	14370	14703	2,3	861433	870064	1,0
Makineria eta ekipoa						
35 – Erabilera orokorreko makineria	16617	17125	3,1	1117206	1198612	7,3
36 – Makina-erremintak	4104	4079	-0,6	272879	291582	6,9
Garraio materiala						
37 – Motordun ibilgailuen fabrikazioa	9617	9847	2,4	732609	788548	7,6
38 – Ontzigintza	860	885	2,9	48548	42184	-13,1
39 – Bestelako garraio materiala	6243	6270	0,4	430532	516580	20,0

Iturria: EUSTAT. Industria Estatistika

Lurraldeen arabera, okupatutako enpleguaren bilakaerari dagokionez, hiru lurraldeetan egon dira aldakuntza positiboak; hala, Araban eta Bizkaian enplegua % 0,7 hazi da eta Gipuzkoan % 1,7. Bestalde, Balio Erantsia ere hazi da hiru lurraldeetan: Araban % 3,8; Bizkaian % 3,4 eta Gipuzkoan % 3,1.

II.3.16. TAULA. SEKTORE INDUSTRIALAREN MAGNITUDEAK SEKTOREEN ARABERA.

	% Banaketa (Industria = 100) 2014					Inbertsioa (mila euro) /enplegua 2015	Emaitza (mila euro) /enplegua 2015	BEGd faktore-kostuetan	Enplegua	Inbertsioa	Emaitzak operazio jarraituen arabera*, zergen ostean
	BEGd faktore-kostuetan	Enplegua	Inbertsioa	Negozio-zifra (Salmenta garbiak)	Emaitzak zergen ostean			% aldakun. nominala 14-15	% Aldakun. 14-15	% Aldakun. 14-15	% Aldakun. 14-15
INDUSTRIA GUZTIRA	100	100	100	100	100						
(mila euro)	**13.542.946**	**194.458**	**1.840.799**	**54.890.865**	**1.790.136**	**8,9**	**6,1**	**3,4**	**1,1**	**7,5**	**53,1**
B Atala. Erauzketa-industria	**0,3**	**0,2**	**0,3**	**0,4**	**0,2**	**10,0**	**6,8**	**-1,0**	**1,7**	**-3,6**	**-70,1**
C Atala. Manufaktura-industria	**86,6**	**95,6**	**80,9**	**84,2**	**88,1**	**8,0**	**8,5**	**6,5**	**1,3**	**7,0**	**32,6**
Elikadura-industria, edariak, tabakoa	6,7	7,5	8,7	8,1	11,7	10,9	14,3	0,6	1,2	47,4	-2,2
Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta zapatagintza	0,7	1,3	0,3	0,5	1,2	2,5	8,5	-5,1	1,3	-25,2	-10,7
Egurra, papera eta arte grafikoak	4,6	5,9	3,3	3,8	4,5	5,3	7,0	-3,4	-1,4	-9,1	-11,5

II.3.16. TAULA. SEKTORE INDUSTRIALAREN MAGNITUDEAK SEKTOREEN ARABERA.											
Kokeriak eta petrolioa fintzea	3,0	0,5	3,9	9,9	11,0	68,6	187,6	1819,0	0,4	71,3	-403,4
Industria kimikoa eta produktu farmazeutikoen fabrikazioa	3,1	2,3	4,1	2,7	4,2	16,9	16,7	9,2	1,3	-7,6	-13,0
Kautxua eta plastikoak	7,5	6,9	7,2	5,8	11,2	9,8	14,9	12,8	4,6	21,7	83,3
Metalezkoak ez diren beste produktu mineral batzuk	2,3	2,6	1,8	1,7	-0,2	6,6	-0,7	2,0	-1,3	74,2	-165,7
Metalurgia eta metalezko produktuak	27,5	34,1	26,1	24,6	5,8	7,2	1,6	-0,9	0,9	10,0	-46,0
Prod. Informatiko eta elektronikoak eta optikoak	2,3	3,1	1,8	1,5	2,9	5,3	8,6	5,7	6,2	-17,8	125,1
Material eta ekipo elektrikoa (etxeko elektrotresnak barne)	3,7	4,7	3,6	3,3	2,7	7,2	5,4	-12,7	-4,5	-16,6	-879,6
Makineria eta ekipoa	11,0	10,9	7,5	8,7	14,7	6,5	12,4	7,2	2,3	16,8	10,8
Garraio materiala	9,9	8,7	10,7	11,0	14,2	11,5	14,9	11,2	1,7	-17,6	5,6
Altzariak eta bestelako manufaktura-industriak	4,3	6,9	1,9	2,7	4,1	2,6	5,5	8,8	4,6	-20,8	106,1
D Atala. Energia elektrikoa, gasa eta lurrina	**9,9**	**1,2**	**10,2**	**13,6**	**9,0**	**83,6**	**71,2**	**-14,9**	**-1,7**	**-15,4**	**-307,0**
E Atala. Ur- eta saneamendu-hornidura	**3,1**	**3,0**	**8,6**	**1,8**	**2,7**	**27,0**	**8,4**	**-8,3**	**-5,9**	**70,1**	**4,1**

**Operazio horien ustiakuntza- eta finantza-emaitza hartzen du barne. Iturria: EUSTAT. Industri Estatistika*

Eduki teknologikoari dagokionez[14], EUSTATen datuen arabera, 2015ean eta aurreko urteetan bezala, enpleguaren zatirik handiena, faktore-kostuen gaineko BEGd eta salmenta garbiak eduki teknologiko ertain baxuko eta ertain altuko sektoreetan biltzen dira. Hala ere, 2010 eta 2015 bitartean, antzeman da maila teknologiko altuaren pisua handitu dela hiru adierazleetan.

Horrela, enpleguaren terminoetan, maila teknologiko ertain-txikiko eta ertain-handiko sektoreetan okupatutako langileak, hurrenez hurren, industriako enpleguaren guztizko kopuruaren % 47,8 eta % 25,7 dira. Bilakaeraren ikuspuntutik, 2010 eta 2015 bitartean, maila teknologiko altuko sektoreen pisua hazi da eta maila baxukoa jaitsi da; ertain baxukoak eta ertain altukoak, aldiz, mantendu dira.

Faktore-kostuen gaineko BEGdren terminoetan, maila teknologiko ertain-txikiko eta ertain altuko sektoreetan biltzen da, hurrenez hurren, balio erantsiaren % 42,5 eta % 25,9. 2010etik 2015era, maila teknologiko altuko, ertain altuko eta ertain baxuko sektoreen pisua hazi da eta maila baxukoa murriztu da.

[14] *ELGAren sailkapenaren arabera, EUSTATek erabiltzen duena, maila teknologiko handiak honako hauek hartzen ditu barne: 1. Produktu farmazeutikoen fabrikazioa, 2. Produktu informatiko, elektroniko eta optikoen fabrikazioa, eta 3. Aeronautika eta espazio eraikuntza. Maila teknologiko ertain-handian honako hauek daude: 4. Industria kimikoa; 5. Arma eta munizioen fabrikazioa; 6. Material eta ekipo elektronikoen fabrikazioa, Makineria eta ekipoen fabrikazioa, Ibilgailuen fabrikazioa; 7. Bestelako garraio materialen fabrikazioa, Ontzigintza eta Aeronautika eraikuntza izan ezik, eta 8. Tresna eta hornigai medikoen eta odontologikoen fabrikazioa. Ertain-txikian hauek sartzen dira: 9. Grabatu-euskarrien erreprodukzioa; 10. Kokeriak eta petrolioa fintzea; 11. Kautxu eta plastikozko produktuen fabrikazioa, metalezkoak ez diren bestelako produktu mineralen fabrikazioa. Metalurgia; 12. Metalezko produktuen fabrikazioa, makineria eta armak eta munizioak izan ezik; 13. Ontzigintza eta 14. Makineria eta ekipoen konponketa eta instalazioa. Txikian hauek sartzen dira: 15. Elikadura-industria, edariak, tabakoa, ehungintza eta jantzigintza. Larrugintza eta zapatagintzaren industria. Egurraren eta paperaren industria eta kortxoa; 16. Arte grafikoak; 17. Altzarien fabrikazioa; 18. Beste manufaktura-industria batzuk eta 19. Sailkatu gabe.*

Bestalde, salmentarik gehienak eduki teknologiko baxuko sektoreetan egiten dira (sektore industrialeko salmenten % 43,6) eta ertain altukoetan (% 23,5). Halaber, 2010 eta 2015 bitartean, eduki teknologiko ertain-txikiko eta baxuko sektoreekin lotutako salmenten pisua murriztu da eta eduki teknologiko altuko sektoreetako salmentak hazi dira.

II.3.17 TAULA. EAEKO INDUSTRIAREN EDUKI TEKNOLOGIKOA ELGAREN SEKTOREEN ARABERA. (Guztizkoaren gainean duten pisua)

	2010	2011	2012	2013	2014	2015
Okupatutako langileak						
GUZTIRA (kopurua)	218.819	213.405	203.174	195.633	192.387	194.458
Maila teknologiko handia	3,9	4,0	4,4	4,6	4,5	4,8
Maila teknologiko ertain-handia	25,7	25,6	25,8	26,3	25,9	25,7
Maila teknologiko ertain-txikia	47,8	47,8	47,7	47,1	47,5	47,8
Maila teknologiko txikia	18,5	18,1	17,7	17,6	17,3	17,3
Sailkatu gabe	4,1	4,4	4,5	4,4	4,7	4,4
Balio Erantsi Gordina faktore-kostuetan						
GUZTIRA (kopurua)	14.563.855	14.789.069	13.983.941	12.950.224	13.101.641	13.54.2946
Maila teknologiko handia	3,5	3,5	4,0	4,4	4,4	4,8
Maila teknologiko ertain-handia	24,9	25,9	25,7	26,2	25,6	25,9
Maila teknologiko ertain-txikia	41,6	41,0	40,7	40,1	40,2	42,5
Maila teknologiko txikia	14,9	14,4	13,6	14,3	13,9	13,5
Sailkatu gabe	15,1	15,1	16,1	15,1	15,9	13,4
Salmenta garbiak						
GUZTIRA (kopurua)	53.469.783	58.733.508	55.661.105	54.443.484	55.865.644	54.890.865
Maila teknologiko handia	2,8	2,9	3,2	3,5	3,3	3,5
Maila teknologiko ertain-handia	23,9	23,5	23,2	22,6	22,0	23,5
Maila teknologiko ertain-txikia	46,1	47,6	47,0	46,6	45,4	43,6
Maila teknologiko txikia	14,1	12,8	12,6	13,5	13,1	13,6
Sailkatu gabe	13,2	13,2	14,0	13,8	16,2	15,8

Iturria: EUSTAT. Industri Estatistika

3.4. ERAIKUNTZA

EUSTATen *"Kontu Ekonomikoen"* datuen arabera (2017ko otsailean argitaratutakoak), 2016an, eraikuntzaren sektorea, 3.931 milioi eurorekin eta lanaldi osoaren pareko gisa neurtutako 55.223 lanposturekin, guztizko BPGdren % 5,5 izan da eta lanaldi osoaren pareko guztizko enpleguaren % 6,1.

II.3.18. TAULA. BEGdAREN ETA NPLEGUAREN BILAKAERA ERAIKUNTZAN (urtetik urterako aldakuntza-tasak)

	2014	2015				2016			
	T4	T1	T2	T3	T4	T1	T2	T3	T4
BEGd aldakuntza-tasa bolumenean	-0,5	1,4	0,6	0,2	-0,2	-0,3	2,7	1,9	1,9
Guztizko enpleguaren aldakuntza-tasa (LOPL*)	-0,7	-0,3	-0,3	-0,7	-0,5	-0,3	-0,1	0	0,5

**Lanaldi osoaren parekoak*
Iturriak: EUSTAT, CET

Aipatutako Kontuen arabera, eraikuntzaren sektoreak 2016ko lehenengo hiruhilekoa hasi zuen urteko aldakuntza-tasa erreal negatiboarekin (-% 0,3), positibo bihurtu zena bigarrenean (% 2,7), hirugarrenean moteldu zena (% 1,9) eta laugarrena hazkunde-tasa berberarekin amaitu zuena. Horrela, eraikuntzaren sektoreko BEGdk, 2016an, urtetik urterako % 1,6ko aldakuntza tasa izan zuen. Eraikuntzako BEGdren urteko batez besteko aldakuntza Estatuan, EINren arabera, % 2,5ekoa zen.

Enpleguari dagokionez, lanaldi osoko lanpostuetan neurtuta, EUSTATen Kontu Ekonomikoek erakusten dute horren murrizketa (lehenengo bi hiruhilekoetan, urtetik urterako aldakuntza-tasan) hirugarren hiruhilekoan gelditu dela (aldakuntza-tasa nulua) eta laugarrenera heltzen dela % 0,5eko hazkundearekin. Horrela, urtean zehar, urtetik urterako batez besteko aldakuntza nulua da. Sektorearen produktibitatea % 1,6 handitu da. Bestalde, BPGdren deflatoreak % 0,3ko hazkundea izan du.



EUSTATen "Eraikuntzaren Koiuntura-indizea" eraikuntzaren sektoreko produkzioaren eta enpleguaren bilakaera aztertzen duen koiuntura-adierazlea da eta, lehenengo aldiz krisiaren hasieratik, erakusten du hazkundea egon dela aurreko urtearekiko. Horrela, produkzioaren urteko batez besteko aldakuntza, 2016an, % 2,2koa izan da, eraikuntzaren indizearen hazkundearen zuzeneko emaitza (% 4,6ko hazkunde-tasa); izan ere, obra zibilak indizearen aldakuntza negatiboa eragin du, hain zuzen ere, -% 11,8koa. Enpleguak urteko batez besteko -% 0,7ko aldakuntza izan zuen 2015ean erregistraturiko -% 1,7aren aldean.

EUROSTATen datuen arabera, 2017ko otsailean argitaratutakoak, Eraikuntzaren Produkzio Indizearen batez besteko aldakuntza, 2016an, +% 1,6koa da eurogunean eta +% 1,3koa EB28an.

II.3.24 TAULA. ERAIKUNTZAREN SEKTOREAREN BILAKAERA

	Hiruhilekoko kontu ekonomikoak. (zuzendutako datuak) Urtetik urterako aldakuntza-tasak				Eraikuntzaren indize koiunturala Urteko batez besteko hazkundea			
	BPGd kateatutako bolumena	Lanpostuak guztira (LOPL)	Produktibitatea	Deflatorea	Guztira	Eraikuntza	Obra zibila	Enplegua
					Produkzio-indizea			
2008	-5,8	-4,8	-1,1	4,0	2,2	-1,3	9,5	-2,9
2009	-7,4	-7,9	0,5	-3,0	-12,5	-15,7	-6,4	-7,9
2010	-7,9	-7,8	-1,0	1,9	-16,9	-13,6	-22,4	-8,4
2011	-7,6	-9,9	2,3	1,9	-11,0	-10,2	-15,8	-8,0
2012	-7,6	-12,9	5,3	-4,0	-16,4	-15,7	-21,3	-12,9
2013	-4,6	-11,9	7,3	-3,6	-24,0	-25,2	-15,9	-12,9
2014	-1,7	-3,4	1,7	-0,5	-4,6	-6,6	7,1	-5,6
2015 p	0,5	-0,4	0,9	0,3	-0,1	1,8	-10,0	-1,7
2016 p	1,6	0,0	1,6	0,3	2,2	4,6	-11,8	-0,7

p: behin-behinekoa. Iturria: EUSTAT

EUSTATen "*Eraikuntzako Kostuen Indizea*"[15] aztertuko dugu orain. Abagune-adierazlea da. Kostu horien bilakaera neurtzen du, eraikuntza sektoreko lehengaien edo bitarteko kontsumoen (lehengaien eta materialen kostuen, energia kostuen eta askotako gastuen kostuen batura; hori sektoreko lehengai nagusien prezioen bidez zenbatesten da) eta langileria kostuen (soldata gordinen eta gizarte kotizazioen batura, sektoreko hitzarmen kolektiboen bidez zenbatetsia) indize baten bidez.

[15] *Indize honek eraikuntza obra mota biak bereizten ditu: eraikinak egitea (eraikuntza iraunkor oro, bereizia edo independentea, etxebizitza familiar edo kolektiborako egiten dena, edo nekazaritzarako, industriarako, zerbitzuak emateko edo, oro har, jarduera bat egiteko eskolak, siloak, eta abar egiten dena) eta obra zibila (azpiegitura obra oro, eraikinak egitea ez dena, kolektiboki edo publikoki erabiltzeko dena).*

Adierazle horrek ez du ahalbidetzen produkzioaren azken prezioari eragiten dioten kostu guztiak neurtzea, jakina, enpresa etekinaz gain, kapitalari lotutako faktoreak falta baitira.

2015eko abendutik 2016ko abendura, eraikuntzaren kostuak % 0,1 hazi dira; eskulanaren kostua % 0,7 hazi da eta lehengaien kostuak % 0,1 murriztu dira.

II.3.20. TAULA. ERAIKUNTZAREN KOSTUEN URTETIK URTERAKO ALDAKUNTZA-TASA EAEN

	Kostuak			Lehengaien prezioak			Eskulanaren kostua
	Guztira	Eraikuntza	Obra zibila	Guztira	Eraikuntza	Obra zibila	
2010-11	1,0	0,5	3,3	0,9	0,2	4,1	1,4
2011-12	3,1	2,9	4,1	3,6	3,3	4,8	1,5
2012-13	-0,6	-0,5	-0,8	-1	-1,0	-1,3	1,0
2013-14	0,4	0,4	-0,1	0,2	0,3	-0,4	1,0
2014-15	-1,2	-0,9	-2,6	-2	-1,7	-3,9	1,8
2015-16	0,2	0,4	-1,1	0,2	0,4	-1,5	0,3
2016-17	0,1	-0,1	1,1	-0,1	-0,3	1,2	0,7

Iturria: EUSTAT.ICCE

Eraikuntza eta Obra Zibila azpisektoreen kostuen bilakaera desberdina da. Eraikuntzaren kostuak % 0,1 murriztu diren bitartean, obra zibilarenak % 1,1 hazi dira.

2015eko abendutik 2016ko abendura bitartean hazkunderik handienak erregistratu dituzten sektoreak kontsumitutako lehengaien prezioen artean, nabarmentzekoak dira Petrolioaren fintzea (% 18,8); Egurraren industria (% 1,6) eta Material elektrikoa (% 1,5). Aitzitik, lehengai hauen prezioak murriztu dira: Energia elektrikoa eta gasa (-% 7,8); Kautxua eta plastikoa (% 4,6) eta Altzarien fabrikazioa eta metalezkoak ez diren materialak (-1,3).

3.5. ZERBITZUAK

EUSTATen "*Kontu Ekonomikoen*" datuen arabera (2017ko otsailean argitaratutakoak); 2016an, zerbitzuen sektorea, 44.958,2 milioi eurorekin eta lanaldi osoaren pareko 647.144 lanposturekin, guztizko BPGdren % 62,7 izan da eta lanaldi osoaren pareko guztizko enpleguaren % 72.

2016an, EAEko zerbitzuen sektorearen BEGd % 3,2 hazi da 2015eko datuekin alderatuta, aurreko urtean baino ehunekozko 0,3 puntu gehiago eta segidako hazkundeetako hiru urte pilatzen ditu. *Merkataritza, Ostalaritza eta Garraioa* % 3,6 hazi da (2015ean baino ehunekozko 9 hamarren gutxiago); *Herri-administrazioa, Hezkuntza, Osasuna eta Gizarte Zerbitzuak* % 2,4 (2015ean baino hamarren bat gutxiago) eta *Gainerako zerbitzuak* % 3,3 (2015ean baino 1,3 puntu gehiago). Zerbitzuen sektorearen BEGdren benetako hazkunde hori (% 3,2) Estatuko osoarena baino apur bat txikiagoa da, non, EINren behin-behineko datuen arabera, % 3,4 egin du gora.

II.3.21 TAULA. ZERBITZUEN SEKTOREAREN BILAKAERA. Zuzendutako datuak. Urtetik urterako aldakuntza-tasak

	BEGd zerbitzuak. Bolumen-indizea				Lanpostuak (LOPL)	Produktibitatea	Deflatorea
	Guztira	Merkataritza, Ostalaritza eta Garraioa	Herri-administrazioa, Hezkuntza, Osasuna eta Gizarte-zerbitzuak	Gainerako zerbitzuak			
2008	3,3	1,2	6,1	3,3	2,0	1,3	3,5
2009	-0,1	-2,8	3,4	-0,1	-1,0	0,9	2,5
2010	0,7	0,4	3,9	-0,8	0,8	-0,1	0,6
2011	0,8	-0,8	3,4	0,6	0,5	0,3	1,5
2012	-0,4	-2,5	0,4	0,5	-1,6	1,2	0,5
2013	-1,1	-1,4	0,6	-1,9	-1,6	0,5	0,5
2014	1,7	1,9	2,6	1,0	1,3	0,4	0,3
2015	2,9	4,5	2,5	2,0	2,6	0,3	0,2
2016	3,2	3,6	2,4	3,3	2,1	1,1	0,6

Iturria: EUSTAT

Zerbitzuen sektoreko enpleguak (LOPL), EUSTATen arabera, % 2,1 egin zuen gora urte arteko datuetan gure Erkidegoan, 2015ean baino ehunekozko 5 hamarren gutxiago. Produktibitatea, berriz, % 1,1 hazi zen. Bestalde, deflatoreak % 0,6ko igoera tasa du.

Zerbitzuen sektorearen barruan, berriz ere nabarmendu ziren Merkataritza eta ibilgailuen konponketa, BPGd-aren aldetik nahiz enpleguaren aldetik: Zerbitzuen sektorearen BPGdren % 16,6 2015ean (eskuragarri dagoen azken datua) eta

enpleguaren % 19,4 (2014ko datua). Halaber, BPGdren terminoetan, hauek: Higiezinen jarduerak (zerbitzuen sektorearen BPGdren % 15), Finantza- eta aseguru-jarduerak (% 8,6), Osasun jarduerak (% 8,3), Herri-administrazioa eta defentsa (% 8), Garraioa eta biltegiratzea (% 8), Hezkuntza (% 7,8) eta Ostalaritza (% 8). Eta enpleguan: Hezkuntza (zerbitzuen sektoreko LOPL guztien % 10,3), Herri-administrazioa eta defentsa (% 8,9), Ostalaritza (% 8,4), Zerbitzu osagarriak (% 8,1), Osasun jarduerak (% 7), Kontsultoretzak eta jarduera teknikoak (% 6,3) eta Garraioa eta biltegiratzea (% 6,1).

2011 eta 2015 bitartean, BPGdren batez besteko urteko aldakuntza-tasa +0,5ekoa izan zen. Berriz ere, jaitsierak egon ziren Finantza- eta aseguru-jardueretan (-% 2,6ko urteko batez besteko jaitsiera); Edizioa, irudia, irratia eta telebistan (-% 2,1eko urteko batez besteko jaitsiera) eta beste jarduera profesional batzuetan (-% 1). Bestalde, BPGdren hazkunderik handienak hauetan erregistratu ziren: Telekomunikazioak (% 4), Administrazio publikoa eta defentsa (% 2,8) eta aisialdiko jarduerak eta jarduera kulturalak (% 2,4, urteko batez besteko tasa).

II.3.27 TAULA. ZERBITZUEN SEKTOREAREN EGITURA ETA BILAKAERA EAEN

	ZERBITZUEN SEKTOREAREN EGITURA										% urteko aldakuntza		
	BPGd korrontea (% zerbitzuen sektoreko BEGdren gainean)					Enplegua (% zerbitzuen sektoreko enpleguaren gainean)					BPGd*	Prezioak	Enplegua
	2011	2012	2013	2014	2015	2010	2011	2012	2013	2014	2011-15		2010-14
19. Merkataritza; ibilgailuen konponketa	16,0	15,9	15,7	16,1	16,6	20,7	20,9	20,4	19,6	19,4	0,5	0,3	-1,7
20. Garraioa eta biltegiratzea	7,4	7,3	7,4	7,6	8,0	6,5	6,5	6,3	6,1	6,1	0,2	2,0	-1,5
21. Ostalaritza	6,3	6,6	6,6	6,7	7,0	7,6	7,8	7,9	7,9	8,2	1,4	1,3	1,8
22. Edizioa, irudia, irratia eta telebista	1,0	0,9	0,9	0,8	0,9	1,0	1,0	0,9	0,9	0,8	-2,1	0,5	-6,0
23. Telekomunikazioak	2,3	2,3	2,3	2,2	2,3	0,5	0,5	0,4	0,4	0,4	4,0	-4,4	-4,7
24. Informatika	1,7	1,7	1,7	1,7	1,8	2,0	1,9	1,9	1,9	2,0	1,1	-0,6	-0,5
25. Finantza- eta aseguru-jarduerak	9,0	9,1	8,3	8,8	8,6	3,3	3,2	3,1	2,9	2,9	-2,6	1,7	-3,6
26. Higiezinen jarduerak	14,3	14,6	14,5	14,7	15,0	1,0	0,9	0,9	1,0	1,0	1,3	0,0	-1,6
27. Kontsultoretzak eta jarduera teknikoak	6,6	6,8	6,8	6,6	6,8	6,5	6,5	6,4	6,3	6,3	0,5	0,4	-0,6
28. Ikerketa eta garapena	0,7	0,7	0,7	0,7	0,7	1,0	1,0	1,1	1,1	1,1	0,0	-0,8	2,8
29. Bestelako jarduera profesionalak	1,1	1,1	1,0	1,1	1,1	1,7	1,7	1,7	1,6	1,7	-1,0	0,7	-0,7
30. Zerbitzu osagarriak	4,1	4,1	4,1	4,1	4,4	8,5	8,4	8,1	7,9	8,1	1,1	0,6	-1,3
31. Herri-administrazioa eta defentsa	7,6	7,4	7,7	7,9	8,0	9,2	Her9,2	8,9	9,0	8,9	2,8	-1,4	-0,7
32. Hezkuntza	7,4	7,1	7,3	7,5	7,8	9,8	10,0	10,0	10,0	10,3	0,7	0,6	1,2
33. Osasun-jarduerak	7,9	7,8	7,9	8,0	8,3	7,0	7,0	6,9	6,8	7,0	1,2	-0,1	0,2
34. Gizarte-zerbitzuen jarduerak	1,6	1,5	1,5	1,5	1,6	3,8	3,7	3,7	3,7	3,9	0,8	0,0	0,7
35. Aisialdiko jarduerak eta kulturalak	1,9	1,9	2,0	2,1	2,2	2,0	2,0	1,9	2,0	2,0	2,4	2,3	0,8
36. Bestelako zerbitzuak	1,8	1,9	1,9	2,0	2,0	3,7	3,7	3,8	3,7	3,8	1,2	1,3	0,9
37. Etxeen jarduerak	1,4	1,4	1,4	1,4	1,5	4,2	4,6	4,5	4,5	4,6	0,7	1,0	2,4
38. Lurraldetik kanpoko organismoak	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0			
Zerbitzuak guztira (BPGd mila euro eta enplegua lanaldi osoan)	**41.323.161**	**41.374.782**	**41.139.645**	**41.949.043**	**43.230.827**	**627.629**	**630.516**	**620.674**	**610.904**	**617.839**	**0,8**	**0,4**	**-0,4**
Ekonomia guztira (BPGd mila euro eta enplegua lanaldi osoan)	**68.041.740**	**66.775.970**	**65.906.376**	**67.223.820**	**69.216.483**	**933.196**	**924.389**	**893.952**	**867.306**	**869.058**	**0,2**	**0,8**	**-0,8**

** BPGd erreala (kateatutako bolumenean) Iturria: EUSTAT. Kontu Ekonomikoak*

Enpleguari dagokionez, behera egin zuen 2010 eta 2014 bitartean, urteko batez besteko % 0,8ko tasarekin. Hona jaitsierarik handienak: Edizioa, irudia, irratia eta TB (-% 6), Telekomunikazioak (-% 4,7), Finantza eta aseguru jarduerak (-% 3,6) eta Higiezinen arloko jarduerak (-% 1,6). Aitzitik, sektore hauetan aurkitzen ditugu hazkunderik handienak: Ikerketa

eta garapena (% 2,8), Etxeetako jarduerak (% 2,4), Ostalaritza (% 1,8) eta Hezkuntza (% 1,2). Zerbitzuen sektoreko prezioen urteko batez besteko igoera % 0,8koa izan zen 2011 eta 2015 bitartean.

3.5.1. Merkataritza

EUSTATen *"Kontu Ekonomikoen"* eskuragarri dauden azken datuen arabera, ibilgailuen merkaturatzearen eta konpontzearen sektoreak EAEko BPGd korrontearen balioaren % 9,9 inguru hartzen du (6.847,8 milioi euro; 2015eko datua) eta enpleguaren % 14 inguru (lanaldi osoaren pareko 121.756 lanpostu; 2014ko datua).

EUSTATen "Txikizkako Merkataritza Indizea, *(TMI)*" EAEko txikizkako merkataritzaren sektoreko merkataritzako eta laneko koiunturaren bilakaeraren zuzeneko adierazlea da, eta informazioa jaso deneko bi aldagaien jokabidearen azterketan du oinarria: "salmentak" eta "landunak".

Txikizkako merkataritzaren salmenten indize orokorrak urtetik urterako % 1,5eko hazkundea erregistratu du EAE osorako 2015 eta 2016 bitartean, aldakuntza positiboko bigarren urtea izanik jaitsierako urte askoren ostean. Lurralde historikoen arabera bereiziz, denek izan dute joera berbera, aldeak antzematen badira ere. Izan ere, Araba % 1,2 hazi da eta Bizkaia % 1,3 eta Gipuzkoa, aldiz, % 1,9ra heldu da.

II.3.23. TAULA. TXIKIZKAKO MERKATARITZAREN SALMENTEN INDIZEAREN BILAKAERA (urteko batez besteko hazkundea etengabeko prezioetan)

	TT.HH			EAE										
					Elikadura			Gainerako produktuak						
	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	**Indize Orokorra EAE**	Guztira	Espezializatua	Espezializatu gabea	Guztira	Pertsonaren ekipamendua	Etxearen ekipamendua	Bestelako kontsumo-ondasunak	Espezializatu gabea	Erregaia automoziorako	Indize orokorra gasolina-zerbitzuguneak gabe
2011	-4	-3,2	-4,8	-3,8	-2,4	-2,9	-2,1	-4,1	-2,5	-4,6	-4,3	-8,2	-8,2	-3,4
2012	-3,5	-4,7	-5,2	-4,7	-2,3	-4,4	-1,2	-6,3	-5,9	-9,8	-4,6	-3,6	-5,6	-4,6
2013	-2,3	-3,7	-4,6	-3,8	-2,4	-0,2	-3,5	-5,4	-8,7	-6,7	-2,2	2,9	-0,8	-4,1
2014	1,1	-0,8	0,8	0	-2,2	-2,2	-2,2	1,7	2,9	2,8	-1	1	0,8	0
2015	4,9	0,5	2	1,7	1,4	-2,8	3,7	2,1	0,6	3,6	3,8	0,9	0,5	1,8
2016 p	1,2	1,3	1,9	1,5	2,7	-1,1	4,6	0,7	-1,1	3,2	0,8	1,2	0,7	1,5

p: behin-behinekoa
Iturria: EUSTAT, ICIm

EUROSTATen datuen arabera, txikizkako merkataritzaren batez besteko aldakuntza 2016an, 2017ko otsaileko datuen arabera, % 1,8koa da eurogunean eta % 2,8koa EB28an. Salmenten indizearen hazkundea, EAEn, nagusiki eta segidako bigarren urtez, espezializatu gabeko elikadura-produktuetan eta etxerako ekipamendu-produktuetan egon den salmenten hazkundearen ondorioz eman da (hurrenez hurren, % 4,6 eta % 3,2 hazi dira) eta neurri txikiagoan espezializatu gabeko produktuen salmentak hazi direlako (% 1,2), bestelako kontsumo-ondasunenak (% 0,8) eta automoziorako erregaiarenak (% 0,7). Aitzitik, elikadura espezializatuko eta pertsonaren ekipamenduko produktuen salmentak murriztu dira (biak -% 1,1).

Txikizkako merkataritzaren okupazioaren datuek erakusten dutenez, % 0,8ko hazkundea egon zen 2016. urtean, eta aldakuntza positiboa dagoen bigarren urtea izan da gutxikuntzako urte batzuen ostean. Hazkunde hori azaltzen da, aurreko urtean ez bezala, elikadura-saltokietako enpleguan egon den hazkundeagatik (% 3,7). Gainerako produktuetako eta automoziorako erregaiko saltokietan, aldiz, enplegua murriztu da (-% 0,7 eta -% 7,5, hurrenez hurren).

EUSTATen *"Azalera handiko saltokietako eta elikadura-kateetako merkataritza-indizeak"* [16] azalera handiko saltokietako indizea ordezten du. Izan ere, hori egiteari utzi zitzaion 2016ko urrian, merkataritza-koiunturaren hileko bilakaera islatzen ez zuelako eta, hain zuzen ere, helburu horretarako jaio zen 90eko hamarkadan.

Indize berriaren arabera, Euskadiko azalera handiko saltokietako eta elikadura-kateetako salmentak % 2,3 hazi dira 2015 eta 2016 bitartean. Hazkunde hori eman da salmentak areagotu direlako elikadura-produktuetan eta gainerako produktuetan. Epe berberean, langileen kopurua ere % 3,3 hazi da.

II.3.29 TAULA. TXIKIZKAKO MERKATARITZAKO OKUPATUTAKO LANGILEEN INDIZEA. EAE (urtetik urterako tasak).

	Indize orokorra	Elikadura	Gainerako produktuak	Erregaia automoziorako
2011	-1,3	0,3	-2,5	4,1
2012	-3,2	-0,4	-5,2	4,1
2013	-3,9	-2,3	-5	-2,8
2014	-1,3	-2	-1	2,3
2015	0,1	-0,1	0	7,3
2016 p	0,8	3,7	-0,7	-7,5

p: behin-behinekoa Iturria: EUSTAT, ICIm

3.5.2. OSTALARITZA

EUSTATen "*Kontu Ekonomikoek*" eskura jarritako azken datuen arabera, Ostalaritza sektoreak EAEko BPGd osoaren % 4,2 inguru hartzen du (2.904 milioi euro; 2015Eko datua) eta enplegu osoaren % 5,9 inguru (lanaldi osoaren pareko 51.156 lanpostu; 2014ko datua).

EAEko hoteletan ostatu hartutako bidaiarien inguruko EUSTATen *"Establezimendu turistiko hartzaileen Inkestaren"* datuek erakusten dute [17], EAEko bidaiariak eta berezko ostatu-gauak zenbatuz, 2015 eta 2016 bitartean bidaiarien eta ostatu-gauen kopurua berriz hazi den arren, okupazio-maila [18] murriztu dela eta batez besteko egonaldia egonkor mantentzen dela.

II.3.25. TAULA. BIDAIARIAK, OSTATU-GAUAK, BATEZ BESTEKO EGONALDIA ETA OKUPAZIO-MAILA EAEKO HOTELETAN

	Ostatu hartutako bidaiariak	Okupatutako plazak guztira (ostatu-gauak)	Batez besteko egonaldia egunetan	Okupazio-maila plazen arabera	Okupazio-maila logelen arabera
2011	2.420.997	4.574.989	1,9	46,0	55,2
2012	2.420.107	4.622.303	1,9	46,1	55,8
2013	2.368.080	4.478.672	1,9	44,3	53,8
2014	2.424.832	4.657.505	1,9	46,4	56,3
2015	2.637.385	5.041.338	1,9	49,8	60,5
2016	2.837.225	5.490.499	1,9	53	64,3
Var. 14-15	8,8	8,2	0,0	7,3	7,5
Var. 15-16	7,6	8,9	0,0	6,4	6,3

Iturria: EUSTAT, Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

II.3.3 GRAFIKOA. BIDAIARIEN SARRERAREN BILAKAERA EAEN. HOTELAK.



Iturria: EUSTAT

[16] *2015etik aurrera, aldaketak antzeman ziren azalera handiko saltokietako kontsumitzaileen erosketa-ohituretan, kontsumitzailearengandik hurbilago dauden beste banaketa-modu batzuetara. Hortaz, EUSTATek Azalera Handiko Saltokietako Merkataritza-indizea hedatzeari utzi zion*

[17] *Jarduera nagusitzat pertsonei ostatua eskaintzea duen establezimendua, prezioaren bidez, ohiko jarduera profesional gisa, beste batzuekin edo beste batzuk gabe. Ikertutako populazioa eratzen dute EAEko hotel-establezimenduek –hotelak, hostalak eta pentsioak- baita landa-turismoko establezimenduak eta landetxeak.*

[18] *Definitzen da, hilabete baterako, hilabete zehatz bateko ostatu-gauen guztizko kopuruaren eta hoteleko plaza/logelen produktuaren (bidezkoa denaren arabera) arteko ehuneko gisa adierazitako harremana, hilabete horren egun-kopuruarekin biderkatuta.*

Hala, % 7,6ko hazkundea erregistratu da bidaiarien sarrerei dagokienez eta % 8,9koa ostatu-gauetan, 2015arekin alderatuta. Aldi berean, hoteletako plazak % 2,4 hazi dira.

Ostatu hartutako bidaiarien kopurua hazi da atzerritik datozen bidaiaren kopurua ere hazi delako (% 10,4, aurreko hazkundeetara gehitzen dena: +% 3,4 2014an eta +% 10,6 2015ean) eta Estatukoen hazkundea (% 9,8, aurreko hazkundeetara gehitzen dena: +% 2,7 2014an eta +% 7,5 2015ean). Hala eta guztiz ere, EAEko berezkoak % 7,8 murriztu dira 2015eko % 8,3ko hazkundearen aurrean.

Zehazki, EAEko berezko bidaiariak alde batera utzita ikusten denez, % 10 egin du gora 2015 eta 2016 bitartean EAEko hoteletan hartutako bidaiarien kopuruak. Horrela, 2.495.805 lagun izan dira guztira eta, beraz, batez besteko egonaldia 1,96 egunekoa da, eta antzekoa da Estatuko bisitarien aldetik Estatutik kanpokoei dagokienez.

II.3.26 TAULA. BIDAIARIEN KOPURUAREN, OSTATU-GAUEN ETA BATEZ BESTEKO EGONALDIAREN (EGUNETAN) BILAKAERA EAEN BIDAIATZEN DUEN PERTSONAREN JATORRIAREN ARABERA

	2014			2015			2016			Aldakuntza		
	Bidaiariak	Ostatu-gauak	Batez besteko egonaldia (egunak)	V	P	EM	V	P	EM	V (%)	P (%)	EM (Dif)
Guztira EAE gabe	2.083.039	4.070.359	1,95	2.267.233	4.420.729	1,95	2.495.805	4.896.359	1,96	10,1	10,8	0,01
Estatua EAE gabe	1.183.838	2.330.572	1,97	1.272.935	2.501.232	1,96	1.397.909	2.757.533	1,97	9,8	10,2	0,01
Atzerritarrak	899.201	1.739.787	1,93	994.298	1.919.497	1,93	1.097.896	2.138.826	1,95	10,4	11,4	0,02
EAEko berezkoak	341.793	587.146	1,72	370.152	620.609	1,68	341.420	594.140	1,74	-7,8	-4,3	0,06

Iturria: EUSTAT, Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

3.5.3. FINANTZA SEKTOREA

EUSTATen *"Kontu Ekonomikoek"* eskura jarritako azken datuen arabera, Finantza- eta aseguru-jardueren sektoreak EAEko BPGd korrontearen % 5,2 inguru hartzen du (3.573,8 milioi euro; 2015eko datua) eta enpleguaren % 2,1 inguru (lanaldi osoaren pareko 17.900 lanpostu; 2014ko datua.

II.3.27. TAULA. DIRU-MERKATUAREN ESKU-HARTZE TASAK ETA INTERES-TASAK

	ESKU-HARTZE TASAK (*)				INTERES-TASAK EUROGUNEAN DIRU-MERKATUA. GORDAILUAK. EURIBORRA			
	Ekonomia eta Diru Batasuna	AEB	JAPONIA	ERRESUMA BATUA	Hilabete batera	3 hilabe-tera	6 hilabe-tera	Urtebetera
2008	2,50	0,25	0,10	2,00				
2009	1,00	0,25	0,10	0,50	0,90	1,23	1,44	1,82
2010	1,00	0,25	0,10	0,50	0,57	0,81	1,08	1,35
2011	1,00	0,25	0,10	0,50	1,18	1,39	1,64	2,01
2012	0,75	0,25	0,10	0,50	0,33	0,57	0,83	1,11
2013	0,25	0,25	0,10	0,50	0,13	0,22	0,34	0,54
2014	0,05	0,25	0,10	0,50	0,13	0,21	0,31	0,48
2015	0,05	0,50	0,10	0,50	-0,07	-0,02	0,05	0,17
2016	0,00	0,75	-0,10	0,25	-0,34	-0,26	-0,16	-0,03
2016ko lehenengo hiruhilekoa					-0,26	-0,19	-0,10	0,01
2016ko laugarren hiruhilekoa					-0,37	-0,31	-0,21	-0,07

** Datuak epearen amaieran*
Iturria: Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioa

Finantzen arloari erreparatuta, Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioaren 2017ko otsaileko "*Adierazleen laburpena*" txostenaren datuen arabera, Europako Banku Zentralak, 2016an, behin jaitsi zuen euro guneko egun baterako esku-hartze tasa, martxoan, % 0,00an kokatuz. Hala, horrela mantendu zuen urte osoan.

Bestalde, Japoniako Bankuak -% 0,1era jaitsi zuen (martxoan ere bai), maila horretan mantenduz urte osoan. Hala, Estatu Batuetako Erreserba Federalak 2015 itxi zuen % 0,5arekin mantendu zuen 2016ko abendura arte; orduan, % 0,75era igo zuen.

Euroguneko diru-merkatuko interes-tasei dagokienez, urteko batez besteko balioa kontuan hartuta, epe guztietan murriztu ziren. Zehazki, hilabete bateko Euriborra -% 0,26an zegoen urteko lehenengo hiruhilekoan, eta -% 0,37an amaitu zuen laugarrenean. Hiru hilabeteko Euriborra -% 0,19tik -% 0,31ra igaro zen lehen eta laugarren hiruhilekoen artean. Sei hilabeteko Euriborra -% 0,10etik -% 0,21era igaro da, eta urtebeterako Euriborra % 0,01ean hasi zen eta -% 0,07an amaitu.

II.3.28. TAULA. KREDITU-ENTITATEEK ETXEEI ETA ISFLSHRI ESKAINITAKO INTERES TASA*
(Ekonomia eta Diru Batasuneko biztanleak)

	TEDR** (Tasa efektiboa definizio mugatua) Haztatutako batez besteko tasa			UTB Urteko Tasa Baliokidea		
	Etxebizitza-kreditua	Kontsumo-kreditua ***(b)	Bestelako helburuak	Etxebizitza	Kontsumoa	Bestelako helburuak
2008	5,65	10,48	6,51	5,83	10,99	7,03
2009	2,53	9,28	4,48	2,62	9,72	4,95
2010	2,60	6,92	5,16	2,66	7,47	5,64
2011	3,58	8,57	5,94	3,66	9,11	6,29
2012	2,81	7,76	5,81	2,93	8,31	6,23
2013	2,99	8,90	5,58	3,16	9,52	5,92
2014	2,56	7,74	4,64	2,64	8,98	4,91
2015	1,98	7,56	3,77	2,31	8,43	4,28
2016	1,91	7,12	3,62	2,19	8,14	4,26

** Etxeen zerbitzura dauden irabazteko asmorik gabeko erakundeak ** Tasa efektiboaren barruan, definizio mugatua, ez dira komisioak sartzen, UTBn bai. *** 2010eko maiatzera arte, hori barne, zutabe honek kreditu-txartelen bidez emandako kreditua hartzen du barne*
(a) Zorpekoak, kreditu-lerroak eta ordainketa geroago egiteko kreditu-txartelak eta "revolving" kanpo
(b) Zorpekoak eta kreditu-lerroak kanpo
Iturria: Espainiako Bankua. Estatistika Aldizkaria

Kreditu-entitateek EEBko (UTB) familiei eta ISPLSHri emandako tasari dagokionez, Espainiako Bankuaren *"Aldizkari Estatistikoaren"* datuen arabera, murriztu egin da, bai kontsumoaren kasuan, % 8,43tik % 8,14ra 2015 eta 2016 bitartean, bai etxebizitzaren kasuan, % 2,31tik % 2,19ra.

EAEn, gordailu-erakundeek emandako guztizko kreditua, berriz ere hazi da 2016an, igoeretako segidako bi urte batuz, beheranzko joera erakutsi izan duen urte batzuen ostean: 70.037tik 71.564 milioi eurora (+% 2,2).

Hazkunde hori gertatu da Herri Administrazioei emandako krediduaren igoeragatik (+% 5,4) nahiz sektore pribatuari emandakoengatik, baina azken horren igoera (guztizkoaren % 90,2) txikiagoa izan da (+% 1,8).

II.3.29 .TAULA. GORDAILU-ENTITATEEN KREDITUA SEKTORE PUBLIKO ETA PRIBATURA (saldoak 12/31n)

	Milioi euroak						Banaketa EAE 2016	Estatua 2016	% Estatuaren gainean	% 2015-16 aldakuntza
	2011	2012	2013	2014	2015	2016				
Guztira	**85.956**	**79.338**	**73.237**	**69.177**	**70.037**	**71.564**	**100**	**1.304.198**	**5,5**	**2,2**
Herri-administrazioa	3.859	4.277	4.862	6.008	6.636	6.997	9,8	83.701	8,4	5,4
Sektore Pribatua (OSR)	82.097	75.062	68.375	63.169	63.400	64.566	90,2	1.220.497	5,3	1,8

Iturria: Espainiako Bankua. Estatistika Aldizkaria.

Kredituko saldoei dagokienez, beste sektore egoiliar batzuetan, etxebizitza eskuratzeko hipoteka-maileguarekin, Espainiako Bankuaren Estatu osorako datuekin (ez dago daturik eskuragarri Autonomia Erkidegoen mailan), hauxe dugu: magnitude honek berriz ere egin zuen behera 2015 eta 2016 bitartean, baina aurreko epean baino gutxiago % 2,8 hain zuzen (526.105 milioi eurotik 511.253 milioi eurora).

II.3.30. TAULA. KREDITUAK HIPOTEKA-BERMEAREKIN ESTATUAN ETXEBIZITZA BAT EROSTEKO (IV hiruhilekoa)

	Milioi €	Aldakuntza-tasak
2009	611.813	:
2010	620.433	1,4
2011	612.657	-1,3
2012	594.405	-3,0
2013	569.692	-4,2
2014	552.613	-3,0
2015	526.105	-4,8
2016 (p)	511.253	-2,8

p. behin-behinekoa Iturria: Espainiako Bankua. Estatistika Aldizkaria

Bestalde, Jabetza, Merkataritza eta Ondasun Higigarrien Erregistratzaileen Espainiako Elkargoaren datuek, EINren *"Hipoteken Estatistikan"* argitaratutakoak, adierazi egiten dute EAEn eratutako hipoteka kopurua % 6,1 hazi dela 2015 eta 2016 bitartean (behin-behineko datuen arabera). Hipotekatutako finka gainean emandako batez besteko zenbatekoa % 4,4 hazi da, 157.333 mila eurokoa izanda aurreko ekitaldiko 150.767 mila euroren aurrean. Horrez gain, etxebizitzaren gaineko hipoteken

kopurua ere % 8,6 hazi da, eta hipotekatutako etxebizitza kontuan hartuta maileguan emandako batez besteko zenbatekoak % 1,5 egin zuen gora, 129.665etik 131.623ra.

II.3.31. TAULA. LANDA- ETA HIRI-FINKEN HIPOTEKAK EAEN

	2014			2015			2016 p			Aldakuntza 2015-16		
	Kopurua	Zenbatekoa (Milioi €)	Batez besteko zenbate-koa (€)	Kopurua	Zenbatekoa (Milioi€)	Batez besteko zenbate-koa (€)	Kopurua	Zenbatekoa (Milioi€)	Batez besteko zenbate-koa (€)	Kopurua	Zenbatekoa (Milioi€)	Batez besteko zenbate-koa (€)
HIPOTEKAK GUZTIRA	**16.862**	**2.529**	**149.982**	**20.608**	**3.107**	**150.767**	**21.839**	**3.436**	**157.333**	**6,0**	**10,6**	**4,4**
Landa-finkak	613	113	184.339	362	83	229.282	315	53	168.254	-13,0	-36,1	-26,6
Hiri-finkak	16.249	2.416	148.686	20.246	3.024	149.363	21.524	3.383	157.173	6,3	11,9	5,2
Etxebizitzak	11.469	1.380	120.324	14.283	1.852	129.665	15.514	2.042	131.623	8,6	10,3	1,5
Orubeak	313	318	1.015.974	302	331	1.096.026	311	460	1.479.100	3,0	39,0	35,0
Beste hiri-finka batzuk	4.467	718	160.734	5.661	841	148.560	5.699	881	154.589	0,7	4,8	4,1

P: behin-behinekoa. Iturria: EIN Hipoteken Estatistika (Jabetza, Merkataritza eta Ondasun Higigarrien Erregistratzaileen Espainiako Elkargoa)

Finantza-erakundeetan jarritako gordailuei dagokienez, Espainiako Bankuaren *"Aldizkari Estatistikoaren"* datuen arabera, Herri-administrazioen jabetzapekoen guztizko saldoa 2.902 milioi eurokoa izan zen EAEn 2016 amaitzean. Kopuru horrek -% 0,2ko jaitsiera txikia ekarri zion urteko tasari, eta % 5,4 Estatuko gordailuetan. Beste sektore egoiliar batzuetako gordailuen (BSE) balioa 73.216 milioi eurokoa izan zen, hau da, horien balioak % 2ko igoera izan zuen aurreko ekitaldikoaren aldean, eta % 6,4ko ratioa estatuko guztizkoaren gainean.

Bere modalitateen (agerikoa, aurrezkia eta eperakoa) arabera aztertzen baditugu beste sektore batzuen gordailuak, hauxe ikusiko dugu: ageriko gordailuak eta aurrezki-gordailuak berriz ere hazi direla, lehenengoak 34.084 milioi euroraino iritsita (+% 16,3) eta bigarrenak 14.059 milioi eurora (+% 16,3); eta eperako gordailuek % 16,6 egin dute behera, 25.073 milioi euroraino, jaitsierako hiru urte batuz.

II.3.32. TAULA. SEKTORE PRIBATUAREN ETA HERRI-ADMINSITRAZIOEN GORDAILUAK GORDAILU-ENITATEETAN (SALDOAK XII-31)

	Milioi euroak					Banakeita.	Estatua	% Estatuko guztizkoaren gainean	% aldakuntza	
	2012	2013	2014	2015	2016				2014-15	2015-16
Guztira pribatua eta publikoa	71.947	73.729	72.269	74.676	76.117	-	1.194.227	6,0	3,0	2,0
Guztira sektore publikoa	2.533	2.660	2.822	2.907	2.902	-	53.412	5,4	3,0	-0,2
Guztira sektore pribatua (OSR)	69.414	71.068	69.448	71.770	73.216	100,0	1.140.814	6,4	3,3	2,0
Ageriko gordailuak	18.805	23.175	24.883	29.633	34.084	46,6	465.311	7,3	19,1	15,0
Aurrezki-gordailuak	12.749	9.832	10.419	12.089	14.059	19,2	288.228	4,9	16,0	16,3
Eperako gordailuak	37.860	38.062	34.145	30.048	25.073	34,2	387.276	6,5	-12,0	-16,6

Iturria: Espainiako Bankua. Estatistika Aldizkaria

Burtsari dagokionez, Espainiako Bankuaren *"Estatistika Buletinaren"* datuen arabera, IBEX-35 indizeak % 2 egin zuen behera 2015eko abendutik 2016ko abendura bitartean.

Madrilgo Burtsaren urteko batez besteko kapitalizazioa, 667.764 milioi euro orotara 2016an, % 0,7 hazi zen aurreko urtearen aldean, eta batez besteko kontratazio bolumena, 651.807 milioi euro, % 32,2 jaitsi zen 2016an aurreko urtearekiko.

II.3.33 TAULA. BIGARREN MAILAKO BALORE-MERKATUA. MADRILGO BURTSA

	KAPITALIZAZIOA (Sozietate egoiliarrak, milioi euroak)	KONTRATAZIO-BOLUMENA (milioi euroak)
2013	595.395	698.744
2014	638.472	884.349
2015	663.027	960.807
2016	667.764	651.389

Iturria: Espainiako Bankua. Estatistika Aldizkaria

Bestalde, Bilboko Burtsaren 2000 Indizeak 1.489,5 puntu izan zituen 2016ko abenduan, hau da, % 5,64 jaitsi zen aurreko urteko abenduko datuekin alderatuta.

Bilboko Burtsaren kontratazio-bolumena (erosketak eta salmentak), 2016an, 109.385,9 milioi eurokoa izan zen, hau da, % 40,1 jaitsi egin zen 2015ekin alderatuz.

II.3.34. TAULA. BILBOKO BURTSA

	Burtsaren Indizea abenduaren 31n (200 Oinarria 1999ko abenduaren 31n)	KONTRATAZIO-BOLUMENA (milioi euroak)
2013	1.658,6	142.235,4
2014	1.669,0	174.583,8
2015	1.578,5	182.570,3
2016	1.489,5	109.385,9

Iturria: Bilboko Burtsa

ITURRIAK:

1. EUSTAT. Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda (JEGID). 2015. Urterokoa. Koiunturala.

2. EUROSTAT. Datu-basea 2016. Urterokoa. Koiunturala.

3. EUSKO JAURLARITZA Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Kooperatiben Erregistroa 2016. Urterokoa. Koiunturala.

4. EUSTAT. Enpresen sorrerari eta galerari buruzko estatistika, 2016. Urterokoa. Koiunturala.

6. EUSTAT. Kontu Ekonomikoak. 2016. Urterokoa. Koiunturala.

7. EIN. Eskualde-kontabilitatea. 2016. Urterokoa. Koiunturala.

8. EUSTAT. Produkzio Industrialaren Indizea. 2016. Urterokoa. Koiunturala.

9. EUSTAT. Industriako Prezioen Indizea. 2016. Urterokoa. Koiunturala. 2016.

10. EUROSTAT. *Industrial Production*-en inguruko prentsa-oharra. 2016. Urterokoa. Koiunturala.

11. EUROSTAT. *Industrial Production Prices*-en inguruko prentsa-oharra. 2016. Urterokoa. Koiunturala.

12. EIN. Industriako Prezioen Indizea. Urterokoa. Koiunturala.

13. EUSTAT. Industria Estatistika 2015. Urterokoa. Koiunturala.

14. EUSTAT. Eraikuntzaren Koiuntura Indizea 2016. Urterokoa. Koiunturala.

15. EUSTAT. Eraikuntza kostuen indizea. 2016. Urterokoa. Koiunturala.

16. EUSTAT. Txikizkako merkataritzaren salmenten indizea. 2016. Urterokoa. Koiunturala.

17. EUSTAT. Azalera handiko saltokietako eta elikadura-kateetako merkataritza-indizea. 2016, lehenengo urtea. Urterokoa. Koiunturala.

18. EUSTAT. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta. 2016. Urterokoa. Koiunturala.

19. EKONOMIA, INDUSTRIA ETA LEHIAKORTASUN MINISTERIOA. *Adierazle ekonomikoen laburpena. Taulak eta Grafikoak.* 2017ko otsaila. 2016ko datuak. Urterokoa. Koiunturala.

20. ESPAINIAKO BANKUA. Estatistika aldizkaria. 2016ko datuak. Urterokoa. Koiunturala.

21. EIN. Hipoteken estatistika. 2016. Urterokoa. Koiunturala.

22. Bilboko Burtsa. Datuen eskaera. 2016. Urterokoa. Koiunturala.

4. PREZIOAK, KOSTUAK ETA ERRENTAK

4.1. KONTSUMO ONDASUNEN ETA ZERBITZUEN PREZIOAK

Prezioek igoera handiarekin bukatu zuten 2016. urtea, eta 2016ko abenduan +%1,5ean kokatu zen; 2015eko abenduaren, berriz, %0,3 izan zen. Hala, urteko batez besteko inflazioak (%0,0) 2015eko tasa negatiboak utzi zituen, ekialdiaren hasieran oso prezio txikiekin hasi ondoren, baina joera aldatu egin zen irailetik hasita.

II.4.1. TAULA. KONTSUMOKO PERZIOEN INDIZEAREN BANAKAPENA. 2011KO OINARRIA URTEARTEKO ALDAKUNTZA-TASA. ABENDUAN

	2012	2013	2014	2015	2016
GUZTIZKO INFLAZIOA (100%)	**2,7**	**0,6**	**-0,7**	**0,3**	**1,5**
AZPIKO INFLAZIOA (%82,6)	2,1	0,6	0,3	1,0	1,0
- Elikagai landuen KPIa (%14,1)	3,9	1,2	0,0	1,7	0,0
- Ondasun Industrialen KPIa (%26,6)	2,5	0,3	-2,4	0,7	0,8
- Zerbitzuen KPIa (%41,9)	2,4	0,5	0,7	1,0	1,5
HONDAR-INFLAZIOA (%17,4)	5,6	0,7	-4,8	-3,0	3,9
- Landu gabeko elikagaien KPIa (%6,8)	3,3	1,4	-0,3	3,1	2,2
- Energiaren KPIa (%10,6)	7,1	0,3	-7,6	-6,8	5,1

Iturria: EIN eta Eusko Jaurlaritzaren KOIUNTURAZ buletina.

Lurraldez lurralde, Bizkaian izan zen igoerarik handiena 2016an (+%1,7), eta ondoren Araban (+%1,5) eta Gipuzkoan (+%1,3).

Energiaren prezioen igoera nabarmenak isla izan zuen inflazioaren igoeran, petrolioaren bilakaerak eraginda. Izan ere, 2016ko urtarrilean minimoetan kokatu ondoren, erregistrorik handienak izan zituen urte amaieran 2015eko udatik.

Alabaina, prezioen joera erakusteko egokiagoa den adierazleak, hots, azpiko inflazioak [19], +%1 izateari eutsi zion 2016ko abenduan. Talde horren barnean, landutako elikagaiek aldakuntza nulua izan zuten, zerbitzuek %1,5 egin zuten gora eta industriakoek %0,8.

Hondar-inflazioak, aldiz, +%3,9arekin bukatu zuen urtea erregaien eta janari f<<<<<<<<reskoen igoeren ondorioz.

II.4.1. GRAFIKOA. KONTSUMORAKO PREZIOEN INDIZEA. URTE ARTEKO ALDAKUNTZA-TASA. 2011KO OINARRIA. EAE ETA ESTATUA



Itirroa: EIN.

[19] *Azpiko inflazioa kontsumo-prezioen aldagarritasuna erakusten duen adierazlea da, guztizko inflazioak baino zehatzago. Hondar-inflazioa osatzen duten energiako produktuei eta landu gabeko elikagaiei (frutak barazkiak...) dagokien zatia deskontatuta kalkulatzen da.*

Esan beharra dago petrolioaren kotizazioaren igoerak erregaien prezioetan izan zuela eragina; izan ere, hilabete askoren buruan, tasa positiboetara itzuli ziren (2015eko abenduan jaitsiera izan zen, ordea). Horren ondorioz, osagaiaen bilakaerak gehien ukitu zituen taldeek eragin handiagoa izan zuten inflazioaren igoeran. Hala, garraioa %4,6 hazi zen; 2015eko abenduan, berriz, %2,5 jaitsi zen eta etxebizitzarenak ere igoera izan zuen: -%1,6tik +%0,4ra. Hala ere, prezioen goranzko joera orokorra izan zen, zeren eta, salbuespenik gabe, KPIa osatzen duten talde guztiek urte arteko tasa positiboak izan baitzituzten 2016ko amaieran.

II.4.2. TAULA. KONTSUMO-PREZIOEN INDIZEA. OROKORRA ETA ECOICOP* TALDEAK. EAE ETA ESTATUA. 2011KO OINARRIA. ABENDUA (URTEARTEKOA)

	EAE				ESTATUA			
	2013	2014	2015	2016	2013	2014	2015	2016
INDIZE OROKORRA	**0,6**	**-0,7**	**0,3**	**1,5**	**0,3**	**-1,0**	**0**	**1,6**
Elikagaiak eta alkoholik gabeko ed.	0,8	-0,1	2,3	0,7	1,2	-0,3	1,8	0,8
Alkoholdun edariak eta tabakoa	5,1	-0,2	1	0,8	5,6	0,4	1,3	0,9
Jantziak eta oinetakoak	0,2	0,4	0,5	0,9	0,0	0,2	0,5	0,9
Etxebizitza	0,0	0,6	-1,6	0,4	0,0	-0,2	-2,3	0,8
Etxeko tresnak eta zerbitzuak	-0,2	-0,1	0,3	0,8	-0,2	-0,6	0,1	0,0
Zerbitzu medikoak eta osasuna	9,2	-0,2	0,9	0,7	0,0	-0,2	0,5	-0,1
Garraioa	1,2	-5,0	-2,5	4,6	1,0	-5,5	-2,8	4,7
Komunikazioak	-6,5	-5,6	0,5	3,3	-6,6	-5,7	0,5	3,3
Aisialdia eta kultura	-0,8	-0,9	0,1	0,9	-1,2	-1,2	0,2	0,5
Irakaskuntza	2,5	2,9	0,6	1,0	1,9	1,2	0,5	0,9
Hotelak, kafetegiak eta jatetxeak	0,7	0,4	0,8	1,3	0,2	0,6	0,9	1,4
Bestelako ondasunak eta zerbitzuak	0,5	1,4	1,8	1,8	0,3	1,3	1,7	1,9

** Classification of Individual consumption by purpose*
Iturria: EIN

Bestalde, EBko Kontsumoko Prezioen Indize Harmonizatuaren (KPIA) [20] datuek Estatu osorako erakusten dutenez, %1,4ko jaitsiera gertatu zen 2015eko abenduaren aldean. Aurreko urtean %-0,1ekoa izan zen. 28ko EB osoan, bestalde, +%1,2ko igoera izan zen prezioetan, 2015eko abenduaren +%0,2koa baino handiagoa. Euro gunean +%1,13ko ratioa izan zen (+%0,2koa 2015eko abenduan), eta, beraz, gure Erkidegoak EBBren aldean duen diferentziala +%0,4koa da.

II.4.3. TAULA. KPIA. URTEARTEKO ALDAKUNTZA-TASAK. 2015EKO OINARRIA (2015=100)

	2013 ABE	2014 ABE	2015 ABE	2016 ABE
28KO EB	1,0	-0,1	0,2	1,2
Euro gunea	0,8	-0,2	0,2	1,1
Espainia	0,3	-1,1	-0,1	1,4

Iturria: EUROSTAT

EBk, Estatuak eta Estatukideek KPIHren aldetik konparazioei buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, jo beza irakurleak Kanpoko Ingurune Ekonomikoari buruzko II.1. Kapitulura.

4.2. KOSTUAK

a) Lan-kostuak

Lan-kostuen hainbat adierazle oinarri hartuta, honako emaitza hauek aipatu behar dira:

- Indarreko hitzarmenetan itundutako soldata igoerak aintzat hartuta, Lan eta Gizarte Segurantza Ministerioaren[21], arabera, %1,13ko soldata igoera berrikusia[22] dugu gure Erkidegoan 2016an, 2015ekoak baino 0,59 puntu gutxiago eta Estatuan hitzarturikoak baino 0,07 gehiago.

[20] *Kontsumoko Prezioen Indize Harmonizatuak (KPIH) Europar Batasuneko inflazioaren batez besteko komuna ematen du. Alderaketa homogeneo hauek lortzeko, KPIan biltzen diren eta haren %5 inguru hartzen duten kontsumoko partida jakin batzuk kanpoan utzi behar izan dira (horrela, adibidez, KPIHtik kanpo geratzen dira Osasun zerbitzuak, Irakaskuntza arautua, Sendagaiak eta diruz lagundutako farmaziako produktuak, eta abar).*

[21] *Kopuru horietan, urtean berritutako hitzarmenetan jasotako soldaten aldakuntzak baizik ez dira bildu. Informazio gehiago nahi izanez gero, irakur beza irakurleak "II. Lan-merkatua" kapituluko Lan Harremanei buruzko atala.*

[22] *"Zaintza klausula"ren ziozko soldatapen berrikuspenak jatorrian hitzartutako soldata-igoeran sartzearen emaitza.*

- Bigarren adierazlea Soldatapeko lansaria da, EUSTATen Kontu Ekonomikoetan eta EINen estatistika oinarri hartuta kalkulatzen dena[23]. Kontuan izan behar dugu EUSTATen Kontu Ekonomikoek ez dutela soldatapeko lanpostuen datua, MSEren aribideko urterako eta aurreko urterako lanaldi osoaren baliokidetzan (2016). Hala, ratio hori %0,2 hazi zen gure Erkidegoan 2014. urtean (eskuragarri dugun azken datua). Estatuan, berriz, aldakuntza nulua izan zuen, EINen arabera, eta euro gunean, Europako Banku Zentralaren arabera, %1,3 hazi zen.

  Bestalde, 2015eko behin-behineko datuek erakusten dutenez, Estatuan %0,4ko hazkundea izan zen. Euro gunean, ostera, berriz ere %1,3 hazi zen.

- Lan-kostuen hirugarren adierazlea koiunturala da, hau da, "*Lan-kostuen hiruhileko inkesta. LKHI*", EINrena[24] Inkesta horretako datuek erakusten dutenez, urteko lan-kostuek %0,9 egin dute behera langileko EAEn 2016an, Estatuko jaitsieran baino bost hamarren bat gehiago (%0,4).

  Jarduera-sektoreen arabera, %0,6 egin zuten gora kostuek EAEn industrian. Zerbitzuetan, aldiz, %1,1 jaitsi zen eta %1,4 eraikuntzan. Balio absolutuetan, 2016an, langileko guztizko kostuaren batez bestekoa 35.378 eurokoa da, Estatuko batez bestekoa baino %16 handiagoa (30.496 euro).

II.4.4. TAULA. LAN-KOSTUAREN ADIERAZLE MAKROEKONOMIKOAK

	SOLDATAREN IGOERA HITZARMENETAN[1]		ORDAINSARIA SOLDAPEKO BAKOITZEKO/EAE[2]			ORDAINSARIA SOLDATAPEKO BAKOITZEKO (ALDAK. %.)		
	EAE (Ald. %)	Estatua (Ald. %)	Soldatapekoen ordainsaria (mil.€)	Lanpostuak (LOE). Soldatapekoak	Ordainsaria soldatapeko bakoitzeko (€)	EAE[2]	Estatua[3]	EBB[4]
2010	1,85	2,16	33.285	820.075	40.588	3,2	1,1	1,9
2011	3,03	2,29	33.308	813.319	40.954	0,9	0,9	1,9
2012	1,80	1,16	32.119	787.834	40.769	-0,5	-0,6	1,5
2013	1,01	0,53	31.551	765.596	41.211	1,1	1,4	1,5
2014	0,71	0,50	31.619	766.054	41.275	0,2	0,0	1,3
2015 a	0,54	0,80	32.292	-	-	-	0,4	1,3
2016 a	1,13*	1,06*	-	-	-	-	-	

Iturria: (1) Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioa. Lantaldeen Hitzarmenei buruzko Estatistika. (2) EUSTATen Ekonomia Kontuak eta HEK, 2010eko oinarria. (3) EIN (4)Europako Banku Zentrala. Ekonomia Buletina, 2017ko otsaila
(a) Urteko datuak: aurrerapena (*) 2016ko abendura arte erregistratuak, ondorio ekonomikoak 2016an izan dituztenak.

II.4.5. TAULA. LAN-KOSTUEN BILAKAERA JARDUERA-SEKTOREEN ARABERA. LANGILEKO KOSTUA, €/URTEA.

	ESTATUA				EAE			
	Orotara	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak	Orotara	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak
2010	**30.324**	34.187	30.945	29.435	**35.215**	39.086	35.932	33.725
2011	**30.681**	34.775	31.799	29.731	**35.420**	39.727	36.756	33.809
2012	**30.483**	35.438	32.266	29.353	**35.655**	40.173	35.698	34.131
2013	**30.530**	36.071	32.428	29.320	**36.266**	41.865	35.967	34.470
2014	**30.432**	36.539	32.355	29.148	**35.908**	42.340	37.205	33.828
2015	**30.620**	36.405	32.005	29.443	**35.700**	42.310	38.115	33.491
2016	**30.496**	36.540	31.459	29.311	**35.378**	42.583	37.600	33.107
% 12-13	**0,2**	1,8	0,5	-0,1	**1,7**	4,2	0,8	1,0
% 13-14	**-0,3**	1,3	-0,2	-0,6	**-1,0**	1,1	3,4	-1,9
% 14-15	**0,6**	-0,4	-1,1	1,0	**-0,6**	-0,1	2,4	-1,0
% 15-16	**-0,4**	0,4	-1,7	-0,4	**-0,9**	0,6	-1,4	-1,1

Iturria: Geuk Egina, EINen datuekin. LKHI.

[23] *Langileek euren zerbitzuak emateagatik jasotzen duten ordainketa osoa. Barnea hartzen ditu ekoizleek beren behargin eta enplegatuei egiten dizkieten soldata eta ordainsarien ordainketa guztiak, eta Gizarte Segurantzarako ekarpenak ere bai. Beste hainbat kontzepturen artean barnean hartzen ditu hobariak eta aparteko orduen, primen, gabonsarien, haborokinen eta kalte-ordainen ordainketak.*

[24] *Inkesta hau oinarri hartuta, Lan-kostuaren Indize Harmonizatua lantzen da, hain zuzen ere EB osorako laneko kostuen neurri alderagarria.*

II.4.6. TAULA. LAN-KOSTUEN BILAKAERA JARDUERA-SEKTOREEN ARABERA. LANGILEKO KOSTUA, €/ORDU

	28EB	Euro gunea	ESTATUA				EAE			
	Guzt.	Guztira	Guzt.	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak	Guztira	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak
2010	-	-	**19,1**	20,7	17,8	19,0	23,4	25,7	22,1	22,7
2011	-	-	**19,6**	21,0	18,5	19,4	23,6	25,5	22,5	23,0
2012	**23,9**	**28,3**	**19,5**	21,5	18,9	19,2	24,1	25,8	22,0	23,7
2013	**24,2**	**28,7**	**19,6**	21,8	18,9	19,2	24,6	26,6	21,9	24,1
2014	**24,5**	**29,1**	**19,7**	21,9	18,8	19,3	24,1	26,4	22,8	23,5
2015	**25,0**	**29,5**	**19,8**	21,8	18,5	19,5	24,2	26,4	22,9	23,5
2016	-	-	**19,8**	21,9	18,2	19,5	24,3	26,7	22,5	23,5
% 12-13	**1,3**	**1,4**	**0,5**	1,3	0,1	0,3	1,8	3,0	-0,7	1,6
% 13-14	**1,2**	**1,4**	**0,1**	0,5	-0,5	0,0	-1,9	-0,9	4,2	-2,8
% 14-15	**2,0**	**1,4**	**0,6**	-0,5	-1,6	1,0	0,1	0,2	0,6	0,1
% 15-16	-	-	**-0,1**	0,3	-1,7	0,0	0,4	1,3	-1,7	0,3

Iturria: Geuk egin, EINen datuekin. LKHI eta EUROSTAT

Bestalde, 2016rako behin-behineko datuek erakusten dutenez, ratioa %0,4 handitu EAEn; Estatuan, aldiz, %0,1eko jaitsiera izan da. Jarduera-sektoreka, kostuek 1,7 egin zuten beheran EAEn eraikuntzan; zerbitzuetan eta industrian, aldiz, gora egin zuten, %1,3 eta %0,3 hurrenez hurren. Kopuru absolutuetan, EAEko batez besteko kostua, 2016ean, 24,3 eurokoa da orduko, Estatuko 19,8€-ko batez bestekoaren aldean. EBn eta Eurogunean, 2015eko batez besteko datuak, EUROSTATen arabera, hauexek izan ziren: 25€ eta29,5€. Hortaz, EAEn erregistraturikoak baino handiagoak.

b) Produktibitatea

Produktibitatea kontzeptua ekoizpenaren eta ekoizpena lortzeko erabilitako baliabideen arteko erlazioan datza, eta garrantzitsua da ekonomiaren lehiakortasuna neurtzeko. Kontzeptu erraza da, baina bere kalkulua zaila, zeren eta askotariko faktore determinanteak baitaude (landunen gaitasuna, kapitaleko ondasunen zuzkidura, baliabideen erabilera eraginkorra eta beste faktore batzuekin uztartuta erabiltzea hala nola erakundeen ingurukoaK, legearen ingurukoak, etab.). Horregatik, hurbilketara jotzen da lanaren itxurazko produktibitatearen kontzeptua erabiliz, hainbaT ikuspegitatik neurtua.

Lehenik eta behin, lanaren itxurazko produktibitatea, hain zuzen BPGaren bilakaeraren (%3,1 hazi da 2016an) eta lanpostu baliokideetan (EUSTATen Hiruhileko Ekonomia Kontuen arabera, %1,9 hazi zen azken urtean) neurturiko lanpostuaren arteko erlazio gisa kalkulatua, hazi egin zen, zeren eta ekoizpena enplegua baino gehiago handitu baita, %1,2 kopuru errealetan 2016an, aurreko urtean baino ehuneko hamarren bat gehiago [25].

Hazkunde horren oinarria, 2016an, sektore guztietan izandako produktibitatearen gehikuntza izan da. Lehen sektorekoa %0,6 hazi zen, industriarena %1,7 (hala ere, 2015ean handiagoa izan zen, +%5), eraikuntzarenak %1,6 egin zuen gora (2015ean baino 0,7 puntu gehiago) eta zerbitzuena %1,1 hazi zen, 2015eko igoera baino zortzi hamarren gehiago.

II.4.7. TAULA. LANAREN ITXURAZKO PRODUKTIBITATE ERREALAREN BILAKAERA. (BOLUMEN KATEATUA)

	LEHEN SEKT.	INDUSTRIA	ERAIKUNTZA	ZERBITZUAK	GUZT.
2012	10,1	0,2	5,3	1,2	1,3
2013	1,9	1,6	7,3	0,5	1,2
2014	-18,5	3,6	1,7	0,6	1,4
2015*	15,3	5,0	0,9	0,3	1,3
2016*	0,6	1,7	1,6	1,1	1,2

Iturria: Geuk egina, EUSTATen Hiruhileko Ekonomia Kontuak oinarri hartuta.
(*) Behin-behineko datuak.

[25] *Benetako produktibitatea bolumen kateatuko indizeetan, EUSTATen datuetatik abiatuz kalkulatuta.*

EAEko lehia-posizioa Europako testuinguruan erkatuz, PBGaren (erosteko ahalmenaren parekotasunaren arabera) eta enpleguaren arteko erlazio gisa kalkulatzen da lan-produktibitatea. Informazioa eskuragarri dugunez gero, abantaila bat du, hain zuzen ere alderaketak egiteko erraztasuna, baina kasu honetan, maila terminoetan egiten da azterketa, ez bilakaeraren aldetik.

II.4.8. TAULA. LANEKO PRODUKTIBITATEA, ENPLEGATU BAKOITZEKO, HERRIALDE ETA URTEKO (EB 27=100). (EROSTEKO AHALMENAREN PAREKOTASUNAREN ARABERA)

	2012	2013	2014	2015
28ko EB	100	100	100	100
Euro gunea	107,2	107,3	107,3	107,2
Espainia	103,2	103,5	103,2	101,5 p
EAE	**130,1**	**130,5**	**130,0**	**127,9**

bb: behin-behinekoa
Iturria: EUSTAT eta EUROSTAT.

Adierazle horren arabera, 127,9ko indizea zuen EAEk 2016an, Estatukoa baino %26,4 handiagoa eta 28ko EBko batez bestekoa baino %27,9 handiagoa eta Eurogunekoa baino %20,7 handiagoa.

EBren, Estatuaren eta estatu kideen mailako produktibitateen arteko alderaketei buruzko informazio gehiago nahi bada, jo beza irakurleak II.1. Kapitulura (Kanpoko Ingurune Ekonomikoa).

c) *Unitateko lan-kostuak*

Behin produktibitatearen eta lan-kostuen bilakaera ikusita, EAEko ekonomiaren Unitateko Lan-kostuak aztertuko ditugu (ULK)[26].

2016rako behin-behineko datuek erakusten dutenez, gure ekonomiaren ULKen jaitsiera gertatu da (-%2,1, eta 2015ean, berriz, -%1,9); izan ere, behera egin du industrian (-%1,1) nahiz eraikuntzan (-%3) eta zerbitzuetan (-%2,2).

II.4.9. TAULA. UNITATEKO LAN KOSTUAK EAE-N: URTEKO ALDAKUNTZA

	LAN-KOSTUEN ALDAK		PRODUKTIBIT. ALDAK.		ULK KORRONTEEN ALDAK.	
	2015	2016	2015	2016	2015	2016
OROTARA	-0,6	-0,9	1,3	1,2	-1,9	-2,1
INDUSTRIA	-0,1	0,6	5	1,7	-5,1	-1,1
ERAIKUNTZA	2,4	-1,4	0,9	1,6	1,5	-3,0
ZERBITZUAK	-1	-1,1	0,3	1,1	-1,3	-2,2

Iturria: Geuk egina, EUSTAT eta EINen datuekin

4.3. ERRENTAK

a) *Errenten banaketa faktoriala*

Gure ekonomian sortutako balio erantsia, lehenik eta behin, balio hori sortzen honela lagundu duten faktoreen artean banantzen da: soldatapeko ordainsari gisa, soldatapekoa ez den lanerako eta kapitalerako ustiapeneko soberakin garbi gisa eta, azkenik, herri administrazioari dagokion ekoizpenarekin eta inportazioarekin (diru-laguntzen garbiak) loturiko zergak. Bigarren mailan, pertsonen eta familien artean banatzen da errenta, ekoizpen-faktore horien jabetzan duten partaidetzaren eta jasotako errenten arabera.

Produktuaren banaketa funtzionalari dagokionez, EUSTATen "Kontu ekonomikoek" agerian uzten dutenez, 2015ean (behin-behineko datuak) prezio arruntetako BPGan %3ko hazkundea erreferentziatzat hartuta, zerga garbiek %1,3 egin zuten gora, soldatapekoen errentak %2,1 eta ustiapenaren soberakin garbiak %4,9. Kapital finkoko kontsumoa, berriz, %2,2.

[26] *Unitateko Laneko Kostu (ULK) korrontea zera da: soldatapeko bakoitzaren laneko kostuaren eta okupatu bakoitzeko produktibitatearen arteko ratioa. ULK erreala zatidura berdin hori da, nahiz eta deflatorea aplikatzearen bitartez "prezioen eragina"; ezabatuta. Epigrafe honetan aztertzen dena adierazle hauen urteko aldakuntza da, Estatuko eta Europako batez bestekoen aldea.*

Bilakaera hori ikusita, soldatapeko laneko errentak 2015ean BPGd-aren %46,7 dira (%47 2014an eta %47,9 2013an). Ustiapeneko soberakin garbia, berriz, %33,9 da (BPGd-aren gaineko pisua 6 hamarren irabazi ditu) eta kapital finkoaren kontsumoa %9,5, aurreko urtean baino 1 hamarren gutxiago. Hala, ustiapenaren soberakin garbia, bi magnitude horiek batuta, BPGaren %43,4 da. Ekoizpenerako eta inportaziorako zergei dagokienez, ken ekoizpen-sektoreetarako emandako diru-laguntzak, 2 hamarren gutxiagoko ekarpena du BPGan, hots, %9,9 guztira.

II.4.2. GRAFIKOA: FAKTOREETAKO ERRENTEN EHUNEKOEN BANAKETA EAE-N



Iturria: EUSTATen datuekin geuk egina. Ekonomia Kontuak.

Estatuko errenten bilakaeraren azterketak erakusten duenez (BPG %3,7 hazi zen 2015ean, prezio korronteetan), aurten antzeko proportzioan hazi dira soldaten errentak, %3,8; ustiapenaren soberakina eta errenta mistoa batuta, %2,7ko igoera dugu; eta diru-laguntzen zerga garbiak (BPGan duten proportzioa EAEkoa baino pixka bat handiagoa da: %10,4) %7,7 egin zuten gora (%1,3 EAEn).

Euro gunean, aztergai ditugun faktoreek ere bilakaera positiboa izan dute. Soldatapekoen lansariek %2,5 egin dute gora (BPGaren %3,2koa hazkundea baino txikiagoa), ustiapenaren soberakin osoa edo misto gordina %4 hazi da. Aldi berean, zerga garbiek %3,3 egin dute gora.

II.4.10. TAULA. ERRENTAREN BANAKETA EAE-N, ESTATUAN ETA EURO GUNEAN. 2010EKO OINARRIKO URTE BERRIA.

	Milioi euro				% bertikala			% urteko aldakuntza		
	2012	2013	2014	2015 p	2013	2014	2015p	12/13	13/14	14/15
EAE										
1. Soldatapekoen ordainsariak	32.119	31.551	31.619	32.292	47,9	47,0	46,7	-1,8	0,2	2,1
2. Ustiapenaren soberakin garbia	22.506	21.595	22.373	23.461	32,8	33,3	33,9	-4,0	3,6	4,9
3. Kapital finkoaren kontsumoa	6.350	6.610	6.458	6.603	10,0	9,6	9,5	4,1	-2,3	2,2
4. Diru-laguntzen zerga garbiak	5.801	6.150	6.774	6.860	9,3	10,1	9,9	6,0	10,1	1,3
BPG MERKATUKO PREZIOAK	66.776	65.906	67.224	69.216	100,0	100,0	100,0	-1,3	2,0	3,0
ESTATUA										
1. Soldatapekoen ordainsariak	498.790	485.315	491.752	510.344	47,3	47,4	47,4	-2,7	1,3	3,8
2. + 3. Ustiapenaren soberakin gordina / Errenta misto gordina*	446.722	440.393	441.025	453.015	42,9	42,5	42,1	-1,4	0,1	2,7
4. Diru-laguntzen zerga garbiak	94.246	99.926	104.248	112.280	9,7	10,1	10,4	6,0	4,3	7,7
BPG MERKATUKO PREZIOAK	1.039.758	1.025.634	1.037.025	1.075.639	100,0	100,0	100,0	-1,4	1,1	3,7
EURO GUNEA										
1. Soldatapekoen ordainsariak	4.715.365	4.759.333	4.853.969	4.975.498	47,9	47,9	47,6	0,9	2,0	2,5
2. + 3. Ustiapenaren soberakin gordina / Errenta misto gordina*	4.008.529	4.044.199	4.121.633	4.286.868	40,7	40,7	41,0	0,9	1,9	4,0
4. Diru-laguntzen zerga garbiak	1.111.826	1.128.577	1.159.553	1.197.248	11,4	11,4	11,4	1,5	2,7	3,3
BPG MERKATUKO PREZIOAK	9.835.720	9.932.109	10.135.155	10.459.614	100,0	100,0	100,0	1,0	2,0	3,2

Iturria: EUSTAT "Ekonomia Kontuak", EIN "Espainiako Kontabilitate Nazionala" eta EUROSTAT.
**** Ustiapenaren soberakin gordina edo errenta misto gordina soberakin garbiaren eta kapital finkoaren kontsumoaren batura da.***
EAEn, EUSTAT bi aldagaiak ematen ditu, baina ez EUROSTATek ez EINek Euro gunerako eta Estaturako.

b) Errenta biztanleko

Lehenik eta behin, EINek urtero egiten duen "Espainiako Eskualde Kontabilitateak" ahalbidetu egiten digu "Familien errenten kontuak" zein diren jakiteko Autonomia Erkidego eta probintzia mailan, kopuru agregatuetan nahiz per capita kopuruetan.

2014an (azken datu eskuragarria) eta urtebete geroago, EAEko familiek izan zuten *biztanleko errenta baliagarri* handiena, 18.672 euro, aurreko urtean baino %0,3 gehiago eta Estatuko batez bestekoa baino %31,8 gehiago (Estatuan 14.166€ izan zen, baina 2014an ere hazi zen, %1,1 hain zuzen). Gure erkidegoaren atzetik datoz, Estatuko rankingean, Madril, Nafarroa eta Katalunia.

Bestalde, EUSTATek foru aldundiekin batera bi urterik behin egiten duen "EAEko norberaren eta familiaren errenten estatistikak" agerian uzten duenez, 2014an (informazioa dugun azken urtean), 19.379 eurokoa zen batez besteko errenta pertsonala, 2013an baino %0,3 gehiago (2013an baino 60 euro gehiago).

II.4.11. TAULA. FAMILIEN ERRENTA BALIAGARRI GORDINA, PER CAPITA. EUROTAN. 2010EKO OINARRIA

	2012	2013	2014 (p)		
			Balioa (€)	Espainia indizea = 100	2013-14 aldak. tasa
ANDALUZIA	11.118	11.027	11.032	77,9	0,0
ARAGOI	15.461	15.319	15.315	108,1	0,0
ASTURIAS	14.467	14.403	14.528	102,6	0,9
BALEARS (ILLES)	14.512	14.254	14.410	101,7	1,1
U. KANARIARRAK	11.982	11.917	11.827	83,5	-0,8
KANTABRIA	13.692	13.710	13.888	98,0	1,3
GAZTELA-LEON	14.159	13.951	14.040	99,1	0,6
GAZTELA-MANTXA	11.683	11.735	11.652	82,3	-0,7
KATALUNIA	16.238	16.152	16.522	116,6	2,3
VALENTZIAKO E.	12.549	12.438	12.612	89,0	1,4
EXTREMADURA	10.599	10.678	10.641	75,1	-0,3
GALIZIA	12.931	12.829	13.098	92,5	2,1
MADRIL	17.590	17.530	17.943	126,7	2,4
MURTZIA	11.408	11.387	11.291	79,7	-0,8
NAFARROA	17.477	17.340	17.513	123,6	1,0
EAE	**18.634**	**18.620**	**18.672**	**131,8**	**0,3**
ERRIOXA	14.561	14.569	14.772	104,3	1,4
CEUTA	11.912	12.107	12.104	85,4	0,0
MELILLA	10.801	10.764	10.818	76,4	0,5
TOTAL	**14.095**	**14.012**	**14.166**	**100,**	**1,1**

Iturria: EIN. Espainiako Eskualde Kontabilitatea.

Lurraldez lurralde, Gipuzkoak zuen errenta pertsonalik handiena, 19.880€ (2013an baino %0,7 gehiago), eta ondoren Arabak 19.346€ zituen (-%0,1 gutxiago) eta Bizkaiak (19.082€, 2013an baino %0,2 gehiago). Hortaz, Gipuzkoa da errentarik handiena eta joerarik onenak dituena (errenta pertsonala gehien hazi zen lurraldea 2013 eta 2014 bitartean). Araban, bigarren errentarik handiena izan zen, baina behera egin zuen aurreko urtekoaren aldean.

Errenten jatorriari dagokionez, %61 (%61,3 2013an) lanetik zetorren (batez beste 11.821€) eta %8,4 higigarrien eta higiezinen kapitaletik (1.635€). Bestalde, errenten %4,5en jatorria jarduera ekonomikoren bat zen, eta %26 transferentziei edo gizarte prestazioei zegokiena (5.042€ batez beste). Datu horiek 2013koekin alderatuta agerian uzten dutenez, jarduera ekonomikoetatik datozen errenten pisuak %0,4 egin zuen gora eta transferentzienak %0,2. Laneko errentek %0,3 egin zuten behera, eta kapitalenak %0,4 guztizko errentarekiko.

II.4.3. GRAFIKOA. NORBERAREN ERRENTAREN BILAKAERA. EAE-KO BATEZ BESTEKOA ERRENTA MOTEN ARABERA. EUROAK



Iturria: EUSTAT. Norberaren eta Familiaren Errentei buruzko Estatistika

Errentaren banaketari dagokionez, 1.570.000 lagun inguruk jasotzen zuten errentaren bat 2014an, biztanleriaren %86,5ek. Gainerako %13,5ak, berriz, ez zuen diru-sarrerarik. Horrez gain, %59,7k EAEko batez bestekoa baino errenta txikiagoa zuen, errentarik ez zutenak barne. %12,3k, aldiz, batez bestekoa bi halako errenta jasotzen zuen (38.750 euro baino pixka bat gehiago). Gainera, sexuen araberako errenta-banaketan, desberdintasuna ageri zen, zeren eta gizonek batez beste 24.417€-ko errenta jasotzen baitzuten eta emakumeek, batez beste, 14.711€ (beraz, gizonen errenta, 2014an, emakumeena baino %66 handiagoa zen).

Gainera, PFEZren ordainketak eta langilearen kontrako kotizazio sozialak guztizko errentatik deskontatuta lortzen den errenta baliagarria, guztira, 16.235€ zen 2014an, 2013an baino %0,1 gehiago, eta familien errenta guztiaren %83,8 zen.

ITURRIAK:

1. EIN. Kontsumo-prezioen indizea. 2016. Urterokoa. Koiunturala

2. Eusko Jaurlaritza. Ogasun eta Ekonomia Saila. Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza. Koiuntura klik batean. 2017ko martxoko buletina.

3. EUROSTAT. Datu-Basea. 2016. Urterokoa. Koiunturala

4. Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioa. Laneko hitzarmen kolektiboak. 2016 Hilerokoa. Koiunturala

5. EUSTAT. Kontu Ekonomikoak. 2015 (n-2 urtea). Urterokoa. Koiunturala

6. EUSTAT. Kontu Ekonomikoak. Hiruhilekokoa. 2016. hiruhilekokoa. Koiunturala

7. EIN. Espainiako Urteko Nazio Kontabilitatea. 2015 (n-2 urtea). Urterokoa. Koiunturala

8. EIN. Espainiako Hiruhilekoko Nazio Kontabilitatea. 2016 Hiruhilekokoa. Koiunturala

9. Espainiako Bankua. Estatistika Buletina. 2016. Hilerokoa eta hiruhilekokoa. Koiunturala

10. EIN. Lan kostuen hiruhilekoko inkesta. Urterokoa. Koiunturala

11. Europako Banku Zentrala. Ekonomia Buletina, 2017ko otsaila

12. EIN. Espainiako Eskualde Kontabilitatea. 2015. Ikuspegi funtzionala. Urterokoa. Koiunturala

13. EIN. Espainiako Eskualde Kontabilitatea. Ikuspegi instituzionala. Familien errenten kontuak. 2014. Urterokoa. Koiunturala

14. EUSTAT. EAEko norberaren eta familiaren errenten estatistika. 2014. Urterokoa. Koiunturala

5. SEKTORE PUBLIKOA

Atal honetan, finantza publikoen 2016 urterako zifrarik garrantzitsuenak aurkeztu ditugu, diru-sarrera, gastu eta aurrekontu-saldoen terminoetan, baita zorpetzearen bilakaera eta EAEko administrazio-mailen arteko transferentziak; horretarako erabili ditugu Eusko Jaurlaritzaren Ogasun eta Ekonomia Sailak emandako informazioa eta EUSTATen estatistikak.

Nabarmendu nahi dugu, lehenik, diru-sarrera publikoak % 2,8 handitu direla 2016an; hau da, 2015ean baino gehiago (% 0,3). Bestalde, EAEko Sektore Publikoaren guztizko gastuak % 0,9 hazi dira, aurreko urteko % 1,9aren aldean.

Diru-sarreren eta gastuen bilakaeraren ondorioz, aurrezki publikoa % 33 hazi da (eta BPGd-aren % 1,3 izateraino iritsi da); aldi berean, defizit publikoa (finantzatzeko premia) % 92,6 jaitsi da, 21,7 milioi euroraino (aurtengo zenbatetsitako BPGd-aren % 0,03).

Ratio hori BPGd-aren % 0,71 da (% 0,67 2015ean), kontuan hartzen badugu Ogasun eta Herri Administrazioen Ministerioko eskualde-administrazioen berrorekarako Plan Ekonomiko Finantzarioen ondoriozko defizitaren kalkulua (EAEko Administrazio Orokorraz gain, haren erakunde autonomoen, LANBIDEren eta Osakidetzaren zifrak ere kontuan hartu dira). Horixe da Europar Batasunaren erakundeei helarazten zaien erreferentzia, EBk ezarritako helburuen jarraipenean.

II.5.1. TAULA. EAEko SEKTORE PUBLIKOA ERREFERENTZIAZKO ADIERAZLEAK

	ZERGA ITUNDUENGATIKO BILKETAREN ALDAK. %	BPGd-AREN GAINEKO ESP-AREN AURREKONTU-SALDOA		ESP-REN* ZORPETZEA	
		AURREZKI GORDINA	SUPERABITA / DEFIZITA	ALDAK. %	BPGd-AREN %
2012	-0,6	1,6	-0,7	+13,8	13,0
2013	+3,0	0,9	-0,5	+12,6	14,3
2014	+4,8	1,2	-0,3	+7,0	15,7
2015	+2,4	1,0	-0,4	+4,8	15,4
2016	+2,7	1,3	-0,03	+4,6	15,6

** Zor bizia aldiaren amaieran.*
Iturria: EUSTATen eta Eusko Jaurlaritzaren datuekin guk geuk egina.

Beste alde batetik, EAEko sektore publiko osoaren zorpetze garbia (toki-erakundeak kanpoan utzita) % 0,8 beheratu da, aurreko ekitaldian % 25,8ko jaitsiera izan ondoren; hala, urtearen amaieran, zor bizia 11.155,6 milioi eurokoa izan da (+% 4,6 2015aren aldean).

5.1. DIRU-SARRERAK

Eusko Jaurlaritzaren Ogasun eta Ekonomia Sailaren "Aurrekontu-betearazpeneko Estatistikaren" datuen arabera, Eusko Jaurlaritzak eta hiru Foru Aldundiek 2016an likidatutako guztizko diru-sarrerak 15.650,2 milioi eurokoak izan dira; aurreko urtearekin alderatuz, horiek % 2,8 hazi dira (% 0,3 2015ean), zergen bilakaera positiboari esker. Izan ere, zergen bilketa batezbesteko hazkundea baino handiagoa izan da, zeharkakoak % 3,4 hazi baitira, eta zerga zuzenak % 4,2. Bi partidek, 2016an, Euskal Sektore Publikoaren sarreren % 83,5 biltzen dute.

Era berean, eta aurreko ekitaldian ez bezala, finantza-pasiboen aldakuntzan % 7,9ko jaitsiera egon da (+% 2,8 2015ean), zorpetze txikiagoa izan dutelako, bai Eusko Jaurlaritzak (–% 4,9), bai Foru Aldundiek (–% 20,8).

Diru-sarreren hazkunde horrek antzeko bilakaera izan du administrazio ezberdinetan, zeren eta Eusko Jaurlaritzaren kasuan % 3koa izan baita eta Foru Aldundien kasuan, berriz, % 3,2koa izan da (bilketa handiago horrengatik eta tasen eta beste sarrera batzuetan izandako bilakaera positiboagatik).

II.5.2. TAULA. EUSKAL SEKTORE PUBLIKOAREN DIRU-SARREREN LIKIDAZIOA. (MILAKA EUROTAN)

	2015			2016			Ald. % 2015-16		
	EJ	Foru Aldundiak	ESP	EJ	Foru Aldundiak	ESP	EJ	Foru Aldundiak	ESP
Zuzeneko zergak	-	6.001.370	6.001.370	-	6.253.802	6.253.802	-	4,2	4,2
Zeharkako zergak	3.941	6.594.869	6.598.810	3.918	6.818.033	6.821.951	-0,6	3,4	3,4
Tasak eta bestelako sarrerak	180.367	280.452	460.819	181.564	301.397	482.961	0,7	7,5	4,8
Transferentzia arruntak	8.539.794	458.113	488.484	8.837.820	394.858	416.732	3,5	-13,8	-14,7
Ondare-sarrerak	35.409	2.820	38.229	36.198	2.025	38.223	2,2	-28,8	0,0
ERAGIKETA ARRUNTAK, GUZTIRA	8.759.511	13.337.623	13.587.712	9.059.499	13.770.116	14.013.669	3,4	3,2	3,1
Inbertsio errealak besterentzea	1.467	1.316	2.782	946	7.940	8.885	-35,5	503,5	219,4
Kapital-transferentziak	125.726	19.431	145.005	173.210	20.745	192.240	37,8	6,8	32,6
KAPITAL-ERAGIKETAK, GUZTIRA	127.193	20.746	147.787	174.156	28.684	201.125	36,9	38,3	36,1
Aktibo finantzarioen aldaketa	52.590	2.813	55.403	66.574	52.364	118.939	26,6	1.761,3	114,7
Pasibo finantzarioen ald. (Zorra)	1.163.018	265.900	1.428.918	1.106.042	210.488	1.316.530	-4,9	-20,8	-7,9
SARRERA FINANTZARIOAK, GUZTIRA	1.215.608	268.713	1.484.321	1.172.616	262.852	1.435.469	-3,5	-2,2	-3,3
DIRU-SARRERAK, GUZTIRA	**10.102.312**	**13.627.083**	**15.219.820**	**10.406.271**	**14.061.653**	**15.650.263**	**3,0**	**3,2**	**2,8**
SARREREN % / BPGd	14,6	19,7	22,0	14,5	19,6	21,9			

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Aurrekontuaren Betearazpenari buruzko Estatistika.

Balantze gisa, Euskal Sektore Publikoaren diru-sarrerak, erkidegoaren BPGd-arekiko, 2015ean % 22koa zena, proportzio ia berean mantendu egin da 2016an, hamarren bat jaitsi delako, hain zuzen ere, % 21,9ra (behin-behineko datuak), BPGd-a diru-sarrera publikoak baino gehiago hazi delako.

Zerga itunduengatik 2016an bildutakoa:

II.5.3. TAULA. FORU ALDUNDIAK: ITUNDUTAKO ZUZENEKO ETA ZEHARKAKO ZERGENGATIKO DIRU-SARREREN LIKIDAZIOA. (MILAKA EUROTAN)

	ARABA		BIZKAIA		GIPUZKOA		FORU ALDUNDIAK, GUZTIRA	
	ZUZENEKOAK	ZEHARKAKOAK	ZUZENEKOAK	ZEHARKAKOAK	ZUZENEKOAK	ZEHARKAKOAK	ZUZENEKOAK	ZEHARKAKOAK
2012	843.440	927.322	3.121.454	2.825.398	1.733.893	1.847.009	5.698.787	5.599.729
2013	840.168	945.347	3.191.198	2.965.556	1.761.697	1.934.547	5.793.064	5.845.450
2014	877.909	1.011.000	3.183.988	3.237.331	1.802.454	2.103.112	5.864.350	6.351.443
2015	910.000	1.067.582	3.150.808	3.303.292	1.897.769	2.167.902	5.958.577	6.538.776
2016	943.926	1.081.833	3.270.337	3.371.562	1.954.663	2.207.704	6.168.926	6.661.099
% 14/15	3,7	5,6	-1,0	2,0	5,3	3,1	1,6	2,9
% 15/16	3,7	1,3	3,8	2,1	3,0	1,8	3,5	1,9

Iturria: EUSKO JAURLARITZAren datuekin guk geuk egina. Ogasun eta Ekonomia Saila.

Zerga itunduen zioz bildutako kopuruek osatzen dituzte zuzeneko eta zeharkako diru-sarrera gehienak, eta guztizko sarreren % 90 baino gehiago osatzen dute. Hala, behin-behineko datuen arabera, % 2,7ko hazkundea izan du 2016an (12.950,7 milioi euro bildu dira); aurreko urtean, berriz, % 2,4ko igoera izan zuen.

Oro har, aurreko hiru ekitaldietan ez bezala, ikusten da zuzeneko diru-bilketak bilakaera hobea izan duela (+% 3,5) zeharkakoak baino (+% 1,9). Bilakaera horrek, gainera, gure erkidegoko hiru lurraldeetan gertatu da: guztietan % 3 baino gehiago hazi da zuzeneko zergengatiko diru-bilketa, eta zeharkakoengatikoa ere handitu da, neurri txikiagoan izan bada ere: % 2 baino gutxiago Araban eta Gipuzkoan (+% 1,3 eta +% 1,8, hurrenez hurren) eta % 2,1 Bizkaian (batez besteko +% 1,9a baino gehiago). Hala, Bizkaian 6.715,1 milioi euro bildu ziren; Gipuzkoan 4.197,6 milioi euro, eta Araban, 2.037,9.

II.5.1. GRAFIKOA EUSKAL SEKTORE PUBLIKOAREN DIRU-SARRERAK: ZERGA NAGUSIENGATIKO DIRU-BILKETAREN BILAKAERA (MILA EUROTAN)



Iturria: EUSKO Jaurlaritzaren datuekin guk geuk egina. Ogasun eta Ekonomia Saila.

Guztira, 2016an, aurreko urtean baino % 3,5 gehiago bildu da zuzeneko zergetan (6.168,9 milioi euro 2016an, eta 5.958,5 milioi euro 2015ean), PFEZaren handitzearen ondorioz (+% 4,1 hazi zen, hala ere, 2015ean baino gutxiago, % 5,9); izan ere, Sozietateen gaineko zerga, zeina bigarren garrantzitsuena baita, % 3,5 jaitsi da (2015eko –% 10,4a baino gutxiago). Ondarearen gaineko zergaren bilketa % 6,8 handitu da, eta Oinordetzen eta dohaintzen gaineko zerga, berriz, % 2,4 jaitsi da.

Ondorioz, EAEko zuzeneko zergen bilketaren % 78,5 ekarri du PFEZak; % 16,3, Sozietateen gaineko zergak; eta % 5,2 besterik ez gainerako zuzeneko zerga guztiak.

II.5.4. TAULA. EAE-KO FORU ALDUNDIEK ZERGA ITUNDUETATIK BILDUTAKOA. (MILAKA EUROTAN)

	EAE 2015	2016				Aldak. % 2014-15	Aldak. % 2015-16
		AFA	BFA	GFA	EAE		
ZUZENEKO ZERGAK	5.958.577	943.926	3.270.337	1.954.663	6.168.926	1,6	3,5
PFEZ	4.647.680	746.780	2.531.121	1.561.946	4.839.847	5,9	4,1
SOZIETATEEN GAINEKO ZERGA	1.039.051	152.866	600.730	249.107	1.002.703	-10,4	-3,5
EZ-EGOILIARREN ERRENTAREN GAINEKO ZERGA	-54.610	7.308	-22.448	12.751	-2.389	-669,3	95,6
OINORDETZAK ETA DOHAINTZAK	113.688	11.235	57.937	41.806	110.978	1,2	-2,4
ONDAREAREN GAINEKO ZERGA	151.036	17.431	73.043	70.854	161.328	-0,9	6,8
Kreditu ent. gordailuen gaineko zerga	24.428	3.042	13.680	7.601	24.323	98,6	-0,4
Energia elek. ekoiztearen gaineko zerga	37.304	5.264	16.273	10.598	32.135	32,2	-13,9
ZEHARKAKO ZERGAK	6.538.776	1.081.833	3.371.562	2.207.704	6.661.099	2,9	1,9
BEZ	4.944.358	821.360	2.539.295	1.653.751	5.014.405	3,2	1,4
OEZ	101.716	13.261	58.663	49.424	121.348	12,7	19,3
EJDZ	43.645	5.694	19.020	14.483	39.197	19,3	-10,2
GARRAIOBIDEEN GAINEKO ZERGA BEREZIA	16.525	3.161	8.561	6.225	17.947	10,8	8,6
TOTAL II.EE. FABRICACIÓN	1.364.244	228.689	707.010	460.450	1.396.150	1,9	2,3
ASEGURU PRIMEN GAINEKO ZERGA	72.462	9.707	40.757	23.712	74.176	3,2	2,4
TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK	115.277	12.189	73.205	35.307	120.701	10,9	4,7
JOKOAREN GAINEKO TASAK	41.420	6.892	25.218	12.110	44.219	-11,2	6,8
ERREKARGUAK, BERANDUTZAK ETA ZEHAPENAK	73.857	5.297	47.987	23.198	76.482	28,9	3,6
ZERGA ITUNDUAK GUZTIRA	12.612.630	2.037.948	6.715.104	4.197.674	12.950.726	2,4	2,7

Iturria: Ogasun eta Ekonomia Saila. EUSKO JAURLARITZA.

Zeharkako zerga-bilketak ere emaitza positiboekin jarraitu du 2016an (+% 1,9, 6.661 milioi euroraino iritsi da), baina aurreko urteetan baino gutxiago hazi da (+% 8,7 2014an, eta +% 2,9 2015ean). Berezko kudeaketako BEZa % 0,9 hazi da, eta Administrazio Zentralak egiten duen BEZaren doikuntza, berriz, % 3; hala, zerga horrengatiko guztizko bilketa % 1,4 igo da 2016an (2015ean % 3,2 hazi zen); segidako laugarren urtez hazi da. Horrenbestez, zerga hori zeharkako zerga-bilketaren %75,3 da.

Laburbilduz, guztira bildutako bolumena 12.950,7 milioi eurokoa izan da. Zenbateko hori, behin-behineko datuen arabera, EAEko 2016ko BPGd arruntaren % 18,1ekoa izan da, (2015. urtean, % 18,2koa). Azken emaitza 2016ko urrian Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak aurreikusi baino 74,36 milioi euro gutxiagokoa izan bada ere, 2008an bildutako guztizko bolumena gainditu du lehen aldiz krisia hasi zenetik.

Bildutako guztizko zenbatekotik, % 37,4 PFEZri dagokio; % 38,7 BEZari (berezko kudeaketakoa eta barneko eragiketengatiko doikuntzena eta aduanak); % 7,7 Sozietateen Zergari (horrek bilketan daukan pisua murriztu egin da segidako hirugarren urtez) eta gainerako % 16,2 zenbait Zerga Bereziri dagokie.

II.5.5. TAULA. EAE-KO FORU ALDUNDIETAKO ZERGA ITUNDUETATIK BILDUTAKOAREN AZTERKETA: URTEKO BILAKAERA ETA 2007ko EMAITZEKIKO ALDERAKETA (OINARRI-URTEA)									
	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016
ZENBATEKOA (MILAKA EURO)									
Zuzeneko zergak	6.601.180	5.392.758	5.258.435	5.644.160	5.698.787	5.793.064	5.864.350	5.958.577	6.168.926
Zeharkako zergak	6.119.330	5.298.405	6.331.514	5.726.581	5.599.729	5.845.450	6.351.443	6.538.776	6.661.099
Tasak eta bestelako zergak	113.689	100.914	110.058	110.172	109.708	113.602	103.970	115.277	120.701
DIRU-BILKETA, GUZTIRA	12.834.199	10.792.077	11.700.007	11.480.913	11.408.224	11.752.116	12.319.763	12.612.630	12.950.926
URTEKO ALD. (%)									
Zuzeneko zergak	-1,6	-18,3	-2,5	7,3	1,0	1,7	1,2	1,6	3,5
Zeharkako zergak	-11,6	-13,4	19,5	-9,6	-2,2	4,4	8,7	2,9	1,9
Tasak eta bestelako zergak	-4,0	-11,2	9,1	0,1	-0,4	3,5	-8,5	10,9	4,7
DIRU-BILKETA, GUZTIRA	-6,8	-15,9	8,4	-1,9	-0,6	3,0	4,8	2,4	2,7
(2007=100)									
Zuzeneko zergak	98,4	80,4	78,4	84,2	85,0	86,4	87,4	88,8	92,0
Zeharkako zergak	88,1	76,3	91,1	82,4	80,6	84,1	91,4	94,1	95,9
Tasak eta bestelako zergak	96,0	85,2	92,9	93,0	92,6	95,9	87,8	97,3	101,9
DIRU-BILKETA, GUZTIRA	93,2	78,4	85,0	83,4	82,8	85,3	89,5	91,6	94,0

Iturria: Ogasun eta Ekonomia Sailaren datuekin egina. EUSKO JAURLARITZA.

Sarreraren murrizpena dakarten partidei dagokienez, aurrekontuaren arabera gastu fiskala (hau da, beren zergetan eta foru aldundien ekarpenetan kontabilizatutako zergetan eragina duten onura fiskalen zenbatekoak: salbuespenak, gastu kengarriak, murrizpenak, kenkariak, hobariak, geroratzeak eta abar izan daitezkeenak) 5.540,8 milioi eurora iritsi da 2014an —urte hori baita informazio xehea daukagun azken urtea—, aurreko urtean baino % 3,1 gehiago, hau da, sarrera teorikoen % 31,5 (aurrekontuan sartutako sarrerak eta gastu fiskalak). Gastu fiskalen % 44,3 (2.285,6 milioi) araudi autonomoko zerga itunduei dagokie: PFEZ, Sozietateen gaineko Zerga eta Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko eta Dokumentatuen gaineko Zerga. Azpimarratzekoa da, halaber, 2014ko datuek zerga zuzen guztiei dagozkien gastu fiskalak murriztu direla erakusten dutela, eta BEZari dagozkionak igo direla.

II.5.6. TAULA. GASTU FISKALAK ZERGA ITUNDUENGATIK. (MILAKA EUROTAN)							
	2012	2013	2014				Ald. % 2013/14
			ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	EAE	
PFEZ	2.093.109	1.865.849	280.950	955.442	588.109	1.824.501	-2,2
Ondarearen gaineko Zerga	-	185.543	25.637	98.683	46.970	171.290	-7,7
Sozietateen gaineko Zerga	434.817	406.376	50.028	191.648	101.660	343.336	-15,5
ZUZENEKO ZERGAK, GUZTIRA	2.527.926	2.457.768	356.615	1.245.773	736.739	2.339.127	-4,8
BEZ	3.126.995	2.573.635	465.242	1.481.211	961.304	2.907.757	13,0
OEEJDZ	130.917	142.242	42.377	55.848	19.561	117.786	-17,2
Garraiobideen gaineko zerga berezia	5.694	3.099	565	1.210	2.205	3.980	28,4
Fabrikazioko zerga berezia	196.239	175.918	24.026	76.492	49.643	150.161	-14,6
Hidrokarburoen Salmenten gaineko Zerga	4.130	-	-	-	-	-	-
Aseguru-Primen gaineko Zerga	19.562	21.320	3.514	11.188	7.261	21.963	3,0
ZEHARKAKO ZERGAK, GUZTIRA	3.483.591	2.916.214	535.724	1.625.949	1.039.974	3.201.647	9,8
GUZTIRA	**6.011.517**	**5.373.982**	**892.339**	**2.871.722**	**1.776.713**	**5.540.774**	**3,1**

Iturria: ZERGA KOORDINAZIOKO ORGANOAN oinarrituta egina.

[27] *Gastu fiskalaren kontzeptuak ez du ondo argitutako eta denek onartutako definiziorik ogasunaren doktrinaren barruan. Halere, gastu fiskalen aurrekontua honela defini dezakegu: zerga sarreren murriztapenaren aurreikuspenaren zenbatekoa, politika ekonomiko eta sozialeko zenbait helburu lortzeko asmoz onura fiskalak aplikatzearen ondorioz. ELGAren definizioaren arabera, zergaren egitura "arruntaren" edozein desbiderapen dira gastu fiskalak. Arruntenak eta erabilienak zerga oinarrian egindako murriztapenak eta kuotako kenkariak dira.*

5.2. GASTUAK

Eusko Jaurlaritzaren Ogasun eta Ekonomia Sailaren "Aurrekontuen Betearazpenaren Estatistika"ren arabera, Eusko Sektore Publikoaren guztizko gastua 15.311,2 milioi eurokoa izan da (tokiko erakundeak alde batera utzita); % 0,9 hazi zen 2016an, aurreko urtean % 1,9 igo ondoren. Hala, magnitude horrek EAEko BPGd-an duen ehunekoa puntu erdi bat murriztu da, hots, % 21,9tik % 21,4ra, hain zuzen.

Gastuak bilakaera positiboa izan du, bai Eusko Jaurlaritzan (+% 2), bai foru aldundietan (+% 1,8). Ondorioz, agregatuaren aldakuntza % 0,9koa izan da; izan ere, diru partidetako batzuk erakundeen artean orekatzen dira (transferentzien zati bat, esaterako).

Euskal Sektore Publiko osoko (tokiko erakundeak kanpoan utzita) gastu kapituluetako aldakuntzarik garrantzitsuenek zenbait alde erakusten dute aurreko urteetakoekin alderatuz gero. Lehenik, pertsonal-gastuak 2015ean adinako proportzioan igo dira (+% 2), eta neurri handiagoan Jaurlaritzan (+% 2,2) Foru Aldundietan baino (+% 1,1); transferentzia arruntek, berriz, aurreko hiru ekitaldietako goranzko joerari eutsi diote, gutxiago hazi badira ere (+% 1,2 2016an). Funtzionamendu-gastuek (ondasunak eta zerbitzuak erosteari dagozkionak), aldiz, aurreko bi urteetako goranzko joerari eutsi diote, eta 2015ean baino gehiago handitu dira (% 2,9 2016an, eta % 1,1 aurreko urtean).

Inbertsio errealek, 2010etik 2015era arte proportzio handiagoan edo txikiagoan etengabe jaitsi ostean, 2016an, % 4,7ko hazkundea izan dute Gobernuan izandako bilakaerari esker (+% 10,6); izan ere, foru aldundientzat, partida honek jaisten jarraitu du (–% 2,5).

Bestalde, zorpetzearen ondoriozko gastuek behera egin zuten, finantza-pasiboen bilakaera dela medio (zorpetzearen amortizazioa), % 11,6 murriztu baitziren. Gobernuaren partidaren bilakaeragatik gertatu da datu hori (–% 16,6), Foru Aldundietan aurreko ekitaldietan ez bezala aldakuntza positiboa baita (–% 2,3). Finantza-gastuek (interesak), azkenik, % 12,9 egin dute behera eta negatiboak izan dira Gobernuarentzat nahiz aldundientzat.

II.5.7. TAULA. EUSKAL SEKTORE PUBLIKOAREN GASTUEN LIKIDAZIOA. (MILAKA EUROTAN)

	2015			2016			Ald. % 2015-16		
	EJ	Foru Aldundiak	ESP	EJ	Foru Aldundiak	ESP	EJ	Foru Aldundiak	ESP
Pertsonal-gastuak	1.929.534	348.845	2.278.380	1.972.076	352.848	2.324.924	2,2	1,1	2,0
Funtzionamendu-gastuak	3.308.819	533.855	3.842.674	3.388.325	566.908	3.955.233	2,4	6,2	2,9
Finantza-gastuak (interesak)	231.055	53.263	284.318	201.624	45.931	247.555	-12,7	-13,8	-12,9
Transferentzia arruntak	3.183.752	11.818.296	6.492.625	3.308.511	12.075.763	6.568.328	3,9	2,2	1,2
ERAGIKETA ARRUNTAK, GUZTIRA	8.653.160	12.754.260	12.897.996	8.870.537	13.041.450	13.096.041	2,5	2,3	1,5
Inbertsio errealak	206.942	171.181	378.123	228.924	166.822	395.746	10,6	-2,5	4,7
Kapital-transferentziak	542.081	210.603	752.533	581.565	164.870	744.719	7,3	-21,7	-1,0
KAPITAL-ERAGIKETAK, GUZTIRA	749.023	381.784	1.130.655	810.488	331.692	1.140.465	8,2	-13,1	0,9
Aktibo finantzarioen aldaketa	72.965	139.799	212.764	111.283	134.923	246.207	52,5	-3,5	15,7
Pasibo finantzarioen aldaketa (amortizatutako zorra)	686.326	250.403	936.729	572.331	256.186	828.517	-16,6	2,3	-11,6
FINANTZA-GASTUAK, GUZTIRA	759.291	390.202	1.149.493	683.614	391.110	1.074.723	-10,0	0,2	-6,5
GASTUA, GUZTIRA	**10.161.474**	**13.526.245**	**15.178.145**	**10.364.639**	**13.764.251**	**15.311.229**	**2,0**	**1,8**	**0,9**
% LIKIDATUTAKO GASTUA / BPGd	14,7	19,5	21,9	14,5	19,2	21,4			

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Aurrekontuaren Betearazpenari buruzko Estatistika.

Bestalde, 2017ko maiatzean eguneraturiko 2016ko "EAEko Aurrekontu Orokorren betearazpena" delakoaren arabera, behin betiko likidazioa egiteke dagoela, Jaurlaritzaren gastua % 8,8 hazi zen 2015eko ekitaldian betearazitako gastuaren aldean, aurreko urtean % 0,5 jaitsi ondoren.

Gastu-bolumena aintzat hartuta, bi sail nagusiak Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila (gastu osoaren % 26) eta Osasun Saila (% 31) izan dira 2016an ere. Lehenengoa % 0,6 hazi zen, eta bigarrena, aldiz, egonkor mantendu da 2015eko ekitaldiarekin alderatuta. 2016ko gastu osoa 11.054,2 milioi eurokoa izan da, eta kopuru hori gure erkidegoko urteko BPGd-aren gaineko % 15,4koa izan da, behin-behineko datuen arabera.

II.5.8. TAULA. EUSKO JAURLARITZAREN GASTUA, SAILKA. (MILAKA EUROTAN)

	Mila eurotan				2016 Banaketa (%) %	Aldakuntza (%)		
	2013	2014	2015	Aurrekontua 2016*		13/14	14/15	15/16
00 Legebiltzarra	27.538	27.565	28.049	28.441	0,3	0,1	1,8	1,4
01 Jaurlaritzako Lehendakaritza	95.688	102.692	68.063	77.792	0,7	7,3	-33,7	14,3
02 Herri Administrazioa eta Justizia	212.953	220.468	232.416	249.504	2,3	3,5	5,4	7,4
03 Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasuna	396.312	418.828	389.689	581.875	5,3	5,7	-7,0	49,3
04 Enplegua eta Gizarte Politikak	796.024	953.609	1.060.698	1.096.717	9,9	19,8	11,2	3,4
05 Ogasuna eta Finantzak	93.698	96.899	128.855	121.858	1,1	0,9	33,0	-5,4
06 Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura	2.630.443	2.765.248	2.855.587	2.871.470	26,0	5,1	3,3	0,6
07 Segurtasuna	582.849	608.868	572.766	632.532	5,7	4,5	-5,9	10,4
08 Osasuna	3.263.193	3.354.198	3.429.210	3.429.013	31,0	2,8	2,2	0,0
09 Ingurumen eta Lurralde Politika	594.157	653.540	408.837	672.835	6,1	10,0	-37,4	64,6
51 Lan Harremanen Kontseilua	2.165	2.325	2.367	2.390	0,0	7,4	1,8	1,0
52 Ekonomia eta Gizarte Kontseilua	1.310	1.310	1.334	1.347	0,0	0,0	1,8	1,0
53 Kooperatiben Goren Kontseilua	889	889	893	901	0,0	0,0	0,4	0,9
54 Euskal Kontu Auzitegia	7.013	7.127	7.254	7.326	0,1	1,6	1,8	1,0
55 Datuak Babesteko Euskal Agentzia	1.336	1.336	1.336	1.349	0,0	0,0	0,0	1,0
90 Zor Publikoa	442.066	815.059	911.257	1.170.218	10,6	84,4	11,8	28,4
95 Erakundeen Baliabideak eta Konpromisoak	74.922	78.849	62.868	89.779	0,8	5,2	-20,3	42,8
99 Hainbat sail	94.102	106.698	-	18.894	0,2	13,4	-	-
GUZTIRA	**9.316.657**	**10.215.506**	**10.161.474**	**11.054.241**	**100,0**	**9,6**	**-0,5**	**8,8**
BPGd bb %	14,1	15,3	14,7	15,4				

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. EAEko aurrekontu orokorren betearazpena.
**2017ko maiatzean eguneraturiko 2016ko aurrekontua, azarora arteko betearazpena kontuan izanda.*

5.3. AURREKONTU-SALDOA

II.5.2. GRAFIKOA. AURREZKI ETA SUPERABIT/DEFIZIT PUBLIKOEN BILAKAERA (FINANTZATZEKO GAITASUNA/PREMIA) EAEN. BPGD-AREN EHUNEKOAN.



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren eta EUSTATen datuekin guk geuk egina.

2016an, Euskal Sektore Publikoaren (Eusko Jaurlaritza eta Foru Aldundiak) diru-sarrera arruntak % 3,1 hazi dira; izaera bereko gastuak, aldiz, gutxiago hazi dira, hain zuzen ere, % 1,5. Hala, horrek aurrezki gordina % 33 handitzea eragin du, 917,6 milioi euroraino. Zenbateko horrek gure erkidegoko BPGd-aren % 1,3 hartzen du (behin-behineko datuak).

Gainera, 21,7 milioi euroko defizit publikoa (finantzazio premia) izan da (BPGd-aren % 0,03); izan ere, gastu ez-finantzarioek (arruntak gehi kapitalekoak) izaera bereko diru-sarrerak gainditzen dituzte. Aurreko ekitaldian, defizita 293,1 milioi eurokoa izan zen; beraz, % 92,6ko murriztapena egon da.

II.5.9. TAULA. EAEko SEKTORE PUBLIKOA: AURREKONTUKO MUNTA KONTSOLIDATUAK. (MILAKA EUROTAN)					
	2014	2015	2016	% 2014/15	% 2015/16
1.- DIRU-SARRERA ARRUNTAK	13.384.650	13.587.712	14.013.669	1,5	3,1
2.- GASTU ARRUNTAK	12.607.480	12.897.996	13.096.041	2,3	1,5
2.1.- LANGILEEN GASTUAK	2.233.966	2.278.380	2.324.924	2,0	2,0
2.2.- FUNTZIONAMENDU-GASTUAK	3.799.599	3.842.674	3.955.233	1,1	2,9
2.3. - FINANTZA-GASTUAK	326.097	284.318	247.555	-12,8	-12,9
2.4.- TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	6.247.818	6.492.625	6.568.328	3,9	1,2
3.- AURREZKI GORDINA (1-2)	777.170	689.715	917.628	-11,3	33,0
4.- KAPITAL-SARRERAK	348.364	147.787	201.125	-57,6	36,1
5.- KAPITAL-GASTUAK	1.323.918	1.130.655	1.140.465	-14,6	0,9
5.1.- INBERTSIO ERREALAK	520.583	378.123	395.746	-27,4	4,7
5.2.- KAPITAL-TRANSFERENTZIAK	803.335	752.533	744.719	-6,3	-1,0
6 . - FINANTZAZIO-GAITASUNA (+) / PREMIA (-) (3+4-5)	-198.383	-293.153	-21.711	-	-92,6
7.- FINANTZA-AKTIBOEN ALDAKUNTZA GARBIA	-183.377	-157.361	-127.268	-	-
7.1.- FINANTZA-AKTIBOEN ALDAKUNTZA. DIRU-SARRERAK	38.036	55.403	118.939	45,7	114,7
7.2.- FINANTZA-AKTIBOEN ALDAKUNTZA. GASTUAK	221.413	212.764	246.207	-3,9	15,7
8.- FINANTZA-PASIBOEN ALDAKUNTZA GARBIA	663.763	492.189	488.013	-25,8	-0,8
8.1.- FINANTZA-AKTIBOEN ALDAKUNTZA. DIRU-SARRERAK	1.402.867	1.428.918	1.316.530	1,9	-7,9
8.2.- FINANTZA-AKTIBOEN ALDAKUNTZA. GASTUAK	739.104	936.729	828.517	26,7	-11,6
9.- AURREKONTUKO SUPERABITA / DEFIZITA (6+7+8)	282.002	41.675	339.034	-85,2	713,5
9.1.- ORDAINTZEKE DAUDEN OBLIGAZIOAK	1.094.770	934.111	1.041.907	-14,7	11,5
9.2.- KOBRATZEKE DAUDEN ESKUBIDEAK	1.333.346	1.013.943	1.187.271	-24,0	17,1
10.- AURREKONTUKO SUPERABITA / DEFIZITA, KUTXA IKUSPUNTUTIK	43.426	-38.157	193.670	-	-

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Aurrekontuaren betearazpenari buruzko estatistika.

Finantza-aldagaia kontuan hartuta, eta batez ere zorpetzeari esker, 2016ko defizita aurrekontu superabit bilakatu da (339 milioi euro, BPGd-aren % 0,5), aurreko ekitaldiko 41,6 milioi euroak baino askoz gehiago (+% 713,5).

5.4.SEKTORE PUBLIKOAREN ZORPETZEA

2016ko Aurrekontu-betearazpeneko Estatistikak adierazten du, lehenik eta behin, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publiko (Eusko Jaurlaritza eta foru aldundiak) osoaren zorpetze gordina hirugarren urtez segidan murriztu egin dela, % 0,8 oraingoan (–% 37,8 2014an eta –% 25,8 2015ean), aurreko ekitaldietako hazkundeen ostean.

Horrez gain, zorpetze gordinak % 7,9ko jaitsiera izan du 2016an, eta 1.316,5 milioi euroraino heldu da. Horietatik, 1.106 milioi euro Eusko Jaurlaritzari dagozkio (–% 4,9, 2015. urtearekin alderatuta) eta gainerako 210,5 milioi euroak foru aldundiei (–% 20,8).

Arestian azaldutakoaren emaitza gisa, Eusko Jaurlaritzak eta foru aldundiek 11.155,6 milioi euroko zor-bolumena dute, 2015eko ekitaldian baino % 4,6 gehiago (kopuru hori BPGd-aren % 15,6 da, behin-behineko datuen arabera; 2015eko ekitaldian, berriz, % 15,4koa izan zen). Hala, beste urtebetez, zorrik handiena Eusko Jaurlaritzak dauka (guztizko zorraren % 81,7; aurreko urtean, % 80,4).

Azkenik, adierazi nahi dugu 2016rako hasieran aurreikusitako diru-bilketaren jaitsierak bere zorpetzea handitzera behartu duela Eusko Jaurlaritza, aurrekontuetan zehaztutako gastuei aurre egiteko; 268 milioi euroraino zorpetu daiteke gehienez ere (BPGd-aren % 0,7ko gehienezko defizita 2016rako; % 0,3koa zegoen aurreikusita).

II.5.10. TAULA. EUSKO JAURLARITZAREN ETA FORU ALDUNDIEN ZORPETZEAREN BILAKAERA. (MILAKA EUROTAN)							
	Zorpetze gordina		Amortizazioa	Zorpetze garbia		Zor bizia urte amaieran	
	(1)	Aldakuntza (%)	(2)	(1) -(2) = (3)	Aldakuntza (%)	Guztira	Aldakuntza (%)
EUSKO JAURLARITZA							
2013	1.175.253	8,4	199.928	975.325	7,2	7.441.956	15,1
2014	1.139.367	-3,1	479.805	659.562	-32,4	8.101.518	8,9
2015	1.163.018	2,1	686.326	476.692	-27,7	8.578.210	5,9
2016	1.106.042	-4,9	572.331	533.711	12,0	9.111.921	6,2
FORU ALDUNDIAK							
2013	336.340	-3,5	244.057	92.283	-18,4	2.059.740	4,7
2014	263.500	-21,7	259.299	-31.799	-134,5	2.027.941	-1,5
2015	265.900	0,9	250.403	15.497	-148,7	2.043.438	0,8
2016	210.488	-20,8	256.186	-45.698	-394,9	1.997.740	-2,2
EUSKAL SEKTORE PUBLIKOA, GUZTIRA							
2013	1.511.593	5,5	443.985	1.067.608	4,4	9.511.696	12,6
2014	1.402.867	-7,2	739.104	663.763	-37,8	10.175.459	7,0
2015	1.428.918	1,9	936.729	492.189	-25,8	10.667.648	4,8
2016	1.316.530	-7,9	828.517	488.013	-0,8	11.155.661	4,6

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Aurrekontuaren betearazpenari buruzko estatistika. Guk geuk egin dugu.

Beste alde batetik, EUSTAT erakundearen "Sektore Publikoaren Aurrekontu Estatistika" delakoari esker (eskuragarri dugun azken informazioa 2014koa da), foru-aldundien eta udal guztien zorpetzea zenbatekoa den jakin dezakegu, bai eta EAEko Administrazio osoaren (gobernua + aldundiak + udalak) zorpetzearen zenbatekoa.

Foru aldundiei dagokienez, 2014an 263,5 milioi euroko zorra jaulki zuten (aurreko ekitaldian baino % 28,5 gutxiago). Horien artetik 59,8 milioi Arabako Foru Aldundiari zegozkion, 56,1 Gipuzkoakoari eta gainontzeko 147,6ak Bizkaikoari. Horrez gain, 284,5 milioi euroko balioarekin amortizatu zuten, aurreko ekitaldian baino % 19 gehiago. Amortizatutako kopurutik 35,1 milioi Bizkaiko Foru Aldundiari dagozkio, 107,2 Gipuzkoakoari eta gainerako 142,3 Arabako Foru Aldundiari. Aldundien zorraren saldo bizia, oro har, % 1 murriztu zen aurreko urtekoaren aldean, eta BPGd-arekiko haren loturak ere hala egin zuen: 2013an % 3,3 izan zen eta 2014an % 3,2.

EAEko udalei dagokienez, arestian aipatutako estatistikan oinarri harturik, badakigu 2014an 16,3 milioi euroko zorra jaulki zutela, eta 75,9 milioi euro amortizatu zutela. Beraz, ekitaldiaren amaieran, ordaindu gabeko zorra 60 milioi euro gutxitu zen eta 550,1 milioi eurokoa izan zen. Beste alde batetik, guztira hartuta, EAEko administrazio publiko guztiek (Jaurlaritzak, foru-aldundiek eta udalek), 2014an, 10.469,4 milioi euroko zor bizia izan zuten urtearen amaieran (hau da, 2013an baino % 5,9 gehiago). Zenbateko hori urte horretako BPGd-aren % 15,6koa izan zen (2013an, aldiz, % 15ekoa izan zen).

II.5.3. GRAFIKOA. EAEko ADMINISTRAZIOEN ZOR FINANTZARIOA. (MILAKA EUROTAN)



Iturria: EUSTAT. Sektore Publikoaren Aurrekontu Estatistika.

Zorraren % 74 Eusko Jaurlaritzari zegokion, % 11,3 Bizkaiko Foru Aldundiari, % 4,7 Gipuzkoakoari, eta kopuru bera Arabakoari. Gainerakoa, 550,1 milioi euro, hain zuzen, EAEko udaletako finantza-zorrari zegozkion, eta EAEko administrazioen zor osoaren % 5,3 zen (2013an % 6,2).

5.5 TRANSFERENTZIA INSTITUZIONALAK

EAEk bere jarduera finantzatzeko sistema berezia dauka. Zergarik gehienak biltzeko gaitasuna du. Kupoa deritzonaren bidez EAEk jaso ez dituen eskumenetan, estatuaren gastuak ordaintzen laguntzen du. EAEren eskumenen banaketaren barruan, zerga-bilketa lurralde historiko bakoitzeko Foru Aldundiek egiten dute batez ere. Eusko Jaurlaritzaren finantzazioan laguntzen dute, ekarpenen bidez. Udalek ere zerga-bilketa egiten dute.

EAEko administrazio publikoek jasotzen dituzten baliabide propioez gain, Europar Batasunak eta estatuak zenbait funts ematen diete, hainbat arrazoirengatik: BEZaren bidez eta zerga berezien bidez bildutako dirua egokitzeko, Foru Aldundiek eta Udalek zerga ez itunduetan duten partaidetzagatik, Kirol eta Ongintzako Elkarrekiko Apustuetatik eta Loteria eta Apustuen Organismo Nazionaletik bildutako diruaren partaidetzagatik, eta estatu administrazioak eta erakunde autonomoek egiten dituzten finantzazio hitzarmen eta akordioen ondorioz.

II.5.11. TAULA. FORU ALDUNDIEK EAEKO ERAKUNDE KOMUNEI EGITEN DIZKIETEN EKARPENEN BILAKAERA (MILAKA EUROTAN)

KONTZEPTUA	2011	2012	2013	2014	2015	2016	14-15 ald. %	15-16 ald. %
EKARPEN OROKORRA	7.314.810	7.447.837	7.428.008	7.845.378	7.987.883	8.224.923	1,8	3,0
EKARPEN BEREZIAK	600.619	864.106	392.825	416.055	451.723	509.580	8,6	12,8
EAE, GUZTIRA	**7.915.428**	**8.311.943**	**7.820.933**	**8.261.433**	**8.439.606**	**8.734.503**	**2,2**	**3,5**
ARABAREN EKARPENAK	1.328.209	1.380.614	1.269.337	1.321.829	1.386.627	1.430.712	4,9	3,2
BIZKAIAREN EKARPENAK	3.975.128	4.195.869	3.969.124	4.208.374	4.265.377	4.423.152	1,4	3,7
GIPUZKOAREN EKARPENAK	2.612.091	2.735.460	2.582.472	2.731.230	2.787.602	2.880.639	2,1	3,3
ARABA %	16,78	16,61	16,23	16,00	16,43	16,38		
BIZKAIA %	50,22	50,48	50,75	50,94	50,54	50,64		
GIPUZKOA %	33,00	32,91	33,02	33,06	33,03	32,98		

Iturria: Kupoaren eta Finantza-Ekarpenen Zuzendaritzan oinarrituta egina. Ogasun eta Ekonomia Saila. EUSKO JAURLARITZA.

Lehenik eta behin, Foru Aldundiek Eusko Jaurlaritzari egiten dizkioten ekarpenak aipatu behar ditugu, bolumen handia baitute. Baliabideak banatzeko metodologia Ekarpenen Legean jasota dago. Hamabost egunean behin Foru Aldundiek biltzen dituzten zerga itunduetatik zein zati transferitu behar dioten Aldundiek Eusko Jaurlaritzari erabakitzen du legeak, gastu komunak ordaintzeko ekarpen gisa (horrela, Eusko Jaurlaritzak jasotzen dituen diru-sarreren % 90 baino gehiago ekarpen horietatik datoz).

2016an, ekarpen horiek 8.734,5 milioi eurokoak izan dira, 2015ean baino % 3,5 gehiago (urte hartan % 2,2 handitu ziren).

2007-2011 aldiko berrikuntza legez, Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak hainbat aldaketa erabaki zituen baliabideak banatzeko eta aldundien ekarpenak zehazteko. Aldaketa horien artean, besteak beste, ondoko hauek nabarmendu behar ditugu: koefiziente bertikala % 70,44tik % 70,04ra jaitsi zen, toki erakundeen partaidetza areagotzeko; Foru Aldundien artean BEZagatik biltzen duten diruan doikuntza berria egin zen; eta Doikuntzako Funts Orokorra sortu zen (lehen Elkartasun Funtsa zena), lurralde historikoentzako berme mekanismo gisa; EAEko erakundeen artean banatu beharreko baliabideetan lurralde historikoen zenbatekoa % 0,75 izatetik % 1 izatera igaro zen.

Bestalde, Europar Batasunaren funtsetatik datozen diru-laguntzak Europar Batasunak hartutako aurrekontu konpromisoen arabera gauzatzen dira. Diru-laguntza horien forma aurrerakinena edo behin betiko ordainketena izan daiteke, kasu bakoitzean araututa dagoenaren arabera.

2014an (informazioa duen azken urtea) % 11,7 handitu dira, aurreko ekitaldian % 42ko hazkundea izan ondoren, Horrenbestez, 137,7 milioi eurokoak izan ziren.

[28] *2/2007 Legea, martxoaren 23koa, Baliabideen banaketarako eta foru-aldundiek Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontuak finantzatzekoak egin beharreko ekarpenak zehazteko 2007-2011 aldian aplikatuko den metodologiari buruzkoa. Oraindik ere indarrean dago, ez baitu geroagoko beste batek ordeztu.*

II.5.12. TAULA. EUSKO JAURLARITZAK LIKIDATUTAKO DIRU-SARRERAK, JATORRIAREN ARABERA SAILKATUTA. (MILAKA EUROTAN)						
	2012	2013	2014	Banakeita % 2014	12-13 ald. %	13-14 ald. %
1. FORU ALDUNDIEN EKARPENAK	8.311.943	7.820.933	8.261.433	81,7	-5,9	5,6
. Ekarpen orokorra	7.447.837	7.428.008	7.845.378	77,6	-0,3	5,6
. Ekarpen bereziak	864.106	392.925	416.055	4,1	-54,5	5,9
2. ERAKUNDEEN BESTE DIRU-SARRERA BATZUK	476.222	494.634	390.451	3,9	3,9	-21,1
. EAEko erakundeen transferentziak	7.469	5.091	361	0,0	-31,8	-92,9
. Estatuaren transferentziak	381.967	366.280	252.402	2,5	-4,1	-31,1
. Europar Batasunaren funtsak	86.786	123.263	137.688	1,4	42,0	11,7
- EGIF	7.798	4.637	4.388	0,0	-40,5	-5,4
- EGEF	238	37.395	61.235	0,6	15.612,2	63,8
- NBBEF- Orientazioa	38	-	-	-	-	-
- LGENF	12.899	17.661	10.574	0,1	36,9	-40,1
- NBEUF	51.689	52.392	55.164	0,5	1,4	5,3
- ABFT	8.715	7.244	5.740	0,1	-16,9	-20,8
- Kohesio funtsa	3.481	-	-	-	-	-
- Beste funts batzuk	1.928	3.934	586	0,0	104,0	-85,1
3. BESTE BALIABIDE BATZUK	1.561.701	1.493.702	1.455.646	14,4	-4,4	-2,5
- Zor Publikoa	1.084.420	1.175.253	1.139.367	11,3	8,4	-3,1
- Zeharkako zergak	2.476	6.079	5.700	0,1	145,5	-6,2
- Ondare-sarrerak	165.032	48.005	48.139	0,5	-70,9	0,3
- Inbertsio errealen besterentzeak	71.952	16	1.966	0,0	-100,0	12.187,5
- Beste transferentzia batzuk	7.221	5.160	10.980	0,1	-28,5	112,8
- Finantza-aktiboen aldakuntza	48.738	63.531	36.122	0,4	30,4	-43,1
- Tasak eta prezio publikoak	181.861	195.659	213.372	2,1	7,6	9,1
DIRU-SARRERAK, GUZTIRA	10.349.866	9.809.269	10.107.529	100,0	-5,2	3,0

Iturria: ZERGAK KOORDINATZEKO ORGANOA

Partida nagusia EGEFena da (Eskualde Garapeneko Europako Funtsa, Batasuneko eskualdeen arteko desorekak zuzentzeko helburuarekin sortua); haren bidez, 2014an 61,23 milioi euro jaso ziren, urte hartan jasotako Europako funtsen % 44,5. Bigarren partida handiena, NBEUFena da (Nekazaritza Bermatzeko Europako Funtsa, LGENFrekin batera 2007an sortua, nekazaritzarako Europako diru-laguntzak kudeatzeko); haren bidez, 55,16 milioi euro jaso ziren, guztizkoaren % 40,1.

Beste partida interesgarri bat estatuarentzako kupoa da. Kupoaren zenbateko likidoa, Kupoaren Bost Urteko Legearen bidez urtero zehazten dena, 2016. urtean (behin-behineko likidazioen arabera) 701,4 milioi eurokoa da. 2015. urtearen aldean % 7,5 murriztu da.

II.5.13. TAULA. EAEk ESTATUARI ORDAINDUTAKO KUPOAREN BILAKAERA. (MILAKA EUROTAN)					
	2013	2014	2015	2016	15-16 ald. %
SARTUTAKO KUPOA	879.347	750.790	823.780	761.814	-7,5
KONPENTSAZIOAK*	-97.541	-69.041	-65.404	-60.399	-7,7
ORDAINDUTAKO KUPOA	781.807	681.748	758.076	701.416	-7,5

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Ogasun eta Ekonomia Saila.
(*) Fabrikazioaren gaineko zerga berezien konpentsazio finantzarioak.

Amaitzeko, Estatuari egiten zaizkion ordainketa horiek ez ezik, zenbait zenbateko ere jasotzen dira; horietatik nabarmenena Balio Erantsiaren gaineko Zergaren doikuntza da, barne merkatuan eta inportazioetan (azken hori Estatuko Ogasunak soilik egiten du) egindako eragiketengatik. Doikuntza hori Estatuko administrazioen eta EAEko administrazioaren arteko finantza-doikuntza da, zerga administrazioen artean zerga-bilketa teorikoak eta errealak egokitu beharra dagoelako, zerga administrazio horiek beren lurraldean jarduten baitute muga fiskalik gabeko espazio batean.

Doikuntza horiei, zerga bereziei dagozkienak erantsi zitzaizkien 1997. urtean. Zerga berezi horiek kargatzen zaizkien produktuen behin-betiko kontsumoa produktua fabrikatu den lurraldetik kanpo egitean gertatzen den distortsioa zuzentzeko beharrezkoak dira.

2014. urtean, informazioa dugun azken urtean, BEZagatiko doikuntza EAEn 1.236,27 milioi eurora iritsi zen. Kopuru hori aurreko urtekoarekin erkatuta % 8,5 handitu zen. Diru partida horren barnean, aduanetan bildutakoagatiko doikuntza guztizkoaren %56,8 da, eta gainerako %43,2a barneko operazioei dagokie. Lurralde-banaketa urtero egiten da, koefiziente horizontalen arabera.

II.5.4. GRAFIKOA. BEZagatiko DOIKUNTZAREN BILAKAERA LURRALDEKA. (MILAKA EUROTAN)



Iturria:Eusko Jaurlaritza. Zergak Koordinatzeko Organoa.

ITURRIAK:

1. **EUSKO JAURLARITZA.** Aurrekontuaren Betearazpenari buruzko Estatistika. 2016ko IV. Hiruhilekoa. Hiruhilekoa. Koiunturala
2. **EUSKO JAURLARITZA.** Zerga itunduengatiko bilketaren zenbatekoak. 2016ko abendua. Hilerokoa. Koiunturala.
3. **OGASUN ETA ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN MINISTERIOA.** Erkidego autonomoen defizitaren zenbatekoak. 2016ko IV. Hiruhilekoa. Hiruhilekoa. Koiunturala.
4. **EUSKO JAURLARITZA.** Zergak Koordinatzeko Organoa. Euskal Ogasunaren Urteroko Txosten Integratua, 2014. Urtekoa. Egiturazkoa.
5. **EUSTAT.** Sektore Publikoaren Aurrekontu Estatistika. 2014. Urtekoa. Egiturazkoa.
6. **EUSKO JAURLARITZA.** Ogasun eta Ekonomia Saila. Kupoari eta Foru Aldundien Ekarpenei buruzko Datuak. 2016. Urtekoa. Koiunturala.

6. PRODUKZIOAREN AZPIEGITURAK

Azpiegitura fisikoak oinarrizko elementua dira garapen ekonomikoa, ongizate orokorra eta edozein gizarteren kohesioa posible izan daitezen, eta herrialde baten ekonomia orokorraren jardunaren gainean eragin garrantzitsua dute. Zehazki, produktibitatea eta hazkundea areagotzen laguntzen dute.

Kapitulua bi bloke handitan dago banatuta. Lehenbizikoa garraioari buruzkoa eta bigarrena energiaren ekoizpenaren eta kontsumoaren gainekoa. Garraioaren atalari dagokionez, lehenik eta behin, Estatuko erakunde publikoek (AENA, ADIF, PORTUAK eta RENFE) ingeniaritza zibilean EAEn eginiko esleipenei buruzko datuak aztertuko dira eta, ondoren, errepideko garraioaren, trenbideko garraioaren (horren barnean euskal Y-a), airetiko garraioaren eta itsasoko garraioaren gaineko hainbat adierazle aurkeztuko dira. Energiaren ekoizpenari eta kontsumoari buruzko atalean, barne kontsumo gordina edo energiaren eta azken kontsumoaren eskariaren bilakaera aztertuko da, baita energia primarioaren ekoizpenarena, energia intentsitatearena eta energiaren fakturarena ere.

6.1. GARRAIOA: AZPIEGITURAK ETA TRAFIKOA

6.1.1. Azpiegiturak

Egoera estrategikoagatik nahiz industria jarduera handiagatik, EAE mota guztietako trafikoen maila handienetakoa ageri duen Europako zona bat da. Errepide sare trinkoa, trenbideak, bi itsas portu handi eta hiru aireportu dira barruko trafikoan nahiz kanpokoan ageri diren beharrak estaltzen saiatzen direnak, egunetik egunera osatuagoak eta kalitate handiagokoak diren zerbitzu batzuk eskainita. Ondoko taulan, gure Erkidegoko Garraio Sistemaren osaera ageri da, azpiegituraren titulartasuna eta operadorea kontuan izanik betiere.

II.6.1. TAULA. EAE-KO GARRAIO SISTEMAREN ERAKETA

SISTEMA	AZPIEGITURA	ORGANO TITULARRA	ERAKUNDEA/OPERADOREA
Bideria sistema	Errepideen Sare Nagusia	Foru aldundiak	Garraioaren zerbitzu publikoaren emakidaduna/hura ematen duena.
	Hiri sarea	Udalak	
	A-68 autobidea	Estatua	
Trenbide sistema	Europaz gaindiko sarea Penintsulako sarea	Estatua	ADIF[29] (RENFE)
	Sare metrikoa	EAE	EUSKOTren ETS[30]
		Estatua	ADIF (FEVE**)
	Metroa/Tranbia	EAE	Metro Bilbao, EUSKOTren ETS
	Zubi esekia	Bilboko Portuko Agintaritza	Pribatua
Portuen sistema	Interes orokorreko portuak	Estatua	Portuko Agintaritza
	Portu autonomoak	EAE	EAE
Airetiko sistema	Interes orokorreko aireportuak	Estatua	AENA
Kable sistema	Igogailuak eta funikularrak	EAE	Pribatuak Publikoak
Garraio intermodaleko sistema	Garraio eta logistika zentroak	Partzuergoak/Erakunde publikoak, pribatuak, mistoak	Operadore logistikoak

Bide estuko trenbide sarea.
Iturria: Geuk egina.

[29] *ADIF, Trenbide Azpiegituren Administratzailea, Sustapen Ministerioaren menpeko enpresa-erakunde publikoa da. Trenbide azpiegituren administrazioa (trenbideak, geltokiak, salgaien terminalak, etab.), trenen zirkulazioaren kudeaketa, tren operadoreen ahalmenaren esleipena eta azpiegitura, geltokiak eta salgai terminalak erabiltzeagatiko kanonak hartzen ditu bere gain.*

Trenbide jardueren gero eta espezializazio handiagoa dela eta, Sustapen Ministerioari atxikitako bi enpresa-erakunde publikotan banatu da ADIF: ADIF eta ADIF Abiadura Handia. Bere nortasun juridikoarekin eta ondarearekin sortu da eta, besteak beste, abiadura handiko trenbide azpiegituren eraikuntzaren eta administrazioaren arloko eskumenak hartzen ditu bere gain.

[30] *ETS, Euskal Trenbide Sarea/Red Ferroviaria Vasca EAEren eskumeneko trenbide azpiegituren administrazioaz arduratzen den Eusko Jaurlaritzaren erakunde publikoa da. Haren xede nagusia Euskal Autonomia Erkidegoaren menpeko trenbide azpiegiturak eraikitzea, artatzea, kudeatzea eta administratzea da, trena garraio sistema modernoa, eraginkorra eta iraunkorra izan dadin.*

Estatuko Erakunde Publikoek (AENA, ADIF, PORTUAK eta RENFE) ingeniaritza zibilean EAEn eginiko esleipenei buruzko datuek erakusten dutenez, jaitsierak ageri dira 2015 eta 2016 bitartean, PORTUETAN izan ezik.

Horrela, Sustapen Ministerioaren datuen arabera, ADIF Estatuko Sozietate Publikoak (trenbide-azpiegituren administratzailea) ingeniaritza zibilean EAEn egindako inbertsioak jaitsi ziren, 292 milioi eurotik 73,4 milioi eurora (EAEko abiadura handiko trenbideari dagozkion gainegituraren obra guztiak ADIF erakundeak gauzatuko ditu); bestetik, RENFE erakundeak egindako inbertsioak 3,1 milioi eurotik 1,55 milioi eurora jaitsi dira; AENA erakundearenak 8,3 milioi eurotik 4,4 milioira igo ziren eta, azkenik, PORTUAK erakundearenak 11,1 milioi eurotik 114,7 milioira igo ziren.

II.6.2. TAULA. SUSTAPEN MINISTERIOAREN, ERAKUNDE AUTONOMOEN ETA ESTATUKO ERAKUNDE PUBLIKOEN INGENIARITZAKO ESLEIPENAK ESTATUAN ETA EAE-N (*mila euro*)

	EAE						ESTATUA			EAE/Estatua (%)	
	2012	2013	2014	2015	2016 bb	2015-16 ald.	2014	2015	2016 bb	2015	2016 bb
Ministerioa, Erakunde autonomoak eta Estatuko erakunde publikoak	113.257	18.569	81.062	300.302	189.105	-37,0	1.788.558	1.518.067	1.042.641	19,8	18,1
Estatuko erakunde publikoak	113.257	18.569	81.062	300.302	189.105	-37,0	1.392.241	1.142.322	972.799	26,3	19,4
AENA	1.190	1.111	1.437	8.339	4.363	-47,7	65.456	136.469	300.834	6,1	1,5
ADIF	21.300	1.162	69.030	292.211	73.388	-74,9	1.083.288	885.456	398.983	33,0	18,4
PORTUAK	78.444	20.092	9.854	11.093	114.661	933,6	296.022	256.911	272.146	4,3	42,1
RENFE ERAKUNDEA	54	73	4.986	3.100	1.548	-50,1	32.815	42.175	13.821	7,4	11,2

bb: Behin-behinekoa
Iturria: Geuk egina Sustapen Ministerioaren datuak erabiliz

a) Errepide sarea

Sustapen Ministerioak 2016an argitaraturiko *2015eko Estatistika Urtekariaren* arabera, gure Erkidegoko errepide sarea Europako sarerik trinkoenetakoa da, azalerako dentsitaterik handienetakoa baitu (0,58 km errepide km^2-ko, Estatuaren ia bikoitza hain zuzen ere (0,33), baina dentsitate txikiagoa du biztanleko (1,91 Km errepide 1.000 biztanleko, Estatuko 3,5 km errepide 1.000 biztanleko dentsitatearen aldean) eta %14,8 edukiera handiko errepideak dira. Edukiera handiko errepideen %41,3 bidesaria duten autobideak dira, %17,3 estatuan.

II.6.3. TAULA. ERREPIDE SAREA, MOTA ETA ALDIAREN ARABERA. (Km)

	2011	2012	2013	2014	2015
ESTATUA					
Errepideen km guztira	165.885	165.595	165.361	165.639	166.003
Edukiera handiko bideak guztira	16.182	16.335	16.582	16.705	17.021
Bidesaridun autobideak	3.022	3.025	3.026	3.020	3.040
Autobiak	11.509	11.676	11.955	12.029	12.296
Errei askoko errepideak (1)	1.651	1.634	1.602	1.656	1.686
EAE					
Errepideen km guztira	4.190	4.185	4.175	4.169	4.178
Edukiera handiko bideak guztira	598	602	600	602	617
Bidesaridun autobideak	247	248	248	243	255
Autobiak	282	284	285	231	234
Errei askoko errepideak (1)	69	70	68	127	128

(1) 2015etik hasita, galtzada bikoitzeko errepidearen definizioa aldatu eta errei askoko errepideak deitzen dira (Errepideei buruzko irailaren 29ko 37/2015 Legea). Edukiera handiko bideen barruan sartzen dira. Nazioarteko konparazioari begira, halakotzat hartzen dira bidesaridun autobideak, autobide libreak eta autobiak.
Iturria: Sustapeneko 2015eko Estatistika Urtekaria, 2016an argitaratua.

II.6.4. TAULA. ERREPIDE SAREAREN INDIZEEN BILAKAERA							
	EAE					ESTATUA	
	2011	2012	2013	2014	2015	2014	2015
Errepide Km-ak	4.190	4.185	4.175	4.169	4.178	165.639	166.003
Biztanleak	2.184.606	2.193.093	2.191.682	2.188.985	2.189.257	46.771.341	46.624.382
Sare osoa (km) / azalera	0,58	0,58	0,58	0,58	0,58	0,33	0,33
Sare osoa (km) / 1.000 biztanle	1,92	1,91	1,90	1,90	1,91	3,54	3,56

Iturria: Sustapeneko 2015eko Estatistika Urtekaria, 2016an argitaratua

b) Bilboko portuko inbertsioak

Bilboko Portuak intermodalitatearen aldeko apustua egiten du, eta trenbideko eta errepideko lotune-maila eraginkorra du, etengabe garatzen dena. Izan ere, Bilbo da trena bere instalazioetan salgaiak sartzeko edo ateratzeko gehien erabiltzen duen portua. Tren ugari, egunero-egunero, sartzen edo irteten dira Bilboko salgaien geltokitik, honako jomuga hauek izanda: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla, Castelló, Burgos, Zaragoza eta Jundiz (Gasteiz). Horrez gain, portuko instalazioetan bertan, TECO terminala du (edukiontziak garraiatzeko tresna), baita tren geltoki bat ere.

Dagoeneko abiarazita dagoen bide-azpiegiturak garatzeko plan handizale batek areagotu egingo ditu baliabideak, salgaiak Bilboko Portuan mugitzeko. Proiektuen artean, nabarmentzekoa da Bilbo metropoliko ingurabide berria, portuarekiko lotura zuzena duena, baita salgaietarako trenbide berria Seranteseko tuneletik eta euskal Y-a ere.

Bilboko Portuko Agintaritzaren arabera, hona hemen 2016. urtean martxan edo bukatuta dauden proiektuak:

- Erdiko murruaren lehen fasea egitea eta Punta Luceroko antzinako harrobia egonkortzea. Bi proiektu horiek ekainean esleitu ziren kontratu bakarrean, baina obra desberdinak dira. Horretarako egin beharreko inbertsioa 79 milioi euro da. Europako Batzordeak finantzatu du proiektuaren %20 Connecting Europe Facility (CEF) programaren eremuan. Guztira 39 hilabeteko epea dago obra burutzeko.

- Punta Sollanako dikea luzatzea solido eta likido solteen trafikorako. Obrak 2012. urtean hasi eta dagoeneko bukatuta daude. 41,2 milioi euroko inbertsioa izan zen, eta EBren baterako finantzazioa izan zuen “Bilboko portuko ingurumenaren errendimendua hobetzea eta eragiketa eraginkorrak” proiektuaren baitan (TEN-T 2012 deialdia).

- Pancorboko trenbide logistika terminala urbanizatzeko lehen fasea. 4,5 milioi euroko aurrekontua du.

- Arasurreko trenbide-bazterbidea. Eusko Jaurlaritzak eta Arabako Foru Aldundiak batera eginiko inbertsioa 5,3 milioi euro da, eta lanak 2017ko amaieran bukatuko dira.

- Getxoko kruzeroen kai berriko itsas geltokia eta itsasoratzeko pasagune mugikorra. 5,6 milioi euroko inbertsioa du, eta lanak 2017an bukatuko dira.

- AZ2 eta AZ3 kaietako zabaldegien arteko gelaxka betetzea. Lanak dagoeneko bukatuta daude, eta guztira 1,5 milioi euroko inbertsioa izan dute.

6.1.2. LUR, TRENBIDE, AIRE ETA ITSASOKO TRAFIKOA

a) Errepideko garraioa

Sustapen Ministerioaren arabera, jomuga edo jatorria EAEn duten errepideko salgaien trafikoa (nazioarteko igarotze-trafikoa alde batera utzita), hainbat urtez jarraian beherakadak izan ondoren, hazi egin zen 2014an, eta berriro ere jaitsi zen 2015ean; 2016an, berriz, hazkundea berreskuratu du (91 milioi Tm-tik 91,7 milioi Tm-ra). Hazkunde hori gertatu da nazioarteko eta eskualde barruko desplazamenduetan garraiaturiko salgaietan izandako igoeragatik (%17,4 eta %3,3 hurrenez hurren), zeren eta eskualde arteko desplazamenduan behera egin baitu trafikoak (-%3,7).

II.6.5. TAULA. GARRAIATURIKO TONAK, BIDAIA MOTAREN ARABERA, EAE-N JATORRIA EDO JOMUGA DUTENAK (mila Tm)

		2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2015-16 ald.
GUZTIRA		**110.243**	**101.826**	**88.505**	**84.376**	**94.875**	**91.024**	**91.691**	**0,7**
ESKUALDE BARNEKOA	**GUZTIRA**	**57.302**	**51.928**	**42.076**	**40.922**	**50.203**	**41.109**	**42.464**	**3,3**
	ESKUALDE BARNEK.	13.934	11.427	8.669	8.395	9.033	8.528	7.229	-15,2
	ESKUALDE ARTEK.	43.368	40.501	33.406	32.527	41.170	32.581	35.235	8,1
ESKUALDE ARTEKOA	**GUZTIRA**	**48.033**	**45.103**	**41.606**	**38.799**	**39.321**	**44.396**	**42.751**	**-3,7**
	JASOA	25.391	22.039	22.301	19.818	20.204	23.674	22.219	-6,1
	BIDALIA	22.642	23.064	19.305	18.981	19.117	20.722	20.532	-0,9
NAZIOARTEKOA	**GUZTIRA**	**4.908**	**4.796**	**4.823**	**4.655**	**5.352**	**5.519**	**6.477**	**17,4**
	JASOTA	2.769	2.494	2.308	2.092	2.729	2.755	3.405	23,6
	BIDALIA	2.139	2.301	2.514	2.563	2.622	2.764	3.071	11,1

Iturria: Sustapen Ministerioa. Datu-basea

Eskualde arteko trafikoari dagokionez, truke kopururik handiena alboko Gaztela eta Leon, Nafarroa eta Kantabria erkidegoetan egiten da.

II.6.6. TAULA. ERREPIDEKO MERKANTZIEN JOMUA ETA JATORRIA EUSKAL AUTONOMIEN ARABERA. (milaka tona)

	2014		2015	
	Jomuga EAE	Jatorria EAE	Jomuga EAE	Jatorria EAE
ANDALUZIA	390	473	486	409
ARAGOI	1.467	1.555	1.542	1.516
ASTURIAS	1.012	1.003	807	562
BALEAREAK	-	-	-	-
U. KANARIARRAK	-	-	-	-
KANTABRIA	2.570	2.176	4.229	2.038
GAZTELA-MANTXA	627	523	814	768
GAZTELA ETA LEON	4.451	4.074	4.964	4.138
KATALUNIA	1.653	1.305	1.749	1.738
VALENTZIAKO E.	951	1.005	701	888
EXTREMADURA	96	85	34	84
GALIZIA	1.066	1.032	1.397	1.206
MADRIL	1.402	1.475	1.248	1.429
MURTZIA	143	250	192	236
NAFARROA	2.680	3.107	4.423	3.899
ERRIOXA	1.687	1.053	1.089	1.777
CEUTA-MELILLA	-	-	-	-
EAE	**50.203**	**50.203**	**41.109**	**41.109**

Iturria: Sustapeneko Estatistika Urtekaria, 2015. 2016an argitaratua

b) Trenbideko garraioa

Sustapen Ministerioak 2016an argitaraturiko *2015eko Estatistika Urtekariaren* arabera, bide elektrifikatuko 617,1 kilometrok osatzen zuten EAEko trenbide sarea, eta horietatik %58,5 ADIFi dagozkio, berak kudeatzen baitu penintsularako distantzia ertaineko eta luzeko zerbitzuekin loturiko azpiegitura, baita Bizkaiko eta Gipuzkoako aldiriko zerbitzuak eta FEVEren bide estuko trenenak ere (Bilbo-Santander, Bilbo-Leon lineak eta Bilbo Handiko eskualde barruko loturakoak). Bestalde, %41,5 Eusko Trenena da (Bilbo-Donostia-Hendaia linea barne).

II.6.7. TAULA. TRENBIDE KM EAE-N

	2014				2015			
	Elektrifikatu barik	Elektrifikatua	Bide bakarra	Bide bikoitza	Elektrifikatu barik	Elektrifikatua	Bide bakarra	Bide bikoitza
GUZTIRA	**40,33**	**592,93**	**271,47**	**361,78**	**19,29**	**617,10**	**272,77**	**363,57**
ADIF	40,33	334,94	144,95	230,31	14,40	360,90	144,95	230,31
EUSKOTREN ETS	-	257,99	126,52	131,47	4,89	256,20	127,82	133,27

Iturria: Sustapeneko 2015eko Estatistika Urtekaria, 2016an argitaratua

c) Airetiko garraioa

Abiazio zibilaren datuen arabera[31], EAEko hiru aireportuetatik, 2016. urtean, guztira 4,9 milioi bidaiari igaro ziren (%94 Bilboko aireportuan), hots, %7,6ko igoera 2015eko datuen aldean. Bidaiarien kopuruak gora egin du estatuko (+%4,8, 2.582.830 bidaiari) nahiz nazioarteko hegaldietan (+%11,2, 1.987.568 bidaiari). Salgaien trafikoari dagokionez, %11,9 egin zuen gora aldi berean, eta guztira 55.114 Tm bildu ditu (%94,6 Gasteizko aireportuan erregistratu da).

Bilboko aireportutik, guztira, 4,6 milioi bidaiari igaro ziren 2016an, hots, %7,3ko igoera 2015. urtearen aldean. Salgaien trafikoan, berriz, %3,6 egin zuen gora salgaien bolumenak aldi berean.

Forondako aireportuak %12,4 gorakada izan zuen 2015 eta 2016 bitartean, salgaien garraioari dagokionez, guztira garraiaturiko 52.134,7 Tm. Hala, Gasteizko aireportuak laugarren tokia du aireportuen rankingean garraiaturiko salgaien bolumenaren aldetik, honako hauen atzetik AS Madril-Barajas (415.800 Tm), Bartzelona-El Prat (132.800 Tm) eta Zaragoza (110.600 Tm). Bestalde, bidaiarien kopuruak %228,3 egin zuen gora, 11.182 pertsona izatetik 36.176 pertsona izatera.

Donostiako aireportuan, 2015 eta 2016 bitartean, bidaiarien kopuruak %3,7 egin zuen gora (264.422 bidaiari 2016an) eta salgaiena, berriz, %44,1 hazi zen (3,2 Tm-tik 4,6 Tm-ra).

II.6.8. TAULA. AIRETIKO GARRAIO ZIBILAREN BILAKAERA KONTZEPTU ETA AIREPORTUAREN ARABERA

	EAE GUZTIRA			Gasteiz			Bilbo			Donostia		
	Aire-ontziak	Bidaiariak (mila)	Salgaiak (Tm.)	Aire-ontziak	Bidaiariak (mila)	Salgaiak (Tm.)	Aire-ontziak	Bidaiariak (mila)	Salgaiak (Tm.)	Aire-ontziak	Bidaiariak (mila)	Salgaiak (Tm.)
2014	54.536	4.268	46.207	5.890	7,1	42.160,7	42.590	4.015,3	2.855,6	6.056	245,4	30,
2015	57.507	4.544	48.246	6.840	11,2	46.371,3	43.862	4.277,4	2.871,7	6.805	255,1	3,
2016 p	58.747	4.889	55.114	6.692	36,7	52.134,7	45.105	4.588,3	2.974,3	6.950	264,4	4,
2015-16 ald.	2,2	7,6	11,9	**-2,2**	**228,3**	**12,4**	**2,8**	**7,3**	**3,6**	**2,1**	**3,7**	**44,**

bb: Behin-behinekoa
Iturria: Sustapen Ministerioa. Abiazio zibila

[31] *2015ean, metodologia aldaketa garrantzitsua izan zen Abiazio Zibilak eskaintzen dituen datuetan (AENAk emanak), zeren eta zenbatetsi egin baitzen bestelako trafiko moten bidez (BTM) egiten den garraioa. Izan ere, ordura arte garraio erregularraren eta ez erregularraren bidezkoa baizik ez zen zenbatesten. Jakin egin behar dugu salgaien garraioaren zatirik handiena BTMren bitartez egiten dela.*

d) Portuko trafikoa

Sustapen Ministerioaren arabera, itsas garraioa, 2015 eta 2016 bitartean, portuko trafikoa (salgaiak, hornidura eta arrantza) %2,5 jaitsi zen Bilboko Portuan, eta guztira 32,1 milioi Tm izan ziren. Horietatik 22,5 milioi ontziratu gabe ziren, eta azken horietatik %80,6 (18,1 milioi Tm) likidoak ziren. Bestela esanda, garraiaturiko salgaien %56,4 ontziratu gabeko likidoak dira, gehienbat petrolioaren produktuak. Bestalde, ontzi bat gutxiago dago, hots, 2.816 izatetik 2.815 izatera; eta bidaiari kopuruak berriz ere egin du gora (%15,2), eta guztira 190.626 lagun izan dira.

Pasaiako portua askoz kopuru txikiagoak biltzen ditu, eta horietan ere jaitsiera izan da salgaien trafikoaren aldetik (-%8,9), guztira 3,5 milioi Tm. Jaitsiera hori gertatu da solido solteen trafikoan izandako beherakadagatik (-%35,1); salgai orokorrena eta hornidurena eta arrantzarena, berriz, %12,4 eta % 9,1 hazi dira hurrenez hurren. Bestalde, ontzien kopurua txikitu egin da 2015 eta 2016 bitartean, eta 994 daude.

II.6.9. TAULA. ONTZIAK, BIDAIARIAK ETA ITSASOKO GARRAIOAK MUGITUTAKO SALGAIAK, MOTAREN ARABERA SAILKATUTA

		2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016bb	%	2015-16 ald. %
Bilbo	**Portuko trafikoa, guztira (mila Tm.)**	**34.666**	**31.998**	**29.507**	**30.073**	**31.009**	**32.876**	**32.069**	**100**	**-2,5**
	Likido solteak	19.763	17.855	15.061	15.761	16.351	18.200	18.084	56,4	-0,6
	Solido solteak	4.452	4.006	4.262	4.422	4.588	4.258	4.365	13,6	2,5
	Salgaiak orokorrean	9.446	9.863	9.631	9.419	9.883	9.673	9.501	29,6	-1,8
	Bestelako trafikoa	1.005	274	553	470	187	475	119	0,4	-74,9
	Ontziak, guztira (kopurua)	3.240	2.992	2.808	2.789	2.862	2.816	2.815		0,0
	Bidaiariak, guztira (kopurua)	165.024	151.421	142.754	141.979	161.242	165.522	190.626		15,2
Pasaia	**Portuko trafikoa, guztira (mila Tm.)**	**3.896**	**3.252**	**3.094**	**2.955**	**3.503**	**3.794**	**3.458**	**100**	**-8,9**
	Likido solteak	0	0	0	0	0	0	0	0,0	
	Solido solteak	1.657	1.247	1.420	1.212	1.509	1.694	1.099	31,8	-35,1
	Salgaiak orokorrean	2.181	1.949	1.622	1.694	1.943	2.044	2.298	66,5	12,4
	Bestelako trafikoa	58	56	52	50	51	55	60	1,7	9,1
	Ontziak, guztira (kopurua)	1.086	963	895	879	921	991	994		0,3
	Bidaiariak, guztira (kopurua)	0	0	0	0	0	0	100		

**: Behin-behinekoa*
Iturria: Sustapen Ministerioa. Portuak

6.2. ENERGIA: EKOIZPENA ETA KONTSUMOA

Inportatutako energiaren eraldaketa EAEren jarduera ekonomikoaren barruan pisu adierazgarria duen industria da, petrolioa fintzeko eta energia elektrikoa sortzeko sektoreekin batera. Aldi berean, azken urteetan gas eta elektrizitateko azpiegitura berriek izandako sarrerak energiaren euskal eskaintzaren kalitatea indartzeko joera du.

Energia balantzeetan ezberdindu egiten da barne kontsumo osoaren edo energia eskariaren eta amaierako kontsumoa. Energia eskaria edo barne kontsumo osoa, funtsean, lurraldean bertan sortutako lehen mailako energia gehi inportazioen, esportazioen eta galeren (garraioagatik, biltegiratzeagatik, banaketagatik) arteko orekaren berdina da. Amaierako kontsumoa amaierako kontsumitzaileen sektoreetako kontsumoen batura da, hau da, industriaren, garraioaren, lehen sektorearen, zerbitzuen eta egoitzen kontsumoaren batura.

Energiaren Euskal Erakundeak (EEE) argitaraturiko *Euskadi Energia, 2015. Energiari buruzko datuak* txostenak erakusten duenez, amaierako kontsumoa %1,5 hazi zen 2015ean 2012 eta 2014 bitartean jaitsi ondoren, hau da, amaierako kontsumitzaileen sektoreetako kontsumoen batura da, hau da, industriaren, garraioaren, lehen sektorearen, zerbitzuen eta egoitzen kontsumoaren batura. 6.301 Ktep-ekoa da.

Bestalde, energiaren amaierako kontsumoa, aldi berean, %1 igo zen. Amaierako kontsumorik handieneko sektoreak industria (guztizkoaren %40) eta garraioa (%38,2) dira. Sektoreen arabera, bizitegien sektorearen kontsumoa %5,1 hazi zen, zerbitzuena %4, garraioarena %3,4 eta lehen sektorearena, berriz, %1. Amaierako kontsumoa jaitsi zeneko sektore bakarra industria izan zen (-%2,8).

II.6.1 GRAFIKOA: ENERGIAREN BARNE-KONTSUMO GORDINA ETA AMAIERAKO KONTSUMOA



Iturria: EEE

Halaber, 2014 eta 2015 artean lehen mailako energiaren ekoizpena %3,9 hazi da, 415 Ktep-etik 431era; eta ekoizpen hori, batez ere, energia berriztagarrietan oinarritu da (norberaren iturri nagusia). Energia horiek, bestalde, %3,3 handitu dira (350 Ktep-etik 403ra).

Lehen mailako energiako norberaren (431 Ktep) produkzio eskas horrek EAEko energia eskariaren (barne kontsumo gordina) %6,8 asetzea bakarrik ahalbidetzen du (6.301). Horrenbestez, kanpoarekiko mendetasun energetikoa %93,2an kokatu zen EAEn, Estatukoa (%73,3, 2014ko datua) eta 28ko EBrena (%53,4, datu biak 2014koak) baino handiagoa. Izan ere, EBko herrialde guztien gainetik dago, Luxenburgo izan ezik.

II.6.2. GRAFIKOA. OINARRIZKO ENERGIAREN KONTSUMOA (KTEP)



Iturria: EEE

Aldi berean, iturri berriztagarrietan oinarrituriko ekoizpenaren bidez (403 Ktep), amaierako kontsumoaren (5.034) %8 baino ezin bete daiteke, hots, energia berriztagarriek amaierako kontsumoan duten partaidetza ratioa EB-27koa baino askoz txikiagoa da (%13 2014an) eta gure Erkidegoak Euskadi 2020 Energia Estrategian (3E2020) ezarritako %14ko helburutik oso urruti[32].

Izan ere, energia motaren araberako amaierako kontsumoari dagokionez oso interesgarria bera ingurumenaren ikuspegitik, energia mota bakoitzak inpaktu ezberdina daukalako ikus daiteke petrolioa eta hartatik eratorritakoak direla oraindik ere kontsumo horren zati handiena, %42,4. Edonola ere, Ktep murriztapena eduki dute aurreko urtearen aldean, %3,5 hain zuzen ere. Ondoren, argindarra eta gas naturala datoz. Horietako bakoitza azken kontsumoaren %25,6 izan zen, baina gas naturalaren kontsumoak -%2,6ko aldakuntza izan zuen Ktep-en kopuruan aurreko urtearekiko, eta argindarrarena, berriz, %0,8 hazi zen. Oso atzetik ditu energia berriztagarriak, erregai solidoak (ikatza eta hartatik eratorritakoak) eta energia eratorriak (funtsean industria prozesuetan berreskuratutako beroa edo energia transformazioa kogenerazioa adibidez biltzen ditu).

[32] *Gogoratu behar dugu Europako 2020 Estrategian %20koa zela helburua EBrako.*

II.6.10. TAULA. EAE-REN ENERGIARI BURUZKO BALANTZEA (Ktep)

	2015							2014-15 ald.						
	Erregai solidoak	Petrolioa eta deribat.	Gas naturala	Ener-gia deribat.	Energia berrizta garriak	Energia Elektrikoa	Guzt.	Erregai solidoak	Petrolioa eta deribat	Gas naturala	Ener-gia deribatuak	Energia berriz	Energia Elektrik	Guzt.
Oinarrizko energiaren ekoizpena	0	0	0	28	403	0	432	0,0			12,0	3,3		4,1
Barne kontsumo gordin baliagarria (eskaria)	44	2.745	2.137	28	454	892	6.301	-2,2	3,6	-3,0	12,0	4,8	4,7	1,5
Transformazio sarrerak	0	8.992	763	11	125	0	9.891		0,9	-5,3	10,0	19,0		0,6
Transformazio irteerak	0	8.851	0	1	0	461	9.313		1,4		0,0		-4,6	1,1
Energiaren amaierako kontsumoa	44	2.133	1.290	18	260	1.289	5.034	-2,2	3,5	-2,6	12,5	0,4	0,8	1,0
Industria	44	154	914	17	147	740	2.016	-1,8	6,5	-6,2	11,1	-2,2	-0,7	-2,8
Garraioa	0	1.841	0	0	69	15	1.925	0,0	3,3			6,2	2,0	3,4
Nekazaritza eta arrantza	0	62	1	1	1	5	70	0,0	-0,5	-23,1	100,0	-16,7	56,3	1,0
Zerbitzua	0	20	127	0	4	295	445	0,0	42,9	3,8		14,3	2,3	4,0
Bizitegiak	0	55	248	0	40	234	578	0,0	-2,8	9,1		2,0	3,2	5,1

Iturria: EEE

Energiaren intentsitateari dagokionez (ekonomiaren energia-eraginkortasunaren adierazlea, honela neurtzen dena: amaierako kontsumoa (Ktep) zati BPGa) ikusten dugunez, 2015ean 11 puntu hobea izan zen 2007koa baino. 2014aren aldean, %2ko hobekuntza izan zen BPGaren %2ko hazkundeari eta energiaren amaierako kontsumoaren %1eko igoerari esker. Hala, ratioa 91tik 89ra igaro da.

II.6.3. ENERGIAREN INTENTSITATEAREN BILAKAERA



Iturria: EEE

Energiaren fakturari dagokionez, kontsumoa murriztu eta prezioak apaldu egin dira hainbat urtetan igoera handiak izan ondoren. Horren ondorioz, energiaren kostua murriztu egin zen amaierako kontsumitzailearentzat hirugarren urtez jarraian, %6 2015ean, guztira 5.515 milioi euro. Kostu horretatik %45 garraioaren sektoreari dagokio, %24,4 industriari, %16,6 bizitegien sektoreari, %12,7 zerbitzuei eta %1,2 lehen sektoreari.

Petrolioaren deribatuak garraioaren fakturaren %94,7 dira. Industrian, argindarra fakturaren %62,3 da eta gas naturala, berriz, %35,3.

Bizitegien sektorearen faktura %3,2 hazi zen 2015ean. Etxeko fakturaren igoera %2,6 izan zen, eta biztanleko fakturan, berriz, %3,2. Hala, guztira 1.307 euro da etxeko eta 421 euro biztanleko.

II.6.2. GRAFIKOA: ENERGIAREN FAKTURAREN BILAKAERA (OINARRIKO URTEA: 2016)



Fuente: EEE

II.6.11. TAULA. BIZITEGIEN SEKTOREAREN ENERGIAREN FAKTURAREN ADIERAZLEAK

	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015
Energiaren kostua (M€ ohikoak)	711	753	786	856	961	941	886	915
Kontsumoa biztanleko (€ biztanleko)	329	347	362	392	441	433	408	421
Kontsumoa etxeko (€ etxeko)	857	895	932	1.008	1.133	1.081	1.011	1.037

Iturria: EEE

Azkenik, EEEren arabera, EAEk kanpoarekiko duen energia-mendetasuna %93,1 da, EBko herrialde guztiena baino handiagoa (Luxenburgo izan ezik). Mendetasun-mailarik txikiena duten herrialdeak hauexek ekoizten dituzten herrialdeak dira: petrolioa eta gasa (Erresuma Batua eta Danimarka), berriztagarriak (Europako Iparraldeko herrialdeak) eta nuklearra (Frantzia eta Suedia).

ITURRIAK:

1. **SUSTAPEN MINISTERIOA**. Datu-basea. 2016ko datuak. Urterokoa. Koiunturala
2. **SUSTAPEN MINISTERIOA.** 2015eko estatistika urtekaria. 2016an argitaratua. Urterokoa. Koiunturala
3. **ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEA (EEE).** Txostena: *Euskadi Energia 2015. Energiari buruzko datuak*. 2016an argitaratua. Urterokoa. Koiunturala

7. ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZA

Gizarte berritzailea lagungarria izan daiteke enpresentzat balio erantsi handiagoko produktuak garatzeko, haien lehia-abantailari eusteko, jarduera ekonomikoa bultzatzeko eta, horren bidez, lanpostuak mantendu edota sortzeko. Aldi berean, ikerkuntza eta berrikuntza lagungarriak izan daitezke gizartearen erronka nagusietako zenbaiti irtenbidea aurkitzeko hala nola biztanleria zahartzeari, segurtasun energetikoari, klima-aldaketari, hondamendien arriskua kudeatzeari, edo gizarteratzeari.

Hainbat faktoreren araberakoa da ikerkuntza, ezagutza eta berrikuntzarako ahalmena (hala nola hezkuntza eta prestakuntzako erakundeak, enpresa-kultura, gaitasunak, trebetasunak eta sormena, berrikuntza bultzatzeko zerbitzuak, teknologiaren transferentziarako mekanismoak, azpiegiturak, ikerlarien mugikortasuna eta finantzabideak). Hezkuntza, prestakuntza eta etengabeko ikaskuntza funtsezkoak dira berrikuntzarako gaitasuna garatzeko, enpresa-sarean eta transferentzian eta ikerkuntzaren emaitzak merkaturatzeko prozesuan gero eta parte hartze handiagoa duten ikerkuntza eta garapen teknologikoko zentroekin eta unibertsitateekin.

Kapitulu hau bi bloke handitan dago banatuta; alde batetik, I+G+b jarduerak aztertzen dira eta bestetik Informazioaren eta Komunikazioen Teknologiak (IKT). I+G+b jardueren blokearen barruan, Euskal Sistemako adierazle nagusiak aztertzen dira, enpresa-sareko I+G jarduerak, Universidad del País Vasco – Euskal Herriko Unibertsitatearenak eta berrikuntza jarduerak, baita Europako Berrikuntzako Adierazleen Paneleko zenbait adierazle ere, IUS.

Bestalde, Informazioaren eta Komunikazioen Teknologien blokearen barruan, EAEko IKT ekipamenduak eta erabilerak aztertzen dira, biztanleenak nahiz enpresenak, merkataritza elektronikoa (biztanleen eta enpresenak) eta administrazio elektronikoa.

7.1. I+G+B JBARDUERAK

7.1.1. I+G+B-KO EUSKAL SISTEMAREN ADIERAZLE NAGUSIAK

I+G-ko gastua. "*EUSTATen ikerketa zientifikoko eta garapen teknologikoko jarduerei buruzko estatistika*"ren arabera, 2015ean 1.273,2 M€ euro inbertitu ziren EAEn, hots, hiru urtez jarraian jaitsierak izan dira (%-1,3 2014ko datuen aldean). Lurraldez historikoen arabera, Arabak guztizkoaren %13 egiten du, Bizkaiak %47 eta Gipuzkoak %40.

I+G-ko gastua BPGarekiko (ahalegina). EUSTATen arabera, %1,84an kokatu zen 2015ean, hots, beste jaitsiera bat (8 ehunen 2014aren aldean), eta jaitsierak metatu ditu hiru urtez jarraian. Portzentaje hori eurogunean ikusitakoa (%2,12) eta arloko erreferentziako herrialdeetan bildutakoa baino txikiagoa da: Suedia (%3,26), Austria (%3,07), Danimarka (%3,03), Finlandia (%2,9), Alemania (%2,87), Belgika (%2,45), Frantzia (%2,23), Eslovenia eta Islandia; hala ere, zenbait herrialdetan egonkortu edo jaitsiera nabarmena ikusten da ratioan, Finlandian edo Eslovenian adibidez, EUROSTATen arabera.

II.7.1. TAULA. I+G-AN EGINIKO AHALEGINAREN BILAKAERA ETA EUROPAKO HELBURUAK HERRIALDEKA. ERREFERENTZIAKO HERRIALDEAK, EUROGUNEA ETA EAE

	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2020 HELBUR.
EAE	2,01	2,01	2,06	2	1,93	1,84	:
Espainia	1,35	1,33	1,29	1,27	1,24	1,22	2
Eurogunea	1,99	2,04	2,1	2,11	2,14	2,12	UE = 3
Suedia	3,22	3,25	3,28	3,31	3,15	3,26	4
Austria	2,74	2,68	2,93	2,97	3,06	3,07	3,76
Danimarka	2,94	2,97	3	3,01	3,02	3,03	3
Finlandia	3,73	3,64	3,42	3,29	3,17	2,9	4
Alemania	2,71	2,8	2,87	2,82	2,89	2,87	3
Belgika	2,05	2,16	2,36	2,44	2,46	2,45	3
Frantzia	2,18	2,19	2,23	2,24	2,24	2,23	3
Eslovenia	2,06	2,42	2,58	2,6	2,38	2,21	3
Islandia	:	2,49	:	1,76	2,01	2,19	:

Iturria: EUSTAT ETA EUROSTAT

EINen "*I+G jarduerei buruzko estatistikak*" EAErako erregistraturiko ahalegina BPGaren %1,93 izan zen 2015ean (%2,03 2014an). Estatuko batez bestekoa %1,22 zen (%1,23 2014an) eta hona hemen ratiorik handienak dituzten autonomia erkidegoak, EAEz gain: Madril (%1,71; 2014an % 1,68 izan zen), Nafarroa (%1,64; 2014an %1,76 izan zen, eta Katalunia (%1,52; aurreko aldian %1,47).

Ikerketari eta berrikuntzari buruzko oinarrizko helburua EBn gastu publikoaren eta pribatuaren %3 lortzea da BPGaren portzentaje gisa, Europar Batasun osoari dagokiona. Hartara, helburu zehatzak finkatu dira herrialdeetarako, hots, BPGaren %0,5 eta %4 bitartean, kasuan kasuko estatu kidearen arabera. Espainiari dagokionez, 2020an %2ra iristea da helburua. Horren ondorioz, 2015ean I+G arloan eginiko ahaleginaren beherakadak berriz jartzen du gure erkidegoa Europako helburu lortzeko xedetik urrun, xede horretara gehien hurbiltzen den autonomia erkidegoa bada ere.

II.7.2. TAULA. ZIENTZIARI ETA TEKNOLOGIARI BURUZKO ADIERAZLEAK EAE-N

	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015
I+G gastuak											
Orotara (milaka euro)	**823.459**	**907.721**	**1.090.265**	**1.263.877**	**1.280.917**	**1.360.271**	**1.366.234**	**1.372.901**	**1.316.787**	**1.289.753**	**1.273.207**
Urteko hazkundea (%)	7,1	10,2	20,1	15,9	1,3	6,2	0,4	0,5	-4,1	-2,1	-1,3
B.P.G.arekiko(%)	1,45	1,48	1,65	1,87	2,00	2,01	2,01	2,06	2,00	1,93	1,84
Langileak (AOB)											
Orotara	**12.505,5**	**13.065,3**	**14.434,9**	**15.373,2**	**16.690,4**	**17.531,9**	**17.879,2**	**18.681,9**	**18.279,5**	**18.535,4**	**18.217,1**
Urteko hazkundea	4,9	4,5	10,5	6,5	8,6	5,0	2,0	4,5	-2,2	1,4	-1,7
Lanpostu baliokideekiko (‰)	13,4	13,7	14,7	15,6	17,7	18,8	19,3	20,9	21,1	21,3	
Ikertzaileak (AOB)											
Orotara	**7.819,7**	**8.145,0**	**9.220,4**	**9.640,1**	**10.386,2**	**11.070,8**	**11.283,1**	**11.771,7**	**11.959,3**	**12.030,3**	**12.089,1**
Urteko hazkundea	5,5	4,2	13,2	4,6	7,7	6,6	1,9	4,3	1,6	0,6	0,5
Lanpostu baliokideekiko (‰)	8,4	8,5	9,4	9,8	11,0	11,9	12,2	13,2	13,8	13,8	

Iturria: EUSTAT. Ikerketa zientifikoko eta garapen teknologikoko jarduerei buruzko estatistika

I+G langileria egikaritze-sektorearen arabera[33]. Gastu gehien enpresetan egin zuten, %74,7 (951 milioi euro), hain zuzen ere; %18,4 (234,7 milioi euro) goi-mailako hezkuntzan, eta gainerakoa, %6,9 (87,5 milioi euro) administrazioaren mende dauden erakundeetan. Kopuru horiek ikusita esan daiteke behera egin zutela enpresen sektoreko gastuak eta goi-mailako irakaskuntzaren sektoreko gastuak aurreko urtearen aldean, %1,8 eta %1,3 hurrenez hurren. Administrazio publikoaren gastuak, berriz, %4,8 egin zuen gora.

Aurreko urteko egoerarekin alderatuta, EAEko enpresa-sektorea da beste behin gastu gehien egin duena, nahiz eta sektorearen partaidetza-portzentajeak lau hamarren behera egin duen. Goi-mailako irakaskuntzan egonkor eusten zaio eta herri-administrazioan, aldiz, ehunekoek lau hamarren egin du gora. Enpresa-sektorearen partaidetzaren galera hori 2006tik hona gertatzen ari dira. Hala ere, oraindik bere partaidetzarik handienari eusten dio, I+G-ko gastu osoaren ia hiru laurdenak alegia.

Egitura hori ez dator bat estatuan dagoen batez bestekoarekin, non partaidetza txikiagoa baitute guztizkoarekiko eta handiagoa goi-mailako irakaskuntzaren sektorearekiko (% 52,5 eta % 28,1 hurrenez hurren). Administrazio publikoaren partaidetza-ratioa %19,1 da.

[33] *Komeni da kontuan hartzea administrazioaren I+G arloko gastuaren zati handi bat Zentro Teknologikoen Sarearen bitartez bideratzen dela; izan ere, zentro horiek, haien izaera juridikoa dela eta, enpresa-sektorearen parte dira eragiketa estatistiko horretan.*

II.7.3. TAULA. I+G ARLOKO BARNE-GASTUAK, DIZIPLINA ZIENTIFIKOAREN, EGIKARITUTAKO SEKTOREAREN ETA FUNTSEN JATORRIAREN ARABERA (MILAKA EURO)

	2015						Aldearen %-a (2014-15)					
	Guzt.	Fondoen jatorria					Guzt.	Fondoen jatorria				
		Admin.	Goi-irakask.	Enpr	IAGEP	Atzer.		Admin.	Goi-irakask.	Enpr	IAGEP	Atzer.
Guzt.	**1.273.207**	**424.661**	**37.101**	**708.866**	**2.930**	**99.649**	**-1,3**	**1,1**	**0,7**	**-3,1**	**17,9**	**0,6**
Egikaritze sektorea												
Enpresak	**951.008**	175.188	624	691.901	848	82.447	**-1,8**	2,6	-42,5	-3,2	-2,0	1,4
Herri administrazioa	**87.490**	79.122	93	3.359	1.009	3.907	**4,8**	7,7	-25,6	-7,8	27,9	-28,2
Goi-mailako irakaskuntza	**234.709**	170.351	36.384	13.606	1.073	13.295	**-1,3**	-3,0	2,1	1,6	28,8	8,1
Arlo zientifikoa												
Zientzia zehatzak eta naturalak	**130.347**	98.402	6.171	14.956	540	10.278	**-7,2**	-5,5	6,9	-18,0	-6,6	-12,4
Ingeniaritza eta teknologia	**887.910**	168.399	17.873	631.555	574	69.509	**-2,0**	1,0	3,4	-3,2	19,3	0,3
Zientzia medik. (farmazia barne)	**140.376**	87.248	1.742	41.916	832	8.639	**7,7**	11,5	-5,2	2,3	19,7	1,3
Nekazaritza z. (abeltz., basog. eta arrantza barne)	**37.398**	21.057	143	10.888	26	5.284	**17,7**	9,7	-21,4	28,0	85,7	37,0
Gizarte eta giza zientziak	**77.175**	49.554	11.173	9.550	958	5.940	**-4,8**	-4,0	-5,0	-15,6	33,2	5,5

Iturria: EUSTAT.Ikerketa zientifikoko eta garapen teknologikoko jarduerei buruzko estatistika

I+G arloko gastuaren finantzazioa (funtsen jatorriaren araberako gastua). Sektore pribatuak gastuaren finantzazioan (708,9 milioi euro) duen partaidetzak berri ere egin zuen behera 2014 eta 2015 bitartean, %56,7tik %55,7ra (10,3ra puntura Europako helburutik: I+G arloko gastu guztiaren %66 funts pribatuekin finantzatzea). Bestalde, administrazioak gastuaren %33,4 finantzatzen du (424,7 milioi), 2014an izandako ratioa baino handiagoa (%32,6).

II.7.4. TAULA. SEKTORE PRIBATUAK ETA SEKTORE PUBLIKOAK FINANTZATURIKO I+G ARLOKO GASTUA (guztizko gastuarekiko portzentajea)

	Sektore pribatuak finantzatutakoa					Herri administrazioak finantzatutakoa				
	2011	2012	2013	2014	2015	2011	2012	2013	2014	2015
EAE (EUSTAT)	53,3	54,3	57,1	56,7	55,7	-	36,0	34,9	32,6	33,4
ESTATUA (EIN)	43,3	45,6	46,3	46,4	45,8	44,5	43,1	41,6	41,4	40,9
EUROG.. (EUROSTAT)	56,8	56,9	56,6	56,9	-	33,8	33,4	33,3	32,9	-

Iturria: EUSTAT, EIN, EUROSTAT

Estatuan, EINen arabera, sektore pribatuak gastuaren % 45,8 finantzatzen du (Europako helburuaren 20,2 puntu azpitik dago) eta herri-administrazioak % 40,9. Eurogunean, EUROSTATen datuei jarraiki, 2014an kopuruak %56,9 eta % 32,9koak izan ziren, hurrenez hurren. Herrialde hauetan I+G arloko gastuaren finantzaketa pribatuaren ratioa oso handia da: Japonia (%77,3), Txina (%75,4), Hego Korea (%75,3), Alemania (%65,8), Eslovenia (%68,4), Suedia (%61 2013an), AEB (%60,9, 2013ko datua), Danimarka (%57,3 2015ean). Bereziki deigarria da Finlandiaren kasuan, non ratioak beherantz egin izan baitu %53,5era iritsi arte 2014an, baina 2015ean berri ere egin zuen gora, %54,8ra.

Kontuan hartzen badugu EAEko BPG 2015ean 69.216,5 milioi eurokoa izan zela (EUSTAT, sektore pribatuak finantzatutako I+G arloko gastua (708,9 milioi euro) BPGaren %1,02 da.[34] Europako 2020. urterako helburua % 2 da. Aldiz, herri-administrazioak finantzatzen duen I+G gastua (424,7 milioi euro) EAEko BPGaren % 0,61 da. Europako helburua % 1 da.

[34] *2017ko urtarrilaren 20an ateratako datua.*

I+G arloko gastua diziplina zientifikoaren arabera. Ingeniaritza eta teknologia nagusitu dira berriz (gastu osoaren %69,7); horien atzetik datoz, alde handiarekin, medikuntza-zientziak (%10,2), zientzia zehatzak eta natura-zientziak (%10,2). Eta, azkenik, gizarte- eta nekazaritza-zientziak (%6,1 eta %2,9, hurrenez hurren).

Funtsen jatorriari dagokionez, ingeniaritza eta teknologia batik bat sektore pribatuak finantzatzen ditu. Zehazki, % 71,1 sektore pribatuak finantzatzen du eta % 19 sektore publikoak. Medikuntza-zientzietan, zientzia zehatz eta natura-zientzietan, gizarte-zientzietan eta nekazaritza-zientzietan kontrakoa gertatzen da, herri-administrazioak gastuaren %7 5,5, % 62,2, % 64,2 eta % 56,3 finantzatzen baitu.

I+G-ko langileak (aritze osoko baliokidetzan neurtua (AOB)). EUSTATen arabera, 18.217,1 lagun, hots, %1,7ko jaitsiera 2014koaren aldean.

Egikaritze-sektoreen arabera, 13.087 langile enpresetan daude (langile guztien %71,8, 3.979 goi-mailako irakaskuntzan (%21,8) eta 1.150,9 herri-administrazioan (%6,3).

Lanbideari dagokionez (ikertzaileak, teknikariak eta laguntzaileak), % 64,4 ikertzaileak dira (hazi egin da talde hori aurreko urtearen aldean), % 24,9 teknikariak eta % 8,7 laguntzaileak. Dena den, sektore guztietan ez da berdin gertatzen: goi-mailako irakaskuntzan, esate baterako, ikertzaileen ratioa % 85,5 da.

Langileak sexuaren arabera sailkatuz gero, ikusten da langile guztien %35,2 baino ez dela emakumezkoa. Alde horretatik, herri-administrazioan eta goi-mailako irakaskuntzan langile gehienak emakumeak dira (%55,1 eta %50,2, hurrenez hurren), eta enpresetan, berriz, emakumeen ratioa oso txikia da (%28,9).

II.7.5. TAULA. I+G-ko LANGILEAK (AOB), EGIKARITZE-SEKTOREAREN ETA OKUPAZIOAREN ARABERA

	GIZONAK		EMAKUMEAK		Ikertzaileak		Teknikariak		Laguntzaileak	
					2015					
	2014	2015	2014	2015	Kop	% (horizont. guzt.)	Kop	% (horizont. guzt.).	Kop	% (horizont. guzt.)
Guzt.	18.535,4	18.217,1	6.517,8	6.414,4	12.089,1	66,4	4.539,8	24,9	1.589,3	8,7
Enpresak	13.481,0	13.087,0	3.919,9	3.782,2	8.119,9	62,0	3.721,1	28,4	1.247,1	9,5
Herri administrazioa	1.120,5	1.150,9	634,0	633,6	568,0	49,4	490,0	42,6	92,8	8,1
Goi-mailako irakask.	3.933,9	3.979,2	1.963,9	1.998,6	3.401,2	85,5	328,7	8,3	249,4	6,3

Iturria: EUSTAT, I+G jarduerei buruzko estatistika

Aktibo intelektualak.

Geroago sakonago aztertuko den "*Berrikuntzako adierazleen panela, IUS*" deritzonak dakarren informazioan oinarrituta aurkeztuko dugu adierazle honen azterketa.

Datuek erakusten dutenez, gure Erkidegoak 0,48ko balioa du *Berrikuntzako adierazle sintetikoa, 2016* delakoan, Estatukoaren gainetik (0,36) eta 28-EBtik (0,52) eta "berrikuntza maila handiko herrialdeak" deritzon taldetik gertu. Izan ere, 28ko EBko batez bestekoaren %92,4 du. Hala ere, berrikuntza-prozesuetako errendimendu gisa sortutako jabetza intelektualeko eskubide modu ezberdinak atzematen dituen IUSen "Aktibo intelektual" dimentsioa 0,32 da, 28ko EBko batez bestekoa (0,56), edo Estatukoa (0,44) baino txikiagoa.

Izan ere, Beste lurralde eremuekin erkatuta, hauxe ondoriozta daiteke: 1,59 adierazlea duela EAEk BPGko bilioi bakoitzeko EEP[35] patenteen eskarietan (EAP eurotan), 5,08 adierazlea BPGko bilioi bakoitzeko EBko merkataritza-marketan (EAP eurotan) eta 0,56koa PGBko bilioi bakoitzeko (EAP eurotan) EBko diseinuetan. Beraz, estatuko batez bestekoen (1,48/7,81/2,97) eta 28ko EBkoen (3,53/6,09/4,44) azpitik dago eta urruti erreferentziako herrialdeetatik.

[35] *Patenteen gaineko Lankidetza Ituna.*

Ikuspegi historikoari buruzko azterketak erakusten duenez, EAEk inbertsio handia egin izan du I+G jardueretan, baina bazirudien zailtasunak zituela inbertsioa emaitzetara ekartzean, zeren eta, aktibo intelektualek txikiak izaten jarraitu izan baitute (alabaina, egia da beheranzko joera dela). Horrek eraginkortasun edo produktibitate txikiagoa uzten du agerian.

II.7.6. TAULA. AKTIBO INTELEKTUALEN ADIERAZLEAK, IUS 2016

	IUS 2016 Rankinga	AKTIBO INTELEKTUALAK			
		Indize konposatua	Patente eskaria BPGko bilioi bakoitzeko (EAP)	EBko marka komertzialak, BPGko bilioi bakoitzeko	EBko diseinuak BPGko bilioi bakoitzeko (EAP)
SUEDIA	0,70	0,73	7,99	8,26	4,92
DANIMARKA	0,70	0,79	6,24	8,35	8,03
FINLANDIA	0,65	0,72	8,17	7,22	5,44
ALEMANIA	0,63	0,70	6,26	6,88	6,52
HOLANDA	0,63	0,62	5,57	6,97	3,41
IRLANDA	0,61	0,43	2,40	6,03	1,59
BELGIKA	0,60	0,49	3,17	5,87	2,90
ERRESUMA B.	0,60	0,50	3,30	6,21	3,13
LUXENBURGO	0,60	0,72	1,39	29,88	15,36
AUSTRIA	0,59	0,71	5,06	9,51	7,44
FRANTZIA	0,57	0,49	3,77	3,92	3,06
28-EB	**0,52**	**0,56**	**3,53**	**6,09**	**4,44**
EAE	**0,48**	**0,32**	**1,59**	**5,08**	**0,56**
ESPAINIA	0,36	0,44	1,48	7,81	2,97

Iturria: EUSTAT Berrikuntza-adierazleen panela

II.7.7. TAULA. I+G-KO AHALEGINAK ETA AKTIBO INTELEKTUALEN ADIERAZLEAK. EAE. 2006-2015

	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015
I+G-ko gastua (gastua BPGarekiko)	2,00	2,01	2,01	2,06	2,00	1,93	1,84
PCT patenteen eskaerak BPGko bilioiko (PPC eurotan)	1,73	2,04	1,48	1,53	**1,59**	nd	nd
EBko marka komertzialak BPGaren bilioiko (PPC eurotan)	4,73	5,74	5,91	6,05	4,60	5,10	**5,08**
EBko diseinuak BPGaren bilioiko (PPC eurotan)	0,83	0,86	0,73	0,77	0,73	0,47	**0,56**

Oharra: IUS 2016 egitean, letra lodiko datuak erabili dira
Iturria: EUSTAT. Berrikuntza-adierazleen panela

7.1.2. I+G JARDUERAK

a) EAEko enpresen sektoreko I+G jarduerak, ZTESeko zentro teknologikoak alde batera utzita

Eustaten datuen arabera, 2015. urtean[36] 1.502 enpresak (2014an baino 110 gehiago) egin zituzten I+G jarduerak (Zientzia eta Teknologiako Euskal Sareko zentro teknologikoak alde batera utzita); horietatik 718 industria-sektorekoak dira eta 718 zerbitzuen sektorekoak, 48 eraikuntzakoak eta 18 lehen sektorekoak[37]. Jarduera horietako enpresen guztizko gastuak %2,6 egin du behera 2014 eta 2015 bitartean, eta aldeak daude sektoreen artean. Gastuak gora egin du eraikuntzan eta zerbitzuetan. Industrian, berriz, %6,3 jaitsi da, eta %2,6 lehen sektorean.

[36] *Nahiz eta 2016an metodologia estatistikoa aldatu CNAEren eta hainbat iturriren aldaketaren ondorioz, I+G egiten duten establezimenduen kopurua aztertu da, eta epigrafe honetan agertzen den informazioa orain ere enpresen kopuruari buruzkoa da.*

[37] *EUSTATek berretsi digunez, enpresa gutxiago erregistratu ziren, oro har, urte horretako Enpresako I+G osoan; ez da hala gertatu datuen bilketagatik.*

II.7.8. TAULA. ENPRESEN KOPURUAREN ETA I+G-KO BARNE-GASTUAREN BILAKAERA (ZTESeko ZTak gabe)

	GUZT.		Nek.- abeltz, arrantza, erauzketa eta energia		Industria		Eraikuntza		Zerbitzuak	
	Enpresa kop. guztira	Gastua (mila eurotan)	Enpresa kop. guztira	Gastua (mila eurotan)	Enpresa kop. guztira	Gastua (mila eurotan)	Enpresa kop. guztira	Gastua (mila eurotan)	Enpresa kop. guztira	Gastua (mila eurotan)
2010	1.515	824.115	11	13.192	750	457.927	41	8.702	713	344.293
2011	1.488	808.245	14	20.463	691	417.078	46	10.184	737	360.520
2012	1.565	822.805	17	19.629	716	449.135	50	9.816	782	344.225
2013	1.537	793.295	15	16.702	712	421.639	48	9.831	762	345.122
2014	1.612	780.219	18	20.060	763	406.190	48	8.674	783	345.295
2015	1.502	759.655	18	19.533	718	380.397	48	14.045	718	345.680
14-15 ald.	**-110**	**-20.564**	**0**	**-527**	**-45**	**-25.793**	**0**	**5.371**	**-65**	**385**
14-15 ald. %	**-6,8**	**-2,6**	**0,0**	**-2,6**	**-5,9**	**-6,3**	**0,0**	**61,9**	**-8,3**	**0,1**

Iturria.- EUSTAT, I+G jarduerei buruzko Estatistika

Jarduera horietako lanaldi osoko langileei dagokienez, hor ere behera egin du: lanaldi osoko 10.815,5 lagunetik 10.573,8 lagunera.

Langile horiek gehienak industrian eta zerbitzuetan daude bilduta: %45,8 industrian (4.843.8 AOB) eta %49,2 (5.206,6 AOB) zerbitzuetan.

II.7.9. TAULA. I+G ARLOKO LANGILEEN BILAKAERA (ZTESeko ZTak gabe)

	2013		2014		2015	
	Guzt.	**Sektoreko lanpostu guztien %-a**	**Guzt.**	**Sektoreko lanpostu guztien %-a**	**Guzt.**	**Sektoreko lanpostu guztien %-a**
Guzt.	**10.468,8**	**1,5**	**10.815,5**	**1,3**	**10.573,8**	**1,2**
Nek.- abeltz, arrantza, erauzk. eta energia	268,6	1,6	420,7	2,5	289,9	1,8
Industria	5.194,1	3,0	5.097,8	3,0	4.843,80	2,9
Eraikuntza	152,9	0,0	133,1	0,3	233,5	0,5
Zerbitzuak	4.853,2	1,0	5.163,9	0,8	5.206,6	0,8

Iturria.- EUSTAT, I+G jarduerei buruzko estatistika

II.7.10. TAULA. ENPRESA SEKTOREKO ADIERAZLEAK (ZTESeko ZTak gabe) I+G JARDUERA-ADARREN ARABERA. 2015

		Enpresa kop.	Lanpostuak, b.b.	Langileak (AOB)	Barne-gastua	Beren funtsen %-a	Inoren funtsen %-a	EAEko lanpostuak, guzt.	EAEko I+G arloko langileen %-a
Guzt.		**1.502**	**82**	**10.573,8**	**759.655**	**76,3**	**23,7**	**859.124**	**1,2**
Nekazaritza-abeltz. eta arrantza, erauzketa eta energia		**18**	**71**	**289,9**	**19.533**	**95,3**	**4,7**	**15.807**	**1,8**
Industria		**718**	**106**	**4.843,8**	**380.397**	**85,8**	**14,2**	**168.565**	**2,9**
M-A	Kimika eta petrolio-finketa	48	66	322,3	22.337	82,9	17,1	5.118	6,3
M-B	Kautxua eta plastikoa	53	102	231,0	17.861	83,9	16,1	12.874	1,8
M-B	Metalarenaz aparteko industria	15	86	48,2	4.649	89,4	10,6	4.178	1,2
M-B	Metalurgia	40	250	255,9	21.019	77,2	22,8	16.458	1,6
M-B	Metalezko gaiak	176	79	727,8	46.654	86,6	13,4	40.485	1,8
M-A	Makina-erreminta	33	91	467,3	27.316	74,6	25,4	3.501	13,3
M-A	Etxetresnak	4	277	74,0	5.932	82,8	17,2	1.204	6,1
M-A	Beste makina batzuk	116	87	705,2	50.628	81,3	18,7	22.456	3,1
M-A	Material elektrikoa	52	85	392,9	31.215	90,9	9,1	7.268	5,4
A	Material elektronikoa	21	172	311,4	20.143	87	13	3.926	7,9
A	Doitasun-materiala	35	49	355,3	21.352	78,5	21,5	3.060	11,6
M-A	Garraio-materiala	32	415	734,6	94.780	92,8	7,2	16.724	4,4
	Beste manufaktura batzuk	93	56	217,9	16.702	91,1	8,9	31.313	0,7
Eraikuntza		**48**	**81**	**233,5**	**14.045**	**73,9**	**26,1**	**51.012**	**0,5**
Zerbitzuak		**718**	**57**	**5.206,6**	**345.680**	**64,8**	**35,2**	**623.740**	**0,8**
A	Informatika jarduerak	133	37	944,9	44.812	78,0	22,0	13.937	6,8
A	I+G jarduerak	161	16	2.066,8	158.466	49,8	50,2	6.938	29,8
	Beste enpresa jarduera batzuk	232	34	1.577,1	102.190	77,6	22,4	59.719	2,6
	Beste zerbitzu batzuk	192	135	617,8	40.212	76,9	23,1	543.146	0,1

Iturria.- EUSTAT, Ikerketa zientifikoko eta garapen teknologikoko jarduerei buruzko estatistika.

10.573,8 lagun horiek enpresaren sektoreko (ZTESeko zentro teknologikorik gabe) enplegu guztiaren (AOB) %1,2 dira. Adarretan banakatuta, industriako lanpostu horietatik, %2,9 I+G jardueretara erabiltzen da, noiz-eta aurreko urtean %3 zenean. Eraikuntzan, portzentajeak gora egin du, %0,3tik %0,5era, eta zerbitzuetako ratioak egonkor eusten dio %0,8an.

Jarduera nagusitzat I+G duten enpresak alde batera utzita, sektore hauetan dago I+G jardueretan aritzen den langile gehien: [38]makina-erreminta (EAEn I+G jardueretan lan egiten duten guztien % 13,3), doitasun-materiala (% 11,6), material elektronikoa (%7, 9), informatika-jarduerak (% 6,8), material elektrikoa (% 6,4) kimika eta petrolio-fintzea (% 6,3) eta etxetresnak (% 6,1).

Aldi berean, orain ere euskal enpresek, portzentaje handian, gastu horiek finantzatzen jarraitzen dute enpresaren berarekin funtsekin, baina ahalegin hori txikitu egin da aurreko urtearen aldean sektoreen barruan, baita horietako bakoitzean ere, Zerbitzuetan izan ezik.

Azkenik, nabarmentzekoa da I+G egiten duten euskal enpresen batez besteko tamaina handia; izan ere, 82 lanpostu ditu, euskal enpresen batez besteko tamaina baino askoz gehiago (5,4 lanpostuko batez bestekoa da), eta egoera hori gertatzen da ia jarduera-sektore guztietan, Memoria honetako *II. EAE-ko Ekonomia* kapitulu honetako "*Ekoizpen sektoreak"* deritzon atalak dakarrenez. Gainera, I+G egiten duten enpresen kopurua jaisteak bereziki eragin die enpresa txikienei eta, beraz, tamainak gora egin du: 2014ko 78tik 2015eko 82ra.

b) Ikerketa unibertsitateetan. Euskal Herriko Unibertsitatea[39]

Analisia egiten hasi aurretik, komeni da kontuan hartzea ikerketa-taldeen deialdia hiru urtean behin egiten duela Eusko Jaurlaritzak eta, beraz, jarduera horien zenbatekoak hiru urtetik hiru urtera gora egiten duela asko. Ondorioz, urtetik urterako analisia egiteko ikerketa-taldeei dagokien zenbatekoa kentzea komeni da.

Eusko Jaurlaritzaren ikerketa-taldeen jardueretarako partida 25 milioi eurokoa izan zen 2013an, 2010ean baino % 5 handiagoa (2010eko partida 23,7 milioi eurokoa izan zen eta 2010ekoa 23,7 milioi eurokoa). 2015ean, 24 milioi euro izan ziren (%-3,7 aurreko aldiaren aldean), EHUko Ikerketako Errektoreordetzaren datuen arabera..

Arestian aipatutako partidan oinarri hartuz, ikus daiteke UPV-EHUk ikerkuntzaren arloan aurrera eramandako jarduera murriztu dela 2014tik 2015era bitartean, 47,4 milioi eurotik 54,1era igaroz (+% 14,1). Zatirik handiena, % 49,9 (27 M€) ikerkuntza-proiektuei dagokie; horren ondotik, prestakuntzan ari den pertsonalerako funtsak azaltzen dira (% 21, 11,4 M€) eta Unibertsitatearen Antolamenduari buruzko Legearen 83. artikuluaren itzalpean izenpetutako kontratuak, azken horiek funts guztien % 13,7 baitira (7,4 M€). Urrunago, pertsonal ikertzaile/teknikoa kontratatzeko funtsak ageri dira; izan ere, azken horiek orotara % 9 dira.

Funtsen jatorriari dagokionez, 2010-12 aldian eta 2013-14 aldian funts autonomikoak izan ziren finantzabide nagusia (gutizkoaren %31,3 eta %39,7 hurrenez hurren), eta gauza bera gertatu zen 2015ean.

Zehazkiago, 2015ean, lehenik eta behin, funts autonomikoak daude (%44,4, 34,7 M€), eta ondoren zuzeneko kontratazioa (%19,7 eta 8 M€) eta bere finantzazioa (%14,3 eta 11,2 M€).

Arlo zientifikoen arabera, I+G+b jardueretako gastua batez ere zientziei eta ingeniaritzari eta arkitekturari dagokie. Zehazki, 2015ean gastuen %43,3 (38,9 milioi euro) zientziei zegokien, %28 (21,9 milioi euro) jarduera teknikoei (ingeniaritzari eta arkitekturari), osasun zientziei %11,5 (9 milioi euro) eta %10,1 (7,9 milioi euro) gizarte- eta zuzenbide-zientziei.

---

[38] *Jarduera nagusitzat I+G jarduerak (ingeniaritza eta aholkularitza teknologikoa) dituzten eta, beraz, gainerakoek ez bezalako profil, helburu eta finantziazioak dituzten enpresak.*

[39] *Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV/EHU) egiten dituzten I+G+B jarduerei eta jarduera horien neurriari dagokienez, bereizi behar dira, batetik, funts espezifikoak (kanpo-finantziaziodun proiektuak, kontratuak eta hitzarmenak, ikerketa-bekak eta ikerketa-azpiegiturako inbertsioak); eta bestetik, funts orokorrak, zeinak irakasleek ikerketa-jardueretan ematen duten denboraren eta horrek eragiten duen kostu orokorraren zenbatespenean oinarrituta dauden. Gastu horiek dira, zehazki, irakasleen gastuak, ondasun eta zerbitzuen gastuak, inbertsioak eta beste gastu batzuk. Epigrafe honetan aztertzen diren datuak lehenbiziko multzoko funtsei dagozkie, hau da, funts espezifikoei.*

II.7.11. TAULA. I+G+B JARDUERA ONARTU / KONTRATATU MOTEN BILAKAERA (eurotan)								
	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2013-14 aldak.	2014-15 aldak.
Ikerketa proiektuak	26.745.792	26.539.707	29.380.420	22.128.122	19.890.219	26.987.400	-10,1	35,7
I+G kontratuak, UALeko 83. artikuluaren arabera	11.492.239	10.013.434	9.417.928	6.873.277	8.540.024	7.411.502	24,2	-13,2
Ikerketa taldeak*	23.741.678	3.782.468	391.414	24.921.615	428.702	24.011.497	-98,3	5501,0
Ikertzaileen eta teknikarien kontratazioa	3.935.608	1.500.947	3.851.768	3.810.399	3.763.459	4.872.250	-1,2	29,5
Prestatzen ari diren langileak	3.687.198	2.386.392	11.781.818	12.104.551	12.914.319	11.377.329	6,7	-11,9
Azpiegitura zientifikoa	1.646.001	3.329.225	599.585	468.581	568.010	1.688.461	21,2	197,3
Ikertzaileen mugikortasuna	487.055	631.348	527.045	319.380	547.847	488.388	71,5	-10,9
Ekintza bereziak	96.818	159.765	194.608	32.490	43.228	13.800	33,1	-68,1
Ikerketa Zerbitzu Orokorrek (SGIKER) emandako zerbitzuak	1.086.098	1.212.746	1.269.502	1.183.832	1.177.644	1.283.998	-0,5	9,0
GUZT, ikerketa talde gabe	49.176.809	45.773.565	57.022.674	46.920.632	47.444.750	54.123.128	1,1	14,1
GUZT., ikerketa taldeekin	72.918.487	49.556.033	57.414.088	71.842.247	47.873.452	78.134.625	-33,4	63,2

** *2010eko, 2013ko eta 2015eko datuak ikerketa-taldeentzako Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza osoei buruzkoak dira, baita zenbateko horiek hainbat urtetan erabiltzen badira ere; hori, gainerako jardueren finantziazioa adierazteko erabilitako irizpideekin bat eginez. 2012an Eusko Jaurlaritzak ikerketa-taldeen beste deialdi bat finantzatu zuen, baina 2013ra arte ez zen UPV/EHUko aurrekontuan sartu; beraz, deialdi horrek 2013ko estatistika datuetan du eragina.*

Iturria: UPV/EHU zenbakitan. Ikerketa

II.7.12. TAULA. I+G+B JARDUERETARAKO FUNTSEN JATORRIA, EUSKO JAURLARITZAREN IKERKETA-TALDEEN DEIALDIEN ARABERA								
	2010-12 aldia		2013-14 aldia		2014		2015	
	Guzt. (euroak)	% bertikala	Guzt. (euroak)	% bertikala	Guzt. (euroak)	% bertikala	Guzt. (euroak)	% bertikala
Autonomiakoa	56.394.861	31,3	47.550.641	39,7	11.769.550	24,6	34.730.791	44,4
Estatukoa	42.340.683	23,5	19.434.467	16,2	9.406.481	19,6	7.998.193	10,2
Zuzeneko kontratazioa	32.865.201	18,3	16.796.216	14,0	9.059.973	18,9	15.396.801	19,7
Berezko finantzazioa (programa-kontratua)	26.001.225	14,5	23.299.423	19,5	11.335.224	23,7	11.210.211	14,3
Nazioartekoa	22.286.639	12,4	12.634.950	10,6	6.302.222	13,2	8.798.627	11,3
GUZT.	**179.888.608**	**100,0**	**119.715.698**	**100**	**47.873.451**	**100,0**	**78.134.624**	**100,0**

Iturria: UPV/EHU zenbakitan. Ikerketa

II.7.13. TAULA. I+G+B JARDUEREN BILAKAERA ZIENTZIA-EREMUEN ARABERA						
	2010	2011	2012	2013	2014	2015
Zientziak	42.292.722	24.445.991	27.318.492	30.838.204	19.219.258	33.857.063
Ingeniaritza eta Arkitektura	12.396.143	9.078.666	9.356.914	16.258.017	11.645.721	21.864.854
Osasun Zientziak	5.833.479	4.559.155	7.147.028	8.612.482	4.171.620	9.014.132
Gizarte eta Lege Zientziak	5.104.294	6.060.703	8.688.210	10.691.236	6.959.962	7.872.085
Arteak eta Humanitateak	7.291.849	5.411.518	4.903.444	5.442.307	5.876.891	5.526.489
GUZT.	**72.918.487**	**49.556.033**	**57.414.088**	**71.842.247**	**47.873.451**	**78.134.624**

Iturria: UPV/EHU zenbakitan. Ikerketa

Patenteen arloan, 2014 eta 2015 urte bitartean hazkunde nabarmena izan zen. Hala, 2015ean 39 patente erregistratu ziren. 2014an, berriz, 28 izan ziren.

Azkenik, irakurritako doktorego tesien kopuruak behera egin zuen 2014koaren aldean; 2015ean 410 izan ziren.

II.7.14. TAULA. BESTE EMAITZA BATZUK. ARGITALPENAK ETA ERREGISTRATURIKO PATENTEAK											
	Zientzia ekoizpena			Patenteak							Irak. Dokt. tesiak
	Zientziak, Osasun Zientziak , Ingeniaritza eta Arkitektura	Gizarte eta Lege Zientziak, Arteak eta Humanitateak	**Guzt.**	Espainiar.	Europar.	PCT** (Berriak eta luzapenak)	Amerikar.	Japoniar.	B.b.	Guzt.	
2010	1.660	266	**1.895**	19	8	16	5	0	16	64	321
2011	1.697	295	**1.966**	25	8	13	4	1	40	91	328
2012	1.993	298	**2.253**	21	11	11	13	2	21	79	327
2013	2.204	325	**2.294**	8	6	15	4	0	29	62	383
2014	2.518	376	**2.854**	7	8	9	4	0	0	28	479
2015	-	-	-	7	4	5	7	3	13	39	410
Iturria: UPV/EHU zenbakitan. Ikerketa eta Ikerketaren emaitzak											

c) Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sareko zentro teknologikoen I+G jarduerak (ZTES) 40

2015eko ekainaren 23an, 109/2015 DEKRETUA onetsi zen, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sarearen osaera arautu eta eguneratu zuena. Haren proiektua Euskadiko Gizarte Arazoetarako Batzordeak jakinarazi zuen 2015eko apirilaren 29ko osoko bilkuran (6/15 IRIZPENA).

ZTESeko erakundeen sailkapena eta sare horretan sartzeko eskaturiko baldintzak aldatu direnez gero, EUSTATek ez du datu gehiagorik argitaratu. Horren ondorioz, horri buruzko ikuspegia izateko, jo beza irakurleak 2015eko Memoriara. Hala ere, ohartarazi beharra dago Sareko erakundeen sailkapena ez dela berdina gaur egun.

7.1.3. BERRIKUNTZA JARDUERAK

a) Enpresa berritzaileak

Euskal Autonomia Erkidegoko "Berrikuntzari buruzko galdeketa"ko datuen arabera (EUSTAT), 2012-2014 eta 2013-2015 aldien artean enpresa berritzaileen ehunekoak behera egin zuen.[41] Hala, 2013-2015 aldian enpresen %16,9 izan ziren berritzaileak (aurreko aldian baino 4 hamarren gehiago). Portzentaje hori ateratzen da kontuan hartuta hala berrikuntza teknologikoko enpresak (produktuak eta/edo prozesuak berritzen dituzte eta enpresen %11,9 dira; aurreko aldian %12,2) nola teknologiaz aparte berrikuntza-jardueretan aritzen diren enpresak (antolamendua eta/edo merkaturatzea berritzen dituzte eta enpresen %9,5 dira, aurreko aldiko ratio bera).

Hamar lanpostu eta gehiago enpresak bakarrik aintzat hartuz gero (EINekoekin alderatu ditzakegu, horiek ez baitute hamar lanpostu baino gutxiagoko enpresei buruzko informaziorik), enpresa berritzaileen (teknologikoen eta teknologikoak ez direnen) portzentajea handiagoa da, % 34,6, hain zuzen ere (aurreko aldian % 34,5). Estatuan, EINen berrikuntzari buruzko galdeketaren arabera, aldi horretako ratioa % 28,5 da (aurreko aldian %28,6). %34,6 horretatik, % 28,2 berrikuntza teknologikoari dagokio eta % 19,9 berrikuntza EZ teknologikoari.

---

[40] *Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sareko agenteak hiru azpisektoretan sailkatu eta egituratzen dira:*

- *Zientzia eta Unibertsitate Azpisistema, hauexek biltzen dituena: Unibertsitateak, Ikerketa Kooperatiboko Zentroak (IKZ) eta Oinarrizko eta Bikaintasuneko Ikerketa Zentroak (OBIZ).*
- *Garapen Teknologiko eta Berrikuntzako Azpisistema, hauexek biltzen dituena: Korporazio teknologikoak, zentro sektorialak, garapeneko eta transferentzia teknologikoko nazioarteko zentroak, egiaztapenerako erakundea eta laborategiak, ikerketako erakunde publikoak, I+G unitateak eta osasuneko I+G unitateak.*
- *Berrikuntza Laguntzek Azpisistema, hauexek biltzen dituena: Parke teknologikoak eta enpresa zentroak eta berrikuntzako enpresa zentroak eta berrikuntzako bitarteko erakundeak.*

[41] *Inkesta hori edozein neurri eta edozein jarduera-sektoretako establezimenduei egiten zaie, salbu honako hauei: lehen sektorea, herri-administrazioa, elkarteen jarduerak, etxeko jarduerak eta lurraldez kanpoko antolaketa-jarduera eta erakundeak. Hau da, Jarduera Ekonomikoen Sailkapen Nazionalekoei (JESN-2009 2. Berrikuspena), salbu jarduera nagusitzat 01-03, 84, 94, 97, 98 eta 99 ataletako jardueraren bat duten establezimenduei.*

Berrikuntza teknologikoa duten enpresak enpresa guztien %11,9 dira, hots, 19.338 enpresa EAEn (-0,3 puntu 2014ko datuen aldean). Portzentaje hori %28,2raino igotzen da soilik 10 langile edo gehiagoko enpresak hartzen badira kontuan (+0,7 puntu 2014aren aldean).

II.7.15. TAULA. JARDUERA BERRITZAILEAK GAUZATZEN DITUZTEN ENPRESEN PORTZENTAJEAREN BILAKAERA (EAEko ENPRESA GUZTIEN ALDEAN

		2008-10	2009-11	2010-12	2011-13	2012-14	2013-15
Enpresak, guzt.	Enpresa berritzaileak (berrikuntza teknologikoa eta teknologiaz apartekoa) (1)	19,8	17,8	17,3	16,7	16,5	16,9
	Berrikuntza teknologikoko enpresak (1)	13,8	12,3	11,6	12,7	12,2	11,9
	Teknologiaz aparteko berrikuntza-jarduerak dituzten enpresak	11,8	10,7	10,0	9,1	9,5	9,5
	EBE, berrikuntza teknologikoko edo teknologiaz aparteko jarduerak dituztenak	20,3	18,3	17,7	17,1	17,0	17,3
Bederatzi lanpostu baino gehiagoko enpresak (EINeko eta EUROSTATeko datuekin alderatzeko)	Enpresa berritzaileak (berrikuntza teknologikoa eta ez teknologikoa) (1)	38,9	37,8	36,2	34,7	34,5	34,6
	Berrikuntza teknologikoko enpresak (1)	30,1	30,7	28,6	28,4	27,5	28,2
	Teknologiaz aparteko berrikuntza-jarduerak dituzten enpresak	26,2	23,7	23,1	20,0	20,5	19,9
	EBE, berrikuntza teknologikoko edo teknologiaz aparteko jarduerak dituztenak	41,4	39,8	38,3	37,6	37,1	37,2

(1) Ez dira sartzen berrikuntza-jarduerak erabat gauzatu gabe dituzten eta arrakastarik gabeko berrikuntzak egin dituzten establezimenduak, zeren eta produktua (ondasuna edo zerbitzua) enpresaren, lantokiko enpresaren edo barne-harremanetako barne-jardunean sartu behar izan da.
EIN: enpresa berritzaileak edo aribideko edo arrakastarik gabeko berrikuntzak dituztenak
Iturria: EUSTAT. Berrikuntzari buruzko inkesta

Establezimendua analisirako unitatetzat hartuta eta lurralde historikoen arabera aztertuta, Gipuzkoan 10 lanpostu edo gehiagoko establezimenduen %35 berritzaileak dira, ondoren Araban %34,7 eta Bizkaian %34,3.

Sektoreka, industria-enpresen % 41,3, zerbitzu-establezimenduen % 32,6 eta eraikuntza-enpresen % 29,2 dira berritzaileak. Jarduera-azpisektoreei dagokienez, industrian hauek dira nagusi: industria kimikoa eta produktu farmazeutikoak (%63,9), garraio-materiala (%63,6), produktu informatikoak eta elektronikoak; material eta ekipo elektrikoa (%62,8), makineria eta ekipoa (%58,8) eta energia elektrikoa, gasa eta lurruna (%57,6). Zerbitzuetan: osasun-jarduerak (%80,7) eta finantza- eta aseguru-jarduerak (%68,4).

II.7.16. TAULA. 10 LANGILE ETA GEHIAGOKO ESTABLEZIMENDUEN %-a, BERRIKUNTZA-MOTAREN ETA JARDUERA-ADARRAREN ARABERA

	2013-15					
	Teknologiaz aparteko berrikuntza-mota		Teknologiaz aparteko establezimendu berritzaileak (1)	Establezimendu berritzaile teknologikoak (1)	Establezimendu berritzaileak (1) (teknologikoak edo teknologiaz apartekoak)	EBE establezimendu berritzaileak (2) (teknologikoak edo teknologiaz apartekoak)
	antolaketakoak	merkaturatzekoak				
Guzt.	**16,5**	**9,1**	**19,9**	**28,2**	**34,6**	**37,2**
Araba	16,9	9,2	20,3	28,2	34,7	37,2
Bizkaia	16,5	9,1	19,6	28,6	34,3	36,9
Gipuzkoa	16,3	9,1	20,0	27,7	35,0	37,8
Industria	16,1	10,3	20,9	36,8	41,3	45,5
Erauzketa-ind., kokeg.. eta petrolio-finketa	32,1	.	32,1	19,6	32,1	44,6
Elikagaien eta edarien industria eta tabakoa	2,9	11,6	13,7	20,3	27,0	35,7
Ehuna, jantzigintza, larrua eta oinetakoak	7,7	15,4	15,4	36,5	44,2	44,2
Egurra, papera eta arte grafikoak	4,9	4,7	8,6	23,3	26,2	31,6
Industria kimikoa eta farmazia-produktuak	12,9	12,9	17,8	63,9	63,9	68,5
Kautxua eta plastikoak	17,8	12,7	20,0	43,6	47,5	54,4
Metalurgia eta metalezko produktuak	15,8	6,5	19,9	30,7	36,6	39,5
Prod. Informatikoak eta elektronikoak. Material eta ekipo elektrikoa	34,7	19,6	36,9	56,4	62,8	64,0
Makineria eta ekipoa	23,0	16,8	28,1	56,1	58,8	61,6
Garraio-materiala	20,4	4,8	25,2	60,0	63,6	71,3
Altzariak eta beste manufaktura batzuk	14,3	12,4	23,8	30,9	32,9	38,7

Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	50,9	48,4	50,9	57,6	57,6	64,9
Ura hornidura eta saneamendua	2,3	.	2,3	23,2	23,2	23,2
Eraikuntza	8,0	4,0	10,0	26,1	29,2	32,3
Zerbitzuak	17,4	9,1	20,4	25,2	32,6	34,6
Merkataritza eta ibilgailuen konponketa	13,4	10,2	16,8	22,2	27,4	28,5
Garraioa eta biltegiratzea	7,5	4,3	9,4	15,6	20,8	25,7
Ostalaritza	10,5	9,7	15,5	8,6	19,8	20,4
Telekomunikazioa, informatika eta hedabideak	21,2	20,0	31,4	45,7	50,2	54,6
Finantza- eta aseguru-jarduerak	46,8	35,5	54,5	40,1	68,4	68,4
Higiezinen arloko jarduerak	31,1	13,3	31,1	6,7	31,1	31,1
I+G, aholkularitzak eta bestelako jarduera profesionalak eta teknikoak	25,2	18,3	30,2	39,8	48,6	55,5
Zerbitzu osagarriak	8,1	3,2	9,4	7,1	12,7	14,3
Bidaia-agentziak eta turismo operadoreak	7,5	.	7,5	7,5	7,5	7,5
Hezkuntza	17,2	4,8	18,4	30,8	38,9	39,5
Osasun jarduerak	65,9	3,3	65,9	75,2	80,7	81,9
Gizarte, jolas, kultur eta bestelako jarduerak	11,0	3,9	11,4	13,8	19,4	20,5

(1) Ez dira sartzen berrikuntza-jarduerak erabat gauzatu gabe dituzten eta arrakastarik gabeko berrikuntzak egin dituzten establezimenduak.
(2) Berrikuntza-jarduerak erabat gauzatu gabe dituzten eta arrakastarik gabeko berrikuntzak egin dituzten establ. bakarrik sartzen dira.
Iturria: EUSTAT. Berrikuntzari buruzko inkesta

b) Berrikuntza teknologikorako jardueretako gastua

EUSTATen "*Berrikuntza Teknologikoari buruzko Inkesta*"ren arabera, berrikuntza teknologikorako jardueren guztizko gastuak behera egin du lau urtez jarraian, hain zuzen ere 2015ean %1,2 jaitsi zen 2014aren aldean, eta guztira 2.443,2 M€, hots BPGaren %3,5 (%3,7 aurreko aldian).

Gastuaren beherakada hori gertatu da enpresa txikienek gastu gutxiago izan dutelako berrikuntzan, zeren eta 10 langile edo gehiagoko enpresen gastua 2.080,1 M€ baita, hots, %0,6 hazi da aurreko urtearen aldean, baina egonkor eusten zaio BPGaren %3aren inguruan.

Beste urte batez, gastu horren zatirik handiena barneko I+G arloari dagokio (BPGaren %1,8 enpresa guztiekiko eta %1,7 10 lanpostutik gorako enpresekiko) eta makineriaren eskuraketa (BPGaren 0,78 enpresa guztiekiko eta %0,5 lanpostutik gorako enpresekiko).

Jarduera-sektoreka eta 10 lanpostu eta gehiagoko enpresen artean, industrian, gastua gehienbat garraio-materialean biltzen da, gastuaren %15,1; ondoren, metalurgian eta metalezko produktuetan, %8,2; produktu informatikoetan eta elektronikoetan; material eta ekipo elektrikoan; eta makineria eta ekipoan (biotan %5,9).

II.7.17. TAULA. BERRIKUNTZA TEKNOLOGIKORAKO JARDUERETAKO GASTUA, JARDUERA-SEKTOREEN ARABERA, 10 LANPOSTU BAINO GEHIAGOKO ENPRESETAN, 2015

	Milakoak	% bertikala
Guzt.	2.080.090	
Industria	870.422	41,8
Erauzketa-ind., kokeg.. eta petrolio-finketa	4.629	0,2
Elikagaien eta edarien industria eta tabakoa	11.964	0,6
Ehuna, jantzigintza, larrua eta oinetakoak	3.055	0,1
Egurra, papera eta arte grafikoak	15.644	0,8
Industria kimikoa eta farmazia-produktuak	27.407	1,3
Kautxua eta plastikoak	32.723	1,6
Metalurgia eta metalezko produktuak	171.216	8,2
Prod. Informatikoak eta elektronikoak. Material eta ekipo elektrikoa	121.772	5,9
Makineria eta ekipoa	122.410	5,9
Garraio-materiala	314.618	15,1
Altzariak eta beste manufaktura batzuk	20.953	1,0
Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	19.963	1,0
Ura hornidura eta saneamendua	4.068	0,2
Eraikuntza	18.874	0,9
Zerbitzuak	1.190.794	57,2
Merkataritza eta ibilgailuen konponketa	59.283	2,9
Garraioa eta biltegiratzea	45.227	2,2
Ostalaritza	899	0,0
Telekomunikazioa, informatika eta hedabideak	126.200	6,1
Finantza- eta aseguru-jarduerak	49.010	2,4
Higiezinen arloko jarduerak	.	
I+G, aholkularitzak eta bestelako jarduera profesionalak eta teknikoak	563.498	27,1
Zerbitzu osagarriak	926	0,0
Bidaia-agentziak eta turismo operadoreak	6	0,0
Hezkuntza	265.130	12,7
Osasun jarduerak	77.651	3,7
Gizarte, jolas, kultur eta bestelako jarduerak	2.965	0,1

Iturria: EUSTAT.Berrikuntzari buruzko inkesta

Bestalde, zerbitzuen sektorean nabarmentzekoa da I+G arloa, aholkularitza eta beste jarduera profesional eta tekniko batzuk, gastuaren %27,1arekin, eta hezkuntzaren sektorea, %12,7arekin. Ondoren, nahikoa urrun, telekomunikazioak, informatika eta hedabideak daude, %6,1arekin.

II.7.18. TAULA. BERRIKUNTZA TEKNOLOGIKOKO JARDUERETARAKO GASTUAK, BPGaren EHUNEKOAREN ARABERA

	GUZT. ENPRESAK						>= 10 LANGILE					
	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2010	2011	2012	2013	2014	2015
Guzt. (M€)	**2.581,9**	**2.675,7**	**2.583,7**	**2563,5**	**2.474**	**2.443,2**	**2.159,5**	**2.214**	**2.179,5**	**2.197,7**	**2.067,7**	**2.080,1**
BPGaren %	**3,9**	**4**	**4**	**3,9**	**3,7**	**3,5**	**3,3**	**3,3**	**3,4**	**3,3**	**3,1**	**3,0**
I+G barne-jard.	2,1	2,1	2,1	2	1,9	1,8	1,9	1,9	2	1,9	1,8	1,7
I+G kanpo-jard.	0,5	0,5	0,6	0,6	0,6	0,6	0,4	0,4	0,5	0,5	0,5	0,5
Makineria	0,8	0,8	0,8	0,8	0,9	0,7	0,6	0,6	0,6	0,6	0,6	0,5
Bestelako jakintzak	0,1	0,1	0,1	0,1	0	0,1	0,1	0,1	0,1	0,1	0	0,1
Prestakuntza	0,1	0,1	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Merkaturatzea	0,1	0,1	0,1	0,1	0,1	0,1	0,1	0	0	0,1	0	0
Diseinua eta prestakuntza	0,3	0,4	0,3	0,2	0,2	0,2	0,2	0,2	0,2	0,2	0,1	0,2

Iturria: EUSTAT. Berrikuntzari buruzko inkesta

Berrikuntza teknologikoko enpresen %26,6k finantzazio publikoa jasotzen du. Laguntzen jatorriari erreparatuz gero, nabarmentzekoak dira Eusko Jaurlaritzatik datozenak, enpresa berritzaile guztien %17,9, hots, laguntzak jasotzen dituzten eta berrikuntza duten enpresa guztitik %67,3k Eusko Jaurlaritzatik jasotzen du.

7.1.4. Europako berrikuntza-adierazleen panela, IUS 2014

Europako Berrikuntza Adierazleen Panel berria (IUS 2010) herrialdeen ekonomiek berrikuntza-jarduerak egiteko zenbaterainoko gaitasuna duten eta zenbateraino garatzen dituzten neurtzen saiatzen da.

EB28ko herrialdeak lau mailatan daude sailkatuta, lortu duten puntuazioa aintzat hartuta. Lehenbizikoan, “berrikuntzako herrialde liderrak” deritzonean, batez bestekoaren %120tik gorako puntuazioa lortzen duten herrialdeak daude: Suedia (0,70), Danimarka (0,70), Finlandia (0,65), Alemania (0,63) eta Herbehereak (0,63).

Bigarren taldea, “berrikuntza altuko herrialdeak” Europako batez bestekoaren % 90 eta % 120 bitarteko puntuazioa lortzen duten herrialdeek osatzen dute. Beheranzko hurrenkeran, hauexek ditugu: Irlanda, Belgika, Erresuma Batua, Luxenburgo, Austria, Frantzia eta Eslovenia, 0,61 eta 0,48 bitarteko puntuazioekin.

Hirugarren taldean, “berrikuntza maila ertaineko herrialdeak” izenekoan (batez bestekoaren % 50 eta % 90 bitartean, Zipre, Estonia, Txekiari Errepublika, Italia, Portugal, Grezia eta Espainia daude, besteak beste, 0,24 eta 0,18 bitarteko balorazioekin.

Eta “berrikuntza txikiko herrialdeak” deritzon laugarren taldean (Europako batez bestekoaren % 50etik behera), Bulgaria eta Errumania daude, 0,24 eta 0,18 puntu artean lortuta.

Euskadin gora egin du adierazleak azken urtean (2015eko 0,478tik 2016ko 0,482ra), eta28ko EBren batez bestekora hurbiltzen da (0,52). Hala, “berrikuntza maila handiko herrialdeen” taldearen mailan kokatzen da, 28-EBren batez bestekoaren %92,4 iritsi baita.

II.7.1. GRAFIKOA. EUROPAKO BERRIKUNTZA PANELA IUS 2016. EAE ETA 28-EB



Iturria: EUSTAT eta PRO INNO EUROPE. INNO Metrics. Europar Batasuna

Europako Berrikuntzako Adierazle-panela hiru bloke nagusitan (Bideratzaileak, Enpresa-jarduerak eta Outputak) eta zortzi dimentsiotan dago egituratuta, guztira 25 adierazle.

- Hiru dimentsio daude bideratzaileetan: giza baliabideak, ikerkuntza-sistema eta finantzazioa eta laguntza.
- Enpresa-jardueretan, hiru dimentsio daude: enpresa-inbertsioa, enpresa-loturak eta –ekimena eta aktibo intelektualak.
- Outputetan bi dimentsio daude: berritzaileak eta ondorio ekonomikoak.

II.7.19. TAULA. EUROPAKO BERRIKUNTZA-ADIERAZLEEN PANELA. 3 BLOKE ETA 8 DIMENTSIO. INDIZE KONPOSATUAK. 2015-2016KO ALDERAKETA

	2015			2016		
	28EB	EAE	ESTATUA	28EB	EAE	ESTATUA
IUS	**0,56**	**0,50**	**0,39**	**0,52**	**0,48**	**0,36**
BIDERATZAILEAK	**0,57**	**0,52**	**0,46**	**0,51**	**0,55**	**0,41**
Giza baliabideak	0,60	0,67	0,44	0,58	0,72	0,45
Ikerketa sistema	0,54	0,52	0,53	0,47	0,60	0,41
Finantziazioa eta laguntza	0,56	0,31	0,39	0,49	0,23	0,36
ENPRESA-JARDUERA	**0,54**	**0,48**	**0,34**	**0,50**	**0,42**	**0,31**
Enpresa-inbertsioa	0,45	0,42	0,20	0,43	0,37	0,18
Enpresa-ekimena eta loturak	0,47	0,61	0,24	0,47	0,61	0,24
Aktibo intelektualak	0,62	0,43	0,49	0,56	0,32	0,44
OUTPUT-AK	**0,57**	**0,51**	**0,35**	**0,56**	**0,46**	**0,36**
Berritzaileak	0,51	0,37	0,24	0,53	0,37	0,25
Ondorio ekonomikoak	0,60	0,56	0,43	0,57	0,50	0,43

Iturria: EUSTAT. Berrikuntza-adierazleen Panela (IUS)

28-EBren batez bestekoarekin alderatuta, hiru dimentsiotan gailentzen da EAE; horietako bitan nabarmendu zen aurreko edizioetan ere (Giza baliabideak eta loturak eta enpresa-ekimena), eta lehenbiziko aldiz, argi kokatu da Ikerketa Sistemaren batez bestekoaren gainetik. Beste bi dimentsiotan, Enpresa-inbertsioan eta Ondorio ekonomikoetan, EAEn antzeko zenbakiak lortu dira, pixka bat txikiagoak badira ere. Gainontzeko hiru dimentsioetan -Finantzazioa eta laguntza, Aktibo intelektualak eta berritzaileak-, puntuazioa Europako batez bestekoa baino txikiagoa da argi eta garbi.

Aurreko urteetan nabarmendu ez arren aurten gailendu den dimentsioari dagokionez ikusten denez, kopuru hau nabarmentzen da: “nazioarteko baterako argitalpenak milioi biztanleko”, 1.302 EAEn. EB-28ko eremuan, berriz, 459 da, baita “nazioarte mailan gehien aipaturiko argitalpen zientifikoak” (bikainak) dimentsioan, %10,53 Euskadin eta %10,51

28-EBn. Kopuru txikiagoak ditu, berriz, honako adierazle honek: "EBtik kanpoko doktoreak herrialdeko doktore guztiekiko", %14,9 EAEn eta %17,8 28-EBn.

7.1.5. 2014-2020ko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Planaren jarraipena

Planaren betetze-maila zehazteko, aginte-tokia dakar Planak. Gure 2015eko Memorian gai horri buruz bildutako informazioa eguneratzeko modurik izan ez denez gero, jo beza irakurleak memoria horretara argibide gehiago izateko.

7.2. INFORMAZIO ETA KOMUNIKAZIOAK ETA TEKNOLOGIA

7.2.1. Familien eta populazioaren IKTen ekipamenduak eta erabilerak

EUSTATen "*Familien Informazioaren Gizarteari buruzko Inkestak (FIGI)*" [42] erakusten duenez, 2016ko lehen hiruhilekoan EAEko etxeen %70,1ek ordenagailua du, hots, 15 urte eta gehiagokoen %77,3k.

Interneteko sarbideari dagokionez, familien %74,1ek zerbitzu hori du etxebizitzan (3,9 puntu portzentual gehiago 2015eko aldi berean baino). Aldi berean, sarerako sarbidea duten 15 urteko eta gehiagokoen kopuruak 3,2 hazi da 2015eko lehen hiruhilekoaren eta 2016ko lehen hiruhilekoaren artean; %81,2an kokatu da.

Bestalde, telefono mugikorra du familien % 94,8k. 15 urteko eta gehiagoko biztanleei dagokienez, %96,8raino igotzen da telefono mugikorra dutenen ehunekoa.

Interneteko konexioa eta erabilera direnaz bezainbatean, 15 urteko eta gehiagoko gizonen % 77,1 da Interneten erabiltzailea. Emakumeak, berriz, % 71,2.

Generoen arteko aldea 7,6 puntu portzentualean kokatu zen 2014ko lehen hiruhilekoan. 2015ean, berriz, 8,3 puntura igo zen, baina behera egin du 2016ko lehen hiruhilekoan, 5,9 puntura.

Adina denaz bezainbatean, ia euskal gazte guztiek (24-34 urte bitartekoak) eta 35-44 urte bitarteko taldeko pertsona ia guztiek erabiltzen dute Internet (%99k 15-24 urte bitartekoa adin-tartean, %96,2k 25-34 urte bitarteko adin-tartean eta %97,1ek 35-44 urte bitarteko adin-tartean). Nabarmentzekoa da 55 eta 64 urte bitarteko adineko erabiltzaileen igoera, %7,2koa da, eta ondoren 45 eta 54 urte bitartekoena, %5,8koa hain zuzen ere.

Jarduerari dagokionez, ikasleen % 99,2 Interneteko erabiltzailea da. Langileen artean, berriz, % 94,2 da erabiltzaile, eta jardunean ari ez diren eta langabezian dauden pertsonen artean, berriz, %46,9. 2015eko lehen hiruhilekoaren aldean izandako hazkunderik handiena azken taldean kokatzen da, % 4,4koa hain zuzen ere.

Familia-etxea da oraindik ere Interneten sartzeko tokirik gogokoena, zeren eta erabiltzaileen % 97,3 etxetik konektatzen baita. Behera egin du Interneten lanetik edo ikastetxetik sartzen direnen kopuruak, hurrenez hurren, %3,5 eta %0,1.

Gure Memoriaren aurreko edizioan genioenez, hauxe izango litzateke Interneteko konexiorik ez duten pertsonen profila, ezaugarri soziodemografikoen arabera: bakartuta bizi diren pertsonak, 55 urtekoak eta gehiagokoak, prestakuntza maila txikiagokoak eta langabeak. Interneteko konexioa duten pertsonen profila hau litzateke: Ikaslea, 35 urtetik beherakoa (hala ere, 55 urtera arteko adin-tarte guztiek gainditzen dute %90), ikasketa ertainak eta goi-mailakok dituena. Ildo horretan, nolabaiteko talde kaltetuak daudela esan genezake informazioaren eta komunikazioaren teknologiei dagokienez.

[42] *Familia-etxebizitzetan bizi diren sei urte eta gehiagoko pertsonen multzoa.*

II.7.20. TAULA. BIZTANLERIAREN IKT-EN EKIPAMENDUAK ETA INTERNETEKO ERABILTZAILEAK. LEHEN HIRUHILEKOAK

Etxeen eta 15 urte edo gehiagokoen ekipamenduak				Interneteko erabiltzaileak			
	2015 (%)	2016 (%)	Aldakuntzako portzentaje puntuak, 15-16		2015 (%)	2016 (%)	Aldakuntzako portzentaje puntuak, 15-16
Familiak	**100**	**100**		**Interneteko biztanleria**	**71,7**	**74,1**	**2,4**
				Gizonak	76,0	77,1	1,1
Ordenagailua	70,6	70,1	-0,5	Emakumeak	67,7	71,2	3,5
Telefono mugikorra	93,4	94,8	1,4	*15-24 urte*	99,1	99,0	-0,1
Internet	70,2	74,1	3,9	*25-34 urte*	97,0	96,2	-0,8
Seme-alabadunak	92,7	93,5	0,8	*35-44 urte*	95,8	97,1	1,3
Bikote bakarrekoak	55,6	61,3	5,7	*45-54 urte*	86,6	92,4	5,8
….Pertsona bakarrekoak	44,6	51,9	7,3	*55-64 urte*	67,2	74,4	7,2
15 urte edo gehiagokoak	**100**	**100**		*65 urte eta gehiago*	21,1	22,5	1,4
				Ikasten	98,7	99,2	0,5
Ordenagailua	78,4	77,3	-1,1	Lanean	91,8	94,2	2,4
Internet	78,0	81,2	3,2	Langabezian	42,5	46,9	4,4
Ordainketako TBa	26,3	26,3	0,0	*Etxetik sartzen dira*	96,3	97,3	1
DVDa	63,0	62,7	-0,3	*Lanetik sartzen dira*	42,5	39,0	-3,5
Telefono mugikorra	95,9	96,8	3,9	*Ikastetxetik sartzen dira*	11,2	11,1	-0,1
				Beste toki batzuetatik sartzen dira	18,3	17,0	-1,3

Iturria: EUSTAT, ESIF

Gure Erkidegoak Estatuaren (Autonomia Erkidegoak) eta EBko herrialdeen (NUTS 2 erregioak) duen egoera erlatiboaren berri izateko, ondoren NUTS 2 erregistroetan (familiako kideren batek 16-74 bitarteko adina duten familien portzentajea) etxetik interneten sartzeko modua duten familien portzentajea azalduko dugu. EUROSTATen arabera, Autonomia Erkidegoetako konparaziozko datuek honelako datuak ematen dituzte: EAEk %83 du, eta aurretik dira Madril (%88), Melilla (%86) eta Ceuta (%84) eta Kataluniaren eta Nafarroaren parean. Alabaina, portzentaje hori urruti dago Europako iparraldeko eskualdeetan ikusten diren erreferentzietatik; izan ere, hainbat kasutan %90 gainditzen dute, eta batzuetan %100a.

II.7.2. GRAFIKOA. ETXETIK INTERNETERAKO SARBIDEA DUTEN ETXEEN EHUNEKOA (16-74 URTEKO KIDEREN BATEK), 2016



Iturria: Eurostat, Espainiako NUT eskualdeak

7.2.2. IKTen ekipamenduak eta erabilerak EAEko enpresetan

EUSTATen "*Enpresen Informazioaren Gizarteari buruzko Inkestak*" oro har erakusten duenez, euskal enpresetan gero eta ugariagoak dira IKT ekipamenduak, eta handituz doa teknologia horiek erabiltzen dituzten langileen portzentajea. Ekipamendurik hedatuenak orain ere telefono mugikorra eta ordenagailua dira, eta ondoren Internet eta posta elektronikoa.

Hala, 2016an, establezimenduen %87,6k ordenagailua zuen, azken urtean 1,5 puntu portzentualeko igoera izan ondoren. Establezimendu guztien %85,1ek posta elektronikoa dute, 1,3 puntu hobetu ondoren, eta %86,2k Interneteko sarbidea dute, 2,1 puntu hazi ostean. Bestalde, telefono mugikorrak jarraitzen du gehien ezarrita dagoen IKT ekipamendua; izan ere, euskal establezimenduetatik %92,3tan dago. Azken urtean 2,5 igo da portzentajea. Gainera, enpresen erdiak (%51,4) web orria du, aurreko urtean baino 0,9 puntu gehiago.

Jarduera-sektoreen arabera, industri sektoreko enpresek dute ezarpen teknologikoko mailarik altuena, eta ondoren zerbitzuen sektoreko enpresak eta eraikuntzako enpresak datoz. Industria-sektorean, gainera, ekipamendu guztiak daude zabalduta.

Enplegu-estratuen araberako azterketak erakusten duenez, enpresaren tamainaren araberakoa da gehienbat EAEko enpresen ekipamendu mailan oraindik ere. Ekipamenduen portzentaje horiek handiagoak dira 10 lanpostu edo gehiagoko establezimenduetan, baina ia gehieneko mailara iritsi denez gero, enpresa horien hobekuntza oso txikia da ekipamenduen aldetik.

Nabarmentzekoa da 0tik 2rako estratuko ekipamendu murritza, batez bestekotik beherako emaitzak dituen bakarra ekipamendu guztietan, baina komeni da gogoratzea autonomoak barne daudela.

II.7.21. TAULA. EAE-KO ESTABLEZIMENDUETAKO IKT EKIPAMENDUEN BILAKAERA JARDUERA-SEKTOREAREN ARABERA (establezimenduen %-a)

	Industria					Eraikuntza					Zerbitzuak					GUZTIRA				
	PCa	e-mail	Internet	Tlf mug.	Web	PCa	Email-a	Internet	Tlf mug.	Web	PCa	e-mail	Internet	Tlf mug.	Web	PCa	e-mail	Internet	Tlf mug.	Web
2011	83,8	78,6	79,1	88,9	49,3	74,4	67,5	71,0	94,4	26,6	77,1	70,5	72,0	80,0	38,1	77,2	70,7	72,4	82,8	37,3
2012	86,6	82,7	82,6	90,2	51,7	70,4	67,3	67,8	90,0	27,6	77,9	73,4	74,0	79,9	41,3	77,5	73,2	73,8	82,1	40,2
2013	87,4	85,1	84,7	89,8	57,7	80,5	79,8	78,7	89,3	29,8	81,9	77,8	78,3	82,0	44,1	82,1	78,6	78,8	83,6	43,2
2014	89,4	86,9	86,8	92,2	59,6	77,9	77,5	77,6	92,8	34,1	83,0	79,3	81,2	86,3	48,0	82,8	79,7	81,2	87,5	47,1
2015	92,1	90,6	90,1	94,1	61,0	83,2	83,8	84,1	96,3	36,6	86,0	83,2	83,6	88,5	51,6	86,1	83,8	84,1	89,8	50,5
2016	92,7	91,4	91,2	95,4	64,0	83,9	80,4	84,1	98,8	31,2	87,7	85,2	86,1	91,0	53,4	87,6	85,1	86,2	92,3	51,4
Dif.	0,6	0,8	1,1	1,3	3	0,7	-3,4	0	2,5	-5,4	1,7	2	2,5	2,5	1,8	1,5	1,3	2,1	2,5	0,9

Iturria: EUSTAT, ESI enpresak

II.7.22. TAULA. ENPRESETAK IKT-AK TAMAINAREN ARABERA (Establezimenduen %-a)

	Ordenagailua				Posta elektronikoa				Internet				Web orria			
	2013	2014	2015	2016	2013	2014	2015	2016	2013	2014	2015	2016	2013	2014	2015	2016
Guzt.	82,1	82,8	86,1	87,6	78,6	79,7	83,8	85,1	78,8	81,2	84,1	86,2	43,2	47,1	50,5	51,4
0 - 2	74	74,3	80,0	81,5	70,4	70,9	77,5	79,0	71	72,8	78,9	79,9	28,6	32,6	36,4	33,5
3 - 9	90,9	92,6	92,7	93,6	87	89,4	90,4	90,6	86,9	90,5	89,3	92,3	56,7	61,1	64,3	68,3
10 - 19	98	96,9	98,3	98,7	95,6	94,5	96,2	97,6	94,4	94,7	96,0	96,5	73,8	78,6	78,7	82,2
20 - 49	98,2	98,9	99,3	99,2	98,5	98,9	98,7	99,1	98,2	98,8	98,7	98,8	85,2	86,9	88,5	89,9
50 - 99	99,7	100,0	99,6	100,0	99,2	99,6	99,3	99,6	99,2	99,6	98,7	99,3	93,8	94,9	93,2	94,9
>= 100	100	99,6	99,8	99,6	99,7	99,5	99,7	99,5	99,7	99,5	99,7	99,5	96,5	96,7	96,5	96,4

Iturria: EUSTAT, IGI enpresak

EINen "*Enpresetako IKTen eta posta elektronikoen erabilerari buruzko Inkestak*" honako adierazle hauek darabiltza IKTen erabilera maila zelakoa den neurtzeko: Interneteko konexioa duten enpresak, Internetera konektatuta daude eta web orria duten enpresak, Internetera konektatuta dauden eta banda zabala duten enpresak, Internetera konektatuta dauden eta izenpe digitala duten enpresak, Internetera konektatuta dauden eta hodeiko konputazio soluzioak (cloud computing) erosten dituzten enpresak (horien artean daude posta elektronikoa, fitxategiak gordetzea, enpresako datu-baseen zerbitzaria eta hainbat software mota.

2016ko lehen hiruhilekoaren datuak ikusita, web orria duten enpresen ratioa eta banda zabala duten enpresen ratioa handiagoa da EAEn estatuko batez bestekoa baino (%81,7 EAEn, eta Estatuan %77,5; EAEn %88 eta Estatuan %82,9). Alabaina, txikiagoak diren enpresa hauen ratioak: interneteko konexioa duten enpresak (%96,6 eta %98,4), izenpe elektronikoa erabiltzen duten enpresak (%70,4 eta %75,1), hedabide sozialak erabiltzen dituzten enpresak (%36,9 eta %42,9) eta hodeian "cloud computing" konputazio irtenbideak erosten dituzten enpresak (%18,1 eta %19,3).

Madrilgo, Kataluniako eta Aragoiko erkidegoetan kokaturiko egoitzak dituzten 10 langile edo gehiagoko enpresak dira IKTak gehien erabiltzen dituzten enpresak.

II.7.23. TAULA. ENPRESAREN EGOITZA NAGUSIA DAGOEN AAEE-KO IKT-EN ERABILERA. 2016KO LEHEN HIRUHILEKOA
(interneteko konexioa duten 10 langile edo gehiagoko enpresen guztizkoaren gaineko portzentajea)

	Interneteko konexioa	Internet eta web orria	Banda zabal mugikorra	Izenpe digitala	Bitarteko sozialen erabilera	Cloud computing-a
ANDALUZIA	99,1	71,9	80,8	78,6	42,4	16,2
ARAGOI	99,8	84,1	87,2	69,3	39,4	15,3
ASTURIAS	99,4	81,8	80,5	75,1	41,1	12,4
BALAREAK	99,6	73,2	74,6	65,9	45,2	16,1
U. KANARIARRAK	96,7	68,1	79,4	74,2	47,5	20,4
KANTABRIA	96,9	73,9	73,9	67,0	36,6	14,6
GAZTELA ETA LEON	98,6	74,7	79,0	74,4	33,3	11,2
GAZTELA-MANTXA	94,7	68,4	79,4	77,4	41,3	9,2
KATALUNIA	98,6	82,3	84,0	76,1	46,8	25,6
VALENTZIA	98,2	75,9	84,5	72,4	45,5	16,5
EXTREMADURA	99,3	74,2	86,1	77,2	38,3	8,5
GALIZIA	97,9	76,3	79,4	71,9	35,5	11,5
MADRIL	98,7	80,8	85,4	78,1	45,3	27,4
MURTZIA	99,2	71,1	80,2	71,8	42,7	13,8
NAFARROA	99,2	80,9	81,6	81,9	36,2	11,6
EAE	**96,6**	**81,7**	**88,0**	**70,4**	**36,9**	**18,1**
ERRIOXA	97,5	75,3	81,2	80,0	43,2	11,7
CEUTA	96,4	74,6	78,4	77,8	25,4	10,3
MELILLA	100,0	56,4	72,9	48,8	35,8	9,3
ESTATUA	**98,4**	**77,5**	**82,9**	**75,1**	**42,9**	**19,3**

Iturria: EIN.Enpresetako IKTen erabilerari eta merkataritza elektronikoari buruzko inkesta

7.2.3. Interneten erabilera EAEko herritar eta enpresetan

2015eko Memoriaren gure edizioan azaldu genuenez, komunikatzea eta jakinaraztea dira jardunik ohikoenak Interneten sartzen direnen artean. Eginkizun bi horiek askotan beste erabilera batzuekin gainjartzen dira hala nola hauexekin: kontsumoa eta kudeaketa ekonomikoa, aisialdia eta kultura, administrazioarekiko erlazioa eta izapideen kudeaketa.

a) Familia eta populazioa

2015eko Memoriaren edizioan azterketa zehatza egin genuen 15 urte edo gehiagokoek Internet erabiliz egiten dituzten jardueren inguruan. Laburbilduz, jarduerarik erabilienak hauexek zirela gogoarazten genuen: lehenengo tokian posta elektronikoa (%89,9), eta ondoren WhatsApp eta mezularitzako beste aplikazio batzuk (%79,5), hedabideentzako kontsulta (%77,0) eta ondasunei eta zerbitzuei buruzko informazio bilaketa (%60,3).

Horri buruzko argibide gehiago nahi izanez gero, jo beza irakurleak gure Memoriaren aurreko ediziora.

b) Enpresak

Enpresak gero eta kontzienteago dira Interneten web-orria edukitzeak duen garrantziaz. Hala, esana dugunez, 2016an enpresa guztien %51,5 zegoen sarean (aurreko urtean baino portzentajezko 0,9 puntu gehiago), eta hamar langile edo gehiagoko enpresen %88,8 (aurreko urtean baino portzentajezko 2,3 puntu gehiago). Interneteko konexioa duten enpresak bakarrik kontuan hartuz gero, ehuneko horiek %59,7 eta %90,5 dira, hurrenez hurren.

Web guneetan ematen diren prestazioak aztertzen badugu, 2016an ohikoenak (eta hazteko joera dago) hauexek izan zirela ikusiko dugu: enpresari buruzko informazio orokorra izatea (establezimendu guztien %98,6 eta 10 lanpostu edo gehiagokoen % 99,4), ondasunen eta zerbitzuen katalogoa edo zerrenda edukitzea (%64,7 eta %66,2, hurrenez hurren) eta informazioaren pribatutasunaren gaineko adierazpena izatea (%61,6 % 73,3). Ondoren, ehuneko txikiagoarekin bada ere, hedabide sozialetan enpresen profiletarako estekak dituztenak daude (% 42,7 eta % 46,8), eskariak on-line jasotzea edo erreserbak egitea ahalbidetzen dutenak (% 24,7 eta % 25,5) eta lan-eskaintzak argitaratzen dituztenak (% 23 eta % 42).

II.7.24. TAULA. WEB PRESTAZIOAK EAE-KO WEB GUNEA DUTEN ESTABLEZIMENDUETAN ENPLEGU-MAILAREN ARABERA (WEB GUNEA DUTEN ESTABLEZIMENDUEN %-a).

	2015		2016	
	Establezi-mendu guztiak	10 lanpostu edo gehiagoko establez.	Establezi-mendu guztiak	10 lanpostu edo gehiagoko establez.
Enpresari buruzko informazio orokorra	99,1	99,6	98,6	99,4
Ondasun eta zerbitzuen zerrenda edo kat.	65,5	66,7	64,7	66,2
Eskariak onartzea edo on-line erreserbak	22,1	22,9	24,7	25,5
Produktu/zerbitzuen zuzeneko ordainketa	14,8	14,7	16,8	18,5
Eskarien jarraipena	13,2	17,1	13,8	16,8
Salmenta ondoko zerbitzua	19,2	22,7	20,2	24,3
Enpresekiko profiletarako estekak hedabide sozialetan	33,1	39,5	42,7	46,8
Informazioaren pribatutasunari buruzko adierazpena	60,9	68,9	61,6	73,3
Lan eskaintzei buruzko informazioa	20,6	37,1	23,0	42,0
Edukiak ohiko erabiltzaileentzat pertsonalizatzea	12,2	16,8	13,3	19,8
Ezinduentzako irisgarritasuna (AA egiaztagiria edo maila handiagokoa)	11,2	19,2	14,6	22,2
Produktuak pertsonalizatu edo diseinatzeko posibilitatea	4,7	9,3	5,7	6,8

Iturria: EUSTAT. Informazioaren Gizarteari buruzko Inkesta -IGI enpresak.

7.2.4. Merkataritza elektronikoa EAEn

a) Familiak eta erabiltzaileak

EUSTATen arabera, 15 urte edo gehiagoko biztanleen %33,8k erosketaren bat egin zuen Interneten 2016. urtean, eta goranzko joerari eusten zaio.

Hona hemen ondasunik erosienak: kirol materiala eta arropa (%51,9), bidaiak eta oporretako ostatuak (%31,4), eta ikuskizunetako sarrerak (%22,5). 2015eko berdinak dira, baina hurrenkera desberdinean.

Internet bidez kreditu-txartelaren zenbakia emanda erosteko segurtasunak ez dakar arazo handirik 2016an erosketaren bat egin dutenen %7,91entzat. Alabaina, gora egin du Interneten ordaintzeak segurtasun handia ematen duela uste dutenen portzentajeak (%18,4tik %23,2ra); handitu egin da segurtasunik ez dutenen ratioa ere (%3,9tik % 6,7ra). Izan ere, gora egin du “ordaintzeko beste era bat” erabili dutenen portzentajeak.

b) Enpresak

Eustaten datuen arabera, EAEko enpresa-ehunean merkataritza elektronikoa sortzen dituzten zenbaki ekonomikoetan handitu da 2016an, eta bertan parte hartzen duten enpresen kopurua ere areagotu da.

Interneten bidez edo beste sistema elektroniko batzuen bitartez (datuen truke elektronikoa (EDI) eta abar) egindako salmenten negozio-bolumena 13.732 milioi eurokoa izan zen, eta erosketena 10.518 milioi eurokoa. Hortaz, 2014tik salmenten bolumena %13,3 igo da, eta erosketena %12,8.

Zenbakitan salmentak erosketak baino handiagoak dira, baina produktuak bitarteko elektronikoen bidez erosten dituzten establezimendu gehiago daude, salmentak egiten dituztenak baino.

Hala, 2015ean establezimenduen %26,4k egin zituen merkataritza elektronikoko eragiketak (ehuneko hori aurreko urtekoa baino portzentajezko 1,6 puntu handiagoa da); gehienek, alegia %23,9k erosketak egin zituzten, eta gutxi batzuk, %6,5ek, salmentak.

Merkataritza elektronikoan 43.700 establezimendu inguru aritzen dira. Establezimendu horiek erosketa guztien %31,3 eta salmenta guztien %36,8 egiten dute merkataritza elektronikoa medio.

II.7.26. TAULA. INTERNETEN EROSKETAK EGIN DITUZTEN EAE-KO 15 URTE ETA GEHIAGOKOAK, ESKURATURIKO ONDASUNEN ETA ORDAINTZEKO ERAREN ARABERA ETA ORDAINTZEKO SEGURTASUNARI BURUZKO IRITZIA

	2014	2015	2016
Erosi dute	**28,3**	**35,8**	**33,8**
Eskuraturiko ondasunak (a)			
Kirol-materiala, arropa	42,8	57,7	51,9
Bidaiak, opor-ostatuak	33,9	62,0	31,4
Beste produktu edo zerbitzu batzuk	21,4	8,8	12,4
Etxerako produktuak	14,8	30,9	18,7
Elektronika	14,1	25,3	15,9
Liburuak, aldizkariak	13,5	29,6	11,0
Ikuskizunetako sarrerak	10,8	49,4	22,5
Material informatikoa	8,6	20,0	8,4
Softwarea, bideo-jokoak	4,9	14,4	4,0
Musika, musika-tresnak	4,8	11,3	2,5
Elikagai-produktuak			9,9
Erosketak ordaintzeko era (a)	3,6		
Kreditu-txartelarekin ordainduta	71,1	86,7	79,1
Kontu korrontearen bidez ordainduta	7,4	21,5	9,4
Jasotakoan ordainduta	9,5	20,1	8,0
Harpidetzaren bidez ordainduta	1,3	5,6	1,6
Ordaintzeko beste era bat	28,7	18,6	22,4
Ordaintzeko segurtasunari buruzko iritzia			
Asko	21,6	18,4	23,2
Nahikoa	51,3	59,6	52,1
Gutxi	19,3	18,1	18,1
Bat ere ez	7,8	3,9	6,7

(a) erantzun bat baino gehiagoko galdera
Iturria: EUSTAT, ESIF

Zenbaki horiek aldatu egiten dira establezimenduen tamaina kontuan hartuz gero. Hala, 10 langile edo gehiago dituzten establezimenduetatik %30,2k merkataritza elektronikoa egiten du, aurreko urtean baino %1,2 gehiago. Segmentu horretan askoz handiagoak dira erosketa elektronikoak egiten dituztenak ere, zeren eta %25,3 baitira, eta pisu txikiagoa dute erosketak bide beretik egiten dituztenek, %11,4, urte horretan bietan 0,3 eta 0,6 puntu portzentual igo ondoren, hurrenez hurren.

EUROSTATen datuen arabera, online salmentak (Internet, EDI edo beste bitartekoren baten bidez) egin zituzten hamar lanpostu edo gehiagoko enpresen portzentajea (finantza-sektorea kontuan hartu gabe) %17ra igo da 2015ean EB28n eta eurogunean. Eta online erosketak (gutxienez eskarien %1) egin zituzten enpresen ehunekoa %24 da EB28n eta %25 eurogunean.

II.7.27. TAULAK. SALEROSKETAK ENPLEGU-ESTRATUAREN ARABERA (MILIOI €)

	Erosketak					Salmentak				
	2011	2012	2013	2014	2015	2011	2012	2013	2014	2015
Guzt.	**6.649,3**	**7.207,6**	**8.090,8**	**9.326,1**	**10.518,0**	**10.530,4**	**10.699,2**	**11.072.3**	**12.124,6**	**13.732,6**
Enplegu-estratuak										
0 - 9	2.012,7	2.082,9	2.610,0	3.009,4	3.347,8	1.943,7	2.067,2	2.157,1	2.165,5	2.523,8
10 eta gehiago	4.636,6	5.124,7	5.480,8	6.316,7	7.170,2	8.586,7	8.632,0	8.915,2	9.959,1	11.208,8

Iturria: EUSTAT. Informazioaren Gizarteari buruzko Inkesta -IGI enpresak.

II.7.28. TAULA. MERKATARITZA EGITEN DUTEN ESTABLEZIMENDUEN BILAKAERA (28-KO EB-N ETA EUROGUNEAN) (%)																
	Guzt., establezimenduak, EAE					10 langiletik gorakoak										
						EAE					28-EB**			EUROGUNEA**		
	2011	2012	2013	2014	2015	2011	2012	2013	2014	2015	2014	15	16	2014	15	16
Posta elektronikoa	**17,3**	**19,7**	**21,6**	**24,8**	**26,4**	**24,9**	**27,7**	**27,5**	**28,8**	**30,0**	-	-	-	-	-	-
Erosketak	16,1	18	19,7	23,1	23,9	21,4	23,6	23,4	25,0	25,3	22	24	24	22	25	25
Salmentak	4,1	4,6	5,2	6,0	6,5	9,8	10,4	10,0	10,8	11,4	15	17	18	15	17	18
Erosketen g. % *	30,8	33,7	29,4	30,6	31,3	30,5	33,7	27,0	28,3	31,0	-	-	-	-	-	-
Salmenten g. % *	39,3	36,6	35,9	38,9	39,8	40,9	42,8	36,2	37,8	42,6	-	-	-	-	-	-

** Merkataritza elektronikoa egiten duten establezimenduetan, salerosketen batez besteko % salerosketa guztiekiko*
*** (%1 gutxienez). Finantza sektore barik*
Iturria: EUSTAT. IGI-enpresak, EUROSTAT eta geuk eginikoa

7.2.5. Administrazio elektronikoa

EUSTATen arabera, goranzko joera izan da azken urteetan Administrazioarekiko izapidetze elektronikoa eskatu duten enpresen kopuruan.

Hala, 2010etik 2016ra honako igoera izan da interneten bidez izapideok egiten dituzten enpresetan: % 61,4tik % 83,3ra. Lurraldeka, Araban % 82,8 dago, % 83,6 Bizkaian eta % 83,1 Gipuzkoan). Jarduera-sektoreak aintzakotzat hartuz, industria nabarmendu beharra dago (% 86,9rekin), bai eta eraikuntza (% 83,3) eta zerbitzuak ere (% 83).

Portzentaje horiek handiagoak dira 10 langile edo gehiagoko enpresak kontuan hartzen baditugu: Interneteko sarbidea duten enpresak %84,9 izatetik izapide horiek Interneten bidez egiten dituztenak %91,6 izatera. Lurraldeka, Araban %89,6 dugu, %91,4 Bizkaian eta %92,9 Gipuzkoan. Jarduera-sektoreen arabera, eraikuntza nabarmentzen da (%98,3), eta ondoren industria (%98,7) eta zerbitzuak (%90,3).

Enpresek Administrazioarekin egiten dituzten izapide motei dagokionez, nabarmentzekoa da informazioa eskuratzea (establezimenduen %60,6 eta 10 langile edo gehiagokoen %81,9), inprimakiak eta formularioak eskuratzea (%61,8 eta %80,7, hurrenez hurren), zergak aitortzea hala nola sozietateena eta BEZa, kotizazio sozialak aitortzea eta administrazio-prozedurak izapidetzea eta inprimakiak eta formularioak betetzea.

II.7.29. TAULA. INTERNETEKO SARBIDEA DUTEN EAEko ESTABLEZIMENDUEK HERRI-ADMINISTRAZIOAREKIN EGINDAKO IZAPIDE ELEKTRONIKOAK, LURRALDE HISTORIKOAREN, JARDUERA-SEKTOREAREN ETA TAMAINAREN ARABERA (establezimenduen %)							
	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016
Guztira	**61,4**	**61,8**	**64,0**	**63,8**	**67,2**	**67,7**	**83,3**
Araba	61,7	60,9	65,7	69,3	69,8	70,0	82,8
Bizkaia	61,2	62,3	62,6	61,7	64,9	66,5	83,6
Gipuzkoa	61,7	61,5	65,3	64,8	69,5	68,6	83,1
Jarduera sektorea							
Industria	62,9	61,9	63,8	65,8	68,5	70,0	86,9
Eraikuntza	60,6	63,6	68,0	66,4	70,4	62,7	83,3
Zerbitzuak	61,5	61,4	63,3	63,2	66,6	68,3	83,0
10 lanpostu eta +	**84,9**	**85,2**	**87,8**	**91,3**	**92,1**	**93,1**	**91,6**
Araba	84,9	86,1	86,0	90,0	91,2	93,6	89,6
Bizkaia	84,6	83,7	87,2	91,3	91,8	93,7	91,4
Gipuzkoa	85,2	87,0	89,5	91,9	92,9	91,9	92,9
Jarduera sektorea							
Industria	87,1	89,7	90,2	93,1	93,3	93,5	93,7
Eraikuntza	82,8	81,8	90,7	90,1	92,1	94,5	98,3
Zerbitzuak	84,3	84,1	86,5	90,8	91,7	92,8	90,3

Iturria: EUSTAT. Informazioaren Gizarteari buruzko Inkesta IGI Administrazioa.

II.7.30. TAULA INTERNETEKO SARBIDEA DUTEN EAEko ESTABLEZIMENDUEK HERRI-ADMINISTRAZIOAREKIN EGINDAKO IZAPIDE ELEKTRONIKOAK, EGINDAKO IZAPIDE-MOTAREN ETA TAMAINAREN ARABERA (establezimenduen %). 2016		
	Orot.	**< 10 enplegatu**
Herri-administrazioekin izapideak egiten dituzte	**83,3**	**91,6**
Informazioa lortzea	60,6	81,9
Inprimakiak eta formularioak lortzea	61,8	80,7
Betetako inprimakiak eta formulazioak itzultzea	49,5	73,9
Prozedura administratibo bat modu erabat elektronikoan bideratzea	42,3	65,9
Lizitazio elektronikoko sistema batean proposamenak aurkeztea (e-procurement)	11,6	19,3
Langileen gizarte-kotizazioak aitortzea	51,3	69,5
Sozietateen gaineko zerga aitortzea	52,6	68,8
Balio erantsiaren gaineko zerga aitortzea (BEZ)	63,8	70,3
Zerga bereziak edo aduana-eskubideak aitortzea	10,8	24,3
Beste izapide edo zerbitzu batzuk	3,4	3,7

Iturria: EUSTAT. Informazioaren Gizarteari buruzko Inkesta -IGI Administrazioa.

ITURRIAK:

1. **EUSTAT:** Ikerketa zientifiko eta garapen teknologikoko jarduerei buruzko estatistika. 2015. Urterokoa. Koiunturala.
2. **EUSTAT:** Enpresen I+G jarduerei buruzko eskaera. 2015. Urterokoa. Koiunturala.
3. **EIN:** I+G jarduerei buruzko estatistika. 2015. Urterokoa. Koiunturala.
4. **EUROSTAT:** Science and Technology. Datu-basea. 2015. Urterokoa. Koiunturala.
5. **UPV-EHU:** UPV-EHU zenbakietan. Urterokoa. Koiunturala.
6. **Ikerketa Errektoreordetza:** I+G jarduerei buruzko eskaera. 2015. Urterokoa. Koiunturala.
7. **EUSTAT:** Berrikuntzari buruzko inkesta. 2013-2015 aldia. Urterokoa. Koiunturala.
8. **EIN:** Enpresetan berrikuntzari buruzko Inkesta. 2015. Urterokoa. Koiunturala.
9. **EUSTAT:** Europako berrikuntzako adierazleen panela. IUS 2016. Urterokoa. Koiunturala.
10. **EUSTAT:** Informazioaren gizarteari buruzko inkesta. Familiak. 2016. Urterokoa. Koiunturala.
11. **EUSTAT:** Informazioaren gizarteari buruzko inkesta. Enpresak. 2016. Urterokoa. Koiunturala.
12. **EUSTAT:** Informazioaren gizarteari buruzko inkesta. Administrazioa. 2016. Urterokoa. Koiunturala.
13. **EIN:** Etxeetako informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilerari eta ekipamenduari buruzko inkesta. 2016. Urterokoa. Koiunturala.
14. **EIN:** Enpresetako IKTen eta merkataritza elektronikoaren erabilerari buruzko inkesta. 2016ko lehen hiruhilekoa. Urterokoa. Koiunturala.
15. **EUROSTAT:** Digital Economy and Society. Datu basea. 2016. urtea. Urterokoa. Koiunturala.

8. EAE-KO GIZARTE EKONOMIAREN KONTUAK[43]

II.8.1. GRAFIKOA. GIZARTE EKONOMIAK DUEN PISUAREN BILAKAERA EAE-N



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Gizarte Ekonomiaren Kontuak.

Gizarte ekonomiaren barruan, bi zati nagusi ditu Kontabilitate Nazionalak: a) merkatukoa edo enpresena eta b) ekoizleena, ez merkatukoa, "hirugarren sektorea" esan ohi zaiona. Azken sailkapen hori oso erabilgarria da estatistikak egiteko eta jarduera ekonomikoaren analisiak egiteko orduan, gaur egun indarrean dauden kontabilitate nazionaleko sistemekin bat etorriz.

Horrela, merkatu edo enpresako gizarte ekonomia, funtsean, kooperatibek eta lan sozietateek eta mutuek osatuko lukete. Bestalde, merkatukoa ez den gizarte ekonomia batez ere elkarteek eta fundazioek osatzen dute. Beste forma juridiko batzuk dauzkaten erakundeak ere egon litezke. Kontabilitate nazionalean ezarritako irizpideen arabera, merkatuz kanpoko ekoizleak diren gizarte-ekonomiako erakundeek osatzen dute, hau da, beren ekoizpena batez ere dohainik edo prezio ekonomikoi ez-esanguratsuetan hornitzen dituzten erakundeek osatzen dute.

EAEn, Gizarte Ekonomiaren estatistikako azken datu finkatuen arabera, 2013-2014 biurtekoari dagozkionak, gizarte ekonomia guztira 2.381 enpresak osatzen dute, EAEn 3.127 establezimendu dauzkatenak. Aipatutako denboraldian 54.582 pertsonari lan eman zieten (erkidegoko lanpostuen % 6,1) eta 2.615,1 milioi euroko Balio Erantsi Gordina (BEG) sortu zuten (euskal ekonomiaren BEGaren % 4,3).

Hauexek dira Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiken Sailak eginiko estatistika honen emaitzen txostenetik atertzen diren zifra nagusiak:

- ✓ 2012 eta 2014 bitartean, 2008an hasitako beheranzko bidetik jarraitu zuen kooperatibek eta lan-sozietateek sortutako lanpostuen kopuruak, baina erritmoa apalagoa zen.
  Lanpostuen kopurua, 2014an, 54.582 zen, 2012an baino %2,2 gutxiago (%-0,7 EAEko enplegu osoarekiko), aurreko bi urtean %6,9 jaitsi ondoren. 2006. urtean, enplegu mailarik handiena lortu zuen gizarte ekonomiak, 63.480 pertsona landunekin. Harrezkero, lanpostuen %14 galdu da, eta 2000ko 54.259 lanpostuen kopurua %0,6 besterik erakusten duten zifretara itzuli gara. Neurri handi baten bazkideen taldearekin dago lotuta beherakada hori. Kopuru

[43] *Gizarte Ekonomiari buruzko martxoaren 29ko 5/2011 Estatu Legea mugarria izan da. Haren arabera, gizarte ekonomiaren erakunde dira "kooperatibak, mutualitateak, fundazioak eta jarduera ekonomikoa garatzen duten elkarteak, lan sozietateak, gizarteratzeko enpresak, enpleguko zentro bereziak, arrantzaleen kofradiak, eraldaketako nekazaritza sozietateak", eta baita jarduera ekonomikoa eta enpresakoa egiten duten erakundeak ere, betiere, haien funtzionamenduak arauaren 4. artikuluan bildutako printzipio multzoari erantzuten badie. Hona hemen printzipio horiek:*

a) Pertsonak eta gizarte-xedea gailendu egingo zaizkio kapitalari; horretarako, kudeaketa autonomo eta gardena, demokratikoa eta partaidea egingo da, eta erabakiak hartzerakoan pertsonak eta horiek erakundeari eskaini dizkioten lana edo zerbitzuak zein gizarte-xedea gehiago hartuko dira kontuan sozietatearen kapitalari egindako ekarpenak baino.

b) Jarduera ekonomikoaren bidez lortutako emaitzak batez ere egindako lana eta zerbitzua zein bazkide edo kideek egindako jarduera kontuan hartuta aplikatzea, edo erakundearen gizarte-xedean aplikatzea.

c) Erakunde barruko eta gizartearekiko elkartasuna sustatzea, tokiko garapenarekiko, gizon eta emakumeen arteko aukera berdintasunarekiko, gizarte-kohesioarekiko, gizarte-bazterkeria jasateko arriskua duten pertsonen gizarteratzearekiko, kalitatezko enplegu egonkorra sortzearekiko, bizitza pertsonala, familiarra eta lanekoa bat egitearekiko eta iraunkortasunarekiko konpromisoa bultzatze aldera.

d) Botere publikoekiko mendekotasunik eza.

hori %7,2 gutxitu zen 2012 eta 2014 bitartean, eta %-28,3raino LSAren sozietate-enpleguan. Izan ere, kooperatiben sektoreko %-6,3koa baino txikiagoa bada ere, krisialditik izan den jaitsierarik handiena da.

Eusko Jaurlaritzaren txostenak nabarmentzen duenez, gizarte ekonomiak 2012 eta 2014 bitartean enpleguaren aldetik izan zuen bilakaera negatiboa, neurri handi batean, kooperatiben arloko enpresa nagusi baten likidazioarekin (Fagor, Etxeko tresna elektrikoak) dago lotuta, baita zenbait LSA batzuen itxiera nabarmenekin ere. Horren guztiaren ondorioz, gizarte ekonomiak oro har pisua galdu du EAEko ekonomian, zeren eta sektore horretako enpleguaren bilakaerak, oro har, bilakaera okerragoa izan baitzuen 2006tik EAEko enplegu osoak baino.

Horren ondorioz, berriz ere egin du behera Gizarte Ekonomiaren garrantzi erlatiboak, gutxi bada ere, EAEko enplegu osoarekiko, halako moldez non 2014ko %6,1eko ratiotik (%6,2 2012an) 2002an lorturiko %6,8ko gehienekotik urruti gelditzen baita.

Alabaina, lanpostuen kopuruaren jaitsierarekin ez bezala, enpresa-sareak berriz ere egin zuen gora 2013-14an, guztira 3.100 establezimendu baino gehiago (zehazkiago, 3.127 dira, aurreko bi urtean baino %1,6 gehiago). 2011-12ko aldian, berriz, igoera handiagoa zen, %2,7koa hain zuzen ere. Bilakaera hori 2013-2014 bi urtean establezimenduen batez besteko tamaina txikiagoan islatzen zen (batez beste 18,1 lanpostutik 17,5 lanpostura).

II.8.2. GRAFIKOA. GIZARTE EKONOMIAK EAE-KO ENPLEGUAN DUEN GARRANTZI ERLATIBOA



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Gizarte Ekonomiaren Kontuak.

✓ Sektoreen ikuspegitik, daturik okerrena industri sektoreko enpleguaren beherakada da (%-7,5ekoa 2012 eta 2014 bitartean); tasa hori aurreko bi urtekoaren jaitsieraren bi halako da (%-3) [44], baina eutsi egiten dio industriako guztizko lanpostuetan duen pisuari, jokaera okerragoa izan baitu. Are gehiago: pixka bat gora egin du pisu horrek. Eta industriako enpleguan ez bezala, gizarte ekonomiak 2010-2012 bi urtekoan zerbitzuetako enpleguan izan zuen gorako joera hautsi ondoren (%10,3ko jaitsiera lanpostuen kopuruan), zerbitzuetako lanpostu kopuruak berriz ere gora egin zuen 2012 eta 2014 bitartean, %3,7ko hazkundearekin.

II.8.1. TAULA. EAE-KO GIZARTE EKONOMIAREN BEG-AREN DINAMIKA 2012-2014 BIURTEKOAN. BILAKAERA SEKTORIALA. ABSOLUTUAK OHIKO PREZIOETAN. MILAKO EURO.

	2012			2014		
	ABS.	BERTIKAL.. %	PARTAID. SEKTOR. %*	ABS.	BERTIKAL. %	PARTAID. SEKTOR. % *
LEHEN SEKTOREA	1.558	0,1	:	3.746	0,1	:
INDUSTRIA	1.363.525	51,6	9,9	1.334.364	51,0	9,3
ERAIKUNTZA	58.440	2,2	1,4	49.864	1,9	1,3
ZERBITZUAK	1.219.851	46,1	3,0	1.227.155	46,9	2,9
GUZTIRA	**2.643.375**	**100,0**	**4,5**	**2.615.128**	**100,0**	**4,3**

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. GIZARTE EKONOMIAREN KONTUAK.
** EAEko sektore guztiekiko partaidetza.*

[44] *Eusko Jaurlaritzaren txostenak ohartarazten duenez, Fagor Etxeko tresna elektrikoak enpresaren itxiera neutralizatuz gero, industri enpleguaren jaitsera %-0,5ekoa izango zen, eta horrek geldialdia aurreratu zezakeen industrian lanpostuak galtzeko prozesuan.*

Horrenbestez, industri sektorearen jokabide negatiboa dela-eta, gizarte ekonomiako zerbitzuetako enpleguari garrantzi erlatiboak epe luzean mantentzeko joera du. Hala, zerbitzuetako enpleguak %4,9tik %4,5erako jaitsiera izan ondoren 2010 eta 2012 bitartean, 2014an %4,5eko ratioari eutsi zion. Industriak, arestian esan denez, eutsi egiten dio sektorean duen pisuari (%11,8koa 2010ean, %12koa 2012an eta %12,1ekoa 2014an), are gehiago, handitu egin da pixka bat, zeren bilakaera eta, negatiboa izanik, sektore osoarena baino hobea baita. Hala eta guztiz ere, EAEko gizarte ekonomiaren lanpostuen %43,6 biltzen zuen industri sektoreak 2014an, zerbitzuek %53,1, eraikuntzak %2,9 eta lehen sektoreak %0,3 besterik ez.

II.8.3. GRAFIKOA. GIZARTE EKONOMIAREN ENPLEGUAREN LURRALDE BANAKETAREN BILAKAERA EAEN.%-a



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Gizarte Ekonomiaren Kontuak.

II.8.4. GRAFIKOA. GIZARTE EKONOMIAK EAE-KO ENPLEGUAN DUEN GARRANTZI ERLATIBOA. 2012-2014. ENPLEGU GUZTIAREKIKO PORTZENTAJEA



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Gizarte Ekonomiaren Kontuak.

✓ Lurraldeen arabera, Gipuzkoa da lurralde nagusia gizarte ekonomiaren aldetik historian zehar, baina lanpostu kopururik handiena erregistratu du kopuru absolutuetan, %4,1eko jaitsierarekin. Gizarte ekonomiaren lanpostu guztien %50,8 izanik, pisurik handiena duen lurraldea da 2014an ere. Bizkaiak %39 du eta Arabak, berriz, gainerako %10,2a. Gizarte ekonomiak enpleguan pisurik handiena duen lurraldea izateagatik ere nabarmentzen da Gipuzkoa, %9,2 hain zuzen. Bizkaian, berriz, proportzio hori %4,7koa da, eta Araban lanpostuen %4,1 dakar gizarte ekonomiak.

II.8.2. TAULA. EAE-KO GIZARTE EKONOMIAREN BILAKAERA. ZENBAIT ALDAGAIREN ALDAKUNTZA (EHUNEKOA). 2006-2015.

	LANPOST.	ESTABLEZIMENDUAK	FAKTURAZIOA	ESPORTAZIOAK
2006/08	-1,4	-3,6	2,4	:
2008/10	-4,3	0,4	-12,2	-7,2
2010/12	-6,9	2,7	-3,3	18,8
2012/14	-2,2	1,6	-7,1	-0,7
2014/15*	**1,4**	**:**	**1,9**	**:**

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Gizarte Ekonomiari buruzko Estatistika 2014. Geuk egina.
** Behin-behineko datuak. Sektorearen zenbatespenak.*

Eusko Jaurlaritzaren txostenak, era berean, hauxe nabarmentzen du: enpleguan %4,1eko jaitsiera dagoela Gipuzkoako enpleguak gizarte ekonomian duen pisuaan, aipaturiko biurtekoan. Hortaz, behera egin du EAEko gizarte ekonomiak enpleguan duen ekarpena: %51,7tik %50,8ra. Kopuru absolutuetan, 1.177 lanpostu galdu ditu. Hala gertatu da, gizarte ekonomiako establezimenduen kopurua lurralde horretan %1,1 hazi bada ere. Araban, establezimenduen kopuruak are igoera handiago izan du, %5,8. Enplegua, berriz, Gipuzkoan baino gehiago murriztu da, %4,7 (-275 lanpostu garbi). Hala ere, EAEko gizarte ekonomiak enpleguan duen pisuak behera egin du: 2012ko %10,5etik 2014ko %10,2ra. Azkenik, Bizkaia da bilakaerarik onena izan duen lurraldea: Establezimenduen kopuruan hazkunderik txikiena izan arren (%+0,6), enplegu proportzioan posizioak irabazten duen bakarra da (%4,5etik %4,7ra), zeren haren enpleguak gizarte ekonomian duen pisuak %1,1 handitu baita.

- ✓ Orain artean azaldutako bilakaera dela eta, jaitsiera gertatu da salmentetan, eta hori gizarte ekonomiaren kontu ekonomikoetan islatzen da. Hala, azken bi urtean eutsi egiten zaio 2008-2010eko aldian fakturazioan (%-7,1) hasitako jaitsierari. Gainera, 2010-2012ko bi urtekoan izandako jaitsiera baino nabarmen handiagoa da (%3,3 izan zen). Gizarte ekonomiak 2014an fakturatu zituen 7.690,8 milioi euro horiek urruti daude 2007an lorturiko gehieneko 10.314,9 euroetatik.

Horrez gain, emaitza horrekin batera, beste urte batez, BEGaren murrizketa dator, halako moldez non 2014ko ekitaldiari dagokiona 2012koa baino %1,1 txikiagoa baita, ohiko kopuruetan (%-6,4 aurreko bi urtekoan). Bestalde, bilakaera horretan alde nabarmenak ageri dira bi sektore nagusietan: industriako BEGa %2,1 jaitsi da (%-6,1 aurreko bi urtekoan); zerbitzuen sektorean, berriz, bilakaera positiboa ageri da, txikia bada ere (%+0,6). Aurreko biurtekoan industriak besteko jaitsiera handia izan zuen (%-6).

Horrez gain, gizarte ekonomiako enpresek BEGaren jaitsiera handiagoa erakusten dute euskal ekonomiakoak baino (%-0,8 EUSTATen ekonomi kontuen arabera), eta hala islatzen da BPGan duen ekarpen txikiagoan. Izan ere, 2012an %4,5 izatetik %4,3 izatera igaro zen 2014an. Beheranzko joaera hori are nabarmenagoa da industriaren sektorean; BPG sektorialean duen ekarpena %9,9tik %9,3ra igaro da orotara. Gizarte ekonomiako zerbitzuek, berriz, pisua galdu dute euskal ekonomian, neurri txikiagoan bada ere: EAEko zerbitzuen BEGaren %2,9ko ekarpena durte, 2012an baino hamarren bat gutxiago.

II.8.3. TAULA. GIZARTE EKONOMIAREN LANPOSTUEN BILAKAERA, FORMA JURIDIKOAREN ARABERA. 2012-2014

	2012		2014		2012-14KO ALD. %
	LANPOST	%	LANPOST	%	
KOOPERATIBAK	47.981	86,0	47.322	86,7	-1,4
LAN SOZIETAT.S	7.828	14,0	7.259	13,3	-7,3
---L.S.A.	4.005	7,2	3.177	5,8	-20,7
---E.M.L.S.	3.823	6,8	4.082	7,5	6,8
GUZTIRA	**55.809**	**100,0**	**54.582**	**100,0**	**-2,2**

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Gizarte Ekonomiaren 2014ko Estatistika

- ✓ Gizarte ekonomiako forma juridikoei erreparatuz gero, neurri handi batean bi faktore nagusirengatik gertatu zen lanpostuen galera 2012 eta 2014 bitartean:

Lehenik eta behin, LSAren lanpostuen etengabeko jaitsiera (%-20,7, eta %7,3 lan-sozietateen agregatua aintzat hartuz gero). Gainera, establezimenduen kopuruak ere behera egin du (-%14,2). Alabaina, enpleguaren jaitsiera hori 2010 eta 2012 bitartean erregistraturikoa baino txikiagoa da (%45etik gorakoa).

II.8.5. GRAFIKOA. ESPORTAZIOEK FAKTURAZIO OSOAREKIKO DUTEN PISUA. EAE-KO GIZARTE EKONOMIAREN ENPRESAK



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Gizarte Ekonomiaren Estatistika.

- ✓ Bigarrenik, kooperatibetako lanpostuetan izandako atzerakada (%-1,4), aurreko biurtekoan izandako %-0,3koa baino handiagoa da, baina LSA sozietateen jaitsieratik urruti. Gainera, horiek ez bezala, kooperatiben establezimendu kopuruak gora egin du, %1,8 hain zuzen ere. Bilakaera hori eta kooperatibek eta lan-sozietateek dituzten pisuak aintzat hartuta, gizarte ekonomiak 2012 eta 2014 bitartean galdutako lanpostuen %44,3 kooperatibei dagokie, eta gainerako %55,7 lan-sozietateei (LSA, zeren EMLSek datu positiboak baitituzte).

Enpleguan eta fakturazioan bilakaera negatiboa izan arren, EAEko gizarte ekonomia, 2012 eta 2014 bitartean, nabarmen gehiago hedatu zen kanpora, esportazioen bilakaera positiboak agerian uzten duenez; izan ere, fakturazioaren %34,2 lortu da (gehieneko maila azterturiko epealdian), 2012an %32,3 izan ondoren. Apustu hori,

betidanik, industri sektorearekin dago lotuta, non esportazioak fakturazioan duen proportzioa %62,8koa baita. Zerbitzuetan, berriz, ratio hori txikia da (%0,7).

Alabaina, itxurazko dinamika positiboaren atzean arazo nabarmena dago: Enpresa esportatzaileen fakturazioak %9,1 egin du behera, esportatzen ez duten beste enpresek izandakoa bi halako jaitsiera ia (%-4,9). Esportaziorako profila duen enpresengatik gertatu da hori, funtsean salmenten aldetik etxeko merkatuan izandako jaitsiera handia dela eta (%-21,5), baina ez dago konpentsatuta kanpoko salmenten dinamismo handiagoaren ondorioz (%0,7ko jaitsiera izan dute).

II.8.6. GRAFIKOA. GIZARTE EKONOMIAREN ESPORTAZIOEN JOMUGA. 2014



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Gizarte Ekonomiaren Kontuak.

Aldaketa nabarmena dakar horrek 2010-2012ko biurtekoaren aldean, noiz-eta esportazioen hazkundeak (%+18,8) barne-merkatuko salmenten jaitsiera konpentsatu zuenean enpresa esportatzaileetan (%-5,5). Hala, %7,6ko hazkundea ahalbidetu zen enpresa esportatzaileen guztizko fakturan.

2014an, kanpoko fakturazioko 2.653,5 milioi euroak neurri handi batean Europako merkatuetan metatzen dira (%64), hots, ratio hori hazi egin da 2012ko %59,4koaren aldean, baina hazkunde motelagoa antzematen da: 2010 eta 2012 bitartean %13,7ko igoeraren aldean, 2012 eta 2014 bitartean %6,7ko hazkundea izan zen. Europatik kanpoko esportazioei dagokienez (2010 eta 2012 bitartean nabarmen egin zuten gora, %27,1 hain zuzen), hazkundea gelditu egin da, ekonomia goranzkorren hazkundea moteldu izanaren ondorioz: Izan ere, %11,7 egin zuten behera 2012 eta 2014 bitartean. Hala ere, komeni da Europatik kanpoko merkatuetan izandako bilakaerak aipatzea:

II.8.4. TAULA. GIZARTE EKONOMIAREN ESPORTAZIOEN BILAKAERA ZONALDEKA. KOPURU ABSOLUTUAK, MILAKO EUROTAN, ETA PARTAIDETZA. 2012-2014

	2012		2014		2012-14ko ald. %
	ABS.	BERT. %.	ABS.	BERT. %	
EUROPA	1.588.386	59,4	1.695.499	64,0	6,7
ASIA	440.345	16,5	400.880	15,1	-9,0
AEB.	193.840	7,3	202.273	7,6	4,4
HEGO AMERIKA	295.090	11,0	212.963	8,0	-27,8
BESTE BATZUK	155.592	5,8	141.853	5,3	-8,8
GUZTIRA	**2.673.355**	**100,0**	**2.653.470**	**100,0**	**-0,7**

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Gizarte Ekonomiari buruzko Estatistika 2014

- Jaitsiera handia izan da Latinoamerikarako esportazioetan (%-27,8), aurreko biurtekoetan %25etik gorakoa hazkundearen ondotik. Esportazioen guztizko kopuruan duen pisuak behera egin du: 2012ko %11tik 2014ko %8ra.
- AEBrako esportazioek ere goranzko bidean jarraitu zuten 2012 eta 2014 bitartean (%+4,4), baina aurreko epealdietan baino motelago (%+30,1 2010 eta 2012 bitartean). Guztizkoan duten proportzioak pixka bat gora egin zuen, %7,6raino.

II.8.7. GRAFIKOA. GIZARTE EKONOMIAKREN ENPLEGUEN ETA FAKTURAZIOAREN BILAKAERA EAE-N



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Gizarte Ekonomiaren Kontuak.

- Bestalde, fakturazio bolumenagatik (%15,1) Europaren ostean bigarren jomuga den Asiari dagokionez, azken biurtekoan %9 egin zuten behera esportazioek, 2008 eta 2010 bitartean hazkunde ikaragarria izan ondoren (%+95,5) eta 2010-2012 biurtekoan %+19ko igoera nabarmena izan ostean. Hori dela eta, rankig-ean bigarren tokiari eutsi arren, 2012 eta 2014 bitartean ia puntu eta erdi galdu zuten EAEtik eginiko esportazioek guztizko pisuan.

✓ Bestalde, Eusko Jaurlaritzaren Gizarte-ekonomiaren Estatistikak zenbait kopururekin osatzen ditu estatistikako eragiketa horren gune historikoaren analisia kooperatibak eta laneko sozietateak) eragiketan sartu ez diren erakundeen gainean, baina beren beregi aipatzen dira 2011ko Gizarte-ekonomiaren Legean. Fundazioak eta elkarteak, enplegurako zentro bereziak, laneratze enpresak, BGAE, arrantzale-kofradiak eta eraldaketako nekazaritzako sozietateak dira.

2014rako zenbatespenean, azterturiko sei kategorien multzo agregatuak 1.201 erakunde biltzen ditu EAEn, honelaxe: 619 fundazio, 184 elkarte, enplegu-zentro berezietako 42 entitate, 76 laneratze enpresa, 179 BGAE, 15 arrantzale-kofradia eta eraldaketako 87 nekazaritza-sozietatea. Erakunde horiek, aipaturiko urtean, ordaindutako 23.238 lanpostu ditu, 2012an baino 3.203 gutxiago, eta boluntarioen proportzioak %7,6 du batez beste.

Azkenik, eta gainerako Autonomia Erkidegoekin alderatuta Gizarte-ekonomiak gure erkidegoan duen garrantzia jakiteko xedez, Sozietate Kooperatiboetako eta Lan-sozietateetako langileen eta forma hori duten enpresen kopurua aurkeztu dugu Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren datuak oinarri hartuta (jakin dakigu EAEko kopuruak ez datozela bat Gizarte-ekonomiaren Kontuetako Estatistikan aurkeztutakoekin).

Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren datuen arabera, 2016an EAEn 2.208 enpresa egon dira (irailaren 30eko datuak) Gizarte Segurantzan alta emanda, beraz, Sozietate Kooperatibo eta Lan-sozietate gehien duen bosgarren Autonomia Erkidegoa da (%+1,5 2014aren aldean, Estatuko batez bestekoa %-2,6 delarik).

II.8.5. TAULA. EAE-KO GIZARTE EKONOMIAREN MODU BERRIAK. ADIERAZLE NAGUSIAK. 2012-14.

	2012		2014			2012-14KO ALD.	
	KOPURUA	LAN ORDAIND.	KOPURUA	LAN ORDAINDUA	BOLUNTARIOEN %	KOP.	LAN ORDAINDUA
1. FUNDAZIOAK	615	12.315	619	10.482	9,1	+4	-1.833
2. ELKARTEAK	189	9.368	184	3.593	16,6	-5	-5.775
3. LAN ZENTRO BEREZIAK	42	3.078	42	7.920	0,5	0	+4.842
4. LANERATZE ENPRESAK	78	1.252	76	846	14,5	-2	-406
5. BGAE	189	248	179	239	:	-10	-9
6. ARRANTZALE KOFRADIAK	16	90	15	63	0,0	-1	-27
7. TRANS. NEKAZARITZA ELK.	97	90	87	95	23,0	-10	+5
GUZTIRA	**1.226**	**26.441**	**1.201**	**23.238**	**7,6**	**-25**	**-3.203**

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Ekonomia Sozialaren Estatistika.

Sozietate Kooperatiboetan eta Lan-sozietateetan lan egiten duten langileen kopuruaren araberako garrantzia neurtuz gero, aldiz, estatuko lehen Autonomia Erkidegoa da EAE (61.826, aurreko urtean baino %2,5 gehiago), eta ondoren Andaluzia dator (59.053 langile).

II.8.6. TAULA. KOOPERATIBA SOZIETATEAK ETA LAN-SOZIETATEAK: GIZARTE SEGURANTZAN ALTA EMANDA DAUDEN ENPRESAK ETA LANGILEAK (3. HIRUHILEKOA)

	ENPRESAK			LANGILEAK		
	2000	2014	2016	2000	2014	2016
ANDALUZIA	8.079	6.400	6.172	65.130	55.420	59.053
ARAGOI	1.317	1.108	1.048	9.572	9.299	10.955
ASTURIAS	766	632	582	5.730	5.019	5.406
U. BALEARRAK	367	306	274	3.493	2.703	2.762
U. KANARIARRAK	803	595	535	7.505	6.339	6.370
KANTABRIA	203	196	193	2.404	2.022	2.140
GAZTELA-MANTXA	2.861	2.272	2.242	20.070	17.037	17.674
GAZTELA LEON	2.140	1.789	1.727	14.571	13.325	13.190
KATALUNIA	6.205	5.153	5.152	46.905	46.392	51.376
VALENTZIA	3.912	3.422	3.250	42.541	41.741	45.010
EXTREMADURA	1.031	917	902	8.751	7.986	7.948
GALIZIA	1.681	1.496	1.439	12.050	11.392	11.958
MADRIL	2.647	2.093	1.914	24.236	22.279	23.446
MURTZIA	2.375	2.006	2.078	20.919	19.866	21.870
NAFARROA	760	684	719	9.713	9.622	11.040
EAE	**2.309**	**2.175**	**2.208**	**64.489**	**60.335**	**61.826**
ERRIOXA	179	162	167	1.946	1.990	1.903
CEUTA ETA MELILLA	56	44	36	543	558	550
GUZTIRA	**37.691**	**31.450**	**30.638**	**360.568**	**333.325**	**354.477**

Iturria: LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA MINISTERIOA.

ITURRIAK:

1. EUSKO JAURLARITZAREN ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKEN SAILA: Gizarteko Ekonomiari buruzko 2014ko estatistika (2015eko aurrerapena). Bi urterik behingoa. Estrukturala.

2. ENPLEGU ETA GIZARTE SEGURANTZA: Aurrerapena. Gizarte ekonomiako enpresen egoerari eta Gizarte Segurantzan inskribaturiko langileei buruzko laburpena. 2016ko III. Hiruhilekoko datuak. Koiunturala.

9. EKONOMIA EAE-N LABURPENA ETA ONDORIOAK

9.1. LABURPENA

2016an, jarduera ekonomikoa, Nazioarteko Diru Funtsaren arabera, areagotu egin zen; hala ere, hazkunde apala izan zuen, bai ***garatzeko bidean dauden ekonomietan*** (% 4,1, 2015ean baino hamarren bat gutxiago), bai ***ekonomia aurreratuetan*** (% 1,7 aurreko urteko % 2,1ekin alderatuz). Mundu mailako merkataritza ere areagotu zen, baina modu ahulean. Horren hazkunde-tasa % 2,2koa izan zen, 2015eko ratioaren 5 hamarren gutxiago eta 2016ko BPGren hazkundearen 0,9 hamarren gutxiago.

Prezioen bilakaerari dagokionez, garatzeko bidean dauden zenbait ekonomiatan erabili gabeko ekoizpen-gaitasun handia apur bat moteldu zen eta petrolioaren eta beste lehengai batzuen prezioen aurreko beherapenen ondorioak desagertu ziren; horrela, mundu mailako inflazioa gorantz presionatu zuten 2016ko bigarren seihilekoan.

Finantza- eta moneta-baldintzei dagokienez, Europako Banku Nagusiak eta Japoniako Bankuak behin beheratu zituzten (martxoan) prozesuko esku-hartzeak, lehenengoa % 0,0n kokatu arte eta bigarrena -% 0,1era arte. Bestalde, Estatu Batuetako Erreserba Federalak % 0,5arekin mantendu zuen; hala, horrekin itxi zuen 2015eko ekitaldia 2016ko abendura arte, % 0,75era igo zuzenean.

Dibisen merkatuari dagokionez, Estatu Batuetako dolarraren egiazko aldaketa-tasak 1,054 $/€-an bukatu zuen urtea, 2015eko abenduko 1,088 $/€-ren aldean. Hots, % 3,1eko balio-galera izan zuen euroak. Horrez gain, euroak balio-galera izan zuen yenarekiko eta balioa irabazi zuen libra esterlinarekiko.

Munduko burtsa-merkatuetan, IBEX 35-ak urtetik urterako % 2ko gutxikuntza izan zuen (2016ko abenduan, 2015eko abenduarekin alderatuz) eta 2015eko datua -% 7,2koa izan zen; hala, Nikkei-ak % 0,4ko hazkundea izan zuen eta 2015ean % 9,1ekoa. Horrez gain, Dow Jones-ek % 13,4ko hazkundea izan zuen (2015ean % 2,2 egin zuen atzera) eta Euro Stoxx zabalak % 1,5eko hazkundea izan zuen (% 8 aurreko urtean).

Eurogunean, BPGren urterik urterako hazkundearen batez besteko tasa, termino errealetan, % 1,8koa izan zen, Europako Banku Zentralaren datuen arabera, 2015ean erregistratutako % 2ko tasaren apur bat azpiago.

Eskariaren aldetik, kontsumo pribatua % 2ko urterik urterako hazkunde tasara handitu zen, 2015ean erregistratutakoa baino bi hamarreko gehiago. Inbertsioak % 3,7ko hazkunde tasa erregistratu zuen, eraikuntzaren sektorean ikusitako susperraldiak eta jabetza intelektualaren produktuen inbertsioan egondako hobekuntzak bultzatuta; izan ere, ekipamendu-ondasunen alorreko inbertsioa apur bat geldotu zen. Kontsumo publikoa % 1,9 hazi zen (% 1,3 2015ean).

Eskaintzaren aldetik, industrian, balio erantsi gordina % 1,5 hazi zen; horrek esan nahi du 2,8 puntuko dezelerazioa egon dela 2015ekin alderatuz. Gainera, zerbitzuen sektorea % 1,7 handitu zen, 2015ean erregistratutako tasa baino apur bat gehiago (% 1,4). Aldi berean, eraikuntzaren balio erantsi gordinak, krisiaren aurreko mailaren oso azpitik mantendu bazen ere, bultzada bat izan zuen eta % 1, 9 hazi zen, 2006tik erregistratutako hazkunde tasarik altuena. Horrek erakusten du eraikuntza sektorearen bilakaera gero eta onuragarriagoa dela, 2008an hasitako uzkurdura eta hazkunde moteleko epe luzearen ostean.

Inflazioari dagokionez, eurogunean, Kontsumo Prezioen Indize Armonizatua % 1,1 handitu zen 2015eko abendutik eta 2016ko abendura. Halaber, Espainiako Estatuak % 1,4ko hazkundea izan du.

EUROSTAT-en datuen arabera, euroguneko herri-administrazioen zorra ia estatu guztietan murriztu zen 2016an, hauetan izan ezik: Italia, Frantzia, Txipre, Erresuma Batua (bertan gutxi gorabehera mantentzen da) eta Letornian, Bulgarian, Polonian, Grezian eta Portugalen, horietan hazi egin baita. Eurogune19an, BPGren gaineko zor publikoa % 89,2koa izan zen; 2015ean, aldiz, % 90,3koa izan zen.

Defizitari dagokionez, eurogune19 osoan, defizit publikoa BPGren % 1,5aren maila baliokidean kokatu zen, 2015eko % 2,1aren aurrean. Barne Produktu Gordinaren % 3ko muga gainditu zuten estatuak Espainia (-% 4,5) eta Frantzia (% -3,4) izan ziren. Ondoko herrialdeek -% 1,5 eta -% 3ko indizea izan zuten: Errumania, Erresuma Batua, Belgika, Italia, Polonia, Portugal, Finlandia, Hungaria, Eslovenia, Eslovakia eta Austria. Honako herrialde hauek 0 eta -% 1 arteko indizea izan zuten: Letonia, Bulgaria, Irlanda, Kroazia eta Danimarka. Gainerako herrialdeek, aldiz, superabita erregistratu zuten.

Arreta ***espainiako ekonomian*** jarriz, estatistikako institutu nazionalaren arabera, 2016an, bpgk % 3,2ko batez besteko urterik urterako hazkunde erreala izan zuen, 2015ean erregistratutako tasa bera. izan ere, ekonomia aurreratuetan gertatutakoa ez bezala, espainiako ekonomiaren bpgren hazkunde ekonomikoa moteldu egin zen hirugarren eta laugarren hiruhilekoan. bai eskari nazional garbiak, bai kanpoko eskari garbiak, bpgren hazkundearekiko ekarpen positiboak erregistratu zituzten, lehen aldiz 2000tik.

Eskariari erreparatuz, kontsumo pribatuak 2016ko ekitaldia itxi zuen urterik urterako % 3,2ko hazkundearekin bolumenean, 2015ekoa baino hiru hamarreko gehiago. hala, kapital finkoaren eraketa gordinaren hazkunde-erritmoa % 3,1era arte murriztu zen (2015ean baino 2,9 puntu gutxiago). Inbertsioa bi arrazoi hauengatik moteldu egin zen: batetik, aktibo finko materialengatik (eraikuntza eta ekipamendu-ondasunak eta kultibatutako aktiboak) eta jabetza intelektualaren produktuengatik (moteltze hori hiru osagaietan antzeman daiteke). Horrela, eraikuntzaren alorreko inbertsioa 3 puntu dezeleratu zen; ekipamendu-ondasunena eta aktiboena 3,8 puntu eta jabetza intelektualaren produktuena 0,7 puntu.

Eskaintzaren ikuspegitik, urtean zehar, urterik urterako terminoetan eta bolumenean, jarduera sektore guztietan bizkortu zen, industrian izan ezik. izan ere, 2015ean % 5,5 hazi egin zen eta 2016an, ordea, % 2,4. hala, lehenengo sektoreko balio erantsi gordina % 3,4 hazi zen 2016an (-% 2,9 2015ean); eraikuntzarena % 2,5, 2015ekoa baino 2,3 puntu gehiago, eta zerbitzuena, % 3,4 (2015ean % 2,6).

Ingurumari horretan, Espainiako ekonomiaren finantza-egoera hobetu zen munduaren gainerakoaren aldean. Finantzaketa-ahalmena (superabita) erregistratu zen berriz ere, hain zuzen ere, 22.752 milioi eurokoa izan zen, hots, BPGren % 2. Hala eta guztiz ere, estatuko herri-administrazioek, guztira, 55.576 milioi euroko defizita (behin-behineko datuak) izan zuten 2016an; horren ondorioz, BPGren ratioa % 5,1etik % 4,5era igaro zen 2015 eta 2016 urteen artean. Datuak bereizita, Administrazio Zentralak, autonomia-erkidegoek eta Gizarte Segurantzak defizita zutela itxi zuten ekitaldia, hurrenez hurren, % 2,7, % 1,6 eta % 0,8. Tokiko Korporazioek (TTKK), aldiz, superabita izan zuten berriz ere, ekitaldi honetan, % 0,6koa, hain zuzen ere.

Diru-sarrerei dagokienez, zerga nagusietako zerga-bilketak, autonomia erkidegoen eta tokiko korporazioen partaidetza aintzat hartuta, hazkundea izan zuen (% 2,5). Bestalde, Estatuak onartutako obligazioak % 4,6 txikitu ziren.

Jarraian, ***EAEko ekonomiaren bilakaera*** jorratuko dugu.

EUSTATen Jarduera Ekonomikoen Direktorioaren (JEGID) 2016ko azken datuen arabera, guztira 158.436 enpresa zeuden jardunean EAEn (lehen sektorekoak barne), eta guztira 854.114 pertsonari ematen zieten lana. Beraz, batez besteko tamaina 5,4 lanpostukoa izan zen urte horretan enpresako. 2015 eta 2016 bitartean, enpresen kopurua % 0,2 murriztu da eta enplegua, aldiz, % 1,2 hazi da. 1.844 enpresek baino ez, kopuru osoaren % 1,2ak (% 1,1 2015ean) hain zuzen, 50 enplegu edo gehiago dituzte, guztira 416.513 lanpostu, kopuru osoaren % 48,8 (2015ean % 48,3). Aldiz, 121.319 enpresa, kopuru osoaren % 76,6, ez da iristen 3 lanpostura eta enplegu osoaren % 17,4 bakarrik hartzen dute.

Europar Batasunean, batez besteko tamaina (2014ko datuak) enpresa bakoitzeko 5,4 lanpostukoa da. Batez besteko horren gainetik daude Alemania eta Luxenburgo (bietan 9,9); Erresuma Batua (9,1); Danimarka (8) eta Austria eta Kroazia (bietan 7,1).

Enpresa-errotazioari buruzko azterketak agerian uzten duenez, 2016ko urtarrilaren 1ean, enpresen kopurua jaitsi egin da 17.485 enpresa berri jarri zirelako martxan eta beste 17.850 enpresek, berriz, itxi egin zutelako. Horrela, saldo garbia -365ekoa da. Beste alde batetik, enpresak sortzeko tasa gordina, dena delako urteko enpresa sortu berrien kopurua zati aurreko urtean zegoen enpresa-kopuru gisa kalkulatuta, % 11koa da; itxitako enpresa-tasa, aldiz, % 11,2koa.

Kontu Ekonomikoek erakusten dute Euskal Autonomia Erkidegoak, oro har, 2016an, BPGren hazkundea erregistratu zuela, termino errealetan, % 3,1ekoa, hain zuzen ere (2015ean baino bi hamarreko gehiago). Alabaina, hiruhilekoen profilak hazkundearen moteltzea erakusten du urtean zehar, zeren eta lehen hiruhilekoa urte arteko %3,3ko aldakuntza-tasarekin hasi eta laugarrenean %2,9ko tasarekin bukatu baitzen. 2015ean gertatu zen bezala, BPG hazi egin zen, funtsean, barne-eskariaren portaeragatik. Hori % 3,0 hazi zen eta BPGren hazkundea % 3,1ekoa izan zen; beraz, kanpoko eskariak BPGren hazkundera egindako ekarpena ia-ia nulua da.

Barne-eskariaren bi osagai nagusiek (amaierako kontsumoko gastua eta kapitalaren eraketa osoa) antzeko joerari eutsi diote hiruhilekoan. Hala, bigarren hiruhilekoan, bietan izan dira lehen hiruhilekokoak baino hazkunde-tasa handiagoak, moteldu egin da hazkundea hirugarrenean eta berriz ere hazkunde handiagoaren bidetik jarraitu du laugarrenean.

Alabaina, amaierako kontsumoko gastuaren bi osagaien bilakaera aztertzean ikusi dugunez, kontsumo publikoko gastuak joera berarekin jarraitzen du, baina ez da gauza bera gertatzen kontsumo pribatuko gastuan, zeren eta bigarren eta hirugarren hiruhilekoetan izandako motelaldiak laugarren hiruhilekoa ere hartu baitu.

Kapitalaren eraketa osoari dagokionez, agregatuaren eragile nagusia ekipamendu-ondasunetako inbertsioa izan zen, hiru urtez goranzko aldakuntza positiboak metatu baitira, baina inbertsioaren gainerako zatiak, eraikuntzan eginikoa barne, tasa positiboa erregistratu du lehen urtez, txikiagoa bada ere. Hala eta guztiz ere, ez da komeni ekipamendu-ondasunetako aipatutako inbertsioaren hiruhilekoko profila alde batera uztea; horrek lehenengo hiruhilekoa hasi zuen % 10,7ko hazkundearekin eta, hiruhileko batetik bestera, hazkundea moteldu egin zen, laugarren hiruhilekoa % 6,6ko aldakuntza-ratioarekin amaitu arte.

Kanpoko eskariari dagokionez, bai esportazioetan, bai inportazioetan, urterik urterako batez besteko aldakuntza tasa % 2,2koa izan da eta, aurreko urtean, bi kasu horietan, hazkundea % 0,6koa izan zen. Urteko profilaren azterketak, ordea, horietako bakoitzaren hazkundea moteldu dela ematen du aditzera. Hala, esportazioetan %4,2ko hazkundea izan zuten urteko lehen hiruhilekoan, eta laugarrenean, berriz, %0,3koa. Esportazioetan, bestalde, lehen eta laugarren hiruhilekoen artean jaitsi izan zen, hain zuzen %3,9tik %0,4ra.

"*Kanpo-merkataritzaren Estatistikak" (Aduanen erregistroetan oinarrituta)* atzerriarekin eginiko ondasunen kanpoko merkataritzari buruz eskainitako behin-behineko datuek erakusten dutenez, % 1,6 murriztu da esportazioen balio korrontea 2016an (21.596 milioi eurora helduz, 2015ean baino ia 360 gutxiago), eta energiakoak ez direnetan % 1,7 hazi da (guztizkoaren % 92,3 dira) eta energiakoetan, berriz, %29,2ko jaitsiera egon da. Bestalde, guztizko inportazioek % 8 egin zuten behera (15.848 milioi euro guztira, 2015ean baino 1.338 gutxiago), non inportazio energetikoen balioak, guztizkoaren % 21ekoa denak, % 29,6 egin zuen behera eta, energiakoak ez direnenak, berriz, % 0,2 egin zuen gora.

2016an, kanpoko saldoak 6.111,9 milioi euroko superabita izan zuen (2015ean erregistratutakoa baino 978,4 milioi euro gehiago). BPGrekiko ehunekoa, % 8,5ekoa da; hala, ratioa 2015ekoa baino 1,1 ehunekozko puntu gehiagokoa da (% 7,4). Ondasun eta produktu energetikoen eta ez-energetikoen artean bereizita, berriz ere esan daiteke saldo energetikoa defizitarioa dela (-1.580,8 milioi euro). Aitzitik, energiakoak ez diren produktuenetan, berriz, superabitata erregistratu da, 7.692,8 milioi eurokoa, hots, BPGaren % 10,8, 2015ean izandakoaren antzeko ratioa hain zuzen % 10,7.

Eskaintzaren aldetik, aldakuntza positiboak izan dituzte lau jarduera-sektore handiek, eta industriaren sektorea nabarmentzen da, %3,3ko hazkundea lortu baitu. Tasa horretatik gertu Zerbitzuen sektoreak dago; izan ere, %3,2ko hazkundea izan du urte osoan. Halaber, Eraikuntzan nahiz Lehen Sektorean, aldakuntza positiboak izan dira, %1,6koak.

Industriaren sektorean, Manufaktura-industriak eutsi dio bilakaera globalari, eta %3,5eko tasarekin hazi da; hiru urtez jarraian metatu dira igoerak. Zerbitzuen sektoreko bilakaera positiboan (aldakuntza positiboak eta goranzkoak metatu dira hiru urtez jarraian), hiru azpisektorek hartu dute parte, eta dinamikoena Merkataritza, Ostalaritza eta Garraio arloa da, %3,6ko hazkundearekin. Bigarren tokian, Gainerako zerbitzuak deritzenak dira, %3,3ko hazkundea lortuta. Azkenik, Administrazio Publikoa, Hezkuntza, Osasun eta Gizarte Zerbitzuen adarrak izan du hazkunderik txikiena, orotara %2,4koa. Eraikuntzaren sektoreak bi urtez jarraian metatu du hazkundea, eta urte osoko aldakuntza-tasa 2015ekoa baino %1,1 handiagoa izan da.

Bestalde, lanaldi osoko lanpostu baliokideetan neurtzen den enpleguaren bilakaera positiboa izan da, % 1,9ko hazkundea zenbatetsi baita, batez beste, 2016. urtean (2015eko ratioa baino 3 hamarren handiagoa, % 1,6). Enpleguko joerarik onena Zerbitzuen sektorean gertatu da, %2,1eko hazkundearekin 2015eko batez bestekoarekiko. Apaingarria da industria sektorearen bilakaera, %1,6ko hazkundearekin, eta ondoren Lehen Sektorea da (%1,0). Eraikuntzaren sektoreak, lehen aldiz 2008tik, ez du enplegurik desegin.

Bestalde, EAEn, lan egindako benetako ordu bakoitzeko kostu totalak % 0,4 hazi dira 2016an.Hala eta guztiz ere, Estatuko batez bestekoa % 0,1 jaitsi zen. Sektoreka, EAEn, eraikuntzak % 1,7 egin zuen behera; industriak eta zerbitzuek, aldiz, gora egin zuten, % 1,3 eta % 0,3, hurrenez hurren. Balio absolutuetan, EAEko batez besteko kostua, 2016an, 24,3 eurokoa izan zen orduko, Estatuko 19,8 €-ko batez bestekoaren aldean. EBn eta Eurogunean, 2015eko batez besteko datuak, EUROSTATen arabera, hauexek izan ziren: 25€ eta29,5€. Hortaz, EAEn erregistraturikoak baino handiagoak.

Lanaren itxurako produktibitateari dagokionez, % 1,2ko hazkundea izan zuen 2016an kopuru errealetan, hots, 2015ean baino ehuneko hamarren bat gehiago. Bilakaeraren araberako azterketa barik mailaren araberako azterketak agerian uzten duenez (BPGarekiko, erosteko ahalmenaren eta langabeziaren arteko parekotasunaren arabera), EAEk 127,9ko indizea du eta, beraz, Estatukoa baino % 26,4ko tasa handiagoa du; EB28ko batez bestekoa baino gehiago eta eurogunekoa baino % 20,7 handiagoa.

Inflazioari dagokionez, esan beharra dago prezioek igoera handiarekin bukatu zutela 2016. urtea, eta 2016ko abenduan +% 1,5ean kokatu zela inflazioa; 2015eko abendukoa, berriz, % 0,3koa izan zen. Hala, urteko batez besteko inflazioak (% 0,0) 2015eko tasa negatiboak utzi zituen, ekitaldiaren hasieran oso prezio txikiekin hasi ondoren, baina joera gorantz aldatu egin zen irailetik hasita.

Finantza-sektoreari dagokionez, EAEn gordailu-erakundeek emandako kreditua, guztira, berriz ere hazi egin zen 2016an, hazkundeko segidako bi urte betez, beheranzko joerako zenbait urteren ostean: 70.037tik 71.564 milioi eurora (% 2,2). Burtsari erreparatuz, Bilboko Burtsaren 2000 indizeak 1.489,5 puntu izan zituen 2016ko abenduan, hau da, % 5,64 jaitsi zen aurreko urteko abenduko datuekin alderatuta. Bilboko Burtsaren kontratazio-bolumena (erosketak eta salmentak), 2016an, 109.385,9 milioi eurokoa izan zen, hau da, % 40,1 jaitsi egin zen 2015ekin alderatuz.

Bestalde, Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioaren Kanpoko Inbertsioen Erregistroaren datuen arabera, atzerriko inbertsioa murriztu egin zen EAEn 2015 eta 2016. urteetan, hain zuzen ere, % 42,6, atzerriko balioen edukitza-enpresen balioa kontuan hartu barik. Hala, segidako murrizketako bi urte izan dira. Guztira, EAEk, 2016an, 490,4 milioi euro jaso zituen, inbertsioen bolumenean bosgarren postua okupatuz, Madril, Katalunia, Nafarroa eta Balear Uharteen atzetik. Sektoreen ikuspegitik, bereziki nabarmenak dira inbertsioaren guztizkoan duten pisuagatik honako hauetan eginikoak: Informazioa eta komunikazioak; Metalurgia eta produktu metalikoen fabrikazioa; Elikadura, edariak eta tabakoa; jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak eta motordun ibilgailuen eta garraioarekin lotutako beste materialaren fabrikazioa.

Bestalde, euskal inbertsioa atzerrian, ABDEak deskontaturik, berriz ere itzuli da aurreko urteetan erregistraturiko mailetara, 2015ean izandako hazkundearen ondoren; izan ere, hazkunde horren jatorria energia elektrikoaren, gasaren, lurrunaren eta airearen horniduraren sektorea izan da. Zehazki, 2016an, 687,5 milioi eurora heldu zen.Horrela, EAE, atzerrian egindako inbertsioei dagokienez, autonomia erkidegoen rankingeko bosgarren postuan dago, Madril, Katalunia, Galizia eta Asturiasen atzetik. Sektoreen aldetik, hauexek nabarmentzen dira: Makinariaren konponketa eta instalazioa;

motordun ibilgailuen eta garraioarekin lotutako beste materialaren fabrikazioa; finantza- eta aseguru-jarduerak; beste manufaktura batzuk eta eraikuntza. Lurraldeen aldetik, EAEko inbertsioaren %70,9 ELGAko herrialdeetara dago bideratuta, %43,9 Kanadara eta %19,5 15eko EBko herrialdeetara (gehienbat Erresuma Batua eta Austria). Beste zati handi batek Brasil du jomuga (%19,4).

EAEko sektore publikoari dagokionez, Eusko Jaurlaritzaren Ogasun eta Ekonomia Sailaren *"Aurrekontu-betearazpeneko Estatistikaren"* datuen arabera, Eusko Jaurlaritzak eta hiru Foru Aldundiek 2016an likidatutako guztizko diru-sarrerak 15.650,2 milioi eurokoak izan dira; izan ere, aurreko urtearekin alderatuz, horiek % 2,8 hazi dira (% 0,3 2015ean), bilakaera positiboari esker. Horrez gain, zeharkako zergen bilketaren batezbesteko hazkundearen gainetik dago, % 3,4 hazi direnak eta zerga zuzenak ere % 4,2 hazi dira. Bi partidek, 2016an, Euskal Sektore Publikoaren sarreren % 83,5 biltzen dute. Era berean, eta aurreko ekitaldian ez bezala, finantza-pasiboen aldakuntzan % 7,9ko jaitsiera egon da (% 2,8 2015ean), zorpetze gutxiago egon delako. Diru-sarreren hazkundeak antzeko bilakaera izan du administrazioen artean; izan ere, Eusko Jaurlaritzaren kasuan % 3koa izan da, Foru Aldundientzat, aldiz, % 3,2 hazi da.

Balantze gisa, Euskal Sektore Publikoaren diru-sarrerak, erkidegoaren BPGrekiko, 2015ean % 22koa zena, proportzio ia berean mantendu egin da 2016an, hamarren bat jaitsi delako, hain zuzen ere, % 21,9ra (behin-behineko datuak), BPG diru-sarrera publikoak baino gehiago hazi delako.

Zerga itunduen zioz bildutako kopuruek osatzen dituzte zuzeneko eta zeharkako diru-sarrera gehienak eta guztizko sarreren % 90 baino gehiago biltzen dute. Hala, behin-behineko datuetan oinarrituta, % 2,7ko hazkundea izan zuen; aurreko urtean, berriz, % 2,4ko igoera izan zuen. Oro har, aurreko hiru ekitaldietan gertatutakoa ez bezala, esan daiteke zeharkako zergen ziozko bilketak bilakaera positibo handiagoa izan zuela (+% 3,5) zuzeneko zergen ziozkoak baino (+% 1,9). Laburbilduz, guztira bildutako bolumena 12.950,7 milioi eurokoa izan zen. Zenbateko hori, behin-behineko datuen arabera, EAEko 2016ko BPG arruntaren % 18,1ekoa izan zen, (2015. urtean, % 18,2koa). Bildutako guztizko zenbatekotik, % 37,4 PFEZri dagokio; % 38,7 BEZari (berezko kudeaketakoa eta barneko eragiketengatiko doikuntzena eta aduanak); % 7,7 Sozietateen Zergari (horrek bilketan daukan pisua murriztu egin da segidako hirugarren urtez) eta gainerako % 16,2 zenbait Zerga Bereziri dagozkie.

Euskal Sektore Publikoaren guztizko gastua, 15.311,2 milioi euroko gastua alegia (tokiko erakundeak kontuan hartu gabe), % 0,9 igo da 2016an, aurreko urteko +% 1,9ren aurrean. Hortaz, magnitude honek EAEko BPGren gain ordezkatzen duen ehunekoak puntu erdiko beherakada izan du, % 21,9tik % 21,4ra igaroz. Gastuak bilakaera positiboa izan du bai Eusko Jaurlaritzan (+% 2), baita foru aldundietan ere (+% 1,8). Ondorioz, agregatuaren aldakuntza % 0,9koa izan da; izan ere, diru partidetako batzuk erakundeen artean orekatzen dira (transferentzien zati bat, esaterako)

Euskal Sektore Publiko osoko (tokiko erakundeak kanpoan utzita) gastu kapituluetako aldakuntzarik garrantzitsuenek zenbait alde erakusten dute aurreko urteetakoekin alderatuz gero. Lehenik eta behin, langileen gastuak 2015eko proportzio berean hazi dira (+% 2) eta proportzio handiagoan gobernuan (+% 2,2) foru aldundietan baino (+% 1,1). Bestalde, funtzionamenduko gastuek (ondasunen eta zerbitzuen erosketei dagozkienak) aurreko bi urteetako joera positiboa mantendu dute eta 2015ean baino gehiago hazi dira (% 2,9, aurreko urteko +% 1,1aren aurrean). Aldi berean, transferentzia korronteek aurreko hiru ekitaldietako joera positiboa mantendu dute, gutxiago hazi badira ere (+% 1,2 2016an). Inbertsio errealei dagokienez, 2010etik 2015era arte proportzio handiagoan edo txikiagoan etengabe jaitsi ostean, 2016an, % 4,7ko hazkundea izan dute Gobernuan izandako bilakaerari esker (+% 10,6); izan ere, foru aldundientzat, partida honek jaisten jarraitu du (-% 2,5).

Bestalde, zorpetzearen ondoriozko gastuek behera egin zuten, finantza-pasiboen bilakaera dela medio (zorpetzearen amortizazioa), % 11,6 murriztu baitziren. Gobernuaren partidaren bilakaeragatik gertatu da datu hori (-% 16,6), Foru Aldundietan, aurreko ekitaldietan ez bezala, aldakuntza positiboa baita (-% 2,3). Finantza-gastuek (interesak), azkenik, % 12,9 egin zuten behera eta negatiboak dira Gobernuarentzat nahiz aldundientzat.

Arreta *Eusko Jaurlaritzaren gastuan* jarriz, 2017ko maiatzean eguneratutako 2016ko aurrekontuaren zifrek, behin betiko likidazioaren zain, erakusten dute % 8,8ko hazkundea egon dela 2015eko ekitaldian egikaritutako gastuari dagokionez, aurreko ekitaldian % 0,5 jaitsi ostean. Gastu-bolumena aintzat hartuta, bi sail nagusiak Hezkuntza, Hizkuntza Politika, Kultura Saila (gastu osoaren % 26) eta Osasun Saila (% 31) izaten jarraitzen dute. Lehenengoa % 0,6 hazi zen eta bigarrena, aldiz, egonkor mantendu da 2015eko ekitaldiarekin alderatuta. 2016ko gastu osoa 11.054,2 milioi eurokoa izan zen, eta kopuru hori gure erkidegoko BPGren gaineko % 15,4koa izan zen urte horretan, behin-behineko datuen arabera.

2016an, Euskal Sektore Publikoaren (Eusko Jaurlaritza eta Foru Aldundiak) diru-sarrera arruntak % 3,1 hazi dira; izaera bereko gastuak, aldiz, gutxiago hazi dira, hain zuzen ere, % 1,5. Hala, horrek aurrezki gordina % 33 edo 917,6 milioi eurora arte handitzea eragin du. Zenbateko honek gure erkidegoko BPGren % 1,3 hartzen du (behin-behineko datuak) Gainera, 21,7 milioi euroko defizit publikoa (finantziazio premia) erregistratu da (BPGaren % 0,03); izan ere, gastu ez-finantzarioek (arruntak gehi kapitalekoak) izaera bereko diru-sarrerak gainditzen dituzte Aurreko ekitaldian, defizita 293,1 milioi eurokoa izan zen; beraz, % 92,6ko murriztapena egon da

Halaber, 2016ko Aurrekontu-betearazpeneko Estatistikak adierazten du, lehenik eta behin, Euskal Autonomia Erkidegoko (Eusko Jaurlaritza eta foru aldundiak) sektore publiko osoaren zorpetze gordina hirugarren urtez segidan murriztu egin dela, % 0,8 oraingoan (-% 37,8 2014an eta -% 25,8 2015ean), aurreko ekitaldietako hazkundeen ostean. Horrez gain, zorpetze gordinak % 7,9ko jaitsiera izan zuen eta 1.316,5 milioi euroraino heldu zen. Horietatik, 1.106 milioi euro Eusko Jaurlaritzari dagozkio (-% 4,9, 2015. urtearekin alderatuta) eta gainerako 210,5 milioi euroak foru aldundiei (-% 20,8). Arestian azaldutakoaren emaitza gisa, Eusko Jaurlaritzak eta foru aldundiek 11.155,6 milioi euroko zor-bolumena dute, 2015eko ekitaldian baino % 4,6 gehiago (kopuru hori BPGren % 15,6 da, behin-behineko datuen arabera, 2015eko ekitaldian, berriz, % 15,4koa izan zen). Horrela, beste urtebetez, zorrik handiena Eusko Jaurlaritzak dauka (guztizko zorraren % 81,7; aurreko urtean, % 80,4).

Ekoizpen-azpiegiturei gagozkiela, nabarmendu behar da Sustapen Ministerioak Estatuko Erakunde Publikoek (AENA, ADIF, PORTUAK eta RENFE) ingeniaritza zibilean EAEn egindako adjudikazioen inguruan argitaratutako datuek erakusten dutela murrizketak egon direla 2015 eta 2016 bitartean, Portuak erakundearen kasuan izan ezik. Horrela, ADIF Estatuko Sozietate Publikoak (trenbide-azpiegituren administratzailea) ingeniaritza zibilean EAEn egindako adjudikazioak 292 milioi eurotik 73,4 milioi eurora igaro ziren (EAEko abiadura handiko trenbideari dagozkion gainegituraren obra guztiak, trenbide-obra, ADIF erakundeak gauzatuko ditu); bestetik, AENA erakundeak egindako inbertsioak 8,3 milioi eurotik 4,4 milioi eurora igaro ziren; RENFE OPERADORA erakundearenak 3,1 milioi eurotik 1,55 milioira igaro ziren eta, azkenik, PORTUAK erakundearenak 11,1 milioi eurotik 114,7 milioira igaro ziren.

Garraio-azpiegiturei dagokienez, EAEn edukiera handiko bideen ehunekoa Estatukoa baino apur bat handiagoa bada (% 14,8, % 10,3ren aurrean), bidesariko autobideen ehunekoa (% 41,3) EAEn Estatukoa baino askoz handiagoa da (% 17,3), batez ere errepideen dentsitatea azaleraren arabera kontuan hartuta.

Bestalde, energiaren inguruko datu batzuk ematen dira: Energia primarioaren berezko ekoizpena urria izan zen (431 Ktep 2015ean) eta horrekin EAEko energia-eskariaren % 6,8 baino ezin izan zen ase. Horrela, EAEko energia-menpekotasuna % 93,2koa izan zen; hala, ehuneko hori Estatukoa (% 73,3) baino askoz handiagoa da, baita EB28ko batez bestekoa baino handiagoa ere (% 53,4). Aldi berean, iturri berriztagarrietan oinarrituriko ekoizpenaren bidez (403 Ktep), amaierako kontsumoaren (5.034 Kteps) % 8 baino ezin izan zen ase, hots, energia berriztagarriek amaierako kontsumoan duten partaidetza-ratioa EB28an erregistratutakoa baino askoz txikiagoa da (% 13 2014an) eta gure Erkidegoak Euskadi 2020 Energia Estrategian (3E2020) ezarritako % 14ko helburutik oso urruti.

Bestalde, bizitegien sektorearen faktura % 3,2 hazi zen 2015ean. Etxeko fakturaren igoera % 2,6koa izan zen, eta biztanleko fakturan, berriz, % 3,2koa. Hala, guztira 1.307 euro da etxeko eta 421 euro biztanleko.

Gainera, 2015ean, EAEn, EUSTATen arabera, 1.273,2 milioi euro inbertitu ziren **ikerketa eta garapeneko jardueretan** (-% 1,3 2014ko datuekin alderatuz); horrek esan nahi du jaitsierak egon direla hiru urtez jarraian. Lurralde historikoak kontuan hartuta, Arabak gastuaren osoaren % 13 egiten du, Bizkaiak % 47 eta Gipuzkoak % 40. Ahaleginen aldetik, BPGaren %1,84 da, hots, beste jaitsiera bat aurreko urtearen aldean. EINek %1,93ko ratioa erregistratu zuen EAEn eta, beraz, gure Erkidegoa Estatuko batez bestekoaren gainetik dago (%1,22).

Informazio-iturria edozein delarik, eurogunean izandakoa baino txikiagoa da esfortzua, % 2,12, eta arlo horretako erreferentziako herrialdeen azpitik: Suedia (%3,26), Austria (%3,07), Danimarka (%3,03), Finlandia (%2,9), Alemania (%2,87), Belgika (%2,45), Frantzia (%2,23), Eslovenia eta Islandia; hala ere, zenbait herrialdetan egonkortu edo jaitsiera nabarmena ikusten da ratioan, Finlandian edo Eslovenian adibidez, EUROSTATen arabera.

Ikerketa eta garapenean egindako gastuaren betearazpenari dagokionez, gastuaren % 74,7a enpresek[45] egikaritu zuten (2014ko % 75,1aren aurrean); % 18,4 Goi-mailako Irakaskuntzari dagokio eta gainerako % 6,5a administrazioaren menpeko zenbait erakundek egikaritu zuten. Egitura hori ez dator bat estatuan dagoenarekin. Hona hemen ehunekoak: % 52,5, % 28,1 eta % 19,1.

Gastu horren finantziazioari dagokionez, sektore pribatuaren partaidetza berriz ere murriztu zen 2014. eta 2015. urteen artean, ehunekozko puntu 1, eta % 55,7an ezarri zen (beraz, Europaren ikerketa eta garapeneko gastuaren % 66 funts pribatuekin finantzatzearen helburutik 10,3 puntura). Administrazioak % 33,4a finantzatzen du, 2014an erregistratutako ratioa baino gehiago (% 32,6). Estatuan, EINen datuen arabera, sektore pribatuak proportzio txikiagoa finantzatzen du (% 45,8) eta administrazio publikoak, berriz, % 40,9. Eurogunean, EUROSTATen arabera, 2014an %56,9 eta %32,9 dira ehunekoak, hurrenez hurren. Hauexek nabarmentzen dira I+G arloko gastuaren finantzazio pribatuko ratio handiak izateagatik: Japonia (%77,3), Txina (%75,4), Hego Korea (%75,3), Alemania (%65,8), Eslovenia (%68,4), Suedia (%61 2013an), AEB (%60,9, 2013ko datua), Danimarka (%57,3 2015ean). Hala, sektore pribatuak eta sektore publikoak finantzaturiko I+G BPGaren %1,02 eta %0,61 dira, hurrenez hurren. Europak 2020rako dituen helburuak, berriz, %2 eta %1 dira.

Lanean diharduten langileeak (AOB: 18.217,1 lagun, enpresa sektore guztiaren %71,8, %218, goi-mailako irakaskuntzan eta %6,5 administrazioan) %1,7 egin du behera 2014aren aldean. Sexuaren araberako azterketak agerian uzten duenez, jarduera horietako lanean diharduten %35,2 bakarrik dira emakumeak (aurreko urteko ratio bera).

Enpresa sektoreko I+G-k adierazleak aztertuko ditugu orain, Zientzia eta Teknologiako Euskal Sareko zentroen eragiketa alde batera utzita. Hala, ikusten denez, 2014 eta 2015 urte bitartean behera egin zuen I+G egiten duten enpresen kopuruak (1.612tik 1.502ra), baita enpresek I+G-an eginiko gastuak (%2,6) eta jarduera horietan lanean diharduten langileriarenak ere (10.815,5etik 10.573,8ra aritze osoko lanaldietan).

Testuinguru horretan, nabarmentzekoa da I+G egiten duten euskal enpresen batez besteko tamaina handia; izan ere, 82 langile dira, euskal enpresaren multzoaren batez besteko tamaina baino askoz handiagoa (5,4 lagunekoa).

UPV-EHUren ikerketari dagokionez, *Eusko Jaurlaritzaren ikerketa-taldeen*[46] ekintzen zenbatekoa, 2015ean, 24 milioi eurokoa izan zen, hots, % 3,7ko jaitsiera egon da aurreko aldiarekiko. Arestian aipatutako partidan oinarrituta, ikus daiteke UPV-EHUk ikerkuntzaren arloan aurrera eramandako jarduera hazi zela 2014tik 2015era bitartean, 47,4 milioi eurotik 54,1era igaroz (+% 14,1). Zatirik handiena, % 49,9 (27 M€) ikerkuntza-proiektuei dagokie; hala ere, prestakuntzan ari diren langileentzako funtsetara bideratutako partidak murriztu dira (% 21, 11,4 M€, 2014ko 12,9 milioi euroekin alderatuta) eta Unibertsitatearen Antolamenduari buruzko Legearen 83. artikuluaren arabera izenpetutako kontratuak, azken horiek funts guztien % 13,7 baitira (7,4 M€, 2014ko 8,5 milioi euroen aurrean). Urrunago, langile ikertzaile/teknikoak kontratatzeko funtsak ageri dira; izan ere, azken horiek orotara % 9 dira.

[45] *I+G arloko gastuaren zati handi bat Zentro Teknologikoen Sarearen bitartez bideratzen dela; izan ere, zentro horiek, haien izaera juridikoa dela eta, enpresa-sektorearen parte dira eragiketa estatistiko horretan.*

[46] *Komeni da kontuan hartzea Eusko Jaurlaritzaren ikerketa-taldeen deialdia ez dela urtero egiten. Beraz, urte batzuetako epean, akzio horien zenbatekoa nabarmen areagotzen da. Ondorioz, urtetik urterako analisia egiteko ikerketa-taldeei dagokien zenbatekoa kentzea komeni da.*

Berrikuntzako jarduerei dagokienez, EUSTATen "*Berrikuntzari buruzko Inkestaren*" arabera, 2013-2015eko aldian enpresen % 16,9 berritzaileak ziren (aurreko aldian baino 4 hamarren gutxiago). 9 lanpostu baino gehiagoko enpresak bakarrik hartzen baditugu kontuan, ratioa % 34,6ra igotzen da, EINek erregistratutako Estatuko batez bestekoa baino ratio handiagoa (% 28,5).

Hala eta guztiz ere, berrikuntza teknologikorako jardueren guztizko gastua, berriz ere murriztu da, lau urtez jarraian: 2015ean, aurreko ekitaldiarekin alderatuta, -% 1,2, 2.443,2 eurotan kokatuz eta BPGren % 3,5 hartuz. Soilik 9 lanpostutik gorako enpresak aintzat hartzen baditugu, gastua 2.080,1 M€ da, hots, % 0,6 hazkundea aurreko urtearen aldean eta BPGaren % 3 da.

"*Europako Berrikuntzako Adierazleen Panelak, 2016*" aipatutako alderdi horiek berretsi egiten ditu, EAEk 0,48ko adierazle sintetikoa erregistratzen baitu (0,50 2015ean), Estatukoaren gainetik (0,36), EB28koa baino pixka bat txikiagoa da (horrek ere egin du behera, 2015eko 0,56tik 2016ko 0,52ra), baina "berrikuntza maila handiko herrialdeen" taldean, EB28ko batez bestekoaren % 92,4ra helduz.

Testuinguru horretan, nabarmendu behar dugu EAE argi eta garbi batez besteko horren gainetik dagoela, lehen aldiz, "Ikerkuntza sistema" adierazlean, non "nazioarteko baterako argitalpen zientifikoak milioi bat biztanleko" dimentsioaren kopurua eta "nazioarte mailan gehien aipaturiko argitalpen zientifikoen" ehunekoa (bikainak) gailentzen diren.

Hala eta guztiz ere, IUS-en "Aktibo intelektualak" dimentsioan, berrikuntza prozesuetan etekin gisa sortutako jabetza intelektualeko eskubideen forma desberdinak hartzen dituena, adierazle sintetikoa 0,32koa da, EB28ko batez bestekoaren azpitik (0,56) eta Estatukoaren azpitik ere bai (0,44). Izan ere, beste lurralde eremuekin erkatuta, hauxe ondoriozta daiteke: 1,59 adierazlea duela EAEk BPGko bilioi bakoitzeko EEP patenteen eskarietan (EAP eurotan)[47], 5,08 adierazlea BPGko bilioi bakoitzeko EBko merkataritza-marketan (EAP eurotan) eta 0,56koa BPGko bilioi bakoitzeko (EAP eurotan) EBko diseinuetan, Estatuarekiko BPGko bilioi bakoitzeko patenteen kasuan izan ezik. Beraz, estatuko batez bestekoen (1,48/7,81/2,97) eta EB28koen (3,53/6,09/4,44) azpitik dago eta urruti erreferentziako herrialdeetatik.

Informazioaren eta komunikazioaren teknologiei dagokienez (IKT), EAEk bere posizioa mantentzen du etxeetako edota biztanleen IKT ekipamenduei dagokienez. EUSTATen "*Familien Informazioaren Gizarteari buruzko Inkestak (FIGI)*" erakusten duenez, 2016ko lehen hiruhilekoan EAEko etxeen % 70,1ak ordenagailua du, hots, 15 urte eta gehiagokoen % 77,3k. Aldi berean, familien % 74,1ak interneterako sarbide dute etxean (2015eko aldi berean baino 3,9 ehunekozko puntu gehiago). Aldi berean, sarerako sarbidea duten 15 urte eta gehiagoko biztanleen zifra 3,2 puntu hazi da 2015eko lehenengo hiruhilekotik 2016ko lehenengo hiruhilekora, % 81,2an kokatuz.

EUROSTATen arabera, EAE, etxetik internetera sar daitezkeen etxeen ehunekoari dagokionez, % 83an dago, Madrilen (% 88), Melillaren (% 86) eta Ceutaren (% 84) atzetik eta Katalunia eta Nafarroaren parean. Hala ere, ehuneko hori urruti dago Europako iparraldeko eskualdeetan ikusten diren erreferentzietatik; izan ere, hainbat kasutan % 90 gainditzen dute, eta batzuetan % 100era heltzen dira.

Transakzio elektronikoei dagokienez, EUSTATen arabera, 15 urte eta gehiagoko biztanleen % 33,8k erosketaren bat egin zuen bide hori erabilita 2016an. Gehien erosi diren ondasunak kirol-materiala eta arropa dira (% 51,9); bidaiak eta oporretako ostatuak (% 31,4) eta ikuskizunetako sarrerak (% 22,5). 2015eko berdinak dira, baina hurrenkera desberdinean.

Enpresetako IKT ekipamenduei dagokienez, EUSTATen *"Enpresak. Informazioaren sozietatearen inguruko Inkestak"*, oro har, erakusten du euskal enpresen IKT ekipamenduek hazten jarraitzen dutela. Horrez gain, teknologia horiek erabiltzen dituzten langileen ehunekoa hazi da. Ekipamendurik hedatuenak orain ere telefono mugikorra eta ordenagailua dira, eta ondoren Internet eta posta elektronikoa. Jarduera-sektoreen arabera, sektore industrialeko

[47] *Patenteen lankidetza-tratatua*

enpresek dute ezarpen teknologikoko mailarik altuena, eta ondoren zerbitzuen sektoreko enpresak eta eraikuntzako enpresak datoz.

Enplegu-estratuen araberako azterketak erakusten duenez, enpresaren tamainaren araberakoa da gehienbat EAEko enpresen ekipamendu mailan oraindik ere. Ekipamenduen ehuneko horiek handiagoak dira 10 lanpostu edo gehiagoko establezimenduetan, baina ia gehieneko mailara iritsi denez gero, enpresa horien hobekuntza oso txikia da ekipamenduen aldetik.

Bestalde, EINeren *"IKTen erabileraren inguruko eta enpresetako merkataritza elektronikoaren inkestak"* erakusten du, 2016ko lehenengo hiruhilekoko datuekin, webgunea duten enpresen ratioa eta banda zabala duten enpresen ratioa handiagoak direla EAEn estatuko batez bestekoarekin alderatuta (% 81,7 EAEn Estatuko % 77,5aren aurrean eta % 88 % 82,9ren aurrean). Hala eta guztiz ere, txikiagoak dira enpresa hauen ratioak: interneteko konexioa duten enpresak (% 96,6 eta % 98,4); sinadura elektronikoa erabiltzen duten enpresak (% 70,4 eta % 75,1); hedabide sozialak erabiltzen dituzten enpresak (% 36,9 eta % 42,9) eta hodeian "cloud computing" konputazio irtenbideak erosten dituzten enpresak (% 18,1 eta % 19,3). Hala, horien artean daude posta elektronikoa; fitxategien biltegiratzea; enpresaren datu-baseen zerbitzaria eta zenbait software mota.

Enpresa-sareko merkataritza elektronikoari dagokionez, EUSTATen arabera, 2015ean gorantz jarraitu zuen, kopuruetan (euroak) nahiz bertan parte hartzen duten enpresen ehunekoan. Establezimenduen tamainaren arabera, 10 lanpostu eta gehiagoko enpresen artean, % 30 da (% 26,4 kopuru globaletan) merkataritza elektronikoa egiten duten establezimenduen ehunekoa; gehiago dira erosketa elektronikoak egiten dituztenak (% 25,3) salmentak egiten dituztenak baino (% 11,4).

Emaitza horiek agerian uzten dute, EUROSTATen eta EUSTATen[48] arabera, salmentak online egin zituzten 10 langileko eta gehiagoko enpresen ehunekoa (finantza-sektorerik gabe) handiagoa dela EB28n eta eurogunean EAEn baino (% 17 eta % 11,4); online erosi zuten enpresen ehunekoa (eskarien % 1 gutxienez), berriz, handiagoa da EAEn EB28n eta eurogunean baino (% 25,3 EAEn, eta % 24 EB28n eta % 25 eurogunean).

Administrazio elektronikoari dagokionez, EUSTATen arabera, goranzko joera izan da azken urteetan administrazioarekiko izapidetze elektronikoa eskatu duten enpresen kopuruan. Hala, 2010etik 2016ra honako igoera izan da interneten bidez izapideok egiten dituzten enpresetan: % 61,4tik % 83,3ra. Ehuneko horiek altuagoak dira 10 langile edo gehiago dituzten enpresak kontuan hartzen baditugu (% 84,9tik % 91,6ra).

Enpresek Administrazioarekin egiten dituzten izapide motei dagokionez, nabarmentzekoa da informazioa eskuratzea (establezimenduen %60,6 eta 10 langile edo gehiagokoen %81,9), inprimakiak eta formularioak eskuratzea (%61,8 eta %80,7, hurrenez hurren), zergak aitortzea hala nola sozietateena eta BEZa, kotizazio sozialak aitortzea eta administrazio-prozedurak izapidetzea eta inprimakiak eta formularioak betetzea.

9.2. GOGOETAK

2016an, nazioarteko ***testuinguru ekonomiko eta finantzarioan***, garrantzi handia izan dute honako gertakari hauek: ekainean egindako Erresuma Batua Europar Batasunean jarraitzearen inguruko erreferendumak; azaroko Estatu Batuetako hauteskunde presidentzialek eta legegintza-hauteskundeek eta Lurralde Petrolio Esportatzaileen Erakundeko herrialdeek azaroan petrolio-ekoizpena murrizteko hartutako erabakiak, geroago erakundekoak ez diren ekoizleei hedatutakoa.

Kapitulu honetan emandako datuek erakusten dute, 2016an, munduko ekonomian bilakaera egon dela, nazioarteko diru funtsak hazkunde moteltzat sailkatzen duena. Hala, noizbehinka ziurgabetasuna areagotu egin da, bereziki erresuma batua europar batasunean jarraitzearen inguruko erreferendumaren eta estatu batuetako

[48] *Datuak ezin dira zuzenean alderatu azterketa-unitatean dagoen aldeagatik: enpresa eta ezarpena. Hala ere, gutxi gorabeherako ikuspegia ematen dute.*

hauteskunde presidentzialen ostean. Bilakaera hori hoberen islatzen duten elementuetako bat da munduko merkataritzaren hazkunde ahula, aurreko urteetan zituen tasa positiboen nahiko azpitik.

Europako eremuan, Europako Banku Zentralak nabarmentzen du hazkunde ekonomikoaren dinamismoa kanpoko inguruaren ahultasunak geldiarazten duela. Zentzu horretan, Europan ekipamendu-ondasunetan egindako inbertsioaren hazkunde baxuak kezkatzen gaitu, horrek euskal ekonomian izan ditzakeen ondorioengatik. Izan ere, euskal ekonomia ekipamendu-ondasunen ekoizpenera zuzenduta dago eta izaera industrial handia dauka.

Espainiako ekonomiari dagokionez, Europako homonimoek baino hazkunde handiagoa izateaz gain, bere osaera orekatuagoa izan da eta horrek denboran luzatzeko aukerak areagotzen ditu. Hala eta guztiz ere, hain onuragarria ez den alderdi bat azpimarratu beharra dago: hazkundea moteldu egin dela antzeman da; manufaktura-industriaren beheranzko bilakaera nabarmenduz. Izan ere, horren hazkunde-tasa murriztu egin da 2015eko maila indartsuetatik. Aldi berean, europan gertatutakoa bezalaxe, ohartarazi beharra dago inbertsioa ere apur bat moteldu egin dela.

EAEri dagokionez, nabarmendu beharra dago 2016an jarduera ekonomikoaren hazkunde-egoera finkatu egin zela. Dirudienez, koiunturak hobetzeko bidean jarraitzen du, baina ezin ditugu alde batera utzi jarraian azpimarratzen ditugunak bezalako alderdiak:

- BPGren aldakuntzaren hiru hilekoko profilak urtean zehar hazkundea moteldu egin dela erakusten du, batez ere industrian agerian jarri dena, tasa positiboetara hazten jarraitu badu ere.

- Zerbitzuen hazkundeak % 3 inguruko maila egonkorra mantendu du urtean zehar eta batez ere ohiko sektoreetan oinarritu da (ostalaritza, turismoa, garraiobideak) eta neurri txikiagoan ezagutzaren eremu intentsiboetan.

- Produktibitatearen bilakaera, Europar Batasuneko, Estatuko eta Euroguneko batez bestekoa baino altuagoa bada ere, beheranzkoa da; aldi berean, laneko kostu unitarioak ere jaitsi dira.

Laburbilduz, aztertutako datuek erakusten dute 2016 urte positiboa izan dela euskal ekonomiarentzat; izan ere, hazkundea egon da bertako ekonomian eta hori enpleguaren hazkundean ere islatu egin da. Aldi berean, antzematen da goranzko bultzada moteldu egin dela; horrek iradokitzen du beharrezkoa dela egitura ekonomikoaren zenbait alderdi hobetzen jarraitzea. Zalantzarik gabe, horiek hazkunde jarraitu eta egonkorreko bidetik jarraitzen lagunduko dute.

Helburu horrekin, bereziki garrantzitsuak iruditzen zaizkigun aurrerapen-arlo batzuk gogorarazten ditugu.

- Euskal enpresaren dimentsio urriak EAEko produkzio-egituraren konstante bat izaten jarraitzen du. Oraingo nazioarteko lehiakortasun-baldintzetan, beharrezkoa da alderdi hori ahal den neurrian zuzentzea, bestela, ezin izango zaizkielako nazioarteko berrikuntzei eta prozesuei aurre egin. Horretarako, euskal enpresen arteko kooperazio-estrategiak areagotu eta finkatu behar dira.

- Beharrezkoa da zerbitzuen sektorearen osaeraren bilakaeran arreta jartzea. Batez ere, izaera sortzaile eta kulturaleko jarduera berriei dagokiena, osasunarekin edo hezkuntzarekin edo ezagutzaren enpresa intentsiboentzako zerbitzuekin lotutakoak. Izan ere, horren hazkunde jarraituak adieraz dezake hazkunde ekonomikoa eta kalitatezko enplegua areagotu egin direla.

- Energia-menpekotasuna eta energia berriztagarriaren produkzio/proportzio urria arazo larria dira herrialde baten ekonomiaren lehiakortasun eta iraunkortasunerako. EAEren dimentsioari esker, eredu energetikoaren aldaketa-lidergoa mantendu eta areagotu ahal da; hala, eredu hori aurrezpena eta eraginkortasun energetikoa bultzatzen dituen ingurumen-iraunkortasun handiagora eta menpekotasun txikiagora bideratuta dago. Beharrezkoa da horren inguruan hausnartzea eta herrialdearen garapen energetikoarekin lotutako itun sozial eta ekonomikoaren aldeko apustua egitea.

PCTI2020-rekin bat etorriz, produkzio energetikoaren sektorea eta, horren barruan, produkzio energetikorako bitartekoen sektorea jarduera-iturri bat dira eta aberastasuna eta enplegua sortzeko iturri emankorra, bultzatzen jarraitu behar dena.

- Garraio-azpiegiturei dagokienez, ikuspegi orokor batetik, EAE lurralde finkatuko maila batean dago. Horretarako, beharrezkoa da horien kudeaketa integrala egitea, baita horren inguruko erabakiak hartzeko eredu global bat ezartzea ere, azpiegitura horien eraginkortasun eta efikazian ondorio negatiboak izatea ekiditeko. Testuinguru horretan, nabarmendu behar da EAEn dauden bidesariko autobideen ehuneko handia, estatuarekin alderatuta.

…

EAEko sektore publikoari dagokionez, kontseilu honentzat positiboa da 2016an egondako finantza publikoen hobekuntza, zerga-bilketaren handiagotzearekin (Sozietateen Zergan oraindik islatu gabekoa); horri esker, gastuaren handiagotze hori eta aurrekontu-defizitarekin lotutako konpromisoen betearazpena bateratu ahal izan dira.

Lehenik eta behin, azpimarra daiteke Eusko Jaurlaritzaren gastu nagusia Hezkuntzan eta Osasunean egiten dela; hala, horrek adierazten du gizarte-ongizateko lerro batek eratzen duela funtsak erabiltzeko egitura.

Bestalde, pozten gaitu egiaztatzeak inbertsio errealak, herrialdearen garapenerako funtsezkoak direnak ondo bideratuta daudenean, bilakaera negatiboko sei ekitaldi igaro ostean, 2016an berriz ere hazi zirela. Hala ere, apur bat itxaron beharra dago joera-aldaketa bat ote den egiaztatu ahal izateko. Horrez gain, inbertsio horien eraginkortasuna eta errentagarritasuna kontuan hartu behar dira, baita saturazio edo gaininbertsioko ondorioak saihestu ere.

Halaber, nabarmendu behar dugu zor publiko biziak hazten jarraitu duela, aurreko urteetan baino erritmo txikiagoan izan bada ere. Funtsezkoa iruditzen zaigu jardueraren eta diru-sarrera publikoen susperraldiari esker, Sektore Publikoa zorpetzea kontrolatzeko bidean jarri ahal izatea.

…

Ikerketa, garapen eta berrikuntzako jarduerei dagokienez, 2020rako hiru urte falta direla, EAEn oso urruti gaude I+G-ko finantzazioaren helburuak lortzea egiaztatzeko bidetik, sektore pribatuan nahiz sektore publikoan. Kezkagarria da egiaztatzea ikerketa, garapen eta berrikuntzako jardueran egindako esfortzuak eta horien finantziazioa 2013tik murrizten egotea.

Aldi berean, I+G-ko gastuaren finantzazioak sektore pribatuan eta sektore publikoan duen banaketa ez da oso desberdina EAEren eta Eurogunearen egoera erkatzean. Hala, ohartarazi egin behar dugu finantzazio pribatuaren pisua txikiagoa dela EAEn I+G-n erreferentziako herrialdeetan baino. Hala ere, alde nabarmena da, kasu honetan kontrako zentzuan, Estatuko batez bestekoarekiko, non sektore pribatuak I+G-ren % 45,8 baino ez duen finantzatzen.

Horrez gain, kezkagarria da berrikuntzako adierazle sintetikoaren "Aktibo intelektualak" dimentsioaren balioa EB28ko eta Estatuko batez bestekoaren azpitik egotea. Emaitza honekin, ikus daiteke EAEn inbertsio handia egin izan dela ikerketa eta garapeneko jardueretan eta, hala ere, ematen du zailtasunak dituela inbertsio hori emaitzetara helarazteko.

Bestalde, euskal enpresen tamaina txikiagatik izan daiteke egoera hori.

Azken baten, EAEko I+G+b-ren bilakaeraren baterako balorazioaren arabera, lidergo posizioei eusten zaiela esan daitekeen arren, joera aldatzeko posibilitatea dagoela pentsa daiteke, eta hori nabarmentzea komeni da. Hala, nolabaiteko agortze-sintomak ageri dira inbertsioaren murrizpenean eta merkataritza-eraginkortasun apalean.

Kontseilu honen ustez, ikerketa, garapen eta berrikuntzan egindako esfortzuen eraginkortasuna handitzeko, komenigarria izango litzateke ikerketa eta garapena enpresei transferitzeko sistema indartzea, baita ikerketa eta garapeneko jardueren merkatura bideratzea ere. Halaber, esfortzu bat egin beharko litzateke ikerketa, garapen eta berrikuntzako euskal sistemaren eta eteen arteko komunikazioa hobetzeko eta

indartzeko, horietara hurbilduz sistema horrek eskaini ditzakeen aukerak eta abaguneak. Hori guztia daukan posizio lehiakorra hobetzeko, hain zuzen ere, horien jauzi teknologikoaren bidez.

Ildo beretik, eta Eusko Jaurlaritzaren PCTI2020 programan ezarritako Espezializazio Adimenduneko Estrategien eta RIS 3ren logikari jarraituz, beharrezkoa da arrakasta esperientziak eta gainezka egiteko ahalmena indartzen jarraitzea. Hartara, funtsezkoa da "ezkutuko txapeldunak" identifikatzea.

Era berean, interesgarria izango litzateke eskaintza zientifiko teknologikoa eskariarekin bateratu beharra dagoela azpimarratzea eta, horretarako, funtsezkoa da sistematikoki aktibatzea RVCTIko eragileak. Aldi berean, estrategikoa da euskal enpresa gehienen tamaina txikiari datxezkion arazoak konpontzea.

…

Informazioaren eta Komunikazioen Teknologiei dagokienez (IKT), aurreko Memoria Sozioekonomikoetan adierazi izan dugun bezala, EAE IKT ekipamendu-zuzkidurak onak dituen lurralde bat da, banakako ikuspegitik zein enpresen ikuspegitik. Hala eta guztiz ere, EAE, etxetik internetera sartzeko aukera duten etxebizitzen ehunekoari dagokionez, oraindik, Europako iparraldeko eskualdeetan ikusten diren erreferentziengandik urrun dago.

Aldi berean, oso aintzat hartu behar dugu gure gizartean badirela zenbait talde kaltetu IKTen erabilerari dagokionez, eta hona hemen Interneterako konexioa ez duten pertsonen profila: bakartuta bizi diren pertsonak, 55 urtekoak eta gehiagokoak, prestakuntza maila txikiagokoak eta langabeak.

Halaber, ezin dugu alde batera utzi sarean dauden zerbitzuak erabiltzen dituzten enpresen ratioa txikiagoa dela Euskadin Estatuko batez bestekoekin alderatuz.

Horrez gain, gogoratu beharra dago, azkenengo urteotan, software-ean egindako inbertsioaren bilakaera beheranzkoa izan dela. Beraz, funtsezkoa da enpresetan IKT eta horien erabilera bultzatzen jarraitzea, 4.0 industria ezartzeko beharrezko baldintza gisa.

Merkataritza elektronikoari dagokionez, aurten ere, bide hori erabilita egin diren salmentak gutxiago baliatzen dituzte euskal enpresek Europakoek baino. Ondorioz, baliteke azken urteetan modu esponentzialean hazten ari den salmentarako tresna horretan aukerak galtzen ari izatea.

Horrenbestez, EGABek berriz ere azpimarratu nahi du laguntza-neurriak bultzatzen jarraitu beharra dagoela, zertarako-eta aurrerapen teknologikoen zabalkundea bermatzeko herritarren eta enpresen artean.

III. KAPITULUA

Lan merkatua EAEn

Kapitulu honetan, EAEko lan-merkatuak azken urtean izan duen bilakaerari buruzko zifra nagusiak emango dira lan-merkatuaren hainbat aldetatik. Lehenik eta behin, jardueraren, okupazioaren eta langabeziaren bilakaera aztertuko da, baita gure Erkidegoak Europa mailan aldagai horiekiko duen egoera erlatiboa ere. Jarraian, lan-merkatuaren sarreren eta irteeren balantzea eskainiko da (kontratazioak, aldi baterako kontratuen amaiera eta iraizpenak), baita azken urtean gure Erkidegoan izan diren laneko harremanen balantzea ere, eta soldatei buruzko zifrekin jarraituko da Estatu mailarekin alderatuta.

Kapituluko bigarren zatiaren ardatza enplegu politikak dira: politika aktiboak, langabetuek lana eskuratzea lortzeko eta landunen enpleguari eusteko eta lanbidean promozionatu ahal izateko; politika pasiboak, berriz, langabetuen babes ekonomikora bideratuta, eta bazterketa arriskuan daudelako edo ezintasunaren bat dutelako arreta berezia behar duten pertsonentzako bestelako politika guztiak. Kapituluaren amaieran, Euskadin erreferentziako urtean lan osasunak eman dituen kopuru nagusiak ageri dira.

III.1. GRAFIKOA. EAE-KO ENPLEGUAREN ADIERAZLEEN BILAKAERA: URTE ARTEKO ALDAKUNTZA-TASA



	I 2013	II	III	IV	I 2014	II	III	IV	I 2015	II	III	IV	I 2016	II	III	IV
Ekonomia kontuak	-4,2	-3,3	-2,9	-1,6	-0,5	0,1	0,5	1,0	1,3	1,5	1,6	1,9	1,9	1,8	1,8	1,9
Giz. Seg. Afiliazioa	-4,3	-4,1	-4,0	-2,5	-0,6	0,1	0,5	1,2	1,6	2,0	2,0	2,2	2,1	2,0	1,7	2,0
BAI – EIN	-4,1	-3,5	-3,1	-2,1	-3,3	-1,1	0,3	0,3	2,2	-0,7	1,3	2,3	3,0	4,2	3,6	0,8
BJA – EUSTAT	-2,1	-2,5	-1,5	-0,1	-1,2	-0,6	-0,3	0,4	1,3	1,8	1,5	1,0	1,0	1,1	1,7	0,9

Iturria: EUSTAT, EIN eta Gizarte Segurantzaren datuekin eginikoa

Hamabost urtez lanpostuak sortu ondoren, EAEko lan-merkatuan okupazio zifren jaitsiera aldian murgildu zen EAE, eta 2013an hala jarraitu zuen. Ondorioz, 100.000 lanpostu galdu ziren, guztizkoaren %10. 2014an, urte arteko tasa positiboak aipatzen hasiak ziren estatistika-iturriak, guztiak norabide berean: %1aren inguruko hazkundea. Joera hori 2015ean finkatu zen, eta urtearen amaieran %2aren inguruko hazkundeak izan ziren okupazioan, betiere BJA alde batera uzten badugu, hazkunde txikiagoa zenbatetsi baitzuen.

2016an, Memoria honetako II. kapituluan berariaz aztertzen diren Hileko Ekonomia Kontuek (HEK) nahiz Gizarte Segurantzako kotizatzaileen kopuruak[1] landunen %1,9ko hazkundea zenbatetsi zuten laugarren hiruhilekoan, baina EUSTATen BJAk nahiz EINen EPAk okupazioaren gaineko hazkunde datu positiboak dituzte, txikiagoak izanik ere, hots, %1aren azpitik (+%0,9 eta +%0,8 hurrenez hurren).

Bestalde, honako kapitulu honen 2. atalean ikusiko denez (lan-kontratazioak hiru urte metatu ditu jada) bilakaera positiboak eta garrantzitsuak (+%11,8 eta +%14,2), aurreko ekitaldietako datu negatiboen ondotik. Gainera, LANBIDEn erregistraturiko langabetuen kopurua laugarren urtez jarraian jaitsi zen 2016an, eta urtearen amaieran urte arteko -%9,2arekin bukatu zen. Bilakaera on hori gorabehera, 136.000 lagun inguruk langabezian jarraitzen zuten 2016. urtearen amaieran, eta kopuru hori dirudienez bat dator BJAk bere metodologia aldatu ostean zenbatetsi duenarekin.

[1] *"Kotizatzaile" terminoa erabilita, "afiliazio" esan nahi dugu, hots, Gizarte Segurantzan alta emanda dauden afiliatuak.*

1. JARDUERAREN, OKUPAZIOAREN ETA LANGABEZIAREN BILAKAERA

Epigrafe honetan, gehienbat EUSTATen BJAren, LANBIDEren eta EUROSTATen EEZPren datuak erabili dira nazioarteko erkaketak egiteko eta Gizarte Segurantzakoak afiliazioari buruzko informaziorako. Halaber, garrantzizkotzat jotzen diren lan-merkatuko adierazleei buruz iturri horietan informaziorik izan ez denean, EINen EPAra jo dugu. Azkenik, ez dira kontuan hartzen EUSTATen Hileko Ekonomia Kontuetako (HEK) enpleguari buruzko datuak. Hori begiratzeko, jo beza irakurleak Memoria III. Kapitulura *("EAEko ekonomia").*

1.1. JARDUERA

EUSTATen BJAren inkestako datuek erakusten dutenez, EAEko biztanleria aktiboa, 2016ko amaieran, guztira 1.032.300 lagun ziren, eta horietatik %52,4 gizonak ziren (550.500) eta %47,6 emakumeak (491.800). Hamabost urte lehenago, 2000an, 60/40ko banaketa zegoen sexuaren aldetik, eta beraz, agerian gelditzen da emakumeek lan-merkatuan duten presentzia erlatiboa handitu dela.

III.1.1. GRAFIKOA: EAE-KO BIZTANLERIA AKTIBOAREN BILAKAERA (MILAKOETAN)



Iturria: EUSTAT, BJA
**2016ko datuak behin-behinekoak dira*

III.1.1. TAULA. JARDUERA-TASAREN BILAKAERA EAE-N, SEXU ETA ADIN-TALDEAREN ARABERA. IV. HIRUHILEKOAK.

		2000	2008	2013	2014	2015	2016
GUZTIRA		**53,4**	**55,2**	**57,4**	**57,5**	**57,3**	**56,4**
SEXUA	GIZONAK	66,6	63,6	63,3	63,2	63,0	61,3
	EMAKUMEAK	41,0	47,2	51,9	52,3	52,0	51,8
ADINA	16 - 24	44,3	31,6	30,6	28,6	27,5	23,6
	25 - 44	85,7	87,1	89,7	91,6	90,5	89,5
	45 ETA +	31,3	37,6	42,8	42,6	43,8	44,1

Iturria: EUSTAT. "Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta".
** 2016ko datua behin-behinekoa da.*

Gizonen biztanleria aktiboa nabarmen jaitsi zen 2008 eta 2012 bitartean, noiz-eta enplegurako aukerarik ezagatik lanerako adinean zeuden langabeen zati handi bat zuzenean joan zenean langabeziara. Emakumeek, aldiz, lan-merkatuan sartzen jarraitu zuten 2011ra arte, baina emakume landunen kopuruak behera egin zuen 2012an. Bi bilakaera batzearen ondorioz, biztanleria aktiboak gora egin zuen Euskadin 2011ra arte. 2012an nabarmen jaitsi zen, 24.600 lanpostu galduta, eta 2013an galera hori berreskuratu zuen. Are gehiago, biztanleria aktiboak gora egin zuen, 46.000 lagun gehiago, urte hartako laugarren hiruhilekoan inoizko kopururik handienera iritsi arte: 1.053.700 lagun. Alabaina, biztanleria aktiboa berriz jaitsi zen 2014an (600 pertsona galduta, %0,1 besterik ez, berriz ere soil-soilik gizonezkoen biztanleria aktiboaren joeragatik, emakume aktiboek kopuruak berriz ere gora egin baitzuen), eta berriz ere 2015ean %0,3 (-3.300 lagun).

Urte arteko beste beherakada batekin bukatu zen 2016. urtea, oraingoan -%1,7koa, hots, 17.400 pertsona aktibo gutxiago. Horietatik %90etik gora gizonak dira (-15.900), zeren eta aktiboen kopuruak %2,9 egin baitu behera. Emakume aktiboen kopurua, berriz, %0,3 besterik ez da murriztu (-1.500).

EAEko jarduera-tasa orokorra 2016. urtearen amaieran %56,4koa zen (2015ean baino 9 hamarren gutxiago), eta emakumeena %51,8koa da (2 hamarren gutxiago). Gizonen biztanleria %61,3raino jaitsi da (2015eko amaieran baino 1,7 puntu gutxiago). EBn, 2016ko hirugarren hiruhilekoko batez bestekoa %73,7koa da (%78,8 gizonentzat eta %67,5 emakumeentzat), aurreko urtean baino bi hamarren gehiago.

III.1.2. GRAFIKOA. EAE-KO ENPLEGUAREN ADIERAZLEEN BILAKAERA: URTE ARTEKO ALDAKUNTZA-TASA.



Iturria: EUSTAT, BJA

Bestalde, jarduera-ratioen jokabidea ez da berdina adin-talde guztietan: 2016an, %3,9ko jaitsiera izan da aurreko urtearen aldean 25 urtetik beherakoen artean, eta puntu portzentual batekoa bitarteko adin-taldean. 44 urtetik gorakoen artean, berriz, 3 hamarren handitu da jarduera-tasa.

Sexuaren eta adinaren datuak gurutzatuta ikusten denez (III.1.2 grafikoa), talderik gazteenaren jarduera-tasa berdintsua da bi sexuetan (%23,9 gizonentzat eta %23,4 emakumeentzat). Azken urtean bereziki nabarmena izan da jaitsiera (-5,2 puntu; emakumeena, berriz, -2,4 da). Bitarteko adin-taldean, antzekoa izan da bilakaera bi sexuetan eta, beraz, eutsi egiten zaio bien arteko 2 puntuko aldeari. 45 urte eta gehiagoko pertsonentzat, aldiz, jokabide desberdina da: Jarduera-tasa orokorrean 3 hamarreneko gehikuntza izan da emakumeen taldearen bilakaera positiboari esker (+%1,4 2015aren aldean), zeren eta gizonen artean 8 hamarreneko jaitsiera baita. Horrenbestez, emakumeen eta gizonen artean dagoen aldea, adin-talde horretan, handiena da, 12 puntukoa, aurreko urtean baino 2 hamarren gutxiago.

Azkenik, eginiko zenbatespenen arabera, Euskadin 872.300 familia daude, eta horietatik 591.800ek pertsona aktiboren bat dute (%67,8), eta %32,2k ez du pertsona aktiborik (280.500). Halaber, 489.900 familiatan, erdian baino gehiagotan, pertsona aktibo guztiak lanean ari dira (%56,2), eta 49.900 etxetan pertsona aktibo guztiak langabezian daude, guztizkoaren % 5,7.

1.2. OKUPAZIOA

1.2.1. Okupazioaren kopuruak

BJAren datuek erakusten dutenez, gure Erkidegoan 2016an enpleguan izandako bilakaeran, okupazio edo enplegu tasa %65,9 zen urtearen amaieran (%69 gizonentzat eta %62,7 emakumeentzat), aurreko urtean baino 1,1 puntu gehiago.

Lurraldeen arabera, okupazio-tasarik handiena Gipuzkoan dago (%67,6, eta gainera 1,5 puntutan handitu da aurreko urtean), eta ondoren Araban, %66,9arekin (+0,9 puntu) eta, azkenik, Bizkaiak du tasarik txikiena, %64,5ekoa hain zuzen ere (+0,8 puntu).

III.1.3. GRAFIKOA. EAE-KO ETXEBIZITZEN OKUPAZIOAREN BILAKAERA ADIN-TALDEEN ARABERA. IV. HIRUHILEKOAK (MILAKOETAN)



Iturria.- EUSTAT.BJA

Bestalde, Europar Batasunak honako helburu hau du ezarria 2020rako 20-64 urte bitarteko pertsonentzat (ez 16-64 urte bitarteko pertsonentzat EUSTATek BJAn argitaratu ohi duen moduan) %75eko tasa[2]. EBko batez bestekoa 2016ko hirugarren hiruhilekoan %71,5ean kokatu zen (%77,4 gizonentzat eta %65,5 emakumeentzat).

2014an EAEn okupazioan izan zen gehikuntza %0,4koa izan zen, eta 3.300 lanpostu gehiago izan ziren. 2015ean, %1ekoa igoera izan zen (+8.500 lanpostu, horietatik 6.500 emakumeenak). Azken urtean, 2015eko laugarren hiruhilekoaren eta 2016ko laugarren hiruhilekoaren artean, BJAren zenbatespenen arabera, enpleguaren hazkundea %0,9 da (+8.100 lanpostu, horietatik %67,9 emakumeenak, zeren eta, 2015ean bezala, emakumeen enplegua batez bestekoaren gainetik handitu baitzen, +%1,3, eta gizonena, berriz, +%0,6).

III.1.2. TAULA. OKUPAZIOAREN BILAKAERA EAE-N, SEXUAREN ETA SEKTOREEN ARABERA. 2014-2016*. IV HIRUHILEKOAK.

		B. BESTEKOAK (MILA)			GEHIKUNTZA (MILA)		URTE ARTEKO ALDAK. TASA (%)	
		2014	2015	2016*	14-15	15-16*	14-15	15-16*
GIZONAK	LEHEN SEKTOREA	6,6	6,5	6,9	-0,1	0,4	-1,5	6,2
	INDUSTRIA	152,7	147,7	149,2	-5,0	1,5	-3,3	1,0
	ERAIKUNTZA	42,5	41,0	42,8	-1,5	1,8	-3,5	4,4
	ZERBITZUAK	267,8	276,6	275,4	8,8	-1,2	-3,3	-0,4
	GUZTIRA	469,7	471,8	474,4	2,1	2,6	0,4	0,6
EMAK.	LEHEN SEKTOREA	2,7	2,9	2,5	0,2	-0,4	7,4	-13,8
	INDUSTRIA	36,4	38,8	38,5	2,4	-0,3	6,6	-0,8
	ERAIKUNTZA	4,9	5,8	5,0	0,9	-0,8	18,4	-13,8
	ZERBITZUAK	372,6	375,6	382,6	3,0	7,0	0,8	1,9
	GUZT.	416,6	423,1	428,6	6,5	5,5	1,6	1,3
GUZT.	LEHEN SEKTOREA	9,3	9,4	9,4	0,1	0,0	1,1	0,0
	INDUSTRIA	189,1	186,6	187,7	-2,5	1,1	-1,3	0,6
	ERAIKUNTZA	47,4	46,7	47,8	-0,7	1,1	-1,5	2,4
	ZERBITZUAK	640,4	652,2	658,1	11,8	5,9	1,8	0,9
	GUZTIRA	**886,4**	**894,9**	**903,0**	**8,5**	**8,1**	**1,0**	**0,9**

Iturria: EUSTAT.
** 2016ko datuak behin-behinekoak diras.*

III.1.4. GRAFIKOA. EAE-KO ETXEBIZITZEN OKUPAZIOAREN BILAKAERA ADIN-TALDEEN ARABERA. IV. HIRUHILEKOAK (MILAKOETAN)



Iturria: EUSTAT, BJA
**2016ko datuak behin-behinekoak dira*

Enpleguaren gehikuntza horren oinarria, lehenik eta behin, zerbitzuen sektorea da, 5.900 lanpostu gehiago izan baititu (+0,9) eta, arestian esana dugunez, emakumeen artean, 7.000 lanpostu gehiagorekin. Gizonen tasan, berriz, 1.200 lanpostuko murriztapena dago[3].

Industrian, bestalde, 1.100 lanpostu gehiago izan dira (+0,6 batez bestekoaren azpitik), kasu honetan gizonen 1.500 lanpostu gehiago ken emakumeen 300 lanpostu gehiago eginda. Gauza bera gertatu zen eraikuntzan; izan ere, urteetan

---

[2] *Europako 2020 Estrategia, Europako Kontseiluak 2010ean onetsia, egungo hamarkadarako agenda komuna da. Hazkunde adimenduna, iraunkorra eta integratzailea lehenesten du Europako ekonomiaren ahulezia estrukturalak gainditzeko, baita lehiakortasuna eta produktibitatea hobetzeko eta merkatuko ekonomia soziala iraunkorra sendotzeko ere. Hona hemen haren bost helburu nagusiak:*

1) *20 eta 64 urte bitarteko Europako biztanleen %75ek lana izan beharko luke.*
2) *I+G arloko barne gastuak BPGaren %3 izan beharko luke.*
3) *"20/20/20" helburua lortu beharko litzateke klimaren eta energiaren arloan: negutegi-efektuko gasen isuriak %20 gutxitzea, energiaren kontsumoa %20 aurreztea eta energia berriztagarrien kontsumoa %20raino sustatzea.*
4) *Eskola uztearen portzentajeak %10etik beherako izan beharko luke, eta belaunaldi gazteenaren %40k goi mailako ikasketak bukatuta izan beharko lituzke.*
5) *EBko pobrezia arriskuan 20 milioi lagun gutxiago egon beharko litzateke.*

[3] *Emakumeen eta gizonen enpleguaren aldakuntzen batura ez datoz bat guztizkoarekin, zeren eta "milako" kopuruak erabiltzen baitira eta BJAk biribildu egin baitu kopurua. Nolanahi ere, %1,2ko errore-marjina da zenbatetsitako okupazioaren hazkundean (100 lanpostu inguru).*

beherakadan izan ondoren, 1.100 lanpostu gehiago izan zituen (+%2,4), gizonenen arteko hazkundearen (+1.800) eta emakumeen jaitsieraren ondorioz (-800).

Adinei dagokienez, azken urtean %0,4 hazi zen 25 urtetik beherakoen enplegu maila (+100 lanpostu), eta 25-44 urte bitartekoena, berriz, %1,2 jaitsi zen (5.300 lanpostu galduta). 45 urte eta gehiagokoen langabezia, aldiz, %3,2 hazi zen (+13.400 lanpostu), argi eta Garbi +%0,9ko batez bestekoaren gainetik.

III.1.5. GRAFIKOA. ALDI PARTZIALEKO OKUPAZIOAREN PORTZENTAJEAREN BILAKAERA, SEXUAREN ARABERA, EAE-N ETA ESTATUAN



Iturria: EIN eta BJAren datuekin eginikoa

Lanaldi motari dagokionez, EAEko lanaldi partzialeko enpleguaren ratioa %17,7 zen 2016ko laugarren hiruhilekoan (aurreko urtean baino puntu erdi gutxiago). Estatukoa, berriz, %15,3koa da. Gure Erkidegoan nahiz Estatu osoan, alde nabarmena antzematen da sexuen arabera: EAEko lanaldi partzialeko enplegu-tasa ia heren batekoa da emakumeen artean (%29,5), eta gizonena %7,2koa da. Espainian, berriz, emakumeen ratioa (batez bestekoa) %24,4koa da, eta gizonena, aldiz, %7,7. Kasu bietan, bi tasetan hainbat hamarreneko jaitsierak izan dira azken urtean (5 EAEn, gizonetan nahiz emakumeetan).

Europa, lanaldi partzialeko batez besteko tasa 2016an (III. hiruhilekoaren datuak) %19,2 izan zen (%21,3 euro eremuan): herrialde batzuetan oso tasa txikia da (%1,8 Bulgarian, %4,8 Hungarian) eta beste batzuetan, berriz, %25etik gorakoak daude, esaterako Austrian (%27,2) eta Alemanian (%26,2), eta bereziki Herbehereetan (%49,53). Gainera, EBko **herrialde** guztietan emakumeen lanaldi partziala gizonezkoena baino askoz handiagoa da (batez beste %31,6, gizonezkoen %8,7aren aldean), eta %40 gainditzen da herrialdeetako bostetan: Herbehereak, Erresuma Batua, Alemania, Austria eta Belgika.

III.1.3. TAULA. ALDI BATERAKO KONTRATUA DUTEN SOLDATAPEKOEN EHUNEKOA, SEXUAREN ARABERA. IV HIRUHILEKOAK.

		2014	2015	2016	ALD. 14-15	ALD. 15-16
EAE	**GUZTIRA**	**21,6**	**23,9**	**23,4**	**2,3**	**-0,5**
	GIZONAK	17,7	22,0	20,9	4,3	-1,1
	EMAKUMEAK	24,6	25,8	26,9	1,2	1,1
ESPAINIA	GUZTIRA	24,2	23,9	26,5	-0,3	2,6
	GIZONAK	23,9	25,6	26,1	1,7	0,5
	EMAKUMEAK	25,3	25,8	26,9	0,5	1,1
EB28*	GUZTIRA	14,4	14,6	14,6	0,2	0,0
	GIZONAK	14,1	14,4	14,3	0,3	-0,1
	EMAKUMEAK	14,7	14,9	14,9	0,2	0,0

Iturria: EUROSTAT eta EIN-en datuekin eginikoa (epa).
Datos del III trimestre.

Behin-behinekotasun mailei dagokienez, 2016ko laugarren hiruhilekoan aldi baterako lan-kontratua zuten soldatapeko pertsonen portzentajea %23,4 zen, aurreko urtean baino puntu portzentual erdi gutxiago. Estatuko batez bestekoa, berriz, %26,5 zen, 2,6 puntu hazita. Sexuaren arabera, %26,9ko tasa da emakumeentzat, gizonezkoen tasa baino 6 puntu handiagoa. Alde hori, gainera, handitu egin da, zeren eta, emakumeen lanaldi partzialeko lanpostuen proportzioa 1,1, handitu bada ere azken urtean, gizonena antzeko proportzioan jaitsi baita.

%20tik gorako behin-behinekotasun maila horiek soilik gertatzen dira EBren barruan, Espainiaz gain, Polonian, Kroazian, Portugalen eta Holandan. Izan ere, batez bestekoa %14,6 da Europar Batasunean (%14,9 emakumeentzat eta %14,3 emakumeentzat) eta %16,1 euro gunean (%15,8 eta %16,3, hurrenez hurren, gizonak eta emakumeak), EUROSTATek 2016eko hirugarren hiruhilekorako emandako datuen arabera.

1.2.2. Afiliazioa Gizarte Segurantzan

Gizarte Segurantzako kotizatzaileen batez besteko kopurua, 2016ko abenduan (ikus kapitulu honetako 1 orri-oinean), 925.291 zen, eta horietatik %47 emakumeak ziren eta %53 gizonak. Hala, %1,9 egin du gora aurreko urteko hilearen aldean (+%3,1 batez beste Estatuan), eta guztira 17.326 afiliatu gehiago daude alta emanda, hain zuzen ere 2015ean izandako igoerari gehituta (%1,7koa izan zen). Gipuzkoan eta Araban, berriz, %2,4 eta %2ko igoerak izan dira, hurrenez hurren.

Sexuaren arabera, emakumeen afiliazioak %2,1 egin du gora; gizonezkoena, berriz, %1,8. Bestela esanda, urtean 8.563 afiliatu gehiago zenbatu ziren Gizarte Segurantzan (hazkunde osoaren %49) eta 8.761 emakume afiliatuta (% 51).

III.1.4. TAULA. ENPLEGU ADIERAZLEAK EB-N. III HIRUHILEKOAK.

	LANALDI PARTZIALAREN %			ALDI BAT. LANAREN %		
	2015	2016	Ald 15-16	2015	2016	Ald. 15-16
EB 28	19,3	19,2	-0,1	14,6	14,6	0,0
EURO GUNEA	21,4	21,3	-0,1	16,0	16,1	0,1
BELGIKA	23,6	24,5	0,9	9,0	8,9	-0,1
BULGARIA	2,2	1,8	-0,4	5,7	5,1	-0,6
TXEKIAR E.	5,3	5,7	0,4	10,3	10,0	-0,3
DANIMARKA	24,1	26,2	2,1	9,3	13,1	3,8
ALEMANIA	26,7	26,5	-0,2	13,2	13,2	0,0
ESTONIA	9,5	9,1	-0,4	4,0	4,9	0,9
IRLANDA	22,0	22,0	0,0	9,2	8,7	-0,5
GREZIA	9,0	9,6	0,6	13,0	12,1	-0,9
ESPAINIA	15,1	14,4	-0,7	26,2	27,0	0,8
FRANTZIA	18,0	17,8	-0,2	16,7	16,8	0,1
KROAZIA	6,3	5,8	-0,5	22,1	24,2	2,1
ITALIA	18,3	18,3	0,0	14,9	14,7	-0,2
ZIPRE	11,9	13,1	1,2	18,8	17,1	-1,7
LETONIA	7,6	8,5	0,9	4,0	3,6	-0,4
LITUANIA	7,7	6,4	-1,3	2,6	2,5	-0,1
LUXENBURGO	18,3	20,3	2,0	11,7	9,8	-1,9
HUNGARIA	5,6	4,8	-0,8	12,1	10,1	-2,0
MALTA	15,2	14,2	-1,0	8,3	7,8	-0,5
HERBEHEREAK	49,8	49,5	-0,3	20,7	21,1	0,4
AUSTRIA	26,6	27,2	0,6	9,7	9,6	-0,1
POLONIA	6,5	6,2	-0,3	27,9	27,3	-0,6
PORTUGAL	9,4	9,2	-0,2	22,3	22,4	0,1
ERRUMANIA	9,1	7,6	-1,5	1,3	1,4	0,1
ESLOVENIA	10,3	9,2	-1,1	19,6	17,1	-2,5
ESLOVAKIA	5,6	5,7	0,1	11,0	10,0	-1,0
FINLANDIA	13,1	14,2	1,1	16,7	17,7	1,0
SUEDIA	23,3	22,8	-0,5	18,0	17,1	-0,9
ERRESUMA BATUA	25,2	25,1	-0,1	9,2	6,0	-3,2
EAE*	**18,2**	**17,7**	**-0,5**	**23,9**	**23,4**	**-0,5**

Iturria: Geuk egina EUROSTAT eta ein-en datuekin.
Datos del IV trimestre.

III.1.5. TAULA. GIZARTE SEGURANTZAKO KOTIZATZAILEAK* LURRALDE ETA SEXUAREN ARABERA. ABENDUKO DATUAK.**

		ABENDUKO B.B. DATUAK		ALDAK. 15-16	
		2015	2016	Abs.	%
ARABA	GIZONAK	81.255	83.091	1.836	2,3
	EMAK.	66.911	68.663	1.752	2,6
	GUZT.	148.167	151.755	3.589	2,4
GIPUZKOA	GIZONAK	161.402	164.242	2.840	1,8
	EMAK.	140.662	143.864	3.202	2,3
	GUZT.	302.067	308.108	6.041	2,0
BIZKAIA	GIZONAK	238.212	242.100	3.888	1,6
	EMAK.	219.817	223.324	3.507	1,6
	GUZT.	457.731	465.427	7.696	1,7
GUZT. EAE	GIZONAK	480.870	489.433	8.563	1,8
	EMAK.	427.091	435.852	8.761	2,1
	GUZT.	**907.964**	**925.291**	**17.326**	**1,9**

**Ikus kapitulu honetako 1. orri-oina.*
Iturria: Elaboración con datos del Ministerio de Empleo y Seguridad Social.

Ekoizpen-adarrik gehienen bilakaera positiboa izan da [4], hauexetan izan ezik: lehen sektorean (-%1,8), erauzketa-industrietan (%2,3ko jaitsiera) eta finantza- eta aseguru-jardueretan (-%4,1), inmobiliarietan (-%6,4), etxeko lanetan (-%4,1) eta beste zerbitzu batzuetan (-%0,3).

Manukfatura-industria da afiliazioan pisurik handiena duena (guztizkoaren %19,1), eta 2003 eta 2014 urte bitartean 8.000 afiliatu gutxiago izan ondoren, pixka bat handitu egin da batez bestekoaren gainetik 2016an (+%2), eta 3.353 afiliatu bildu ditu, gehi 2015ean irabazitako 1.462 pertsona (+4.815 biurtekoan).

Zerbitzuen sektorean, bestalde, batez bestekotik gora igo da afiliazioa, %2,1 hain zuzen, eta ondorioz, 13.131 afiliatu berri daude sektorean. Gainera, adar guztietan izan dira igoerak, aipaturiko finantzan eta higiezinen arloko jardueretan izan ezik. Afiliaziorik handiena biltzen duen zerbitzuen adarra den merkataritzan (guztizkoaren %15,6), urte arteko %1,1eko hazkundea izan zen (1.496 afiliatu gehiago). Pisu nabarmena duten beste jarduera batzuetan, hala nola osasunean, hezkuntzan eta ostalaritzan, batez bestekotik gorako urte arteko tasak bildu ziren (afiliazioan %3,6, %3,4 eta %2,8ko hazkundeekin hurrenez hurren).

Zerbitzuen sektorearen hobekuntza horri esker, emakumeen afiliazioa gizonezkoena baino hobea izan da; izan ere, gizonezkoak industriako eta eraikuntzako jardueretan metatzen da gehiago. Osotasunean, guztizkoaren

III.1.6. TAULA. GIZARTE SEGURANTZAREN AFILIZAZIOAREN BLAKAERA*, EKOIZPEN-ADARRAREN ARABERA.ABENDUKO B.B. BATUAK**

	2014	2015	2016	% ALD. 2015/16
NEKAZARITZA, ABELTZAINTZA, BASOGINTZA, ARRANT	6.458	6.480	6.366	-1,8
ERAUZKETA-INDUSTRIAK	628	602	588	-2,3
MANUFAKTURA-INDUSTRIA	165.569	167.031	170.384	2,0
ARGINDARRAREN HORNIDURA, GASA, LURRUNA	2.072	1.649	1.667	1,1
UR HORNIDURA, HONDAKINEN KUDEAKETA	5.516	5.657	5.672	0,3
ERAIKUNTZA	52.471	52.437	52.780	0,7
HANDIZKAKO ETA TXIKIZKAKO MERKAT.; KONPON.	135.130	137.358	138.854	1,1
GARRAIOA ETA BILTEGIRATZEA	37.378	38.588	39.717	2,9
OSTALARITZA	59.103	61.537	63.267	2,8
INFORMAZIOA ETA KOMUNIKAZIOAK	19.804	20.579	21.391	3,9
FINANTZA- ETA ASEGURU-JARDUERAK	19.622	19.512	18.716	-4,1
HIGIEZINEN ARLOKO JARDUERAK	3.860	4.010	3.755	-6,4
PROFESIONALAK, ZIENTIFIKOAK ETA TEKNIKOAK	49.357	52.335	53.270	1,8
ADMINISTRAZIO JARDUERAK	59.422	61.404	63.237	3,0
ADMINISTRAZIO PUBLIKOA	46.207	46.766	47.096	0,7
HEZKUNTZA	61.817	64.125	66.298	3,4
OSASUN ETA GIZARTE ZERBITZUETAKO JARDUERAK	85.498	88.091	91.275	3,6
ARTE, JOLAS ETA ENTRETENIMENDU JARDUERAK	13.914	14.663	15.349	4,7
BESTELAKO ZERBITZUAK	28.536	29.033	28.956	-0,3
FAMILIAK PERTSONALAREN ENPLEGATZAILE GISA	1.260	1.237	1.186	-4,1
LURRALDEZ KANPOKO ERAKUNDEAK	40	42	44	4,9
GUZTIRA**	**853.659**	**873.135**	**889.867**	**1,9**

Iturria: ENPLEGU ETA GIZARTE SEGURANTZA MINISTERIOA. GSZN. Geuk egina.
**Ikusi kapitulu honetako 1. Orrioina.*
***Nekazaritza Sistema berezia eta etxeko langileak aparte*

III.1.7. TAULA. EMAKUMEEK GIZARTE SEGURANTZAREN AFIZILIAZIOAN DUTEN PARTAIDETZA*, EKOIZPEN-ADARREN ARABERA. %-AK, ABENDUAREN 31.**

	2015	2016	ALD P.P. 2015/16
NEKAZARITZA, ABELTZAINTZA, BASOZAINTZA, ARRANTZA	29,9	29,8	-0,1
ERAUZKETA-INDUSTRIAK	14,7	14,4	-0,3
MANUFAKTURA-INDUSTRIA	20,0	19,9	-0,1
ARGINDARRAREN HORNIDURA, GASA, LURRUNA	22,7	24,9	2,2
UR HORNIDURA, HONDAKINEN KUDEAKETA	15,4	15,4	0,0
ERAIKUNTZA	11,5	11,5	0,0
HANDIZKAKO ETA TXIKIZKAKO MERKATARITZA; KONP.	53,1	53,0	-0,1
GARRAIO ETA BILTEGIRATZEA	19,0	19,5	0,5
OSTALARITZA	58,2	58,0	-0,2
INFORMAZIOA ETA KOMUNIKAZIOAK	36,7	37,2	0,5
FINANTZA- ETA SEGURU-JARDUERAK	52,1	53,0	0,9
HIGIEZINEN ARLOKO JARDUERAK	52,2	57,7	5,5
PROFESIONALAK, ZIENTIFIKOAK ETA TEKNIKOAK	51,5	51,3	-0,2
ADMINISTRAZIO JARDUERAK	57,0	56,1	-0,9
ADMINISTRAZIO PUBLIKOA	46,2	46,8	0,6
HEZKUNTZA	69,4	69,4	0,0
OSASUN ETA GIZARTE ZERBITZUETAKO JARDUERAK	77,8	77,8	0,0
ARTE, JOLAS ETA ENTRETENIMENDUKOAK	46,3	45,2	-1,1
BESTE ZERBITZU BATZUK	65,8	65,7	-0,1
ETXEAK PERTSONALAREN ENPLEGATZAILE GISA	41,3	41,6	0,3
LURRALDEZ KANPOKO ERAKUNDEAK	59,5	65,1	5,6
GUZT.**	**45,7**	**45,7**	**0,0**

Iturria: ENPLEGU ETA GIZARTE SEGURANTZAKO MINISTERIOA. GSDO. Geuk eginikoa.
**Ikusi kapitulu honetako lehen orri-oina.*
***Nekazaritza Sistema Berezia eta Etxeko Langileena alde batera utzita*

[4] *Hileko Ekonomia Kontuek (HEK) ekoizpenaren bilakaerari eta ekoizpen-adarraren araberako enpleguari buruzko informazio osagarria ematen dute. Ikusi Memoria honetako II. Kapitulua (EAEko ekonomia).*

%45,7 da emakumeen afiliazioa (Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak emandako abenduaren 31ko datuekin lortu da jarduera-adarraren eta sexuaren araberako banakapena; zerbitzuen sektorean, berriz, %55,7koa da, baina industrian %20 besterik ez da eta %11,5 eraikuntzan.

Emakume gehien dituzten adarrak osasunaren eta gizarte zerbitzuen eta hezkuntzaren arloko jarduerak dira (%77,8 eta %69,4 emakumeak dira, hurrenez hurren); pisu nabarmeneko beste jarduera batzuetan, merkataritzan, ostalaritzan edo jarduera profesionaletan, zientifikoetan eta teknikoetan adibidez, %50etik gora dira emakumeak.

III.1.8. TAULA. GIZARTE SEGURANTZAKO KOTIZATZAILE ATZERRITARRAK*, JATORRIAREN ETA SEXUAREN ARABERA. ABENDUKO BATEZ BESTEKOAK.

		KOTIZATZAILEAK ABENDUAN		ALDAK. 15-16	
		2015	2016	Abs.	%
EUROPAR BATASUNA	GIZONAK	9.988	10.797	809	8,1
	EMAK.	6.671	7.120	449	6,7
	GUZT.	16.659	17.917	1.258	7,6
B. BATZUK	GIZONAK	15.958	17.173	1.215	7,6
	EMAK.	17.545	17.423	-122	-0,7
	GUZT.	33.503	34.597	1.094	3,3
GUZT.	GIZONAK	25.946	27.970	2.024	7,8
	EMAK.	24.216	24.543	327	1,4
	GUZT.	**50.162**	**52.514**	**2.352**	**4,7**

**Ikus kapitulu honetako 1. orri-oina.*
Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioaren datuekin egina.

Bestalde, kotizatzaile atzerritarren kopurua (afiliazio guztiaren %5,7 ziren 2016ko abenduan) %4,7 egin zuen gora azken urtean, aurreko urtean %5,8 hazi ondoren. Kasu bietan, goranzko bilakaera da sexuen arabera: Gizonen artean %7,8 hazi da (+%7,3 2015ean) ; emakumeen artean, berriz, gutxiago hazi da, %1,4 (+%4,3 aurreko urtean). Jokabide bera gertatzen da atzerritar horien jatorriaren arabera; izan ere, EBko beste herrialde batzuetatik datozenen artean afiliazioa %7,6 handitu baita eta EBtik kanpokoen artean, berriz, %3,3.

1.3. LANGABEZIA

1.3.1. Langabeziaren kopuruak

2016. urtean lan-merkatuak izandako bilakaeraren emaitza gisa, BJAren langabezia-tasa orokorra % 14,5ekoa izan da urtearen amaieran eta % 14,9koa lau hiruhilekoen batez besteko modura; gauzak horrela, Europar Batasunaren batez bestekoa gainditzen da (EBn % 8,32koa izan da eta Eurogunean % 9,7koa).[5]. Sexuaren arabera, gizonezkoen langabezia-tasa emakumeena baino puntu bat handiagoa da (%12,8 eta %12,2 hurrenez hurren); adin-taldearen arabera, berriz, gehienak 25 urtetik beherako gazteak dira, eta talderik txikiena 45 urteko eta gehiagokoen taldean. 2015eko amaieraren aldean, langabezia gutxitu egin da sexu bietan eta azterturiko adin-tarte guztietan, eta nabarmentzekoa da gazteen langabeziaren 10 puntuko jaitsiera, eta ia 18 puntukoa azken bi urteetan (-%17,6).

III.1.9. TAULA. LANGABEZIA TASAREN BILAKAERA EAE-N, SEXU ETA ADIN-TALDEEN ARABERA. IV. HIRUHILEKOAK.

		2000	2008	2013	2014	2015	2016*
GUZTIRA		**12,5**	**4,6**	**16,2**	**15,8**	**14,7**	**12,5**
SEXUA	GIZONAK	8,4	4,1	16,3	15,7	15,2	12,2
	EMAK.	18,7	5,3	16,0	15,9	14,2	12,8
ADINA	16 -24	28,1	11,8	36,8	42,4	34,9	24,8
	25 -44	12,7	5,2	17,7	17,9	16,5	13,8
	45 ETA +	5,6	2,6	12,1	10,8	11,0	10,3

Iturria: EUSTAT. "Encuesta de BIZTANLERIA en Relación con la Actividad".
** BEHIN-BEHINEKOA DA 2016KO DATUA.*

Europar Batasunean, askotarikoak dira langabeziak dituen balioak: %20tik gorakoak, Espainian (%19) eta Grezian (%22,8), eta %6tik beherakoak, Txekiar Errepublikan, Alemanian, Herbeheretan eta Erresuma Batuan. AEBetan, %4,7ko langabezia-tasa zegoen 2016ko amaieran, Japonian %3,1 eta Frantziak, Irlandak eta Letoniak EBko batez bestekoaren antzeko zifrak zituzten, zenbait adibide aipatzearren.

[5] *Memoria honen II. Kapituluak ("II. EAEko ekonomia") Estatuko langabeziaren bilakaerari buruzko informazioa ematen du, autonomia erkidegoen arabera.*

III.1.10. TAULA. LANGABEZIA EB-N: ADIERAZLE NAGUSIAK 2015-2016. III HIRUHILEKOAK.

	TASA (LANGABEZIA OROK.)		GIZONAK		EMAK.		LANGAB. T. GAZT. (< 25 URTE)		IRAUPEN LUZEKO LANG. % (> URTEB.)	
	2015	2016	2015	2016	2015	2016	2015	2016	2015	2016
28 EB	9,1	8,3	8,9	8,1	9,3	8,6	19,9	18,5	48,2	46,7
EURO GUNEA	10,4	9,7	10,2	9,3	10,6	10,2	21,9	20,4	51,5	50,4
BELGIKA	8,3	8,0	8,6	8,0	7,8	7,9	22,2	21,8	51,0	51,7
BULGARIA	8,3	7,1	8,9	7,5	7,7	6,6	19,2	18,8	63,0	61,9
TXEKIAR E.	4,9	4,0	4,0	3,3	6,1	4,9	12,9	11,4	48,5	39,3
DANIMARKA	6,3	6,5	5,9	5,8	6,8	7,2	12,8	13,3	25,2	19,4
ALEMANIA	4,5	4,1	4,9	4,5	4,0	3,7	8,3	7,6	43,1	41,5
ESTONIA	5,4	7,7	4,7	7,6	6,1	7,8	11,6	12,7	35,6	32,7
IRLANDA	9,5	8,2	10,9	9,3	7,8	6,9	20,7	17,7	55,6	53,3
GREZIA	24,2	22,8	20,8	19,0	28,4	27,4	48,8	44,2	73,7	73,7
ESPAINIA	21,3	19,0	20,0	17,5	22,8	20,8	46,6	41,9	51,0	48,1
FRANTZIA	10,0	9,7	10,3	9,4	9,7	9,9	24,5	25,2	44,8	46,6
KROAZIA	15,6	11,0	14,5	9,9	16,8	12,3	41,0	28,0	67,5	49,7
ITALIA	10,7	11,1	10,2	10,4	11,5	12,1	35,3	34,5	59,1	58,1
ZIPRE	14,9	13,3	14,3	12,8	15,6	13,8	32,3	30,1	44,6	44,8
LETONIA	10,0	9,8	11,4	11,4	8,5	8,1	16,2	19,3	50,6	41,3
LITUANIA	8,5	7,7	9,3	8,7	7,8	6,6	15,3	13,1	43,9	37,3
LUXENBURGO	7,8	7,1	6,9	6,9	8,8	7,3	17,4	23,0	26,7	36,8
HUNGARIA	6,5	4,9	6,2	4,9	6,8	5,0	16,7	12,7	47,4	45,8
MALTA	5,3	4,9	5,5	4,7	5,0	5,2	13,3	12,3	44,5	39,9
HEREBEHEREAK	6,6	5,7	6,3	5,3	6,9	6,1	11,0	10,3	43,8	41,6
AUSTRIA	5,7	6,2	6,1	6,5	5,2	5,9	11,2	12,2	28,9	31,7
POLONIA	7,1	6,0	6,8	5,8	7,6	6,3	19,7	18,0	37,7	33,7
PORTUGAL	12,4	11,0	12,1	10,9	12,7	11,1	30,8	26,1	57,5	56,7
ERRUMANIA	6,8	5,9	7,2	6,4	6,1	5,1	19,9	20,5	45,2	48,7
ESLOVENIA	8,7	7,5	7,3	6,7	10,3	8,3	12,9	13,7	55,6	52,4
ESLOVAKIA	11,3	9,6	10,1	8,7	12,9	10,6	27,9	22,7	67,0	59,0
FINLANDIA	8,6	7,7	8,7	7,6	8,4	7,8	16,3	14,2	28,2	28,2
SUEDIA	6,7	6,5	6,9	6,7	6,4	6,2	15,9	14,7	22,2	20,1
ERRESUMA B.	5,6	5,1	5,7	5,2	5,5	4,9	15,2	13,9	28,2	25,8
EAE*	**14,7**	**12,5**	**15,2**	**12,2**	**14,2**	**12,8**	**34,9**	**24,8**	**:**	**:**

Iturria: Geuk egina EUROSTAT ETA EUSTAT-EN DATUEKIN.
**Laugarren hiruhilekoaren datuak. 2016eko datuak behin-behinekoak dira*

2016an, hirugarren urtez jarraian egin zuen behera EAEn langabezian zeuden pertsonen kopuruak (lau hiruhileko), sei urtez (2008. urtetik) Euskadin langabezia etengabe hazi ondoren. Zehazki, eginiko zenbatespenen arabera, 2016ko amaieran 129.300 langabetu zeuden, aurreko urtean baino %16,5 gutxiago (-25.500 lagun), eta horietatik 66.100 gizonezkoak ziren eta 63.200 emakumeak.

2015ean, langabeziaren beherakada orokorra, baina nagusiki gizonena, zeren eta langabetuen kopurua %21,9 jaitsita baita (18.500 langabetu gutxiago) ; emakumeena, berriz %10 gutxitu da (-7.000 emakume langabetu). Bilakaera horren ondorioz, 2016. urtearen amaieran, sexuen araberako langabezia-tasetan 6 hamarreneko aldea dago: %12,2 gizonentzat eta %12,8 emakumeentzat (%12,5 batez beste, ikusi dugunez); 2015eko amaieran, emakumeen tasa gizonena baino puntu bat txikiagoa zen (%14,2 eta %15,2 hurrenez hurren).

Adinen arabera, langabetuen kopuruak behera egin du horietan guztietan eta, bereziki gazteenetan (-%38,2 25 urtetik beherakoetan eta -%19,8 25 eta 44 urtekoen bitarteko taldean), baina 44 urtetik gorakoen artean ere bai (-%4,6), 2015ean gertatu ez bezala. Horren ondorioz, adin-talde horretako langabezia-tasan 7 hamarreneko jaitsiera dago, %10,3raino, %12,5eko batez bestekoaren azpitik oraindik. Gazteenen adin-taldean, berriz, txikitu egin da, baina batez bestekoaren gainetik betiere: %13,8 25 eta 44 urte bitartekoentzat eta %24,8 gazteenentzat, eta langabezian daude 16-24 urte bitarteko 9.400 gazte aktibo.

III.1.11. TAULA. EAE-KO LANGABETUAK. ALDAGAI NAGUSIEN BILAKAERA. MILAKOETAN (IV HIRUHIL.)

	PERTSONA KOP. (MILA)			ALDEA		ALDAK. %		LANGAB. TASA	
	2014	2015	2016*	2014-15	2015-16	2014-15	2015-16	2015	2016*
GUZT.	**166,7**	**154,8**	**129,3**	**-11,9**	**-25,5**	**-7,1**	**-16,5**	**14,7**	**12,5**
GIZONAK	87,7	84,6	66,1	-3,1	-18,5	-3,5	-21,9	15,2	12,2
EMAK.	79,0	70,2	63,2	-8,8	-7,0	-11,1	-10,0	14,2	12,8
16-24 URTE	19,0	15,2	9,4	-3,8	-5,8	-20,0	-38,2	34,9	24,8
25-44 URTE	98,4	87,2	69,9	-11,2	-17,3	-11,4	-19,8	16,5	13,8
45+ URTE	49,3	52,5	50,1	3,2	-2,4	6,5	-4,6	11,0	10,3

Iturria: EUSTAT "PRA".
** behin-behinekoak dira 2016ko datuak.*

EBn, %20 ingurukoa zen gazteen langabezia-tasa EB osoan (%18,5 28ko EBn eta %20,4 euro gunean), eta %30etik gorakoak ziren Italian, Portugalen eta Zipren, esaterako, eta %40tik gorakoak Grezian (%44,2) eta Espainian (%41,9). Beste muturrean zeuden Herbehereak, Malta, Austria, Hungaria eta Estonia, % 10-% 13 inguruko ratioekin, eta Alemania nabarmentzen zen gazteen langabezia-tasa txikiagatik: % 7,6.

III.1.12. TAULA. EAE-KO LANGABETUEN BILAKAERA EAE-N, SEXUAREN ETA SEKTOREEN ARABERA. 2014-2016*. IV HIRUHILEKOAK.

		B. BESTEKOAK (MILA)			GEHIKUNTZA (MILA)		URTE ARTEKO ALDAK. TASA (%)	
		2014	2015	2016*	2014-15	2015-16*	2014-15	2015-16*
GIZONAK	LEHEN SEKT.	2,1	1,4	0,8	-0,7	-0,6	-33,3	-42,9
	INDUSTRIA	18,8	19,0	13,6	0,2	-5,4	1,1	-28,4
	ERAIKUNTZA	17,0	16,7	11,4	-0,3	-5,3	-1,8	-31,7
	ZERBITZUAK	46,2	37,9	35,2	-8,3	-2,7	-18,0	-7,1
	1. LANAREN BILA	3,7	9,7	5,3	6,0	-4,4	162,2	-45,4
	GUZTIRA	87,7	84,6	66,1	-3,1	-18,5	-3,5	-21,9
EMAK.	LEHEN SEKT.	0,2	0,5	0,6	0,3	0,1	150,0	20,0
	INDUSTRIA	5,0	4,9	4,3	-0,1	-0,6	-2,0	-12,2
	ERAIKUNTZA	2,3	0,7	1,4	-1,6	0,7	-69,6	100,0
	ZERBITZUAK	64,4	53,7	49,7	-10,7	-4,0	-16,6	-7,4
	1. LANAREN BILA	7,2	10,5	7,1	3,3	-3,4	45,8	-32,4
	GUZTIRA	79,0	70,2	63,2	-8,8	-7,0	-11,1	-10,0
GUZT.	LEHEN SEKT.	2,2	1,8	1,4	-0,4	-0,4	-18,2	-22,2
	INDUSTRIA	23,8	23,9	17,9	0,1	-6,0	0,4	-25,1
	ERAIKUNTZA	19,3	17,4	12,8	-1,9	-4,6	-9,8	-26,4
	ZERBITZUAK	110,5	91,5	84,9	-19,0	-6,6	-17,2	-7,2
	1. LANAREN BILA	10,8	20,2	12,3	9,4	-7,9	87,0	-39,1
	GUZTIRA	**166,7**	**154,8**	**129,3**	**-11,9**	**-25,5**	**-7,1**	**-16,5**

Iturria: EUSTAT. "biztanleriaren inkesta jarduerari dagokionez".
** behin-behinekoak dira 2016ko datuak.*

Sektoreen arabera, langabetuen %65,7 zerbitzuen sektorekoak ziren 2016ko laugarren hiruhilekoan, non langabezia %7,2 jaitsi baitzen (-6.000 pertsona, eta horien erdia baino gehiago emakumeak ziren %51,5).

Bestetik, industria guztizko langabeziaren %13,8 zen 2016. urtearen amaieran, eta %25,1eko jaitsiera izan da industriaren langabezian (-6.000 lagun). Aurreko urtean, berriz, %0,4 hazi zen, eta horietatik %90 (5.400 lagun) emakumeak dira eta %10 emakumeak). Eraikuntzan, bestalde, %26,4 egin zuen behera langabetuen kopuruak (-4.600 pertsona garbi). Horrez gain, nabarmen egin zuen behera lehen lana bilatzen ari ziren pertsonen kopuruak, 7.900 gutxiago (-%37), eta guztira 12.300 zenbatu ziren hiruhilekoaren batez besteko gisa; horietatik %57,7 emakumeak ziren eta %42,3 gizonezkoak.

Lurraldeka, guztietan jaitsi zen langabezia, baina neurri desberdinean: Arabak, 2016eko laugarren hiruhilekoan, langabezia-tasarik txikiena zuen, %10,8koa, eta gainera 3,6 puntu murriztu zen 2015aren aldean; Gipuzkoa, berriz, nabarmendu hobetu zen, 2,1 puntu gutxiago izan baitzuen, %10,9raino, hori ere EAEko batez bestekoaren azpitik (%14), baina hobetu egin da azken urtean (ratioa 1,9 puntu jaitsi da).

III.1.6. GRAFIKOA. EAE-KO LANGABEZIA-TASAREN BILAKAERA LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA



Iturria: EUSTAT, BJA
**2016ko datuak behin-behinekoak dira*

1.3.2. LANBIDEk (Enpleguko Euskal Zerbitzua) erregistraturiko langabezia

2016ko bukaeran, BJAk zenbatetsitakoen oso antzeko zifrak bildu zituen LANBIDEk langabeziaren inguruan, estatistika-eragiketa horretan berriki sartu ziren metodologia aldaketaren ondoren. 2016ko abenduan, 136.173 langabetu zeuden erregistraturik LANBIDEn, 2015ean baino 13.844 gutxiago (%9,2 gutxiago aurreko urtearen aldean, eta Estatuan batez besteko -%9,5eko jaitsiera izanik), EUSTATen Biztanleriaren Inkestak urteko azken hiruhilekoan Jarduerarekin Erlazionatuta zenbatetsitako 129.300 langabetuen aldean, hots, 13.844 lagun gutxiago.

III.1.13. TAULA. EAE-N ERREGISTRATURIKO LANGABEAK, ADINAREN ETA SEXUAREN ARABERA. ABENDUA.

		LANGABEAK/ABENDUA			ALDAK. 15-16	
		2014	2015	2016	Abs.	%
< 25 URTE	GIZONAK	5.081	4.259	4.186	-73	-1,7
	EMAK.	4.852	4.177	3.996	-181	-4,3
	GUZT.	9.933	8.436	8.182	-254	-3,0
25 - 44 URTE	GIZONAK	40.546	33.864	28.525	-5.339	-15,8
	EMAK.	42.535	38.388	34.400	-3.988	-10,4
	GUZT.	83.081	72.252	62.925	-9.327	-12,9
45 URTE ETA +	GIZONAK	34.800	32.246	29.642	-2.604	-8,1
	EMAK.	37.957	37.083	35.424	-1.659	-4,5
	GUZT.	72.757	69.329	65.066	-4.263	-6,1
GUZT.	GIZONAK	80.427	70.369	62.353	-8.016	-11,4
	EMAK.	85.344	79.648	73.820	-5.828	-7,3
	GUZT.	**165.771**	**150.017**	**136.173**	**-13.844**	**-9,2**

Iturria: EEZP-REN DATUEKIN EGINA.

Lurraldeka, Gipuzkoan izan da jaitsierarik handiena, %10,6koa (-4.370 lagun eta 36.965 langabetu). Eta ondoren Araban, %9,3ko jaitsierarekin (-2.260 lagun eta 22.131 langabetu) eta Bizkaian %8,6 jaitsi da (-7.214 lagun eta 77.077 langabetu).

Krisia hasi zenetik laugarren urtez jarraian gertatu da erregistraturiko langabeziaren urte arteko saldo negatiboa, eta gainera, 2015ean bezala, langabezia bi sexuetan murriztu dela ikusten da: Bereziki gizonen artean (-%11,4), baina emakumeen artean ere bai (-%7,3), betiere -%9,2ko batez bestekoaren gainetik.

Adinaren araberako azterketan antzeko zerbait gertatzen da, zeren eta 2015eko abenduaren eta 2016ko abenduaren artean adin guztietan jaitsi baita erregistraturiko langabezia (salbuespen batekin: jaitsiera txikiak izan dira 19 urtetik beherako pertsonen artean eta 59 urtetik gorakoen artean, III.1.7. grafikoan ageri denez). Talde handien arabera, langabezia are gehiago jaitsi da 25 eta 44 urte bitartekoen artean (-%12,9), batez ere gizonen artean (-%15,8, talde horretako emakumeena, berriz, -%10,4), eta ondoren 45 urte eta gehiagokoen taldea (-%6,1) eta 25 urtetik beherakoena. Hala ere, kasu bietan, gizonezkoetan nahiz emakumezkoetan, batez bestekoaren azpitik.

III.1.7. GRAFIKOA. EAE-N ERREGISTRATURIKO LANGABETUEN BANAKETAREN BILAKAERA, ADIN-TALDEEN ARABERA. 2015-2016KO ABENDUAK



Iturria: EEZPren datuekin eginikoa

Ikasketa mailaren arabera, erregistraturiko langabeziak behera egin du, 2015aren aldean, maila guztietan eta sexu bietan. Jaitsierarik handienak, batez bestekoaren gainetik, DBH ondoko ikasketak dituzten pertsonen artean dago, bereziki lehen zikloko unibertsitateko ikasketak dituztenena (-%13,9) eta goi-mailako teknikari profesionalena (-%11,5) eta, neurri txikiagoan, bigarren eta hirugarren zikloko ikasketak dituztenena (-%9,5). Bigarren mailako ikasketetako jaitsiera ere batez bestekoaren gainetik dago (-%10,5 LHko titulua dutenentzat eta -%9,6 hezkuntza orokorreko ikasketak dituztenentzat). Oinarrizko ikasketak dituzten pertsonen langabezia ere jaitsi da, baina batez bestekoaren azpitik (-%7).

III.1.14. TAULA. EAE-N ERREGISTRATURIKO LANGABETUAK, IKASKETA MAILAREN ETA SEXUAREN ARABERA. ABENDUKO HILABETEAK.

			LANGABETUAK ABENDUAN				ALDAK. 15-16	
			2014	2015	2016	Dist. 2016*	Abs.	%
OINARRIZKOAK	IKASKETARIK EZ EDO OINARRIZ. OINARRIZKOAK OSATUGABEAK	GIZONAK	5.666	5.483	5.094	8,2	-389	-7,1
		EMAK.	5.510	5.657	5.614	7,6	-43	-0,8
		GUZT.	11.176	11.140	10.708	7,9	-432	-3,9
	OSATUAK	GIZONAK	10.877	9.922	8.898	14,3	-1.024	-10,3
		EMAK.	10.073	9.848	9.487	12,9	-361	-3,7
		GUZT.	20.950	19.770	18.385	13,5	-1.385	-7,0
2. MAILAKOAK	LANBIDE HEZIKETA	GIZONAK	6.551	5.643	4.951	7,9	-692	-12,3
		EMAK.	7.676	7.231	6.572	8,9	-659	-9,1
		GUZT.	14.227	12.874	11.523	8,5	-1.351	-10,5
	HEZKUNTZA OROKORRA	GIZONAK	42.797	36.871	32.584	52,3	-4.287	-11,6
		EMAK.	40.597	37.445	34.577	46,8	-2.868	-7,7
		GUZT.	83.394	74.316	67.161	49,3	-7.155	-9,6
DBH-ONDOKOAK	GOI-MAIL. TEKN. PROFES.	GIZONAK	7.214	6.035	5.223	8,4	-812	-13,5
		EMAK.	8.384	7.651	6.885	9,3	-766	-10,0
		GUZT.	15.598	13.686	12.108	8,9	-1.578	-11,5
	LEHEN ZIKLOA	GIZONAK	2.203	1.782	1.485	2,4	-297	-16,7
		EMAK.	4.367	3.791	3.311	4,5	-480	-12,7
		GUZT.	6.570	5.573	4.796	3,5	-777	-13,9
	2. ETA 3. ZIKLOAK	GIZONAK	5.035	4.559	4.034	6,5	-525	-11,5
		EMAK.	8.575	7.877	7.216	9,8	-661	-8,4
		GUZT.	13.610	12.436	11.250	8,3	-1.186	-9,5
	BESTE BATZUK	GIZONAK	84	74	84	0,1	10	13,5
		EMAK.	162	148	158	0,2	10	6,8
		GUZT.	246	222	242	0,2	20	9,0
GUZT.		GIZONAK	80.427	70.369	62.353	100,0	-8.016	-11,4
		EMAK.	85.344	79.648	73.820	100,0	-5.828	-7,3
		GUZT.	**165.771**	**150.017**	**136.173**	**100,0**	**-13.844**	**-9,2**

Iturria: Elaboración con datos de SEPE.
**Portzentajearen banaketa sexu bakoitzeko guztizkoaren gainean.*

Hori, gainera, antzekoa da bi kasuetan.

Hala ere, langabetuen talderik handiena hezkuntza orokorreko titulua zuten pertsonen artean kokatzen zen (erregistraturiko pertsona guztien %49,3) eta, oinarrizko ikasketak dituztenak gehituz gero (%21,4), langabetuen % 70,7 ziren (gizonezkoen %74,8 eta emakumezkoen %67,3). Pisua ia ez da aldatu azken urtean.

Aurreko lan esperientzia duten eta langabetu gisa inskribaturik dauden pertsonen jarduerari dagokionez, EEZPek argitaraturiko datuek erakusten dutenez, 2016ko abenduan behera egin zuen jarduera-atal guztietan EAEn erregistraturiko langabetuen kopuruak, bereziki enpleguan -eta langabezian- pisu handiena dutenetan, 2014ko abenduko datuen aldean. Erregistraturiko langabezian %13,1 duten administrazio-jarduerek %9,1 egin zuten behera, bereziki gizonen artean. Manufaktura-industria %14,5 jaitsi zen, eta hala ere, erregistraturiko langabeziaren %12 zen.

Eraikuntza ere batez bestekoaren azpitik jaitsi zen, %18,1, eta 2016ko amaieran langabeziaren %9,1 zen. Bi jarduera horietan, gainera, gizonezkoak askoz gehiago ziren emakumezkoak baino (manufaktura-industriako langabetuen %60,5 eta eraikuntzaren %88,4raino).

Hona hemen batez bestekoaren azpitik jaitsi ziren eta erregistraturiko langabezian pisu handia zuten bi jarduera-atal: merkataritza (langabezia guztiaren %13,9, eta horietatik %66,2 emakumeak ziren), %8,6 jaitsita, eta ostalaritza (erregistraturiko langabeziaren %9,7, eta horretatik %66,2 emakumezkoak ziren): %4,2 egin zuen behera, batez bestekoaren -%9,2aren aldean. Administrazio jarduerak, bestalde, erregistraturiko langabeziaren %13,1 dira, eta batez

bestekoan proportzio berean jaitsi da (-%9,1).

III.1.15. TAULA. EAE-N ERREGISTRATURIKO LANGABEZIA, SEXUAREN ETA JARDUERAREN ARABERA (CNAE 2009). ABENDUAN.

	2015	LANGABEAK 2016				aldak. % 15/16
		GIZONAK	EMAK.	GUZT.	% bertik.	
NEKAZARITZA, ABELTZAINTZA, BASOGINTZA ETA ARRANTZA	3.346	2.372	834	3.206	2,4	-4,2
ERAUZKETA-INDUSTRIAK	108	57	48	105	0,1	-2,8
MANUFAKTURA-INDUSTRIA	19.148	9.907	6.457	16.364	12,0	-14,5
ARGINDARRAREN HORNIDURA, GASA, LURRUNA	84	46	24	70	0,1	-16,7
UR HORNIDURA, HONDAKINEN KUDEAKETA	839	598	176	774	0,6	-7,7
ERAIKUNTZA	15.163	10.976	1.435	12.411	9,1	-18,1
HANDIKAZKKO ETA TXIKIZKAKO MERKATARITZA; KONPON.	20.711	6.392	12.536	18.928	13,9	-8,6
GARRAIOA ETA BILTEGIRATZEA	4.068	2.453	1.141	3.594	2,6	-11,7
OSTALARITZA	13.792	4.462	8.747	13.209	9,7	-4,2
INFORMAZIOA ETA KOMUNIKAZIOAK	2.805	1.203	1.171	2.374	1,7	-15,4
FINANTZA- ETA ASEGURU-JARDUERAK	973	305	584	889	0,7	-8,6
HIGIEZINEN ARLOKO JARDUERAK	495	160	309	469	0,3	-5,3
PROFESIONALAKA, ZIENTIFIKOAK ETA TEKNIKOAK	8.572	2.674	4.776	7.450	5,5	-13,1
ADMINISTRAZIO JARDUERAK	19.689	8.485	9.420	17.905	13,1	-9,1
ADMINISTRAZIO PUBLIKOA	4.540	2.048	2.035	4.083	3,0	-10,1
HEZKUNTZA	3.582	892	2.363	3.255	2,4	-9,1
OSASUN ETA GIZARTE ZERBITZUETAKO JARDUEARK	6.404	1.179	4.702	5.881	4,3	-8,2
ARTE, JOLAS ETA ENTRETENIMENDU JARDUERAK	2.523	1.165	1.170	2.335	1,7	-7,5
BESTE ZERBITZU BATZUK	4.116	1.132	2.647	3.779	2,8	-8,2
FAMILIAK PERTSONALAREN ENPLEGATZAILE GISA	3.465	620	2.976	3.596	2,6	3,8
LURRALDEZ KANPOKO ERAKUNDEAK	46	18	27	45	0,0	-2,2
AURRETIK LANIK GABE	15.548	5.209	10.242	15.451	11,3	-0,6
GUZT.	**150.017**	**62.353**	**73.820**	**136.173**	**100,0**	**-9,2**

Iturria: eezp-ren datuekin egina.

Aurreko lanik ez duten eta langabetu gisa erregistraturik dauden pertsonei dagokienez, 2016ko abenduan, guztizkoaren %11,3 ziren (batez bestekoa baino neurri txikiagoan jaitsi zen, %0,6 besterik ez), eta emakumeen presentzia handia zen taldean, kategoria horretan inskribaturiko 15.450 pertsonen bi herenak baitziren (%66,3).

III.1.16. TAULA. EAE-KO LANGABEZIA, JARDUERA-SEKTOREEN ETA SEXUAREN ARABERA. ABENDUAN 2015 ETA 2016.

	2015				2016				ALD. ABS. 15-16	
	GIZONAK		EMAK.		GIZONAK		EMAK.		GIZONAK	EMAK.
	ABS.	% B.	ABS.	% B.	ABS.	% B.	ABS.	% B.		
LEHEN SEKT.	2.509	3,6	837	1,1	2.372	3,8	834	1,1	-137	-3
INDUSTRIA	12.525	17,8	7.654	9,6	10.608	17,0	6.705	9,1	-1.917	-949
ERAIKUNTZA	13.494	19,2	1.669	2,1	10.976	17,6	1.435	1,9	-2.518	-234
ZERBITZUAK	36.695	52,2	59.086	74,2	33.188	53,2	54.604	74,0	-3.507	-4.482
AURRETIK LANIK EZ	5.116	7,3	10.432	13,1	5.209	8,4	10.242	13,9	93	-190
GUZT.	**70.339**	**100,0**	**79.678**	**100,0**	**62.353**	**100,0**	**73.820**	**100,0**	**-7.986**	**-5.858**

Iturria: Elaboración con datos de SEPE.

Langabezian daramaten denbora kontuan hartuz gero, 2016an behera egin zuen langabetuen kopuruak kategoria guztietan, langabezian hilabetetik beherako denbora daramatenena izan ezik. Badago datu positiborik ere: gehien txikitu den langabetu-taldea langabezian denbora gehien daramatenei dagokiena da, 25 urtetik beherakoetan nahiz adin horretatik gorakoetan, bai gizonetan, bai emakumeetan.

Erregistraturiko langabezia guztia %9,2 jaitsi arren, langabezian hilabetetik behera daramaten pertsonen guztizkoak (III.1.17 taulan 25 urtetik beherakoen eta gorakoen banakapena ageri da) %6,9 egin du gora. Alabaina, 1-6 hilabete daramatzatenetan %8,9ko jaitsiera dago, %12,4koa da 6 hilabete eta urte bitarteko denbora daramatenean (batez bestekoaren gainetik) eta %10,7 langabezian urtebetetik gora egin dutenentan (beraz, horretan ere batez bestekoaren gainetik).

III.1.17. TAULA. EAE-N ERREGISTRATURIKO LANGABETUAK, LANIK GABE EMANDAKO DENBORA, ADIN ETA SEXUAREN ARABERA. ABENDUKO DATUAK.

			ERREGISTRATURIKO LANGABETUAK			ALDAK. %	
			2014	2015	2016	2014-15	2015-16
< 25 URTE	< HIL.	GIZONAK	639	579	689	-9,4	19,0
		EMAK.	571	481	524	-15,8	8,9
		GUZT.	1.210	1.060	1.213	-12,4	14,4
	1 - 6 HIL.	GIZONAK	2.585	2.108	2.091	-18,5	-0,8
		EMAK.	2.274	1.844	1.732	-18,9	-6,1
		GUZT.	4.859	3.952	3.823	-18,7	-3,3
	6 HIL.- URTE 1	GIZONAK	719	586	568	-18,5	-3,1
		EMAK.	713	593	576	-16,8	-2,9
		GUZT.	1.432	1.179	1.144	-17,7	-3,0
	> 1 URTE	GIZONAK	1.138	986	838	-13,4	-15,0
		EMAK.	1.294	1.259	1.164	-2,7	-7,5
		GUZT.	2.432	2.245	2.002	-7,7	-10,8
	GUZT.	GIZONAK	5.081	4.259	4.186	-16,2	-1,7
		EMAK.	4.852	4.177	3.996	-13,9	-4,3
		GUZT.	9.933	8.436	8.182	-15,1	-3,0
> 25 URTE	< HIL.	GIZONAK	6.254	5.314	5.448	-15,0	2,5
		EMAK.	4.632	4.083	4.522	-11,9	10,8
		GUZT.	10.886	9.397	9.970	-13,7	6,1
	1 - 6 HIL.	GIZONAK	21.224	18.326	16.022	-13,7	-12,6
		EMAK.	18.542	16.687	15.667	-10,0	-6,1
		GUZT.	39.766	35.013	31.689	-12,0	-9,5
	6 HIL. - URTEB	GIZONAK	10.972	9.406	7.846	-14,3	-16,6
		EMAK.	11.064	10.081	9.108	-8,9	9,7
		GUZT.	22.036	19.487	16.954	-11,6	-13,0
	> URTEB.	GIZONAK	36.896	33.064	28.851	-10,4	-12,7
		EMAK.	46.254	44.620	40.527	-3,5	-9,2
		GUZT.	83.150	77.684	69.378	-6,6	-10,7
	GUZT.	GIZONAK	75.346	66.110	58.167	-12,3	-12,0
		EMAK.	80.492	75.471	69.824	-6,2	-7,5
		GUZT.	155.838	141.581	127.991	-9,1	-9,6
GUZT.		GIZONAK	80.427	70.369	62.353	-12,5	-11,4
		EMAK.	85.344	79.648	73.820	-6,7	-7,3
		GUZT.	**165.771**	**150.017**	**136.173**	**-9,5**	**-9,2**

Iturria: EEZP-ren datuekin egina.

Gauzak horrela, iraupen luzeko langabezia-tasa (egoera horretan urtebetetik gorako denbora daramaten langabetuen portzentajea) %52,4koa zen 2016ko abenduan, 2015eko abenduan baino %0,9 gutxiago. Ratio hori %47,6 zen gizonen artean (-0,8 puntu) eta %56,5ekoa emakumeen artean (-1,1 puntu).

25 urtetik beherakoen artean, iraupen luzeko langabeziaren pisua pixka bat txikiagoa bada ere, gauza bera gertatzen da: gutxiago murriztu da iraupen luzeko langabezia iraupen laburragoko langabezia eta batez bestekoa baino, halako moldez non iraupen luzeko langabezia %24,5 hazi baita gazteen artean (%20 gizonezkoetan eta %29,1 emakumezkoetan).

Eta 25 urtetik beherako langabetuentzat, are handiagoa da iraupen luzeko langabeziaren pisua: Eta 25 urtetik gorako langabetuei dagokienez, bilakaera baxua bada ere, iraupen luzeko langabeziaren pisuak askoz handiagoa izaten jarraitzen du: batez bestekoa %54,2 zen (-0,7 puntu), %49,6 gizonen artean (-0,4 puntu) eta ratiorik handiena 25 urtetik gorako emakumeen artean zegoen: horien %58k urtebetetik gora zeraman langabezian (-1,1 puntu 2015eko abenduarekin alderatuta).

III.1.18. TAULA. IRAUPEN LUZEKO LANGABEZIA TASA (> URTE 1) EAE-N, ADINAREN ETA SEXUAREN ARABERA ABENDUAN.

		LANG. GUZTIEN GAIN. %			ALDAK. P.P.	
		2014	2015	2016	2014-15	2015-16
< 25 URTE	GIZONAK	22,4	23,2	20,0	0,8	-3,1
	EMAK.	26,7	30,1	29,1	3,4	-1,0
	GUZT.	24,5	26,6	24,5	2,1	-2,1
> 25 URTE	GIZONAK	49,0	50,0	49,6	1,0	-0,4
	EMAK.	57,5	59,1	58,0	1,6	-1,1
	GUZT.	53,4	54,9	54,2	1,5	-0,7
GUZT.	GIZONAK	47,3	48,4	47,6	1,1	-0,8
	EMAK.	55,7	57,6	56,5	1,9	-1,1
	GUZT.	**51,6**	**53,3**	**52,4**	**1,7**	**-0,9**

Iturria: EEZP-ren datuekin egina.

III.1.19. TAULA. BILAKAERA DE LA DEMANDA DE EMPLEO EN LA EAE SEGÚN SITUACIÓN LABORAL . SEXUAREN ARABERA. ABENDUKO DATUAK.

		2014	2015	2016	ALDAK. %	
					2014-15	2015-16
LANGABEAK	GIZONAK	80.427	70.369	62.353	-12,5	-11,4
	EMAK.	85.344	79.648	73.820	-6,7	-7,3
	GUZT.	165.771	150.017	136.173	-9,5	-9,2
EZ LANGABEAK	GIZONAK	47.416	53.848	56.143	13,6	4,3
	EMAK.	59.695	68.909	73.779	15,4	7,1
	GUZT.	107.111	122.757	129.922	14,6	5,8
GUZT.	GIZONAK	127.843	124.217	118.496	-2,8	-4,6
	EMAK.	145.039	148.557	147.599	2,4	-0,6
	GUZT.	**272.882**	**272.774**	**266.095**	**0,0**	**-2,4**

Iturria: EEZP-ren datuekin eginikoa

Bestalde, eta aurreko urteetan ez bezala, 2016an behera egin zuen lan-eskatzaileen guztizko kopuruak, langabeak eta langabeak ez direnen baturak (2013an eta 2014an igo egin zen, baina 2015ean berdin eutsi dio). Guztizko kopurua %2,4 jaitsi zen eta, aldi berean, gora egin zuen teknikoki langabezian ez dauden lan-eskatzaileen datuak[6] (guztira 129.922 lagun dira, aurreko urtean baino %5,8 gehiago, 2015ean %14,6 hazi ondoren).

Lan-eskatzaileen guztizko kopurua 266.095 zen, 2015eko abenduan baino 6.679 gutxiago. Geldialdia gertatu da, funtsean, gizonen lan-eskariaren bilakaeragatik, %4,6 murriztu baita; izan ere, emakumeena %0,6 besterik ez da jaitsi. Estatu mailan, enpleguaren guztizko eskaria %8 jaitsi zen (-%7 2015ean).

Hala ere, 2016ko BJAren arabera langabetuen %30,5 ez zegoen erregistratuta langabe gisa LANBIDEn.

Azkenik, LANBIDEren bulegoetan erregistraturiko langabeziari buruzko datuek erakusten dutenez, 2016an murriztu egin zen atzerritarren langabezia, baina guztizko langabezia baino neurri txikiagoan (-%8,6, guztizko batez bestekoaren -%9,2aren aldean). Hori dela-eta, gora egin zuen atzerritar langabetuen pisuak, %15,7tik %15,8ra.

III.1.20. TAULA. ATZERRITARREN ARTEAN ERREGISTRATURIKO LANGABEZIAREN BILAKAERA EAE-N, JATORRIAREN ARABERA, ETA ESTATUAREKIKO ERKAKETA. ABENDUko datuak.

		EAE	ESTAT.	EAE%/ ESTAT.
2014	EB	5.409	188.699	2,9
	EZ EB	18.952	342.292	5,5
	GUZT.	24.361	530.991	4,6
	Guz. lang. %	14,7	11,9	-
2015	EB	4.954	173.248	2,9
	EZ EB	18.609	313.969	5,9
	GUZT.	23.563	487.217	4,8
	Guz. lang. %	15,7	11,9	-
2016	EB	4.383	157.553	2,8
	EZ EB	17.156	277.409	6,2
	GUZT.	21.539	434.962	5,0
	Guz. lang. %	15,8	11,7	-
% Var. 2015-16	EB	-11,5	-9,1	
	EZ EB	-7,8	-11,6	
	GUZT.	-8,6	-10,7	
	Guz. lang. %			

Iturria: EEZP-ren datuekin eginikoa.

[6] *Hauexek osatzen dute lan-eskatzaileen guztizko kopurua: erregistraturiko langabetuek (gehienak ziren 2016ko abenduan, EAEko lan-eskatzaileen %51) gehi beste lan bat eta beste egoera bat nahi duten landunek eta lanik ez duten lan-eskatzaileek baina eskaera bereziak dituztenek lanaren eta orduen aldetik (bakarrik etxez etxe, atzerrian, telelana, etab.).*

Estatuan, atzerritarrak langabetuen %11,7 dira, aurreko urtean baino hamarren bi gutxiago, zeren eta atzerritarren langabezia %10,7 gutxitu baita, guztizko enplegua baino gehiago (-%9,5).

2. KONTRATAZIOEN BILAKAERA, ALDI BATERAKO KONTRATUEN AMAIERA ETA IRAIZPENAK

2.1. KONTRATAZIOAREN EGOERA

Kontratazioak gora egin zuen 2016an aurreko urtearen aldean (+%6,8 guztira, eta %6,5 hasierako kontratuen kopuruan, hots, kontratu guztien %97,7 dira), eta 2014ko eta 2015eko zifra positiboak finkatu ziren, 2012an eta 2013an, berriz, behera egin zuen kontratazioak.

III.2.1. GRAFIKOA. EAE-KO LAN-KONTRATUEN URTEKO ALDAKUNTZA (%): HASIERAKO KONTRATUAK ETA GUZTIRA. ESTATUKO GUZTIAREKIKO ERKAKETA



Iturria: EEZPren datuekin eginikoa

Orotara, SEPEK 2016. urtean 926.599 lan-kontratu erregistratu ditu (berriak gehi konbertsioak). Horietatik %50 emakumeek izenpetu zuten (%50 aurreko urtean), eta gainera, kontrataturiko pertsona guztien %47,3 zen (aurrerago aztertuko dugu emakumeek eta gizonek urtean –txandaketa- izenpeturiko kontratuen batez besteko kopurua).

Lurraldeen arabera, Araban %5,5 egin zuen gora kontratazioak, eta Gipuzkoan %6. Bizkaia, berriz, lurralde bakarra da EAEko batez bestekoaren gainetik dagoen kontratu kopurua bildu duena, %7,8 (batez bestekoa %6,8 da). Banaketari dagokionez, Bizkaian kontratuen %52,5 sinatu zen (476.667), %29 Gipuzkoan (261.583) eta gainerako %18,5a Araban (167.278). Estatuan 2016an 19,9 milioi kontratu erregistratu dira, hau da, 2015ean baino % 7,5 gehiago, nahiz eta urte horretan % +11,1eko gehikuntza egon zen aurreko urtearen aldean.

Sektoreen arabera, hirugarren sektorea baino ez da hazi batez bestekoaren gainetik (+%7,6), eta honelako bilakaera izan da horren pisuan kontratazio guztiekiko: 2015eko %77,8tik 2016ko %78,4ra. Bigarrenik, industria %5,4 hazi da, halako moldez non kontratazioaren %15,9 baita (2 hamarren gutxiago aurreko urtearen aldean). Lehen sektoreko kontratazioak %3,8 egin du gora, eta aurreko urteko jaitsiera konpentsatu da eta, azkenik, eraikuntza da bilakaera negatiboa duen sektore bakarra: Kontratuen kopurua %1,1 jaitsi da, hots, guztizkoaren %3,7 da. Bilakaera negatiboaren ondoren, azken 6 urtean erdira murriztu da kontratazioan duen eragina.

III.2.1. TAULA. EAE-N ERREGISTRATURIKO LAN-KONTRATUEN BILAKAERA, SEXUAREN ETA JARDUERA-SEKTOREAREN ARABERA

	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	% 14/15	% 15/16
GUZT.	**710.042**	**723.820**	**703.837**	**678.946**	**759.149**	**867.255**	**926.599**	**14,2**	**6,8**
GIZONAK	344.521	357.087	328.466	330.787	376.235	433.438	458.363	15,2	5,8
EMAK.	365.521	366.733	375.371	348.159	382.914	433.817	468.236	13,3	7,9
LEHEN SEKT.	12.827	12.852	14.027	15.622	18.289	17.890	18.563	-2,2	3,8
INDUSTRIA	61.743	64.214	58.410	59.539	111.814	140.145	147.712	25,3	5,4
ERAIKUNTZA	47.488	41.954	33.606	32.250	34.186	34.434	34.069	0,7	-1,1
ZERBITZUAK	587.984	604.800	597.794	571.535	594.860	674.786	726.255	13,4	7,6

Iturria: EEZP. Enplegu Eta Gizarate Segurantza Ministerioa.

Hona hemen 2016an gehien kontratatu ziren jarduerak[7]: ostalaritza (hasierako kontratuen %15,9, 2015ean baino %11,6 gehiago), manufaktura-industria (kontratuen %15,9, %5 hazita), administrazio jarduerak eta zerbitzu osagarriak, horien artean ALEak (hasierako kontratu guztien %12,8, 2015ean baino %11,3 gehiago), osasun eta gizarte zerbitzuetako

[7] *Kontratuak jardueren atalka aztertzeko, hasierako kontratuak hartzen dira kontuan, guztizkoaren % 97,7 baitira.*

jarduerak (kontratuen %12,3 eta +%9,2 2014aren aldean) eta merkataritza (guztizkoaren %11 eta +%5,2 aurreko urtearen aldean).

Aldea ikusten da sexuen arabera; izan ere, gizonek izenpeturiko lau kontratuetako bat hartzen du manufaktura-industriak (guztizkoaren %24,3, 2015eko ratio bera). Emakumeen artean, berriz, osasun jarduerak eta ostalaritza dira jarduerarik handieneko atalak (bien artean kontratu berrien %38,8 hartzen dute).

III.2.2. TAULA. EAE-KO KONTRATAZIOA (HASIERAKO KONTRATUAK) SEXU ETA JARDUERA-ATALAREN ARABERA (CNAE 2009)

	2015	KONTRATUAK 2016				ALD %. 14/15	ALD. %. 15/16
		GIZONAK	EMAK.	GUZT.	% bertik.		
NEKAZARITZA, ABELTZAINTZA, BASOGINTZA, ARRANTZA	17.788	16.767	1.651	18.418	2,0	-2,1	3,5
ERAUZKETA-INDUSTRIAK	80	68	26	94	0,0	-14,9	17,5
MANUFAKTURA-INDUSTRIA	131.485	108.718	29.284	138.002	15,2	25,9	5,0
ARGINDARRAREN HORNIDURA, GASA, LURRUNA	108	82	71	153	0,0	45,9	41,7
UR HORNIDURA, HONDAKINEN KUDEAKETA	5.119	4.473	432	4.905	0,5	11,4	-4,2
ERAIKUNTZA	33.559	31.228	1.703	32.931	3,6	0,3	-1,9
HANDIKAZKO ETA TXIKIZKAKO MERKAT; KONPONK.	94.882	39.012	60.757	99.769	11,0	13,3	5,2
GARRAIOA ETA BILTEGIRATZEA	57.898	48.142	10.495	58.637	6,5	22,1	1,3
OSTALARITZA	129.029	54.844	89.213	144.057	15,9	17,3	11,6
INFORMAZIOA ETA KOMUNIKAZIOAK	21.624	12.005	8.567	20.572	2,3	23,0	-4,9
FINANTZA- ETA ASEGURU-JARDUERAK	5.493	1.559	3.650	5.209	0,6	29,9	-5,2
HIGIEZINEN ARLOKO JARDUERAK	1.518	438	561	999	0,1	16,6	-34,2
PROFESIONALAK, ZIENTIFIKOAK ETA TEKNIKOAK	29.394	11.987	17.151	29.138	3,2	15,4	-0,9
ADMINISTRAZIO JARDUERAK	104.289	48.319	67.804	116.123	12,8	0,6	11,3
ADMINISTRAZIO PUBLIKOA	9.822	5.215	7.219	12.434	1,4	14,0	26,6
HEZKUNTZA	38.033	11.495	29.058	40.553	4,5	14,5	6,6
OSASUN ETA GIZARTE ZERBITZUETAKO JARDUERAK	101.802	21.976	89.160	111.136	12,3	14,1	9,2
ARTE, JOLAS ETA ENTRETENIMENDU JARDUERAK	33.123	21.646	14.887	36.533	4,0	13,1	10,3
BESTE ZERBITZU BATZUK	18.506	7.172	11.863	19.035	2,1	21,0	2,9
FAMILIAK PERTSONALAREN ENPLEGATZAILE GISA	16.522	1.404	15.331	16.735	1,8	9,0	1,3
LURRALDEZ KANPOKO ERAKUNDEAK	34	44	51	95	0,0	9,7	179,4
GUZT.	**850.108**	**446.594**	**458.934**	**905.528**	**100,0**	**14,1**	**6,5**

Iturria: EEZP-ren datuekin egina. kontratuen estatistikak.

Manufaktura-industriak kontratu berrien %15,2 hartzen du, esana dugunez, eta %24,3 gizonen artean, eta horien barruan, honako jarduera hauek daude kontratazioaren rankingeko buruan 2016an (CNAE, bi digitutan): Metalezko produktuen fabrikazioa (31.660 kontratu, manufaktura-industriak erregistraturikoen %22,9 eta %24,3raino gizonen artean), Metalurgia (kontratuen %12,1) eta elikagaien industria (ratio bera, %12,1), halako moldez non 3 sekzio horien artean 65.105 kontratu biltzen dituzten, manufaktura-industrian erregistraturikoen ia erdia (%47,2).

II.2.3. TAULA. MANUFAKTURA-INDUSTRIA:
HASIERAKO KONTRATU KOPURURIK HANDIENA DUTEN ATALAK (CNAE 2009 BI DIGITURA) EAE-N. DATUAK SEXUAREN ARABERA. 2016

	KONTRATUAK 2016			KONTRATUEN % 2016			HAZKUNDEAREN % 2015/16		
	GIZONAK	EMAK.	GUZT.	GIZONAK	EMAK.	GUZT.	GIZONAK	EMAK.	GUZT.
1. PROD. METALIKO FABRIK.	26.270	5.390	31.660	24,2	18,4	22,9	10,8	17,0	11,8
2. METALURGIA. PROD. FABRIK.	15.177	1.558	16.735	14,0	5,3	12,1	-6,9	11,6	-5,4
3. ELIKAGAIEN INDUSTRIA	8.191	8.519	16.710	7,5	29,1	12,1	8,3	-3,4	2,0
4. MOTORDUN IBILG. FABRIK.	12.269	2.762	15.031	11,3	9,4	10,9	13,1	8,9	12,3
5. KAUTXU ETA PLASTIKOEN FABRIK.	7.026	1.843	8.869	6,5	6,3	6,4	15,0	9,2	13,7
6. GARRAIO BESTE MATERIAL FABRIK.	6.609	1.454	8.063	6,1	5,0	5,8	-3,1	-11,4	-4,7
GAINERAKOA	33.176	7.758	40.934	30,5	26,5	29,7	4,8	-0,1	3,8
GUZT. MANUFAKTURA-INDUSTRIA	**108.718**	**29.284**	**138.002**	**100,0**	**100,0**	**100,0**	**5,5**	**2,9**	**5,0**
KONTRATU BERRI GUZTIEN %	24,3	6,4	15,2						

Iturria: EEZP. Enplegu eta gizarte segurantza ministerioa.

Adin-taldeen arabera, 2016an gizonek nahiz emakumeek sinaturiko kontratu berri gehienak 25-45 urte bitarteko adin-tarteari dagozkio (kontratuen %58,4), 25-35eko eta 35-45eko adinetan banaturik, %30,9 eta %27,5 izanik hurrenez hurren. 25 urtetik behera, kontratuen %16,4 sinatu dira, biztanleria aktiboan duen pisua baino handiagoa, %3,7koa baita.

2015eko bilakaerari dagokionez, adin-talde guztietan igo da kontratuen kopurua, 25-35 urte bitarteko adin-tartea salbuespenarekin eta, zehazki, gizonen artean (emakumeetan bilakaera positiboa da adin guztietan). Ratiorik handienak, batez bestekotik gora, adinekoen artean gertatzen dira, eta gazteenetan ere bai, kontratazioaren guztikoan duen pisu txikiagoa bada ere.

III.2.4. TAULA. HASIERAKO KONTRATUAK EAE-N, SEXUAREN ETA ADINAREN ARABERA. 2015-2016KO ERKAKETA

	KONTRATUAK 2016			KONTRATUEN % 2016			HAZKUND. % 2015/16		
	GIZONAK	EMAK.	GUZT.	GIZONAK	EMAK.	GUZT.	GIZONAK	EMAK.	GUZT.
16-19	10.090	10.471	20.561	2,3	2,3	2,3	29,7	37,1	33,4
20-24	59.306	68.574	127.880	13,3	14,9	14,1	15,2	12,0	13,5
25-29	73.207	78.396	151.603	16,4	17,1	16,7	-2,9	2,6	-0,1
30-34	68.474	59.693	128.167	15,3	13,0	14,2	-1,6	0,2	-0,8
35-39	70.883	60.438	131.321	15,9	13,2	14,5	-0,9	5,9	2,1
40-44	60.402	56.983	117.385	13,5	12,4	13,0	8,6	7,1	7,9
45-49	44.936	52.460	97.396	10,1	11,4	10,8	7,9	10,2	9,1
50-54	32.839	40.721	73.560	7,4	8,9	8,1	14,2	9,6	11,6
55-59	18.935	22.843	41.778	4,2	5,0	4,6	20,7	19,3	19,9
>59	7.522	8.355	15.877	1,7	1,8	1,8	15,9	17,7	16,9
GUZT.	**446.594**	**458.934**	**905.528**	**100,0**	**100,0**	**100,0**	**5,3**	**7,7**	**6,5**

Iturria: eezp. enplegu eta gizarte segurantza ministerioa.

III.2.2. GRAFIKOA. III.2.2. GRAFIKOA. EAE-N IZENPETURIKO LAN-KONTRATUEN BANAKETA 2016AN, SEXUAREN ARABERA



Iturria: EEZPren datuekin eginikoa

III.2.5. TAULA. HASIERAKO KONTRATUAK EAE-N, SEXUAREN ETA IKASKETA-MAILAREN ARABERA. 2015-2016KO ERKAKETA

	KONTRATUAK 2016			KONTRATUEN % 2016			HAZKUND. % 2015/16		
	GIZONAK	EMAK.	GUZT.	GIZONAK	EMAK.	GUZT.	GIZONAK	EMAK.	GUZT.
IKASKETARIK EZ	21.710	17.777	39.487	4,9	3,9	4,4	-7,9	7,8	-1,4
OINARRIZKO IKASKETAK	81.797	64.026	145.823	18,3	14,0	16,1	26,6	19,3	23,3
- Oinarrizkoak, osatu gabe	13.515	9.557	23.072	3,0	2,1	2,5	22,3	9,8	16,8
- Oinarrizkoak, osatuak	68.282	54.469	122.751	15,3	11,9	13,6	27,5	21,1	24,6
2. MAILAKO IKASKETAK	260.699	265.736	526.435	58,4	57,9	58,1	1,7	6,6	4,2
- LH-ko programak	53.737	60.392	114.129	12,0	13,2	12,6	6,4	13,8	10,2
- Hezkuntza orokorra	206.962	205.344	412.306	46,3	44,7	45,5	0,6	4,7	2,6
2. MAILA ONDOKO IKASKETAK	82.081	108.035	190.116	18,4	23,5	21,0	3,7	4,7	4,3
- Goi-mailako tekn. prof.	37.255	33.275	70.530	8,3	7,3	7,8	2,7	15,3	8,3
- Lehen zikloa	10.070	23.579	33.649	2,3	5,1	3,7	-13,0	-7,3	-9,1
- Bigarren eta hirugarren zikloa	29.060	45.788	74.848	6,5	10,0	8,3	10,4	1,9	5,0
- Beste batzuk	5.696	5.393	11.089	1,3	1,2	1,2	14,6	35,4	23,8
ZEHAZTU GABE	307	3.360	3.667	0,1	0,7	0,4	-25,7	-5,1	-7,2
GUZT.	**446.594**	**458.934**	**905.528**	**100,0**	**100,0**	**100,0**	**5,3**	**7,7**	**6,5**

Iturria: EEZP. Enplegu eta gizarte segurantza ministerioa.

Gizonen eta emakumeen artean dauden aldeei dagokienez, kontratazioak bi sexuen artean banatzen dira ia %50ean, baina handiagoa da gizonen artean bitarteko adin-taldeetan (kontratazioaren zatirik handiena biltzen dutenak). Gazteenen artean (30 urtetik beherakoak) eta adinekoenen artean (45 urtetik beherakoak) emakumeek gizonek baino kontratu gehiago izenpetzen dituzte.

III.2.6. TAULA. EAE-N ERREGISTRATURIKO KONTRATUEN BILAKAERA, LANALDI MOTAREN ETA SEXURAEN ARABERA

		2013	2014	2015	2016	% 14/15	% 15/16
LANALDI PARTZIALA	GIZONAK	85.316	99.147	114.612	123.025	15,6	7,3
	EMAK.	183.627	203.939	227.607	248.707	11,6	9,3
	GUZT.	268.943	303.086	342.219	371.732	12,9	8,6
LANALDI OSOA	GIZONAK	244.649	276.242	317.926	334.205	15,1	5,1
	EMAK.	163.480	178.024	205.070	218.170	15,2	6,4
	GUZT.	408.129	454.266	522.996	552.375	15,1	5,6
JORNADA FINKOA ETENA	GIZONAK	821	846	900	1.133	6,4	25,9
	EMAK.	1.052	951	1.140	1.359	19,9	19,2
	GUZT.	1.873	1.797	2.040	2.492	13,5	22,2
GUZT.	**GIZONAK**	**330.786**	**376.235**	**433.438**	**458.363**	**15,2**	**5,8**
	EMAK.	**348.159**	**382.914**	**433.817**	**468.236**	**13,3**	**7,9**
	GUZT.	**678.945**	**795.149**	**867.255**	**926.599**	**9,1**	**6,8**

Iturria: SEPE. Ministerio de empleo y seguridad social.

Ikasketa mailaren araberako kontratazioaren banaketari dagokionez, hamar kontratuetatik ia sei (%58,1) bigarren mailako ikasketak dituzten pertsonek izenpetzen dituzte, gehienak hezkuntza orokorreko maila dutenak, gizonetan (kontratuen %46,3) nahiz emakumeen artean (%44,7). Bigarrenik, kontratuen %16,1 oinarrizko ikasketak dituzten pertsonei dagozkie, eta gehienek ikasketa osoak dituzte. Ondoren, %12 unibertsitate ikasketak dituzten pertsonei dagokie, gehienak bigarren eta hirugarren ziklokoak.

III.2.7. TAULA. EAE-N ERREGISTRATURIKO LAN-KONTRATUEN BILAKAERA, IRAUPENAREN ETA SEXUAREN ARABERA

MUGAGAB.	GIZONAK	21.060	25.300	29.626	32.941	3.315	11,2
	EMAK.	23.534	27.143	30.411	32.589	2.178	7,2
	GUZT.	44.594	52.443	60.037	65.530	5.493	9,1
ALDIBAT.	GIZONAK	309.726	350.935	403.812	425.422	21.610	5,4
	EMAK.	324.625	355.771	403.406	435.647	32.241	8,0
	GUZT.	634.351	706.706	807.218	861.069	53.851	6,7
GUZT.	GIZONAK	330.786	376.235	433.438	458.363	24.925	5,8
	EMAK.S	348.159	382.914	433.817	468.236	34.419	7,9
	GUZT.	**678.945**	**759.149**	**867.255**	**926.599**	**59.344**	**6,8**
MUGAGAB. TASA	GIZONAK	6,4	6,7	6,8	7,2		
	EMAK.	6,8	7,1	7,0	7,0		
	GUZT.	6,6	6,9	6,9	7,1		

Iturria: Geuk egina EEZP-ren datuekin. Kontratuen estatistikak.

Bestalde, kontratazioaren gehikuntzarik handienak oinarrizko hezkuntzako mailei dagozkie (+%23,3 2015aren aldean eta %24,6raino maila hori amaituta dutenentzat) eta, bigarren mailako ikasketetan, LH titulazioa duten langileentzat (+%10,2 kontratu guztien gainean eta +%13,8 emakumeetan).

Lanaldi motari dagokionez, bilakaera positiboa dugu lanaldi partzialeko kontratuetan (guztira 371.732 EAEn, (+%8,6 2015aren aldean), kontratu guztien %40,1, nahiz lanaldi osoko kontratuetan, guztira 552.375, %5,6 hazita (kontratuen %59,6). Gainerako %0,3 lanaldi eteneko 2.492 kontratuei dagokie. Sexuaren arabera, lanaldi partzialeko kontratazioaren pisua oso desberdina da, zeren eta emakumeek sinaturiko kontratuen erditik gorakoa baita (%53,1 2016an). Gizonekoek sinaturiko kontratuak, berriz, %26,8 dira.

Kontratuen iraupenari dagokionez, 2016an sinaturiko guztietatik 65.530 mugagabeak izan ziren, hots, %7,1 (2015ean baino 2 hamarren gehiago). Kontratu mugagabe horien tasa %2,4 jaitsi zen 2012 eta 2016 artean (%9,5etik %7,1era), baina hobetu egin da 2014az gero.

Sexuaren arabera, kontratazio mugagabearen pisua pixka bat handiagoa da gizonetan (%7,2, emakumeen %7aren aldean), baina bi ratioek berdintzeko joera dute. 2016ko kontratu mugagabe horien kopurua %9,1 hazi da 2015aren aldean. Aldi baterako kontratazioa, berriz, (guztizkoaren %92,9) %6,7 hazi da aldi berean, kontratu guztien multzoaren hamarren bat gutxiago.

III.2.8. TAULA. EAE-N 2016AN IZENPETEURIKO LAN-KONTRATUEN BANAKETA, SEXUAREN ETA LANALDI MOTAREN ARABERA

	GUZT.		GIZONAK	EMAK.	LANAL. OSOA	LANAL. PART
	ABS.	% BERT.				
OBRA EDO ZERBITZUA	262.062	30,4	155.847	106.215	156.823	105.239
EKOIZPENAREN INGURUABARRAK	393.796	45,7	208.585	185.211	231.322	162.474
BITARTEKOA	190.004	22,1	51.569	138.435	115.891	74.113
EZINDUAK	996	0,1	627	369	732	264
ERRELEBOA	1.409	0,2	766	643	795	614
ERRETIRO PARTZIALA	3.432	0,4	2.354	1.078	-	3.432
64 URTEKO ERRETIROAREN ORDEZKOA	20	0,0	11	9	13	-
PRAKTIKAK	7.088	0,8	4.210	2.878	5.711	1.377
TREBAKUNTZA	1.196	0,1	779	417	3.022	-
BESTE BATZUK	1.066	0,1	680	386	627	439
GUZT.	**861.069**	**100,0**	**425.428**	**435.641**	**514.936**	**347.952**

Iturria: Geuk egina eezp-ren datuekin. kontratuen estatistika.

Aldi baterako kontratu mota desberdinei dagokienez, gehienak, %45,7, ekoizpenaren inguruabarren ziozko behin–behineko kontratuak ziren. Bigarren tokian, obra edo zerbitzu kontratuak zeuden (%30,4), eta ondoren bitarteko kontratuak (%22,1). Hiru kontratu mota horiek batuta, aldi baterako kontratuen %98,2 osatzen dute.

Nahiz eta aldi baterako kontratuen batuketa %50ean banatzen den gizonen eta emakumeen artean (emakumeek %50,6 sinatu dute), emakumeen presentzia bereziki nabarmena zen bitarteko kontratuetan, emakumeek sinatu baitzuten kontratu horien %72,9. Emakumeen presentzia askoz txikiagoa zen, aldiz, obra edo zerbitzu kontatuetan (%40,5) eta ekoizpenaren inguruabarren ziozko kontratua baino (guztizkoaren %47). Lanaldi motari dagokionez, lanaldi partzialaren batez besteko pisua %40,4 zen (%39,7 2015ean), eta ez zen desbideratze handirik antzematen aipaturiko aldi baterako hiru kontratu mota horien artean.

III.2.3. GRAFIKOA. LAN-TXANDAKETAREN BILAKAERA (KONTRATATURIKO PERTSONAREN KONTRATUEN BATEZ BESTEKOA) SEXUAREN ARABERA EAE-N



Iturria: EEZPren datuekin egina.

Aldi baterako kontratazioak duen pisu handia dela-eta, kontrataturiko pertsonen zati handi bat hainbat alditan kontratatu ziren urtean. 2016an kontrataturiko pertsonen kopurua, 284.591, askoz txikiagoa da erregistraturiko kontratu guztiak baino (926.599 orotara). Kopuru horiek oinarri hartuta, laneko txandaketa-indizea kalkulatzen da (sinaturiko kontratu kopuruaren eta kontrataturiko pertsonen kopuruaren zatidura).

GRÁFICO III.2.4. . GRAFIKOA. EAE-KO LAN-TXANDAKETA: 2016EAN KONTRATATURIKO PERTSONEN BANAKETA, KONTRATU KOPURUAREN ARABERA. SEXUAREN ARABERAKO DATUAK



Iturria: EEZPren datuekin egina.

Txandaketak igoera txikia erakusten du 2016an, zeren eta ratioa 2015eako baino 3,26 ehunen handiagoa baita. Bilakaera antzekoa da sexuaren arabera; izan ere, txandaketa hazi egin da gizonentzat (3 kontratutik 3,06 kontratura) eta emakumeentzat (2015eko 3,37 kontratutik 2016ko 3,48 kontratura). Hortaz, bi ratioen arteko aldea 5 ehunen handitu da, hots, 0,42 da 2016an.

Lan-txandaketa hori islatzeko beste modu bat da 2016an kontrataturiko pertsonen erdiak urtean kontratu bat izan zuela azpimarratzea da (guztizkoaren %51,9, %54,3 gizonen artean eta %49,2 emakumeen artean), %27,5ek 2 edo 3 lan-kontratu izan zituen, %18,6k 4-20 kontratu bitartean sinatu zituen eta gainerako %2ak 20 kontratu baino gehiago sinatu zituen urtean.

Aldi baterako kontratuen batez besteko iraupenari dagokionez, 48 egunekoa da (2015eko ratio bera), eta Estatuan, berriz, 50 egunekoa da, 2015aren aldean 4 egun gutxiago. Kontratu motaren arabera, laburrenak bitarteko kontratuak dira (25 egun batez beste, 2015ean baino 2 gehiago), eta ondoren ekoizpenaren inguruabarren ziozko aldi baterakoak, 35 eguneko iraupena baitute batez beste (2014ko eta 2015eko datu bera). Sexuaren arabera, batez beste, gizonek izenpeturiko kontratuak luzeagoak dira emakumeek sinaturikoak baino (52 egun, 44 egunen aldean), baina alde hori ez da Estatuan ikusten. Nabarmentzekoa da ezen, obra eta zerbitzu kontratuei dagokienez, %20 astebetetik beherakoa izan zirela (52.309 kontratu), baita bitarteko kontratuen %27,3 ere (51.821).

III.2.9. TAULA. EAE-N IZENPETURIKO IRAUNPEN JAKIN BATEKO ALDI BATERAKO KONTRATUEN BATEZ BESTEKO IRAUPENA (EGUNAK)

	2015			2016		
	GIZONAK	EMAK.	GUZT.	GIZONAK	EMAK.	GUZT.
ALDI BATERAKOA, EKOIZPENAREN INGURUABAR.	34	35	35	35	35	35
TREBAKUNTZA	344	346	345	358	362	360
BITARTEKOA	24	22	23	26	25	25
ERRETIRO PARTZIALA	1.290	1.341	1.305	1.288	1.329	1.301
OBRA EDO ZERBITZUA	36	51	42	38	44	41
BESTE BATZUK	273	264	269	228	243	234
PRAKTIKAK	251	258	254	249	265	256
ERRELEBOA	1.183	1.233	1.205	1.182	1.240	1.208
ERRETIROAREN ORDEZKOA AURRETIAZKO ERRETIROA	360	319	328	360	332	348
EZINDUEN ALDI BATERAKOA	384	372	380	377	375	376
GUZT. EAE	**52**	**45**	**48**	**52**	**44**	**48**
GUZT. ESTATUA	53	54	54	50	51	50

Iturria: Geuk egina EEZP-ren datuekin

EAEn 2016an izandako kontratazioa kontratuen iraupenaren eta lanaldi motaren arabera aztertuta, bi aldagaiak gurutza daitezke hauxe egiaztatzeko: sinaturiko 926.599 kontratuetatik erdia baino gehiago (%55,4) lanaldi osorako aldi baterako kontratuak izan ziren, eta modalitate hori %5,4 hazi zen 2015aren aldean (kontratu guztiak baino +%6,8 gehiago). Bigarrenik, lanaldi partzialeko aldi baterako kontratuak zeuden, hots, kontratu guztien %37,6. Modalitate hori %8,6 hazi zen aurreko urtearen aldean. Hirugarrenik, lanaldi osoko kontratazio mugagabea dago, hots, %4,2 (2015eko pisu bera), %8,6 hazi baita. Lanaldi partzialeko mugagabea dago hurrengo, %2,6 (2015eko ratio bera), %8,9 hazita. Azkenik, lanaldi finko eteneko kontratuak %0,3 dira, %22,2 hazi ondoren.

III.2.10. TAULA. EAE-N ERREGISTRATURIKO LAN-KONTRATUAK: DATUAK GURUTZATZEA LANALDI MOTA ETA IRAUNALDIAREN ARABERA, ETA BESTELAKO DATU BALIAGARRIAK

		2013	2014	2015	2016	Ald. % 15/16
LANALDI PARTZIALA	MUGAGAB.	16.843	19.478	21.827	23.780	8,9
	ALDI BAT.	252.100	283.608	320.392	347.952	8,6
	GUZT.	268.943	303.086	342.219	371.732	8,6
LANALDI OSOA	MUGAGAB.	25.878	31.168	36.170	39.258	8,5
	ALDI BAT.	382.252	423.098	486.826	513.117	5,4
	GUZT.	408.130	454.266	522.996	552.375	5,6
LANALDI FINKOA ETENA	MUGAGAB.	1.873	1.797	2.040	2.492	22,2
GUZT. KONTRATUAK		678.946	759.149	867.255	926.599	6,8
HASIERAKO KONTRATUAK		664.523	745.083	850.108	905.528	6,5
KONBERTSIOAK		14.423	14.066	17.147	21.071	22,9
LANALDI PARTZIALEKO TASA		39,6	39,1	39,5	40,1	1,5
ATZERRITARREN KONTRATUAK		74.968	75.986	84.787	93.887	10,7

Iturria: EEZP. Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioa.

EEZPren datuek agerian uzten dutenez, azkenik, gure Erkidegoan 2016an sinaturiko lan-kontratu guztietatik 93.887 atzerritarrek izenpetu zituzten, hots, guztizkoaren %10,1ek (%9,8k 2015ean) eta 2015ean baino %10,7 gehiago. Horrenbestez, kontratazioaren bilakaera positiboa izan arren, okerragoa izan zen EAEn atzerriko etorkinentzat. Atzerritarrek izenpeturiko kontratu guztien %60 gizonezkoei zegokien eta %40a emakumeei.

2.2. ERREGULAZIO-ESPEDIENTEEN ETA IRAIZPEN KOLEKTIBOEN BILAKAERA

Erregistraturiko banakako iraizpenak Autonomia Erkidegoko lan-administrazioko agintaritza eskudunaren aurrean (Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak ordezkatuta) egindako adiskidetzeen ondorioz eta bi aldeak ados egonik egin direla, baita Lan arloko Epaitegien bidez izapidetutakoak ere; iraizpen horiek Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioari jakinarazten zaizkio. Bestalde, enpresak arrazoi ekonomikoak, teknikoak, antolakuntzakoak edo ekoizpenekoak direla medio epealdi jakin batean lan-kontratuen ehuneko jakin bat iraungitzeko harturiko erabakiak (langileen legezko ordezkarien adostasunarekin edo adostasunik gabe) dira iraizpen kolektiboak.

III.2.11. TAULA. ENPLEGUA ERREGULATZEKO ESPEDIENTEAK EAE-N: KOPURUA ETA LANGILEAK (EUSKO JAURLARITZA)

	ESPEDIENTEAK	ERAGINPEKO LANGILEAK			
		GUZT.	MURRIZK.	ETENA	AGORTUA
2011	1.560	22.072	2.203	17.991	1.878
2012	2.636	37.429	5.466	28.627	3.336
2013	2.426	31.790	5.814	24.104	1.872
2014	1.434	16.747	3.196	12.091	1.460
2015	695	8.108	1.530	5.718	860
2016	446	6.283	1.172	4.473	638
% ald 14/15	-51,5	-51,6	-52,1	-52,7	-41,4
% ald. 15/16	-35,8	-22,5	-23,4	-21,8	-25,8

Iturria: Enplegu eta Gizarte politiketako saila. EUSKO JAURLARITZA.

Nabarmendu behar da 2012ko otsailean indarrean sartu zen lan erreformak taldeko iraizpenetarako administrazio baimenaren behar historikoa ezabatu zuela. Horrenbestez, ordutik aurrera enpresak berez erabakitzen du, langileen ordezkariak ados egonda edo ados egon gabe, eta lan agintaritzari taldeko iraizpena gauzatzeko erabakia jakinarazi besterik ez du egin behar.

Nolanahi ere, kontuan izan behar da Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioak arlo publiko honi buruz emandako estatistiketan ez direla biltzen izandako iraizpen guztiak, zeren eta ez baititu jasotzen arrazoi ekonomikoak, teknikoak, antolakuntzakoak edo ekoizpenekoak direla izandako iraizpenak, noiz-eta iraizpen kolektibotzat[8].

Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak ere EAEn erregistratutako enplegua erregulatzeko espedienteei buruzko estatistikak argitaratu ditu. Iturri horretako eta Enplegu Ministerioko datuak bat etorri ez arren (Ministeriokoak gehiago dira, erkidegoa baino esparru handiagoko espedienteak, euskal langileak ukitzen dituztenak, erregistratzen dituelako), interesgarria da bi estatistikek egindako azterketa, bien bilakaera norabide berean baitoa.

III.2.12.TAULA. ENPLEGUA ERREGULATZEKO ESPEDIENTEAK EAE-N: ERAGINPEKO LANGILEAK LURRALDEEN ARABERA (EUSKO JAURLARITZA)

	ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA	EAE
2011	3.372	9.971	8.729	22.072
2012	9.049	12.426	15.954	37.429
2013	9.747	9.102	12.941	31.790
2014	5.064	6.273	5.410	16.747
2015	2.181	2.691	3.236	8.108
2016	2.099	2.438	1.746	6.283
% ald 14/15	-56,9	-57,1	-40,2	-51,6
% ald 15/16	-3,8	-24,7	-35,1	-22,5

Iturria: Enplegu eta Gizarte politiketako saila. Eusko Jaurlaritza.

Iturri horrek lan-erregulazioko 446 espediente jaso zituen 2016an (-%35,8 2015aren aldean); enplegua erregulatzeko espediente horiek 6.283 langileri eragin zieten (2015ean baino -%22,5 gutxiago), %18,7ri lanaldia murriztu zitzaien (-%23,4 aurreko urtearen aldean) eta gainerako % 10,2ri amaiera-espedientea ezarri zitzaien (-%25,8 aurreko urtean). Azken horiek, desegite EEEak edo iraizpen kolektiboaren eraginpeko 638 langile izan dira. Lurraldez lurralde, Bizkaiak du jaitsierarik handiena (-%36), ondoren Gipuzkoa (-%23,2). Araban, berriz, igoera txikia izan da, 2015ean baino langile bat gehiago zenbatu baita.

8 Taldeko iraizpentzat jotzen da hark 5 langiletik gorako langileria osoari eragiten dionean, enpresa jarduera erabat amaitzearen ondorioz edo, laurogeita hamar eguneko epean, 100 langiletik beherako enpresetan gutxienez 10 soldatapekori, langileen % 10i 100 eta 300 langile arteko enpresetan edo 30 soldatapekori 300 langiletik gorako enpresetan (Langileen Estatutuaren Legeko 51. artikulua).

Kasuei dagokienez, kausa ekonomikoak dira nagusi, eraginpeko langileen %93,1, eta ondoren datoz teknologikoak (%6,5). Horren %0,4 nahitaezko zioengatik izan dira. Azkenik, nahitaezko zioak aipatu behar dira. Eta jarduera-sektoreen arabera, Euskadi eta erregulazio espediente gehien planteatzen den industria da, kopuruaren aldetik (203) nahiz eraginpeko langileen aldetik (4.756).

Lurraldeen arabera, beherakadarik handiena Bizkaian izan da, non eraginpeko langileen kopuruak %35,12 egin baitu behera, eta ondoren Gipuzkoan (-%24,7). Araban, berriz, behera egin du, baina EAEko batez bestekoaren azpitik (-%3,8, eta guztizko -%22,5). Honelaxe banatzen dira, bestela, espediente horien eraginpeko langile guztiak: %38,8 Gipuzkoan, %33,4 Araban eta %27,8 Bizkaian. Horrez gain, erregulazio espedientearen eraginpeko pertsonen %81,3 gizonezkoak ziren, eta %18,7 emakumeak (%77,9 eta % 22,1, hurrenez hurren 2015ean).

III.2.13. TAULA. ENPLEGUA ERREGULATZEKO ESPEDIENTEAK EAE-N ETA ESTATUAN: ERAGINPEKO LANGILEEN BILAKAERA

	EAE	ESTATUA	% EAE/ESTATUA
2009	83.340	549.282	15,2
2010	43.889	302.746	14,5
2011	28.492	343.629	8,3
2012	51.948	483.313	10,7
2013	42.449	379.972	11,2
2014	17.854	159.566	11,2
2015	8.511	100.522	8,5
2016	8.341	86.576	9,6
% ald 14/15	-52,3	-37,0	
% ald 15/16	-2,0	-13,9	

Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioa. Enplegu Erregulazioko Estatistikak.

Bestalde, EAEn erregistraturiko erregulazio espedienteetako datuek, iturritzat Enplegu Ministerioaren "Enplegu Erregulazioari buruzko Estatistika" hartuta, hauxe ematen du, arestian esana dugunez: Euskal Administrazioan eta Administrazio Zentralean izapideturiko eta gure Erkidegoan eragina duten erregulazio espedienteen agregatua. 2016rako behin-behineko datuei erreparatuta, EAEn 8.341 langilek zuten erregulazio espedientea ezarrita (Eusko Jaurlaritzaren estatistika erregistraturiko 6.283 langileak gehi Administrazio Zentralean izapideturiko 2.058 espedienteak). Kopuru hori %2 jaitsi da EAEn, eta %13,9 Estatuan eta, beraz, EAEko espedienteek guztizkoaren gainean duten pisua %9,6 dugu orain. Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak ere EAEn erregistratutako enplegua erregulatzeko espedienteei buruzko estatistikak argitaratu ditu:

2016an, enplegua erregulatzeko espedientearen menpeko langileen %77,6k alderdiek hitzartutako espediente izan zituzten, 2015ean baino puntu bat gehiago (%88,4 batez beste estatuan). Akordioaren proportzio hori desberdina da erregulazio espediente motaren arabera. Hala, etenaldi espedienteetan %82,9 izan zen, %70 murriztapen espedienteetan eta %471, iraizpen kolektiboetan.

3. LAN HARREMANAK

3.1. NEGOZIAZIO KOLEKTIBOA: SOLDATA IGOERA ETA LANALDIA

III.3.1. GRAFIKOA. EAE-N ERREGISTRATURIKO HITZARMENEN ERAGINPEKO LANGILEAK. DATUAK PORTZENTAJEETAN



Iturria.- HEK

LHKren 2016ko "Gizarte-laneko egoera Euskadin" txostenaren arabera, langileen %21,1ek indarreko hitzarmenarekin hasi zuen urte hori. %57,6k, berriz, berritzeke zegoen hitzarmen luzatua zuen, eta %21,3k indarrik gabeko kontratua zuen. Beraz, %78,7 hartzen zuen negoziazio kolektiboak.

Hona hemen urtearen amaierako egoera: langileen %38,8k indarreko hitzarmena zuen, %43,3k luzatua zuen, berritzeko zain, eta gainerako %17,9ak hitzarmen agortu zuen. Horrenbestez, %82,1eko estaldura mailarekin bukatu zen urtea negoziazio kolektiboan (aurreko urteko antzeko ratioa: %82).

Eremu sektorialean pilatzen dira hitzarmen agortuak dituzten langile gehienak. Urtearen hasieran, hitzarmen sektorialen menpeko soldatapekoen %27,3k agortua zuen hitzarmena, eta portzentaje hori %3,9 jaitsi zen 2016an. Hala, urtearen amaieran, %23,4koa zen (2015eko antzeko ratioa).

III.3.1. TAULA. HITZARMEN KOLEKTIBOAK ETA ERAGINPEKO LANGILEAK EAE-N 2016KO ABENDUAREN 31N EGOERAREN ARABERA

	INDAR.		LUZATUAK		AGORTUAK*		GUZT.	
	KONB.	LANG.	KONB.	LANG.	KONB.	LANG.	KONB.	LANG.
GUZT. (1 + 2)	647	213.509	585	238.479	39	98.366	1.271	550.354
1. EAE-N ERREGISTRATUAK	453	125.653	416	177.302	36	97.625	905	400.580
- ARABA	85	18.561	91	17.519	5	20.837	181	56.917
- BIZKAIA	199	68.527	199	88.765	17	24.996	415	182.288
- GIPUZKOA	158	33.961	100	37.239	14	51.792	272	122.992
- LURRALDEART.	11	4.604	26	33.779	-	-	37	38.383
2. ESTATUA	194	87.856	169	61.177	3	741	366	149.774

Iturria: Elaboración con datos del CRL.
** agortutako hitzarmenak dituzten langileak, babesa emateko maila handiagoko hitzarmenik gabekoak*

Bestalde, negoziazioek ez zuten emaitza handirik izan 2016ko ekitaldian, zeren eta urtearen amaieran indarrean zeuden hitzarmenen %38,8tik %21,1 aurreko urteetan sinaturiko hitzarmenetatik baitzetorren, eta %17,7 besterik ez zen sinatu 2016an, negoziatzeko marjina zabala izanik ere (luzaturiko eta indarrik gabeko hitzarmenak batuta, %78,9ko emaitza izan zen).

2016an, Euskadin intzidentzia zuten 288 hitzarmen zeuden erregistratuta, eta 98.728 langileri eragiten zien. Horietatik 199 hitzarmen bildu ziren EAEn, 2015ean baino 57 gehiago, orotara 59.548 langile (+22.354). Horietatik 184 enpresakoak dira, eta 25.464 langileri eragiten die, eta 15 sektorekoak, 34.084 langilerentzako estaldura dutenak. Estatuan erregistratu ziren eta gure Erkidegoan eragina zuten hitzarmenei dagokienez, 2015ean 89 izan ziren, 2015ean baino 28 gehiago izan ziren, eta gora egin zuen estaldura jaso zuten langileen kopuruak, guztira 4.211 gehiago (guztira 39.180 dira).

Horietatik 55 enpresakoak dira eta 34 sektorekoak, eta 5.251 eta 33.929 langileri ematen diete estaldura, hurrenez hurren. 2016an, enpresako hitzarmenen eraginpeko langileen %21,2k berrituta izan ditu hitzarmenak. Sektorekoetan, berriz, %16,3k besterik ez.

Eremu sektorialean, langileen %79,9k, beraz, berritzeko edo berreskuratzeko zeuden hitzarmenak zituztela hasi zuten 2017. urtean. Enpresako hitzarmenetan, berriz, %66,9ko portzentajeak daude. Soilik EAEn egiten den negoziazio sektorialari beren beregi dagokionez, gora egin du berritzeko edo berreskuratzeko dauden hitzarmenen langileen portzentajeak, %86,9raino hain zuzen ere.

2016ko abenduaren 31ko egoeraren ondorioz, 4 langileetatik ia 3k berritzeko edo berreskuratzeko zain dauden hitzarmenak ditu 2017ko hasieran, eta EAEko negoziazio sektorialean, hamar langileetatik batek bakarrik du hitzarmen eguneratua eta estatu mailako hitzarmenek betetzen dute enpresa txikiari eta enpresa oso txikiari datxezkien lurralde eremu sektorialetako negoziaziorik ezak dakarren hutsunea.

Bestalde, EAEko indarreko hitzarmenetan 2016rako hitzartutako batez besteko soldataren igoera %1,01ekoa da, Estatuan hitzarmen kolektiboetarako hitzartutako batez besteko soldataren igoeraren antzekoa (%1,06). Halaber, EAEn negoziaturiko hitzarmenen batez besteko igoera, EAEn eragina duten estatu mailakoak alde batera utzita, %1,04an kokatu zen.

III.3.2.TAULA. EAE-N ADOSTURIKO SOLDATA IGOREN BILAKAERA

	2014	2015	2016
ARABA	0,72	0,45	0,91
BIZKAIA	0,76	0,65	1,04
GIPUZKOA	0,60	0,54	1,08
LURRALDE ARTEK.	0,87	0,64	1,20
EAE-KO ERREGISTR.	0,71	0,58	1,04
ESTATUA	0,53	0,68	0,98
GUZT. EAE	**0,65**	**0,62**	**1,01**

Iturria: LHB

Azkenik, azken urteotako joerari eusten zaie berritzen ari diren hitzarmenetan, hots, lanaldia mantentzeko, halako moldez non hitzarmen horien %3k baino ez baitu (hitzarmenen %3,4k 2015ean) lanaldia gutxitu. Portzentaje hori, ordea, oso urruti dago 2009an lanaldia murrizten zuten hitzarmenen %22,9tik. Nolanahi ere, eta lanaldiak murrizteko joeran azken urteotan izandako motelaldi nabarmena gorabehera, EAEn negoziaturiko hitzarmenek eutsi egiten diote urtean 100 ordu gutxiago baino gehiago izateko aldeari estatukoarekiko, LHKren datuen arabera betiere.

III.3.2. GRAFIKOA. EAE-N LANALDIA MURRIZTEN DUTEN HITZARMEN KOLEKTIBOEN PORTZENTAJEAREN BILAKAERA



Iturria: HEK

EAEn eragina duten hitzarmen berrituen multzoan, urteko 0,23 orduko murriztapena lortu da batez beste (aurreko urteko kopuru bera), eta 0,34 ordukoa da EAEn izenpeturiko hitzarmenak kontuan hartuz gero eta 0,03 Euskadin eragina duten Estatu eremukoak.

Horren ondorioz, 1.716 ordukoa zen EAEko hitzarmenetan hitzarturiko batez besteko lanaldia 2016. urterako (indarrean egon nahiz luzatuta egon), eta 1.745 ordukoak, berriz, EAEn eragina duten eta Estatuan erregistraturiko hitzarmenetan.

3.2. LAN-GATAZKA

LKHIren lan-gatazkei buruzko datuen arabera, 2016an guztira 164 greba erregistratu ziren EAEn, eta 13.735 lagunek hartu zuten parte. Orotara, lan egin gabeko 58.152 egun bildu ziren, hots, urte arteko %10,9ko jaitsiera greba kopuruan. Partaideei eta lan egin gabeko egunei buruzko kopuruetan, berriz, %29,5eko eta %219,1eko igoerak izan dira, hurrenez hurren.

III.3.3. TAULA. LAN-GATAZ EAE-N: ADIERAZLE NAGUSIEN BILAKAERA						
	GREBAK	PARTAIDEAK	LAN EGIN GAB. EGUNAK	PARTAIDEAK GREBAKO	LAN EGIN GABEKO EGUNAK GREB	LAN EGIN GAB. ORDUAK LANGILEKO GREBAN
2012	278	21.600	130.930	78	471	48
2013	350	37.020	140.391	106	401	30
2014	226	16.360	55.717	72	247	27
2015	181	10.604	18.217	59	101	14
2016	164	13.735	58.152	84	355	34
% ald 14/15	-49,6	-19,9	-35,2	-19,1	-59,2	-49,6
% ald 15/16	-10,9	29,5	219,1	43,0	252,3	146,5

Iturria: LHB-REN DATUEKIN EGINA.

Datu horiek izanik, grebako partaideen kopurua 84 langilekoa zen (+%43 2015aren aldean), 355 lan egunetan ez zen lanik egin grebagatik (+%252,3) eta langile bakoitzak grebagatik lan egin gabeko orduak 34 izan ziren (+%146,5 2015aren aldean). Beraz, aurreko bi urteetan lan-gatazkak behera egin ondoren, berriz ere handitu zen 2016an, zeren eta greba kopuru handiagoa baita, intentsitatea nabarmen handitu delako, azken urteetako batez bestekoarekiko nahikoa maila txikiagoak izan badira ere.

Sektoreen arabera, zerbitzuen sektorean metatu da greba kopururik handiena, guztira 79 (guztizkoaren %48,2), eraginpeko 8.485 langilerekin (%61,8), eta lan egin gabeko egunen bigarren kopururik handiena: 21.519 (guztizkoaren %37). Industrian, bestalde, 74 greba izan ziren eta 5.052 langileri eragin zieten; bertan bildu ziren lan egin gabeko egun kopururik handiena (29.770, guztizkoaren %51,2). Eraikuntzan 9 greba izan ziren, eta 2 lehen sektorean.

Negoziazio kolektiboa nabarmentzen da lehen gatazka iturri gisa, greba guztien %42,1 bilduta eta eraginpeko langileen %45,1, baita lan egin gabeko egunen aldetik ere (%63,9).

Lurraldez lurralde, Bizkaiak bildu zuen greba kopuru (73), partaide (8.205) eta lan egin gabeko egun gehien (26.982) bildu du. Araban, 48 greba erregistratu ziren, 2.150 partaiderekin eta lan egin gabeko 5.380 egunekin. Gipuzkoan, berriz, 43 izan ziren: 3.380 partaide eta lan egin gabeko 25.790 egun.

III.3.3. GRAFIKOA: LAN-GATAZKAREN BILAKAERA EAE-N.



Iturria: HEKen datuekin eginikoa

Estatu osoan, urrira arteko behin-behineko datuak izanik eta greben kopurua oso gutxi handitu bada ere (%0,6 aurreko urteko aldiaren aldean), 529raino. %18,2 handitu da partaideen kopurua (guztira 173.486 dira), baina iraupena laburragoa da, zeren eta lan egin gabeko 346.900 egun izan baitira, eta %12,7 egin baitu behera 2015eko urtarrila-urria artean.

3.3. LANALDIA ETA LAN EGIN GABEKO DENBORA

Baliagarria da langileek benetan eginiko lan egunak eta enpresarekin hitzarturikoarekin duen erlazioa zein den jakitea, baita lan egin gabeko egunak eta kasuen banakapena ere. EINek, "*Lan Kostuen Hiruhileko Inkestak*", informazio zabala ematen du horren inguruan, eta horri esker, jarraipena egin daiteke denboran, kopuru absolutuetan (lan egindako eta lan egin gabeko orduen kopuruaren bilakaera) nahiz estatu mailako kopuru erlatiboetan (lan egin gabeko orduen banaketa), eta xehetasun maila txikiagoarekin, autonomia erkidegoka.

Hona hemen aintzat harturiko aldagai nagusiak (xehetasun handiagoa nahi bada, begiratu Memoria honetako glosategia):

- Benetan lan egindako orduak: Benetan lan egindako orduak dira. Hitzartutako orduen (hitzarmenen, hitzezko akordioaren edo banako kontratuaren bidez ezarritakoak) eta aparteko orduen edota ordu osagarrien batura da, ken lan egin gabeko orduak (horietatik aparte gelditzen dira lantokian galdutako orduak, benetan lan egindako ordutzat hartzen baitira)., Kopuru erlatiboetan, hitzartutako orduen gaineko proportzioa aztertzen da.
- Lan egin gabeko orduak: Ordaindutakoak (oporrak, jaiak, aldi baterako ezintasuna, amatasunaren ziozko baimena eta antzekoak, aparteko orduak konpentsazioaren ziozko atsedenaldiak, sindikatu-ordezkaritzako orduak, azterketak, medikuaren kontsultara joatea...) edo ordaindu gabeak izan daitezke (lan-gatazka, ugazaben itxiera, legezko zaintza –zaintzarako lanaldi murrizketak-, etab.). Kopuru erlatiboetan, benetan lan egindako orduen gaineko proportzioa aztertzen da.

Lehenik eta behin, Estatuan lan egindako eta lan egin gabeko orduen xehetasuna aurkezten da, betiere 2013-2016 aldiko urteko batez bestekoak kontsideraturik, baita 2008ko datuekiko erkaketa ere.

III.3.4. TAULA. DENBORA LANEKO ETA EZ LAN EGINDAKOA.
ESTATUAN XEHATZEKO BILAKAERA. LANGILEAGATIKO ORDUAK/ETA HILABETEA. BATEZ-A BESTEKOAK-A URTEKO-A

	2008	2013	2014	2015	2016		ALD. %. 2008-16	ALD. % 2015-16
					ABS.	% BERT.		
1. HITZARTUTAKO ORDUAK	156,10	150,38	149,58	149,73	149,45	-	-4,3	-0,2
2. ORDAINDUTAKO ORDUAK	156,70	150,68	149,90	150,08	149,78	-	-4,4	-0,2
3. BENETAN LAN EGINDAKO ORDUAK	135,23	129,73	129,15	129,13	128,75	100,0	-4,8	-0,3
4. LAN EGIN GABEKO ORDUAK	21,68	21,24	21,02	21,23	21,34	16,6	-1,5	0,5
- LAN EGIN GABEKO ETA ORD. ORDUAK	21,52	20,99	20,78	20,97	21,07	16,4	-2,1	0,5
Oporrak	8,10	8,13	7,99	7,89	7,82	6,1	-3,5	-1,0
Jaiak	6,61	6,82	6,71	6,70	6,77	5,3	2,4	1,0
A.EZ.	5,09	3,66	3,97	4,42	4,67	3,6	-8,2	5,7
Amatasuna	0,90	0,99	0,99	0,98	0,92	0,7	2,8	-5,6
Ordaindutako baimenak*	0,40	0,39	0,42	0,46	0,48	0,4	20,3	3,3
Arrazoi teknikoak edo ekonomikoak	0,07	0,67	0,39	0,19	0,10	0,1	51,9	-46,8
Aparteko orden konpentsazioa	0,04	0,04	0,04	0,05	0,05	0,0	11,8	0,0
Lantokian galdutako orduak.**	0,04	0,03	0,03	0,03	0,02	0,0	-62,5	-40,0
Beste batzuk	0,28	0,27	0,25	0,26	0,26	0,2	-8,9	0,0
- LAN EGIN EZ DIRE ORD.GABEBKO ORD.S	0,16	0,25	0,25	0,27	0,28	0,2	73,4	4,7
Lan-gatazka	0,02	0,03	0,02	0,01	0,01	0,0	-37,5	25,0
Beste batzuk	0,15	0,22	0,23	0,26	0,27	0,2	84,5	4,9
5. APARTEKO ORDUAK	0,75	0,51	0,56	0,59	0,61	0,5	-18,7	3,0
BENET. ORDUEN %/HITZART. ORD.S	86,6	86,3	86,3	86,2	86,1			
LAN EGIN GABEKO ORDUEN% /BEN. ORD	16,0	16,4	16,3	16,4	16,6			

Iturria: EIN. Lan kostuen hiruhilekoen inkesta. Geuk egina.
representazio sindikal, azterketak, kontsulta medikoak, etab.Legezko efektuetarako
*** lan egindako orduak hartzen dira***

Estatuko langileek, batez beste, hileko 128,75 ordu lan egin zituzten 2016an, 2015ean baino %0,3 gutxiago, eta %4,8 gutxiago datu hori 2008koarekin alderatzen badugu. Lan egindako ordu horiek (benetan lan egindakoak) enpresarekin

hitzarturiko orduen %86,1 dira (hitzarmen, kontratu eta abarren bidez), hots, 2015ekoa baino hamarren bat txikiagoa eta puntu bat 2008koaren azpitik.

Horrez gain, lan egin gabeko 21,34 orduko batez bestekoa zenbatetsi da langileko eta hileko, eta horietatik 21,07 (%98,7) ordaindutakoak izan ziren. Lan egin gabeko orduen kopurua puntu eta erdian jaitsi da azken urtean, eta %1,5 murriztu da 2008-2016 aldia aintzat hartzen badugu.

Lan egin gabeko ordu horietan, kategoria nagusiak (ikus xehetasunak III.3.3 taula) oporraldiei dagozkie (7,82 ordu), jaiak (6,77) eta gaixotasunagatik (AE) lan egin gabeko orduak, zenbatespenen arabera, 4,67 ordu langiletako eta hileko. Hiru kategorien artean, lan egin gabeko orduen %90,3 dira eta benetan lan egindako orduen %15.

Kopuru erlatiboetan, lan egin gabeko orduak benetan lan egindako orduen %16,6 ziren 2016an (lan egindakoak), 2015ean baino 2 hamarren bat gehiago eta 6 gehiago 2008an baino. III.3.4 grafikoan ikusten denez (lerro etenak estatuko datuetarako), ratio horretan hamarren apur batzuen gorabehera izan da krisia hasi zenetik iragandako urteetan.

Bigarrenik, autonomien arteko erkaketa ageri da, baina horien gaineko lan egin gabeko orduen xehetasunik ez dugu.

Benetan lan egindako orduek hitzarturiko orduen gainean eta lan egin gabeko orduek benetan lan egindako orduen gainean izan dituzten ratioak kalkulatu dira 2008an eta 2014tik 2016rako urteetan, baina horien interpretazio zehatzagoa egiteko, beste aldagai batzuk aztertu beharko lirateke hala nola ekoizpenaren egitura edo lanaldi partzialaren pisua (Memoria honen helburuetatik harago doaz).

III.3.5. TAULA. LAN EGINDAKO ETA AUTONOMIA-ERKIDEGOAK EZ LAN EGINDAKO ORDUAK ALDAGAI ERLATIBOEN BILAKAERA

	BENETAN LAN EGINDAKO ORDUEN % HITZARTURIKOEN GAINEAN				LAN EGIN GABEKO ORDUEN % BENETAN LAN EGINIKO ORD.G.			
	2008	2014	2015	2016	2008	2014	2015	2016
ESTATUA, B.B.	86,6	86,3	86,2	86,1	16,0	16,3	16,4	16,6
ANDALUZIA	87,6	87,3	87,3	86,8	14,6	14,9	14,9	15,6
ARAGOI	85,9	85,0	85,3	85,2	17,0	18,1	17,8	18,0
ASTURIAS	85,7	85,4	85,3	84,9	17,3	17,6	17,6	18,3
BALEARS, ILLES	87,9	88,5	88,7	88,5	14,3	13,4	13,1	13,5
U. KANARIARRAK	86,6	87,0	87,3	87,1	15,7	15,2	15,0	15,2
KANTABRIA	86,2	86,4	86,4	86,8	16,6	16,1	16,0	15,7
GAZTELA ETA LEON	86,3	85,3	85,5	85,2	16,2	17,6	17,5	17,8
GAZTELA-MANTXA	87,9	87,1	86,8	86,6	14,3	15,3	15,6	15,9
KATALUNIA	86,0	86,0	86,0	85,9	17,0	16,9	16,8	17,0
VALENTZIAKO E.	86,3	86,4	86,2	86,6	16,3	16,2	16,5	15,9
EXTREMADURA	87,9	87,4	87,0	86,7	14,1	14,7	15,2	15,7
GALIZIA	86,9	86,7	86,0	85,9	15,7	15,7	16,7	16,8
MADRIL	87,0	86,6	86,4	86,4	15,6	16,0	16,3	16,2
MURTZIA	85,9	85,7	85,7	86,0	16,9	17,1	17,2	16,8
NAFARROA	85,9	85,4	85,3	85,0	17,1	17,6	17,8	18,3
EAE	**84,6**	**84,2**	**83,5**	**83,1**	**18,7**	**19,3**	**20,2**	**20,8**
ERRIOXA	86,2	84,8	84,8	85,5	16,5	18,3	18,3	17,3

Iturriai: EEIN. LKHIi.Geuk egina.

2016an, benetan lan egindako orduek hitzarturiko orden gainen duten portzentajerik handiena Balearretan dago (%88,5) eta txikiena Asturiasen (%84,9). Ikusi denez, estatuko batez bestekoa %86,1 da eta EAEko datua %83,1 da. Izan ere, ratio hori puntu eta erdi txikiagoa da 2008tik hona. Lan egin gabeko orduei dagokienez, benetan lan egindako orduekiko proportzioa balio hauen artean dago: Balearretako %13,5etik Asturias eta Nafarroako %18,34a (aurrekoaren alderantzizko rankinga da, jakina). EAEk lan egin gabeko orduen %20,8ko ratioa du, Estatuko batez bestekoaren gainetik (%16,6koa du).

Azkenik, EAEko kopuru absolutuen bilakaera aurkeztuko da (III.3.5 taula). 2016an, batez beste, hilean 147,18 ordu hitzartu zituzten enpresek eta langileek, hots, 2015ean baino %0,6 gutxiago, eta 2008an hitzartu zituztenak baino % 2,9 gutxiago. Ordu horietatik 122,38 orotara (-%1 2015aren aldean), %83,1, benetan lan egindakoak izan ziren, hots, ratio hori 4 hamarren txikiagoa da azken urtean. Halaber, lan egin gabeko orduak 25,42 ordu izan ziren langileko eta hileko, 2015ean baino %1,8 gehiago, eta benetan lan egindako orduen %22,8.

Benetan lan egindako orduek hitzarturiko orduen gainean eta lan egin gabeko orduek benetan lan egindako orduen gainean dituzten ratioen bilakaeran, zenbait alde ikusten dira 2008-2016 aldian, III.3.4 grafikoan ikusten denez, Estatuko batez bestekoaren aldean (Estatukoak etenik gabeko lerroak eta EAEkoak etenak): Benetan lan egindako orduek hitzarturiko orduen gainean duten pisua oso txikia da EAEn serie osoan, eta lan egin gabeko orduek pisu handiagoa dute benetan lan egindako orduen aldean. Horrez gain, urte arteko aldakuntzak handiagoak dira EAEn.

III.3.6. TAULA. EAE-AKO ALDAGAIETAKO AREAA. LANGILEAGATIKO ORDUAK/ETA HILABETEA. BATEZ-A BESTEKOAK-A URTEKO-A

	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	ALD. % 2008/16	ALD. % 2015/16
1. HITZARTUTAKO ORD.	151,50	150,80	150,43	150,00	148,63	148,73	147,98	148,00	147,18	-2,9	-0.6
2. ORDAINDUTAKO ORD.	151,88	150,95	150,53	150,10	148,40	148,53	148,05	147,85	147,08	-3,2	-0.5
3. BENETAN LAN EGINDAKOAK	128,20	124,78	125,70	125,95	123,70	123,70	124,53	123,60	122,38	-4,5	-1.0
4. LAN EGIN GABEKO ORDUAK	23,95	26,56	25,25	24,50	27,19	25,61	24,01	24,98	25,42	6,1	1.8
5. APARTEKO ORDUAK	0,57	0,52	0,48	0,41	0,46	0,46	0,49	0,50	0,61	7,5	23.2
% B. ORDUAK / HITZARTUTAKOAK	84,6	82,7	83,6	84,0	83,2	83,2	84,2	83,5	83,1		
% LAN EGIN GAB. / B. ORDUAK	20,5	23,4	22,1	21,4	24,2	22,8	21,2	22,2	22,8		

Iturria: EIN. Lan kostuen hiruhileko inkesta. Geuk egina.

III.3.4. GRAFIKOA. LAN EGINDAKO ETA EZ LAN EGINDAKO ORDUAK: CAPV-ean ESTATUAN, ALDAGAI ERLATIBOKO BILAKAERA



Iturria: EIN. HEK. Geuk egina

4. SOLDATAK EAE-N

4.1. SOLDATEN EGITURARI BURUZKO 2014KO INKESTAREN EMAITZAK

III.4.1. TAULA. URTEKO BATEZ BESTEKO IRABAZIAK LANGILEKO (EUROAK). 2013-2014.

	2013	2014			ALDAK. % 2013/14		
		GUZT.	GIZONAK	EMAK.	GUZT.	GIZONAK	EMAK.
B.B. ESTATUA	22.698	22.858	25.728	19.745	0,7	0,2	1,2
ANDALUZIA	20.782	20.784	23.518	17.479	0,0	-0,2	-1,2
ARAGOI	22.055	22.096	25.119	18.765	0,2	0,0	0,3
ASTURIAS	21.995	22.045	25.322	18.401	0,2	-0,7	-0,3
BALEARS, ILLES	20.776	21.322	23.771	19.008	2,6	5,3	0,1
U.KANARIARRAK	19.168	19.436	20641	18.201	1,4	-0,2	3,3
KANTABRIA	20.052	21.200	24.685	17.669	5,7	6,3	6,8
GAZTELA ETA LEON	20.441	20.525	22.905	17.683	0,4	-2,0	1,5
GAZTELA-MANTXA	20.630	20.645	22.719	17.157	0,1	-2,6	3,9
KATALUNIA	24.254	23.927	27.448	20.325	-1,3	-0,9	-2,0
VALENTZIAKO E.	20.878	20.640	23.480	17.512	-1,1	-0,7	-2,3
EXTREMADURA	19.130	19.181	20.830	17.414	0,3	-4,4	6,8
GALIZIA	19.825	20.196	22.505	17.797	1,9	-0,1	3,1
MADRIL	26.215	26.570	29.734	23.327	1,4	1,7	1,6
MURTZIA	20.450	20.717	23.419	17.501	1,3	0,0	3,2
NAFARROA	23.837	24.701	28.660	20.163	3,6	2,9	4,1
EAE	**26.915**	**27.787**	**31.271**	**23.782**	**3,2**	**3,2**	**4,8**
ERRIOXA	20.629	21.954	24.814	18.960	6,4	5,0	8,7

***ITURRIA*: EIN. SEI 2014.**

EINren "*Soldata-egituraren urteko Inkestak*" autonomia erkidegoetako datuak ematen ditu, beste aldagai batzuen artean, sexuaren eta lanbidearen araberako soldatei buruz. Ordura arte lau urterik behin baino ez zen lortzen horren inguruko informazioa soldata-egituraren inkesten bidez, hain zuzen ere, eta gainera, 10 langile edo gehiagoko enpresei buruzkoa baino ez zen. Inkesta horrek hainbat iturritako administrazio-erregistroak erabiltzen ditu, hala nola, Gizarte Segurantza edo Zerga Agentziak, baita EINren beraren lan-kostuari buruzko hiruhilekoko inkestako informazioaren zati bat ere. Emaitzetan erabiltzen diren soldaten kontzeptuak balio gordinetan daude, hau da, PFEZren konturako atxikipena edo langileak Gizarte Segurantzarako kotizazioak egin gabe.

Inkestaren arabera, 2014an (azken datu baliagarria) EAEn urteko batez besteko irabaziak 27.787 euro ziren langile bakoitzeko, aurreko urtearekin alderatuta % 3,2 handituta (2012 eta 2013 bitartean % +1,4). Kopuru hori Estatuko batez bestekoa baino % 21 handiagoa da denboraldi berean, eta autonomia erkidegoen zerrendako lehenengoa da; ondotik Madrilgo eta Nafarroa erkidegoa daude.

Hiru erkidego horiek, Kataluniarekin batera, Estatuko batez bestekoa baino urteko batez besteko irabazi handiagoa dute aipaturiko datan. Gainerakoak, berriz, batez bestekoa baino soldata txikiagoa du. Extremadurak, Uharte Kanariarrek eta Valentziako Erkidegoak dituzte soldatarik txikienak.

Sexuen araberako soldaten aldeari dagokionez, emakumeen batez besteko soldata txikiagoa zen gizonezkoena baino autonomia erkidego guztietan 2014an.

EAEn, gizonen eta emakumeen soldaten arteko aldea, 2014an, %31,5ekoa zen (Estatuko batez besteko aldea %30,3 da). Alde hori 2,1 puntu murriztu zen azken urtean (2013an %33,6,8koa zen), zeren eta gizonezkoen soldatak emakumeenak baino neurri txikiagoa egin baitzuen gora (+%3,2 eta +%4,8 hurrenez hurren).

Kopuru absolutuetan, EAEn, gizonen batez besteko soldata 2014an 31.271€ zen, eta emakumeen 23.782€. U. Kanariarretan zegoen gizonen eta emakumeen soldaten arteko desbideratzerik txikiena (%13,4 handiagoaz zen

gizonentzat), eta ondoren Extremadura eta Balearrak. Nafarroak, berriz, dibergentziarik handiena zuen (%42,1), eta ondoren Kantabriak eta Asturiasek.

Kontratu erlazio motaren araberako soldatei dagokienez, urteko soldata gordina %52,7 handiagoa zen batez beste 2014an kontratu mugagabea zuten langileentzat aldi baterako kontratuekin lan egiten zuten langileentzat baino. Alde hori, gainera, askoz handiagoa zen gizonen artean (%64,2) emakumeen artean baino (%35,3), eta alde hori Estatu mailan ere gertatzen da.

III.4.2. TAULA. URTEKO B.B. IRABAZIA, SEXU ETA KONTRATU MOTAREN ARABERA, EAE-N ETA ESTATUAN. 2013-2014. €.

	SEXU BIAK			EMAKUMEAK			GIZONAK		
	2013	2014	Ald. %	2013	2014	Ald. %	2013	2014	Ald. %
EAE									
GUZT.	26.915	27.787	3,2	22.687	23.782	4,8	30.313	31.271	3,2
IRAUPEN MUGAGABEA	28.864	29.874	3,5	23.863	25.267	5,9	32.756	33.671	2,8
IRAUPEN JAKINA	18.338	19.559	6,7	17.971	18.679	3,9	18.677	20.507	9,8
MUGAG. IRAUPEN JAK. %	57,4	52,7		32,8	35,3		75,4	64,2	
ESTATUA									
GUZT.	22.698	22.858	0,7	19.515	19.745	1,2	25.675	25.727	0,2
IRAUPEN MUGAGABEA	24.333	24.746	1,7	20.643	21.147	2,4	27.768	27.700	-0,2
IRAUPEN JAKINA	15.433	15.681	1,6	14.570	14.661	0,6	16.258	16.691	2,7
MUGAG. IRAUPEN JAK. %	57,7	57,8		41,7	44,2		70,8	66,0	

*Iturria: INE. **Encuesta** de Estructura Salarial.*

4.2. 2015EKO LAN-KOSTUEI BURUZKO INKESTAREN EMAITZAK

Lan-kostuari buruzko urteko inkesta langileek jasotzen duten soldataren hurbilketa egiten duen EINren bigarren estatistika da. Lan-kostuaren hiru hilez behingo inkestaren galdetegi erantsia oinarri hartuta lantzen da, eta lan-kostuaren urteko maila eta haren osagaiak ezagutzea ahalbidetzen du. Horien artean, "lansarien eta soldaten" partidak besteren konturako langileei diruz zein gauzaz emandako ordainsari guztiak hartzen ditu barne. Soldata-egituraren Inkestaren kasuan bezala, zenbatekoak gordinak dira, hau da, atxikipenak edo langileak Gizarte Segurantzarako kotizazioak egin aurrekoak.

2015eko lan-kostuari buruzko inkestaren arabera, EAEn langile bakoitzaren lan-kostu gordina 36.043 euro dira (-%0,7 2014aren aldean); horietatik %74,26 "lansariei eta soldatei" dagozkie, hau da, 26.765 euro [9]. Gainerako %25,74a hauexen

III.4.1 GRAFIKOA. ORDAINSARIEN ETA SOLDATEN PARTIDAREN ZENBATEKOA, LAN BANAKAPEN LANGILEKO ETA URTEKO. EAE ETA ESTATUAREN ARTEKO ERKAKETA.



Iturria: EIN. Lan-kostuen urteko inkesta.

[9] *Emaitza horiek EINen Lan Kostuen Hiruhileko Inkestak benetan lan egindako orduen lan kostuari buruz emandako datuarekin erkatu behar dira; izan ere, azalpenak eman ditzake guztizko lan kostuaren bilakaera ulertzeko. Argibide gehiago nahi izanez gero, jo beza irakurleak Memoria honetako EAEko ekonomiaren II. kapituluko 4. atalera ("4. Prezioak, kostuak eta errentak".)*

baturari dagokio: nahitaezko kotizazioak (%23,3), borondatezkoak (%0,78), zuzeneko gizarte prestazioak (%0,51) eta gainontzeko %1,14 beste partida batzuei hala nola gizarte gastuei, kalte-ordainei, etab.

Batez besteko soldata hori Estatuko batez bestekoa baino %17,1 handiagoa eta, Madrilgo Erkidegoarekin batera, autonomia erkidegoen artean kopuru handiena da. "Soldatak eta ordainsariak" partida hori etengabe hazi zen Euskadin 2002 eta 2013 bitartean, baina %1 egin zuen behera eta %0,3 2015ean. Estatuko batez bestekoa, berriz, %0,2 murriztu zen 2014an, eta %1,1 egin zuen gora 2015ean.

III.4.3. TAULA. LAN-KOSTUA LANGILEKO ETA URTEKO. DATUAK AUTONOMIA ERKIDEGOEN ARABERA. 2014-2015

	2014			2015			% ald 2014-2015	
	KOSTU OSOA	Soldatak eta ordains.	Sold. eta ord. % GUZT.	KOSTU OSOA	Soldatak eta ordains.	Sold. eta ord. % / GUZT.	KOSTU OSOA	Soldatak eta ordains.
ESTATUA	30.653	22.606	73,75	30.857	22.851	74,05	0,7	1,1
ANDALUZIA	27.820	20.366	73,21	28.194	20.646	73,23	1,3	1,4
ARAGOI	29.338	21.465	73,17	29.813	21.954	73,64	1,6	2,3
ASTURIAS	30.087	22.299	74,11	30.238	22.471	74,31	0,5	0,8
BALEARS (ILLES)	28.754	21.030	73,14	28.994	21.397	73,80	0,8	1,7
U. KANARIARRAK	25.649	18.811	73,34	26.260	19.325	73,59	2,4	2,7
KANTABRIA	28.365	20.809	73,36	28.300	20.842	73,65	-0,2	0,2
GAZTELA ETA LEON	27.346	20.044	73,30	27.946	20.612	73,76	2,2	2,8
GAZTELA-MANTXA	28.134	20.686	73,53	27.084	19.943	73,63	-3,7	-3,6
KATALUNIA	32.251	23.849	73,95	32.514	24.223	74,50	0,8	1,6
VALENTZIAKO E.	27.121	19.879	73,30	27.128	20.000	73,73	0,0	0,6
EXTREMADURA	25.361	18.658	73,57	25.431	18.781	73,85	0,3	0,7
GALIZIA	27.271	19.854	72,81	27.133	19.796	72,96	-0,5	-0,3
MADRIL	36.453	27.172	74,54	36.936	27.618	74,77	1,3	1,6
MURTZIA	27.386	20.260	73,98	27.556	20.384	73,97	0,6	0,6
NAFARROA	32.383	23.732	73,29	32.196	23.698	73,60	-0,6	-0,1
EAE	**36.282**	**26.843**	**73,98**	**36.043**	**26.765**	**74,26**	**-0,7**	**-0,3**
ERRIOXA	28.507	20.961	73,53	29.005	21.388	73,74	1,7	2,0

Iturria: INE: Encuesta Anual de Coste Laboral

5. ENPLEGURAKO POLITIKAK

5.1. ENPLEGURAKO POLITIKA AKTIBOAK

5.1.1. Enplegurako Euskal Estrategia 2011-2014: ex post ebaluazioa. Enplegurako Estrategia Berria 2020

Eusko Jaurlaritzak, 2011n, Enplegurako Estrategia onetsi zuen 2011-2014 aldirako, helburu orokor honekin: "*biztanleriaren jarduera eta enplegu egonkorra eta kalitatezkoa handitzea produktibitatea hobetuz, lan-merkatu irekian eta iraunkorrean, betiere aukera-berdintasunean eta gizarte eta lurralde kohesioan oinarrituta*". Horrez gain, honako irizpide zehatz hauei erantzuten zien helburu orokor horrek: jarduera eta enplegu egonkorra eta iraunkorra handitzea, produktibitatea eta kalitatea hobetzea, lan-merkatu irekia eta iraunkorra, aukera-berdintasuna eta gizarte eta lurralde kohesioa. Zehazki, Enplegu Estrategian, 2014an lortu beharreko zenbait helburu kuantitatibo ezarri ziren. Hona hemen garrantzitsuenak: enplegu tasa (20-64) %69raino igotzea eta jarduera-tasa (16-64) %76,5eraino, eta langabezia-tasa %8aren azpitik jaistea edo horretan mantentzea.

III.5.1. TAULA. 2011-2014 ENPLEGUTAKO|ERABILERATAKO EUSKAL ESTRATEGIA. EXPOST-a EBALUAZIOA

ARDATZAK	JARRAIBIDEAK	BETETZE-MAILA
1. ENPRESEN LEHIAKORTASUNA HOBETZEA	D1-EKONOMIA IREKIA SUSTATZEA, ENPRESEN INTERNAZIONALIZAZIOA INDARTUZ.	-
	D2-EKONOMIA IREKIA SUSTATZEA, INBERTSIOAK ETA TALENTUA ERAKARRITA.	TXIKIA
	D3-ENPRESEN ARTEKO ELKARLANA BULTZATZEA	-
2. ENPLEGUA ETA EGOKIGARRITASUNA HOBETZEA	D4-EMAKUMEEK ETA GIZONEK LAN-MERKATUAN PRESENTZIA HANDIAGOA IZATEA ETA LANGABEZIA GUTXITZEA	TXIKIA
	D5-BIZTANLERIA AKTIBO GAITUA LORTZEA, LAN-MERKATUKO BEHARREI ERANTZUTEKO.	ERTAINA
	D6-HEZKUNTZA ETA PRESTAKUNTZA SISTEMEN KALITATEA ETA EMAITZAK HOBETZEA.	ERTAINA
	D7-GIZA KAPITALETAKO INBERTSIOA HANDITZEA ETA HOBETZEA ETA PRESTAKUNTZA SISTEMA ESKUMENEN KUDEAKETARA EGOKITZEA	ERTAIN-TXIKIA
	D8-ENPLEGUAREN KALITATEA HOBETZEA ETA ENPRESEN GIZARTE ERANTZUKIZUNA SUSTATZEA.	ERTAIN-TXIKIA
	D9-ENPLEGURAKO POLITIKEN PROSPEKZIOA ETA AURREZAINTZA IZAERA INDARTZEA ETA ENPRESA, SEKTORE EDO LURRALDE BERREGITURAKETEN ERAGINA GUTXITZEA.	ERTAIN-TXIKIA
	D10-EKINTZAILETZA ETA ENPRESA ESPIRITURA SUSTATZEA ETA ESKUMENAK EMATEA BIZTANLERIA AKTIBOARI EKINTZAILETARAKO, BEREZIKI GAZTEEI.	ERTAIN-HANDIA
3. GAZTEEN ENPLEGUA SUSTATZEA ETA HEZKUNTZA-LANERAKO TRANTSIZIOA HOBETZEA	D11-GAZTEEN LANBIDE GAITASUNA HOBETZEA	ERTAIN-HANDIA
	D12-TALENTUA INDARTZEA ETA GAZTEEN EKINTZAILETZA BULTZATZEA.	ERTAIN-TXIKIA
	D13-GAZTEEN ENPLEGUA SUSTATZEA	ERTAIN-TXIKIA
4. GIZARTE ETA LURRALDE KOHESIOA INDARTZEA	D14-GIZARTE INKLUSIOA SUSTATZEA ETA EGOERA TXARRENEAN DAUDEN TALDEEN ENPLEGU TASA HANDITZEA.	ERTAIN-TXIKIA
	D15-ENPLEGUA ETA GIZARTE ETA LANEKO INKLUSIBORAKO POLITIKA AKTIBOAK INDARTZEA	ERTAIN-TXIKIA
	D16-ENPLEGURAKO POLITIKEN ERAGINKORTASUNA ETA HERRITARREK HORIEK ESKURATZEN DITUZTELA BERMATZEA, BIZILEKUA EDOZEIN DELARIK.	ERTAIN-TXIKIA
5. ENPLEGURAKO BALIABIDEAK ETA ZERBITZUAK HOBETZEA	D17-EAE-KO ENPLEGU SISTEMA EGOKIA ZEHAZTEA ETA ANTOLATZEA.	TXIKIA
	D18-ENPLEGU ZERBITZU PUBLIKOA SORTZEA ETA ERAGINKORTASUNEZ KUDEATZEA, LURRALDEAN ENPLEGU POLITIKAREN APLIKAZIOAREN BURU IZANIK ETA BIZTANLERIA AKTIBOARI ETA ENPRESEI BANAKO ARRETA ESKAINIZ.	TXIKIA
6. JARRAIBIDEEN KONTROLA ETA EBALUAZIOA BERMATZEA	D19-DOKUMENTU ESTRATEGIKOAN EZARRITAKO HELBURUEN BETETZE-MAILA EBALUATZEKO ETA JARRAITZEKO SISTEMA EZARTZEA ETA BERMATZEA.	-

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Dpto. Empleo y Políticas Sociales. Geuk egina.

EEEren ex post ebaluazioaren hasieran aipatzen denez, estrategiaren abiapuntua, enplegua sortzea eta langabezia nabarmen jaistea alegia, ez zetorren bat estrategia zehaztu zenean Euskadi bizi izaten ari zen krisi sakonarekin, eta EEEk hartzen zituen ekitaldietatik bakarrik 2014an hazi zen BPGa. Beraz, ezinezkoa da ezarritako helburuak betetzea.

Hala ere, Enplegu eta Gizarte Zerbitzuetako Sailak oro har ebaluatzen du Estrategiaren ardatzen eta jarraibideen betetze-maila, honelaxe (ikusi III..5.1. taula): ebaluaturiko 16 jarraibideetatik 4tan betetze-maila txikia izan da (bereziki enplegurako baliabideak eta zerbitzuak eta enpresan lehiakortasuna hobetzeari dagokionez), 8tan ertain-txikia (batik bat

gazteen enplegua sustatzeari eta gizarte eta lurralde kohesioa indartzeari dagokionez), 2tan ertain-handia eta beste 2tan betetze-maila ertaina (4ak ekintzailetza sustatzearen eta gaitasuna hobetzearen aldetik).

2016an Estrategia berria egiteko input gisa balio izan duen eta partaidetza-prozesuaren bidez egin den ebaluazioa izan da, Eusko Jaurlaritzak Gizarte Elkarrizketarako Mahaian 2020rako hartutako konpromisoa. Hona hemen Enpleguaren Euskal Estrategiaren eginkizuna: "*Eusko Jaurlaritza eta enplegurako politiketan zuzenean edo zeharka parte hartzen duten gainerako eragin publikoak eta pribatuak zuzentzea/bideratzea, Euskadin 2020an enplegurako planteaturiko helburuen betetze-maila ahalik eta handiena izan dadin, betiere erakundeen lidertzarpean eta lankidetza publiko-pribatua baliatuz eta enpleguaren gaineko kontzeptu jakin batekin: enplegua pertsona garatzeko, gizarte kohesiorako eta aberastasuna sortzeko eta ekonomia garatzeko osagaia dela gizarte mailan aurreratuta dagoen gizarte lehiakorrean*".

III.5.2. TAULA. ENPLEGURAKO 2020 EUSKAL ESTRATEGIA. ARDATZAK ETA HELBURUAK.

ARDATZAK	HELBURUAK
A) AKTIBAZIOA	Egungo jarduketa-tasa txikia handitzea eta enpresen eskariari aurre egiteko nahikoa biztanleria aktiboa eta gure ongizate estatuari eusteko nahikoa landunak ez izatea nolabait konpontzea
B) GAITASUNAK	Ekoizpen-sarearen benetako beharretara egokitutako gaitasuna duten langileak lortzea, ezagupen teknikoak nahiz gizarte gaitasunak, hizkuntzak jakitea, etab. aintzat hartuta
C) AUKERAK SORTZEA	Aukerak sortzea garapen ekonomikoaren bidez eta bete-betean aprobetxatzea gure ekonomiak enplegua sortzen duen ahalmena
D) AUKERA-BERDINTASUNA	Lan-merkatu inklusioa sortzea, horren talde guztientzako berdintasunezko aukerak eskainita
E) KALITATEZKO ENPLEGUA	Kalitate handiagoko enplegua eskaintzen duen lan-merkatua lortzea, adostasunean eta lankidetzan oinarrituriko lan harremanak oinarritzat hartuta
F) ENPLEGUKO EUSKAL SISTEMA ERAGINKORRA, BALIOZKO ZERBITZUAK EMATEN DITUENA	Enplegurako Euskal Sistema hobetzea, enpleguan eragina duten politika guztiak bilduta eta pertsonen eta enpresen beharretara bideratuago dauden zerbitzuak eskaintzeko

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Dpto. Empleo y Políticas Sociales. Geuk egina.

2020rako Enplegurako Euskal Estrategiaren garapena ikuspegi globaletik hartzen da, eta Enplegurako Europako Estrategia hartzen du eredutzat, Europako 2020 Estrategiaren barruan betiere. Lan-merkatuari buruzko diagnostikoa abiapuntua izanik, Euskadiko enplegurako "funtseko alderdiak" diren horiekin zerikusia duten zeharkako 5 printzipio ezarri ditu[10], eta 6 jarduketa-ardatzen inguruan dago egituratuta (III.5.2 taula). Horiei jarraituz, 43 jarraibide zehaztu dira, Euskadiko enplegurako politiken gakoa izan beharko dutenak. Horren betetze-mailaren berri emango da Memoria honen geroko edizioetan.

5.1.2. 2014-2016ko Enplegu Plana

Eusko Jaurlaritzak, 2014ko urtarrilean, 2014-2016ko Enplegu Plana onetsi zuen, pertsona ahulenen enplegua eta laneratzea errazteko funtseko helburuarekin, eta bereziki gazteenak. Horretarako, ekintzailetza eta ETEentzako laguntza indartuko dira. Halaber, enpleguan eragin zuzena duten obretako eta proiektuetako inbertsio pribaturako pizgarriak eman nahi ditu, eta aldi berean, erakundeen arteko lankidetza eta sektore publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetza sustatzen da enpleguaren suntsiketa geldiarazteko nolabait[11].

Orain arteko jardueretatik dakigu zein den Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak eginiko 2014ko Ekintza Planaren Balantzea.[12]

[10] *Xehetasun gehiago nahiz izanez gero, jo beza irakurleak Enplegurako Euskal Estrategia 2020 izeneko dokumentura:* http://www.irekia.euskadi.eus/uploads/attachments/8428/ESTRATEGIA_EMPLEO_2020_(CAST).pdf?1469610281

[11] *Euskadiko EGABren 7/2013 Irizpena, abenduaren 20koa, Enplegurako 2013-2016 Planaren zirriborroari buruzkoa:* http://www.cesegab.com/Portals/0/Libros/D13-07_Dictamen.pdf

[12] *Ezin izan da eguneratu 2014ko Ekintza Planaren balantzea, 2015eko Memoria Sozioekonomikoan aurkeztua. Horretara jo beza irakurleak xehetasun gehiagorako.*

Urtean programa operatiboetarako erabiltzeko aurreikusitako 770,63 milioi euroetatik, 566,53 milioi erabili ziren, hots, aurreikusitakoaren %73,5. Gainera, aurreikusitako baliabide ekonomikoen egikaritze-maila jatorri pribatuaren edo publikoaren arabera zein izan den bereiz daiteke.

Baliabide publikoei dagokienez, burutzapen-maila %85ean kokatu zen. Pribatuetan, berriz, %68 baino ez zen erabili. Horrez gain, 2014an abiarazitako ekimenek aurreikusitako eragin globalak bete zituzten sortutako lanpostuen aldetik (%110,9) eta enpleguari eusten aldetik (%112,9). Enpleguaren hobekuntzan espero zen gehikuntza, berriz, %71,2koa izan zen.

5.1.3. LANBIDEren jarduera

LANBIDEK funtsezko eginkizuna du eratxikia EAEko enplegurako politika aktiboak garatzeko eta Enplegu Plana abiarazteko, zeren eta haren funtzioak lan jarduera (enplegua sustatzeko programekin, bitartekaritzarekin, orientazioarekin, etab.) eta enplegurako prestakuntza baitira, landunena nahiz langabetuena, baita Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta eta beste prestazio osagarri batzuk kudeatzea ere[13].

Aurrekontuko likidazioak oinarri hartuta (obligazio aintzatetsiak), jakin badakigu 2015ean 819,35 milioi euroko gastua izan zuela, 2014an baino %5,5 gehiago, eta horietatik 498,6 milioi, gastu guztien %60,9, Gizarteratze Programarako erabili ziren (2014an baino %3,5 gehiago), 200,4 milioi euro (guztizkoaren %24,5) Enplegu Programarako (2014an baino %10,6 gehiago) eta 105,2 milioi (gastuaren %12,8) Prestakuntza Programarako (+%6,3 2014koaren aldean)[14].

III.5.1 GRAFIKOA. LANBIDE: AURREKONTU-LIKIDAZIOAK PROGRAMEN ARABERA. MILA EUROTAN.



Iturria: LANBIDE. Aurrekontu-likidazioak. Geuk egina

Hortaz, eta nahiz eta sinplifikazioa izan daitekeen enplegurako politiketako gastua prestakuntzako eta enplegurako programen baturatzat hartzea, gizarteratzearekiko berezko erlazioa duenez gero, LANBIDEk 2015ean enplegurako politika aktiboetan 305,6 milioi euroko gastua izan zuen, 2014an baino %9,1 gehiago. 2013 eta 2014 urte bitartean, berriz, %6,1eko murriztapen izan zen.

Eginiko lanari dagokionez, baditugu 2014ko Kudeaketa Planaren ebaluazioari buruzko zifrak, Plan Estrategikoan ezarritako helburuen jarraipenerako sortutako adierazle sistemaren bidez.

[15]. Laburbilduz, 2016ko abenduaren 31n, LANBIDEren ustez, %40koa zen bere ebaluazioan aurrerapen maila lehen ardatz estrategikoan (enpleguaren euskal sistemako liderra izatea), %45ekoa bigarrenean (LANBIDE ekoizpen-sarera hurbiltzea), %70ekoa hirugarren ardatzean (pertsonek enplegua lortzeko dituzten aukerak hobetzea) eta %55ekoa laugarren ardatzean (zailtasun bereziak dituzten taldeen gizarte kohesioan aurrera egitea).

Azkenik, 2016an, eta likidazioari dagozkion kopuruak izan gabe, Lanbidek 822.223.000€-ko aurrekontua izan zuen, hots, %1eko gehikuntza, eta horietatik 472.057.516 euro gizarteratzeko erabili ziren, 225.842.914 euro enplegurako eta 11.279.812 euro prestakuntzarako.

---

[13] *DBEri eta beste prestazio batzuei buruzko informazioa nahi badu, ikusi Memoria honetako IV. kapitulua (Gizarte babesa).*

[14] *Gainerakoa, betearazitako gastuaren %1,8 gutxi gorabehera, erakunde honetako egitura eta laguntza gastuei dagokie.*

[15] *Ezin izan da eguneratu 2014ko Ekintza Planaren balantzea, 2015eko Memoria Sozioekonomikoan aurkeztua. Horretara jo beza irakurleak xehetasun gehiagorako.*

5.1.4. 2014ko PAESen beste zifra batzuk

Ogasun eta Administrazio Publikoen Ministerioak autonomia erkidegoek "enplegua sustatzeko" eginiko gastua zein den jakitea ahalbidetzen du lurraldeko estatistika datuak oinarri hartuta, haien aurrekontuko likidazioek dakartzaten partida orokor gisa. Informazio horren arabera, 2014. urtean (eskuragarri dugun azken datua), Euskadik 319,79 milioi euro erabili zituen prestakuntza, orientazio eta laneratze programetarako, 2013an baino %0,6 gutxiago. Zifra hori nahikoa hurbil dago (ez da berdina) LANBIDEk prestakuntza eta enpleguko programetan urte horretarako zituen kontuen 280,235 milioi euroko gastutik, 2013an baino %6,1 gutxiago hain zuzen.

III.5.3. TAULA. ENPLEGU POLITIKA AKTIBOAK: EAE-ESTATUA KONPARAZIOA.

	ZENBATEKOA (MILIOI €)*			GASTUA (€/LANGABETUA)		
	EAE	ESTATUA	% EAE/ESTATUA	EAE	ESTATUA	% EAE/ESTATUA
2008	80,45	4.976,88	1,6	950,91	1.959,48	48,5
2009	191,63	5.259,47	3,6	1.590,30	1.443,32	110,2
2010	94,59	4.994,44	1,9	714,43	1.229,92	58,1
2011	399,85	4.642,07	8,6	2.755,68	1.090,40	252,7
2012	527,11	4.004,13	13,2	3.245,77	848,26	382,6
2013	321,71	2.799,03	11,5	1.834,16	577,68	317,5
2014	319,79	2.975,23	10,7	1.862,51	650,20	286,5
%12/13	-39,0	-30,1	-	-43,5	-31,9	-
%13/14	-0,6	6,3	-	1,5	12,6	-

*Iturria: Administrazio Publikoen Ministerioaren DATUEKIN EGINA.*AA.EE.en aurrekontu-likidazioetatik ateratako datu bateratuak. Sailkapen funtzionala, 24 kodea: "enpleguaren sustapena". Ogasun eta administrazio publikoen ministerioaren datu-basea.*

Jaitsiera hori gorabehera, programetarako funts bolumenik handiena erabili zuen autonomia erkidegoa EAE izan zen 2014an, Estatuko guztizkoaren %10,7, eta data horretan Estatuan erregistraturiko langabeziaren %3,8 metatzen zuen (urteko batez besteko datua). Horren ondorioz, Estatuko batez bestekoa baino %286,5 handiagoa izan zen urte horretan langabetuko eginiko gastua: 1.862,51€, 650,20 euroren aldean.

Gastu hori pixka bat jaitsi egin da 2013tik: %1,5%. Aurreko urtean, berriz, beherakada handia izan zuen, EAEn nahiz Estatuan.

5.1.5. Etengabeko trebakuntza

Indarreko araudiaren eta eskumenen banaketaren ondorioz, langileentzako etengabeko prestakuntzako jarduerak Etengabeko Lanbide Heziketarako Euskal Fundazioaren (HOBETUZ) eta Estatuko Enplegurako Prestakuntzaren Hirutariko Fundazioaren (EPHF) bidez kudeatzen dira EAEn. Ekintza horien finantzazioa baterako bilketako kuoten eta Europako Gizarte Funtsak emandako kopuruen eta aurrekontu publikoetatik (bai administrazio zentraletik EEZPri emandakoak bai) Eusko Jaurlaritzatik HOBETUZen kasuan) eratorritako funtsen kargura egiten da, batez ere.

Etengabeko Lanbide Heziketarako Euskal Fundazioaren (HOBETUZ bidez burutzen diren etengabeko prestakuntzako jardueren kasuan, 2015ean [16], urte horretakoa da eskuragarri dagoen azken datua; izan ere, ez zen langileentzako eskaintza deialdirik

III.5.4. TAULA HOBETUZ: 2015EKO DEIALDIAREN BALANTZEA. BEHIN BETIKO DATUAK.

		PLAN MOTA	ESPE-DIENT.	EMANDAKO DIRUL. (mila €)	PARTAIDEAK
ENPRESAK	EKINTZA ESTRATEGIKOAK	ENPRESA PLANAK	287	2.141,4	10.652
		TALDE PLANAK ENPRESA TALDEAK	46	595,9	1.773
		GUZT.	**333**	**2.737,3**	**12.425**

Iturria: HOBETUZ.

[16] *Eusko Jaurlaritzak eta enpresa erakundeetako eta sindikatuetako ordezkariek osatua.*

izan, LANBIDEK ez baitzituen onartu) 333 espediente kudeatu zituen, guztira (% -68,7 201raren aldean). Horretarako 2,7 milioi euroko diru-laguntzak eman ziren (% -59,1).

2016an, enpresen deialdiez gain, landun langileentzako deialdia izan zen, guztira 16,9 milioi eurokoa, eta 2016ko emaitzen aurrerapenari dagokionez, guztira 455 espediente onartu dira. Gainera, 21,2 milioi euroko diru-laguntzak eman dira.

Enplegurako Prestakuntzaren Hirutariko Fundazioak (enpresa planetarako, sektore arteko eta sektoreetako prestakuntza planetarako, gizarte ekonomiarako eta langile autonomoentzako) sustaturiko langileen etengabeko prestakuntzarako ekintzetan 2015ean 196.968 pertsonek hartu dute parte behin-behineko datuen arabera, hau da, aurreko urtean baino % 13 gehiagok, 19.805 enpresa formatzaileren esku-hartzeari esker (% -11,3, 2014aren aldean). Guztira, enplegurako prestakuntzarako erabilgarri dauden fondoen 30 milioi euro erabili dituzte (-%8,3 aurreko urtearen aldean), eta horrengatiko hobaria izan dute Gizarte Segurantzako kuotetan.

Partaidetza mailari dagokionez, %33,1ekoa zen (%30,3 batez beste Estatuan) Euskadin prestakuntzetan parte hartu zuten sektore pribatuko soldatakoen portzentajea, eta enpresa trebatzaileen estaldura-tasa, berriz, %30,5ekoa zen (%27,4 batez beste Estatuan).

Prestaturiko langileen profila dela eta, pertsona horien %56,7 gizonak ziren eta %43,3 emakumeak, halako moldez non prestakuntzaren estaldura-tasa aldatu egiten baita sexuaren arabera. Izan ere, handiagoa zen gizonena (%35) emakumeena baino (%30,8). Gainera, prestakuntzako partaidetza handiagoa zen 36-45 urte bitarteko adin-taldean (partaideen %38,1), eta ondoren 26-35 urte bitarteko adin-taldea (%23,9). Halaber, partaideen maila akademikoa gehienbat nahitaezko bigarren mailaren ondoko ikasketei zegokien (prestakuntzen %42,1), ondoren unibertsitate ikasketak zituztenena (%35,2) eta, azkenik, oinarrizko ikasketak eta nahitaezko bigarren mailako ikasketak zituztenena (%22,7).

Prestakuntzako edukiei dagokienez, gehienbat arlo hauekin zeuden lotuta prestakuntzak: Segurtasuna eta ingurumena (partaideen %23,9), Administrazioa eta kudeaketa (%21,3), prestakuntza osagarria (%11,8) eta merkataritza eta marketina (partaideen %10,4, besteak beste.

III.5.5. TAULA. ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA. 2014-2015EKITALDIEN BILAKAERA

	2014	2015	% ald. 14/15
EAE-N PRESTATURIKO PARTAIDEAK			
GUZTIRA*	174.343	196.968	13,0
IKASKETA MAILAREN %			
Ikasketarik ez, oinarrizkoak eta DBHkoak	23,8	22,7	-4,6
2. mailakoak eta LH	41,7	42,1	1,0
Unibertsitate ikasketak	33,7	35,2	4,5
PRESTAKUNTZA-ENPRESAK			
GUZT.	22.336	19.805	-11,3
JARDUERA SEKTOREA			
Nekazaritza	179	190	6,1
Industria	3.549	3.250	-8,4
ERAIKUNTZA	2.233	1.995	-10,7
Merkataritza	5.359	4.564	-14,8
Ostalaritza	3.003	2.842	-5,4
Beste zerbitzu batzuk	8.013	6.964	-13,1
PRESTAKUNTZA ORDUAK PARTAIDEKO	24,6	21,2	-13,8
FINANTZIAZIOA: Kreditu baliagarria (milioi €)	**32,70**	**30,0**	**-8,3**

Iturria: enpleguko prestakuntzarako tripartita fundazioaren datuekin egina.
** Ez dira pertsona langileak, baizik eta heziketako eraketako parte-hartzeak, pertsona berak hainbat eragin hezigarritan parte har dezakeenez gero.*

5.2. ENPLEGURAKO POLITIKA PASIBOAK

Langabeziagatiko prestazioek lan egin ahal eta nahi dutenak baina aldi baterako edo behin betiko lana galdu edo lanaldiaren zati handi bat murriztuta dutenak eta, horren ondorioz, soldatak antzeko moduan murriztuta dituztenak babesten dituzte. Kotizaziopeko prestazioak (erabateko langabezia edo langabezia partziala) eta laguntzako prestazioak (langabeziagatiko subsidioa) daude. 2012ko uztailean, aurrekontuen egonkortasuna bermatzeko eta lehiakortasuna

sustatzeko neurriei buruzko 20/2012 Errege Dekretu-legea aplikatzearen ondorioz, murriztu egin dira langabeziagatiko prestazioen zenbatekoak, eta kopuru hauek ditugu:[17]:

- Kotizaziopeko prestazioen zenbatekoa langileek eta enpresariek Gizarte Segurantzari egoera horretarako ordaindutako kotizazioekin finantzatzen da, eta langabeziaren lehenengo 6 hiletan langabearen kotizazio oinarriaren % 70 da (gainerakoan % 50), langabe bakoitzaren familia egoeraren arabera zenbait muga dituela.
- Langabeziagatiko subsidioa familia egoeraren arabera IPREMen (Askotariko Efektuen Errentaren Adierazle Publikoa) gaineko ehuneko jakin baten erreferentzia duen prestazio ekonomikoa da. 2016rako IPREM 532,51ekoa izan da hilean, aurreko lau urteetako berdina, beraz.

III.5.2. GRAFIKOA. EAE-KO LANGABEZIAREN ZIOZKO PRESTAZIOEN JASOTZAILEEN KOPURUAREN HILEKO BILAKAERA



Fuente. Elaboración con datos de MESS.

5.2.1. Langabeziako estaldura eta prestazioen jasotzaileak

2016an langabeziagatiko prestazioen onuradunak, batez beste, 55.675 lagun izan ziren EAEn, aurreko urtean baino % 14,5 gutxiago, nahiz eta urte horretan % 17,5 jaitsi zen, Sustapen Ministerioak emandako batez besteko datuen arabera. EAEn zeuden 55.675 hartzaileetatik %51,7 emakumeak ziren (kopuru hori batez bestekoa baino gutxiago jaitsi zen, %11,2) eta %48,3 gizonak (-%17,9).

III.5.6. TAULA. LANGABEZIA PRESTAZIOAK JASOTZEN DITUZTEN PERTSONEN BATEZ BESTEKOAREN BILAKAERA EAE-N

	KOTIZAZIOPEKO PRESTAZIOAK			LAGUNTZA PRESTAZIOAK			PRESTAZIOAK, GUZT.*		
	Gizona	Emak.	GUZT.	Gizona	Emak.	GUZT.	Gizona	Emak.	GUZT.
2012	31.014	24.471	55.485	16.065	16.586	32.651	47.079	41.057	88.136
2013	30.526	25.082	55.608	17.313	16.611	33.924	47.839	41.693	89.532
2014	24.488	22.039	46.527	16.704	15.698	32.402	41.192	37.737	78.929
2015	18.224	18.588	36.812	14.530	13.806	28.336	32.754	32.394	65.148
2016	**14.675**	**16.872**	**31.547**	**12.218**	**11.910**	**24.128**	**26.893**	**28.782**	**55.675**
Ald % 13/14	-19,8	-12,1	-16,3	-3,5	-5,5	-4,5	-13,9	-9,5	-11,8
Ald % 14/15	-25,6	-15,7	-20,9	-13,0	-12,1	-12,5	-20,5	-14,2	-17,5
Ald % 15/16	-19,5	-9,2	-14,3	-15,9	-13,7	-14,9	-17,9	-11,2	-14,5

(*) Hauexek barne: gizarteratze errenta aktiboa, langabeziaren eta gizarteratzearen ziozko babeserako aldi baterako programa (prodi) eta enplegurako aktibazio programa (pae)

Iturria: SEPE, ministerio de empleo y seguridad social.

Prestazioen hartzaileen kopuruak 2016ko hilez hile izan duen bilakaerari erreparatuta ikusiko dugunez, aurreko urteetan gertatu zen legez, gorakada izan zen uztailean eta abuztuan, eta harrezkero behera egin eta urtea 51.222 hartzailerekin bukatu zen, 2015eko abenduan baino %12,3 gutxiago (orduan %17,7 behera egin zuen urtebete lehenagoko datuen aldean).

[17] *BOE, 168 zk., 2012ko uztailaren 14koa.*

Abenduko langabeziaren ziozko prestazioen 51.222 onuradunek kotizaziopeko prestazioak jasotzen zituzten (29.081 lagun), subisidioen %37 (18.973), %6,1ek Gizarteratze Errenta Aktiboa jasotzen zuen (3.125) eta gainerako %0,1ek, 43 lagunek, Enplegurako Aktibazio Programaren prestazioa[18] Estatuan, hil berean, 1,98 milioi onuradun erregistratu ziren (-%7 2015eko abenduaren aldean), eta kotizaziopeko prestazioaren onuradunen ratioa %39,3 zen, %48,7koa subsidioetarako eta %10,9 gizarteratze errenta aktiborako. Gainera, %1,1ek Enplegurako Aktibazio Programaren prestazioa jaso zuen.

Erregistratutako langabezia-tasak aintzakotzat harturik, esan liteke 2016ko abenduan Euskal Autonomia Erkidegoan 100 langabetuetatik 57k ez zuela inola prestaziorik jasotzen (2015. urtean, 61eek), eta gainerako 38etatik 21ek zerga-prestazio bat jasotzen zuen, 14k laguntza eta 3k Laneratzeko Errenta Aktiboa.

Estatuan, langabeziagatiko prestazioen estaldura nabarmen handitzen da erkidegoen artean langabeziari dagokionez. Nabarmentzekoa da, alde batetik, U. Balearren kasua, non, eskuragarri ditugun datu guztiek arabera, aurretik lan esperientzia duten langabetuek prestazioren bat jasotzen duten eta, bestetik, Ceuta eta Melilla, non langabetuen %40k besterik ez duten prestazioa jasotzen.

III.5.7. TAULA. AUTONOMIA ERKIDEGOEN ARABERA LANGABEZIARENGATIK PRESTAZIOETAN ESTALDURAREN ETA GASTUAREN ADIERAZLEAK. ABENDUETAN.

	ESTALDURA-TASA*				KOTIZAZIOPEKO PRESTAZIOAREN B.B., ONURADUNEKO (€/HILEKO)			
	2014	2015	2016	VAR. 15/16 pp.	2014	2015	2016	% 15/16
ANDALUZIA	61,6	59,8	62,6	2,8	771,9	779,7	784,7	0,6
ARAGOI	56,9	53,1	52,8	-0,3	837,0	821,0	823,9	0,4
ASTURIAS	54,3	49,4	47,3	-2,1	779,9	771,8	779,6	1,0
U. BALEARRAK	115,9	118,3	130,2	11,9	931,0	946,6	964,9	1,9
U. KANARIARRAK	52,0	50,8	50,5	-0,3	743,3	755,6	762,1	0,9
KANTABRIA	56,5	53,0	53,5	0,5	775,2	770,0	779,6	1,2
GAZTELA-MANTXA	50,8	47,9	50,7	2,8	769,5	765,0	769,9	0,6
GAZETLA ETA LEON	51,6	49,7	50,3	0,5	790,7	785,2	802,1	2,2
KATALUNIA	63,3	61,2	62,6	1,3	857,5	852,2	855,7	0,4
VALENTZIAKO E.	51,5	49,3	50,4	1,2	798,1	792,3	791,2	-0,1
EXTREMADURA	65,3	63,0	64,3	1,3	692,5	686,6	687,0	0,1
GALIZIA	55,6	53,5	53,7	0,2	780,2	785,4	793,5	1,0
MADRIL	53,2	47,8	48,1	0,3	845,9	848,6	850,9	0,3
MURTZIA	52,4	51,2	53,4	2,2	781,9	781,4	785,6	0,5
NAFARROA	55,2	50,8	48,9	-1,9	905,3	909,3	902,3	-0,8
EAE	**47,3**	**43,4**	**42,4**	**-1,0**	**903,1**	**889,2**	**875,6**	**-1,5**
ERRIOXA	53,5	50,6	53,1	2,5	840,0	838,5	843,4	0,6
CEUTA	39,9	42,4	41,4	-1,0	789,5	773,7	772,9	-0,1
MELILLA	35,6	38,4	35,7	-2,7	749,8	763,9	762,0	-0,2
GUZT.	**57,6**	**55,2**	**56,6**	**1,4**	**815,3**	**815,4**	**820,1**	**0,6**

Iturria: Geuk egina con datos de MESS.
Estaldura-tasak, Ministerioaren metodologiaren arabera, kalkulatu dira prestazio-onuradun/aparteko kopuruaren arteko zatidura bezala (kontributiboak subsidio gehiago) hilabeteko azken eguna eta kopurua alta aurkitzen zirela/langabe/aparteko ,apartekoa erregistratuta/esperientzia laboralarekiko batekoa| gehiago/onuradun/ balizko nekazaritzako subsidioko (Andaluzian eta Extremaduran) apartekoa.

2016ko abenduko datuekin jarraituz, Estatuko batez besteko estaldura %56,6koa zen (2015eko abenduan baino %1,4 gehiago), eta hori baino txikiagoa da EAEkoa (lehenago hil horretan erregistraturiko langabetuen %42,4, Enplegu eta Gizarte Segurantzaren Ministerioak darabilen metodologiaren arabera). Gure Erkidegoan, estalduran %1eko jaitsiera izan zen 2015eko abenduaren eta 2016ko abenduaren artean. Horren ondorioz, autonomia erkidego guztietako langabezia

[18] *Aldi baterako ohiz kanpoko programa, luzaroan langabezian dirauten pertsonentzat; Enplegu Zerbitzu Publikoek kudeatuta, lan bitartekaritzarako eta enplegurako politika aktiboak ditu, lan merkatura itzul daitezen aukerak areagotzeko. Ildo horri eutsiz, SEPEk kudeatutako aholkularitzarako laguntza ekonomikoa eskaintzen du, enplegurako aktibazio politiketan parte hartzeari lotuta. 16/2014 Errege Dekretu-Legea, abenduaren 19koa, Enplegurako Aktibazio Programa arautzen duena.*

estaldura-tasarik txikiena du EAEk, Ceuta eta Melilla alde batera utzita. Beraz, 2015ean bezala, 2016an langabezia tasa txikiagoekin batera, lanik gabe daudenen aringarri, aldi berean gora egin du babesik ezak langabeziarako babes sistemaren aldetik.

Langabeziagatiko kotizaziopeko kontribuzioaren batez bestekoak ere behera egin zuen, 2016ko abenduan 875,6 euro EAEn (aurreko urtean baino %1,5 gutxiago), Estatuko batez bestekoaren gainetik (820,1€, 2015eko abenduan baino %0,6 gehiago).

Alabaina, prestazio honen batez bestekoa handiagoa da orain ere EAEn: %6,8 handiagoa Estatuan baino. EAE aldagai honen lehen tokietan dago, Nafarroarekin, Balearrekin eta Kataluniarekin batera.

5.2.2. Gastua eta sarrera langabezian

EAEko langabeziaren ziozko prestazioetarako gastua, guztira, eta behin-behineko datuen arabera, 699,178 milioi euro izan zen 2016an, hots, 2015ean baino %14,9 gutxiago. Zenbateko hori EAEko BPGaren %0,98 da (%1,19 aurreko urtean), eta Estatuan langabeziarako eginiko gastu osoaren %3,73 da, non 18.746 milioi eurotik gorako gastua duten (-%9,3 2015aren aldean).

III.5.18. TAULA. EEZP-REN LANGABEZIA ETA DIRU-SARRERA GASTUEN BILAKAERA GIZARTE KOTIZAZIOAREN ARABERA EAE-N (MILIOI EURO)

	2011	2012	2013	2014	2015	2016*	Ald. % 14/15	Ald. % 15/16
Kotizaziopeko prestazio osoak	667,86	789,87	799,31	656,71	502,16	396,92	-23,5	-21,0
(-) G.S. langabetuaren kargura	*36,04*	*42,51*	*44,02*	*46,97*	*37,78*	*31,90*	*-19,6*	*-15,6*
(-) PFEZaren atxikipenak	*6,15*	*6,15*	*6,16*	*4,36*	*2,83*	*2,10*	*-35,1*	*-25,8*
Kotizaziopeko prestazio garbiak	628,64	741,21	749,13	605,38	461,55	362,92	-23,8	-21,4
Langabezia subsidioaren ziozko prestazioak	161,29	168,60	171,71	160,64	140,89	121,99	-12,3	-13,4
EEZPk G.S.ri eginiko kotizazioak	315,27	342,83	338,04	280,04	219,34	184,08	-21,7	-16,1
-Kotizaziopekoak, EEZPren konturakoak	*279,93*	*305,61*	*305,79*	*250,09*	*191,74*	*159,29*	*-23,3*	*-16,9*
-EEZPren konturako laguntzakoak	*35,34*	*37,22*	*32,25*	*29,95*	*27,60*	*24,69*	*-7,8*	*-10,5*
LANGABEZIA GASTU GUZTIAK	**1.144,42**	**1.252,64**	**1.258,88**	**1.046,06**	**821,78**	**699,17**	**-21,4**	**-14,9**
ESTATUKO GASTU GUZTIAREN %	3,80	4,11	4,36	4,39	3,98	3,73	-	-
EEZP-RAKO KUOTAK	1.131,52	1.088,31	1.056,10	1.071,30	1.099,96	:	2,7	:
SALDOA	-12,90	-164,33	-202,45	25,24	278,18	:		
SARRERA / GASTUA	0,98	0,87	0,84	1,02	1,34	:		

Iturria: Elaboración con datos del SEPE y de la TGSS. Ministerio de Empleo y Seguridad Social.
****2016ko datuak behin-behinekoak dira.***

Gastu horretatik eta jasotzaileen zifretatik, urteko 12.558€-ko batez besteko gastua zenbatetsi da, hots, 2015ekoa baino %0,4 gutxiago.

Bestalde, enpresek eta soldatapekoek EEZPrako ordaindutako kotizazio sozialen ziozko sarrerak, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak bilduak EAEn, 1.099,96 milioi eurokoak ziren 2015ean (eskuragarri dugun azken datua), hots, aurreko urtean baino %2,7 gehiago. Hala, EAEn langabeziaren kontingentzia estaltzeko gastuen eta sarreren arteko aldeak, 2015ean, saldo positiboa izan zuen, 278,18 milioi eurokoa. Aurreko urtean, berriz, 25,24 milioi euro ziren.

III.5.2. GRAFIKOA. EAE-KO LANGABEZIAREN ZIOZKO PRESTAZIOEN JASOTZAILEEN KOPURUAREN HILEKO BILAKAERA



Iturria: Geuk egina EEZPren datuekin

III.5.3. GRAFIKOA. EAE-KO LANGABEZIAREN ZIOZKO PRESTAZIOETAKO GASTUAK ETA SARRERAK



Iturria: Geuk egina EEZP eta EUSTATen datuekin

5.3. EZINDUEN ETA BAZTERKETA ARRISKUAN DAUDEN PERTSONEN ENPLEGURAKO ETA GIZARTE-LANEKO INKLUSIORAKO POLITIKAK

Txosten Sozioekonomiko honetan berrikuntza bezala enplegu politiken zifrak aurkezten dira, horiek gizarte eta ekonomia egoerengatik (gizarteak baztertuta edo baztertzeko arriskuarekin) edo desgaitasunen bat izateagatik berdintasun egoeran lan merkatuan sartzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonenak badira. Helburu nagusia enplegu ordaindua eta pertsonaren nahiz gizartearen ikuspegitik pertsona horiek behar dituzten zerbitzuen prestazio egokiak ziurtatzea da eta, aldi berean, lan araubide arruntean integratzeko bitartekoa izan nahi dute. Hori guztia enplegua, hain zuzen ere, pertsonak gizarteratzeko bide nagusia dela onartuta.

5.3.1. Ezinduen enplegu arrunta

Ezinduentzako enplegu babesturako laguntzez gain, betiere Enplegurako Zentro Berezien bidez, LANBIDEk ezinduen enplegua sustatzen du merkatu arruntean, bi laguntza programa mota baliatuz:

III.5.9. TAULA. EZINDUEI LAGUNTZEKO ENPLEGU PROGRAMA EAE-N: KOPURU NAGUSIAK 2013-2015.

	2013	2014	2015
ZENBATEKOA (MILA €)	665,1	673,7	755,9
LAGUNDUTAKO LANGILEAK	44	60	53
JARRAIPENAK	120	143	127

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta gizarte politiketako saila, lanbideren datuekin.

Lehenik eta behin, lan-prestatzaile adituek eskainitako banako laguntza ematean dautza laguntzako enplegu programak, eta horiei esker, zailtasun bereziak dituzten langile ezinduek beren jarduera egin dezakete lan-merkatu arruntean. Hala, beharrezko baliabideak ematen zaizkie langileei laneratze-prozesua errazteko, baita laneratutako ezinduek lanean aurrera egitea eta jarraitzea ere.

2015ean, LANBIDEk 755.864 euro (+%12,2 2014aren aldean) erabili zituen 53 ezinduei lagunteko enpresa arruntetan (60 ezindu 2014an), eta horietatik 33 gizonak ziren eta 20 emakumeak. Gainera, dagoeneko laneratuta dauden 127 langileren jarraipena egin du. Hala, azken hiru urtean (2013-2015), 2 milioi euro erabili dira programa horretarako; 157 ezinduren laneratzea erraztu da eta 390 ezinduren jarraipena egin da.

Bigarrenik, ezinduen enplegu mugagabea sustatzeko programan, 125 ezinduren kontrataziorako diru-laguntza eman zuen 2015ean, horietatik 91 (%72,8) lanaldi osoan eta 34 lanaldi partzialean (%27,2). Hala, 439.501 euro erabili ziren (-%1,3 2014aren aldean), eta horietatik %53,2 71 kontratazioetarako diru-laguntzak emateko erabili ziren Bizkaian, %25,6 Gipuzkoako kontratazioetan eta %21,2 Arabako kontratazioetan (kontrataturiko 22 ezindu).

III.5.10. TAULA. EZINDUEN LAN MUGAGABEA SUSTATZEKO PROGRAMA EAE-N: KOPURU NAGUSIAK 2013-2015.

	2013	2014	2015
ZENBATEKOA (MILA €)	356,3	445,1	439,5
KONTRATATURIKO LANGILEAK	108	141	125
- L. OSOA	71	91	91
- L. PARTZIALA	37	50	34

Iturria: Eusko Jaurlaritza. enplegu eta gizarate politiketako saila. lanbideren datuekin.

Azkenik, aurrekontuko likidazioaren zifrak izan artean, Lanbideren 2016. urterako aurrekontuetan 850.000 eta 500.000 euro bildu ziren, hurrenez hurren, enplegurako jarduketetako laguntza programetan, baina laguntza emanez, ezinduak lan-merkatu arruntean sartzeko, eta langile ezinduei enpresetan kontratu mugagabe egiteko laguntzak emanez.

5.3.2. Enplegu zentro bereziak

Ezinduen eskubideei eta horien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren Testu Bategina onetsi duen azaroaren 29ko 1/2013 EDaren 37.1. artikuluarekin bat etorriz, hauxe da ezinduen enplegu politikaren xedea: "*haien jarduera-tasak eta okupazio-tasak eta laneratzea handitzea, baita enpleguaren kalitatea hobetu eta haien lan-baldintzak hobetzea ere, betiere diskriminazioaren kontra aktiboki jardunda*…"

Arau horren arabera, honi deritzo ezintasuna: "*ustez iraunkorrak diren gabeziak dituzten pertsonek gizartean osorik eta modu eraginkorretan eta gainerakoekiko berdintasunean parte hartzea mugatzen edo galarazten dituzten era guztietako barreren arteko interakzioa".* Euskadin, Administrazioaren konpromisoari eta jarduketa koordinatuari esker, gizarte solaskideek eta ezintasunaren elkartegintzak eta enpresek lan handia egin izan dute azken urteetan araugintzan, programetan eta aurrekontuetan, ezinduak laneratzeko hain zuzen ere. Eta enplegu babestua, enplegu zentro berezien bidez (EZB), oinarrizkoa bihurtu da, zeren eta langile ezinduei ekoizpen-lan ordaindua emateko helburu nagusia duten enpresak baitira. Izan ere, lan hori lagungarria izango da lan-merkatu arrunterako trantsizioa eta integrazioa errazteko.

2015eko abenduan, EAEn 8.629 ezindu (horietatik %56 gizonak ziren eta %35 emakumeak) ari ziren lanean 76 EZBren plantilletan sartuta. Sexuaren araberako banaketa berdina bada ere, talde horretan 615 lagun gehiago zeuden (+%7,7) 2014ko abenduan baino. Lurraldez lurralde, Gipuzkoa da EZBen lanean ari diren ezinduen kopururik handiena duena (guztizkoaren %46), eta ondoren Bizkaia (%41,4) eta Araba (%12,6). Eta ezintasun motaren arabera, talde horren %46,5ek ezintasun psikikoa du, %44k fisikoa eta gainerako %9,5ak zentzumen-ezintasuna du.

III.5.5. GRAFIKOA. EAE-KO EZB-AK MANTENTZEKO LAGUNTZEN BILAKAERA. MILA EUROTAN.



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila

Horrez gain, araudian ezarrita dagoenez, gutxienez enpresako plantillaren %70 ezinduekin osatuta egon behar dute EZBek. EAEn ratio hori %86,8 da, zeren eta beren EZBetan lanean ari diren langile ezinduen guztizko kopurua, 2015ean, 1.308 lagunekoa baitzen.

EAEko EZBei eusteko laguntzei dagokienez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak, orotara, 26,35 milioi euro erabili zituen horretarako (-%27,6 2014aren aldean), eta horietatik %50,3 Bizkaiko 19 EZBri esleitu zitzaien, %39,9 Gipuzkoako 40 EZBri eta funtsen gainerako %9,8a Araban diharduten 17 zentroentzat.

III.5.6. GRAFIKOA. EAE-KO EZB-ETAN LANEAN DIHARDUTEN EZINDUEN BILAKAERA



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila

Halaber, laneratzeko zailtasun handiak dituzten ezinduentzat (buruko paralisia, buruko gaitza, ezintasun intelektuala eta %65eko edo hortik gorako gabezia fisiko aitortua duten pertsonak) diru-laguntzak ematen ditu LANBIDEk EZBetako lanbide-jarduera laguntzeko. Lanbide arlo askotako taldeak dira, pertsona horien barrerak, oztopoak edo zailtasunak gainditzen laguntzeko, betiere gaitasun pertsonalak eta profesionalak eskuratzeko eta etengabe hobetzeko laguntza sistema osoa baliatuz.

III.5.11. TAULA.LANBIDE JARDUEARARI LAGUNTZEKO UNITATEAK EEE-N ETA EAE-N: KOPURU NAGUSIAK 2013-2015.

	2013	2014	2015
ZENBAT (MILA €)	3.794	3.918	4.000
LAGUNDUTAKO LANGILEAK	3.680	3.807	3.952
EEE	35	34	35
LAGUNTZA-UNITATEAK (ADITUAK)	429	444	462

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta gizarate politiketako saila, lanbideren datuekin.

LANBIDEK, 2015ean, 4 milioi euro erabili zituen (+%2,1 2014aren aldean) 3.952 langile ezinduri laguntzeko (+%4,1) EAEko 35 EZBetan, laguntza-unitateetako 462 adituren lanari esker.

5.3.3. Laneratze enpresak

Gizarteratze-enpresak honela defini daitezke: gizarte bazterkeriako egoera paira dezaketen edo pairatzen ari diren pertsonen gizarteratzea eta laneratzea erraztea helburu duten enpresak dira, pertsona horiek lan-merkatura sartzeko zailtasun handiak dituztelako. Azken urteetan, Espainiar Estatuan laneratze enpresei dagokienez, asko sortu dira. Alde batetik, enpresa eratu deneko jarduera ekonomikoa gauzatzea; eta bestetik, gizarte bazterkeriako arriskuan dauden taldeetako pertsonak gizarteratzea eta laneratzea.

III.5.12. TAULA. BILAKAERA DEL PROGRAMA DE AYUDAS A LAS EMPRESAS DE INSERCIÓN DE LA EAE. 2003-2015.

	ERAKUNDEAK	LAGUNTZAK (mila €)	ONURADUNAK
2003	9	1.800	43
2004	21	3.040	90
2005	32	5.170	212
2006	40	7.940	321
2007	48	7.790	423
2008	45	7.130	450
2009	39	7.235	447
2010	42	9.380	525
2011	46	9.610	675
2012	39	7.452	:
2013	40	8.024	:
2014	40	7.340	:
2015	39	7.623	:

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Datuekin Egina. Enplegu Eta Gizarte Politiketako Saila.

Euskadin, Sarrerak Bermatzeari eta Gizarteratzeari buruzko abenduaren 23ko 18/2008 Legean xedatuta dagoenez, lanerako eskubidea ezinbesteko baldintza da herritartasun osoa eskuratu ahal izateko, eta lan-merkatuan hondar-partaidetza ez izateak, ezinbestean, bazterketa prozesua dakar, eta beste eskubide sozial batzuk erabiltzeko zuzeneko ondorioak ditu. Lana gizarteratzeko baliabidea dela onartuta, eta bizitzako oinarrizko beharrei aurre egiteko diru-baliabideak izateko aitortzen diren prestazioekin batera, hauxe ezarri da Legean: herri administrazioek neurriak bideratu behar dituztela beren ezaugarriak direla-eta lan-merkatuan berdintasunean sartzeko zailtasunak izan ditzaketen edo dituzten pertsonak edo taldeak laneratzen laguntzako eta errazteko. Neurri horien artean, laneratze enpresak sortzeko eta eusteko laguntza bildu da[19]. Izan ere, 2002tik eman izan da laguntza hori urte hartan abenduaren 11ko Agindua onetsita, laguntza horiek araupetzen dituena.

Laguntza horien xedea laguntzarako zenbait formula ematea da enpresa mota horiei, beren berezitasunetara eta beharretara egokituta. Hartara, haientzat beren beregi sortutako diru-laguntzak arautzeko oinarriak ezarri dira. Haren esparruan, laneratze enpresak sortzeko erakunde sustatzaileentzako diru-laguntzak eta laneratze enpresei eurei zuzendutako diru-laguntzak aurreikusten dira.

Hala, Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzako sailburuaren 2009ko maiatzaren 4ko AGINDUAREN bidez, laneratze enpresak sortzeko eta horiei eusteko laguntzak arautu dira, gaur egun Lanbideren menpe daudenak, eta 2016rako 8.200.000 euro dituzte eskuragarri.

Tresna horien bidez, Eusko Jaurlaritzak gizarteratze eta laneratze modalitate berezi hori hedatzea sustatu nahi du; haren bidez, pertsona bat, besteren konturako langile, bazkide langile edo laneko bazkide, laneratze enpresa batean sartzea kontratu baten bidez bideratzen da, laneko kontratua lehen kasuan eta sozietatekoa bigarrenean, eta lehenago txertaketarako hitzarmen bat sinatzetik ondorioztatzen da.

2003. urtetik 2015era, laguntza-mota horien bidez, Eusko Jaurlaritzak 90 milioi euro baino gehiago banatu zituen, batez beste, 37 laguntza urtean, 3.000 onuradun baino gehiago izan zirela. 2015ean (informazioa dugun azken urtea) 39

[19] *18/2008 Legean laneratze enpresen inguruan ezarritako arauei dagokienez, ikusi azaroaren 11ko 182/2008 Dekretua, laneratze enpresen kalifikazioa arautu duena, eta Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzako sailburuaren 2009ko maiatzaren 4ko Agindua, 2002ko abenduaren 11ko Agindua aldatu duena.*

laneratze enpresentzako laguntzak eman ziren, eta horien zenbatekoa, guztira, 7,62 milioi (emandako 8,2 milioiak baino gutxiago) euro izan zen, aurreko urtean baino %3,9 gehiago.

Eusko Jaurlaritzaren Laneratze Enpresen Erregistroak erakusten duenez, 2016ko amaieran EAEk 46 laneratze enpresa zituen martxan. Horiek guztiek GIZATEA elkartean hartzen dute parte (EAEko Laneratze Enpresen Elkartea), eta horien 2015eko Memoria Sozialetik datu hauek atera daitezke: aurten, 1.122 langile dituzte, eta horietatik 636 (%57) laneratze langileak dira. Enplegu hori lanaldi osoko 637 lanposturi dagokie (horietatik 387 laneratzekoak). Aurten, gutxi gorabehera 28 milioi euroko sarrerak dituzte, eta horietatik 20 jardueraren ziozko fakturazioari dagokio eta gainerako 8 laguntza publikoei.

Laneratze prozesuaren emaitzari dagokionez, GIZATEA Memoriak erakusten duenez laneratze prozesuan zeuden 636 lagunetatik 440k (%69) laneratze prozesuan jarraitzen zuten urtearen bukaeran, 15 lagunek (%2) prozesua utzita zuen bukatu baino lehen, 57k (%9) laneratze kontratua bukatu zuten eta 124k (%19) laneratze prozesua bukatu zuten. Eta 124 lagun horietatik %55 lan-merkatuan sartu ziren (60 lanpostu inoren kontura, 5 norberaren konturakoak eta 3 beste laneratze enpresa batzuetan). Gainerako %45a (56 lagun) langabezian gelditu ziren.

6. LAN OSASUNA

OSALANek (Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea) agerian utzi duenez, 2016ean 36,01 istripu izan ziren (lan-egunetan baja eragin duten istripu berriak, hain zuzen ere 1.000 langileko istripu kopuruaren eta berariaz laneko istripuen kontingentzia estalia duten Gizarte Segurantzako afiliatuen kopuruaren arteko zatiduraren bidez kalkulatzen den kopurua) gure Erkidegoan milako (37,13 milako 2015ean eta, beraz, berdin eusten zaio ratioari, +0,98 punturekin).

Sektore bakoitzari erreparatuta, eraikuntzan izan zen intzidentziarik handiena (80,78 milako), 2,87 puntu hazi baitzen 2015aren aldean. Ondoren lehen sektorea zegoen, 76,87 milako (+3,38 2015aren aldean) eta industria, 63,93 milako, 3,52 puntu hazita 2015aren aldean. Azkenik, zerbitzuen intzidentzia batez bestekoaren azpitik zegoen, 26,59 milako (+0,28 puntu).

Autonomia erkidegoei dagokienez, Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioak kalkulatzen duen lanaldiko istripuen intzidentziaren indizeak erakusten duenez, U. Balearrak ziren rankingeko buruan istripuetan 2016an, eta ondoren Gaztela-Mantxa zegoen. EAEren indizea 34,38koa zen milako, eta %0,9 egin zuen gora bere indizeak. Hala, Estatuko batez bestekoaren gainetik zegoen kopuru absolutuetan; industriaren sektoreak duen pisu handiak eragin zezakeen intzidentzia hori. Portzentajetan, estatuko aldakuntza urte horretan EAEn baino handiagoa zen, %1,5ekoa.

III.6.1. TAULA. LANEKO SEKTOREEN INTZDENTZIA JARDUERA-SEKTOREEN ETA LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA. KONTINGENTZIA ESTALITA DUTEN MILA AFILIATU BAKOITZEKO DATUAK. 2015-2016.

	2015				
	LEHEN SEKT.	INDUSTRIA	ERAIKUNTZA	ZERBIT.	GUZT.
ARABA	34,64	58,08	77,45	29,85	39,14
BIZKAIA	95,89	63,17	76,04	26,35	36,91
GIPUZKOA	77,08	58,60	82,72	24,48	34,91
EAE	73,49	60,41	78,08	26,31	36,15
	2016				
	LEHEN SEKT.	INDUSTRIA	ERAIKUNTZA	ZERBIT.	GUZT.
ARABA	51,44	58,61	88,80	30,13	40,22
BIZKAIA	96,05	68,22	82,36	27,34	37,74
GIPUZKOA	71,99	62,31	73,77	23,60	34,51
EAE	76,87	63,93	80,78	26,59	37,13
	2015-2016 ALDAK. P.P.				
	LEHEN SEKT.	INDUSTRIA	ERAIKUNTZA	ZERBIT.	GUZT.
ARABA	16,8	0,53	11,35	0,28	1,08
BIZKAIA	0,16	5,05	6,32	0,99	0,83
GIPUZKOA	-5,09	3,71	-8,95	-0,88	-0,4
EAE	3,38	3,52	2,7	0,28	0,98

Iturria: OSALAN. EUSKO JAURLARITZA.

III.6.2. TAULA. LANALDIAN BAJA ERAGIN DUTEN ISTRIPUEN INTZIDENTZIAREN INDIZEA, AUTONOMIA ERKIDEGOEN ARABERA, MILAKO DATUAK.

	2013	2014	2015	2016*	Ald. p.p. 15/16	Ald % 15/16
ESTATUA	30,09	31,11	32,52	33,02	0,50	1,5
ANDALUZIA	33,59	34,67	36,54	37,24	0,70	1,9
ARAGOI	26,95	27,40	30,01	31,18	1,17	3,9
ASTURIAS	35,22	36,69	37,29	34,84	-2,45	-6,6
U. BALEARRAK	40,70	43,57	45,71	48,29	2,58	5,6
U. KANARIARRAK	34,16	35,87	36,08	36,53	0,45	1,2
KANTABRIA	26,58	28,47	29,80	29,97	0,17	0,6
GAZTELA-MANTXA	35,25	36,96	38,96	41,03	2,07	5,3
GAZTELA ETA LEON	27,83	29,36	30,85	32,25	1,40	4,5
KATALUNIA	29,92	31,17	31,92	31,97	0,05	0,2
VALENTZIAKO E.	27,23	27,29	29,07	29,74	0,67	2,3
EXTREMADURA	30,85	33,94	35,77	35,73	-0,04	-0,1
GALIZIA	29,57	30,95	32,69	31,89	-0,80	-2,4
MADRIL	25,75	26,03	26,88	27,34	0,46	1,7
MURTZIA	29,73	31,11	34,13	34,38	0,25	0,7
NAFARROA	28,77	30,73	31,85	34,02	2,17	6,8
EAE	**32,44**	**32,44**	**34,09**	**34,38**	**0,29**	**0,9**
- ARABA	34,53	36,09	36,34	36,67	0,33	0,9
- GIPUZKOA	32,32	31,71	33,00	32,04	-0,96	-2,9
- BIZKAIA	31,80	31,67	34,01	35,08	1,07	3,1
ERRIOXA	29,68	30,50	34,04	35,32	1,28	3,8
CEUTA	29,36	35,17	39,88	33,26	-6,62	-16,6
MELILLA	29,20	29,22	28,09	33,47	5,38	19,2

Iturria: enplegu eta gizrte politiketako ministerioa, laneko istripuei buruzko estatistikak.
(*) avance de datos.

Bestalde, kontratu motaren araberako lan istripuen datuek erakusten dutenez, lan ezbeharren kopurua handiagoa zen aldi baterako kontratua zuten pertsonen artean kontratu mugagabea zutenen artean baino. Hala erakusten dute Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioaren 2015eko datuek. Zehazki, kontratu mugagabea zutenen istripu kopurua 29,8koa izan zen mila soldatapeko bakoitzeko (EPAren lan serieak erabiliz); aldi baterako lan-kontratua dutenen artean, berriz, 45ekoa izan zen milako. Istripuen banaketa zein den jakin beharko litzateke sektoreen, adinaren eta okupazio motaren arabera, behin betiko ondorioak atera ahal izateko. Baina ikuspegi dinamikoan, nabarmentzekoa da 2009an 26,4koa zela istripuen indizea 1.000 soldatako bakoitzeko, kontratu mugagabea eta aldi baterakoa zuten langileen artean. 2015ean, berriz, 15,2ra murriztu zen.

III.6.1. GRAFIKOA. EAE-KO LAN ISTRIPUAK KONTRATU MOTAREN ARABERA: ISTRIPUAK 1.000 SOLDATAPEKO BAKOITZEKO



Iturria: Geuk egina EINen(EPA) eta Enplegu Ministerioaren datuekin

Datu absolutuei helduta, 2016an 31.602 lan istripu izan ziren EAEn, 2015ean baino %4,6 gehiago (lan istripuagatik baja hartu behar izan duten langileen kopurua aintzat hartuta, lanaldian eta "in itinere" izandako istripuak barne). Estatu mailan, berriz, %5eko igoera izan zen, Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioaren arabera (+%5,7 aurreko urtean). Bilakaera hori ikusita, berretsi egiten da 2014an hasitako aldaketa (+%0,5), gure Erkidegoan 2009az gero gertatzen ari zen jaitsieraren ondotik. Hala, bajarik eragin ez zuten 51.675 istripu izan ziren 2016an (+%1,7 2015aren aldean) eta guztira 1.739 berrerortze, aurretik baja eragin zuten istripuekiko (+%5,4).

III.6.3. TAULA. LANEKO OSASUNA EAE-N: BAJA ERAGIN DUTEN ISTRIPUEN ERAGINPEKO LANGILEAK

	ISTRIPUAK LANALDIAN								IN ITINERE ISTRIPUAK	ISTRIPUAK GUZTIRA	LANB. GAIX.
	GUZTIRA	LARRITASUNA			SEKTOREA						
		ARINAK	LARRIAK	HERIOTZAK	NEKAZA-RITZA	INDUS-TRIA	ERAI KUNTZA	ZERBITZUAK			
2012	25.615	25.424	159	32	616	9.322	3.143	12.534	3.326	28.941	945
2013	24.611	24.445	138	28	574	8.611	2.562	12.864	3.349	27.960	777
2014	24.816	24.651	137	28	639	8.792	2.527	12.858	3.279	28.095	895
2015	26.641	26.460	153	28	629	9.094	2.555	14.333	3.580	30.221	999
2016	28.090	27.918	138	34	673	9.861	2.640	14.916	3.512	31.602	1.145
% ald. 14/15	7,3	7,7	11,7	0,0	3,1	3,4	1,1	11,5	9,2	7,6	11,6
% ald. 15/16	5,4	5,5	-9,8	21,4	7,0	8,4	3,3	4,1	-1,9	4,6	14,6

Iturria: OSALAN.

Lanaldian istripua izan dutenak ardatz hartuta ikusten denez (28.090, 2015ean baino %5,43 gehiago), %73,7 gizonak ziren eta %26,3 emakumeak, 2015eko antzeko banaketa alegia. Horrez gain, azken urtean gora egin zuten istripu arinek, %5,5, eta bereziki heriotzak izan direnekoetan (+%21,4). Istripu arinen kopuruak, berriz, %9,8 egin zuen behera. Gainera, sektoreen gaineko azterketak erakusten duenez, gora egin zuen istripuen kopuruak, bereziki garrantzitsua industriaren sektorean (%8,4ko) eta, neurri txikiagoan, lehen sektorean (+%7) eta zerbitzuen sektorean (+%4,1). Eraikuntza da gutxien hazi den sektorea, %3,3 hain zuzen.

Azkenik, 2016an, orotara, 1.145 gaixotasun profesional aitortu ziren, 2015ean baino %14,6 gehiago. Honelaxe banantzen dira: bajarekin 1.145 eta bajarik gabe 1.596. Horietatik, %34 emakumeei dagozkie (931) eta %66 gizonei (1.810). Eritasun profesional moten arabera, %89,2 agente fisikoek eragindakoak dira (2.446), eta ondoren larruazalaren gaitzek, %4,2arekin (114). Azken urteetan izandako bilakaeraren azterlana baldintzatu du jakinarazpenetarako sisteman izandako aldaketak sartzeak eta, beraz, kontuz hartu behar dira kopuruak.

7. LABURPENA ETA ONDORIOAK

7.1. LABURPENA

Lehenik eta behin, EUSTATen BJAren 2016ko laugarren hiruhilekoko datuei buruzko datuek erakusten dutenez enpleguaren hazkundea %0,9 da (+8.100 lanpostu, horietatik %67,9 emakumeenak, zeren eta, 2015ean bezala, emakumeen enplegua batez bestekoaren gainetik handitu baitzen, +%1,3, eta gizonena, berriz, +%0,6. Enpleguaren gehikuntza horren oinarria, lehenik eta behin, zerbitzuen sektorea da, 5.900 lanpostu gehiago izan baititu (+0,9) eta, arestian esana dugunez, emakumeen artean, 7.000 lanpostu gehiagorekin. Gizonen tasan, berriz, 1.200 lanpostuko murriztapena dago.

EAEko lan-merkatuaren inguruan aintzat hartu beharreko beste ezaugarri bat lanaldi partzialeko langileen portzentajearen jaitsiera da; izan ere, puntu erdi jaitsia da, %17,7raino, eta behin-behinekotasuna ere: hori ere puntu erdi jaitsi da, hots, soldatapekoen %23,9tik %23,4ra. Hala ere, Estatukoak baino ratio handiagoak dira.

Bestalde, Gizarte Segurantzako kotizatzaileen batez besteko kopurua, 2016ko abenduan (ikus kapitulu honetako 1 orri-oinean), 925.291 zen, eta horietatik %47 emakumeak ziren eta %53 gizonak. Hala, %1,9 egin du gora aurreko urteko hilearen aldean (+%3,1 batez beste Estatuan), eta guztira 17.326 afiliatu gehiago daude alta emanda, hain zuzen ere 2015ean izandako igoerari gehituta (%2,3koa izan zen).

Ekoizpen-adarrik gehienen bilakaera positiboa izan da, hauexetan izan ezik: Lehen sektorean (-%1,8), erauzketa-industrietan (%2,3ko jaitsiera) eta finantza- eta aseguru-jardueretan (-%4,1), inmobiliarietan (-%6,4), etxeko lanetan (-%4,1) eta beste zerbitzu batzuetan (-%0,3). Manukfatura-industria da afiliazioan pisurik handiena du (guztizkoaren %19,1), eta 2003 eta 2014 urte bitartean 8.000 afiliatu gutxiago izan ondoren, pixka bat handitu egin da batez bestekoaren gainetik 2016an (+%2), eta 3.353 afiliatu bildu ditu, gehi 2015ean irabazitako 1.462 pertsona (+4.815 biurtekoan. Zerbitzuen sektorean, bestalde, batez bestekotik gora igo da afiliazioa, %2,1 hain zuzen, eta ondorioz, 13.131 afiliatu berri daude sektorean. Gainera, adar guztietan izan dira igoerak, aipaturiko finantzan eta higiezinen arloko jardueretan izan ezik. Afiliaziorik handiena biltzen duen zerbitzuen adarra den merkataritzan (guztizkoaren %15,6), urte arteko %1,1eko hazkundea izan zen (1.496 afiliatu gehiago). Pisu nabarmena duten beste jarduera batzuetan, hala nola osasunean, hezkuntzan eta ostalaritzan, batez bestekotik gorako urte arteko tasak bildu ziren (afiliazioan %3,6, %3,4 eta %2,8ko hazkundeekin hurrenez hurren.

Kontratazioa ere handitu da 2016an aurreko urtearen aldean +%6,8), eta 2014ko eta 2015eko joera positiboari eutsi zaio. Hona hemen 2016an gehien kontratatu diren jarduerak: ostalaritza (hasierako kontratuen %15,9, 2015ean baino %11,6 gehiago), manufaktura-industria (kontratuen %15,9, %5 hazita), administrazio jarduerak eta zerbitzu osagarriak, horien artean ALEak (hasierako kontratu guztien %12,8, 2015ean baino %11,3 gehiago), osasun eta gizarte zerbitzuetako jarduerak (kontratuen %12,3 eta +%9,2 2014aren aldean) eta merkataritza (guztizkoaren %11 eta +%5,2 aurreko urtearen aldean). Aldea ikusten da sexuen arabera; izan ere, gizoneko izenpeturiko lau kontratuetako bat hartzen du manufaktura-industriak (guztizkoaren %24,3, 2015eko ratio bera). Emakumeen artean, berriz, osasun jarduerak eta ostalaritza dira jarduerarik handieneko atalak (bien artean kontratu berrien %38,8 hartzen dute. Estatuan, bestalde, guztira 19,9 milioi kontratu erregistratu ziren 2016an, 2015ean baino %7,5.

2016an, hirugarren urtez jarraian egin zuen behera EAEn langabezian zeuden pertsonen kopuruak (lau hiruhileko), sei urtez (2008. urtetik) Euskadin langabezia etengabe hazi ondoren. Zehazki, eginiko zenbatespenen arabera, 2016ko amaieran 129.300 langabetu zeuden, aurreko urtean baino %16,5 gutxiago (-25.500 lagun), eta horietatik 66.100 gizonezkoak ziren eta 63.200 emakumeak. 2015ean, langabeziaren beherakada orokorra, baina nagusiki gizonena, zeren eta langabetuen kopurua %21,9 jaitsita baita (18.500 langabetu gutxiago); emakumeena, berriz %10 gutxitu da (-7.000 emakume langabetu). Bilakaera horren ondorioz, 2016. urtearen amaieran, sexuen araberako langabezia-tasetan 6 hamarreneko aldea dago: %12,2 gizonentzat eta %12,8 emakumeentzat (%12,5 batez beste, ikusi dugunez); 2015eko amaieran, emakumeen tasa gizonena baino puntu bat txikiagoa zen (%14,2 eta %15,2 hurrenez hurren).

Adin-taldeen arabera, 2016an gizonek nahiz emakumeek sinaturiko kontratu berri gehienak 25-45 urte bitarteko adin-tarteari dagozkio (kontratuen %58,4), 25-35 urte arteko eta 35-45 urte arteko adinetan banaturik, %30,9 eta %27,5 izanik hurrenez hurren.25 urtetik behera, kontratuen %16,4 sinatu dira, biztanleria aktiboan duen pisua baino handiagoa, %3,7koa baita. 2015aren aldean izandako bilakaerari dagokionez, adin-talde guztietan izan dira igoerak kontratuetan, 25 eta 35 urte bitarteko adin-tartean izan ezik eta, zehazki, gizonen artean (emakumeen aldetik, bilakaera positiboa da adin guztietan.

Ikasketa mailaren araberako kontratazioaren banaketari dagokionez, hamar kontratuetatik ia sei (%58,1) bigarren mailako ikasketak dituzten pertsonek izenpetzen dituzte, gehienak hezkuntza orokorreko maila dutenak, gizonetan (kontratuen %46,3) nahiz emakumeen artean (%44,7). Bigarrenik, kontratuen %16,1 oinarrizko ikasketak dituzten pertsonei dagozkie, eta gehienek ikasketa osoak dituzte. Ondoren, %12 unibertsitate ikasketak dituzten pertsonei dagokie, gehienak bigarren eta hirugarren ziklokoak. Bestalde, kontratazioaren gehikuntzarik handienak oinarrizko hezkuntzako mailei dagozkie (+%23,3 2015aren aldean eta %24,6raino maila hori amaituta dutenentzat).

Lanaldi motari dagokionez, bilakaera positiboa dugu lanaldi partzialeko kontratuetan (guztira 371.732 EAEn, +%8,6 2015aren aldean), kontratu guztien %40,1 izanik, nahiz lanaldi osoko kontratuetan, guztira 552.375, %5,6 hazita (kontratuen %59,6). Gainerako %0,3a lanaldi eteneko 2.492 kontratuei dagokie. Sexuaren arabera, lanaldi partzialeko kontratazioaren pisua oso desberdina da, zeren eta emakumeek sinaturiko kontratuen erditik gorakoa baita (%53,1 2016an). Gizonekoek sinaturiko kontratuak, berriz, %26,8 dira

Kontratuen iraupenari dagokionez, 2016an sinaturiko guztietatik 65.530 mugagabeak izan ziren, hots, %7,1 (2015ean baino 2 hamarren gehiago). Kontratu mugagabe horien tasa %2,4 jaitsi da 2012 eta 2016 artean (%9,5etik %7,1era), baina hobetu egin da 2014az gero. Txandaketa (sinaturiko kontratuen kopuruaren eta kontrataturiko pertsonen kopuruaren arteko zatidura) 3,26 izan zen, 2015ean baino 8 ehunen gehiago. Aldi baterako kontratuen batez besteko iraupenari dagokionez, 48 egunekoa izan zen (2015eko datu bera), estatuko batez besteko 50 egunen aldean, non aurreko datua 4 egunetan txikitu den aurreko urtearen aldean.

Bilakaera horren ondorioz, 2016. urtearen amaieran, sexuen araberako langabezia-tasetan 6 hamarreneko aldea dago: %12,2 gizonentzat eta %12,8 emakumeentzat (%12,5 batez beste, ikusi dugunez); 2015eko amaieran, emakumeen tasa gizonena baino puntu bat txikiagoa zen (%14,2 eta %15,2 hurrenez hurren). Europar Batasunean, askotarikoak dira langabeziak dituen balioak: %20tik gorakoak, Espainian (%19) eta Grezian (%22,8), eta %6tik beherakoak, Txekiar Errepublikan, Alemanian, Herbeheretan eta Erresuma Batuan. AEBetan, %4,7ko langabezia-tasa zegoen 2016ko amaieran, Japonian %3,1 eta Frantziak, Irlandak eta Letoniak EBko batez bestekoaren antzeko zifrak zituzten, zenbait adibide aipatzearren.

2015ean, hirugarren urtez jarraian egin zuen behera EAEn langabezian zeuden pertsonen kopuruak (lau hiruhileko), sei urtez (2008. urtetik) Euskadin langabezia etengabe hazi ondoren. Zehazki, eginiko zenbatespenen arabera, 2016ko amaieran 129.300 langabetu zeuden, aurreko urtean baino %16,5 gutxiago (-25.500 lagun), eta horietatik 66.100 gizonezkoak ziren eta 63.200 emakumeak. 2015ean, langabeziaren beherakada orokorra, baina nagusiki gizonena, zeren eta langabetuen kopurua %21,9 jaitsita baita (18.500 langabetu gutxiago) ; emakumeena, berriz %10 gutxitu da (-7.000 emakume langabetu. Bilakaera horren ondorioz, 2016. urtearen amaieran, sexuen araberako langabezia-tasetan 6 hamarreneko aldea dago: %12,2 gizonentzat eta %12,8 emakumeentzat.

Adinen arabera, langabetuen kopuruak behera egin du horietan guztietan eta, bereziki gazteenetan (-%38,2 25 urtetik beherakoetan eta -%19,8 25 eta 44 urtekoen bitarteko taldean), baina 44 urtetik gorakoen artean ere bai (-%4,6), 2015ean gertatu ez bezala. Horren ondorioz, adin-talde horretako langabezia-tasan 7 hamarreneko jaitsiera dago, %10,3raino, %12,5eko batez bestekoaren azpitik oraindik. Gazteenen adin-taldean, berriz, txikitu egin da, baina batez bestekoaren gainetik betiere: %13,8 25 eta 44 urte bitartekoentzat eta %24,8 gazteenentzat, eta langabezian daude 16-24 urte bitarteko 9.400 gazte aktibo.

Halaber, 2016ko bukaeran, BJAk zenbatetsitakoen oso antzeko zifrak bildu zituen LANBIDEk langabeziaren inguruan, estatistika-eragiketa horretan berriki sartu ziren metodologia aldaketaren ondoren. 2016ko abenduan, 136.173 langabetu zeuden erregistraturik LANBIDEn, 2015ean baino 13.844 gutxiago (%9,2 gutxiago aurreko urtearen aldean, eta Estatuan batez besteko -%9,5eko jaitsiera izanik), EUSTATen Biztanleriaren Inkestak urteko azken hiruhilekoan Jarduerarekin Erlazionatuta zenbatetsitako 129.300 langabetuen aldean. Krisia hasi zenetik laugarren urtez jarraian gertatu da erregistraturiko langabeziaren urte arteko saldo negatiboa, eta gainera, 2015ean bezala, langabezia bi sexuetan murriztu dela ikusten da. Bereziki gizonen artean (-%11,4), baina emakumeen artean ere bai (-%7,3), betiere -%9,2ko batez bestekoaren gainetik.

Adinaren araberako azterketan antzeko zerbait gertatzen da, zeren eta 2015eko abenduaren eta 2016ko abenduaren artean adin guztietan jaitsi baita erregistraturiko langabezia (salbuespen batekin: jaitsiera txikiak izan dira 19 urtetik beherako pertsonen artean eta 59 urtetik gorakoen artean, III.1.7. grafikoan ageri denez). Talde handien arabera, langabezia are gehiago jaitsi da 25 eta 44 urte bitartekoen artean (-%12,9), batez ere gizonen artean (-%15,8, talde horretako emakumeena, berriz, -%10,4), eta ondoren 45 urte eta gehiagokoen taldea (-%6,1) eta 25 urtetik beherakoena.

Ikasketa mailaren arabera, erregistraturiko langabeziak behera egin du, 2015aren aldean, maila guztietan eta sexu bietan. Jaitsierarik handienak, batez bestekoaren gainetik, DBH ondoko ikasketak dituzten pertsonen artean dago, bereziki lehen zikloko unibertsitateko ikasketak dituztenena (-%13,9) eta goi-mailako teknikari profesionalena (-%11,5) eta, neurri txikiagoan, bigarren eta hirugarren zikloko ikasketak dituztenena (-%9,5). Bigarren mailako ikasketetako jaitsiera ere batez bestekoaren gainetik dago (-%10,5 LHko titulua dutenentzat eta -%9,6 hezkuntza orokorreko ikasketak dituztenentzat. Oinarrizko ikasketak dituzten pertsonen langabezia ere jaitsi da, baina batez bestekoaren azpitik (-%7). Jokabide hori antzekoa da bi sexuetan. Hala ere, langabetuen talderik handiena hezkuntza orokorreko titulua zuten pertsonen artean kokatzen zen (erregistraturiko pertsona guztien %49,3) eta, oinarrizko ikasketak dituztenak gehituz gero (%21,4), langabetuen % 70,7 ziren (gizonezkoen %74,8 eta emakumezkoen %67,3).

Langabezian daramaten denbora kontuan hartuz gero, 2016an behera egin zuen langabetuen kopuruak kategoria guztietan, langabezian hilabetetik beherako denbora daramatenena izan ezik. Badago datu positiborik ere: gehien txikitu den langabetu-taldea langabezian denbora gehien daramatenei dagokiena da, 25 urtetik beherakoetan nahiz adin horretatik gorakoetan, bai gizonetan, bai emakumeetan.

Baldin eta erregistraturiko langabezia guztia %9,2 jaitsi arren, langabezian hilabetetik behera daramaten pertsonen guztizkoak (III.1.17 taulan 25 urtetik beherakoen eta gorakoen banakapena ageri da) %6,9 egin du gora. Alabaina, 1-6 hilabete daramatzatenetan %8,9ko jaitsiera dago, %12,4koa da 6 hilabete eta urte bitarteko denbora daramanetan (batez bestekoaren gainetik) eta %10,7 langabezian urtebetetik gora egin dutenena (beraz, horretan ere batez bestekoaren gainetik).Gauzak horrela, iraupen luzeko langabezia-tasa (egoera horretan urtebetetik gorako denbora daramaten langabetuen portzentajea) %52,4koa zen 2016ko abenduan, 2015eko abenduan baino %0,9 gutxiago. Ratio hori %47,6 zen gizonen artean (-0,8 puntu) eta %56,5ekoa emakumeen artean (-1,1 puntu).

Lan-merkatuaren egoera horretan, politika aktiboak, langabetuek lana eskuratzea lor dezaten eta landunen enpleguari eusteko eta lanbidean promozionatu ahal izateko; politika pasiboak, berriz, langabetuen babes ekonomikora bideratuta, eta bazterketa arriskuan daudelako edo ezintasunaren bat dutelako arreta berezia behar duten pertsonentzako bestelako politika guztiak.

Lehenbizikoei dagokienez, Eusko Jaurlaritzak Enplegu Estrategia berria egin zuen 2016an, 2020rako. Berau egiteko, aurreko estrategiaren (2011-2014) ex post ebaluazioa izan da kontuan. Ebaluaturiko 16 jarraibideetatik, 4tan betetze maila txikia izan da (bereziki enplegurako baliabideen eta zerbitzuen hobekuntzari eta enpresen lehiakortasunari dagokienez), 8tan ertain-txikia (batik bat gazteen enplegua sustatzeari eta gizarte eta lurralde kohesioa indartzeari dagokionez), 2k ertain-altua, eta beste 2k betetze maila ertaina (4ak ekintzailetza sustatzearen eta kualifikazioa hobetzearen aldetik).

Halaber, Eusko Jaurlaritzak 2014-2016 aldirako Enplegu Plana du, funtsean egoera okerrenean dauden pertsonen enplegua eta laneratzea indartzeko eta, bereziki gazteenak. Hartara, ekintzailetzat eta enpresa txiki eta ertainentzako laguntza bideratuko da. Era berean, inbertsioa pribatua piztu nahi du enpleguan zuzeneko eragina duten obretan eta proiektuetan eta, aldi berean, lankidetza instituzionala eta lankidetza publiko-pribatua sustatzen da enplegu mailaren beherakada zelanbait arintzeko.

Bestalde, LANBIDEK funtsezko eginkizuna du eratxikia EAEko enplegurako politika aktiboak garatzeko eta Enplegu Plana abiarazteko, zeren eta haren funtzioak lan jarduera (enplegua sustatzeko programekin, bitartekaritzarekin, orientazioarekin, etab.) eta enplegurako prestakuntza baitira, landunena nahiz langabetuena, baita Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta eta beste prestazio osagarri batzuk kudeatzea ere.

Aurrekontuko likidazioak oinarri hartuta (obligazio aintzatetsiak), jakin badakigu 2015ean 819,35 milioi euroko gastua izan zuela, 2014an baino %5,5 gehiago, eta horietatik 498,6 milioi, gastu guztien %60,9, Gizarteratze Programarako erabili ziren (2014an baino %3,5 gehiago), 200,4 milioi euro (guztizkoaren %24,5) Enplegu Programarako (2014an baino %10,6 gehiago) eta 105,2 milioi (gastuaren %12,8) Prestakuntza Programarako (+%6,3 2014koaren aldean. Hortaz, eta nahiz eta sinplifikazioa izan daitekeen enplegurako politiketako gastua prestakuntzako eta enplegurako programen baturatzat hartze, gizarteratzearekiko berezko erlazioa duenez gero, LANBIDEk 2015ean enplegurako politika aktiboetan 305,6 milioi euroko gastua izan zuen, 2014an baino %9,1 gehiago. 2013 eta 2014 urte bitartean, berriz, %6,1eko murriztapen izan zen.

Ogasun eta Administrazio Publikoen Ministerioak autonomia erkidegoek “enplegua sustatzeko” eginiko gastua zein den jakitea ahalbidetzen du lurraldeko estatistika datuak oinarri hartuta, haien aurrekontuko likidazioek dakartzaten partida orokor gisa. Informazio horren arabera, 2014. urtean (eskuragarri dugun azken datua), Euskadik 319,79 milioi euro erabili zituen prestakuntza, orientazio eta laneratze programetarako, 2013an baino %0,6 gutxiago. Zifra hori nahikoa hurbil dago (ez da berdina) LANBIDEk prestakuntza eta enpleguko programetan urte horretarako zituen kontuen 280,235 milioi euroko gastutik, 2013an baino %6,1 gutxiago hain zuzen. Langabetu bakoitzeko gastua murriztu egin zen 2014an 2013aren aldean, %1,5 hain zuzen.

Enplegurako politika pasiboei dagokienez, langabeziaren ziozko prestazioetarako guztizko gastua, 2016an, eta behin-behineko datuen arabera, 699,178 milioi euro da, hots, 2015ean baino %14,9 gutxiago. Zenbateko hori EAEren BPGaren %0,98 da (%1,19 aurreko urtean), Estatuko langabeziaren ziozko gastu osoaren %3,73, non 18.746 milioi eurotik gorako gastua bildu baitzen (-%9,3 2015aren aldean).

2016ko abenduko langabeziaren ziozko prestazioen 51.222 onuradunek kotizaziopeko prestazioak jasotzen zituzten (29.081 lagun), subisidioen %37 (18.973), %6,1ek Gizarteratze Errenta Aktiboa jasotzen zuen (3.125) eta gainerako %0,1ek, 43 lagunek, Enplegurako Aktibazio Programaren prestazioa jasotzen zuten. Estatuan, hile berean, 1,98 milioi onuradun erregistratu ziren (-%7 2015eko abenduaren aldean), eta kotizaziopeko prestazioaren onuradunen ratioa %39,3 zen, %48,7koa subsidioetarako eta %10,9 gizarteratze errenta aktiborako. Gainera, %1,1ek Enplegurako Aktibazio Programaren prestazioa jaso zuen. Erregistraturiko langabeziaren datuak kontuan izanda, esan daiteke 2016ko abenduan, EAEko 100 langabetuetatik, 62k ez zuten prestaziorik jasotzen (61ek 2015ean), eta hori jasotzen zutenetatik 21ek kotizaziopeko prestazioa jasotzen zuten, 14k subsidioa eta 3k Laneratze Errenta Aktiboa.

Kopuru horiekin, Estatuko batez besteko estaldura %56,6koa zen (2015eko abenduan baino %1,4 gehiago), eta hori baino txikiagoa da EAEkoa (lehenago hile horretan erregistraturiko langabetuen %42,4, Enplegu eta Gizarte Segurantzaren Ministerioak darabilen metodologiaren arabera). Horren ondorioz, autonomia erkidego guztietako langabezia estaldura-tasarik txikiena du EAEk, Ceuta eta Melilla alde batera utzita. Beraz, 2015ean bezala, 2016an langabezia tasa txikiagoekin batera, lanik gabe daudenen aringarri, aldi berean gora egin du babesik ezak langabeziarako babes sistemaren aldetik.

Memoria Sozioekonomiko honen berrikuntza legez, inguruabar sozialengatik eta ekonomikoengatik (gizarte bazterketako egoeran edo arriskuan) edo ezintasunen bat izateagatik lan-merkatuan berdintasunean sartzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonentzako enplegu politikaren zifrak emango dira. Helburu nagusia ordaindutako lana eta pertsona horiek behar dituzten doikuntza pertsonal eta sozialeko zerbitzuetako prestazioak ematea da eta, aldi berean, lan-araubide arruntean sartzeko bidea izan nahi da. Hori guztia honako hau onartuta: lana dela, hain zuzen ere, pertsonak gizarteratzeko bide nagusia.

Lehenik eta behin, 2015eko abenduan, EAEn 8.629 ezindu (horietatik %56 gizonak ziren eta %35 emakumeak) ari ziren lanean 76 EZBren plantilletan sartuta. Sexuaren araberako banaketa berdina bada ere, talde horretan 615 lagun gehiago zeuden (+%7,7) 2014ko abenduan baino. Lurraldez lurralde, Gipuzkoa da EZBen lanean ari diren ezinduen kopururik handiena (guztizkoaren %46), eta ondoren Bizkaia (%41,4) eta Araba (%12,6). EAEko EZBei eusteko laguntzei dagokienez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak, orotara, 26,35 milioi euro erabili zituen horretarako (-%27,6 2014aren aldean. Halaber, LANBIDEK, 2015ean, 4 milioi euro erabili zituen 2015ean (+%2,1 2014aren aldean) 3.952 langile ezinduri laguntzeko, laguntza-unitateetako 462 adituren lanari esker.

Bigarrenik, Eusko Jaurlaritzak gizarteratze-laneratzearen zabalkuntza sustatzen du laneratze enpresen bidez, bai inoren kontura lan egiten duen langile gisa, bai bazkide langile edo laneko bazkide gisa, eta horretarako, kontratua gauzatzen da, lan-kontratua lehenengo kasuan eta sozietate-kontratua bigarrenean, hain zuzen aurretik laneratze hitzarmena sinatuaren ondorioz. 2003. urtetik 2015era, laguntza-mota horien bidez, Eusko Jaurlaritzak 90 milioi euro baino gehiago banatu zituen, batez beste, 37 laguntza urtean, 3.000 onuradun baino gehiago izan zirela. 2015ean (informazioa dugun azken urtea) 39 laneratze enpresentzako laguntzak eman ziren, eta horien zenbatekoa, guztira, 7,62 milioi (emandako 8,2 milioiak baino gutxiago) euro izan zen, aurreko urtean baino %3,9 gehiago.

Bestalde, OSALANek (Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea) agerian utzi duenez, 2016ean 36,01 istripu izan ziren (lan-egunetan baja eragin duten istripu berriak, hain zuzen ere 1.000 langileko istripu kopuruaren eta berariaz laneko istripuen kontingentzia estalia duten Gizarte Segurantzako afiliatuen kopuruaren arteko zatiduraren bidez kalkulatzen den kopurua) gure Erkidegoan milako (37,13 milako 2015ean eta, beraz, berdin eusten zaio ratioari, +0,98 punturekin. Sektore bakoitzari erreparatuta, eraikuntzan izan zen intzidentziarik handiena (80,78 milako), 2,87 puntu hazi baitzen 2015aren aldean. Ondoren lehen sektorea zegoen, 76,87 milako (+3,38 2015aren aldean) eta industria, 63,93 milako, 3,52 puntu hazita 2015aren aldean. Azkenik, zerbitzuen intzidentzia batez bestekoaren azpitik zegoen, 26,59 milako (+0,28 puntu).

Autonomia erkidegoei dagokienez, Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioak kalkulatzen duen lanaldiko istripuen intzidentziaren indizeak erakusten duenez, U. Balearrak ziren rankingeko buruan istripuetan 2016an, eta ondoren Gaztela-Mantxa zegoen. EAEren indizea 34,38koa zen milako, eta %0,9 egin zuen gora bere indizeak. Hala, Estatuko batez bestekoaren gainetik zegoen kopuru absolutuetan; industriaren sektoreak duen pisu handiak eragin zezakeen intzidentzia hori. Portzentajetan, estatuko aldakuntza urte horretan EAEn baino handiagoa zen, %1,5ekoa.

Horrez gain, lan kontratu motaren araberako lan istripuei buruzko datuek erakusten dutenez, istripuen kopurua handiagoa da aldi baterako kontratu dutenen artean kontratu mugatua dutenen artean baino. Hala erakusten dute Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioaren 2015eko datuek. Zehazki, kontratu mugagabea duten pertsonen istripuen kopurua 29,8 izan zen mila soldatapeko bakoitzeko. Aldi baterako kontratu zutenen artean, berriz, 45ekoa izan zen milako. Eta, ikuspegi dinamikoaren arabera, nabarmentzekoa da 2009an kontratu mugagabea eta aldi baterako kontratua duten pertsonen arteko istripuen indizea 26,4 istripukoa zela 1.000 soldatapeko bakoitzeko, eta 2015ean 15,2ra gutxitu zen.

Bestalde, Lan Harremanen Kontseiluaren (LHK) 2016ko behin-behineko datuen arabera, negoziazio kolektiboaren estaldura-gradua enplegatuen %78,7koa zen urtearen hasieran, eta amaieran, berriz, %82,1ekoa, hots, 2,4 puntuko igoera. Negoziazioei dagokienez, indarreko hitzarmenen %17,7 baino ez ziren sinatu (gainerakoak aurreko urtean sinatu

ziren), negoziatzeko marjina zabala bazegoen ere (luzaturiko eta agorturiko hitzarmenen batura, orotara, %78,9koa izan zen).

2016ko abenduaren 31ko egoeraren ondorioz, 4 langileetatik ia 3k berritzeko edo berreskuratzeko zain dauden hitzarmenak ditu 2017ko hasieran, eta EAEko negoziazio sektorialean, hamar langileetatik batek bakarrik du hitzarmen eguneratua eta estatu mailako hitzarmenek betetzen dute enpresa txikiari eta enpresa oso txikiari datxezkien lurralde eremu sektorialetako negoziaziorik ezak dakarren hutsunea.

Bestalde, EINen "*Lan Kostuen Hiruhileko Inkesta*"ko kopuruen arabera 2016an (urteko batez bestekoak) enpresek eta langileek hitzartutako hileko orduen kopurua 147,18 zen, hots, 2015ean baino %0,6 gutxiago, eta 2008an hitzartutakoak baino %2,9 gutxiago. Ordu horietatik 122,38 (-%1 2015aren aldean), %83,1 benetan lan egindakoak izan ziren, baina ratio hori 4 hamarrenetan gutxitu da azken urtean. Halaber, lan egin gabeko orduak 25,42 izan ziren 2016 langile eta hilabete bakoitzeko, hots, 2015ean baino %1,8 gehiago, eta benetan lan egindako orduen %22,8.

Bukatzeko, LKHIren lan-gatazkei buruzko datuen arabera, 2016an guztira 164 greba erregistratu ziren EAEn, eta 13.735 lagunek hartu zuten parte. Orotara, lan egin gabeko 58.152 egun bildu ziren, hots, urte arteko %10,9ko jaitsiera greba kopuruan. Partaideei eta lan egin gabeko egunei buruzko kopuruetan, berriz, %29,5eko eta %219,1eko igoerak izan dira, hurrenez hurren. Beraz, aurreko bi urteetan lan-gatazkak behera egin ondoren, berriz ere handitu zen 2016an, zeren eta greba kopuru handiagoa baita, intentsitatea nabarmen handitu baita, azken urteetako batez bestekoarekiko nahikoa maila txikiagoak izan badira ere.

7.2. ONDORIOAK

Hamabost urtez lanpostuak sortu ondoren, EAEko lan-merkatuan okupazio zifren jaitsiera aldian murgildu zen EAE, eta 2013an hala jarraitu zuen. Ondorioz, 100.000 lanpostu galdu ziren, guztizkoaren %10. 2014an, urte arteko tasa positiboak aipatzen hasiak dira estatistika-iturriak, eta joera hori finkatu egin zen 2015an. Hala, urtearen amaieran, %2aren inguruko hazkundea izan zen enpleguan.

2016an, berriz ere egin zuen gora BJAren okupazio zenbatetsiak (+%0,9), baita Gizarte Segurantzako afiliazioak (+%1,9) eta kontratazioak (+%6,8) ere, baina esan beharra dago kasu guztietan aurreko urtean baino erritmo motelagoan. Beraz, esan liteke lan-merkatuaren susperraldia moteldu egin dela Euskadin, enplegua sortzeari dagokionez behinik behin eta, nolanahi ere, oraindik ez da lortu krisiaren aurreko enplegu maila.

Langabeziak beherako bidean jarraitu zuen 2016an erritmo onean, BJAk zenbatetsikoan nahiz LANBIDEk erregistraturikoan, sektore eta adin guztietan eta bi sexuetan. Halaber, iraupen luzeko langabeziaren pisua, urtebetetik gorakoa alegia, ia puntu erdi murriztu zen azken urtean, baina oraindik langabezien erdia baino gehiago dago egoera horretan. Berez, egoera zaila da talde horretan, okertzen ari dena, eta ia erabat murrizten ditu egoera horretan daudenek lan-merkatuan sartzeko dituzten igurikapenak. Batzorde honek kezkatuta jarraitzen du eraginpeko pertsona horien egoeraz, lan-merkatutik kanpora gelditzeko arriskuan baitaude.

Halaber, langabeziaren ziozko prestazioek behera jarraitu zuten 2016an, langabeziarengatiko prestazio aldiak agortu baitziren, eta oraindik zaila da eskubidea berriz ere sortzeko beharrezko denboran lan egitea.

Berriz ere argi-ilunak antzematen dira lan-merkatuan 2016an: Enplegua sortzearekin batera, hobetu egin da kalitatea zenbait alderditan (gutxitu egin da lanaldi partzialean dihardutenen kopurua, baita behin-behinekotasuna ere, eta kontratu mugagabeak indartsuago hazi dira aldi baterakoak baino eta behera egin du gazteen langabeziak), oraindik erritmo motelean bada ere. Zenbait datu okerragoak dira, ordea (lanpostuen gero eta txandaketa handiagoa, biztanleria aktiboaren eta langabeziaren ziozko babesaren beherakada eta ordaindutako lanpostu partzialen kopuru handia). Izan ere, hori guztia ez da batere lagungarria langileen igurikapenetarako, eta zaildu egin dezake susperraldi ekonomikoa eta soziala etorkizunean.

Horrek guztiak agertoki berria dakar lan-merkatuan, egoera berria, non langileen eta enpresen beharrei egoki erantzuteko politika aktiboak ezarri beharko diren.

Bestalde, egungo lan-merkatuan, badirudi berretsi egiten dela ikasketa mailaren eta enplegua eskuratzearen arteko erlazioa, baina askotan kalitate txarreko enplegua izaten da eta, ildo horretan, ohartarazi behar dugu prestakuntza eskaini behar dela, zuzenean eragiteko enplegua egokia eskuratzeko posibilitateetan.

Enplegurako Politika Aktiboei dagokienez -funtsezkoak baitira lan-merkatuan sartzeko eta gizarte ongizatea lortzeko, berriz ere esan behar dugu premiazkoa dela ebaluazioa egitea, 2015eko Memoriarekiko informazio eguneraturik ez dagoelako eta Gobernuak Enplegurako Euskal Estrategia 2011-2014 delakoaren helburuak ezingo direla bete aitortu dutelako. Ebaluazio horri esker, itxurazko kontraesanak ulertu eta diseinu, ezarpen eta helburuak zehaztearen gaineko balizko arazoak ikusarazi ahal izango dira.

Bestalde, Euskadiko 2016ko negoziazio kolektiboari buruzko datuek erakusten dutenez, indarreko hitzarmen kolektiboak dituzten langileen kopuruak gora egin du, eremu sektorialean nahiz enpresakoan. Alabaina, oso erritmo motelean jarraitzen du, eta horren ondorioz, EAEn aplikatzen diren hitzarmen sektorialen estaldura-tasa jaitsarazten ari da. Egoera hori, argi eta garbi, ez da pozgarria; kezkagarria iruditzen zaigu.

Azkenik, lan istripuen kopuruak, azken urteetako joerari jarraituz, gorako bidean jarraitu zuen 2016an. Horrez gain, istripuek aldi baterako kontratua duten pertsonengan duen intzidentzia handiagoa gorabehera, deigarria da 2015ean (azken datua) lan istripuen kopurua handitu izana, bai aldi baterako kontratuetan, bai mugagabekoetan, eta aldi berean, bi kontratazio moten arteko aldea gutxitzen ari da. Horregatik guztiagatik, EGABek ohartarazi egin nahi du lan arriskuen aurre-zaintza zorrozki bete beharra dagoela, jarduera handiagoa izateak istripu gehiago eragin ez ditzan.

ITURRIAK

1. **EUSTAT. PRA.** 2016ko laugarren hiruhilekoa. Hiruhilekoa. Koiunturala.
2. **EUSTAT. HEK**. 2016ko laugarren hiruhilekoa. Hiruhilekoa. Koiunturala.
3. **GIZARTE SEGURANTZA**. Alfiliazioa altan. 2016ko abendua. Hilerokoa. Koiunturala.
4. **LANBIDE/SEPE.** Erregistraturiko langabezia. 2016ko abendua. Hilerokoa. Koiunturala.
5. **EIN. EPA**. 2016ko laugarren hiruhilekoa. Hiruhilekoa. Koiunturala.
6. **EUROSTAT**. Langabezia estatistikak. 2016ko hirugarren hiruhilekoa. Hiruhilekoa. Koiunturala.
7. **SEPE.** Kontratuak. 2016ko abendua. Hilekoa. Koiunturala.
8. **EUSKO JAURLARITZA. ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA. EEE** datuak. 2016ko abendua. Hilerokoa. Koiunturala.
9. **ENPLEGU ETA GIZARTE SEGURANTZA MINISTERIOA**. Lan-estatistiken Buletina. Abendua. Hilerokoa. Koiunturala.
10. **ENPLEGU ETA GIZARTE SEGURANTZA MINISTERIOA**. Enplegua erregulazioko estatistikak. 2016ko datuak. Urterokoa. Koiunturala.
11. **LAN HARREMANEN KONTSEILUA**. Euskadiko gizarte-lan egoera. 2016ko aurrerapena. Urterokoa. Koiunturala.
12. **EIN**. Soldaten egiturari buruzko inkesta. 2014. Urterokoa. Estrukturala.
13. **EIN**. Lan-kostuei buruzko urteko inkesta. 2015. Urterokoa. Estrukturala.
14. **EUSKO JAURLARITZA. ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA (2016**). Enplegurako Euskal Estrategia 2011-2014. Ex post ebaluazioa. Unekoa.
15. **EUSKO JAURLARITZA. >ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA (2016).** Enplegurako Euskal Estrategia 2020.
16. **EUSKO JAURALRITZA. OGASUN ETA EKONOMIA SAILA. LANBIDE**ren aurrekontu-likidazioa 2015. Urterokoa. Koiunturala.
17. **OGASUN MINISTERIOA.** Autonomia Erkidegoko aurrekontu-likidazioak. 2014. urtea. Urterokoa. Koiunturala.

18. **HOBETUZ.** Etengabeko prestakuntzako datuak. 2015eko behin betikoak eta 2016ko aurrerapena. Urterokoa. Koiunturala.
19. **ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZAKO TRIPARTITA FUNDAZIOA**. EAEko emaitzei buruzko txostena, 2015. Urterokoa. Koiunturala.
20. **EUSKO JAURLARITZA. ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA**. "*Gizarte bazterketaren kontrako borroka 2015*" txostena. Urterokoa. Koiunturala.
21. **SEPE**. Langabezia prestazioen jasotzaileen datuak, mota eta sexuaren arabera. 2016ko neurriak. Urterokoa. Koiunturala.
22. **ENPLEGU ETA GIZARTE SEGURANTZA MINISTERIOA. PRENTSA SAILA.** Erregistraturiko langabeziari buruzko hileko txostena. 2016ko abendua. Urterokoa. Koiunturala.
23. **OSALAN**. Lan istripuei buruzko estatistikak. 2016ko abendua. Hilerokoa. Koiunturala.
24. **ENPLEGU ETA GIZARTE SEGURANTZA MINISTERIOA.** Lan istripuei buruzko estatistikak. 2016ko datuen aurrerapena. Urterokoa. Koiunturala.

IV. KAPITULUA

Bizi-kalitatea EAEn

1. EAE-KO BIZI-BALDINTZAK

Gizarte bazterkeriaren arazoa zeharkako errealitatea da gizarte garaikideetan. Erakunde eta ikertzaileek urte askoan erabili duten "pobrezia" kontzeptuak ez ditu agortzen gizarte-bazterketaren errealitatea eta dinamikak. Hori dela eta, azken bi hamarkadatan gizarte-ikertzaileak eta kudeatzaile publikoak bat etorri dira: pobrezia kategoria hedatu dute eta "gizarte-bazterketa" erabiltzen dute, pobrezia ekonomikoaren ideia zurruna atzean utzi dutelako eta, batik bat, kontuan hartzen dituztelako gaur egungo gizarteetan aurrerapen teknologikoek, bizimodu-aldaketek eta gizarte-erreformek eragin dituzten eraldaketa sakonak.

Lehenik eta behin, EBko bizi-baldintzei buruzko zifra nagusiak emango dira, EUROSTATen Bizi-baldintzei buruzko Inkestako (EU-SILC) azken datuak oinarri hartuta, eta EAEko eta Estatuko egoerarekin lotuko dira. Hartara, xehetasunez aztertuko dira "AROPE" tasaren (*population at risk of poverty and exclusion*) osagaiak. Inkesta horren bidez, Europako Batzordeak 2020rako ezarritako helburuen jarraipena egiten da. Gainera, Eusko Jaurlaritzaren Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkestako (PGDI) lehen datuak azalduko dira, baita EINen 2015eko Bizi-baldintzei buruzko Inkestako emaitzak ere, EAEk gainerako autonomia erkidegoen aldean duen bilakaera erkatzea ahalbidetzeko errentaren eta gabezia materialaren adierazle nagusiei dagokienez. Ondoren, gai bakarra aztertuko da: lan-pobrezia EAEn, 2016ko PGDIren emaitzak eta Europako estatistika oinarri hartuta. Azkenik, EAEko hipoteka-betearazpenen gaineko zifra nagusiak emango dira. Kapituluko bigarren blokea EAEko familiei buruzko azterlanak osatzen du, baita kontziliazio beharrak eta horretarako abian jarritako politikak ere.

1.1. EAE-KO BIZI-BALDINTZAK EUROPA MAILAN: "AROPE" TASA

Europar Batasunean, gaur egungo krisiak eragin oso larriak ditu jarduera ekonomikoan eta enpleguan. Krisiaren ondorioz, nabarmen hazi da pobrezia edo bazterkeria arriskuan dauden EBko herritarren kopurua azken urteetan, eta gehieneko kopuruak 2012an izan ziren, %25 inguru. Harrezkero behera egin du pixka bat.

Egoera horren eraginpean daude gaur egun (2015ekoa da azken datu eskuragarria) biztanleriaren %23,7, hots, EBko 118,7 milioi herritar, Europa 2020 Estrategian ezarritako irizpideen arabera. Estrategia horri "AROPE tasa" deritzo (population at risk of poverty and exclusion).[1] Horietatik %52,6 emakumeak ziren (haien AROPE tasa batez bestekoa baino puntu bat handiagoa da) eta %47,4 gizonezkoak (pobrezia edo bazterketa arrisku-tasa: %23).

IV.1.1.GRAFIKOA. POBREZIA ETA BAZTERKETA ARRISKUAREN TASAREN ETA BEREN HIRU OSAGAIEN BILAKAERA EUROPAR BATASUNEAN (28-EB)



Iturria: EUROSTAT

IV.1.1. TAULA. EAE-KO BIZI-BALDINTZAK. "EUROPA 2020" ADIERAZLE EREDUGARRIAK

	EAE		ESTATUA	28 EB
	2009	2015*	2015*	2015*
"AROPE" TASA	**14,8**	**17,6**	**28,6**	**23,7**
- POBREZIA-ATALASEAREN AZPITIK DAUDEN BIZTANLEEN % (MEDIANA %60)	10,0	10,9	22,1	17,3
- GABEZIA MATERIAL LARRIA	3,4	4,6	6,4	8,1
- LAN-INTENTSITATE TXIKIA	5,5	14,3	15,4	10,6

Iturria: EUROSTAT eta EIN.
****2015eko datuak behin-behinekoak dira.***

[1] *Europa 2020 Estrategiako irizpideen arabera, pertsona bat pobrezia- edo bazterketa-arriskuan dago langabezia-arazoak edo lan-intentsitate txikia dituen familia-unitate batean bizi bada eta familia-unitate horrek gizarte-transferentzien ondoren pobrezia-arrisku badu eta/edo gabezia material larria badu.*

2014ren aldean, 7 hamarren egin du behera Batasunerako batez besteko tasak (eraginpeko 3,200.000 lagun), eta, beraz, intzidentzia EBko lau herrialdetan besterik ez da handitu: Bulgaria, Italia, Zipre eta Lituania.

Espainian, 2015eko ratioa %28,6 zen, Europako batez bestekoa baino 5 puntu handiagoa (eraginpeko 13 milioi lagun baino gehiago), eta 6 hamarreneko murriztapena izan du aurreko urtearen aldean. Hala, maila ertain-altuan kokatzen da Espainia, Europako batez bestekoaren gainetik eta beste herrialde hauen antzeko balioekin: Italia, Zipre, Hungaria, Portugal edo Irlanda.

EAEn, biztanleriaren %17,6 zegoen (2014an baino 2,3 puntu gehiago, baina krisia hasi aurretik zegoen tasa baino handiagoa -%14,8 2009an-) pobrezia eta bazterketa arriskuaren eraginpean 2015ean, bestela esanda, 390.000 lagun (ez dago talde horren banaketari buruzko sexuaren araberako informaziorik). Intzidentzia horri nahikoa maila apaletan eusten zaio Europan, gora egin badu ere, hain zuzen Frantziaren eta Danimarkaren parean

Eta Estatuko autonomia erkidegoen multzoan, EAEk bigarren bilakaerarik txarrena izan du azken urtean U. Balearren atzetik. Hala ere, oso toki onean dago, bakarrik Nafarroaren atzetik (%13ko intzidentzia). Azken urtean, Estatuko batez bestekoa bezala, "AROPE" tasa murriztu da 10 erkidegotan. 9 erkidegotan, berriz, gora egin du. Ratiorik handienak Andaluzian eta Ceutan daude, bietan %40tik gorakoak.

IV.1.2. TAULA. EUROPAN POBREZIA- EDO BAZTERKETA-ARRISKUAN DAUDEN BIZTANLEAK, EUROPA 2020 ESTRATEGIAKO IRIZPIDEEN ARABERA

	EHUNEKOA			ABSOLUTUAK (MILIOIAK)		
	2008	2014	2015**	2008	2014	2015**
28 EB	23,8	24,4	23,7	115,9	121,9	118,7
BELGIKA	20,8	21,2	21,1	2,2	2,3	2,3
BULGARIA	44,8	40,1	41,3	3,4	2,9	3,0
TXEKIAR ERREP.	15,3	14,8	14,0	1,6	1,5	1,4
DANIMARKA	16,3	17,9	17,7	0,9	1,0	1,0
ALEMANIA	20,1	20,6	20,0	16,4	16,5	16,1
ESTONIA	21,8	26,0	24,2	0,3	0,3	0,3
IRLANDA	23,7	27,6	:	1,1	1,3	:
GREZIA	28,1	36,0	35,7	3,1	3,9	3,8
ESPAINIA	24,5	29,2	28,6	11,1	13,4	13,2
FRANTZIA	18,5	18,6	17,7	11,2	11,5	11,0
KROAZIA	:	29,3	29,1	:	:	1,2
ITALIA	25,3	28,1	28,7	15,1	17,0	17,5
ZIPRE	23,3	27,4	28,9	0,2	0,2	0,2
LETONIA	34,2	32,7	30,9	0,7	0,7	0,6
LITUANIA	27,6	27,3	29,3	0,9	0,8	0,9
LUXENBURGO	15,5	19,0	18,5	0,1	0,0	0,0
HUNGARIA	28,2	31,1	28,2	2,8	3,1	2,7
MALTA	20,1	23,8	22,4	0,1	0,1	0,1
HERBEHEREAK	14,9	17,1	16,4	2,4	2,8	2,7
AUSTRIA	20,6	19,2	18,3	1,7	1,6	1,5
POLONIA	30,5	24,7	23,4	11,5	9,3	8,8
PORTUGAL	26,0	27,5	26,6	2,8	2,9	2,8
ERRUMANIA	44,2	40,2	37,4	9,4	8,0	7,4
ESLOVENIA	18,5	20,4	19,2	0,4	0,4	0,4
ESLOVAKIA	20,6	18,4	18,4	1,1	1,0	1,0
FINLANDIA	17,4	17,3	16,8	0,9	0,9	0,9
SUEDIA	14,9	16,9	16,0	1,4	1,6	1,6
ERRESUMA BATUA	23,2	24,1	23,5	14,1	15,3	15,0
EAE	**14,8***	**15,3**	**17,6**	**0,32***	**0,33**	**0,39**

Iturria: EUROSTATen eta EINen datuekin guk geuk egina.
** EAEko datuak 2009koa da.*
*** 2015eko datuak behin-behinekoak dira.*

IV.1.3. TAULA. POBREZIA (%60KO ATALASEA) EDO GIZARTE BAZTERKETA IZATEKO ARRISKUAN DAUDEN BIZTANLEAK, "ESTRATEGIA EUROPA 2020" DELAKOAREN ARABERA: "AROPE" TASAKO OSAGAIAK: GUZTIZKO POPULAZIOAREN GAINEKO EHUNEKOA, 2014-15.

	"AROPE" TASA OROKORRA		1. ATALASE-POBREZIA ARRISKUA (%60 ATAL.)		2. GABEZIA MATERIAL LARRIA		3. LAN-INTESNTSITATE OSO TXIKIA	
	2014	2015*	2014	2015*	2014	2015*	2014	2015*
ESTATUA, GUZTIRA	29,2	28,6	22,2	22,1	7,1	6,4	17,1	15,4
ANDALUZIA	42,3	43,2	33,3	35,7	9,5	8,0	27,4	24,9
ARAGOI	20,7	17,7	16,9	14,4	4,2	2,2	10,5	6,9
ASTURIAS	23,4	24,2	16,7	16,7	5,1	6,9	18,0	16,4
U. BALEARRAK	23,8	26,3	17,9	21,7	9,8	7,7	7,5	8,4
U. KANARIARRAK	37,0	37,9	27,6	28,5	7,2	12,4	28,1	20,8
KANTABRIA	27,4	20,4	20,6	14,9	3,5	3,5	18,4	15,5
GAZTELA-MANTXA	26,1	23,3	20,4	18,3	2,6	2,3	17,7	16,5
GAZTELA ETA LEON	36,9	36,7	28,4	28,5	8,7	8,5	14,9	15,6
KATALUNIA	21,8	19,8	15,8	13,9	6,3	6,7	12,0	8,8
VALENTZIAKO ERK.	34,7	32,9	26,2	25,3	11,3	6,7	18,1	18,1
EXTREMADURA	39,8	35,2	33,1	29,0	3,8	2,4	22,2	19,3
GALIZIA	23,8	25,7	15,4	19,4	5,5	4,2	14,9	13,8
MADRIL	19,2	20,5	14,7	15,1	4,8	5,7	9,6	10,5
MURTZIA	44,9	38,8	37,2	31,8	11,8	9,0	22,2	16,1
NAFARROA	14,5	13,0	11,9	9,6	1,2	2,2	7,5	7,1
EAE	**15,3**	**17,6**	**10,2**	**10,9**	**4,8**	**4,6**	**12,2**	**14,3**
ERRIOXA	20,1	22,1	16,2	17,1	5,6	4,8	10,7	10,4
CEUTA	47,9	41,7	44,3	31,0	12,4	16,6	26,2	10,0
MELILLA	25,9	31,8	19,2	25,8	7,4	15,1	18,0	14,5

Iturria: EIN. Bizi-baldintzen Inkesta.
**2015eko datuak behin-behinekoak dira.*

1.1.1. Pobreziaren atalasetik behera dagoen biztanleria

Adierazle horren osagaiei dagokienez, batetik, 2015ean EBko biztanleen %17,3 pobrezia-arriskuan zegoen gizarte-transferentzien ondoren (diru-pobrezia); egoera horretan daude, zehazki, diru-sarreren kontsumo-unitateko banaketaren herrialde bakoitzeko medianaren %60tik (pobrezia-atalasetik) beherako diru-sarrerak dituztenak (osagai hori da, beraz, herrialde bakoitzean gutxieneko errenta-atalase horretara heltzen ez diren biztanleen portzentajea).

IV.1.4. TAULA. POBREZIA GIZARTE BAZTERKETA IZATEKO ARRISKUAN DAUDEN BIZTANLEAK, "ESTRATEGIA EUROPA 2020" DELAKOAREN ARABERA: "AROPE" TASAKO OSAGAIAK: GUZTIZKO POPULAZIOAREN GAINEKO EHUNEKOA, 2008-2015*

	1. ATALASE-POBREZIA ARRISKUA (%60 ATAL.)			2. GABEZIA MATERIAL LARRIA			3. LAN-INTESNTSITATE OSO TXIKIA		
	2008	2014	2015	2008	2014	2015	2008	2014	2015
28ko EB	16,5	17,2	17,3	8,5	8,9	8,1	9,2	11,2	10,6
BELGIKA	14,7	15,5	14,9	5,6	5,9	5,8	11,7	14,6	14,9
BULGARIA	21,4	21,8	22,0	41,2	33,1	34,2	8,1	12,1	11,6
TXEKIAR ERREP.	9,0	9,7	9,7	6,8	6,7	5,6	7,2	7,6	6,8
DANIMARKA	11,8	12,1	12,2	2,0	6,2	3,7	8,5	12,2	11,6
ALEMANIA	15,2	16,7	16,7	5,5	5,0	4,4	11,7	10,0	9,8
ESTONIA	19,5	21,8	21,6	4,9	6,2	4,5	5,3	7,6	6,6
IRLANDA	15,5	15,6	:	5,5	8,4	:	13,7	21,1	:
GREZIA	20,1	22,1	21,4	11,2	21,5	22,2	7,5	17,2	16,8
ESPAINIA	19,8	22,2	22,1	3,6	7,1	6,4	6,6	17,1	15,4
FRANTZIA	12,5	13,3	13,6	5,4	4,8	4,5	8,8	9,6	8,6
KROAZIA	:	19,4	:	:	13,9	:	:	14,7	:
ITALIA	18,9	19,4	19,9	7,5	11,6	11,5	10,4	12,1	11,7
ZIPRE	15,9	14,4	16,2	9,1	15,3	15,4	4,5	9,7	10,9
LETONIA	25,9	21,2	22,5	19,3	19,2	16,4	5,4	9,6	7,8
LITUANIA	20,9	19,1	22,2	12,5	13,6	13,9	6,1	8,8	9,2
LUXENBURGO	13,4	16,4	15,3	0,7	1,4	2,0	4,7	6,1	5,7
HUNGARIA	12,4	15,0	14,9	17,9	24,0	19,4	12,0	12,8	9,4
MALTA	15,3	15,9	16,3	4,3	10,2	8,1	8,6	9,8	9,2
HERBEHEREAK	10,5	11,6	12,1	1,5	3,2	2,5	8,2	10,2	10,2
AUSTRIA	15,2	14,1	13,9	5,9	4,0	3,6	7,4	9,1	8,2
POLONIA	16,9	17,0	17,6	17,7	10,4	8,1	8,0	7,3	6,9
PORTUGAL	18,5	19,5	19,5	9,7	10,6	9,6	6,3	12,2	10,9
ERRUMANIA	23,6	25,1	25,4	32,7	25,9	22,7	8,5	7,2	7,9
ESLOVENIA	12,3	14,5	14,3	6,7	6,6	5,8	6,7	8,7	7,4
ESLOVAKIA	10,9	12,6	12,3	11,8	9,9	9,0	5,2	7,1	7,1
FINLANDIA	13,6	12,8	12,4	3,5	2,8	2,2	7,5	10,0	10,8
SUEDIA	12,2	15,1	14,5	1,4	0,7	0,7	5,5	6,4	5,8
ERRESUMA BATUA	18,7	16,8	16,7	4,5	7,4	6,1	10,4	12,3	11,9
EAE	**10,0****	**10,2**	**10,9**	**3,4****	**4,8**	**4,6**	**5,5****	**12,2**	**14,3**

Iturria: EUROSTATen eta EINen datuekin guk geuk egina.
** EAEko datuak 2009koa da.*
*** 2015eko datuak behin-behinekoak dira.*

Portzentaje hori %0,1 hazi zen 2014ren aldean, halako moldez non bost pertsonetatik bat baitzegoen egoera horretan Errumanian (%25,4), Letonian (%22,5), Lituanian (%22,2), Espainian (%22,1), Bulgarian (%22), Estonian (%21,6) eta Grezian (%21,4). Ratiorik txikienak Txekiar Errepublikan (%9,7), Holandan (%12,1) eta Danimarkan (%12,2) zeuden. 2008tik hona, hazi egin da pobrezia arriskuan dauden pertsonen proportzioa informazioa duguneko EBko 22 herrialdetan, eta lau herrialdetan baino ez da jaitsi.

EAEn, %10,9ko tasa izan zen 2015ean, eta azken urtean 7 hamarreneko igoera izan du eta 9 hamarrenekoa krisia hasi zenetik.

Autonomia erkidegoen aldean, EAE batez besteko orokorraren oso azpitik da AROPE tasaren lehen osagaian (%10,9 eta %22,1); izan ere, soilik Nafarroako Erkidegoaren atzetik dago. Beste muturrean, zenbait erkidegotan %30etik gorako ratioak dituzte. Andaluzia (%35,7), Murtzia (%31,8) eta Ceuta (%31).

1.1.2. Gabezia material larria

Bigarrenik, Europako populazioaren %8,1eko oinarrizko baldintzak eskuratzeko muga larriak zituen 2015ean, zeren eta oinarrizko baliabiderik ezak eragindako bizi-baldintzak baitituzte hala nola fakturei aurre egiteko ahalmena (familien

ohiko gastuei dagokienez), etxea bero mantentzeko edo urtean astebeteko oporraldia gozatzeko[2]. Ratio hori 8 hamarren murriztu da azken urtean, eta dagoeneko 2008an zuen %8,5aren azpitik dago.

Batasunean, gabezia horren intzidentzia asko aldatzen da herrialdeen artean: Suedian %0,7 dago edo %2,2 Finlandian, eta beste muturrean Bulgaria, %34,2 edo Errumania, %22,7. Gehienetan, ordea, emaitza hobeak izan dira azken urtean. 2008aren aldean, gabezia larria dutenen proportzioa hazi egin da horretarako datuak dauden 12 herrialdetan, eta behera egin du 14 herrialdetan.

IV.1.5. TAULA. "AROPE" TASAREN ETA BERE OSAGAIEN BILAKAERA. EAE-ESTATUAREN ARTEKO ERKAKETA.

	POBREZIA ETA BAZTERKETA ARRISKUA (AROPE)		1. POBREZIA ARRISKUA (<%60KO ATALASEA) (POBREZIA MONETAR.)		2. GABEZIA MATERIALA		3. LAN-INTENTSITATE TXIKIA	
	ESTATUA	EAE	ESTATUA	EAE	ESTATUA	EAE	P	EAE
2009	24,7	14,8	20,4	10,0	4,5	3,4	7,6	5,5
2010	26,1	16,3	20,7	11,7	4,9	2,1	10,8	8,8
2011	26,7	18,9	20,6	13,8	4,5	4,0	13,4	9,8
2012	27,2	17,7	20,8	13,3	5,8	2,1	14,3	11,1
2013	27,3	16,8	20,4	10,5	6,2	4,8	15,7	13,0
2014	29,2	15,3	22,2	10,2	7,1	4,8	17,1	12,2
2015	28,6	17,6	22,1	10,9	6,4	4,6	15,4	14,3

Iturria: EINen datuekin eginikoa.

Espainiak %6,4ko intzidentzia du (2014an baino 7 hamarren gutxiago), eta EAEk %4,6 (%4,8 2015ean). 2008-2015 aldia aztertuta ikusten denez, bilakaera negatiboa izan da, %3,4tik %4,6ra, baina beti eutsi zaie %5etik beherako mailei. Autonomia erkidego guztien aldean, intzidentziarik handienak Ceutan eta Melillan daude (%16,6 eta %15,1 hurrenez hurren), baita U. Kanariarretan ere (%12,4). Txikienak, berriz, Nafarroan eta Aragoin (bietan %2,2) eta Gaztela-Mantxan (%2,3).

1.1.3. Lan-intentsitate osoko txikiko biztanleria

Azkenik, EBko biztanleriaren %10,6 lan-intentsitate oso txikiko etxeetan bizi zen 2015ean. Hala deritzo familiako 59 urtetik beherako helduek azken urtean beren lan-gaitasunaren %20 erabiltzen badute lanean (2014an baino 7 hamarren gehiago eta 2008an baino %1,3 gehiago). Grezia (%16,8), Espainia (%15,4) eta Belgika (%14,9) daude Batasuneko rankingeko buruan. Luxenburgon eta Suedian, berriz, ez dira %6ra iristen. 2008aren aldean, tasa hori EBko estatu kide guztietan hazi da (6 herrialdetan besterik ez da murriztu).

EAEko datua %14,3 da, EBko batez bestekoa baino handiagoa (%10,6). Hortaz, gure Erkidegoa Europako batez bestekoaren azpitik dagoen AROPE tasaren dimentsio bakarra da eta, gainera, %2,1eko murriztapena izan du azken urtean eta ia 9 puntukoa krisia hasi zenetik. Espainia, arestian esan dugunez, Batasuneko emaitzarik txarrenen artean dago, bakarrik Greziak gainditzen du. Hala ere, 1,7 puntuko hobekuntza izan du aurreko urtearen aldean (%17,1etik %15,4ra). Autonomia erkidegoen artean, horietako zenbaitek oso ratio handiak dituzte, 2014aren aldean hobetu badira ere: Andaluzian %24,9, U. Kanariarretan %20,8 eta Extremaduran %19,8. Aragoi, Nafarroa eta Balearrak beste muturrean daude, tasarik txikienak baitituzte: %6,9, %7,1 eta %8,4 hurrenez hurren.

[2] *Zehazki, EUROSTATen irizpideen arabera, gabezia material larria izateko bederatzi item hauetatik lau bete behar dira: fakturak garaiz ezin ordaintzea, etxebizitza behar bezala bero ezin mantentzea, ustekabeko gastuei ezin aurre egitea, haragia, arraina edo proteina baliokideak bi egunean behin ezin jatea, urtean astebeteko oporraz ezin gozatzea, autoa, garbigailua, koloretako telebista edo telefonoa (mugikorrak barne) ezin edukitzea.*

1.2. POBREZIARI ETA GIZARTE DESBERDINTASUNEI BURUZKO 2016KO INKESTA (PGDI): EMAITZA NAGUSIAK

IV.1.6. TAULA. EUSKO JAURLARITZAREN PGDIko OINARRIZKO ADIERAZLEEN BILAKAERA

		1996	2000	2004	2008	2012	2014	2016
IRAUPEN-POBREZIA	POBREZIA ARRISKUA	13,3	7,9	5,6	5,7	7,3	8,2	7,1
	ONGIZATERIK EZA	36,3	24,7	21,9	16,4	19,9	21,9	18,4
METATZE-POBREZIA	POBREZIA ARRISKUA	3,6	4,2	3,6	1,5	1,4	2,0	1,6
	ONGIZATERIK EZA	25,3	17,2	19,4	18,6	17,5	20,0	17,0
BENETAKO POBREZIA	POBREZIA ARRISKUA	8,7	5,1	4,5	4,2	5,3	5,9	5,7
	ONGIZATERIK EZA	16,5	11,0	11,2	8,2	10,1	11,5	10,7

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. PGDI 2016.

Eusko Jaurlaritzak lau urterik behin egiten du Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta (PGDI). Horri esker jakin daiteke zein bilakaera izan duen pobreziak gure gizartean, baita horretan eragina duten arrisku faktoreak eta banaketa ezberdina ere. 2016ko inkestaren emaitza nagusia EAEko pobreziaren arriskua eta prekaritatearen intzidentziaren beheraka da 2014aren aldean, baita eraginpeko lagunen kopuruarena ere. Hala ere, oraindik ez dira krisiaren aurreko ongizate mailak berreskuratu.

IV.1.2. GRAFIKOA. POBREZIA ARRISKUA EAE-N. PGDI METODOLOGIA



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. PGDI.

- Iraupen-pobreziaren arriskuari dagokionez[3] %7,1eko intzidentzia zenbatetsi du PGDIk 2016rako, guztira eraginpeko 151.112 lagun, 2012ko eta 2014ko tasen azpitik hain zuzen (%7,3 eta %8,2 hurrenez hurren. Alabaina, 2008aren aldean, pobrezia-tasak 1,4 puntu handiagoa izaten jarraitzen du, eta 29.237 lagun gehiagori eragiten dio (urte horretan, eraginpeko 121.875 lagun ziren).

  Ongizaterik ezaren arriskuak (gurea bezalako gizartean espero den gutxieneko ongizate mailari eusteko beharrezko gastuen beharrekin lotzen da) behera gin zuen 2014 eta 2016 bitartean, %21,9tik %18,4ra, hots, 2008ko %16,4ko ratioa baino 2 puntu handiagoa. Ongizaterik ezaren arriskuan dauden pertsonak, guztira, 394.266 dira, 2008an baino %11,8 gehiago, baina erregistro horrekin batera, 400.000 lagunetik beherako kopurua dagoen bi urte bakarrak dira.

- Metatze-pobreziak nabarmen egin zuen gora 2014an, %2ra iritsita. Metatze-pobreziak honako hauekin du zerikusia: epe ertain eta luzera bizi-baldintza onargarriei eusteko gaitasunik ezarekin eta ohiz kanpoko gastu-premiei aurre egiteko edo diru-sarrerarik eza osatzeko gutxieneko ondare-erreserba bat edukitzeko gaitasunik ezarekin. 2014-2016 aldiko dinamikak erakusten duenez, adierazle honen beherazko joera historikoa berreskuratu da, %1,6 egin du behera eta berriz ere jarri da EAEn ikusitako mailarik txikienetan (2008an %1,4 eta 2012an %1,5). Pobrezia horrek ukituriko pertsonen kopurua, 2016an, 34.158 zen, 2008ko 32.838koa baino %4 handiagoa.

  Horrez gain, metatze-pobreziaren aldetik, ongizaterik ezaren modu desberdinek biztanleriaren %17 ukitzen zuten 2016an, eta 2014an adierazlean hasitako goranzko joera aldatu da. Izan ere, orduan %20ko ratioa izan zen, eta 2008an izandakoa (%18,6) baino %1,6 txikiagoko intzidentzia du.

[3] *Biziraupen-pobreziaren testuinguruan, pobrezia jasateko arrisku-egoerak, oinarrizko beharrak (elikadura, etxebizitza, jantziak eta oinetakoak) asetzeko behar adina diru-sarrera ez izatearekin lotzen dira. Beste alde batetik, ongizatea ez izateko arriskua, hau da, oinarrizko beharrak asetzeaz harago gizarte jakin batean espero diren ongizatearen eta erosotasunaren gutxieneko mailei eusteko beharrezko gastuei aurre egiteko behar adina diru-sarrera ez izatearekin lotzen da.*

- Arrisku-problematika edo -egoerak ez direnez automatikoki benetako pobrezia- edo estutasun-bizipen bilakatzen, PGDIn benetako pobreziaren adierazlearekin osatzen dute azterlana, hau da, arlo batzuetako bizimodu egokiak beste arlo batzuetako gabeziak orekatzen ez dituen egoerak zehazten dituzte. Hasi, prozesu horiek jaitsiera txikian islatzen dira, %5,9tik %5,7ra, benetako pobreziak 2014 eta 2016 bitartean zuen intzidentzian. Mugatua bada ere, 2012ko (%5,3) eta 2000ko (%5,1) tasetatik hurbil jartzen gaitu jaitsiera horrek, baina 2008ko %4,2ko tasatik urrun. Kopuru absolutuetan, benetako pobreziak 122.566 lagun ukitzen zituen 2016an, 2014an baino (127.399) %3,8 gutxiago eta 2008an (89.706) baino gehiago.

- Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleria ongizate-pobrezia eskalan duen kokapenaren arabera sailkatu eta aztertuz gero aipatu benetako pobreziaren adierazlea aintzat hartuta, ikusten da 2016an biztanleen %40,5ek erabateko ongizatea zuela, eta hori dela PGDIko sail historikoko ratiorik handiena. Horrez gain, 2014-2016 aldiko berrikuntza nagusia pobreziaren eta bestelako ongizaterik ezen eraginpeko taldeen pisuaren beherakada da, baita ongizatea gozatzea mugatzen duen arriskuren bat izatea ere. Izan ere, kategoria horien pean zegoen 2014an biztanleriaren %31,2 (I, II eta III. Kategorien batura IV.1.3 grafikoa), eta %25,3raino murriztu ziren 2016an, zeren eta, arestian esan dugun legez, ongizate osoak gora egin baitzuen, baina ia ongizate osoak ere bai (%30,2tik %34,1era).

IV.1.3. GRAFIKOA: EAE-KO POBREZIAREN BAZTERKETAREN BILAKAERA, PGDI-KO BENETAKO POBREZIAREN ADIERAZLEEN ARABERA



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. PGDI

2008aren aldean, berriz, 2016ko egoeran ñabardura gehiago egin behar da: Alde batetik, ongizatean dauden bitarteko taldeen pisu erlatiboak (ongizate eta arrisku eta ia ongizate osoko elementuak, IV.1.3. grafikoko III eta IV. kategoriak) behera egin zuen, eta bien batura %59,9tik %48,8ra igaro zen (-11,1 puntu). Aldaketa hori ia osorik ongizate osoan daudenen multzora igaro da (%32tik %40,5era), baina egoera txarragoan dauden taldeen pisuak ere gora egin du (I eta II. Kategoriak, benetako pobrezia eta bestelako ongizaterik ezaren moduak, zeinen agregatua "ongizaterik eza" baita): %8,2tik %10,7ra.

IV.1.7. TAULA. PGDI-REN POBREZIA ADIERAZLEEN BILAKAERA, LURRALDE ETA ESKUALDEEN ARABERA. 2008-2016. FAMILIA-ETXEBIZITZAKO BIZTANLERIAREN GAINEKO EHUNEKOA

	IRAUPEN-POBREZIA				METATZE-POBREZIA				BENETAKO POBREZIA			
	2008	2012	2014	2016	2008	2012	2014	2016	2008	2012	2014	2016
BIZKAIA	6,7	7,9	8,5	7,5	2,1	1,8	2,5	2,2	5,2	6,1	6,4	5,5
GIPUZKOA	3,9	6,3	6,6	5,1	0,4	0,9	1,5	0,4	2,5	3,8	4,2	4,0
ARABA	5,8	7,3	10,5	9,7	1,8	1,1	1,5	2,3	4,1	5,6	8,2	10,4
GASTEIZ	6,1	7,4	11,3	9,7	1,7	1,3	1,3	2,4	4,4	6,2	8,9	10,6
AIARA	4,3	6,4	5,6	9,8	2,1	0,1	2,4	1,8	2,3	2,2	4,4	9,1
ESKUINALDEA	5,3	5,5	5,2	3,5	0,2	0,7	0,5	0,8	3,0	5,1	3,3	2,4
BILBO	10,1	10,6	11,4	8,8	2,3	2,3	3,5	4,0	7,6	9,5	8,4	7,7
EZKERRALDEA	5,8	8,0	9,2	8,6	3,3	2,7	3,5	2,1	5,6	5,8	6,5	5,2
BIZKAIA-KOSTALDEA	3,2	6,9	6,3	8,0	1,3	1,1	0,7	0,3	2,0	2,9	5,9	5,6
DURANGALDEA	5,3	3,8	4,9	5,8	1,1	0,2	0,6	1,2	2,8	2,4	4,3	4,7
DONOSTIALDEA	4,7	6,9	7,0	5,1	0,4	0,8	1,6	0,3	3,1	4,1	4,0	4,0
TOLOSA-GOIERRI	2,1	6,8	5,1	4,0	0,3	2,4	1,8	0,7	1,3	4,5	5,0	3,7
DEBA GARAIA	1,2	2,5	4,8	4,7	0,9	0,1	0,2	0,0	0,4	2,0	4,1	1,3
DEBA BARRENAA	3,4	4,9	8,4	7,9	0,0	0,2	0,6	0,7	1,8	2,2	3,8	8,1
GUZTIRA, EAE	**5,7**	**7,3**	**8,2**	**7,1**	**1,5**	**1,4**	**2,0**	**1,6**	**4,2**	**5,3**	**5,9**	**5,7**

Iturria: EUSKO JAURLARITZAREN datuekin eginikoa. PGDI 2016.

- Lurraldez lurralde, 2016an nabarmendu beharreko ezaugarri nagusia Arabak Bizkaiaren eta Gipuzkoaren aldean izan duen egoera okerragoa da, elkarren osagarri diren bi faktorerengatik. Lehenik eta behin, 2008 eta 2014 urte bitartean benetako pobreziaren hazkunde bereizgarri handia duen lurraldea da eta, bigarrenik, 2014 eta 2016 bitartean, eutsi egin zaio joera negatibo horri. Bizkaian eta Gipuzkoan, berriz, aldaketa positiboa izan da. Hala ere, benetako pobrezia-tasak gora jarraitzen du lurralde horretan: 2014k %8,2tik 2016ko %10,4ra (%4,1 2008. urtean). Ratio horrek jaitsiera txikia izan du (2014ko %4,2tik 2016ko %4ra, oraindik 2008ko %2,5ekoa baino %1,5 handiagoa). Bizkaia, berriz, bilakaerarik hoberena izan duen lurraldea da, hain zuzen 2014ko %6,4tik 2016ko %5,5era, 2008koa baino %0,3 gehiago besterik ez (%5,2).

  Prozesu horren ondorioz, 2008 eta 2016 urte bitartean aldaketa txikiak edo ertainak gertatu ziren benetako pobrezian Bizkaian eta Gipuzkoan, baina oso nabarmenak Araban. Izan ere, 2016 finkatu egin da Araban benetako pobreziak duen presentzia: benetako pobreziaren %10,4. Bizkaian eta Gipuzkoan, berriz, %5,5 eta %4. Aldeak ez dira hain deigarriak, ordea, pobrezia larrienak aintzat hartzen baditugu, epe luzerako bizi-baldintzekin loturikoak (metatze-pobrezia): Kasu honetan, %0,4koa besterik ez da Gipuzkoan, eta kopuru handiagoak baina txikiak bai Araban bai Bizkaian, %2,3 eta %2,2 hurrenez hurren.

  Eskualdeen araberako azterketa eginez gero, EAEko eremurik urbanizatuenen barruan, Gasteizko eskualdearen okertzea nabarmentzen da; izan ere, Bilbo gainditu zuen 2014an benetako pobreziaren intzidentzian, eta errealitate hori 2016an finkatu zen. Alabaina, esan beharra dago Bilbok oraindik ere Gasteiz gainditzen duela metatze-pobrezian (%4 eta %2,4). Nolanahi ere, pobrezia-tasen bilakaeran areagotu egin dira eskualdeen arteko askotariko egoerak: Egoera txarrenean dauden zenbait eskualdetan, benetako pobreziako %8ko mailak dituzte edo gainditzen dituzte (Arabako eskualdeak, Deba Barrena eta, bilakaera ona izanik ere, Bilbo). Beste muturrean, benetako pobreziaren tasa %4ko mailetan edo txikiagoetan kokatzen da (Donostialdea, Eskuinaldea, Tolosa-Goierri eta Deba Garaia). Bitarteko posizioetan, %4,7 eta %5,6ko tasak daude, Bizkaiko gainerako eskualdetan (Ezkerraldea, Bizkaia-kostaldea eta Durangaldea).

IV.1.8. TAULA. PGDI-EN POBREZIA ADIERAZLEEN BILAKAERA FAMILIA-TALDEEN ARABERA. 2008-2016. FAMILIA-ETXEBIZITZEN GAINEKO EHUNEKOA

	IRAUPEN-POBREZIA				METATZE-POBREZIA				BENETAKO POBREZIA			
	2008	2012	2014	2016	2008	2012	2014	2016	2008	2012	2014	2016
BAKARRIK BIZI DIRENAK	10,4	10,4	13,3	10,5	2,2	1,2	1,9	2,7	6,4	6,9	8,0	7,6
SEME-AL. GABEKO BIKOTEA	3,9	5,2	4,2	3,7	0,9	1,2	0,4	0,6	1,9	2,5	2,1	2,2
SEME-AL. DITUEN BIKOTEA	4,4	5,3	7,4	5,5	1,2	1,1	1,9	1,1	3,3	3,7	5,5	4,5
GURASO BAKARREKO FAM.	13,7	19,2	13,9	13,8	4,1	4,7	5,5	3,7	13,2	18,2	12,7	13,4
BESTE FAMILIA-TALDE BAT.	4,8	13,1	14,1	20,6	3,7	0,0	1,4	3,7	6,1	10,1	9,9	15,8
OROTARA	**5,7**	**7,3**	**8,2**	**7,1**	**1,5**	**1,4**	**2,0**	**1,6**	**4,2**	**5,3**	**5,9**	**5,7**

Iturria: EUSKO JAURLARITZAREN datuekin eginikoa. PGDI 2016.

- Familien osaerari dagokionez, 2014an eta 2016an ikusitako hobekuntzarik hoberena pobreziaren jaitsiera da seme-alabarik ez duten bikoteetan, 2008tik etengabe hazi izan zena hain zuzen. Benetako pobreziak behera egin du talde horretan: 2014ko %5,5etik 2016ko %4,5era. Hala ere, pobrezia oraindik askoz handiagoa da guraso bakarreko familietan (horien tasa %13,4 da eta tasa orokorra, berriz, %5,7) eta, gainera, okerrera egin du azken bi urtekoaren aldean. Gainera, datuak (testuari gehitutako IV.1.8. taula) ikusita azpimarratu behar da bakarrik bizi diren pertsonen pobrezia-indizeak oso handiak direla, batik bat mantentze-pobreziari eta benetako pobreziari dagokienez (%10,5 eta %7,6, hurrenez hurren), bi kasu horietan indizeak seme-alabadun eta seme-alabarik gabeko bikoteenak baino askoz handiagoak baitira.

- Sexuaren aldetik, azken biurtekoan behera egin zuen pobreziak, familiako buru gizonak nahiz emakumeak dituzten etxeetan, baina murriztapen hori are nabarmenagoa da familia buru gizonezkoak dituzten etxeetan (-0,6 gizonezkoetan eta -0,4 emakumezkoetan). Gauzak horrela, pobrezia oraindik ere handiagoa da emakumeak familiaburu direneko familietan, eta bien arteko aldeak (%9,9 eta %4) gora egin du, 5,7 puntutik 5,9 puntura.

- Sexuarekin gertatzen ez den bezala, familiako pertsona nagusiaren adina aldagaiak dinamika negatiboa erakusten du oro har, baina ez da hobekuntzarik antzematen benetako pobreziak ezein taldetan duen inpaktuan, adinekoen taldean izan ezik (65 urte eta gehiagokoak); izan ere, berdin eusten dio benetako pobreziaren ratioari, %1,1ekoa baita. Hala eta guztiz ere, gazteenak bizi dira estuen, egoerak hobera egin badu ere. Benetako pobreziaren intzidentziari begiratzen badiogu, ikusiko dugu familia gazteenen tasa %15,3 dela (+%1,7 2014ren aldean), EAEko familiena, oro har, %5,7 den bitartean.[4] 2008aren aldean, adin-talde guztiek gainditu zituzten 2016an urte hartako emaitzak, aipaturiko adinekoen taldean izan ezik, datua puntu erdian hobetuta.

IV.1.4. GRAFIKOA. BENETAKO POBREZIAREN TASAREN BILAKAERA, FAMILIABURUAREN SEXUAREN ARABERA.EAE.



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. PGDI

IV.1.9. TAULA. BENETAKO POBREZIAREN ETA PREKARIETATEAREN BILAKAERA PERTSONA NAGUSIAREN ADINAREN ARABERA 2008-2014. FAMILIA-ETXEBIZITZETAKO BIZTANLERIAREN GAINEKO EHUNEKOA

		< 35	35-44	45-54	55-64	>65	TOTAL
IRAUPEN-POBREZIA	2008	11,8	8,4	3,8	4,8	3,2	5,7
	2012	19,7	10,0	5,3	4,7	4,2	7,3
	2014	15,9	13,1	8,9	6,5	2,1	8,2
	2016	18,3	12,9	6,9	6,3	1,8	7,1
METATZE-POBREZIA	2008	2,7	3,0	0,4	0,7	1,3	1,5
	2012	3,9	1,7	0,8	0,1	1,9	1,4
	2014	3,3	4,5	1,3	0,6	1,0	2,0
	2016	2,6	4,1	1,3	0,5	0,7	1,6
BENETAKO POBREZIA	2008	9,4	7,6	2,6	2,7	1,6	4,2
	2012	18,0	7,4	4,1	2,9	1,7	5,3
	2014	13,6	11,1	5,3	4,0	1,1	5,9
	2016	15,3	11,7	5,8	4,2	1,1	5,7

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. PGDI 2016.

- Familiaburuaren ikasketa-mailari dagokionez, 2014 eta 2016 urte bitartean hobekuntza orokorra ikusten da, salbuespen bakarra dago: oinarrizko ikasketak dituzten familiaburuen kasua. Horien tasa %6tik %6,2ra igaro da. Alabaina, 2008ren aldean aldakuntza txikiena duten taldeetako bat da, 0,8 puntu igota (%5,4 2008an). Igoera orokorra, berriz, 1,5ekoa da (%4,2tik %5,7ra). Pobreziarik txikiena, 2008ko datua gainditzen badu ere, ikasketa maila handia duten familietan gertatzen da (%1,8 2016an).

IV.1.5. GRAFIKOA. BENETAKO POBREZIAREN TASAREN BILAKAERA, FAMILIABURUAREN IKASKETA MAILAREN ARABERA. EAE.



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. PGDI

[4] *Itxuraz kontraesana dago adin-talde guztietan (65 urtetik gorakoetan izan ezik, %1,1ekoari eusten baitio) dagoen bilakaera negatiboaren eta ratio orokorraren %5,9tik %5,7rako jaitsieraren artean, baina bi urteen artean izandako aldakuntza demografikoengatik gertatu da (adinekoek gora egiten dute proportzioan, eta gazteek behera). Guztizkoan haztapenak aldatzeaz gain, benetako pobreziak ukituriko pertsonen taldearen barruan ere egiten du.*

- Bukatzeko, pobreziaren modu ezberdinak, 2016. urtean, askoz handiagoak ziren familiaburu atzerritarrak direneko familietan. Espainiako nazionalitateko familiaburuak dituztenen familietako biztanlerian, benetako pobreziak pixka bat gora egin zuen 2014 eta 2016 bitartean, %4tik %4,1era. Familiaburuak atzerritarrak diren familietan, 2014an ikaragarri joera txarra izan ondoren, 2016an %30,7 zen (2014an baino 5,5 puntu gutxiago). Tasa orokorra, berriz, %5,7 da.

IV.1.6. GRAFIKOA. BENETAKO POBREZIAREN TASAREN BILAKAERA, FAMILIABURUAREN NAZIONALITATEAREN ARABERA EAE.

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. PGDI

1.3. BIZI-BALDINTZEI BURUZKO 2015EKO INKESTAREN EMAITZAK

EINen "Bizi-baldintzei buruzko inkesta" Europar Batasuneko errentari eta bizi-baldintzei buruzko estatistikak (Statistics on income and living conditions, EU-SILC) bateratzeko prozesu baten parte da. Helburu nagusietako bat da pobrezia eta gizarte-bazterketa aztertu ahal izateko informazioa ematea. Alde horretatik, askotariko informazioa ematen du, etxebizitzei buruzko datuak, hain zuzen ere: etxeko gastuak, diru-sarrerak, ekipamendua, egoera ekonomikoa, helduen jarduera, osasuna, osasun-arreta eskuratu ahal izatea, hezkuntza eta datu biografikoak.

1.3.1. Errenta

IV.1.10. TAULA. URTEKO ETXEKO ETA PERTSONAKO ERRENTAREN BILAKAERA (ELKARRIZKETA AURREKO URTEA), AUTONOMIA ERKIDEGOEN ARABERA. 2008-2015. EUROAK

	BATEZ BESTEKO ERRENTA ETXEKO					BATEZ BESTEKO ERRENTA PERTSONAKO				
	2008	2014	2015	Aldak %. 14/15	Aldak. %	2008	2014	2015	Aldak. % 14/15	Ald. % 08/15
ESTATUKO BATEZ BEST.	28.787	26.154	26.092	-0,2	-9,4	10.737	10.391	10.419	0,3	-3,0
ANDALUZIA	25.248	21.332	20.851	-2,3	-17,4	9.007	8.079	7.942	-1,7	-11,8
ARAGOI	29.506	29.120	30.058	3,2	1,9	11.485	12.037	12.427	3,2	8,2
ASTURIAS	29.473	25.623	25.909	1,1	-12,1	11.880	11.251	11.427	1,6	-3,8
BALEARS (ILLES)	28.981	26.923	27.284	1,3	-5,9	11.229	10.660	10.828	1,6	-3,6
U. KANARIARRAK	24.510	21.539	22.261	3,4	-9,2	8.902	8.302	8.640	4,1	-2,9
KANTABRIA	29.576	23.905	25.282	5,8	-14,5	11.232	9.824	10.494	6,8	-6,6
GAZTELA ETA LEON	26.525	24.587	24.838	1,0	-6,4	10.488	10.406	10.570	1,6	0,8
GAZTELA-MANTXA	24.974	22.271	21.939	-1,5	-12,2	9.064	8.545	8.498	-0,6	-6,2
KATALUNIA	32.561	30.407	30.655	0,8	-5,9	12.436	12.205	12.283	0,6	-1,2
VALENTZIAKO ER.	25.802	22.392	22.132	-1,2	-14,2	9.864	9.144	9.098	-0,5	-7,8
EXTREMADURA	21.756	19.364	21.092	8,9	-3,1	8.107	7.729	8.469	9,6	4,5
GALIZIA	25.859	26.001	25.614	-1,5	-0,9	9.482	10.235	10.212	-0,2	7,7
MADRIL	33.889	31.587	31.243	-1,1	-7,8	12.496	12.597	12.534	-0,5	0,3
MURTZIA	26.995	21.269	21.529	1,2	-20,2	9.119	7.767	7.924	2,0	-13,1
NAFARROA	35.370	33.047	32.979	-0,2	-6,8	13.123	13.221	13.300	0,6	1,3
EAE	**36.110**	**34.240**	**33.053**	**-3,5**	**-8,5**	**14.038**	**14.281**	**13.836**	**-3,1**	**-1,4**
ERRIOXA	27.835	26.666	26.604	-0,2	-4,4	10.916	11.120	11.132	0,1	2,0
CEUTA	29.776	30.336	28.280	-6,8	-5,0	8.047	8.712	8.512	-2,3	5,8
MELILLA	33.986	35.741	31.526	-11,8	-7,2	11.065	11.619	10.027	-13,7	-9,4

Iturria: EIN. Bizi-baldintzen Inkesta.

2015eko Inkesta emaitzetan, hauxe nabarmentzen da lehenik eta behin: urtean jasotako batez besteko errenta, EAEn, 33.053 euro zen (aurreko urtean baino %3,5 gutxiago), eta Estatuko batez bestekoa baino %26,7 gehiago, hots, 26.092 euro (%0,2 jaitsi da bertan aurreko urtearen aldean). EAEk 2015ean zuen datua ikusita, lehen tokiari eusten dio autonomia erkidegoen rankingean, eta ondoren Nafarroako Erkidegoa dator (familiako batez besteko diru-sarrera 32.979 euro da). 2008-2015 aldian gertatu dena kontuan hartzen badugu, krisia hasi zenetik, EAEko familiek, batez beste,

errentaren %8,5 galdu zuten. Estatu mailan, berriz, %9,4ko jaitsiera izan zen. Zenbait erkidegotan %17tik gorako jaitsiera izan zen (Andaluzian -%17,4; Murtzian -%20,2); beste batzuetan, aldiz, familien errentak berdintsu eusten zion, edo pixka bat handitu egin zen, Aragoin edo Galizian, adibidez.

Gainera, inkestaren arabera, EAEko pertsona bakoitzaren batez besteko errenta 13.836 euro zen urtean (ez dugu sexuaren araberako informaziorik), aurreko urtean baino %3,1 gutxiago, berriz ere lehen tokian, eta ondoren Nafarroa. Gainera, estatuko batez bestekoa baino %32,8 da (Estatukoak %0,3 egin du gora). 2008. urteari dagokionez, negatiboa izan zen EAEn bakoitzaren batez besteko errentaren bilakaera (-%1,7), eta Estatuko batez bestekoan %3 jaitsi zen.

Rankingaren beste muturrean, bi aldagaietan (familiako eta pertsonako errenta) eta aurreko urteetan bezala, Extremadura, Murtzia, U. Kanariarrak eta Andaluzia erkidegok daude.

1.3.2. Gabezia materiala

1.11. TAULA. ZAILTASUN MATERIALAK DITUZTEN ETA/EDO GASTU BATZUK ORDAINDU EZIN DITUZTEN FAMILIEN PORTZENTAJEA. EAE-ESTATUAREN ARTEKO ERKAKETA. ALDAKUNTZA EHUNEKOETAN.

	EZIN DUTE URTERO GUTXIENEZ ASTEBETEKO OPORRALDIA HARTU		HIL-BUKAERARA HELTZEKO ZAILTASUNAK DITUZTE		ETXEBIZITZA NAGUSIAREN ORDAINKETAK BERANDU EGIN DITUZTE*		USTEKABEKO GASTUAK EZIN DITUZTE ORDAINDU	
	ESTATUA	EAE	ESTATUA	EAE	ESTATUA	EAE	ESTATUA	EAE
2008	34,5	15,8	60,9	44,0	6,0	3,5	29,9	17,7
2012	45,1	23,5	60,9	39,2	8,4	3,2	41,4	19,8
2013	45,8	26,0	65,0	50,4	9,3	5,0	41,0	24,2
2014	45,0	24,6	66,4	50,4	10,2	4,4	42,4	20,5
2015	40,6	20,3	63,1	42,1	9,4	4,6	39,4	18,5
14-15 aldak.	-4,4	-4,3	-3,3	-8,3	-0,8	0,2	-3,0	-2,0
08-15 aldak.	6,1	4,5	2,2	-1,9	3,4	1,1	9,5	0,8

** Etxebizitza nagusiarekin lotutako gastuen ordainketetan (hipoteka edo alokairua; gasaren, erkidegoaren, etab.en ordainagiriak,...) atzerapenak izan dituzte azken 12 hilabeteetan.*
Iturria: EIN. Bizi-baldintzei buruzko Inkesta

Etxeetako bizi-baldintzen eta errenta-mailaren beste adierazle bat hil-bukaerara heltzeko zailtasunak dituzten familien portzentajea da: gure erkidegoan familien %42,1 zegoen egoera horretan 2015ean, eta portzentaje hori aurreko urtekoa baino 8,3 puntu gutxiago da. Estatuko batez bestekoa %63,1 da, eta 3,3 puntu gutxitu da 2014ko datuen aldean. 2008ko egoerarekin erkatuta, zailtasunak %1,9 egin du behera EAEn eta %2,2 egin du gora, batez beste, Estatuan.

Horrez gain, kontuan izan behar da ezen, 2015ean, hil bukaerara iristeko zailtasunak dituztela dioten euskal familien %42,1etik %10ek "zailtasun handiak" ditu (%11,5ek 2014an), % 9,4k "zailtasunak" soilik eta gainerako %22,7ak "nolabaiteko zailtasunak". Banaketa hori estatukoaren antzekoa da, baina zailtasun gehien dituztenen portzentajea handiagoa da, %13,7, hain zuzen ere.

Inkestan, halaber, gastu batzuk ordaindu ezin dituzten etxeen portzentajea kalkulatzen dute:[5] 2015Ean, EAEko etxeen %20,3an ezin zuten urtean astebeteko oporraldirik hartu (estatuan %40,6), eta etxeen %18,5ean ezin zituzten ustekabeko gastuak ordaindu (estatuko batez bestekoa %39,4 da). Ratio horrek ehuneko 2 puntu egin du behera 2014rekin alderatuta.

Europan, 2015ean (EUROSTATeko datuak), familien %39,3k ezin zituen ustekabeko gastuak ordaindu, %37,8k ezin zuen astebeteko oporraldia hartu eta %11,6k hil-bukaera heltzeko arazo handiak zituen. Alde handiak zeuden herrialdeen artean, eta honako hauek nabarmentzen ziren bizi-mailaren beherakada azterturiko adierazle guztietan: Errumania, Irlanda, Grezia, Kroazia, Zipre, Lituania eta Letonia (horietan guztietan, uste gabeko gastuei aurre egiteko zailtasunak dituzten familien %50 edo gehiago ageri dira, esaterako).

Ildo beretik, EUROSTATek "*gabezia materialaren indizea*" definitu du, hain zuzen ere 4.1. atalean aipaturiko gastu bederatzi gastu kontzeptu eta ekipamenduen zerrendatik gutxienez hiru eskuratzerik ez duten familietako pertsonaien ehunekoak emana. Atal horretan, gabezia material "larria" aipatzen da (9tik 4 gutxienez, ikusi 3. orri-oina). Definizio horren arabera, EBko populazioaren %18,5ek ezin zituen baliabideok eskuratu 2014an (ez dugu EBren 2015eko batez besteko daturik, 2013an baino %1 gutxiago), eta alde handiak daude herrialdeen artean, gehienbat Europako kide berrien eta gainerako kideen artean.

IV.1.12. TAULA. EB-KO ETXEEN GABEZIAREN ADIERAZLE NAGUSIA. EAE-REKIKO ERKAKETA. 2014-2015.

	USTEKABEKO GASTUAK EZIN ORDAINTZEA		GABEZIA MATERIALAREN INDIZEA		ETXEA BERO EZIN EDUKITZEA	
	2014	2015	2014	2015	2014	2015
28 EB	38,9	39,3	18,5	:	10,2	:
EBB	36,1	36,4	16,4	:	10,2	:
BELGIKA	24,0	26,0	11,8	11,6	5,4	5,0
BULGARIA	49,6	53,4	46,8	49,1	40,5	39,2
TXEKIAR ERREP.	40,8	36,0	16,5	13,4	6,1	5,0
DANIMARKA	28,5	26,5	7,7	8,0	2,9	3,6
ALEMANIA	32,6	:	11,3	:	4,9	:
ESTONIA	39,1	36,7	15,7	12,8	1,7	2,0
IRLANDA	54,5	:	22,6	:	8,9	:
GREZIA	51,8	53,4	39,5	40,7	32,9	29,2
ESPAINIA	42,4	39,7	17,8	16,5	11,1	10,7
FRANTZIA	33,4	32,8	11,9	:	5,9	5,5
KROAZIA	63,7	59,8	33,8	:	9,7	9,9
ITALIA	38,8	39,9	23,0	:	18,0	17,0
ZIPRE	59,8	60,5	36,5	:	27,5	28,3
LETONIA	67,4	60,4	34,6	29,7	16,8	14,5
LITUANIA	54,7	53,2	28,3	27,3	26,5	31,1
LUXENBURGO	23,8	:	5,0	:	0,6	:
HUNGARIA	76,1	72,2	39,6	34,8	11,2	9,6
MALTA	24,7	:	20,2	:	22,1	:
HOLANDA	23,7	22,7	9,0	8,0	2,6	2,8
AUSTRIA	23,9	22,6	9,4	8,2	3,2	2,6
POLONIA	48,6	42,3	22,2	:	9,0	7,5
PORTUGAL	42,2	40,7	25,7	21,6	28,3	23,8
ERRUMANIA	51,8	51,4	44,0	39,5	12,3	13,1
ESLOVENIA	45,8	42,9	17,2	14,7	5,6	5,6
ESLOVAKIA	38,9	:	22,2	:	6,1	:
FINLANDIA	27,2	28,4	7,9	7,7	1,5	1,7
SUEDIA	16,9	15,8	3,2	2,8	0,8	0,9
ERRESUMA BATUA	38,9	38,4	15,5	14,1	9,4	7,8
EAE	**20,5**	**18,5**	**8,9***	**9,3***	**7,3**	**7,7**

Iturria: Geuk egina EIN eta EUROSTATen datuekin.
****Zenbatespena, zenbait desberdintasun metodologiko baitaude.***

Alde batetik, familien %3-%5 baino ez zegoen egoera horretan Suedian eta Luxenburgon, eta %10 baino gutxiago Europako iparraldeko herrialdeetan eta Holandan. Gabezia materialaren indizea, ordea, %49,1ekoa zen Bulgarian eta %39,5ekoa Errumanian. Espainiak, iturri horren arabera, %16,5eko ratioa du.

EINek, bizi-baldintzei buruzko inkestan, antzeko adierazle bat kalkulatzen du autonomia-erkidegoetarako, eta adierazle horretan zazpi gastu- eta ekipamendu-kontzepturen gabezia hartzen du aintzat. Alde horretatik, EAEko gabezia-indizea %9,3 zen 2015ean (zazpi kontzeptu horietatik gutxienez hiru ez dituzten etxeak), eta estatuko batez bestekoa %15,4 (EUROSTATen indizea %16,5 zen). Beraz, Europako eta Espainiako adierazleak alderagarriak dira, adierazitako zuhurtasunarekin bada ere.

[5] *Kapitulu honetako 2. orri-onean aipaturiko aldagaiak aztertzen dira, EUROSTATen metodologiaren arabera: fakturak garaiz ezin ordaintzea, etxebizitza behar bezala bero ezin mantentzea, ustekabeko gastuei ezin aurre egitea, haragia, arraina edo proteina baliokideak bi egunean behin ezin jatea, urtean astebeteko oporraz ezin gozatzea, autoa, garbigailua, koloreko telebista edo telefonoa (mugikorrak barne) ezin edukitzea.*

Bukatzeko, gabeziaren beste adierazle bat dago, "pobrezia energetikoa" deritzona. Etxebizitza batean pobrezia energetikoa dute gai ez direnean etxeko beharrak asetzeko energia nahikoa ordaintzeko eta/edo etxebizitzako energia-faktura ordaintzeko dirusarreren parte handi bat erabili behar dutenean[6]. Euskal Autonomia Erkidegoan gertakari nahiko berria da, baina krisiaren ondorioz gaur-gaurkoa. Europan, ordea, "fuel poverty" esaten zaiona agenda politikoan dute aspaldidanik hainbat herrialdetan, Erresuma Batuan, Irlandan eta Belgikan, esate baterako.

Europan, EUROSTATen datuen arabera, familien %10,2k ezin zuen 2014an (EBko 2015eko batez bestekoak falta dira) etxea tenperatura egokian mantendu, eta tasa horrek %10aren inguruan egonkor eutsi zion azken urteetan. Iturri horren arabera, balio-aniztasun handia du arazoak: oso balio handiak dira Bulgarian (%39,2) edo Grezian %29,2) esaterako, eta %1etik beherako indizeak Luxenburgon eta Suedian. Estatuan, EBko batez bestekoa baino pixka bat handiagoa da arazo horren intzidentzia, 2015ean %10,7koa hain zuzen ere.

IV.1.13. TAULA. ENERGIA-POBREZIA ESTATUAN: ETXEBIZITZA BERO MANTETZERIK EZ DUTEN ETXEEN EHUNEKOA. 2008-2015.

	2008	2014	2015
ESTATUA, GUZTIRA	6,2	11,1	10,7
ANDALUZIA	8,3	15,8	12,1
ARAGOI	2,8	4,7	5,1
ASTURIAS	4,2	13,7	13,9
U. BALEARRAK	5,1	6,6	7,5
U. KANARIARRAK	3,7	0,2	7,8
KANTABRIA	2,5	8,3	7,9
GAZTELA-MANTXA	3,6	5,8	5,9
GAZTELA ETA LEON	4,7	14,2	14,7
KATALUNIA	5,4	8,7	8,7
VALENTZIAKO ER.	6,0	18,4	17,1
EXTREMADURA	8,8	8,3	9,4
GALIZIA	9,4	16,0	15,4
MADRIL	7,3	8,5	8,8
MURTZIA	9,8	18,5	13,5
NAFARROA	2,8	1,0	2,3
EAE	**3,4**	**7,3**	**7,7**
ERRIOXA	4,1	9,1	7,3
CEUTA	9,8	10,7	22,4
MELILLA	17,7	14,4	17,7

Iturria: EIN. Bizi-baldintzei buruzko Inkesta.

Bestalde, EINen Bizi-baldintzen Inkestak erakusten duenez, 2015ean, euskal familien %7,7k ezin zuen etxea tenperatura egokian mantendu, eta Estatu mailan, berriz, %10,7ko tasa zegoen. Hona hemen erkidego kaltetuenak: Valentziako Erkidegoa (%17,1) eta Galizia (familien %15,4); beste muturrean, berriz, Gaztela eta Leon, Nafarroa eta Aragoi daude (%2,3, eta %5,1 hurrenez hurren). Aurreko urtearen aldean, 4 hamarren hobetu da EAEko datua. Estatuko batez bestekoa, berriz, 4 hamarren da. Eta 2008an gertaturikoa kontuan hartzen badugu, gabezia horren intzidentziak 4,3 egin zuen gora EAEn eta 4,5 Estatuko batez bestekoan.

1.3.3. Kultura kontsumitzeko mugak

2015eko Bizi-baldintzei buruzko Inkestako berariazko modulu gisa, pertsona helduek (16 urtetik gorakoek) zenbait jardueratan duten gizarte partaidetzari buruzko informazioa dago: zinema, antzerkia eta bestelako kultur eta kirol ikuskizunak, edo senideekin, lagunekin, etab. elkartzeko maiztasuna. Bizi-baldintzei buruzko aztergai honetan, badakigu, autonomia erkidegoen arabera, zenbait pertsona heldu ez zirela joan azken urtean kultur eta kirol ekitaldietara, hain zuzen horretarako dirurik ez dutelako. Beraz, horrek agerian uzten du zein muga ekonomikok eragiten dien aisialdiari eta kulturari (ez dugu beste urte batzuetako horrelako informaziorik).

IV.1.14. TAULA. KULTUR EKITALDIAK ORDAINTZERIK EZ DUTELA-ETA AZKEN URTEAN HORRELAKOETAN IZAN EZ DIREN HELDUEN PORTZENTAJEA (> 16 URTE). 2015.

	ZINEMA	ANTZERKIA/ KONTZERTUA	KULTUR INTERESEKO TOKIAK	KIROL EKITALDIAK
ESTATUA, GUZTIRA	14,4	17,3	14,1	13,9
ANDALUZIA	21,0	24,0	20,6	20,9
ARAGOI	6,6	7,5	3,7	4,2
ASTURIAS	10,6	10,9	9,7	7,4
BALEARRAK	16,0	19,1	17,3	15,5
U. KANARIARRAK	20,2	25,3	22,1	20,0
KANTABRIA	11,3	9,9	6,0	4,7
GAZTELA-MANTXA	8,8	10,2	6,6	9,1
GAZTELA ETA LEON	14,9	15,7	16,5	13,0
KATALUNIA	15,3	19,8	16,0	14,8
VALENTZIAKO ER.	12,3	15,4	12,7	12,5
EXTREMADURA	9,1	9,6	7,2	4,4
GALIZIA	8,5	8,0	6,4	5,8
MADRIL	15,4	19,8	14,5	17,8
MURTZIA	15,9	19,4	18,6	15,3
NAFARROA	8,1	9,1	6,2	5,1
EAE	**8,5**	**11,8**	**7,2**	**6,6**
ERRIOXA	8,4	10,6	8,0	6,4
CEUTA	11,2	12,8	10,6	5,9
MELILLA	5,8	4,3	1,9	2,3

Iturria: EIN. Bizi-kalitateari buruzko Inkesta. 2015 modulua.

[6] *Informazio gehiago izateko, irakurri Memoria honen 2014ko edizioa, gai monografikoa dena.*

Hala, 2015ean, EAEko 16 urtetik gorakoen %8,5ek ez zuen dirurik zinemara joateko, %11,8k antzerkira edota kontzertuetara joateko, %7,2k kultur intereseko tokietara eta %6,6 ez zen kirol ekitaldietara joan zio beragatik. Horiek ratio guztiak Estatuko batez bestekoaren azpitik daude, eta autonomia erkidegoetako txikienen artean. Hala eta guztiz ere, zalantzarik gabe, gurea bezalako gizartean "gutxieneko"-tzat jo daitekeen ongizate mailaren beste absentzia bat islatzen dute. Esaterako, EAEko 16 urtetik gorakoen %20 aldian-aldian joaten da horrelako ekitaldietara (eta %25eraino kirol ekitaldietan).

1.4. BENETAKO POBREZIA EAE-N. EUROPAREKIKO ERKAKETA

Azken hamarkadetan, ugaritu egin dira lana duten pertsonen pobrezia egoerak, eta agerian gelditu da, batik bat krisia hasi zenetik, lana ez dela nahikoa pobreziari izuri egiteko. Izan ere, beharrezkotzat jotzen da kalitateko enplegu egonkorra izatea, nahikoa diru-sarrera sortzen dituen enplegua.

Hurrengo atala egiteko, 2016ko Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkestako lehen emaitzak erabili dira, baita aurreko eragiketetako kopuruekiko erkaketa ere. Ondoren, EUROSTATek lan-pobreziari buruz herrialdeka eskaintzen dituen zifra nagusiak emango dira (AROPE tasako taldeen araberako banaketa, adibidez). PGDItik ateratako datuekin ezin konpara badaitezke ere, gaia Europan zelan dagoen jakiteko modua ematen dute.

1.4.1. Lan-pobrezia, Eusko Jaurlaritzaren 2016ko PGDIren emaitzen arabera

Pobrezia eta bazterketa arrisku egoeren intzidentzia aztertzen du PGDIk familiako pertsonen jarduerarekiko erlazioaren arabera. Pobrezia-tasarik handienak, jakina, lanik ezarekin daude lotuta eta, funtsean, lan egiteko moduan diren pertsona guztiak langabe daudeneko familiekin. Benetako pobreziaren tasa[7] 2016an, horrelako kasuetan, %39,1 zen, baina intzidentzia horrek puntu erdian egin zuen behera 2014ren aldean eta ia hamar 2008tik; izan ere, urte horretan langabezian zeuden euskal familietako kideen erdia benetako pobreziaren eraginpean zegoen.

IV.1.15. TAULA. BENETAKO POBREZIAREN INTZIDENTZIA FAMILIA MOTEN ARABERA, FAMILIAKO KIDEEN JARDUERARI DAGOKIONEZ. 2008-2016

	2008	2012	2014	2016
LAN EGONKORRA DUTENAK	1,4	1,1	0,9	1,2
BESTELAKO LAN EGONKORRAK	0,6	0,9	2,5	2,8
LAN EZEGONKORREN BATEKOAK	14,7	17,3	12,7	16,0
GUZTIAK LANGABEZIAN	49,7	37,9	39,6	39,1
LANIK GABEKOAK	5,7	3,1	3,8	4,8
OROTARA	**4,2**	**5,3**	**5,9**	**5,7**

Iturria: Geuk Egina EUSKO JAURLARITZAREN datuekin. PGDI.

Pobrezia-tasarik txikienak lan egonkorrak dituzten (kontratu mugagabea) kideen familietan dago azterturiko serie osoan. Lan egonkorra ez dutenetan (aldi baterako kontratua edo kontraturik gabe), berriz, pobrezia askoz handiagoa da. "lan-pobrezia"-z ari gara. Talde horrek %14,7ko pobrezia-tasa zuen 2008an, eta %17,3raino handitu zen 2012an. 2014ko %12,7ko datua hobekuntza izan zen, baina 2016ko azken datua ikusita, egoerak okerrera egin du, %3,3 gehiago, %16raino iritsita.

[7] *Benetako pobreziak ez ditu kontuan hartzen iraupen-pobreziarekin eta metatze-pobreziarekin loturikoak, eta halako egoera izango dugu zenbait arlotan bizimodu erosoa nahikoa ez denean besteetan dauden gabeziak konpentsatzeko. Informazio gehiago nahi izanez gero, ikusi kapitulu honetako 1.2. artikulua.*

Kontuan izan behar da, gainera, pobrezia egoerak familietan lanarekiko duten erlazioaren arabera banatzean (ikusi IV.1.7. grafikoa) hauxe gertatu dela: 2014-2016 bi urtekoan, langabeziaren kategoriako pertsonak (2014an pobrezia egoeren %50etik gora ziren eta %38,1eraino jaitsi da) lan ezegonkorreko egoeretara igaro direla. Azken horretan igoera nabarmena izan da, %15,3tik %27,2ra hain zuzen. Neurri txikiagoa bada ere, gora egin du lan egonkorra duten familiakideen pobreziaren intzidentziak (familia pobreen %16,3tik %19,8ra, inkestak azterturiko lan egonkorrari buruzko bi kategoriak batuta).

IV.1.7. GRAFIKOA. BENETAKO POBREIAREN EGOEREN BANAKETAREN BILAKAERA, ETXEKO JARDUERAREKIKO ERLAZIOAREN GAINEAN. EAE.



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. PGDI

IV.1.16. TAULA. BENETAKO ONGIZATERIK EZA, BERE KIDEEN JARDUERAREKIKO. ERLAZIOAN. 2008-2016

	2008	2012	2014	2016
LAN EGONKORRA DUTENAK	4,0	3,2	2,7	3,2
LAN EGONKORREKO BESTE KASUAK	5,3	4,6	9,6	8,4
LAN EZEGONKORREN BAT	22,3	32,9	27,4	28,7
LANGABEZIAN GUZTIAK	61,2	49,3	54,2	53,0
LANEAN ARI EZ DIRENAK	10,1	7,8	9,3	9,7
GUZTIRA	**8,2**	**10,1**	**11,5**	**10,8**

Iturria: Geuk egina, EUSKO JAURLARITZAREN datuekin. PGDI.

2008ren aldean, zenbait aldaketa ikusten dira pobreziaren banaketan. Pobreen artean, kide guztiak langabe dituztenen igoera nabarmentzen da (2008ko %26,2tik 2016ko %38,1era, arestian esana dugunez hobetzeko joera badago ere). Aldi berean, txikiagoa da lan ezegonkorrak dituzten familien intzidentzia (%31,6tik %27,2ra, baina esana dugunez, azken biurtekoan gora egin du pisuak). Bestalde, ia ez da aldatu lan egonkorrekin loturiko kategorien batura, zeren eta 2008ko %20,2tik 2016ko %19,8ra igaro baita.

Gainera, benetako ongizaterik ez dagoen egoera multzoa aztertuz gero (pobreziarekin loturikoak barne), aldeak berriz ere nabarmenak dira lan egonkorra izatearen edo ez izatearen arabera, eta benetako ongizaterik ezaren tasa %28,7 da lan egonkorrik ez duten familietan. %3,2 eta %8,4, berriz, lan egonkorra duten familietan (ongizaterik ezaren batez besteko orokorra %10,8 da).

Lan ezegonkorra duten biztanleen familien benetako ongizaterik eza 2016an (%28,7) 2012ko %32,9koa baino txikiagoa da, eta askoaz gainditzen ditu 2008ko datuak (%22,3) eta, neurri txikiagoan, 2014koak (%27,4).

1.4.2. Europako erkaketa EUROSTATen datuekin (AROPE)

EUROSTATek, AROPE tasaren azterketaren baitan, lan-pobreziaren bilakaera aztertzen du, aintzat hartzen baitu langileen pobrezia eta bazterketa arriskuaren intzidentzia ("*in-work-at-risk-of-povertyrate*" deritzona). EAE mailako horrelako informaziorik ez badago ere, interesgarri irizten zaio EBko estatu kideetan dauden zifra orokorrak jakiteari eta krisia hasi zenetik izandako bilakaera aztertzeari. Horretarako, 18 urtetik gorakoen pobrezia eta bazterketa arriskuaren batez besteko zifrak emango dira[8], eta lana duten biztanleenarekin erkatuko dira, betiere lan finkoa eta aldi baterako lana bereiziz. Aurreko epigrafean ikusi dugu, funtsean, zelakoa den banakapen hori.

Batez beste, 2015ean EB bizi ziren 18 urte eta gehiago dituztenen %22,9k pobrezia eta gizarte bazterketa izateko arriskua du, eta ratio horri ia aldatu barik eutsi zaio krisia hasi zenetik (%23koa 2008an). Espainian, berriz, aldaketa izan da, bai: 2008an %22,3ko tasa zegoen eta 2015ean %27,4raino igo da eta, beraz, EBko batez bestekoa gainditu du. Lana duten talde zehatza kontuan hartzen badugu, pobrezia eta bazterketa arriskuaren intzidentzia erdira murrizten da. 2015eko datuei erreparatuta, EBko tasa %12,5 da (tasa orokorra, berriz, %22,9), eta %15,6koa Espainian (%27,4 18 urtetik gorako guztietan).

[8] *Datu orokorrak ez datoz bat kapitulu honetako 1.1. atalean azterturikoekin, zeren eta kasu hartan guztizko AROPE tasa baitziren (biztanleria osoa). Orain, berriz, 18 urtetik gorakoak aztertzen dira, hain zuzen EUROSTATek aintzat hartuta laneko pobreziaren azterketa egiteko.*

Hala ere, lan finkoa duten pertsonak eta aldi baterakoa dutenak bereizi beharra dago pobreziaren intzidentzian, AROPE irizpideen arabera betiere: lan finkoa dutenen artean, nabarmen egin du behera tasak, EBko batez bestekoan (%5,7) nahiz Espainiakoan (%5,9) eta EBko gainerako herrialdeetan. Alabaina, pobrezia eta bazterketa arriskua askoz handiagoa da aldi baterako lana duten pertsonen artean: %15,7 EB osoan; %23,3 Espainian. Ratio horiek, sarritan, intzidentziaren tasa orokorretara hurbiltzen dira. Zenbaitetan berdindu egiten da, Suedian adibidez, edo beste herrialde batzuetan gainditu egiten da, esaterako Estonian, Luxenburgon edo Hungarian. Oro har, gainera, aldi baterako lana dutenen AROPE tasa handitu egin da Batasuneko herrialderik gehienetan.

IV.1.17. TAULA. POBREZIA EDO GIZARTE BAZTERKETA ARRISKUAN DAUDEN EB-KO BIZTANELAK, LANAREKIKO ERLAZIOAN. "EUROPA 2020 ESTRATEGIA"-REN IRIZPIDEAK (AROPE TASA). 18 URTE ETA GEHIAGOKOAK.

	2008				2015*			
	TASA OROKORRA	LANDUNAK			TASA OROKORRA	LANDUNAK		
		GUZTIRA	LAN. FINK.	ALDIB. LANA		GUZT.	LAN FINK.	ALDIB. LANA
28KO EB	23,0	12,5	5,1	15,2	22,9	12,5	5,7	15,7
BELGIKA	20,6	6,8	2,9	11,0	20,4	6,1	2,6	10,4
BULGARIA	44,6	27,7	6,0	18,9	40,7	24,4	5,5	24,7
TXEKIAR ER.	14,5	7,0	2,4	6,4	13,0	6,3	2,5	7,9
DANIMARKA	17,2	5,7	3,3	:	18,2	6,7	3,6	9,8
ALEMANIA	20,1	9,1	5,8	14,8	20,2	10,1	7,5	18,1
ESTONIA	22,5	8,9	5,8	4,7	24,7	11,5	7,1	25,7
IRLANDA	22,5	8,8	3,2	12,0	24,9	8,2	2,9	12,7
GREZIA	27,8	18,7	5,1	16,0	34,9	22,4	4,7	15,8
ESPAINIA	22,3	12,9	6,0	21,2	27,4	15,6	5,9	23,3
FRANTZIA	17,6	9,6	4,0	14,2	16,4	9,4	4,7	13,2
KROAZIA	:	:	:	:	29,3	11,8	4,2	8,3
ITALIA	24,9	12,3	6,1	15,5	27,6	16,7	7,8	19,1
ZIPRE	23,8	12,3	5,0	16,9	28,8	18,5	6,6	27,3
LETONIA	34,5	18,7	9,1	18,4	30,7	16,3	7,3	26,7
LITUANIA	28,0	14,0	6,9	13,5	28,7	14,5	7,6	20,6
LUXENBURGO	13,9	9,7	8,9	15,0	17,2	12,2	9,5	23,1
HUNGARIA	26,9	16,8	3,7	14,1	26,2	18,7	6,4	32,0
MALTA	18,9	7,2	4,2	5,3	21,3	9,4	4,6	3,2
HERBEHEREAK	14,1	5,4	3,1	4,5	16,1	6,1	3,3	9,9
AUSTRIA	20,0	11,2	6,9	17,7	17,4	9,3	6,8	12,3
POLONIA	30,1	20,6	5,5	12,9	22,7	14,4	5,6	10,8
PORTUGAL	25,0	17,0	6,9	10,8	26,0	14,8	6,5	13,3
ERRUMANIA	42,4	34,3	4,7	21,8	35,1	27,9	5,1	12,1
ESLOVENIA	19,2	9,3	3,3	8,8	19,7	9,6	4,5	12,5
ESLOVAKIA	19,7	12,4	4,7	10,7	17,0	9,9	2,6	7,6
FINLANDIA	18,0	6,3	2,6	9,9	17,3	4,2	1,8	5,3
SUEDIA	14,8	7,4	4,4	12,7	16,3	7,3	4,7	16,5
ERRESUMA B.	22,0	10,2	:	:	21,7	10,4	5,1	7,3

Iturria: Geuk egina, EUROSTATen datuekin egina.
*** 2015eko datuak behin-behinekoak dira.*

IV.1.8. GRAFIKOA. POBREZIA ARRISKUA ALDI BATERAKO ENPLEGUAN, SEXUAREN ARABERA: AROPE TASA ALDI BATERAKO LANA DUTEN PERTSONEN ARTEAN, ESPAINIAN ETA EB-N. 2008-2015 ALDERAKETA.



Iturria: EUROSTAT. Geuk egina

Horrez gain, EUROSTATek datu horiek sexuaren arabera banakatzea ahalbidetzen du: Aldi baterako lana duten pertsonen taldean, EB osoan nahiz Espainian eta EBko gainerako estaturik gehienetan, pobrezia eta gizarte bazterketaren arriskua handiagoa da gizonen artean emakumeen artean baino.

2015ean, pobrezia eta bazterketa arriskua %16,5 zen aldi baterako lanetan gizonetan EB osoan. Emakumezkoena, berriz, %14,8 zen (%15,7 guztira). Estatuan, erlazio berdina dute kopuruek: %26 gizonezkoetan eta %20,8 emakumezkoetan. Baina gizonezkoen eta emakumezkoen arteko aldea txikitu egin da EB osoan (2008ko 2,5etik 2015eko 1,7ra). Espainian, berriz, gora egin du (3,9tik 5,2ra), krisiaren ondorioz arazo horiek gizonen artean eragin handiagoa izan baitute (%3 handiagoa).

1.5. HIPOTEKA-BETEARAZPENAK[9]

Krisiak bizi-baldintzetan duen eraginetako bat da gastuak (batik bat hipotekak) ezin ordaintzeagatik etxebizitza galtzen duten familien kopuruak gora egiten duela. Gertakari dramatiko horri buruzko informazioa biltzeko, nahikoa dugu hipoteka-betearazpenen eta jabe-botatze juridikoen kopuruaren bilakaerari begiratzea[10].

Hau da EINen hipoteka-betearazpenaren gaineko definizioa: "*Betearazpen-prozesu bat, zeinaren bidez agintzen den hipoteka batekin kargatutako ondasun higiezin bat saltzea, zordunak hipotekak bermatutako obligazioak bete ez dituelako. Araututako prozedura bat da, eta ordaindu gabeko zorrak ordaintze aldera ondasun higiezinaren balioa diru bihurtzea du helburu; hori, normalean, enkante publiko bidez egiten da*"[11]. Komeni da azpimarratzea jabeak ez direla hasten diren betearazpen guztietan botatzen eta prozedura judizialek hipoteka-betearazpenengatiko hainbat ziurtagiri egiteko aukera ematen duela. Gainera, hipoteka-betearazpen horiek pertsona fisiko eta juridikoen hiri-finkapenak dira (etxebizitzak, orubeak eta abar barne).

IV.1.9. GRAFIKOA. HIPOTEKA-BETEARAZPENEN KOPURUAREN ETA ESTATU OSOAREKIKO DUEN PISUAREN BILAKAERA EAE-N, 2007-2015



Iturria: ETXEBIDE, PGDIren datuekin

IV.1.10. GRAFIKOA. HIPOTEKA-BETEARAZPENEN ALDAKUNTZA-TASEN BILAKAERA. EAE-ESTATUA.



Iturria: ETXEBIDE, PGDIren datuekin

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitzaren Behatokiak EAEn aurkezturiko[12] hipoteka-betearazpenen bilakaerari buruzko txostena egin zuen 2016an, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren datuak dituena. Txosten horrek agerian uzten duenez, 2015ean guztira 711 betearazpen erregistratu ziren, hots, aurreko urtean baino %8,8 gutxiago. Izan ere, 2010etik beheranzko joera ikusten da horrelako prozeduretan, hain zuzen ere 2009an betearazpen kopururik handiena erregistratu zenetik, guztira 1.255, 2013an baino %35 gehiago.

Antzeko egoera da Estatuan, non hipoteka-betearazpenen kopurua gutxituz joan den, hasieran tasa txikiagoekin (-%9,8 2013an 2012ren aldean), baina 2014 eta 2015 urte bitartean, handiagoa izan zen jaitsiera EAEn baino (-%4,5 eta -%15,6 hurrenez hurren). EAEko betearazpenen kopuruak Estatuko guztizko kopuruarekiko duen pisu erlatiboak %1,7 egin du behera, 2007ko %1,7tik azken urteetako %1era.

---

[9] *Epigrafe honek EAEko 2014eko Memoria Sozioekonomikoan hipoteka-betearazpenei buruz eginiko analista eguneratzen du.*

[10] *EGABek, 2014. urtean egindako "EAEko familien gehiegizko zorra: analisia" azterlanean, zehazki "Familien gehiegizko zorraren ondorioak" atalean, 2004-2012 aldiko estatuko eta EAEko hipoteka-betearazpenen bilakaera aztertu du:*
http://www.cesegab.com/Portals/0/Libros/20140327_El%20sobreendeudamiento%20familiar.pdf

[11] *EIN: Hipoteka-betearazpenei buruzko estatistika. Metodologia.*

[12] *Aurkezturiko betearazpenak aztertzen badira eta ez ebatzitakoak, zeren eta ez baitakigu zein neurritan eragiten dio 2012an sartutako moratoriak betearazpenen ebazpen-tasari, berez aldakorra izanda.*

IV.1.18. TAULA. HIPOTEKA-BETEARAZPENEI BURUZKO ESTATISTIKA: EMAITZA NAGUSIAK. 2015-2016.								
	2015			2016			Aldak. %. 2015/16	
	FINKAK GUZT.	ETXEBIZ.	ETXEB. % FINKEN G.	FINKAK, GUZT.	ETXEBIZ.	ETXEB. % FINKEN G.	FINKAK GUZT.	ETXEBIZ.
ESTATUA, GUZTIRA	102.477	60.032	58,6	72.941	41.129	56,4	-28,8	-31,5
ANDALUZIA	28.251	16.246	57,5	20.611	11.581	56,2	-27,0	-28,7
ARAGOI	2.315	1.287	55,6	1.441	929	64,5	-37,8	-27,8
ASTURIAS	1.083	603	55,7	745	395	53,0	-31,2	-34,5
BALEARRAK	2.408	1.328	55,1	1.418	761	53,7	-41,1	-42,7
U. KANARIARRAK	5.001	3.021	60,4	3.668	1.952	53,2	-26,7	-35,4
KANTABRIA	771	405	52,5	629	340	54,1	-18,4	-16,0
GAZTELA-MANTXA	4.883	2.548	52,2	2.835	1.521	53,7	-41,9	-40,3
GAZTELA ETA LEON	4.403	1.907	43,3	2.565	987	38,5	-41,7	-48,2
KATALUNIA	16.464	11.110	67,5	11.195	6.959	62,2	-32,0	-37,4
CEUTA	29	17	58,6	14	11	78,6	-51,7	-35,3
VALENTZIAKO E.	17.539	10.714	61,1	12.769	7.638	59,8	-27,2	-28,7
EXTREMADURA	1.578	828	52,5	893	490	54,9	-43,4	-40,8
GALIZIA	2.570	1.226	47,7	1.564	727	46,5	-39,1	-40,7
MADRIL	6.372	4.250	66,7	5.958	3.498	58,7	-6,5	-17,7
MELILLA	38	21	55,3	39	30	76,9	2,6	42,9
MURTZIA	6.972	3.612	51,8	4.893	2.582	52,8	-29,8	-28,5
NAFARROA	567	340	60,0	564	233	41,3	-0,5	-31,5
EAE	**694**	**297**	**42,8**	**520**	**214**	**41,2**	**-25,1**	**-27,9**
- Araba	213	51	23,9	160	57	35,6	-24,9	11,8
- Bizkaia	298	163	54,7	151	89	58,9	-49,3	-45,4
- Gipuzkoa	183	83	45,4	209	68	32,5	14,2	-18,1
ERRIOXA	539	272	50,5	620	284	45,8	15,0	4,4

Iturria: EIN. Hipoteka-betearazpenei buruzko inkesta. Geuk eginikoa.

Bestalde, estatistika-eragiketa berriari ekin zion EINek 2014an, horrelako prozedurak aztertzeko, zeren eta ordura arte askotarikoak eta ez oso zehatzak baitziren gertaera horri buruzko estatistika-iturriak. "*Hipoteka-betearazpenen estatistika*" da, eta horren xedea da Jabetzaren Erregistroan landa eta hiri finka guztien inguruan hasitako eta inskribaturiko hipoteka-betearazpenen gaineko egiaztagirien kopurua eskaintzea. Estatistika berriak landa finkak eta hiri finkak bereizten ditu, eta hirikoen artean, zehazki etxebizitzari dagozkionak.

EAEn 2016an etxebizitzen gainean 214 hipoteka-betearazpen egin ziren (-%27,9 2015en aldean). Estatuan, berriz, 40.000 izan ziren guztira, eta maila oso desberdinak dira autonomia erkidegoen arabera: gure erkidegoan estatuko hipoteka-betearazpenen %0,5 egin zen, Andaluzian %28,2 eta Valentzian %18,6. Lurraldez lurralde, betearazpen gehienak Bizkaian izan ziren (89 2016an), eta ondoren Gipuzkoan (68) eta Araban (etxebizitzen gaineko 57 hipoteka-betearazpen 2016an).

IV.1.19. TAULA. ETXEBIZINTZEN GAINEK HIPOTEKA-BETEARAZPENEN ESTATISTIKA: EAE-ESTATUAREN ARTEKO ERKAKETA. 2015-2016.					
	2015		2016		Aldak. % 2015/16
	Abs.	% b.	Abs.	% b.	
TITULAR. ARAB.					
ESTATUA, GUZT.	60.032	100,0	41.129	100,0	-31,5
-P. fisikoa	39.151	65,2	26.954	65,5	-31,2
-P. juridikoa	20.881	34,8	14.175	24,5	-32,1
EAE	**297**	**100,0**	**214**	**100,0**	**-27,9**
-P. fisikoa	261	87,9	176	82,2	-32,6
-P. juridikoa	36	12,1	38	17,8	5,6
BIGARREN MOTA					
ESTATUA, GUZT.	60.032	100,0	41.129	100,0	-31,5
-E. berria	8.056	13,4	5.403	13,1	-32,9
-Bigarren eskukoa	51.976	86,6	35.726	86,9	-31,3
EAE	**297**	**100,0**	**214**	**100,0**	**-27,9**
-E. berria	8	2,7	5	2,3	-37,5
-Bigarren eskukoa	289	97,3	209	97,7	-27,7

Iturria: ENren datuekin eginikoa. Hipoteka-betearazpenen estatistika.

Behin-behineko datuen arabera, gure erkidegoan era guztietako finken gainean egiten diren hipoteka-214 betearazpenen egiaztagirien %43 etxebizitzei dagokie. Estatuan, ratio hori %56,4 da. Gainera, estatistika berriaren bidez jakin daiteke hipoteka-betearazpena duten etxebizitzak berriak ala bigarren eskukoak diren eta titularrak pertsona fisikoak edo juridikoak diren.

2016an, EAEn erregistraturiko etxebizitzen 214 betearazpenetatik bakarrik 5 (%2,3) dagokie etxebizitza berriei eta 209 (%97,7) bigarren eskuko etxebizitzei. Estatu osoko ratioak, urte berean, %13,1 eta %86,9 dira hurrenez hurren. Halaber, betearazpen-prozesuaren xedeko etxebizitzaren titulartasunari dagokionez, EAEn %82,2 pertsona fisikoei dagokie eta gainerako %17,8a juridikoei. Autonomia erkidegoetan, berriz, %65,5 eta %24,5 dira.

EAEn, aurreko urtearen aldean, gora egin dute modalitate guztiek, pertsona juridikoen jabetzapeko etxebizitzen gaineko betearazpenek izan ezik (+%5,6, baina betearazpenen %17,8 dira), eta bereziki etxebizitza berrien gaineko betearazpenek -%37,5).

Hipoteka-betearazpena egin eta zenbait hilabete igaro ondoren, higiezinaren desjabetzea etorriko litzateke, zeinen bidez higiezinaren jabetza kentzen zaion pertsona bati, epaileak emandako ebazpena betearazteko. Etxegabetze deritzo prozesu horri, baina termino hori ez da zuzena, zeren eta etxegabetzea soilik alokairu edo errentamendu kasuei baitagokie.

Etxebizitzaren Behatokiak, lehen esandako txostenean, desjabetzeen kopuruan 2008 eta 2015 bitartean izandako bilakaera bildu du, eta nabarmentzekoa da 2015ean, 2013tik 2014ra igoera txikia izan ostean (+%6,2), gutxitu egin direla aurreko urtearen aldean, hain zuzen ere 1.989tik 1.922ra (-%3,4). Estatuko joera orokorra, berriz igotzekoa da, %0,6, guztira 69.631 desjabetze. Lurraldez lurralde, EAEko desjabetze gehienak Bizkaian gertatu dira (1.173 2015ean), ondoren Araban (486) eta Gipuzkoan (263).

IV.1.11. GRAFIKOA. EPAILEEN ABIARAZTEEN URTEKO KOPURUAREN BILAKAERA EAE-N. 2008-2015



Iturria: ETXEBIDE, BJKNren datuekin

IV.1.12. GRAFIKOA. EAE-N 2015EAN IZANDAKO EPAILEEN ABIARAZTEEN BANAKETA EHUNEKOETAN, KAUSAREN ARABERA



Iturria: ETXEBIDE, BJKNren datuekin

EAEn azken hiru urtekoan, grafikoan ikusten denez, badirudi joera aldaketa dagoela 2008 eta 2012 bitartean epaileak agindutako desjabetzeen igoera nabarmenean. Izan ere, aldi horretan gora egin zuten, 1.209 desjabetzetik 2.524ra desjabetzera. Bilakaera horrek eragina du seguru asko 2012an sartutako bi urteko luzamenduan[13], eta beraz, galarazi egiten du, momentuz, zifren balorazio sakonagoa egitea.

[13] *Hipoteka-zordunen babes indartzeko premiazko neurri buruzko azaroaren 15eko 27/2012 Errege Dekretu-Legearen bidez, 2 urteko luzamendua onartu da epailearen aginduetan, etxea galtzen duten familien gizarte drama zelanbait arintzeko.*

Bestalde, BJKNek emandako argibideei esker, eginiko desjabetzeak banatu egin daitezke hipoteka-betearazpenak izan edo Hiriko Errentamenduei buruzko Legearen ondoriozko prozedurak izan. 2015ean, EAEko desjabetzeen %65,2 Errentamendu Legeari zegokien eta %23,4 hipoteka-betearazpenei. Estatuan, berriz, %53 eta %43,4 izan ziren.

IV.1.13. GRAFIKOA. ORDAINEAN EMATEA AUTONOMIA ERKIDEGOEN ARABERA. 2015



Iturria: Etxebizitzaren Euskal Behatokia, Jabetzaren Erregistratzaileen Elkargoaren datuekin

Azkenik, Etxebizitzaren Behatokiak 2015eko berrikuntza legez nabarmentzen du Jabetzaren Erregistratzaileen Elkargoaren Urtekarian Estatuko ordainean emateei buruzko informazioa ematen du: Hipotekaturiko etxebizitzaren zordunari eskualdatzea dakar zor den zenbatekoa osorik ordaintzeko era den aldetik eta, beraz, zordunaren zorra kitatu egiten da. Eskualdaketa hori bi alderdien artean hitzartzen da ondoren Jabetzaren Erregistroan inskribaturiko eskritura publikoaren bidez. Estatuan, 12.614 ordainean emate izan ziren 2015ean. EAEn, 86 izan ziren orotara, hots, Estatuko guztien %0,7, Katalunian edo Andaluzian erregistraturiko urteko 3.000 ordainean emateen oso azpitik. Izan ere, bi erkidego horien artean Estatuko ordainean emate guztien %51,4 metatu zuten.

1.6. FAMILIAK ETA LAN-BIZITZA, BIZITZA PERTSONALA ETA FAMILIA UZTARTZEA

EAEko familia-sistemen tipologia asko aldatu da azken hamarkadetan, demografia, gizarte eta kultura prozesuen ondorioz. Aldaketarik nabarmenen artean, honako hauek daude: familia moten aniztasun handiagoa, familien batez besteko tamaina txikiagoa, familia horietako erreferentziako pertsonen profilaren aldaketa garrantzitsuak, adingabeek familietan duten proportzio txikiagoa eta mendetasun egoeren igoera. Guraso bakarreko familiek duten gizarte errealitateko mendetasun eta mantentze egoerek gora egin dute, beheranzko joera badago ere.

EINen "Familien etengabeko inkestak" erakusten duenez, EAEk guztira 895.400 familia (azken datua) zituen 2015ean (Estatuko familien % 4,9), eta horietatik %32,4 eurekin bizi diren bikoteekin daude osatuta, %26,8 pertsona bakarrekoak dira eta %22,7 seme-alabarik gabeko bikoteak dira. Batez besteko tamaina 2,39 pertsona da familiako, Estatuko 2,51ekoa baino txikiagoa.

Aldaketak gorabehera, familiak pertsonen bizitzaren ardatza izateari eusten dio. Eusko Jaurlaritzaren Ikerketa Soziologikoko Kabinetearen 2012ko edizioko "*Familia EAEn*" txostenak erakusten zuenez, elkarrizketaturiko pertsonen %96k uste zuen familia oso edo nahikoa garrantzitsua dela, beste alderdi batzuen gainetik adibidez aisialdia (%93), lagunak (%92) edo lana (%91).

Horrez gain, gehienek uste dute familia aurreko garaietan bezain garrantzitsua dela (elkarrizketatuen %47), edo are garrantzitsuagoa (%15).

2016ko datuak baliatuz, 62. Euskal Soziometroak nabarmentzen du (horren bidez Ikerketa Soziologikoko Kabineteak 2012ko eta 2014ko inkesten emaitzak eguneratu ditu "*Familia EAEn*" izenburupean) euskaldunen %91 oso pozik edo nahikoa pozik dagoela bere familiako kideen arteko maitasunezko erlazioetan, %84 familia ikusteko maiztasunarekin eta %79 jarduerak partekatzeko maiztasunarekin. Horrez gain, familia giroan gehien azpimarratzen diren balioak maitasuna (inkestaturikoen %68), begirunea (%57) eta komunikazioa (%38) dira, askotariko erantzunak emateko aukera duen galdera batean.

GRÁFICO IV.1.14. FAMILIA-BIZITZAREN HAINBAT ALDERDIREKIKO ASEBETETASUNA. EAE. 2016



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. 62. Euskal Soziometroa (Familia) 2016

Bestalde, eta aurreko inkesten ildotik, elkarrizketaturiko pertsona gehienek zioten 2016an nahiko lituzketen baino seme-alaba gutxiago dituztela (%51), baina, jakina, pertsonaren adinaren araberakoa da neurri handi batean erantzuna (30 urtetik beherakoen artean %81, 30 eta 45 urte bitartekoen artean %61 eta 46 eta 64 urte bitartekoetan %37). Badira zioak seme-alaba gehiago izateko, oraindik ez izan arren seme-alabak espero direneko kasua alde batera utzita (%41): arrazoi ekonomikoak (%22) eta lana eta familia uztartzeko zailtasunak (%5), baita bestelakoak ere: osasuna, adina, bikotekiderik ez izatea, etab.

IV.1.15. GRAFIKOA. "USTE AL DUZU ETORKIZUNEAN BESTE SEME-ALABA BAT IZANGO DUZULA?" EAE. HAINBAT URTE



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. 62. Euskal Behatokia (Familia). 2016
**Ikusi galdera aldaketari buruzko 10. orri-oina.*

Etorkizunean gurasoak izateari dagokionez, nabarmen hobetu da etorkizunean seguru asko seme-alabak izango dituztela dioten elkarrizketatuen portzentajea hobetu egin da 2012ko inkestarekiko, hain zuzen ere %11tik %20ra (berdin mantendu da 2014arekiko). Horrez gain, seme-alabarik izango ez dutela segurtasun osoarekin adierazten dutenen kopuruak behera egin du azken biurtekoan, %65etik %55era, eta are gehiago 2012ko %77tik. [14].

1.6.1. Uztartzeko beharrak

Azken urteotan, familian izandako eraldaketek eta ugalkortasun-tasetan izan duten inpaktuak interes publiko handiagoa piztu dute, horrek dakartzan ondorioak direla medio. Seme-alabak izateko adinik ugarienak eta lanean sartzeko eta promozionatzeko adinak bat datozenez gero, emakume gazteak oso egoera zailean daude seme-alabak izateko erabakia hartzeari begira. Ama izan nahi duten gehienek amatasuna lanarekin bateratu nahi izaten dute eta geroz eta gehiago dira bikoteko bi kideek lan egiten duten eta 15 urte baino gutxiagoko seme-alabak dituzten familiak.

[14] *Kontuan izan behar da, hala ere, galdera pixka bat aldatu da 2016an 2012ko eta 2014ko inkesten aldean. Izan ere, hauxe galdetzen zen: "Seme-alabarik izango duzun ala ez aintzat hartu barik, etorkizunean seme-alabarik izateko asmorik duzu?".*

Inguruabar horiek arazo berriak ekarri dituzte elkarbizitza unitateen barruan, ordaindutako lana eta familiaren zaintza bateratzeko beharrizanen inguruan. Lanaren eta familia bizitzaren arteko gatazka une bitan areagotzen da: haurrak txikiak direnean, baina gero eta sarriago, mendeko adinekoei arreta eman behar zaienean ere bai. Hori dela-eta, herritarrek euren familia bizitza eta norberaren konpromisoak eta lana bateratu ahal izatea gizarte politikari buruzko eztabaidaren ardatzetako bat bihurtu da.

Ildo horretan, Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak eginiko 2014ko[15], "Gizarte Zerbitzuen Beharren Inkesta" (GZBI), aurreko inkestekin erkatuta, nahi den seme-alaba kopurua izateko posibilitatearekin lotutako arazoek gora egin dutela antzeman du (inkestan "ugalkortasun arazoak" deritzena), ekonomiaren eta lanaren aldetik dagoen egoeratik eta seme-alabak zaintzeko zailtasunengatik. 2014. urtean, EAEko familien %5,6k adierazi zuen ezin zuela eduki nahi duen seme-alaba kopurua, hots, ia 50.000 familia (49,358); 2010ean, berriz, %5,1 zen. 2014ko proportzio hori, ordea, ez da iristen 2006ko Inkestan izandako zenbakietara: orduan %6,2 izan zen.

Halaber, laneko eskubideen eta uztartzearen arloan, honako hauek ikus daitezke:

- Elkarrizketaturiko pertsonen %62k ez du malgutasunik izan laneko ordutegiak egokitzeko seme-alabak zaintze aldera. %37k, berriz, aukera hori izan du.
- %84k lanaldia murriztu du edo lanaldi partzialeko kontratua eduki du seme-alabak zaindu ahal izateko; %15ek, berriz, ez du hala egin.
- %12k lan egiteari behin betiko utzi behar izan dio seme-alabak zaintzeko.
- Elkarrizketaturiko pertsonen %4k besterik ez du baliatu urtebeteko eszedentzia edo luzeagoa seme-alabak zaintzeko.

IV.1.16. GRAFIKOA. AMATASUNA/AITATASUNA IBILBIDE PROFESIONALERAKO OZTOPOOA DEN ALDETIK. EAE, HAINBAT URTE



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. 62 Euskal Soziometroa (Familia). 2016

2016ko Soziometroaren emaitzetara itzulita, elkarrizketaturikoen %44k uste du seme-alabak izateak nahikoa oztopatzen duela emakumearen ibilbide profesionala (%45ek 2014an), eta %26k "asko" oztopatzen duela deritzo (%22k 2014an). Aitzitik, gizonezkoen artean, galdetutako pertsonen % 13k baino ez du nahiko oztoporik edo oztopo askorik ikusten ibilbide profesionalean seme-alabak izateagatik (% 14en iritzia 2012. urtean egindako inkestan).

[15] *Inkestaren emaitzei buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, irakurri 2015eko Memoria Sozioekonomikoa.*

EAEn bizi diren landun familiek lana eta familia eta bizitza pertsonala bateratzeko dituzten posibilitateak ikertzen ditu EUSTATek 2010. urtetik, hain zuzen "*Lana eta bizitza pertsonala eta familia bateratzeari buruzko inkesta*" erabiliz (LBI). 2015eko emaitzetan nabarmentzen denez, lehenik eta behin, EAEn lanean ari diren hiru pertsonetatik batek (%32k) zailtasun asko ditu lana eta mendetasunean bizi direnak bateratzeko, eta antzeko portzentajea dugu (%31,2) seme-alaba adingabeak zaintzeko. Etxetik kanpora lan egiten duten emakumeek, gainera, egunean %50 ordu gehiago ematen dituzte seme-alaba adingabea eta mendetasunean bizi direnak zaintzeko gizonezkoek baino, eta %75 denbora gehiago etxeko lanetan.

IV.1.17. GRAFIKOA. LANDUNEK ETXEKO LANETAN EGUNEAN EMANDAKO ORDUAK, EZAUGARRIEN ARABERA. EAE. 2015



Iturria: EUSTAT. LBFB, 2015

IV.1.18. GRAFIKOA. LANDUNEK KONTZILIAZIOAREN ARLOAREKIN DUEN ASEBETETASUN MAILA, SEXUAREN ARABERA. EAE. 2015



Iturria: EUSTAT. LBFB, 2015

Gizonezkoek 2,9 ordu erabiltzen dituzte egunean-egunean adin txikikoak zaintzeko (2013. urtean 3,1 ordu); emakumezkoek, ordea, 4,5 ordu (2013. urtean 4,9). Alde hori errepikatzen da menpeko pertsonak zaintzeko lanak kontuan hartuz gero; izan ere, gizonezkoek 1,5 ordu erabiltzen dituzte egunero jarduera horri begira (2013. urteko zifra bera) eta emakumezkoek 2,1 ordu (2013an 2,3). Horrez gain, emakumeek 2,1 ordu ematen dituzte etxeko lanetan batez beste. Gizonezkoek, berriz, 1,2 ordu (2,2 eta 1,4 ordu, hurrenez hurren, 2013an).

Beren gain hartutako kargen inguruko desberdintasun horrek ondorioak dakartza etxeko lanen banaketarekiko gogobetetasunean, zeren eta emakumeek, batez beste, 6ko gogobetetasun-maila adierazten baitute 10etik ezkontideak edo bikotekideak etxean egiten dituen lanen gainean; gizonezkoen kasuan, berriz, 7,3koa da.

Kontziliazioaren alde desberdinetarako erabilitako denborarekin batez beste dagoen asebetetze-mailaren indizean jartzen badugu arreta, adin txikiko seme-alabak zaintzeko denborarekin dagoen asebetetze-maila 6,5ekoa da eta handiagoa emakumezkoen artean (6,8 puntukoa emakumezkoen artean eta 6,2koa gizonezkoen artean). Asebetetze-maila murritzagoa da bai gizonezkoen bai emakumezkoen artean, menpeko pertsonak zaindu behar direnean (batez beste6 puntukoa, eta ia-ia puntuazio bera bi sexuen artean). Bizitza pertsonalerako erabilgarri dagoen denborari dagokionez (aisialdia, ikasketak, gizarte-bizitza) batez besteko asebetetze-maila 6,1ekoa da, eta antzekoa emakumezkoen eta gizonen artean (6,1 eta 6,3 hurrenez hurren).

Enpresan edo erakundean zenbait baimen eskatzeko zailtasunari dagokionez, datuek agerian uzten dutenez, gora egin dute zailtasunek, oro har, 2010-2015 aldian.

EUSTATen inkestak erakusten duenez, landun pertsonek, batez beste, 3,5eko zailtasun globala adierazten dute 10etik (2,6koa 2010ean), eta 2,7koa, zehazki, norberaren arrazoiengatik lanera ez joateko baimena eskuratzeko (1,4 2010ean). Lana, familia eta bizitza pertsonala uztartzeko neurrien artean, eszedentziek 3,9ko batez besteko zailtasuna dute (3,2 2010ean), ondoren lanaldi murrizketek 3,8ko zailtasuna (3,2 2010ean), eta lanik eta soldatarik gabeko egunetan 3,4ko zailtasun-indizea dute 10etik (2,4 2010ean). Oro har, ez da diferentziarik ikusten sexuaren eta adinaren aldetik, seguru asko lanpostuko antzinatasunagatik; izan ere, aipaturiko kontziliazio neurriak eskuratzeko zailtasunak gutxitzen ditu. Alabaina, emakumeak (%29,1) eta gizonak (%27,6) beldur dira eszedentziak edo lan-murrizketak eskatzeak eragina izango ote duen lanbide-promozioan.

IV.1.19. GRAFIKOA. LANEAN KONTZILIZAZIOAREKIKO LOTURIKO BAIMENAK ESKATZEKO ZAILTAUNAREN BATEZ BESTEKO MAILAREN BILAKAERA.



Iturria: EUSTAT.LBFB, 2015

Azkenik, ordutegi motei eta malgutasunei dagokienez, EAEko langileen %17,5ek lanaldia luzatu behar du ia egun guztietan (eta %20,1 zenbait alditan). Irteteko ordutegi malgua, hau da, bateratzea hobetzeko beste baliabide osagarria, langileen %33k erabiltzen du, eta emakumeek (%32,7) gizonezkoek (%33,2) baino gutxiago. Norberaren etxean lan egiteari dagokionez, %7,9k lantzean behin egiten du lan etxean eta %4k egun erdiak gutxienez. Beraz, oro har, lana duten pertsonen %11,9k lantzean behin egiten du lan, edo maizago, etxean (%12k 2013an).

IV.1.20. GRAFIKOA. LANALDIAREN ETA KONTZILIAZIORAKO ORDUTEGIEN MALGUTASUNAREN GAINEKO BATEZ BESTEKO (10ETIK) ASEBETETASUN MAILAREN BILAKAERA, SEXUAREN ARABERA, EAE.



Iturria: EUSTAT. LBFB. Datu-bankua

2010. urtetik langileek lanaldiarekin eta ordutegien malgutasunarekin duten asebetetasun mailari berdintsu eutsi zaio, eta sexuarengatiko aldeak oso txikiak dira. Gizonen artean, pixka bat behera egin du lanaldiarekin duten asebetetasun mailak: 2010ean 10etik 7,1 izatetik 2015eko 7 izatera. Aldi berean, igoera oso txikia izan da (6 eta 6,2 bitartean) ordutegien malgutasunari dagokionez. Emakumezkoetan, lanaldiarekin duten asebetetasuna maila 7,2tik 7,1era igaro da. Ordutegien malgutasunean, berriz, asebetetasun maila txikiagoa da gizonetan, gora egin badu ere: 2010eko 5,9tik 2015eko 6,3ra.

Baldintza horien ondorioz, inkestak nabarmentzen du ezen, bikotekide biek lan egiten duten familietan, senideek edo ordaindu gabeko pertsonek zaintzen dituztela seme-alabak lanaldiak iraun bitartean eta eskola-ordutegitik kanpora kasuen %39,6an. Kasuen %37,3an, berriz, bikotekide biek zaintzen dituzte seme-alabak, eta %10,4an ordaindutako beste pertsona batzuei dagokie zaintza (2014ko datuak).

Zaintza-lan horietan, berebiziko eginkizuna betetzen dute aitita-amamek: 2016eko Euskal Soziometroak erakusten duenez, ilobak dituztenei galdera eginda (laginaren %20), %20k dio egunero zaintzen dituela ilobak, eta %23k dio hainbat alditan astean. %10ek hilean zenbait alditan zaintzen ditu. Zaintza hori, oro har, ez da kargatzat hartzen zeren eta 10etik 2ko batez besteko balorazioa lortu baitu, eskala honetan: “ez da batere karga (1) / karga eramangaitza da (10)”, egunean

5,4 ordu eginkizun horretan aritzen badira ere zaintzaileak diren aitona-amonen artean, eta 9,9 ordu astean eginkizun horretan astean batzuetan bakarrik aritzen direnetan.

1.6.2. Familiei laguntzeko politika publikoak

Azaldutako egoera horiek arintzeko, familiei laguntzeko planak abiarazi zituen Eusko Jaurlaritzak 2002an, zertarako-eta familiek seme-alaba kopurua askatasunez erabakitzea galarazten duten eragozpen ekonomikoak eta gizarte eta laneko eragozpenak gainditzeko. Hala, Familiei Laguntzeko Legea onetsi zuen 2008an, markoari lerrun juridiko handiagoa emateko eta familia politika integralerako oinarriak ezartzeko, betiere familien eta familiako kideen ongizatea eta bizi-kalitatea hobetze aldera.

IV.1.21. GRAFIKOA. EAE-N SEME-ALABEN JAIOTZEAGATIKO EDO ADOPTATZEAGATIKO LAGUNTZAK. ESKABIDEEN ET GASTUAREN BILAKAERA, MILA EUROTAN



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Geuk egina

Familientzako zuzeneko laguntzak 2002an hasi ziren I. familia Planarekin. Harrezkero, 2015era arte, 640 milioi euroko gastuak izan dira laguntza horietan, gutxi gorabehera erdibana banatuta jaiotza, adopzio edo aurre-adopzioko harrerarako laguntzen eta uztartzeko laguntzen artean.

IV.1.20. TAULA. EAE-KO III. FAMILIA PLANA (2011-15): ILDO ESTRATEGIKOAK ETA GASTUAREN AURREKONTUA (MILIOI EURO).

ILDO ESTRATEGIKOAK	GASTUA (MIL. €)
-ZERBITZUAK INDARTZEA ETA FAMILIEI LAGUNTZEKO ETA AUTONOMIA BIDERATZEKO NEURRIAK ETA POLITIKAK	607,4
-FAMILIEN GIZARTE BALIOA SUSTATZEA ETA EZAGUTARAZTEA, BAITA FAMILIEN JABEKUNTZA, GIZARTE SENTSIBILIZAZIOA ETA PREBENTZIOA BULTZATZEKO EKINTZA POLITIKOAK ETA SOZIALAK ERE	57,2
-FAMILIEI LAGUNTZEKO POLITIKEN SAIL ARTEKO ETA DEPARTAMENTU ARTEKO KOORDINAZIOA ETA GIZARTE PARTAIDETZA GARATZEA	1,1
-JARDUTEKO MARKO ETA PARADIGMA BERRIAK FAMILIEI LAGUNTZEKO POLITIKETAN ETA NEURRIETAN	8,7
GUZTIRA	**674,6**

Iturria: EUSKO JAURLARITZA, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila.

Azkenik, 2011ko abenduan EAEko Familiei Laguntzeko Erakunde Arteko III. Plana onetsi zen 2011-2015 aldirako eta, gutxi gorabehera 674,6 milioi euroko aurrekontua izanik, familia politiken gaineko zeharkakotasun handiagoa eman zaio aurreko bi planekin alderatuta. Hartara, sailen eta erakundeen arteko lana indartu da. Lehendik dauden neurriak nahiz neurri berriak modu koherentean ordenatu nahi ditu, printzipio honen inspirazioarekin: lana, familia eta norberaren bizitza uztartzea familiako eta gizarteko kide guztiei dagokie, denok baitaukagu erantzukizun maila handiago edo txikiagoa.

Indarraldia amaituta eta horiek gauzatzeari eta betetze-mailari buruzko informaziorik ez dugunez, eskuragarri ditugun azken kopuruak Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Ekonomia Sailak egin duen 2015eko "*EAEko Diru-laguntza Jaso Dezaketen Programaren Ebaluazioari buruzko Txosten*"ekoak dira. Urte horretan, Lan eta Gizarte Politiketako Sailak 58,9 milioi euro erabili zituen familientzat, hots, 2014koa baino %25,7 gehiago.

Horietatik 31,1 milioi kontziliaziorako laguntzak ordaintzeko izan ziren (+%80,9 2014ren aldean), baina horietatik 21,6 2014ko atzerapenei dagokie eta 27,65 milioi jaiotzagatik edo adopzioagatik (-%6,7). Espediente kopuruari dagokionez, guztira 33.302 diru-laguntza eman ziren (%-4 2014rekiko) jaiotzengatik eta adopzioengatik (urte anitzeko laguntzak barne), eta aldi berean, gora egin du bateratzerako laguntzen kopuruak: 17.970 (%+27,3): 17.194 diru-laguntza adingabeak zaintzeko eszedentziagatik edo lanaldi murrizketagatik, 466 mendekotasunean edo osasun larritasunean diren senideak zaintzeko eszedentziagatik edo lanaldi murrizketagatik eta 400 3 urtetik beherakoen zaintzaileak kontratatzeko.

Bestalde, Lan eta Gizarte Politiketako Sailak eginiko 2014ko *"Gizarte Zerbitzuen Beharrei buruzko Inkestak"* (GZBI) ohartarazi duenez, behera egin du seme-alabak dituzten familientzako laguntzak eskuratzen dituzten etxeen proportzioak, edo aldi bereko laguntza-neurriei dagozkienak, 2006ko eta 2010eko aurreko inkesten aldean. Beheranzko joera handia da, zeren eta 2006an horrelako laguntzak jasotzen baitzuen familien %10,2k, eta proportzioak behera egin zuen 2010ean, %8ra hain zuzen, eta 2014an %3,9ra. 2006 eta 2014 bitartean, jaitsierarik deigarrienak familiaburuak gizonak diren etxeetan (%12,5etik %4,7ra) eta 35 urtetik beherakoak dituztenetan (%21,7tik %6,9) izan dira, baita atzerrian dauden familietan ere (2006ko %31,4tik 2014ko %11,1ra) [16].

IV.1.21. TAULA. EAE-KO FAMILIENTZAKO LAGUNTZAK: EUSKO JAURLARITZAREN FAMILIA POLITIKAKO ZUZENDARITZAK EMANDAKO LAGUNTZEN ETA ESPEDIENTE KOPURUAREN BILAKAERA. MILAKA EURO.

	JAIOTZA EDO ADOPZIOA		KONTZILIAZIOA	
	ESPEDIENTEAK	GASTUA	ESPED. KOP.	GASTUA
2008	28.175	25.333	27.005	11.297
2009	29.754	26.185	46.816	18.830
2010	34.887	31.505	48.140	26.824
2011	32.563	29.521	32.505	32.973
2012	25.620	22.420	26.351	24.434
2013	23.998	20.326	14.300	16.865
2014	34.588	29.629	14.118	17.302
2015	33.203	27.651	17.970	31.305

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Ogasun eta Ekonomia Saila. Geuk egina.

2015ean, behera egin zuen laguntza eskatzen zenetik kobratu arte igarotzeko 145 eguneko batez besteko itxaroteko aldiak, eta 2014an 154 egunekoa zen. Halaber, kontziliaziorako laguntzak emateko araudia aldatu zen, eta eskalak sortu ziren laguntzaren zenbatekoa errenta estandarizatuko irizpidearen arabera moldatzeko. Irizpide horrek diru-sarrerak hartzen ditu kontuan, baina egoera ekonomikoa baldintzatzen duten beste faktore batzuk ere bai.

Horrez gain, "*Familiei eta Etxeei buruzko Inkesta*" berriak, hori ere Lan eta Gizarte Politiketako Sailarena denak (2015eko datuak), ohartarazi duenez, familien ehuneko handi batek ez ditu ezagutzen EAEn familiei laguntzeko dauden laguntzak, martxan hasi zirenetik hainbat urte igaro badira ere: Familien %35,1ek besterik ez daki seme-alabak dituzten familientzako laguntzak daudela (jaiotzeagatik eta adopziogatik). Eta kontziliaziorako laguntzen arloan, 12 urtetik beherako seme-alaba adingabeak zaintzeko lanaldi murrizketarekin (%3,9,9) eta 3 urtetik beherakoak zaintzako lan-eszedentziarekin (%38,7) loturikoak dira ezagunenak. Ezagutza maila %31-%32 ingurukoa da mendekotasunean bizi diren familiak edo osasun egoera oso larrian direnak zaintzera bideraturiko laguntzetan. Gutxien ezagutzen den neurria 3 urtetik beherako seme-alabak etxean zaintzeko pertsonak kontratatzeko diru-laguntzetarakoa da (%18,2).

IV.1.22. TAULA. FAMILIEI LAGUNTZEKO ZENBAIT NEURRI EZAGUTZEN DITUZTEN ETXEAK/FAMILIAK, FAMILIA EDOTA ETXE MOTAREN ARABERA. EAE, 2015. LAGUNTZA EZAGUTZEN DUTENEN EHUNEKOA.

	1. SEME ALABAK DITUZTEN FAMILIENTZAKO LAG.	2. KONTZILIAZIORAKO LAGUNTZAK				
		LANEKO ESZEDENTZIA <3 ZAINTZEKO	<3 ZAINTZEKO KONTRATUA	LANALDI MURRIZTUA <12	MENDEKOAK ZAINTZEKO ESZEDENTZIA	MENDEKOAK ZAINTZEKO LANALDI MURRIZTUA
PERTSONA BAKARREKOA	26,3	26,9	15,1	27,7	26,0	24,5
PERTSONA ANITZEKOA, EZ FAMIL.	21,4	20,3	6,0	17,3	18,5	19,5
FAMILIARRA, NUKLEORIK GABE	16,7	19,8	10,6	22,3	23,5	26,0
NUKLEARRA, SEME-ALAB. GABE	25,4	30,1	14,9	30,9	26,0	25,4
- Guraso ezkontzakoa	40,7	46,7	21,8	53,0	40,2	41,6
- Guraso osteko ezkontzakoa	20,8	25,2	12,8	24,3	21,8	20,6
NUKLEARRA SEME-ALABEKIN	49,2	56,1	23,6	57,9	40,9	40,3
-Mendeko seme-alabak dituen guraso bakarreko familia	55,2	62,5	25,3	64,2	44,2	43,9
- Mendeko seme-alabarik ez duen guraso bakarreko familia	25,8	31,3	16,8	33,2	28,1	25,9
GURASO BAKARREKOA	34,8	33,1	17,0	34,0	31,8	32,1
-Mendeko seme-alabak dituen guraso bakarreko familia	46,9	40,0	18,9	43,2	34,5	36,1
- Mendeko seme-alabarik ez duen guraso bakarreko familia	21,8	25,6	14,9	24,2	28,8	27,7
NUKLEO ASKOKOA	36,9	38,4	22,0	45,0	27,9	29,4
GUZTIRA	**35,1**	**38,7**	**18,2**	**39,9**	**31,8**	**31,2**

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. EFI 2015.

[16] *Informazio gehiago nahi izanez gero, irakurri 2015eko Memoria Sozioekonomikoa.*

Laguntzen jakintza maila, jakina, aldatu egiten da familia motaren arabera. Seme-alabak dituzten guraso bakarreko familiek ezagutzen dituzte laguntzak gehien, eszedentziarako laguntzei eta seme-alabak zaintzeko lanaldi murrizketari dagokionez (%62,5ek eta %64,2k ezagutzen dute hurrenez hurren), baita, neurri txikiagoan bada ere, seme-alabak dituzten familientzako laguntzei dagokienez (%55,2). Seme-alabak dituzten guraso bakarreko familiek, ordea, laguntza mota guztietan jakintza maila txikiagoa dutela adierazten dute.

ITURRIAK:

1. **EUROSTAT:** Bizi-baldintzei buruzko Estatistika (UE-SILC). 2015eko datuak. Urtekoa. Koiunturala.
2. **EUSKO JAURLARITZA.** Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta (PGDI) 2016. Bi urterik behingoa. Koiunturala.
3. **EIN:** Bizi-baldintzei buruzko Inkesta. 2015eko datuak. Urtekoa. Koiunturala.
4. **ETXEBIZITZAREN EUSKAL BEHATOKIA:** Hipoteka-betearazpenari buruzko txostenak, BKKNren eta Jabetzaren Erregistratzaileen Elkargoaren datuak dituena. 2015eko datuak. Urtekoa. Koiunturala.
5. **EIN:** Hipoteka-betearazpenei buruzko Inkesta. 2016ko datuak. Hiruhilekoa. Koiunturala.
6. **EUSKO JAURLARITZA:** EAEko familiari buruzko inkesta. 2016ko datuak. Bi urterik behingoa. Estrukturala.
7. **EUSKO JAURLARITZA:** Gizarte Zerbitzuen Beharrei buruzko Inkesta. 2014ko datuak. Lau urterik behingoa. Estrukturala.
8. **EUSTAT:** Lana eta bizitza pertsonala eta familiarra uztartzeari buruzko inkesta. 2015eko datuak. Bi urterik behingoa. Estrukturala.
9. **EUSKO JAURLARITZA:** Diru-laguntza jaso dezaketen programen ebaluazioari buruzko txostena. 2015eko datuak. Urterokoa. Koiunturala.
10. **EUSKO JAURLARITZA:** Familiei eta etxeei buruzko inkesta. 2015eko datuak. Ez dakigu noiz argitaratuko den (berria da). Estrukturala.

2. HEZKUNTZA ETA KULTURA

Hezkuntza da pertsonen eta gizarteen aurrerapenean gehien eragiten duen faktoreetako bat; izan ere, beharrezkoa da ongizateko eta gizarte-kohesioko eta hazkunde ekonomikoko mailarik onenak lortzeko, baita zientzia, teknologia eta berrikuntza sustatzeko ere, besteak beste. Garrantzitsua izan da beti garapen ekonomikorako eta sozialerako, baina gaur egungo munduan, neurri batean zientziaren aurrerapenak eta horren aplikazioek eragindako eraldaketa sakonak bizi garen munduan, gero eta garrantzi handiagoa hartu du, baita garapen motelagoa ez duten IKTen garapenak eragindako eraldaketengatik ere.

Ekonomia modernoetan, ekoizpenaren faktorerik garrantzitsuenetako bat bilakatu da jakintza. Arlo ekonomikoan eta sozialean gehien aurreratu diren gizarteak dira jakintzan oinarrituriko aurrerapena lortu dutenak, eskolaren bidez transmititzen den jakintzan nahiz ikerketaren bidez sortzen den jakintzan. Hezkuntzak, zientziak eta berrikuntza teknologikoak gero eta eragin handiagoa dute produktibitatean eta lehiakortasun ekonomikoan, baita nazioen garapen sozialaren eta kulturaren zati handi batean ere.

Kapitulu hau bi epigrafetan dago banatuta, eta alde batetik, Hezkuntza aztertuko da eta, bestetik, kulturako gastuari buruzko zenbait alderdi. Hezkuntzari buruzko epigrafearen barruan, unibertsitatez kanpoko irakaskuntzetan matrikulaturiko ikasleen bilakaera, unibertsitateko irakaskuntzetan matrikulaturiko eta graduaturiko ikasleen bilakaera eta zenbait hezkuntza-adierazle aztertuko dira, hiru bloke handitan sailkatuta: eskolaratzea eta hezkuntza-testuingurua, hezkuntzako gastua eta hezkuntzako emaitzak.

Bestalde, memoria honetako Kultura epigrafearen barruan, Estatuaren Administrazio Orokorrak, Administrazio Autonomikoak eta tokiko erakundeek eginiko kulturaren arloko gastu publikoa aztertzen da. Udala eta aldundiak, kontseiluak edo kabildoak, eta familien kontsumo kulturaleko gastua.

2.1. HEZKUNTZA

2.1.1. Unibertsitatez kanpoko irakaskuntzak

2016/2017 ikasturteko datuen aurrerapena

Eskuragarri dauden EUSTATen *Eskola-jardueraren Estatistikaren* datuen arabera, 2016/[17] ikasturtea EAEn unibertsitatez kanpoko araubide orokorreko irakaskuntzan matrikulatutako 370.426 ikasleko guztizko zifrarekin hasi da (Helduen Hezkuntza eta araubide bereziko irakaskuntzak kanpo utzita, besteak beste, arteak eta lanbideak, hizkuntzak eta musika). Horrek esan nahi du % 0,9ko hazkundea egon dela aurreko ikasturtearekiko (3.260 ikasle gehiago, hain zuzen ere). Sexuaren arabera bereiziz, erdi-mailako lanbide-heziketan, gizonezkoen ehunekoa % 65,4koa da (9.152) eta emakumezkoena % 34,6koa (4.481). Goi-mailako graduei dagokienez, ehuneko horiek, hurrenez hurren, % 62,4 (12.310) eta % 37,6 (7.413) dira, gizonentzat eta emakumeentzat.

Arreta matrikulazioaren datuetan jarriz, Hezkuntza Berezia sartu gabe eta mailaka bereiziz, ikusten da beheko mailetan (Haur eta Lehen Hezkuntza) 219.681 ikasle matrikulatuta daudela; 90.249 Haur Hezkuntzan (-% 3,3ko jaitsiera, aurreko ikasturtekoari gehitzen zaiona) eta 129.432 Lehen Hezkuntzan (+% 1, aurreko urteko igoerari gehitzen zaiona).

[17] *Unibertsitate Estatistika (UE) eta Eskola Jardueraren Estatistika (EJE) eragiketek erroldaren izaera dute eta urtekoak dira. Horiei esker, hezkuntza sistema eta bere bilakaera ezagut daitezke, bai goi mailako ikasketetan (hirugarren maila), baita aldez aurretiko ikasketetan (Lehen eta Bigarren Hezkuntza) ere, hurrenez hurren. Ikasketa arautuak irakasten dituzten ikastetxe guztiak Eusko Jaurlaritzako ikastetxeen erregistroan sartutzat jotzen dira eta berdin dio sektore publikoan edo pribatuan sartuak egotea.*

Hala, 81.401 ikasle matrikulatu dira Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan (+% 2,6) eta Oinarrizko Lanbide Heziketan[18] 4.411 ikasle (+% 8); horrek Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programa zaharrak ordeztu zituen 2015/16 ikasturtean.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondokoari dagokionez, batxillergoan 30.248 pertsona matrikulatu dira eta 14.713 erdi mailako heziketa zikloetan. Erdi mailako heziketa zikloetan egondako igoera (% 5,1) batxilergoan erregistratutakoa baino handiagoa da (% 0,7). Aurreko ikasturtean ere izan zen handiagoa, baina, aurten, igoeren aldea nabarmena da.

Komeni da gogoraraztea Lanbide Heziketaren irakaskuntza-sisteman 16 urterekin sartzen direla ikasleak erdi-mailako graduan, batxilergoaren alternatiba gisa, eta 18 urterekin goi-mailako graduan, betiere hezkuntza tertziarioaren edo goi-mailako irakaskuntzaren baitan. Bestalde, goi-mailako heziketa zikloetan 21.502 pertsona matrikulatu egin dira, aurreko ikasturtean baino % 9 gehiago.

IV.2.1 TAULA. EAEKO IKASLEAK TITULARTASUNAREN ETA MAILAREN ARABERA (1)

	2011/12	2012/13	2013/14	2014/15	2015/16	2016/17 Prov.	Var. 2014/15-2015/16	Var. 2015/16-2016/17
Guztira	**353.157**	**359.618**	**363.206**	**368.619**	**365.959**	**372.774**	**0,4**	**0,9**
Haur Hezkuntza	96.577	96.713	95.483	94.433	93.318	90.249	-1,2	-3,3
Lehen Hezkuntza	120.288	122.139	124.276	127.001	128.198	129.432	0,9	1,0
Hezkuntza Berezia (Haur eta Lehen Hezkuntza)	449	473	476	470	486	499	3,4	2,7
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH)	72.144	73.940	75.161	77.169	79.374	81.401	2,9	2,6
Hezkuntza Berezia (DBH)	221	234	263	288	294	319	2,1	8,5
Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programak	4.404	4.484	4.076	4.238				
Oinarrizko Lanbide Heziketa					4.083	4.411		8,0
Batxilergoa	28.968	29.444	29.607	29.988	30.045	30.248	0,2	0,7
Erdi-mailako Lanbide-heziketa	11.990	12.718	13.442	13.938	13.993	14.713	0,4	5,1
Goi-mailako Lanbide-heziketa	17.689	19.016	19.957	20.614	19.723	21.502	-4,3	9,0
Zereginen Ikaskuntza (LH Hezkuntza Berezia)	427	457	465	480	528	547	10,0	3,6

(i) Unibertsitatetik kanpoko araubide orokorreko irakaskuntzak. Ez da sartzen Helduen Hezkuntza Iraunkorra, ezta araubide bereziko irakaskuntzak ere (arteak eta lanbideak, hizkuntzak eta musika).
Iturria: EUSTAT. Eskola-jardueraren Estatistika

Lanbide-heziketako prestakuntza-zikloak matrikulaturiko ikasleak

IV.2.1 taulako datuek erakusten duten bezala, 2015-16 eta 2016-17 ikasturteen artean, % 5,1 hazi zen matrikulaturiko ikasleen kopurua erdi-mailako graduko LHn (13.993tik 14.713ra) eta % 9 goi-mailako gradukoan (19.723tik 21.502ra).

Orain lanbide-taldeen araberako datuak aztertuko ditugu, kontuan hartuta argitaratutako azkenak 2015-16 ikasturteari dagozkionak direla.

Horien arabera, hauek dira 2015-16 ikasturtean ikasleen kopururik handiena bildu zuten erdi-mailako graduko lanbide-taldeak: Osasuna (% 15,3); Fabrikazio Mekanikoa (% 13,4); Elektrizitatea eta Elektronika (% 9,8); Garraioa eta ibilgailuen mantentze-lanak (% 8,8); Administrazioa eta Kudeaketa (% 7,5) eta Instalazioa eta Mantentze-lanak (% 7,4). Hauxe da aurreko ikasturtearekiko bilakaera: Osasuneko matrikulazioa % 4,2 hazi da; Fabrikazio Mekanikokoa % 1,9 eta

[18] *8/2013 Lege Organikoa, abenduaren 9koa, hezkuntzaren kalitatea hobetzeko. Oinarrizko Lanbide Heziketaren tituluak hezkuntza sisteman aurrera egiten uzten du, baina, aldi berean, ogibidean trebatuta jardun daiteke eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan graduatuaren tituluari dagozkion ondorio berak ditu enplegu publiko eta pribatuetara iristeko orduan..*

Instalazio eta Mantentze-lanetakoa % 4. Bestalde, ez da aldakuntzarik egon Administrazioan eta Kudeaketan eta jaitsi egin da Elektrizitatean eta Elektronikan (-% 4,1) eta Garraioa eta ibilgailuen mantentze-lanetan (-% 2,8).

Goi-mailako heziketako graduen artean, nabarmentzekoa da hauen bolumena; Fabrikazio Mekanikoa (% 12,7); Zerbitzu Soziokulturalak eta Erkidegoarentzakoak (% 11,7); Administrazioa eta Kudeaketa (% 11,5); Elektrizitatea eta Elektronika (% 10,9); Informatika eta Komunikazioak (% 8,6); Osasuna (% 7,1) eta Instalazioa eta Mantentze-lanak (% 6,5). Hauxe da aurreko ikasturtearekiko bilakaera: Fabrikazio Mekanikoa (+% 1,2); Zerbitzu Soziokulturalak eta Erkidegoarentzakoak (-% 3,8); Administrazioa eta Kudeaketa (-% 7,6); Elektrizitatea eta Elektronika (-% 9,5); Informatika eta Komunikazioak (-% 3,4) eta Osasuna (+% 0,9).

IV.2.2 TAULA. LANBIDE-HEZIKETAKO IKASLEAK GRADUAREN ETA LANBIDE-TALDEAREN ARABERA. EAE.

	ERDI-MAILAKO GRADUA				GOI-MAILAKO GRADUA			
	GUZTIRA		% bertikala	Bi ikasturten arteko aldakuntza	GUZTIRA		% bertikala	Bi ikasturteen arteko aldakuntza
	2014-15	2015-16			2014-15	2015-16		
GUZTIRA	13.938	13.993		0,4	20.614	19.723		-4,3
Jarduera fisikoak eta kirolekoak	196	152	1,1	-22,4	784	774	3,9	-1,3
Administrazioa eta Kudeaketa	1.055	1.055	7,5	0,0	2.446	2.259	11,5	-7,6
Nekazaritza	274	271	1,9	-1,1	238	245	1,2	2,9
Arte grafikoak	226	245	1,8	8,4	295	246	1,2	-16,6
Merkataritza eta marketina	341	382	2,7	12,0	1.065	1.027	5,2	-3,6
Eraikuntza eta obra zibila	123	113	0,8	-8,1	444	371	1,9	-16,4
Elektrizitatea eta elektronika	1.427	1.368	9,8	-4,1	2.386	2.159	10,9	-9,5
Energia eta ura			0,0		140	115	0,6	-17,9
Fabrikazio mekanikoa	1.835	1.869	13,4	1,9	2.469	2.499	12,7	1,2
Ostalaritza eta turismoa	893	887	6,3	-0,7	1.031	994	5,0	-3,6
Irudi pertsonala	858	854	6,1	-0,5	422	368	1,9	-12,8
Irudia eta soinua	124	69	0,5	-44,4	446	463	2,3	3,8
Informatika eta komunikazioak	858	880	6,3	2,6	1.756	1.696	8,6	-3,4
Zurgintza, altzarigintza eta kortxoa	279	255	1,8	-8,6	66	57	0,3	-13,6
Mantentze-lanak eta produkziorako zerbitzuak / Instalazioa eta mantentze-lanak	993	1.033	7,4	4,0	1.313	1.274	6,5	-3,0
Itsas-arrantza	146	165	1,2	13,0	245	238	1,2	-2,9
Kimika	88	81	0,6	-8,0	462	443	2,2	-4,1
Osasuna	2.048	2.134	15,3	4,2	1.380	1.393	7,1	0,9
Segurtasuna eta Ingurumena			0,0		163	158	0,8	-3,1
Zerbitzu Soziokulturalak eta Erkidegoarentzakoak	754	794	5,7	5,3	2.401	2.309	11,7	-3,8
Ehungintza, jantzigintza eta larrugintza	20		0,0	-100,0	104	113	0,6	8,7
Garraioa eta ibilgailuen mantentze-lanak	1.265	1.230	8,8	-2,8	548	522	2,6	-4,7
Elikagaigintza	135	156	1,1	15,6	10		0,0	-100,0

Iturria: EUSTAT. Eskola-jardueraren estatistika

Emakumeek lanbide-ikasketetan duten partaidetzak gizonezkoenak baino txikiagoa izaten jarraitzen du, batez ere profil teknikoko lanbide-taldeetan. Izan ere, gainera, laneratze hobea duten taldeak izan ohi dira. Alabaina, zenbait lanbide-taldetan, emakumeak dira nagusi, eta batzuetan are parte-hartze handiagoa dute, % 70 baino gehiagokoa, hain zuzen ere.

Beraz, %50etik gorako partaidetza dute erdi-mailako graduko lanbide-talde hauetan: Irudi pertsonala (% 95,4); Zerbitzu Soziokulturalak eta Erkidegoarentzakoak (% 79,7); Osasuna (% 76,4); Administrazioa eta Kudeaketa (% 60,6); Merkataritza eta marketina (% 57,3) eta Elikadura-industriak (% 50,6).

Eta goi-mailako graduko hauetan: Irudi pertsonala (% 96,2); Ehungintza, jantzigintza eta larrugintza (% 86,7); Zerbitzu Soziokulturalak eta Erkidegoarentzakoak (% 80,2); Osasuna (% 75,4); Administrazioa eta Kudeaketa (% 63,1); Arte grafikoak (% 57,3); Kimika (% 51,7) eta Ostalaritza eta Turismoa (% 51,3).

IV.2.3 TAULA. LANBIDE-HEZIKETAKO IKASLEAK GRADUAREN ETA LANBIDE-TALDEAREN ARABERA.EAE.

	ERDI-MAILAKO GRADUA				GOI-MAILAKO GRADUA			
	GUZTIRA		Emakumeen % (% horizontalak)		GUZTIRA		Emakumeen % (% horizontalak)	
	2014-15	2015-16	2014-15	2015-16	2014-15	2015-16	2014-15	2015-16
GUZTIRA	**13.938**	**13.993**	**34,8**	**34,6**	**20.614**	**19.723**	**38,3**	**37,6**
Jarduera fisikoak eta kirolekoak	196	152	17,3	23,0	784	774	18,2	20,4
Administrazioa eta Kudeaketa	1.055	1.055	60,6	60,6	2.446	2.259	64,4	63,1
Nekazaritza	274	271	17,5	18,8	238	245	18,9	17,1
Arte grafikoak	226	245	45,1	37,1	295	246	48,1	57,3
Merkataritza eta marketina	341	382	59,8	57,3	1065	1.027	51,1	47,7
Eraikuntza eta obra zibila	123	113	15,4	15,9	444	371	32,0	33,2
Elektrizitatea eta elektronika	1.427	1.368	2,7	3,1	2.386	2.159	5,4	6,3
Energia eta ura					140	115	17,1	11,3
Fabrikazio mekanikoa	1.835	1.869	3,1	2,6	2.469	2.499	10,8	11,0
Ostalaritza eta turismoa	893	887	33,6	36,0	1.031	994	50,3	51,3
Irudi pertsonala	858	854	97,0	95,4	422	368	96,0	96,2
Irudia eta soinua	124	69	47,6	46,4	446	463	25,6	26,1
Informatika eta komunikazioak	858	880	10,0	8,4	1.756	1.696	14,9	13,3
Zurgintza, altzarigintza eta kortxoa	279	255	5,7	4,7	66	57	19,7	17,5
Mantentze-lanak eta produkziorako zerbitzuak / Instalazioa eta mantentze-lanak	993	1.033	2,9	2,4	1.313	1.274	6,2	6,6
Itsas-arrantza	146	165	1,4	3,0	245	238	4,9	3,8
Kimika	88	81	46,6	49,4	462	443	54,3	51,7
Osasuna	2.048	2.134	79,3	76,4	1.380	1.393	77,7	75,4
Segurtasuna eta Ingurumena					163	158	37,4	35,4
Zerbitzu Soziokulturalak eta Erkidegoarentzakoak	754	794	79,7	79,7	2.401	2.309	83,0	80,2
Ehungintza, jantzigintza eta larrugintza	20		80,0		104	113	86,5	86,7
Garraioa eta ibilgailuen mantentze-lanak	1.265	1.230	2,7	2,6	548	522	1,6	2,1
Elikagaigintza	135	156	55,6	50,6	10	19.723	60,0	37,6

Iturria: EUSTAT. Eskola-jardueraren estatistika

2.1.2. Unibertsitateko irakaskuntzak

a) Unibertsitateko matrikulazioa

EUSTATen Unibertsitate-estatistikan jasotako datuen arabera, 2014-15 ikasturtean, bazeuden 67.060 ikasle matrikulatuta EAEko unibertsitateetan, hau da, aurreko ikasturtean baino % 0,5 gutxiago.

IV.2.4 TAULA. EAEN MATRIKULATURIKO IKASLEEN BILAKAERA IKASKETEN ARABERA

	2013/14	2014/15		% 2012/13-2013/14 aldakuntza	% 2013/14-2014/15 aldakuntza
		Guztira	% bertikala		
GUZTIRA	**67.395**	**67.060**	**100**	**0,7**	**-0,5**
1. eta 2. zikloan matrikulatutakoak	7.750	2.915	4,3	-51,0	-62,4
Graduetan matrikulatutakoak	50.951	54.413	81,1	17,3	6,8
Graduondokoetan matrikulatutakoak	8.694	9.732	14,5	13,5	11,9
Master ofizialak	4.919	5.555	8,3	12,1	12,9
Doktoretza	3.775	4.177	6,2	15,4	10,6

Iturria: EUSTAT. Unibertsitate-estatistika

Bolonia Planaren ikasketa-egitura finkatuta dagoelarik, graduetan matrikulaturiko ikasleen kopurua hazi da, aurreko urtean baino neurri txikiagoan izan bada ere (+% 6,8, +% 17,3ren aurrean). Horrez gain, nabarmen murriztu da aurreko planeko lehenengo eta bigarren zikloko ikasketak egiten ari direnen ratioa (lizentziaturak, arkitekturak eta ingeniaritzak, diplomaturak eta arkitektura eta ingeniaritza teknikoak: -62,4%).Horrela, % 4,3 lehenengo eta bigarren zikloko ikasketetan dago matrikulatuta; % 81,1 graduko ikasketetan; % 8,3 master ofizialetan eta % 6,2 doktoregoa egiten ari da.

Bi ikasketa-planak, 1. eta 2. zikloko ikasketak eta gradu-ikasketak aintzat hartuta, ikasle guztien kopurua 57.328 da, hots, % 2,3ko murrizpena aurreko ikasturtearen aldean.



Iturria: EUSTAT. Unibertsitate-estatistika

Zentroen titulartasunaren arabera bereiziz, 2013-14 ikasturtean bezala, ikasleen % 76 unibertsitate publikora doa eta % 24 unibertsitate pribatuan matrikulatzen da. Unibertsitate publikora doazenen proportzioa % 75ekoa edo gehiagokoa da ikasketa mota guztietan, master ofizialetan izan ezik. Horietan, unibertsitate publikoko matrikulazioen proportzioa baxuagoa izan zen, hain zuzen ere, % 59koa.

Bestalde, unibertsitateko geletan, sexuaren araberako banaketak islatzen du emakume gehiago joaten direla unibertsitatera. Patroi berbera ematen da ikasketa-maila gehienetan: emakumeak % 52,7 direneko graduak; masterretan % 53,2koa eta doktoretzetan % 52,9. Lehen eta bigarren zikloko ikasketetan, berriz, % 49,6 dira.

IV.2.5 TAULA. EAEN MATRIKULATURIKO IKASLEAK IKASKETEN, SEXUAREN ETA UNIBERTSITATEAREN TITULARTASUNAREN ARABERA

	2012-13			2013-14			2014-15		
	Guztira	Emakumeen %	zentro publikoen %	Guztira	Emakumeen %	zentro publikoen %	Guztira	Emakumeen %	zentro publikoen %
GUZTIRA	**66.928**	**53,1**	**77,0**	**67.395**	**52,7**	**76,0**	**67.060**	**52,6**	**76,2**
1. eta 2. zikloan matrikulatutakoak	15.822	50,9	89,0	7.750	48,5	94,0	2.915	49,6	96,5
Graduetan matrikulatutakoak	43.446	53,6	74,0	50.951	53	75,0	54.413	52,7	76,4
Graduondokoetan matrikulatutakoak	7.660	54,5	69,0	8.694	88,5	61,0	9.732	53,1	68,8
Master ofizialak	4.390	55,2	62,0	4.919	54,4	55,0	5.555	53,2	59,2
Doktoretza	3.270	53,4	1,0	3.775	53,7	68,0	4.177	52,9	81,7

Iturria: EUSTAT. Unibertsitate-estatistika

b) Unibertsitateko graduazioa

2014-15 ikasturtean, 13.297 pertsona graduatu ziren guztira, hau da, 2013-14 ikasturtean baino % 4,5 gutxiago. Ikasle guztietatik, % 55,9 emakumeak izan ziren.

Ikasketa-motei gagozkiela, 1.768 ikasle lehen eta bigarren zikloetan graduatu ziren (-% 56,7 aurreko ikasturtearekiko); 8.086 graduetan (+% 20,9); 2.933 master ofizialetan (+% 10,2) eta 528k Doktoretza atera zuten (+% 5,6).

Lehenengo eta bigarren zikloko ikasketei dagokienez, unibertsitateko ikasle gehienak Irakaskuntza Teknikoetan espezializatu ziren (% 41,5); atzetik Gizarte eta Zuzenbide Zientziak (% 25,6) eta Osasunaren Zientziak (% 21,3). Neurri txikiagoan Giza Zientzietan (% 8,4) eta Zientzia Esperimentaletan (% 3,2).

Graduko ikasketetan banaketa desberdina ageri da. Ikaslerik gehienak Gizarte eta Zuzenbide Zientzien arloko ikasketetan graduatu ziren (% 53,1), eta ondoren Ingeniaritza eta Arkitekturakoetan (% 23,2). Neurri txikiagoan hauetan: Osasunaren Zientziak (% 10,3); Arteak eta Giza Zientziak (% 8,4), eta Zientziak (% 5). Ez dira graduaziorik erregistratu titulazio bikoitzekin.

Gehiengo maila akademikoari dagokionez, doktorearena, 528 pertsona doktoratu ziren; horietatik, % 53 emakumeak ziren.

Lehenengo eta bigarren zikloa eta gradua kontuan hartuta, graduatutako pertsonen kopurua 9.836 da; hala, % 8ko murrizketa egon da aurreko ikasturtearekiko eta % 5,3koa 2010/11 ikasturtearekiko.

Sexu-desberdintasunak antzematen dira ikasketa-arloaren aukeraketan; hala, oro har, emakumeek Zientzien, Osasunaren Zientzien eta Gizarte eta Zuzenbide Zientzien barruan sartzen diren programak nahiago dituzte irakaskuntza teknikoak baino.

Graduko titulua lortu zuten gizonen eta emakumeen batez besteko adina 24 urte izan zen. Emakumeek titulua lehenago lortzen dute (23 urte), gizonekin alderatuta (24 urte).

IV.2.6 TAULA. EAEN GRADUATUTAKO IKASLEEN BILAKAERA

	2010/11	2011/12	2012/13	2013/14	2014/15	% bertikalak (Graduen 1. eta 2. Zikloa bereiziz)	2014/15 ikasturtean graduatutako emakumeen % guztizko kopurutik (horizontala)	2013/14-2014/15 aldakuntza
1 eta 2 zikloan graduatuak	**10.025**	**8.791**	**6.661**	**4.084**	**1.768**	**100,0**	**53,2**	**-56,7**
Osasunaren zientziak	678	555	371	424	376	*21,3*	68,1	-11,3
Zientzia esperimentalak	382	439	320	209	56	*3,2*	64,3	-73,2
Gizarte eta Zuzenbide Zientziak	5.325	4.597	3.226	1.429	453	*25,6*	57,4	-68,3
Irakaskuntza teknikoak	2.911	2.439	2.021	1.749	734	*41,5*	39,9	-58,0
Giza Zientziak	729	761	723	273	149	*8,4*	63,8	-45,4
Graduak	**363**	**762**	**3.333**	**6.607**	**8.068**	**100,0**	**56,7**	**22,1**
Arteak eta Giza Zientziak	.	.	164	486	680	*8,4*	67,5	39,9
Zientziak	25	51	73	245	406	*5,0*	58,9	65,7
Osasunaren zientziak	.	.	470	644	828	*10,3*	80,7	28,6
Gizarte eta Zuzenbide Zientziak	.	.	1.668	3.662	4281	*53,1*	63,7	16,9
Ingeniaritza eta arkitektura	.	232	958	1.570	1873	*23,2*	25,6	19,3
1 eta 2 ziklo eta graduen guztizko kopurua	**10.388**	**9.553**	**9.994**	**10.691**	**9.836**			**-8,0**
Titulazio bikoitzak	**.**	**.**	**.**	**66**				
Master ofizialak	**1.946**	**2.278**	**2.456**	**2.662**	**2.933**			**10,2**
Doktorego-tesiak	**520**	**420**	**500**	**500**	**528**		55,9	**5,6**
GUZTIRA	**12.854**	**12.251**	**12.950**	**13.919**	**13.297**		53,6	**-4,5**

Iturria: EUSTAT. Unibertsitate-estatistika

2.1.3. Hezkuntza-adierazleak[19]

Epigrafe hau egiteko oinarritzat hartu da jarraian agertzen den Hezkuntza-adierazleen Estatuko Sistemaren Mapa. Euskal EGABk urtero egiten duen Memoria Sozioekonomikoan ohikoa den bezala, adierazle batzuen segimendua egiten da urtero eta, beste batzuen kasuan, bi urtean behin edo hiru urtean behin aztertzen dira, beste adierazle batzuk aztertu ahal izateko. Aldi berean, informazio berria dagoenean aztertzen diren beste adierazle batzuk hartzen dira kontuan, PISAren kasua bezalaxe Memoria Sozioekonomikoaren edizio honetan.

[19] Epigrafe honetan zehar kontuan hartu behar da HNSN 2011 Hezkuntzaren Nazioarteko Sailkapen Normalizatuak honako kategoriak zehazten dituela:
0 HNSN maila – Lehen haurtzaroaren hezkuntza edo Lehen Hezkuntza baino txikiagoa
1 HNSN maila – Lehen Hezkuntza
2 HNSN maila – Bigarren Hezkuntza baxua
3 HNSN maila – Bigarren Hezkuntza altua
4 HNSN maila – Bigarren Hezkuntzaren osteko hezkuntza, ez hirugarren mailakoa
Hirugarren mailako hezkuntza edo goragokoa
5 HNSN maila – Hirugarren mailako hezkuntza, ziklo laburrekoa
6 HNSN maila – Hirugarren mailako hezkuntza edo maila baliokidea
7 HNSN maila – Maisutzaren maila, espezializazioa edo baliokidea
8 HNSN maila – Doktoregoaren maila edo baliokidea e

IV.2.7 TAULA. ADIERAZLEEN SAILKAPENA (HEZKUNTZA-ADIERAZLEEN ESTATUKO SISTEMA)	
Eskolatzea eta hezkuntza-ingurua	• Eskolatzea eta biztanleria • Eskolatze-tasa derrigorrezkoak ez diren mailetako adin teorikoetan (INSN 0, 3, 4 eta 5) • Ikasle atzerritarrak • Ikasleak talde eta irakasle bakoitzeko ✓ Ikasleak hezkuntza-talde bakoitzeko ✓ Ikasleak irakasle bakoitzeko • Lanbide Heziketa • Parte-hartzea etengabeko ikaskuntzan.
Hezkuntza-finantziazioa	• Hezkuntzan egindako gastua guztira ✓ Hezkuntzako gastua guztira BPGDrekiko. ✓ Gastu publikoa hezkuntzan. ✓ Kontzertuetara bideratutako gastu publikoa. • Hezkuntza ikasle bakoitzeko egindako gastua.
Hezkuntza-emaitzen adierazleak	• Lehen Hezkuntzako laugarren mailako oinarrizko gaitasunak • DBH 2. Mailako oinarrizko gaitasunak • Funtsezko gaitasunak 15 urteekin (PISA) ✓ Irakurmen-gaitasuna ✓ Matematikarako gaitasuna ✓ Gaitasuna zientzietan ✓ Bizitza errealeko arazoak konpontzeko gaitasuna • Ikasleen adinaren egokitasuna. • Hezkuntzaren eta prestakuntzaren uzte goiztiarra • Graduazio-tasa gordina DBHn ✓ Graduazio-tasa gordinak bigarren etapako bigarren hezkuntzako ikasketetan ✓ 30-34 urteko biztanleen arteko tituludunen ehunekoa eta graduazio-tasa gordinak goi-mailako ikasketetan ✓ Zientzia, Matematika eta Teknologiako goi-mailako ikasketetan graduatutako pertsonen tasa • Biztanle helduen ikasketa-maila • Jarduera-tasa eta langabezia-tasa prestakuntza-mailaren arabera • Laneko diru-sarreren arteko aldea prestakuntza-mailaren arabera • Hizkuntza-gaitasuna atzerriko hizkuntzetan • Irakasleen prestakuntza matematiketan • Biztanle helduen gaitasun-maila (PIACC)
Iturria: Hezkuntza Ministerioa, kultura eta Heziketa. Berezko lantzea..	

Bestalde, epigrafearen azkenengo partean jasotzen dira Unibertsitate Sistemaren inguruko beste adierazle batzuk, Hezkuntza-adierazleen Estatuko Sistemaren Mapa agertzen ez direnak.

2.1.3.1. Eskolaratzea eta hezkuntza ingurunea

Eskolatze-tasa

Adin-talde bakoitzean prestakuntza arautuan parte hartzen duen pertsonen ehunekoa bezala definitzen da.

Erantsitako grafikoak erakusten duen bezala, bi emaitza mota ikus daitezke: betetze-maila osoa derrigorrezko irakaskuntzako etapetan edota orokorretan edo lanbide-hasierakoak (% 100 6-15 urte bitartean eta % 98 16-17 urte bitartean) eta adin gehiagorekin prestakuntza arautuko sisteman jarraitzen duten gazteen ehuneko altua, ratioa adina igo ahala murrizten bada ere. Emaitza horiek bat datoz eskola-uzte goiztiarraren tasan eta ikasketa tertziarioen tasan lortutakoekin (30-34 urte), aurrerago aztertzen direnak.

IV.2.2. GRAFIKOA. ESKOLATZE-TASA, BETETAKO ADIN-TALDEEN ARABERA. EAE



Iturria.- EUSTAT. Eskola-jardueraren estatistika. Hezkuntza-jardueraren adierazleak.

Eskolatze-tasak, hezkuntza-mailen eta betetako adin-taldeen arabera (adin-talde bakoitzean prestakuntza arautuan parte hartzen duen pertsonen ehunekoa, dagokion hezkuntza-mailari dagokionez) erakusten du, oro har, pertsona gehienak adinagatik dagokien hezkuntza-mailan daudela. Zentzu horretan, adina aurrera joan ahala, guztizko eskolatze-tasa murrizten da eta ibilbide luzeagoko hezkuntza-mailei dagokiena hazten da.

IV.2.8 TAULA. ESKOLATZE-TASA BETETAKO ADIN-TALDEEN ETA HEZKUNTZA-MAILAREN ARABERA. EAE. 2014-2015

	Eskolatze-tasa hezkuntza-mailen arabera					Guztizko eskolatze-tasa
	DBH	Batxilergoa	LH	Unibertsitatetik kanpoko goi-mailako ikasketak	Unibertsitateko goi-mailako ikasketak	
12-15 urte	96,1	0,0	0,0	0,0	0,0	99,9
16-17 urte	14,2	69,4	5,7	0,0	0,1	97,7
18-19 urte	0,1	11,1	12,6	11,6	46,3	89,5
20-22 urte	0,0	1,6	6,3	13,5	43,5	67,5
23-24 urte	0,0	0,6	2,8	7,0	22,2	35,2
25-26 urte	0,0	0,3	1,6	3,2	11,1	17,5
27-29 urte	0,0	0,2	0,9	1,7	6,0	10,5

Iturria: EUSTAT. Eskola-jardueraren Estatistika. Hezkuntza-jardueraren adierazleak.

Ikaskuntza iraunkorrean parte hartzea

Etengabeko ikaskuntzako ekintza batean parte hartzen duten 25 eta 64 urte bitarteko biztanleen ehunekoa bezala definitzen da, adin bereko biztanleria osoaren gainetik.

Europar Batasunak 2020rako helburu bezala ezarri du 25-64 urteko helduen % 15ek, gutxienez, hartuko duela parte etengabeko ikaskuntzako jardueraren batean.

"Hezkuntzaren Zifrak Espainian. Hezkuntza, Kultura eta Kiroleko Ministerioaren 2017 Edizioa" txostenaren datuen arabera, 2015ean, gure erkidegoan, 25 eta 64 urte bitarteko biztanleriaren % 12,9k prestakuntzako ekintzetan parte hartu zuen. Ratio hori Estatuko batez bestekoa baino altuagoa da (% 9,9), baita EB28koa baino altuagoa ere (% 10,7); hala ere, oraindik ez da heltzen 2020rako proposatutako % 15eko ehunekora. Izan ere, soilik herrialde hauek gainditzen dute Europaren helburu hori: Erresuma Batua (% 15,7); Luxenburgo (% 18); Frantzia (% 18,6); Herbehereak (% 18,9); Finlandia (% 25,4); Suedia (% 29,4) eta Danimarka (% 31,3).

Emakumeen parte-hartzea gizonena baino handiagoa da (% 13,7 % 12,1aren aurrean); hala, gauza bera gertatzen da Estatuan eta Europar Batasunean, herrialdeen araberako aldeak badaude ere.

IV.2.9 TAULA. PARTE-HARTZEA ETENGABEKO IKASKUNTZAN EUROPAR BATASUNEAN

	GUZTIRA			GIZONAK			EMAKUMEAK		
	2005	2010	2015	2005	2010	2015	2005	2010	2015
UE28	9,6	9,3	10,7	8,8	8,4	9,7	10,3	10,2	11,7
ALEMANIA	7,7	7,8	8,1	8,0	7,9	8,2	7,4	7,7	8,0
AUSTRIA	12,9	13,8	14,4	12,3	12,8	13,3	13,6	14,9	15,4
BELGIKA	8,3	7,4	6,9	8,2	7,2	6,5	8,5	7,6	7,3
BULGARIA	1,3	1,6	2,0	1,3	1,5	1,9	1,2	1,7	2,1
KROAZIA	5,9	8,1	7,5	5,4	7,9	6,9	6,3	8,2	7,9
TXIPRE	2,1	3,0	3,1	2,0	3,0	2,7	2,1	3,0	3,6
DANIMARKA	27,4	32,6	31,3	23,6	26,0	25,3	31,2	39,2	37,3
ESLOVENIA	15,3	16,4	11,9	13,6	14,3	10,7	17,2	18,5	13,3
ESPAINIA	10,8	11,2	9,9	9,8	10,3	9,2	11,7	12,1	10,7
ESTONIA	6,0	11,0	12,4	4,5	8,6	10,6	7,3	13,1	14,1
FINLANDIA	22,5	23,0	25,4	19,0	18,9	21,8	26,1	27,1	29,1
FRANTZIA	5,9	5,0	18,6	5,6	4,5	15,9	6,2	5,4	21,1
GREZIA	1,9	3,3	3,3	2,0	3,4	3,3	1,8	3,2	3,3
HUNGARIA	3,9	3,0	7,1	3,2	2,9	6,8	4,6	3,1	7,5
IRLANDA	7,4	7,0	6,5	6,2	6,6	6,0	8,6	7,5	7,0
ITALIA	5,8	6,2	7,3	5,4	5,9	6,9	6,2	6,5	7,7
LETONIA	7,8	5,4	5,7	4,8	3,6	4,1	10,6	7,0	7,2
LITUANIA	6,1	4,4	5,8	4,3	3,5	5,1	7,8	5,2	6,5
LUXENBURGO	8,5	13,5	18,0	8,5	12,9	18,2	8,5	14,2	17,8
MALTA	5,2	6,2	7,2	5,8	5,9	6,9	4,7	6,4	7,5
HERBEHEREAK	15,9	17,0	18,9	15,6	16,4	18,4	16,1	17,7	19,4
POLONIA	4,9	5,2	3,5	4,3	4,7	3,3	5,4	5,7	3,8
PORTUGAL	4,1	5,7	9,7	4,0	5,7	9,7	4,2	5,7	9,8
TXEKIA	27,6	20,1	15,7	23,1	16,9	13,9	32,1	23,3	17,5
ESLOBAKIA	5,6	7,8	8,5	5,2	7,6	8,3	5,9	8,0	8,6
ERRESUMA BATUA	4,6	3,1	3,1	4,3	2,5	2,7	5,0	3,7	3,4
ERRUMANIA	1,6	1,4	1,3	1,5	1,3	1,3	1,6	1,4	1,3
SUEDIA	17,4	24,7	29,4	13,0	18,3	22,3	21,9	31,3	36,7

Iturria: EUROSTAT Hezkuntzaren zifrak Espainian. 2017ko edizioa.

IV.2.10 TAULA. PARTE-HARTZEA ETENGABEKO IKASKUNTZAN ESTATUAN ETA EAEN

	2014			2015		
	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak
ESTATUA	9,8	9,2	10,5	9,9	9,2	10,7
EAE	**11,8**	**10,6**	**12,9**	**12,9**	**12,1**	**13,7**

Iturria: Hezkuntzaren zifrak Espainian. 2017ko Edizioa eta aurreko urteetakoak

2.1.3.2. Hezkuntza finantzaketa Gastua hezkuntzan

Hezkuntza-administrazioen gastua hezkuntzan

Hezkuntza, Kultura eta Kiroleko Ministerioaren datuen arabera, Hezkuntza-administrazioei dagokien gastua Hezkuntzan, EAEn, 2014an, 2.564 milioi eurokoa izan zen (urtebete lehenago 2.493 milioi eurokoa izan zen). Bestalde, Estatuan, 39.312 milioi eurokoa izan zen (2013an, 42.595 milioikoa). Hezkuntza-administrazioen gastua BPGdren gainean, EAEn, % 4,01ekoa izan zen, urte bereko Estatuko ratioa baino altuagoa (% 3,79) eta EAEn 2013an erregistratutakoa baino apur bat altuagoa (% 3,99).

"Hezkuntzaren Zifrak Espainian. Hezkuntza, Kultura eta Kiroleko Ministerioaren 2017 Edizioa" txostenaren datuen arabera, Estatuko gastu publikoa hezkuntzan, 2013an, BPGdren % 4,19a izan zen, EB28ko batez bestekoa baino ratio txikiagoa (% 5,3) eta % 5a gainditzen duten estatu kideen ratiotik urrun. Hauek dira ehuneko hori gainditzen duten herrialdeak: Suedia (% 7,4); Finlandia (% 7,2); Zipre (% 7,1), Malta (% 6,9); Belgika (% 6,7); Herbehereak (% 6,1); Irlanda (% 5,8); Austria (% 5,7); Portugal (% 5,3) eta Eslovenia (% 5,2).

Horrenbestez, iturriak homogeneoak ez badira ere, aurten ere, erkidegoak BPGdrekiko duen gastu publikoa arlo horretan erreferentziako herrialdeena baino txikiagoa dela esan daiteke.

Unibertsitateko eta unibertsitatetik kanpoko hezkuntza bereiziz, ondorioztatzen da gure erkidegoak Estatuko batez bestekoa gainditzen duela unibertsitatetik kanpoko hezkuntzan egindako esfortzuan (BPGdrekiko gastuaren ehunekoa); izan ere, % 3,22koa da, BPGdren % 2,78ren aurrean. Hala ere, ez du gainditzen unibertsitateko hezkuntzan egindako esfortzua (% 0,7 % 0,89ren aurrean).

IV.2.11 TAULA. HERRI-ADMINISTRAZIOEN GASTUA HEZKUNTZAN AUTONOMIA ERKIDEGOEN ARABERA, 2014

	BPGd (mila €)	Hezkuntzako gastua guztira				Unibertsitatetik kanpoko hezkuntzako gastua				Unibertsitateko hezkuntzako gastua			
		Guztira (mila €)	% (3)		Gastua/BPGd	Guztira (mila €)	% (3)		Gastua/BPGd	Guztira (mila €)	% (3)		Gastua/BPGd
			Gastu korrontea	Kapitaleko gastua			Gastu korrontea	Kapitaleko gastua			Gastu korrontea	Kapitaleko gastua	
ESTATUAN GUZTIRA (1)	1.037.025.000	42.436.581	94,0	5,2	4,09	30.977.991	97,7	2,2	2,99	8.889.702	81,5	15,0	0,89
Hezkuntza-administrazioak guztira		**39.311.632**	**94,3**	**4,9**	**3,79**	**28.832.273**	**98,1**	**1,8**	**2,78**	**8.875.718**	**81,5**	**15,1**	**0,89**
MEC		1.946.889	97,8	1,9		494.902	93,8	6,2		236.472	95,3	2,9	
MEC autonomia-erkidegoentzako transferentziaren ostean		1.699.855	97,5	2,2		471.891	93,4	6,5		236.472	95,3	2,9	
Andaluzia	138.630.113	7.268.044	92,9	6,4	5,24	5.243.753	98,5	1,5	3,78	1.679.611	76,3	20,8	1,21
Aragoi	32.737.472	1.037.056	94,4	5,2	3,17	780.456	97,6	2,4	2,38	251.731	84,4	13,8	0,80
Asturias	20.560.557	772.155	96,0	3,5	3,76	593.729	99,4	0,4	2,89	176.249	84,7	14,0	0,88
Balear uharteak	26.262.492	767.646	94,0	5,1	2,92	679.047	96,1	3,3	2,59	88.304	77,9	19,5	0,34
Kanariak	39.738.229	1.535.770	96,2	3,6	3,86	1.241.929	97,9	2,1	3,13	283.074	88,3	10,4	0,71
Kantabria	11.936.599	537.598	91,1	8,6	4,50	432.751	94,3	5,6	3,63	103.933	77,5	21,0	0,89
Gaztela eta Leon	51.885.273	2.012.093	96,1	3,5	3,88	1.506.474	98,9	1,1	2,90	495.563	87,3	10,8	0,95
Gaztela-Mantxa	35.698.046	1.466.811	98,5	1,3	4,11	1.283.434	99,1	0,9	3,60	183.377	94,6	4,1	0,50
Katalunia	196.714.713	5.571.630	95,7	3,9	2,83	4.154.825	98,6	1,4	2,11	1.351.504	86,4	11,7	0,73
Valentziako Erkidegoa	97.245.778	4.164.463	89,9	6,4	4,28	3.053.007	97,1	2,6	3,14	1.110.357	70,3	16,9	1,23
Extremadura	16.651.921	968.771	95,6	4,3	5,82	818.477	98,0	2,0	4,92	147.803	82,3	17,1	0,92
Galizia	53.864.664	2.200.022	93,1	6,0	4,08	1.661.718	98,7	1,3	3,08	514.529	78,1	18,1	0,96
Madril	195.367.513	4.650.464	93,5	5,8	2,38	3.132.353	98,4	1,6	1,60	1.453.928	82,8	15,1	0,81
Murtzia	26.559.415	1.253.524	94,9	4,7	4,72	1.000.128	98,3	1,7	3,77	248.662	80,9	17,3	0,95
Nafarroa	17.833.177	587.030	95,8	4,2	3,29	508.569	97,8	2,2	2,85	74.860	81,6	17,6	0,42
EAE	**63.907.507**	**2.563.993**	**96,4**	**3,5**	**4,01**	**2.056.838**	**98,0**	**2,0**	**3,22**	**435.435**	**88,2**	**11,0**	**0,70**
Errioxa	7.635.481	254.705	96,6	3,1	3,34	212.895	97,8	2,2	2,79	40.328	90,0	8,0	0,55
Hezkuntzakoak ez diren administrazioak guztira (2)		3.119.667	90,5	9,4		2.451.615	93,0	6,9		13.984	98,7	1,2	
Doikuntza-partidak		5.283				-305.898							

(1) Lortutako banaketa guztizko kopurutik kenduta, administrazioak banatu ez duena eta doikuntza-partidak (2) Beste ministerio eta sail batzuk eta tokiko korporazioak hartzen ditu barne. 100era heltzen ez badira beste partida batzuk egon daitezkeelako da (finantza-aktiboak eta pasiboak).
Iturria: Hezkuntza, Kultura eta Kiroleko Ministerioa. Hezkuntzaren zifrak Espainian. 2017ko Edizioa eta EIN

Hezkuntzan ikasleko egindako gastuaren konparazioa

EUROSTATen arabera, hezkuntza erakunde publiko eta pribatuen[20] gastua ikasleko, 2013an, 6.216 eurokoa zen Estatuan, Portugalen, Frantzian, Irlandan, Eslovenian, Finlandian, Alemanian eta Belgikan antzemandakoaren azpitik (6.641 eta 8.391 bitartean) eta Ziprek, Herbehereak, Danimarkak, Austriak, Suediak, Erresuma Batuak eta Maltak egiten dutenarengandik urrun (8.654 eta 13.437 euro bitartean).

IV.2.12 TAULA. GASTUA IKASLEKO (EUROAK PPS ERABILIZ KONBERTITUTA) HEZKUNTZA-ERAKUNDE PUBLIKO ETA PRIBATUETAN. ERREFERENTZIAZKO HERRIALDEAK. 2013

MALTA	13.437
ERRESUMA BATUA	9.825
SUEDIA	9.747
AUSTRIA	9.742
DANIMARKA	8.948
HERBEHEREAK	8.719
ZIPRE	8.654
BELGIKA	8.391
ALEMANIA	8.290
FINLANDIA	8.227
ESLOVENIA	7.967
IRLANDA	7.553
FRANTZIA	7.475
PORTUGAL	6.641
ESPAINIA	6.216

Iturria: EUROSTAT. Hezkuntzaren Zifrak Espainian, 2017

Hezkuntza, Kultura eta Kiroleko Ministerioaren datuen arabera, gastu publikoa ikasleko (zentro publiko eta itunduetan), unibertsitatetik kanpoko ikaskuntzan, Lanerako Prestakuntza kanpo utzita, EAEn, 2014an, 6.448koa izan zen ikasle bakoitzeko. Hala, zifra horrekin, EAE berriz kokatzen da autonomia erkidegoen rankingeko lehenengo postuan, aurreko urtearekiko kozientea murrizten bada ere. Estatuko batez bestekoa 4.537 eurokoa zen eta, beraz, ikasle bakoitzeko gastua EAEn Estatukoa baino % 42,1 handiagoa zen.

Zentro publikoen ikasle bakoitzeko gastu publikoa Unibertsitatez kanpoko irakaskuntzan, Lanerako Prestakuntza alde batera utzita, 8.976 eurokoa izan zen EAEn 2014. urtean. Beraz, berriz ere dugu gure Erkidegoa ikasle bakoitzeko gasturik handiena duena, aurreko urtearekiko kozientea murrizten bada ere. Estatuko batez bestekoa 5.169 euro zenez gero, ikasle bakoitzeko batez besteko gastua zentro publikoetan % 73,7 handiagoa izan zen EAEn Estatuan baino.

Deigarria da ikasle bakoitzeko kostuaren aldea sare osoaren eta sare publikoaren artean EAEn, gastuaren % 39,2koa izan zena. Beste autonomia erkidegoek, Nafarroak izan ezik, ez dute % 20ko aldea gainditzen.

IV.2.13 TAULA. GASTU PUBLIKOA IKASLE BAKOITZEKO UNIBERTSITATETIK KANPOKO IRAKASUNTZAN (1) AUTONOMIA ERKIDEGOEN ARABERA GASTO

	Gastua publikoa zentro publikoko eta itunduko ikasleko (euroan)				Gastu publikoa ikasle publikoko (euroan)				Desberdintasun-ratioa publikoaren artean eta publikoaren eta itunduaren artean			
	2010	2012	2013	2014	2010	2012	2013	2014	2010	2012	2013	2014
ESTATUA	**5.515**	**4.729**	**4.569**	**4.537**	**6.470**	**5.431**	**5.231**	**5.169**	**17,3**	**14,8**	**14,5**	**13,9**
ANDALUZIA	4.763	4.307	4.110	4.042	5.351	4.851	4.595	4.510	12,3	12,6	11,8	11,6
ARAGOI	5.490	4.778	4.775	4.707	6.513	5.557	5.516	5.372	18,6	16,3	15,5	14,1
ASTURIAS	6.647	5.647	5.667	5.530	7.996	6.622	6.615	6.435	20,3	17,3	16,7	16,4
BALEAR UHARTEAK	6.068	4.909	4.817	4.808	7.372	5.780	5.623	5.592	21,5	17,7	16,7	16,3
KANARIAK	5.167	4.533	4.527	4.539	5.816	5.005	5.031	5.017	12,6	10,4	11,1	10,5
KANTABRIA	6.292	5.506	5.534	5.623	7.573	6.453	6.474	6.539	20,4	17,2	17,0	16,3
GAZTELA ETA LEON	5.986	5.366	5.124	5.109	7.412	6.302	6.117	5.981	23,8	17,4	19,4	17,1
GAZTELA-MANTXA	5.902	4.663	4.335	4.295	6.427	5.008	4.624	4.591	8,9	7,4	6,7	6,9
KATALUNIA	5.409	4.515	4.237	4.198	6.481	5.220	4.876	4.746	19,8	15,6	15,1	13,1
VALENTZIAKO ERKIDEGOA	5.609	4.507	4.383	4.449	6.438	5.048	4.880	4.995	14,8	12,0	11,3	12,3
EXTREMADURA	5.771	5.140	5.220	5.276	6.529	5.747	5.815	5.881	13,1	11,8	11,4	11,5
GALIZIA	6.499	5.620	5.560	5.404	7.670	6.527	6.421	6.241	18,0	16,1	15,5	15,5
MADRIL	4.630	4.015	3.908	3.857	5.573	4.671	4.505	4.443	20,4	16,3	15,3	15,2
MURTZIA	5.417	4.643	4.438	4.352	6.183	5.195	4.939	4.841	14,1	11,9	11,3	11,2
NAFARROA	7.131	5.799	5.739	5.692	9.058	7.108	6.955	6.866	27,0	22,6	21,2	20,6
EAE	**7.359**	**6.572**	**6.475**	**6.448**	**10.592**	**9.143**	**9.175**	**8.976**	**43,9**	**39,1**	**41,7**	**39,2**
ERRIOXA	5.739	4.876	4.733	4.827	7.024	5.789	5.530	5.649	22,4	18,7	16,8	17,0

(1) Ikasleko gastu publikoa hezkuntza-sistemaren unibertsitatetik kanpoko ikaskuntzetan; beraz, lanerako prestakuntza kanpo. Eraldatutakoa, jardunaldi osoko baliokidean, nazioarteko estatistikan erabilitako metodologiarekin bat etorriz.
Iturria: Hezkuntza, Kultura eta Kiroleko Ministerioa. Hezkuntzaren zifrak Espainian, 2017 eta aurreko urteak

[20] *Adierazle honek erakunde publiko eta pribatuetan gastu publikoa nahiz pribatua kontuan hartzen du, lanerako prestakuntza sartzeaz gain eta eurotan kalkulatuta dago. Dena den, EAPa erabilita bihurtu dira. Hezkuntza maila guztiei erreparatzen zaie, haurren hasierako hezkuntza garapenari (Haur Hezkuntzaren lehenengo zikloa) izan ezik. Hau da, Lehen H., Bigarren Hezkuntzako 1. etapa, Bigarren Hezkuntzako 2. etapa eta Goi mailako H. Unibertsitarioa eta ez-unibertsitarioa.*

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren gastua

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren gastua (hezkuntzaren arloa soilik), 2015ean, 2.560,5 milioi eurokoa izan zen. Horrenbestez, % 1,9ko hazkundea zen aurreko ekitaldiarekiko. Zenbateko horren partaidetza ehunekoa, Eusko Jaurlaritzaren guztizko gastuan, % 25,2koa izan zen, aurreko urteko ratioaren antzekoa. Gastu hori EAEko BPGdren % 3,7 da; 2014an erregistratutakoaren antzeko ehunekoa. Hezkuntzako gastuaren ratioa ikasleko (ikasleen guztizko zenbatekoa, hau da, araubide orokorrekoa[21] eta araubide berezikoa[22]), 2014 eta 2015 bitartean, berriz ere hazi zen, hain zuzen ere, 5.227 eurotik 5.259ra.

Bestalde, 2016ko aurrekontuetan, 2.530,1 milioi eurokoa zen Hezkuntza Sailak soilik hezkuntzarako erabilitako partida. Horrek % 1,6ko gehikuntza dakar aurreko urtean aurrekontuan aurreikusitako gastuaren aldean. Eusko Jaurlaritzaren gastuen aurrekontuan duen partaidetzaren ehunekoa % 23,1 da. Gastu hori EAEko BPGdren % 3,53 da; 2015ean, berriz, % 3,65ekoa izan zen.

IV.2.14 TAULA. EUSKO JAURLARITZAK HEZKUNTZAN LIKIDATUTAKO/AURREKONTUAN AURREIKUSITAKO GASTUAREN BILAKAERA

Urteak	Mila euro	Gobernuaren guztizkoa (mila euro)	% EJk likidatutako guztikoaren gainetik	BPGd mila €	% BPGdren gainean	Oinarria 2008=100	Ikasleak guztira (1)	Ikasleko gastua euroan
Aurrekontu-likidazioekin								
2012	2.553.288	10.246.437	24,9	66.775.970	3,82	100	470,755	5.424
2013	2.405.343	9.579.464	25,1	65.906.376	3,65	94	479,061	5.021
2014	2.513.394	10.053.537	25,0	67.223.820	3,74	98	480,859	5.227
2015	2.560.630	10.161.474	25,2	69.216.483	3,70	100	486,870	5.259
Aurrekontuekin								
2015	2.490.390	10.638.959	23,4	69.216.483	3,60	98		
2016	2.530.062	10.933.299	23,1	71.575.972	3,53	99		

(1) Guztizko ikasleen kopuruan Araubide Orokorreko eta Bereziko Ikasleak hartzen dira barne. Araubide orokorreko ikasleen artean sartzen dira unibertsitatetik kanpokoak –aldi berean Hezkuntza Bereziko eta Helduen Etengabeko Hezkuntzako ikasleak hartzen dituena barne– eta unibertsitateko ikasleak. Araubide Bereziko ikasleen barruan sartzen dira Arte Plastikoak eta diseinuko; Hizkuntzen; Musikako; Dantzako; Kiroleko eta Diseinuko Goi-mailako Ikasketetako ikasleak.
Iturria: Berezko elaborazioa EUSTATetik abiatuz, EAEko kontu orokorrak eta azkenengo bi urteetarako aurrekontuak

2.1.3.3. Hezkuntza emaitzen adierazleak

Hezkuntzaren eta prestakuntzaren uzte goiztiarra

Gehienez bigarren hezkuntzako lehen etapa edo aurreko hezkuntza-mailak dituzten (INSN 0, 1 eta 2) eta ezelako hezkuntzarik edo prestakuntzarik jarraitzen ez duten 18-24 urte bitarteko pertsonen ehunekoa da.

Hezkuntza, Kultura eta Kiroleko Ministerioak argitaratutako informazioaren arabera, gure erkidegoan, hezkuntzaren eta prestakuntzaren uzte goiztiarreko tasak beheranzko joera aurkezten du eta, 2016an, % 7,9koa izan zen, EB28koa (% 11) eta Estatuko (% 19) batez bestekoen azpitik.

IV.2.15 TAULA. HEZKUNTZAREN ETA PRESTAKUNTZAREN UZTE GOIZTIARRA. ESTATUKO ETA EAEKO KONPARAZIOA SEXUAREN ARABERA

	Guztira			Gizonak			Emakumeak		
	2014	2015	2016	2014	2015	2016	2014	2015	2016
Estatua	21,9	20,0	19,0	25,6	24,0	22,7	18,1	15,8	15,1
EAE	**9,4**	**9,7**	**7,9**	**11,8**	**11,9**	**10,7**	**7,0**	**7,4**	**5,0**

Iturria: 2016ko hezkuntza-prestakuntzako uztea (2017ko). Hezkuntza, Kultura eta Kiroleko Ministerioa

[21] *Unibertsitarioa eta ez-unibertsitarioa..*
[22] *Arte plastikoak eta diseinua, hizkuntzak, musika, dantza, kirola eta diseinuko goi mailako ikasketak.*

Horrela, EAEk Europar Batasunak 2020rako ezarritako % 10eko helburua nabarmen gainditzea lortu du. Gogorarazi behar dugu, zentzu horretan, Espainiak, bere tasa altua dela-eta, % 15aren azpitik murrizteko proposatu duela.

Hauek dira helburua lortu duten herrialdeak: Kroazia (% 2,8); Eslovenia (% 5); Zipre (% 5,2); Polonia (% 5,3); Lituania (% 5,5); Txekia (% 6,2); Irlanda eta Eslovakia (biak % 6,9rekin); Suedia (% 7); Austria (% 7,3); Danimarka (% 7,8); Grezia (% 7,9); Herbehereak (% 8,2); Finlandia (% 9,2); Frantzia (% 9,2); Luxenburgo (% 9,3) eta Letonia (% 9,9).

Sexuaren aldetik, aurreko urteetan legez, uzte-tasa handiagoa zen gizonen artean emakumeen artean baino herrialderik gehienetan. EAEn, 2016an, tasa maskulinoa femeninoa baino 5,7 puntu gehiagokoa da (% 10,7 % 5aren aurrean). Hau da, gure erkidegoan, Europaren helburua lortzen da emakumeek izandako emaitza onari esker.

Memoriaren aurreko edizioan adierazi genuen bezala, *"2015eko Hezkuntza-adierazleen Estatuko Sistema"* txostenaren arabera, gurasoen hezkuntza-maila faktore garrantzitsua da uzte horretan, batez ere, amaren hezkuntza-maila.

IV.2.16 TAULA. HEZKUNTZAREN ETA PRESTAKUNZAREN UZTE GOIZTIARRA ESTATU KIDEAREN ETA SEXUAREN ARABERA

	GUZTIRA			GIZONAK			EMAKUMEAK		
	2005	2010	2015	2005	2010	2015	2005	2010	2015
UE28	15,7	13,9	11,0	17,7	15,8	12,4	13,7	11,9	9,5
ALEMANIA	13,5	11,8	10,1	13,3	12,5	10,4	13,7	11,0	9,8
AUSTRIA	9,3	8,3	7,3	9,7	8,4	7,8	8,9	8,3	6,8
BELGIKA	12,9	11,9	10,1	15,3	13,8	11,6	10,5	10,0	8,6
BULGARIA	20,4	12,6	13,4	20,6	12,4	13,3	20,3	12,9	13,4
ZIPRE	18,2	12,7	5,2	27,2	16,2	7,7	10,4	9,8	3,1
KROAZIA	5,1	5,2	2,8	6,0	6,5	3,6	4,2	3,8	2,1
DANIMARKA	8,7	11,0	7,8	10,5	14,1	9,7	6,9	7,7	5,7
ESLOVENIA	4,9	5,0	5,0	6,5	6,4	6,4	3,2	3,3	3,4
ESPAINIA	31,0	28,2	20,0	37,0	33,6	24,0	24,7	22,6	15,8
ESTONIA	14,0	11,0	11,2	16,7	14,4	13,2	11,2	7,6	9,0
FINLANDIA	10,3	10,3	9,2	12,4	11,6	10,6	8,2	9,0	7,9
FRANTZIA	12,5	12,7	9,2	14,3	15,3	10,1	10,6	10,2	8,4
GREZIA	13,3	13,5	7,9	17,1	16,4	9,4	9,5	10,6	6,4
HUNGARIA	12,5	10,8	11,6	13,7	11,5	12,0	11,3	10,1	11,2
IRLANDA	12,5	11,5	6,9	15,4	13,4	8,4	9,5	9,6	5,4
ITALIA	22,1	18,6	14,7	25,8	21,8	17,5	18,4	15,3	11,8
LETONIA	15,4	12,9	9,9	19,0	16,7	13,4	11,8	9,0	6,2
LITUANIA	8,4	7,9	5,5	11,0	9,8	6,9	5,7	6,0	4,0
LUXENBURGO	13,3	7,1	9,3	17,0	8,0	10,5	9,6	6,0	8,1
MALTA	33,0	23,8	19,8	37,4	29,9	22,9	28,3	17,4	16,6
HERBEHEREAK	13,5	10,0	8,2	15,9	12,1	9,9	11,1	7,8	6,4
POLONIA	5,3	5,4	5,3	6,8	7,2	7,2	3,7	3,5	3,2
PORTUGAL	38,3	28,3	13,7	46,2	32,4	16,4	30,2	24,0	11,0
ERRESUMA BATUA	11,5	14,8	10,8	12,6	15,6	11,7	10,5	13,9	9,9
TXEKIA	6,2	4,9	6,2	6,1	4,9	6,4	6,3	4,8	6,0
ESLOVAKIA	6,3	4,7	6,9	6,7	4,6	6,9	5,9	4,9	6,8
ERRESUMA BATUA	11,5	14,8	10,8	12,6	15,6	11,7	10,5	13,9	9,9
ERRUMANIA	19,6	19,3	19,1	20,1	19,5	19,5	19,1	19,0	18,5
SUEDIA	10,8	6,5	7,0	11,9	7,5	7,6	9,7	5,5	6,4

Kontzeptu eta definizio harmonizatuen ezarpena eta urteko batez bestekoekin egindako kalkulu berrien trantsizioa dela-eta, datu hauek ez datoz bat 2009ko azaroaren argitaratutakoekin. Iturria: EUROSTAT Hezkuntzaren Zifrak Espainian. 2017ko Edizioa. Hezkuntza, Kultura eta Kiroleko Ministerioa.

PISA proiektua Irakurmenean eta gaitasun zientifikoan eta matematikoan lorturiko batez besteko emaitzak

Irakas Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundeak (ISEI-IVEI) eta Hezkuntzaren Ebaluaziorako Institutu Nazionalak (HEIN) egindako *PISA 2015 Txostenetan* jasotzen den bezala, PISA proiektuaren (Ikasleen Nazioarteko Ebaluaziorako Programa) helburu nagusia da 15 urteko ikasleen prestakuntzari, trebakuntzari eta gaikuntzari buruzko informazioa izatea. Izan ere, ikasle horiek derrigorrezko hezkuntza bukatzear daude, ezagutzak aplikatzeko eta bizitza helduaren erronkei aurre egiteko.

Ebaluazioa zientziako, irakurmeneko eta matematiketako oinarrizko eskola-ikasgaietan oinarritzen da. Horrez gain, ikasleen gaitasunak ebaluatzen dira arlo berritzaile batean (2015ean, eremu hori arazoen ebazpen korporatiboa izan zen).

Aplikazio bakoitzean, ikasleen errendimenduak aztertzen dira aipatutako gaitasunetan, baina horietako bat txandakakoa da eta arreta sakonagoa merezi du. PISA 2015 azterlana zientzietan oinarritu zen, irakurmena, matematikak eta arazoen ebazpen korporatiboa ebaluazioaren bigarren mailako arlo gisa utziz.

2015eko edizioaren desberdintasun metodologikoei dagokienez, aurrekoekin alderatuta, hauek aipatu behar dira:

- PISA 2015 azterlanak gazteen finantza-ezagutzen ebaluazioa egin zuen; horren administrazioa hautazkoa izan zen herrialde eta ekonomientzat eta EAEko ikasleen lagin bati aplikatu zitzaion. Hala ere, ez dugu epigrafe honetan sartu emaitzak ez direlako aurkeztu.

- Hauxe izan da lehenengo urtea aplikazioa ordenagailuz egin dena guztiz, familientzako galdetegia izan ezik.

- EAEko lagina aurreko edizioetan erabilitakoaren desberdina izan zen. Funtsezko aldaketa izan zen, 2003tik 2012ra bitarteko edizioetan ez bezala, 2015ean, geruzatutako lagin bat aukeratu zela hezkuntza-sareen eta hizkuntza-ereduen araberakoa, hain zuzen ere, eta ez aurreko edizioetako laginetan erabilitako sei estratuen araberakoa (zentro publikoa eta A eredua, zentro publikoa eta B eredua, zentro publikoa eta D eredua, itundutako zentroa eta A eredua, itundutako zentroa eta B eredua, itundutako zentroa eta D eredua).

  Erabaki hori, funtsean, arrazoi ekonomikoengatik hartu zen; izan ere, aplikazioaren kostua ordenagailuko euskarrian garestiagoa zen paperean egindakoa baino, 2012ra arte erabilitakoa. Garrantzitsuena da erabaki honek, besteak beste, bi ondorio hauek dituela:

  - Batetik, lagina aurreko edizioetakoa baino txikiagoa da, hau da, 4.739 ikasletik eta 174 zentrotik 2012an, 3.612 ikaslera eta 119 zentrora igaro da.

  - Bestetik, lagina euskal hezkuntza-sistema egituratzen duten hiru hizkuntza-ereduen arabera geruzatu zen, baina ez 2012ra arte laginaren erreferentzia izandako sei estratuen arabera.

- Kontuan hartu beharreko beste alderdi bat da, euskal ikasleen kasuan, frogaren hizkuntza euskara edo gaztelania izan daitekeela eta, kasu gehienetan, familia-hizkuntzarekin dago lotuta. Irizpide orokorra da soilik familia-euskaldun bezala identifikatzen diren ikasleek erantzuten dituztela frogak euskarazko bertsioan. Gainerako ikasleek, aldiz, familia-hizkuntza gaztelania dutenak eta beste familia-hizkuntza batzuk dituztenak, gaztelaniaz erantzuten dituzte. Hala eta guztiz ere, 2015eko edizioan, familia-euskaldunak diren ikasleek ez ezik, familian gaztelaniaz hitz egiten duten ikasleetako batzuek ere erantzun dituzte frogak euskaraz.

Horrek aldaketa nabarmena eragin du 2012tik 2015era; izan ere, ehunekozko 9,1 puntu areagotu da frogak euskaraz erantzuten dituzten ikasleen kopurua. Ikasle horien jokabidea apur bat desberdina da aurreko edizioetan antzemandakoarekin alderatuta, familia-hizkuntzaren eta frogan erabilitako hizkuntzaren araberako emaitzen azterketan.

Jarraian, emaitzak azalduko ditugu.

Gaitasun zientifikoa

Ebaluatutako hiru gaitasunetatik, Euskadiren emaitzen beherakadarik handiena gaitasun zientifikoan eman da, 23 puntuko aldearekin 2012ko edizioarekin alderatuta (2015ean, akatsa 3,02koa izan da). Hori da 2003tik egindako edizio guztietako emaitzarik baxuena.

Era berean, EAEren puntuazioa (483 puntu) ELGAko batez bestekoa baino baxuagoa da, baita Espainiako batez bestekoa baino baxuagoa ere (493 bi kasuetan).

Deigarria da ELGAren batez besteko puntuazioaren beherakada nabarmena; orain arte ez zen egoera hori eman, egonkortasun handia zelako emaitzaren bereizgarria. Izan ere, ELGAko herrialde gehienetan, autonomia erkidego asko barne, puntuazioa jaitsi da 2012tik 2015era bitartean. ELGAren nazioarteko batez bestekoak 8 puntu egin ditu atzera eta ELGAko 39 herrialdeetatik, soilik 7k lortu dute emaitzak hobetzea bi neurketa horien artean.

Emaitzarik onenak lortu dituzte Singapurrek (556); Japoniak (538); Estoniak (534) eta Finlandiak (531).

Espainiaren batez bestekoari dagokionez, 2003an eta berriz ere 2015ean izan ezik, Euskadiren emaitza beti egon da Espainiaren batez besteko puntuazioaren gainetik. 2015ean, Estatuko batez bestekoarekiko aldea 10 puntukoa izan zen (483 EAEn, Estatuko 493ren aurrean).

Autonomia erkidegoen arabera, puntuaziorik altuenak lortu dituzte Gaztela eta Leonek (519);

IV.2.17 TAULA. BATEZ BESTEKO EMAITZAK GAITASUN ZIENTIFIKOAN. PISA 2003, 2006, 2009, 2012 y 2015 *

	2015	2012	2009	2006	2003
SINGAPUR	556				
JAPONIA	538	547		531	548
ESTONIA	534	541			
FINLANDIA	531	545	554	563	548
KANADA	528	525		534	519
GAZTELA ETA LEON	519	519	516	520	502
MADRIL	516	517			
HEGO-KOREA	516	538		522	538
ESLOVENIA	513	514			
NAFARROA	512	514	509	511	
GALIZIA	512	512	506		
AUSTRALIA	510	521			
ERRESUMA BATUA	509	514			
ALEMANIA	509	524			
HERBEHEREAK	509	522			
ARAGOI	508	504	505	513	
SUIZA	506	515	517		
KATALUNIA	504	492	497	491	502
IRLANDA	503	522			
BELGIKA	502	505			
DANIMARKA	502	498			
ASTURIAS	501	517	502	508	
POLONIA	501	526			
PORTUGAL	501				
ERRIOXA	498	510	509	520	
NORVEGIA	498				
GAZTELA-MANTXA	497				
KANTABRIA	496	501	500	509	
ESTATU BATUAK	496	497			
AUSTRIA	495	506			
FRANTZIA	495	499			
VALENTZIAKO ERKIDEGOA	494				
SUEDIA	493				
TXEKIA	493	508			
ESPAINIA	493	496	488	488	487
ELGAKO BATEZBESTEKOA	493	501	496	500	500
...					
BALEARRAK	485				
MURTZIA	484				
EAE	483	506	495	495	484
ELGAko batez bestekoarekiko aldea	-10	5	-1	-5	-16
Estatuko batez bestekoarekiko aldea	-10	10	7	7	-3
KANARIAK	475				
EXTREMADURA	474				
ANDALUZÍA	473				

** Aurreko urteetan herrialdearen datua aipatzen ez denean, urte horietan herrialde hori lehenengo postuetan agertzen ez zelako edo azterlanean parte hartu ez zuelako da*
Iturria: PISA 2015 eta berezko elaborazioa

Madrilgo Erkidegoak (516); Nafarroak (512) eta Galiziak (512). Hala, puntuazio horiek ELGAko herrialdeen batezbestekoa baino altuagoak dira (493).

Aipatu beharreko beste adierazle bat da euskal ikasleek askoz gutxiago parte hartzen dutela zientziekin lotutako eskolaz kanpoko jardueretan, ELGAko ikasleekin eta Espainiako batez bestekoarekin alderatuta. Soilik euskal ikasleen % 4,9k hartzen du parte zientzietako lantegietan, ELGAko % 39,3ren aurrean. Horrez gain, % 38ak hartzen du parte zientzien inguruko lehiaketetan, ELGAN % 66,5era igotzen dena.

Ondorio gisa, esan daiteke, 2015ean, Euskadiren emaitzak ez direla positiboak izan. Hala ere, kontuan hartu beharra dago ELGAko herrialde gehienen emaitzen errendimendua gaitasun zientifikoan, Europar Batasuneko ia-ia herrialde guztiak barne, okertu egin dela azkenengo hiru urteetan.

Irakurmena

Gaitasun honetan, esan daiteke emaitzak mantendu direla eta ez dagoela aldaketarik euskal ikasleen gaitasun-mailan. Hala ere, 2015ean lortutako puntuazioa 2012koa baino 7 puntu baxuagoa da; alde hori ez da nabarmena, 2015ean, akatsa 4,7koa izan delako.

Euskadik berezko laginarekin parte hartu duen azterlan honen bost edizioetan, ELGAren eta Euskadiren emaitzen aldea ez da nabarmena izan estatistikoki.

Emaitzarik onenak lortu dituzte Singapurrek (535); Kanadak (527); Finlandiak (526) eta Irlandak (521).

Espainiako batez besteko emaitzekin alderatuta, Euskadiren puntuazioa nahiko altuagoa izan da 2003tik 2012ra; hala ere, 2015ean, estatistikoki berdindu dira.

IV.2.18 TAULA. BATEZ BESTEKO EMAITZAK IRAKURMEN-GAITASUNEAN. PISA 2003, 2006, 2009, 2012, 2015*

	2015	2012	2009	2006	2003
SINGAPUR	535				
KANADA	527	523	524	527	528
FINLANDIA	526	524	536	547	543
GAZTELA ETA LEON	522	505	503	478	499
IRLANDA	521	523			
MADRIL	520	511	503		
ESTONIA	519	516			
HEGO-KOREA	517	536	539	556	534
JAPONIA	516	538	520	498	498
NAFARROA	514	509	497	481	
NORVEGIA	513	504	503	484	500
GALIZIA	509	499			
ZELANDA BERRIA	509	512	521	521	522
ALEMANIA	509	508			
ARAGOI	506	493	495	483	493
POLONIA	506	518			
ESLOVENIA	505				
HERBEHEREAK	503	511	508		
AUSTRALIA	503	512	515	513	525
KANTABRIA	501	485			
KATALUNIA	500	501	498	477	483
SUEDIA	500				
DANIMARKA	500				
GAZTELA-MANTXA	499				
VALENTZIAKO ERKIDEGOA	499				
FRANTZIA	499	505			
BELGIKA	499	509	506	501	507
ASTURIAS	498	504	490	477	
PORTUGAL	498				
ERRESUMA BATUA	498	499			
ESTATU BATUAK	497	498			
ESPAINIA	496	488	481	461	481
SUITZA	492	509			
...					
ELGAKO BATEZ BESTEKOA	493	496	493	492	494
EAE	491	498	494	487	497
ELGAko batez bestekoarekiko aldea	-2	2	1	-5	3
Estatuko batez bestekoarekiko aldea	-5	10	13	26	16
ERRIOXA	491	490			
...					

** Aurreko urteetan herrialdearen datua aipatzen ez denean, urte horietan herrialde hori lehenengo postuetan agertzen ez zelako edo azterlanean parte hartu ez zuelako da*

Iturria: PISA 2015 eta berezko elaborazioa

Autonomia erkidegoen arabera, puntuaziorik onenak Gaztela eta Leonek (522); Madrilgo Erkidegoak (520); Nafarroak (514) eta Galiziak (509) lortu dituzte; hala, puntuazio horiek ELGAko herrialdeen batez bestekoa baino altuagoak dira (493).

Matematikarako gaitasuna

EAEren emaitza 12 puntu okerragotu egin da 2012ko edizioarekiko (492 puntu 505 punturen aurrean, 3,69ko akatsarekin). Hori da 2003tik lortutako emaitzarik baxuena.

Euskadi ELGAren batez bestekoan kokatu zen 2003an eta 2006an; 2009ko eta 2012ko edizioetan, berriz, Euskadiren puntuazioa ELGAren batez bestekoaren gainetik egon zen. 2015eko edizioko puntuazioaren beherakadarekin, Euskadi berriz ere kokatzen da ELGAren batez bestekoan.

Emaitzarik onenak lortu dituzte Singapurrek (564); Japoniak (532); Hego-koreak (524) eta Suitzak (521).

Autonomia erkidegoen arabera, puntuaziorik altuenak lortu dituzte Nafarroak (518); Gaztela eta Leonek (506); Errioxak (505) eta Madrilgo Erkidegoak (503). Hala, puntuazio horiek ELGAko herrialdeen batez bestekoa gainditzen dute (490).

Batez besteko puntuazioen eta aldakortasunaren arteko harremana (95 eta 5 pertzentilen arteko aldea)

Jarraian, kalkulatutako batez besteko puntuazioen eta aldakortasunaren arteko harremana aztertuko dugu, hau da, 95 eta 5 pertzentiletako batez besteko puntuazioen arteko aldea. Hezkuntza-sistema ontzat hartzen da batez besteko puntuazio altuak lortzeaz gain, aldakortasun baxua duena, hau da, puntuaziorik altuena duten ikasleen (95 pertzentila) eta baxuena duten (5 pertzentila) ikasleen artean alde nabarmenik ez dagoela. Izan ere, horrek adierazten du sistema homogeneoa dela.

Hiru gaitasunetan, Euskadiren emaitzen aldakortasun baxuak, 95-5 pertzentilen arteko puntuazioaren aldearen bidez neurtuta, adierazten du euskal hezkuntza-sistema oso sistema bidezkoa dela, nazioarteko batez bestekoaren gainetik. Hala ere, emaitzak hobetu beharko lirateke bikaintasunezko sistema bihurtzeko.

IV.2.19 TAULA. BATEZ BESTEKO EMAITZAK MATEMATIKARAKO GAITASUNEAN. PISA 2003, 2006, 2009, 2012 y 2015 *

	2015	2012	2009	2006	2003
SINGAPUR	564				
JAPONIA	532	536	529	523	534
HEGO-KOREA	524	554	546	547	542
SUITZA	521	531	534	530	527
ESTONIA	520	521			
NAFARROA	518	517	511	515	
KANADA	516	518	527	527	532
HERBEHEREAK	512	523			
DANIMARKA	511				
FINLANDIA	511	519	541	548	544
ESLOVENIA	510				
BELGIKA	507	515			
GAZTELA ETA LEON	506	509	514	515	503
ALEMANIA	**506**	**514**			
ERRIOXA	**505**		**504**	**526**	
POLONIA	504	518			
IRLANDA	504				
....					
MADRIL	503	503	496		
ARAGOI	500	496	506	513	
KATALUNIA	500	493	496	488	494
KANTABRIA	495	491	495		
GALIZIA	494	489	489	494	
EAE	492	505	510	501	502
ELGAko batez bestekoarekiko aldea	2	11	22	3	2
Estatuko batez bestekoarekiko aldea	6	21	27	21	17
ASTURIAS	492	500	494	497	
ELGAKO BATEZ BESTEKOA	490	494	488	498	500
GAZTELA-MANTXA	**486**				
ESPAINIA	486	484	483	480	485
VALENTZIAKO ERKIDEGOA	**485**				
BALEARRAK	**476**	**475**			
EXTREMADURA	473	461			
MURTZIA	470	462			
ANDALUZÍA	466	472			
KANARIAK	**452**				
...					

** Aurreko urteetan herrialdearen datua aipatzen ez denean, urte horietan herrialde hori lehenengo postuetan agertzen ez zelako edo azterlanean parte hartu ez zuelako da*
Iturria: PISA 2015 eta berezko elaborazioa

Emaitzak errendimendu-mailen arabera

Hezkuntza-sistema bakoitzari esleitutako batez besteko puntuazioek esan nahi dutena hobeto interpretatzeko, PISAk errendimendu-mailen eskala bat ezartzen du ebaluatutako gaitasun bakoitzarentzat. Zazpi maila deskribatzen dira, aurreratuenetik (6. maila), oinarrizko mailara (1b maila).

Gaitasun zientifikoan, euskal ikasleen ehunekoa errendimendu baxuko mailetan (1. Maila), 2012an % 12koa izatetik % 20ra igaro da 2015ean. Hala, horrek Europako 2020 adierazletik aldentzen du, % 15ean ezarritakoa. Hala eta guztiz ere, 2015eko ehunekoak ELGAren batez besteko % 22ko ehunekoa baino baxuagoa izaten jarraitzen du.

Irakurmen-gaitasunean, errendimendu baxuko mailetan, euskal ikasleen ehunekoa, 2012an % 14koa zen eta, 2015ean, % 17koa. Horrela, Europako 2020 adierazleak ezarritako atalasea gainditu da, hain zuzen ere, % 15ean ezarritakoa. Aitzitik, bikaintasun-mailetan, igoera txiki bat egon da 2012ko % 5etik 2015eko % 5,4ra. Errendimendu baxuko mailetan, ehunekoak ELGAko % 20ko batez besteko ehunekoa baino txikiagoa izaten jarraitzen du.

Matematikarako gaitasunean, euskal ikasleen ehunekoa okerragotu da maila baxuetan, 2012rekin alderatuz ehunekozko 4 puntu igo delako eta % 19,5era heldu delako, Europako 2020 adierazletik urrunduz. Bikaintasun-mailetan, okerragotze bat egon da eta 2012ko % 10,4tik 2015eko % 7,4ra igaro da. Errendimendu baxuko mailetan, ehunekoak ELGAren % 23ko batez bestekoa baino txikiagoa izaten jarraitzen du, baina bikaintasun-mailetan ere txikiagoa da, hain zuzen ere, % 10ekoa.

IV.2.20 TAULA. EMAITZAK MAILAREN ARABERA. PISA 2012 ETA 2015 (ikasleen % mailetan)

MAILA	IRAKURMEN-GAITASUNA				GAITASUN ZIENTIFIKOA				MATEMATIKARAKO GAITASUNA			
	2012		2015		2012		2015		2012		2015	
	ELGA	EAE	ELGA	EAE	ELGA	EAE	ELGA	EAE	ELGA	EAE	ELGA	EAE
1. Baxua	18	14	20	17	18	12	22	20	23	16	23	20
2 eta 3. Ertaina	53	59	51	57	53	62	52	60	46	51	48	54
4. Altua	21	22	20	20	21	21	19	17	18	23	19	19
5 eta 6 Bikaintasuna	8	5	8	5	8	5	8	3	13	10	10	7

Iturria: PISA 2015 EUSKADI, Emaitzen txostena eta berezko elaborazioa

Ikasleen sexuaren araberako emaitzak

Gaitasun zientifikoari dagokionez, ez dago alde nabarmenik nesken puntuazioaren (480 puntu) eta mutilen puntuazioaren artean (486 puntu). Bi sexuen arteko aldea nabarmena zen eta 2012ko 9 puntuetatik 2015eko 6 puntuetara murriztu egin da. Bai nesken, bai mutilen kasuan, emaitzak 20 puntu baino gehiago jaitsi egin dira 2012tik 2015era.

PISAk ebaluatutako hiru gaitasunetatik, normalean, irakurmen-gaitasunean antzematen dira alde gehiago mutilen eta nesken puntuazioen artean; hala ere, PISA ebaluazioaren azkenengo edizioetan zehar, distantzia hori murriztuz joan da. Neskek mutilek baino puntuazio hobea lortzen dute irakurmen-gaitasunean, bai 2012an, bai 2015ean. Hala ere, bi edizioen arteko distantzia 2012ko 30 puntuetatik 2015eko 15 puntuetara murriztu egin da.

Matematikarako gaitasunean, mutilen puntuazioa (496 puntu) neskena baino altuagoa da (487 puntu). Bi sexuen arteko aldea 14 puntutik 9ra murriztu da. Bai nesken bai mutilen emaitzak jaitsi egin dira 2012tik 2015era; hala ere, galera handiagoa izan da nesken kasuan, 16 puntukoa, nesken kasuan baino, 11 puntukoa.

30 urtetik 34 urtera bitarteko biztanleen prestakuntza goi-mailako hezkuntzan

Goi-mailako prestakuntzako maila lortu duten 30 urtetik 34 urtera bitarteko pertsonen ehunekoa bezala definitzen da (goi-mailako lanbide heziketa edo unibertsitateko prestakuntza).

Hezkuntza, Kultura eta Kiroleko Ministerioak argitaratutako informazioaren arabera, 30-34 urteko biztanleen ikasketa tertziarioen tasa, EAEn, % 54,2koa da; zifra hori EB28ko batez bestekoa baino hobea da (% 38,7) eta, izan ere, erregistrorik onenen mailan dago: Lituania (% 57,6); Zipre (% 54,5); Luxenburgo (% 52,3); Irlanda (% 52,3) eta Suedia (% 50,2).

Hala ere, 2010 eta 2015 bitartean, ikasketa tertziarioen tasa ehunekozko 5,6 puntu jaitsi egin da.

Generoari erreparatuz, antzematen da altuagoa dela emakumeengan (% 60,8), 13,2 puntuko aldearekin tasa maskulinoarekiko (% 47,6).

IV.2.21 TAULA. 30 URTETIK 34 URTERA BITARTEKO BIZTANLEEN PRESTAKUNTZA GOI-MAILAKO HEZKUNTZAN (*GOI-MAILAKO HEZKUNTZAKO PRESTAKUNTZA-MAILA DUEN 30 URTETIK 34 URTERA BITARTEKO BIZTANLEEN EHUNEKOA*)

	GUZTIRA		GIZONAK		EMAKUMEAK	
	2010	2015	2010	2015	2010	2015
EB28	**33,8**	**38,7**	**30,3**	**34,0**	**37,3**	**43,4**
ALEMANIA	29,7	32,3	29,9	32,2	29,4	32,4
AUSTRIA	23,4	38,7	22,3	37,5	24,4	40,0
BELGIKA	44,4	42,7	39,0	36,7	50,0	48,7
BULGARIA	28,0	32,1	20,5	24,8	35,9	39,9
ZIPRE	45,3	54,5	41,3	46,7	48,9	61,6
KROAZIA	24,5	30,9	21,6	23,8	27,6	38,3
DANIMARKA	41,2	47,6	36,7	39,6	45,9	55,9
ESLOVENIA	34,8	43,4	26,4	32,0	44,0	56,4
ESPAINIA	**42,0**	**40,9**	**36,7**	**34,8**	**47,5**	**47,1**
ESTONIA	40,2	45,3	32,2	34,5	48,6	56,7
FINLANDIA	45,7	45,5	37,7	38,1	54,0	53,4
FRANTZIA	43,2	45,0	39,0	40,3	47,2	49,6
GREZIA	28,6	40,4	26,2	35,3	31,1	45,5
HUNGARIA	26,1	34,3	21,4	27,6	30,8	41,0
IRLANDA	50,1	52,3	44,4	45,1	55,5	58,6
ITALIA	19,9	25,3	15,6	20,0	24,2	30,8
LETONIA	32,6	41,3	23,7	26,8	41,5	56,5
LITUANIA	43,8	57,6	36,4	47,2	50,8	68,4
LUXENBURGO	46,1	52,3	44,8	46,8	47,4	57,7
MALTA	22,1	27,8	20,6	23,6	23,8	32,2
HERBEHEREAK	41,4	46,3	38,4	43,0	44,4	49,6
POLONIA	34,8	43,4	29,5	35,1	40,4	52,0
PORTUGAL	24,0	31,9	17,9	23,3	29,9	40,1
ERRESUMA BATUA	43,1	47,9	41,0	44,5	45,1	51,1
TXEKIA	20,4	30,1	18,6	24,7	22,3	35,9
ESLOVAKIA	22,1	28,4	18,2	22,8	26,2	34,4
ERRUMANIA	18,3	25,6	17,5	24,2	19,2	27,2
SUEDIA	45,3	50,2	39,8	43,2	51,1	57,7
EAE	**59,8**	**54,2**	**55,7**	**47,6**	**64,1**	**60,8**

Iturria: EUROSTAT Hezkuntzaren Zifrak Espainian. 2017ko Edizioa Hezkuntza, Kultura eta Kiroleko Ministerioa

Unibertsitate-adierazleak. 2016

Hezkuntza, Kultura eta Kiroleko Ministerioak urtero argitaratzen duen *Unibertsitate-adierazleen Estatistikak* laburpen-informazioa ematen du Espainiako unibertsitate-sistemari dagokionez. Espainiako unibertsitate guztiek, publikoek zein pribatuek, definitzen dute *Estatistikaren* esparruan, baita Espainiako Estatuan dauden zentro guztiek ere, berezkoek zein atxikitakoek, titulu ofizialak eman eta igortzeko egoeran daudenek, alegia.

Errendimendu, eskola-uzte, aldaketa eta egokitasun tasak: graduko ikasleak

EAEn, graduko ikasleen **errendimendu-tasa** (gainditutako kredituen eta matrikulatutakoen arteko harremana), 2014-15 ikasturtean, % 80koa izan zen, unibertsitate guztien batez bestekoa baino gehiago (% 77,5). Zehazki, gure erkidegoa autonomia erkidegoen rankingeko zazpigarren postuan dago, hauen atzetik: Nafarroa (% 86,4); Katalunia (% 83,6); Valentziako Erkidegoa (% 82,5); Madril (% 81,8); Errioxa (% 81,1) eta Gaztela-Mantxa (% 80,9). Emakumeek autonomia erkidego guztietan dituzte gizonezkoek baino tasa handiagoak. EAEren kasuan, emakumeek gizonak gainditzen dituzte ehunekozko 11,5 puntutan (% 85,4 % 73,9ren aurrean).

Ikasketak uztearen tasa ikasketen lehenengo urtean (titulazio zehatz batera sartutako eta lehenengo urtean ikasketak utzitako ikasleen ehunekoa), graduko ikasleei dagokienez, 2014-15 ikasturtean, % 13,8koa izan zen 2012/13 ikasleen taldearentzat. Hala, EAEk hirugarren uzte-tasarik baxuena erregistratzen du, Gaztela-Mantxa (% 11,7) eta Nafarroaren atzetik (% 13,7). Ratiorik altuenak eman dira Balear Uharteetan (% 23,2); Kanarietan (% 22,7); Errioxan (%

22,5) eta Gaztela eta Leonen (% 19,9). Ikasle berberentzat, **ikasketen lehenengo urtean beste ikasketa batzuetara aldatutako ikasleen tasa** % 6,2koa izan zen, unibertsitate guztien batez bestekoa baino gutxiago (% 7,5). Horrela, gure erkidegoak laugarren tasarik baxuena erregistratzen du, Extremaduraren (% 3,9); Errioxaren (% 5,2) eta Gaztela-Mantxaren atzetik (% 5,2).

Beste era batera esanda, gure erkidegoko graduko ikasleak ez dira ikasketez gehiago aldatzen dutenak, ezta gehien uzten dituztenak ere, beste autonomia erkidego batzuetan antzemandako jokabidearekin alderatzen bada.

Sexuaren arabera, autonomia erkidego guztietan, emakumezko ikasleek gizonezkoek baino uzte- eta aldaketa-tasa txikiagoak dituzte. Uzte-tasaren kasu zehatzean, EAEn, gizonezkoek emakumezkoak gainditzen dituzte ehunekozko 5,4 puntutan (% 16,6, % 11,2ren aurrean).

Azkenik, graduko ikasleen **egokitasun-tasa** (gradua aurreikusitako denboran bukatzen duten ikasleen ehunekoa) % 43,4koa da 2011/12 ikasturtean hasitako lau urteko graduetako ikasleen kasuan eta % 42,1ekoa bost urteko iraupen teorikoa duten eta 2010/11 ikasturtean hasitako graduetan matrikulatutakoentzat. Hala, ehuneko horiek unibertsitate guztien batez bestekoak baino handiagoak dira, % 33,2 eta % 36,5, hurrenez hurren.

IV.2.22 TAULA. GRADUKO IKASKETAK. ERRENDIMENDU-TASA, UZTE-TASA LEHENENGO URTEAN ETA ALDAKETA-TASA LEHENENGO URTEAN ETA ALDAKETA-TASA LEHENENGO URTEAN ETA EGOKITASUN-TASA AUTONOMIA ERKIDEGOAREN ETA SEXUAREN ARABERA. 2014-2015 IKASTURTEA. GRADUKO IKASLEAK.

	Errendimendu-tasa			Uzte-tasa lehenengo urtean (2012/13 sarrera-taldea)			Aldaketa-tasa lehenengo urtean (sarrera 2012/13)	Egokitasun-tasa	
	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak		Lau urteko graduetako ikasleak (hasiera 2011/12)	Bost urteko graduetako ikasleak (hasiera 2010/11)
GUZTIRA	77,5	72,3	81,7	20,5	23,2	18,1	7,5	33,2	36,5
ANDALUZIA	76,5	69,9	81,7	17,2	21,4	13,4	8,8	30,0	31,9
ARAGOI	79,8	74,1	84,6	16,5	21	12,3	8	34,4	29,8
ASTURIAS	73,9	68,3	78,5	19,0	24,2	14,6	8,9	27,3	..
BALEAR UHARTEAK	77,7	72,3	81,5	23,2	26,5	20,7	10,1	28,5	.
KANARIAK	72,7	67,5	76,6	22,7	26,4	19,7	8,9	26,1	19,1
KANTABRIA	78,0	72,9	82,6	15,1	18,4	11,7	6,7	27,7	.
GAZTELA ETA LEON	78,1	71,7	83,2	19,9	26,2	14,3	8,9	27,8	37,7
GAZTELA-MANTXA	80,9	75,1	85,3	11,7	14,4	9,1	6,1	41,7	42,5
KATALUNIA	83,6	79,1	87,3	18,4	20,8	16,3	8,3	38,7	47,8
VALENTZIAKO ERKIDEGOA	82,5	78,1	86,0	16,9	19,7	14,5	6,6	37,7	36,9
EXTREMADURA	79,1	73,0	84,0	14,4	18,5	10,7	3,9	29,2	30,9
GALIZIA	74,7	67,3	80,4	15,5	17,9	13,5	7,7	33,6	40,5
MADRIL	81,8	76,7	86,1	14,5	16,6	12,8	7,1	35,3	36,1
MURTZIA	76,7	71,2	81,0	16,1	18,5	13,9	7,8	33,8	18,8
NAFARROA	86,4	81,3	90,6	13,7	16	11,3	7,8	49,1	56,4
EAE	**80,0**	**73,9**	**85,4**	**13,8**	**16,6**	**11,2**	**6,2**	**43,4**	**42,1**
ERRIOXA	81,1	74,0	84,6	22,5	26,8	20,7	5,2	30,7	.

Iturria: 2016ko Unibertsitate-adierazleen urtekaria, Hezkuntza, Kultura eta Kiroleko Urtekaria

Errendimendu, eskola-uzte, aldaketa eta egokitasun tasak: masterreko ikasleak

EAEn, masterreko ikasleen **errendimendu-tasa** % 92,6koa izan zen 2014-15 ikasturtean, graduko ikasleen errendimendu-tasa baino ratio handiagoa. Unibertsitate guztien batez bestekoarekin alderatuta, EAEren ratioa ere handiagoa da (% 92,6 eta % 88,7). Horrela, EAE autonomia erkidegoen rankingeko laugarren postuan dago, hain zuzen ere, hauen atzetik: Nafarroa (% 98); Katalunia (% 93,4) eta Aragoi (% 93). Emakumeek, autonomia erkidego guztietan Balear Uharteetan izan ezik, gizonezkoek baino tasa handiagoak dituzte. EAEren kasuan, emakumeek gizonak gainditzen dituzte ehunekozko 2,3 puntutan (% 93,6 eta % 91,3).

Masterreko **ikasketen uzte-tasa lehenengo urtean**, titulazio zehatz batera sartutako eta lehenengo urtean ikasketak utzitako ikasleen ehunekoa neurtzen duena, % 7,2koa izan zen 2012/13 ikasturteko ikasleen taldearentzat. Hala, EAEk bigarren uzte-tasarik baxuena erregistratzen du Asturiasen atzetik, % 5,5arekin. Ratiorik altuenak ematen dira autonomia erkidego hauetan: Errioxa (% 25,2); Valentziako Erkidegoa (% 19,4); Katalunia (% 18,3) eta Madril (% 18).

Ikasle berberentzat, **ikasketen lehenengo urteko aldaketa-tasa** % 2,3koa da, unibertsitate guztien batez bestekoa baino apur bat gutxiago (% 2,9). Adierazle honetan, EAE bitarteko postu batean dago autonomia erkidegoen rankingean; hala, ratiorik altuenak autonomia erkidego hauetan ematen dira: Gaztela-Mantxa (% 9,2); Errioxa (% 4,1) eta Valentziako Erkidegoa (% 3,7). Horrez gain, ratiorik baxuenak hauetan ematen dira: Nafarroa (% 0,6); Asturias (% 0,8) eta Balear eta Kanariar Uharteetan (bietan % 0,8).

Graduko ikasketetan bezala, emakumeek, Nafarroaren eta Errioxaren kasuetan izan ezik, gizonezkoek baino uzte-tasa txikiagoak dituzte. EAEren uzte-tasaren kasu berezian, gizonek emakumeak gainditzen dituzte ehunekozko 4,3 puntutan (% 9,6 % 5,3ren aurrean).

Azkenik, masterreko ikasleen **egokitasun-tasa** % 81ekoa da 2014/15 ikasturtean hasitako urtebeteko masterreko ikasleen kasuan eta % 83,2koa 2013/14 ikasturtean hasitako eta aurreikusitako bi urteko iraupena duten graduetan matrikulatutakoentzat. Hala, ehuneko horiek unibertsitate guztien batez bestekoak baino handiagoak dira, % 73,4 eta % 69,4, hurrenez hurren.

IV.2.23 TAULA. MASTERRA. ERRENDIMENDU-TASA, UZTE-TASA ETA ALDAKETA-TASA LEHENENGO URTEAN ETA EGOKITASUN-TASA AUTONOMIA ERKIDEGOAREN ETA SEXUAREN ARABERA. 2014-2015 IKASTURTEA. MASTERREKO IKASLEAK

	Errendimendu-tasa			Uzte-tasa lehenengo urtean (2012/13 sarrera-taldea)			Aldaketa-tasa lehenengo urtean (sarrera 2012/13)	Egokitasun-tasa	
	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak		Urtebeteko masterreko ikasleak (hasiera 2014/15)	Bi urteko graduko ikasleak (hasiera 2013/14)
GUZTIRA	88,7	87,5	89,8	16,2	17,9	14,8	2,9	73,4	**69,4**
ANDALUZIA	91,6	90,9	92,2	14,3	14,8	14	2,2	74,4	**68,8**
ARAGOI	93,0	92	93,8	11,8	13,9	9,9	1,6	82,7	**83,3**
ASTURIAS	93,4	90,9	95,3	5,5	7,8	3,9	0,8	87,7	**73,2**
BALEAR UHARTEAK	87,4	85,7	88,4	8,1	9,2	7,3	0,8	60,3	**92,9**
KANARIAK	91,8	90,2	93	7,4	8,8	6,5	0,8	71,8	**69,7**
KANTABRIA	92,5	91,3	93,6	11,4	13,9	9,4	3,7	73,4	**81,0**
GAZTELA ETA LEON	90,7	89,2	92,1	9,6	10,4	8,8	1,4	78,5	**55,4**
GAZTELA-MANTXA	88,7	86,2	91,3	13	16,3	9,7	9,2	89,2	**86,3**
KATALUNIA	92,0	90,7	93,1	18,3	20,6	16,2	2,7	75,1	**57,4**
VALENTZIAKO ERKIDEGOA	91,8	90,5	92,8	19,4	20,8	18,3	3,7	80,6	**63,7**
EXTREMADURA	90,1	88,8	91,1	25,2	25,6	25	3	61,2	**67,2**
GALIZIA	91,4	89,9	92,5	7,4	8,1	6,9	1,2	75,8	**80,0**
MADRIL	84,4	83,5	85,2	18	20,9	15,3	2,3	65,9	**70,2**
MURTZIA	89,8	89,1	90,3	9,7	10,9	8,7	1,8	75,2	**70,5**
NAFARROA	98,0	98,2	97,5	7,4	7,2	7,6	0,6	88,5	**82,9**
EAE	92,6	91,3	93,6	7,2	9,6	5,3	2,3	81,0	**83,2**
ERRIOXA	86,9	84,2	88,9	28,2	24,4	30,6	4,1	70,1	**31,0**

Fuente: MECD, Anuario de indicadores universitarios 2016

Nazioartekotzea

Jarraian, nazioartekotze-maila neurtuko dugu; hala, nazioarteko ikasletzat joko ditugu Espainiako Unibertsitate-sistemara sartzen direnak zuzeneko unibertsitate batean eta ohiko egoitza-herrialdea atzerriko herrialde bat dutenak.

IV.2.24 TAULA. MATRIKULATUTAKO ATZERRIKO IKASLEAK (zuzeneko unibertsitateak) SEXUAREN ETA UNIBERTISTATE-MOTAREN ARABERA. 2014/15 IKASTURTEA.

	GUZTIRA	SEXUA (% horizontalak)	UNIBERTSITATE MOTA(% horizontalak)		
		Gizonak	Emakumeak	Unibertsitate publikoak	Unibertsitate pribatuak
ESTATUA	76.353	44,9	55,1	78,1	21,9
EAE	**2.125**	**46,0**	**54,0**	**69,6**	**30,4**

Iturria: Hezkuntza, Kultura eta Kiroleko Ministerioa. Unibertsitate-adierazleen Urtekaria 2016

EAEn, nazioarteko ikasleen kopurua 2.125era heldu zen 2014/15 ikasturtean. % 54a emakumeak ziren eta % 46a gizonak; hala, gehienak unibertsitate publikoan matrikulatu ziren (guztizko kopuruaren % 69,6).

Jatorrizko herrialdeari dagokionez, nabarmentzekoak dira Latinoamerikatik eta Karibetik datozenak (guztizko kopuruaren % 47,3) eta EB28koak (% 27,2). Estatuan, gehiago dira EB28ko herrialdeetatik datozenak Latinoamerikatik eta Karibetik datozenak baino.

Sarrera eta irteerei dagokienez, matrikulatutako pertsonen guztizko kopurutik (unibertsitate publiko eta pribatu guztien kopurua), eta kontuan hartuta eskuragarri dauden datuek ez dituztela barne hartzen doktoretza-ikasleak eta mugikortasun-programa baten bidez mugitzen direnak soilik aintzat hartzen dituela, jotzen da, EAEn, atzerriko unibertsitate batean matrikulatutako eta euskal unibertsitate batera etorritako ikasleen ehunekoa % 2,9koa dela eta Estatuko batez bestekoa % 3,7koa da. Ratiorik altuenak ematen dira Katalunian (% 4,6); Madrilen (% 4,3) eta Nafarroan (% 3,9).

Bestalde, EAEko unibertsitateetan matrikulatutako eta atzerriko unibertsitate batera joandako ikasleen ehunekoa % 4,7koa da, Estatuko batez bestekoa, aldiz, % 2,7koa da. Hala, ratio hori da Estatuko altuena.

Sartzen diren eta ateratzen diren ikasleen kopuruaren arteko kozienteak erakusten du, Estatuan, ateratzen diren 100 ikasle bakoitzeko 140 sartzen direla; EAEn, aldiz, egoera aurkakoa da. Izan ere, ateratzen diren 100 ikasle bakoitzeko 60 sartzen dira soilik eta hori ratiorik baxuena da Extremadurakoarekin batera. Gainera, ratio hori berbera da unibertsitate publiko eta pribatuetako ikasleen arteko bereizketa egiten bada.

IV.2.25 TAULA. MATRIKULATUTAKO ATZERRIKO IKASLEAK (zuzeneko unibertsitateak) NAZIONALITATEAREN ARABERA. 2014/15 IKASTURTEA.

	ESTATUA		EAE	
	Guztira	% bertikala	Guztira	% bertikala
GUZTIRA	**76.353**	**100,0**	**2.125**	**100,0**
EB28	27.793	36,4	578	27,2
EUROPAKO GAINERAKO HERRIALDEAK	5.583	7,3	142	6,7
ESTATU BATUAK ETA KANADA	1.250	1,6	34	1,6
LATINOAMERIKA ETA KARIBEA	25.241	33,1	1.005	47,3
IPARRALDEKO AFRIKA	4.978	6,5	143	6,7
GAINERAKO AFRIKAKO HERRIALDEAK	1.659	2,2	83	3,9
ASIA ETA OZEANIA	9.849	12,9	140	6,6

Iturria: Hezkuntza, Kultura eta Kiroleko Ministerioa, Unibertsitate-adierazleen Urtekaria 2016

IV.2.26 TAULA ESPAINIAKO UNIBERTSITATE SISTEMAN SARTZEN ETA ATERATZEN DIREN IKASLEEN EHUNEKOA MATRIKULATUTAKO GUZTIKOTIK AUTONOMIA ERKIDEGOAREN ARABERA, 2014-15 IKASTURTEA

	Mugikortasun-programa baten bidez Espainiako Unibertsitate-sisteman sartzen diren nazioarteko ikasleak matrikulatutako guztizko kopurutik, autonomia erkidegoen arabera (%) (1)	Mugikortasun-programa baten bidez Espainiako Unibertsitate-sistematik irteten diren ikasleak matrikulatutako guztizko kopurutik, autonomia erkidegoen arabera (%) (2)	Sarrera eta irteeren kozientea
ESTATUAN GUZTIRA	**3,7**	**2,7**	**1,4**
ANDALUZIA	3,8	2,7	1,4
ARAGOI	2,9	2,9	1,0
ASTURIAS	3,6	3,4	1,0
BALEAR UHARTEAK	2,6	1,5	1,7
KANARIAK	2,5	2,0	1,3
KANTABRIA	3,4	3,4	1,0
GAZTELA ETA LEON	2,8	1,4	2,0
GAZTELA-MANTXA	3,5	2,5	1,4
KATALUNIA	4,6	2,8	1,6
VALENTZIAKO ERKIDEGOA	3,7	2,7	1,4
EXTREMADURA	1,5	2,5	0,6
GALIZIA	3,5	2,7	1,3
MADRIL	4,3	2,3	1,8
MURTZIA	2,4	2,0	1,2
NAFARROA	3,9	4,3	0,9
EAE	**2,9**	**4,7**	**0,6**
ERRIOXA	2,3	2,7	0,9

(1) Atzerriko unibertsitate batean matrikulatutako eta Espainiako unibertsitate batera mugikortasun-programa baten bidez epe zehatz baterako etorritako ikasleen ehunekoa.Horiek Espainian titulatzeko helburua dute.

(2) Espainiako unibertsitateetan matrikulatutako eta Espainiako Unibertsitate-sistematik mugikortasun-programa baten bidez atzerriko unibertsitate batera doazen ikasleen ehunekoa. Egonaldia aldi baterakoa da eta ez dute asmorik Espainiako Unibertsitate-sistematik kanpo titulatzeko.

Iturria: Hezkuntza, Kultura eta Kiroleko Ministerioa, Unibertsitate-adierazleen Urtekaria 2016

Shangaiko Unibertsitate-rankinga. Academic Ranking of Word Universities (ARWU)

ARWU rankingak Nobel sariak, Fields medailadunak, sarri aipatutako ikerlariak edo Nature edo Science bezalako aldizkarietan argitaratutako artikuluak dituzten unibertsitateak hartzen ditu kontuan. Gainera, Science Citation Index-Expandedek (SCIE) eta Social Science Citation Indexek (SSCI) indexatutako artikulu asko dituzten unibertsitateak sartzen dira. Guztira, 1.200 unibertsitate baino gehiago daude sailkatuta eta 500 onenak webgunean argitaratzen dira.

IV.2.27. TAULA. SHANGHAIKO UNIBERTSITATE-RANKING: ADIERAZLEAK ETA PISUAK

Irizpidea	Adierazlea	Kodea	Pisua
Hezkuntzaren kalitatea	Nobel sariak eta Fields medailak irabazitako erakunde bateko ikasleak	Alumni	*10*
Fakultatearen kalitatea	Nobel sariak eta Fields medailak irabazitako erakunde bateko langileak	Premio	20
	21 gai-kategoria zabaletan sarri aipatutako zientzialariak	HiCi	20
Ikerketaren emaitzak	Nature and Science-n argitaratutako artikuluak*	N&S	20
	Science Citation Index-Expandeden (SCIE) eta Social Science Citation Indexen (SSCI) indexatutako dokumentuak	PUB	20
Per capita errendimendua	Erakunde baten per capita errendimendua	PCP	10
Guztira			100

** Giza- eta Gizarte-zientzietan espezializatutako erakundeentzat, London School of Economics bezala, N&S ez da kontuan hartzen eta horren pisua beste adierazle batzuetara pasatzen da*

Unibertsitateak jarduera akademikoko edo ikerketako zenbait adierazleren bidez daude sailkatuta, Nobel sariak eta Fields medailak irabazten dituzten, sarri aipatutako ikertzaileak diren, Nature eta Science aldizkarian argitaratutako lanak dituzten eta aipuen indize nagusietan indexatutako artikuluak dituzten ikasle ohiak eta langileak barne. Hala, erakunde[23] baten per capita jarduera akademikoa ere kontuan hartzen da.

2016ko rankingean, 20 unibertsitaterik onenen artean unibertsitate gehien dituzten herrialdeak hauek dira: Estatu Batuak (20tik 15); Erresuma Batua (3 20tik); Japon eta Suitza (biek dituzte 1 20tik).

Lehenengo hirurak Estatu Batuetan daude eta Harvardeko, Stanfordeko eta Kaliforniako Berkeleyko Unibertsitateak dira.

IV.2.28. TAULA. SHANGHAIKO UNIBERTSITATE-RANKINGEKO ADIERAZLEEN DEFINIZIOA

Adierazlea	Definizioa
Alumni	Erakundearen lizentziatura, maisutza edo doktoretza tituluak lortzen dituzten ikasleak. Pisu desberdinak ezartzen dira graduak lortzeko epeen arabera. Pisua % 100ekoa da 2001-2010 epean tituluak eskuratutako gradudunentzat; % 90ekoa tituluak 1991-2000 bitartean lortu dituztenentzat; % 80koa tituluak 1981-1990 bitartean lortu dituztenentzat eta horrela, % 10era heldu arte -1920 epeari dagokionean. Pertsona batek erakunde baten titulu bat baino gehiago eskuratzekotan, erakundeak behin bakarrik zenbatzen du hori.
Premio	Fisikako, Kimikako, Medikuntzako eta Ekonomiako Nobel Sariak eta Matematiketan Fields Medailak irabazten dituzten erakunde bateko pertsonen kopurua. Langile gisa definitzen dira saria irabazterakoan erakunde batean lan egiten duten pertsonak. Pisu desberdinak ezartzen dira sariak irabazi diren epeen arabera. Pisua % 100ekoa da 2011tik aurrerako irabazleentzat; % 90ekoa 2001-2010 eperako; % 80koa 1991-2000 eperako; % 70ekoa 1981-1990 eperako eta horrela % 10era heldu arte 1921-1930 epeko irabazleentzat. Irabazle bat erakunde batera baino gehiagora afiliatuta badago, erakunde bakoitzari erakunde kopuruaren elkarkaria esleitzen zaio. Nobel sarientzat, saria pertsona batek baino gehiagok partekatzen badute, irabazleentzako pisuak sariaren proportzioaren arabera ezartzen dira.
HiCi	Thomson Reuters-ek hautatutako eta sarri aipatutako ikertzaileen kopurua. 2015eko abenduan argitaratutako sarri aipatutako ikertzaileen zerrenda erabili zen (2015eko HCR zerrenda, 2015eko abenduaren 1etik aurrera), 2016ko ARWUn HiCi adierazlea kalkulatzeko. Sarri aipatutako ikertzaileen afiliazio nagusiak soilik hartzen dira kontuan.
N&S	2011 eta 2015 artean Nature eta Sciencen argitaratutako lanen kopurua. Egilearen afiliazio-hurrenkera bereizteko, % 100eko pisua esleitzen da dagokion egilearen afiliaziorako; % 50 lehenengo egilearen afiliaziorako (bigarren egilearen afiliazioa lehenengo egilearen afiliazioa dagokion egilearen afiliazioaren berbera bada); % 25 hurrengo egilearen afiliaziorako eta % 10 egilearen beste afiliazio batzuetarako. Hala, "Artikulu" motako argitalpenak soilik hartzen dira kontuan.
PUB	SCIEn eta SSCIn indexatutako artikuluen kopurua guztira. 'Article' motako argitalpenak soilik hartzen dira kontuan. Erakunde baten dokumentuen guztizko zenbatekoa kalkulatzerakoan, biko pisu berezia sartu zen Social Science Citation Indexean indexatutako artikuluentzat.
PCP	Aurreko bost adierazleen haztatutako puntuazioak, jardunaldi osoko langile akademikoen artean zatituta. Herrialde bateko erakundeentzako langile akademikoak lortu ezin badira, aurreko bost adierazleak erabiltzen dira, 2016ko ARWUrako, herrialde hauetako erakundeetan jardunaldi osoan diharduten langile akademikoak hartzen dira kontuan: Estatu Batuak; Erresuma Batua; Frantzia; Kanada; Japonia; Italia; Txina; Australia; Herbehereak; Suedia; Suitza; Belgika; Hego-korea; Txekia; Eslovenia; Zelanda Berria, etab.

Iturria: ARWU. Berezko elaborazioa.

[23] *Adierazle bakoitzeko puntu gehienak dituen erakundeari 100 puntu esleitzen zaizkio eta beste erakunde batzuenak kalkulatzeko, puntuaziorik altuenaren ehunekora jotzen da. Adierazle bakoitzaren datuei buruzko banaketa aztertzen da, edozein distortsio ondorio esangarri antzemateko; teknika estatistiko estandarrez baliatzen da beharrezkoa izanez gero, adierazlea doitzeko. Adierazle bakoitzaren puntuak ondoren adierazitako moduan haztatzen dira, erakunde baten azken puntuazio orokorrera iritsi arte. Puntu gehienak lortzen dituen erakundeari 100 puntu ematen zaizkio eta beste erakunde batzuenak puntuazio altuenetik abiatuta ehunekoetan kalkulatzen dira. Erakundearen tarteak horren gainetik kokatzen diren erakundeen kopurua islatzen du.*

Espainiak 12 unibertsitate ditu 500 unibertsitaterik onenen artean. Hala, Bartzelonako Unibertsitatea da lehenengoa rankingean, mundu mailako 200 unibertsitaterik onenen artean dagoena. Jarraian, Madrilgo Unibertsitate Autonomoa eta Granadako Unibertsitatea daude, biak mundu mailako 200 unibertsitaterik onenen artean daudenak.

UPV-EHU, 500 unibertsitaterik onenen artean dagoena, 2016an, estatu mailako rankingean hamargarren postuan dago, hauen atzetik: Bartzelonako Unibertsitate, Madrilgo Autonomoa, Granadakoa, Bartzelonako Autonomoa, Madrilgo Konplutentsea, Kataluniako Politeknikoa, Valentziako Politeknikoa, Pompeu Fabra eta Santiago de Compostelakoa.

IV.2.29. TAULA. ARWU ESTATISTIKA HERRIALDEKA. UNIBERTSITATEEN KOPURUA 2016

	TOP 20	TOP 100	TOP 200	TOP 300	TOP 400	TOP 500
ESTATU BATUAK	15	50	71	98	119	137
ERRESUMA BATUA	3	8	21	28	33	37
JAPON	1	4	6	9	12	16
SUIZA	1	4	6	7	8	8
…						
ESPAINIA	**—**	**—**	**1**	**3**	**9**	**12**
			Bartzelonako U.	**Madrilgo U. Autonomoa Granadako U.**	**Bartzelonako U. Autonomoa Madrilgo U. Konplutentsea Kataluniako U. Politeknikoa Valentziako U. Politeknikoa Pompeu Fabra U. Santiago de Compostelako U.**	**UPV-EHU Valentziako U. Rovira i Virgili U.**
…						
GUZTIRA	**20**	**100**	**200**	**300**	**400**	**500**

Iturria: ARWU. Berezko elaborazioa.

2.2 KULTURA

2.2.1. Finantzaketa eta gastua kulturan

Kulturaren sektoreak EAEko ekonomian eta gizartean duen pisua zenbatesteko, zeharkako iturriak erabiltzen dira, hain zuzen ere, Hezkuntza, Kultura eta Kiroleko[24] Ministerioak argitaratzen duen "*Kultura Estatistiken Urtekaria*" delakoaren bidez.

Urtekari horretan, Estatuko Administrazio Orokorrak, Administrazio Autonomoak eta Tokiko Erakundeek (Udalak eta aldundiak, kontseiluak edo kabildoak) kulturaren arloan eginiko gastu publikoari eta finantzaketari buruzko informazioa dakarren kapitulua bildu da. Udalek eta aldundiek, kontseiluek eta kabildoek.

Bestalde, Kultura Ministerioaren Urtekariak kulturako gastu publikotzat hartzen du "*herri administrazioek, aintzatetsitako obligazioen aldian, kulturarako erabilitako gastu likidatua eta, beraz, finantza-emailearen arabera izango da gastu publikoa edo pribatua, eta ez hartzailearen arabera*". Ez dira kentzen kultura erakunde publiko jakin batzuk eduki ditzaketen jatorri pribatuko sarrerak, adibidez museoek eduki ditzaketenak. Enpresek edo partikularrek kultur erakunde publikoei emandako babesengatik, dohaintzengatik, etab. izan ditzaketen balizko zerga-arintzeak ere ez dira sartzen kulturako gastutzat.

[24] *Ikerketa honen eremuan sartutako sektore kulturalak hurrengoak izan dira: ondareak eta zerbitzu kulturalak (monumentu historiko, museo, indusketa arkeologiko, artxibo|artxibatze eta liburutegi); arte plastiko eta eszeniko (erakusketak, musika-argazkia|argazkigintza, dantza eta antzokiak); liburuak eta ikus-entzunezkoa (zinema, bideoa eta grabatutako musika); (sustapena eta difusio kulturala, administrazioa eta zerbitzu orokorrak, hizkuntza-politika) diziplina interjartzea.)*

IV.2.30 TAULA. AUTONOMIA ERKIDEGOETAKO ADMINISTRAZIOEK KULTURAN LIKIDATUTAKO GASTUA, AUTONOMIA ERKIDEGOEN ARABERA.

	Balio absolutuak (milioi euroak)		Estatuan kulturan likidatutako gastuaren %		Autonomia erkidegoen likidatutako guztizko gastuaren %			BPGren %			Batez besteko gastua biztanleko (€)		
	2013	2014	2013	2014	2012	2013	2014	2012	2013	2014	2012	2013	2014
ESTATUAN GUZTIRA	**1.071,1**	**1.046,9**	**100**	**100**	**0,7**	**0,6**	**0,6**	**0,1**	**0,1**	**0,1**	**27,2**	**22,9**	**22,5**
ANDALUZIA	175,0	162,1	16,3	15,5	0,61	0,6	0,6	0,14	0,12	0,12	23,2	20,8	19,3
ARAGOI	18,7	15,2	1,7	1,4	0,4	0,4	0,3	0,06	0,06	0,05	15,1	14	11,4
ASTURIAS	27,4	22,3	2,6	2,1	0,68	0,7	0,6	0,13	0,13	0,11	25,8	25,7	21,1
BALEAR UHARTEAK	10,5	13,3	1	1,3	0,23	0,3	0,3	0,04	0,04	0,05	8,9	9,5	11,9
KANARIAK	27,7	18,3	2,6	1,7	0,26	0,4	0,3	0,05	0,07	0,04	8,7	13,2	8,6
KANTABRIA	18,3	15,9	1,7	1,5	0,76	0,9	0,7	0,15	0,15	0,13	30,8	31	27,1
GAZTELA ETA LEON	61,5	56,5	5,7	5,4	0,66	0,7	0,6	0,13	0,11	0,11	27,2	24,4	22,6
GAZTELA-MANTXA	27,7	24,7	2,6	2,4	0,34	0,4	0,3	0,09	0,07	0,07	15,3	13,2	11,9
KATALUNIA	241,7	245,4	22,6	23,4	0,82	0,6	0,7	0,15	0,12	0,12	37,7	32,3	33,1
VALENTZIAKO ERKIDEGOA	100,5	79,4	9,4	7,6	0,88	0,7	0,4	0,16	0,1	0,08	30,3	20,1	16
EXTREMADURA	39,4	38,9	3,7	3,7	0,88	0,9	0,8	0,25	0,23	0,23	36,5	35,7	35,5
GALIZIA	67,7	62,2	6,3	5,9	1,01	0,7	0,6	0,18	0,12	0,12	35,1	24,5	22,6
MADRIL	82,7	80,2	7,7	7,7	0,54	0,4	0,4	0,06	0,04	0,04	18	12,9	12,6
MURTZIA	21,1	39,7	2	3,8	0,51	0,5	0,8	0,1	0,08	0,15	18,4	14,4	27,1
NAFARROA	30,7	31,6	2,9	3,0	1	0,8	0,8	0,2	0,17	0,18	56,8	48,1	49,6
EAE	**95,6**	**120,9**	**8,9**	**11,5**	**1,05**	**1**	**1,2**	**0,17**	**0,15**	**0,19**	**49,4**	**43,9**	**55,8**
ERRIOXA	9,7	8,1	0,9	0,8	0,76	0,6	0,6	0,12	0,12	0,11	29,2	30,3	25,8
CEUTA	5,7	3,4	0,5	0,3	1,77	2,5	1,1	0,35	0,37	0,21	61	67,6	39,9
MELILLA	9,4	8,9	0,9	0,9	4,21	4,2	4,0	0,75	0,67	0,63	119,6	112,4	106,4

Iturria: Hezkuntza, Kultura eta Kiroleko Ministerioa. Estatistika Kulturalen Urtekaria 2016

Euskal Autonomia Administrazioak, 2014an, kulturan likidatutako gastua, Hezkuntza,Kultura eta Kiroleko Ministerioaren datuen arabera, 120,9 milioi eurokoa izan zen, 2013an baino 25,3 milioi gehiago. Horrek esan nahi du % 26,5 igo dela. Gastu horrek Estatuko Administrazio Autonomikoek, 2014an, kulturan likidatu zuten gastu osoaren % 11,5 hartu du (% 8,9 aurreko urtean) eta Eusko Jaurlaritzak urte horretan egindako gastu osoaren % 1,2 (% 1 aurreko urtean). Gainera, gure erkidegoko BPGdaren % 0,19 da, autonomia erkidego guztien batez besteko ratioa baino gehiago, % 0,1. Adierazle honetan, buruan ageri diren erkidegoak Extremadura, EAE eta Nafarroa dira, betiere, dituzten ezaugarri bereziengatik Ceuta eta Melilla kanpoan utziz gero. Biztanleko egin den gastuari dagokionez, EAEn kopuru hori 55,8 eurora iritsi zen 2014an, 2013an baino ehunekozko 11,9 puntu gehiago, eta kopuru hori Estatu osoko batez bestekoa baino altuagoa da (22,5 €).

2.2.2 Familien gastua kulturaren kontsumoan

Hezkuntza, Kultura eta Kiroleko Ministerioaren datuen arabera, euskal etxeek kultura ondasun eta zerbitzuetan egindako gastua, 2015. urtean, 684,7 milioi eurokoa izan zen, 2014an baino 10,1 milioi euro gutxiago. Horrek esan nahi du % 1,5eko hazkundea egon dela. Gastu hori EAEko ondasun eta zerbitzuetan eginiko gastuaren % 2,3 da, autonomia erkidego guztien batez bestekoaren antzeko ehunekoa (% 2,4). Adierazle honen buruan kokatzen diren erkidegoak Kanariar Uharteak (% 2,7) eta Katalunia eta Asturias dira (% 2,6 bietan).

Familia bakoitzeko batez besteko gastuari dagokionez, EAE rankingeko hirugarren postuan zegoen 2015ean, 762,2 eurorekin (aurreko urtean baino +% 1), Kataluniaren (823,9) eta Nafarroaren (772,7 €) atzetik. Pertsona bakoitzeko batez besteko gastuari dagokionez, EAEn kopuru hori 320,2 eurora iritsi zen 2015. urtean, 2014. urtean baino % 1,5 gehiago. Kopuru hori Estatuko batez bestekoa baino % 23 gehiago da, eta EAE jartzen du gehien gastatzen duen bigarren erkidego gisa, Kataluniaren (320,8) atzetik.

IV.2.31. TAULA. ETXEEN GASTUA ONDASUN ETA ZERBITZU KULTURALETAN AUTONOMIA ERKIDEGOEN ARABERA

	Balio absolutua (milioi euroak)		Ondasun eta zerbitzuen guztizko kopuruaren gastuaren %		Etxeko batez bestekoa (euroak)		Pertsonako batez bestekoa (euroak)	
	2014	2015	2014	2015	2014	2015	2014	2015
ESTATUAN GUZTIRA	**11.963,2**	**11.968,8**	**2,4**	**2,4**	**653,6**	**651,4**	**260,1**	**260,4**
ANDALUZIA	1.695,7	1.737,8	2,2	2,2	536,0	545,5	203,4	208,3
ARAGOI	397,1	358,8	2,8	2,5	735,8	665,9	304,3	275,9
ASTURIAS	303,9	320,8	2,5	2,6	660,7	700,2	291,1	309,8
BALEAR UHARTEAK	309,3	322,5	2,4	2,5	697,6	723,8	277,7	287,7
KANARIAK	496,6	518,4	2,6	2,7	612,0	635,1	235,7	244,8
KANTABRIA	167,8	162,7	2,6	2,4	700,7	676,8	289,1	281,3
GAZTELA ETA LEON	622,3	563,7	2,4	2,1	603,8	547,8	255,8	233,3
GAZTELA-MANTXA	405,7	452,9	2,1	2,3	516,8	576,1	199,0	223,4
KATALUNIA	2.388,0	2.347,3	2,7	2,6	811,0	795,8	326,0	320,8
VALENTZIAKO ERKIDEGOA	1.205,9	1.233,8	2,5	2,5	601,8	616,8	245,1	251,6
EXTREMADURA	209,3	164,2	2,1	1,7	485,0	379,9	193,6	152,6
GALIZIA	548,6	635,8	2,0	2,2	509,6	587,7	201,9	235,0
MADRIL	1.943,6	1.893,7	2,5	2,4	772,7	744,7	308,5	299,4
MURTZIA	283,3	275,6	2,1	2,0	532,3	514,6	194,6	189,3
NAFARROA	207,5	199,2	2,6	2,5	823,9	786,1	330,9	317,3
EAE	**674,6**	**684,7**	**2,4**	**2,3**	**754,6**	**762,2**	**315,6**	**320,2**
ERRIOXA	77,0	69,8	2,3	2,1	596,3	539,7	248,7	225,8
CEUTA eta MELILLA	27,0	26,9	1,9	1,9	531,0	535,1	162,8	161,0

Iturria: Hezkuntza, Kultura eta Kiroleko Ministerioa. Estatistika Kulturalen Urtekaria 2016

EAEko gastu motari arreta emanez gero (liburuak eta argitalpenak, kultura zerbitzuak, informazioa tratatzeko banakako ekipo eta osagaiak...), pertsona bakoitzeko gastatu diren 320,2 euroetatik % 22,4 liburuetarako eta aldizkako argitalpenetarako erabili zen 2015. Urtean; % 33,5 kultura zerbitzuetarako (ikuskizunak eta beste kultura zerbitzu batzuk barne); % 38,2 informazioa tratatzeko banako ikus-entzunezko ekipo eta osagaietarako eta % 5,9 beste ondasun eta zerbitzu batzuetarako. Estatuko batez bestekoak aztertzeak aldeak islatzen ditu. Gauzak horrela, Estatu osoan EAEn baino gutxiago gastatzen da liburuetan eta aldizkako argitalpenetan (% 14,6 % 22,4aren aurrean) eta, aldiz, gehiago kultura zerbitzuetan (% 36,3, % 33,5aren aurrean) eta informazioa tratatzeko ikus-entzunezko ekipo eta osagaietan (% 42,5, eta % 38,2).

Arestian esana dugunez, ikuskizunetan eginiko gastua sartzen da kultur zerbitzuetako gastuen artean. Azken hori neurtzeko, etxe bakoitzak kultur zerbitzuetan eginiko batez besteko gastuen gaineko argibideak ematen ditu Urtekariak (ez pertsonako gastuaren gainekoak), eta ikuskizunak eta beste kultur zerbitzu batzuk bereizten ditu. EAEn, etxe bakoitzeko ikuskizunetan egindako gastua 87,3 eurokoa izan da 2015. urtean (93,4 euroetatik murriztu da), eta Estatuan, berriz, gastu hori zertxobait txikiagoa izan da, hain zuzen ere, 82,7 euro, etxeko (hori ere murriztu da 2014 eta 2015 bitartean). Ikuskizunetan etxe bakoitzeko gehien gastatzen duten autonomia erkidegoak dira Katalunia (124); Madril (121,8 euro) eta Nafarroa (133).

IV.2.32 TAULA. ETXEEN GASTUA ONDASUN ETA ZERBITZU KULTURALETAN GASTU-TALDEAREN ARABERA ETA AUTONOMIA ERKIDEGO BAKOITZEKO

	PERTSONAKO BATEZ BESTEKO GASTUA (EUROAK)										ETXEKO BATEZ BESTEKO GASTUA IKUSKIZUNETAN (EUROAK)	
	Guztira (euroak)		Liburua eta aldizkako argitalpenak		Zerbitzu kulturalak (ikuskizunak eta beste zerbitzu kultural batzuk barne)		Informazioa tratazeko ikus-entzunezko ekipoak eta beste osagarri batzuk		Beste ondasun eta zerbitzu batzuk			
	2014	2015	2014	2015	2014	2015	2014	2015	2014	2015	2014	2015
ESTATUAN GUZTIRA	**260,1**	**260,4**	**36,1**	**38,1**	**91,6**	**94,5**	**115,2**	**110,6**	**17,2**	**17,2**	**83,7**	**82,7**
ANDALUZIA	203,4	208,3	23,1	20,4	74,6	72,2	95,6	99,3	10,1	16,3	62,8	48,4
ARAGOI	304,3	275,9	47,1	44,1	105,6	104	128,8	114,4	28,1	13,5	93,5	68,9
ASTURIAS	291,1	309,8	46,7	49,1	111,7	118,2	116,7	127,9	16,0	14,7	58,3	65,8
BALEAR UHARTEAK	277,7	287,7	37,0	29,2	93,5	121,9	129,0	125,8	18,2	10,8	75,9	61,0
KANARIAK	235,7	244,8	22,9	25,5	90,4	95,2	112,5	108	9,9	16,1	61,2	72,3
KANTABRIA	289,1	281,3	51,2	45,1	107,1	117,6	110,9	106,9	19,9	11,7	67,2	85,0
GAZTELA ETA LEON	255,8	233,3	45,6	47,8	87,3	74,7	104,2	99,4	18,8	11,4	80,2	70,4
GAZTELA-MANTXA	199,0	223,4	24,8	30,1	63,8	79,7	100,1	100,5	10,4	13,1	68,0	87,8
KATALUNIA	326,0	320,8	40,0	44,4	118,4	120,5	143,4	137,3	24,2	18,6	111,6	124,0
VALENTZIAKO ERKIDEGOA	245,1	251,6	28,9	37,7	81,6	89,5	113,8	105,9	20,9	18,5	60,1	71,3
EXTREMADURA	193,6	152,6	24,0	17	58,6	47,1	98,7	83,5	12,3	5,0	42,1	52,6
GALIZIA	201,9	235	36,6	35,8	55,4	86	94,1	95,5	15,8	17,8	44,2	48,3
MADRIL	308,5	299,4	42,9	48,5	121,6	112,1	128,5	114,3	15,5	24,5	133,7	121,8
MURTZIA	194,6	189,3	27,6	26,7	65,4	61,5	88,7	87	12,9	14,0	70,7	69,9
NAFARROA	330,9	317,3	65,9	64,4	102,8	114	132,7	119,7	29,5	19,1	133,6	113,0
EAE	**315,6**	**320,2**	**72,2**	**71,6**	**93,1**	**107,4**	**125,2**	**122,4**	**25,1**	**18,8**	**93,4**	**87,3**
ERRIOXA	248,7	225,8	41,8	42,7	78,5	69,5	112,2	101	16,2	12,6	89,4	68,4
CEUTA eta MELILLA	162,8	161,0	-	-	-		-		-		-	

Iturria: Hezkuntza, Kultura eta Kiroleko Ministerioa. Estatistika Kulturalen Urtekaria 2016

2.2.3. "DONOSTIA 2016 Kulturaren Europako Hiriburua". Balantzea

Jarraian, "Donostia 2016 Kulturaren Europako Hiriburua" ekitaldiaren zifra nagusiak aurkezten dira. Ekitaldia oso berezia da eta garrantzi eta eragin handikoa EAEn zein nazioarteko mailan; hala, 2016. urtean zehar garatu egin da Donostian eta adierazpen kultural ugari ospatu dira.

"Kulturaren Europako Hiriburua" urtero Europako erakundeek hiri bati edo bi hiriri ematen dieten titulua da; horiek, urtebetez, bertako garapen eta bizitza kulturalak erakusteko aukera daukate. Hiri bat kulturaren Europako hiriburu izendatzen denean, mota guztietako adierazpen artistikoak garatzen dira bertan. 2016an, Donostia Kulturaren Europako Hiriburua izan da Poloniako Wroclaw hiriarekin batera. Horrela, hiriburutza horretatik abiatuta, mota guztietako ekitaldi kulturalak ospatzea bultzatu da (eszenikoak, ikus-entzunezkoak, literarioak, musikalak, etab.).

IV.2.33. TAULA. DSS2016: GARATUTAKO JARDUEREN TIPOLOGIA

	KOPURUA	%
LANTEGIA	701	20,2
IBILBIDEA / BISITA GIDATUA	379	10,9
KONTZERTUA / ERREZITALA	342	9,8
KONFERENTZIA / HITZALDIA / KONGRESUA	337	9,7
PROIEKZIOA	323	9,3
ANTZEZLANA	295	8,5
ERAKUSKETA	167	4,8
TOPAKETA	121	3,5
DANTZA-IKUSKIZUNA	105	3,0
AURKEZPENA	57	1,6
ESKU-HARTZEA	53	1,5
IKASTAROA	50	1,4
BITARTEKARITZA	42	1,2
IRAKURKETA	37	1,1
LABORATEGIA	36	1,0
JAIALDIA	35	1,0
BESTE BATZUK	395	11,4
GUZTIRA	**3.475**	**100,0**

Iturria: DSS2016

LKS-Prospektiker-ek egindako barne-ebaluazioko txostenaren bidez, jakin izan da, guztira, 3.457 jarduera egin zirela Donostian urte horretan zehar eta horietara 1,1 milioi

pertsona joan zirela (% 63,8 hiriko biztanleak). Pertsona horietatik, % 73,6 DSS2016EU-k (Hiriburutza Kulturalaren eragile sustatzailea) zuzenean kudeatutako ekitaldietara joan zen; % 19,9 beste eragile batzuek eta DSS2016EUk batera egindako jardueretara eta gainerako % 6,5a hirugarrenek antolatutako eta DSS2016EUk finantzatutako ekitaldietara. Era berean, kalkulatu da europar hiriburutzak 37,6 milioi euroko eragin ekonomikoa izan duela Donostiako BPGdean eta 612 lanpostu sortzea ahalbidetu duela. Hala, emaitzen asebetetze maila, batez beste, 6,6 puntukoa izan da 10etik.

Antolatzaileek eskatuta egindako proiektuaren[25] barne-ebaluazioaren ondorio nagusiak dira, hori behin amaituta, oro har, balorazioa positiboa dela eta esan daitekeela hiriburutzak bere helburuak bete dituela. Hala eta guztiz ere, alde handia dago ekitaldietara joan diren pertsonen eta joan ez direnen pertzepzioaren artean. Balorazioa positiboa bada ere, ez ditu kolektibo desberdinen itxaropenak ase, batez ere, sektoreko eragileek hiriburutzaren inguruan ezarritako itxaropenak. Halaber, hiriburutzaren antolakuntzak antzeman du eragile kulturalen gaitasunak areagotu dira; jarduteko moduak hobetu direla eta harremanetarako sareak finkatuago daudela. Hala ere, egia da hobekuntza horiek ez direla sektore guztira helarazi.

ITURRIAK:

1. EUSTAT. Eskola-jardueraren Estatistika. 2016/17 ikasturtea. Datu orokorren aurrerapena. Urterokoa. Koiunturala.

EUSTAT. Eskola-jardueraren Estatistika. 2015/16 Ikasturtea. Urtekoa. Koiunturala.

2. EUSTAT Estatistika Unibertsitarioa. 2014/15 Ikasturtea. Urtekoa. Koiunturala.

4. Hezkuntza, Kultura eta Kiroleko Ministerioa. Hezkuntzaren zifrak Espainian. 2017ko edizioa. Urtekoa. Koiunturala.

5. EIN. Espainiako Lurralde Kontabilitatea. Urterokoa. Koiunturala.

6. EUSTAT. Ekonomia Kontuak. Urterokoa. Koiunturala.

7. Eusko Jaurlaritza. EAEko Kontu Orokorrak eta Aurrekontuak. Koiunturala.

8. Hezkuntza, Kultura eta Kiroleko Ministerioa. Prestakuntza-hezkuntzaren uzte goiztiarra 2016. 2017an argitaratuta.

9. Irakas Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea (ISEI-IVEI). PISA 2015 Proiektua. Euskadiren emaitzak. Hiru urtekoa.

10. Hezkuntza Ebaluazioaren Institutu Nazionala (INEE): PISA 2015 Proiektua. Espainiaren emaitzak. Hiru urtekoa.

11. Hezkuntza, Kultura eta Kiroleko Ministerioa. Unibertsitate-adierazleen 2016ko Estatistika. Urtekoa. Koiunturala.

12. Hezkuntza, Kultura eta Kiroleko Ministerioa. Estatistika Kulturalen Urtekaria 2016. Urtekoa. Koiunturala.

13. DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN 2016 (2017): Donostia 2016 Kulturalaren Europako Hiriburuaren ebaluazioa. Zehatza.

[25] *DSS2016 Kulturaren Hiriburu Europarra (2017): Ebaluazioa. LKS-Prospektiker.*

3. INGURUNE NATURALAREN EGOERA EAE-N

Ingurumenaren garrantzia bi faktoretan datza: alde batetik, izaki guztiak bertan eta ez beste leku batean garatzea; eta, beste aldetik, ingurumenak guri natur baliabideek ematea. Hori dela eta, haren zainketa eta babesa giza ekintzaren funtsezko elementuetako bat izan beharko litzateke.

Garapen ekonomikoak eta sozialak bizi-kalitatea eta erosotasuna ematen dizkiote gizarteari alderdi askotan, baina, aldi berean, presio handia dakarte ingurumenaren gainean, hainbat ukipen sorrarazten dituena.

Zorionez, gaur egun gero eta kontzientzia nabarmenagoa dago ukipen horien garrantziaren gainean, eta, herritarrak ez ezik, gobernuak eta enpresak ere hasi dira ingurumena babesteko edo horren gaineko kaltea mugatzeko helburua daukaten jarduerak garatzen.

Kapitulu honen helburua da EAEn ingurumenari lotutako gai nagusien errealitatea eta orain dela gutxiko bilakaera ezagutzea. Horretarako, erkidego honetako ingurumen adierazle nagusiak aztertu dira. Honako hauek dira, zehatz-mehatz: airearen kalitatea, ur gezaren kontsumoa, hondakinen sorrera eta kudeaketa, eta manufaktura-industriaren ingurumen babesa.

3.1. AIREAREN KALITATEA

Herritarrei airearen kalitatearen berri modu argian eta errazean emateko balio du airearen kalitate indizeak (AKI), eta airearen kalitatearen egoera sailkatzen duten 5 kategoriatan dago banatuta, hala nola: Oso ona, Ona, Hobetu daiteke, Txarra eta Oso txarra.

Indizea kalkulatzeko, AKI bat ezartzen da kutsatzaile eta estazio bakoitzeko, azken hori kutsatzaile guztietatik txarrenak definitua.

Airearen kalitatearen egoera	NO2	SO2	CO	O3	PM10	PM2,5
Oso ona	0-50	0-50	0-5	0-60	0-25	0-16
Ona	50-100	50-85	5-7	60-100	25-50	16-33
Hobetu daiteke	100-200	85-125	7-10	100-140	50-65	33-39
Txarra	200-400	125-200	10-15	140-160	65-85	39-50
Oso txarra	>400	>200	>15	>160	>85	>50

Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila

Eguneroko AKI kalkulatzeko, hauexek erabiltzen dira: NO2 eguneko batez besteko gehienekoak, CO eta O3 zortzi orduko batez bete mugikorren gehienekoak eta SO2, PM10 eta PM2,5 eguneko batez bestekoak. Kontzentrazio-lerrunak ezartzeko, 102/2011 EDaren I. eranskinean finkaturiko balioak izan dira kontuan. Honekin batera doan taulan ageri dira eguneko AKIren lerrunak. Zonalde horretarako estazioetan ikusitako baliorik txarrena izango da zonalde bakoitzari esleituriko eguneko balioa.

Aldi berean, EAEko lurraldea eremuka banatzen da, indarreko araudiaren eskakizunen arabera. Zonalde horiek ondoko taulan ageri dira.

Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak emandako informazioaren arabera, hobekuntza nabarmena gertatu da EAEko airearen kalitatean azken urteetan.

IV.3.1. TAULA. ZONIFIKAZIOA, AIREAREN KUTSATZAILEAK EBALUATZEKO
Enkarterriak-Goi Nerbioi
Nerbioi Behera
Kostaldea
Donostialdea
Goi Ibaizabal – Deba Garaia
Goierri
Arabako Lautada
EAEko Erribera

Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila

Eta argitaraturiko azken datuen arabera, batez besteko iraunkortasun-adierazlea %99,2 da, 2014ko ratioa baino handiagoa (%98,8). Adierazle hori bi hauen arteko erlazioaren bidez lortzen da: "*Oso ona", "Ona" eta "Hobetu daiteke"* kalifikazioa duten eguneko kopurua gehi urteko egun kopurua.

IV.3.2. TAULA. AIREAREN KALITATEAREN INDIZEA KATEGORIEN ARABERA EAE-N (% urte amaieran)

	2014	2015
Oso ona	5,7	5,3
Ona	72,7	78,1
Hobetu daiteke	20,4	15,8
Txarra	0,9	0,8
Oso txarra	0,3	0,0

Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila

Oro har, urtean kalitate ona edo onargarria izan duten egunen portzentajea % 78,4 izan zen 2013an; 2014an eta 2015ean, berriz, % 83,4

Airearen kalitatea txarra edo oso txarra bildu deneko egunen kopuruak behera egin du aurreko urtearen aldean, 34tik 24ra. Bestalde, hobetu daiteke kalifikazioa duen airearen kalitateko egun kopuruak behera egin du, 594 egunetik 461 egunera.

Nabarmentzekoa da Donostialdea: 83 egunetan "hobetu daiteke" kalifikazioa, 6 egunetan txarra eta batean oso txarra; Euskal Herriko Erriberak 105 egunetan "hobetu daiteke" kalifikazioa lortu zuen, eta 5 egunetan txarra; eta Arabako Lautadan 72 egunetan "hobetu daiteke" kalifikazioa eta 5 egunetan txarra.

IV.3.3. TAULA. HOBETU DAITEKE, TXARRA ETA OSO TXARRA KALIFIKAZIOAK DITUEN AIREAREN KALITATEKO EGUN KOPURUA ETA IRAUNKORTASUN-ADIERAZLEA, EAE-KO EREMUKO ETA URTEKO

	2014				2015			
	Hobetu daiteke	Txarra	Oso txarra	Iraunkortasun adierazlea (%)(1)	Hobetu daiteke	Txarra	Oso txarra	Iraunkortasun adierazlea (%)
Enkarterriak-Goi Nerbioi	47	1	0	99,7	31	2	0	99,5
Nerbioi Behera	95	6	1	98,1	44	1	0	99,7
Kostaldea	82	0	0	100,0	42	0	0	100,
Donostialdea	108	3	1	98,9	83	6	1	98,1
Ibaizabal Garaia-Deba Garaia	43	2	1	99,2	38	1	0	99,7
Goierri	53	9	5	96,2	46	3	0	99,2
Arabako lautada	61	1	0	99,7	72	5	0	98,6
Euskal Herriko Erribera	105	4	0	98,9	105	5	0	98,6
Egun kopurua GUZT., airearen kalitatearen arabera	594	26	8	98,8	461	23	1	99,2
Egunen %, airearen kalitatearen arabera	20,4	0,9	0,3		15,8%	0,8	0,0	

Urteko iraunkortasun-adierazlea = ("oso ona" kalif. duten egunen kop. +. "ona" kalifk. egun kop. + "hobetu daiteke" kalif. egun kop.) /urteko egun kop. guztira. Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila

3.2. UR GEZA BILTZEA ETA KONTSUMITZEA

Uraren eskaria gero eta handiagoa denez gero, presioa ageri da uren arloan, betiere kalitate onekoa eta erabilera guztietarako nahikoa izan dadin. Hori dela eta, neurriak hartu behar dira ura babesteko, arlo kualitatiboan nahiz kuantitatiboan, eta horrela, uraren iraunkortasuna bermatu. Horixe da hain zuzen ere Europako Uraren Zuzentarau Markoa (UZA).

EINen "*Uraren hornidurari eta saneamenduari buruzko inkestak*"[26] dioenez, gure Erkidegoan, 2014an, guztira 184,8 Hm^3 ur hornitu zitzaizkien hiriko hornidurako sare publikoei, 2013an baino %3,9 gutxiago. 184,8 Hm^3 horietatik %79,3 (146,6 Hm^3) erregistraturiko ur bolumenak izan ziren (erabiltzaileen edukiontzietan neurtuak) eta gainerakoak erregistraturiko ur bolumenak izan ziren (neurketa-guneen bidez neurtuak edo neurtu gabekoak).

Erabiltzaile taldeak bereizita, 146,6Hm^3 horietatik 91,9 Hm^3 (guztizkoaren %62,7) etxeak hornitzeko erabili ziren; 45,2 Hm^3 (%30,8) sektore ekonomikoentzat (industria, zerbitzuak eta abeltzaintza) eta 6,5 Hm^3 (%6,6) udal kontsumoetarako (lorategiak ureztatzea, kaleak bustitzea eta beste erabilera batzuk).

[26] *Ureztaketako nekazaritzan erabilitako ura inkesta honen esparrutik kanpo geratu da, Nekazaritza sektoreko uraren erabilerari buruzko inkestan aztertu baita.*

Aurreko urtearen aldean, erabiltzaile guztiek izan dute jaitsiera: udal kontsumoetan %6,7; etxeetan %6 eta sektore ekonomikoetan %2.

Erregistratu gabeko ura itxurazko galeretan (neurketako akatsak, iruzurrak eta gutxi gorabeherako kontsumoak) eta benetako galeretan (ihesak, hausturak eta matxurak saneamendu sarean) bereizten dira. Azken horiek sareotara hornituriko ur guztiaren %8,9 izan ziren 2014an, 2013an izandako %6,5aren gainetik, baina Estatuan zenbatetsitakoaren %15,2aren azpitik.

Ura hornitzen duten erakunde publikoek eta enpresek bildutako[27] uraren jatorriari dagokionez, %98 lur gaineko urei dagokie, eta %2, berriz, lur azpiko urei.

IV.3.4. TAULA. URA BILTZEA ETA HORNIDURARAKO KONTROLATURIKO ETA BANATURIKO URAREN BOLUMENA EAEN

	2011	2012	2013	2014	% ald. 13/14
SARERA HORNITURIKO UR BOLUMENA (mila m3)					
1. Hornidura publikorako sareari hornituriko ur bolumena (a)	229.222	198.951	192.243	184.827	-3,9
1.1. Erregistratu eta banaturiko ur bolumena, erabiltzaile motaren arabera	176.180	154.880	154.091	146.602	-4,9
1.2. Erregistratu gabeko ur bolumena	53.042	44.071	38.152	38.225	0,2
1.2.1. Galera errealak (b)	39.251	23.798	12.552	16.475	31,3
1.2.2. Itxurazko galerak	13.791	20.273	25.600	21.750	-15,0
Banaketako sare publikoan galdetuko uraren %: galera errealak: (b/a)	17,1	12,0	6,5	8,9	-
URAREN BANAKETA ERABILTZAILE TALDE HANDIEN ARABERA (mila m3)					
Erregistratu eta banaturiko uraren guztizko bolumena, erabiltzaile motaren arabera	176.180	154.880	154.091	146.602	-4,9
Etxeak	91.753	92.471	97.802	91.899	-6,0
Sektore ekonomikoak	54.501	41.592	46.113	45.211	-2,0
Udal kontsumoak eta BESTE BATZUK	29.926	20.817	10.176	9.492	-6,7
Banaturiko uraren guztizko bolumena (mila euro)	109.847	112.465	115.584	123.555	6,9
Hornidura zerbitzuetako inbertsioaren guztizko bolumena (mila €)	2452	5.199	4.312	5.434	26,0
ENPRESATIK BERTATIK EGINIKO UR-BILKETAK (mila m3)					
GUZTIRA	165.198	172.632	221.247	210.173	-5,0
Lur gaineko urak	154.274	162.087	205.079	206.298	0,6
Ur azpiko urak	10.924	10.545	16.168	3.875	-76,0

Iturria: EIN, uraren hornidurari eta tratamenduari buruzko inkesta.

EAEko uraren per capita kontsumoa berriz da Estatuko batez bestekoa baino txikiagoa, 119 litro/biztanle/egun (137 litro Estatuan), baina %1,7ko igoera ageri da 2013 eta 2014 bitartean. Estatuan, berriz, %3,5eko jaitsiera gertatu da.

Bestalde, uraren aleko balioa (ur-hornidurako tasen zenbatekoak gehi estolderiarako eta arazketarako ordaindutako zenbatekoak eta saneamenduko eta isurpeneko kanonak zati erregistratutako eta erabiltzaileei banatutako ur bolumena) 1,75 euro izan zen 2014an EAEn (% 48 hornidura-tasei dagokie eta % 52 saneamendukoei). Beraz, beste igoera bat dugu, kasu honetan % 15,1ekoa (%11,8 2013an), aurreko urteko balioaren aldean Estatuan, batez besteko prezioa handiagoa da: 1,89 euro hain zuzen ere (1,83 euro aurreko urtean).

[27] *Ur bilketa naturako ura atera edota biltzean eta erabiltzeko biltegiratzean datza. Hemen ura biltzeko eta lehen mailako arteria edo hodietatik eramateko zerbitzuak sartzen dira. Besteak beste, lurrazaleko eta lur azpiko ur-bilketak bereizten dira. Azkena, zundaketa edo zulatzeen bidez egiten da.*

Kontinenteko lurrazaleko urak lurrazaleko korrontea duten urak edo lehorreko sakonune baten gainean atxikitakoak, hots, ur pilatuak, dira. Lurrazaleko korrontea duten uren artean ubide naturaletako urak (ibaiak eta errekak) eta ubide artifizialekoak (ureztatzeko bideratze sistemak, industria eta nabigazioa, drainatze sistemak eta erreserba artifizialak) sartzen dira).

Inkesta honen xedeetarako, ibaiertzetan gertatutako iragazteak lurrazaleko uren artean hartzen dira, eta trantsizioko urak, zingira gazikarak eta estuarioak, lurrazaleko urtzat jo beharrean, bestelako baliabide hidrikoen artean sartzen dira.

Lur azpiko urak orokorrean lur azpiko egitura, hots, akuifero batetik edo baten bidez ateratakoak dira. Akuiferoak lur azpian dauden ur biltegi iraunkor edo behin-behineko guztiak dira, bai artifizialki bai berez birbetetzen direnak, erabilera jakin baterako behar bezalako kalitatea badaukate. Atal horretan iturburuetatik bildutako ura ere sartzen da. Kanpoan geratzen da iragazteetatik datorren lur azpiko ura, lurrazaleko uretan sartuko baita.

IV.3.5. TAULA. URAREN BATEZ BESTEKO KONTSUMOA ETA ALEKO BALIOA ETXEETAN

	BATEZ BESTEKO KONTSUMOA (litro/biztanle/egun)					BATEZ BESTEKO PREZIOA (€/m3)					
	2011	2012	2013	2014	Ald. % 13/14	2011	2012	2013	2014		
									Guztira	Hornidura	Saneamendua
Andaluzia	140	129	120	126	5,0	1,46	1,62	1,74	1,81	1,06	0,75
Aragoi	132	138	129	130	0,8	1,29	1,29	1,46	1,45	0,69	0,76
Asturias	153	130	122	134	9,8	1,17	1,29	1,32	1,32	0,60	0,72
U. Balearrak	124	133	141	124	-12,1	2,19	2,38	2,71	2,19	1,08	1,11
U. Kanariarrak	150	149	143	144	0,7	2,02	1,97	2,03	2,09	1,72	0,37
Kantabria	161	155	144	152	5,6	1,3	1,36	1,56	1,75	1,00	0,75
Gaztela eta Leon	170	152	157	166	5,7	0,9	1,02	1,00	0,95	0,54	0,41
Gaztela-Mantxa	156	146	140	125	-10,7	1,28	1,31	1,28	1,28	0,82	0,46
Katalunia	130	126	117	118	-0,9	1,84	2,29	2,54	2,75	1,41	1,34
Valentziako E.	152	160	157	162	2,5	1,78	1,98	2,03	2,07	1,21	0,86
Extremadura	144	140	140	125	10,7	1,27	1,45	1,49	1,52	1,00	0,52
Galizia	133	134	119	129	8,4	1,07	1,11	1,19	1,11	0,67	0,44
Madril	141	135	131	131	0,0	1,69	1,90	2,02	2,08	1,31	0,77
Murtzia	152	143	124	126	1,6	2,29	2,50	2,73	2,73	1,84	0,89
Nafarroa	135	129	112	111	-0,9	1,25	1,38	1,47	1,41	0,74	0,67
EAE	**117**	**119**	**123**	**116**	**-5,7**	**1,20**	**1,36**	**1,52**	**1,75**	**0,84**	**0,91**
Errioxa	123	134	112	106	5,4	0,90	1,02	1,06	1,15	0,55	0,60
Ceuta eta Melilla	170	118	106	105	1,5	1,43	1,88	1,95	1,97	1,39	0,58
Estatua	142	137	130	132	1,5	1,54	1,73	1,83	1,89	1,10	0,79

Iturria: EIN. Ur hornidurari eta tratamenduari buruzko inkesta

3.3. HONDAKINAK SORTZEA ETA KUDEATZEA

3.3.1. Hiri hondakinak

"*Hondakinen bilketari eta tratamenduari buruzko estatistika. Hiriko hondakinak: 2010-2014ko sorta*", EINek egin du, eta agerian uzten duenez, 2014an, hiriko hondakinen enpresa kudeatzaileek 850.148 Tn hiri hondakin bildu zituzten 2014. urtean, aurreko urtean baino %25,9 gutxiago. Nahastuak eta gaika bildutakoak bereiziz, gehienak (%67,6) hondakin nahastuak izan ziren. 2014ko datuen aldean, lehenbizikoetan %28,3ko jaitsiera izan zen, eta gaikoetan, berriz, %20,3. Estatuan, bestalde, beherakada %1,8koa eta %3,4koa izan zen, hurrenez hurren.

IV.3.6. TAULA. HIRIKO HONDAKINAK SORTZEA (Tona)

	ESTATUA				EAE			
	2012	2013	2014	2013-14 aldak.	2012	2013	2014	2013-14 aldak.
Hiriko Hondakinak (HH)	22.395.811	21.785.683	21.328.307	-2,1	1.098.892	1.146.581	850.148	-25,9
HH nahasiak (1)	18.315.103	17.852.826	17.530.077	-1,8	780.061	801.449	574.947	-28,3
HH gaika bilduak	4.080.708	3.932.857	3.798.230	-3,4	318.831	345.132	275.201	-20,3

(1) Hondakin nahastuen barruan, etxeko hondakinak eta antzekoak eta etxeko hondakin nahastu handiak biltzen dira.
Iturria: EIN. Hondakinen bilketari eta tratamenduari buruzko estatistikak. Hiriko hondakinak

Gaika bildutako hiriko hondakinei dagokienez, hauexek nabarmendu ziren bolumenaren aldetik: papera eta kartoia (122.104 Tm, guztien %44,4), beira (56.119 Tm, %20,4), ontzi mistoak eta bilgarri nahastuak (36.020 Tm, %13,1) eta mea-hondakinak –horien artean sartzen dira eraikuntzakoak eta eraispenekoak- (22.623 Tm, %8,2). Estatuan, hauexek nabarmendu behar dira: papera eta kartoia (guztien %25,7), animaliak eta landareak (%20,6), beira (%19,3), ontziratze mistoak eta bilgarri nahastuak (%14,9) eta mea-hondakinak –horien artean sartzen dira eraikuntzakoak eta eraispenekoak- (%11,4).

IV.3.7. TAULA. HIRIKO HONDAKINAK GAIKA BILTZEA

	EAE				ESTATUA			
	2013		2014		2013		2014	
	Kantit. (Tm)	Guzt. %	Kantitatea (Tm)	Guzt. %	Kantitatea (Tm)	Guzt. %	Kantitatea (Tm)	Guzt. %
06 Hondakin metalikoak	929	0,3	435	0,2	20.985	0,5	22.598	0,6
07.1 Beirakiak	54.402	15,8	56.119	20,4	720.930	18,3	733.864	19,3
07.2 Paper eta kartoi hondakinak	130.614	37,8	122.104	44,4	988.226	25,1	976.896	25,7
07.4 Plastiko hondakinak	1.062	0,3	1.411	0,5	21.577	0,5	39.807	1,0
07.5 Zur hondakinak	33.587	9,7	10.015	3,6	105.646	2,7	88.498	2,3
07.6 Ehun hondakinak	6.278	1,8	12.068	4,4	23.488	0,6	41.329	1,1
08.2 eta 08.43 Botatako ekipo elektrikoak eta botatako ekipo elektronikoen osagaiak	15.067	4,4	3.968	1,4	41.644	1,1	52.582	1,4
08.41 Pila eta metagailu hondak.	164	0,0	91	0,0	7.119	0,2	3.061	0,1
09. Animali eta landare hondak.	25.286	7,3	6.888	2,5	844..081	21,5	781.960	20,6
10.21 Ontzi mistoak eta bilgarri nahastuak	33.942	9,8	36.020	13,1	559258	14,2	565.736	14,9
11 Lohi arruntak (lehorrak)	0	0,0	0	0,0	0	0	0	0,0
12 Mea-hondakinak (eraikuntza eta eraispeneko hondakinak barne)	41.650	12,1	22.623	8,2	465.104	11,8	433.444	11,4
18 Beste batzuk (1)	2.152	0,6	3.459	1,3	134.801	3,4	58.455	1,5
GUZTIRA	**345.133**	**100,0**	**275.201**	**100,0**	**3.932.857**	**100,0**	**3.798.230**	**100,0**

(1) Erabili gabeko medikamentuak, kautxu hondakinak eta hondakin sanitarioak eta biologikoak '18 beste batzuk' kategoriaren barruan daude.
Iturria: EIN: hondakinen bilketari eta tratamenduari buruzko estatistikak. Hiriko hondakinak

Per capita bolumenetan, EAEn 392,6 kg/biztanle hiri hondakin bildu ziren 2014an, hots, 2013rako kalkulatzen zena (582,2 kg/biztanle eta Estatuko batezbestekoa (459,1 kg/biztanle) baino gehiago. Autonomia erkidegoen arabera, Balear Uharteak), Kanariar Uharteak (671,1), Andaluzia (546,3) eta Kantabria 514,2) izan ziren per capita balio handienak bildu zituztenak.

IV.3.8. TAULA. HIRIKO HONDAKINEN BILKETA AAEE-EN ARABERA.(KG BIZTANLEKO)

	2013	2014
ANDALUZIA	544,0	546,3
ARAGOI	410,9	363,6
ASTURIAS	489,4	514,2
BALEAREAK	727,4	671,1
U. KANARIARRAK	571,4	630,1
KANTABRIA	523,2	487,0
GAZTELA ETA LEON	406,5	459,8
GAZTELA-MANTXA	433,7	387,9
KATALUNIA	488,1	497,4
VALENTZIAKO E.	431,2	387,9
EXTREMADURA	40,4	479,4
GALIZIA	393,3	313,0
MADRIL	365,9	392,4
MURTZIA	453,9	475,1
NAFARROA	437,2	415,5
EAE	**528,2**	**392.6**
ERRIOXA	410,2	259,1
CEUTA ETA MELILLA	-	-
ESTATUA	467,6	459,1

Iturria: EIN: hondakinen bilketari eta tratamenduari buruzko estatistikak. Hiriko hondakinak

Hiriko hondakinen kudeaketa aztertzeko, eta EINek horren inguruko informazioa autonomia erkidegoen arabera ematen ez duenez, *"Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren "EAEko Hiriko Hondakinei buruzko Estatistika"* erabiliko dugu. Horren arabera, EAEn 2013,498 Kg hiri hondakin kudeatu ziren biztanleko (Estatuan 528,2 zenbatetsi dira) eta 502 Kg/biztanle 2015ean (Eusko Jaurlaritzaren estatistikak ez dakar 2014ko informaziorik), eta horietatik 393 kg etxeko hondakinei dagozkie eta 109 merkataritzako hondakinei.

Hala, 2012 eta 2013 bitartean behera egin zuen sortutako hiriko hondakinen per capita bolumenak (501 kg-tik 498 kg-ra biztanleko), 2013 eta 2015 bitartean hazkundea izan zen, biztanleko 502 Kg zenbatu zirelako.

502 Kg/biztanle horietatik, 163 birziklatu egin ziren, 121 energiaren aldetik balioztatu eta errautsi ziren eta 121 konpostari dagozkio (ongarri organikoa). Gainerakoa, hots, 161 kg, Hondakindegira eraman zen. 2013ko datuen aldean, nabarmen handitu zen energiaren aldetik balioztatu eta erretako hondakinen kopurua (93 kg-tik 212kg-ra biztanleko), konpost bihurturikoek %10 egin zuten gora, birziklatuetan %28ko jaitsiera izan zen eta hondakindegira eramandakoetan %41.

Lurralde historikoen araberako azterketak joera bera erakusten du, baina diru-kopuru ezberdinak ematen dituzte. Hala, Araban handitu egin zen hondakin balioztatuen per capita bolumena (15 Kg/biztanle gehiago 2013an baino), baita konposterakoak (9 Kg/biztanle gehiago 2013an baino) eta behera egin zuten hondakindegira eramandakoek (97 Kg/biztanle gutxiago 2013an baino) eta birziklatuek (16 Kg/biztanle gutxiago 2013an baino). Bizkaian, hondakin balioztatuen per capita bolumenean 26 Kg/biztanle gehiago bildu zen, eta konposterakoena, berriz, 1 Kg/biztanle. Hondakindegietara eramandakoetan, aldiz, 45 Kg/biztanleko jaitsiera izan zen eta 34 Kg/biztanlekoa birziklatuetan. Gipuzkoan, hondakin balioztatuen per capita bolumenean 35 Kg/biztanle gehiago bildu ziren, eta konposterakoetan 25 Kg/biztanle (nabarmena da, Arabako eta Bizkaiko hazkundeen aldean). Hondakindegietara eramandakoetan, berriz bolumen txikiagoa bildu zen: 10 Kg/biztanle gutxiago eta birziklatuetan 25 Kg/biztanle gutxiago.

IV.3.9. TAULA. EAE-N SORTUTAKO HIRIKO HONDAKINEN KUDEAKETA (UNITATEAK:KG/BIZTANLE/URTE)

	2012	2013				2015				2013-15 ALDAK. (DIFERENTZIAN)			
	EAE	CAP	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	EAE	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	EAE	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
SORTUTAKO ETA KUDEATUTAKO H. HONDAKINAK	501	498	399	524	499	502	423	504	533	4,0	24,0	-20,0	34,0
ERRAUSKETAREN BALORAZIO ENERGETIKOA	93	93	0	178	0	212	15	204	35	119,0	15,0	26,0	35,0
BIRZIKLATZEA	159	191	117	201	209	163	101	167	184	-28,0	-16,0	-34,0	-25,0
KONPOSTAJEA	9	11	0	4	28	21	9	5	53	10,0	9,0	1,0	25,0
HONDAKINDEGIAN UZTEA	240	202	283	141	263	161	186	96	253	-41,0	-97,0	-45,0	-10,0

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila

3.3.2. Hondakin arriskutsuak eta ez-arriskutsuak

Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren datuen arabera, %13,7 egin zuen gora kudeaturiko hondakin arriskutsuen guztizko kopuruak. Ez-arriskutsuetan, berriz, %8,6 2013-2015eko epealdian (ez dago 2014ko daturik). Horrela, 2014an 323.398Tm hondakin arriskutsu kudeatu ziren, 3.535.977 Tm hondakin ez-arriskutsu, 2015ean.

2014an kudeatu ziren hondakin ez-arriskutsuen artean, hauexek nabarmentzen dira: prozesu termikoetako hondakinak (hondakin ez-arriskutsu guztien %33,4), metalen mekanizatuko hondakinak (hondakin ez-arriskutsuen %22,8), eraikuntzako eta eraispeneko hondakinak (hondakin ez-arriskutsu guztien %17,9) eta zurgintzako eta papergintzako industriako hondakinak (hondakin ez-arriskutsu guztien %11,1). Eta hauexek nabarmentzen dira hondakin arriskutsuen artean: prozesu termikoetako industriako hondakinak (hondakin arriskutsu guztien %45,5) eta metalen tratamenduko eta estalketako hondakinak (hondakin arriskutsu guztien %15,1).

IV.3.10. TAULA. HONDAKIN ARRISKUTSUEN ETA EZ-ARRISKUTSUEN BILAKAERA EAE-N EHZ KODEEN ARABERA* (Tonak).

	2012		2013		2014	2015**	Aldakuntza	
EHZ	Arriskuts.	Ez-arrisk.	Arrisk.	Ez-arriskut.	Arrisk.	Ez-arrisk.	Arrisk. 2013-14	Ez-arrisk. 2013-15
01-Meategiak eta harrobiak	0	370	0	3.124	0	7.063		126,1
02-Lehen mailako ekoizpena	9		7	78.114	20	84.026	185,7	7,6
03-Egur eta paperaren industria	1	492.702	15	470.007	0	392.781	-100,0	-16,4
04-Larrugintza eta ehungintza	0	1.131	0	476	0	29		-93,9
05-Petrolio findegia	7.970	195	10.021	540	2.326	2.921	-76,8	440,9
06-Ind. Kimiko ez-organikoa	2.387	3.655	1.160	19.041	1.217	17.125	4,9	-10,1
07-Ind. Kimiko organikoa	8.471	17.008	5.632	30.840	6.910	65.367	22,7	112,0
08-Margoak, bernizak eta tinduak	5.156	2.138	4.513	1.816	5.143	1.532	14,0	-15,6
09-Argazkigintza	300	11	294	417	201	96	-31,6	-77,0
10-Prozesu termikoen ind.	119.646	1.192.482	121.731	1.106.928	147.074	1.179.791	20,8	6,6
11-Metalen trat. eta estal.	50.440	5.867	47.079	16.660	48.720	6.879	3,5	-58,7
12-Metalen mekanizatuaren ind.	20.510	201.438	18.523	545.950	21.908	807.330	18,3	47,9
13-Olio erabiliak	16.573	-	24.919	0	30.075	0	20,7	
14-Disolbagarri erabiliak	2.094		1.768		2.407	190.871	36,1	
15-Ontziak eta zapiak	7.877	67.481	7.186	103.773	9.458	148.287	31,6	42,9
16-Beste hondakin batzuk	20.385	88.352	15.568	125.042	12.384	3	-20,5	-100,0
17-Eraikuntza eta eraiste-lanak	19.322		8.145		17.268	631.875	112,0	
18-Medikuntza zerbitzuak	1.670		1.440	6.752	1.562	7.063	8,5	
19-Hondakinen tratamenduen ind.	12.281	595.098	12.523	745.252	10.675	84.026	-14,8	-88,7
20-Udalekoak eta berdinetsiak	3.995	-	3.900	-	6.049	-	55,1	
Guztira	**299.089**	**2.667.928**	**284.424**	**3.254.731**	**323.398**	**3.535.977**	**13,7**	**8,6**

** EHZ: Europako hondakinen zerrenda*
*** Ez dira argitaratu 2014ko hondakin ez-arriskutsuei buruzko datuak, 2015ekoak baizik*
Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila

Hondakin horien kudeaketari dagokionez, 2014an, hondakin arrisku guztien artean, hondakin arriskutsuen % 66,6 birziklatu egin zen edo konposta egin zen (%68,7 2013an), %1 energiaren aldetik balioztatu zen (%0,5 2013an), %0,8 errautsi zen (%0,1 2013an), eta gainerako %31,5a desagerrarazi (%30,6 2013an).

Bestalde, hondakin ez-arriskutsu guztietatik, 2015ean, %53,3 birziklatu edo konposta egin zen, %3,9 energiaren aldetik balioztatu zen eta gainerako %42,8a desagerrarazi. Hona hemen 2013ko portzentajeak: %59,3% birziklatu edo konpost egin zen, eta %2,2 energiaren aldetik balioztatu zen eta %38,5 desagerrarazi.

IV.3.11. TAULA. EAE-N SORTUTAKO HONDAKIN ARRISKUTSUEN ETA EZ ARRISKUTSUEN KUDEAKETA

	2012		2013		2014	2015
	Arriskutsuak	Ez-arrisk. (bertikal guztiaren %)	Arriskutsuak (bertikal guztiaren %)	Ez-arriskutsuak (bertikal guztiaren %)	Arriskutsuak (bertikal guztiaren %)	Ez-arriskutsuak (bertikal guztiaren %l)
Hondakinak, guzt.	**Datuak ez daude eskuragarri**	**2.667.928**	**284.424**	**3.254.731**	**284.424**	**3.254.731**
Balorizazio energetikoa eta errausketa		5,5	0,5	2,2	1,0	3,9
Birzikl.+berrerab.+kon postajea		53,6	68,7	59,3	66,6	53,3
Erraustea		0,0	0,1	0,0	0,8	0,0
Desagerraraztea		40,9	30,6	38,5	31,5	42,8

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila

3.4. INGURUMENAREN BABESA ETA MANUFAKTURA-INDUSTRIA

Epigrafe honen xedea da manufaktura-industriek ingurumena babesteko egiten duten gastua aztertzea.

EINek egindako "Enpresa industrialek ingurumen babesean izandako gastuaren inkesta"ri buruzko azken datuen arabera, 2014an EAEn enpresa horiek ingurumen babesean izandako gastua (gastu arrunta eta inbertsioa), guztira, 177 milioi eurokoa izan zen Hori 2013an egondakoa baino %3,9 txikiagoa da (urte horretan %5,9 jaitsi zen aurreko urtearen aldean.

Gastua BPGd-aren portzentaje bezala neurtuta, 2014an murrizketa txiki bat (%>0,1) ikusten da, 2013koaren aldean. Gauzak horrela, % 0,28koa izan da, nahiz eta ratio hori Estatuko batezbestekoa (% 0,2) baino handiagoa den.

Hala, EAEk bosgarren tokia izan zuen 2014an, honako hauen atzetik: Asturias eta Nafarroa (bietan % 0,4), Gaztela-Mantxa (%0,37) eta Kantabria (%0,33), eta Galiziaren parean (%0,28).

IV.3. 1. GRAFIKOA. OHIKO GASTUA ETA INGURUMENA BABESTEKO INBERTSIOA MANUFAKTURA-ENPRESEN BPG-AREKIKO AAEEen ARABERA. 2014. (PORTZENTAJEAK)



Iturria: EIN

IV.3.12. TAULA. INDUSTRI ETA MANUFKATURA ENPRESEK INGURUMENA BABESTEKO EGINIKO OHIKO GASTUA ETA INBERTSIOA

	Ohiko gastua eta inbertsioa (€)				BPGaren portzentajea**			
	2011	2012	2013	2014	2011	2012	2013	2014
Andaluzia	273.601.694	274.241.103	264.402.878	285.856.680	0,19	0,20	0,19	0,21
Aragoi	83.699.495	82.608.445	94.532.022	80.165.161	0,25	0,25	0,29	0,24
Asturias	73.746.120	73.417.239	96.055.447	83.196.012	0,33	0,34	0,46	0,40
Balareak	7.486.187	7.191.958	5.609.727	7.261.152	0,03	0,03	0,02	0,03
U. Kanariarrak	31.264.197	40.871.648	30.734.659	25.504.808	0,08	0,10	0,08	0,06
Kantabria	50.832.796	41.982.812	44.240.043	39.776.229	0,40	0,35	0,38	0,33
Gaztela-Leono	117.737.569	120.367.890	123.943.872	135.139.173	0,21	0,23	0,24	0,26
Gaztela-Mantxa	97.059.482	117.735.595	114.798.036	132.438.251	0,25	0,31	0,31	0,37
Katalunia	583.526.312	542.294.327	562.127.294	517.139.213	0,29	0,28	0,29	0,26
Valentzia	199.081.324	210.029.050	168.510.822	193.645.316	0,20	0,22	0,18	0,20
Extremadura	12.067.913	12.958.589	15.311.895	14.680.815	0,07	0,08	0,09	0,09
Galizia	127.347.834	121.233.871	131.610.393	151.351.428	0,23	0,22	0,25	0,28
Madril	101.619.259	101.815.023	86.914.104	101.071.846	0,05	0,05	0,05	0,05
Murtzia	74.314.742	66.648.072	79.744.699	73.227.896	0,27	0,25	0,30	0,28
Nafarroa	62.656.159	69.395.368	69.979.993	71.245.584	0,34	0,39	0,40	0,40
EAE	**190.053.113**	**195.502.883**	**183.980.409**	**176.839.587**	**0,29**	**0,31**	**0,29**	**0,28**
Errioxa	24.477.888	20.213.533	21.877.198	20.641.770	0,31	0,26	0,29	0,27
Estatua*	2.110.572.084	2.098.507.406	2.094.373.491	2.109.180.921	0,20	0,20	0,20	0,20

**Estatuko BPGak Ceuta, Melilla eta Extra-Regio biltzen ditu. 2010eko oinarria*
Iturria: EIN

ITURRIAK:

1. EUSKO JAURLARITZA. Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. 2014ko datuak. Urtekoa. Kointurala.

2. EIN. Uraren hornidurari eta saneamenduari buruzko inkesta. 2014ko datuak. Urtekoa. Koiunturala

3. EIN. Hondakinen bilketari eta tratamenduari buruzko inkesta. Hiriko hondakinak: 2010-2014ko seriea. Urtekoa. Koiunturala.

4. EUSKO JAURLARITZA. Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Hiriko Hondakinei buruzko Estatistika. 2015eko datuak. Koiunturala.

5. EUSKO JAURLARITZA. Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Hondakin Arriskutsuei buruzko estatistika. 2014ko datuak. Urtekoa. Koiunturala.

6 EUSKO JAURLARITZA. Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Hondakin Ez-arriskutsuei buruzko inkesta. 2015eko datuak. Urtekoa, ausazko datuak erabiliz. Koiunturala.

7. EIN. Industriak ingurumena babesteko eginiko gastuari buruzko inkesta. 2014ko datuak. Urtekoa. Koiunturala.

4. OSASUNA ETA OSASUN SISTEMA

OMEk[28] honelaxe definitzen ditu "Osasunaren faktore determinanteak": banakoen edo populazioen osasun egoera dakarten norberaren, gizartearen, ekonomiaren eta ingurumenaren inguruko faktoreen multzoa.

Beraz, faktore askoren araberakoa da "osasuna", gehienbat ingurumenaren, bizimoduaren, osasun sistemaren eta giza biologiaren araberakoa.

1974an "A new perspective on the health of canadians" deritzona argitaratu zen Kanadan, Lalonde[29] Txostena izenekoa, osasuneko politiken gaineko planteamendu berrietarako oinarria izan dena. Txostenaren ondorioetarako bat hauxe da: honekin batera doan grafikoak erakusten duen moduan eragiten zaiola osasunari, hots, hauexen arabera, gizarte sistema (%50), osasun sistema eta gaixotasunaren arreta (%25), faktore biologikoak (%15) eta giro fisikoa (%10).

IV.4.1. GRAFIKOA. OSASUNAREN FAKTORES DETERMINANTEAK



Iturria: Canadian Institute for advance research eta geuk egina.

1975ean, Dever azterlana egin zen AEBan. AEBko osasuneko gastuak aztertzen ziren azterlan horretan, ondorio hau atera zen: bizimoduak oso eragin handia duela osasunean, eta norberaren gaitasunen eta gizarte giroaren eragina izaten du nabarmen bizimoduak. Halaber, osasunean eginiko ia gastu guztia osasun sistemarako erabiltzen da, eta oso zati txikia gainerako faktoreetarako (giza biologia, ingurunea eta bizimodua).

Kapitulu honetan zehar, lehenik eta behin biztanleriaren osasun egoerara hurbiltzea ahalbidetzen duten zenbait adierazle aztertuko dira hala nola bizi-itxaropena, mendetasuna eta heriotza. Bigarrenik, Euskadiko, Estatuko eta EBko laguntzarako jardueraren eta baliabideen arteko analisia konparatua egingo da. Ondoren, labur-labur aztertuko da Osakidetzak eskainitako laguntzaren jarduera. Herritarrei osasun arreta integrala eskaintzen dien erakunde autonomoa da, eta aurrekontu publikoekin finantzatzen da. Laugarrenik, osasun pribatuaren adierazle nagusien bilakaera aurkeztuko da. Eta azkenik, Osasun Sistemaren gastua aztertuko da.

4.1. OSASUN EGOERA

4.1.1. Bizi-itxaropena

a) Bizi-itxaropena

X adineko bizi itxaropena x adin horretako banako batek ustez biziko duen batez besteko urte kopurua da, adinaren araberako berariazko heriotza tasetan egungo joerek iraunez gero[30]. Batez besteko hori biztanleria osoari dagokio eta ez banakako jakin bati, hark bizi-itxaropenak adierazitakoa baino gehiago bizi dezakeelako edo, alderantziz, dagokion itxaropena baino lehenago hil.

Bizi-itxaropena (BI) jaiotzean biztanleriaren osasun egoerara hurbiltzeko modu klasikoa da, eta estatistika-iturriek erakutsi izan dutenez, goranzko joera erakusten du.

[28] *Osasunaren sustapena. Glosategia, OME eta Osasun Ministerioa*

[29] *Lalonde, M. (1974). A New Perspective on the Health of Canadians. A working document. Ottawa: Welfare.*

[30] *Aldatu egin daitezke, zeren eta, jakina, denborarekin aldaketak gerta baitaitezke.*

Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasuneko Ministerioaren arabera, Euskadin hazi egin zen BI 2000 eta 2013 bitartean, gizonezkoetan nahiz emakumezkoetan. Hazkunde handiagoa izan da gizonezkoetan emakumezkoetan baino, baina emakumeek dute oraindik itxaropenik handiena. Zehazki, 4,3 hazi da gizonezkoentzat eta 3,8 emakumezkoentzat, eta 2013an 87,1 urtekoa zen emakumezkoetan eta 80,2 urte gizonezkoetan (6,9 urteko aldea emakumezkoentzat, baina 2000an handiagoa zen aldea, 7,5 puntukoa).

Estatuan ere, iturri beraren arabera, goranzko joera dago (eta neurri handiagoan gizonentzat) eta jaiotzeko BI, 2013an, 86 urte izan zen emakumeentzat eta 80,1 urte gizonentzat (5,9 urteko aldea emakumeentzat, baina 2000an handiagoa zen aldea, 6,8 puntukoa hain zuzen).

EBko herrialdeetan, EUROSTATen datuen arabera, goranzko joera dago emakumeentzat zein gizonezkoentzat, eta emakumeena ere handiagoa da gizonena baino. 28ko EBrako batez bestekoa 83,3 urtean kokatu zen 2013an emakumeentzat eta 77,8 urtean gizonentzat (5,5 urteko aldea emakumearentzat).

Horrenbestez, gizonen BI antzekoa da EAEn eta Estatuan (80,2 eta 80,1), eta 28-EBren batez bestekoa baino handiagoa da (77,8). Bestalde, emakumeen BI handiagoa da EAEn Estatuan baino (87,1 eta 86 urte) eta 28-EBko batez bestekoaren gainetik daude (83,3)

Aldi berean, emakumeek bizi-itxaropen handia izaten jarraitzen dute, baina diferentzia positiboa gutxituz doa, bai EAEn, bai Estatuan.

IV.4.1. TAULA. BIZI-ITXAROPENA JAIOTZEAN.

	2000		2009		2013		2000-2013 ald.	
	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Gizonak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Gizonak
ANDALUZIA	75,0	81,5	80,9	85,6	79,0	84,6	4,1	3,2
ARAGOI	76,7	83,5	81,5	86,2	80,4	86,6	3,7	3,1
ASTURIAS	75,0	82,6	80,1	85,5	79,1	85,8	4,1	3,2
U. BALEARRAK	75,1	82,1	81,3	85,5	80,4	85,5	5,2	3,4
U. KANARIARRAK	74,5	81,3	82,4	86,0	80,1	85,4	5,6	4,1
KANTABRIA	75,6	83,0	81,1	86,5	80,3	86,5	4,6	3,4
GAZTELA ETA LEON	77,3	84,1	81,8	86,6	81,1	87,0	3,8	2,9
GAZTELA-MANTXA	77,5	83,0	82,3	86,6	80,8	86,3	3,3	3,3
KATALUNIA	76,2	83,1	82,0	86,1	80,4	86,4	4,2	3,3
VALENTZIAKO ER.	75,4	82,1	81,9	86,2	80,2	85,5	4,7	3,4
EXTREMADURA	75,6	82,3	80,7	86,2	79,2	85,2	3,6	2,9
GALIZIA	75,6	82,9	80,4	85,5	79,8	86,0	4,2	3,1
MADRIL	76,9	83,8	83,4	87,4	81,7	87,6	4,8	3,8
MURTZIA	75,2	81,6	81,7	86,0	80,1	85,3	4,9	3,7
NAFARROA	77,1	84,0	82,5	86,9	80,9	87,2	3,8	3,2
EAE	**75,9**	**83,4**	**82,0**	**86,9**	**80,2**	**87,1**	**4,3**	**3,8**
ERRIOXA	76,9	84,2	82,4	87,2	81,1	86,9	4,2	2,7
CEUTA	75,4	81,3	80,3	85,2	78,2	82,5	2,8	1,2
MELILLA	73,6	81,3	80,3	85,2	78,2	82,5	4,6	1,2
OROTARA	**75,9**	**82,7**	**78,7**	**85,0**	**80,1**	**86,0**	**4,2**	**3,3**

Iturria: Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasuneko Ministerioa.

b) Bizi urte osasuntsuak jaiotzea (BUO)

Herri garatu gehienetan, bizi itxaropenaren behin-behineko bilakaera goranzkoa da; hala ere, horrek ez du esan nahi adierazlea handitu den bizi urte guztiak osasun egoera oneko urteak direnik, jendeak gaixotasunak eta osasun arazoak paira ditzakeelako eta hori dela-eta, berehala hil ez arren, bizi kalitatea gal baitaiteke. Oro har, kronikoak deritzen eritasunekin gertatzen da hala; izan ere, horien presentzia dela-eta, heriotza tasa pixkanaka balioa galtzen ari da osasunaren egoeraren adierazle gisa.

Eztabaida egiten da ea etorkizunean itxaropenaren hazkundearekin batera gaixotze-tasa ere haziko den, gaitz kronikoek eta buruko gaitzek gora egingo duten, edo bizitza luzeagoa osasun onez igaroko den, medikuntza aurrerapenei eta gaitzen prebentzioari esker. Hori dela-eta, egun ohiko hilkortasun neurriak ez dira nahikoa osasun egoera

ebaluatzeko, osasun egoera horretan berehalako hilkortasuna ez dakarten gaitz eta osasun arazo kronikoak ugariak direlako.

Beraz, gaitzak euren ondorioen bidez neurtu behar dira, besteak beste, ***jarduera murrizketaren edo ezintasunaren bidez***. Zentzu horretan, biztanleriaren osasun egoeraren indizeak egiteak, hala nola ezintasunik gabeko bizi itxaropena (EGBI) [31] hilkortasunean eta ezintasunean oinarritua-, gaixotasun kronikorik gabeko bizi itxaropena (GKGBI) edo osasun oneko bizi itxaropena (OOBI), egiteak, neurri bakar batean iraupena ez ezik bizi kalitatea ere laburbiltzea ahalbidetzen du.[32]

X adineko EGBIk x adin horretako pertsona bati hil arte ezintasunik gabe bizitzeko geratzen zaizkion batez besteko urteak adierazten ditu. Kalkulua egiteko, heriotzari buruzko datuez gain, jarduera mugatzeari buruzko datuak behar dira.

Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasuneko Ministerioaren arabera, BUO jaiotzean goranzko joera ageri da, bai EAEn, bai Estatuan, gizonezkoentzat eta emakumezkoentzat, baina 2009 eta 2013 bitarteko igoera hori handiagoa da Estatuan EAEn baino.

Bestalde, BIn sexuen arabera dauden diferentziak nabarmen gutxitzen dira jarduera mugarik gabe bizi izandako urteak kontuan hartzen badira, bai EAEn, bai Estatuan, halako moldez non BIko urte-gehikuntzan emakumeen eta gizonen artean dagoen aldea, funtsean, jarduera mugarekin bizi izandako urteengatik gertatzen baita.

Hala, EAEn, BUO jaiotzean 69,2 zen 2013an emakumeentzat eta 68,2 gizonentzat, eta urte berean, BI 87,1 izan zen emakumeengan eta 80,2 gizonengan, hots, jarduera mugatuko bizitzako 17,9 emakumeengan eta 12 gizonengan. Emakumeek, batez beste, gizoneko baino 6,9 urte gehiago bizi zituzten 2013an; alabaina, jarduera mugarik gabeko urteen batez bestekoa urtebete luzeagoa izan zen gizonetan.

Espainian, bestalde, BUO jaiotzean 66,2 zen 2013an emakumeentzat eta 67,5 gizonentzat, eta urte berean, BI 86 izan zen emakumeengan eta 80,1 gizonengan, hots, jarduera mugatuko bizitzako 19,8 emakumeengan eta 12,6 gizonengan. Emakumeek, batez beste, gizoneko baino 6,9 urte gehiago bizi zituzten 2013an; alabaina, jarduera mugarik gabeko urteen batez bestekoa urtebete luzeagoa izan zen gizonetan.

Bestela esanda, BI nahiz BUO hazi egin dira, hain zuzen gizonen BUO emakumeenekin alderatuta dagoen goranzko joera horren magnitude handiagoa dela-eta, sexu biek BIn duten aldea desagertzeko joera dago baldin eta jarduera mugatuko urte askeak hartzen badira kontuan.

---

[31] *Badute BUOekiko desberdintasuna: pertsonek beren osasun egoerari buruz duten pertzepzio subjektiboarekin biderkatuta haztatzen direla bizitzako urteak, jarduera mugarekin haztatu beharrean.*

[32] *Jardueraren adierazle globaletik dator BUO kalkulatzeko erabilitako jardueraren mugaren neurria (ingeleseko GALI siglak), hain zuzen Europako herrialdeetako osasunari buruzko inkesta gehienetako galdetegietan sartu izan dena. GALI ezintasun subjektiboko indize bakuna da, galdera bakarrean lau dimentsio atzeman nahi dituena: jardueraren mugaren presentzia, jendeak normalean egiten dituen jardueretarako muga denean, baldin eta, muga hori egonik, osasun arazoengatik bada eta gutxienez 6 hilabeteko iraupena badu. Hona hemen 2011ko osasunari buruzko inkestan helduen GALI neurtzeko erabilitako galdera: "Gutxienez azken 6 hilean, zein neurritan egon zara mugatuta jendeak egin ohi dituen jarduerak egitekok osasun arazoa dela-eta?: Larriki mugatuta; Mugatuta baina ez larriki; Mugarik bat ere ez". Informazio horren arabera, edozein muga mailari eta mugari larriari buruzko bi adierazlea eratzen dira. Espainian, galdera hori 2007ko osasunari buruzko nazio inkestako galdetegian sartu zen, eta berriz ere 2011koan.*

IV.4.2. TAULA. BIZITZA OSASUNGARRIKO URTEAK JAIOTZEAN

	2009			2011			2013			2009-13 ald.	
	Gizona	Emak.	G-E aldea	Gizona	Emak.	G-E aldea	Gizona	Emak.	G-E aldea	Gizona	Emak.
ANDALUZIA	61,2	59,6	1,6	65,9	64,0	1,8	66,3	64,3	2,0	5,1	4,7
ARAGOI	66,6	67,2	-0,6	72,0	72,9	-0,9	72,5	73,3	-0,8	5,9	6,1
ASTURIAS	65,8	62,6	3,2	63,3	63,0	0,3	64,1	63,3	0,7	-1,8	0,7
U. BALEARRAK	63,1	63,2	-0,1	63,9	67,1	-3,2	64,4	67,3	-2,9	1,2	4,1
U. KANARIARRAK	63,4	56,3	7,1	61,7	54,2	7,5	62,5	54,3	8,2	-0,9	-2,0
KANTABRIA	62,9	64,8	-1,9	70,9	73,3	-2,5	71,6	73,3	-1,7	8,7	8,5
GAZTELA ETA LEON	68,2	67,4	0,8	69,3	70,2	-0,8	69,7	70,3	-0,6	1,5	2,9
GAZTELA-MANTXA	66,8	59,9	6,8	72,6	66,4	6,1	72,6	66,7	6,0	5,9	6,7
KATALUNIA	65,9	63,4	2,4	67,4	65,5	1,9	67,7	65,7	2,0	1,8	2,3
VALENTZIAKO ER.	61,2	59,8	1,4	65,8	67,0	-1,1	66,4	67,2	-0,8	5,2	7,4
EXTREMADURA	61,5	56,7	4,9	68,4	67,0	1,5	68,8	66,8	1,9	7,2	10,2
GALIZIA	59,2	58,5	0,7	65,7	62,9	2,9	66,2	63,0	3,3	7,1	4,5
MADRIL	67,2	61,1	6,1	67,5	68,6	-1,1	67,9	68,8	-1,0	0,7	7,8
MURTZIA	62,5	57,3	5,2	67,4	63,5	4,0	68,0	63,5	4,4	5,4	6,2
NAFARROA	64,8	64,1	0,7	70,9	70,5	0,4	70,8	70,7	0,1	5,9	6,6
EAE	**65,4**	**67,3**	**-1,8**	**67,7**	**68,7**	**-1,0**	**68,2**	**69,2**	**-1,0**	**2,7**	**1,9**
ERRIOXA	65,4	65,1	0,3	65,5	68,4	-2,9	66,1	68,5	-2,4	0,7	3,4
CEUTA	65,6	63,0	2,6	65,2	59,5	5,7	65,9	58,8	7,1	0,4	-4,2
MELILLA	65,6	63,0	2,6	65,2	59,5	5,7	65,9	58,8	7,1	0,4	-4,2
OROTARA	**62,8**	**61,1**	**1,8**	**67,1**	**66,0**	**1,1**	**67,5**	**66,2**	**1,3**	**4,7**	**5,1**

Ceuta eta Melillaren datuak biei dagozkie, baina bakoitza bere aldetik eman dira.
Iturria: Osasun, Gizarte Zerbitzu eta BerdintasunekoMinisterioa

4.1.2. Mendetasun tasa

Mendetasun tasa indize demografikoa da, portzentajeen bidez mendetasunean bizi diren biztanleen (16 urtetik beherakoak eta 64 urtetik gorakoak) eta horien kargua duten biztanle produktiboen artean dagoen erlazioa adierazten duena.

Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasuneko Ministerioak 2016ko ekainean argitaraturiko "*Osasun Nazio Sistemaren Urteko Txostena, 2015*" delakoaren arabera, mendetasun tasa EAEn, 2014an, %55,8 izan zen, Estatuan dagoen %52,1eko batez bestekoaren gainetik. Gure Erkidegoak hirugarren tasarik handiena zuena, soilik Gaztela eta Leonen (%57,8) eta Galiziaren (%56,9) atzetik. Txikienak U. Kanariarretan (%43,1) eta Balearretan (%45,7) izan ziren.

2000-2014 aldian, mendetasun tasaren aldakuntzarik handiena Euskadin izan zen, 12,3 puntuko igoera izan baitzen 2014an 2000 urtearekiko, eta ondoren Nafarroan (+6,5 puntu), Madrilen (+6,4 puntu), Katalunian (+6,3 puntu) eta Galizian (5,7 puntuko igoera).

IV.4.3. TAULA. MENDETASUN-TASAREN BILAKAERA AAEE-EN ARABERA

	Tasa globala					>64 urte				
	2000	2004	2008	2014	2000-14 ald.	2000	2004	2008	2014	2000-14 ald.
ANDALUZIA	50,5	48,7	47,4	50,4	-0,1	20,9	21,2	21,1	23,8	3,0
ARAGOI	53,7	52,8	51,0	55,6	1,9	31,9	31,1	29,1	32,0	0,0
ASTURIAS	49,5	48,9	48,5	54,4	4,9	31,4	32,2	32,0	36,5	5,1
U. BALEAREAK	46,6	43,9	42,2	45,7	-1,0	20,9	19,7	18,9	21,7	0,8
U. KANARIARRAK	43,2	41,5	40,8	43,1	-0,1	16,3	16,8	17,6	20,9	4,6
KANTABRIA	48,3	47,2	46,6	52,2	3,9	27,2	27,3	26,6	30,3	3,1
GAZTELA ETA LEON	59,0	56,5	51,7	53,1	-5,9	33,5	34,3	33,8	37,3	3,7
GAZTELA-MANTXA	55,1	54,6	53,7	57,8	2,8	30,2	29,1	26,2	27,4	-2,8
KATALUNIA	47,3	46,7	46,7	53,6	6,3	24,6	24,1	23,4	27,7	3,1
VALENTZIAKO ER.	48,3	46,8	46,6	52,4	4,1	23,2	23,2	23,2	27,7	4,4
EXTREMADURA	58,1	56,4	53,2	53,5	-4,6	28,6	29,0	28,4	29,7	1,2
GALIZIA	51,2	51,0	51,3	56,9	5,7	30,2	31,6	32,5	37,0	6,8
MADRIL	43,4	42,4	42,9	49,8	6,4	20,0	19,9	20,2	24,8	4,8
MURTZIA	50,0	48,7	49,1	50,7	0,7	20,5	20,2	19,5	22,3	1,9
NAFARROA	48,3	45,0	47,2	54,8	6,5	26,0	25,7	25,3	28,9	3,0
EAE	**43,6**	**49,2**	**48,6**	**55,8**	**12,3**	**24,5**	**26,0**	**27,2**	**32,7**	**8,2**
ERRIOXA	51,2	49,3	49,4	54,9	3,8	28,4	27,3	26,3	30,4	1,9
CEUTA	50,2	53,7	52,7	49,8	-0,5	15,6	16,4	16,6	16,2	0,6
MELILLA	54,1	48,5	46,9	53,3	-0,8	15,3	16,2	15,5	14,8	-0,5
OROTARA	**48,9**	**47,8**	**47,2**	**52,1**	**3,2**	**24,3**	**24,3**	**23,9**	**27,6**	**3,3**

Iturria: Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasuneko Ministerioa

64 urtetik gorako biztanleen mendetasun tasari dagokionez, Euskadik %32,7ko ratioa zuen 2014an, 28-EBko batez bestekoaren (%27,5) eta Estatuko batez bestekoaren (%27,6) gainetik. Zehazki, laugarren tasarik handiena zuen, hauexen atzetik: Gaztela eta Leon (%37,3), Galizia (%37) eta Asturias (%36,5).

2000-2014 aldian, mendetasun tasaren aldakuntzarik handiena ere Euskadin gertatu zen, 8,2 puntuko gehikuntza izanik, eta ondoren zeuden Galizia (+6,8 puntu), Asturias (+5,1 puntu) eta Madril (+4,8 puntu).

28-EBn, nagusien mendetasun tasa handiena duten herrialdeak Italia, Grezia eta Alemania ziren, %33,1, %31,6 eta %31,5 hurrenez hurren. Bestalde, hona hemen populazioaren mendetasun tasarik txikieneko herrialdeak: Irlanda, %18,6; Eslovakia, %19,0 eta Zipre, %19,9.

Luxenburgon tasak behera egin zuen pixka bat, baina 28-EBko gainerako herrialdeetan nagusien mendetasun tasak gora egin zuen 2009 eta 2014 bitartean. EB osoan, 1,7 igo zen, eta hona hemen igoerarik handieneko herrialdeak Malta: (6,1 puntuko aldea), Finlandia (5) eta Txekiar Errepublika (4,6). Espainiak bitarteko tokia du, 3,1 puntuko gehikuntzarekin.

IV.4.4. TAULA. 65 URTETIK GORAKOEN MENDETASUN TASA.

	2014	2009-2014 ALD.		2014	2009-2014 ALD.
ALEMANIA	31,5	0,6	HUNGARIA	25,8	2,0
AUSTRIA	27,2	1,4	IRLANDA	18,6	2,6
BELGIKA	27,3	1,4	ITALIA	33,1	2,2
BULGARIA	29,3	3,2	LETONIA	28,8	2,6
ZIPRE	19,9	2,1	LITUANIA	27,5	2,1
KROAZIA	27,6	0,8	LUXENBURGO	20,4	-0,1
DANIMARKA	28,3	4,2	MALTA	26,4	6,1
ESLOVAKIA	19,0	2,0	POLONIA	21,2	2,3
ESLOVENIA	25,7	2,1	PORTUGAL	29,4	2,4
ESPAINIA	27,2	3,1	ERRESUMA BAT	26,4	2,1
ESTONIA	27,9	2,1	TXEKIAR E.	25,7	4,6
FINLANDIA	30,2	5,0	ERRUMANIA	23,9	0,2
FRANTZIA	26,7	1,3	SUEDIA	30,6	3,5
GREZIA	31,6	3,5	**28 EB GUZTIRA**	**27,5**	**1,7**
HERBEHEREAK	26,4	4,1	**EAE**	**32,7**	**4,9**

Frantzia (2012). Irlanda, Portugal, Errumania eta Erresuma batua (2013)
Iturria: EUROSTAT, ONSren txostenean, 2015. Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun eko Ministerioa

4.1.3. Heriotza tasa

a) Heriotzak

Heriotza tasa gordina eta umeen heriotza tasa asko erabili ditu nazioarteko komunitateak biztanleriaren osasun adierazle gisa eta, zeharka, garapen sozioekonomikoaren adierazle gisa.

Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasuneko Ministerioaren arabera, AAEE guztietan[33] murriztu dira heriotza tasak azken urteetan, eta 2014an, adinagatik doituriko 100.000 biztanleko heriotza tasa txikiagoa da EAEn Estatuko batez bestekoa baino (425 eta 448). Beste AAEE batzuekin erkatuta ikusten denez, EAEk emaitza ona du. Hala, Andaluzian 496 da tasa, Katalunian 431 eta 463 Valentziako Erkidegoan. Madrilek, bestalde, 385eko ratioa du, EAEko tasa baino txikiagoa.

IV.4.2. GRAFIKOA. HERIOTZA TASA OROKORRA ADINAREKIN DOITUA, 100.000 BIZTANLEKO



Iturria: Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa

Adinari dagokionez, heriotzen zatirik handiena, EUSTATen "*Heriotzei buruzko Estatistika*"ren arabera, adinik handieneko tarteetan gertatzen da, gaixotasunen aurrezaintzan eta tratamenduan eginiko aurrerapenen zuzeneko ondorioa. Izan ere, 2015. urtean, heriotzen %65,3 80 urtetik gorakoen artean gertatu zen. 2010ean, berriz, %58,8ko ratioa zen. Hala, 80-89 urtekoen taldeko heriotza kopurua 8.509; 90-99 urtekoetan, 5.194 (+499); eta 99tik gorakoetan, berriz, 344.

IV.4.5. TAULA. HERIOTZA TASAREN BILAKAERA ADINEKOEN ARTEAN, EAE-N

Adina	2010	2011	2012	2013	2014	2015
OROTARA	**19.357**	**19.832**	**20.281**	**19.692**	**20.157**	**21.509**
>=80	11.392	11.779	12.462	12.128	12.659	14.047
80-89	7.392	7.699	7.845	7.569	7.830	8.509
90-99	3.795	3.829	4.328	4.291	4.519	5.194
100-109	205	251	289	267	307	344
>=110	-	-	-	1	3	-
>=80 guztizkoarek. (%)	**58,8**	**59,3**	**61,4**	**61,5**	**62,8**	**65,3**

Iturria: EUSTAT. Heriotzei buruzko estatistika

Heriotzaren eragileak direnez bezainbatean, hainbat estatistika-iturritan ageri denez, EAEn nahiz gure ingurune sozioekonomikoko herrialdeetan, heriotzarik gehienak transmititzen ez diren eritasunen ondorioz gertatzen dira, gehienbat gaixotasun kardiobaskularrek eta tumoreek eraginda.

---

[33] *Tasa gordina populazioaren gaineko esperientziaren laburpen erarik errazena eta zuzenena da. Heriotza tasa orokorrak oso lotura estua du adinarekin, halako moldez non oso ezberdinak izango baitira adinaren araberako heriotza tasa espezifikoak. Tasa gordinak sortzen duen "batez besteko balio" horren atzean, adin-estratuaren araberako heriotza tasa espezifikoen heterogeneotasuna dago.*

Gaia bereziki garrantzitsua da biztanlerien edo epealdi desberdinen arteko tasak erkatzen direnean, zeren eta, biztanlerien osaera ezberdina bada, balizko ezberdinen zati bat behintzat estratuen arteko aldeengatik izan baitaiteke.

"Doikuntza" eta "estandarizazio" terminoak erabiltzen dira, biak ala biak, laburpen-neurriak taldeen artean erkatzeko modua errazteko; hartara, talde artifizialak egiten dira prozedura matematikoen bidez.

Hala, adinaren araberako heriotza tasa estandarizatua (HTE) lurralde batean erregistraturiko heriotza kopuruari dagokio (100.000 biztanleko adierazita) heriotza tasaren arabera, sexuka eta adinka banatuta, eta biztanleri tipo edo estandarreko adinen araberako egitura erabiliz.

Zuzeneko estandarizazio deritzon metodo horrek heriotza tasen batez besteko haztatua kalkulatzen du adin-taldeen arabera, non haztapen-koefizientea erreferentzia estandarreko biztanleria den.

Berez, EUSTATen datuen arabera, 2007tik hasita, heriotza gehienak tumoreen ondoriozkoak izan dira eta zirkulazio sistemako gaixotasunen ondoriozkoak ondoren, aurreko urteetan ez bezala; zirkulazio sistemako gaixotasunek eragiten zuten heriotza gehien. 2015ean, heriotza guztien %29,7 ziren tumoreek eragindakoak, eta zirkulazio-aparatuaren gaixotasunena, berriz, %26,9. Hirugarren tokian, arnasa-aparatuko eritasunak ageri dira (guztizkoaren %9,9).

IV.4.6. TAULA. HERIOTZAK KAUSAREN ARABERA

	EAE									
	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015 (bb)	
									n	%
Orotara	**19.252**	**19.437**	**19.624**	**19.357**	**19.832**	**20.281**	**19.692**	**20.157**	**21.509**	**100,0**
Tumoreak	5.812	5.811	5.950	6.021	6.261	6.149	6.143	6.360	6.379	29,7
Zirkulazio sistema	5.710	5.692	5.799	5.675	5.655	5.736	5.408	5.388	5.788	26,9
Arnas sistema	1.854	1.941	1.841	1.691	1.758	1.915	1.869	1.868	2.119	9,9
Digestio sistema	990	979	940	898	946	956	942	948	677	3,1
Kanpokoko kausak (Nerbio sist.)	734	711	677	653	683	715	740	1.291	976	4,5
Gain. gaixotasunak	4.152	4.303	4.417	4.419	4.529	4.810	4.590	4.302	5.570	25,9
Heriotzaren bi kausa nagusien portzentajeen arteko banaketaren bilakaera:										
Tumoreak	30,2	29,9	30,3	31,1	31,6	30,3	31,2	31,6		29,7
Zirkulazio sistema	29,7	29,3	29,6	29,3	28,5	28,3	27,5	26,7		26,9

(bb) Behin-behineko datuak.
Iturria: EUSTAT. Heriotzei buruzko estatistika.

b) Heriotza goiztiarra. Galdutako balizko bizitza urteak (GBBU)

Haurren heriotzen adierazlea hobetutakoan, herrialde aurreratuak heriotza goiztiarraren (GBBU) datua hobetzen saiatzen dira, trafiko istripuen eta laneko istripuen aurrezaintzan hobekuntza nabarmenak aplikatuz. Baita bihotzaren eritasun iskemikoen, istripu zerebro-baskularren, eta abarren aurrezaintzaren bidez ere.

GBBU neurri ona da osasun publikoan, heriotzak gazteenen heriotzak eragindako inpaktua islatzeko eta, hala, heriotzak ahal den neurrian saihestu ahal izateko.

Zenbait irizpide komun dituzten eta behaketa epidemiologiko prospektibo baten barruan dauden pertsonen talde batekin egiten da, behar baino lehen hildako (70 urte bete baino lehen) pertsonek bizi ez dituzten bizitza-urteak oinarri hartuta (heriotza gertatu deneko adinaren eta 70 urteko adinaren arteko diferentziatik metaturiko batura).

Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailaren arabera, hona hemen gizonetan heriotza goiztiarraren bost kausa nagusiak (2008-2015eko datuak): trakea, bronkio eta birikako minbizi gaiztoa, kardiopatia iskemikoak, suizidioak eta nork bere buruari eragindako zauriak, motordun ibilgailuen trafiko istripuak eta zirrosia eta gibelaren gaixotasun kronikoak. 2014an koloneko tumore gaiztoak ere toki nabarmena hartu zuen gizonen heriotza goiztiarraren eragileen artean.

Emakumeei dagokienez, urte bereko datuak aztertuz, hauexek dira hiru kausa nagusiak: bularreko tumore gaiztoak; trakea, bronkio eta birikako tumore gaiztoak eta suizidioak eta nork bere buruari eginiko zauriak. Zenbait gaixotasunek presentzia txikiagoa izan dute aurreko urteetan baino, zerebro-baskularrak edo zirrosia adibidez; alderantziz, emakumeen heriotza goiztiarrak gora egon du koloneko, umetokiko eta entzefaloko tumore gaiztoek eraginda.

IV.4.7. TAULA. GALDUTAKO BALIZKO BIZITZA URTEAK, SEXUAREN ARABERA, ETA KAUSA NAGUSIAK EAE-N *(Tasa estandarrak adinaren arabera)*

Gizonak 2008		Gizonak 2008	
	Tasa		Tasa
Trakea, bronkio eta birikako minbizi gaiztoak	4,74	Bularreko tumore gaiztoa	2,15
Kardiopatia iskemikoa	2,93	Trakea, bronkio eta birikako minbizi gaiztoak	1,67
Suizidioak eta nork bere buruari eragindako zauriak	2,18	Gaixotasun zerebrobaskularrak	0,82
Motordun ibilgailuen trafiko istripuak	2,47	Suizidioak eta nork bere buruari eragindako zauriak	0,78
Zirrosia eta gibelaren eritasun kronikoak	1,45	Zirrosia eta gibelaren eritasun kronikoak	0,55
Gaixotasun zerebrobaskularrak	1,04	Koloneko tumore gaiztoa	0,52
Gizonak 2010		**Gizonak 2010**	
Trakea, bronkio eta birikako minbizi gaiztoak	4,01	Trakea, bronkio eta birikako minbizi gaiztoak	1,86
Kardiopatia iskemikoa	3,06	Bularreko tumore gaiztoa	1,66
Suizidioak eta nork bere buruari eragindako zauriak	1,84	Koloneko tumore gaiztoa	0,63
Motordun ibilgailuen trafiko istripuak	2,05	Gaixotasun zerebrobaskularrak	0,67
Zirrosia eta gibelaren eritasun kronikoak	1,50	Zirrosia eta gibelaren eritasun kronikoak	0,49
Ezpain, aho eta faringeko tumore gaiztoa	0,84	Umetokiko tumore gaiztoa	0,48
Gizonak 2012		**Gizonak 2012**	
Trakea, bronkio eta birikako minbizi gaiztoak	3,76	Bularreko tumore gaiztoa	1,85
Kardiopatia iskemikoa	2,82	Trakea, bronkio eta birikako minbizi gaiztoak	1,51
Suizidioak eta nork bere buruari eragindako zauriak	1,98	Suizidioak eta nork bere buruari eragindako zauriak	0,61
Zirrosia eta gibelaren eritasun kronikoak	1,39	Gaixotasun zerebrobaskularrak	0,49
Motordun ibilgailuen trafiko istripuak	1,39	Motordun ibilgailuen trafiko istripuak	0,72
Psikofarmakoek eta abusuzko drogek nahigabe eragindako pozoitzea	1,05	Urdaileko tumore gaiztoa	0,41
Gizonak 2014		**Gizonak 2014**	
Trakea, bronkio eta birikako minbizi gaiztoak	3,67	Bularreko tumore gaiztoa	1,84
Kardiopatia iskemikoa	2,69	Trakea, bronkio eta birikako minbizi gaiztoak	1,62
Suizidioak eta nork bere buruari eragindako zauriak	2,18	Suizidioak eta nork bere buruari eragindako zauriak	1,08
Koloneko tumore gaiztoa	1,01	Koloneko tumore gaiztoa	0,71
zirrosia eta gibelaren eritasun kronikoak	0,94	Umetokiko tumore gaiztoa	0,59
Gaixotasun zerebrobaskularrak	0,82	Pankreako tumore gaiztoa	0,53
Gizonak 2015		**Gizonak 2015**	
Trakea, bronkio eta birikako minbizi gaiztoak	3,04	Trakea, bronkio eta birikako minbizi gaiztoak	1,86
Ziskemika	2,21	Bularreko tumore gaiztoa	1,53
Suizidioak eta nork bere buruari eragindako zauriak	2,59	Suizidioak eta nork bere buruari eragindako zauriak	0,79
Motordun ibilgailuen trafiko istripuak	1,74	Koloneko tumore gaiztoa	0,58
Gibeleko eta gibel barruko behazun-hodietako tumore gaiz	0,88	Entzefaloko tumore gaiztoa	0,70
Gaixotasun zerebrobaskularrak	0,97	Umetokiko tumore gaiztoa	0,46

Iturria: Heriotzen Erregistroa. Plangintza, Antolamendu eta Osasun Ebaluazioko Zuzendaritza. Osasun Saila

4.1.4. Faktore erabakigarri ez medikoak

Arestian aipatu bezala, osasun sistemak eta gaixotasunerako arretak bakarrik ez, gizarte sistemak, faktore biologikoek eta ingurune fisikoak ere badute eragina pertsonen osasunean

Elikadura orekatua eta bestelako ohitura osasungarriak (esaterako, ariketa fisikoa, beharrezko ordu kopurua lo egitea, tabakorik ez erretzea, edari alkoholdunak neurrian hartzea, besteak beste) lagungarriak dira gaitz ugariren kontrako aurrezaintzan (bihotz-hodietakoak, minbizi motaren bat, obesitatea, metabolismo gaitzak, txantxarra, osteporosia eta immunitate sistemaren zenbait gaitz).

Aldi berean, OMEren arabera, osasuna “erabateko ongizate fisikoa, mentala eta soziala da, ez bakarrik minik edo gaitzik ez izatea”, eta buruko ongizatearen osagaiarekin zuzenean edo zeharka loturiko jarduera-sorta zabala hartzen du bere gain buruko osasunak; izan ere, ongizatearen sustapenarekin, buruko gaitzen aurrezaintzarekin eta gaitz horrek ukituriko pertsonen tratamenduarekin eta errehabilitazioarekin du zerikusia.

Horren guztiaren ondorioz, bizitzeko ohiturak, hots, norberaren jokabideak eta jarrerak erabakigarriak izango dira osasunean, horiek guztiak osasuntsuak izatearen arabera.

EAEn, estatistika ofizialaren barruan, hiru informazio iturri daude, gure gizarte eta osasun errealitatearen ezaugarriak aztertzen dituztenak, eta bost urtean behin argitaratzen dira. Hauexek dira: Osasun Inkesta, Bizi Baldintzen Inkesta, eta

Denbora Aurrekontuen Inkesta. Hala eta guztiz ere, epigrafe honetan interesatzen zaigun osasun alderdia haietako lehenengoan neurri eta xehetasun handiagoz aztertzen da.

Azken Osasun Inkesta 2013koa denez gero, emaitzak gure Memoriaren aurreko edizioetan eman izan dira. 2013ari dagokionez: Alkohol eta tabako kontsumoa, eta 2014koan: buruko osasuna (antsietate eta depresio sintomen prebalentzia), elikatzeko ohiturak eta gorputzeko masa-indizea, gain-pisua eta obesitatea.

Horri buruzko ikuspegia nahi izanez gero, irakur bitza irakurleak aipaturiko memoriak.

4.2. BALIABIDEAK ETA LAGUNTZA-JARDUERA.ANALISI KONPARATUA

4.2.1. Laguntzako baliabideak

Medikuen eskaintza egokia, oinarrizko arretan[34] nahiz arreta espezializatuan[35], zerbitzuen eskaria eta biztanleria sakabanatuta dagoen ala ez kontuan hartuko dituena, besteak beste. Horri esker, kalitatezko arreta medikoa eman dakieke pazienteei.

Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasuneko Ministerioak 2016ko ekainean argitaraturiko "*Osasuneko Nazio Sistemaren Urteko Txostena*"ren arabera, oinarrizko arretako 0,8 mediku (familia-medikuntza eta pediatria) zituen EAEk 2014an esleituriko mila pertsonako. Tasa hori bat dator Estatuko batezbestekoarekin eta Nafarroan, Murtzian, Galizian, Valentziako Erkidegoan, Gaztela eta Leonen, Kantabrian eta U. Kanariarretan erregistraturikoekin. Tasa horren gainetik daude Extremadura eta Aragoi (bietan 0,9) eta Gaztela-Mantxa (1,1).

Zehazki, Euskal Osasun Publikoak oinarrizko arretako eta pediatriako 1.780 mediku zituen, 4.654 mediku espezialista eta oinarrizko arretako 1.633 erizain eta 8.608 gehiago ospitaleetan.

Esleituriko 1.000 pertsonako oinarrizko arretako erizainen tasa 0,7 da, Estatuko batez bestekoaren berdina (0,6); Gaztela eta Leonek eta (0,9) eta Galiziak (0,8) baino ez dituzte tasa handiagoak.

Bestalde, EAEko 1.000 biztanleko arreta espezializatuko medikuen eta erizainen tasak autonomia erkidego guztietatik altuenak dira. Mediku horiei dagokienez, 2,1 da, eta Estatuko batez bestekoa 1,8 da. Erizainetan, berriz, 4,4, eta Estatukoa 3,1.

Zerbitzua ematen duten oheei dagokienez[36], EAEn 3,4 daude 1.000 biztanleko (kopuru absolutuetan, 6.802 ohe), hots, Estatuko batezbestekoa baino handiagoa (3 ohe 1.000 biztanleko). Tasa horren gainetik daude Katalunia (3,9), Aragoi (3,7), Extremadura eta Gaztela-Mantxa (bietan 3,5).

Aldi berean, Estatu osoan, eremu geografikoen arteko alde nabarmenak badira ere, oinarrizko arretako 28,2 zentro daude batez beste esleituriko 100.000 biztanleko, osasun-zentroak eta tokiko kontsultategiak kontuan hartuta betiere. Tasarik altuena Gaztela eta Leonen dago, 157,4, eta txikiena Ceuta eta Melillan, 4,1. Gure Erkidegoan, 14,9, hots, kopuru absolutuetan 20 osasun-zentro eta tokiko 174 kontsultategi.

---

[34] *Oinarrizko Arretan oinarrizko zenbait zerbitzu jartzen ditu biztanleriaren eskura 15 minutuko isokrono batean, edozein bizitegitatik. Osasun etxeak dira laguntzako baliabide nagusiak, non hauexek osaturiko arlo askotako medikuen taldeek lan egiten duten: familia-medikuak, pediatrak, erizainak eta administrariak. Gainera, gizarte-langileak emaginak eta fisioterapeutak ere izan ditzake. Zerbitzua eskuratzeko irisgarritasunik eta berdintasunik handiena izateko, Oinarrizko Arreta herritarraren etxeraino iristen da beharrezkoa bada.*

[35] *Arreta Espezializatua espezialitate zentroetan eta ospitaleetan ematen da, anbulatorioan edo ingresoan. Laguntza prozesuaren ondoren, pazientea eta informazio klinikoa berriz itzultzen dira Oinarrizko Arretako medikuarengana, eta medikuak, biografia sanitarioko datuen multzoa duenez gero, ikuspegi klinikoa eta terapeutika globala bermatzen ditu. Horri esker, zaintzaren jarraipenaren ezaugarri nagusia berdintasunak izaten jarraituko du, pazientearen bizilekua eta autonomiako banako inguruabarrak edozein direla ere, zeren eta arreta pazientearen etxeraino iristen baita.*

[36] *Okupatzeko moduan dagoena.*

Informazio-iturri beraren arabera, Estatuan 787 ospitale zeuden zentsuan 2014an, eta horietatik 43 EAEn (34k 200 ohe baino gehiago zituzten, 5ek 200-500 ohe eta 4k 500 ohe eta gehiago zituzten).

Horietatik 787, 453 ospitale ONSkoak ziren (22 EAEn). Hots, ONSko ospitale bat 100.000 biztanleko gure Erkidegoan. Ratio hori bat dator Estatuko batezbestekoarekin, baina hauetakoak baino txikiagoa da: Balearrak (1,1), Aragoi (1,5), Errioxa (1,9), Katalunia (2,1) eta Ceuta eta Melilla (2,4).

Zerbitzuan diren oheei dagokienez[37], ONSko 453 ospitaleek Estatu osoan zerbitzuan diren ohe guztien %76,1 eskaintzen dute. Tasa hori EAEkoa baino txikiagoa da; izan ere, EAE osoan zerbitzuan diren ohe guztien %80 da.

IV.4.8. TAULA. ONS-KO LAGUNTZA BALIABIDEAK AA.EE.EN ARABERA (tasak)

	Oinar. arretako medikuak esl. 1.000 laguneko	Arreta espez. medikuak 1.000 biztanleko	Oinarrizko arretako erizainak esl. 1.000 laguneko	Arreta espezializ. erizainak 1.000 biztanleko	Zerbitzuan diren oheak 1.000 biztanleko	O. arretako osasun zentroak eta tokiko konts. 100.000 bizt.	Arreta espez. medikuak 1000 bizt. (% ONS)	Zerbitzuan diren oheak (ospit.) (% ONS)	Zerbitzuan diren kirofanoak (%ONS)
ANDALUZIA	0,7	1,5	0,6	2,7	2,2	18,1	90,5	76,1	69,0
ARAGOI	0,9	2,2	0,7	4,3	3,7	74,5	95,1	82,5	80,3
ASTURIAS	0,7	2,2	0,7	3,6	3,3	20,9	93,0	83,9	81,6
U. BALEARRAK	0,6	1,9	0,5	3,6	3,0	14,1	84,4	67,5	56,6
U. KANARIAR.	0,8	1,8	0,6	3,1	3,1	12,4	79,7	64,3	54,8
KANTABRIA	0,8	1,8	0,7	3,2	3,2	24,8	98,5	68,0	79,2
GAZTELA LEON	1,1	1,9	0,9	3,1	3,5	157,4	93,4	75,4	72,9
GAZTELA-MANTXA	0,8	1,7	0,8	2,8	2,2	63,7	97,6	92,5	84,6
KATALUNIA	0,7	1,8	0,7	3,2	3,8	16,9	93,5	88,8	74,0
VALENTZIAKO E	0,8	1,7	0,7	2,7	2,4	16,9	93,8	85,2	75,4
EXTREMADURA	0,9	1,8	0,8	2,9	3,5	48,2	97,5	89,8	82,9
GALIZIA	0,8	1,8	0,7	3,2	3,3	17,1	93,7	84,1	73,2
MADRIL	0,7	2,0	0,5	3,3	2,9	6,6	92,2	69,8	64,9
MURTZIA	0,8	1,8	0,6	2,9	3,2	18,3	96,2	62,8	70,1
NAFARROA	0,8	2,4	0,8	4,2	3,4	47,4	79,6	68,5	64,8
EAE	**0,8**	**2,1**	**0,7**	**4,4**	**3,4**	**14,9**	**95,9**	**80,0**	**74,1**
ERRIOXA	0,8	1,7	0,7	3,1	3,2	61,9	97,4	94,6	88,5
CEUTA	0,6	1,5	0,5	2,5	2,1	4,1	100,0	100,0	100,0
MELILLA	0,6	1,3	0,6	2,3	2,0		100,0	100,0	100,0
OROTARA	**0,8**	**1,8**	**0,7**	**3,1**	**3,0**	**28,2**	**92,4**	**76,1**	**71,5**

Iturria: Geuk egina, Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasuneko Ministerioaren eta Osasunaren Nazio Sistemaren Urteko Txostenaren adierazle gakoak oinarri hartuta, 2015.

Ikuspegi ebolutiboaren gaineko azterketak agerian uzten du zerbitzuan den ohe kopuruak beheranzko joera duela. Berez, 2008 eta 2014 bitartean, Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasuneko Ministerioaren arabera, zerbitzuan den ohe kopurua (zentro publikoetan eta pribatuetan) behera egin du Euskadin, 1.000 biztanleko 3,8tik 3,4, eta Estatuan, berriz, 3,2tik 3ra.

Bestalde, gure Erkidegoko medikuen eta erizainen kopuruak goranzko bilakaera du; Estatuan, berriz, egonkortasun handiagoa ageri da. Hala, 2008 eta 2014 bitartean, oinarrizko arretako familia-medikuntzako eta pediatriako profesionalen kopurua 0,7 izatetik 0,8 izatera igaro zen esleituriko 1.000 biztanleko, arreta espezializatuko 1,6tik 2,1era 1.000 biztanleko eta oinarrizko arretako erizainak 2,7tik 4,4 esleituriko 1.000 pertsonako. Estatuan, berriz, ratio horiei egonkor eusten zaie oinarrizko arretako familia-medikuntzako eta pediatriako 0,8 profesionalen inguruan esleituriko 1.000 pertsona, arreta espezializatuko 1,8 mediku 1.000 biztanleko eta oinarrizko arretako 3 erizain izatetik 3,1 izatera igaro da 1.000 biztanleko.

[37] *Okupatua izateko moduan dagoena.*

IV.4.9. TAULA. ONS-KO LAGUNTZAKO BALIABIDEEN BILAKAERA. EAE ETA ESPAINIAKO ESTATUA

	Oinarrizko familia-medikuntzako eta pediatriako profesionalak esleit. 1.000 pertsonako		Arreta espezializatuko medikuak 1.000 bizt. (zentro publiko eta pribatuak barne, ikus 1. oharra)		Oinarrizko arretako erizainak esleit. 1.000 pertsonako.		Zerbitzuen den ohe kop. 1.000 biztan. (zentro publiko eta pribatuak barne)	
	EAE	Estatua	EAE	Estatua	EAE	Estatua	EAE	Estatua
2008	0,7	0,8	1,6	1,8	2,7	3,0	3,8	3,2
2009	0,6	0,7	1,7	1,8	2,9	3,1	3,7	3,2
2010	0,6	0,8	2,0	1,8	3,9	3,2	3,7	3,2
2011	0,8	0,8	2,1	1,8	3,8	3,1	3,6	3,1
2012	0,8	0,8	2,1	1,8	3,8	3,1	3,6	3,0
2013	0,8	0,8	2,2	1,8	4,1	3,0	3,4	3,0
2014	0,8	0,8	2,1	1,8	4,4	3,1	3,4	3,0

(1) 2009ra arte, Ospitale Orokor eta Espezializatuetako helburuak dituzten Erabilera Publikoko Sareko zentroak (Akutuentzako ospitaleak) zenbatzen ziren. 2010etik hona, Erabilera Publikoko Sareko ospitale guztiak zenbatzen dira, helburua edozein dela ere.
Iturria: Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasuneko Ministerioa. Adierazle gakoak

Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasuneko Ministerioak bildutako OMEren datuek erakusten dutenez, Europako herrialde gehienetan goraka ari da 1.000 biztanleko lanean ari diren medikuen kopurua, baina zenbait herrialdetan egonkortu egin da azken urteetan, Grezian eta Espainian adibidez.

2013an, ratiorik handienak Grezian (6,2), Austrian (5), Portugalen eta Lituanian (4,3), Alemanian (4,1), Suedian eta Bulgarian (4), Italian (3,9) eta Espainian (3,8) ageri ziren, baina kontuan hartu behar dira honekin batera doazen zehazturiko salbuespenak. 28-EBn 3,5 zen batez bestekoa.

Erizainei dagokienez, 2000 eta 2013 bitartean, igoera ageri zen 1.000 biztanleko tasan, %10 inguruan kopuru globaletan. Hala, 2013an Europako herrialdeen batezbestekoa 8,4 erizain ziren 1.000 biztanleko, hain zuzen Estatuko 5,1eko batez besteko ratioa baino handiagoa.

IV.4.10. TAULA. LAGUNTZAKO BALIABIDEAK EB-N. 2014 (tasak)

	Lanean ari diren medikuak 1.000 biztanleko (1)	Lanean ari diren erizainak 1.000 biztanleko.	Lanean ari diren farmazeutikoak 1.000 biztanleko.	Ospitaleko oheak 1.000 bizt.
28 EB. OROTARA	**3,5**	**8,4**	**0,8**	**5,3**
ALEMANIA	4,1	12,7	0,6	8,2
AUSTRIA	5,0	7,9	0,7	7,6
BELGIKA	3,0	9,5	1,2	6,3
BULGARIA	4,0	4,5	-	6,8
ZIPRE	3,2	4,9	0,2	3,4
KROAZIA	3,0	6,2	0,7	5,9
DANIMARKA	3,6	16,3	0,5	3,1
ESLOVAKIA	3,0	5,8	0,5	5,8
ESLOVENIA	2,6	8,3	0,6	4,6
ESPAINIA	**3,8**	**5,1**	**1,1**	**3,0**
ESTONIA	3,3	6,2	0,7	5,0
FINLANDIA	3,0	14,1	1,3	4,9
FRANTZIA	3,2	9,4	1,1	6,3
GREZIA	6,2	3,6	1,1	4,8
HUNGARIA	3,2	6,4	0,8	7,0
IRLANDA	2,7	12,4	1,1	2,8
ITALIA	3,9	6,2	1,0	3,4
LETONIA	3,2	4,9	0,7	5,8
LITUANIA	4,3	7,5	-	7,3
LUXENBURGO	2,8	12,1	0,7	5,1
MALTA	3,5	7,1	1,1	4,8
HEREBEHEREAK	3,3	12,1	0,2	4,7
POLONIA	2,2	5,3	0,7	6,6
PORTUGAL	4,3	6,0	0,8	3,4
ERRESUMA BATUA	2,8	8,2	0,8	2,8
TXEKIAR ER.	3,7	8,0	0,6	6,5
ERRUMANIA	2,5	6,0	0,8	6,7
SUEDIA	4,0	11,1	0,8	2,6

(1) Grezian, Eslovakian, Frantzian eta Finlandian eta Herbeheretan, laguntzako lanetan diharduten medikuez gain, osasunaren sektoreko lan-jarduerako medikuak sartzen dira hala nola kudeaketan, hezkuntzan eta ikerketan (zenbatespenen arabera, medikuen %5-%10 izan daiteke). Portugalen, zuhur egin behar dira alderaketak, zifren gain-zenbatespena dagoenez gero mediku elkargokideak sartzen baitira (jubilatu eta langabeak) ez bakarrik jardunekoak.
Iturria: Geuk egina, Osasuneko Nazio Sistemaren Urteko Txostenaren arabera, 2015. Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa

Danimarka (16,3) eta Finlandia (14,1) ziren lanean ari ziren erizainen kopururik handiena zuten herrialdeak 1.000 biztanleko, eta ondoren datoz Alemania (12,7) eta Irlanda (12,4). Beste muturretan, Grezia (3,6), Bulgaria (4,5), Zipre eta Letonia (bietan 4,9) eta Espainia (5,1, dagoeneko aipatua) zeuden.

Hots, medikuei eta erizainei buruzko datuak EAEkoekin zuzenean konparagarriak ez badira ere, gure Erkidegoan ikusitako goranzko joera bat dator Europa mailan dagoenarekin.

Botikariei dagokienez, 28-EBko tasa 0,8 tasa zegoen 1.000 biztanleko. Zazpi herrialdek (horien artean Espainia dago) gainditzen dute botikari 1eko tasa 1.000 biztanleko. Finlandiak (1,3) zuen tasarik altuena, eta oso gertu zeuden Belgika (1,2), Espainia, Frantzia, Grezia, Irlanda eta Malta.

Lau herrialdek 1.000 biztanleko 0,5eko tasa edo txikiagoa zuten, hots, Europako herrialdeetako baliorik txikienak dituztenak: Danimarka (0,5) Eslovakia (0,5) Zipre (0,2) eta Herbehereak (0,2).

2000-2013 aldian, %50etik gorako igoera izan zen 1.000 biztanleko botikarien tasan. Epealdi berean, oro har, 26-EBn %20tik gora hazi zen.

Azkenik, ospitaleko oheei dagokienez, 28-EBn 5,3, ohe erregistratu ziren 1.000 biztanleko, Estatuan (3) eta gure Erkidegoan (3,4) dagoena baino altuagoa. Alemaniak (8,2), Austriak (7,6) eta Lituaniak (7,3) tasarik altuenak zituzten, eta kasu guztietan 7 ohetik gorako ratioa zegoen 1.000 biztanleko. Beste muturrean zeuden Suedia (2,6) eta Irlanda eta Erresuma Batua (bietan 2,8); ez ziren biztanleko 3 ohera iristen. Espainiak 3,0 zituen 1.000 biztanleko.

Azken hamarkadan, ohe kopuruak behera egin du EBko herrialde guztietan, Grezian izan ezik; hazkundea izan da herrialde horretan. Oro har, %9 inguruko jaitsiera ageri da 28-EBn. Espainian %5 jaitsi zen epealdi berean. EBko ohe kopuruaren murriztapen hori gertatu da, neurri batean, aurrerapen teknologikoen eta ingresatu gabeko jardueraren hazkundearen ondorioz (bereziki kirurgia anbulatorioa) ospitaleratzeko beharretan jaitsiera izan baita.

4.2.2. Osasun zerbitzuen jarduera, laguntzaren kalitatea eta zerbitzuon eskuragarritasuna

a) Jarduera eta kalitatea oinarrizko arretan

Oinarrizko arretaren ezaugarri nagusia eskuragarritasuna da; izan ere, herritarrengandik hurbilen dagoen laguntza maila da, eta pazientearen gaineko ikuspegi integrala du. Herritarrek bat-batean eskatzen dituzte zerbitzuok, funtsean, eta aurretiazko hitzordua behar izaten da larrialdikoak ez diren kontsulta arruntetara joan ahal izateko.

Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasuneko Ministerioaren arabera, ONSko oinarrizko arretako medikuntzara (familia eta pediatria) jotzeko EAEko herritarrek duten batezbesteko maiztasunak goranzko joera izan zuen 2015ean, hots, 5 bisita esleituriko pertsonako eta urteko. Estatuko batezbestekoa, berriz, 5,3aren inguruan dago.

Euskal emakumeek kontsultak gehiago erabiltzen dituzte batez beste gizonezkoek baino (kontuan hartu behar dugu familia eta pediatria barne hartzen dituela datuak eta adierazle horren generoaren araberako banakapena dagoela): 5,6 bisita esleituriko pertsonako (emakumea) eta urteko. Gizonezkoena, berriz, 4,4 da.

Autonomia erkidegoka aztertuta ikusten denez, medikuntzara jotzeko maiztasunik handiena Gaztela-Mantaxari eta Gaztela eta Leoni dagokie (8,1 eta 7,5 kontsulta medikuarekin, hurrenez hurren, esleituriko pertsonako eta urteko), eta baxuena Katalunian (4 kontsulta medikuarekin esleituriko pertsonako eta urteko).

Bestalde, ONSko oinarrizko arretako erizaintzara jotzen duten euskal biztanleriaren maiztasunak ere goranzko joera izan zuen 2015ean, 3,9 bisita esleituriko pertsonako eta urteko, Estatuko tasa baino altuagoa (2,9).

Sexuaren arabera, gehienbat emakumeak joaten ziren gehiago kontsultara gizonezkoak baino.

AAEEka, berriz, maiztasunik handiena Gaztela-Mantxan dago (4,2 kontsulta erizaintzara, esleituriko pertsonako eta urteko) eta txikiena Katalunian (2 kontsulta erizaintzara esleituriko pertsonako eta urteko).

"*Osasuneko Nazio Sistemaren Urteko Txostena, 2015*" delakoren arabera, 65 urtetik gorakoak dira etxeko jardueraren hartzaile nagusiak, familia-medikuntzaren (%80) eta erizaintzaren (%85) antzeko portzentajearekin profesional mota bakoitzak eginiko etxeko zerbitzu guztiekiko.

IV.4.11. TAULA. LAGUNTZA-JARDUERA AAEE-EN ARABERA.

	Oinarrizko arretako medikuntzako maiztasuna, esleituriko pertsona/urteko						Oinarrizko arretako erizaintzako maiztasuna, esleituriko pertsona/urteko					
	2011			2015			2011			2015		
	Gizon.	Emak.	Orot.	Gizon.	Emak.	Orot.	Gizon.	Emak.	Orot.	Gizon.	Emak.	Orot.
ANDALUZIA	5,5	6,9	6,2	5,0	6,9	6,0	2,7	3,3	3,0	2,8	3,7	3,2
ARAGOI	4,8	6,2	5,5	4,6	5,9	5,3	2,5	3,0	2,7	2,3	2,7	2,5
ASTURIAS	5,1	6,4	5,8	4,6	5,8	5,2	2,9	3,6	3,3	2,9	3,4	3,2
U. BALEARRAK	3,7	4,8	4,3	3,2	4,3	3,8	2,2	2,7	2,5	2,1	2,6	2,3
U. KANARIARRAK	4,7	6,2	5,5	4,4	5,9	5,2	1,9	2,2	2,1	2,1	2,5	2,3
KANTABRIA	5,1	6,6	5,9	4,7	6,2	5,5	2,6	3,0	2,8	2,4	2,6	2,5
GAZTELA ETA LEON			8,1	7,0	9,1	8,0			4,4	3,7	4,6	4,2
GAZTELA-MANTXA	6,5	8,5	7,5	5,4	7,0	6,2	3,9	5,0	4,4	3,5	4,2	3,9
KATALUNIA			4,0	3,5	4,4	4,0			2,1	1,9	2,2	2,0
VALENTZIAKO ER.	4,1	5,4	4,8	4,0	5,2	4,6	2,2	2,7	2,5	2,5	3,0	2,7
EXTREMADURA	6,2	8,3	7,3	5,7	7,8	6,8	3,3	4,3	3,8	3,0	3,8	3,4
GALIZIA	4,8	6,2	5,5	4,9	6,4	5,7	2,5	3,0	2,8	2,9	3,4	3,2
MADRIL	4,6	6,2	5,4	4,1	5,6	4,9	2,1	2,7	2,4	2,1	2,6	2,3
MURTZIA	6,0	8,1	7,1	4,8	6,6	5,7			3,4			2,9
NAFARROA	4,1	5,2	4,7	4,3	5,3	4,8	3,4	3,9	3,6	3,8	4,3	4,0
EAE	**3,7**	**4,7**	**4,2**	**4,4**	**5,6**	**5,0**	**2,4**	**2,9**	**2,6**	**3,6**	**4,1**	**3,9**
ERRIOXA	5,2	6,7	5,9	5,1	6,5	5,8	3,4	4,1	3,7	3,6	4,2	3,9
CEUTA	5,0	6,6	5,8			4,7	2,3	3,1	2,7			2,5
MELILLA	5,8	7,4	6,6			5,1	3,9	5,0	4,5			3,0
OROTARA	**4,9**	**6,4**	**5,5**	**4,5**	**6,0**	**5,3**	**2,5**	**3,1**	**2,8**	**2,6**	**3,1**	**2,9**

Iturria: Geuk egina, Osasun Nazio Sistemaren Urteko Txostena (2015) oinarri hartuta. Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasuneko Ministerioa

Telefono deia da eskariak jasotzeko bide nagusia, baina azken urteetan hitzordua internet bidez eskatzeko aukera abiarazi da. "*Osasuneko Nazio Sistemaren Urteko Txostena, 2015*" delakoaren arabera, EAEk pazienteen %80,1ek du internetez hitzordua eskatzeko aukeraren berri, %36,7 erabili egiten du eta 8,8 puntuazioarekin baloratzen da 0etik 10erako eskalan.

Ezagutza ratiorik handienak Andaluzian (%84,4), Valentziako Erkidegoan (%80,6) eta Gaztela eta Leonen (%80,3) daude, eta EAEk laugarren tokia du rankingean.

Alabaina, erabilera maila aztertzean ikusten denez, beste autonomia erkidego batzuk dira aktiboenak alde horretatik. Hala, EAEk (aipaturiko %36,7a) tarteko tokia du, eta ratio handiagoak ageri dira Murtzian (%68,3), Andaluzian (%61,9), Gaztela eta Leonen (%56,5), Aragoin (%53,2), Errioxan (%52,3), Galizian (%48,1), Valentziako Erkidegoan (%46,7), Madrilen (%42,2) eta Katalunian (%41,2).

IV.4.12. TAULA. LAGUNTZAREN KALITATEA, AAEEen ARABERA, OINARRIZKO ARRETA. 2014. FAMILIA-MEDIKUAREN KONTSULTARAKO INTERNET BIDEZKO HITZORDUAREN BALORAZIOA ONSen

	Ezagutu (%)	Erabili (%)	Baloratu (0-10)
OROTARA	**70,2**	**46,7**	**8,6**
ANDALUZIA	84,4	61,9	8,9
ARAGOI	61,3	53,2	9,2
ASTURIAS	54,9	27,	8,1
U. BALEARRAK	59,8	33,6	8,0
U. KANARIARRAK	41,4	35,8	8,6
KANTABRIA	65,1	24,4	8,2
GAZTELA ETA LEON	30,6	32,0	8,5
GAZTELA-MANTXA	80,3	56,5	9,0
KATALUNIA	69,5	41,2	8,3
VALENTZIAKO ER.	80,6	46,7	8,1
EXTREMADURA	69,3	30,8	8,6
GALIZIA	74,1	48,1	8,5
MADRIL	69,3	42,2	8,0
MURTZIA	78,6	63,6	:
NAFARROA	55,0	35,4	9,5
EAE	**80,1**	**36,7**	**8,8**
ERRIOXA	69,1	52,3	8,6
CEUTA	44,7	-	-
MELILLA	26,3	-	-

Iturria: Geuk egina Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioaren ONSren Urteko Txostena oinarri hartuta, 2015

b) Ospitaleetako jarduera

Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasuneko Ministerioaren "*Osasuneko Nazio Sistemaren Urteko Txostena, 2015*" delakoaren arabera, ONSko ospitaleetara joateko maiztasunik handiena EAEn dago, hain zuzen 123,3 alta 1.000 biztanleko. Izan ere, ospitaleratze txikiagoa dagoen Kanarietakoaren bikoitza da (57,4 alta 1.000 biztanleko. Ospitaleen sektore osoan (ospitale publikoak eta pribatuak), EAEk ere lehen tokia du, 151,4 alta 1.000 biztanleko eta Gaztela-Mantxak txikiena, 89,3 alta 1.000 biztanleko. Ceuta eta Melillak 85,2 alta dituzte 1.000 biztanleko, eta ospitale publikoak baino ez dituzte.

Batez besteko egonaldia eraginkortasun adierazletzat hartu da, jardun kliniko eraginkorraren garapenarekin lotuta. Batezbesteko egonaldi horretan jaitsierak, txandaketa-indizearen igoerarekin batera, produktibitate handiagoa dakar ospitalizazioaren arloan; zerbitzuan den ohe kopuruan ikusi izan den jaitsierarekin zerikusia izan lezake horrek.

ONSko ospitaleetan, hona hemen batez besteko egonaldiaren lerruna: Katalunian 10,8 egun eta Ceutan eta Melillan 5,9. EAEk 6,4 ditu, eta batez besteko egonaldirik laburrena du, Ceuta eta Melillaren (aipaturiko 5,9a), Valentziako Erkidegoaren eta Nafarroaren (bietan 6,1) atzetik.

Ospitale guztiei erreparatuz gero (publikoak eta pribatuak), U. Kanariarretan dago ospitaleko batez besteko egonaldiko egun kopururik handiena, 9,8 egun, eta txikiena Valentziako Erkidegoan, 5,7 egun. EAEk 6,4 egunekoa du, eta laugarren egonaldirik laburrena du Valentziako Erkidegoaren (5,7), Ceuta eta Melillaren (5,9) eta Andaluziaren (6,3) atzetik.

IV.4.13. TAULA. LAGUNTZAREN JARDUERA ETA KALITATEA OSPITALEETAN AAEE-EN ARABERA. 2014				
	Ospitaleratze kausa guztiei dagozkien altak, 1.000 biztanleko		Batez besteko egonaldia (egunak) ospitaleratze kausa guztiei dagozkienak	
	ONSko ospitaleak (1)	Ospitaleak guztira (2)	ONSko ospital. (1)	Ospitaleak guzt. (2)
OROTARA	**86,8**	**112,2**	**7,8**	**7,5**
ANDALUZIA	67,4	91,5	6,6	6,3
ARAGOI	104,0	125,5	8,0	8,1
ASTURIAS	108,0	121,5	7,5	7,8
U. BALEARRAK	76,3	129,1	7,8	6,6
U. KANARIARRAK	57,47	94,0	10,2	9,8
KANTABRIA	89,6	102,8	6,9	9,3
GAZTELA ETA LEON	99,4	118,3	7,2	7,8
GAZTELA-MANTXA	82,2	89,3	7,3	7,1
KATALUNIA	96,9	123,9	10,8	9,3
VALENTZIAKO ER.	88,5	109,6	6,1	5,7
EXTREMADURA	101,9	111,4	7,9	8,2
GALIZIA	92,7	116,7	8,6	7,8
MADRIL	81,3	119,0	7,2	7,1
MURTZIA	83,7	104,5	6,5	8,4
NAFARROA	100,0	123,5	6,1	7,7
EAE	**123,2**	**151,4**	**6,4**	**6,4**
ERRIOXA	94,5	112,0	8,9	8,0
CEUTA	82,5	82,5	5,9 (3)	5,9 (3)
MELILLA				
OROTARA	**86,8**	**112,2**	**7,8**	**7,5**

1) ONSko ospitaleak = ospitale publikoak + ordezko ituna duten ospitaleak + erabilera publikoko sareko ospitaleak + Gizarte Segurantzaren mutua kolaboratzaileak.
(2) Sektore publiko eta pribatuko ospitaleak
(3) Ceutak eta Melillak ONSko ospitaleak baino ez dituzte
Iturria: Geuk Egina, Osasuneko Nazio Sistemaren Urteko Txostena, 2015 oinarri hartuta. Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa

c) Minbiziaren detekzio goiztiarra

Bularreko, kolon-ondesteko eta zerbixeko minbiziaren baheketa ONSko zerbitzuen oinarrizko kartera komunaren barruan sartzen da. Oinarrizko arretak eta arreta espezializatuak baheketa horietan hartzen dute parte.

IV.4.14. TAULA. ONS-KO MINBIZIAREN GAINEKO STRARTEGIAKO MINBIZIAREN DETEKZIO GOIZTIARRARI BURUZKO GOMENDIOAK, 2009				
Detekzio goiztiarra	**Xedeko biztanleria**	**Proba**	**Azterketen arteko tartea**	**Estaldura helburuak**
Bularreko minbizia	50 - 69 urte bitarteko emakumeak	Mamografia	2 urte	Populazio-programa. Gomendaturiko gutxieneko partaidetza: %70
Umetoki-lepoko minbizia	Sexualki aktiboak diren edo izan diren 25-65 urte bitarteko emakume asintomatikoak	Zitologia zerbikala (Papanicolau)	3-5 urte (zenbait AAEEk 3 urterik behin gomendatzen dute zitologia eta beste batzuek 5 urtean behin)	Azken 5 urtean eginiko zitologia duten 30-60 urteko emakumeen %70
Kolon-ondesteko minbizia	50 – 69 urte bitarteko biztanleak (lehen etapa)	Gorozkietan ikusten ez den odola	2 urte	Populazio-programa. %50 2015ean

Iturria: Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasune Ministerioa. ONSren minbiziaren gaineko estrategia.

Bularreko minbiziaren detekzio goiztiarra

Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasuneko Ministerioaren arabera, proba egitea gomendatuta duen adin-taldekoaren %86,5ek (50-69 urte bitarteko emakumeak) dio mamografia egin duela azken bi urtean. Estatuan, berriz, %77,1ek dio hori.

Aldeak daude autonomia erkidegoen artean, eta horrek guztiak agerian uzten du minbiziaren detekzio goiztiarreko programen bilakaera historikoa. Nafarroa nabarmentzen da estaldurarik handienagatik, %88,8koa, eta ondoren Murtzia (%86,9) eta EAE (aipaturiko %86,5a). Horrez gain, Nafarroan inoiz mamografia egin duten emakumeen %78,5ek hala egin zuen detekzio goiztiarreko programaren bidez deituta. Portzentaje hori altua da Errioxan (%74,9) eta EAEn (%71,6).

Estatu osoari buruz emandako informazioaren arabera, mamografia tasak nabarmen baxuagoak dira gizarte klase pobreenen artean. Gradienteak ageri dira gizarte klasearen eta etxeko diru-sarreraren mailaren arabera. Mamografia egiteko adinean diren I. gizarte klaseko (klaserik altuena) emakumeen %85,1ek dio proba hori egin duela. VI. klasekoen (klaserik baxuena) artean, berriz, %68,9k. Ez da alderik ageri ikasketa mailaren arabera.

IV.4.15. TAULA. LAGUNTZAREN KALITATEA AAEE-EN ARABERA. BULARREKO ETA UMETOKI-LEPOKO MINBIZIEN DETEKZIO GOIZTIARRA. 2011-12

	Gomendaturiko aldian eginiko mamografia (50-69 urteko emakumeen %)	Gomendaturiko aldian eginiko baginako zitologia (25-64 urteko emakumeen %)
OROTARA	**77,1**	**78,8**
ANDALUZIA	66,3	66,6
ARAGOI	77,2	76,8
ASTURIAS	75,9	71,7
U. BALEARRAK	65,1	83,5
U. KANARIARRAK	76,6	87,2
KANTABRIA	76,9	67,7
GAZTELA ETA LEON	74,5	83,8
GAZTELA-MANTXA	80,9	75,7
KATALUNIA	83,7	86,6
VALENTZIAKO ER.	71,2	83,4
EXTREMADURA	77,9	69,4
GALIZIA	83,3	72,7
MADRIL	80,2	83,4
MURTZIA	86,9	74,8
NAFARROA	88,8	79,3
EAE	**86,5**	**82,3**
ERRIOXA	69,7	83,4
CEUTA	-	68,8
MELILLA	-	48,9

Iturria: Geuk egina Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun eko Ministerioaren eta Osasunaren Nazio Sistemaren Urteko Txostenaren adierazle gakoak oinarri hartuta

40 - 49 urte bitarteko emakumeen taldean, %59,6k dio inoiz mamografia egin duela. Hori dela-eta, pentsa liteke baheketa unibertsal sistematikoa gomendatuta ez duten emakumeek (50 urtetik beherakoak) proba gehiegi egiten dituztela. Medikuak gomendatuta egin zen proba gehienbat, aurretik osasun arazorik izan barik (mamografien %47,5 adin-talde honetan). Probak behar baino gehiago agintze hori are handiagoa da klase altuetan (15-49 urte bitarteko emakumeen %40,9k I. gizarte klasean eta %21,9 VI. klasean) eta unibertsitatean ikasten duten emakumeetan (%38, eta oinarrizko ikasketak dituzten edo ikasketarik gabekoak diren emakumeen %24,3).

Umetoki-lepoko detekzio goiztiarra

Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasuneko Ministerioaren arabera, proba gomendatuta duen adin-taldekoaren (25-64 urte bitarteko emakumeak) %82,3k dio baginako zitologia egin duela azken 5 urtean. Estatu mailan, berriz, %78,8 dio hori. Autonomia erkidegoen arabera, U. Kanariarretan eta Katalunian %85etik gorako estaldurak lortu dira.

Estatu osoari buruz emandako informazioaren arabera, hauexekin dago lotuta gomendaturiko irizpideak betez egiten den zitologia: gizarte klasearekin (I. Klaseko emakumeen %88,4, eta VI. Klaseko %68,6), ikasketa mailarekin (%88,4 unibertsitatean ikasten dutenengan, %59,9 oinarrizko ikasketak edo txikiagoak dituztenengan) eta etxeko diru-sarreren mailarekin (%89,1 kintilik handienean, eta %64,8 lehenbizikoan).

Koloneko minbiziaren detekzioa

Eskuragarri dauden datuak ez daude AAEEen arabera banakatuta. 50-69 urte bitarteko populazioaren %6,8k dio gorozkietan ikusten den ez den odolaren gaineko proba (GIEOP) egin duela azken bi urtean, sexuen araberako daturik edo estratu sozioekonomikorik eman barik. 2009an, probaren estaldura %3,4 izan zen (%4,4 gizonezkoetan eta %2,4 emakumezkoetan).

Estaldura oraindik txikia da Minbiziaren Nazio Estrategiaren helburuei dagokienez. Kolon-ondesteko minbiziaren detekzio goiztiarren populazio-programak, orain dela gutxi abiaraziak, hedatuz doaz, baina motel. Gorozkietan ikusten den ez den odolaren gaineko proba gutxi ezagutzen zen 2011/12 epealdian, eta horren ondorioz, proba hori gutxi aipatu izan da osasunari buruzko inkestan galdera egitean.

4.3. OSAKIDETZAREN LAGUNTZAKO JARDUERA

a) Baliabideak erabiltzea

Osakidetzak emandako datuen arabera, 2015eko maila pixka bat igo zen 2014an batez besteko okupazio indize globalean, hots, %78,7; aurreko urtean, berriz, %77,7 izan zen. Hots, eskariak gorantz jarraitzen du.

%100 gaindituta eta, beraz, aipatutako batez bestekoaren gainetik, medikuntza-zerbitzuetan, ondoko espezialitateak ditugu: pneumologia (%159,6), barne medikuntza (%125,3) eta digestio aparatua (%107); eta kirurgia zerbitzuetan: kirurgia kardiosbaskularra (%108,3) eta urologia (%103,2). %100aren azpitik baina batez bestekoaren gainetik ditugu gainerako zerbitzu medikoak eta gainerako kirurgiako zerbitzuak, hauexek izan ezik: kirurgia plastikoa (%56,1), hodietako kirurgia (%65,2) eta kirurgia orokorra (%75).

Batez besteko egonaldia, egunetan, berriz murriztu da, 5,1etik 5era. Batez bestekoaren oso gainetik daude errehabilitazioa (32,9), arintze-zaintzak (13,4) eta psikiatria (14,0).

Gogora dezagun batez besteko egonaldia eraginkortasun adierazletzat jotzen dela, erantzuna ematen duen jardun klinikoaren garapenarekin lotuta, eta batez besteko egonaldiaren jaitsierak, txandaketa-indizearen gehikuntzarekin batera, produktibitate handiagoa dakarrela.

IV.4.16. TAULA. BALIABIDE PUBLIKOETAKO ESPEZIALITATEEN ARABERA (B.B. EGONALDIA ETA OKUPAZIO INDIZEA)

ZERBITZUAK	Batez besteko egonaldia (egunak)								Okupazio indizea (%)							
	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015
MEDIKUNTZA ZERBITZUAK																
Barne Medikuntza	8,4	8,1	8,1	8,2	7,9	7,6	7,2	7,1	108,4	97,8	97,2	112,2	125	124,3	121,4	125,3
Kardiologia	5,4	5,3	4,9	4,7	4,7	4,8	4,7	4,6	93,4	90	80,3	92,1	97,1	96,2	94,4	93,3
Digestio ap.	7,5	7,2	7,3	7,2	7,2	7,2	6,8	6,8	112,7	119,9	104,6	112,2	111,6	110,4	108,7	107,0
Hematologia	10,4	10,1	10,1	8,8	9,3	10,2	9,5	8,5	92,1	92,9	90,7	81,7	86,5	96,7	89,4	86,2
Pneumologia	6,7	6,6	6,5	6,4	6	5,6	6,0	6,1	108,3	91,6	90,1	127,3	139,9	128,9	139,0	156,9
Psikiatria	13,9	15,5	15,1	14,3	15	14,5	14,6	14,0	77,7	94,7	90,1	141	109,4	100,3	98,8	98,1
Errehabilitazioa	30,6	28	29,3	29,3	27,9	26,9	29,4	32,9	91,2	82,7	75,9	91,9	83,5	76,5	76,3	80,5
Arintze-zaintzak	17,8	15,4	15	14	12,7	14,0	13,6	13,4	92,2	81,6	78,8	87,5	71,2	86,7	88,9	92,2
KIRURGIA ZERBITZUAK																
Kirurgia orok.	5,1	4,9	4,6	4,3	4,3	4,1	3,9	3,7	81,8	62,7	69,5	81	83,5	82,5	79,3	75,0
Kirurgia plast.	5,9	5,4	5,3	4	4,1	4,3	4,3	3,7	71,6	67,5	66,4	57,8	49,9	58,2	62,7	56,1
Kirurgia kardiobask.	4,6	4,3	3,9	4	3,8	3,6	4,1	3,9	95,7	91,2	90,5	90	93,2	84,9	111,6	108,3
Kirurgia kardiobaskularra	6,1	6,1	5,5	4,9	5,3	5,0	4,8	4,4	72,8	75,8	71,5	71,7	78,6	76,7	69,4	65,2
Bularreko kirurgia	4,6	4,4	4,7	4,4	4,2	3,9	4,1	4,2	79	77,1	79,6	78,6	74,8	72,0	78,0	81,0
Neurokirurgia	6,3	6,5	6,3	6,1	5,9	5,1	5,1	5,1	82,6	89,1	80,9	86,6	84,9	82,3	87,0	86,5
Traumatologia	5,5	5,4	5	4,5	4,4	4,4	4,3	4,2	81,8	78,4	75,3	82,2	83,5	86,6	87,1	83,4
Urologia	4,2	4,5	4,2	4	3,9	4,0	3,9	3,8	82,5	84	79,8	95,3	93,9	103,8	101,8	103,2
GLOBALA	**6**	**5,8**	**5,6**	**5,5**	**5,4**	**5,23**	**5,1**	**5,0**	**82,7**	**81,1**	**79,6**	**79,8**	**79,14**	**77,8**	**77,7**	**78,8**

Iturria: Osakidetza. Akutuentzako ospitaleak + Egonaldi ertain eta luzeko ospitaleak

b) Itxaronzerrenda kanpoko kontsultetan eta kirurgia programatua

Kopuru absolutuetan, kanpoko kontsulten itxaronzerrendako pazienteen kopurua jaitsi egin da pixka bat, 91.591etik 91.124ra. Zerrendetan kopururik handiena duten espezialitateak, 2015ean, aurreko urteko berak dira, baina hurrenkera desberdinean: traumatologia (18.360), oftalmologia (13.293), dermatologia (9.941), errehabilitazioa (7.255) eta ginekologia (6.102).

IV.4.17. TAULA. KANPOKO KONTSULTEN ITXARONZERRENDA (paziente kopururik handieneko espezialitateak)

	Paziente kop.						Aldakuntzak (%)				
	2010	2011	2012	2013	2014	2015	10-11	11-12	12-13	13-14	14-15
Alergologia	1.516	2.107	2.554	2.507	3.380	2.712	39,0	21,2	-1,8	34,8	-19,8
Kardiologia	3.288	2.842	2.659	2.542	2.822	2.954	-13,6	-6,4	-4,4	11,0	4,7
Dermatologia	10.016	12.094	13.303	13.429	11.537	9.941	20,7	10,0	1,0	-14,1	-13,8
Digestio aparat.	4.051	3.931	4.019	3.396	3.410	3.146	-3,0	2,2	-15,5	0,4	-7,7
Endokrinologia	2.363	1.780	2.247	1.809	2.148	1.518	-24,7	26,2	-19,5	18,7	-29,3
Neurologia	3.818	4.388	4.690	4.224	3.467	3.551	14,9	6,9	-9,9	-17,9	2,4
Errehabilitazioa	3.875	4.806	5.017	4.956	6.325	7.255	24,0	4,4	-1,2	27,6	14,7
Kirurgia orokorra	2.865	3.108	2.371	2.839	2.787	2.422	8,5	-23,7	19,7	-1,8	-13,1
Oftalmologia	14.141	14.735	15.367	12.543	12.381	13.293	4,2	4,3	-18,4	-1,3	7,4
ORL-otorrinolaringologia	4.754	5.561	4.968	3.973	4.393	5.920	17,0	-10,7	-20,0	10,6	34,8
Traumatologia	14.008	13.514	14.179	16.169	18.232	18.360	-3,5	4,9	14,0	12,8	0,7
Urologia	2.486	3.381	3.307	3.761	2.835	2.922	36,0	-2,2	13,7	-24,6	3,1
Ginekologia	10.538	9.523	8.728	6.671	6.133	6.102	-9,6	-8,9	-23,6	-8,1	-0,5
Beste batzuk	12.693	11.334	11.598	10.470	11.741	11.028	-10,7	2,3	-9,7	12,1	-6,1
OROTARA	**90.412**	**93.104**	**95.007**	**89.289**	**91.591**	**91.124**	**3,0**	**2,0**	**-6,0**	**2,6**	**-0,5**

Iturria: Osakidetza. Akutuentzako ospitaleak + Egonaldi ertain eta luzeko ospitaleak

Atzerapen denborei dagokienez, 2014 eta 2015 bitartean berriz ere egin zuen gora hilabetetik gora itxaron behar izan dutenen portzentajeak, hain zuzen ere %38,2tik %39,4ra.

IV.4.18. TAULA. KANPOKO KONTSULTEN ITXARONZERRENDA ETA BERANDUTZE-DENBORA (%) EAE-N

	2011	2012	2013	2014	2015
< 1 hilabete	68,2	66,5	63,9	61,8	60,6
> 1 hilabete	31,9	33,5	36,2	38,2	39,4

Iturria: Osakidetza, Akutuentzako ospitaleak + Egonaldi ertain eta luzeko ospitaleak

(1,1 eta 1,5), Urologia (1,3 eta 1,7), Digestiboa (1,4 eta 2,5) eta Kardiologia (1,3 eta 1,5); handiagoa da Traumatologian (8,0 eta 7,5), eta berdina Ginekologian (2,7 kasu bietan) eta ORLn (2,6 kasu bietan).

Artatuak izateko hilabetetik gora itxaroten duten pazienteen ehunekoari dagokionez, nahiz eta adierazleak zuzenean ezin konpara daitezkeen, badirudi agerian uzten dutela Estatuko egoera ez dela hain ona. Izan ere, 60 egunetik gorako itxaronaldirako egiten da neurketa, eta egun kopuru hori baino gehiago itxaroten duten pertsonen ehunekoa %40tik gorakoa da, are gehiago, %42,4tik gorakoa azterturiko hainbat espezialitatetan.

IV.4.19. TAULA. KANPOKO KONTSULTEN ITXARONZERRENDEN EGOERA OINARRIZKO ESPEZIALITATEEN ARABERA, EAE-N ETA ESTATUAN

	2014				2015			
	Estatua			EAE	Estatua			EAE
	Osasun-txartela duten pazienteen kop. 1.000 bizt.	60 egunetik gora itxaron behar dutenen %	Itxaroteko b.b. denbora (egunak)	Osasun-txartela duten pazienteen kop. 1.000 biztanleko	Osasun-txartela duten pazienteen kop. 1.000 biztanl.	60 egunetik gorako itxaron behar dutenen %	Itxaroteko b.b. denbora (egunak)	Osasun-txartela duten pazienteen kop. 1.000 biztanleko
Orotara	**39,4**	**38,6**	**58**		**43,4**	**42,4**	**58**	
Ginekologia	2,5	41,5	109	2,7	2,7	42,5	58	2,7
Oftalmologia	6,9	44,6	82	5,4	7,2	47,2	68	5,8
Traumatologia	7,0	41,9	68	8,0	7,5	53,4	61	8,0
Dermatologia	4,8	44,9	61	5,1	5,4	44,6	58	4,3
ORL	2,2	26,8	46	1,9	2,6	27,9	44	2,6
Neurologia	1,8	42,6	74	1,5	1,9	42,,8	57	1,5
K. Orok. eta Digest. aparat.	1,4	22,1	51	1,2	1,5	23,3	45	1,1
Urologia	1,5	32,5	52	1,2	1,7	38,8	47	1,3
Digestio aparat.	2,2	37,5	66	1,5	2,5	43,9	59	1,4
Kardiologia	1,6	35,5	55	1,2	1,5	35,8	49	1,3

Iturria: (1) Osakidetza, (2) Osasun Nazio Sistemako itxaronzerrendei buruzko informazio sistema eta geuk egina

Kirurgiako itxaronzerrendei dagokienez, horietako pazienteen kopuruak berriz ere egin zuen behera EAEn 2015ean; jada lau urtez jarraian izan da jaitsiera. Zehazki, 2014 eta 2015 urte bitartean 17.760 pertsona izatetik 17.725 pertsona izatera, hots, 7,8 pazientetik 7,7 pazientera osasun-txartela duten mila biztanleko; Estatuko 12,2ko batez bestekoaren azpitik dago ratio hori.

Pixka bat gora egin du batez besteko berandutze egunen kopuruak (50 egunetik 50,6 egunera), Estatuan izandakoa baino txikiagoa (89 egun). Traumatologiak jarraitzen du izaten itxaronaldi luzeeneko espezialitatea, 62,3 egunekoa (61,5 2014an) eta Oftalmologia da laburrena duena, 39,1 (38,2 egun 2014an). Otorrinolaringologiak ere gainditzen du batez bestekoa (53,2 egun). Azpitik daude Tokoginekologia (48 egun), Kirurgia orokorra (46,2 egun) eta Urologia (45,3 egun).

Bestalde, ebakuntza egiteko 3 hilabetetik gora itxaron behar duten pazienteen ehunekoa handitu egin da EAEn, hots, %13,5etik %15era.

IV.4.20. TAULA. KIRURGIAKO ITXARONZERRENDEN BILAKAERA ETA BATEZ BESTEKO BERANDUTZEA EAE-N

	2010	**2011**	**2012**	**2013**	**2014**	**2015**
Paziente kop.	16.377	17.763	18.611	18.123	17.760	17.725
B.b. berandutzea (egunak)	48,2	51,8	52,1	49,7	50,0	50,6
Paziente kop. > 3 hilabete	1.903	2.815	2.972	2.398	2.406	2.657
Pazienteen % > 3 hilabete	11,6	15,9	16	13,2	13,5	15,0

Iturria: Osakidetza.

IV.4.21. TAULA. KIRURGIAKO ITXARONZERRENDAK ETA BATEZ BESTEKO BERANDUTZEA

	EAE (1)		Estatua (2)	
	2014	2015	2014	2015
Paziente kop.	17.760	17.725	511.923	549424
Paziente kop. osasun-txartela duten 1.000 biztanleko	7,8	7,7	11,4	12,2
B.b. berandutzea (egunak)	50	50,6	87	89
Paziente kop. > 3 hilabete	2.406	2.657	-	-
Pazienteen % > 3 hilabete	13,5	15	-	-
Pazienteen % > 6 hilabete	-	-	9,3	10,6

Iturria: (1) Osakidetza, (2) Itxaronzerrendei buruzko Informazio-sistema Osasuneko Nazio Sisteman eta geuk eginikoa

4.4. OSASUN ARRETA PRIBATUARI BURUZKO ESTATISTIKA: ASEGURU ASKEKO ERAKUNDEAK

Estatistika honen helburua da EAEn establezimenduren bat duten aseguru askeko erakundeen (hemendik aurrera AEE) baliabideei eta jarduerei buruzko informazioa izatea.

EUSTATen arabera, Euskadin diharduten AEEek 407.171 pertsonari ematen zieten zerbitzua osasuneko aseguru pribatu baten bidez, hots, %6,4 igoera 2011ren aldean. Horrenbestez, EAEko biztanleriaren %18,7k osasun aseguru pribatua du kontratatuta.

Lurraldez lurralde, aseguraturiko pertsonen %70 Bizkaikoa da, %18 Gipuzkoak eta %11 Arabakoa.

Era berean, AEEek 312,7 milioi euro bildu zituzten sarietan, hots, %12,6ko igoera 2011ren aldean eta BPGaren %0,45 zen 2015ean. Aseguratu bakoitzeko batez besteko saria 768 euro da (726 euro 2011n). Lurraldez lurralde, sarien %74,1 Bizkaiari dagozkio, %16,3 Gipuzkoari eta %9,6 Arabari.

IV.4.22. TAULA. OSASUN ETA FARMAZIA LAGUNTZAKO ASEGURU ASKEKO ERAKUNDEEN BILAKAERA EAE-N

	2007	2008	2009	2010	2011	2015
EAE						
Aseguratuak	346.062	373.548	376.544	382.677	382.610	407.171
Biztanleria aseguratua (%)	16,1	17,3	17,4	17,6	17,6	18,7
Sariak (mila eurotan)	201.130	238.083	254.134	267.618	277.731	312.693
Saria/Aseguratua (eurotan)	581,2	637,4	674,9	699,3	725,8	767,9
Saria/Biztanlea (eurotan)	93,6	109,9	117,3	123,2	127,5	143,9
Saria/B.P.G.	0,3	0,4	0,4	0,4	0,4	0,4
Araba						
Aseguratuak	41.794	37.102	40.559	40.564	41.280	44.293
Biztanleria aseguratua (%)	13,5	11,8	12,7	12,7	12,9	13,7
Sariak (mila eurotan)	23.481	22.828	24.643	25.104	26.393	29.994
Saria/Aseguratua (eurotan)	561,8	615,3	607,6	618,9	639,4	677,2
Saria/Biztanlea (eurotan)	75,8	72,4	78,2	78,9	82,4	93,1
Saria/B.P.G.	0,2	0,2	0,2	0,2	0,2	0,3
Bizkaia						
Aseguratuak	243.735	268.299	267.176	272.863	273.269	286.447
Biztanleria aseguratua (%)	21,3	23,3	23,2	23,7	23,7	25,1
Sariak (mila eurotan)	143.753	175.484	185.779	195.990	203.640	231.660
Saria/Aseguratua (eurotan)	589,8	654,1	695,3	718,3	745,2	808,7
Saria/Biztanlea (eurotan)	125,6	152,4	161,4	170,1	176,6	203,2
Saria/B.P.G.	0,4	0,5	0,6	0,6	0,6	0,7
Gipuzkoa						
Aseguratuak	60.533	68.147	68.809	69.250	68.061	76.431
Biztanleria aseguratua (%)	8,7	9,8	9,8	9,8	9,7	10,8
Sariak (mila eurotan)	33.896	39.770	43.712	46.523	47.698	51.039
Saria/Aseguratua (eurotan)	560,0	583,6	635,3	671,8	700,8	667,8
Saria/Biztanlea (eurotan)	48,9	56,8	62,5	66,3	67,7	71,8
Saria/B.P.G.	0,2	0,2	0,2	0,2	0,2	0,2

**Guztizko kopurua zenbait erakunderi dagokie, zenbait lurraldetan jardun badezakete ere*
Iturria: EUSTAT.

Estaldura duten pertsona guztien %53 emakumezkoak ziren eta %47 gizonezkoak, eta gehienak 45-64 urteko eta 25-44 adin-tarteetan daude (%32 eta %30 hurrenez hurren).

Aseguraturiko pertsonen %59,3 aseguru kolektiboetatik datoz, %32,5 banako aseguruetatik edo familiakoetatik eta %8,2 funtzionarioen mutualitate pribatuetatik. 2011ren aldean, nabarmentzekoa da aseguru kolektiboen hazkundea, %18 ingurukoa, hain zuzen ere %5,7 jaitsi ziren banako edo familiakoen aldean eta %10,2ko beherakada izan zuten funtzionarioen mutualitateen aldean.

Osasunaren aseguruaren sektorearen ezaugarri nagusia kontzentrazio handia da, zeren eta sarien bolumenik handiena duten lau erakundeek %85etik gorako merkatu-kuota baitute, Eustaten arabera.

IV.4.23. TAULA. ASEGURU ASKEKO ERAKUNDEEK ASEGURATURIKO PERTSONEN EZAUGARRIAK, EAE-N, 2015

Aseguraturiko pertsonen ezaugarria	
Gizonak	189.584
Emakumeak	217.587
0-14 urte	55.171
15-24 urte	30.274
25-44 urte	120.552
45-64 urte	130.152
65-74 urte	40.815
75 urte eta gehiago	30.207
Aseguratuak modalitateen arabera	
Orotara	407.171
Banakoak edo familiakoak	132.468
Mutualitate publikoak	33.273
Beste modalitate kolektibo batzuk	241.430

Iturria: EUSTAT.

4.5. OSASUN SISTEMAREN GASTUA ETA FINANTZAZIOA

4.5.1. Osasunaren kontua

EUSTATen "*Osasunaren Kontua*" eragiketaren xedea da EAEko sektore instituzionalek guztira osasunean eginiko gastua zenbatzea da, haien finantzabidea eta gastu horri eusteko azpiegituretan eginiko inbertsioa. Hartara, Ospitaleko estatistika eta Ospitalez kanpoko estatistika publikoak hartzen ditu informazio-iturri, besteak beste. Beste helburu bat osasunaren sektoreko makromagnitude nagusiak egitea da, ELGAko Osasunaren Kontuen Sistemako oinarri metodologikoei jarraituz. Horiei esker, Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomikoan duen eragina aztertu eta nazioartearekiko erkaketa egin daiteke.

Argitaraturiko azken datuak 2011-2012koak direnez gero, jo beza irakurleak gure 2013ko Memoriaren ediziora.

4.5.2. Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren gastua

Eusko Jaurlaritzaren 2015eko aurrekontuko likidazioaren datuen arabera, Osasunaren atalak (ez da Kontsumoa sartzen), 432 milioi euro izanik, lehen tokian jarraitzen du baliabideen portzentajean, hots, guztizko gastuaren %33,7 da, non programa nagusia Osakidetzaren transferentziei dagokien eta BPG nominalaren 4,9 den, aurreko urteko portzentaje bera.

Osasuneko Finantzazioa eta Kontratazioa eta Farmazia programak ia likidaturiko guztizko gastu osoa dira (%98,7). Zehazki, Osasuneko Finantzazioa eta Kontratazioak %84 eta Farmaziak %14,7.

Aurrekontuan jasotakoaren eta 2015ean benetan betearazitakoaren arteko desbideratzeari dagokionez, likidaturiko gastua aurrekontuan jasotakoa baino txikiagoa da (33.424 mila euro gutxiago aurrekontuan jasotako gastua baino). Desbideratze horren jatorria *Osasuneko Finantzazio eta Kontratazio* gastu-partidetan da (32.818 mila euro gehiago), *Farmazian* (+10.651 mila euro) eta *Osasun Ikerketan eta Plangintzan* (+274 mila euro).

Bestalde, berariaz osasunekoak diren 2016. urterako partiden gastuen aurrekontua 3.422 milioi euro zen (%+0,94 2015ean likidaturiko gastuaren aldean). Gastu hori BPG nominalaren %4,78, 2015ean izandako ratioa baino pixka bat handiagoa.

IV.4.24. TAULA. ESUKO JAURLARITZAKO OSASUN SAILAREN GASTUAREN BANAKAPENA (programako, mila eurotan)

	2011	2012	2013	2014	2015			2016	Aldak. (%)
	Aurrekontuko likidazioak				Hasierako aurrekontua	Likidazioa	Diferent. (L-P)	Hasierako aurrekontua	2015-16
Egitura eta laguntza	16.347	15.375	13.997	14.919	17.462	14.009	-3.453	17.788	1,87
Osasuneko finantzazioa eta kontratazioa	2.766.889	2.764.487	2.731.004	2.784.932	2.826.856	2.859.674	32.818	2.858.198	1,11
Osasun publikoa	29.126	29.063	27.503	32.889	42.767	36.593	-6.174	41.341	-3,33
Osasuneko ikerketa eta plangintza	6.385	6.716	5.927	7.380	7.566	7.840	274	7.723	2,08
Farmazia	580.043	536.869	511.793	492.569	490.258	500.909	10.651	491.649	0,28
Adizioak		5.316	3.799	3.907	5.097	4.405	-692	5.045	-1,02
Osasuna guztira	**3.398.790**	**3.357.826**	**3.294.023**	**3.336.596**	**3.390.006**	**3.423.430**	**33.424**	**3.421.744**	**0,94**
EJ GASTUA GUZT.	**10.173.197**	**10.246.438**	**9.579.465**	**10.053.538**	**10.638.959**	**10.161.474**	**-477.485**	**10.933.299**	**2,77**
BPG	68.041.740	66.775.970	65.906.376	67.223.820	69.216.483	69.216.483	-	71.575.972	-
Osas. % GUZTIZK.	33,41	32,77	34,39	33,19	31,86	33,69	1,83	31,30	-
Osas. % BPGarekiko	5,00	5,03	5,00	4,96	4,90	4,95	0,0	4,78	-

Iturria: EAEko Kontu Orokorrak eta Aurrekontua, EUSTAT eta geuk egina

Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasuneko Ministerioaren arabera, EAEko osasunean biztanleko[38] eginiko gastu publikoak goranzko joera erakusten du 2007 eta 2011 urte bitartean. Izan ere, azken urte horretan ratioa jaisten hasi zen krisi ekonomikoaren ondorioz. Alabaina, gure Erkidegoak egiten du biztanleko gasturik handiena azterturiko aldian (2007-2015).

Zehazki, 2015ean 1.602,4 euro ziren. EAEtik gertu daude Nafarroa (1.466,7 euro), Asturias (1.425,4), Kantabria (1.347,6) eta Gaztela eta Leon (1.321,9).

IV.4.25. TAULA DIRU-BALIABIDEAK. HASIERAKO AURREKONTUAK AUTONOMIA ERKIDEGOEN ARABERA. Euroak biztanleko* 2017ko urtarrilean eguneratua

	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015
Andaluzia	1.178,2	1.196,5	1.187,5	1.125,7	1.124,4	1.009,7	978,1	1.007,0
Aragoi	1.317,9	1.399,6	1.419,2	1.375,5	1.381,7	1.210,8	1.205,8	1.206,6
Asturias	1.277,6	1.448,5	1.522,6	1.442,3	1.444,4	1.391,7	1.402,4	1.425,4
Illes Baleares	1.148,1	1.175,1	1.085,5	1.077,6	1.110,6	1.057,7	1.071,0	1.171,7
U. Kanariarrak	1.407,4	1.446,5	1.397,0	1.230,5	1.249,3	1.224,6	1.233,0	1.238,6
Kantabria	1.307,5	1.357,3	1.352,4	1.234,4	1.272,3	1.310,4	1.338,7	1.347,6
Gaztela eta Leon	1.311,5	1.337,2	1.381,3	1.360,0	1.351,6	1.289,1	1.282,3	1.321,9
Gaztela-Mantxa	1.296,5	1.380,4	1.400,1	1.340,6	1.237,8	1.166,5	1.151,8	1.174,7
Katalunia	1.252,8	1.269,2	1.324,9	1.227,9	1.165,8	1.108,4	1.117,9	1.144,7
Valentziako E.	1.107,0	1.136,2	1.146,4	1.103,2	1.096,4	995,4	1.084,4	1.112,0
Extremadura	1.468,3	1.569,1	1.540,8	1.426,2	1.370,4	1.190,8	1.208,0	1.286,6
Galizia	1.321,0	1.361,2	1.344,9	1.279,0	1.273,8	1.238,0	1.202,0	1.247,1
Madril	1.116,9	1.125,6	1.111,0	1.115,8	1.116,2	1.108,6	1.094,5	1.142,1
Murtzia	1.243,7	1.285,7	1.365,5	1.386,8	1.233,7	1.071,8	1.110,4	1.126,1
Nafarroa	1.416,0	1.445,8	1.558,8	1.525,6	1.429,0	1.340,6	1.403,2	1.466,7
EAE	**1.513,3**	**1.631,2**	**1.665,6**	**1.606,1**	**1.597,4**	**1.607,2**	**1.586,0**	**1.602,4**
Errioxa	1.265,3	1.256,9	1.286,2	1.204,4	1.140,6	1.090,2	1.113,6	1.127,1

** Estatistika Nazio Erakundeak argitaraturiko erroldari dagozkion biztanleria datuak.*
Iturria: Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa

[38] *Datuek osasuneko aurreko aurrekontuak islatzen dituzte, autonomia erkidego bakoitzaren mailan bateratuak, hain zuzen autonomia erkidegoek beren aurrekontu bateratuetan sartutako erakundeei dagozkienak. Beraz, baztertuta gelditzen dira fundazioak, partzuergoak, enpresa publikoak eta osasunaren arloan jarduerak egiten dituen eta gutxi gorabeherako aurrekontua duen beste edozein erakunde publiko.*
Biztanleriaren datuak EINek argitaraturiko erroldari dagozkio

4.5.3. Osakidetzaren gastua

EAEko Kontu Orokorrak oinarri hartuta Osakidetzak egiten duen aurrekontuko likidazioak erakusten duenez, erakundeak 2015ean eginiko gastua 2.695,2 milioi euro izan zen. Hots, berriz ere handitu da gastua, zehazkiago %2,7 2014 eta 2015 urte artean. Hau da, BPG nominalaren %3,9 da, aurreko urteko ratio bera.

Hazkunde hori ustiapen gastuen igoeragatik gertatu da, inbertsioek behera egin baitute.Likidaturiko guztiaren %97,3 Ustiapen Gastuei dagokie eta %2,7 Inbertsioei.

Likidaturiko ustiapen gastuak 2.621,4 milioi euro dira, hots, %3,3 igoera 2014ko likidazioaren aldean.

- Langileria gastuak (soldatak eta ordainsariak gehi kotizazio sozialak), ustiapen gastuen %67,2 dira, guztira 1.791,5 milioi euro dira, eta %1,5 hazi da aurreko urtearen aldean.

- Funtzionamendu gastuak 837,8 milioi euro izan ziren, hots, %11,7ko igoera aurreko aldiarekiko. Funtzionamendu gastuen %81,6 hornidurei dagokie, %11,7 hazi ondoren.

Bestalde, likidaturiko kapital-aurrekontua 73,8 milioi euro da; 2014an likidaturikoa baino %13,4 gutxiago.

Aurrekontuan bildutako zenbatekoaren eta 2015ean betearazitakoaren arteko desbideratzeari dagokionez, likidaturiko gastua aurrekontuan jasotakoa baino handiagoa da (45,1 milioi euro gehiago aurrekontuan jasotakoak baino) eta inbertsioei (+11.779 mila euro) eta ustiapen gastuei (+33.338 mila euro) dagokie. Salbuespena langileria gastuak dira (-1.938 mila euro).

IV.4.26. TAULA. OSAKIDETZAKO GASTUEN LIKIDAZIOA (mila eurotan)

	2011	2012		2013*	2014	2015	Ald.(%) 2014-15
Kapital-aurrekontua: INBERTSIOAK	**123.682**	**85.679**	**Kapital-aurrekontua betearaztea: INBERTSIOAK**	**79.866**	**85.259**	**73.839**	**-13,4**
Ustiapen aurrekontua: USTIAPEN GASTUAK	**2.538.867**	**2.508.036**	**Ustiapen aurrekontua betearaztea: USTIAPEN GASTUAK**	**2.453.706**	**2.538.081**	**2.621.373**	**3,3**
Pertsonal gastuak	1.757.114	1.680.498	Pertsonal gastuak	1.689.603	1.735.152	1.761.493	1,5
Hornikuntzak	1.757.114	1.680.498	Funtzionamendu gastuak	760.081	766.928	837.822	9,2
Beste batzuk	557.505	582.458	*Hornikuntzak*	603.271	611.656	683.519	11,7
			Bestelako funtzionamendu gast.	156.810	155.272	154.303	-0,6
			Beste batzuk (finantza gastuak, diru-lag. eta egin beharreko transf…)	4.022	36.001	22.058	-38,7
OROTARA	**2.662.549**	**2.593.715**		**2.533.572**	**2.623.340**	**2.695.212**	**2,7**
BPG	68.041.740	66.775.970		65.906.376	67.223.820	69.216.483	
BPGarekiko gastua (%)	3,9	3,9		3,8	3,9	3,9	
Gastuaren urtearteko ald. (%)	-0,4	-2,6		-2,3	3,5	2,7	

**Kontabilitate berrira egokitu zen urtea*
Iturria: Geuk Egina, EAEko Kontu Orokorrak oinarri hartuta

IV.4.27. TAULA. OSAKIDETZAKO GASTUEN AURREKONTUAK ETA LIKIDAZIOA (mila eurotan)									
	2013			2014			2015		
	Aurrek. aldatua	Likidaz.	Diferentz. (L-P)	Aurrek. aldatua	Likidaz.	Diferentz. (L-P)	Aurrek. aldatua	Likidaz.	Diferentz. (L-P)
INBERTSIOAK	**80.723**	**79.866**	**-857**	**49.516**	**85.259**	**35.743**	**62.060**	**73.839**	**11.779**
USTIAPEN GASATUAK	**2.451.305**	**2.453.706**	**2.401**	**2.507.180**	**2.538.081**	**30.902**	**2.588.035**	**2.621.373**	**33.338**
Pertsonal gastuak	1.732.891	1.689.603	-43.288	1.736.047	1.735.152	-895	1.763.431	1.761.493	-1.938
Funtzionamendu gastuak	713.534	760.081	46.547	766.783	766.928	145	819.192	837.822	18.630
Beste batzuk (finantza gastuak, diru-lag. eta egin beharreko transfer.)	4.880	4.022	-858	4.350	36.001	31,651	5.412	22.058	16.646
OROTARA	**2.532.028**	**2.533.572**	**1.544**	**2.556.696**	**2.623.340**	**66.644**	**2.650.095**	**2.695.212**	**45.117**

Iturria: Geuk Egina, EAEko Kontu Orokorrak oinarri hartuta

4.6. 2013-2020KO OSASUN PLANAREN EBALUAZIOA

2013-2020ko Osasun Plana lehentasunezko 5 sailetan dago egituratuta, eta horietako bakoitzean, helburuak, ekintzak eta harekin loturiko adierazleak ezarri dira.

- 1. ARLOA: Osasuna eta osasuneko berdintasuna politika publiko guztietan txertatzea eta berdintasunezko eta kalitatezko euskal osasun sistema indartzea
- 2. ARLOA: Biztanleriarekin jardutea gaixotasunak eragindako heriotza-tasa eta populazioarengan eragin handiena duten gaixotasunen mendetasuna gutxitzeko.
- 3. ARLOA: Zahartze osasuntsua sustatzea.
- 4. ARLOA: Haurren eta gazteen osasun baldintzak eta aukerak hobetzea.
- 5. ARLOA: Ingurune eta bizimodu osasuntsuak, sektoreen arteko lankidetzaren, tokiko lanaren eta gizarte-lanaren bidez.

1 eta 5. arloak zeharkakoak dira eta 2, 3 eta 4. arloak, berriz, biztanle-talde espezifikoei dagozkie.

IV.4.28. TAULA. 2013-2020KO OSASUN TAULA. LEHENTASUNEZKO ARLOAK ETA HELBURUAK				
1.ARLOA: BERDINTASUNA ETA ERANTZUKIZUNA	**2. ARLOA: GAIXOAK**	**3. ARLOA: ZAHARTZE OSASUNTSUA**	**4. ARLOA. HAUR ETA GAZTEEN OSASUNA**	**5. ARLOA. INGURUNE ETA JOKABIDE OSASUNTSUAK**
1.1. Osasuna politika guztietan	2.1 Arreta sozio-sanitario osoa, integratua eta pertsonengana bideratua	3.1. Zahartze aktiboa	4.1 Haurren osasuna	5.1. Jarduera fisikoa
1.2. Berdintasuna	2.2 Botiken erabilera egokia	3.2. Laguntza sozio-sanitarioa	4.2. Arreta goiztiarra	5.2. Osasuna eta elikadura
1.3. Determinante estrukturalak eta osasunean eta osasuneko desberdintasunetan eragina duten bitartekoak	2.3 Segurtasun klinikoa	3.3.Ahalmen funtzionala eta autonomia	4.3. Haurren eta gazteen obesitatea	5.3. Sexu eta ugalketa osasuna
1.4. Pertsonen partaidetza eta jabekuntza	2.4. Egoera terminala eta arintze-zaintzak	3.4. Teknologia berriak	4.4. Nerabeak eta gazteak	5.4. Adizioak
1.5. Genero-indarkeria	2.5. Minbizia	3.5.Etxeko arreta		5.5. Buruko osasuna
1.6 Osasuneko desberdintasunen monit.	2.6 Gaixotasun kardiobaskularrak			5.6 Ingurunea
1.7. Ikerketa eta berrikuntza	2.7. Diabetesa eta sindrome metabolikoa			5.7. Lan ingurunea
	2.8. Obesitatea			
	2.9. Biriketako buxadura kronikoko gaixotasuna (BBKG)			
	10. Buruko gaixotasuna			
	11. Sexu-transmisioko infekzioak			
	12. Beste eritasun garrantzitsu batzuk			

2013-2020ko Osasun Planaren emaitzen urteko txostenak dakartzan datuen arabera, plana ezarri den bigarren urtean (2015) proposaturiko 35 helburuetatik 10 dagoeneko abiarazita daude (hots, helburuen %28 eta ekintzen %29), 16 dagoeneko abiarazita daude (helburuen %46 eta ekintzen %44) eta 9 oraindik ez dira abiarazi (helburuen %26 eta ekintzen %27).

Ondoko taulan ageri denez, adierazletatik 57ren gaineko informazio eguneratua dago. 57 horietatik 5etan dago beteta 2020rako helburua, 38 helburua lortzeko bidetik doaz eta 14k helburuaren kontrako joera dute.

IV.4.29. TAULA. 2013-2020 OSASUN PLANA. EMAITZEI BURUZKO URTEKO TXOSTENA 2015					
ZK.	**Adierazlea**	**Abiapuntuko egoera**	**2015ean eguneratuta**	**2020 helburua**	**Iturria**
1	Osasun Plana Zuzentzeko Batzordea eta Osasun Batzorde Teknikoa eratzea eta martxan jartzea politika guztietan		BAI	2013 abendua 2014 martxoa	Eusko Jaurlaritza
8	Desberdintasunak osasun zerbitzuak eskuratzean. <=28 eguneko berandutzea duten eta ebakuntzarako itxaronz. dauden paziente onkologik. %. Gizonak	98,2[39]	98,85	Pixkanaka murriztea	Osakidetza
8bis	Desberdintasunak osasun zerbitzuak eskuratzean. <=28 eguneko berandutzea duten eta ebakuntzarako itxaronz. dauden paziente onkologik. Emak.	98,7[13]	98,74	Pixkanaka murriztea	Osakidetza

[39] *Ez zegoen informaziorik abiapuntuko egoeran. Adierazleak 2014ko ebaluazioan zuen balioa adierazten du datuak*

IV.4.29. TAULA. 2013-2020 OSASUN PLANA. EMAITZEI BURUZKO URTEKO TXOSTENA 2015					
8bis2	Desberdintasunak osasun zerbitzuak eskuratzean. <=80 eguneko berandutzea duten eta ebakuntzarako itxaronz. dauden paziente kardiak. Gizonak	96,2[13]	95,36	Pixkanaka murriztea	Osakidetza
8bis3	Desberdintasunak osasun zerbitzuak eskuratzean. <=80 eguneko berandutzea duten eta ebakuntzarako itxaronz. dauden paziente kardiak. Emak.	96,8[13]	94,86	Pixkanaka murriztea	Osakidetza
8bis4	Desberdintasunak osasun zerbitzuak eskuratzean. <=55 eguneko berandutzea duten eta kirurgia orok. ebakuntzarako itxaronz. dauden pazienteak. Gizonak	51,7 egun[13]	51,8 egun	Pixkanaka murriztea	Osakidetza
8bis5	Desberdintasunak osasun zerbitzuak eskuratzean. <=55 eguneko berandutzea duten eta kirurgia orok. ebakuntzarako itxaronz. dauden pazienteak. Emak.	52,1 egun[13]	52,1 egun	Pixkanaka murriztea	Osakidetza
10	Gazteen langab.-tasa (16-24 urte) gizonak ()	35,1	36,1	15	Eustat. PRA
10bis	Gazteen langab.-tasa (16-24 urte) emak. ()	30,4	32,1	15	Eustat. PRA
11	Pobrezia arriskua. Errenta pertsonaleko Gini indizea	0,533	0,531	0,506	Eustat. Errenta pertsonalaren eta familiarraren azterlana
12	Pobrezia errealean dauden familiak, erreferentziako pertsonaren arabera, giz. ()	3,7	4,6	↓10	Lan eta Gizarte Politika Saila. Pobrez. eta gizarte desberdintas. Inkesta 2014
12bis	Pobrezia errealean dauden familiak, erreferentziako pertsonaren arabera, emak. ()	11,1	10,3	↓10	Lan eta Gizarte Politika Saila. Pobrez. eta gizarte desberdintas. Inkesta 2014
14	Eskola behar baino lehen uztea (18-24 urte) giz. ()	8,3	7,7	↓10	Eustat. Biztanleria jarduerari dagokionez
14bis	Eskola behar baino lehen uztea (18-24 urte) emak. ()	7,1	6,6	↓10	Eustat. Biztanleria jarduerari dagokionez
17	Osasuneko Euskal Sistemako pazienteen eta erabiltzaileen eskubide eta betebeharren karta berria berrikusi eta argitaratzea.	Idatzita eguneratze dekretua [13]	EHHAn argitaratua eskubide eta betebeharrei buruzko Dekretua[40]		Osasun Saila
18	Osakidetzako berdintasun politikak bultzatu eta koordinatzeko adminis.-unitatea sortzea	--	Bai[41]	2015	Osakidetza
22	Indexdun argitalpenak	722	980	↑40	Bioef
25	Preskribatze partekatuko prozesu ezarria	--	Ezarria[42]	2015	Osakidetza Osasun Saila
27	Zerbitzu/OSI guztietako unitate/eskualdeetako gorabeherak jakinarazteko sistemaren erabilera-maila ()	5	17	20	Osakidetza-Segurtasun klinik.
28	Pazienteak bakarka identifikatzeko sistema/protokoloa ezartzea ()	75	85	100	Osakidetza-Segurtasun klinik.
29	Osasun Erakunde Integratuetan aplikaturiko arintze-zaintzen planak[43]	--	65,80	100	Osakidetza
30	Aurretiazko borondateari buruzko adierazpena duten biztanleak, gizonak ()	0,06[44]	0,60	>15	Osasun Saila

[40] *Uztailaren 21eko 147/2015 DEKRETUA, Euskadiko osasun sistemako pertsonen Betebeharrei eta Eskubideei buruzko Adierazpena onetsi duena* https://www.euskadi.eus/r47-bopvapps/es/bopv2/datos/2015/08/1503424a.shtml

[41] *Genero-berdintasuneko plana sortuta Osakidetzako antolamendu nagusian*

[42] *2015eko abenduan, Presbide (medikazioa bateratzeko aplikazio informatikoa – historia farmakoterapeutiko bakarra) Osakidetzako erakunde guztietan zegoen hedatuta. Presbide ia erabat dago erabilgarri Oinarrizko Arretan eta Osasun Mentaleko Sarean. Arreta Espezializatuan, berriz, %76 inguruan dago. Erakunde guztiek ezarri dituzte bateratze-programak.*

[43] *Osakidetzako OSI, Oinarrizko Arretako Eskualdeek eta akutuentzako ospitaleek eta egonaldi ertain-luzeko ospitale guztiek dute bizitzaren amaieran dauden pazienteen Arreta Plan Integrala, diziplina arteko talde batek egina. Honako hauek zehazten dira bertan: xedeko biztanleria, aplikazio-eremua, sartzeko irizpideak, pazienteen jarraipena, paziente terminalaren formularioa, aurretiazko borondatearen dokumentua egitea Batzorde Kliniko Integrala egotea eta martxan izatea. Osakidetzako Zerbitzuetako Erakundeen Kontratu-programaren 2015eko ebaluazioaren datuak ez dira homogeneoak Arreta Plan Integralaren atal guztiak aplikatzeari eta betetzeari dagokionez. Zerbitzu horiek guztien batez bestekoa adierazten du portzentajeak D.2.2 adierazlean: "Bizitzako amaieran dauden pazienteen Arreta Plan Integratua izatea".*

[44] *Abiapuntuko egoeraren zifrak, berriz kalkulatuak. Akatsa egon zen zifraren kalkuluan abiapuntuko egoeran*

IV.4.29. TAULA. 2013-2020 OSASUN PLANA. EMAITZEI BURUZKO URTEKO TXOSTENA 2015					
30bis	Aurretiazko borondateari buruzko adierazpena duten biztanleak, emak. ()	0,12	1,10	>15	Osasun Saila
32	Minbiziak 65 urtetik beherako gizonengan duen intzidentzia (tasa/100.000)	246,52 (263,5)19	272,7	↓10	Minbizien Erregistroa
32bis	Minbiziak 65 urtetik beherako emakumeengan duen intzid. (tasa/100.000)	203,02 (215,5)[45]	226,4	↓10	Minbizien Erregistroa
33	Minbiziak hildako 65 urtetik beherako gizonak (tasa/100.000)	99,25	82,8	↓10	Heriotzen Erregistroa
33bis	Minbiziak hildako 65 urtetik beherako emakumeak (tasa/100.000)	55,37	53,6	↓10	Heriotzen Erregistroa
34	Biriketako minbiziak 65 urtetik beherako gizonengan duen intzidentzia (tasa/100.000)	30,24 (37,8)[19]	39,4	↓10	Minbizien Erregistroa
34bis	Biriketako minbiziak 65 urtetik beherako emakumeengan duen intzid. (tasa/100.000)	12,98 (16,5)[19]	16,3	Goranzko joera geldiarazi	Minbizien Erregistroa
35	Biriketako minbiziak hildako 65 urtetik gorako gizonak (tasa/100.000)	29,91	27,6	↓10	Heriotzen Erregistroa
35bis	Biriketako minbiziak hildako 65 urtetik beherako emakumeak (tasa/100.000)	11,46	12	Goranzko joera geldiarazi	Heriotzen Erregistroa
36	Kolon, ondeste eta uzkiko minbiziaren intzidentzia (tasa /100.000) gizonak	89,12 (90,9)[19]	94,4	↓10	Minbizien Erregistroa
36bis	Kolon, ondeste eta uzkiko minbiziaren intzidentzia (tasa /100.000) emakumeak	39,06 (39,8)[19]	46,1	↓10	Minbizien Erregistroa
37	Kolon, ondeste eta uzkiko minbiziak hildako gizonak (tasa /100.000)	30,9	29,1	↓10	Heriotzen Erregistroa
37bis	Kolon, ondeste eta uzkiko minbiziak hildako emakumeak (tasa /100.000)	13,6	14,2	↓5	Heriotzen Erregistroa
38	Gizonen kolon-ondesteko minbiziaren detekzio goiztiarreko programan parte hartzea () 1. itzulia	62	61[20]	↑10	kolon-ondesteko minbiziaren baheketa-progr.
38bis	Emakumeen kolon-ondesteko minbiziaren detekzio goiztiarreko programan parte hartzea () 1. itzulia	68	66[20]	↑10	kolon-ondesteko minbiziaren baheketa-progr.
39	Bularreko minbiziaren intzidentzia (tasa /100.000)	95,34 (94,8)[19]	99,7	↓5	Minbizien Erregistroa
40	Bularreko minbiziaren heriotza tasa (tasa /100.000)	18,1	17	↓10	Heriotzen Erregistroa
41	Emakumeen eta gizonen baskularizazioa sindrome koronario akutuan	0,67	0,75	>0,8	Osakidetza
42	Bihotzeko errehabilitazio programan artaturiko biztanleria. Gizonak (%)	--	43,5	>75	Osakidetza
42bis	Bihotzeko errehabilitazio programan artaturiko biztanleria. Emakumeak (%)	--	25,5	>75	Osakidetza
43	Miokardio infartu akutuaren ziozko heriotza goiztiarrak (IAM) [46] (25-74 urte) Gizonak (tasa/100.000)	47,74	41,6	↓10	Heriotzen Erregistroa
43bis	IAMren ziozko goiztiarrak[21] (25-74 urte) emakumeak (tasa/100.000)	7,05	7,5	Tasa egonkortu	Heriotzen Erregistroa
44	Istripu zerebrobaskularra (IZB) izan ondoren errehabilitazio goiztiarreko plan pertsonalizatu duten gizonak ()	19,8	30,3	>75	Osakidetza
44bis	Istripu zerebrobaskularra (IZB) izan ondoren errehabilitazio goiztiarreko plan pertsonalizatua duten emakumeak ()	20,2	31,5	>75	Osakidetza
45	Hemoglobina glikosilatua <%7 diabetes mellitusa duten gizonengan (%)	42,63	44,87	>50	Osakidetza
45bis	Hemoglobina glikosilatua <%7 diabetes mellitusa duten emakumeengan (%)	42,35	46,42	>50	Osakidetza
47	Giltzurruneko gutxiegitasun larria, diabetesarekin lotua, milioi pertsonako, giz.	19	12,4	↓10	Osakidetza
47bis	Giltzurruneko gutxiegitasun larria, diabetesarekin lotua, milioi pertsonako, emak	6	7,4	↓10	Osakidetza

[45] *Minbizien Erregistroak martxan jarraitzen duenez gero, datu gehiago identifikatu dira Osasun Planeko abiapuntuko egoeraren atalean argitaraturiko datutik. Parentesi artean dagoen zifrak abiapuntuko urteko intzidentzia tasa eguneratua adierazten du (2010) 2016ko urtarrilera arte sartutako kasu berriekin.*

[46] *Heriotza tasa kardiopatia iskemiko osoari dagokio (CIE10:I20-I25), miokardiro infarto akutua barne*

IV.4.29. TAULA. 2013-2020 OSASUN PLANA. EMAITZEI BURUZKO URTEKO TXOSTENA 2015					
49	Diabetes mellitusak[22] (25-74) eragindako heriotza goiztiarra(tasa /100.000) gizonak	7,6	6,9	↓10	Heriotzen Erregistroa
49bis	Diabetes mellitusak[47] (25-74 urte) eragindako heriotza goiztiarra (tasa /100.000) emak.	2,5	2	↓10	Heriotzen Erregistroa
53	30 egunera berriz ingresatzea BBKG duten pazienteekin, gizonak ()	20	21	↓15	Osakidetza
53bis	30 egunera berriz ingresatzea BBKG duten pazienteekin, emakumeak ()	17	19	↓15	Osakidetza
55	Buruko gaixotasunen ziozko heriotza tasa (100.000 biztanleko) gizonak	21,1	18	↓10	Heriotzen Erregistroa
55bis	Buruko gaixotasunen ziozko heriotza tasa (100.000 biztanleko) emakumeak	18,8	17,9	↓10	Heriotzen Erregistroa
57	Suizidioaren ziozko heriotzak (100.000 biztanleko) gizonak	9,5	9,5	↓10	Heriotzen Erregistroa
57bis	Suizidioaren ziozko heriotzak (100.000 biztanleko) emakumeak	3,4	4,3	↓5	Heriotzen Erregistroa
58	DHD antsiolitikoen kontsumoa	54	52,49	Goranzko joera geldiarazi	Osasun Saila – Farmazia Zuzendaritza
58bis	DHD antidepresiboen kontsumoa	61	59,91	Goranzko joera geldiarazi	Osasun Saila – Farmazia Zuzendaritza
59	VIHren infekzio gehiagoren kop. (gizonak)	132	114	↓10	HIES eta ITS Plana
59bis	VIHren infekzio gehiagoren kop. (emak.)	29	38	↓10	HIES eta ITS plana
60	VIHren infekzioren diagnostiko berankorreko tasa, gizonak (%)	43	46,5	↓30	HIES eta ITS plana
60bis	VIHren infekzioren diagnostiko berankorreko tasa, emakumeak (%)	59	47,3	↓30	HIES eta ITS plana
61	Gizonengan deklaraturiko sifilis kasuak	147	62	↓30	Osasun Saila - SIMCAPV
61bis	Emakumeengan deklaraturiko sifilis kasuak	41	14	↓30	Osasun Saila - SIMCAPV
62	Gizonengan deklaraturiko gonokozia kasuak	159	235	↓30	Osasun Saila - SIMCAPV
62bis	Emakumeengan deklaraturiko gonokozia kas.	32	30	↓30	Osasun Saila - SIMCAPV
63	Giltzurruneko dialisia duten pazienteak milioi pertsonako (PMP) [48]gizonak		75,5	↓5	Osakidetza-UNIPAR
63bis	Giltzurruneko dialisia duten pazienteak milioi pertsonako (PMP) emakumeak		32,2	↓5	Osakidetza-UNIPAR
64	Gaixotasun arraroen erregistroa		SI		Osasun Saila – Erregistro Zerbitzua
65	"Nagusien lagunak diren hiriak" programa duten hirieran bizi diren biztanleak	37	42	>75	Eudel Osasun Saila Eustat
67	60 urtetik gorako gizon elkartekideen portzentajea	10	27,60	↑15	Eustat
67 bis	60 urtetik gorako emakume elkartekideen portzentajea	14	22,20	↑15	Eustat
73	75 urtetik gorako gizonak hilabeteren buruan berriz ospitaleratzea (%)	10,49	9,63	↓20	Osakidetza
73bis	75 urtetik gorako emakumeak hilabeteren buruan berriz ospitaleratzea (%)	7,8	7,27	↓20	Osakidetza
74	Jaiotzean pisu txikia duten haurtxoak (%)	7	7,5	↓10	Jaioberriaren baheketarako programa
76	PADIren estaldura (%)	66	67	>75	PADI
77	Txantxarrik gabeko haurrak 12 urterekin (%CAOD=0)	74	72	80	PADI
78	Arreta goiztiarreko ereduan sartutako osasun erakundeak/eskualdeak	1	9	Guztiak[49]	Osakidetza
83	Mutilen (15-29 urte) trafiko istripuen ziozko heriotzak (tasa/100.000)	6,7	4,1	↓20	Heriotzen Erregistroa
83bis	Nesken (15-29 urte) trafiko istripuen ziozko heriotzak (tasa/100.000)	2	0	↓20	Heriotzen Erregistroa

[47] *Diabetes Mellitusak eragindako heriotza guztiak dakartza (CIE10:E10-E14)*

[48] *Ordezko giltzurruneko tratamenduan dauden pazienteen intzidentzia milioi pertsonako*

[49] *2015ean, 16 dira OSI, Oinarrizko Arretako Eskualdeak, Akutuentzako Ospitaleak eta Osasun Mentaleko Sareak. Bizkaian, Osakidetzako Zerbitzuetako Erakunde guztietan dago finkatuta arreta goiztiarreko eredua, Gipuzkoan Bidasoako eta Donostialdeko OSIetan eta Osasun Mentaleko Sarean. Araba garatzeke dago.*

IV.4.29. TAULA. 2013-2020 OSASUN PLANA. EMAITZEI BURUZKO URTEKO TXOSTENA 2015					
84	Mutilen (15-29 urte) suizidioaren ziozko heriotzak (tasa/100.000)	7,1	7,8	↓20	Heriotzen Erregistroa
84bis	Nesken (15-29 urte) suizidioaren ziozko heriotzak (tasa/100.000)	1,6	3,7	↓20	Heriotzen Erregistroa
85	Haurdunaldia nahita etetea (HNE) 20 urtetik beherakoen artean (tasa x1000)	10,02	8,38	↓50	HNE Erregistroa
94	Episiotomia erditze eutozikoan (%)	36	25,7	<15	Osakidetza
95	Haurdunaldia nahita etetea (HNE) tasa x 1.000 adin emankorren dauden emakumeak	9,9	8,79	↓50	HNE Erregistroa
98	Tabakismoari buruzko osasun aholkua Oinarrizko Arretan (%)	33,7	40,8	>60	Osakidetza
99	Tabakoa gainditzeko fasean dauden gizon erretzaileak (%)	1,9	0,6	↑15	Osakidetza
99bis	Tabakoa gainditzeko fasean dauden emakume erretzaileak (%)	2,5	0,8	↑15	Osakidetza
107	<50 µg/l tratamenduko azpiproduktuak dituen kontsumoko ura jasotzen duen biztanleria	47	60	>95	Osasun Saila EKUIS
108	Lanbide-gaixotasunaren intzidentzia tasa gizonengan	‰4,16	‰2,46	↓10	OSALAN
108 bis	Lanbide-gaixotasunaren intzidentzia tasa emakumeengan	‰1,51	‰1,07	↓10	OSALAN
109	Lan-istripu hilgarrien intzidentzia tasa gizonengan (tasa/100.000)	8,7	4,2	↓10	OSALAN
109 bis	Lan-istripu hilgarrien intzidentzia emakumeengan (tasa/100.000)	0,9	0,27	↓10	OSALAN
110	Lan-arriskuko aurrezaintzako zerbitzuak babestutako enpresak	54,30	56	>95	OSALAN

Iturria: Eusko Jaurlaritza. OSASUN PLANA 2013-2020. Emaitzei buruzko urteko txostena 2015

ITURRIAK:

1. Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa. SNSren urteko txostena. 2015eko datuak. Urterokoa. Koiunturala.

2. Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa. Hainbat adierazle**.** Mikrodatuekin eginikoa. 2015eko datuak. Urterokoa. Koiunturala.

3. EUSTAT: Heriotzei buruzko estatistika (HBE). 2015. Urterokoa. Koiunturala.

4. EUSKO JAURLARITZA. Heriotza-tasen erregistroa. 2015eko datua. Urterokoa. Koiunturala.

5. OSAKIDETZA: Eskaera zehatzak. 2015eko datuak. Urterokoa. Koiunturala.

6. EUSKO JAURLARITZA. Osasunari buruzko inkesta**.** 2013. Bost urtean behingoa. Estrukturala.

7. Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa. ONSren itxaronzerrenden informaziorako sistema.2015eko datuak. Urterokoa. Koiunturala

8. EUSTAT: Osasun Laguntza Pribatuari buruzko estatistika. 2015eko datua. Ez dakigu maiztasuna.

9. EUSTAT: Osasunaren Kontua. 2012ko azken datuak. Ez dakigu maiztasuna.

10. EUSKO JAURLARITZA.Aurrekontuak eta aurrekontuko likidazioak. Urterokoa. Koiunturala.

11. Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa. Baliabide ekonomikoak. 2015eko datua. Urterokoa. Koiunturala

12. OSAKIDETZA. Aurrekontuko likidazioak. Urterokoa. Koiunturala.

13. EUSKO JAURLARITZA. Osasun Planaren Ebaluazioa. Ez dakigu maiztasuna.

5. ETXEBIZITZA

Ondoren, EAEko 2016ko etxebizitzaren egoerari buruzko zifra nagusiak aurkeztuko dira, eskaintzaren aldetik (etxebizitzen stocka eta prezioak), nahiz eskariaren aldetik (eskuratzeko beharra, aldaketa eta birgaikuntza, eta etxebizitza babestuaren eskaria ere bai). Era berean, eraikuntzaren urteko jarduerari eta salerosketei buruzko datu nagusiak emango dira, eta azkenik Eusko Jaurlaritzak Etxebizitza Planaren bitartez eta foru aldundiek ohiko etxebizitzagatiko PFEZn kenkariak aplikatuz garatzen duten etxebizitza politikaren ebaluazioa azalduko da.

EAEko higiezinen merkatuaren bilakaeraren ezaugarri nagusia, 2016an eta Eusko Jaurlaritzaren Higiezinen Eskaintzaren Inkestako emaitzen arabera, etxebizitzaren eskaintzaren %10eko jaitsiera izan zen, aurreko urteko %7,8ko jaitsieraren ondoren.

Bestalde, etxebizitza eskariak edo beharrak 2015eko azken datuaren arabera, %11,5 handitu zen 2013aren aldean, baina oraindik ez dira berreskuratu 2011ko mailak.

IV.5.1. GRAFIKOA. ETXEBIZITZAREN MERKATUAREN BILAKAERA EAE-N



Iturria: Geuk egina EUSKO JAURLARITZAREN datuekin

5.1. ETXEBIZITZAREN ESKAINTZAGUZTIRA

Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Sailaren "*Higiezinen Eskaintzaren Estatistikak*" [51] (HEE) adierazi du, lehenik eta behin, azken urtean %10, jaitsi dela (2015ean -%7,8) etxebizitzaren guztizko eskaintza (salgai eta alokagai daudenak), eta guztira 33.535 etxebizitza biltzen ditu laugarren hiruhilekoan. [52] Lagin hori, prezioen estatistikaren oinarria izanda, honela dago osatuta: %95,8 saltzeko eskainitako etxebizitzak dira eta %4,2 alokairukoak. Salgai dauden etxebizitzen %9,5 etxebizitza berriak dira eta %90,5 erabilitako etxebizitzak, eta etxebizitza berrien %42,1ek babes ofizialen bat du. Alokairuko etxebizitzetatik % 72,4 libreak dira eta % 28, berriz, babestuak.

Ondorioztatzen denez, bi urtez (2009 eta 2010) eskaintzaren hazkunde txikiari eutsi ondoren (2014an hasita), joera hori nabarmen hobetu zen 2011n, baina berriz ere egin zuen behera 2012an eta, neurri handiagoan, 2013an. 2014an, berriz, jaitsiera gelditu, eta aurreko galeraren zati bat berreskuratu zen (+%18,7), eta atzera behera 2015ean (-%7,8) eta berriro 2016an (-%10). Azken urte horretan, 2015ean bezala, gutxitu egin da etxebizitza mota guztien eskaintza, alokairu babestuan izan ezik (+%119,5). Nolanahi ere, eskaintza osoaren %1,2 besterik ez da.

[50] *Grafikoan azaltzen den eskariak eskuratzeko behar diren etxebizitzen kopurua erakusten du; eskaintza higiezinen sustatzaile eta agenteek emandakoa da; prezioak eurotan adierazita daude salgai dauden etxebizitza libreen (berriak nahiz erabiliak) m2 erabilgarri bakoitzeko).*

[51] *Inkesta honetako datu guztiak 4 ordenako hiruhileko batez beste mugikorren bidez adierazten direnez, urteko IV. hiruhilekoko datua ere urteko batez bestekoa da.*

[52] *etxebizitza baino gehiagoko sustapenak dituzten 118 sustapen-enpresei eta higiezinen 166 agentziari eginiko inkestaren bidez lorturiko datuak eta, beraz, ez da eskaintza osoa biltzen. Inkesta honen emaitzen alderdirik interesgarriena, datu absolutuak baino, bilakaera da*

Azken hamarkadan gertatu denari erreparatuta ikusten denez, etxebizitza errealean erregistratu da eskainitako etxebizitza tipologiaren hazkunde proportzionalik handiena. Horrela, 2016an salgai zegoen parke guztiaren %86,7 erabiltzen da; 2006an, berriz, %38,4ko proportzioa zen.

IV.5.1. TAULA. EAE-KO ETXEBIZITZAREN ESKAINTZAREN BILAKAERAREN LABURPENA.

	GUZT.	ETXEBIZITZAK SALGAI					ALOKAIRUKO ETXEBIZITZAK		
		SALMENTA GUZTIRA	ETXEBIZITZA BERRIAK			ETXEBIZITZA ERABILIAK	ALOIRUA, GUZTIRA	LIBREA	BABESTUA
			GUZT.	BABESTUAK	LIBREAK				
2010	28.921	26.353	8.169	3.573	4.596	18.184	2.568	1.215	1.354
2011	44.643	42.276	12.394	6.845	5.549	29.882	2.367	1.602	766
2012	39.542	36.902	9.918	4.180	5.738	26.985	2.640	2.013	627
2013	34.029	31.762	8.126	3.860	4.266	23.636	2.267	1.974	293
2014	40.400	37.755	4.731	2.268	2.463	33.024	2.645	2.505	140
2015	37.259	35.510	3.519	1.545	1.974	31.991	1.749	1.570	179
2016	33.535	32.137	3.049	1.283	1.766	29.089	1.398	1.006	392
Ald % 14/15	-7,8	-5,9	-25,6	-31,9	-19,8	-3,1	-33,9	-37,3	27,5
Ald % 15/16	-10,0	-9,5	-13,4	-17,0	-10,5	-9,1	-20,1	-35,9	119,5

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Higiezinen Eskaintzari buruzko Estatistika.

Prezioak direla eta (zehazki aztertuko dira hurrengo epigrafeetan) salgai dagoen etxebizitza librearen (berria eta erabilia) batez besteko balioa, 2016an, 2.802 euro/m^2 zen, eta %4,8ko jaitsiera izan zuen 2015aren aldean. Aurreko urtean ere %4,4ko jaitsiera gertatu zen. Etxebizitza berriaren merkatuari dagokionez, prezioek %2,8 egin zuten behera, eta bigarren eskuko etxebizitzenak, berriz, %4,9 jaitsiera izan zuen. Bestalde, babestutako etxebizitza berriaren batez besteko prezioa %4,2 igo da azken urtean (alokairu libreko batez besteko errenta, ordea, 0,9). Bestetik, babestutako etxebizitzen alokairuko batez besteko errenta 268 eurokoa izan zen, aurreko urtean baino %22,2 gutxiago.

Azkenik, azpimarratu behar dugu higiezinen enpresek etxebizitza bat saltzeko behar duten denbora, batez bestez, 2016an 5,8 hilabete zirela, aurreko bi urteetan 4,6 ziren bitartean.

5.1.1. Salgai dauden etxebizitzen eskaintza eta prezioak

(a) Etxebizitza berria

Lehenik eta behin, salgai dauden etxebizitza libre berrien eskaintza, 2016ko laugarren hiruhilekoan, 1.766 etxebizitzakoa izan zen, 2015ean baino %10,5 gutxiago. Honelakoa da lurraldez lurraldeko banaketa: Bizkaiak %44,2 hartzen du, Gipuzkoak %46,2 eta Arabak gainerako %9,5a.

IV.5.2. GRAFIKOA. EAE-N SALGAI DAUDEN ETXEBIZITZA BERRIEN ESKAINTZAREN BILAKAERA



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Higiezinen Eskaintzari buruzko estatistika

Etxebizitza libre berrien batez besteko prezioa, guztira, 253.500€-an kokatu zen 2016an; 2015ean, berriz, 259.800 eurokoa zen, hots, %2,4ko jaitsiera gertatu zen. Metro koadroko eurotan, 3.180,7 €/m^2 da, 2015eko batez bestekoa baino %2,8 gutxiago. Lurraldeen araberako azterketaren arabera, batez bestekorik txikiena Araban dago (2.527,3 €/m^2); Bizkaian eta Gipuzkoan, berriz, 3.333,8 €/m^2 eta 3.148,8 €/m^2 dira hurrenez hurren. Kopuru absolutuetan, Arabak izan zuen atzerakadarik handiena, %7,8koa, eta ondoren Gipuzkoa (-%4,1) eta Bizkaia (-%1,1).

Merkatu babestuari dagokionez, gogoratu behar da 2006tik ez dagoela salgai dauden etxebizitza sozialen eskaintzarik, eta etxebizitza horiek soilik alokairuan eskaintzen dira. 2016ko laugarren hiruhilekoan, BOEren eskaintza 1.283 unitatera iritsi da, aurreko urtean baino % 17 gutxiago (2006tik %74,7 gutxitu da).

IV.5.3. GRAFIKOA. SALMENTARAKO ETA ALOKAIRURKO ETXEBIZITZA BABESTUAREN ESKAINTZAREN BILAKAERA EAE-N



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Higiezinen Eskaintzari buruzko estatistika

Saltzeko eskainitako BOEren batez besteko prezioa 1.744,1/m2 zen 2016an, aurreko urtean baino %4,2 gehiago. Zenbait alde ikus daitezken lurraldeen arabera: Gipuzkoak du preziorik handiena (1.795,8 €/m^2), eta ondoren Bizkaiak (1.762 €/m^2). Kontrako bilakaera du, zeren eta batez besteko prezioak %3,4 egin baitu behera lehenengoan eta %0,9 hazi baita bigarrenean. Bestalde, Arabak batez besteko prezio txikiagoa du (1.573 €/m^2) eta haren bilakaera batez bestekotik hurbil dago, %4, hazi baita.

IV.5.2. TAULA. EAE-N SALGAI DAUDEN ETXEBIZITZEN PREZIOAREN BILAKAERA. €/M^2 BALIAGARRI.

	ETXEBIZITZA LIBREA				ETXEBIZITZA BABESTUA
	GUZTIRA LIBREA*	ERABIL.	BERRIA	ETXEBIZ. TIPOA**	
2010	3.888,3	3.891,0	3.877,4	3.496,2	1.474,3
2011	3.830,3	3.841,6	3.769,5	3.447,7	1.532,2
2012	3.595,8	3.564,7	3.742,1	3.378,1	1.585,4
2013	3.226,4	3.171,7	3.486,2	3.095,1	1.625,0
2014	3.079,8	3.058,2	3.338,9	2.960,2	1.682,1
2015	2.943,1	2.922,9	3.273,7	2.843,1	1.674,2
2016	2.802,0	2.778,9	3.180,7	2.862,9	1.744,1
% ald 14/15	-4,4	-4,4	-2,0	-4,0	-0,5
% ald 15/16	-4,8	-4,9	-2,8	0,7	4,2

** * Etxebizitza berrien eta erabilien batez besteko prezioa*
***Etxebizitza librea, kolektiboa, araubide librekoa, sustatzaileak zuzenean eskainia, akabera maila arruntekoa eta 60 eta 90 m-2ko bitarteko azalerakoa*
Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Higiezinen Eskaintzari buruzko Estatistika.

Bestalde, 2007. urtearen amaieraz geroztik, oso bolumen txikietan bada ere, babes erregimenen bat daukaten bestelako etxebizitza tipologiak hasi ziren agertzen: babes ofizialeko etxebizitza tasatuak eta udal etxebizitza tasatuak. Etxebizitza horiek etxebizitza babestuak baino zerbait garestiago eskaintzen dira, baina etxebizitza librearen preziora iritsi gabe. Ez dago haien prezioen informazio zehatz eguneraturik.

(b) Etxebizitza erabilia

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailaren datuetan ikusten dugu 2016an guztira bigarren eskuko 29.809 etxebizitza eskaintzen direla, aurreko urtean baino %9,1 gutxiago. Etxebizitza horiek ondoko banaketa daukate lurraldez lurralde: Bizkaian %54,5, Araban %25,1 eta Gipuzkoan gainerako %20,4.

EAEko bigarren eskuko etxebizitza salgaien batez besteko prezioa 2.778,9 /m2 zen 2016an, aurreko urtean erregistratutako batez bestekoa baino %4,9 gutxiago. Lurraldeka, Bizkaian eta Araban batez bestekoak baino jaitsiera handiagoa izan dute prezioek (%-3,9 eta %-84,3 hurrenez hurren); Gipuzkoan, berriz, %7,5 jaitsi dira. Ondorioz, hona hemen prezioak: Bizkaiko 2.900,7 €/m^2-tik Arabako 2.417,9ra. Gipuzkoan, berriz, bitarteko posizioan dago, batez beste 2.879 €/m^2. Etxebizitzako prezioetan, EAEko batez bestekoa 238.60€ da (-%3 2015ekoaren aldean; urtea hartan batez besteko prezioa 246.000€ zen): handiena Bizkaian, 258.600€, eta txikiena Araban, 198.100. Gipuzkoa beste bien artean dago berriro ere: 233.600 euro etxebizitza bakoitzeko.

IV.5.3. TAULA. SALGAI DAUDEN ETXEBIZITZA ERABILIAK, BATEZ BESTEKO PREZIOA M² BALIAGARRI BAKOITZEKO (€) ETA BATEZ BESTEKO PREZIOAK (MILA €), LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA.

	EAE			ARABA			BIZKAIA			GIPUZKOA		
	Kop.	Prezioa m²	Prezioa /etxebiz	Kop	Prezioa m²	Prezioa/etxeb	Kop	Prezioa m²	Prezioa/etxebiz.	Kop	Prezioa m²	Prezioa/ etxeb.
2010	18.184	3.891,0	330,3	4.526	3.368,2	272,7	9.085	3.752,3	325,6	4.574	4685,5	398,5
2011	29.882	3.841,6	340,2	5.500	3.232,8	269,1	16.006	3. 766,4	344,3	8.376	4.395,3	379,4
2012	26.985	3.564,7	309,5	4.571	2.960,7	242,2	16.626	3.600,3	314,2	5.788	3.966,0	352,4
2013	23.636	3.171,7	271,8	4.672	2.713,2	220,8	13.688	3.243,3	285,2	5.276	3.420,7	286,5
2014	33.024	3.058,2	251,1	6.974	2.611,6	207,9	19.062	3.165,4	264,6	6.988	3.192,6	255,2
2015	31.991	2.922,9	246,0	7.677	2.527,2	204,6	17.323	3.017,9	261,2	6.991	3.111,5	253,3
2016	29.089	2.778,9	238,6	7.303	2.417,9	198,1	15.856	2.900,7	258,6	5.930	2.879,0	233,6
% 14/15	-3,1	-4,4	-2,0	10,1	-3,2	-1,6	-9,1	-4,7	-1,3	0,0	-2,5	-0,8
% 15/16	-9,1	-4,9	-3,0	-4,9	-4,3	-3,2	-8,5	-3,9	-1,0	-15,2	-7,5	-7,8

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Higiezinen Eskaintzari buruzko Inkesta.

5.1.2. Alokairuko araubidea

2016ko laugarren hiruhilekoari buruzko higiezin eskaintzaren inkestaren arabera, 1.398 etxebizitza eskaini dira alokairurako, aurreko urtean baino %20,1 gutxiago. Libreei dagokienez (eskaintzaren % 72) % 35,9 txikitu da: 1.570 etxebizitzatik 1.006 etxebizitzara; alokairuko etxebizitza babestuek, aldiz, % 119,5 egin dute gora. Beraz, babesturiko alokairuak gora egin du 2015eko % 10,2tik 2016ko % 28ra.

IV.5.4. TAULA. ESKAINITAKO ALOKAIRUKO ETXEBIZITZA LIBREAK ETA HILEKO BATEZ BESTEKO ERRENTA. €.

	Etxebizitzak				Hileko errenta (€)			
	EAE	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
2010	1.215	226	767	222	921,5	827,6	923,8	1.004,9
2011	1.602	413	797	392	896,3	830,7	882,3	993,8
2012	2.013	332	1.233	448	856,0	790,3	865,8	879,7
2013	1.974	251	1.383	340	825,4	743,9	838,8	821,6
2014	2.505	178	1.885	442	844,7	729,4	861,0	818,5
2015	1.570	168	1.124	278	871,1	740,4	880,1	911,5
2016	1.006	69	770	167	879,9	773,8	889,4	868,6
% 14/15	-37,3	-5,5	-40,4	-37,2	3,2	1,5	2,2	11,4
% 15/16	-35,9	-59,0	-31,5	-39,8	0,9	4,5	1,1	-4,7

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Higiezinen arloko eskaintzari buruzko estatistika.

Alokairuko etxebizitza babestuen batez besteko errenta (aldatu egiten da etxebizitzen pertsona esleipendunen diru-sarreren arabera) asteko 268€-koa izan zen 2016an, aurreko urtean baino %22,4 gutxiago.

Bestetik, 2016ko laugarren hiruhilekoan alokairurako eskainitako etxebizitza libreen lagina, esan dugunez, 1.006 unitatekoa zen. Lurralde banaketa honelakoa da: Bizkaian %76,5, Araban %6,8 eta gainerako %16,6 Gipuzkoan.

IV.5.5 TAULA EAEn ALOKAIRURAKO ESKAINITAKO ETXEBIZITZEN ERRENTAREN BILAKAERA. (€/H).

	MERKATU BABESTUA	MERKATU LIBREA
2010	204,0	921,5
2011	279,2	896,3
2012	345,1	856,0
2013	333,1	825,4
2014	326,3	844,7
2015	345,2	871,1
2016	268,0	879,9
% 14/15	5,8	3,1
% 15/16	-22,4	0,9

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Higiezinen eskaintzari buruzko estatistika.

Batez bestez, partikularrenak diren eta higiezin jabetzaren agenteen bidez alokatzeko eskaintzen diren etxebizitzek hilean 879,9 euroko errenta zeukaten 2016an, aurreko urtean baino %0,9 gehiago beraz. Lurralde historikoen arabera, Bizkaiak du preziorik altuena (889,4 € hilean); ondoren Gipuzkoak, 868,7 € hilean, eta azkenik Arabak (773,8€ hilean). Eboluzioa aztertuta ikusten denez, bereziki igoera handia dago Araban (%4,5) eta neurri txikiagoan Bizkaian (+%1,1). Gipuzkoan, berriz, %4,7 egin du behera batez besteko errentak.

5.1.3. Etxebizitzaren prezioen erkaketa, autonomia erkidegoen arabera

EIN 2008an hasi zen "Etxebizitzaren Prezioen Indizea"; (EPI) egiten. Hiru hilean behingo adierazle horrek, 2007ko oinarriarekin, prezio libreko etxebizitzen (berriak nahiz bigarren eskukoak) salerosketa prezioen mailaren bilakaera neurtu nahi du denboran. EPI Europar Batasunaren estatistika harmonizatuen produkzioaren eremuan planteatutako informazio eskaerari dagokio; beraz, haren helburuetako bat estatu kideak alderatzeko tresna izatea da, etxebizitza

librearen prezioen bilakaerari dagokionez. Horren eremutik kanpo daude, hortaz, etxebizitza babestuak, haien prezioak araututa daudelako eta ez direlako merkatuaren ohiko mekanismoen bidez arautzen.

EPIk Notariotzaren Kontseilu Nagusiak Ziurtapeneko Notariotza Agentziaren bidez emandako datu-baseetatik datorren informazioa erabiltzen du. Administrazio erregistroak erabiltzeak ahalbideratzen du, batetik, biztanleria osoaren informazio osoa edukitzea. Horrela, ez dago laginketa-teknikarik erabili beharrik; bestetik, salerosketako eragiketa ororen informazioa, sortzen den unean, indizearen kalkuluan sartzea ahalbideratzen du, eta hori funtsezkoa da koiuntura-adierazlea izan nahi duen indize batentzat.

IV.5.6. TAULA. ETXEBIZITZAREN PREZIOEN INDIZEA: LAU HIRUHILEKOETAKO URTEKO ALDAKUNTZA-TASAK.

	2013	2014	2015	2016
ESTATUKO B.B.	-7,8	1,7	4,2	4,5
ANDALUZIA	-6,3	1,8	3,0	2,1
ARAGOI	-12,5	0,1	0,7	2,3
ASTURIAS	-11,5	-0,3	1,3	1,9
BALEARS, ILLES	-3,7	0,7	7,0	5,7
U. KANARIARRAK	-6,8	0,5	3,6	3,3
KANTABRIA	-4,6	1,8	2,0	2,3
GAZTELA ETA LEON	-13,2	0,8	0,9	0,8
GAZTELA MANTXA	-14,9	0,4	2,1	0,0
KATALUNIA	-7,2	2,2	5,9	7,4
VALENTZIAKO E.	-6,4	2,8	3,0	1,7
EXTREMADURA	-15,7	-0,7	2,6	0,8
GALIZIA	-10,9	1,0	1,7	2,1
MADRIL	-6,5	2,9	7,3	9,0
MURTZIA	-13,8	2,7	1,8	0,7
NAFARROA	-13,2	-4,2	1,8	1,9
EAE	**-5,3**	**0,0**	**1,7**	**1,2**
ERRIOXA	-11,6	0,2	1,5	0,3
CEUTA	-5,9	1,0	6,3	5,1
MELILLA	-10,2	1,3	5,7	3,2

Iturria: EIN eta EPI.

Inkestako emaitzek erakusten dutenez, prezioek 2008-2013 epealdian behera egin ostean, neurri desberdinekin, 2014an lehen igoerak izan ziren Estatu mailan (+%1,7 batez beste), eta bilakaera askoz orekatuagoa da EAEn (izan ere, aldakuntza nulua izan zen). 2015ean, erkidego guztiek izan zituzten tasa positiboak, eta aurreko urtekoak baino handiagoak (+%1,7 EAEn).

2016an, EAEk %1,2ko aldakuntza du, Estatuko batez bestekoaren azpitik (%4,5). Hona hemen muturreko balioak: Gaztela-Mantxako nulu hazkundetik Madrilgo +%9ko edo Kataluniako +%7ko hazkundera.

5.1.4. Eraikuntza eta etxebizitza

Lehenik eta behin, Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitzaren Behatokiak jakinarazi duenez, EAEn ***hasitako etxebizitzen*** guztizko kopurua negatibo bihurtu zen 2011 eta 2012ko bi urtekoan, hazkunde nabarmena izanik, 2008an eta 2009an igoera handia izan ondoren. 2012an, ordea, %40,8 egin zuen behera hasitako etxebizitzen kopuruak, eta joera horri eutsi zitzaion 2013an (-%23,1%, neurri txikiagoan 2014an (-%4,5) eta intentsitate handiagoarekin 2015ean (-%13,7). Azken urte horretakoa dugun azken datua. Hasitako etxebizitzetatik %66 libreak ziren eta %34 babestuak.

Badakigu zein diren hasitako etxebizitza babestuei buruzko 2016ko zifrak (ez dago merkatu libreari buruzko informaziorik): guztira 1.214 hasi ziren, 2015ean baino %12,3 gehiago. 2010ean izan ezik, hasitako etxebizitza babestuak behera egin zuen 2007tik 2015era, eta berriz ere gora egin zuen azken urte horretan.

IV.5.7. TAULA. ERAIKUNTZA EAE-N: HASITAKO ETA BUKATURIKO ETXEBIZITZAK

	HASITAKO ETXEBIZITZAK			BUKATURIKO ETXEBIZITZAK		
	LIBREA	BABESTUA*	GUZT.	LIBREA	BABESTUA	GUZT.
2011	4.804	3.645	8.449	5.851	5.473	11.324
2012	2.743	2.263	5.006	4.757	3.835	8.592
2013	2.029	1.821	3.850	3.994	1.842	5.836
2014	2.181	1.496	3.677	2.560	2.440	5.000
2015	2.094	1.081	3.175	3.611	1.957	5.568
2016	:	1.214	:	1.869	1.643	3.512
% 14/15	-4,0	-27,7	-13,7	41,1	-19,8	11,4
% 15/16	:	12,3	:	-48,2	-16,0	-36,9

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Etxebizitzaren Behatokia.
** Etxebizitza babestuen figura berriak sartzen dira hemen: etxebizitza tasatuak eta dotazio alojamenduak.*

Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Plana 2006-2009 abian jarri zenetik, etxebizitza babestuen merkatuan figura berriak sortu dira. Horrek ekarri du, oraingoz, dotazio alojamenduak eraikitzen hastea 2006az geroztik, 2007az geroztik udal etxebizitza tasatuak (saltzeko eta alokatzeko) eta 2009az geroztik etxebizitza autonomiko tasatuak. 2015ean (informazio osoa dugun azken urtea), ez zen zuzkidura-alojamendurik edo alokairuko udal etxebizitza tasatuen eraikuntzarik hasi. Jabetzapeko udal etxebizitza tasatuen eraikuntza, ordea, abian da (153 orotara, 2014an baino 108 gehiago), baita Eusko Jaurlaritzaren kalifikazioaren peko etxebizitzetan, 619 BOE (-%54,4 2014aren aldean), 185 etxebizitza sozial (bat ere ez 2014an) eta 125 etxebizitza tasatu (40 izan ziren 2014an).

Bestalde, EAEn 2016an ***amaitutako etxebizitzak*** 3.512 dira, aurreko urtean baino %36,9 gutxiago, amaitutako etxebizitza libreen beherakadaren (-%48,2) eta babestutakoen beherakadaren (-%16) baturaren emaitza gisa. Horren ondorioz, aurten murriztu egin da etxebizitza babestuak EAEko eraikuntzako jardueran duen partaidetza, zeren eta bukaturiko etxebizitzen artean behera egin baitzuen, %35,5etik %46,8ra.

IV.5.8. TAULA. EAE-N HASITAKO ETXEBIZITZEN BILAKAERA, MOTAREN ARABERA.

	EJ-REN KALIFIKAZIOAREN PEAN DAUDENAK			EJ-REN KALIFIKAZIOA EZ DUTENAK			GUZT.
				ZUZKIDURA-ALOJAMEND.	UDAL ETXEBIZITZA TASATUAK		
	BOE	SOZIALAK	TASAT.		ALOKAIRUA	JABETZAN	
2011	3.113	101	81	110	0	240	3.645
2012	1.718	60	304	177	0	4	2.263
2013	1.361	153	208	47	0	52	1.821
2014	1.356	0	40	55	0	45	1.496
2015	618	185	125	0	0	153	1.081
2016	**797**	**28**	**159**	**:**	**:**	**:**	**:**

Iturria: Geuk Egina EUSKO JAURLARITZAREN datuekin. Etxebizitzaren Behatokia.

Bestalde, Etxebizitzaren Euskal Behatokiak 2015Eko laugarren hiruhilekoko bere "*Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko estatistika*"-n nabarmentzen duenez, finkatu egin da aurten eraikuntzako obren tipologien joeraren aldaketa, gero eta gehiago birgaikuntzara bideratuta, krisia hasi zenetik ikusi izan denez.

IV.5.9 TAULA. EAE-KO OBRA NAGUSIEN LIZENTZIA KOPURUAREN BILAKAERA, MOTAREN ARABERA

	GUZT.L	BERRIA	BIRGAIKUNTZA	ERAISPENA
2010	2.602	675	1.863	64
2011	2.883	660	2.174	49
2012	2.380	447	1.909	24
2013	2.145	351	1.746	48
2014	2.585	390	2.133	62
2015	2.744	444	2.240	60
2016	**3.145**	**518**	**2.567**	**60**

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Azterlana.

2016an, EAEko udalek, guztira, obra nagusiko 3.145 lizentzia eman zituzten (etxebizitza berrietako, birgaikuntzako eta eraispeneko lizentzien batura), 2015ean baino %14,6 gehiago. 2016ko 3.145 lizentzietatik %16,5 etxebizitza berrietarako lizentziei dagokie, %1,9 eraispenari eta %81,6 eraikinak birgaitzeko dira (2015eko ratio bera), hots, 10etik 8. 2003. urtea baino lehenagoko urteetan, berriz, ez ziren lizentzia guztien %50era iristen.

IV.5.10. TAULA. EAE-KO OBRA NAGUSIEN LIZENTZIA KOPURUAREN BILAKAERA, MOTAREN ETA LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA. 2013-2016.

		2013	2014	2015	2016*
EAE	**GUZTIRA**	**2.145**	**2.585**	**2.744**	**3.145**
	BERRIA	351	390	444	518
	BIRGAIKUNTZA	1.746	2.133	2.240	2.567
	ERAISPENA	48	62	60	60
ARABA	GUZTIRA	691	693	718	:
	BERRIA	110	113	129	137
	BIRGAIKUNTZA	565	558	572	659
	ERAISPENA	16	22	17	:
BIZKAIA	GUZTIRA	1.062	1.404	1.449	:
	BERRIA	150	179	178	243
	BIRGAIKUNTZA	891	1.203	1.244	1.380
	ERAISPENA	21	22	27	:
GIPUZKOA	GUZTIRA	392	488	577	:
	BERRIA	91	98	137	138
	BIRGAIKUNTZA	290	372	424	528
	ERAISPENA	11	18	16	:

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Azterlana.
** Ez dakigu zelan dauden banatuta 2016an eraispenerako 60 lizentziak.*

Lurraldeen arabera, eraikuntza berrietarako eta birgaikuntzetarako lizentzien batura dela esan behar da, zeren eta ez baitugu 2016an EAEn eraispenerako eman diren 60 lizentzien banakapenaren berria. Urte horretan, bereziki Gipuzkoako hazkundea nabarmentzen da (+%18,7koa eta EAEko batez bestekoa +%14,9 da); Bizkaia eta Araba, berriz, hazi egin dira, baina batez bestekoaren azpitik (+%14,1 eta +%13,6 hurrenez hurren).

2006-2016ko epealdian gertaturikoa hartzen badugu kontuan, %13,1 murriztu da obra nagusiko lizentzia kopurua, eta etxebizitza berriak eraikitzeko lizentzien jaitsiera nabarmentzen da: %68,7 egin du behera. Bigaren tokian, eraispenekoak, %41,2 jaitsi dira. Zaharberrikuntzarako lizentziek, berriz, %37,9 egin zuten gora.

5.2. ETXEBIZITZA ESKARIA

5.2.1. Etxebizitza beharrak eta eskaria 2015ean

a) Eskuratzeko beharra

Gurasoekin edo tutoreekin bizi diren 18-44 urteko pertsonek lehenbiziko etxebizitza eskuratzeko duten beharrari buruzko hurbilketan, hauxe egiaztatu du Eusko Jaurlaritzaren 2015eko "Etxebizitzaren beharrei eta eskariari buruzko inkesta"-n (EBEI): etxebizitza eskuratzeko prozesua finantzatzen pentsatzeko adinako diru-sarrerak dituzten 72.836 pertsonak adierazten dutela behar hori. 2013aren aldean, %11,5 igo da kopuru hori; aurreko inkestetan beherakada nabarmenak izan zituen: %25,9 2011 eta 2013 bitartean eta %18,5 2010 eta 2011 bitartean.

IV.5.11. TAULA. EAE-N LEHEN ETXEBIZITZA ESKURATZEKO BEHARRAREN BILAKAERA (BEREN GURASOEKIN EDO TUTOREEKIN BIZI DIREN 18-44 URTEKOAK)

	2011		2013		2015	
	KOP.	% BERT.	KOP.	% BERT.	KOP.	% BERT.
ESKURATZEKO BEHARRA DUTENAK*	88.128	31,1	65.346	24,5	72.836	25,9
SARRERARIK GABEKOAKS	147.881	52,2	141.120	52,8	119.782	42,6
SARRERA EZ NAHIKOAK EDO EZEGONKORRAK	14.446	5,1	27.287	10,2	17.154	6,1
BADUTE ETXEBIZITZA	21.934	7,7	9.206	3,4	21.970	7,8
EZ DAGO BEHARRIK	7.815	2,8	14.100	5,3	33.243	11,8
BESTE EGOERA BATZUK	2.981	1,1	10.197	3,8	16.097	5,7
GUZTIRA, ELKARREKIN BIZI DIREN 18-44 URTEK.	**283.185**	**100,0**	**267.256**	**100,0**	**281.082**	**100,0**

** eta nahikoa sarrerekin*
Iturria: EUSKO JAURLARITZA. EBBI 2015.

IV.5.4. GRAFIKOA. LEHEN ETXEBIZITZA ESKURATZEKO BEHARRA: PORTZENTAJEA FAMILIA GUZTIEKIKO



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. EBEI 2015

72.836 pertsona talde hori gurasoekin edo tutoreekin bizi diren 18 eta 44 bitarteko pertsonen %25,9 da, baina pisu hori asko aldatzen da adinaren arabera (guztira 281.082): proportzioa %7,8 besterik ez da 25 urtetik beherakoen artean, eta %40,4raino igotzen da 25-34 urte bitartekoetan eta %30,9raino jaisten da 35-44 urte bitartekoetan. Sexuaren arabera, ratioa %25,4koa da emakumeentzat eta pixka bat handiagoa emakumeentzat eta pixka bat handiagoa gizonentzat, %26,3 hain zuzen ere.

Gurasoekin edo tutoreekin bizi eta beren diru-sarrerak edo errentak dituzten 18 eta 44 urte arteko pertsona guztiei dagokienez, guztira 161.300 dira (281.082 horietatik diru-sarrerarik gabeko 119.782 pertsona kenduta, ikusi IV.5.11), eta etxebizitza eskuratzeko taldea %72,3 da (%51,8 2013an). Alabaina, diru-sarrerak izan arren nahikoak edo egonkorrak ez dituzten diru-sarrerak dauzkaten pertsonak kentzen baditugu talde horretatik, taldean 144.146 lagun leudeke, guztizkoaren %51,3.

Egungo etxebizitza nagusi guztiei dagokienez (familiak), lehen bizitzaren beharrak gora egin du: 2013an %6,8 izatetik (59.318 etxebizitza) 2015ean %7,4 izatera (64.290). Beraz, 0,6 puntu hazi da, 2010 (2009an, berriz, daturik altuena bildu zen, %13,2) eta 2013 bitarteko jaitsierak izan ondoren.

Lurraldeen arabera, Bizkaiarekin eta Arabarekin lotzen da lehen etxebizitzaren beharraren igoera. Bizkaiko 18 eta 44 urte bitartekoek 34.949 etxebizitza behar dituzte, 2013an baino %16,7 gehiago, eta eskari hori etxebizitza nagusien parkearen %7,8 da. Bestalde, 18 eta 44 urte bitarteko arabarrei dagokienez, lehen etxebizitzaren gaineko eskaria ere handitu da horiekin ere. Hala, behar diren 8.362 etxebizitzetan %25,4ko hazkundea izan da 2013aren aldean, hots, bizitegien parkearen %6,3. Gipuzkoak, Araban eta Bizkaian ez bezala, igoera txikia izan da lehen etxebizitza behar duten 18 eta 44 urte bitartekoen biztanleria, zeren eta 2013an 22.707 izatetik 2015ean 20.979 izatera igaro baita (-%6,9). Lurralde horretan, behar diren lehen etxebizitzak etxebizitza nagusien parkearen %7,5 dira (%8,1 2013an).

IV.5.12. TAULA. EAE-N ETXEBIZITZA ESKURATZEKO BEHARRA DUTEN BZITANLEEN EZAUGARRIAK. 2011-2015. EHUNEKO BERTIKALAK, BEHARRA DUEN KOLEKTIBO OSOAN.

	2011	2013	2015
ADINA			
18 - 24	14,7	12,9	11,9
25 - 34	71,9	73,2	68,2
35 - 44	13,4	13,9	19,8
BATEZ BESTEKOA ADINA	*28,8*	*28,0*	*30,3*
SEXUA			
EMAKUMEA	48,1	48,6	42,5
GIZONA	51,9	51,4	57,5
IKASKETA MAILA			
IKASKETARIK EZ / OINARRIZK.	18,0	11,4	11,4
LANBIDE HEZIKETAK	26,0	32,5	35,2
BIGARREN MAILAKO IKASKET.	10,4	10,6	8,5
UNIBERTSITATE IKASKETAK	45,6	45,5	44,9
ERLAZIOA JARDUERAREKIN			
BERE KONTURA LAN EGIN	7,9	11,0	13,3
LANDUNA/FINKOA	69,1	44,1	37,7
LANDUNA/ALDI BATERAKO	14,6	36,6	44,7
LANGABEA	5,8	5,5	3,0
BESTE EGOERA BAT ETA /ED	2,6	2,9	1,3
EDUKITZE ARAUBIDEA			
JABETZA	52,0	36,7	22,6
ALOKAIRUA	17,8	38,7	55,0
BATA NAHIZ BESTEA	30,3	24,6	22,4

Iturria: Geuk Egina, EUSKO JAURLARITZAREN datuekin. EBI

Eskariari dagokionez, familiaren emantzipazioa aipatzen du %73,8k zio nagusi gisa, eta %24k, berriz, soilik bikotekidearekin bizitzearekin du lotura. Gainerako %2,2 lantokia tokiz aldatzearekin edo bestelako zioiekin dago lotuta.

Lehen etxebizitza eskatzen duten pertsonen profila aztertuta, talderik garrantzitsuena 25 eta 34 urte bitartekoen multzoan dago: %68,2. 35 eta 44 urte bitartekoei %19,8 dagokie eta 25 urtetik beherakoei, berriz, %11,9. Gizonezkoak eskatzaileen %57,5 dira, eta emakumeak %42,5. Ikasketa mailari dagokionez, %44,9k unibertsitateko titulua du, %35,2k lanbide ikasketak eta %8,5k bigarren mailakoak. Lehen mailako ikasketak dituztenak %11,4 dira.

Gainera, lehen etxebizitza eskatzen dutenek, kasuen %37,7an, inoren konturako lana eta kontratu finkoa dituzte, eta %44,7tik gora aldi baterako kontratua. Bere kontura lan egiten duten langileak %13,3 dira, eta %3 langabezian dago. Etxebizitza moten gaineko preferentziei dagokienez, %55ek alokairua lehenesten du. %22,6k, berriz, jabetza aukeratzen du.

Azkenik, nabarmentzekoa da ezen, diru-sarrerak dituzten 18 eta 44 urte bitartekoen beharrak gora egin badu ere 2013aren aldean, behar horri aurre egiteko nahikoa sarrera dituztela uste dutenen taldea beharra duten biztanle guztien %15 besterik ez dela. Talde nagusia sarrerak dituena da, baina uste dute sarrerak ez direla nahikoa edota egonkorrak prozesuari aurre egin ahal izateko (%54,9). Gainerako %30,1ak, berriz, ez du sarrerarik. Sarrerak urri dituen taldean, nahikoak eta egonkorrak ez diren sarrerak dituztenak nabarmentzen dira (%25,8), eta ondoren sarrera egonkorrak bai baina nahikoak ez diren sarrerak dituztenak (%21,2). Gainerako %7,9ak sarrera nahikoak baditu baina ez dira egonkorrak denboraren aldetik.

b) Aldaketa beharra

2015. urtean, 53.132 euskal familiak zioen etxebizitza aldatu beharra zuela, guztizkoaren %6,2k. Hots, %1,38ko jaitsiera 2013aren aldean. Izan ere, urte horretan guztizkoaren %7,1 ziren etxebizitza horiek. Epe luzerako ikuspegiaren arabera, 2005etik izandako mailarik handienetako batean kokatzen da 2015eko beharraren indizea, baina denboran gertaturiko bilakaera oso irregularra izan da.

IV.5.5. GRAFIKOA. EAE-N ETXEBIZITZA ALDATZEKO BEHARRAREN BILAKAERA



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. EBEI 2015

Lurraldeen arabera, gorako joera nagusi da Araban eta Gipuzkoan. Gipuzkoa da etxebizitza aldatu beharra gehien handitu den lurraldea: 2013an 11.521 etxebizitza ziren eta 2015ean, berriz, 17.784 (guztizkoaren %6,3), eta etxebizitzen igora %54,4 da. Eta Araban ere goranzko joera izan arren, hazkunde txikiagoa da: Beharra duten 8.818 familia izatetik 2013an 9.307 familia izatera 2015ean, hots, +%5,5, eta 2015ean %7,1ko behar-razioa zen, EAEko handiena hain zuzen ere. Bestalde, Bizkaiaren beharrak behera egin du: 2013an 41.283 etxebizitza izatetik 26.042 izatera 2015ean (-%36,9), hots, %5,8ko ratioa 2013ko %9aren aldean.

Etxebizitza aldatu behar duten 53.132 familietatik, %28,5ek baino ez du aurreikusten (16.540) hurrengo urtean aldaketari aurre egiteko moduan egotea, hots, 8 puntuko igoera 2013ko %20,5aren aldean. Gainera, familien % 44k bi urte epean etxebizitza aldatzeko dela adierazi du (25.508 familia) eta gainerako %64,6ak ez du uste 4 urte baino lehen aldaketa egiteko moduan izango denik.

IV.5.13. TAULA LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA EAEN ETXEBIZITZA ALDATZEKO BEHARRA KUANTIFIKATZEA

	ETXEBIZITZAK		BEHARRAREN INDIZEA	
	2013	2015	2013	2015
ARABA	8.818	9.307	6,6	7,1
BIZKAIA	41.283	26.042	9,0	5,8
GIPUZKOA	11.521	17.784	4,1	6,3
EAE	**61.621**	**53.132**	**7,1**	**6,2**

Iturria: GOBIERNO VASCO. ENDV 2015.

Etxebizitzaren tamaina desegokia da orain ere etxebizitza aldatzeko arrazioa; izan ere, hala aipatzen du %32,4k, eta ondoren irisgarritasuna (%17,1) eta egoera txarra (%11,8). Ondoren, alokairu merkeagoa bilatzea (%9,8) eta egungo etxebizitzaren kokapen txarra (%7,6); horiexek dira arrazoirik ohikoenak.

c) Birgaikuntza beharra

EBEIren zenbatespenen arabera, 58.017 euskal familiak behar dute etxebizitza birgaitzeko jarduketa 2015ean. Hala, magnitude hori EAEko famili etxebizitza parkearen %6,7 da. Bilakeraren aldetik, etxebizitza birgaitzeko beharrak behera egin zuen 2013aren aldean, bai familien bolumenean (-%35,6), bai behar horren intzidentzia erlatiboan (-3,6 puntu portzentual gehiago). Epe luzeari begira, etxebizitza birgaitzeko beharra duten familien ehunekoaren beheranzko joera berriz nagusitu dela esan nahi du, 2009tik hasitako joera hain zuzen (urte horretan, birgaikuntza behar zuten etxebizitzen gehieneko kopurua erregistratu zen: 142.099 etxebizitza), 2013an unean uneko hazkundearen ondotik.

IV.5.14. TAULA. LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA EAEN ETXEBIZITZA BIRGAITZEAREN BEHARRA KUANTIFIKATZEA

	ETXEBIZITZAK		BEHARRAREN INDIZEA	
	2013	2015	2013	2015
ARABA	18.132	6.684	13,5	5,1
BIZKAIA	44.499	27.612	9,7	6,1
GIPUZKOA	27.508	23.720	9,8	8,4
EAE	**90.139**	**58.017**	**10,3**	**6,7**

Iturria: GOBIERNO VASCO. ENDV 2015.

Lurraldeen araberako azterketak agerian uzten duenez, Arabak garrantzia du etxebizitzaren beharrean 2015ean izandako beherakadan, zeren eta horrelakoa behar duten Arabako familien kopurua %63,1 murriztu baita 2013 eta 2015 bitartean. Hala, behar erlatiboaren indizerik txikiena duen lurraldea da, %5,1a. Bizkaian eta Gipuzkoan, berriz, %6,1 eta %8,4 dituzte hurrenez hurren. Bizkaian behera egin du birgaitu beharreko etxeen kopuruak, batez bestekoaren azpitik (-%37,9 2013aren aldean); Gipuzkoan, berriz, %13,8ko jaitsiera izan da. Hala, birgaikuntza beharra minimoetan kokatzen da 2005etik hona hiru lurraldeetan.

IV.5.6. GRAFIKOA. EAE-N ETXEBIZITZA BIRGAITZEKO BEHARRAREN BILAKAERA



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. EBEI. 2015

IV.5.7. GRAFIKOA. EAE-N BEHARRA DUTEN ETXEBIZITZETAN BEHARREZKOA DEN BIRGAIKUNTZA MOTAREN BILAKAERA



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. EBEI. 2015

Beharrezko birgaikuntzaren ezaugarriei dagokienez, familien erdiarentzat gutxi gorabehera (%44,3), familia-etxebizitzetako elementu pribatuak dira beharraren ardatza (komunak, lurra, berokuntza instalazioa, leihoak aldatzea, etab.). %25ek etxebizitzaren barruan nahiz eraikineko eremu komunetan egin behar ditu birgaikuntza lanak, eta gainerako %30a soilik eraikineko eremuetako birgaikuntzari dagokio.

Bilakaeraren aldetik, elementu komunetan nahiz etxebizitzan bertan berrikuntza behar duten birgaikuntza nabarmentzen da: 2007an %15 izatetik 2015ean %25 izatera.

5.2.2. Familien finantza-ahalegina

EAEko familiek etxebizitzak ordaintzeko egin behar duten finantza-ahaleginari dagokionez, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitzaren Behatokiak erakutsi du, Higiezinen Erregistro Estatistikako datuak erabilita, finantza-ahalegin hori hileko batez besteko hipoteka kuotaren eta soldata kostuaren arteko harremanaren ikuspuntutik aztertuz gero, % 26,88koa izan da 2016ko laugarren hiruhilekoan, hau da, aurreko urtean baino 2,72 puntu portzentual gutxiago ditu.

IV.5.8. GRAFIKOA. BATEZ BESTEKO HIPOTEKA-KUOTAREN ETA EAE-KO SOLDATEN ARTEKO ERLAZIORAEN BILAKAERA EAE-N ETA ESTATUAN. IV. HIRUHILEKOAK. DATUAK EHUNEKOETAN



Iturria: JABETZAREN ERREGISTRATZAILEEN ELKARGOA. Higiezinen Erregistroko Estatistika

Estatu mailan, ibilbide orekatuagoa da: ahalegin hori batez besteko soldata kostuaren %27,60 zen 2016ko amaieran. 2015eko laugarren hiruhilekoan, berriz, %28,29 zen (-0,6 puntu portzentual), eta beheranzko joera du 2013tik.

5.2.3. ETXEBIDEn erregistraturiko etxebizitza babestuaren eskaria 2015

Etxebizitzaren Euskal Behatokiak bere "*Etxebizitzaren Euskal Zerbitzuaren (ETXEBIDE) ebaluazioari buruzko txostena*" delakoak erakusten duenez, egonkor eutsi zitzaion zerbitzu horretan 2015ean erregistraturiko etxebizitza babestuaren eskariari EAEn (inskribaturiko eskabideen kopurua %0,8 murriztuta), 2014an jaitsiera izan ondoren (-%37,6), hain zuzen ere eskabidea bi urterik behin berritu beharra dakarren Agindua 2013an indarrean sartu izanaren ondorioz.

Zehazkiago, Eusko Jaurlaritzaren etxebizitza babestuaren eskatzaileen erregistroan zenbatu denez, 2015eko amaieran 53.620 eskabide inskribatu ziren EAEn, Araban espediente kopuruak behera egin izanaren ondorioz (-%3,4) eta, gutxiago, Bizkaian (-%0,7). Gipuzkoan, berriz, %0,1eko igoera izan da. Hortaz, Bizkaiak eskabideen %55,7 du, Gipuzkoak %31,5 eta Arabak %12,5. [53]

IV.5.9. GRAFIKOA. ETXEBIDEN INSKRIBATURIKO BIZTANLERIAREN BANAKETA ADINAREN ARABERA. 2015.



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. ETXEBIDE

Bestalde, Etxebiden 2015eko 53.620 eskabideetan 65.792 lagun zeuden inskribaturik, hots, %1,3ko jaitsiera 2014an inskribaturik zeuden 66. 629 lagunen aldean.

Etxebiden inskribaturiko pertsona-taldearen ezaugarrien azterketa ardatz hartuta eta haien diru-sarreren mailari erreparatuta ikusten denez, EAEko etxebizitza babestuaren eskariaren %48,7K 12.000 eta 25.000 euro bitarteko urteko

[53] *%0,3 lurraldea esleitu barik.*

diru-sarrera haztatuak ditu. Bestalde, %22,2k 12.000 eurotik beherako diru-sarrera maila du, eta %9,9k 25.000 eurotik gora. Halaber, %19,2k ez du diru-sarrerarik edo ez ditu egiaztatu.

Eskaturiko etxebizita motari dagokionez, inskribaturiko biztanleriak alokairua edo erosketa aukeratu behar du 2013tik hona, eta alokairuko etxebizitzan 42.193 eskabide zenbatu dira (%78,7) eta 11.427 jabetzako etxebizitzan (%21,3). Bilakaeraren aldetik, azken urtean nabarmentzekoa da berriz ere egin duela gora alokairuko etxebizitzaren eskariak (+5,4 puntu azken urtean, eta +20,2 2013. urtetik, noiz-eta "bata zein bestea" eskaria egiteko aukera desagertu zenean) jabetzapeko etxebizitzaren aldean. Eta 2006-2015 aldian gertaturikoa kontuan hartzen badugu, alokairuaren aukera hondarrekoa izatetik (%23,7) gaur egun aukera nagusia izatera igaro da, hots, hirukoiztu egin da pisua.

IV.5.10. GRAFIKOA. EAE-KO ETXEBIZITZA BABESTUAREN ESKARIAREN BILAKAERA LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA: ETXEBIDEN INSKRIBATURIKO ESKABIDEAK



Iturria: Geuk egina Etxebizitza Sailaren datuekin. EUSKO JAURLARITZA

IV.5.11. GRAFIKOA. ETXEBIDEN INSKRIBATURIKO PERTSONEK ESKATURIKO ETXEBIZITZA MOTAREN BILAKAERA



Iturria: ETXEBIDE. EUSKO JAURLARITZA.
**2013tik hona alokairua edo erosketa aukeratu behar da*

Inskribaturiko pertsonen adinari dagokionez, betidanik gazteak nagusi izan badira ere, gaur egun %45ek 40 urte baino gehiago ditu. 30 urtetik beherakoak, berriz, %16,5 dira.

Lan-egoera dela-eta, eskatzaileen %38,4 lan-kontratu finkoarekin ari dira lanean, eta %5,3k bere kontura egiten du lan. Gainera, %18,3k dio langabezian dagoela, eta %30ek aldi baterako lana dauka.

IV.5.15. TAULA. ETXEBIDEN INSKRIBATURIKO BIZTANLEEN EZAUGARRI SOZIODEMOGRAFIKO NAGUSIAK. 2015.

		2013	2015
SEXUA	EMAKUMEA	55,1	51,9
	GIZONA	44,9	48,1
	GUZTIRA	100,0	100,0
SARRERA	SARRERAK FROGATU BARIK	10,5	19,2
	GEHIENEZ 9.000 €	20,1	22,2
	9.001 - 25.000 €	52,8	48,7
	25.001 - 39.000 €	14,6	8,7
	39.001 - 50.000 €	2,0	1,1
	50.000 € BAINO GEHIAGO		0,1
	GUZTIRA	100,0	100,0
LAN EGOERA	BERE KONTURA LANEAN	8,0	5,3
	LANDUNA/FINKOA	40,8	38,4
	LANDUNA/ALDI BATERAKOA	21,6	30,0
	LANGABEA	25,5	18,3
	BESTE EGOERA BAT	3,6	8,0
	GUZTIRA	100,0	100,0

Iturria. ETXEBIDE.EUSKO JAURLARITZA.

5.2.4. Atzerritarrak eta etxebizitza. 2015eko txostena

2016an, Etxebizitzaren Euskal Behatokia EAEko atzerritarrei eta etxebizitzari buruzko txosten diagnostikoa egin zuen, gehienbat 2014ko "*EAEko Atzerritarrei buruzko Inkesta*" delakoaren datuak hartuta, baita Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailaren etxebizitza babestuaren eskariaren erregistroko datuak ere.

Lehenik eta behin, Atzerritarren Inkesta oinarri hartuta, badakigu zein den Euskadin bizi diren atzerritarrek etxebizitza edukitzeko modu nagusia: alokairua. 2014an, atzerritarren %58,9 alokairuko etxebizitzen bizi ziren, hots, 2010eko Inkestan ikusitako antzeko ratioa; urte hartan %60,2 zen. Alderantziz, etxebizitza jabetzan dutenak oso gutxi dira atzerritarren artean eta, gainera, nabarmen egin du behera ratioak 2010 eta 2014 bitartean: %25,8 izatetik %19,9 izatera[54]. Eta %19,9 horretatik %7,2k etxebizitza guztiz ordainduta du. **%12,7k**, berriz, etxebizitzaren hipoteka ordaintzen du.

Baldin eta alokairua eta hipoteka ordaindu behar ditzuzten taldeei (%58,9 eta %12,7 hurrenez hurren) etxebizitza partekatua duten %13,5 gehitzen badiegu, hona hemen emaitza: atzerritarren %85ek hilero ordaindu behar izaten du etxebizitzagatik. Hileko batez besteko gastua, 2014an, 518,89€ zen, 2010ean baino %15,5 gutxiago. Eta jabetzapeko etxebizitzaren zati bat ordainduta dutenek (613,26€) alokairuan bizi direnek baino ordainketa handiagoari egin behar diote aurre (551,22€). Kasu biotan, batez besteko gastu horiek gutxitu egin dira 2010aren aldean, %15,1 eta %9,6 hurrenez hurren.

IV.5.12. GRAFIKOA. ATZERRITARRAK EAE-N: EETXEBIZITZAN EGINIKO BATEZ BESTEKO HILEKO GASTUA (€), EDUKITZE ARAUBIDEAREN ARABERA. 2010-2014



Iturria: ETXEBIZITZAREN EUSKAL BEHATOKIA

Nabarmena da etxebizitza ordaintzeko gastuaren garrantzia atzerritarren batez besteko sarreren mailarekin erkatuz gero. Hala, 2014an, atzerritar jatorriko biztanleen per capita hileko batez besteko sarrera 795,91€ ingurukoa zen (-%7,8 2010aren aldean). [55] Egoera horretan, atzerritar jatorriko 3 lagunetik bat (%35,1) etxebizitzarekin loturiko oinarrizko diru-beharrei aurre egiteko zailtasunak dituzten etxeetan bizi da, eta proportzio hori handitu egin da 2010etik. Izan ere, urte horretan %29,7 zen.

Etxebizitzaren egoerari eta ekipamenduei dagokienez, aipaturiko zailtasun ekonomikoetatik harago, azterlanak erakusten duenez, etxebizitzen egoera ez da eskasa, ezta etxebizitzetako instalazioen eta ekipamenduen egoera ere, atzerritarren artean. Badirudi alde bakarra nabarmentzen dela: askorentzat etxebizitzaren tamaina nahikoa ez izatearen inguruko arazoak (%25,3) eta, gutxiago, isolamendu, arrakala, iragazpen, itogin, eta abarrek eragindakoak (elkarrizketaturiko atzerritarren %10,7k aipatu ditu horrelako arazoak). Gainera, nabarmentzekoa da atzerritarrek euren etxebizitzaren egoerarekin duten gogobetetasun maila nabarmena, zeren eta %59,2k uste baitu egoera onean bizi direla, eta %31,3ren ustetan, etxebizitzaren maila onargarria da baina hobetu daiteke.

[54] *Gainerakoa, %100 egin arte, doan bizi da (%7,6), edo "infraetxebizitza" deritzonean bizi da (%0,1).*

[55] *Kopuru horiei buruzko argibide gehiago nahi izanez gero, irakurri memoria honetako I. kapituluko ("I. Demografia EAEn") 2.3. atala, Euskadin bizi diren atzerritarren bizi-baldintzei buruzkoa.*

EAEn bizi diren atzerritarrek etxebizitzaren aldetik dituzten beharrei dagokienez, Behatokiak nabarmentzen duenez, Etxebizitzaren Euskal Zerbitzuak etxebizitza babestuko 14.463 eskari-espediente zenbatu zituen 2015ean, zeinetan titularretako bat gutxienez atzerritarra baitzen. Aurreko urtekoaren antzeko maila da hori; urte hartan 14.343 eskabide jaso ziren. Talde horretan gizonen pisu handiagoa antzematen da euskal herritarren artean baino, zeren eta inskribaturiko pertsonen %50,9 baitira. Espainiar nazionalitatekoen artean, berriz %47 da.

IV.5.13. GRAFIKOA. EAE-N BIZI DIREN ATZERRITAR JATORRIKOAK: HAIEN ETXEBIZITZEN BALDINTZAK. DATUAK PORTZENTAJEETAN



Iturria: ETXEBIZITZAREN EUSKAL BEHATOKIA

Azken urteetan ikusitako joerarekin bat, alokairuaren aukera ia erabatekoa zen 2015ean atzerritarren artean (espediente guztien %97,1; espainiar nazionalitateko pertsonei, berriz, %71,8 dagokie).

Eta sarrerei dagokienez, errenta pertsonalaren maila nabarmen txikiagoa da atzerritar nazionalitatea duten pertsonen artean (11.238€ batez beste) espainiar nazionalitatea dutenen artean baino (15.408€). Halaber, sarrerarik ez duten atzerritar nazionalitateko duten pertsonen pisu erlazioa %35,4 da, hots, espainiar nazionalitatea dutenen halako hiru ia (%13).

IV.5.16. TAULA. ETXEBIDE-N INSKRIBATAURIKO ATZERRITARREN SARRERAK, NAZIONALITATEAREN ARABERA. PORTZENTAJE BERTIKALEKO BANAKETA. 2015.

		ESPAINIAR NAZIONALIT.	ATZERRITAR NAZIONALIT.
SEXUA	EMAKUMEA	47,0	50,9
	GIZONA	53,0	49,1
	GUZTIRA		
SARRERAK	SARRERAK FROGATU BARIK	13,0	35,4
	GEHIENEZ 9.000 €	21,4	24,4
	9.001 - 25.000 €	52,9	37,6
	25.001 -A 39.000 €	11,1	2,4
	39.001 - 50.000 €	1,4	0,2
	50.000 € BAINO GEHIAGO	0,2	0,0
	GUZTIRA	100,0	100,0
	BATEZ BESTEKO SARRERAK PERT.	15.408€	11.238€

Iturria. ETXEBIDE.EUSKO JAURLARITZA.

5.3. HIGIEZINEN ARLOKO JARDUERA: etxebizitzen salerosketa

Gure Erkidegoko etxebizitzaren eskaintza eta eskaria azalduta, 2016ko higiezinen arloko jardueraren dinamikari buruzko kopuru nagusiak emango dira jarraian.

Sustapen Ministerioak Notariotza Estatistikatik jasotako datuen arabera, EAEn notarioaren aurrean 18.643 etxebizitza-salerosketa formalizatu ziren guztira 2016. urtean (behin-behineko datuak), hots, %13,7ko hazkundea 2015aren aldean (+%14,1 erregistratu zen epealdi berean, Estatuan, non guztira 457.689 transakzio erregistratu baitziren).

IV.5.14. GRAFIKOA. EAE-KO ETXEBIZITZEN SALEROSKETAREN BILAKAERA MOTAREN ARABERA



Iturria: SUSTAPEN MINISTERIOA

Transakzioen kopuruaren bilakaera desberdina da etxebizitza motaren arabera: etxebizitza librearen transakzioak, guztira 2.495 izan ziren (guztizkoaren %13,4), 2015ean baino %10,8 gehiago.

Bigarren eskuko etxebizitzen transakzio kopuruari dagokionez (transakzioen %77,3), 2016an guztira 14.414 transakzio gauzatu ziren. Hala, magnitude hori 2015ekoa baino 18,8 handiagoa da, hots, transakzio guztizkoaren %+13,7koa baino askoz gehiago.

Etxebizitza babestuak, aldiz, bilakaera negatiboa du: 2016an 1.734 salerosketa gauzatu ziren 2016an, 2015ean baino %13,8 gutxiago. Beraz, etxebizitzaren tarte horrek pisua galdu du transakzioen guztizko kopuruan: 2015eko %12,3tik 2015eko %9,3ra.

IV.5.15. GRAFIKOA. EAE-KO ETXEBIZITZEN SALEROSKETAREN BILAKAERA LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA



Iturria: SUSTAPEN MINISTERIOA

Bilakaera horren lurraldez lurraldeko azterketan ageri denez, bereziki nabaria da Araban (%26,3ko hazkundea) EAE osoan ikusitako joera positiboa. Batez bestekoaren gainetik daude (%13,7): Gipuzkoan %14,5 hazi da, baina Bizkaian batez bestekoaren azpitik daude, %10,6. Bilakaera horren ondorioz, Bizkaiak du salerosketa gehien (%54,3), eta ondoren Gipuzkoa (%32,8) eta Araba (guztien %12,9).

5.4. EAE-KO ETXEBIZITZA HUTSA. 2015EKO DATUAK.

Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Sailak "EAEn hutsik dauden etxebizitzak zenbatzeko eta ezaugarritzeko bi urterik behingo inkesta" egiten du, eta halaxe egin izan du 1997tik hona. Daturik berrienak 2015ekoak dira.

IV.5.17. TAULA. EAE-KO ETXEBIZITZA PARKEAREN BANAKETA MOTAREN ARABERA. 2015.

	EAE		ARABA		BIZKAIA		GIPUZKOA	
	KOP.	% B.	KOP.	% B.	KOP.	% B.	KOP.	% B.
GUZTIRA	**1.039.136**	**100,0**	**162.700**	**100,0**	**538.018**	**100,0**	**338.418**	**100,0**
OKUPATUAK	952.811	91,7	144.751	89,0	499.829	92,9	308.231	91,1
HUTSAK	86.325	8,3	17.949	11,0	38.189	7,1	30.187	8,9
- Denboraldia	27.628	2,7	7.020	4,3	10.928	2,0	9.626	2,8
- Ez da inor bizi	58.697	5,6	10.929	6,7	27.206	5,1	20.562	6,1

Iturria: Etxebizitzaren Behatokia. EUSKO JAURLARITZA.

Azterlan horren arabera, EAEn dauden etxebizitzen %8,3 hutsik daude, 86.325 2015ean (%8,7 2013an). Haietatik %32 (27.628) sasoiko etxebizitzatzat jotzen dira eta %68tan (58.778) ez da inor bizi. Lurraldeen arabera, Arabari dagokio sasoiko etxebizitzek hutsik dauden etxebizitzetan duten pisurik handiena (%39,1), ondoren Gipuzkoari (%31,9) eta Bizkaiari (hutsik dauden etxebizitzen %28,8).

IV.5.16. GRAFIKOA. ETXEBIZITZA HUTSEN PORTZENTAJEAREN BILAKAERA LURRALDEEN ARABERA



Iturria: EUSKO JAURLARITZA.

Gure Erkidegoko etxebizitza hutsen parkearen pisuak denboran izan duen bilakaera aztertuta ikusten denez, Bizkaian ez bezala, igoera txikia ageri da azterturiko seriean; Arabak eta Gipuzkoak joera irregularra du. Horren ondorioz, EAE osoan etxebizitza hutsak %8,5 ziren 2013an, eta %8,3raino jaitsi zen 2015. urtean. Bizkaia, argi eta garbi, batez bestekoaren azpitik dago, baina hazi egin zen 2009 eta 2015 bitartean (%7,1 urte horretan). Aldi berean, Araba eta Gipuzkoa EAEko batez bestekoaren gainetik daude (%11 eta %8,9, hurrenez hurren, 2015ean).

Udalen tamainari dagokionez, etxebizitza hutsen portzentajea % 20,6koa da 2.500 biztanletik beherako udalerrietan (%22,5 2013an). Ratioa % 11,6koa da 2.500 eta 10.000 biztanle arteko udalerrietan (%13,1 2013an) eta % 8,6koa 10.000 eta 20.000 biztanle arteko udalerrietan (%9,1 2013an). 20.000 eta 40.000 biztanle arteko udalerrietan etxebizitzen % 7 hutsik daude (%7,8 2013an), eta 40.000 eta 100.000 biztanle artekoetan % 5,8 (%6,4 2013an). Amaitzeko, 100.000 biztanletik gorako udalerrietan, hau da, hiru lurraldeetako hiriburuetan, etxebizitza hutsen ratioa % 6koa da (%5,2 2013an). Hortaz, 2013 eta 2015 bitartean behera egin zuen hutsik dauden etxebizitzen kopuruak udalerrien

IV.5.17. GRAFIKOA. EAE-N HUTSIK DAUDEN ETXEBIZITZEN PORTZENTAJEAREN BILAKAERA UDALERRIEN TAMAINAREN ARABERA



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Etxebizitza Saila

tamainen maila guztietan, 100.000 biztanletik gorakoetan izan ezik. Epe ertainari begira, igoera bereziki deigarria da Donostian, non etxebizitza hutsak %7,6 baitira (Gasteizek %6 du eta Bilbok, berriz, %5).

Jabetza mota kontuan izanik ikusten denez, etxebizitza hutsen %93,1 titulartasun pribatukoak dira. Higiezinen sustapen-enpresak etxebizitza hutsen %2,8 dira, eta beste %2,1 Herri Administrazioarekin lotuta dago. Halaber, EAEn hutsik dauden etxebizitzen %34,5en helburua bigarren etxebizitza izatea da, %13,8 seme-alabentzat gordetzen da, %12,7 salmentarako edo %10,7 alokairuko errentak sortzeko. 2013 eta 2015 bitartean, gora egin zuen salerosketarekin loturiko jomugak (%11,9tik %12,7ra) eta, bereziki, alokairurakoa (2013an %5,1 izatetik 2015ean %10,7 izatera).

Etxebizitza hutsen egiturazko ezaugarriei dagokienez, etxebizitza huts gehienek (guztien % 44,6) 75 eta 100 m2 arteko azalera erabilgarria daukate; horien atzean 50 eta 75 m2 artekoak daude (% 34,9), azken urteotan joera horri eutsi zaiola. Azkenik, etxebizitza hutsak dauden eraikinen batez besteko antzinatasuna 46 urte ingurukoa da. Gipuzkoan 47,5 urtekoa da, baina txikiagoa da Araban eta Bizkaian, 44,7 eta 45,4 urte hurrenez hurren.

5.5. ETXEBIZITZA POLITIKA

5.5.1. Eusko Jaurlaritzaren etxebizitza politika

A) Betearazitako gastua

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailak betearazitako gastua nabarmen handitu zen azken urteetan, eta 2009an 207,4 milioi eurokoa zen. 2015ean, berriz erdira murriztu zen.

Informazioa dugun azken urte horretan, betearazitako gastua 99,8 milioi euroraino jaitsi zen (-%6,8 2014aren aldean eta -%51,9 2009ko gehienekoaren aldean), hots, EAEko BPGaren %0,14. Aurreko urtean, berriz, %0,16 zen aurreko urtean, ekonomiaren hazkundearen gastuak behera egin izanaren ondorioz.

IV.5.18. GRAFIKOA. EUSKO JAURLARITZAREN ETXEBIZITZA SAILAREN GASTUEN BILAKAERA KAPITULUKA



Iturria: EUSKO JAURLARITZA.

b) Etxebizitza Plana 2013-2016

2010eko ekitaldian Eusko Jaurlaritzaren etxebizitza politika Etxebizitza Plan Zuzentzaile berriak ezarritako ildo estrategikoetarantz zuzendu zen, 2010-2013 aldirako diseinatu zen, eta helburua alokairuko etxebizitzaren parke publikoa handitzea eta hiri zaharberritze eta eraberritze politika berria bultzatzea da, irtenbide eraginkor eta iraunkorra izateko. Halaber, lurzorua kudeatzeko politika aktiboari eutsi nahi dio, etxebizitza berriaren eraikuntzaren sektorea dinamizatzeko eta lurralde banaketa orekatuagoa lortzeko xedearekin, betiere etxebizitza politikaren zerbitzurako baliabideen erabileran eraginkortasun handiagoa izateko testuinguruan, baina kontuan hartuta etxebizitzaren merkatua errotik aldatu dela finantza-krisiagatik eta higiezinen burbuila lehertu izanagatik.

Hori guztia, gainera, ekonomiaren eta enpleguaren gaineko krisian gertatu da; izan ere, merkatuaren hazkundea nabarmen gelditu da horren ondorioz.

IV.5.18. TAULA. EUSKO JAURLARITZAKO ETXEBIZITZA SAILAK LIKIDATURIKO GASTUAREN BILAKAERA ETA BPG-AN DUEN PISUA.

	ETXEBIZITZA SAILAREN GASTUA		EAE-REN BPG-A PREZIO ARRUNTETAN		SAILAREN % BPG-AREN G.
	Mil. euro	Igoera %	Mil. euro	Igoera %	
2009	207,4	4,3	64.225	-5,4	0,32
2010	182,5	-12,0	65.419	1,9	0,28
2011	123,0	-32,6	65.684	0,9	0,19
2012	145,0	17,9	66.776	-1,9	0,22
2013	125,6	-13,3	65.906	-1,3	0,19
2014	107,1	-14,7	67.224	2,0	0,16
2015	99,8	-6,8	69.216	3,0	0,14

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Etxebizitzaren Behatokiaren eta EUSTATen datuekin egina.

2013ko abenduan, Eusko Jaurlaritzak Etxebizitza Plan berria onetsi zuen, 2013-2016rako. Hona hemen haren eginkizun nagusia: "*Merkatu librean etxebizitza eskuratzerik ez duten pertsonei etxebizitza duina, egokia eta irisgarria eskuratzen laguntzea da, bereziki krisi ekonomikoaren ondorioz gizarte beharra dutenei. Hartara, alokairua sustatuko du epe ertainera eta epe luzera, etxebizitza publikoaren lehentasunezko esleipen gisa. Lehentasunezko jarduna izango du hori eraikitako parkearen aurretik, eta hiriko birgaikuntza, berrikuntza eta birsorkuntza bultzatuko ditu, hori guztia etxebizitzaren sektorean diharduten erakunde eta eragile guztiekin koordinatuta eta adostuta* ". Orotara 460,38 milioi euroko inbertsioa aurreikusten du, eta alokairuaren sustapenari (aurrekontu guztiaren %25) eta birgaikuntzari (%21) dagozkie partida garrantzitsuenak. Jarraian, Planaren 2014ko jarduketen laburpena emango da, eta ondoren, labur-labur aztertuko dira zaharberrikuntzarekin eta alokairuarekin lotutako ekimenak, bereziki garrantzizkotzat jotzen baitira.

IV.5.19. TAULA. ETXEBIZITZA PLAN GIDARIA 2013-2016. HELBURU KUANTITATIBO NAGUSIAK.

	2013	2014	2015	2016	**GUZTIRA**
ETXEBIZITZA BERRIA SUSTATZEKO JARDUKETAK	1.750	1.850	2.050	2.350	**8.000**
- Alokairua	550	750	1.100	1.550	**3.950**
- Salmenta	1.200	1.100	950	800	**4.050**
BIRGAIKUNTZARAKO LAGUNTZAK	15.580	17.000	19.300	21.600	**73.480**
LURRAREN HELBURUA, GUZTIRA	750	750	750	750	**3.000**

Iturria: Etxebizitzaren Behatokiko datuekin egina. EUSKO JAURLARITZA.

2014an urtean (informazioa dugun azken urtea)[56], eta etxebizitzaren sustapenari dagokionez, 2014ko ekitaldian %85eko betetze-maila lortu zen, 1.581 jarduketa hasita, eta Planaren betearazpenaren lehen zatiari erreparatuta, aurreikusitako helburua lortu du 2013-2014 biurtekoak (%100eko betetze-maila), guztira 3.613 etxebizitza hasita. Birgaikuntzaren arloan, 2014. urtean diruz lagundutako jarduketek (11.713 etxebizitza) %68,9 betetze-maila izan zuten eta %77,7koa 2013-2014ko epealdian. Aipaturiko biurteko horretan, 25.311 etxebizitzak jaso Zuten birgaikuntzarako diru-laguntza.

c) Birgaikuntza. 2013-2016ko Renove Planaren Balantzea

Aipamen berezia merezi du Eusko Jaurlaritzaren birgaikuntza politikak; izan ere, 2013-2016ko Planaren ardatz estrategikoetako bat da, birgaikuntza eredu iraunkor, sozial, ekonomiko eta integratzaile berria bultzatuta. Plan Zuzentzailearen guztizko aurrekontutik (460,4 milioi euro), %21 helburu horretara erabiltzen da, esana dugunez, epealdi bera duen "Etxebizitza birgaitzeko Renove plana"ren bidez. Eginiko zenbatespenen arabera, 81,5 milioi euro emango dira diru-laguntzetan, eta ekimen publiko horren bidez 859,5 milioi euro mobilizatuko direnez gero, guztira 940 milioi euro izango dira. Planaren indarraldia bukatuta, ebaluazio txostenak erakusten duenez, lehenik eta behin emandako laguntzen zenbatekoa 74,9 milioi euro da, eta horiek beste 1.077,4 milioi euro mugiarazi dituzte, hots, orotara 1.152,3 milioi euroko baliabideak erabili dira birgaikuntzarako. Hots, laguntzetarako aurreikusitako aurrekontu publikoaren %92 betearazi beharra dago. Mugiarazitako baliabideen guztizko bolumenari dagokionez, aurreikusitako funtsen %124 dira.

[56] *Plana 2014an burutzeko moduari buruzko xehetasun gehiago nahi izanez gero (ezin izan da informazio hori egunaratu kapitulu hau bukatzean), ikusi Memoria Sozioekonomiko honen 2015eko edizioa.*

Funts horietatik %70 gutxi gorabehera energia-eraginkortasuna hobetzera bideratu da, eta zenbatespenen arabera, %30 gutxitu dira CO_2 isuriak.

IV.5.20. TAULA. RENOVE BIRGAIKUNTZA PLANA 2013-2016: ENPLEGUAREN SORKUNTZAN IZANDAKO ERAGINA, EGITARAUEN ARABERA					
	2013	2014	2015	2016	GUZTIRA
JARDUKETAK BANAKO ETXEBIZITZETAN	3.474	3.185	2.955	3.462	13.076
ERAIKINETAKO BIRGAIKUNTZA OSOKO JARDUKETAK	8	63	82	114	267
IRISGARRITASUNA HERRI GUNEETAN ETA EKIPAMENDUETAN	0	30	13	95	38
HIRI-BIRSORKUNTZA	7	6	29	28	70
GUZTIRA	3.489	3.284	3.079	3.699	13.551

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Renove Birgaikuntza Plana 2013-2016. Ebaluazioa txostena.

Gainera, banako etxebizitzetako jarduketek birgaikuntzarako laguntzen %57,4 bildu dituzte (orotara 42,9 milioi euro) eta

CUADRO IV.5.21. PLAN RENOVE BIRGAIKUNTZA 2013-2016: BETEARAZITAKO LAGUNTZEN BENETAKO ZENBATEKOAREN ETA SORTUTAKO BOLUMEN EKONOMIKOAREN XEHETASUNA, URTE ETA EGITARAUEN ARABERA						
		BANAKO ETXEBIZITZA	ERAIKINEN BIRGAIKUNTZA OSOA	IRISGARRITASUNA	HIRI BIRSORKUNTZA	GUZTIRA
2013	LAGUNTZEN ZENBATEKOA (€)	6.181.282	5.440.256	1.363.673	1.180.003	14.165.214
	SORTUTAKO GUZT. BOLUM. (€) **	284.751.598	10.880.051	10.400.696	2.360.006	308.392.351
2014	LAGUNTZEN ZENBAT. (€)	8.948.462	0	2.500.000	1.065.038	12.513.500
	SORTUTAKO GUZT. BOLUM. (€) **	261.155.256	0	5.923.752	2.130.076	269.209.084
2015	LAGUNTZEN ZENBAT. (€)	13.754.959	5.099.601	2.999.958	2.772.502	24.627.020
	SORTUTAKO GUZT. BOLUM. (€) **	242.305.019	10.199.202	8.799.870	5.545.004	266.849.095
2016*	LAGUNTZEN ZENBAT. (€)	14.092.874	4.193.290	2.999.958	2.322.106	23.608.228
	SORTUTAKO GUZT. BOLUM. (€) **	283.835.451	10.541.271	8.799.870	4.644.212	307.820.804
GUZTIRA	LAGUNTZEN ZENBAT. (€)	42.977.577	14.733.147	9.863.589	7.339.649	74.913.962
	SORTUTAKO GUZT. BOLUM. (€) **	1.072.047.324	31.620.524	33.924.188	14.679.298	1.152.271.334

Iturria: GOBIERNO VASCO. Plan Renove BIRGAIKUNTZA 2013-2016. Informe de Ebaluazbehin-behinekoak
** Behin-behineko datuak*
*** Laguntzen eta eragindako inbertsioaren batura*

sortutako guztizko bolumen ekonomikoaren %93 (1.072 milioi euro). Bestalde, eraikinak osorik birgaitzeko eta gune eta ekipamendu publikoetako jarduketak laguntzen %19,7 eta %13,2 dira hurrenez hurren. Halaber, aurrekontu publikoaren gainerako %9,8 hiri birsorkuntzako jarduketetarako erabili da eta Birgaikuntza Integratuko Arloetan edo Bizitegi Arlo Narriatuetan.

CUADRO IV.5.22. DIRECTRICEJARDUKETA EN BIRGAIKUNTZA PARA 2017-2020	
ARDATZAK	JARRAIBIDEAK
A. PIZGARRIAK ETA LAGUNGARRIAK LEHENESTEA	1. Diru-laguntza jaso dezaketen jarduketak eraikinik zaharrenetan pilatzea. 2. Irisgarritasun unibertsalarekin eta energia-eraginkortasunarekin loturiko jarduketak are gehiago lehenestea. 3. Etxebizitza mota berriak sartzea babesturiko birgaikuntzan. 4. Birgaikuntza Integratuko Arloak edo Bizitegi Narriatuen Arloak eguneratzea. 5. Birgaikuntzarako laguntzen finantzabide osagarriak. 6. Birgaikuntzaren zerga tratamendu hobea bultzatzea.
B. BERRIKUNTZA ETA ERAGIN EKONOMIKOA ETA SOZIALA	1. I+G+b bultzatzea. Birgaikuntza eta hiri birsorkuntzako jarduera sektorearen lehiakortasuna hobetzeko esperimentazio plataforma den aldetik. 2. Birgakuntzarekin loturiko ekonomia zirkularra garatzea. 3. Hiri birsorkuntzako eta birgaikuntza sozioekonomikoko prozesuen arteko lotura handiagoa.
KUDEAKETA ETA GOBERNANTZA	1. Birgaikuntzarako leihatila bakarra. 2. Gizarte sentsibilizatzea eta herritarrak informatzea birgakuntzaren abantailen eta aukeren inguruan. 3. Tokiko mailako lankidetza. 4. Beste eragile batzuen arteko lankidetza. 5. VISESA sartzea birgaikuntzarako eragile publikoa den aldetik. 6. Herritarrek eta eragileek birgaikuntzako politiken ebaluazioan eta definizioan parte hartzen jarraitzea. 7. Birgaikuntzako politikari eta jarduketei buruzko ebaluazio lana areagotzea.

Iturria: Plan Renove BIRGAIKUNTZA 2013-2016. Informe de Ebaluazioa.

Planaren ildoetatik buruturiko jarduketen, orotara, 37.685 etxebizitzatan jardun da, 120 irisgarritasun plan gune eta ekipamendu publikoetan, gizarte-hirigintzako 52 proiektu edo azterlan egin dituzte 31 udalek eta hiri birsorkuntzako hainbat jarduketa burutu dira arazo bereziak dituzten eremuetan. Horren arabera, etxebizitzetan eginiko benetako jarduketak aurreikusitako kopuruen %72,4 dira (52.000 etxebizitza orotara).

Horrez gain, honako emaitza hauek nabarmentzen dira:

- 10.459 eraikinetan kokaturiko 35.376 banako etxebizitzak birgaikuntza-lanen bat egin dute.
- 1.686 etxebizitzak birgaikuntza osoko jarduketak burutu dituzte 88 ataritan, haien eraginkortasuna hobetzeko eta energiaren kontsumoa gutxitzeko. Eraikin horien %75 1960 eta 1980 urte bitartean.
- 8.280 etxebizitzatan irisgarritasuna hobetu da.
- nukui2.001 esku-hartze gauzatu dira.
- 5.239 etxebizitzatan 1.322 igogailuren instalazioa ezarri da.
- Irisgarritasuna hobetzeko 368 obra egin dira udaletan eta tokiko erakunde txikietan, eta hiriko 69 igogailu publiko jarri dira.

Eginiko zenbatespenen arabera, enpleguak abiarazitako jarduketetan izan duen eragina 13.551 lanpostukoa izan da, lanaldi osokoak eta urtebetekoak. Hots, Planean ezarritako lanpostu finkoen %106 bete dira; 12.797 lanpostu ezarri ziren. Horietatik 13.551 lanpostu, %96,5 (13.076), banako etxebizitzetako jarduketetan sartu dira, %2 (267) eraikinak osorik birgaitzeko jarduketetan, %1,2 (70) hiri birsorkuntzako egitarauetan eta %0,3 (38 lanpostu) gune eta ekipamendu publikoen irisgarritasuna hobetzeko egitarauetan.

Bukatzeko, eta birgaikuntzan beharrak eta 2013-2016 aldian buruturiko jarduketei buruzko ebaluazioko ondorioak ikusita, honako jarraibide hauek proposatu dira 2017-2020 aldirako, hain zuen ere hiru jarduketa-ardatzetan antolatuak (ikusi IV.5.23. taula): Pizgarriak eta lagungarriak emateko jarduketak lehenestea, Berrikuntza eta eragin ekonomikoa eta soziala eta Kudeaketa eta gorbernantza.

IV.5.19. GRAFIKOA. EAE-N BIRGAITURIKO ETXEBIZITZEN ETA DIRU-LAGUNTZEN ZENBATEKOAREN BILAKAERA



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. ETXEBIZITZAREN BEHATOKIA

IV.5.20. GRAFIKOA. ETXEBIZITZA BIRGAITZEKO DIRU-LAGUNTZEN BANAKETA MOTAREN ARABERA. MILIOI EUROTAN



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. ETXEBIZITZAREN EUSKAL BEHATOKIA

d) Alokairua

Alokairuko etxebizitzen sustapena bultzatzeko xedea izanik, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailak, etxebizitza babestuaren zuzeneko sustatzaile gisa jarduteaz gain, diru-laguntzen gaineko politikari eusten dio, eta beste eragile publiko eta pribatu batzuentzako laguntzak ematen ditu alokairu araubidea sustatzeko. 2013an ikusi zenez, behera egin zuten horrelako laguntzek, eta zati batez 2014an berreskuratu zen. 2015ean ez da arlo horretako diru-laguntzarik aitortu (ezta subsidiorik ere), ez delako proiekturik izan.

IV.5.21. GRAFIKOA. ALOKAIRUA SUSTATZEKO LAGUNTZEN BILAKAERA, MILIOI EUROTAN



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. ETXEBIZITZAREN EUSKAL BEHATOKIA

Alabaina, alokairuko etxebizitza babestu berria sustatzeko maileguak gauzatu dira, guztira 3,7 milioi euro, 2014aren aldean. Izan ere, urte horretan ez zen jarduketarik izan arlo horretan.

Bestalde, Etxebizitza Sailaren "*Bizigune*" egitarauko laguntzen xedea EAEko etxebizitza hutsa baliagarri bihurtzea da alokairu babestuaren bidez. Egitarau horretan, 2015ean, orotara 19,27 milioi euroko laguntzak eman ziren (2014ko zenbateko bera), eta horren ondorioz, urtearen amaieran 4.589 etxebizitzatan izan zen eragina (aurreko urtean baino 1 gutxiago). Bilakaera horren ondorioz, batez besteko diru-laguntza 4.199,9 eurokoa da etxebizitzako.

IV.5.23. TAULA. EUSKO JAURLARITZAKO BIZIGUNE PROGRAMARI BURUZKO LAGUNTZEN BILAKAERA

	ATZEMAN. ETXEBIZIT	DIRUL. (MILIOI €)	EURO/ETXEB.	ALD.%
2006	2.605	10,00	3.838,8	-8,4
2007	3.446	14,38	4.173,0	8,7
2008	4.215	21,59	5.122,2	22,7
2009	4.557	21,19	4.650,0	-9,2
2010	4.741	22,29	4.701,5	1,1
2011	4.802	23,15	4.820,9	2,5
2012	5.102	23,02	4.511,7	-6,4
2013	5.174	20,49	3.959,6	-12,2
2014	4.590	19,27	4.199,0	+6,0
2015	4.589	19,27	4.199,9	0,0

Iturria: ETXEBIZITZAREN BEHATOKIA. EUSKO JAURLARITZA

"*Alokabidek*" kudeatzen ditu etxebizitza horiek. Izan ere, sozietate horrek kudeatzen ditu honako hauek, Sailaren beraren alokairuko etxebizitza parkeaz gain (guztizkoaren %27): berezkoak (%32) eta Biziguneren bitartez hartutakoak (%39), EAEko udalen alokairuko parkea (%1) eta ASAP egitarauko etxebizitzen beste %1 bat. 2015ean, guztira 11.767 etxebizitza kudeatu ziren, hau da, aurreko urtean baino %4,3 gehiago, eta hala, berreskuratu egin zen jarduera hasi zenetik izandako goranzko joera (2002. urtea da: alokairuko 230 etxebizitza kudeatu zituen) 2013ra arte, zeren eta 2014an pixka bat behera egin baitzuen: %0,6.

IV.5.24. TAULA. "ASAP" ALOKAIRUAREN BITARTEKARITZA PROGRAMA. EMAITZA NAGUSIAK

	ETXEBIZITZA INSKRIB.	SINATURIKO ERRENTAM.
2013	54	23
2014	110	68
2015	233	145

Iturria: ETXEBIZITZAREN BEHATOKIA. EUSKO JAURLARITZA

Azkenik, Eusko Jaurlaritzak, partikularren arteko errentamendu araubidea bultzatu beharra zegoela-eta, alokairu libreko merkatuan bitartekaritza lana egiteko egitarau berria abiarazi zuen 2002an "*ASAP egitaraua*" (Alokairu Segurua Arrazoizko Prezioa); Bizigune egitarauak arrakasta izan badu ere, kostu handia dakarkio Sailari. 2015ean 145 errentamendu-kontratu formalizatu ziren. Halaber, Etxebizitzaren Behatokiak nabarmentzen du Egitarauak 233 etxebizitza dituela inskribatuta, aurreko urtean baino 123 gehiago.

5.5.2. Foru Aldundien etxebizitza politika

Eusko Jaurlaritzak garatu duen etxebizitza politikaz gain, interesgarria da gastu fiskalen kopuru handiak ezagutzea, foru aldundiek etxebizitza gaietan esku-hartze publikoa egiteko tresna gisa erabiltzen dituztelako.

2015eko ekitaldikoa da eskuragarri dugun azken informazioa, Etxebizitzaren Euskal Behatokiak egindako *"EAEko etxebizitzarekin loturiko zerga politika"* txostena oinarri hartuta, betiere hiru foru aldundien 2010 eta 2015 urte bitarteko PFEZaren ziozko likidazioetako datuen arabera.

IV.5.22. GRAFIKOA. PFEZ-N ETXEBIZITZAREN ZIOZKO KENKARIEN ZENBATEKOAREN BILAKAERA ETA KENKARI GUZTIEN GAINEKO PISUA



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Zergak Koordinatzeko Organoa eta Etxebizitzaren Behatokia Geuk egina.

Nabarmentzekoa da ohiko etxebizitzaren ziozko kenkarien zenbatekoa (alokairua eta inbertsioa), hain zuzen ere bigarren kenkaria izan ohi dena kopuruaren aldetik familien eta norbanakoaren kenkarien atzetik, 375,55 milioi eurokoa izan zen 2015ean, 2014an baino %1 gehiago. Hala, badirudi eten egin dela ekitaldi horretan 2008an hasitako beherako joera. Kenkari horiek PFEZaren guztizko bilketaren %8,5 dira eta zerga-bilketa osoaren batuaren %3, baita EAEko urte horretako BPGaren %3 ere, behin-behineko datuen arabera. Halaber, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailak 2015ean betearazitako gastuaren (99,8 milioi euro) %376 da, aurreko atalean ikusi den legez.

Horrez gain, 375,55 milioi euroez gain, gehienak, 306,24 (%81,5), etxebizitza eskuratzearen ziozko kenkariei dagozkie (erosketa/birgaikuntza), eta gainerako %18,5 (69,3 milioi) alokairuko kenkariei. Behatokiak nabarmentzen duenez, azken urteetan gastu fiskala murrizteko prozesu motela gertatu da, etxebizitzaren erosketarekin lotuta. Alokairukoa, ordez, hazi egin da, askoz pisu txikiagoa badu ere.

Era berean, orotara 329.465 aitorpenek izan zuten ohiko etxebizitza eskuratzearen ziozko kenkaria (etxebizitzaren ziozko 400.790 kenkarien %82,2). Alokairuko kenkariari dagokionez, berriz, askoz txikiagoa da kopurua, orotara 71.325 aitorpen besterik ez baitira (aitorpen guztien %17,2). Kopuru horiek, beraz, bat datoz EAEko etxebizitzaren merkatuaren errealitatearekin, non jabetzapeko etxebizitzen pisua askoz handiagoa den.

IV.5.23. GRAFIKOA. ZERGADUNEN KOPURUAREN BANAKETA ETXEBIZITZAREN KENKARI MOTAREN ARABERA, SARRERA MAILEN ARABERA. DATUAK PORTZENTAJEETAN, 2015



Iturria: ETXEBIZITZAREN EUSKAL BEHATOKIA.
Foru Aldundien datuekin. 2015erako PFEZaren likidazioak

Errenta-tarteen arabera (likidazio-oinarria), diru-sarrera gutxien dituzten zergadunen artean pilatzen da alokairuaren ziozko kenkaria, halako moldez non kenkarien erdia baino pixka bat gehiago, %54, kopuru horretatik beherako sarrerak dituzten aitortzaileei baitagokie, eta kontrako muturrean, %8k besterik ez ditu aitortzen 42.000 eurotik gora. Inbertsioaren ziozko

kenkariari dagokionez, berriz, onuradunen taldeak urtero 18.000 eta 42.000 bitarteko kopuruak kobratzen dituztenen segmentuekin daude lotuta: 18.000 eta 30.000 euro bitarteko sarrerak dituzten zergadunen pisu erlatiboa %37,5 eta %21,5 bitartekoa da 30.000 eta 42.000 euro bitartean.

ITURRIAK

1. **EUSKO JAURLARITZA**. Higiezinen Eskaintzari buruzko Estatistika. 2016ko IV. Hiruhilekoa. Hiruhilekoa. Koiunturala.
2. **EIN**. Etxebizitzaren Prezioen Indizea. 2016ko IV. Hiruhilekoa. Hiruhilekoa. Koiunturala.
3. **EUSKO JAURLARITZA**. Eraikuntzari buruzko estatistika. 2016ko IV. Hiruhilekoa. Hiruhilekoa. Koiunturala.
4. **EUSKO JAURLARITZA**. Etxebizitza Beharrei buruzko inkesta. 2015. Bi urtekoa. Estrukturala.
5. **JABETZAREN ERREGISTRATZAILEEN ELKARGOA**. Higiezinen Erregistroari buruzko Estatistika. 2016ko IV. Hiruhilekoa. Hiruhilekoa. Koiunturala.
6. **ETXEBIDE**. EtxebideEtxebizitzaren Euskal Zerbitzuaren Ebaluazioaren txostena. 2015. Urtekoa. Estrukturala.
7. **ETXEBIZITZAREN EUSKAL BEHATOKIA. (2016)**. Atzerritarren eta etxebizitzari buruzko txosten diagnostikoa. Unekoa.
8. **SUSTAPEN MINISTERIOA.** Etxebizitzen salerosketei buruzko estatistika. 2016ko IV. Hiruhilekoa. Hiruhilekoa. Koiunturala.
9. **EUSKO JAURLARITZA.** EAEko etxebizitza hutsen kuantifikazioari eta ezaugarritzeari buruzko bi urterik behingo inkesta. 2015. Bi urterik behingoa. Estrukturala.
10. **EUSKO JAURLARITZA**. Ogasun eta Ekonomia Saila. Etxebizitza Sailaren aurrekontu-likidazioak. 2015. Urterokoa. Koiunturala.
11. **ETXEBIZITZAREN EUSKAL BEHATOKIA**. 2013-2016ko Etxebizitzaren Plan Gidariaren Ebaluazioa. 2014an eginikoak. Urterokoa. Koiunturala.
12. **ETXEBIZITZAREN EUSKAL BEHATOKIA (2016).** 2013-2016ko Birgaikuntzako Renove Planaren ebaluazioa. Unekoa.
13. **ETXEBIZITZAREN EUSKAL BEHATOKIA (2017).** Etxebizitzarekin loturiko zerga politika EAEn. Gastu fiskalaren norainokoa eta eragina. Unekoa.
14. **EUSKO JAURLARITZA. ZERGAK KOORDINATZEKO ORGANOA (2016).** Euskal Ogasunaren urteko txosten integratua 2014. Urtekoa. Koiunturala.

6. BIZI-KALITATEA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN: LABURPENA ETA ONDORIOAK

6.1. LABURPENA

Bizitza-baldintzak EAEn

Krisiaren ondorio gisa, txirotasun- eta bazterkeria-arriskuan dauden Europar Batasuneko biztanleen kopurua nabarmen hazi zen eta gehiengora heldu zen 2012an; ordutik hona, leunki jaisten joan da. 2015ean, Europako biztanleen % 23,7 zeuden txirotasun- edo bazterkeria-arriskuan, hau da, 118,7 milioi pertsona, 2020 Europa Estrategiak "AROPE Tasa" (*population at risk of poverty and exclusion*) deritzonean ezarritako irizpideen arabera. 2014ko datuekin alderatuta, tasa hori 7 hamarren jaitsi egin da eta intzidentzia herrialde kideetako 4 herrialdeetan soilik hazi da. Espainian, 2015eko ratioa % 28,6koa da (13 milioi pertsona baino gehiago) eta 6 hamarren murriztu egin da aurreko urtearekiko.

EAEn, 2015ean, biztanleen % 17,6 txirotasun- eta bazterkeria-arriskuan zegoen, hau da, 390.000 pertsona (2014an baino 2,3 puntu gehiago); hala, krisiaren hasieran intzidentzia % 14,8koa zen. Intzidentzia hori, azken urteko bilakaera gorabehera, nahiko baxua da Europan eta Frantzia eta Danimarka bezalako herrialdeetakoarekin alderagarria. Izan ere, posizio onuragarri hori estatuko autonomia erkidegoen testuinguruan errepikatzen da.

Hala ere, EAEren egoera onuragarri erlatibo hori zehaztu behar da, AROPE tasa osatzen duten hiru elementuetako bakoitzarentzat:

1. 2015ean, Europar Batasuneko biztanleen % 17,3 txirotasun-arriskuan zegoen transferentzia sozialen ostean; hala, biztanleak egoera horretan daudela jotzen da herrialde bakoitzeko kontsumo-unitateko diru-sarreren banaketaren medianaren % 60 baino gutxiagoko diru-sarrerak dituztenean. Ehuneko hori hamarren bat hazi da 2014 urtearekin alderatuta eta bost pertsonatik pertsona bat baino gehiago egoera horretan dago Espainian (% 22,1). EAEn, 2015ean, tasa hori % 10,9koa zen eta, azkenengo urtean, 7 hamarren hazi egin da eta 9 krisiaren hasieratik.
2. 2015ean, Europar Batasuneko biztanleen % 8,1ak gabezia material larria jasaten zuen, hau da, baliabiderik gabeko bizitza-baldintzak zituzten, besteak beste, fakturak ordaintzeko gaitasunik eza (etxeko ohiko gastuekin lotutakoak); etxea bero mantentzeko ezintasuna edo urtean opor-aste bat gozatzeko aukerarik ez[57]. Ratio hori 8 hamarren murriztu egin da azkenengo urtean eta 2008ko % 8,5aren azpitik dago. Herrialdeka, gabezia horren intzidentzia nabarmen aldatzen da, Suediaren % 0,7tik Bulgariaren % 34,2ra. Hala, gehienetan, emaitzak hobetu egin dira. Espainiaren intzidentzia % 6,4koa da (2014an baino 7 hamarren gutxiago) eta EAErena % 4,6koa (2015eko % 4,8aren aurrean). 2008-2015 epea aztertuta, esan beharra dago bilakaera negatiboa izan dela, % 3,4tik % 4,6ra igaroz, beti % 5 baino gutxiagoko mailatan mantendu bada ere.
3. 2015ean, Europar Batasuneko biztanleen % 10,6 lan-intentsitate oso baxuko etxeetan bizi zen; izan ere, egoera hori dela jotzen da etxeko 59 urte baino gutxiagoko helduek azkenengo urtean guztizko lan-ahalmenaren % 20 baino gutxiago lan egiten dutenean (2014an baino 7 hamarren gehiago eta 2008an baino 1,3 ehunekozko puntu gehiago). Grezia (% 16,8) eta Espainia (% 15,4) daude Europar Batasunaren rankingaren buruan; Luxenburgo eta Suedia, aldiz, ez dira % 6ra heltzen. EAEri dagokion datua % 14,3 da, Europar Batasuneko batezbestekoa baino gehiago (% 10,6). Beraz, hori da AROPE tasaren dimentsio bakarra non gure erkidegoa Europako batez bestekoa baino apur bat okerrago dagoen. Gainera, 2,1 puntuko jaitsiera izan du aurreko urtearekin alderatuta eta 9 puntu ingurukoa krisiaren hasieratik.

[57] *Zehazki, EUROSTATek jotzen du pertsona batek gabezia material larria jasaten duela, gutxienez, bederatzi item hauetako lau ematen badira: fakturak epe barruan ezin ordaintzea; etxebizitza behar bezain bero mantentzea; ustekabeko gastuei aurre egitea; okela, arraina edo proteina baliokideak jatea bi egunean behin; urtean behin opor-aste bat izatea; autoa edukitzea, garbigailua, koloreko telebista edo telefono bat (mugikorrak barne).*

Bestalde, EINeren "Bizitza-baldintzen Inkestak" erakusten du bilakaera desberdina izan dela EAEko familien gabezia-adierazleetan azkenengo urtean (2015eko datuak):

- Urtean behin opor-aste bat hartu ezin duten familien ehunekoa murriztu egin da (2014ko % 24,6tik 2015eko % 20,3ra igaro da); ustekabeko gastuak ordaindu ezin dutela adierazten duten familien ehunekoa murriztu da (% 20,5etik % 18,5era), baita hilaren amaierara heltzeko zailtasunak dituztela adierazten dutenena (% 50,4tik % 42,1era).
- Aitzitik, etxebizitzaren ordainketetan atzeratzen diren familien ehunekoa hazi da (4,2tik % 4,6ra), baita etxebizitza tenperatura egokian mantentzeko gai ez direnena (7,3tik % 7,7ra), "txirotasun energetikoa" deritzona. Hala ere, kasu bietan dira oso intzidentzia murriztuak, joera onena ez bada ere. Okerragotze hori ere ematen da aitortutako batez besteko errentekin: bai familiarrarekin, bai pertsonalarekin. Izan ere, horiek murriztu egin dira azkenengo urtean EAEn (-% 3,5 eta -% 3,1, hurrenez hurren), estatuko gainerako datuekin alderatuta nahiko altu mantentzen badira ere. 2008-2015 epean gertatutakoa kontuan hartzen badugu, krisiaren hasieratik, EAEko etxeek, batezbesteko, errentaren % 8,5 galdu dute eta, Estatuan, aldiz, jaitsiera hori % 9,4koa izan da. Hala, erkidego batzuetan galera hori % 17 baino gehiagokoa izan da (Andaluzia -% 17,4; Murtzia -% 20,2), beste batzuetan, aldiz, Aragoi edo Galizian bezalaxe, familia-errenta ez da ia-ia jaitsi eta apur bat ere igo egin da.

Hala eta guztiz ere, Eusko Jaurlaritzaren "*Pobreziari eta Gizarte-ezberdintasunei buruzko Inkestaren*" (EPDS) azkenengo datuek, hain zuzen ere, 2016koek, erakusten dute hobekuntza bat egon dela 2014ko datuekin alderatuta EAEko txirotasun- eta eskastasun-arriskuari dagokionez, baita horiek ukitzen dituzten pertsonen kopuruari dagokionez ere. Hala ere, oraindik ez dira berreskuratu krisiaren aurreko ongizate-mailak.

Mantentze-pobreziaren arriskuari dagokionez, Pobreziari eta Gizarte-ezberdintasunei buruzko Inkestak % 7,1eko intzidentzia kalkulatzen du 2016rako eta 151.112 pertsona ukitzen dituela, 2012 eta 2014ko tasen azpitik (% 7,3 eta % 8,2, hurrenez hurren). Hala ere, 2008ko datuekin alderatuta, txirotasun-tasak 1,4 puntu handiagoa izaten jarraitzen du eta 29.237 pertsona gehiago ukitzen ditu (urte horretan ukitutako pertsonen zifra 121.875 zen).

Bestalde, 2014an, nabarmen igo zen, pilaketa-pobrezia arriskuaren ratioa % 2ra helduz; hala, hori epe ertain eta luzera bizitza-baldintza onargarriak finkatzeko eta gastuko ez-ohiko beharrei edo diru-sarreren gabeziari aurre egiteko erreserbako gutxieneko ondarea izateko gaitasunik ezarekin lotzen da. 2014-16 epearen dinamikak adierazle horren beheranzko lerro historikoaren berreskurapena erakusten du, % 1,6ra eroriz eta EAEn egondako mailarik baxuenetara itzuliz, 2008an (% 1,4) eta 2012an (% 1,5) eman zirenak. 2016an, pobrezia mota horrek ukitutako pertsonen kopurua 34.158 izan da, 2008ko 32.838 pertsonak baino % 4 gehiago.

Kontuan hartu behar da arrisku-arazoak edo egoera desberdinak ez direla automatikoki bihurtzen pobreziaren edo eskastasunaren bizipen erreal batean; hori dela-eta, Pobreziari eta Gizarte-ezberdintasunei buruzko Inkestak azterlana bukatzen du txirotasun errealeko adierazlearekin, zenbait alderditan egoera ona izateak beste batzuetako gabeziak konpentsatzeko nahikoa ez den egoera horiek identifikatuz. Horrela, deskribatutako prozesuek jaitsiera txiki bat eragin dute pobrezia errealaren intzidentzian 2014 eta 2016 bitartean, hain zuzen ere, 5,9tik % 5,7ra jaitsi da. Mugatua bada ere, jaitsiera horrek 2012ko tasetara hurbiltzen gaitu (% 5,3) eta 2000koetara (% 5,1), oraindik ere 2008ko % 4,2tik urrun. Termino absolutuetan, 2016an, 122.566 pertsonek jasaten zuren pobrezia erreala, 2014ko datua baino % 3,8 gutxiago (127.399) eta 2008koa baino % 36,6 gehiago (89.706).

Bestalde, Memoria Sozioekonomikoaren edizio honek lan-pobreziaren fenomenoa aztertu egin du. Azkenengo hamarkadetan, pobrezia egoerak areagotu egin dira pertsona okupatuen artean; hala, agerian geratu da, batez ere krisitik aurrera, enplegua ez dela baldintza nahikoa pobreziarengandik ihes egiteko. Beraz, beharrezkoa da bermatzea enplegu hori kalitatezkoa izatea eta diru-sarrera nahikoak sortzea.

2016ko Pobreziari eta Gizarte-ezberdintasunei buruzko Inkestak nabarmentzen du pobreziaren tasa altuenak enplegu gabeziarekin lotuta daudela eta, funtsean, pertsona aktibo guztiak langabezian dauden etxeekin. 2016an, pobrezia errealeko tasa, kasu hauetan, % 39,1era heldu zen; hala, intzidentzia hori puntu erdia jaitsi zen 2014rekin alderatuta eta

ia-ia 10 2008tik. Izan ere, orduan, familiako kideak langabezian zeuden euskal familien erdiak baino gehiago jasaten zuen pobrezia erreala (% 49,7).

Pobrezia tasarik murriztuenak, bukatutako serie osoan, kideek lan egonkorrak dituzten familietan daude (kontratu mugagabea) eta, aitzitik, lan ezegonkorrak dituzten familietan (aldi baterako kontratua edo kontraturik ez), pobrezia askoz handiagoa da: hori da, hain zuzen ere, "lan-pobrezia" deritzona. Kolektibo horrek % 14,7ko pobrezia tasa zeukan 2008an eta % 17,3ra igo zen 2012an. 2014ko % 12,7arekin hobekuntza bat egon zen, baina 2016ko azkenengo datu horrekin ehunekozko 3,3 puntuko okerragotzea egon da, % 16ra arte.

Bestalde, krisiak bizitza-baldintzetan duen ondorioetako bat da etxebizitzak galtzen dituzten familien kopurua areagotzen dela, ezin dietelako ordainketei aurre egin, hipotekak ez ordaintzeagatik edo alokairua ez ordaintzeagatik. Zentzu horretan, hipoteka-betearazpenen eta horren ondoriozko jaurtiketa judizialen kopuruaren bilakaerak informazioa ematen du fenomeno horren inguruan.

Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitzaren Behatokiak adierazten du, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren datuekin, 2015ean, guztira, 711 betearazpen erregistratu zirela. Zifra horrek % 8,8ko jaitsiera dakar aurreko urtearekiko. Izan ere, 2010etik, beheranzko joera antzematen da prozedura mota hauetan, 2009an betearazpen kopuruen gehiengoa erregistratu ostean, 1.255 guztira, 2013an baino % 35 gehiago. Egoera antzekoa da Estatutan, non hipoteka-betearazpenen kopurua ere murriztu egin den, hasiera batean tasa baxuagoekin (-% 9,8 2013an 2012rekiko). Hala ere, 2014. eta 2015. urteetan, jaitsiera nabarmenagoa izan da EAEn baino (-% 4,5 eta -% 15,6, hurrenez hurren). Betearazpenen kopuruaren pisu erlatiboa EAEn, Estatuko guztizkoarekiko, 2007ko % 2,3tik azkenengo hiru urteetako % 1era jaitsi egin da.

Bestalde, EINeren Hipoteka-betearazpenen Estatistikak ezagutzera eman du 2016an Euskadin erregistratu ziren betearazpenen % 41,2 etxebizitzekin lotuta daudela (% 82,2 pertsona fisikoenak eta % 17,8 pertsona juridikoenak) eta, horietatik, % 2,3 etxebizitza berriak direla eta % 17,8 erabilitako etxebizitzak.

Horrez gain, EAEn, familia-sistemen tipologia nabarmen aldatu egin da azkenengo hamarkadetan, prozesu demografiko, sozial eta kulturalen ondorioz. Aldaketa nabarmenen artean, hauek daude: etxe-moten aniztasun gehiago; batez besteko tamainaren murrizketa; aldaketa handiak etxe horietako erreferentziazko pertsonen profilean; etxean dauden adingabeen proportzioaren murrizketa eta menpekotasun-egoeren areagotzea.

Aldaketak gorabehera, familiak pertsonen bizitzaren erdigunean jarraitzen du. Eusko Jaurlaritzaren Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen "Familia EAEn" azterlanak (2012) adierazten du elkarrizketatutako pertsonen % 96k uste duela familia oso edo nahiko garrantzitsua dela, beste alderdi batzuk baino gehiago, adibidez, denbora librea edo aisialdia (% 93), lagunak (% 92) edo lana (% 91).

Azkenengo urteotan, familia-erakundean egondako eraldaketa handiek eta horrek ugalkortasunean izandako eraginak interes publiko handia sorrarazi dute, horrek guztiak dituen ondorioak direla-eta. Ugaltzeko adin egokiak eta lanean hasteko eta laneko promoziorako adinak bat datoz eta horrek oso egoera zailean kokatzen ditu emakume gazteak haurrak edukitzeko erabakiari dagokionez. Eusko Jaurlaritzak egindako 2014ko "Gizarte-zerbitzuen Beharren Inkestak" antzematen du, aurreko inkestekin alderatuta, nahi beste seme-alaba izateko aukerarekin lotutako arazoak areagotu direla, egoera ekonomikoa eta laneko egoera eta haurrak zaintzeko arazoak direla-eta. 2014an, EAEko etxeen % 5,6k adierazi zuen ezin zuela nahi beste seme-alaba eduki, hau da, 50.000 familiek adierazi zuten hori (49.358), 2010eko % 5,1arekin alderatuta. Hala eta guztiz ere, 2014ko proportzio altu hori ez da heltzen inkestak 2006an erregistratutako zifretara; izan ere, orduan % 6,2ra heldu zen.

Era berean, EUSTATek *"Laneko bizitza, bizitza pertsonala eta familiarra bateratzeko Inkesta"* egiten du; hala, inkestaren 2015eko emaitzek nabarmentzen dute, lehenik eta behin, etxetik kanpo lan egiten duten emakumeek gizonezkoek baino % 50 ordu gehiago ematen dituztela egunean haur adingabeak edo menpeko pertsonak zaintzen eta % 75 gehiago etxeko lanak egiten. Gizonezkoek 2,9 ordu ematen dituzte egunean adingabeak zaintzen (3,1 2013an) eta emakumezkoek, aldiz, 4,5 (4,9 2013an). Alde hori menpeko pertsonen zaintza kontuan hartzean errepikatzen da;

gizonezkoek 1,5 ordu ematen dituzte egunean jarduera horretan (2013ko zifra bera) eta emakumezkoek 2,1 ordu (2,3 2013an). Gainera, emakumezkoek, batez beste, 2,1 ordu ematen dituzte etxeko lanak egiten, gizonezkoek, aldiz, 1,2 ordu (2,2 eta 1,4, hurrenez hurren, 2013an).

Gain hartutako zamen desberdintasun horrek kostua dauka etxeko lanen banaketarekiko asebetetze-mailan; izan ere, emakumeek, batez beste, 10etik 6ko asebetetze-maila dute ezkontideak edo bikoteak etxeko lanetan duen partaidetza-mailari dagokionez. Gizonezkoek, aldiz, 7,3ko asebetetze-maila dute. Bateratzearen alderdi desberdinetan emandako denborarekiko asebetetzearen batez besteko indizean jartzen badugu arreta, seme-alaba adingabeak zaintzeko denborarekiko asebetetzearen batez besteko maila 6,5ekoa da eta altuagoa da emakumeengan (6,8 puntu, gizonezkoen 6,2rekin alderatuta). Asebetetze-maila hori murriztuagoa da, bai gizonezkoengan, bai emakumezkoengan, menpeko pertsonak zaintzeari dagokionez (6 batezbesteko, ia-ia berbera sexuen arabera).

Deskribatutako egoerak arintzeko, Eusko Jaurlaritzak 2002tik aurrera Familiak Babesteko Planak abiarazi zituen, familiei seme-alaben kopurua askatasunez erabakitzea eragozten dieten oztopo ekonomikoak eta gizarte-laneko oztopoak gainditzeko. Gainera, 2008an, Familiak Babesteko Legea onetsi zuen, esparruari maila juridiko altuagoa emateko eta familia-politika integralerako oinarriak ezartzeko, familien eta horien kideen ongizatea eta bizitza-kalitatea hobetzera bideratutakoa. 2002tik 2015era arte, familientzako laguntzetan egindako gastua, guztira, 640 milioi euro baino gehiagokoa izan zen. Horiek banatuta daude, % 50ean gutxi gorabehera, jaiotzagatiko, adopzioagatiko edo adopzioaren aurretiazko harreragatiko zuzeneko laguntzen eta bateratzeko laguntzen artean.

Laguntza horiek indarrean egondako denbora eta horietara bideratutako funtsak gorabehera, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren *"Familien eta Etxeen Inkestak"* (2015) horien berri ez duen familien ehuneko altua nabarmentzen du: Etxeen % 35,1ak bakarrik daki seme-alabak dituzten familientzako laguntzak daudela (jaiotza eta adopzioagatik ematen direnak). Eta bateratzerako laguntzen eremuaren barruan, ezagunenak dira lanaldiaren murrizketarekin lotutakoak, 12 urte baino gutxiagoko haurrak zaintzeko ematen direnak (% 39,9) eta lan-eszedentzia 3 urte baino gutxiagoko adingabeak zaintzeko (% 38,7). Ezagutza-maila % 31-32 ingurukoa da menpeko senideak edo muturreko larritasuneko osasun-egoeran dauden senideak zaintzera bideratutako laguntzei dagokienez. Gutxien ezagutzen den neurria da 3 urte baino gutxiagoko haur adingabeak etxean zaintzeko pertsonen kontratazioa diruz laguntzera bideratutakoa (% 18,2). Argi dago laguntza desberdinen ezagutza aldatzen dela familia motaren arabera eta ezagutza handiena menpeko haurrak dituzten gurasoen etxeetan ematen da.

Familientzako Laguntzen III Planaren indarraldia amaituta (2011-2015) eta planaren jarduketen eta betetze-mailaren informaziorik ezean, eskuragarri dauden azkenengo zifrak Eusko Jaurlaritzaren Ogasun eta Ekonomia Sailak egiten duen 2015eko ekitaldiko *"EAEko diruz lagun daitezkeen programen ebaluazio-txostenarenak"* dira. Urte horretan, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak 58,9 milioi euro bideratu zituen familientzako laguntzetara; hala, zenbateko hori 2014koa baino % 25,7 handiagoa da.

Hezkuntza eta kultura

EUSTATen arabera, 370.426 ikasle matrikulatu dira EAEn unibertsitatekoa ez den araubide orokorreko irakaskuntzan (helduentzako hezkuntza eta araubide bereziko irakaskuntzak kanpo utzita), 2016/17 ikasturtean. Horrek esan nahi du % 0,9ko hazkundea egon dela aurreko ikasturtearekiko.

Arreta matrikulazioaren datuetan jarriz, hezkuntza berezia sartu gabe eta mailaka bereiziz, ikusi da beheko mailetan (Haur eta Lehen Hezkuntza) 219.681 ikasle matrikulatu direla; 90.249 Haur Hezkuntzan (-% 3,3ko murrizketa, aurreko ikasturtekoari gehitzen zaiona) eta 129.432 Lehen Hezkuntzan (+% 1, aurreko urteko igoerari gehitzen zaiona). Hala, 81.401 ikasle matrikulatu dira Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan (+% 2,6) eta Oinarrizko Lanbide Heziketan 4.411 ikasle (+% 8); horrek Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programak ordeztu zituen 2015/16 ikasturtean.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondokoari dagokionez, batxilergoan 30.248 pertsona matrikulatu dira eta 14.713 erdi mailako heziketa zikloetan. Erdi mailako heziketa zikloetan egondako igoera (% 5,1) batxilergoan erregistratutakoa baino handiagoa da (% 0,7).

Bestalde, goi mailako heziketa zikloetan 21.502 pertsona matrikulatu egin dira, aurreko ikasturtean baino % 9,5 gehiago.

Izaera profesionaleko ikasketetan sakonduz, EUSTATen arabera, hauek dira 2015-16 ikasturtean ikasleen kopururik handiena bildu zuten erdi mailako heziketako lanbide-taldeak: Osasuna (% 15,3, +% 4,2ko aldakuntza aurreko ikasturtearekiko); Fabrikazio Mekanikoa (% 13,4, +% 1,9); Elektrizitatea eta Elektronika (% 9,8, -% 4,1); Garraioa eta ibilgailuen mantentze-lanak (% 8,8, -% 2,8); Administrazioa eta Kudeaketa (% 7,5, aldakuntzarik ez aurreko ikasturtearekiko) eta Instalazioa eta Mantentze-lanak (% 7,4, +% 4). Goi mailako heziketako graduen artean, nabarmentzekoa da hauen bolumena; Fabrikazio Mekanikoa (% 12,7, +% 1,2ko aldakuntza aurreko ikasturtearekiko); Zerbitzu Soziokulturalak eta Erkidegoarentzakoak (% 11,7, -% 3,8); Administrazioa eta Kudeaketa (% 11,5, -% 7,6); Elektrizitatea eta Elektronika (% 10,9, -% 9,5); Informatika eta Komunikazioak (% 8,6, -% 3,4); Osasuna (% 7,1, +% 0,9) eta Instalazioa eta Mantentze-lanak (% 6,5, -% 3).

Unibertsitateko irakaskuntzei dagokienez, 2014-15ean, guztira, 67.060 ikasle matrikulatu ziren EAEko unibertsitateetan. Horrek esan nahi du % 1,7ko jaitsiera egon dela aurreko ikasturtearekiko, azkenengo lau urteetako hazkunde-joera apurtuz. Ikasleen % 76 unibertsitate publikora doaz eta % 24 unibertsitate pribatuan matrikulatzen da. Bestalde, sexuaren araberako banaketak erakusten du emakume gehiago sartzen direla unibertsitatean.

Unibertsitate-graduazioari dagokionez, datuek erakusten dute % 4,5eko jaitsiera egon dela, 13.297 pertsonara heldu arte; hala, horietatik % 55,9 emakumeak dira.

Graduko ikasketei erreparatuz[58], ikaslerik gehienak Gizarte eta Zuzenbide Zientzien arloko ikasketetan graduatu ziren (% 53,1), eta ondoren Ingeniaritza eta Arkitekturakoetan (% 23,2). Neurri txikiagoan hauetan: Osasunaren Zientziak (% 10,3) Arteak eta Giza Zientziak (% 8,4) eta Zientziak (% 5). Ez da graduaziorik erregistratu titulazio bikoitzetik.

Sexu-desberdintasunak antzematen dira ikasketa-arloaren aukeraketan; hala, oro har, emakumeek Zientzien, Osasunaren Zientzien eta Gizarte eta Zuzenbide Zientzien barruan sartzen diren programak nahiago dituzte irakaskuntza teknikoak baino.

Hezkuntza-adierazleei dagokienez[59]:

- Eskolatze-tasa

  EUSTATen datuek erakusten dute, batetik, eskolatzearen betetze-maila derrigorrezko irakaskuntza mailetan edota maila orokorretan edo hasierako lanbideko mailetan (% 100 6-15 urteko tartean eta % 98 16-17 urteko tartean). Bestetik, gazteen ehuneko altua mantentzen da prestakuntza arautuaren sisteman adin aurreratuagoetan, ratioa adina aurrera joan ahala murrizten bada ere.

  Betetako eskolatze-tasak, hezkuntza-mailen eta adin-tarteen arabera, oro har, erakusten du pertsona gehienak adinagatik dagokien hezkuntza-mailan daudela. Horrela, adina aurrera joan ahala, guztizko eskolatze-tasa murrizten da eta ibilbide luzeagoko hezkuntza-mailei dagokiena hazten da.

- Ikaskuntza iraunkorrean parte hartzea

  Hezkuntza, Kultura eta Kiroleko Ministerioaren datuen arabera, 2015ean, gure erkidegoan, 25 eta 64 urte bitarteko biztanleen % 12,9k prestakuntzako jardueretan partu hartu zuen. Ratio hori Estatuko batez bestekoa (% 9,9) eta

[58] Graduko ikasketak hartzen dira erreferentziatzat Bolonia Planaren ikasketa-egitura nahiko finkatuta dagoelako.

[59] *Hezkuntza-adierazleen bilakaeraren laburpena honako erreferentzia hauek iturri nagusitzat hartuz egin da:*
- Hezkuntzaren egoera. ELGA adierazleak.
- EUSTATen Irakaskuntzaren Estatistika.
- Hezkuntzaren kopuruak Espainian, Hezkuntza eta Zientziaren Ministerioarenak.
Zehaztasun gehiago jakiteko, kapitulu honetako dagokion atalera jo.

EB28koa baino handiagoa da (% 10,7), baina oraindik ere ez da heltzen 2020rako proposatutako % 15eko Europako helburura. Hala, emakumeen parte-hartzea gizonena baino handiagoa da (% 13,7 eta % 12,1, hurrenez hurren).

- Hezkuntzako gastu publikoa BPGdren gainean.

EUROSTATen datuen arabera, 2013an, Estatuko gastu publikoa hezkuntzan BPGdren % 4,19koa izan zen, EB28ko batez bestekoa baino ratio txikiagoa (% 5,3) eta % 6a gainditzen duten erreferentziazko estatu kideen ratioarengandik urrun, hau da, Suedia, Finlandia, Txipre, Malta, Belgika eta Herbehereak.

Bestalde, 2014an, HEZKUNTZA, KULTURA ETA KIROLEKO MINISTERIOAREN datuen arabera, Hezkuntza Administrazioen gastua BPGdrekiko % 4,01ekoa izan zen EAEn, Estatukoa baino ratio handiagoa (% 3,79) eta EAEn 2013an erregistratutakoa baino apur bat handiagoa (% 3,99).

Horrenbestez, iturriak bat ez badatoz ere, Erkidegoak BPGdrekiko duen gastu publikoa arlo horretan erreferentziako herrialdeena baino txikiagoa dela esan daiteke.

Hezkuntza Administrazioek unibertsitatekoa ez den eta unibertsitatekoa den hezkuntzan egindako gastua bereiziz, ondorioztatzen da gure erkidegoak estatuko batez bestekoa gainditzen duela unibertsitatekoa ez den hezkuntzan (BPGdren % 3,22 % 2,78ren aurrean) egindako esfortzuan (BPGdrekiko gastuaren ehunekoa), baina ez unibertsitateko hezkuntzan egindako esfortzuan (% 0,7 % 0,89ren aurrean).

Aldi berean, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren gastua (hezkuntza-arloa) 2015ean 2.560,6 milioi eurora heldu zen. Horrenbestez, % 1,9ko hazkundea zen aurreko ekitaldiarekiko. Partaidetza hori, Eusko Jaurlaritzaren guztizko gastuan, %25ekoa izan zen, aurreko urteko ratio bera. Gastu horrek EAEko BPGdren % 3,7 hartzen du, 2014an erregistratutakoaren antzeko ehunekoa.

Bestalde, 2015eko aurrekontuetan, 2.530,1 milioi eurokoa zen Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak soilik hezkuntzarako erabilitako partida. Horrek %0,2ko gehikuntza dakar aurreko urtean likidatutako gastuaren aldean. Eusko Jaurlaritzaren gastuen aurrekontuan duen partaidetzaren ehunekoa %23,4 da. Gastu hori EAEko BPGdren % 3,53 da; 2015ean, berriz, % 3,60koa izan zen.

- Ikasle bakoitzeko gastu publikoa (publikoa eta itundua).

EUROSTATen arabera, ikasle bakoitzeko gastua hezkuntza-erakunde publiko eta pribatuetan[60], 2013an, 6.216 eurokoa zen Estatuan, Portugalen, Frantzian, Irlandan, Eslovenian, Finlandian, Alemanian eta Belgikan antzemandakoaren azpitik (6.641 eta 8.391 euro bitartean) eta Txipren, Herbehereetan, Danimarkan, Austrian, Suedian, Erresuma Batuan eta Maltan erregistratutakoarengandik urrun (8.654 eta 13.437 euro bitartean). HEZKUNTZA, KULTURA ETA KIROLEKO MINISTERIOAREN arabera, zentro publikoen ikasle bakoitzeko gastu publikoa unibertsitatez kanpoko irakaskuntzan, Lan Heziketa alde batera utzita, 6.448 eurokoa izan zen EAEn 2014. urtean. Beraz, berriz ere gure erkidegoa da ikasle bakoitzeko gasturik handiena duena, kozientea apur bat murriztu bada ere aurreko urtearekiko. Estatuko batez bestekoa 4.537 eurokoa zen eta, beraz, ikasle bakoitzeko gastua EAEn Estatukoa baino %41,7 handiagoa zen.

Zentro publikoen ikasle bakoitzeko gastu publikoa unibertsitatez kanpoko irakaskuntzan, 8.976 eurokoa izan zen EAEn. Beraz, berriz ere dugu gure erkidegoa ikasle bakoitzeko gasturik handiena duena, kozientea aurreko urtearekiko ere murrizten bada ere. Deigarria da ikasle bakoitzeko kostuaren aldea sareko guztizkoaren artean eta sare publikoaren artean EAEn, gastuaren % 39,2ra heltzen dena. Beste autonomia erkidegoek, Nafarroak izan ezik, % 20ko aldea gainditzen dute.

[60] *Adierazle honek erakunde publiko eta pribatuen gastu publikoa eta pribatua hartzen ditu kontuan, prestakuntza okupazionala barne hartzeaz gain. Hala, konbertitutako euroetan kalkulatuta dago, PPS erabiliz. Hezkuntza-maila guztiak hartzen dira kontuan, lehen haurtzaroko hezkuntza-garapena izan ezik (haur hezkuntzako lehenengo zikloa).* Hau da, Lehen Hezkuntza; Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. Etapa eta Goi-mailako Hezkuntza.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu-likidazioaren arabera, hezkuntzan ikasle bakoitzeko egindako gastuaren ratioa (ikasleak guztira, hau da, araubide orokorrekoak[61] eta berezikoak[62]), 2014 eta 2015 bitartean, berriz igo zen eta 5.227tik 5.259 eurora igaro zen.

- Ikasle bakoitzeko gastu publikoa (erakunde publikoak).
  HEZKUNTZA, KULTURA ETA KIROLEKO MINISTERIOAren arabera, zentro publikoen ikasle bakoitzeko gastu publikoa Unibertsitatez kanpoko irakaskuntzan, Lan Heziketa alde batera utzita, 8.976 eurokoa izan zen EAEn 2014. urtean. Beraz, berriz ere dugu gure erkidegoa ikasle bakoitzeko gasturik handiena duena, kozientea aurreko urtearekiko ere murrizten bada ere. Estatuko batez bestekoa 5.169 euro zenez gero, ikasle bakoitzeko batez besteko gastua ikastetxe publikoetan %75,4 handiagoa izan zen EAEn Estatuan baino.

- Hezkuntza eta prestakuntza goiz uztea
  hezkuntza, kultura eta kiroleko ministerioak argitaratutako informazioaren arabera, gure erkidegoan, hezkuntza eta prestakuntza goiz uzten dutenen tasak beheranzko joera erakusten du eta 2016an % 7,9koa izan zen, EB28ko batez bestekoaren azpitik (% 11) eta estatukoaren azpitik (% 19). Horrela, EAEk 2020rako ezarritako % 10eko Europako helburua lortu du.

  Hala, tasa hori altuagoa da gizonezkoen artean emakumezkoen artean baino herrialde gehienetan. EAEn, 2016an, tasa maskulinoa femeninoa baino 5,7 puntu handiagoa izan da (% 10,7 eta % 5). Hau da, gure erkidegoan, Europako helburua lortu egin da emakumeek izandako emaitza onari esker.

- PISA proiektua Irakurmenean eta gaitasun zientifikoan eta matematikoan lorturiko batez besteko emaitzak
  PISA 2015 edizioak desberdintasun metodologikoak aurkezten ditu aurrekoekin alderatuz, emaitzak aztertzerakoan kontuan hartu beharrekoak. Nagusien artean, hauek aipatu behar dira:
  - Hau izan da lehenengo urtea aplikazio osoa ordenagailuz egin dena.
  - Geruzatutako lagin bat hautatu zen hezkuntza-sare eta hizkuntza-ereduen arabera, baina ez aurreko edizioetako laginetan aplikatutako sei geruzen arabera. Erabaki honek, besteak beste, bi ondorio ditu: batetik, lagina aurreko edizioetan baino txikiagoa da eta, bestetik, lagina euskal hezkuntza-sistema egituratzen duten hiru hizkuntza-ereduen arabera geruzatu zen, baina ez 2012ra arte laginaren erreferentzia izandako sei estratuen arabera.
  - 2015eko edizioan, frogei euskaraz erantzun diete ez soilik familian euskaldunak diren ikasleek, baizik eta familian gaztelaniaz hitz egiten duten ikasle batzuek ere.

  Gaitasun zientifikoan, ebaluatutako hiru gaitasunen artean Euskadiren emaitzetan beherakada handiena eman da, 23 puntuko aldearekin 2012ko edizioarekin alderatuta. Hala eta guztiz ere, kontuan hartu behar da Ekonomia Lankidetza eta Garapenerako Antolakundeko herrialde gehienen gaitasun zientifikoko emaitzek, Europar Batasuneko herrialde gehienak barne, okerrera egin dutela. Horrela, EAEren puntuazioa (483 puntu) ELGAren eta Espainiaren batez bestekoa baino baxuagoa da (493 bi kasuetan). Autonomia erkidegoen arabera, puntuaziorik altuenak Gaztela eta Leonen (519), Madrilgo Erkidegoan (516), Nafarroan (512) eta Galizian (512) eman dira.

  Aipatu beharra dagoen beste adierazle bat da euskal ikasleek askoz gutxiago parte hartzen dutela zientziekin lotutako eskolaz kanpoko jardueretan, ELGAko ikasleekin eta Espainiako batez bestekoarekin alderatuta. Izan ere, euskal ikasleen % 4,9k baino ez du parte hartzen zientzia-lantegietan, ELGAren % 39,3aren aurrean. Hala, % 38k hartzen dute parte zientziekin lotutako lehiaketetan eta ehuneko hori % 66,5era heltzen da ELGAn.

  Irakurketa-gaitasunari dagokionez, esan daiteke Euskadik berezko laginarekin parte hartu duen azterlan honen bost edizioetan, ELGA eta Euskadiren emaitzen aldea ez dela nabarmena izan estatistikoki. Espainiako batez besteko emaitzei dagokienez, Euskadiren puntuazioa nahiko altuagoa izan da 2003tik 2012ra, baina 2015ean estatistikoki berdindu ziren. Autonomia erkidegoen arabera, puntuaziorik onenak lortu dituzte Gaztela eta Leonek (522),

[61] *Unibertsitatekoa eta Unibertsitatetik kanpokoa.*

[62] *Arte Plastikoak eta Diseinua; Hizkuntzak; Musika; Dantza; Kirola eta Diseinuko Goi-mailako Ikasketak.*

Madrilgo Erkidegoak (520), Nafarroak (514) eta Galiziak (509), ELGAko herrialdeen multzoaren batez bestekoa gainditzen baitute (493).

Gaitasun matematikoari dagokionez, EAEren emaitzak 12 puntuko okerragotzea izan du 2012ko edizioarekin alderatuta (492 eta 505). 2003tik lortutako emaitzetatik baxuena da hori. Hala, 2015eko edizioko puntuazioaren jaitsierarekin, Euskadi ELGAren batez bestekoan dago. Autonomia erkidegoen arabera, puntuaziorik altuenak Nafarroarenak (518), Gaztela eta Leonenak (506), Errioxarenak (505) eta Madrilgo Erkidegoarenak dira (503), ELGAko herrialde guztien batez bestekoa baino handiagoak (490).

EAEren eta posiziorik onena duen autonomia erkidegoaren emaitzen arteko aldea 36 puntukoa da zientzietan (Gaztela eta Leon), 31 puntukoa irakurketa-gaitasunean (Gaztela eta Leon) eta 26koa matematiketan (Nafarroa).

Emaitzen aldakortasunari dagokionez, 95 eta 5 pertzentilen arteko puntuazio-aldearen arabera neurtuta, Euskadik hiru gaitasunetan duen emaitzen aldakortasun baxuak adierazten du euskal hezkuntza sistema oso sistema bidezkoa dela, nazioarteko batez bestekoa baino askoz gehiago. Hala ere, emaitzak hobetu beharko lituzke bikaintasuneko sistema bihurtzeko.

Errendimendu-mailen araberako emaitzei dagokienez, 2012 eta 2015 bitartean, hiru gaitasunetan, errendimendu baxuko mailetan (egoerak okerrera egiten du); beraz, ehunekoa Europaren % 15eko helburutik aldentzen da. Bestalde, bikaintasun-mailek okerrera egiten dute gaitasun zientifiko eta matematikoan, baina ez irakurketa-gaitasunean.

Sexuaren araberako emaitzei dagokienez, gaitasun zientifikoan, ez dago alde nabarmenik nesken eta mutilen puntuazioaren artean; irakurketa-gaitasunean, aldea murriztu bada ere, neskek mutilek baino puntuazio hobea lortzen dute eta, gaitasun matematikoan, bi sexuen arteko aldea murriztu den arren, mutilek neskek baino puntuazio altuagoa lortzen dute.

- Prestakuntza Goi-mailako Hezkuntzan 30etik 34 urtera bitarteko biztanleengan
  HEZKUNTZA, KULTURA ETA KIROLEKO MINISTERIOAk argitaratutako informazioaren arabera, EAEn, 30-34 urteko biztanleen ikasketa tertziarioen tasa % 54,2koa da; zifra horrek EB28ko batez bestekoa hobetzen du (% 38,7) eta, izan ere, erregistrorik onenen mailan dago. Hala ere, 2010 eta 2015 bitartean, tasa hori ehunekozko 5,6 puntu murriztu egin da. Generoa kontuan hartuta, antzeman da handiagoa dela emakumezkoen artean (% 60,8), 13,2 puntuko aldearekin gizonezkoen tasarekiko (% 47,6).

- Unibertsitate-adierazleak. 2016

Errendimendu, eskola-uzte, aldaketa eta egokitasun tasak

EAEn, graduko ikasleen errendimendu-tasa (gainditutako kredituen eta matrikulatutakoen arteko harremana, 2014-15 ikasturtean, % 80koa izan zen, unibertsitate guztien batez bestekoa baino gehiago (% 77,5). EAE zazpigarren postuan dago autonomia erkidegoen rankingean. Emakumeek autonomia erkidego guztietan dituzte gizonezkoek baino tasa altuagoak.

EAEn, masterreko ikasleen errendimendu-tasa % 92,6koa izan zen 2014-15 ikasturtean, graduko ikasleen errendimendu-tasa baino ratio handiagoa eta unibertsitate guztien batez bestekoa baino handiagoa (% 92,6 eta % 88,7). Horrela, EAE laugarren postuan dago autonomia erkidegoen rankingean. Emakumeek gizonezkoek baino tasa handiagoak dituzte autonomia erkidego guztietan, Balear Uharteetan izan ezik.

Ikasketak uztearen tasa ikasketen lehenengo urtean (titulazio zehatz batera sartutako eta lehenengo urtean ikasketak utzitako ikasleen ehunekoa), graduko ikasleei dagokienez, 2014-15 ikasturtean, % 13,8koa izan zen 2012/13 ikasturteko ikasleen taldearentzat. Hala, EAEk hirugarren uzte-tasarik baxuena erregistratzen du.

Ikasketak uztearen tasa masterreko lehenengo urtean % 7,2koa izan zen 2012/13 ikasturteko ikasleen taldearentzat. Horrela, EAEk bigarren uzte-tasarik baxuena erregistratzen du.

Graduko ikasle berberentzat, ikasketen lehenengo urtean beste ikasketa batzuetara aldatutako ikasleen tasa % 6,2koa izan zen, unibertsitate guztien batez bestekoa baino gutxiago (% 7,5). Horrela, gure erkidegoak laugarren tasarik baxuena erregistratzen du.

Masterreko ikasle berberentzat, ikasketen lehenengo urtean beste ikasketa batzuetara aldatutako ikasleen tasa % 2,3koa da, unibertsitate guztien batez bestekoa baino apur bat gutxiago (% 2,9). EAE erdibideko postu batean dago autonomia erkidegoen rankingean.

Horrela, gure erkidegoko graduko ikasleak ez dira ikasketez gehien aldatzen dutenak, ezta gehien uzten dituztenak ere, beste autonomia erkidego batzuetan antzemandako jokabidearekin alderatzen bada.

Sexuaren arabera, graduko zein masterreko emakumezko ikasleek gizonezkoek baino uzte- eta aldaketa-tasa baxuagoak dituzte.

Azkenik, graduko ikasleen egokitasun-tasa (gradua aurreikusitako denboran bukatzen duten ikasleen ehunekoa) % 43,4koa da 2011/12 ikasturtean hasitako lau urteko graduetako ikasleen kasuan eta % 42,1ekoa bost urteko iraupen teorikoa duten eta 2010/11 ikasturtean hasitako graduetan matrikulatutakoentzat. Hala, ehuneko horiek unibertsitate guztien batez bestekoak baino handiagoak dira, % 33,2 eta % 36,5, hurrenez hurren.

Bestalde, masterreko ikasleen egokitasun-tasa % 81ekoa da 2014/15 ikasturtean hasitako urtebeteko masterreko ikasleen kasuan eta % 83,2koa 2013/14 ikasturtean hasitako eta aurreikusitako bi urteko iraupena duten graduetan matrikulatutakoentzat. Hala, ehuneko horiek unibertsitate guztien batez bestekoak baino handiagoak dira, % 73,4 eta % 69,4, hurrenez hurren.

- Shangaiko rankinga.Espainiak 12 unibertsitate ditu rankingeko lehenengo 500 postuen artean. Estatuko rankingean, Bartzelonako Unibertsitatea da lehenengoa, mundu mailako 200 unibertsitaterik onenen artean dagoena. Jarraian, Madrilgo Unibertsitate Autonomoa eta Granadako Unibertsitatea daude, biak mundu mailako 200 unibertsitaterik onenen artean daudenak.

  UPV-EHU, 500 unibertsitaterik onenen artean dagoena, estatu mailako rankingean hamargarren postuan dago, hauen atzetik: Bartzelonako Unibertsitatea, Madrilgo Autonomoa, Granadakoa, Bartzelonako Autonomoa, Madrilgo Konplutentsea, Kataluniako Politeknikoa, Valentziako Politeknikoa, Pompeu Fabra eta Santiago de Compostelakoa.

Nazioartekotzea

EAEn, nazioarteko ikasleen kopurua 2.125era igo zen 2014/15 ikasturtean. % 54 emakumeak ziren eta % 46a gizonak; hala, gehienak unibertsitate publikoan matrikulatu ziren (guztizko kopuruaren % 69,6). Jatorrizko herrialdeari dagokionez, nabarmentzekoak dira Latinoamerikatik eta Karibetik datozenak (guztizko kopuruaren % 47,3) eta EB28koak (% 27,2). Estatuan, gehiago dira EB28ko herrialdeetatik datozenak Latinoamerikatik eta Karibetik datozenak baino.

Halaber, ikusten da, Estatuan, ateratzen diren 100 ikasle bakoitzeko 140 sartzen direla; EAEn, aldiz, egoera aurkakoa da. Izan ere, ateratzen diren 100 ikasle bakoitzeko 60 sartzen dira eta hori ratiorik baxuena da Extremadurakoarekin batera.

Gainera, 2014an Euskal Administrazio Autonomoak kulturan likidatutako gastua, hezkuntza, kultura eta kiroleko ministerioaren datuen arabera, % 26,5 hazi zen 2012ko datuekin alderatuta. Hala, gastu hori gure erkidegoko BPGdren % 0,19 da (% 0,15 aurreko urtean) eta Estatuko batez besteko ratioa gainditzen du (% 0,1). EAEn biztanle bakoitzeko gastua kulturan 55,8 eurokoa zen 2014an, 2013an baino ehunekozko 11,9 puntu gehiago.

Bestalde, euskal etxeek ondasunetan eta zerbitzu kulturaletan egindako gastua, 2015ean, 684,7 milioi eurokoa zen, hau da, % 1,5eko igoera egon da. Etxeko batez besteko gastua 762,2 eurokoa izan zen (+% 1 aurreko urtearekiko). Pertsona bakoitzeko batez besteko gastua 320,2 euro zen 2015ean, 2014an baino % 1,5 gehiago.

Inguru naturalaren egoera

Airearen kalitatea, Eusko Jaurlaritzak emandako informazioaren arabera, nabarmen hobetu da azkenengo urteotan EAEn. Horrez gain, argitaratutako azkenengo datuen arabera, iraunkortasun-adierazlea, *"Oso ona", "Ona" eta "Hobe daiteke"* kalifikazioarekin sailkatutako egun kopuruaren batuketaren eta urteko egunen kopuruaren arteko harremana bezala neurtuta, % 99,2koa da, 2014an erregistratutako ratioa baino gehiago (% 98,8). Termino agregatuetan, kalitate oso oneko edo oneko egunen ehunekoa urtean % 78,4tik % 83,4ra igaro egin da 2014 eta 2015 bitartean.

Kontsumoko urari dagokionez, EINek egindako *"Uraren hornikuntzari eta tratamenduari buruzko Inkestaren"* datuen arabera, EAEn erregistratutako eta banatutako uraren guztizko bolumena hornikuntza publikorako 184,8 Hm^3-ra igaro zen 2014an; horrek esan nahi du % 3,9ko gutxikuntza egon dela aurreko urtearekiko. 184,8 Hm^3 horietatik, % 79,3, hau da, 146,6 Hm^3 erregistratutako ur-bolumenak izan ziren (gainerakoak, zenbatetsitakoak). Erregistratutako bolumen horretatik, % 62,7 etxeak hornitzeko erabiltzen da; % 30,8 sektore ekonomikoentzat (industria, zerbitzuak eta abeltzaintza) eta % 6,6 udal-kontsumoetarako (lorategiak ureztatzea, kaleak garbitzea eta beste erabilera batzuk). Aurreko urtearekiko, erabiltzaile guztien kontsumoa murriztu egin zen.

Erregistratu gabeko ura ageriko galeren (neurketa-akatsak, iruzurrak eta zenbatetsitako kontsumoak) eta galera errealen artean bereizten da (ihesaldiak, hausturak eta matxurak saneamendu-sarean). Azken horiek hazi ziren eta, 2014an, eskuragarri zegoen guztizko kopuruaren % 8,9 izan ziren, 2013an erregistratutako % 6,5a baino gehiago eta Estatuan zenbatetsitako % 15,2a baino gutxiago.

Uraren kontsumoa per capita, EAEn, estatuko batez bestekoa baino txikiagoa izan zen berriz ere, 116 eta 132 litro/biztanle/egun, hurrenez hurren. Hala, % 5,7ko jaitsiera egon da 2013 eta 2014 bitartean. Uraren unitate-balioa 1,75 euro/m^3 izan zen, hazkundeko segidako bi urte pilatuz. Hala ere, Estatuan erregistratutako balioa baino gutxiago izaten jarraitzen du (1,89 euro/m^3). Izan ere, Estatuan igo egin da.

Hondakinen sorkuntzari eta kudeaketari dagokionez, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde-plangintza eta Etxebizitza Sailaren datuen arabera, 2013 eta 2014 bitartean, kudeatutako hondakin arriskutsuen guztizko kopurua % 13,7 hazi zen eta arriskutsuak ez direnena, aldiz, % 8,6 hazi zen 2013-2015 epean (ez dago 2014ko daturik). Horrela, 2014an kudeatutako hondakin arriskutsuen kopurua 323.398 Tm-ra heldu zen eta arriskutsuak ez direnak 3.535.977 Tm-ra, 2015ean.

Hondakin arriskutsuen % 66,6 birziklatu zen edo konposta egin zen (% 68,7 2013an); % 1a energetikoki balioztatu zen (% 0,5 2013an); % 0,8a erraustu zen eta gainerako % 31,5a deuseztatu zen (% 30,6a 2013an). Bestalde, arriskutsuak ez diren hondakinen guztizko kopurutik, 2015ean, % 53,3 birziklatu zen edo konposta egin zen; % 3,9 energetikoki balioztatu zen eta gainerako % 42,8a deuseztatu zen. 2013an, hauek izan ziren dagozkien ehunekoak: % 59,3 birziklatu zen edo konposta egin zen; % 2,2 energetikoki balioztatu zen eta % 38,5 deuseztatu zen.

Hiri-hondakinei dagokienez, EAEn, 2015ean, 502 kilo jaso ziren biztanle bakoitzeko (Eusko Jaurlaritzaren estatistikak ez du informaziorik ematen 2014. urteari dagokionez); hala, zifra hori 2013rako zenbatetsitakoa baino handiagoa da (498 kilo/biztanle). Horietatik, 163 birziklatu ziren; 121 energetikoki balioztatu ziren eta erraustu ziren eta 121 konpostari dagozkio (ongarri organikoa). Gainerakoa, hau da, 161 zabortegira joan ziren. 2013rekin alderatuta, jotzen da energetikoki balioztatutako eta erraustutako hondakinak nabarmen areagotu zirela (93 kilo/biztanleko 212ra); konpost bihurtutakoak % 10 hazi ziren; birziklatutakoak % 28 murriztu ziren eta zabortegira botatakoak % 41.

Lurralde historikoen arabera egindako azterketak joera bera erakusten du, zenbatekoak desberdinak badira ere. Horrela, Araban balioztatutako hondakinen per-capita bolumena hazi zen (2013an baino 15 kilo gehiago biztanleko), baita konpost bihurtutakoena ere (2013an baino 9 kilo gehiago biztanleko). Horrez gain, zabortegira botatakoak murriztu ziren

(2013an baino 97 kilo gutxiago biztanleko) eta birziklatutakoak ere bai (2013an baino 16 kilo gutxiago biztanleko). Bizkaian, balioztatutako hondakinen per-capita bolumena 26 kilo hazi zen biztanle bakoitzeko eta konpostera bideratutakoena kilo bat biztanleko. Zabortegira botatakoak, aldiz, 45 kilo murriztu ziren biztanleko eta birziklatutakoak 34 kilo biztanleko. Gipuzkoan, balioztatutako hondakinen per-capita bolumena 35 kilo hazi zen biztanleko eta konpostera bideratutakoena 25 kilo biztanleko (nabarmena Araba eta Bizkaiko hazkundearekin alderatuta). Zabortegira botatako hondakinen bolumena, aldiz, 10 kilo murriztu zen biztanleko eta birziklatutakoak 25 kilo biztanleko.

Amaitzeko, EINek egindako *"Enpresa industrialek ingurumen-babesean egiten duten gastuaren inkestaren"* azkenengo datuek erakusten dute, EAEn, 2014an, aipatutako gastua (gastu korrontea eta inbertsioa) % 3,9 murriztu zela 2013ko datuekin alderatuta, jaitsieretako segidako bi urte pilatuz. Intentsitate-terminoetan, antzematen da apur bat jaitsi dela 2014an 2013rekin alderatuta, hain zuzen ere, ehunekozko hamarren bat, % 0,28ra helduz. Hala ere, ratio hori estatuko batez bestekoa baino gehiago da, % 0,2koa dena. Horrela, EAE, 2014an, bosgarren postuan egon zen, Asturias eta Nafarroaren atzetik (biak % 0,4rekin); Gaztela-Mantxa (% 0,37) eta Kantabria (% 0,33) eta Galiziaren parean (% 0,28).

Osasuna eta osasun sistema

Hasteko, zenbait adierazle aurkeztuko ditugu, herritarren osasun-egoerara hurbiltzea ahalbidetzen digutenak, besteak beste, menpekotasuna, bizitza-itxaropena eta hilkortasuna.

Bizitza-itxaropenak jaiotzean, garatutako herrialde gehienetan, goranzko denbora-bilakaera izan du. Hala, 2013an, Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioaren datuen arabera, gizonezkoen bizitza-itxaropena jaiotzean EAEn eta Estatuan antzekoa zen (80,2 eta 80,1), EB28ko batez bestekoa baino gehiago (77,8). Bestalde, emakumezkoen bizitza-itxaropena jaiotzean handiagoa da EAEn Estatuan baino (87,1 86 urteren aurrean) eta biak dira EB28ko batez bestekoa baino handiagoak (83,3). Horrez gain, ikusten da emakumeek gizonek baino bizitza-itxaropen handiagoa dutela; hala ere, horien diferentzial positiboa murrizten ari da, bai EAEn, bai Estatuan.

Hala eta guztiz ere, jaiotzako bizitza-itxaropenaren hazkunde horrek ez du esan nahi adierazle hori igotzen den bizitzako urte horietan guztietan osasun-egoera ona izango denik. Izan ere, pertsonek bizitza-kalitatea galtzea eragin dezaketen gaixotasunak eta osasun-arazoak jasan ditzakete, heriotza berehala eragiten ez badute ere. Oro har, hori gertatzen da, hain zuzen ere, kroniko deritzen gaixotasunekin. Gaixotasun horiekin, hilkortasun-tasak balioa galtzen du pixkanaka osasun-egoeraren adierazle gisa eta beharrezko bihurtzen da gaixotasuna dituen ondorioen arabera neurtzea, jarduera-mugaketa edo ezgaitasuna bezalaxe.

Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioaren datuen arabera, bai EAEn, bai estatuan, jaiotzako bizitza osasuntsuko urteek goranzko joera erakusten dute gizonentzat eta emakumeentzat. Hala ere, hazkunde hori handiagoa izan da estatuan EAEn baino 2009 eta 2013 bitartean.

Bestalde, bai EAEn, bai Estatuan, sexuaren araberako aldeak bizitza-itxaropenean nabarmen murrizten dira jarduera-mugaketarik gabe bizitako urteak kontuan hartzen direnean. Hala, bizitza-itxaropeneko urteen irabazia emakumeengan gizonekiko jarduera-mugaketarik bizi izandako urteen kontura egiten da.

Horrela, EAEn, 2013an, bizitza osasuntsuko urteak emakumeentzat 69,2 ziren eta 68,2 gizonentzat. Urte berean, bizitza-itxaropena 87,1ekoa zen emakumeentzat eta 80,2koa gizonentzat. Horrek esan nahi du emakumeek 17,9 urte bizitzen dituztela jarduera-mugaketarik eta gizonek 12. Emakumeak gizonak baino 6,9 urte gehiago bizi ziren 2013an. Hala ere, jarduera-mugaketarik gabeko urteen batez bestekoa urtebete gehiagokoa izan zen soilik (emakumeentzat).

Bestalde, Espainian, jaiotzean bizitza osasuntsuko urteak 66,2 ziren emakumeentzat eta 67,5 gizonentzat. Urte berean, bizitza-itxaropena 86 urtekoa zen emakumeentzat eta 80,1ekoa gizonentzat eta jarduera-mugaketa 19,8 urtekoa emakumeengan eta 12,6koa gizonengan. Horrez gain, 2013an, emakumeak gizonak baino 6,9 urte gehiago bizi ziren. Hala eta guztiz ere, jarduera-mugaketarik gabeko urteen batez bestekoa urtebete gehiagokoa izan zen gizonezkoentzat.

Beste era batera esanda, bai bizitza-itxaropena, bai bizitza osasuntsuko urteen kopurua, hazi egin dira. Hala ere, gizonezkoen, emakumeekin alderatuta, bizitza osasuntsuko urteetan goranzko joera horren magnitude handiagoa dela-

eta, sexu baten eta bestearen arteko bizitza-itxaropeneko aldeak desagertu egiten dira (izan ere, Estatuan alderantzika daiteke) jarduketa-mugaketarik gabeko urteak kontuan hartzen direnean.

2014an, menpekotasun-tasa (16 urte baino gutxiagoko eta 64 urte baino gehiagoko biztanleen eta biztanle produktiboen –16 urtetik 64 urtera– arteko harremana bezala neurtuta, EAEn, Estatuko batez bestekoa baino handiagoa izan zen (% 55,8 vs % 52,1). Hala, hirugarren tasarik altuena da, Gaztela eta Leonen eta Galizian erregistratutakoaren atzetik. 2000 eta 2014 bitartean, tasaren aldakuntzarik handiena gure erkidegoan eman zen; izan ere, 12,3 puntuko igoera egon zen (Osasun Sistema Nazionalaren Urteko Txostenaren datuak, 2015).

64 urte baino gehiagoko biztanleen menpekotasun-tasari erreparatuz, Euskadik, 2014an % 32,7ko ratioarekin, EB28ko batez bestekoa (% 27,5) eta Estatuko batez bestekoa (% 27,6) baino ratio handiagoa erregistratu zuen. Zehazki, laugarren tasarik altuena zuen, Gaztela eta Leonek (% 37,3), Galiziak (% 37) eta Asturiasek (% 36,5) gainditutakoa).

Hilkortasunari dagokionez, informazio iturri beraren arabera, autonomia erkidego guztietan murriztu egin dira hilkortasun-tasak azkenengo urteotan eta, 2014an, hilkortasun-tasa adinaren arabera[63], 100.000 biztanle bakoitzeko, Euskadin, Estatuko batez bestekoa baino txikiagoa da (425 vs 448). Beste autonomia erkidego batzuekin alderatuta, ondorioztatzen da EAEk emaitza ona lortu duela. Izan ere, Andaluzian, tasa 496koa da; Katalunian, 431koa eta Valentziako Erkidegoan, 463koa. Bestalde, Madrilek 385eko ratioa erregistratzen du, EAEko tasa baino gutxiago.

Galdutako bizitzako balizko urteen azterketatik, hilkortasunak herritar gazteenengan duen eragina islatzen duen neurria heriotzak ahal den neurrian prebenitze aldera, ondorioztatzen da, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailaren datuen arabera, gizonen kasuan, heriotza goiztiarreko bost kausa nagusiak hauek direla (2008-2015 epeko datuak): trakeako, bronkioetako eta birikako tumore gaiztoak; kardiopatia iskemikoak; suizidioak eta norberak egindako lesioak; trafiko-istripuak motordun ibilgailuekin eta zirrosia eta gibeleko gaixotasun kronikoak. 2014an, gizonezkoen hilkortasun goiztiarreko kausa bezala agertu zen koloneko tumore gaiztoa. Emakumeen kasuan, epe bera aztertuta, ikusten da hilkortasuneko hiru kausa nagusiak hauek izaten direla: bularreko tumore gaiztoak; trakeako, bronkioetako eta birikako tumore gaiztoak eta suizidioak eta autolesioak. Gaixotasun zerebrobaskularrak edo zirrosia ez dira aurreko urteetan bezain ohikoak izan eta, aldiz, antzeman da emakumeen hilkortasun goiztiarra areagotu egin dela koloneko, obarioko eta entzefaloko tumore gaiztoengatik.

Jarraian, Euskadiko, Estatuko eta Europar Batasuneko baliabideen eta laguntza-jardueraren adierazleetako batzuk aurkezten ditugu.

Baliabideei dagokienez, Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioaren datuen arabera, EAEn, 2014an, lehen mailako arretako 0,8 mediku zeuden (familiako medikuntza eta pediatria) esleitutako 1.000 pertsonako; hala, tasa hori bat dator Estatuko batez bestekoarekin. Lehen mailako arretako erizainen tasa, esleitutako 1.000 pertsonako, 0,7koa zen; tasa hori Estatuko batez bestekoaren antzekoa da (0,6) eta Gaztela eta Leongo ratioak (0,9) eta Galiziakoak (0,8) bakarrik gainditzen zuten.

---

[63] *Tasa gordina biztanleriaren esperientzia laburtzeko modurik errazena eta zuzenena da. Hilkortasun orokorrak lotura estua dauka adinarekin; hortaz, hilkortasun-tasa espezifikoak adinaren arabera oso desberdinak izango dira. Tasa gordinak sortzen duen "batezbesteko balioak" adin-estratuaren araberako hilkortasun-tasa espezifikoen heterogeneotasuna ezkutatzen du.*

Gaia bereziki garrantzitsua da tasak biztanleriaren artean edo denbora-epe desberdinen artean konparatzen direnean; izan ere, biztanleriaren osaera desberdina bada, antzemandako balizko aldeetako batzuk, gutxienez, estratuetan dauden alde horiei egotzi ahal zaizkie. "Doikuntza" eta "estandarizazio" terminoek taldeen arteko laburpen-neurrien konparazioa errazteko prozedurei egiten diete erreferentzia, prozedura matematikoen bidez horiek artifizialki homogeneo eginez. Horrela, estandarizatutako hilkortasun-tasa adinaren arabera lurralde batean erregistratutako heriotzen zifrari dagokio (100.000 biztanleka adierazita), sexuaren eta berezko adinaren araberako hilkortasun-tasaren arabera eta biztanleria tipo edo estandar baten adinen araberako egiturarekin. Metodo honi estandarizazio zuzena deritzo eta tasa kalkulatzen du adin-taldeen araberako hilkortasun-tasen haztatutako batez besteko gisa, non haztatzeko koefizienteak erreferentziazko biztanleria estandarra diren

Bestalde, arreta espezializatutako medikuen eta erizainen tasak 1.000 biztanleko, EAEn, autonomia erkidego guztietako altuenak dira (hurrenez hurren, 2,1 1,8ko Estatuko batez bestekoarekin eta 4,4, 3,1eko Estatuko batez bestekoarekin).

Azterketa bilakaeraren ikuspuntutik egiten bada, datuak zuzenean alderatu ezin badira ere, ikus daiteke Europar Batasunean eta gure erkidegoan mediku eta erizainen kopuruak goranzko bilakaera duela eta Estatuan, aldiz, egonkortu egin dela azkenengo urteotan.

Bestalde, funtzionamenduan dauden oheen kopuruak erakusten du Europar Batasuneko herrialde guztietan ematen dela beheranzko joera. Murrizketa hori azal daiteke ospitalizatzeko beharrak ere murriztu direlako, aurrerapen teknologikoen ondorioz eta egonaldiaren beharrik gabeko jarduera hazi delako, bereziki, anbulatorioko kirurgia.

Horrela, 2008 eta 2014 bitartean, Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioaren datuen arabera, funtzionamenduan dauden oheen kopurua (zentro publiko eta pribatuetan), 1.000 biztanleko, 3,8tik 3,4ra igaro da Euskadin eta 3,2tik 3ra Estatuan. EB28an, 5,3 oheko tasa erregistratzen zen 1.000 biztanleko, Estatukoa eta gure erkidegokoa baino ratio handiagoa.

Asistentzia-jarduerari dagokionez, Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioaren datuen arabera, EAEko biztanleen batez besteko bisiten maiztasunak, Osasun Sistema Nazionaleko lehen mailako medikuntzan (familia eta pediatria), goranzko joera izan du. Hala, 2015ean, 5 bisita ziren esleitutako pertsonako eta urteko, Estatuko 5,3ko batez bestekoa baino tasa txikiagoa. Hala, euskal emakumeak gehiago joatean dira medikuarenera gizonak baino (kontuan hartu behar dugu datuak familia eta pediatria hartzen dituela barne eta adierazle horiek generoaren arabera bereizten direla): 5,6 bisita esleitutako pertsonako (emakumea) eta urteko, gizonen 4,4aren aurrean.

Bestalde, euskal biztanleen bisiten maiztasunak, Osasun Sistema Nazionaleko lehen mailako arretako erizaintzan, goranzko joera izan du ere bai; hala, 2015ean, 3,9 bisitakoa zen esleitutako pertsona eta urte bakoitzeko. Estatukoa baino tasa altuagoa (2,9). Sexuaren arabera bereiziz, emakumeak dira kontsultara gehien doazenak, gizonekin alderatuta.

Estatuan (ez dago autonomia erkidegoen araberako daturik), 65 urte baino gehiagoko pertsonak dira etxez etxeko jardueraren hartzaile nagusiak; hala, ehunekoak antzekoak dira familiako medikuntzan (% 80) eta erizaintzan (% 85), profesional mota bakoitzaren arabera egindako etxe guztien kopuruarekiko.

Telefono bidezko deia da eskariak jasotzeko bide nagusia; hala ere, azkenengo urteotan, hitzordua Interneten bidez eskatzeko aukera abiarazi da. Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasuneko Ministerioaren datuen arabera, EAEko pazienteen % 80,1ak ezagutzen du Interneten bidez hitzordua eskatzeko aukera; hala, % 36,7ak erabiltzen du eta 8,8 punturekin balioztatzen da, 0tik 10erako urkila batean. Ezagutzaren ratio altuenak ematen dira Andaluzian (% 84,4); Valentziako Erkidegoan (% 80,6) eta Gaztela eta Leonen (% 80,3); hala, EAE rankingaren laugarren postuan dago.

Hala eta guztiz ere, erabilera-maila aztertzen denean, ikusten da beste autonomia erkidego batzuk direla aktiboenak. Horrela, gure erkidegoa (aipatutako % 36,7a) erdibideko postu batean dago; izan ere, ratio altuagoak erregistratzen dira Murtzian (% 68,3); Andaluzian; Gaztela eta Leonen; Aragoin; Errioxan; Galizian; Valentziako Erkidegoan; Madrilen eta Katalunian (% 41,2).

Bularreko minbiziaren, kolon eta ondesteko minbiziaren eta umetoki-lepoko minbiziaren baheketa Osasun Sistema Nazionalaren *asistentzia-zerbitzuen* oinarrizko zorro komunaren parte dira.

Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasuneko Ministerioaren datuen arabera, EAEn, bularreko minbiziaren baheketa egiteko gomendatzen den adin-tarteko emakumeen % 86,5ak (50 eta 69 urte bitarteko emakumeak) adierazten du azkenengo bi urteetan mamografia bat egin duela, Estatuan erregistratutako % 77,1aren aurrean. Desberdintasunak daude autonomia erkidegoen artean, minbiziaren detekzio goiztiarreko programen bilakaera historikoa islatzen dutenak. Nafarroa nabarmendu behar da estaldurarik altuenarekin, hain zuzen ere, % 88,8koa, segidan Murtzia (% 86,9) eta EAE (% 86,5). Gainera, Nafarroan noizbait mamografia bat egin zuten emakumeen % 78,5ak detekzio goiztiarreko programa baten bidez deitu ziotelako egin zuen; hala, ehuneko hori altua da Errioxan (% 74,9) eta EAEn (% 71,6).

Estaturako eskainitako informazioaren arabera (ez dago daturik autonomia erkidegoen arabera), mamografia-tasak nahiko baxuagoak dira klaserik ahulenetan. Gradienteak antzematen dira gizarte-klasearen eta etxearen diru-sarrera mailaren arabera. Mamografia egin beharreko adinean dauden I gizarte-klaseko (klaserik altuenak) emakumeen % 85,1ak adierazten du egin duela, VI klasearen % 68,9aren aurrean (klaserik baxuena). Ez da alderik ikusten hezkuntza-mailaren arabera.

Umetokiko minbiziaren detekzio goiztiarrari dagokionez, EAEn, froga gomendatzen den adin-tarteko emakumeen % 82,3k (25 eta 64 bitarteko emakumeak) adierazten du baginako zitologia bat egin duela azkenengo 5 urteetan, estatuan erregistratutako % 78,8aren aurrean. Estatu osorako informazioaren arabera, zitologia egitea, gomendatutako irizpideak betez, gizarte-klasearekin lotzen da (I klaseko emakumeen % 88,4 eta VI klaseko % 68,6); ikasketa-mailarekin (% 88,4 unibertsitate-ikasketak dituztenak eta % 59,9 lehen mailako ikasketak edo gutxiago dituztenak) eta etxearen diru-sarreren mailarekin (% 89,1 kintil handienean eta % 64,8 lehenengoan).

Koloneko minbiziaren detekzio goiztiarrari dagokionez, eskuragarri dauden datuak ez dira autonomia erkidegoen arabera bereizten eta adierazten dute estaldura are baxuagoa dela Minbiziaren Estrategia Nazionalaren helburuekiko.

Jarraian, Osakidetzako asistentzia-jardueraren inguruko datuak aztertuko ditugu eta antzematen da eskariak hazten jarraitzen duela. 2015ean, sareko batez besteko okupazio-indize globala apur bat hazi zen 2014rekin alderatuta (% 78,8 % 77,7ren aurrean). Hala, % 100a gainditzen da eta, beraz, berriz ere kokatzen dira batez besteko horren gainetik, zerbitzu medikoetan, honako espezialitateak: Pneumologia (% 159,6); barneko medikuntza (% 125,3) eta digestiboa (% 107); baita zerbitzu kirurgikoetan ere: kirurgia kardiobaskularra (% 108,3) eta urologia (103,2).

Batez besteko egonaldia berriz ere murriztu egin da, 5,1 egunetik 5 egunera igaroz. Batez bestekoaren oso gainetik daude errehabilitazioa (32,9), zainketa aringarriak (13,4) eta psikiatria (14,0). Gogorarazi beharra dago batez besteko egonaldia eraginkortasuneko adierazletzat hartzen dela, jardunbide kliniko erabakigarriaren garapenarekin lotutakoa. Hala, batez besteko egonaldia murrizteak, txandakatze-indizea haztearekin batera, adierazten du produktibitatea handiagoa dela ospitalizazio-arloan.

Itxarote-zerrendei dagokienez, Osakidetzako kanpoko kontsulten itxarote-zerrendetan dauden pazienteen datuak alderatzen baditugu Informazio Zerbitzuak Osasun Sistema Nazionaleko itxarote-zerrenden inguruan emandako datuekin, oinarrizko espezialitateei dagokienez eta 2015eko datuak hartuta, ikus daiteke, osasun-txartela duten 1.000 biztanleko, itxarote-zerrendan dauden pazienteen kopurua txikiagoa dela EAEn Estatuan baino espezialitate hauetan: Dermatologia (4,3 eta 5,4), , Neurologia (1,5 eta 1,9), Kirurgia orokorra eta digestiboa (1,1 eta 1,5), Urologia (1,3 eta 1,7), Digestiboa (1,4 eta 2,5) eta Kardiologia (1,3 eta 1,5). Horrez gain, kopuru hori handiagoa da Traumatologian (8,0 eta 7,5) eta berbera Ginekologian (2,7 bi kasuetan) eta Otorrinolaringologian (2,6 bi kasuetan).

Arreta jasotzeko hilabete baino gehiago itxaroten duten pazienteen ehunekoari dagokionez, adierazleak zuzenean alderatu ezin badira ere, ematen du Estatuan egoera EAEn baino okerragoa dela.

Kirurgiako itxarote-zerrendei dagokienez, EAEn, ratioa, 2014tik 2015era, murriztu egin da, hain zuzen ere, 7,8 pazientetik 7,7ra, osasun-txartela duten mila biztanle bakoitzeko; hala, ratio hori Estatuko batez bestekoa baino baxuagoa da, 2015ean 12,2koa zena. Batez besteko berandutze-egunen kopurua berriz ere areagotu da (50 egunetik 50,6 egunera), Estatuan erregistratutako zifra baino txikiagoa (89 egun).

Osasun-arreta pribatuari dagokionez, EUSTATen datuen arabera, Euskadin jarduten duten aseguru libreko erakundeek 407.171 pertsonei ematen diete estaldura osasuneko aseguru pribatu baten bidez 2015ean (+% 6,4 2011rekin alderatuz). Horrenbestez, EAEko biztanleen % 18,7ak osasuneko aseguru pribatu bat dauka kontratatuta.

Aseguru libreko erakundeek 312,7 milioi euro bildu zituzten primen kontzeptuan (+% 2,6 2011rekin alderatuta; 2015ean, BPGdren % 0,45 da). Aseguratutako pertsonako batez besteko prima 768 eurokoa da (2011ko 726 euroen aurrean).

Estalitako pertsona guztien kopurutik, % 53 emakumeak izan ziren eta % 47 gizonak; horietako gehienak 45-64 urteko eta 25-44 urteko adin-tarteetan daude (% 32 eta % 30, hurrenez hurren).

Aseguratutako pertsonen % 59,3 aseguru kolektiboetatik dator; % 32,5 banakako aseguruetatik edo familiarretatik eta % 8,2 funtzionarioen mutualitate publikoetatik. 2011rekin alderatuta, nabarmendu behar da aseguru kolektiboak % 18 inguru hazi direla. Banakakoak edo familiarrak, aldiz, % 5,7 murriztu dira eta funtzionarioen mutualitateenak % 10,2 jaitsi dira.

Kapitulu honekin amaitzeko, Osasun Sistemaren gastua aztertuko dugu. Eusko Jaurlaritzaren 2015eko aurrekontu-likidazioko datuen arabera (kontsumoa ez da barne hartzen), 423 milioi eurorekin, lehenengo postuan jarraitzen du baliabideen ehunekoari dagokionez (guztizko kopuruaren % 33,7); bertan, programa nagusia Osakidetzaren transferentziei dagokie. Baliabideen bolumen hori BPGd nominalaren 4,9 da, aurreko urteko ehuneko bera.

Osasun Kontratazioko eta Finantziazioko eta Farmaziako programek osatzen dute likidatutako guztizko gastuaren osotasuna (% 98,7): Osasun Kontratazioa eta Finantziazioa % 84 eta Farmazia % 14,7.

Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasuneko Ministerioaren datuen arabera, biztanle bakoitzeko EAEko osasuneko gastua publikoak goranzko joera erakusten du 2007 eta 2011 bitartean; izan ere, urte horretan, krisi ekonomikoaren ondorioz, ratioa jaisten hasi zen. Hala eta guztiz ere, gure erkidegoa da aztertutako epean (2007-2015) biztanle bakoitzeko gehien gastatzen duena.

Zehazki, 2015ean, 1.602,4 eurokoa izan zen. EAErengandik hurbil daude Nafarroa (1.466,7 euro), Asturias (1.425,4), Kantabria (1.347,6) eta Gaztela eta Leon (1.321,9).

Osakidetzaren aurrekontu-likidazioak, EAEren Kontu Orokorretatik abiatuta egindakoa, erakusten du erakundeak 2015ean egindako gastua 2.695,2 milioi eurokoa izan zela (+% 2,7 2014rekin alderatuta). Hori BPGd nominalaren % 3,9 da, 2014ko ratio berbera. Igoera hori egon da ustiakuntza-gastuak hazi direlako, inbertsioak murriztu baitira.

Zehazki, likidatutako ustiakuntza-gastuak 2.621,4 milioi eurokoak izan dira; horietatik, 1.791,5 milioi euro langileen gastuei dagozkie (ustiakuntza-gastuen % 67,2, % 1,5eko hazkundearekin aurreko urtearekiko).

Bestalde, likidatutako kapitalaren aurrekontua 73,8 milioi eurokoa da, 2014koa baino % 13,4 gutxiago.

Azkenik, 2013-2010 Osasun Planaren emaitzen urteko txostenean jasotako datuen arabera, ezarpeneko bigarren urtean (2015), proposatutako 35 helburuetatik, 10 ezarrita daude (helburuen % 28 eta ekintzen % 29); 16 hasi dira (helburuen % 46 eta ekintzen % 44) eta 9 oraindik ez dira hasi (helburuen % 26 eta ekintzen % 27).

Adierazleetako 57ren informazioa eguneratuta dago. 57 horietatik, 2020 helburua 5etan beteta dago; 38 helbururantz doaz eta 14k helburuaren aurkako joera dute.

Etxebizitza

Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Sailaren *"Higiezinen Eskaintzaren Estatistikak"* adierazten du, lehenik eta behin, azkenengo urtean etxebizitzaren guztizko eskaintza (salmenta gehi alokairua) % 10 erori dela (-% 7,8 2015ean); laugarren hiruhilekoan 33.535 unitate batuz. 2016an eta aurreko urtean bezalaxe, etxebizitza mota guztien eskaintza murriztu zen, babestutako alokairua izan ezik, guztizko eskaintzaren % 1,7 dena.

Etxebizitza motaren arabera, datu hauek nabarmendu behar dira:

- Salmentan dauden eraikuntza berriko etxebizitza libreen eskaintza % 10,5 murriztu da eta, 2016ko laugarren hiruhilekoan, batez besteko prezioa 3.180,7 €/m^2 izan da, 2015ean baino % 2,8 gutxiago. Lurralde-azterketak erakusten du Araban batez bestekoa baxuagoa dela (2.527,3 €/m^2), Bizkaian eta Gipuzkoan, aldiz, 3.333,8 €/m^2 eta 3.148,8 €/m^2 dira, hurrenez hurren.

- Salmentan eskainitako Babes Ofizialeko Etxebizitzen batez besteko prezioa 1.744,1 euro/m^2 izan da 2016an, urtebete lehenago baino % 4,2 gehiago. 2016ko laugarren hiruhilekoan, eskaintza 1.283 unitatekoa izan da, urtebete lehenago baino % 17 gutxiago.
- % 9,1eko jaitsiera antzematen da eskaintzan dauden bigarren eskuko etxebizitzen stock-ean eta batez besteko prezioa 2.778,9 €/m^2 izan da 2016an, aurreko urtean erregistratutako batez bestekoa baino % 4,9 gutxiago. Lurraldeen arabera, Bizkaian eta Araban batez bestekoa baino gehiago jaitsi dira prezioak (-% 3,9 eta -% 4,3, hurrenez hurren), Gipuzkoan, aldiz, -% 7,5 murriztu dira.
- Alokairuan eskainitako etxebizitzak 1.398 dira, urtebete lehenago baino % 20,1 gutxiago. Segmentu librea (eskaintzaren % 72 dena) % 35,9 erori da, 1.570 unitateetatik 1.006 unitateetara igaroz. Hala, alokairuko etxebizitza babestuarena % 119,5 hazi da; beraz, babestutako alokairua 2015eko % 10,2tik alokairu-eskaintzaren % 28ra igaro da 2016an.
- EAEn alokairuan dauden etxebizitza babestuen batez besteko errenta, 2016an, 268 eurokoa izan da hilean, aurreko urtean baino % 22,4 gutxiago.
- Azkenik, alokairuan eskainitako etxebizitza libreen lagina, 2016an, 879,9 euroko batez besteko errentara heldu da hilean, urtebete lehenago baino % 0,9 gehiago. Lurralde historikoen arabera, Bizkaiak erregistratzen du preziorik altuena (889,4 €/hilean); horren atzetik dator Gipuzkoa 868, €/hilean eta, azkenik, Araba (773,8 € hilean).

Eraikuntza-jarduerari dagokionez, Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitzaren Behatokiak adierazten du EAEn hasitako etxebizitzen zenbatekoak, guztira, 2008 eta 2009an nabarmen jaitsi ostean, zeinuz aldatu zuela 2010-2011 biurtekoan, nabarmen haziz. Hala eta guztiz ere, 2012an, hasitako etxebizitzen kopurua % 40,8 murriztu zen, 2013an mantentzen den joera (-% 23,1); neurri txikiagoan 2014an (-% 4,5) eta intentsitate handiagoarekin 2015ean (-% 13,7). Hala, hori da azkenengo urtea guztizko zifra eskuragarri dagoena. Hasitako etxebizitzetatik, % 66 libreak ziren eta % 34 babestuak. 2016. urteari dagokionez, ez dago zifrarik hasitako etxebizitza babestuei dagokienez (ez dago merkatu librearen daturik): guztira, 1.214 hasi ziren, 2015ean baino % 12,3 gehiago. 2010ean izan ezik, hasitako babestutako etxebizitza 2007tik 2015era arte murriztu egin da, azkenengo urtean berriz haziz.

Bestalde, EAEn 2016an bukatutako etxebizitzen zenbateko osoa 3.512 unitatekoa izan zen, aurreko urtean baino % 36,9 gutxiago, bukatutako etxebizitza libreen (-% 48,2) eta babestutako etxebizitzen (-% 16) jaitsieren batuketaren emaitza gisa. Horrenbestez, aurten, etxebizitza babestuaren partaidetza areagotu da EAEko eraikuntza-jardueran; izan ere, bukatutako etxebizitzen artean, horien pisua % 35,5etik % 46,8ra igaro da.

Etxebizitza eskariari dagokionez, gurasoekin edo tutoreekin bizi diren 18 eta 44 urte bitarteko pertsonek lehenengo etxebizitza eskuratzeko beharrari hurbilduz, Eusko Jaurlaritzaren 2015eko *"Etxebizitza Beharren eta Eskariaren Inkestak"* egiaztatzen du etxebizitza eskuratzeko prozesua finantzatzea pentsatzeko berezko diru-sarrerak dituzten 72.836 pertsonek behar hori dutela adierazten dutela. 2013rekin alderatuta, zifra hori % 11,5 hazi egin da, aurreko inkestek jaitsiera handiak erakutsi bazituzten ere: -% 25,9 2011 eta 2013 bitartean eta -% 18,5 2010 eta 2011 bitartean.

Bestalde, 2015ean, guztira, 53.132 euskal etxeek adierazi zuten etxebizitza aldatu behar dutela, guztizko zenbatekotik % 6,2k. Zifra horrek erakusten du % 13,8ko jaitsiera egon dela 2013rekin alderatuta; orduan, etxebizitza horiek guztizkoaren % 7,1a ziren. Halaber, Etxebizitza Beharren eta Eskariaren Inkestak adierazten du, guztira, 58.017 euskal etxek behar zutela esku-hartzea 2015ean birgaikuntza egiteko; hala, magnitude hori EAEko familia-etxebizitzen parkearen % 6,7 da. Bilakaeraren terminoetan, ikusten da, 2013rekin alderatuta, birgaitzeko beharra nabarmen murriztu dela, bai etxeen bolumenean (-% 35,6), bai behar horren intzidentzia erlatiboan (ehunekozko 3,6 puntu gutxiago).

EAEko etxeek etxebizitzak ordaintzeari dagokionez egindako finantza-esfortzuari dagokionez, Espainiako Jabetza-erregistratzaileen, Ondasun Higiezinen eta Merkataritza-erregistratzaileen Elkargoak egindako "*Higiezinen Erregistro-estatistikak"* adierazten du finantza-esfortzu hori, batez besteko hileko hipoteka-kuota eta soldata-kostuaren harreman-terminoetan neurtuta, % 26,88koa izan zela 2016ko laugarren hiruhilekoan, urtebete lehenago baino ehunekozko 2,72 puntu gutxiago. Hala, aurreko urtean antzeko proportzioan hazi zen. Estatuan, oro har, ibilbidea lauagoa da: batez besteko soldata-kostuaren % 27,60 2016an eta % 28,29 2015ean.

Higiezinen jarduerari dagokionez, Sustapen Ministerioaren datuek, Notario-estatistikatik abiatuta, erakusten dute EAEn 2016an notarioaren aurrean gauzatutako etxebizitzen salerosketen kopurua (behin-behineko datuak) 18.643koa izan zela. Horrek esan nahi du % 13,7 hazi zela 2015ekin alderatuta (+% 14,1 erregistratzen da epe berean Estatu osoan, non 457.689 transakzio zenbatu diren).

Hutsik dauden etxebizitzei dagokienez, 2015eko "EAEn hutsik dauden etxebizitzen zenbaketa eta karakterizazioa egiteko bi urtez behingo Inkestak" adierazten du EAEn dauden etxebizitzen % 8,3 hutsik zeudela 2015ean (% 8,7 2013an), guztira, 86.325. Horietatik, % 32 (27.628) sasoikoak direla jotzen da eta gainerako % 68a (58.697) hutsik dago.Denboran izandako bilakaera aztertuta, EAEn, hutsik dauden etxebizitzen % 8,5era heldu zen 2013an eta 2015ean % 8,3ra jaitsi da. Bizkaia batezbestekoaren azpitik dago, 2009 eta 2015 bitartean hazi bada ere (% 7,1 urte horretan). Araba eta Gipuzkoa, aldiz, EAEko batez bestekoaren gainetik daude (% 11 eta % 8,9, hurrenez hurren, 2015ean).

Etxebizitza-politikari dagokionez, Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Sailak egikaritutako gastua nabarmen hazi zen azkenengo urteetan gehiengora helduz 2009; orduan, gastua 207,4 milioi eurokoa izan zen baina gastu hori erdira murriztu da 2015ean. Urte hori da azkena informazioa eskuragarri dagoena eta, 2015ean, gastu hori 99,8 milioi eurora murriztu da (-% 6,8 2014rekin alderatuta eta -% 51,9 2009ko gehiengoarekin alderatuta); hala, zenbateko hori EAEko BPGdren % 0,14 da.

Eusko Jaurlaritzaren errehabilitazio-politika 2013-2016 Etxebizitzako Gida-planaren ardatz estrategikoetako bat da, errehabilitazio-eredu iraunkor, sozial, ekonomiko eta integratzaile berri bat bultzatuz. Gida-planaren aurrekontutik (460,4 milioi euro), % 21a helburu horretara bideratu da *"Etxebizitza birgaitzeko Renove Plan"* baten bidez. Indarraldia amaituta, emandako diru-laguntzen zenbateko erreala 74,9 milioi eurokoa da, beste 1.077,4 milioi euro mugiarazi dituztenak. Horrek esan nahi du birgaikuntzara bideratutako baliabideen bolumen globala 1.152,3 milioi eurokoa izan dela. Emaitza horiek esan nahi dute laguntzetarako aurreikusitako aurrekontu publikoaren % 92 egikaritu dela. Mugiarazitako baliabideen bolumen osoari dagokionez, aurreikusitako funtsen % 124 dira.

Amaitzeko, Etxebizitzaren Euskal Behatokiak egindako *"EAEko etxebizitzarekin lotutako politika fiskala"* txostenak, hiru foru aldundien PFEZrengatiko likidazioen datuetatik abiatuta, nabarmentzen du ohiko etxebizitzagatiko kenketak (alokairua eta inbertsioa) 375,55 milioi eurora heldu zirela 2015ean, 2014an baino % 1 gehiago. Horrela, ematen du, ekitaldi horretan, 2008an hasitako jaitsierako joera gelditu egin dela. Kenketa horiek PFEZrengatiko osoko bilketaren % 8,5 dira eta zerga-bilketa guztiaren batuketaren % 3, baita urte horretako EAEko BPGdren % 3 ere, behin-behineko datuekin. Halaber, Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Sailak 2015ean egikaritutako gastuaren % 376 dira (99,8 milioi euro).

6.2. GOGOETAK

Bizitza-baldintzak EAEn

Ia-ia hamarkada bat igaro da jadanik krisiaren hasieratik; hala, EAEko familien bizitza-baldintzak, oro har, posizio egoki batean mantentzen dira, bai Estatuan, bai Europan. Pobreziari eta Gizarte-ezberdintasunei buruzko Inkestaren azkenengo datuek, 2016koek, hain zuzen ere, erakusten dute hobekuntza bat egon dela txirotasun- eta bazterkeria-arriskuaren adierazle nagusietan. Hala eta guztiz ere, oraindik ez dira itzuli krisiaren aurreko zifretara. Horrez gain, krisiaren gordintasuna islatzen duen fenomeno bat utzarazpenak dira eta fenomeno horren bilakaera positiboa izan da azkenengo urtean.

Hala eta guztiz ere, kezkatuta gaude gure erkidegoan txirotasuna neurtzen duten beste adierazle batzuetan eskuragarri dauden azkenengo datuek, 2015ekoek, okerrera egiten jarraitu ahal dutelako eta izaera eta garrantzi desberdineko ongizate-galerak pilatzen jarrai daitezkeelako (ustekabeko gastuei aurre egiteko gaitasunetik edo etxea tenperatura egokian mantentzetik, oporrak izatera edo nahi den kultura-kontsumoa mantentzera). Izan ere, ongizate hori berreskuratzeko beharrezkoak izango dira denbora eta esfortzua.

Bilakaera horiek ikusita, nabarmendu behar dugu beharrezkoa dela aldagai horien guztien segimendua egitea eta joerei erne egotea adierazleen multzo batean; izan ere, gaur egun, horien bilakaerak nahiko desberdinak dira.

Hortaz, berriz ere azpimarratzen dugu beharrezkoa dela gizarte-produkzioko ereduaren (aberastasuna sortzeko eta lehenengo mailan banatzeko gaitasun erreala) eta gizarteratzeko eta gizarte-kohesioko politiken (prestazio publikoak, laguntzak eta gizarte zerbitzuak) arteko oreka egokia lortzea, hazkunde ekonomikorako itzulerak gizarte-desberdintasuna areagotzea ekartzea saiheste aldera.

Horri dagokionez, nabarmendu behar da oso garrantzitsuak direla, emandako datuen arabera, egonkorra ez den enplegua eta laneko intentsitate baxua txirotasuneko forma berrien agerpenean. Izan ere, enpleguak langileen bizitza-baldintzak hobetzeko duen gaitasuna mugatzen dute eta horrek lehentasunezko arreta behar du.

Bestalde, egiaztatzen da familiak erdigunean jarraitzen duela; hortaz, beharrezkoa da kontuan hartzea familia-unitate motetan ematen diren aldaketak eta aldaketa horien ondorioak, botere publikoen lehentasunezko arreta behar dutenak.

EAEko familiek Eusko Jaurlaritzaren segidako Familiako Planek 2002tik artikulatutako zenbait laguntza dituzte. III Planaren indarraldia 2015ean bukatu zen eta, horren ondorengo hausnarketan, laguntza horiek ematea gorabehera, familiek nahi beste seme-alaba edukitzeko aukerarekin lotutako arazoak areagotu direla adierazteko arrazoietan sakondu beharko litzateke. Hori horrela da egoera ekonomikoa eta laneko egoera direla eta, baita haurrak eta menpeko adineko pertsonak zaintzeko arazoengatik ere.

Era berean, deigarria da, hain zuzen ere, haurrak dituzten familia askok ez dutela familia-politika hau ezagutzen. Izan ere, horiek izan beharko lirateke politika horien neurrien lehenengo onuradunak. Bi fenomeno horiek EAEko familia-politika oro har berriz planteatzeko arrazoi nahikoa dira, lortu nahi diren helburuetara heltzea ahalbidetzeko.

Aldi berean, kezkagarria da ikustea aurrerapausorik ematen ez dela gizonen eta emakumeen arteko erantzunkidetasunean etxeko eta zaintzako lanetan, EUSTATen Laneko bizitza, bizitza pertsonala eta familiarra bateratzeko Inkestaren azkenengo datuetatik ondoriozta daitekeen bezala. Ez da garrantzi gutxiko kontu bat; izan ere, ondorio sakonak ditu eremu garrantzitsu askotan, hain zuzen ere, emakumeen garapen profesional eta pertsonalerako aukeretan eta horrekin lotutako gaitasunen aprobetxamendurik ezan, baita bilakaera demografikoan eta emakumeen bizitza-kalitatean ere.

Hezkuntza eta kultura

Aurreko urteetan bezala, azpimarratu beharreko egitate bat dela uste dugu EAE hezkuntza-adierazle batzuetan lehenengo postuetan egotea, Europako beste estatu batzuekin eta autonomia erkidegoekin alderatuta. Hala ere, beste adierazle batzuetan, emaitzak ez dira hain onak eta horrek esan nahi du aztertu beharreko alderdiak daudela, hausnartze eta hobetze aldera.

Horretarako, uste dugu arreta berezia jarri behar dela honako kontu hauetan:

Lehenik eta behin, EAE nabarmentzekoa da unibertsitatetik kanpoko hezkuntzan egindako gastuagatik; izan ere, horren ondorioz, oso emaitza onak lortu dira eskola-porrota edo sistemaren ekitatea bezalako adierazle hain garrantzitsuetan. Hala ere, esfortzu horrek ez du eraginik errendimendua edo bikaintasuna bezalako kontu garrantzitsuetan. Zentzu horretan, arreta eta ohartarazpen berezia merezi dituzte azkenengo PISA ebaluazioaren emaitzek (egondako intzidentzia metodologiko zehatzetatik harago), are gehiago, baieztatzen delako ebaluazio horren aurreko edizioetan iragarritako joera ez-onuragarria.

Unibertsitateko hezkuntzari dagokionez, kontseilu honek uste du bereziki hartu behar direla kontuan gure unibertsitate-sistemaren nazioartekotze-maila baxuaren inguruko datuak. Gure testuinguruan, biztanleria aktiboa zahartzen ari da eta EAEko gazteen mugikortasuna areagotu egin da inguru global honetan; hortaz, produkzio-sistemarentzat, berebizikoa da gazte horien adimena hartzea eta beste leku batzuetakoa erakartzea ere bai. Horretarako,

euskal unibertsitate-sistema saiatu beharko zen erakargune bihurtzen, kanpoko adimena hartzeko prozesua hasteko. Uste dugu garrantzitsua dela defizit horren inguruan hausnartzea eta dagozkion neurriak hartzea.

Gure ustez, Europako hezkuntzako helburuengandik urruntzeak esan nahi du gure hazkundearen oinarria alde batera uzten dugula gizarte gisa eta, horrenbestez, etorkizuneko ongizatearen funtsezko oinarri bat. Erronka handia da, denok ukitzen gaituelako eta gu garelako hori gainditu behar dugunak. Aipatutako disfuntzioak zuzentzea ez da soilik hezkuntza-erkidegoaren erantzukizuna, gizarte osoaren konpromisoa eta inplikazioa eskatzen baitu.

Bestalde, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasleen kopuruak hazten jarraitu duen arren, kezkagarri da urtero ematen den murrizketa Haur Hezkuntzako ikasleen kopuruan, joera demografikoen ondorio gisa. Datu hori kontuan hartu behar da, hurrengo urteetan ondorengo hezkuntza-mailetan izango dituen ondorioengatik.

Horrez gain, Lanbide Heziketako matrikulazioen igoera nabarmendu behar da eta, zehazki, lan-merkatuan bereziki eskatutako zenbait lanbide-taldeetan egondako igoera (baita unibertsitateko prestakuntzan ere). Zentzu horretan, uste dugu beharrezkoa dela esfortzuak bikoiztea, arlo horiek indartzeko beharrezkoa izan daitezken estadio guztietan.

Nolanahi ere, aurten ere azpimarratu nahi dugu beharrezkoa dela aurrera egiten jarraitzea prestakuntza-eskaintzaren eta lan-merkatuaren arteko harreman sistemikoaren ezarpenean. Horretarako, informazioko fluxu etengabea eta arina ahalbidetzen duten harremanetarako sare egonkorrak funtsezkoak dira.

Era berean, azpimarratu nahi dugu emakumeek oraindik ere parte-hartze maila baxua dutela arlo teknikoetan, bai prestakuntza-zikloetan, bai unibertsitatean. Izan ere, arlo horiek emaitza onenak dituzte tituludunen laneratzeari dagokionez. Horrek esan nahi emakumeek abiapuntu zailagoa dutela karrera profesionala garatzerakoan gizonen posizioarekin alderatuta. Teknologia garapenaren oso faktore garrantzitsua bilakatu da; beraz, emakumea horretara guztiz integratzeak zentzu bikoitza dauka: lehenik eta behin, ekonomikoa; izan ere, ezin ditugu eskuragarri dauden gaitasunen % 50 alde batera utzi. Horrez gain, zentzu etiko sakona dauka, emakumea eremu honetan ez egotea bereizketako faktore bihur daitekeelako, soldata-aldea atzeraelikatzen duena eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasunerako prozesua geldiarazten duena.

Inguru naturalaren egoera

Uraren kontsumoaren bilakaera positiboa azpimarratu behar da; izan ere, erabiltzaile guztiek (etxeak, sektore ekonomikoak eta udalen kontsumoak lorategiak ureztatzeko, kaleak garbitzeko eta beste erabilera batzuk) murriztu egin dute kontsumoa aurreko urtearekin alderatuta. Halaber, per capita kontsumoa murriztu egin da. Hala eta guztiz ere, nabarmendu behar dugu saneamendu-sareko ihesaldi, haustura eta matxuretan galerak areagotu egin direla. Zentzu horretan, uraren ziklo osoaren balioa azpimarratu behar da eta horren ikuspegi globala, Europako Uraren Esparru-zuzentarauak adierazten duen bezala.

Bestalde, hondakinei dagokienez egondako bilakaera azpimarratu behar dugu; izan ere, hondakin arriskutsuen eta ez-arriskutsuen kudeaketa areagotu egin da; baztertutakoen proportzioa handitu da eta, aitzitik, birziklapenak pisua galdu du. Hiri-hondakinen kasuan, bolumena ere hazi da per capita terminoetan eta birziklatutakoak murriztu direla antzeman da.

Kontseilu honek adierazi izan duen bezala, zalantzarik gabe, posizio onetan mantentzen dira Estatuan. Hala eta guztiz ere, eremu batzuetan hobetzeko aukerak daude, hain zuzen ere, ingurumen-babeseko enpresen gastuaren murrizketa edo uraren unitate-kostuaren bilakaera bezalako kontuetan (horrek familia-ekonomietan dauzkan ondorioekin). Hala, komenigarria izango litzateke horren justifikazioa ezagutzea.

Hortaz, Euskal Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak uste du beharrezkoa dela biztanleria sentsibilizatzeko lan egiten jarraitzea eta produkzio-prozesu garbiagoak abiaraztea ahalbidetzen jarraitzea, hiru aldagaien integrazio egokia bilatzen dutenak, ingurumenekoa, soziala eta ekonomikoa.

Osasuna eta osasun-sistema

Lehenik eta behin, ikusten dugu EAEko biztanleek osasun oneko adierazleak dituztela eta horiek hobetzen jarraitzen dutela (bizitza-itxaropen altua, gero eta bizitza-itxaropen gehiago osasun onarekin), baina, aldi berean, heriotza gero eta beranduago heltzen da, horrek morbilitate-terminoetan dituen ondorioekin. Horrez gain, menpekotasun-tasa handitzen da. Horrela, euskal osasuneko paziente tipoa zenbait patologia dituen 65 urte baino gehiagoko pertsona bat da eta izango da eta, dauden aurrerapausoekin, urte asko biziko da.

Adin aurreratua eta kronizitatea osasun-gastuan eragin nabarmena duten faktoreak dira; beraz, herritarren kontzientziazioa handitu beharko zen prebentzioari dagokionez, banakako ikuspuntutik zein ikuspuntu kolektibotik. Eta ez soilik osasunaren ikuspegi zorrotzetik, baita gero eta behar handiagoei erantzun behar dien osasun-sistema baten iraunkortasunaren ikuspuntutik, gizarte-kohesioaren eta ongizatearen faktore giltzarri bezala. Horrek erakusten du beharrezkoa dela sistema berriz diseinatzea, gizarte-osasuneko behar berriei behar bezala erantzuteko, horretarako beharrezkoa den finantziazioarekin.

Bestalde, azpimarratu behar dugu sexuaren araberako aldeak bizitza-itxaropenean nabarmen murrizten direla jarduera-mugapenik gabe bizitako urteak kontuan hartzen direnean. Horrela, bizitza-itxaropeneko urteen irabazia emakumezkoetan gizonezkoekin alderatuz, jarduera-mugapenarekin bizi izandako urteen kontura egiten da.

Aldi berean, gure memoriaren aurreko edizioetan adierazi izan dugun bezala, aurretik deskribatutako bi egoera horiek ondorioak dituzte zaintzaileentzat; horretarako, neurri berriak ezarri behar dira gizarte-politiken eta familia-politiken eremuan, baita pertsona horien lan-bizitza eta familia-bizitza bateratzeko ere.

Asistentziari dagokionez, gure erkidegoan egondako bularreko eta umetokiko minbiziaren detekzio goiztiarreko programen bilakaera historiko positiboa nabarmendu behar da, Nafarroan izan ezik beste autonomia erkidego batzuetan erregistratzen ez diren estaldura-ratioekin. Gainera, Euskadik erkatze-posizio ona dauka itxarote-zerrendan dauden pazienteei dagokienez, Estatuko batez bestekoarekin alderatuta.

Euskal osasun sistemaren etorkizuneko iraunkortasuna gizarte osoa kezkatzen duen balio partekatu bat da. Eusko Jaurlaritzak osasunean likidatutako gastuak eta Osakidetzak likidatutako gastuak termino absolutuetan hazten jarraitzen dute eta osasun-gastua per capita terminoetan Estatuko altuena da eta goranzko joera mantentzen du. Horrek guztiak adierazten du gure gizarteak osasun kolektiboa mantentzeko asmoa duela. Magnitude horiek indarreko Osasun Planetik eratorritako emaitzen jarraipen zorrotza egitera behartzen dute, egindako esfortzuak dagokion isla izango duenaren konpromiso irmoarekin, bai eraginkortasun, bai efikazia terminoetan.

Etxebizitza

Aurten ere, higiezinen merkatuaren bilakaeraren profila 2008an hasitako krisiaren ondoriozko doitze-profila da; hala, prezioak berriz jaitsi dira etxebizitza librean, baina babestuan igo dira. Hala ere, nabarmendu behar da higiezinen merkatuaren jarduera apur bat suspertu egin dela (hiru urtez jarraian hazi da etxebizitzen salerosketa), eraikuntzaren jarduera hain argi hazi ez bada ere.

Azkenengo urteotan, eskaria nabarmen doitu da eta, 2015ean, etxebizitza bat eskuratu behar zuten pertsonen kolektiboa hazi zen (eskuragarri dagoen azkenengo datua), 2010etik jaitsi ostean. Aitzitik, data horretan etxebizitza aldatu edo birgaitu behar zuten etxeen kopurua murriztu egin zen.

Gainera, etxeen finantza-esfortzuaren geldialdi-testuinguru batean gaude; izan ere, esfortzu hori, batez besteko hileko hipoteka-kuotaren eta soldata-kostuaren arteko harremanaren terminoetan neurtuta, % 26,88ra heldu zen 2016ko laugarren hiruhilekoan, urtebete lehenago baino ehunekozko 2,72 puntu gutxiago.

Horregatik guztiagatik, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak uste du, indarreko Gida-planaren aurrekontu-mugak kontuan hartuta, are garrantzitsuagoa dela etxebizitza-programa publikoak birgaikuntzan oinarritzea (horrez gain,

baliabideak eta jarduerak mugiarazteko indar handia daukate), baita alokairuko etxebizitzen merkatuan jarduketa publikoak indartzea ere, bai etxebizitza berriari, bai erabilitako etxebizitzari dagokienez, kolektibo ahulenenak etxebizitza bat eskuratzea errazte aldera. Zentzu horretan, amaitu berri den *Renove* Planaren balantzea positiboa dela ematen du.

Hala eta guztiz ere, berriz ere adierazi behar dugu bereziki beharrezkoa izaten jarraitzen duela alokairuko etxebizitza babestua eraikitzeko prozesuak sustatzea, urriak direlako. Horrez gain, esfortzuak bikoiztu behar dira, etxebizitza-parke horren eginkizun soziala bermatze aldera.

V. KAPITULUA

Gizarte babesa EAEn

Kapitulu honetan, gure Erkidegoko Gizarte Babesa osatzen duten eremu nagusien gaineko gainbegirada egingo dugu. Lehenik eta behin, EAEn gizarte babesean eginiko gastua berrikusiko dugu, eta EUSTATek EBren metodologia jarraituz eginiko kontuak emango ditugu. Ondoren, Gizarte Segurantzaren prestazioak eta pobreziaren eta gizarte bazterkeriaren kontrako borrokarako tresnak aztertuko dira, Diru-sarrerak Bermatzeari eta Gizarteratzeari buruzko 18/2008 Legearen ondoriozkoak. Jarraian, estatuko legearen ondoriozko mendetasunaren arretarako sistema EAEn ezartzeari buruzko ebaluazioa egingo da eta, azkenik, Euskadiko gizarte aurreikuspeneko sistema osagarrien zenbaki handiak aztertuko dira.

Bestalde, Europako Batzordearen 458/2007 Erregelamenduan giza babesa sartzen deneko eremuetan sailkapenean, beren beregi sartzen dira langabeziako prestazioak. Hala ere, horiei buruzko informazioa (Estatuko Enpleguko Zerbitzu Publikoak-SEPE- kudeaturiko Gizarte Segurantzaren prestazioak) Memoria Sozioekonomiko honetako III. Kapitulura ekartzea aukeratu da (“*III. Kapitulua. Lan Merkatua.)* zertarako eta enpleguari buruzko politiken gaineko ikuspegi osoa izateko, betiere politika aktiboak eta pasiboak batera aztertuta.

1. GIZARTE BABESAREN KONTUA

Gizarte Babesaren Estatistiken Europako Sistemaren (SEEPROS) arabera, Gizarte Babesa honela definitu behar da: “erakundeek gauzatutako jarduera guztiak, arrisku edo beharrizan jakin batzuek etxebizitzei eta norbanakoei sorrarazitako kargak arintzeko helburu dutenak, aldibereko hitzarmenik, elkarrekikorik edo banakakorik ez bada”[1].

Gizarte babesaren arloko beste estatistika batzuetan ez bezala, adibidez Gizarte Segurantzaren Sistemetako erakundeek buruturiko ekintzak baizik biltzen ez dituen Lanaren Nazioarteko Bulegoarenean, SEEPROS metodologian edozein erakundetara zabaltzen da behaketaren eremua, publikoa nahiz pribatua izan, baldin eta definizio orokorreko beharkizunen araberako gizarte babeseko ekintzak burutzen baditu. Kontzeptu hau definizioan aipatzen diren arriskuen eta beharren zerrendarekin osatzen da; funtzio deritze horiei guztiei.

V.1.1. TAULA. GIZARTE BABESA EAE-N. ADIERAZLE NAGUSIAK

	2008	2011	2012	2013	2014	2015*	Ald. % 2013-14	Ald. % 2014-15
GASTUA GUZTIRA (MILIOI EURO)	13.798	16.134	16.349	16.770	16.765	16.939	0,0	1,0
%-REN GASTUA BPG-AREN GAINEAN	19,8	23,7	24,5	25,4	24,9	24,5	-0,5	-0,4**
GASTUA EUROTAN/BIZTANLE	6.402	7.409	7.498	7.707	7.715	7.797	0,1	1,1
GASTUA PA-N BIZTANLEKO	6.744	7.660	7.883	8.180	8.341	:	3,8	:
GASTUA PRESTAZIOETAN FUNTZIOEN ARABERA (MIL. €)								
- ERITASUNA/OSASUN ARRETA	4.168	4.370	4.151	4.110	4.183	4.268	1,8	2,0
- ZAHARTZAROA	5.230	6.227	6.459	6.716	6.862	7.150	2,2	4,2
- LANGABEZIA	1.027	1.612	1.774	1.873	1.530	1.230	-18,3	-19,6
- BESTE BATZUK	3.075	3.607	3.666	3.768	3.896	3.996	3,4	2,6
GASTUA UNITATE INSTITUZIONALEKO								
- G.S. ETA ESTATUAREN ADMINISTRAZIOA	8.169	9.612	9.910	10.217	10.272	:	0,5	:
- EUSKAL ADMINISTRAZIOAK	4.522	5.241	5.176	5.147	5.243	:	1,9	:
- ERAKUNDE PRIBATUAK	1.108	1.289	1.263	1.405	1.250	:	-11,1	:

Iturria: EUSTAT. Gizarte Babesaren kontua EAEn. Geuk egina.
**** Behin-behineko datuak.***
***** Aldea puntu portzentualetan.***

[1] *Ikusi Memoria honen amaieran agertzen den terminoen glosategia.*

EUSTATen 2015eko "*EAEko Gizarte Babesaren Kontua*"ren azken datuen arabera, Euskadin eginkizun horretarako erabilitako baliabideak 16.939 milioi euro izan ziren aipaturiko urtean, 2014an baino %1 gehiago. Hots, urte horretako BPGaren %24,5 (+%4,7 2008aren aldean eta -%0,4 2004arekiko), behin-behineko datuak erabiliz. Gizarte babesaren gastuak etengabe egin du gora eskuragarri dugun urteetako seriean, eta biztanleko gastua 6.402€ izan zen 2008an. 2015ean, berriz, 7.797 (+%21,8).

Administrazio gastuak deskontaturik, gizarte prestazioen balioa, zenbatespenen arabera, 16.644 milioi euro da, 2014an baino %1,1 gehiago. Funtzioen araberako prestazioen gastuari buruzko azterketak erakusten dutenez, "Zahartzaroa" funtzioari dagokion gastua da pisurik handiena duena, ostatuko eta etxeko laguntzako prestazioak eta pentsioak barne dituela: 7.150 milioi euroko gastua da, guztizkoaren %42. 2014aren aldean, %4,2 egin du gora, %1eko batez besteko hazkundearen gainetik. Bigarren eginkizunik garrantzitsuena "*Eritasuna/osasun arreta*" da, 2015ean 4.268 milioi euroko gastuarekin, guztizkoaren %25, eta %2 hazi da 2014aren aldean.

V.1.1. GRAFIKOA. EAE-KO GIZARTE PRESTAZIOEN GASTUAREN BANAKETA, EGINKIZUNEN ARABERA. 2015



Iturria: EUSTAT. Gizarte Babesaren kontua.

Erakunde-unitateen gizarte-babeseko gastuari gagozkiola, 2014. urtean (datuak eskuragarri dauden azken urtean), Gizarte Segurantzaren Sistemak eta Estatuaren Administrazioak gastu handiagoa egin zuten (+ % 0,5), baita euskal administrazioek eginikoa ere (+%1,9) baina erakunde pribatuek, berriz, txikiagoa (-% 11,1 2013aren aldean. Gizarte Segurantzaren Sistemak eta Estatuko Administrazioak betearazitako gastua guztizkoaren %61,3 da, euskal administrazioek %31,3 eta gainerako %7,4a erakunde pribatuei dagokie.

V.1.2. GRAFIKOA. GIZARTE BABESEAN EGINIKO PER CAPITA GASTUAREN BANAKETA (Euroak P.A.etan)



Iturria: EUSTAT. Gizarte Babesaren kontua.

Bukatzeko, EUROSTATek argitaraturiko azken datuak aztertuta ikusten denez, gizarte babesek per capita gastua Euskadin, eroste-ahalmenaren parekotasunaren arabera neurtuta, 8.341 eurokoa izan zen, hau da, EBko batez bestekoaren (7.937 euro) eta Estatuko batez bestekoaren (6.121 euro) gainekoa.

2. GIZARTE SEGURANTZAREN PRESTAZIOAK[2]

2016ko ekitaldian, milioi erdi pertsona baino gehiago (547.998 lagun, behin-behineko zenbatespenen arabera) Gizarte Segurantzaren sistemaren onuradunak izan ziren gure autonomia-erkidegoan (kotizaziopeko eta kotizatu gabeko pentsioei dagokienez). Kopuru hori aurreko urtekoa baino % 1,2 handiagoa da (eta aurreko urtean % 1,7 igo zen[3]), Azken urteotan gertatu denez, igoeraren arrazoi nagusia dugu kotizaziopeko pentsioen onuradun kopuruaren goranzko bilakaera; izan ere, gainerako modalitateetan, oro har, onuradunen talde horren kopurua beherantz doa. Hala, Gizarte Segurantzaren prestazio ekonomikoek estalitako EAEko biztanleriaren ehuneko 25,2koa izan zen.

V.2.1. TAULA. GIZARTE SEGURANTZAREN PENTSIOAK EAE-N MOTEN ARABERA. LABURPEN-TAULA.

	2013	2014	2015	2016	%14/15	%15/16
ONURADUNAK (URTEKO B.B.)						
-KOTIZAZIOPEKO PENTSIOAK	516.600	523.900	530.200	536.700	1,2	1,2
-KOTIZAZIORIK GABEKO PENTSIOAK	10.449	10.772	10.991	11.298	2,0	2,8
GUZTIRA	527.049	534.672	541.191	547.998	1,2	1,3
- BIZTANLEEN %	24,2	24,6	24,9	25,2	1,2	1,2
GASTUA (MILIOI €)*						
-KOTIZAZIOPEKO PENTSIOAK	7.646,81	7.896,43	8.151,72	8.419,21	3,2	3,3
-KOTIZAZIOPEKO PENTSIOAK	53,40	55,18	56,46	58,03	2,4	2,7
GUZTIRA	7.700,21	7.951,61	8.208,18	8.477,24	3,2	3,3
- BPG-AREN %	11,7	11,9	11,9	11,8	0,0	-0,8

Iturria: Geuk egina Enplegu eta Gizarte Segurantzaren datuekin. Lan-estatistiken Buletina
(*) Zenbatespena.

Kotizaziopeko pentsioei dagokienez (prestazioen %97,9 eta gastuaren %99,3), 2016an 536.700 onuradun izan ziren guztia (+%1,2), eta eginiko zenbatespenen arabera, urteko gastua 8.419,21 milioi euro izan zen, 2015ean baino %3,3 gehiago. Kotizaziorik gabeko pentsioek, bestalde, 11.298 pertsona hartzen zituzten guztira. Hala, 58 milioi euroko gastua sortu zen urtean.

Oro har hartuta, 2016. urtean, pentsioen guztizko gastua EAEn 8.477,24 milioi eurokoa izan zen behin-behineko datuen arabera, hau da, % 3,3 hazi zen 2015eko ekitaldiaren aldean. Hortaz, BPGren gaineko ehunekoa hamarren bat gutxitu zen, % 11,8raino (EUSTATen behin-behineko datuen arabera).

2.1. GIZARTE SEGURANTZAREN PRESTAZIOAK TRANSFERITU GABEKO KUDEAKETAREKIN

2.1.1. Onuradunak

2016an 516.700 pertsona izan ziren Gizarte Segurantzaren kotizaziopeko pentsioen onuradunak EAEn, aurreko urtean baino %1,2 gehiago eta Estatu osoko %5,7a. Sexuaren arabera, %52,6 gizonezkoak dira eta %47,4 emakumezkoak, eta gainera, ratio horiek nahikoa egonkor eusten diote azken urteetan.Pentsio mota bakoitzeko, ezintasun iraunkorragatiko jasotzaile kopuruak egonkor eutsi dio azken urtean, baina erretiroagatiko jasotzaileak % 1,9 handitu dira, eta alarguntzagatiko jasotzaileak % 0,1. Azkenik, zurztasunagatiko kotizaziopeko pentsioen jasotzaileen kopurua ez da aldatu.

Pentsio horien batez besteko zenbatekoa hilean 1.120,50 eurokoa da (Estatuko batez bestekoa baino %24 gehiago), hots, %2ko igoera 2015aren aldean. Erretiroaren ziozko pentsioari dagokionez (horixe jasotzen dute Gizarte Segurantzako kotizaziopeko pentsioen hartzaileen %63,5ek), eta haren batez besteko zenbatekoa, 2016an, 1.289,40€ da hilean, 2015ean baino %2,1 gehiago.

---

[2] *Gizarte Segurantzaren prestazio ekonomikoak, transferitu gabe daudenak, Gizarte Segurantzaren Erakunde Nazionalak kudeatzen dituenak, bi motakoak dira:*

** Ordaindutakoaren araberakoak, arestian kotizatu den denborari eta zenbatekoari jarraiki zehaztutakoak, iraupen mugagabea dute eta gizarte babesean gutxi gorabehera datu guztiaren % 50 dira. Funtsean baldintza zehatzak betez prestazio honetarako eskubidea eratu duten pertsonei lan bizia iraungitzea ahalbidetzen duten kontingentzia desberdinengatik jarduerari uzten diotenean, errentak jasotzen jarrai ditzaten bermatzea dute helburu.*

** Ordaindutakoaren araberakoak ez direnak, besteak beste, erretiro edo ezintasun pentsioak eta amatasunarengatik prestazioak nahiz prestazio familiarrak.*

3 Kalkulu horietatik kanpora gelditu dira laguntza pentsioak eta LISMIren ondoriozkoak. Desagertzeko joera dute, eta horiei buruzko informazio eguneraturik ez dugu 2006tik hona. Nolanahi ere, haren guztizko pisua %0,4aren azpitik dago.

Gainerako pentsioen batez besteko zenbateko guztiek ere gora egin zuten 2016an, baina batez bestekoaren azpitik: alarguntasun pentsioek %1,3, ezintasun iraunkorrekoek %0,8 eta zurztasunekoek %1,4, eta batez bestekoa 758,70€, 1.190,90€ eta 468,80€ dira, hurrenez hurren.

V.2.2. TAULA. EAE-N GIZARTE SEGURANTZAREN KOTIZAZIOPEKO PENTSIOEN BATEZ BESTEKO ZENBATEKOA ETA JASOTZAILE KOPURUA

	2013	2014	2015	2016	% 2016*	LGSaren % 2016	%14-15	%15-16
Jasotzaileen kopurua								
GUZTIRA	516.600	523.900	530.200	536.700	100,0		1,2	1,2
EZINTASUN IRAUNKORRA	43.500	42.800	42.500	42.500	7,9		-0,7	0,0
ERRETIROA	322.300	328.800	334.600	341.000	63,5		1,8	1,9
ALARGUNTASUNA	134.000	134.800	135.200	135.300	25,2		0,3	0,1
ZURZTASUNA/FAMILIAREN ALD	16.800	17.500	17.900	17.900	3,3		2,3	0,0
B.b. zenbatekoa (Euro/hile)								
GUZTIRA	1.057,3	1.076,6	1.098,2	1.120,5	100,0	171,0	2,0	2,0
EZINTASUN IRAUNKORRA	1.158,7	1.171,0	1.181,7	1.190,9	106,3	181,8	0,9	0,8
ERRETIROA	1.210,7	1.235,5	1.262,8	1.289,4	115,1	195,8	2,2	2,1
ALARGUNTASUNA	730,3	739,3	748,8	758,7	67,7	115,8	1,3	1,3
ZURZTASUNA/FAMILIAREN ALD	458,9	458,9	462,2	468,8	41,8	71,6	0,7	1,4

Iturria: Geuk egina ENPLEGU ETA GIZARTE SEGURANTZA Ministerioaren datuekin, "Lan-estatistikei buruzko Buletina".
** Portzentaje bertikalak hartzaile guztiak hartuta eta prestazioen batez besteko zenbatekoa.*

Erretiroaren ziozko pentsioak ardatz hartuta, EAEko pentsiodunen taldeko gehienek jasotakoak onuradun guztietatik, 341.000 ziren 2016an, %66,3 gizonak eta %33,7 emakumeak. Alde hori murriztuz doa pixkanaka. Izan ere, azken hamar urtean %3,1 murriztu da.

V.2.3. TAULA. ERRETIROAREN ZIOZKO PENTSIOEN ZENBATEKOA EAE-N: GUZTIZKO BATEZ BESTEKO PENTSIOAREN ETA ALTEN BILAKAERA, SEXUAREN ARABERA. URTEKO BATEZ BESTEKOAK. EURO/HILE.

	GUZTIRA, ERRETIRO PENTSIOAK			ERRETIRO PENTSIOEN ALTAK			ALD. % GIZONAK/EMAKUMEAK*	
	GIZONAK	EMAKUMEAK	GUZTIRA	GIZONAK	EMAKUMEAK	GUZTIRAL	PENTSIO GUZTIAK	ALTAK
2008	1.233,79	610,93	1.023,72	1.555,56	766,33	1.287,92	102,0	103,0
2009	1.290,17	642,81	1.069,47	1.624,05	844,30	1.359,46	100,7	92,4
2010	1.328,98	668,45	1.101,45	1.673,65	900,20	1.417,66	98,8	85,9
2011	1.370,95	694,60	1.136,36	1.704,63	990,47	1.477,52	97,4	72,1
2012	1.411,60	724,52	1.171,89	1.759,25	1.113,97	1.554,48	94,8	57,9
2013	1.453,69	760,77	1.210,73	1.770,20	1.219,90	1.592,60	91,1	45,1
2014	1.479,28	789,00	1.235,52	1.808,73	1.283,69	1.627,13	87,5	40,9
2015	1.507,19	821,44	1.262,75	1.830,44	1.352,84	1.657,86	83,5	35,3
2016	1.533,79	856,81	1.289,44	1.807,41	1.369,01	1.633,74	79,0	32,0
Ald. %. 14/15	1,9	4,1	2,2	1,2	5,4	1,9	-4,6	-13,7
Ald. % 15/16	1,8	4,3	2,1	-1,3	1,2	-1,5	-5,4	-9,3

Iturria: GSIN-REN DATU-BASEA.Geuk egina
** Gizonen batez besteko pentsioa emakumeen batez besteko pentsioa baino handiagoa den portzentajea*

Sexuaren araberako aldeak aztertuta, pentsio horien zenbatekoetan eta 2016rako batez besteko datuekin, gizonezkoen erretiroko pentsioa EAEn emakumeena baino %79 handiagoa zen. Ratio hori urtez urte jaisten ari da. Batez besteko zenbateko horiek urtean eginiko alta berrien pentsioen arteko erkaketa eginda, aldea %32koa zen 2016an, hori ere baxuena serie historiko osoan. Halaber, erretirodunen talde osoaren erretiroko batez besteko pentsioak eta erretiroan sartu diren azken pertsonak erkatuta ikusten denez, erretiratu berriek, batez beste, talde osoaren %26,7 gehiago kobratu zuten 2016an (%31,3 2015ean).

Bestalde, 2016ko abenduaren 3an, EAEko batez besteko pentsioa 1.130,13€ zen, eta %2 igo zen 2015eko abenduaren aldean. Urte arteko KPIaren aldakuntza, hile berera arte, %1,5ekoa izan zen.

V.2.4 TAULA. GIZARTE SEGURANTZAKO PENTSIOAK EAE-N, MOTEN ARABERA. ONURADUNAK ETA BATEZ BESTEKO ZENBATEKOAK SEXUAREN ARABERA, 2016KO ABENDUAREN 31N.

	ONURADUNAK			B.B. ZENBATEKOA (€)		
	GIZONAK	EMAK.	GUZT.*	GIZONAK	EMAK.	GUZT.
EZINTASUN IRAUNKORRA	28.779	13.068	41.847	1.273,87	1.021,60	1.193,16
ERRETIROA	217.481	112.515	330.001	1.544,35	873,80	1.300,28
ALARGUNTASUNA	3.520	98.867	102.388	608,40	773,99	763,49
ZURZTASUNA	7.846	6.996	14.845	445,74	445,89	445,82
FAMILIAREN ALDE	511	1.611	2.122	655,13	655,69	655,56
PENTSIO GUZTIAK	258.137	233.057	491.203	1.448,91	822,27	1.130,13

Iturria: ENPLEGU ETA GIZARTE SEGURANTZAREN DATU-BASEA

2.1.2. Gastua eta diru-sarrera

Pentsioetan zenbatetsitako gastuaren guztizko zenbatekoa %3,3 hazi da azken urtean. Gastu horren bilakaera eta Gizarte Segurantzan afiliaturiko langileen kopurua erkatuta, pentsio horiek pertsona afiliatu bakoitzeko ordaintzeak hileko eurotan eginiko ahalegina zenbatetsi dezakegu. 2016an, 664,65 euro dira hilean, aurreko urtean baino %1,4 gehiago, zeren eta pentsioetako gastua igo baita eta kotizatzaileena *ere*, gutxiago bada ere.

V.2.5. TAULA. EAE-KO PENTSIOEN ARLOKO AHALEGINAREN HASTAPENA

	Kotizaziopeko pentsioak (1)	B.b. zenbat., €/hile (2)	Guzt. Zenbat., €/hile (3) = (1)*(2)	Gizarte Segurant. afiliat.* (4)	Ahalegina: €/hilea afiliatuko (3) / (4)
2011	501.800	995,7	499.642.260	919.600	543,33
2012	508.200	1.024,8	520.803.360	896.000	581,25
2013	516.600	1.057,3	546.201.180	868.600	628,83
2014	523.900	1.076,6	564.030.740	871.300	647,34
2015	530.200	1.098,2	582.265.640	888.300	655,48
2016	536.700	1.120,5	601.372.350	904.800	664,65
% ald 15	1,2	2,0	3,2	2,0	1,3
% ald 16	1,2	2,0	3,3	1,9	1,4

Iturria: Egitea con datos del Ministerio de EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL.
** Gizarte Segurantzan alta emanda dauden kotizatzaileak.*

Bestalde, 2015ean (datu ofizialak ditugun azken urtea), Gizarte Segurantzaren Sistemak, orotara, 6.466 milioi euro bildu zituen, aurreko ekitaldian baino %0,3 gehiago, eta Estatuan bildutako guztiaren %6,5 (%6,6 2014an). Kopuru hori gure Erkidegoko urte horretako BPGaren %9,34 da, behin-behineko datuen arabera (%9,63 aurreko urtean). Hala, bildutako bolumen horretatik, 1.082 milioi Arabari dagozkio (%16,7), 2.149 milioi Gipuzkoari (%33,2) eta 3.235 milioi Bizkaiari (guztizkoaren %50,1).

V.2.1. GRAFIKOA. EAE-KO GIZARTE SEGURANTZAREN KOTIZATZAILEENGANDIK BILDUTAKOAREN BILAKAERA



(*) Langabezia, LH eta FOGASA barik
Iturria: EUSTAT. Gizarte Babesaren kontua.

Zenbateko horretatik %90,6 Gizarte Segurantzaren Kuotei dagokie. Gainerako %9,4a lan-istripuetako mutuetakoak eta lanbide-gaixotasunetakoak dira. %74ren jatorria araubide orokorra da, eta guztira 4.782 milioi euro dira (+%1,7 aurreko urtearen aldean). Halaber, Gizarte Segurantzak Langabeziari, FOGASAri eta Lanbide Heziketari dagozkien kuotak biltzen ditu, eta horien guztizko batura, gure Erkidegoan, 1.250 milioi euro zen 2015ean, aurreko urtean baino 32 gehiago.

V.2.6. TAULA EAEN GIZARTE SEGURANTZAKO DIRUZAINTZA NAGUSIAREN KUOTEN BILKETARI BURUZKO BILAKAERA. MILIOI EURO.

	MILIOI EURO					%	ALDAKUNTZA %		
	2011	2012	2013	2014	2015	2015**	2012-13	2013-14	2014-15
OROKORRA	4.701	4.645	4.690	4.722	4.782	74,0	1,0	0,7	1,3
AUTONOMOAK	661	676	681	691	691	10,7	0,7	1,5	0,0
NEKAZARITZAKOA*	3	0	0	0	0	0,0	-	-	-
ITSASOKO LANGILEAK	28	26	27	28	29	0,4	3,8	3,7	3,6
ETXEKO LANGILEAK*	30	12	0	0	0	0,0	-100,0	-	-
IKATZAREN MEATZARITZA	0	0	0	0	0	0,0	-	-	-
AT/EP KUOTAK (DIRU-ZAINTZA)	6	7	7	7	7	0,1	0,0	0,0	0,0
EEZP LANGABETUAK	553	544	468	410	352	5,4	-14,0	-12,4	-14,1
GZDN-REN KUOTAK, GUZT. (A)	5.982	5.911	5.874	5.858	5.860	90,6	-0,6	-0,3	0,0
AT ETA EP KUOTAK	427	406	391	399	407	6,3	-3,7	2,0	2,0
ITC ARRUNTAK	199	180	179	187	194	3,0	-0,6	4,5	3,7
JARDUERA UZTEA	4	5	5	5	5	0,1	0,0	0,0	0,0
MUTUAK, GUZTIRA (B)	629	590	575	590	606	9,4	-2,5	2,6	2,7
GZ SISTEMAKO BILKETA, GUZT (A+B)	6.612	6.502	6.449	6.448	6.466	100,0	-0,8	0,0	0,3
LANGABEZIARAKO KUOTAK	1.131	1.088	1.056	1.071	1.100	17,0	-3,0	1,4	2,7
FOGASA	29	28	27	28	28	0,4	-3,6	3,7	0,0
LANBIDE HEZIKETA	123	120	118	119	122	1,9	-1,7	0,8	2,5

Iturria: berariaz egina GGDNaren datuekin: urteko txostenak.
** Araubide horietan diru-bilketa 2012az gero desagertu da, urte horretatik aurrera araubide orokorrak beste baten kontuko nekazaritzaren eta etxeko langileen sistema berezien diru-bilketa barneratuta baitu.*
*** Ehuneko bertikalak, 2015. urtean sistemari dagokion diru-bilketa guztia % 100 hartuta (6.466 milioi euro).*

Gizarte Segurantzak EAEn dituen kotizaziopeko pentsioen gastua eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren kuoten bilketako kopuruak erkatuta ikusten denez, 2015ean (bi datuak ditugun azken ekitaldia), gastua 8.152 milioi eurokoa zen gure zenbatespenen arabera. Sarrerak, berriz, 6.466 milioi eurokoak ziren eta, beraz, saldo negatiboa izango litzateke, 1.648 milioi euro; aurreko urtean -1.448 milioi ziren.

V.2.7. TAULA. ORDAINDUTAKOAREN ARABERAKO PENTSIOETAN GASTUAREN ETA GSDNAREN KUOTAK BILTZEAGATIK DIRU-SARREREN BILAKAERA EAEN (MILIOI EURO)

	2012	2013	2014	2015	2016	Ald. % 14	Ald. %15	Ald. % 16
KOTIZAZ. PENTSIOEN GASTUA. G.S.*	7.291	7.647	7.896	8.152	8.419	3,3	3,2	3,3
GZDN-K BILDUTAKO KUOTAK	6.502	6.449	6.448	6.466	..	0,0	0,3	..
SALDOA	**-789**	**-1.198**	**-1.448**	**-1.686**	**..**	**20,9**	**16,4**	**..**
SARRERA / GASTUA	0,89	0,84	0,82	0,79	..			

Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren datuekin egina.
** Ordaindutakoaren arabera pentsioetan gastuaren zenbatekoak estimazioak dira.*

Defizita gertatu da, beste urte batez, sarreren eta kotizaziopeko pentsioetako gastuen arteko bilakaera desberdinagatik. 2015ean, gastua %3,2 handitu zen, baina sarrerenak %0,3 hazi zirenez gero, kotizaziopeko pentsioen saldo negatiboa handitu eta larriagotu egiten da EAEn, 2014aren aldean %16,4 hazi baita. Izan ere, urte horretan %20,9ko gehikuntza izan zen.

2.2. TRANSFERITUTAKO KUDEAKETA DUTEN GIZARTE SEGURANTZAREN PRESTAZIOAK: KOTIZAZIORIK GABEKO PRESTAZIOAK

Kotizaziorik gabeko prestazioak inoiz kotizatu ez duten edo kotizaziopeko prestazioak lortzeko behar besteko denboraz kotizatu ez duten eta iraupeneko bitartekorik ez izateagatik beharrizan-egoeran dauden pertsonei ematen zaizkienak dira. Errenta ekonomiko bat aitortzeaz gain, laguntza mediko eta farmazeutikoa eta gizarte zerbitzuak jasotzeko eskubidea ere badute; hortaz, beharrizan-egoeran egonez gero estaldura osoa ematen diete. Pentsio horien jatorria abenduaren 20ko 26/1990 Estatuko Legea da, Gizarte Segurantzaren Egitura eta Babesa Arrazionalizatzeko Premiazko Neurriei buruzko 26/1985 Legean hasitako erreformak osatu zituena. Estatuan autonomia erkidegoek dute eskumena. Aldiz, EAEn, eginkizunak eta zerbitzuak besterendu ondoren, prestazioa aitortzea, kudeatzea eta finantzatzea foru aldundiei dagokie. Ordaindutakoaren araberakoak ez diren prestazioak hiru motatakoak dira: Gizarte Segurantzaren kotizaziorik gabeko pentsioak, laguntzako pentsioak eta MGL prestazioak. Jasotzen den zenbatekoa errenten eta norberaren egoeraren arabera ezartzen da.

EAEko Foru Aldundiek emandako ***kotizaziorik gabeko pentsioak,*** kopuruari eta zenbatekoari dagokienez, kotizaziorik gabeko prestazioen artean nabarmenenak dira. Diru-sarrera nahikoak ez dituzten pertsonei daude zuzenduta (diru-sarrerak nahikoak ez direla zehazteko, urteko diru-sarreren baturak pentsioaren urteko zenbatekoak baino txikiagoa izan behar du), eta ia ez dira aldatu 2013tik.

Guztira 11.298 lagunek jaso zituzten pentsio horiek 2016an (batez besteko datuak), 5.051 lagunek erretiro gisa eta 6.247 baliaezintasunagatik, aurreko urtean baino %3,7k gehiago.

V.2.8. TAULAK, G.S.REN KOTIZAZIORIK GABEKO PENTSIOAK EAE-N: ADIERAZLE NAGUSIAK.

	ONURADUNAK (URTEKO B.B.)			HILEKO ZENBAT. (€)
	ERRETIROA	BALIEZINT	GUZT.	
2011	4.399	5.708	10.107	343,10
2012	4.494	5.736	10.230	354,10
2013	4.677	5.772	10.449	364,90
2014	4.731	6.041	10.772	365,90
2015	4.870	6.121	10.991	366,90
2016	5.051	6.247	11.298	366,90
% ald 13/14	1,2	4,7	3,1	0,3
% ald 14/15	2,9	1,3	2,0	0,3
% ald 15/16	3,7	2,1	2,8	0,0

Iturria: EGGMaren datuekin egina. Lan Estatistikei buruzko Aldizkaria.

Kotizaziorik gabeko pentsioen zenbatekoak Estatu osorako ezartzen dira urtero. 2016rako 366,90€ finkatu ziren hileko erretirorako zein % 65eko mailako edo horretatik gorako baliaezintasunerako. Zenbateko horiek aintzat hartuta, pentsio horien ziozko gastua, gutxi gorabehera, 58 milioi eurokoa izan zen 2015eko ekitaldian, hau da, 2015ean baino % 2,7 gehiago, baina esan beharra dago ez dakigula zenbateko zehatza zein izan zen[4].

[4] *Azkenik, ez dugu Gizarte Segurantzako eta legearen (13/82) eta Ezinduen Gizarteratzeari buruzko Legearen (EGL) ondoriozko prestazioen laguntzako pentsioen (bi legeak 1992an eta 1990ean indargabetu ziren hurrenez hurren) hartzaileen gaineko informazio eguneraturik, eta horien kopuruak behera egin izan du harrezkero. Ez da aintzat hartuko pentiso horiek EAEko pentsioetako gastu agregatuaren kalkuluan duten zenbatespena ere (kapitulu honetan hitzaurrean egiten dena). Nolanahi ere, milioi eurotik beherakoa izango litzateke.*

3. POBREZIAREN ETA GIZARTE BAZTERKETAREN KONTRAKO NEURRIAK EAE-N

Txirotasuna, tradizioz, gizarte desberdintasunei eta diru-sarreren maila txikiko biztanleria-kapei lotuta egon da. Azken urteotan, aldiz, gure gizartean gertatutako aldaketekin batera bai ekonomiari, bai gizarteari, bai familiari lotutakoak , marjinazio mekanismo berriak agertu dira; ekonomia hutsari lotutakoaz gain, beste eragile batzuk piztu dituzte gizarte bazterkeriako prozesuak.

EAEn txirotasunari, marjinazioari eta gizarte bazterkeriari aurre egiteko tresna nagusien artean, Gizarte Zerbitzuen Legean, Bazterkeriaren aurkako Legean eta Gizarte Eskubideen Kartaren Legean kokatuta, azken urteotan egungo Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (lehen Oinarrizko Errenta) eta Gizarte Larrialdiko Laguntzak (GLL) izan dira. Txirotasunaren aurka borrokatzeko osoko planaren baitako gutxieneko diru-sarrerak bermatzeko programak dira biak. Horiek ez ezik, gizarteratze, prestakuntza eta laneratze programak ere badaude, partaideen (laneratze enpresak sortu ahal izatea aintzat hartu da), udalen eta bazterkeria egoeran edo arriskuan dauden pertsonen arteko hitzarmenen bidez.

V.3.1. GRAFIKOA. DIRU-SARRERAK BERMATZEKO EUSKAL SISTEMAREN PRESTAZIOETAN EGINIKO GASTUAREN BILAKAERA (MILIOI EUROTAN)



Iturria: Gizarteratze Zuzendaritzaren datuekin eginikoa. EUSKO JAURLARITZA
**GLLren datua, 2016an, gutxi gorabeherakoa da*

2009. urtean, abenduaren 23ko Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko 18/2008 Legea hasi zen indarrean. Lege horren helburu nagusiak ditugu, alde batetik, Diru Sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Euskal Sistema eratzea, sistema autonomiadun gisa —gizarte-zerbitzuek eta enplegu-zerbitzuek parte hartzen dute sistemaren kudeaketan eta herri-erakundeen beste arlo batzuek ere laguntzen dute—, eta bestetik, Diru Sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Euskal Sistemaren jardunbide-abiaburuak eta egiturazko oinarriak finkatzea, euskal herritarrek modua izan dezaten prestazio ekonomikoei eta gizarteratzeko nahiz laneratzeko tresnei heltzeko, berdintasunean eta ekitatean oinarrituta, betiere beharrezko neurriak hartuta tresnon batekotasuna bermatzeko lurralde osoan[5].

Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemak, 2016ean, 520,2 milioi euro gastatu zituen orotara, aurreko urtean baino %0,8 gehiago. Honelaxe daude banatuta: 401,4 milioi Sarrerak Bermatzeko Errentan eginiko gastuari dagozkie (guztizkoaren %77,2, eta 2015ean baino %0,4 gehiago), 91 milioi Etxebizitzaren Prestazio Osagarrirako (guztizkoaren % 17,5 eta 2015ean baino %2,8 gehiago), eta eginiko zenbatespenen arabera, Sistemaren gastu agregatua kalkulatzeko, Gizarte Larrialdirako Lagunetarako erabilitako 27.8 milioi eurori eutsi egin zaie 2016an (Sistemako gastu guztiaren %5,3), laguntza horri buruzko datu ofizialak izan arte.

[5] *18/2008 Legeari eta sartu zituen berrikuntzei buruzko argibide gehiago izateko, jo beza irakurleak Memoria Sozioekonomiko honen 2009.etik 2012.erainoko edizioetara.*

Prestazio horiek EAEko bizi-baldintzetan dituzten ondorioei dagokienez, Eusko Jaurlaritzaren "Txirotasunari eta gizarte desberdintasunei buruzko Inkesta"k (TGDI) uste du 2016an pobrezia atalasaren azpitik bizi diren pertsonak Euskadin % 36,8 murriztu direla, laguntza horien ondorioz. Prestazio horiek izan gabe benetako txirotasun egoeran dauden pertsonak biztanleriaren % 9,1 dira (194.060 lagun), baina prestazio horiek banatu ondoren portzentajea % 5,7koa da (63.069 lagun, eta %2,9, arreta jaso arreta pobreziatik irteten ez direnak, gehi arretarik jasotzen ez duten %2,8). Kopuru horiek ikusita ondorioztatzen denez, EAEko Sarrerak Bermatzeko Sistemak pobrezia arriskuan zeuden biztanleen %69,3rengana iritsi zen 2016an: 134.563 lagun (biztanleria osoaren %6,3).

V.3.1. TAULA. DIRU-SARRERAK BERMATZEKO SISTEMAREN ERAGINA (DSBE+EPO+GLL) EGIAZKO POBREZIAN EAEN

		ABS.	BIZT. GUZT. %L	ARRISK. TALD. %
2016	SISTEMAREN ARRETAKO BIZTANL.	134.563	6,3	69,3
	- POBREZIATIK IRTETEN EZ DIREN BIZT.	63.069	2,9	32,5
	- POBREZIATIK IRTENDAKO BIZT.	71.494	3,3	36,8
	ARRETA JASOTZEN EZ DUTEN BIZT.	59.497	2,8	30,7
	BENETAKO POBREZIA, GUZT.	194.060	9,1	100,0
2014	SISTEMAREN ARRETAKO BIZTANL	151.591	7,0	72,9
	- POBREZITATIK IRTETEN EZ DIREN BIZT	71.092	3,3	34,2
	- POBREZIATIK IRTENDAKO BIZTAL.	80.499	3,7	38,7
	SISTEMAREN ARRETAKO BIZTANL	56.307	2,6	27,1
	BENETAKO POBREZIA GUZTIRA	207.898	9,6	100,0
2012	SISTEMAREN ARRETAKO BIZTANL	133.267	6,1	72,6
	- POBREZIATIK IRTETEN EZ DIREN BIZT	64.383	3,0	35,1
	- POBREZIATIK IRTETEN DIREN BIZT.	68.884	3,2	37,5
	SISTEMAREN ARRETAKO BIZTANL	50.313	2,3	27,4
	BENETAKO POBREZIA, GUZTIRA	183.580	8,5	100,0
2008	SISTEMAREN ARRETAKO BIZTANL	83.023	3,9	63,6
	- POBREZIATIK IRTETEN EZ DIREN BIZT	42.165	2,0	32,3
	- POBREZITATIK IRTETEN DIREN BIZT.	40.858	1,9	31,3
	ARRETA JASOTZEN EZ DUTEN BIZT.	47.542	2,2	36,4
	BENETAKO POBREZIA, GUZTIRA	130.564	6,1	100,0

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. PGDG 2016.

Eta aurreko inkesten aldean, diru-sarrerak bermatzeko sistemaren eraginkortasuna mantendu egin da, eta are gehiago, handitu egin da, zeren eta 2008an %31,3ko ekarpena egiten baitzuen pobrezia gutxitzeko, %37,5ekoa 2012an eta %38,7koka 2014an. Azkenean, %36,8 2016an.

3.1. DIRU-SARRERAK BERMATZEKO SISTEMAREN PRESTAZIOAK

3.1.1. Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta

Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DBE) ematen zaie EAEn gutxienez urtebetean erroldatuta dauden eta oinarrizko beharrei eta laneratzeko eta gizarteratzeko prozesuaren ondoriozko beharrei aurre egiteko nahikoa diru-baliabiderik ez duten pertsonei, betiere 18/2008 Legeak eta hura garatzeko araudian ezarritako baldintzak betetzen badituzte. [6]

V.3.2. TAULA. SARRERAK BERMATZEKO ERRENTA: GASTUAREN BILAKAERA LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA. MILIOI EURO.

	2012	2013	2014	2015	2016	Ald. % 2014/15	Ald. % 2015/16
ARABA	51,87	56,8	64,5	67,1	68,2	4,0	1,6
GIPUZKOA	61,10	74,0	84,2	88,8	91,2	5,5	2,7
BIZKAIA	230,82	228,3	239,4	243,8	242,0	1,8	-0,7
EAE	**343,79**	**359,1**	**388,1**	**399,8**	**401,4**	**3,0**	**0,4**

Iturria: LANBIDE. Analisi, Azterlan eta Estatistika Zerbitzua.

2016an, guztira, 401,4 milioi euro ordaindu ziren DBErako (2015ean baino %0,4 gehiago eta, halaber, EAEko 2016ko Aurrekontu Orokorretan partida horretarako ezarritakoa baino 22,9 milioi euro gehiago). Gehikuntza hori heterogeneoki banatzen da autonomia erkidegoko hiru lurraldeetan zehar. Hala, gastua handitu egin da Gipuzkoan (+%2,7) eta Araban (+%1,6); Bizkaian, berriz, %0,7 gutxitu da.

Bestalde, 2016an 63.798 bizkidetza-unitatek jaso zuten DBE (abenduko datua da, eta 115.031 onuradunei dagokie), hots, etengabe 15 urtez hazten eman ondoren (1994 eta 2014 bitartean), bigarren urtez beherakada izan zen 2016an, %1,4 hain zuzen ere, 2015ean %1,5 jaitsi ondoren. Lurraldeen arabera, Bizkaiak du titular hartzaile kopururik handiena,

6 http://www.lanbide.euskadi.eus/rgi/-/informacion/rgi-legislacion-y-normativa/

orotara 39.183 hartzaile, EAEko guztizkoaren %61,4 alegia. Gipuzkoan, aldiz, hartzaileen %23,6 dago eta gainerako %15a Araban.

LANBIDEren 2016ko espediente aktiboen fitxari esker, jakin badakigu 63.797 pertsona titular zeudela inskribatuta, %43,6 gizonezkoak ziren eta %56,4 emakumezkoak. Onuradun gehien biltzen dituen adin-tartea 40-59 urte bitartekoa da (guztizkoaren %44,5), eta nabarmentzekoa da ere 5.500 jasotzailek 30 urte baino gehiago dituztela. Alabaina, urte horretan DBE gehien handitu den adin-tartea 55 eta 64 urte bitartekoena da, guztira 8.420 titular baitira orotara (+%8).

V.3.2. GRAFIKOA. DBE: TITULAR JASOTZAILEEN BILAKAERA ABENDUAREN 31N, LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA



	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016
Álava	7.161	7.539	8.001	8.996	9.918	9.659	9.575
Gipuzkoa	9.904	11.424	12.482	14.102	15.314	15.077	15.039
Bizkaia	37.955	36.796	37.496	39.719	40.451	39.990	39.183
TOTAL CAPV	55.020	55.759	57.979	62.817	65.683	64.726	63.797

Iturria: LANBIDE

V.3.3. TAULA. SARRERAK BERMATZEKO ERRENTA: LURRALDEEN ETA KONTZEPTUEN ARABERA. 2016KO ABENDUA.

	MODALITATEA		PENTSIODUNA		OSAGARRIAK		GUZTIRA
	OSAGARRIA LANEKO SARRERAK	OINAR.	EZ	BAI	GURASO BAKAR.	EPO	
ARABA	1.802	7.773	7.834	1.741	1.386	4.692	9.575
BIZKAIA	3.070	11.969	10.943	4.096	2.397	7.244	15.039
GIPUZKOA	7.698	31.485	29.203	9.980	5.965	17.511	39.183
GUZTIRA	**12.570**	**51.227**	**47.980**	**15.817**	**9.748**	**29.447**	**63.797**

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. LANBIDEren datuekin egina.

LANBIDEK azpimarratu duenez, bizikidetza-unitate jasotzailearen pertsona titularraren profila 40 urteko emakumea da, oinarrizko ikasketak dituena (%67k nahitaezko ikasketak ditu, %101ek lanbide tituluren bat eta %4,1ek unibertsitateko titulazioa). Horrez gain, prestazioa jasotzen duten atzerritarrak guztizkoaren %27,7 dira (%36,1 2015ean), eta hartzaile titularren %24,8 pentsiodunak dira (%25,1 2015ean). Bestalde, 12.570ek, unitate hartzaileen %19,7k, soldatako errenten osagarri gisa jasotzen dute DBE (%19 2015ean).

DBEren osagarriei dagokienez, lehenbizikoa Etxebizitzaren Prestazio Osagarria da, aurrerago ikusiko denez, 29.447 bizikidetza-unitatek jasoa erreferentziako datan (+293 aurreko urtearen aldean). Aldi berean, unitate horien 9.748 pertsona titularrek osagarria jasotzen dute guraso bakarra izateagatik (2015. urtean baino 930 gehiago).

Bestalde, Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasun Ministerioaren "Gizarteratzeko Gutxieneko Errentei buruzko txostena" delakoari esker, autonomia erkidegoetako sarrerak bermatzeko sistemen kopuru handien konparaziozko jarraipena egin daiteke, sistema horiek garatzeko araudien heterogeneotasuna eta garapen maila ezberdinak kontuan izanik.

2015eko ekitaldiari buruzko txostenaren arabera, urte horretan gure erkidegoak 6.075,42 euro gastatu zituen urtean prestazio horien titular bakoitzeko, estatuko 3.575,52 euroko batez bestekoaren aldean (%70 gehiago), eta haren estaldura-tasa % 36,71ekoa izan zen mila biztanleko. Estatuko batez bestekoa, berriz, 7,75 izan zen mila biztanleko. Azterlanaren arabera, gure Erkidegoak 2015ean Estatuan prestazio horietarako emandako funts guztien %35,9 erabili zuen DBErako gehi EPO, autonomia erkidegoen arabera. Euskal biztanleriak Estatu osoan duen pisuaren arabera egokitu beharko litzaiokeena baino askoz portzentaje handiagoa da; izan ere, %4,7koa da aipaturiko urtean.

Bestalde, DBEren oinarrizko kopurua 619,29€ da hilean, Estatuko batez bestekoa baino %42,1 gehiago, autonomia erkidego guztietatik handiena.

V.3.4. TAULA. GUTXIENEKO GIZARTERATZE-ERRENTEN KONPARAZIOA AA.EE.EN ARABERA. 2015EKO DATUAK

	ESTALDURA-TASA (1.000 BIZT.)		TITULAR JASOTZAILEAK			BETEARAZITAKO GASTUA (MILIOI €)		
	2014	2015	Abs. 2015	% 2015	Ald. % 14/15	Abs. 2015	% 2015	Ald. % 14/15
ANDALUZIA	2,69	6,15	51.656	15,97	128,2	89,11	6,6	-1,7
ARAGOI	5,82	6,51	8.582	2,65	11,2	30,56	2,2	6,7
ASTURIAS	14,64	19,28	20.263	6,27	30,4	101,86	7,5	23,7
BALEARS (ILLES)	2,67	2,80	3.095	0,96	5,2	10,21	0,8	10,1
U. KANARIARRAK	3,34	5,78	12.136	3,75	72,8	39,45	2,9	48,9
KANTABRIA	11,29	11,01	6.445	1,99	-3,0	21,70	1,6	24,7
GAZTELA-MANTXA	1,22	1,45	2.993	0,93	18,4	6,29	0,5	14,4
GAZTELA ETA LEON	5,44	6,21	15.351	4,75	13,2	72,97	5,4	32,7
KATALUNIA	3,60	3,93	29.537	9,13	9,1	174,42	12,8	7,7
CEUTA	4,48	2,35	198	0,06	-48,0	0,48	0,0	-40,0
EXTREMADURA	8,94	10,09	11.023	3,41	12,1	33,47	2,5	91,3
GALIZIA	4,39	5,07	13.848	4,28	14,7	50,21	3,7	13,9
MADRIL	3,73	4,64	29.865	9,23	23,9	121,47	8,9	22,6
MELILLA	10,90	11,78	1.008	0,31	9,4	3,62	0,3	16,8
MURTZIA	2,20	3,28	4.820	1,49	49,2	10,50	0,8	45,8
NAFARROA	18,28	20,01	12.875	3,98	9,9	63,88	4,7	30,4
EAE	**35,97**	**36,72**	**80.378**	**24,85**	**2,1**	**488,33**	**35,9**	**3,4**
ERRIOXA	7,82	9,30	2.950	0,91	18,3	8,85	0,7	28,3
VALENTZIAKO E.	3,02	3,32	16.383	5,07	8,3	32,13	2,4	20,3
ESTATUA	5,65	7,75	323.406	100,0	22,4	1.359,57	100,0	16,5

Iturria: Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasun Ministerioaren datuekin egina. G. Gizarteratze Errentak. 2015

3.1.2. Etxebizitza gastuetarako Prestazio Osagarria

Atal honek dakarren informazioak osatu egiten du DBEren Etxebizitzarako Prestazio Osagarriari buruzko informazioa, 3.1.1. atalari dagokionez.

Etxebizitza gastuetarako Prestazio Osagarria (EPO) eskubide subjektiboko prestazio bilakatzeak sistemaren funtsezko osagai bihurrarazi du, eta 18/2008 Legearen helburua islatzen du: Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta osatzeko prestazio ekonomikoen sistema bat eratzea, biztanleria talderik ahulenei etxebizitzari lotutako gastuei aurre egiteko aukera emateko. Funtsezko gastuak estaltzeko gutxieneko egonkortasuna bermatu ez ezik, jarduketa tresna horren xedea GLLak jatorrizko helbururantz birbideratzea ere bada, hots, gastu bereziak estaltzea; horrela, beharrak direla-eta, urteen poderioz GLLak, praktikan, aldian aldiko izaera hartu eta, proportzio handi batean, etxebizitza gastuak ordaintzeko erabiliak izatera eraman zituen desbideratzea zuzendu da. Arestikoak ez du inondik inola esan nahi etxebizitza gastuak lege esparru berriak Gizarte Larrialdiko Laguntzei emandako xedeetatik at geratu direnik, halako gastuak estaltzeko Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren titularrak ez diren pertsonei baino ezin esleituko zaizkiola baino. EPOren xehetasunak, DBEren prestazio osagarri den aldetik eta gehienez hilean 250 eurokoa izanik, etxebizitzaren prestazio osagarriari buruzko urtarrilaren 2/2020 Dekretuan daude araututa.

Indarraldiko lehen urtean (2010), guztira 50 milioitik gorako gastua izan zuen EPOk, eta urtez urte joan da handitzen gastua, 2016ko 91 milioi euroraino (+%2,8 2015aren aldean). Horietatik 15,2 milioi Arabari dagozkio (guztizkoaren %16,7), 53,6 milioi Bizkaiari (%59) eta 22,2 milioi euro Gipuzkoari (%24,3).

Titular hartzaileen kopuruari dagokionez, 2016ko abenduan DBEren 29.447 bizikidetza-unitate onuradunek gainera EPO jaso zuten (aurreko urtean baino %1 gehiago).

V.3.3. GRAFIKOA. ETXEBIZITZARAKO PRESTAZIO OSAGARRIA: URTEKO GASTUAREN BILAKAERA DBE-REN OSAGARRIA DEN ALDETIK. MILIOI EUROTAN



Iturria: LANBIDE

3.1.3. Gizarte Larrialdiko Laguntzak

V.3.5. GRAFIKOA. GIZARTE LARRIALDIKO LAGUNTZAK: TITULAR JASOTZAILEEN KOPURUAREN BILAKAERA



	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015
Álava	4.884	4.353	4.547	4.670	6.520	2.544	1.840	2.694	2.990	3.822	4.503
Gipuzkoa	5.630	5.976	6.183	6.102	9.198	5.597	4.947	6.502	3.693	7.092	7.431
Bizkaia	13.774	15.765	15.668	16.528	22.300	12.025	8.544	13.804	16.124	17.935	19.002
CAPV	24.288	26.094	26.398	27.300	38.018	20.166	15.331	23.000	22.807	28.849	30.935

Iturria: Gizarteratze Zuzendaritza. EUSKO JAURLARITZA.

Gizarte Larrialdiko Laguntzak (GLL) ez dira aldian aldikoak eta oinarrizko premia zehatzei aurre egitera daude zuzenduta. Premia horiek batez ere etxebizitzari daude lotuta eta behin-behinean agertutakoak dira, eta gizarte bazterkeriako egoerak prebenitu, saihestu edo arintzeko behar diren gastuei aurre egiteko behar beste baliabiderik ez duten pertsonentzat dira. Helburu baterako dira, eta eman diren xederako baino ezin dira erabili.

Laguntza horien bidez estalitako berariazko gastuak etxebizitzaz edo ohiko bizitokiaz gozatzeari eta mantentzeari, etxebizitzaren edo ohiko bizitokiaren epe luzerako bizigarritasunari eta oinarrizko ekipamenduari (altzariak, linea zuriko etxetresna elektrikoak, oinarrizko instalazioak edo horiek egokitzeko eta/edo konpontzeko gastuak) dagozkie eta jantziei, hezkuntzari, prestakuntzari edo osasun-arretaren inguruko lehen mailako beharrizanei lotutako ohiz kanpoko, aurreikusi gabeko eta ohikoak ez diren beharrizanak sistema publikoek estaltzen ez dituztenak ordaintzekoak dira, bai eta oinarrizko Gizarte Zerbitzuen iritziz, gizarte bazterkeriako egoerak saihesteko edo arintzeko behar diren antzeko edozein beharrizan ere.

V.3.5. TAULA. GIZARTE LARRIALDIKO LAGUNTZAK. 2014-2015. KONTZEPTUENGATIKO BANAKETA ETA ZENBATEKO ERTAINAK

	2014			2015		
	LAGUNT. K.	ZENBAT. (MILA €)	B.B. ZENBAT. LAGUNTZAKO (€)	LAGUNT. K.	ZENBAT (MILA €)	B.B. ZENBAT. LAGUNTZAKO (€)
ALOKAIRUA	6.738	7.031,5	1.043,56	7.245	7.933,3	1.094,9
AMORTIZAZIOEN INTERESAK	2.469	2.590,9	1.049,39	2.168	2.200,3	1.015,1
BESTELAKO MANTENTZE GASTUAK	16.354	8.686,0	531,13	18.439	10.593,1	574,5
ALTZARIAK ETA ETXEKO TRESNA ELEK.	1.380	547,8	396,96	1.708	688,1	402,8
KONPONKETAK ETA INSTALAZIOAK	1.169	626,3	535,79	1.236	683,1	552,7
OINARRIZKO BEHARRAK	8.987	4.456,9	495,93	9.360	4.465,1	477,1
ZORPETZEA	1.289	1.292,0	1.002,34	1.193	1.263,9	1.059,8
LAGUNTZAK GUZTIRA	**38.386**	**25.231,6**	**657,31**	**41.348**	**27.827,1**	**673,0**
B.U. HARTZAILEAK	28.849			30.935		
HARTZAILEAK	51.093			55.144		

Iturria: EUSKAL GOBERNUA. Gizarteratze

EGPO indarrean hasi ondoren, GLLek jatorrizko helburuari heldu zioten berriro eta, horregatik, nabarmen murriztu zitzaien aurrekontu partida. Horrela, 2010ean, 24 milioi euro erabili ziren guztira laguntza horietarako. Aurreko urtean, aldiz, 54,5 milioi euro baliatu ziren. 2015. urtean (informazioa dugun azken urtea) laguntza horietarako, guztira, 27,8 milioi euro erabili ziren (+%10,3 2014aren aldean). Guztizkoaren %50,2 Bizkaiari dagokio, %28,7 Gipuzkoari eta %22,1 Arabari.

Horrela, 30.935 hartzaile zenbatu dira 2016an, guztira, hau da, 2015ean baino % 7,2 gehiago. Horietatik 4.503 Araban (% 14,6), 7.431 Gipuzkoan (% 24) eta gainerakoak (19.002) Bizkaian (% 61,4) bizi ziren. Guztira, hainbat kontzeptutako 41.348 laguntza eman ziren urtean, hala nola oinarrizko beharretarako (9.360 laguntza), alokairurako (7.245) edo interesen amortizaziorako (2.168), hots, laguntza bakoitzeko 673€-ko batez bestekoa (+%2,4 2014aren aldean).

3.2. GIZARTERATZEA ERRAZTEKO EGITARAUAK: HIRUGARREN SEKTOREKO JARDUERAK SUSTATZEKO DIRU-LAGUNTZAK GIZARTE ESKU-HARTZEAREN ARLOAN

Hauxe xedatu da Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 6.3. artikuluan: "*Gizarte-ongizatea, gizarteratzea eta gizarte-kohesioa ez dira Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren berezko helburuak, baizik eta gizarte-babeseko beste sistema eta politika publiko batzuekin batera gauzatu beharrekoak; hala bada, horiek gauzatzeko orduan, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema bereak diren helburu eta eginkizunen esparruan arituko da elkarlanean. Halaber, elkartasuna eta elkarbizitza sustatzea eta gizartearen parte-hartzea sustatzea beste sistema eta politika publiko batzuekin partekatutako helburutzat joko dira.*" Hortaz, gizarte zerbitzuen helburutzat hartzen da gizarte inklusioa, baina beste sistema eta politika publiko batzuekin partekatuta eta, horrekin bat, Diru-sarrerak Bermatzeari eta Gizarte Inklusioari buruzko 18/2008 Legean, gizarte inklusiorako politikaren zeharkakotasuna aipatzen da, eta horretan lagundu behar dute bi sistemek, Gizarte Zerbitzuek eta Diru-sarrerak Bermatzekoak.

V.3.6. GRAFIKOA. GIZARTE ESKU-HARTZEAREN ARLOKO HIRUGARREN SEKTOREKO JARDUERAK INDARTZEKO DIRU-LAGUNTZEN ZENBATEKOA.€.



Iturria: EUSTAT.

Hirugarren Sektoreko jarduerak EAEko gizarte esku-hartzearen arloan sustatzeko diru-laguntzak arautzeari buruzko abenduaren 29k 649/2009 Dekretuan, gizarte esku-hartzea, funtsean, pertsona guztiak gizarteratzera bideratuta zegoela aitortzen zen, baina hainbat laguntza-lerro edo esku-hartze agintzen zituen, ez soilik gizarte inklusioraren arloari lotutakoak, baizik eta bestelako zeharkako modalitateak hartzen ziren aintzat, honako hauek bilduta: familiaren babesa, droga-mendetasunaren prebentzioa, haurren eta nerabeen arreta eta babesa, etorkinen

gizarteratzea eta, oro har, kulturartekotasuna, adinekoen arreta eta babesa, mendetasunean bizi direnak eta, oro har, ezintasuna eta maitasun-sexu askatasuna eta aniztasuna. [7]

2015ean, informazioa dagoen azken urtean, hirugarren sektoreko jarduerak gizarte esku-hartzearen eremuan sustatzeko diru-laguntzak eman ziren, guztira 4,7 milioi euro, aurreko urtean baino %7,8 gutxiago. Laguntza horietatik, 4 milioi, %87,2, "gizarte esku-hartze" lerrorako erabili ziren, eta gainerako %12,8a (600.000 euro inguru), "elkartegintza indartzeko".

Gizarte esku-hartzeko jardueretarako laguntzen bidez, lehenik eta behin, 202 eskabide bete ziren /197 2014an) eta, horien guztizko zenbatekoa ikusita, batez besteko 20.289€-ko laguntza zenbatetsi da, aurreko urteko batez besteko laguntza baino %9,5 gutxiago. Esku-hartzearen eremuen arabera, funtsen zatirik handiena (%51) eta emandako laguntzen zatirik handiena (%37,6) gizarte inklusiorako erabili ziren, eta batez besteko laguntza 27.493€ izan zen. Bigarrenik, funtsen %12,9 immigraziorako esku-hartzetarako laguntzetarako erabili ziren kulturartekotasunean, eta hirugarrenik, %11, gizarte zerbitzuen arlorako.

V.3.6 TAULA. ESKU-HARTZE SOZIALAREN EREMUKO HIRUGARREN SEKTOREAREN JARDUERETARAKO LAGUNTZAK. ARABERAKO-a BANAKETA ESKU-HARTZE-EREMUEN-a. 2015. ESKU-HARTZE-EREMUENGATIKO BANAKETA. 2015

	GIZARTE ESKU-HARTZEA			ELKARTEGINTZA INDARTZEA		
	EMANDAKO ESKABIDEAK	ZENBAT. (€)	B.B. ZENBAT. (€)	ONARTUTAKO ESKABIDEAK	ZENBAT. (€)	B.B. ZENBAT. (€)
GIZARTERATZEA	76	2.089.453	27.493	24	188.243	7.843
IMMIGRAZIOA KULTURARTEKOTASUNEAN	23	527.706	22.944	9	88681	9.873
EZINTASUNA ETA MENDETASUNA	39	354.041	9.078	17	76.291	4.488
GIZARTE ZERBITZUAK	24	449.502	18.729	25	188.763	7.471
FAMILIA	22	352.218	16.010	5	23.562	4.712
HAURRAK ETA NERABEAK	11	243.464	22.133	5	28.344	5.669
SEXU-MAITASUN ANIZTASUNA ETA ASK.	5	64.061	12.812	0	-	-
ADINEKOAK	2	18.028	9.014	1	6.921	6.921
GUZTIRA	**202**	**4.098.473**	**20.289**	**86**	**598.985**	**6.965**

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Gizarteratze Zuzendaritza.

Bigarrenik, boluntariotza eta elkarteetako partaidetza indartzeko jardueretarako laguntzei esker, guztira 86 eskabideri erantzun ahal izan zitzaien (93 2014an), eta batez besteko laguntza 6.965€-koa izan zen (+%0,6 aurreko urtearekiko). Esku-hartzearen eremuen arabera, funtsen %31,5 gizarte zerbitzuen arlorako erabili zen, eta eskabideen %29,1 bete ziren. Era berean, funtsen %31,4 eskabideen %27,9 betetzeko erabili ziren, hain zuzen gizarteratzearekin zerikusia zuten eskabideak betetzeko.

[7] *Geroago, abenduaren 4ko 271/2012 Dekretuak Hirugarren Sektoreko jarduerak sustatzeko diru-laguntzak arautu zituen EAEko gizarte esku-hartzearen arloan Enplegu eta Gizarte Gaietarako Sailaren bitartez. Baztertuta gelditu zen droga-mendetasunaren prebentzioa, zeren eta, lehia-egitura dela-eta, jarduteko arlo hori orduko Osasun eta Kontsumo Sailaren esku gelditu baitzen.*

4. MENDETASUNAREN ARRETA

Norberaren Autonomia Sustatzeko eta Menpekotasun-egoeran dauden Pertsonei Arreta emateko Legea (Menpekotasunaren Legea) [8] Estatuko araudia da eta 2007. urtean hasi zen indarrean. Lege horren xede nagusia hauxe da: "ahultasun bereziko egoeran daudelako, eguneroko oinarrizko jarduerak garatzeko laguntza behar duten pertsonen beharrizanei erantzutea, haien autonomia areagotzea eta, horrela, herritartasun-eskubideak bete-betean gauzatu ahal izatea". Lege horrek aurrerapen handia ekarri zuen gizarte-politiketan, menpekotasun-egoeran dauden pertsonei aitortzen dielako eta arautzen duelako legeak berak ezarritako prestazio eta zerbitzuez baliatzeko eskubide subjektiboa.

4.1. DATU OFIZIALAK: IMSERSOREN 2016KO BALANTZEA

Adinekoen eta Gizarte Zerbitzuen Institutuaren (IMSERSO) 2016ko abenduaren 31ko datuek adierazi dute data horretan EAEk 96.637 balorazio eskabide erregistratu zituela Mendekotasunari Arreta eskaintzeko Sisteman. Gainerako erkidegoetan bezala, eskabide horietako gehienak mendekotasun mailaren aintzatespena berrikusteko dira. Eskabideen kopurua EAEko biztanleriaren %4,41eko ratioa da (+0,18 puntu aurreko urtearen aldean).

Eskabide horiek, gainera, Estatuan erregistraturikoen %5,96 dira. Gure Erkidegoan, berriz, %4,70 dira, zeren eta Euskadik Estatuko populaziorik zahartuenetakoa baitu.

V.4.1 TAULA. MENDETASUNAREN ARRETA AUTONOMIA ERKIDEGOEN ARABERA. 2016KO ABENDUAREN 31RAKO KONPARAZIOZKO EGOERA

	ESKABIDEAK/BIZTANLERIA %		DIKTAMENAK/ESKABIDEAK %		ONARTUAK/IRIZPENAK %	
	2015	2016	2015	2016	2015	2016
ANDALUZIA	4,48	4,53	92,18	93,42	79,32	70,70
ARAGOIN	3,27	3,44	90,43	89,64	82,36	83,31
ASTURIAS	3,17	3,37	90,23	90,57	73,04	74,60
U. BALEARRAK	2,15	2,27	92,22	92,70	79,03	79,48
U. KANARIARRAK	2,02	2,04	83,88	84,81	84,48	84,68
KANTABRIA	3,93	3,64	98,12	97,99	84,01	83,95
GAZTELA-MANTXA	4,53	4,78	94,59	94,04	77,11	77,94
GAZTELA-LEON	4,12	4,15	94,69	95,23	79,25	79,96
KATALUNIA	3,74	3,86	94,44	92,43	78,26	80,93
VALENTZIAKO E.	2,15	2,03	81,45	85,29	77,57	79,54
EXTREMADURA	4,70	4,87	91,01	88,63	73,31	74,81
GALIZIA	2,90	2,93	96,73	97,83	85,44	85,46
MADRIL	2,79	2,63	98,72	99,25	72,57	75,24
MURTZIA	3,07	2,94	97,84	98,57	90,65	90,63
NAFARROA	2,73	2,86	97,59	98,17	78,69	78,31
EAE	4,23	4,41	96,64	96,37	77,76	78,19
ERRIOXA	4,59	4,73	99,92	99,44	69,91	70,28
CEUTA ETA MELILLA	2,37	2,35	96,21	97,73	68,52	68,51
ESTATUA, GUZTIRA	3,45	3,48	93,41	93,64	78,46	79,91

Iturria: Geuk egina, IMSERSOren datuekin.
Autonomiarako eta Sailerako (SAAD-etarako) Arretarako Sistemaren informazio estatistikoa. Abenduaren 31rako datuak

Eskatzailearen profila emakumeari dagokio (guztizkoaren %64,7), 80 urte edo gehiagokoa (eskabideen %53,9). Hurrengo adin-talde nagusia 65 eta 79 urte bitartekoena da, hots, eskabide guztien %21. Erregistratutako 96.637 txosten eskabideetatik % 96,37k jada dagokion txostena jaso zuten (Estatuko batezbestekoaren % 93,64) eta 72.817 eskabideri, hau da, txostena jaso zuten kasuen % 78,19ri, prestaziorako eskubidea aintzatetsi zitzaien. Portzentaje hori Estatuko batezbestekoa (% 79,91) baino txikiagoa da. Horietatik %26,95ek III. mendetasun gradua zuen aitortua[9], %33,95ek II. gradua eta %39,13k I. mendetasun gradua.

[8] *39/2006 Legea, abenduaren 14koa, norberaren autonomia sustatu eta menpekotasun-egoeran dauden pertsonei arreta ematekoa.*

9 39/2006 Legearen 26. artikuluan xedatuta dagoenez, mendetasuna hiru gradutan sailkatzen da:

I. Gradua: Neurriko mendetasuna. kasu hauetan, pertsonak laguntza behar du eguneroko bizitzako oinarrizko hainbat jarduera aurrera eramateko, eta hori gutxienez egunean behin, edo tarteka laguntza mugatua behar du, autonomia pertsonalarekin laguntzeko.

II. Gradua: Mendetasun larria. pertsonak laguntza behar du eguneroko bizitzako oinarrizko hainbat jarduera aurrera eramateko, eta hori egunean bi edo hiru aldiz, baina ez du behar kanpoko zaintzaile batek etengabe laguntzea, edo laguntza-premia zabalak ditu autonomia pertsonalaren arloan..

III. Gradua: Mendetasun handia: pertsonak laguntza behar du eguneroko bizitzako oinarrizko hainbat jarduera aurrera eramateko, egunean hainbat aldiz, eta autonomia fisiko, mental, intelektual edo sentsoriala erabat galdu duenez, beste pertsona batek lagundu behar dio nahitaez eta etengabe, edo laguntza orokorra behar du autonomia pertsonalik ezaren ondorioz.

Bestalde, erreferentziako datan, 69.259 prestazio ematen ziren (+%18,9 2015aren aldean), eta horietatik %45,12 Senideak Zaintzeko Prestazioari dagozkio (Estatuakoa baino askoz ratio handiagoa, %33,79koa baita), %17,74 laguntza arretari, %9,44 eguneko/gaueko zentroko zaintzei eta %9,65 etxez etxeko laguntza zerbitzuei, prestazio eta zerbitzu garrantzitsu legez.

Prestazioen jasotzaileak 56.449 pertsona onuradun izan ziren (ratioa 1,23 prestaziokoa da pertsona bakoitzeko, pertsona bat zerbitzu edo prestazio bat baino gehiagoren onuradun izan baitaiteke). Kopuru hori prestazioa jasotzeko eskubidea aitortuta duten 72.817 pertsonen % 77,5ekoa da (%77,3 2015ean).

V.4.2. TAULA. MENDETASUNAREN ARRETA AUTONOMIA ERKIDEGOEN ARABERA. 2016/12/31

	ONURADUNAK/ BIZTANLERIA		PRESTAZIOAK ONURADUN BAKOITZEKO		SENIDEAK ZAINTZEKO DIRU-LAGUNTZAREN %	
	2015	2016	2015	2016	2015	2016
ANDALUZIA	2,13	2,19	1,30	1,29	32,96	29,68
ARAGOI	1,35	1,61	1,01	1,08	53,39	46,22
ASTURIAS	1,67	1,92	1,07	1,29	39,92	33,18
U. BALEARRAK	1,05	1,32	1,01	1,01	68,14	69,80
U. KANARIARRAK	0,66	0,80	1,02	1,02	38,76	41,11
KANTABRIA	2,38	2,30	1,12	1,12	50,04	51,43
GAZTELA-MANTXA	2,98	3,49	1,28	1,28	22,43	21,91
GAZTELA ETA LEON	1,79	2,02	1,33	1,25	31,85	26,51
KATALUNIA	1,68	1,68	1,44	1,26	47,85	45,85
VALENTZIAKO E.	0,87	1,04	1,13	1,08	43,44	49,94
EXTREMADURA	2,03	2,25	1,10	1,09	29,86	26,38
GALIZIA	1,53	1,81	1,09	1,12	24,08	23,57
MADRIL	1,57	1,68	1,25	1,31	21,32	17,26
MURTZIA	1,87	2,19	1,26	1,25	54,02	53,81
NAFARROA	1,41	1,52	1,19	1,22	53,08	54,79
EAE	**2,33**	**2,58**	**1,14**	**1,23**	**46,01**	**45,12**
ERRIOXA	2,13	2,40	1,46	1,39	27,49	22,53
CEUTA ETA MELILLA	1,38	1,51	1,28	1,33	45,88	41,17
ESTATUA, GUZTIRA	**1,71**	**1,86**	**1,25**	**1,23**	**36,12**	**33,79**

Iturria: Egitea geurea con datos del IMSERSO. Información estadística del Sistema para la Autonomía y la Atención a la Dependencia (SAAD). Datos a 31 de diciembre.

4.2. SEKTOREAREN BALANTZEA: MENDETASUNAREN BEHATOKIA

Zifra horien osagarri gisa, Gizarte Zerbitzuen Zuzendari eta Gerenteen Estatu Elkarteko kideek osatutako "Espainiako Mendekotasunaren Behatokia" delakoaren txostenek Mendekotasun Legetik abiatuta mendekotasunarentzako arreta sistemaren hedapenaren balorazio profesionalaren jarraipena egitea ahalbidetzen dute autonomia erkidegoka. Azkenak agerian uzten duenez, 2016ko datuekin, EAEk garapen handiagoa du beste autonomia erkidego batzuek baino, baloraturiko pertsonen portzentajeari dagokionez nahiz emandako prestazioei dagokienez.

V.4.1. GRAFIKOA. MENDETASUNERAKO ARRETA EAE-N: PRESTAZIOEN BANAKETA MOTAREN ARABERA. 2016-12-3



Iturria: IMSERSOREN datuekin egina

Sistemaren ezarpenaren zifrei eta profesionalen balorazioari buruzko laburpen gisa, Behatokiak puntuazioa jartzen die erkidegoei eta ranking bat aurkeztu du. 2015ean, sistema ezartzeko epealdia bukatutzat eman da eta, beraz, ebaluazio metodologia aldatu da (honako hauek kontuan izateko, besteak beste: sortutako enplegua, jardun onak edo sistemaren gardentasun maila), finkatzearen bigarren etapa baloratua izateko. Urte horretan, bi puntuazio eskaintzen dira, metodologia zaharrarekin eta berriarekin.

2016ko abenduko rankingnean, orduan metodologia berria erabilita, Gaztela eta Leon zegoen lehen tokian (8,9ko nota 10etik), eta EAE hirugarren tokitik zortzigarrenera jaitsi da, 5,4 punturekin (6,8 2015ean). Aurreko urteetan, berriz, metodologia zaharrarekin, askoz toki hobeak izan zituen, noiz-eta mendetasunerako arreta sistemaren ezarpena aurreratuagoa zegoenean gure Erkidegoan Estatuko beste erkidego askotan baino.

Behatokiak 2016rako IMSERSOren informazioa baliatuta egindako ebaluazioan nabarmentzen denez, sistemako onuradunen kopurua (56.449 abenduaren 31n, ikusi denez) %11 hazi zen azken urtean EAEn, baina hori lortu da senideak zaintzeko diru-prestazioen beste igoera bati esker (salbuespenez eman beharko litzateke, baina EAEn, ikusi dugunez, prestazioen %45,12 dira), baita telelaguntzari esker ere. Etxez etxeko laguntzako zerbitzuak edo bizitegikoak ia ez dira igo.

V.4.3. TAULA. MENDETASUNAREN BEHATOKIAREN MENDETASUNAREN ARRETAREN EBALUAZIOA AA.EE.EN ARABERA, URTE BAKOITZEKO ABENDUKO EGOERA*. 2012-2016.

	2012	2013	2014	2015**		2016
				AURREKO ESKALA	ESKALA BERRIA	
GAZTELA ETA LEON	9,2	9,6	10,0	9,2	8,6	8,9
ERRIOXA	6,7	6,3	6,3	6,7	6,1	7,9
ANDALUZIA	7,1	5,8	7,1	7,9	7,5	6,8
GAZTELA-MANTXA	5,8	5,4	5,0	5,8	5,7	6,8
MADRIL	3,8	4,2	4,2	4,6	5,7	6,1
GALIZIA	5,8	5,0	4,2	5,0	4,3	6,1
MURTZIA	3,3	5,0	4,2	2,9	2,9	6,1
EAE	**7,5**	**8,3**	**7,5**	**8,3**	**6,8**	**5,4**
EXTREMADURA	5,0	5,4	6,7	6,7	3,6	5,0
ASTURIAS	4,2	3,8	5,0	5,0	3,6	4,6
CEUTA ETA MELILLA	2,1	1,3	1,7	3,8	3,2	4,3
KATALUNIA	5,8	5,4	4,6	4,6	3,6	3,9
KANTABRIA	4,2	6,3	4,6	5,4	3,2	3,6
U. BALEARRAK	2,5	2,9	3,8	2,5	2,1	3,6
VALENTZIAKO E.	0,8	0,4	1,7	1,7	-	3,2
NAFARROA	5,4	5,0	5,0	3,3	2,5	2,9
ARAGOI	3,8	3,8	3,3	3,8	2,1	2,5
U. KANARIARRAK	2,1	0,8	1,7	1,7	0,7	1,8
B.B., ESTATUA	4,7	4,7	4,8	4,9	4,0	-

Iturria: Saileko Behatokia.
(**) 2015ean ebaluazioaren metodologia aldaketa|kanbioa gertatu zen. Puntuazioa ematen da aurreko metodologiaren (sistemaren ezarpenaren) arabera eta berriaren (sendotzearen) arabera. 2016ak, sistemaren sendotzea, soilik ebaluatzen du.

Itxaronzerrenda, bestalde, %22,7koa da. Aurreko urtean, berriz, %27koa zen. Estatuko batez bestekoa, iturri horren arabera, %29 da (%32,6 2015ean).

5. GIZARTE AURRESIKUSPENEKO SISTEMA OSAGARRIAK EAE-N

EAEn, gizarte aurreikuspen osagarriko sistema pribatuan protagonista nagusiak Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeak (BGAE) eta horiek osatzen dituzten aurreikuspen planak dira. Euskal zergapekoek errentaren gaineko zergaren aitorpenean gizarte-aurreikuspen osagarriko erakundeei ordaindutakoagatik kentzen dutenaren % 92 inguru BGAEetara bideratzen dute. Gainerako % 8a beste forma batzuetara bideratzen dute, besteak beste, pentsio plan eta funtsetara, taldeko aseguru kontratuetara, mutualitateetara, etab.

Gizarte Segurantzaren sistema publikoak osatzeko pentsio plan pribatuak dauzkaten herrialde guztietan bezala, EAEn bi plan modalitate nagusi daude. Enplegu- edo lanbide- aurreikuspenekoak, langileentzat, enpresaren nahiz lan-harremanen esparruan egituratzen direnak; eta finantza-erakundeek sustatutako banakako aurreikuspen planak edo kontu pertsonalak, zeinetan edozein pertsona fisiko bazkidetu daitekeen. Azkenik, gure legerian hirugarren modalitate bat ere badago: elkarteko aurreikuspen-planak; plan horien bazkideak elkarte bateko, sindikatu bateko, elkargo bateko edo antolakunde bateko kideak dira eta ez daude besteak bezain zabalduta.

5.1. MAGNITUDE NAGUSIAK

Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza Sailaren esanetan, 2015. urtean, EAEko BGAEek 24.177 milioi euroko ondarea zuten. Zenbateko hori % 25,5 igo da azken lau urteotan eta gure erkidegoko BPGren % 34,93koa da, behin-behineko datuen arabera.

V.5.1. GRAFIKOA. EAE-KO BGAE: ATXIKITZEEN KOPURUAREN (MILAKOETAN) ETA ONDAREAREN BILAKAERA (MILIOI EUROTAN)



Iturria: Geuk egina EUSKO JAURLARITZAREN datuekin.

Bestalde, erakunde horretako bazkideen edo atxikipenen kopurua (kontu kopurua kontsideratuta eta ez pertsonena, zeren eta zaila baita zehaztea zenbat dauden bikoiztuta edo zenbat diren ekarpenak etenda dituzten kidetuak), 1,16 milioi da, hots, %8,9 murriztu da 2010aren aldean. Izan ere, urte horretan 1,27 milioitik gorakoa izan zen.

2015eko abenduaren 31n, Federazioak bazeuzkan 82 erakunde kideturik; horietatik 43 enpleguari lotutako BGAEak ziren, 34 banakakoak, 3 elkarte-arlokoak eta 2 "hainbat" kategoriakoak.

V.5.1. TAULA. EUSKADIKO BGAE: DATUAK 2015EKO ABENDUAREN 31N (DATU EKONOMIKOAK EUROTAN)

	ERAKUNDE ELKARTUAK	BAZKIDEAK	KUOTAK	ONDAREA	PRESTAZIOAK	ERRESKAT.
ENPLEGUA	43	446.336	384.906.856	12.634.247.441	485.567.358	3.383.680
BANAKOAK	34	699.709	372.701.636	11.395.986.673	226.347.286	196.803.493
ELKARTUAK	3	2.449	1.012.697	34.696.736	583.879	89.652
MISTOAK	2	8.931	5.399.684	112.440.810	2.869.290	2.858.954
GUZTIRA BGAE	**82**	**1.157.425**	**764.020.875**	**24.177.371.662**	**715.367.514**	**203.135.781**

Iturria: GOBIERNO VASCO.

Kideturikoen erdia baino gehiago (%60,5,) ez zegoen banako BGAEetan, eta ondoren enplegukoak daude, kideturikoen %38,6 baitute. Kuotetan eta ondaretan, bi modalitatetan banatzen dira ia erdibana. Ordaindutako prestazioak, berriz, gehienbat enplegukoetan (guztizkoaren %67,9) metatzen dira, ondoren banakakoetan (%31,6).

2015eko balantzea eginez esan behar da Euskadiko BGAEen ondareak lehen aldiz gainditu duela 24.000 milioi euroko langa,aurreko ekitaldian baino %2,1 hazita. Ondare hori EAEko BPGd-aren %3,93 da; ratio hori Estatukoa baino askoz handiagoa da (%9,6) eta EB15eko batez bestekoa baino pixka bat handiagoa (%34,5), baina oso urruti dago ELGAko batez besteko herrialdeetatik. Erakunde horren arabera, %82,4 da.

Kuotak edo ekarpenak 2015ean 764 milioi euro ziren, eta behera egin zuten 2014aren aldean (-%2,1). Bestalde, atxikipenak ere murriztu dira (1,16 milioi dira guztira) pixka bat azken urtean (-%1,27). Aldi berean, ordaindutako prestazioak 715 milioi eurotik gorakoak dira, hots, 2014an baino %1,4 gutxiago. Halaber, 2015ean guztira 203,1 milioi euro erreskatatu ziren, aurreko urteko 221,5 milioi euroren aldean, hau da, %8,3ko murriztapena.

V.5.2. TAULA. EUSKADIKO BGAE. MAGNITUDE NAGUSIEN BILAKAERA. MILAKA EUROTAN

	2012	2013	2014	2015	Ald. % 2014/15
BAZKIDEAK	1.234.014	1.180.819	1.172.028	1.157.425	-1,2
KUOTAK	950.331.420	927.407.318	780.544.629	764.020.875	-2,1
PRESTAZIOAK	670.004.912	804.540.512	728.522.955	715.367.814	-1,8
ONDAREA	21.078.714.692	22.531.310.355	23.684.329.254	24.177.371.662	2,1
% KUOTA/BPG	1,42	1,41	1,16	1,10	
% ONDOREA/BPG	31,57	34,19	35,23	34,93	

Iturria: Geuk egina EUSKO JAURLARITZAREN datuekin.

5.2. ZERGA ARAUBIDEA

BGAEek EAEn izan duten garapen handiaren arrazoietako bat, neurri handi batean, zerga pizgarriak izan dira; izan ere, aurrezte bide horren erakargarritasuna areagotu dute, batez ere PFEZren bitartez (zenbakiko bazkideentzat), baina baita Sozietateen gaineko Zergaren bitartez ere (bai erakundeentzat eurentzat, bai enplegu planetan enpresa edo bazkide babesleen parte hartzea bultzatzeko).

V.5.3. TAULA. PFEZ-AREN LIKIDAZIOA: ZERGA-OINARRIAREN MURRIZTAPENAK PENTSIO PLANETARAKO ETA BGAE-EN EKARPENENGATIK.

	ZENBAT. (MILA €)	AITORLEAK		B.B. MURRIZT. (€)
		KOP.	% GUZT.	
2009	1.200.570	502.000	42,8	2.392
2010	1.201.653	497.598	42,4	2.415
2011	1.158.506	490.070	41,4	2.364
2012	823.114	420.756	39,0	1.956
2013	812.364	392.748	36,8	2.068
% ALD. 11/12	-29,0	-14,1	-5,8	-17,3
% ALD. 12/13	-1,3	-6,7	-5,6	5,7

Iturria: ZERGAK KOORDINATZEKO ORGANOAREN datuekin egina.

EAEn, zergari buruzko eskumenak lurralde historiko bakoitzeko foru aldundiak eta batzar nagusiek erabiltzen dituzte. Oro har, bazkideek egindako ekarpenen zenbatekoa Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zerga-oinarritik ken daitezke[10]. Bestalde, errenta geroratutzat jotzen direnez, BGAEetatik jasotako prestazioak (baita erreskateak edo gertakizuna jazo aurretik ordaindutako zenbatekoak) norberaren lanaren etekin osotzat jotzen dira[11].

Zergak Koordinatzeko Erakundeak 2013ko txostenean emandako 2014ko ekitaldiko PFEZaren likidazio datuen arabera, BGAEetan eta gainerako aurreikuspen-moduetan egindako ekarpenengatiko kenketa 812,36 milioi eurokoa izan zen, 2012an baino % 1,3 gutxiago. Zenbateko hori EAEko urte horretako BPGren % 1,23koa izan zen (2012 ratio bera), guztira 392.784 aitortzaileena, aurreko urtean baino % 6,7 gutxiago. Aitortzaileen kopurua guztien % 36,8 izan zen.

Lurraldeen arabera, Arabak aitortzaileen % 11,9 besterik ez du, eta zerga-oinarriaren murriztapenen guztizko zenbatekoaren % 14 (46.716 aitortzaile eta 113,3 milioi euroko murriztapena). Bizkaiak, berriz, aitortzaileen % 41,6 izan zuen eta murriztapenaren % 49,4. Azkenik, Gipuzkoak aitortzaileen % 41,6 izan zuen eta murriztutako zenbatekoaren % 36,6.

Horrek, batez beste, 2.068 euroko kenketa dakar, zenbateko hori aurreko urtekoa baino % 5,7 handiagoa dela. Hona hemen balioak: errenta mailarik txikienen (30.000 euro arteko likidazio-oinarria) batez besteko ekarpena 1.473 eurokoa izan zen, eta zergapekoen % 30,3k baino ez zituzten ekarpenak egin; 30.000 eta 90.000 arteko oinarria zuten zergapekoen batez besteko ekarpena 2.811 eurokoa izan zen, eta haietatik % 55,5ek egin zituzten ekarpenak; eta errenta mailarik handienetan batez besteko ekarpena 6.426 eurokoa izan zen, eta zergapekoen % 68,2k egin zituzten ekarpenak.

[10] *Ondarearen gaineko Zerga Bereziari dagokionez, bazkidearen eskubide irmoak zerga horren aitorpena aurkeztu behar den erabakitzeko baino ez dira zenbatzen, eskubide salbuetsitzat jo eta, beraz, ez dute haren zerga-oinarria osatzen.*

[11] *Prestazioa kapital gisa jasotako kopurua bada, % 40ko kenketa dakar, eta errenta bada, aldiz, oso-osorik sartzen da zerga-oinarrian.*

6. LABURPENA ETA ONDORIOAK

6.1. LABURPENA

Lehenik eta behin, EUSTATen 2015eko "EAEko Gizarte Babesaren Kontua"ren azken datuen arabera, Euskadin eginkizun horretarako erabilitako baliabideak 16.939 milioi euro izan ziren aipaturiko urtean, 2014an baino %1 gehiago. Hots, urte horretako BPGaren %24,5 (+%4,7 2008aren aldean eta -%0,4 2004arekiko), behin-behineko datuak baliatuz. Gizarte babesaren gastuak etengabe egin du gora eskuragarri dugun urteetako seriean, eta biztanleko gastua 6.402€ izan zen 2008an. 2015ean, berriz, 7.797 (+%21,8). Gainera, EUROSTATek argitaraturiko azken datuak aztertuta ikusten denez, gizarte babeseko per capita gastua Euskadin, eroste-ahalmenaren parekotasunaren arabera neurtuta, 8.341 eurokoa izan zen, hau da, EBko batez bestekoaren (7.937 euro) eta Estatuko batez bestekoaren (6.121 euro) gainekoa.

Bigarrenik, 2016ko ekitaldian, milioi erdi pertsona baino gehiago (547.998 lagun, behin-behineko zenbatespenen arabera) Gizarte Segurantzaren sistemaren onuradunak izan ziren gure autonomia erkidegoan (kotizaziopeko eta kotizatu gabeko pentsioei dagokienez). Kopuru hori aurreko urtekoa baino % 1,2 handiagoa da (eta aurreko urtean % 1,7 igo zen[12]). Kopuru hori aurreko urtekoa baino % 1,2 handiagoa da. Azken urteotan gertatu denez, igoeraren arrazoi nagusia dugu kotizaziopeko pentsioen onuradun kopuruaren goranzko bilakaera; izan ere, gainerako modalitateetan, oro har, onuradunen talde horren kopurua beherantz doa.

Kotizaziopeko pentsioei dagokienez (prestazioen %97,9 eta gastuaren %99,3), 2016an 536.700 onuradun izan ziren guztira (+%1,2), eta eginiko zenbatespenen arabera, urteko gastua 8.419,21 milioi euro izan zen, 2015ean baino %3,3 gehiago. Kotizaziorik gabeko pentsioek, bestalde, 11.298 pertsona hartzen zituzten guztira. Hala, 58 milioi euroko gastua sortu zen urtean. Oro har hartuta, 2016. urtean, pentsioen guztizko gastua EAEn 8.477,24 milioi eurokoa izan zen behin-behineko datuen arabera, hau da, % 3,3 hazi zen 2015eko ekitaldiaren aldean. Hortaz, BPGaren gaineko ehunekoa hamarren bat gutxitu zen, % 11,8raino.

Gizarte Segurantzak EAEn dituen kotizaziopeko pentsioen gastua eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren kuoten bilketako kopuruak erkatuta ikusten denez, 2015ean (bi datuak ditugun azken ekitaldia), gastua 8.152 milioi euro zen gure zenbatespenen arabera. Sarrerak, berriz, 6.466 milioi eurokoak ziren eta, beraz, saldo negatiboa izango litzateke, 1.648 milioi euro; aurreko urtean -1.448 milioi ziren.

Bestalde, Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren funtsezko prestazioa Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DSBE) izenekoa da, Gizarteratzeko eta Diru-sarrerak Bermatzeari buruzko abenduaren 23ko 18/2008 Legeak ezarritakoari jarraiki.

Bestalde, 2016an 63.797 bizikidetza-unitatek jaso zuten DBE (abenduko datua da), hots, etengabe 15 urtez hazten eman ondoren (1994 eta 2014 bitartean), bigarren urtez beherakada izan zen 2016an, 1,4 hain zuzen ere, 2015ean %1,5 jaitsi ondoren. Lurraldeen arabera, Bizkaiak du titular hartzaile kopururik handiena, orotara 39.183 hartzailea, EAEko guztizkoaren %61,4 alegia. Gipuzkoan, aldiz, hartzaileen %23,6 dago eta gainerako %15 Araban. LANBIDEren 2016ko espediente aktiboen fitxari esker, jakin badakigu 63.797 pertsona titular zeudela inskribatuta, %43,6 gizonezkoak ziren eta %56,4 emakumezkoak. Onuradun gehien biltzen dituen adin-tartea 40-59 urte bitartekoa da (guztizkoaren %44,5), eta nabarmentzekoa da ere 5.500 jasotzailek 30 urte baino gehiago dituztela. LANBIDEren arabera, hauxe da bizikidetza-unitate hartzailearen pertsona titularraren profila: espainiar nazionalitateko emakumea, 40 urtetik gorakoa eta oinarrizko ikasketak dituena (%67k nahitaezko ikasketak ditu, %10,1ek lanbide titulazioren bat eta %4,1ek unibertsitateko titulazioa). Gainera, prestazioa jasotzen duten atzerritarrak guztizkoaren %27,7 dira (%36,1 2015ean), eta titular jasotzaileen %24,8 pentsiodunak dira (%25,1 2015ean).

Bestalde, 12.570ek, unitate hartzaileen %19,7k, soldatako errenten osagarri gisa jasotzen dute DBE (%19 2015ean). DBEren osagarriei dagokienez, lehenbizikoa Etxebizitzaren Prestazio Osagarria da, aurrerago ikusiko denez, 29.447

[12] *Kalkulu horietatik kanpora gelditu dira laguntza pentsioak eta LISMIren ondoriozkoak. Desagertzeko joera dute, eta horiei buruzko informazio eguneraturik ez dugu 2006tik hona. Nolanahi ere, haren guztizko pisua %0,4aren azpitik dago.*

bizikidetza-unitatek jasoa erreferentziako datan (+293 aurreko urtearen aldean). Aldi berean, unitate horien 9.748 pertsona titularrek osagarria jasotzen dute guraso bakarra izateagatik (2015eko abenduan baino 930 gehiago).

Gainera, 2010ean, Etxebizitzaren Prestazio Osagarria (EPO) abian jarri zen, arestian aipatu dugun 18/2008 Legea garatzeko. Haren helburua Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren osagarri diren prestazio ekonomikoen sistema egituratzea da, biztanleriako talderik ahulenek etxebizitzaren inguruko gastuak ordaindu ahal izan ditzaten. Indarrean jarri zen lehen urtean (2010), EPOren gastua 50 milioi eurotik gorakoa izan zen, eta gastu hori handituz joan da urtez urte, 2016an 91 milioi izateraino (+%2,8 2015aren aldean). Titular jasotzaileen kopuruari dagokionez, 2016ko abenduan guztira DBEren onuradunak ziren 29.447 bizikidetza-unitatek, gainera, EPO jaso zuten (aurreko urtean baino %1 gehiago).

EPO abian jarri ondoren, Gizarte Larrialdiko Laguntzak (GLL), Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren hirugarren tresnak, bere jatorrizko helburua berreskuratu zuen (hau da, oinarrizko beharrizan espezifikoei aurre egitea, batez ere etxebizitzarekin zerikusia dutenak, gizarte bazterketako egoerak prebenitzeko, ekiditeko edo leuntzeko gastuei aurre egiteko baliabide nahikorik ez daukaten pertsonei egoera zehatzetan sortzen zaizkienak) eta bere aurrekontu partida nabarmen murriztu zen: 2015. urtean (informazio kontsolidatua daukagun azken urtea) laguntza horretarako 27,8 milioi euro bideratu ziren (+%10,3 2014aren aldean). 2016an, guztira 30.935 kontsumo-unitate hartzaile zenbatu ziren, 2015ean baino %7,2 gehiago eta, guztira, 41.348 laguntza eman ziren hainbat kontzepturengatik hala nola oinarrizko beharrak (9.360 laguntzak), alokairua (7.245) edo interesen amortizazioa (2.168), eta laguntzaren batez besteko zenbatekoa 673€ izan zen (+%2,4 2014aren aldean).

Laburbilduz, 2016. urtean, behin-behineko datuen arabera, Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemak guztira 520,2 milioi euro gastatu zituen, aurreko urtean baino % 0,8 gehiago, honela banakatuta: 401,4 milioi Sarrerak Bermatzeko Errentan eginiko gastuari dagozkio (guztizkoaren %77,2, eta 2015ean baino %0,4 gehiago), 91 milioi Etxebizitzaren Prestazio Osagarrirako (guztizkoaren % 17,5 eta 2015ean baino %2,8 gehiago), eta eginiko zenbatespenen arabera, Sistemaren gastu agregatua kalkulatzeko, Gizarte Larrialdirako Lagunetarako erabilitako 27.8 milioi eurori eutsi egin zaie 2016an (Sistemako gastu guztiaren %5,3), laguntza horri buruzko datu ofizialak izan arte.

Erkaketa egite aldera, Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasun Ministerioaren "Gizarteratzeko Gutxieneko Errenten Txostena"ri esker, autonomia erkidegoetako sarrerak bermatzeko sisteman kopuru handien konparaziozko jarraipena egin daiteke, betiere era askotako araudiak eta sistemak garatzeko hainbat maila daudela kontuan izanik. 2015eko ekitaldiari buruzko txostenaren arabera, urte horretan gure erkidegoak 6.075,42 euro gastatu zuen urtean prestazio horien titular bakoitzeko, estatuko 3.575,52 euroko batez bestekoaren aldean (%70 gehiago), eta haren estaldura-tasa % 36,71ekoa izan zen mila biztanleko. Estatuko batez bestekoa, berriz, 7,75 izan zen mila biztanleko.

Azterlanaren arabera, gure Erkidegoak 2015ean Estatuan prestazio horietarako emandako funts guztien %35,9 erabili zuen DBErako gehi EPO, autonomia erkidegoen arabera betiere. Euskal biztanleriak Estatu osoan duen pisuaren arabera egokitu beharko litzaiokeena baino asko portzentaje handiagoa da hori; izan ere, orotara %4,7koa da aipaturiko urtean.

Bestalde, Enplegu eta Gizarte Politiketarako Sailak gizarteratzea errazteko buruturiko ekimenen baitan, 2015ean (informazioa dugun azken urtea hain zuzen ere), hirugarren sektoreko jarduerak gizarte esku-hartzearen eremuan sustatzeko diru-laguntzak eman ziren, guztira 4,7 milioi euro, aurreko urtean baino %7,8 gutxiago hain zuzen. Aipaturiko laguntza horietatik, 4 milioi, %87,2, "gizarte esku-hartze" lerrorako erabili ziren, eta gainerako %12,8a (600.000 euro inguru), "elkartegintza indartzeko".

2007ko Menpekotasun Legearen ezarpenari dagokionez, Adinekoen eta Gizarte Zerbitzuen Institutuaren (IMSERSO) 2016ko abenduaren 31ko datuek adierazi dutenez, EAEk 96.637 ebaluazio-eskabide erregistratuta zituen data horretan Mendekotasunari Arreta eskaintzeko Sisteman. Gainerako erkidegoetan bezala eskabide horietako gehienak mendekotasun mailaren aintzatespena berrikusteko izan ziren. Eskabideen kopurua EAEko biztanleriaren %4,41eko ratioa da (+0,18 puntu aurreko urtearen aldean). Eskabide horiek, gainera, Estatuan erregistraturikoen %5,96 dira. Gure Erkidegoan, berriz, %4,70 dira. Eskatzailearen profila emakumeari dagokio (guztizkoaren %64,7), 80 urte edo gehiagokoa (eskabideen %53,9). Hurrengo adin-talde nagusia 65 eta 79 urte bitartekoena da, hots, eskabide guztien %21. Erregistratutako 96.637 txosten eskabideetatik % 96,37k jada dagokion txostena jaso zuten (Estatuko batezbestekoaren % 93,64) eta 72.817 eskabideri, hau da, txostena jaso zuten kasuen % 78,19ri, prestaziorako eskubidea aintzatetsi zitzaien.

Halaber, erreferentziako datan, 69.259 prestazio ematen ziren (+%18,9 2015aren aldean), eta horietatik %45,12 Familiakoak Zaintzeko Prestazioari dagozkio (Estatuakoa baino askoz ratio handiagoa, %33,79koa baita), %17,74 laguntza arretari, %9,44 eguneko/gaueko zentroko zaintzei eta %9,65 etxez etxeko laguntza zerbitzuei, prestazio eta zerbitzu garrantzitsu legez. Prestazioen jasotzaileak 56.449 pertsona onuradun izan ziren (ratioa 1,23 prestaziokoa da pertsona bakoitzeko, pertsona bat zerbitzu edo prestazio bat baino gehiagoren onuradun izan baitaiteke). Kopuru hori prestazioa jasotzeko eskubidea aitortuta duten 72.817 pertsonen % 77,5 da (%77,3 2015ean).

Zifra horien osagarri gisa, Gizarte Zerbitzuen Zuzendari eta Gerenteen Estatu Elkarteko kideek osatutako "Espainiako Mendekotasunaren Behatokia" delakoaren txostenek Mendekotasun Legetik abiatuta mendekotasunarentzako arreta sistemaren hedapenaren balorazio profesionalaren jarraipena egitea ahalbidetzen dute autonomia erkidegoka. Azkenak agerian uzten duenez, 2016ko datuekin, EAEk garapen handiagoa du beste autonomia erkidego batzuek baino, baloraturiko pertsonen portzentajeari dagokionez nahiz emandako prestazioei dagokienez.

Behatokiak 2016rako IMSERSOren informazioa baliatuta egindako ebaluazioaren nabarmentzen denez, Euskadin sistemako onuradunen kopurua (56.449 abenduaren 31n, ikusi denez) %11 hazi zen azken urtean, baina hori lortu da senideak zaintzeko diru-prestazioen beste igoera bati esker (salbuespenez eman beharko litzateke, baina EAEn, ikusi dugunez, prestazioen %45,12 dira), baita telelaguntzari esker ere. Etxez etxeko laguntzako zerbitzuak edo bizitegikoak ia ez dira igo. Itxaronzerrenda, bestalde, %22,7koa da. Aurreko urtean, berriz, %27koa zen.Estatuko batez besteko, iturri horren arabera, %29koa izan zen (%32,6 2015ean).

Bukatzeko, EAEko borondatezko gizarte aurreikuspeneko sistemaren bilakaeraren ondorio gisa, EAEko 2015eko abenduaren 31n, Euskadik 82 BGAE zituen kideturik; horietatik 43 enpleguari lotutako BGAEak ziren, 34 banakakoak, 3 elkarte-arlokoak eta beste bi "hainbat" kategoriakoa. Kideturikoen erdia baino gehiago (%60,5,) ez zegoen banako BGAEetan, eta ondoren enplegukoak daude, kideturikoen %38,6 baitute. Kuotetan eta ondaretan, bi modalitatetan banatzen dira ia erdibana. Ordaindutako prestazioak, berriz, gehienbat enplegukoetan (guztizkoaren %67,9) metatzen dira, ondoren banakakoetan (%31,6).

Kuotak edo ekarpenak, guztira, 764 milioi euro ziren 2015ean, eta behera egin dute 2014aren aldean (%-2,1). Bestalde, atxikipenak ere murriztu dira (1,16 milioi dira guztira) pixka bat azken urtean (-%1,27). Aldi berean, ordaindutako prestazioak 715 milioi eurotik gorakoak dira, hots, 2014an baino %1,4 gutxiago. Halaber, 2015ean guztira 203,1 milioi euro erreskatatu ziren, aurreko urteko 221,5 milioi euroren aldean, hau da, %8,3ko murriztapena.

6.2. ONDORIOAK

Kapitulu honetan azaldutako datuetan ikusten denez, EAEko gizarte babesaren sistema bere lana betetzen ari da, eta horri esker, ongizate estatuaren oinarriei eutsi ahal zaie. Gainera, Europako herrialde nagusiekin erkatzeko moduko mailan betetzen du bere eginkizuna, Estatuko egoerarekin alderatuta maila hobeak dituela.

Alabaina, hori ikusita pozik egon arren, arreta merezi duten zenbait alderdiren inguruko hausnarketa egin beharra dago.

Gizarte Segurantzaren pentsio sistematik hasita, kezkagarria da gure Erkidegoan gero eta saldo defizitario handiagoa izatea, gizartea zahartzearen eta lan-merkatuaren eraldaketa sakonen testuinguruan. Hortaz, premiazkoa da Administrazioak eta gizarte eragileek eztabaidatzea eta gaia aintzat hartzea Pentsioen Sistema Publikoari eusteko beharrezko mekanismoak.

Bestalde, eta Sarrerak Bermatzeko Sistemari dagokionez, ohartarazi nahi dugu DBE jasotzen duten pertsonen ia %20k soldata-errenten osagarri gisa jasotzen duela. Osagarritasun horren xedea ondorio positiboa izatea da laneko jarduerari begira, horretarako prestutasunerako kaltegarria izan ez dadin, baita gizarte babesa kroniko ez bihurtzeari begira ere. Baina datu horrek, berez, beste honetaz ere ohartarazten gaitu: lanpostuaren eta norberaren eta familiaren ongizatearen arteko erlazioak bide okerreko bilakaera hartu duela, eta horrek gizarte eragileen lehentasunezko arreta eskatzen du.

Nolanahi ere, berriz esan nahi dugu enplegurako trantsitua indartu beharko litzatekeela sistemarentzat “lanerako moduan daudenen” alde. Hartara, gizarteratzea hobetuko da politika aktiboen bidez, zeren eta enplegua baita gizarte bazterketaren kontrako oinarria eta sistemaren iraunkortasunaren beraren sostengua.

Azkenik, eta mendetasunaren arreta dela eta, aurrerapenak izan dira sistema finkatzeko bidean, horien estaldura handituz eta erreferentziako adierazleak hobetuta hala nola itxaronzerrendak. Izan ere, balorazio positiboa merezi dute, baina horrek ez du estali behar diru-prestazioek beste zerbitzu batzuen aldean duten gehiegizko pisua beste urte batez, baita sektoreko profesionalek gure Erkidegoko sistemaren kalitateari buruz duten balorazio okerragoa ere.

Egoera hori ikusita, beharrezkotzat jotzen dugu gizarte babeseko sistema hobetzea, iraunkortasuna bermatzeko eta prestazioak gizarte errealitate eta behar berrietarako egokitzeko. Horrek erronka handiak dakartza berekin, gure ekonomiaren susperraldian eta, aldi berean, denbora eta ahaleginak egin beharko dira, baina premiazkoa da horiei ekitea.

ITURRIAK

1. **EUSTAT.** Gizarte Babesaren kontua EAEn. 2015. urtea. Urterokoa. Estrukturala.
2. **ENPLEGU ETA GIZARTE SEGURANTZAREN MINISTERIOA.** Lan-estatistikei buruzko Buletina. 2016. urtea. Hilerokoa. Koiunturala.
3. **GZEN. DATU-BASEA.** 2016ko abendua. Hilerokoa. Koiunturala.
4. **GZDN.** Urteroko memoriak. 2015. urtea. Urterokoa. Estrukturala.
5. **LANBIDE.** DBEren hileko txostena. 2016ko abendua. Hilerokoa. Koiunturala.
6. **EUSKO JAURLARITZA**. 2016ko Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta. Bi urterik behingoa. Estrukturala.
7. **LANBIDE**. Analisi, Azterlan eta Estatistika Zerbitzua. DBEren datuak Eusko Legebiltzarrarentzat. Unean unekoa.
8. **EUSKO JAURLARITZA. ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKEN SAILA**. "Gizarte bazterketaren kontrako borroka 2015". Urterokoa. Estrukturala.
9. **OSASUN, GIZARTE POLITIKA ETA BERDINTASUN MINISTERIOA**. Gizarteratzeko Gutxieneko Errentei buruzko txostena 2015. Urterokoa. Estrukturala.
10. **IMSERSO**. Autonomiarako eta Mendetasunaren Arretarako Sistemaren (AMAS) estatistika informazioa. 2016ko abenduaren 31ko datuak. Hiruhilekoa. Koiunturala.
11. **MENDETASUNAREN BEHATOKIA.** Behatokiaren XVII. Irizpena (2017ko otsaila). 2016ko abenduaren 31ko datuak. Hiruhilekoa. Koiunturala.
12. **EUSKO JAURLARITZA**. Ogasun eta Ekonomia Saila. BGAEren 2015eko oinarrizko datuak. Urterokoa. Estrukturala.
13. **EUSKO JAURLARTZIAREN ZERGAK KOORDINATZEKO ORGANOA**. 2014ko urteko txostena. Urterokoa. Estrukturala.

VI. KAPITULUA

Araugintza EAEn

EAErentzako Autonomia Estatutuaren abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoak azaltzen du EAEren eskumena dela gai jakin batzuetan legeria garatzea eta bere lurraldearen barruan estatuaren oinarrizko legeria betearaztea. Era berean, lege horrek adierazten du EAEko botereak Legebiltzarraren bidez, Eusko Jaurlaritzaren bidez eta lehendakariaren bidez gauzatuko direla, eta lurralde historikoek beren foru erakundeak estatutuan xedatutakoaren arabera edukiko eta antolatuko dituztela.

EAEko autogobernurako erakundeak indarrean sartzean, ezinbestekoa suertatu zen, Autonomia Estatutuan ezarritakoarekin bat etorriz, Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzaren antolaketari eta eskumenei buruzko legeak eta erakunde komunen eskumen maila eta lurralde historikoen eskumen maila arautzeko legeak onestea.

Eusko Jaurlaritzaren egitura, haren eskumenak eta Legebiltzarrarekin dituen harremanak finkatzeko helburuarekin, Gobernuari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legea onetsi zen. Besteak beste, legearen arabera, Gobernuak eskumen hauek ditu: legeak egiteko ekimena, lege proiektuak onetsiz eta Legebiltzarrari bidaliz; legegintzarako eskuordetzea, legegintzako dekretuen bidez; eta araudiak egiteko ahalmena, dekretuen eta aginduen bidez.

Gerora, Autonomia erkidegoko erakunde komunen eta bertako lurralde historikoetako foru organoen arteko harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legea aldarrikatu zen. Lege horrek Eusko Legebiltzarra izendatzen du lege maila duten arauak onesteko gaitasuna daukan erakunde bakar autonomi erkidego osoan, baldin eta lege horien gaia Autonomia Estatutuaren arabera autonomi erkidegoari badagokio eta estatutuan lege honek edo ondorengo legeek ez badiete gaia lurralde historikoetako foru organoei esleitzen. Tradizio historikoarekin bat etorriz, lurralde historikoetako foru organoak Batzar Nagusiak eta Foru Aldundiak dira.

Era berean, lurralde historikoetako eskumenak arautzen ditu. Ezartzen duenez, beraien bakarreko eskumenekoak diren gaietan lurralde historikoei dagokie arauak egiteko ahalmena, bakoitzaren Batzar Nagusien foru arauen bidez.

Legegintza Botereak eginiko araua da legea zentzu hertsian, hots, Parlamentuak eginikoa. Zenbait kasutan, oso espezifikoetan, gobernuak onetsitako lege lerruneko arauak onartzen dira: legegintza dekretuak (EEren 82.-85. artikuluak) eta lege dekretuak (EEren 86. artikulua).

Legegintzako ekimena, hau da, prozedura legegilea martxan jartzeko gaitasuna, honako hauek proposa dezakete:

- Legebiltzarreko taldeak, edo legebiltzarkide bat, beste lauren sinadura jasoz gero.
- Gobernua.
- Lurralde Historikoetako erakunde nagusiak.
- Legegintzarako herri ekimena, euskal herritarren 30.000 sinadura bilduta.

Ekimena Eusko Jaurlaritzarena denean “lege proiektua” izena jasotzen du; gainerakoetan, “lege proposamena” da.

Eusko Legebiltzarrak, legeak egiteko bere eginkizuna betez, 14 lege onetsi ditu, guztira, 2016an:

1- 1/2016 Legea, apirilaren 7koa, Adizioen eta Droga Mendekotasunaren gaineko Arreta Integralari buruzkoa.

2.- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Tokiko Erakundeei buruzkoa.

3.- 3/2016 Legea, apirilaren 7koa, zenbait klausula sozial kontratazio publikoan sartzeari buruzkoa.

4.- 4/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasa eta Prezio Publikoei buruzko Legearen testu bategina onartzeko 1/2007 Legegintzako Dekretuaren aldaketari buruzkoa.

5.- 5/2016 Legea, apirilaren 21ekoa, Larrialdiak Kudeatzeko Lege aldatu duena.

6.- 6/2016 Legea, maiatzaren 12koa, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzkoa (2014ko azaroaren 7ko D15/2014 Irizpena).

7.- 7/2016 Legea, ekainaren 2koa, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoaren Antolamenduari buruzkoa.

8.- 8/2016 Legea, ekainaren 2koa, Gobernuaren ekainaren 30eko 7/1981 Legea aldatu duena.

*9.- 9/2016 Legea, ekainaren 2koa, Euskadiko Fundazioei buruzkoa (*2015eko otsailaren 25eko D01/2015 Irizpena).

10.- 10/2016 Legea, ekainaren 30ekoa, Legegintzako Herri Ekimena arautzeari buruzkoa.

11.- 11/2016 Legea, uztailaren 8koa, bizitzaren amaierako prozesuan pertsonen eskubideak eta duintasuna ziurtatzeari buruzkoa.

12.- 12/2016 Legea, uztailaren 28koa, Euskal Autonomia Erkidegoan 1978 eta 1999 bitartean izandako motibazio politikoko indarkeria egoeran giza eskubideen urraketa jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta erreparazioa emateari buruzkoa.

13.- 13/2016 Legea, uztailaren 28koa Turismoari buruzkoa (2015eko irailaren 25eko D17/2015 Irizpena)

14/2016 Legea, abenduaren 22koa, Euskal Autonomia Erkidegoko 2016ko Aurrekontuak onartzen dituen Legea aldatzen duena

Bestalde, **Eusko Jaurlaritzak**, arauak emateko duen ahalmena erabiliz, 252 dekretu onetsi ditu, guztira, 2016. urtean.

Euskadiko EGABek, erakunde aholku-emailea den aldetik, zazpi irizpen eman ditu 2016ean:

- 1/16 Irizpena, "2016-2019 aldirako EAEko Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoari" buruzkoa.
- 2/2016 Irizpena, "prestakuntzako espezialitateen katalogoari eta prestakuntzako erakundeen erregistroen dekretu-proiektuari" buruzkoa.
- 3/16 Irizpena, "Euskadin enplegurako lanbide heziketa arautzeko dekretu-proiektuari" buruzkoa.
- 4/16 Irizpena, "gizarte larrialdietarako laguntzei buruzko dekretua aldatzen duen dekretuaren proiektuari" buruzkoa.
- 5/16 Irizpena, "EAEn izatezko bikoteen erregistroaren arautegia onartzeko dekretuaren proiektuari" buruzkoa.
- 6/16 Irizpena, "Enplegu Zentro Berezien EAEko Erregistroa sortu eta haien kalifikazioa eta inskripzioa arautzen dituen dekretuaren proiektuari" buruzkoa.
- 7/2016 Irizpena, Krisian dauden enpresak berregituratzeari eta horiei bultzada berria emateari bideratutako laguntzak ezartzen dituen uztailaren 29ko 158/2014 dekretuaren proiektuari" buruzkoa.

Ondoren, laburbilduta azalduko da **X. Legegintzaldiko** (2012-2016) **legegintzako plangintzaren gaineko balantzea,** betiere Eusko Jaurlaritzak onetsitako legegintzako egutegian aurreikusitako hasierako plangintza abiapuntu hartuta eta horren ondorengo garapenari behatuta. Plangintza hori 2016ko abuztuaren 2an (abuztuaren 1eko 23/2016 Dekretua, Lehendakariarena) Eusko Legebiltzarra deseginda bukatu zen, irailaren 25eko hauteskundeetarako deialdiak egiteko:

VI.1. TAULA. X LEGEGINTZALDIAREN BALANTZEA (2012-2016)

SAILA	AURREIKUSITAKO ARAUA	GOBERNU KONTSEILUA ONARPEN-DATA	LEGEBILTZARRA ONARPEN-DATA
HERRI ADMINISTRAZIOA ETA JUSTIZIA	Euskadiko Udalen Legea	2014/11/11	2/16 LEGEA (16/04/7)
	Euskadiko Fundazioen Legea	2915/07/7	9/16 LEGEA (16/06/2)
	Enplegu Publikoaren Legea	2015/12/22	ARIBIDEAN
	Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoa Antolatzeari buruzko Legea	2015/06/23	7/16 LEGEA (16/06/2)
	Euskal Administrazio Publikoaren Legea	BITAN DAGO BANATUTA: - Euskal Sektore Publikoaren Antolaketa eta Funtzionamenduari buruzko Legea: 2015/11/17 - Euskal Sektore Publikoaren Gardentasunaren, Herritarren Parte Hartzearen eta Gobernu onaren Legea: 2015/11/10	ARIBIDEAN ARIBIDEAN
EKONOMIAREN GARAPENA ETA LEHIAKORTASUNA	Merkataritza Jarduerari buruzko maiatzaren 27ko 27/1994 Legea hirugarrenez aldatzen duen Legea	2014/12/30	ARIBIDEAN
	Emakume Nekazarien Estatutuaren Legea	2014/11/4	8/15 LEGEA (15/10/15)
	Turismoari buruzko Legea	2016/02/9	13/16 LEGEA (16/07/28)
LAN ETA GIZARTE POLITIKAK	Euskadiko Kooperatiben Legea.	2016/06/24	ARIBIDEAN
	Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Legea	2015/02/03	6/16 LEGEA (16/05/12)
	Enpleguari buruzko Legea	EUSKO JAURLARITZAK KENDUTA (16/02/2)	
OGASUNA ETA FINANTZAK	2014-2017ko Estatistikaren Euskal Planaren Legea	2013/12/10	3/2014 LEGEA (14/11/13)
	Baliabideen banaketarako eta Foru Aldundiek EAEko Aurrekontu	1978-1999 bitartean giza eskubideen urraketen biktimen	12/16 LEGEA (16/07/28)

	Orokorren finantzazioari egin beharreko ekarpenak ezartzeko Metodologiaren Legea, 2014-18 epealdian aplikatu beharrekoa.	errekonozimenduari eta erreparazioari buruzko Lege Proiektuaren ordez jarrita… 2016/04/26	
	EAEko Aurrezki Kutxei buruzko ekainaren 14ko 11/2012 Legea aldatu duen Legea	Euskadiko Aurrezki Kutxa eta Banku Fundazioei buruzko Legea 2017/07/27	ARIBIDEAN
	Diru-laguntzen eta laguntzen legea.	2016/04/12	ARIBIDEAN
	Maiatzaren 24ko 1/2011 Legegintza Dekretua aldatu duen Legea	Herri Administrazioen energia-iraunkortasunaren proiektu legearen ordez jarria 2016/07/19	ARIBIDEAN
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA	EAEko Kultur Ondarearen Legea	2016/04/19	ARIBIDEAN
	Euskadiko dokumentuen eta artxiboen Legea	2016/02/9	ARIBIDEAN
	EAEko Kiroleko profesionalen jardunari buruzko Legea	2016/02/23	ARIBIDEAN
	Kirolean dopatzearen kontrako Legea aldatu duen Legea	2016/01/26	ARIBIDEAN
	EAEko Lanbide Heziketaren Legea	2015/12/29	ARIBIDEAN
SEGURTASUNA	Larrialdiak Kudeatzeko Legea aldatu duen Legea	2014/07/8	5/16 LEGEA (16/04/21)
	Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeei buruzko Legea aldatzen duen Legea	2014/05/13	11/15 LEGEA (15/12/23)
	Ikuskizun publikoen eta jolas jardueren Legea	2014/07/1	10/15 LEGEA (15/12/23)
	Prebentzio eta suteak itzaltzeko eta salbamendurako zerbitzuak arautzeari buruzko Legea	2015/07/27	ARIBIDEAN
	EAEko Poliziaren Legea	2016/04/26	ARIBIDEAN
OSASUNA	Adizioen eta Droga-mendekotasunaren Legea	2014/12/9	1/16 LEGEA (16/04/7)
INGURUMENA	Lurzorua ez kutsatzeari eta kutsatutakoa garbitzeari buruzko Legea, 1/2005 Legea ordezten duena (1. seihilekoa)	2014/05/6	4/15 LEGEA (15/06/25)
	Portuen Euskal Autonomia Erkidegoko Legea	2015/11/12	ARIBIDEAN
	EAEko Ingurumena Babesteko Lege Orokorra, 3/1998 Legea ordezten duena	EUSKO JAURLARITZAK KENDUTA (16/02/2)	

Iturria: Geuk egina, legegintza egutegia eguneratu eta 2016ko seihilekoen jarraipenerako dokumentuaz (2016/07/27) eta Euskal Herriko Aldizkari Ofizialaren (EHAO) dokumentuaz jabetzeko Gobernu Kontseiluaren erabakia oinarri hartuta.

Laburbilduz, legegintzaldi honetarako aurreikusitako 30 legeetatik, legegintzaldia bukatzean, 13 Eusko Legebiltzarrak onetsi ditu, 15 Eusko Legebiltzarrean sartu dira eta ez dira onetsi eta 2 Eusko Jaurlaritzak kendu ditu. Halaber, beste 2 lege legegintzako egutegian sartu ziren 2016an, eta urte berean onetsi Gobernu Kontseiluan.

Lurralde Historikoen Batzar Nagusiei dagokienez, hauxe izan da haien araugintza 2016an, onetsitako foru arauak oinarri hartuta: Araban 19 foru araua onetsi ziren, 2015ean moduan; Gipuzkoan, berriz, 8 arau onetsi ziren, 2015ean berretsitakoak baino 4 gehiago; eta Bizkaian 7 arau onetsi ziren 2016an, aurreko urtean baino pixka bat gehiago (5 izan ziren orduan).

VI.1. GRAFIKOA. LURRALDE HISTORIKOETAKO BATZAR NAGUSIEK ONARTUTAKO FORU ARAUAK. 2012-2016



Iturria: Geuk egina, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako Lurralde Historikoetako aldizkari ofizialak oinarri hartuta.

VI.2. GRAFIKOA. EUSKO LEGEBILTZARRAREN ETA EUSKO JAURLARITZAREN ARAUGINTZA, 2012 ETA 2016 BITARTEAN



Iturria: Geuk egina, EHAO oinarri hartuta.

DEFINIZIOEN GLOSARIOA

EKOIZPEN-SEKTOREAK

- EJSNek lau mailatan egituratzen ditu (atalak, multzoak, taldeak eta klaseak)

	EJSN 93	EJSN 99
Atalak (kode alfabetikoa)	17 atal	21 atal
Multzoak (bi digitudun zenbakizko kodea)	60 multzo	88 multzo
Taldeak (3 digitudun zenbakizko kodea)	222 talde	272 talde
Klaseak (4 digitudun zenbakizko kodea)	512 klase	629 klase

Ondoren, ESJN 2009 azalduko da multzoen araberako kategorizazioraino

A	**Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza**
01	Nekazaritza, abeltzaintza, ehiza eta horiekin loturiko zerbitzuak
02	Basogintza eta basoko ustiapena
03	Arrantza eta akuikultura
B	**Erauzketa-industriak**
05	Antrazita, harrikatz eta lignitoaren erauzketa
06	Petrolioaren eta gas naturalaren erauzketa
07	Metal mineralen erauzketa
08	Beste erauzketa-industria batzuk
09	Erauzketa-industriak sustengatzeko jarduerak
C	**Manufaktura-industria**
10	Elikagaien industria
11	Edarien fabrikazioa
12	Tabakoaren industria
13	Ehungintza
14	Jantzigintza
15	Larrugintza eta oinetakoen industria
16	Zuraren eta kortxoaren industria, altzariak izan ezik; otzaragintza eta espartzugintza
17	Paperaren industria
18	Arte grafikoak eta euskarri grabatuen erreprodukzioa
19	Kokea eta petrolioaren fintzea
20	Industria kimikoa
21	Produktu farmazeutikoen fabrikazioa
22	Kautxuzko eta plastikozko produktuen fabrikazioa
23	Metalezkoak ez diren beste produktu mineral batzuen fabrikazioa
24	Metalurgia; burdina, altzairu eta burdina-aleazioen fabrikazioa
25	Metalezko produktuen fabrikazioa, makineria eta ekipamendua izan ezik
26	Produktu informatikoen, elektrikoen eta optikoen fabrikazioa
27	Material eta ekipamendu elektrikoen fabrikazioa
28	n.c.o.p. makineriaren eta ekipamenduaren fabrikazioa
29	Motordun ibilgailuen, atoien eta erdi-atoien fabrikazioa
30	Beste garraio material batzuen fabrikazioa
31	Altzarien fabrikazioa

32	Beste manufaktura-industria batzuk
33	Makineriaren eta ekipamenduen konponketa eta instalazioa
D	**Energia elektrikoaren, gasaren, lurrunaren eta aire egokituaren hornidura**
35	Energia elektrikoaren, gasaren, lurrunaren eta aire egokituaren hornidura
E	**Uraren hornidura, saneamendu jarduerak, hondakinen kudeaketa eta kutsadura kentzea**
36	Ura batzea, araztea eta banatzea
37	Hondakin-uren bilketa eta trataera
38	Hondakinak biltzea, tratatzea eta desagerraraztea; balorizazioa
39	Kutsadura kentzeko jarduerak eta hondakinak kudeatzeko beste zerbitzu batzuk
F	**Eraikuntza**
41	Eraikinen eraikuntza
42	Ingeniaritza zibila
43	Eraikuntza espezializatuko jarduerak
G	**Handizkako eta txikizkako merkataritza; motordun ibilgailuen eta motozikleten konponketa**
45	Motordun ibilgailuen eta motozikleten salmenta eta konponketa
46	Handizkako merkataritza eta merkataritzako bitartekariak, motordun ibilgailuenak eta motozikletenak izan ezik
47	Txikizkako merkataritza, motordun ibilgailuenak eta motozikletenak izan ezik
H	**Garraioa eta biltegiratzea**
49	Aireko eta hodietako garraioa
50	Itsasoko eta barne-bide nabigagarrietako garraioa
51	Aireko garraioa
52	Garraioarekin loturiko jarduerak eta biltegiratzea
53	Postako jarduerak
I	**Ostalaritza**
55	Ostatua emateko zerbitzuak
56	Janari eta edari zerbitzuak
J	**Informazioa eta komunikazioak**
58	Edizioa
59	Zinematografia, bideo eta telebista programetako jarduerak eta soinu-grabaketako eta musika-edizioko jarduerak
60	Irrati eta telebistako programazio eta emisio jarduerak
61	Telekomunikazioak
62	Programazioa, aholkularitza eta informatikarekin loturiko beste jarduera batzuk
63	Informazio zerbitzuak
K	**Finantzen eta aseguruen arloko jarduerak**
64	Finantza zerbitzuak, aseguruak eta pentsio-fondoak izan ezik

65	Aseguruak, berraseguruak eta pentsio-fondoak, nahitaezko Gizarte Segurantza izan ezik
66	Finantzen eta aseguruen arloko zerbitzuen jarduera osagarriak
L	**Higiezinen arloko jarduerak**
68	Higiezinen arloko jarduerak
M	**Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak**
69	Lege eta kontabilitatearen arloko jarduerak
70	Egoitza nagusien jarduerak; enpresa kudeatzeko aholkularitza jarduerak
71	Arkitektura eta ingeniaritza zerbitzu teknikoak; entsegu eta analisi teknikoak
72	Ikerketa eta garapena
73	Publizitatea eta merkatuko azterlanak
74	Bestelako jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak
75	Albaitaritza jarduerak
N	**Administrazio jarduerak eta zerbitzu osagarriak**
77	Alokairu jarduera
78	Enpleguarekin loturiko jarduerak
79	Bidaia agentzien, turismo operadoreen eta erreserba zerbitzuen jarduerak eta horiekin loturiko jarduerak
80	Segurtasun eta ikerketa jarduerak
81	Eraikin eta lorezaintzarako zerbitzuak
82	Bulegoko administrazio jarduerak eta enpresentzako bestelako jarduera osagarriak
O	**Administrazio publikoa eta defentsa; nahitaezko Gizarte Segurantza**
84	Administrazio publikoa eta defentsa; nahitaezko Gizarte Segurantza
P	**Hezkuntza**
85	Hezkuntza
Q	**Osasun jarduerak eta gizarte zerbitzuetakoak**
86	Osasun jarduerak
87	Egoitzetako laguntza
88	Ostaturik gabeko gizarte zerbitzuetako jarduerak
R	**Arte, jolas eta aisialdi jarduerak**
90	Sorkuntza eta arte jarduerak eta ikuskizunak
91	Liburutegi, artxibo eta museo jarduerak eta bestelako kultur jarduerak
92	Ausazko jokoen eta apustuen jarduerak
93	Kirol, jolas eta entretenimendu jarduerak
S	**Beste zerbitzu batzuk**
94	Elkartegintzako jarduerak
95	Ordenagailuen, norberaren gauzen eta etxean erabiltzeko tresnen konponketa
96	Norberaren beste zerbitzu batzuk

T	**Etxeetako jarduerak etxeko langileen enplegatzaile gisa; etxeko jarduerak norberaren erabilerarako ondasunen eta zerbitzuen ekoizle gisa**
97	Etxeko jarduerak etxeko langileen enplegatzaile gisa
U	**Lurraldez kanpoko erakundeen jarduerak**
99	Lurraldez kanpoko erakundeen jarduerak

- **EUSTAT-EN INKESTA INDUSTRIALA**

  EJSN 2009aren arabera, **atal** hauek biltzen ditu:
  - B: Ateratze-industriak
  - C: Manufaktura-industria
  - D: Energia elektrikoaren, gasaren, lurrunaren eta aire egokituaren hornidura
  - E: Ur-hornidura, saneamendu jarduerak eta hondakinen kudeaketa

  Hala ere, bere sailkapena du, EJSNrekiko baliokidetasunak ezartzen badira ere.

SEKTOREKAKO SAILKAPENA (A3, A6, A17, A31, A60, A84)

A3	A6	A17	A31	A60	A84	IZEN LABURTUA / DENOMINACIÓN ABREVIADA	
	1					Agropesquero	Nekazaritza eta arrantza
		1	1			Agropecuario	Nekazaritza eta abeltzaintza
				1		Agricultura y ganadería	Nekazaritza eta abeltzaintza
					1	Agricultura	Nekazaritza
					2	Ganadería	Abeltzaintza
				2	3	Selvicultura	Basogintza
		2	2			Pesca y acuicultura	Arrantza eta akuikultura
1				3	4	Pesca y acuicultura	Arrantza eta akuikultura
						Industria y construcción	Industria eta eraikuntza
	2					Industria	Industria
		3				Industrias extractivas	Ateratze-industriak
			3			Extracción de petróleo y gas	Petrolioa eta gasa ateratzea
				4	5	Carbones	Ikatzak
				5	6	Extracción de petróleo y gas	Petrolioa eta gasa ateratzea
				6	7	Extracción de uranio	Uranioa ateratzea
			4			Min. metálicos y no metálicos	Metalezko eta ez-metalezko meak
				7	8	Minerales metálicos	Metalezko meak
				8	9	Minerales no metálicos	Ez-metalezko meak
		4				Industria manufacturera	Manufaktura-industria
			5			Industria de la alimentación	Elikagai-industria
				9		Industria de la alimentación	Elikagai-industria
					10	Industrias cárnicas	Okela-industriak
					11	Industrias lácteas	Esne-industriak
					12	Conservas de pescado	Arrain-kontserbak
					13	Pan y molinería	Ogia eta errotaritza
					14	Otras alimenticias	Bestelako elikagai-industriak
					15	Bebidas	Edariak
				10	16	Industria del tabaco	Tabakoaren industria
			6			Textil y confección	Ehungintza eta jantzigintza
				11	17	Industria textil	Ehunaren industria
				12	18	Confección y peletería	Jantzigintza eta larrugintza
			7			Industria del cuero y calzado	Larruaren eta oinetakoen ind.
				13	19	Industria del cuero y calzado	Larruaren eta oinetakoen ind.
			8			Industria de la madera	Zurgintza
				14	20	Industria de la madera	Zurgintza
			9			Papel, edición y gráficas	Papera, argitalpena eta grafikoak
				15	21	Industria del papel	Papergintza
				16	22	Edición y artes gráficas	Argitalpena eta arte grafikoak
			10			Refino de petróleo	Petrolioa fintzea
				17	23	Refino de petróleo	Petrolioa fintzea
			11			Industria química	Kimika-industria
				18		Industria química	Kimika-industria
					24	Química básica	Oinarrizko kimika
					25	Química industrial	Industri kimika
					26	Química final	Azken kimika
2			12			Caucho y plástico	Kautxua eta plastikoak

				19		Caucho y plástico	Kautxua eta plastikoak
					27	Caucho y neumáticos	Kautxua eta pneumatikoak
					28	Artículos de plástico	Plastikozko artikuluak
			13			Industria no metálica	Ez-metalezko industria
				20		Industria no metálica	Ez-metalezko industria
					29	Industria del vidrio	Beiragintza
					30	Cemento, cal y yeso	Zementua, karea eta igeltsua
					31	Otras no metálicas	Bestelako ez-metalezkoak
			14			Metalurgia y artíc. metálicos	Metalgintza eta metalezko artik.
				21		Metalurgia	Metalgintza
					32	Siderurgia	Altzairugintza
					33	Metalurgia no férrea	Ez-burdinazko metalgintza
					34	Fundición	Galdategiak
				22		Artículos metálicos	Metalezko artikuluak
					35	Construcción metálica	Metalezko eraikuntza
					36	Forja y estampación	Forja eta estanpazioa
					37	Ingeniería mecánica	Ingeniaritza mekanikoa
					38	Artículos metálicos	Metalezko artikuluak
			15			Maquinaria	Makineria
				23		Maquinaria	Makineria
					39	Máquina-herramienta	Makina erreminta
					40	Aparatos domésticos	Etxeko aparatuak
					41	Otra maquinaria	Bestelako makineria
			16			Material eléctrico	Material elektrikoa
				24	42	Maq. oficina y eq. informático	Bulego-mak. eta informatika-tres.
				25	43	Material eléctrico	Material elektrikoa
				26	44	Material electrónico	Material elektronikoa
				27	45	Material de precisión	Doitasun handiko materiala
			17			Material de transporte	Garraio-materiala
				28	46	Automóviles y sus piezas	Automobilak eta horien piezak
				29		Otro material de transporte	Bestelako garraio-materiala
					47	Construcción naval	Ontzigintza
					48	Otro material de transporte	Bestelako garraio-materiala
			18			Otras manufactureras	Bestelako manufaktura-ind.
				30		Fabricación de muebles	Altzarigintza
					49	Fabricación de muebles	Altzarigintza
					50	Otras manufactureras	Bestelako manufaktura-ind.
				31	51	Reciclaje	Birziklatzea
	5	19				Energía eléctrica, gas y agua	Energia elektrikoa, gasa eta ura
				32		Energía eléctrica y gas	Energia elektrikoa eta gasa
					52	Energía eléctrica	Energia elektrikoa
					53	Gas y vapor de agua	Gasa eta ur-lurruna
				33	54	Agua	Ura
3	6	20				Construcción	Eraikuntza
				34	55	Construcción	Eraikuntza
						Servicios	Zerbitzuak
4						Comercio, hostelería y transp.	Merkataritza, ostalaritza eta garra.
	7	21				Comercio y reparación	Merkataritza eta konponketa
				35	56	Venta y reparación automóviles	Automobilak saldu eta konpontzea
				36	57	Comercio al por mayor	Handizkako merkataritza
				37	58	Comercio al por menor	Txikizkako merkataritza
	8	22				Hostelería	Ostalaritza
				38	59	Hostelería	Ostalaritza
	9	23				Transporte y comunicaciones	Garraioa eta komunikazioak
				39		Transporte terrestre	Lehorreko garraioa
					60	Transporte ferroviario	Burdinbide-garraioa
					61	T. mercancías carretera	Errepidezko zama-garraioa
					62	Otro transporte terrestre	Lehorreko bestelako garraioa
				40	63	Transporte marítimo	Itsasoko garraioa
				41	64	Transporte aéreo	Aireko garraioa
				42	65	Anexos al transporte	Garraioari erantsiak
				43	66	Comunicaciones	Komunikazioak
5						Banca, seguros y ser. Empresas	Bankuak, aseguruak eta enp.-zer.
	10	24				Banca y seguros	Bankuak eta aseguruak
				44	67	Banca	Bankuak
				45	68	Seguros	Aseguruak
3				46	69	Auxiliares financieros	Finantza-laguntzaileak

	11	25			Servicios a empresas	Enpresentzako zerbitzuak
			47	70	Actividades inmobiliarias	Onibar-jarduerak
			48	71	Alquiler de maquinaria	Makineria alokatzea
			49	72	Actividades informáticas	Informatika-jarduerak
			50	73	Investigación y desarrollo	Ikerketa eta garapena
			51	74	Otras actividades empresariales	Enpresen bestelako jarduerak
6					Otras actividades de servicios	Bestelako zerbitzu-jarduerak
	12	26			Administración Pública	Herri-administrazioa
			52	75	Administración Pública	Herri-administrazioa
	13	27			Educación	Hezkuntza
			53	76	Educación	Hezkuntza
	14	28			Sanidad y servicios sociales	Osasuna eta gizarte-zerbitzuak
			54		Sanidad y servicios sociales	Osasuna eta gizarte-zerbitzuak
				77	Sanidad	Osasuna
				78	Servicios sociales	Gizarte-zerbitzuak
	15	29			Servicios personales	Gizabanakoentzako zerbitzuak
			55	79	Saneamiento público	Guztiontzako saneamendua
			56	80	Actividades asociativas	Elkarte-jarduerak
			57	81	Act. recreativas y culturales	Jolas- eta kultur jarduerak
			58	82	Servicios personales	Gizabanakoentzako zerbitzuak
	16	30			Servicio doméstico	Etxeko zerbitzua
			59	83	Servicio doméstico	Etxeko zerbitzua
	17	31	60		Organismos extraterritoriales	Lurraldez kanpoko erakundeak
				84	Organismos extraterritoriales	Lurraldez kanpoko erakundeak

ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZA

- Enpresa berritzailea izango da inkestan kontuan hartutako tartean berrikuntzaren bat sartu duen enpresa.

- Berrikuntzatzat hartuko da produktu (edo zerbitzu) berria nahiz zeharo hobetua, prozesu berria, komertzializazio-metodo berria edo antolakuntza-metodo berria sartzea enpresaren barne-praktiketan, lantokiaren antolakuntzan edo kanpoko harremanetan. Berrikuntza guztien ezaugarri komuna zera izango da, aldaketa horiek dagoeneko sartuta egon beharko direla enpresaren lanean, hau da, merkatura atereak.

  Definizio hori kontuan hartuta, bi berrikuntza mota bereiz daitezke: berrikuntza teknologikoa eta berrikuntza ez teknologikoak. Berrikuntza teknologikoa produktu bat (ondasun bat edo zerbitzu bat, berria edo nabarmenki hobetua denean eta merkatuan sartuta dagoenean) edo prozesu bat (establezimenduan bertan prozesu berria edo nabarmenki hobetua ezartzea) izan daiteke, eta berrikuntza ez teknologikoak antolakuntzaren edo komertzializatzeko moduaren berrikuntzek osatzen dituzte.

- Jarduera berritzaileak dituen enpresa inkestan aztertutako urteetan berrikuntza-jarduerak garatu dituen enpresa da, abian diren berrikuntzak eta bertan behera utzitako berrikuntzak dituzten enpresak barne.

- Europako Berrikuntza Adierazleen Panel berria etengabe berrikusten den adierazle-panela da, berau osatzen duten adierazleei eta kalkulua egiteko formulari dagokienez nahiz urtero herrialdeen daturik eguneratuenak sartzen direlako. Horren ondorioz, seriea osoa kalkulatu beharra dago berriz.

  2015eko Europako Berrikuntza Adierazleen Panel berria herrialdeen ekonomiek berrikuntza-jarduerak egiteko zenbaterainoko gaitasuna duten eta zenbateraino garatzen dituzten neurtzen saiatzen da.

  Panela hiru multzo nagusitan dago egituratuta, eta multzo horietan 8 dimentsio eta 25 adierazle daude.

BLOKEAK	DIMENTSIOAK	ADIERAZLEAK
BIDERATZAILEAK	**Giza baliabideak**	• Doktore graduatu berriak (‰, 25-34 urtekoen taldea) • Hezkuntza tertziarioa duten 30-34 urteko biztanleen portzentajea • Gutxienez goi-mailako bigarren hezkuntza gainditu duten 20-24 urteko gazteen portzentajea
	Ikerketa sistema	• Nazioarteko baterako argitalpen zientifikoak milioi bat biztanleko • Nazioarte mailan gehien aipatu diren Top-%10 argitalpenen artean zientifikoak diren argitalpenak herrialdeko argitalpen guztien % gisa • EBtik kanpoko doktoreak herrialdeko doktore guztien % gisa
	Finantzaketa eta laguntza	• I+G-ko gastu publikoa BPGd-ren % gisa • Arrisku-kapitala BPGd-ren % gisa
ENPRESA JARDUERAK	**Enpresa inbertsioa**	• I+G-ko gastua BPGd-ren % gisa • I+G-koa ez den berrikuntzako gastua negozio zifra osoaren % gisa
	Enpresa ekimeneko loturak	• Barne berrikuntza duten ETEak ETEen % gisa • Beste batzuekin elkarlanean diharduten ETE berritzaileak ETEen % gisa • Baterako argitalpen publiko-pribatuak milioi bat biztanleko
	Aktibo intelektualak	• PCT patenteen eskabideak BPGd-ko bilioi bakoitzeko (EAP eurotan) • Gizarte erronken PCT patenteen eskabideak BPGd-ko bilioiko (EAP eurotan) • EBren marka komertzialak BPGd-ko bilioi bakoitzeko (EAP eurotan) • EBren diseinuak BPGd-ko bilioi bakoitzeko (EAP eurotan)
OUTPUT-AK	**Berritzaileak**	• Produktu edo prozesuko ETE berritzaileak ETEn % gisa • Marketin edo antolamenduko ETE berritzaileak ETEen % gisa • Hazkunde handiko enpresa berritzaileak
	Ondorio ekonomikoak	• Jakintza intentsiboko jardueretako enplegua guztizko enpleguaren % gisa • Teknologia ertain eta altuko produktuen esportazioak produktuen esportazio guztien % gisa • Jakintza maila handiko zerbitzuen esportazioak esportazio guztien % gisa • Merkatu eta enpresarako produktu berrien salmentak negozio zifraren % gisa • Lizentzien eta patenteen ondoriozko atzerriko sarrerak BPGd-ren % gisa

LAN-MERKATUA

PRA (EUSTAT), EPA (INE) ETA LFS-i (EUROSTAT) BURUZKO DEFINIZIOAK

- Lanaren Nazioarteko Erakundearen arabera (LNE), ondasunak eta zerbitzuak ekoizteko lana egiten duten pertsona guztiak dira, eta une honetan lanik ez dutenak, lan bila ari direnak eta lanean hasteko prest daudenak. LNE Populazio Landunarekin eta LNE Populazio Langabetuarekin dago osatuta.

- Jardunean ez den biztanleria LNE. LNEren arabera, Populazio Aktiboa ez den populazioa da. Talde hauetan sailkatzen dira: Etxeko lanak egiten dutenak, ikasten ari direnak, erretiroan daudenak, pentsiodunak, errenta dutenak eta ezinduak.

- Landun biztanleria LNE. Ordaindutako lana duten, aparteko jarduera egiten duten eta lanean ari diren pertsona guztiek osatzen dute landunen populazioa, edo bestela, lanarekin lotura formala dutenak, edo opor, gaixotasun, laneko gatazka, gorabehera tekniko, eta abar direla eta lanean ez daudenak.

- Langabetuak LNE. LNEren arabera, soldatapeko lanik edo lan independenterik ez dutenak dira, egun lan bila ari direnak eta lan egiteko prest daudenak.

  2002. urteaz gero, aldatu egin da definizio hori egingarri egiteko era, Europar Batzordearen 1897/2000 Araudiari jarraiki. Urte hartatik hona, langabetzat hartzen dira, aurreko baldintzak betetzeaz gain, aurreko lau asteetan araudi horretan aktibotzat jotako lan-bilaketarako kudeaketaren bat egiten duten pertsonak. Ez da bilaketa aktibotzat jotzen lan eskaera berritzeko izapidea edo prestakuntza ikastaroak direla-eta enplegu bulego publikoarekin kontaktatzea.

- Jarduera-tasa. Talde baten jarduera-tasa populazio aktiboaren barruan dauden talde horretako pertsonen proportzioa da.

  16 urtekoen eta gehiagokoen gainean (urteak eginak) kalkulatzen dira P.R.A.n.

$$\text{Jarduera-tasa} = \frac{\sum \text{aktiboak}}{\text{16 urte eta gehiagokoak}} \times 100$$

- Okupazio-tasa LNE. Talde bateko okupazio-tasa adin horretako guztizko populazioaren gaineko pertsona landunen proportzioa da.
  - Bi adin-talderako kalkulatu ohi da tasa hori P.R.A.n.
    Lehenik eta behin, 16-64 urte bitartekoen (urteak eginak) populazioaren gainean kalkulaturiko okupazio-tasa eskaintzen du web orriak bere tauletan, halako moldez non Eurostatek darabilen definizioarekin alderatu daitekeen.

$$\text{Okupazio-tasa} = \frac{\sum \text{landunak}}{\text{16 – 64 urtekoak}} \times 100$$

    Bigarrenik, Datuen Bankuak 16 urte eta gehiagokoen (urteak eginak) gainean kalkulaturiko okupazio-tasa eskaintzen du.

$$\text{Okupazio-tasa} = \frac{\sum \text{landunak}}{\text{16 urte eta gehiagokoak}} \times 100$$

  - Alabaina, Europa 2020 helburuari begira, 20-64 urtekoen tartea da.
- Langabezia-tasa. Langabezian daudenen talde horretako pertsona aktiboen proportzioari deritzo talde jakin bateko langabezia-tasa.

  P.R.A.n, 16 urte (urteak beteta) eta gehiagokoen gainean kalkulatzen dira:

$$\text{Langabezia-tasa} = \frac{\sum \text{langabeak}}{\text{aktiboak}} \times 100$$

LAN-KOSTUEI BURUZKO HIRUHILEKO INKESTA (INE): LAN EGINDAKO DENBORA ETA LAN EGIN GABEKO DENBORA

1. Lan egindako orduak

- Benetan lan egindako orduak: Egiaz lan egindako orduak dira, laneko ohiko aldietan nahiz aparteko lanaldian, lantokiak galdutako orduak barne; egiazko denbora da indarreko araudia dela bide.Hitzartutako orduen (hitzarmenen, hitzezko akordioaren edo banako kontratuaren bidez ezarritakoak) eta aparteko orduen edota ordu osagarrien batura da, ken lan egin gabeko orduak (horietatik aparte gelditzen dira lantokian galdutako orduak, benetan lan egindako ordutzat hartzen baitira). Laburbilduz, lan egindako orduak dira (ohiko lanaldian edo apartekoan) ken lan egin gabeko orduak.
- Lanaldi itundua: langilearen eta enpresaren artean ahozko akordioaren, banako kontratuaren edo hitzarmen kolektiboaren bidez legez ezarritako orduak dira.
- Aparteko orduak: itundutako lanalditik gorako orduak dira, nahitaez egin beharrekoak (aparteko ordu estrukturalak) edo borondatezkoak (estrukturalak ez diren aparteko orduak).
- Ordu osagarriak: lanaldi partzialeko kontratuan itundutako orduak dira ohiko orduen osagarri gisa. Ohiko ordu gisa ordaintzen eta kotizatzen dira.

2. Lan egin gabeko orduak

2.1. Lan egin gabeko orduak eta ordainduak. Arrazoi hauengatik lan egin gabeko orduak sartzen dira:

- Oporraldiak eta hilean izandako jaiegunak.

- Aldi baterako ezintasun bajako egunak.

- Amatasun, adopzio eta norberaren arrazoiengatiko baimen egunak.

- Aparteko orduengatiko konpentsazioan emandako atsedenaldiak.

- Ordezkaritza sindikaleko orduak, ezinbesteko betebeharra betetzekoak eta azterketetara eta medikuaren bisitetara joatea, besteak beste.

- Arrazoi teknikoak, antolakuntzakoak edo ekoizpenekoak direla-eta lan egin gabeko orduak edo egunak dira: langileak zerbitzua emateari edo ondasunak ekoizteari aldi batez uztea (etenaldi egunak) edo lanaldi murrizketak (murrizpen orduak), enpresen krisialdiak gainditzeko xedearekin.

- Lantokian galdutako orduak: ez langileari ez enpresaburuari ezin egotz dakizkiokeen arrazoiengatik lan egin gabeko orduak dira, adibidez lanera lantzean behin ez azaltzea, makinak haustea, lehengairik eza, ezbehar atmosferikoak, mugimendu-indarra edo bestelako ezinbesteko kausak. Lan egin gabeko orduok berreskuratzea ahalbidetzen du legeak, egunean ordu bat lan eginda, aurretik jakinarazpena egin bada eta kontrako akordiorik ez badago. Berreskuratu gabeko orduak baizik ez dira biltzen osagai honetan eta, beraz, benetan lan egin gabeko ordutzat har daitezke.

2.2. Lan egin gabeko eta ordaindu gabeko orduak. Hauexek sartzen dira:

- Lan-gatazka: Grebengatik galdutako guztizko ordu kopurua da, greben toki, sektore edo enpresa eremukoak diren edo greba osoak edo partzialak diren aintzat hartu gabe. Ez da zenbatzen ondoren berreskuraturiko denbora.

–Absentismoa; legezko zaintza; ugazaben itxiera.

Ugazaben itxieran, enpresaburuak lantokia ixten du talde-gatazkagatik, indarkeria edo kalte arriskuak daudenean, lantokia legez kanpo hartzen denean edo ekoizpenaren ohiko prozesua galarazten duten irregulartasunak direnean.

Legezko zaintza lanaldi murrizketa da berau eskatzen duten langileentzat, bere zaintzape zuzenean 6 urtetik beherako adingabea edo lanik egiten ez duen ezindu fisikoa edo psikikoa duelako.

HEZKUNTZA

- Lanbide heziketa.

  Lanarekin eta lan-merkatuarekin lotuago dauden ikasketen multzoa da Lanbide Heziketa, eta gaur egun, pertsonaren bizitza aktiboan gauzaturiko prozesutzat hartzen da. Izan ere, Lanbide Heziketa da eskolarako adinean dauden gazteentzako berezko “heziketa arautua” nahiz lanean ari diren langileentzako “enplegurako prestakuntza” edo lanbide “gaitasunaren aintzatespena”.

  Honelaxe dago antolaturik hezkuntza sistemako Lanbide Heziketako irakaskuntza: Hasierako lanbide prestakuntzako programen (HLPP) lanbide modulu espezifikoak, gradu ertaineko prestakuntza zikloak, goi mailako graduko prestakuntza zikloak eta, etorkizunean, espezializazio ikastaroak.

Lan-merkatuan arrakasta nabarmena duten 140 titulazio biltzen ditu Lanbide Heziketak. Tituluak 26 edo ARLOtan sailkatzen edo taldekatzen dira. ARLO bakoitzak eremu teknologiko ekonomikoa dakar, arloko zikloak partekatuta. 26 lanbide arlo bakoitzean, maila ertaineko eta goi-mailako prestakuntza zikloak daude, TEKNIKARI eta GOI-MAILAKO TEKNIKARI titulua ematen dutenak, hurrenez hurren.

GIZARTE BABESA

- **Adin-bereizkeria.**
  Adin-bereizkeria, ingelesezko "ageism" ere deritzona (aldi berean, Europar Batasunak «edaismo» itzuli du termino hori) adinaren ziozko pertsonen estereotipifikazioa eta diskriminazioa da. Pertsonak adinaren arabera diskriminatzea zuritzeko sinesmenak, arauak eta balioak biltzen ditu.

- **Gizarte Babesko kontua**[1].
  SEEPROS Eskuliburuaren arabera, Gizarte Babesaren kontzeptuan ezarritako zenbait arrisku edo behar izateak familientzat eta norbanakoentzat dakarren zama arintzeko erakunde publikoek edo pribatuak egin dituzten jarduketa guztiak biltzen dira, betiere aldi baterako, elkarrekiko edo banakako akordiorik ez badago". Banakako akordiorik ez izateak berekin dakar arriskuaren estaldura, kontingentzia edo beharra taldeka egitea, eta horrek alde batera uzten ditu banakoen, partikularren edo familien ekimenetatik eratorritako gastuak, soilik haien alde hartuak. Hortaz, Gizarte Babesaren definizio zabala da.
  Gizarte babesaren arloko estatistika horien aurrean, hala nola Lanaren Nazioarteko Bulegoarena esaterako (soilik Gizarte Segurantzako Sistemen barruko erakundeek buruturiko ekintzak sartzen ditu soilik), **SEEPROS metodologian,** definizio orokorreko beharkizunen arabera gizarte babeserako ekintzak burutzen dituen edozein erakunde publikori nahiz pribaturi aplika dakioke behaketaren arloa.
  Hona hemen gizarte babesaren kontzeptuaren barruko estaldura duten **kontingentziak**:

  •**Gaixotasuna / Osasun arretaren funtzioa**: funtzio horretan, bi prestazio mota sartu behar dira:
  - •Gaixotasunaren ziozko sarrera galera ordezteko eskudiruzko prestazioak.
  - •Osasun arretako prestazioa, prestazioa eragin zuena edozein delarik ere. Irizpide horren arabera, funtzio honetan sartzen da baliaezintasunaren edo amatasunaren ziozko laguntza, baliaezintasunaren edo familiaren ziozkoan sartu beharrean, hurrenez hurren. Langileari enpresan emandako osasun laguntza, aldiz, ez da bildu, prozesu produktiboan beharrezko input dela iritzita; enpresaburuak etekina lortzen du horri esker.

  •**Baliaezintasunaren funtzioan**: bi mota handitan sailka daitezkeen prestazioak biltzen ditu funtzio honek:
  - •Alde batetik, lan jarduera egiteko ezintasunagatiko galera osoa edo zatizkoa dela-eta sarreretan izandako murriztapenaren ordaina onuradunei emateko prestazioak, legerian ezarritakoaren arabera.
  - •Bestalde, errehabilitazio zerbitzuak eta beste batzuk, gaixotasuna/osasun arretaren funtzioan zenbatzen den osasun laguntzakoak izan ezik.

  Garrantzizkoa da zehaztea funtzio honetan soilik zenbatzen direla erretirorako adinera heldu ez diren onuradunek jasotako baliaezintasun-pentsioak. Adin hori gaindituta, zahartzaro funtzioari egozten zaio prestazioa. Era berean, laneko ezintasuneko aldiko prestazio ekonomikoak eta laguntzakoak (legean ezarritako irizpideekin bat etorrita) ez dira hemen sartzen, gaixotasuna/osasun arretaren funtzioan baizik.

  •**Zahartzaroaren funtzioa**: zahartzaroaren ondorioak arintzeko sortutako prestazioen multzo osoa hartzen du, hauexek barne: sarreren galera, ohiko jarduerak egiteko autonomiaren galera edo gizarte jardueraren murriztapena. Horrenbestez, pentsioak nahiz bestelako laguntza-prestazioak sartzen dira funtzio honetan.

[1] http://www.eustat.eus/estadisticas/tema_94/opt_0/tipo_5/ti_Cuenta_de_la_Proteccion_Social/temas.html

ESSPROS Eskuliburuan (2008) ezarritakoaren arabera, erretiroko eta zahartzaroko pentsioak eta baliaezintasuneko pentsioak biltzen ditu funtzio honek, 65 urte edo gehiago dituztenenak hain zuzen.

•**Bizirik dirautenen funtzioa.** funtzio honetan, senideren bat edo haien euskarri ekonomiko nagusia zen pertsona galdu duten pertsonei emandako prestazio ekonomiko guztiak biltzen dira. ESSPROS Eskuliburuan (2008) ezarritakoaren arabera, bizirik irauteari dagozkion pentsio guztiak biltzen ditu. Era berean, heriotzak eragindako zamak estaltzeko zenbait konpentsazio biltzen dira, hala nola hiletak eragindako gastuak.

•**Familia / seme-alabak funtzioa**: seme-alaben jaiotzak eta hazkuntzak dakarten zama arintzeko eta familiako beste kide batzuk mantentzeko familiei emandako diru-laguntzak sartzen ditu. Erditu baino lehen edota ondoren emakume langileen errentari eustea sartzen da funtzio honetan.
Halaber, familia eta bereziki seme-alabak babesteko erabilitako gizarte zerbitzu guztiak sartzen dira funtzio honetan, hala nola zentro espezializatuetan edo etxe partikularretan ostatua ematea, edota haurtzaindegiko zerbitzuak.

•**Langabeziaren funtzioa**: SEEPROS Eskuliburuan (1996) funtzio hau biltzen da, enplegu politiketako ohiko sailkapenaren arabera, alde batetik, neurri pasiboak, hots, ordaindutako lanik ez izatearen ondorioak arintzeko direnak -bereziki nahikoa sarrera-iturria ez izatearen ondoriozkoa- eta, bestetik, neurri aktiboak, langabeziaren prebentziorako edo murriztekoak direnak.
Hortaz, honako hauek osatzen dute funtzio hau: langabezia subsidioak (partziala edo osoa), bizirik irauteko errentak edo erretiro aurreratuko pentsioak, betiere erretiroa hartzeko zioa lan-merkatuaren egoera bada, baina lanbide heziketako subsidioak eta onuradunaren egungo eta geroko enplegu posibilitateak hobetzeko era guztietako laguntzak eta prestazioak ere sartzen dira. Horrez gain, Gizarte Segurantzarako kotizazioak zenbatzen dira, INEMek bere karguan dauden langabetuei zenbait onura jasotzea ziurtatzeko eginikoak hain zuzen ere.

•**Etxebizitzaren funtzioa**: kasu honetan, etxebizitza gastuei aurre egiteko emandako laguntzak dira. Etxean bizi direnentzako laguntzak dira, etxebizitzaren jabeak izan nahiz alokairuan izan, eta ez eraikitzaileentzat edo beren etxebizitzetan bizi ez diren jabeentzat. Laguntzak, funtsean, alokairuen kostuak gutxitzeko edo hipoteken interesen ordainketak egiteko transferentzia arruntak izan ohi dira laguntzak emateko erak.
Aurreko edizioen aldean, edizio honetako funtzio honetan Eusko Jaurlaritzak etxebizitzaren arloan dituen eskumenak betetzearen ziozko gastuak sartzen dira. Ildo horretan, aldatu egin da serie osoa, emaitzek denboraren aldetik duten homogeneotasunari eusteko. Metodologia dela-eta, etxebizitza erosten dutenentzako mesedegarriak diren zuzeneko diru-laguntzen eta interesen subsidioen ondoriozko zenbatekoak zenbatu dira soilik, baita alokairurako etxebizitza sustatzen eta erosten dutenentzako laguntzak ere.

•**Beste inon sailkatu ez diren Gizarte Bazterkeriaren funtzioa**: funtzio honek garrantzi txikia du SEEPROS Eskuliburuan (1996) planteatzen den funtzio-eskemaren barruan. Beste ezein funtziotan sartzen ez diren eta arriskuekin eta beharrekin lotuta dauden prestazioak biltzen dira. Prestazioen serie heterogeneoa dakar funtzioak, jakina, eta horren ezaugarri nagusia diru-baliabide urriarekin lotutako gizarte bazterkeria ekiditeko edo zelanbait arintzeko ahaleginak egitea da, edo osasunaren, hezkuntzaren edo enpleguaren inguruko arazoetan.

Bestalde, hona hemen **sistemak eta sistema-taldeak Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Babeseko Kontuan**:

•**Gizarte Segurantzako sistema**. Gizarte Segurantzako erregimenek osatzen dute. Erregimen horiek kudeatzen dituzte Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak, Itsasoko Gizarte Institutuak eta laneko istripuen eta gaixotasun profesionalen mutualitateek.

Sistema espezifiko honetan, gizarte segurantzaren familia-babesa biltzen da. Gizarte Segurantzaren Konpentsazio-funtsa fikziozko sistema da, transferentzia-konpentsazio gisa dihardu gizarte segurantzan superabita eta defizita duten araubideen artean. Izan ere, araubide horietan bana ezin daitezkeen gastuak eta sarrerak egoztean zaizkio sistema horri.

•**Enpleguko Nazio Erakundea:** talde independentea da, berez, eta langabeziaren zizoko gizarte babesean duen garrantziagatik nabarmentzen da.

•**Funtzionario publikoen araubideak:** epigrafe honetan, Funtzionario Publikoen Araubide Bereziaren menpeko gizarte babesaren horniduraren gaineko gastuak eta diru-sarrerak biltzen dira. Honako hauek jasotzen ditu: oinarrizko prestazioak edo klase pasiboen araubidea eta epealdian indarrean dauden funtzionarioen hiru mutualitatek ordaindutako administrazioko mutualismoari dagozkionak, hots, Estatuko Funtzionario Zibilen Mutualitatea (MUFACE), Indar Armatuen Gizarte Erakundea (ISFAS) eta Mutualitate Orokor Judiziala (MUGEJU). Horrez gain, herri administrazioek soldatak eta ordainsariak mantentzeko kontzeptuan ordaindutako diru-kopuruen zenbatespena sartzen da talde honetan langileei eragiten dieten aldi baterako ezintasunari eta amatasunari dagozkien kasuetan.

•**Gizarte Babeseko beste sistema batzuk:** askotariko sistemek eta erakundeek emandako gizarte babesak hartzen duen hondarra da, eta hori dela-eta, talderik heterogeneoena da. Hona hemen biltzen dituen sistemarik garrantzitsuenak:

•**Osasun sistema publikoa:** euskal administrazioen jarduketak biltzen ditu, osasunaren arloan dituzten eskumenak direla bide.

•**Gizarte zerbitzuen sistema publikoa:** EAEko administrazioko maila ezberdinek gizarte zerbitzuen arloan dituzten erantzukizunak biltzen ditu.

Langileek enplegatzaileengandik zuzenean jasotzen dituzten prestazioak, bi sistematan banatuak prestazioen nahitaezkotasunaren arabera.

•**Segurantza fenomenoak**: gizarte aseguruaren definizioari dagokio, Kontuen Europako Sistema arabera (SEC-95); bereziki Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeen (BGAE) jarduketaren zati bat, horrela katalogatu daitekeena.

•**Herri erakundeen egintza:** helburu espezifikoa du gizarte babesaren arloan, hala nola Soldatak Bermatzeko Funtsa (FOGASA).

•**Irabazteko asmorik gabeko erakunde pribatuen jarduketa,** gizarte zerbitzuen arlokoa.